

Egungo Euskararen Hiztegia

—U—

[bertsioa: 2024-01-09]

uahabi ik **wahabi**.

uahabismo ik **wahabismo**.

uahabita ik **wahabita**.

uata iz kotoi harroa, zauriak garbitzeko eta aulki, soineko eta kidekoetan betegarri gisa erabiltzen dena.

Bere tximino formako burua **uatazko** forruan ezkutatu du, hitzik esan gabe. **Itziar Otegi**

ubarroi iz itsas hegian bizi den hegaztia, lumadi ilunekoa, ahatea bano handiagoa, murgilari ona dena (*Phalacrocorax sp.*)

Antxetak, petrelak, **ubarroiak**. **Joseba Sarrionandia**

Ubarroi edo karrabaso hura, esaterako, Saddam Husseinek petrolio putzuei su eman eta lumak olio beltzez zapuztuta erakutsi zitzaiguna. **Iñigo Aranbarri**

Ubarroiak ausartak dira eta uxatzea ez da erraza izango. **Joseba Sarrionandia**

Ubarroi saldo batek brankaren aurretik egin zuen aldi berean. **Edorta Jimenez**

Miru gorriak, nonahi; **ubarroi** talde bat; arrano beltzak, lau; eta ugatza. **Berria - Euskal Herria**

'**Ubarroiaren** gibela gozoa da benetan,' esanen du sukaldariak, abisu antzera. **Joseba Sarrionandia**

Baleak ere han urrun ugari pasatuko dira, eta **ubarroiek** zenbait ezinezko saldotan alde egingo dute airetik iparralderantz. **Joseba Sarrionandia**

ubel 1 *izond* kolpe baten edo hotz handiaren ondorioz larruzalak hartzen duen kolorekoa. **ikmore**.

Argizaria bezain zuri, nire aurpegia, [...] zain **ubelez** zeharkatua, gorpu batena bezain nardagarria. **Joxe Austin Arrieta**

Maddik orduan, presaka, atorra irekiz bularrak askatzen zituen eta niniaren ahoa esnez hantu titi **ubeletan** pausatzen zuen amultsuki. **Itxaro Borda**

Bugainbilearen lore zurixka eta **ubelak** ikusten dira, eta kaktusak. **Joseba Sarrionandia**

Goizalbare lehene argi **ubelak**. **Anjel Lertxundi**

Eguzkiarekin batean jaiki eta mendi **ubeletan** iltzatzen ditu begiak. **Xabier Montoia**

Berunezko hodei **ubelak**. **Aurelia Arkotxa**

Bularreko negal eta mantxa gorri eta **ubelak**. **Bernardo Atxaga**

Atorra **ubela**, biziki 'tendance', zapata berriak... **Ramuntxo Etxeberri**

Tinta **ubelaren** antzeko orbanak. **Joxe Austin Arrieta**

Ikasle guztiek generaman [...] haren esku gogorren oroigarri **ubelen** bat besoetan edo kaskoan. **Aingeru Epaltza**

Arratsalde jakin bateko nagitasun **ubelak** halako hiria dakarkit gogora. **Anjel Lertxundi**

Petxua **ubel-ubel** egin arte, *mea culpa*. **Karlos Linazasoro**

Ganbarako beirateaz beste aldean, egun berria bazetorrela iragartzen zuen ortziaren **ubel** koloreak. **Edorta Jimenez**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Matelondan luzitzen nituen gerla-pintura **ubel** -gorriek azalpenen bat eskatzen zuten. **Aingeru Epaltza**

Poternako baratzea argizatzen zuen zeru **ubel** -gorrira altxatu zuen soa. **Itxaro Borda**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gu hara iristen ari ginen uneantxe ari zen halako txoritzar beltz-**ubel** saldo oso bat errai-multzo bati tiraka. **Joxe Austin Arrieta**

Neonezko argiaren eragina, suposatu nuen, eta eskuok lehortu nituen, hauek ere horiska-**ubelak**, orobat. **Joxe Austin Arrieta**

Arestiko zurbiltasuna ezabatua aurpegia gorri **ubela** zeukala. **Migel Angel Mintegi**

Urdin-**ubel** kolorezko laino eder batek halako kapelu bat osatzen zuen eraikuntzen gainetik. **Ramuntxo Etxeberri**

Aurpegi txikian begi bizi-hezeak, ezpain fin-**ubelak**, ile apurrak atzeraka orraztuak. **Pablo Sastre**

4 (adizlagun gisa)

Hodeiak **ubel** zeuden muino urdinxken gainean eta zerua purpura kolorekoa. **Urtzi Urrutikoetxea**

Azazkalak **ubel**, besoak arre, eskuak zurixka, belakien kolore... **Joxe Austin Arrieta**

Erorita zeukan begitartea, begi-hondoak **ubel**. **Anjel Lertxundi**

Zaplaztekorik ez, esan zuen, ukabilkoa, kokotsa **ubel-ubela** utzi ziona. **Karlos Zabala**

5 (izen gisa —en atzizkiaren eskuinean)

Ega ibarretik, eta atzerago Urederraren arrotik, Bargagorri eta Lazkuako harkaitzen atzetik, ilunabarraren **ubela** zetorkidan gainera ezari-ezarian. **Txillardeggi**

• 6 iz larruzalean kolpe baten edo hotzaren ondorioz gertatzen den orban ubela. **ikubeldu**².

Gauza asko hautsirik, barneko zauriak, hemorragia, **ubelak**, urratuak, denetik, eta biek zuten garuneko xoka. **Koro Navarro**

Behin odola garbituta, makilakaden **ubelak** besterik ez zituan geratzen. **Josu Zabaleta**

Azken hauek baieztatu dute zaindarien jipoiu zutela zigor ziegan sartzerakoan eta **ubelak** dituela behaztetan, besoan eta buruan. **Berria - Euskal Herria**

Biziagotu egin zen **ubel** hura, erabat ilundu arte. **Joxan Elozegi**

Neskaren begitarteko **ubelak** zenbatzen ahal nituen, **ubelak** eta odol idorra zerien urrakoak. **Itxaro Borda**

Elementia opakua, erretoena, **ubelena** eta **ubel** bikoitza, ihi xeheena. **Xabier Olarra**

7 ubel-kolore izond

Tolosako Juanek utzia zidan ganbarako beirateaz beste aldean, egun berria bazetorrela iragartzen zuen ortziaren **ubel koloreak**. **Edorta Jimenez**
Gilderoy Lockhart agertu zen oholztan, aran **ubel-kolorez** jantzita distiratsu, eta laguntzaile gisa Snape bera zuela, hau ohi bezala beltzez jantzita. **Iñaki Mendiguren**
Hodeiak, **ubel kolore**, gehi soldagailuaren garraren ukitu urdinska. **Joxe Austin Arrieta**

ubeldu¹, ubel(du), ubeltzen (orobat uheldu g.er.) 1 da/du ad kolore ubela hartu edo eman, eskuarki larruazalaren zati batek. ik **uspeldu**.

Sokak zintzurra tinkatu arau hanpatzen eta **ubeltzen** zen kondenuatua bisaia. **Aingeru Epaltza**
"Bir" delako hori gomazko zerranda bat zen, gaixo zegoen behatzari estu-estu lotzen zitzaiona behatza **ubeltzen** zen arte. **Fernando Rey**
Ezpainak **ubeldu** egiten zitzaizkion, eskuak dardaran hasten. **Fernando Rey**
Haginak zuritu eta mihia **ubelduko** zaizkio. **Joseba Sarrionandia**
Berehala **ubeldu** zitzaidan. **Ramon Saizarbitoria**
Besoa **ubeldua** nuen ezpatakada batez. **Aingeru Epaltza**
Betondoak arrunt **ubelduak** zituen. **Jon Muñoz**
Ipurmasailak **ubelduak** dauzkadala ikusi ahal izan dut. **Agurtzane Juanena**
Maianak azietak erortzen eta hausten entzuten zituen, gorputzak **ubeltzen** zituzten ukabila kasken oihar elkorrak. **Itxaro Borda**
Musu eman nion, **ubelduta** ez zeukan leku bakanetako batean. **Juan Kruz Igerabide**
Ohean zegoen nire maistra, aurpegia **ubelduta**, begi bat oso-oso puztuta. **Juan Kruz Igerabide**
Argazkietan, **ubeldutako** gorputz biluzia ospitaleko ohe gainean etzanda. **Iñigo Aranbarri**

2 irud/hed

Euskal txirindularitza **ubelduta** dago, aspaldian jaso dituen kolperik latzenak eta kupidagabeenak jaso zituen atzo. **Berria - Kirola**

3 (era burutua izenondo gisa)

Orduan Arianek ezpain **ubelduak** eskainiko zizkion musua emateko. **Joseba Sarrionandia**
Nekea antzematen zaio betazal **ubelduen** atzean. **Jokin Muñoz**
Musu eman nion lepoan, non baitzuen azote baten aztarna **ubeldua**. **Joan Mari Irigoien**
Andresaren bisaia **ubeldua** nire aldera bihurtu zen. **Aingeru Epaltza**
Sudurra atzaparkatua, belarria urratua, masaila **ubeldua**, galtzak apurtuak, horra Max jangela-egongelako atea bultzatzen. **Jon Muñoz**

ubeldu² 1 iz larruazalean kolpe baten edo hotzaren ondorioz gertatzen den orban ubela. ikubel 6.

Adinekoek zauriak, **ubelduak**, hausturak, urradurak, buru edo aurpegiko lesioak, erredurak edo harramazkak izaten dituzte. **Berria - Euskal Herria**
Uste dut **ubelduak** edo beltzuek bilatu nahi dituela. **Juan Martin Elexpuru**
Emakumeak lepoan zituen **ubeldu** batzuk seinalatatu ziren. **Josu Zabaleta**
Anak **ubelduak** zeuzkan gorputz osoan, baina laster oneratu zen. **Juan Kruz Igerabide**
Ubelduak nituen matrailetan eta kokotsean. **Fernando Rey**
Koadroetako gorputz haien azalean gauza asko falta ziren, dudarik gabe: ez zeukaten mailaturik, ez eta **ubeldurik**, hozkarik edo zitzadarik ere. **Bernardo Atxaga**
Ez garatxo bat, ez mantxa bat, ez **ubeldu** bat. **Bernardo Atxaga**
Lotsaturik, bere hankako **ubelduari** begira atzeman ninduela ohartu nintzen. **Alberto Ladron Arana**
Seguru asko, nire begiko **ubeldua** froga bat irudituko zitzaien. **Bernardo Atxaga**
Atzaparka egiten zidan edo **ubelduak** egiteko moduko alimaleko zapladak. Zirkulu biribila bilakatu zen **ubeldua**, arrosa ilun-iluna. Ez zen batere erraza izaten hortxe, eskuinaldeko bularraren juxtu goitiko aldean, neukan **ubeldua** ezkutatzea. **Fernando Rey**
Biharamunean aurkitu ninduten, dena **ubeldu** eta zauri, nire bila irtendako adiskide batzuek. **Anjel Lertxundi**

2 (izenondoekin)

Ezkerreko begiaren inguruan **ubeldu** zurbil bat ari zitzaion zabaltzen Blacki, eta sudurretik odola zerion. **Iñaki Mendiguren**
Dakiena da galdeketa egin eta gero ostera zintzilik eta buruz behera jartzen duten gorputz gazteak **ubeldu** beltzak dituela bistan dituen gorputz-atal guztietan. **Anjel Lertxundi**

3 (hitz elkartuetan)

Osaba Vernon geldi geratu zen, artean ukabila altxatuta, aurpegia **ubeldu**-kolorez itsusitua zuela. **Iñaki Mendiguren**
- Banekien iluntasun hura, odol **ubelduaren** kolorekoa, han urrunean zebilen haizearen abisua zena. **Edorta Jimenez**

ubeldura 1 iz ubela, ubeldua.

Zauriak eta **ubeldurak** non nituen. **Itxaro Borda**
Emakumeak gorputz osoan **ubeldurak** zituen. **Berria - Euskal Herria**
Ubeldurak zeuzkan ezpainetan eta izterretan. **Berria - Euskal Herria**
Hurbilegi ordea betondoetako **ubeldurak** ez nabaritzeko. **Koldo Izagirre**
Jatorri ezezaguneko **ubeldurak**. **Hasier Etxeberria**
Andreak asko sufritzen zuen [...] olgetan mailaturiko mutikoengan **ubeldurak** ikusten zituenean. **Joseba Sarrionandia**
Urdina, kolpeengatik sorturiko **ubelduren** ondorioz. **Isabel Arrigain**
Sekulako ukaldiak hartu zituzten saihetsetan eta **ubelduraz** josirik geratu zitzaizen gorputz osoa. **Jose Morales**
Betaurreko gotorrak, batetik, eta aurpegi **ubelduraz** apaindua, bertzetik. **Aingeru Epaltza**

2 (hitz elkartuetan)

Gogorkeri arrastoak, **ubeldurak**, arramaskak. **Aingeru Epaltza**
Bi gaixori egin diet bi aldeetan eta bati alde batean, eta ez da inolako okerrik izan, bietako batean gertatu den begi-**ubeldura** handi bat izan ezik. **Xabier Olarra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ubeldura ugari (3)

ubeldurak ditu (3); **ubeldurak zituela** (3); **ubeldurak zituen** (3)

ubelduraz beteta (3)

ubeltasun iz ubela denaren nolokotasuna.

Ilunabarreko **ubeltasunean** hondoratzen ari da uharte handia. **Aurelia Arkotxa**

ubelune iz ubela, ubeldua.

Betiriri azala orbanetz eta **ubelunez** bete zitzaion. **Joan Mari Irigoien**

Zitaden eraginagatik, **ubelunez** josiak zituen Emmanuelek besoak ordurako. **Joan Mari Irigoien**

Gaizkiaren damua iradokiko du Aitarenak, mendekua Ugazalabarenak, erdeinua Semearenak, oinazea Amarenak, begi-zuloetako **ubeluneetan** eta masailetan behera argizarizko tantak erantsita, elizetako Ama Doloretakoaren irudi margotuek izan ohi dituzten bezala. **Josu Zabaleta**

ubera 1 iz itsasontzi batek uretan uzten duen arrastoa.

Libertè, Égalitè, fraternitè inskripzioa zuen petakak, eta hitz haien ondoan, itsasoan **ubera** utziz zihoan belaontzi baten grabatua. **Harkaitz Cano**

Txalupa bakoitzak uzten du bere **ubera** badian, eta esan liteke izei bana daramatela atoian, adarrak oro zilar. **Koldo Izagirre**

Haren **uberan** *Galema* bakailaontzia zetorren, lehortegien flotakoa, bandera faxistarekin. **Koldo Izagirre**

Chargeux Reunis konpainiako *Croix* itsasontziaren **ubera** atzean uzten ari da Europa eta gerra hotsak. **Anjel Lertxundi**

Hala ere, sinetsiezadazu, arrantzako kabotajeko zamako trasatlantiko guztien tutuak ozentzen dira behin eta berriz neure gogoan, ortzimugaz haraindian gorde den baforearen **uberak** gure begietan irakiten jarraitzen duen bezain luzaz... **Koldo Izagirre**

2 irud/hed

Nik ez nekien putz egiten ez eragiten baina, musikari plantan azaldu nintzen Bristol-en Andoni Olabe lagun nuela edo, zuzen esanda, haren **uberan**. **Koldo Izagirre**

Odessako portutik zuzenean etorria zen Potiomkin hark iraultzaren oihartzuna zekarkigun, **ubera**, baina ez ziguten armarik eskuratzen ahal. **Koldo Izagirre**

Ontzi honek, haatik, iraultzaren **ubera** darama bazterrik bazter munduko itsasoetan. **Koldo Izagirre**

Halako traizio bat bezala bizi du patu saihetsezin hori, etsita murgiltzen da aitak utzitako **uberan**, haren erantzukizunak begietan lehertzen zaizkio hoteletako ispiluetan bere aurpegiari so egitean. **Harkaitz Cano**

3 (hitz elkartuetan)

Bidaiaizean, gure lorratza uzten al goaz, itsasoan ontzi **ubera** bezala? **Ana Urkiza**

4 ibia.

Estuarioa Praça dos Restauradores pareko **uberatik** zeharkatzen du, marea behera dagoela aprobetxatuz. **Jon Alonso**

Mogueimek ezin dezake estuarioko bigarren adarra **uberatik** pasa, ez eta marea behera egonik ere, sakonagoa baita. **Jon Alonso**

uberka iz ura doan bidea.

Gizonak ez dira etorri gaur merkatura, lanpeturik baitaude ildoak hausten urak beste **uberkarik** bila dezan eta milpa erne berria berekin eraman ez dezan. **Juan Garzia**

uberro iz uharra.

Hori, eta **uberro** lekedazua izter artean hedatzen ari. **Aingeru Epaltza**

ubi ik ibi.

ubide (orobat urbide g.er.) 1 iz urak joateko bidea, gizakiak egin. ik erreten; itsasarte.

Urtegioko horma nagusia, bigarren horma, Nafarroako **ubiderako** sarrera eta haren lehenengo hiru kilometroak egiteko, 235 milioi euroko inbertsioa egin behar izan du Espainiako Gobernuak. **Edurne Elizondo**

Tausteko **ubideak** uraren % 30 galtzen du, obra zaharra delako. **Berria - Harian**

Panamako **ubidearen** auzian. **Iñigo Aranbarri**

181 kilometro luze izanen da **ubidea**, obrak amaituta. **Edurne Elizondo**

Aurrera jarraitu zuen Scotten gabarra **ubidean** atrakaturik zegoen lekuraino. **Joxemari Iturralde**

Bisigodoen legeak ibaien **ubide**-erdia hartzen uzten zien partikularrei, baldin eta beste erdia sare eta ontzientzat libre geratzen bazen. **Iñaki Iñurrieta**

Hango **ubideak** eta hango zubiak, hango gondolak, hango piazzak. **Joan Mari Irigoien**

Ubidearen zoruak izan beza gutxienez ehun oin bakoitzeko oin-erdi bateko malda. **Santiago Iruretagoiena**

Zurezko bi zubi dauzka, pilote gainean eraikiak, **ubidearen** zabalera osoa nabigaziorako libre uzteko moduan jarriak. **Karlos Zabala**

Tutuz egindako **ubideek** abantaila hauek dituzte: [...]. **Santiago Iruretagoiena**

Horra nire **ubidea** ibai bihurtua eta ibaiaren itsaso. **Elizen arteko biblia**

Karrika estua eta harresipekoa zen, ibai bat **ubidean** nola, harlanduzko zorua zuena. **Felipe Juaristi**

Gorpuak zakuetan bildu eta herri erditik igarotzen den **ubidera** jaurti zituzten. **Gotzon Garate**

Ubide eta ibai-bazter guztietan gainez egingo du urak. **Elizen arteko biblia**

Osinetik sortuz, lur azpiko **ubide** batetik zehar ibiliz zazpi ibaien urek itsasoa ukituko zuten. **Felipe Juaristi**

Tom Hanks bera ere izango da **ubideen** hirian; filmaren aurkezpenean parte hartuko du. **Berria - Kultura**

Ubidearen Jarraipen Batzordearen bilera. **Berria - Euskal Herria**

2 ur laster baten ibilbidea.

Marea behera zegoela eta, argi ikus zitekeen **ubidea** sigi-sagaka, hareatza zabalak eta uharte arrokatsuak saihesten. **Joanes Urkixo**

Himalaya eta Tibeteko mendilerroetatik datozen errekaetako **ubideak** aldatzea ere aukera bat dela uste du Pekingo gobernuak. **Berria - Gaiak**

Urak sekulako abiada hartzen zuen harri eta sastraken arteko **ubide** estuan behera. **Anjel Lertxundi**

Bidaiairen amaiera aldera inguratzen ari ziren, Aiaran bertan jaiotzen zen Nerbio ibaiaren **ubideari** jarraituz. **Joanes Urkixo**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Urak zazpi urtegitan itxiak zituztenean, zazpi **ubide** berri egin zituzten langileek holandarraren zuzendaritzapean. Errekaren **ubide** lehorrera jaitsi zen. **Felipe Juaristi**

Aldapa leunean behera iparraldera zihoazen, eta hondoan erreka baten **ubide** lehor eta kiskalia igarotzen zen. **Agustin Otsoa**

Marea berriak irakiten zuen orduan **ubide** sakonetan. **Agustin Otsoa**

Ibai eta **ubide** zabalake lurraldea izango da; baina etsaien arraun-txaluparik ez da handik igaroko, ez ontzi handirik bertan ibiliko. **Elizen arteko biblia**

Herbert Raas, Iparreko itsaso hotza eta Netherlandeko **ubide** lasaietako ur bareak utzita Timorreko irlara etorri zenean, [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Ubide harritsuaren beste aldean, bidezidor oso erabilia ikusi zuten, mendebaldeko haitzen oinaldean sigi-saga. Agustin Otsoa

Ibai bakoitza bideratzeko kobrezko **ubide** bana egin zuten osinean, estutuz zihoana. Felipe Juaristi

Itzuli egiten dira ureztatzeko **ubide** bati jarraituz. Oskar Arana

Erreka bera geratzen zaie, **ubide** nagusia: «nagusia, itsasadarraren beraren ardatza delako, baina baita kutsadurarik gehiena hor batzen delako ere». Beria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Goiko urtegiko **ubide** -muturrean, oihal-garbitzailearen sororako bidean, aurkituko duzu. Elizen arteko biblia

Beltzak dira hiriko urak, ustel usaina darie, Baltikoan hartutako sardinatzarraren biltegiek **ubide** ertzetako moiletara jotzen baitute. Felipe Juaristi

Jebustarrei eraso nahi dieten guztiak sar daitezela **ubide** -zulotik, David gutxiesten duten itsu eta herren horiengana! Elizen arteko biblia

Ubide -kate hori inoiz ez zen bat etorri muga politikoko batekin giza historiaren hasieratik lan hau idazten ari naizen garairaino. Iñaki Mendiguren

5 irud/hed

1909an, Louis Blériotek Manchako **Ubidea** gurutzatu zuen hegazkinez. Pello Salaburu

Danubio sarea bezalakoa izan da beti: ekonomia eta kultura garraiatzeko balio izan du, benetako **ubidea** izan da. Beria - Kultura

Ni **ubidea** naiz, ibaitik ura hartu eta baratzerara daramana. Elizen arteko biblia

Oihu bat bertze bati zerraion, eta haiek, noiz eta tristeak baitziren, sufrimenduaren **ubideetarik** eramanak ziruditen, eta, noiz eta alegerak baitziren, munduaren bizigogotik.

Joan Mari Irigoien

Energia sortzaile hori, erlijiozko babespean, **ubide** sekularretara isurtzen ikusten dugu gizarte-bizitzako ekonomia, politika eta kulturaren mailan. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ubide ondoan (3)

nafarroako ubidea (24); **nafarroako ubidea egiteko** (4)

ubideak egin (3)

nafarroako ubidearen (27); **ubidearen ertzetik** (3); **ubidearen hirugarren zatiko** (18); **ubidearen inguruko** (4); **ubidearen jarraipen** (3)

nafarroako ubideari (4)

ubideetako eta portuetako (5)

ubideetan zehar (3)

nafarroako ubideko (10); **ubideko lanak** (3); **ubideko lanen** (3); **ubideko obrei** (4); **ubideko obren** (5)

nafarroako ubiderako sarrera (3)

ubidear *izlag/iz* Ubideakoa, Ubideari dagokiona; Ubideako biztanlea.

Zornotzako *Jaungoiko-Zale* elkarteak Ibartgutxi **ubidearraren** hitzaurreaz bildu zituen lehen liburuki baten *Uzkurtz gaiak* (1933). Beria - Kultura

ubidegune *iz* ubidea dagoen gunea.

Ubidegunea non zegoen egiaztatu ondoren, zuzenean hartu zuen Camden Lockerako kalea. Joxemari Iturralde

ubideratu, ubidera(tu), ubideratzen du *ad* ur laster bati ubidea egin.

Eibarko Matsaria erreka **ubideratzeko** eta Pasaiaiko saihebsidearen berrantolaketa urbanistikoa egiteko. Beria - Euskal Herria

Urumea ibaia **ubideratzen** dute. Askoren artean

ubidetxo *iz* ubide txikia.

Malkoak masailetan behera erortzen zitzaizkion, azal gaineko pinturan **ubidetxoak** zabalduz. Joan Mari Irigoien

Entzunda daukazu aspaldian jendeak leihoetatik botatzen zituela zikinkeria guztiak, txiza eta abarrak, kaleko **ubidetxotik** joan zitezen. Sonia Gonzalez

ubikitina *iz*

Proteinen ezabatzea **ubikitina** izeneko molekula batek eragiten zuela jakinarazi zuten haiek. Beria - Gaiak

Ubikitina molekula proteina bat da berez, baina badu ezaugarri bat: beste edozein proteinari josi dakiokela. Beria - Gaiak

Ubikitinaz markatutako proteinak deuseztatzen dituzte zelulek. Beria - Gaiak

Gaixotasun larriak lepoko edo zerbikaletako minbizia eta sistifibrosia kasu ere sor daitezke **ubikitinaren** zikloan izaten diren akatsengatik. Beria - Gaiak

ubikuitate *iz* nonahikotasuna. ik **ubikuotasun**.

Ipar eta hegoaren kontu honekin nabilela, hara non ematen didan, nahi gabe, ikasle batek **ubikuitateari** buruzko gogoetak merezi duen bigarren atala. Iñigo Aranbarri

Ubikuitatearen eta omnipresentziaren arteko bereizketa inportante hau ez zegoen garbi Erdi Aroko Elizarentzat, eta horrek odol asko isurarazi zuen. Xabier Olarra

ubikuo *izond* nonahikoa.

Erraz esateak ez du adierazi nahi erraz ulertzekoa denik: Nemesio Indaburu adiskidea **ubikuo** da, gizaki nonahikoa. Karlos Linazasoro

Geuk ere, **ubikuoak** ez garen gizakiok, galdera transzendenteak egiten dizkiogu geure buruari noizean behin, oso noizean behin. Karlos Linazasoro

Lehen Jainkoaren gainean esaten zirenak esaten dira orain Espainiari buruz: transzendenteak, zatiezinak, **ubikuoak** ei dira bi-biak. Markos Zapiain

ubikuotasun *iz* nonahikotasuna. ik **ubikuitate**.

Ubikuotasunaren dohaina du, desarauzko fenomeno horri atzetik dohain substantiboa ipini zionak zer esaten zuen ez bazekien ere, zalantzarik gabe. Karlos Linazasoro

ubilada iz

Gure aiekari esaten den moduan, **ubiladak** egiten ezkutatu nintzen jende artean. **Koldo Izagirre**

ubileria iz erreuma, hezueria.

Haize-lasterrek eta soinekorik ezak, **ubileria** (erreumatismoa) ugaritu dute atxilotuen artean, bai eta idorberia (bular-galtzea) ere. **Jokin Urain**

ubula iz aho gingila.

Sabai bigunaren azkenean, eztarrirantz zintzilik dagoen luzakinari deitzen zaio aho gingil edo **ubula**. **Lourdes Oñederra**

Beste adibide bat: *r > p* esaten badut, *r*-ren itxiera egin ondoren, **ubularekin** *r* irekitzaile bat artikulatu behar nuke, *p*-ren leherpena ezpainetan gauzaten den bitartean.

Isabel Arrigain

Dardarkari ubularretan bakarrik esan daiteke **ubula** artikulatzaile aktiboa dela. **Lourdes Oñederra**

ubular izond aho gingilarena, aho gingilari dagokiona.

Hots **ubularren** izenaren iturria aho-gingilaren latinezko *uvula* deituran da, noski. **Lourdes Oñederra**

Berez, ez euskaraz ez gaztelaniaz ez dago hots **ubularrik**. **Lourdes Oñederra**

Arrunta baita gure artean dardarkari hobikariaren orde, dardarkari **ubularra** egiten duten hiztunen kasua. **Lourdes Oñederra**

Frantsesezko dardarkaria, "r" idazten dena alegia, **ubularra** da. **Lourdes Oñederra**

Frantsesez *r* **ubularra** ahoskatzea baldin bada ohiko erabilera, halere, hiztun batzuek *r* apiko-albeolarra ahoskatzen dute. **Isabel Arrigain**

uda 1 iz lau urtarotetan beroena, udaberriaren ondotik datorrena, hedatzen dena Lurraren iparraldean ekainaren 21 edo 22tik irailaren 22 edo 23ra, eta Lurraren hegoaldean abenduaren 21 edo 22tik martxoaren 20 edo 21era.

Iragan nuen udaberria, iragan nituen **uda** eta udazkena, eta orain neguan nago. **Joan Mari Irigoien**

Urte hartako udaberria joan zen, eta haren ondotik **udak** ere bide berari ekin zion. **Bernardo Atxaga**

Udan sartzeko beste hiru aste falta direnean. **Pello Zabala**

Uda ala negu, egunero, gauza bera egiten zuen. **Daniel Landart**

Negu zein **uda**, bere gelatxo ziztrinean sartuta, une batez ere lisatzeari utzi gabe. **Josu Zabaleta**

43ko **uda** zen. **Fernando Rey**

2003ko **udan** 2,5 metro galdu zuten altueran Alpeetako glaziarrek. **Berria - Gaiak**

Elkarren antzeko gizon gazteak ziren Juan Duñabeitia eta Ernest Hemingway 1914ko **uda** hartan. **Edorta Jimenez**

Kruz Lete Sarasola izan zela 1931 hartako **udatik** aurrera Anduaga esaten dioten bazterrean Ama Birjina ikusi zutenetako bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hamarkada honetako **udak** azken 500 urteetako beroenak izan dira, adituen arabera. **Berria - Gaiak**

Uda batean, gure lagunartean jostaleku nagusira etorri zen, *Alaska* izeneko hotelera, eta hantxe ezagutu nuen nik, artean hutsik zegoen areto batean. **Bernardo Atxaga**

Egun batean - **uda** zen eta bero zakarra egiten zuen- Lubis eta Pantxo bi anaiek berekin joan nendila eskatu zidaten gauza bat erakutsi nahi zidatelako. **Bernardo Atxaga**

Laster **uda** izango zen. **Koro Navarro**

Uda guztiak mendian ematen genituen, bertan etxe bat alokatzen baikenuen hiru hilabeterako, uztailetik irailera. **Fernando Rey**

Uda iritsi zen, eta kurriloak ez ziren joan. **Felipe Juaristi**

Udak idortutako belazeak. **Jon Alonso**

Uda amaitzera doa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

- **Uda** finitzera utzi ezazu lehenik -erran nion, soa otarrean itzatuz. **Piarres Aintziart**

Uda goxoki iragaiteko ene herritarren artean. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Bata **uda** kantari pasatzen zuena eta bestea lanean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ikasi pikuondoaren irudi honetatik: kimua berritzen eta hostoa zabaltzen zaioneko, badakizue **uda** hurbil dela. **U**

Gauzak gero eta narratsago zeuden, **uda** joan eta **uda** etorri. **Anton Garikano**

Udan, hostoek osorik estaltzen zuten tabako-saila. **Koro Navarro**

Udan eta gainerako opor garaietan. **Mikel Hernandez Abaitua**

Mark Rothkoren erakusketa izango da Guggenheim museoak **udara** eta udazkenara begira eginiko eskaintzaren ardatz nagusia. **Berria - Kultura**

Udako egun luzeetan. **Koro Navarro**

Udako gau izartsua genuen. **Aingeru Epaltza**

Udako arropa poltsa batean sartzen ari nintzen. **Bernardo Atxaga**

Artean mahuka gabeko **udako** soineko loredua zeraman emakume handi batek aurrera egin zuen gu guztion artean. **Urtzi Urrutikoetxea**

Printze zaharraren **udako** etxean ikusitako mirabe haietako bat. **Matías Múgica**

Asteburuetan, **udako** oporretan, gabon oporretan eta ahal zuten guztietan. **Oskar Arana**

-Jauna, joan den **udaz** geroztik ez duzu zeure Dultzane ikusi, ezta nik neure emaztea ere. **Aingeru Epaltza**

Uda atsegín bete-bete bat izan zen beretzat. **Josu Zabaleta**

Uda hura itogarria izan zen. **Josu Zabaleta**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gaugiroa, epela oso, **uda** hurbilaren zantzu. **Txillardegi**

Uda hasiberri hartan nik negu minaren hotza nabaritu nuen neure baitan, eta bakardadearen hotzikara. **Patxi Zubizarreta**

Zalantza han geratu zen bere garunean, **uda** beroetako hauts-izpiak bezala. **Pako Aristi**

Uda gogorra izan da 1937koa Penintsulako mendi, baso eta mortuetan, hiri birrinduetan eta itsaso galduetan, eta ia denean. **Edorta Jimenez**

- **Uda** luzea izan dezagun! -haren topa-hitzak, edariak eskuan izanda. **Aingeru Epaltza**

Baita Bernardo eta VIII anaiek ere, elkarte judu hark oparitutako soingaineko luzeekin, zeinak **uda** gorrian ere janzen zituzten, urratuak baitzituzten trajeak. **Fernando Rey**

Andresek **uda** osoan gogotik ikastea erabaki zuen. **Josu Zabaleta**

Ene maite bihotzekoak, arras **uda** ahaztezina izan da pairatu berri dugun hau. **Patziku Perurena**

Ronen eta bere familiarren argazki bat zen, aurreko **udan** Eguneroko Igarlea-n agertutakoa. **Iñaki Mendiguren**

Aurtengo **uda** behintzat nahiago dut idazten pasa. **Bernardo Atxaga**

Gutziz zuzen ibili zinen Miramar jauregian emandako hitzaldi **uda** -usaineko hartan. **Javi Cillero**

Uda luzea eta astuna iruditu zitzaion.

Josu Zabaleta

Aurtengo **uda** arrunt nahasia dugula.

Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Behin, **uda** egun sargori eta lika batez. **Felipe Juaristi**

Uda -gau oskarbi bat zen; ispilu beltz baten gisa zetzan portua beren oinetan. **Irene Aldasoro**

Uda denboran ere dardaritzen dira leihoko beirak. **Koro Navarro**

Uda -garaia zen, eta gizona Jainkoaren zerbitzariaren atzetik zihoan mendian gora. **Josu Zabaleta**

Uda -sasoiko piku berde zoragarriak jaten. **Jasone Osoro**

Uda hasiera guztietan, haragi fresko eta xamur-xamura, fakultateetako eskortetatik ekarri berria. **Aingeru Epaltza**

Zinez esan dezaket Lizarrak liluratu egin ninduela **uda** amaiera hartan. **Txillardegi**

2002ko **uda** -aurre honetan atera diren liburuen artean deigarriena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Uda hondarreko han izanen gara. **Janbattitt Dirassar**

Bi neskek egunkari-paperezko txanoak eginak zituzten euren **uda** -kapelak estaltzearren. **Lopez de Arana**

Itzalkinek, **uda** -jantziek, lastozko kapelek dir-dir egiten zuten eguzkitan. **Lopez de Arana**

Uda koloreko beso luzeek mahaia laga zuten halabereko paparra bistaratu. **Aingeru Epaltza**

Bere senarra idazkariorde zen garaia gogoratzen zuen, familia osoa **uda** pasa Donibane Lohitzunera joaten zenekoa. **Josu Zabaleta**

· Zuk ezarri dituzu munduaren mugak, zuk moldatu **uda** -neguak. **Elizen arteko biblia**

Ezin izan dute leku gogaikarriagorik aukeratu udaberri-**udako** desfilerako. **Patxi Iturritegi**

4 *uda bete* (orobat *udabete g.er.*)

Garaia ere ez da zaila asmatzen: nire gaitza motxei eta etxean egindako jertse horri erreparatuta, ezin da **uda bete** ez negu gorria izan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Uda bete izatera, uztaila edo abuztua, hotelean mugimendu handia egongo zen. **Bernardo Atxaga**

Nahiz eta neguan iguzkirik ez zen sekula sartzen ibiltokiraino, eta zeldan oraino guttiago, ez eta **uda betean** ere. **Uda betean** goiz txintako argi urratzean pasealdi zoragarria zena ibilaldi luze eta neketsua zen orain, elurretan. **Filipe Bidart**

Kasik **uda betean** bezenbat mugimendu, aroa gisa hartakoa izanez geroz. **Herria**

Haren atzean **uda betean** elurrez zurituriko mendiak. **Juan Garzia**

Uda beteko arratsa egiten zuen egun hartan ere. **Bernardo Atxaga**

Kostalde guzian, aratsalde erditan, 27 grado itzalean, hori kasik **uda beteko** heina da, ez udazken erditakoa. **Herria**

· Arraina ezin zen ekarri **uda bete-bete**, ez zelako egoera onean iristen. **Josu Zabaleta**

Uda beteenean da, baina bide bazterreko belar erre horitzen hasiak beste ezerk ez du erakusten eguzkiaren lana. **Anjel Lertxundi**

5 *uda-giro* (orobat *udagi*)

Uda-giro bare eta argitsu hartan, liluragarri zeuden Urumea ibarreko inguru baketsuak. **Txillardegi**

Zerua garbi zegoen, oroiloak bezain urdin, eta **uda-giroa** sumatzen zen airean. **Iñaki Mendiguren**

Uda giroak kutsatuta edo oporraldien zirimolak harrapatuta. **Berria - Euskal Herria**

Ikasleak behartuta zeuden gaztelu barruan egotera, arreata guztia ikasgaietan jartzen ahaleginduz, **uda-giroko** haize-bolada tentagarriak leihoretatik sartzen ziren bitartean.

Iñaki Mendiguren

6 *uda-leku* ik *udaleku*.

7 *uda ala negu* (12 *agerraldi*, 6 *liburu* eta 5 *artikulutan*; orobat *uda nahiz negu*, 2 *agerraldi*, 2 *liburutan*; *uda zein negu* 3 *agerraldi*, 3 *liburutan*; edo *uda edo negu* 2 *agerraldi*, 2 *liburutan*) *adlag*

Hirira jaisten zenean, **uda ala negu** izan, burutik oinetaraino oihal lodi eta koloredun batez estaltzen zen, mairuen gisara. **Felipe Juaristi**

Ni, aldiz, egunero, **uda ala negu**, iguzki ala euri, hotz ala bero, goizean eta arratsaldean, baietz bai!, promenaderat ateratzen nintzela. **Filipe Bidart**

Sukaldeko leihoa zabalik izaten zuen beti, **uda ala negu**, egun ala gau. **Jon Maia**

Errepidean, **uda nahiz negu**, beti izaten zen Rosatik Guarora zebilen gurdi eta bizikleta joan-etorria. **Josu Zabaleta**

Karrikaz karrika **uda zein negu**, umeak atzetik zituela. **Felipe Juaristi**

Berdin diola, esan dit, **uda edo negu**. **Hasier Etxeberria**

8 *uda eta negu*

Beltzez jantzi ohi zen **uda eta negu**, laburregi geratzen zitzaion traje batekin. **Joxean Agirre**

Ateetatik hurbil, baratze handi hesitu bat dago: hantxe udare, granada, sagar, piku eta olibondoak, **uda eta negu** alez beterik. **Juan Kruz Igerabide**

Uren erdiak Itsaso Hilerantz joango dira, eta beste erdiak Mediterraneoarantz, **uda eta negu**. **Elizen arteko biblia**

Oinutsik zebiltzan **uda eta negu**. **Askoren artean**

9 *uda min* (orobat *udamin*) *uda bete-betea*.

Ez hotzak ez beroak izutzen ez duten agente bakarra, ez negu gorriak ez **uda minak** geldiarazten ez dutena. **Karlos Zabala**

2003ko **uda minak** eragin 15.000 hil aipatu dira. **Berria - Harian**

Udaminaren garai hori zen, abuztuko airea bero-bero puzka dabileneko. **Juan Garzia**

Uda minean gaude, nahiz ez den hain beroa gure eskualdean. **Herria**

Uda minean, eguzkiak azkar berotzen zuelarik, oroz gaineratik gustatzen zitzaizkan haren itzalean errada egotea. **Daniel Landart**

Uda minean eta eguerdiz egin nahi izan zuten behin urte zaharrekoa gure herrian. **Koldo Izagirre**

Bilkuratik etxerakoan behin, **uda minean**, eguna jadanik ekialdetik altxatzen ari zela [...] Donapaleuko merkatuaren paretik pasatu nintzen. **Itxaro Borda**

Behin hola, bidean nintzela, **uda mineko** galerna ari zela kanpoan, beribilez etxerakoan, [...]. **Itxaro Borda**

Uda mineko ilbete txuri-txuria, biribila. **Alberto Barandiaran**

10 *uda parte* (orobat *udaparte g.er.*)

Oporretatik bueltan, **uda partean** egindako irakurketei buruz galdetu zidan apaiz batek. **Anjel Lertxundi**

Han aurkituko zituzten **uda partean** ehizara etorritako inuitak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Hilabete honetan diseinatuko dute eraikuntza, obrak **uda partean** iraganen dira, bastiza prest izanen da iraileko eskola sartzera. **Herria**

Uda partean atsegingarria da berokirik edo paltorik ez jantzea. **Aingeru Epaltza**

Uda partean hirietako turkiarrez gainezka egoten omen dira Itsaso Beltzeko hondartzak. **Jon Arretxe**

Leinuaren sortetxea, **uda partean** bisitatzen zuena, eguraldi bigun eta eramangarri, neguan ez bezala. **Felipe Juaristi**

Lakuaren ondoko bazterrak ikusmiratzen, oso politik baitziren **uda parte** hartan, argi biziz onduak. **Felipe Juaristi**

Oraindik badira natura eta bakardadea maite duten banaka batzuk, eta bertan ematen dute **uda parte**, baina automobila dute denek. **Eskarne Mujika**

Larruzko estalki mardul batek, jaitsi eta erabat itxi daitekeenak, bidaiatzea samurtu eta bigundu egiten du **uda parteko** bero sapetan eta ekaitz gaiztoetan. **Karlos Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aurtengo uda (26); **azken uda** (4)

heldu den uda (4); **helduden uda** (9); **hirugarren uda** (4)

iazko uda (4); ibilintzintz uda (4); joan den uda (6); joan den uda (7)
uda aintzin (10); uda aitzin (6); uda ala negu (12); uda aldean (10); uda aldera (8); uda amaiera (4); uda amaieran (12); uda arte (8); uda aurreko (4); uda aurretik (38); uda baino lehen (37); uda bero (5); uda beroa (7); uda bete bete (8); uda bete (43); uda beteko (8); uda bitartean (14); uda bukaera (5); uda bukatu (4)
uda egun (4); uda erakusketa (22); uda erdian (4); uda eta negu (13); uda eta negua (4); uda eta udazkena (4); uda etorri (5); uda garaia (8); uda garaian (17); uda gau (6); uda giroa (4); uda gogorra (6); uda guzia (5); uda guzian (31); uda guziez (4); uda guziz (12); uda guztia (4); uda guztian (9); uda guzti (4); uda hartan bertan (5); uda hasi (10); uda hasiera (6); uda hasierako (5); uda hasieran (16); uda haste (5); uda hastean (6); uda heldu (4); uda hondarreko (4); uda huntan berean (4); uda huntan guzian (6)
uda igaro (9); uda igaro arte (4); uda ikastaroak (8); uda ikastaroen (7); uda iritsi (5); uda izan (14); uda joan (8); uda leku (33); uda leku elkarteak (9); uda lekuk (22); uda minean (14); uda mineko (5); uda nahasia (8)
uda ondarrean (4); uda ondarreko (5); uda ondoren (7); uda oro (6); uda osoa (14); uda osoan (26); uda ostean (19); uda osteko (4); uda partean (82); uda partean ez (4); uda parteko (9); uda pasa (4); uda pasatu (12); uda pasatu ondoren (4); uda pasatu zen (4); uda pasatzera (10); uda sasoi (6); uda sasoi (6); uda zen (25)
udaberri eta uda (4); udaberria eta uda (5)
antolatutako udako (11); antolatzen dituen udako (5); aurreko udako (5); aurtengo udako (18); ehuko udako ikastaroetan (7); ehuren udako ikastaroak (4); ehuren udako ikastaroen (4); ehuren udako ikastaroetan (12)
udako arratsalde (14); udako arratsetan (4); udako beroa (4)
udako egun (29); udako eguzki (5); udako eguzkiak (4); udako erakusketa (5); udako euskal unibertsitatea (22); udako euskal unibertsitateak (34); udako euskal unibertsitatearen (7); udako euskal unibertsitateko (6); udako fitxaketa (5); udako gau (25); udako gauean (4); udako goiz (8); udako goiz batean (4); udako haize (4); udako hilabeteak (7); udako hilabeteetan (5); udako hitzorduak (8)
udako ikastaroa (5); udako ikastaroak (30); udako ikastaroek (8); udako ikastaroen (26); udako ikastaroen barruan (6); udako ikastaroetako (4); udako ikastaroetan (39); udako ikastaroko (7); udako ikastaroko gazteen (6); udako ikusgarriak (9); udako kanpaina (4); udako lan (7)
udako opor (7); udako oporrak (22); udako oporraldia (6); udako oporraldiaren (4); udako oporretan (18); udako sasoi (4); udako sasoi (4); udako soineko (7); udako solstizioa (6); udako solstizioaren (4); udako tenorea (5); udako topaketa (6); udako topaketak (4); udako torneotan (4)
udako unibertsitate (4); udako unibertsitatea (8)
aitzineko udan (4); aurreko udan (15); aurtengo udan (43); datorren udan (17); heldu den udan (12); helduden udan (11); hurrengo udan (6); iazko udan (35); iragan udan (27); joan den udan (41); joan den udan (9); joanen udan (10); udaberri eta udan (5)
; udan batez ere (5); udan bereziki (5); udan beti (4); udan bezala (6); udan egin (10); udan egin zuen (4); udan egindako (9); udan egingo (4); udan egiten (4); udan eta neguan (4); udan fitxatu (6); udan gaude (8); udan hasi (4); udan heldu (4); udan ikusten (5); udan iritsi (7); udan iritsi zen (6); udan izan (10); udan izandako (4); udan jarri (4); udan ondo (5); udan sortu (4); udan zehar (11); udan zein neguan (4)
urte hartako udan (4); urteko udan (17)
udaren azken (5); udaren ondoren (4)
udarik beroena (4)
udatik aurrera (12)
udaz geroztik (8)

udabarri ik udaberri.

udaberri *(orobat udabarri g.er.)* 1 iz lau urtaroetatik lehena, Lurraren iparraldean martxoaren 21etik ekainaren 21era hedatzen dena; neguaren ondoko urtaroa, lurralde epeletan landareak hostatzen eta loratzen direna. ik **primadera**; **udalehen**.

Iragan zen negua eta iragan zen **udaberria**. **Felipe Juaristi**

1537ko **udaberrian**, etorritako bide beretik joan ziren Donibanetik biarnesak eta gainerako gaskoiak. **Aingeru Epaltza**

1569ko **udaberri** hartan, ez zegoen kinka goxoan. **Aingeru Epaltza**

Udaberria zen, eta gau hartan berriro kontatu zion istorioa. **Julen Gabiria**

Goiz zetorren **udaberria**. **Eskarne Mujika**

Udaberri dugu, esna zaitezte neskatiok. **Juan Garzia**

Udaberria, hirian, promesa bat da: mendian zerbait gertatzen ari dela adierazten du, eta aldaketa horrek guri zelanbait erasan diezagukeela. **Pako Aristi**

Udaberria, gozotasun urreztatuz itoa. **Lopez de Arana**

Udaberrian eta udan, baratzea eta loreak zaintzen zituzten. **Jose Morales**

Bilboko **udaberrian** harrapatu nau ETAre su-etenak, Bilbo itxuraldatu honetan. **Joseba Zulaika**

Udaberrian kakamarloak bezala agertu ziren, auskalo nondik etorriak, harginak eta sokagileak, harri-pikatzaleak eta zurginak, arotzak eta kisuginak, beren maisu, peoi, ofiziale eta ikastunekin. **Aingeru Epaltza**

Udaberriak lore txuriz janzen ditu arbolarik goiztiarrenak, sahasa, gereziendoa edo elur-arantza kasu. **Pako Aristi**

Elurrez estalia agertu da mendia, sasoi kanpo, aski aurreratua baita **udaberria**. **Imanol Zurutuza**

Udaberrian sartu ginela ere bada denbora puska bat. **Imanol Zurutuza**

Badirudi **udaberriak** etorkizun emankorrako baten promesak dakartzala guztientzat. **Pako Aristi**

Udaberriak edertasun paregabez jantziak zituen hango bazterrak. **Jose Morales**

Udaberriaren atarian bageunden ere, paisaia negukoa zen. **Alberto Ladron Arana**

Euria ari zuen berriz, **udaberriko** euri usu geldoa. **Aingeru Epaltza**

Udaberriko egun distiratsua zen iritsi nintzenean. **Matías Múgica**

Udaberriko gau zoragarriak urtzen ari zen elurraren usaina hedatzen zuen. **Jose Morales**

Udaberriko lehen egunak, gaua iritsi ahala, negura itzultzen dira. **Pako Aristi**

Bidean barrena zihoazela, **udaberriko** goiz-argian, orein bat ikusi zuen urrutiko galsoro bat zeharkatzen. **Imanol Zurutuza**

Bere masaila guri **udaberriko** arrosa bezain gorriak dardaraka ari zitzaizkiola. **Jose Morales**

Udaberriko arrantzaldiari ekin ziotenetik harrapaketa eskasak egin dituzte Euskal Herriko arrantzaleek. **Berria - Ekonomia**

Egunguentia bezain segur helduko da, euria bezala etorriko zaigu, **udaberriko** euria lur-hondora bezala. **Elizen arteko biblia**

Dassault *Le Figaroren* jabe da **udaberriatik**. **Berria - Gaiak**

Barandiaran museoren beste bi guneak datorren urteko **udaberriako** egongo dira prest. **Berria - Harian**

Haren ahotsa koloretsua baitzen, **udaberria** bezain koloretsua. **Felipe Juaristi**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hona zubia, **udaberri** hotz honetan geroko udatiarren zain, eta eliza. **Piarres Aintziart**

Ekainean beti, **udaberri** minean, sasoi bete egoten zen garaiantxe! **Jon Muñoz**

Elur-erantsien eta hotz gogorreko egun hitsen erdian, **udaberri** hurbilak aitzindari bidaltzen zuen noizean behin egun eguzkitsu bat. Zuhaitz distiratsuei lurruna zerien **udaberri** goiztiarreko aire zuri, trinko eta beroan. **Jose Morales**

Aspaldian ez omen zen izana Parisen hain **udaberri** ezti eta ederrik. **Janbattitt Dirassar**

Udaberri hotzak, udarik gabeko **udaberriak**. **Lourdes Oñederra**

Pazko ondoretsuan zen, **udaberri** bete-betea, hain zuzen. **Matías Múgica**

Zoin goxoak, zerua garbi-garbia, **udaberri** beteko igande goizak! **Janbattitt Dirassar**

Gaurkoak ezagun du argia, beroa eta **udaberri** peto-petoaren trazakoa datorrela. **Pako Aristi**

lazko **udaberrian** Nafarroa Gamazoren kontra nola altxatu zen azaltzen zuelarik, ileak laztu arte berotzen gintuen. **Txillardegi**

3 (hitz elkartuetan)

Udaberri -egun eder batean menditarak Araratera bidean joan ziren berriz. **Fernando Rey**

Soroan erditu zen **udaberri** goiz batez. **Josu Zabaleta**

Udaberri hasierako gau hauek, neguko oroitzapena bailitza gordetzen duten freskura sentitzen hasi naiz. **Pako Aristi**

Udaberri hastapenean oinez egin dudan bidea, orain beribilez egitea bitxi zait. **Piarres Aintziart**

Harrituta begiratu nion, hamar urte baineramatzan Jutlandiako kostaldera **udaberri** garaian azaltzen ziren baleak azterten. **Felipe Juaristi**

Ur gardenez ureztaturiko leku zoragarri batera iritsi ziren; belar heze ederrez estalia zegoen, **udaberri** -lorez apaindua eta mota guztietako zuhaitz atseginez betea.

Askoren artean

Fruiteuk, haien inguruan, **udaberri** usain freskoa zuten. **Karlos Zabala**

4 irud/hed

Parisko negua betiereko **udaberria** zen. Elizaren **udaberria** hemen dugu gure atean, umil umila bai eta ere esperantzez betea. **Matías Múgica**

Beti gabiltza biluzik, jaino berri, hil berri, argia baita gure izaera eta gure existentzia, gure alde eta gure ifrentzia, gure udazkena eta gure **udaberria** . **Felipe Juaristi**

5 urte.

Maiena Garatek hirurogeita bi **udaberri** zituen eta menturaz hurrengoak ez zuen ezagutuko. **Itxaro Borda**

Hamazazpi **udaberri** zeuzkan Maddik, esperantzetan Irazeta etxalde txikira ezkontarazi zutenean. **Itxaro Borda**

Hamalau **udaberritako** neskatoa alabaina komentu batera bidali eta oinordeko gisa iloba umezurtz bat har zezaten aholkatu zien apezak. ik udaberridun. **Itxaro Borda**

6 udaberri-ziza

Apiril honek badizu beste ezaugarri fin askoa ere: sasoi honetan plazara ohi dena eta garesti ordaintzen dena, **udaberri-ziza** edo xuxa leun gozo finen lurrin eta bixtaren zoria. **Pello Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

udaberri aldean (5); **udaberri aldera** (5); **udaberri batean** (5); **udaberri egun** (3); **udaberri eta uda** (4); **udaberri glutentsua** (3); **udaberri goiz** (6); **udaberri goiz batean** (3); **udaberri hasierako** (5); **udaberri osoan** (3); **udaberri usain** (3)

elizaren udaberria (3); **udaberria allegatu da** (3); **udaberria arte** (6); **udaberria da** (5); **udaberria dantzan** (5); **udaberria eta uda** (5); **udaberria hasi** (3); **udaberria hasten** (3); **udaberria helitzearekin** (3); **udaberria iritsi** (4); **udaberria izan** (3); **udaberria zen** (14)

datorren udaberrian (6); **datorren urteko udaberrian** (6); **fiordoa udaberrian** (3); **heldu den udaberrian** (3); **helduden udaberrian** (10); **hurrengo udaberrian** (10); **lazko udaberrian** (9); **iragan udaberrian** (4); **joan den udaberrian** (7); **joanden udaberrian** (6); **neguan eta udaberrian** (5); **ondoko udaberrian** (4); **udaberrian egin** (6); **udaberrian egingo** (7); **udaberrian eta udan** (5); **udaberrian eta udazkenean** (5); **udaberrian hasi** (4); **udaberrian hasiko** (5); **udaberrian izango** (5); **udaberrian sartu** (5); **urteko udaberrian** (10)

udaberriarekin batera (4)

udaberriaren atarian (3); **udaberriaren beharrak** (3); **udaberriaren hasiera** (3); **udaberriaren hasierako** (3)

udaberriaz geroztik (6)

helduden udaberriko (5); **milaka udaberriko** (3)

udaberriko aire (3); **udaberriko arrats** (3); **udaberriko arratsalde** (3); **udaberriko bertso** (6); **udaberriko bertso saioak** (4); **udaberriko bozen** (3); **udaberriko bozetan** (3); **udaberriko egun** (21); **udaberriko egun batez** (3); **udaberriko egun eguzkitsu** (3); **udaberriko egun zoragarri** (5); **udaberriko eguraldi** (5); **udaberriko eguzkia** (3); **udaberriko eguzkiak** (3); **udaberriko euria** (4); **udaberriko gau** (6); **udaberriko goiz** (8); **udaberriko ibilaldia** (6); **udaberriko klasikoa** (12); **udaberriko klasikoan** (4); **udaberriko lasterketa** (6); **udaberriko lore** (4); **udaberriko loreak** (3); **udaberriko musikaldiak** (12); **udaberriko tenporak** (3)

udaberrira arte (9)

udaberrirako prest (4); **urteko udaberrirako** (3)

udaberriatik aurrera (4)

udaberridun *izlag* udaberriko.

Bederatziren bat **udaberridun** mutikoa. **Agustín Otsoa**

udaberrika *adlag* udaberriz udaberri.

Udaberrika, udaka, udazkeneka eta neguka. **Bernardo Atxaga**

udaberrikari *adlag ipar* udaberrian, udaberriz.

Irudi eder bat buruan segitzen dut bidea: bi gizon ari eta ari, **udaberrikari** eta larrazkeneko uzta gogoan: haien esku azkar eta delikatu meneko, mahats ondo lodi, beltz eta bihurturatuak, hostoila berdeak txapelaturik. **Piarres Aintziart**

udaberritsu *izond irud/hed* udaberriz betea.

Jende asko dabil paseoan itsasertzean, aurpegi **udaberritsu** eta poetikoak itsasaldera beha: eguzkiagatik da, poz-pozik daude. **Monika Etxebarria**

udabete ik **uda** 4.

udabide *iz* udaberriko azken asteak; uda.

Hori bai **udabidean** suertatzen zela, udaberria gainditzeaz zutenean. **Pello Zabala**

Dirudienez, ziurrenik, kristaun aurretik, Erroma aldean ospatzen ziren *feriae messis* jai ospetsu haietatik datoz **udabideko** egun berezi hauek. **Pello Zabala**

Halaxe **udabidean** ere, udan sartzeko beste hiru aste falta direnean. **Pello Zabala**

Urtearen **udabidean** luzaro hitz egin genuen bere egoeraz. **Gotzon Garate**

Urtero **udabidean** New Yorke egoten naiz. **Gotzon Garate**

Hogeita hamasei urtez New Yorkeko Washington Heights-en (goialdeko Manhattanen) eman izan dut **udabidea**. **Gotzon Garate**

Neska-mutilok **udabidean** jantzi-denda berean lan egiten zuten. **Gotzon Garate**

Udabidean batez ere, oporretara joateko, [zakurrek] nagusiei traba egiten diete. **Gotzon Garate**

Udabidean turistak eta newyorktarak, lehenak kameraz eta dena-ikusi-argazkitu-behar antsiak, bigarrenak hiri zalapartatik minutu batzuetan atsedendu nahiz, eskailera horietan jartzen dira. **Iñaki Zabaleta**

udagoien iz udazkena.

Hori dena ondo gogoan du Ernest Hemingway orain, 1943ko **udagoiengan**. **Edorta Jimenez**

Horrela -zeharkako bidez, esan nahi da-, 1942ko **udagoien** hartan *Pilar* ontziak norentzat lan egingo zuen argitzen da; itsaso-seguritateko agentearentzat, hain zuzen.

Edorta Jimenez

Jendea atsekabetu egiten da lanetik, eskolatik, tabernatik irteetan, arrastia zelan ilundu den ikusita, zeinen hits iragartzen duen **udagoienak** negu luzearen etorrera. **Urtzi**

Urrutikoeetxea

Udagoieneko haize fresko bolada sartu zaizu azalean jertsearen zulotxoetatik, milaka orratz txiki balira bezala. **Sonia Gonzalez**

Urrian gaude, eta **udagoieneko** orbelak sarri azaltzen ari dira. **Javi Cillero**

Baltikoko haizeetara sekula ohitu ez bazen ere, Kaliningradeko kuarteletako erreklutek hotzarenak baino ardura handiagoak zeuzkaten **udagoien** amaiera hartan. **Urtzi**

Urrutikoeetxea

udaka adlag udaz uda.

Udaberrikoa, **udaka**, udazkeneka eta neguko. **Bernardo Atxaga**

udakari izlag ipar udan, udaz.

Udakari jendea gehixago ibiltzen da, elgar kurutzatzen ere. **Herria**

udal 1 iz (askotan U larriz) estatuaren administrazio maila behearena; udalerrit bat administratzen duten pertsonen multzoa, alkateak eta zinegotziak osatua. ik udalerrit; udalbatza.

Udaletxera joatea erabaki nuen, azken finean **Udala** baitzen kanposantuko arduraduna. **Ramon Saizarbitoria**

Iratiko ibarreko 33 **udalak** eta kontzejuk Itoizko urtegiaren aurkako jarrera berretsi zuten Agoitzen egindako ekitaldian. **Eduarne Elizondo**

Segidan helarazi zigun eguneko albistea: Tolosako **Udalak** "Errepublikan Federala" aldarrikatu berria zuela. **Txillardegia**

New Yorkeko estatuko New Paltz herriko **Udalak** [...] astebetean, 21 bikote ezkondu ditu. **Berria - Gaiak**

Herriko **udalak** zerga bereziak jarri behar izan zituen abokatua ordaintzeko. **Pello Salaburu**

Azpeitian, urtariletik harat Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia bidean ezarriko du **udalak**. **Herria**

Realak Anoetako estadia birmoldatzeko, bai **Udalari**, bai Diputazioari eskainitako proiektuak bere lehen oztopo larrira aurkitu du. **Berria - Kirola**

Euskal Herrian Foru Aldundiek eta **Udalek** kudeatutako 54 harrera etxe daude. **Berria - Harian**

Haur eskolak zama handiegia direla **udalen** ekonomiarentzat. **Berria - Harian**

Castejoneko sozialisten esku dago **Udala**, eta zentralak handitzeko egitasmoaren aurka agertu izan da. **Berria - Harian**

Biek ala biek 1998an Cuenda alkate zela **Udalak** Sidenorri Zaramagako orubea erosteko lortu zuen itunari buruz hitz egin zuten. **Berria - Ekonomia**

Erantzukizun penalak baieztatu direnez, Parisiko **Udalari** legez kanpo hartutako dirua turnatu beharko zaio. **Berria - Mundua**

Erabaki horrekin **Udalak** 58 langile kaleratuko dituela salatu du ELAK. **Berria - Euskal Herria**

Alkatearen irudiko, inbertsio handia eta etekin txikia eskaintzen zizkien **Udalak** enpresaburuei. **Berria - Euskal Herria**

Denboraldi hartan **Udala** berebiziko ahaleginetan ibilia zen Donostiaren dei turistikoaren ozentzen eta hedarazten. **Iñaki Iñurrieta**

Udalak ordaindutako musika. **Koldo Izagirre**

Udalak isun eder eta zentzagarria ezartzen die, hasieran, arau-hausleei. **Aingeru Epaltza**

-Ikusi duzu **udalak** argitaratu duen bideoa? **Koldo Izagirre**

Urtebeteko epea nuen ikerlan amaitua **Udalari** emateko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Ikusi duzu **udalak** argitaratu duen bideoa? **Koldo Izagirre**

Orduan zigorrak jartzearren eskumena **udalena** zela esan zuen Nafarroako Gobernuak. **Berria - Harian**

Gizon serio hura, liburuetan murgildutakoa, **Udaleko** zinegotzi izandakoa eta alkate izateko asmoa zuena, [...]. **Bego Montorio**

Konpartsen komisioaren eta **Udalaren** arteko harremana oneorokoa eta etengabea izan da. **Unai Iturriaga**

1648ko dokumentu batek dioenez, **Udalak** ordaintzen zuen patroien egunerako behar ziren txistularien kontratua. **Askoren artean**

Erabaki hark, jakina, eragozpen handiak sortu zizkion **udalari**. **Karlos Linazasoro**

Uraren inguruko aferak tokian tokiko aginteen esku uzteko eskatu du Afrikako Hiri eta **Udalen** Batasuneko idazkari nagusiak, Jean Pierre Mbassik. **Berria - Gaiak**

2 (izenondoekin)

Koalizioa Nafarroako Parlamentura eta **udal** nagusietara aurkeztuko dela iragarri dute. **Berria - Euskal Herria**

Hainbat **udal** txikiak, bai, eman dute ahal izan dutena, eta, batez ere, herritarrek lagundu dute. **Berria - Euskal Herria**

Franco ondoko lehenengo **udal** demokratikoak hautatzeko zerrendak plazaratu zirenean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ribaforadako **Udal** Txit Gorenaren ordainarazpen berrien bertsio menditarraren argitalpena. **Aingeru Epaltza**

Madril eta Bilboko Auzitegi Gorenak UEMA **Udal** Euskaldunen Mankomunitatearen kontrako erabakiak argitaratu dituzte. **Hasier Etxeberria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik municipal.

Orduan, entzuten zegoen **udal** funtzionarioak eztarria garbitu zuen serio-serio. **Patxi Iturritegi**

Hantxe nongoen Baas-eko **udal** buruzagiak bere hitzaldia lehenakaria agurtuz hasi zuenean. **Juan Kruz Igerabide**

Udal agintariak aintzat hartu zuten berrikuntza hura. **Askoren artean**

Gure 19 **udal** edo kontseilu gizonak, aho batez onartu dute, igande 25 ean beren buru ezartzea, lehenengo auzapeza. **Herria**

Osasun-batzordeko ikuskatzailearenera eta **udal** arkitektoarenera era joan zen gizalegezko diosalak egitera. **Jose Morales**

Borreroa **udal** liburuzainaren lagun handia da. **Karlos Linazasoro**

Udal langileen janzki urdinak. **Unai Iturriaga**

Gandolfo zen, **udal** pregoilaria, besamotza bera. **Felipe Juaristi**

Juancho deitzen da, eta **Coruña**ko udal arkeologoa da. **Iñigo Aranbarri**

Bereziki gustatu zitzaion ikustea **udal** erakunde askotan alkatea kudeatzaile hutsa zela. **Bego Montorio**

Dan Hoganan iloba, **udal** idazkaritzarako aurkeztu zena. **Irene Aldasoro**

Gauza horiek guztiak herrira bideratutako **udal** administrazio batek bakarrik egin zitzaizkien. **Bego Montorio**

Udal eta herrialde barrutietako administrazioa da kontuan hartuko dudana. **Koldo Zuazo**

Cape Town hiriko Parke eta Jardinetako **udal** enpresan lanean hasi zen. **Pablo Sastre**

Basauriko **udal** eraikinetako garbitzaileek grebari utziko diote gaur. **Berria - Ekonomia**

Alfonso XII.a erregeak **Udal** Museoa inauguratzen du. **Askoren artean**
Honatz halako baten testigutza, Leitzako **udal** artxiboan jaso: [...]. **Patziku Perurena**
Bizikleta hartu eta **udal** liburutegira abiatu nintzen ziztu bizian. **Iban Zaldua**
Udal parkeko banku batean abentura zain esertzea. **Anton Garikano**
Udaltzainari abisatzeko asmoz gaizki-hezi haiek **udal** ziegan sar zitzala gau osorako eta hurrengo egunean isun bat jar ziezaiela. **Juan Kruz Igerabide**
Raimundo Sarriegi maisuak 'Donostiako Martxa' idatzi zuen, gaur egun **Udal** Bandak jotzen duena. **Askoren artean**
Sarriegik irakasle jardun zuen Musikako **Udal** Akademian. **Askoren artean**
Alkateak **udal** zalgurdiak behera jauzi egin du eta jauregiko eskaileretan gora joan da. **Felipe Juaristi**
13 eta 17. **udal** tranbieten, autoz edo bizikletaz etor daiteke. **Josu Zabaleta**
Baionako hiru kale-garbitzailek **udal** furgonetaren azpian bilatu zuten babesa. **Patxi Iturritegi**
Geroztik zuzendu ditut, **udal** eta eliz paperak ikusi ondoan. **Patziku Perurena**
Plazan, kontzejn aurrean, ateetan **udal** zigilua -otso bat sagarondo batetik ale eder bat hartu nahian- zeraman zalgurdia zegoen, lau zaldi beltzi loturik. **Felipe Juaristi**
Azalean, Koreako albisteak, **udal** hauteskundeak, Hollywoodeko azkeneko eskandalua... **Iban Zaldua**

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Gasteizko **udal** haur eskoletako Langileen Batzordeak atzo iragarri zuen auzitara joko duela PPK uztailaren 27an izenpetutako dekretua erretiratzeko ez badu. **Berria - Euskal Herria**
Udal zerga biltzailea enkantean egindako eskaintzen zenbakiak idazten ari zen. **Karlos Zabala**
Barrainkuako **Udal** Kultur Etxea. **Koldo Zuazo**
Sarrera doan daukate **udal** kirol instalazioetan. **Txema Ramirez de la Piscina**

5 udaletxea.

Milaka kilometro egin nituen hango eta hemengo artxibo, **udal**, eliza, etxe, baserri, gertaleku eta bestetara. **Patziku Perurena**
Leitzako **Udaleko** batzartokian. **Patziku Perurena**
Egun gutxitan, errepublikanoek herriko etxeetan ezarri zituzten beren bulego eta aginte postuak: **Udalean**, liburutegian, **udal** biltegian, postako bulegoetan... **Jon Maia**
Javierrek ETAkoen aldeko oihal bat jarri nahi izan zuen **udalean**. **Pello Salaburu**
Udalera deitu zuten. **Bego Montorio**

6 udal barruti (orobat udalbarruti)

Parisko 3. **udal barrutiko** alkate Pierre Aidenbaumeak adierazi duenez, Udalak prefeturari eman zion baldintza kaskarren berri, duela bi urte. **Berria - Harian**
Richard J. Tierney jaunak, P.L.J.-ak, zure botoaren eta itzalaren mesedea eskatzen du, begirunez, Royal Exchange **udalbarrutian** egingo diren hauteskundeetarako. **Irene Aldasoro**
Bozak modu mailakatuan egingo dituela zehaztu zuen, eta 127 **udal barrutietatik** hauteskundeak egiten lehena Jeriko izango dela erantsi. **Berria - Mundua**
200 metro koadroko areto nagusia du Bilbao Eszenak, eta **Udal Barrutien** bidez eskatu beharko dute konpainiek bertan aritzeko baimena. **Berria - Kultura**

7 udal talde (orobat udaltalde g.er.)

Ofizialki egin zigun harrera bertako **Udal** -Taldeen, bere osoan. **Txillardegi**
Inalcoko kontseilari ohiak Gasteizko **udal taldeen** galderak erantzun zituen atzo, Boulevarden salmenta ikertzeko batzorde berezian. **Berria - Ekonomia**
Alderdi Popularreko **udal taldearen** arabera, «terrorismoaren biktimak iraintzea» da Muguruzak kontzertua ematea. **Berria - Kultura**
Trenbidea lurperatzeak «aukera berriak» zabaltzen dituela esan du PSE-EEko **udal taldeak**. **Berria - Harian**
Mikel Martinez EAJren **udal taldeko** bozeramailearen ustez, [...] antolatzailerak. **Berria - Harian**
EAJko **udal taldeko** buru Mikel Martinezek, adibidez, gogortu egin zuen abuztuan iragarritako presioidea. **Berria - Euskal Herria**
Eradio Ezpeleta udal zinegotziaren eta UPNko **udal taldearen** «setakeria» salatu dute. **Berria - Euskal Herria**
Barañoingoa UPN **udal taldeak** Barañoingo Auditoriumaren kudeaketan «irregulartasun larriak» daudela salatu du. **Berria - Kultura**
Hilabete eta erdiko epean lekukotasun guztiak entzun eta ondorioak zehaztu nahi dituzte **udal talde** politikoei. **Berria - Ekonomia**
Oposizio **udal taldeek**, EAJK, EAK, EBK eta Gasteiz Izanek, aurkako mozioak eta galderak iragarri zituzten. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

azken udal hauteskundeetan (8); basauriko udal eraikinetako (13); bergarako udal pilotalekuan (6); bilboko udal bandak (4); bilboko udal musika (5); donostiako udal liburutegian (4); donostiako udal liburutegiko (5); euskararen udal patronatuak (5); foru eta udal (11); hainbat udal hautetsik (4); iazko udal (10); ppko udal gobernua (7)

udal agintariak (12); udal agintariei (17); udal agintariak (30); udal agintarien (13); udal akordioa (8); udal akordioak (7); udal arduradunek (6); udal aretoan (11); udal artxiboan (7); udal bandak (11); udal bandako (5); udal batzak (4); udal batzarrak (8); udal batzarrean (11); udal batzordeak (6); udal bozak (5); udal bozetan (21); udal demokratikoen (11)

udal eraikinak (5); udal eraikinak garbitzen (4); udal eraikinetako (17); udal eraikinetako garbitzaileak (6); udal eraikinetan (5); udal eta foru (86); udal euskaltegiak (6); udal euskaltegiko (4); udal garbitzaileak (10); udal gobernu (23); udal gobernu taldeak (10); udal gobernu taldearen (4); udal gobernu (13); udal gobernuak (38); udal gobernuan (5); udal gobernuaren (11); udal gobernuari (10); udal gobernuko (4); udal haur eskola (5); udal haur eskolen (13); udal haur eskoletako (22); udal hauteskundeak (39); udal hauteskundeak egin (4); udal hauteskundeak (4); udal hauteskundeak (14); udal hauteskundeak (9); udal hauteskundeetan (64); udal hauteskundeetan legez (5); udal hauteskundeetan zinegotzi (4); udal hauteskundeetarako (5); udal hautetsi (9); udal hautetsiak (8); udal hautetsiei (5); udal hautetsiek (30); udal hautetsiekin (6); udal hautetsien (36); udal hautetsien biltzarrak (9); udal hautetsien gida (4); udal hautetsien (6)

udal kiroldegian (8); udal kontseiluak (6); udal kontseiluaren (5); udal langile (4); udal langileak (10); udal langileen (13); udal liburutegian (23); udal liburutegiko (18); udal liburutegiko sotoan (5); udal musika (10)

udal ordezkariak (9); udal ordezkariak (6); udal patronatuak (5); udal pilotalekuan (21); udal plazan (6); udal talde (25); udal talde politikoa (8); udal taldeak (22); udal taldearen (6); udal taldeak (8); udal taldeen (7); udal taldeko (4); udal txistulari (5)

udalez udal (4)

amezketako udala (4); basauriko udala (6); bilboko udala (15); donostiako udala (37); eibarko udala (5); eko udala (13); gasteizko udala (21); getxoko udala (4); iruñ irungo udala (6); lizartzako udala (4); mutrikuko udala (4)

udala izan (5); udala osatzen duten (4)

agoizko udalak (5); aingo udalak (6); andoaingo udalak (12); aramaioko udalak (4); arrasateko udalak (5); asparrenako udalak (7); ataungo udalak (4); azpeitiko udalak (6); barañ barakaldoko udalak (21); bartzelonako udalak (5); basauriko udalak (22); bertako udalak (7); bilboko udalak (101); debako udalak (8); donostiako udalak (112); durangoko udalak (4)

egin zuen udalak (4); elgetako udalak (4); erabaki du udalak (7); erabaki zuen udalak (5); errenteriako udalak (4); erromako udalak (4); esan du udalak (6); eskoriatzako udalak (7); etaauriko udalak (4); gasteizko udalak (112); hango udalak (5); hartu du udalak (5); hernaniko udalak (6); hondarribiko udalak (20)

eko udalak (98); iruñ irungo udalak (28); leitzako udalak (9); lezoko udalak (5); lizarrako udalak (5); longidako udalak (9); madrilgo udalak (4); mutrikuko udalak (4); nahi du udalak (8)

ondarroako udalak (8); orbaizetako udalak (5); parisko udalak (8); portugaletako udalak (9); salamanca udalak (8); san frantziskoko udalak (5); santurtziko udalak (6); tolosako udalak (12)

udalak abian (4); udalak adierazi (4); udalak agindutako (4); udalak aho batez (7); udalak antolatu (8); udalak antolatuta (5); udalak antolatutako (12); udalak antolatzen (4); udalak atzo (15); udalak baimena eman (4); udalak berak (19); udalak debekatu (4)

udalak egin (12); udalak egindako (6); udalak emandako (8); udalak erabaki (6); udalak eskaintzen (5); udalak eskaintzen duen (4); udalak hartu (5); udalak hartutako (9); udalak hartutako erabakia (4)

udalak iragarri (4); udalak izan (4); udalak jakinarazi (8); udalak jakinarazi du (4); udalak jarritako (4); udalak kanpaldia egiteko (4)

udalak onartu (10); udalak onartutako (6); udalak ordaindu (5); udalak sinatutako (4)

udalak ukatu (5); udalak zuzenean (4); urnietako udalak (4); usurbilgo udalak (5); zarauzko udalak (17); zestoako udalak (12); zigoitiako udalak (4); zornotzako udalak (8); zumaiaiko udalak (7)

bilboko udalarekin (4); donostiako udalarekin (13); eko udalarekin (4); gasteizko udalarekin (7); iruñ udalarekin batera (9); udalarekin elkarlanean (4); udalarekin sinatutako (4)

andoingoa udalaren (4); ataugo udalaren (4); barakaldoko udalaren (5); bartzelonako udalaren (5); bilboko udalaren (16); donostiako udalaren (25); eko udalaren (32); eko udalaren jarrera (10); gasteizko udalaren (26); hermaniko udalaren (4); iruñ iruñ irungo udalaren (4); tolosako udalaren (5)

udalaren arabera (10); udalaren asmoak (4); udalaren aurka (4); udalaren aurrean (4); udalaren babesa (5); udalaren baimena (7); udalaren baimenik (4); udalaren diru (7); udalaren erabakia (8); udalaren erabakiaren (4); udalaren esanetan (8); udalaren esku (19); udalaren izenean (8); udalaren jarrera (33); udalaren jarrera salatu (8); udalaren jarreraren (4); udalaren kontra (12); udalaren kontrako (6); udalaren laguntza (4); udalaren laguntzarekin (6); udalaren laguntzaz (4)

udalarena da (12); udalarena dela (8); udalarena izan (4)

udalarentzat lan egiten (4)

barakaldoko udalari (5); bilboko udalari (8); donostiako udalari (12); eko udalari (11); eskatu diote udalari (4); gasteizko udalari (9); iruñ irungo udalari (4); udalari eskatu (4)

andoingoa udalean (5); bilboko udalean (12); donostiako udalean (19); egibarrek lizartzako udalean (4); eko udalean (4); gasteizko udalean (23); iruñ irungo udalean (4); lizartzako udalean (7); udalean eajko (4); udalean ordezkariatza duten (5); udalean sortutako (4)

herrietako udalei (4)

aldundiak eta udalek (10); hainbat udalek (11); herrietako udalek (4); udalek egin (5); zenbait udalek (6)

udalekin batera (4)

aingo udaleko (4); andoingoa udaleko (5); barañ basauriko udaleko (6); bilboko udaleko (56); donostiako udaleko (56); donostiako udaleko talde (4); eko udaleko (39); gasteizko udaleko (36); iruñ lizartzako udaleko (7); parisko udaleko (4)

udaleko agintariei (4); udaleko agintariak (5); udaleko agintarien (4); udaleko alderdi (8); udaleko alkate (4); udaleko arduradunak (5); udaleko arduradunek (7); udaleko bozeramailen (8); udaleko bozeramailen batzordeak (7)

udaleko gobernu taldeak (7)

udaleko kultura sailak (7); udaleko kultura saileko (4); udaleko kultura zinegotziak (7); udaleko langile (6); udaleko langileak (8); udaleko langileen (10); udaleko langileen batzordeak (4)

udaleko oposizioko talde (4); udaleko ordezkariak (5); udaleko osoko bilkurak (6); udaleko talde (16); udaleko teknikariak (4); udaleko teknikariek (5)

udaleko zinegotzi (12)

espainiako udalen (4); euskal udalen (12); udalen arteko (7); udalen elkarte (4); udalen elkarteak (7); udalen elkartearen (4); udalen esku (13)

udaletako langileek (4)

arabako udaletan (4); batasuna udaletan egotea (4); mozioak udaletan (4)

udalatu, udala(tu), udalazten 1 du ad lurrez mintzatuz, landu.

Harrigarria duk, hilabete batzuk lehenago lantegietan edo eskoletan, edo oraino elgeak goldez **udalazten** idien hotsemaile perestuki lanean ari ziren haur hutsak nola aldatu dituen armadak eta indarraren gorazarreak. **Itxaro Borda**

Egun hartan, elgeak **udalatu** zituzten eta handik laster nork bere artadia hazten mirets zezakeen. **Itxaro Borda**

Mutu egon zen emaztea, bulta laburraz, baina **udalazteko** alorrera laster hurbildu zen. **Itxaro Borda**

Jendeen erditik ildoak **udalatu** zuen eta estradaren azpira heldu zen. **Itxaro Borda**

2 irud/hed

Gaztetan ponpoxa eta arina izana baitzen segur, urteek larruan zimur ugari **udalatu** zizkioten arren. **Itxaro Borda**

Hargatik, ohe gainean etzan zenean, sabela nahas, goiti egiteko gutziak sabela **udalatu** zion: xedez, obraz eta hitzez bekatu eginen zuen eta zuzen-zuzen infernuratuko zen. **Itxaro Borda**

Patxi mutiko taldea noiznahi zelatzen, ikertzen, galdekatzen eta izpirituaren hondar leku ezkutuetaaraino **udalazten** zuen. **Itxaro Borda**

Suzko egunen akidura erraldoiak **udalazten** zuen Sebasen gogoak. **Itxaro Borda**

udalbarruti ik udal 6.

udalbatza (orobat U larriz; orobat udal batza g.er.) 1 iz udalerrri bat administratzen duten pertsonen multzoa, alkateak eta zinegotziek osatua. ik udal.

Udalbatza bere osoan agertu da horretara, hiruretan, eguzki galdatan, Goihenetxe alkatea buru, eta bere kontseilari guztiek inguratuta. **Txillardegi**

Gasteizko Udaleko **udalbatzak** Boulevard merkataritza gunearen salmenta ikertuko duen batzordea eratzea onartu du. **Berria - Ekonomia**

Udalbatzako eskuindarrei lelo hura entzuteak ez ziela graziazirik egiten esan zidan. **Ramon Saizarbitoria**

Berriki, **Udalbatzak**, osoko bilkuran bilduta, haren zorra barkatzeko erabakia hartu du boz batez. **Aingeru Epaltza**

Ez al du langileak beste edonork adina eskubide **udalbatzan** egoteko? **Irene Aldasoro**

Olaztiko **Udalbatzaren** dimisioa eskatu zuen atzo *Olaztiko Herria Aurrera* izeneko plataformak. **Berria - Euskal Herria**

Donostiako **Udalbatzak**, ezohiko bilkuran, Plan Orokorren Aurrerapenaren irizpide dokumentua onartu zuen atzo. **Berria - Euskal Herria**

Urriaren 4an Martin Ugalde Orradre idazle eta kazetari euskaltzalea hil eta handik 14 egunera Andoaingo Osoko **Udalbatzak** adierazpena onartu zuen, aho batez, herriko seme kutunaren gizatasuna eta eskuzabaltasuna nabarmenduz. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan)

Ibarretzek, **udalbatza** aretoko horman jarritako oroigarri-plaka erakutsi zuen. Atzetik jarraika areto txiki hartatik kanpora atera ziren denak eta **udalbatza** aretoa hutsik geratu zen. **Berria - Euskal Herria**

3 udalbatzarra.

Eztabaida baretzen ez zela ikusita, alkateak **udalbatza** bertan behera uztea erabaki zuen. **Berria - Euskal Herria**

Berriki, elkarteak mozioa aurkeztu zuen **udalbatzan** eztabaidatzeko. **Berria - Harian**

udalbatzar 1 iz udalbatzaren batzarra.

Atzo eginiko bilera hartutako erabakia, alabaina, ez da **udalbatzarra** osatzen duten alderdi guztien gustuko izan. **Berria - Kultura**

Udaleko gobernu taldeak aipatutako lursailen berrantolaketa zehaztu du eta uda osteko lehenengo **udalbatzarrean** hartuko dute behin betiko erabakia. **Berria - Kirola**

Bizilagun batzuk Muguruzaren kontrako idatziekin joan ziren **udalbatzarrean**. **Berria - Kultura**

Bere etxean **udalbatzarra** egiten ari zirela, hainbat herritar bertan sartu eta alkatea herriko plazara eraman zuten, 1.500 lagunengatik aurrean hil arte jipoitzeko. **Berria - Mundua**

Gasteizko Udaleko Gobernu Taldeak 2004an haur eskoletako lanpostu zerrendetan aldaketak egitea gaitzetsi du Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, horretarako eskumena **udalbatzarrek** zuelako, eta ez Gobernu Taldeak. **Berria - Euskal Herria**

Tentsioa handia izan zen atzo Azkoitiko **udalbatzarrean**. **Berria - Euskal Herria**

Joan den osteguneko **udalbatzarrean** PSE-PPko Udal Gobernuak «ohiko» erantzuna eman zuela dio Ibon Urgoitik: dirurik ez dagoela. **Berria - Euskal Herria**

Nik ez nukeen ontzat hartuko Peppone bat alkate bihurtzea, behar bezala idazten eta irakurtzen dakiten bi pertsona baino ez dituen **udalbatzar** batekin. **Koldo Biguri**

Udalbatzar istilutsua izan zuten duela ia bi aste, eta geroztik Azkoitia hizpide izan da. **Berria - Euskal Herria**

Haien buruan han ziren bildurik udalerriko lurjabe eta maizterrik aberatsenak, zurbil eta ikaraturik, **udalbatzarrean** aretoan, behean jendetza txutxumutxuka ari zen bitartean. **Koldo Biguri**

2 udalbatzar aretoa.

Udalbatzarra lepo zegoen. **Berria - Euskal Herria**

3 udalbatza.

Gauza bera uste du Sestaoko **udalbatzarrek**. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
donostiako udalbatzak (3); **gasteizko udalbatzak** (4); **onartu zuen udalbatzak** (3); **osoko udalbatzak** (3)
atzoko udalbatzan (4)

udalburu iz alkatea.

Esquerra Republicana de Catalunya alderdi nazionalistak Rosellon (Ipar Katalunian) lortu duen lehen **udalburua** da PSFko kide ohia. **Berria - Mundua**

udalde iz uda aldea, udaldia.

Kostaldeko informazioak jakin-mina sortzen du **udaldean**, baina baita barnealdekoak ere. **Pello Zabala**

udaldi iz uda-denbora, udako egunak.

Urtero bezala, **udaldia** Donostian igarotzeko asmoz etorri, eta, Oreja medikuaren erietxean bihotzeko arazotxo bat zaintzen ari zela, bertan harrapatu omen zuen gerrak.

Inazio Mujika Iraola

Donostiako *belle époque*-ren garaian, Espainiako errege-erreginen **udaldien** garaian [...]. **Berria - Kultura**

Neguan inortxo ez, baina **udaldian**, askotxo. **Pello Zabala**

Negualdian ikasketei ekin eta **udaldietan** kirolean eta ehizan ibili ohi ziren biak. **Edorta Jimenez**

Burutsuak bildu egiten du **udaldian**, uzta-garaian lokartzen dena gaitzesgarri da. **Elizen arteko biblia**

Aitak **udaldi** osoan lan egingo baitzuen. **Aitor Arana**

Eta **udaldian**, udaminean gehienak: 5.000 inguru bai. **Pello Zabala**

Salda, metal dirdaitsuzko katiluetan zerbiturik, haurtzaroko **udaldi** dagoeneko urrunetan bezala. **Juan Garzia**

udalditxo iz udaldi txikia.

Gibbonek ez du bere kontaketa behar hainbat atzetik hasten; antoninotarren garaia "urrezko aroarekin" nahasten du, benetan "azaroko **udalditxo**" bakarrik izan zenean.

Iñaki Mendiguren

Etorriko duk oraindik San Martin eguna; ekarriko dik **udalditxo**! **Pello Zabala**

Apirilaren 20-25 bitarte horri, Espainia aldean amañillien **udalditxo** deitzen zaio. **Pello Zabala**

udalehen iz udaberria.

Udalehenean beren behisailak aurrean hartuta, joare kalanka eta marru, atzera goimendietara abiatzen zirenean, hala esaten omen zuten goizuetarrek: [...]. **Patziku**

Perurena

Luxuzko kartelarekin abiatuko dira datorren larunbatean **udaleheneko** saioak. **Berria - Kultura**

udaleku (orobat *uda-leku g.er.*) 1 iz udaldia igarotzeko lekua; eskuarki haur talde batek beren begiraleekin udako egun batzuk igarotzeko lekua. ik **udaleku**.

1937ko martxoaren 20an iritsi zen Olerongo uhartean prestatutako **udalekura** Bilbotik abiatutako lehen ebakuatu multzoa, bost eta hamabi urte bitarteko 450 ume taldea.

Jokin Urain

Badator, oraingoan bai, haurrak hamabost egunerako **udalekura** eramango dituen autobusa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Oporrak hurbil zeuden, eta gaztea **udalekuetara** hamabostaldi baterako bidaltzeko proposamena egin zion Mirenek amari. **Iban Zaldúa**

Udan **udalekuetan** begirale aritzen ginen koadrilako batzuk. **Joxerra Garzia**

Hik ez al dakik, **udalekuko** ligeak ez duela balio hortik kanpo? **Xabier Mendiguren Elizegi**

Udalekuetan egon berria naiz, eta han oso gaizki jan genuen, asko gogoratu naiz zutaz, baina ez otordu txarrak ematen zizkigutelako bakarrik. **Koldo Izagirre**

Ezin zuen jasan **udalekuaren** ardura zuten mojen diziplina itsua, eta, apala eta txiki samarra izanik, beste haurren irainen eta are erasoen jomuga bihurtu zen. **Iban Zaldúa**

Handik hamar egunera, **udalekura** zihozazen umeak geltokira bidean eliza aurretik igaro zirenean, On Camillo korrika joan zitzaien agur egitera eta santu-irudiak banatzera.

Koldo Biguri

Aste bikaina eman nuen autistentzako **udaleku** batean, Camp Winstonon, Ontarion. **Xabier Olarra**

2 (hitz elkartuetan)

Udan, bertso-**udalekuak** antolatzen dira Aubixan. **Joxerra Garzia**

Eguno hezkuntza-sistemaren gabezia zenbait berdintzeko moduko ikasgaiak beregana ditzake bertso-eskolara edo bertso-**udalekuetara** doan gatzetxoak. **Andoni Egaña**

Taldeka doaz alde batetik bestera, berdintsu jantzita -bisera gorria, alkandora zuria, aurrezki kutxaren anagramaz apaindutako bizkar-zorroa-, eta begirale gazteen zaintzapean: egun erdiko hiri-**udalekuen** denboraldi betean gaude. **Iban Zaldúa**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bertso udaleku (3)
bertso udalekua (3)
bertso udalekuak (5)

udalekutar iz udaleku batean dagoen pertsona.

Beti liluratu izan naute **udalekutarrek**, eta horregatik esertzen naiz, goizero, plazako jarleku honetan, hemendik ibiltzen baitira, maiz, halako zenbait talde. **Iban Zaldúa**

udalerrri 1 iz udalak administratzen duen eremua.

Erakunde bakoitzak bere ardura eremua du: Donostiako Udalarena Donostiako **udalerrira** mugatzen da; Gipuzkoako Foru Aldundiarena, berriz, Gipuzkoa osora. **Berria** - Kultura

Udalerrriak Stirone erreka ukitzen duen aldean, Taro ibaitik gertu, Fontanelle herria dago, zabal eta eguzkitsua. **Koldo Biguri**

Noel Mamere Begles herriko alkateak konboia **udalerritik** igarotzea debekatu zuen atzo. **Berria** - Gaiak

Santutxuk, Bolueta eta Begoñak **udalerriko** 4. barrutia osatzen dute. **Berria** - Euskal Herria

Umbriako Nocera, Asistik 20 bat km-ra zegoen; Satriano, berriz, Asis **udalerriko** auzunea zen. **Askoren artean**

Olague, Anue **Udalerriko** hiriburua da, Iruñeko Merindadean. **Berria** - Kirola

Amazoniako **udalerrri** askok ere bat egin dute enpresa handiekin. **Berria** - Gaiak

Iturri batzuen arabera, Al Fatak 13 **udalerritan** irabazi du, eta Hamasek bederatzitan. **Berria** - Mundua

Udalerriko eta auzo herrietako handi-mandi guztiak egoitzan bildurik zeudela. **Koldo Biguri**

Herriko etxean (udaletxean) honki jina egin deigü Ezenaro jaun auzapezak, erranez euskararen alde zer egiten dūan Hendaiako herriak (**udalerriak**). **Herria**

Udalerrriak alkate serio eta dedikazio osokoa behar du. **Bego Montorio**

Udalerrietako erroldetan, baina, 122.300 atzerritar inguru ageri ziren joan den urtarileko datuetan. **Berria** - Harian

Ez baita berdin 200 biztanleko **udalerrri** bat edo Erkidegoko administrazio zabalak. **Pello Salaburu**

Gure ardurapeko **udalerritik** atera baino lehen. **Koldo Biguri**

Hiriak kristau-apezpiku baten egoitza zen herria esan nahi izan zuen, eta ez bere autogobernu zibilerako erakundeak zeuzkan eta erromatar errepublikako **udalerrri** gisa gutuna hartutako herria. **Iñaki Mendiguren**

Espainiako **Udalerrrien** Federazioak (FEMP) antolatutako Udal demokratikoen 25. urteurrena. **Berria** - Mundua

EAEko **Udalerrrien** Elkartearen (Eude) «proposamen antisozialak» onartu izana kritikatu zuen ELAK. **Berria** - Euskal Herria

2 (izenondoekin)

Lehengo La Puebla de Bolivar hemendik aurrera Ziertza-Bolibar **udalerrri** independentea dela erabaki zutelako Bizkaiko Batzar Nagusiek. **Berria** - Euskal Herria

Bost komunitatetan biltzen diren 27 **Udalerrri** Autonomo Matxino Zapatistak (MAREZ) gobernatzeko. **Berria** - Mundua

Udalerrri demokratikoen 25. urteurrena ospatzeko. **Berria** - Euskal Herria

Mozioak aurkeztuko dituzte Euskal Herriko **udalerririk** handienetako udaletan datozen hilabeteetan. **Berria** - Euskal Herria

Teknikari taldeak 10.000 biztanletik gorako udalerrri guztietara zabalduko dira (gaur egun 40 daude, baina soilik **udalerrri** nagusietan). **Berria** - Euskal Herria

Zakurra duten etxeetako %37,4 **udalerrri** txikietan daude (2.000 biztanle baino gutxiagokoak). **Berria** - Euskal Herria

Beste **udalerrri** nazionalisten alkateek Aritzetako errauste plantari dagozkien erabakiak hartzea ez dut onartu. **Berria** - Euskal Herria

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) euskararen birika ekologikoa da, euskararen Amazonas oihana. **Berria** - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal herriko udalerrri (3); **udalerrri autonomo** (4); **udalerrri autonomoen** (3); **udalerrri bihurtu** (3); **udalerrri demokratikoen** (4); **udalerrri euskaldunen** (11); **udalerrri euskaldunen mankomunitatea** (5); **udalerrri independente** (4); **udalerrri propioa** (3)

eaeko udalerrrien (4); **espainiako udalerrrien** (8); **espainiako udalerrrien federazioak** (5); **herrialde guztietako udalerrrien** (4); **udalerrrien arteko harremanak** (6); **udalerrrien federazioak** (5)

hendaiako udalerrientzat (3)

udalerrrietako agintariek (3); **udalerrrietako erroldetan** (4)

biztanletik gorako udalerrrietan (3)

udalerrrika *adlag* udalerrrien arabera.

Datu horiek adin-taldeka, sexuaren arabera, eta bilakaeraren arabera (1986tik 2001era) ikus daitezke eta lurraldez lurralde, gainera: **udalerrrika**, eskualdeka, herrialdeka eta Euskal Herri mailan. **Berria** - Euskal Herria

Datuak **udalerrrika** ere eskura daitezke; adibidez, Altsasukoak. **Berria** - Euskal Herria

udaletxe (*orobat U larriz; orobat udal etxe g.er.*) 1 iz udal administrazioaren zerbitzuak eta bulegoak dauden eraikina. ik herri 24.

Herriko etxean (**udaletxean**) honki jina egin deigü Ezenaro jaun auzapezak, erranez euskararen alde zer egiten dūan Hendaiako herriak (udalerrriak). **Herria**

Udaletxera joatea erabaki nuen, azken finean Udala baitzen kanposantuko arduraduna. **Ramon Saizarbitoria**

1947an **udaletxea** Kasinoko eraikineran eraman zen arte, gaur egun Liburutegia den **Udaletxeko** eraikinean izan ziren udalaren bulegoak. **Askoren artean**

Udaletxea asteburu osoan irekita egongo da ezkontzak ahalbidetzeko. **Berria** - Gaiak

Udaletxea hertsatu zuten herritar guzrien artean, bakoitzak bere ahalein arabera emanez. **Elena Touyarou**

Udaletxeetan eta diputazio jauregietan. **Iñigo Aranbarri**

Bera zinegotzia zelarik (73-79), kabroi separatista horien trapu zikina bere kabuz **Udaletxean** jarri zuen. **Pablo Sastre**

Herri Batasuneko karguak Donostiako **Udaletxean** itxi zirenean. **Berria** - Euskal Herria

Bartzelonako **udaletxean** ziharduela funtzionario. **Joxerra Garzia**

Agoizko **udaletxean** osoko bilera iskanbilatsu asko izan ziren egun haietan. **Edurne Elizondo**

Lehendakariak goretsi du 25 urte huntan Euskal Herriko **udaletxetan** egin den lana. **Herria**

Benta zaharra zegoen lekuan osatu zen plaza moduko hura, orain **udaletxeko** plaza zena. **Jon Maia**

12:30ean, elkarretaratzea eginen dute Iruñeko **Udaletxe** plazan. **Berria** - Euskal Herria

Udaletxeko arkupeetan sartu eta aztoraturik geratu zen bertan, maletatxo eskuan zuela. **Koldo Biguri**

Plaza erdiraino iritsi eta han **udaletxeko** ate lodi burdinazkoan sastakaia dantzan utzi zuen, bere izen-abizenak paper batean idatzita. **Felipe Juaristi**

Udaletxeko atariko eskaileretan. **Berria** - Harian

Udaletxeko artxibotik kopia nuen paper bat irakurriko dizut, auzi horri buruzkoa. **Koro Navarro**

Udaletxeko ekitaldi aretoan. **Edorta Jimenez**

Gainezka bildu zen jendea biharamunean **udaletxeko** sala estuan. **Joseba Sarrionandia**

Aurrena Ordiziako **udaletxeko** ziegetan eduki zuten preso. **Jokin Urain**

Udaletxeko lagunekin hitz egingo dut ea lanbideren bat eskuratzetik dugun zuretzat. **Javi Cillero**

Udaletxeko agintari bat, amarruz sartua, burgumaisua, txanbelan handia, aholkularia, halako zerbitu. **Fernando Rey**

Udaletxeetako idazkariet idazten zien, berri zehatzak eskatuz. **Josu Zabaleta**

Harmailatik salto eginda **udaletxearen** atartera inguratu ginen denak zer pasatzen zen ikusteko. **Joseba Sarrionandia**

Basaurin 300 lagun inguru, elkarretaratu ziren atzo **udaletxearen** aurrean. **Berria** - Euskal Herria

Udaletxe aurrean protesta egiten ari zirela jaso zuen kolpea grebalariek. **Berria** - Ekonomia

Sindikalistak arrastaka atera dituzte Donostiako **udaletxetik**. **Berria** - Ekonomia

Nola Eibarreko **udaletxetik** aldarrikatu zen Espaniako Errepublikak berria. **Piarres Xarriton**

Indigenek agintari baten etxea erre eta **udaletxearekin** gauza bera egingo zutela mehatxatu zuten. **Berria** - Mundua

Elkarrekin egin dute **Udaletxerako** bidea, oinez. **Iban Zaldúa**

Udaletxeok hartu zuten erabakirik inportanteena presoak hartzea izan zen. **Joseba Sarrionandia**

2 (izenondoekin)

Parisko **udaletxe** ikusgarria hurbil-hurbil zegoen. **Alberto Ladron Arana**

Koloniako **udaletxe** ederraren aitzinean zabalzen zen plazan. **Alberto Ladron Arana**

Denda txiki baten jabe egin zen **udaletxe** zaharra zegoen karrikan. **Felipe Juaristi**

Hernanik ez dauka monumenturik, eliza arrunt bat -Pompadour estiloko portiko aberatsa duen arren-, **udaletxe** ezdeus bat. **Koldo Izagirre**

Udaletxe ohiaren azpialde hartan zeuden Liburutegiaren funts baliosenak. **Iñaki Iñurrieta**

Legearen helburua **udaletxe** zehatz batzuen aurkako jazarpena abiatzea da, arrazoi ideologikoak medio. **Berria** - Euskal Herria

Bi zaldi ikusi genituen kalean zerraldo eta mazpilduta, bilkura-areto edo **udaletxe** izandakoaren ondotik iragan ginenean. **Mirentxu Larrañaga**

3 udala.

Udaletxeak Urgull mendia erosten dio estatuari. **Askoren artean**

Luxenburgoko lorategiak ederragotzeko egitasmoa zela, **udaletxeari** saldu eta dirutza egingo omen zuten egitasmo harekin. **Harkaitz Cano**

Hire ikerketarako **Udaletxeak** jarriko dik dirua, utzi nire kontu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

lazko abuztuaren, Pegoko **udaletxearen** lur eremuetan zundaketak egin zituzten. **Berria** - Gaiak

Lekuineko **udaletxeak** herriko pilotalekuari Xala izena jartzea erabaki duela. **Berria** - Kirola

Udaletxeak eskainitako pisuetan. **Iban Zaldúa**

Donostiako **udaletxeak** horixe baitu, antza, helburu eta lehen asmo. **Joan Mari Irigoien**

Azkenik Jose Mari Kazalis Lekeitio-ko auzapezak zabaldu duen mezua, UEMA-ren partez, erakunde hori izanki **Udaletxe** Euskaldunen elkargoa. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

donostiako udaletxe aurrean (4); **eko udaletxe** (5); **eko udaletxe plazan** (3); **iruñ iruñ udaletxe aldera** (4); **udaletxe atzean** (3); **udaletxe aurrean** (37); **udaletxe aurreko** (8); **udaletxe aurrera** (5); **udaletxe azpiko** (4); **udaletxe barruan** (7); **udaletxe kanpoan** (4); **udaletxe ondoan** (3); **udaletxe parean** (4); **udaletxe plazan** (8)

donostiako udaletxeak (4)

andoingo udaletxean (15); **andoingo udaletxean sartu** (6); **bilboko udaletxean** (3); **debako udaletxean** (5); **donostiako udaletxean** (13); **eko udaletxean** (7); **gasteizko udaletxean** (3); **herriko udaletxean** (5); **ikurrina udaletxean** (3); **iruñ sestaoko udaletxean** (3)

udaletxean bertan (4); **udaletxean dago** (3); **udaletxean egin** (5); **udaletxean egindako** (6); **udaletxean eginiko** (3); **udaletxean izan** (7); **udaletxean izan zen** (5); **udaletxean sartu** (11); **udaletxean sartu ziren** (3)

bilboko udaletxearen (8); **bilboko udaletxearen aurrean** (5); **donostiako udaletxearen** (6); **donostiako udaletxearen aurrean** (4); **udaletxearen aitzinean** (3); **udaletxearen atarian** (6); **udaletxearen aurrean** (45); **udaletxearen aurrera** (3); **udaletxearen balkoian** (4)

udaletxeen aurrean (9)

andoingo udaletxeko (4); **bilboko udaletxeko** (3); **donostiako udaletxeko** (3); **eko udaletxeko** (4); **gasteizko udaletxeko** (3); **iruñ udaletxeko arkupean** (3); **udaletxeko arkupeetan** (4); **udaletxeko atarian** (9); **udaletxeko balkoian** (13); **udaletxeko balkoira** (5); **udaletxeko balkoira igo** (3); **udaletxeko balkoitik** (8); **udaletxeko batzar** (3); **udaletxeko eskaileretan** (6); **udaletxeko idazkariak** (3); **udaletxeko idazkariaren** (5); **udaletxeko langileen** (8); **udaletxeko langileen batzordeko** (6); **udaletxeko plaza** (4); **udaletxeko plazan** (18); **udaletxeko plazara** (7); **udaletxeko pleno aretoan** (4); **udaletxeko teknikariak** (3); **udaletxeko zubia** (4); **udaletxeko zubian** (3)

andoingo udaletxera (6); **andoingo udaletxera sartu** (5); **udaletxera eraman** (6); **udaletxera jo** (3); **udaletxera joan** (11); **udaletxera joateko** (3); **udaletxera lanera** (3); **udaletxera sartu** (7)

donostiako udaletxetik (5); **udaletxetik irten** (4)

udalgintza iz

Udalgintza. **Berria** - Euskal Herria

udalkide iz udaleko kidea.

Irun eta Hondarribiko **udalkideek** aurtengo alardeen ospakizunetan hartuko duten jarrera benetako froga izango da Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun Legearen eraginkortasuna zenbaiterainokoa den neurtzeko. **Berria** - Harian

udalkume iz adkor udaleko pertsona.

-Gorria zaukak **udalkumeak** ! **Aingeru Epaltza**

udaltalde ik udal 7.

udaltegi iz udal zentroa.

Kontzertuek eszenatoki berri bi izango dituzte aurten: San Frantziskoko **udaltegia** eta Errekaldeko Ametzolako geltokia. **Berria** - Kultura

Zinebi Bilboko Film Labor eta Dokumentalen jaialdian parte hartutako filmak ikusteko aukera eskainiko du Zinebiklubek, Abantoko **Udaltegian** (Bilboko Barrainkua kalean). **Berria** - Kultura

udaltzain 1 iz herri edo hiri bateko bizitza zaintzeko eta udal-agindua betearazteko zeregina duen enplegatua. ik herrizain.

Ingandean Udaletxean, guardiako bi-hiru **udaltzainez** gain, ez baita inor horretaz arduratzeko. **Aingeru Epaltza**

Suhiltzaile, **udaltzain** eta ertzainek egun beteko lana izan zuten sortu ziren arazoei aurre egin, eta balizko arazoak saihesteko. **Iñigo Aranbarri**

Bizkartzain pribatuak eta **udaltzainak** beste 10.000 direla. **Berria** - Euskal Herria

Nafarroako 1.300 foru poliziak eta **udaltzainak** sar daitezke eta sindikatu profesionalak eta klase sindikatuek dituzten «hutsuneak» betetzea da sindikatu profesional berri horren helburua. **Berria** - Ekonomia

Udaltzainburuaren arabera, **udaltzainek** «beren lana egin zuten, ez besterik». **Berria** - Mundua

Ordu erdi geroago, ezin konta ahala **udaltzain** eta isileko polizia zebiltzan hiriko kale hutsetan. **Jose Morales**

Udaltzainak arma ateratzeko keinua egin zuen. **Rafa Eiguren**

Txoferra, autoa gaizki aparkatuta utzi zuela eta, trafikoa zuzentzen ari zen **udaltzainarekin** ez eta bai ari zen. **Pablo Sastre**

Zubiaren bi muturretan, dozena erdi **udaltzainek** trafikoa geldiarazten eta saihesten zuten. Berria - Euskal Herria

Bi **udaltzain**, gaueko uniformeak jantzita artean, kapusaia soinean eta kepia buruan, espaloian atzera eta aurrera zebiltzan besoz besoz. Berria - Euskal Herria

Tiro egiten ez zekiten **udaltzain** logaletsu eta baldar haiekin. Berria - Euskal Herria

Udaltzainen kaboa irudikatu nuen gorpuaren alboan ikerketan, eta negargura eman zidan. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hantxe atxilotu zuen **udaltzain** talde batek abenduaren 4ko gauean. Berria - Euskal Herria

Lehenengo ondorioa, nola ez, tabernaren txikizkia izan zen; bigarrena, **udaltzain** eta gau-jagoe andana bat etortzea, tabernariak deituta barbaro haien arteko borroka gerarazteko. Berria - Euskal Herria

Semaforo gorrian stop eginda, ibilgailua ralentian, **udaltzain**-autoa ikusi dute eskumatik abian. Berria - Euskal Herria

Suhiltzaileetan buru egiten zuenari hitz batzuk, **udaltzain** sarjentu bati ere bai. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eko udaltzainak (3); **irun udaltzainak eta ertzainak** (4)

emakumeak udaltzainei (3); **udaltzainei deitu** (6); **udaltzainei deitu zieten** (4)

bilboko udaltzainek (8); **eko udaltzainek** (7); **ertzainek eta udaltzainek** (5); **gasteizko udaltzainek** (4); **irun udaltzainek atxilotu** (4); **udaltzainek eta ertzainek** (3)

eko udaltzainen (3); **gasteizko udaltzainen** (3); **irun udaltzainen autoa** (4)

udaltzainburu iz udaltzainen burua.

08:30ean, Espainiako poliziaren lau furgoneta eta udaltzain talde handia (Simon Santamaria **udaltzainburua** barne) gaztetxerantz gerturatu ziren. Berria - Euskal Herria

Joseba Pagazaurtundua Andoaingo **udaltzainburua** eta PSE-EEko kidea hil zuen ETak Andoainean. Berria - Euskal Herria

Luis Cid Gasteizko **udaltzainburuak** atzo baieztatu zenez, herenegun Gasteizko etxebizitza batean hilda aurkitutako hiru urteko umearen amak eman zuen aurreneko kezka abisua. Berria - Euskal Herria

Lau udaltzainak hura atxilotzen saiatu zirenean, oldartu egin zitzaizela eta indarrez geldiarazi behar izan zutela azaldu zuen Marbellako **udaltzainburuak**. Berria - Euskal Herria

udaltzaingo (askotan U larriz) iz herri edo hiri bateko udaltzainen multzoa; udaltzainek betetzen duten zerbitzu publikoa.

Udaltzaingoak Espainiako Poliziaren esku utzi zituen hiru gazteak. Berria - Euskal Herria

Oinarritzko datuak usadioko deiak eginez bildurik -Suhiltzaileak, **Udaltzaingoa**, Gobernuaren Delegazioa-, 450 karaktereko albistea argitaratuko nukeen, eguneko trafikoko istripuen laburpenaren eta poliziari hiriko Alde Zaharreko gamelu tikien kontra egindako azken sarekadaren kronikaren artean. Berria - Euskal Herria

Ertzaintzak eta **Udaltzaingoak** errepidetik kentzen dituzte ibilgailuak, istripuak saihesteko. Berria - Euskal Herria

Esaten diedanean ni bizi naizen hirian lau polizia mota daudela, ertzaintza, polizia nazionala, guardia zibila eta **udaltzaingoa**, ez didate sinesten. Berria - Euskal Herria

Udalak **Udaltzaingoa** bidali zuen atzo elizara, hustu zezaten. Berria - Euskal Herria

Atxilotutakoak **Udaltzaingoaren** polizia etxera eraman zituztela jakinarazi zuen Iruñeko Udalak atzo. Berria - Euskal Herria

"Ardura gehiegizkoa bere egitekoan aritzean" idatzi zuten **Udaltzaingoak** ireki zuen espedientean. Berria - Euskal Herria

Bilboko **Udaltzaingoaren** drogaren kontrako taldeak «egin ohi dituen sarekada ikusgarri horietako batean» [...]. Berria - Euskal Herria

Azken hiru urteotan 56 bat borroka-zakur aurkitu ditu Bilboko **Udaltzaingoak** eta debekuzko zakurtegi ugari. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atxilotu zuen udaltzaingoak (4); **bilboko udaltzaingoak** (13); **donostiako udaltzaingoak** (7); **eko udaltzaingoak** (4); **ertzaintzak eta udaltzaingoak** (3); **gasteizko udaltzaingoak** (10); **irun uterako udaltzaingoak** (3); **udaltzaingoak adierazi** (3); **udaltzaingoak atxilotu** (4); **udaltzaingoak atzo jakinarazi** (4); **udaltzaingoak hartu zuen** (3); **udaltzaingoak jakinarazi** (9); **udaltzaingoak jakinarazi zuzenez** (6)

udaltzaingoari deitu (3)

udaltzaingora deitu (3)

udamin ik uda 9.

udaparte ik uda 10.

udara 1 iz uda.

Udara betean geunden arren, neguko jaka lodi bat zeraman gizon edadetu batengana. Berria - Euskal Herria

Otz ta bero, **udara** ta negu, gose ta egarri, zorion ta zoritxar, txantxangorria kantari somatuko dek. Berria - Euskal Herria

Udaberri txiki: Azaro hasierako egun eguzkitsuak, San Martin **udara**. Berria - Euskal Herria

Udaran gaixotasun psikologikoak ugaritu egiten dira, aditu baten uestez. Berria - Euskal Herria

Eskolarako 2 soineko (**udarako**), eskolarako 2 soineko (negurako). Berria - Euskal Herria

Litekeena da **udara** baino lehen saio hori nola gauzatzen den ikustea. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Talamonik, **udara** hasieratik burutzen ari diren atentatuez zera esan zuen: [...]. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

udara baino lehen (3)

udare 1 iz udareondoaren fruitua, biribil antza baina txorten aldean zerbait luzatzen dena, mami sendoa eta urtsua duena. ik madari; txermen.

Ateetatik hurbil, baratze handi hesitu bat dago: hantxe **udare**, granada, sagar, piku eta olibondoak, uda eta negu aiez beterik. Berria - Euskal Herria

Baziren **udareak**, intxaurrak, gaztanbera, ganbak, patata frijituak eta errefauak. Berria - Euskal Herria

Udareak egurra bezain gogorrak ziren eta gustua ere halakoxea zuten; txerri batek ere ez zituzkeen jango. Berria - Euskal Herria

Besteek azukre uretan beratu **udareak** dirudite. Berria - Euskal Herria

Kanpai baten edo **udare** baten tankerakoa. Berria - Euskal Herria

-Txerrena ez, llargi, **udarea** da hori. Joxerra Garzia

Gero, **udare** barietateak, **udare** zuriak, ingalaterakoak, beurre **udareak**, San Joan **udareak**, dukesak, batzuk potoloak, beste batzuk luzeak, beltzarga lepoekin edo sorbaldan apoplektikoekin, sabelak horiak eta berdeak, karmin pittin batez edertuak. Karlos Zabala

2 irud/hed

Buru zapi beltzaren azpian sartuta dauka morroiak, eta, kamera enfokatu ondoren, lokarri batetik zintzilik dagoen **udarea** estutu du. Rafa Eiguren

Belarrirako batzuk hautatzen zituen, koral faltsuzko **udare** batzuk, urrezko arrosa batzuetatik zintzilik zeudenak. Karlos Zabala

3 (izenondoekin)

Udarea **udare** berriaren gainean zahartzen da, sagarra sagarraren gainean, mahatsa mahatsaren gainean. Juan Kruz Igerabide

Gure aitari fruta ongi heldua gustatzen zitzaion; horregatik, guri **udare** mailatua edo joa tokatzen zitzaigunean, hari ematen genion. Fernando Rey

Atsedean hartu du soilik masusta bat, **udare** makatz bat edo basaranak biltzeko, ahoa estutu, ezpainak zuritu eta egarria sosegatzen baitute. Itziar Otegi

A, zuen **udare** ustelak ematen dizkizudae! Fernando Rey

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Udare formako perlak ditun, ezta? Karlos Zabala

Alice **udare**-puska luzeak gaztarekin nahasita jaten ari zen. Lopez de Arana

Bazkaria xerbitxatua izanen da 13:30tan: entsalada, paella on bat, ardi gasna eta **udare** tarta, kafea eta ondoko, denak 20 e. Herria

Haize bolada batek zirimolatu zizkion alargun gazte eta ederrari **udare** xanpuarekin garbitutako adats belakitsuak. Aritz Gorrotxategi

Sasoi horretakoa da Agustin deunak Aitortzak liburuan, bere autobiografian, kontatzen digun **udare** lapurreta. Imanol Unzurrunzaga

Neskazaharrak, **udare** plater bat eraman nahi zuela eta, egun hartan labea zer ordutan egongo zen bero galdetu zuen. Karlos Zabala

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kardaberak eta baxa-**udareak** eta belar-kondotoxoak jatera ohitua ez dago ba nire urdaila. Patxi Ezkiaga

udareondo *(orobat udare ondo g.er.) iz arrosaren familiako zuhaitza, ez oso handia, lore zuriak dituena eta fruitutzak udareak ematen dituena (Pyrus comunis). ik madariondo.*

Orduan, mahastien orde, hasi ziren fruitudun arbola landatzen, sagar, mertxika, aran, **udareondo**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Baratzeko zuhaitz batzuk seinalatu zizkion, Laertesek berari umetan oparituak: hamahiru **udareondo**, hamar sagarondo eta berrogei pikuondo. Juan Kruz Igerabide

Baratze batean zegoen hilobia, haizearen mende, paretatxo baten pean, eta mertxikondoak eta **udareondoak** makurtzen ziren paretatxoaren gainetik. Jon Muñoz

Gure burrasoek sua pitzen zuten, sekulako puska zahar, erramu aldaxka eta belar tzar erretzeko eta handik hurbil, Jondoni Joaniren **udare ondoak** fruituak ontzen hasiak zituela. Herria

Udareondoko adar batetik bestera. Anton Garikano

udaro 1 *adlag* uda guztietan.

Alice Vaughan-en gurasoak **udaro** joaten dira White Mountains-era, baina datorren udan atzerrira joango dira. Lopez de Arana

Maeght fundazioan **udaro** erakusketa diferenteak jartzen dituzte, lekua ederra da benetan, eraikin orijinala. Mikel Hernandez Abaitua

2 *udaroko izlag* uda guztietakoa.

Udaroko hitz aldaezina. Iban Zaldúa

Hankak gauza diren artean, hala ere, segi egingo omen dio **udaroko** ohiturari. Berria - Euskal Herria

Abesbatzek Hondarribiko harresian egingo dute aurten **udaroko** kantu emanaldia. Berria - Kultura

3 *udaro-udaro*

Udaro-udaro kirolari emanda ari naiz atsedetik hartu gabe, eta udan behinik behin, gozatu egin nahi nuke. Berria - Kirola

Zeren gu -emazte Pilar eta biok, alegia- haien **udaro-udaroko** gonbidatuak baikinena euren etxean. Pedro Alberdi

udatar ik *udatiar*.

udate iz udaldia.

-Oraindik ez baita handikien **udatea** amaitu! -pentsatu nuen. Txillardegí

Udate ofiziala, atzo amaitu zen. Txillardegí

udatiar *(orobat udatar g.er.) 1 iz udako oporraldia igarotzera toki jakin batera doan pertsona.*

Udatiarrak hasiak omen dira nondinahi agertzen, oraingoz madrildarrak gehiago paristarrak baino, Hugori sinestekotan. Koldo Izagirre

Hurrengo egunean atzerritar batzuk ikusi nituen tolo hori eta zuriaren itzalpean eserita, urteko lehen **udatiarrak**. Bernardo Atxaga

Gure auzokoeak, aspaldidanik, urtero, bi apartamentu alokatzen zituzten **udatiarrei**. Daniel Landart

Gure elizetan ikusten diren **udatiarretan** badira elizatiar jarraikiak, badira ere hala ez direnak. Herria

Udatiarren etorreraren garrantzia jabetzeko, esan dezagun 1901ean hamaika mila lagun inguruk aukeratu zutela Donostia udaleku gisa. Askoren artean

Gauegiz-Arteagako etxean %48 hutsik daude edo **udatiarrenak** dira. Berria - Euskal Herria

Miradorerantz abiatu ginen lehenik, baina **udatiarrez** beteak ikusi genuen. Bernardo Atxaga

Ondoan eserita dauzkan **udatiar** musugorriak, beren haragi nasaietan eroso, gozatzen ari dira antzezlanaz. Oskar Arana

Udatiar eskuindarrak joanda zeuden ordurako, familia eta zerbitzariekin, euren palazio zuriak ia hutsik utzita. Joseba Sarrionandia

Italian, hanbat eta hanbat **udatiar** bisitari baduten herri hortan, kanpotiarra hezi nahi lukete hango bazterren hobeki errespetatzeko. Herria

Joanden igandean hor zen ere beraz "Delphin-Renaissance" untzia ber 640 **udatiarrekin**, gehienak alemanak. Herria

Oraintxe hasten zaigu sasoirik onena, negua iritsi bitartean, **udatiarrek** alde egin eta gero. Iñaki Iñurrieta

Hona zubia, udaberri hotz honetan geroko **udatiarren** zain, eta eliza. Piarres Aintziart

Nekazariak eta **udatiarrak** elkar hartuak zeuden beti [...] berde izpi bat agertzen zuen lursail oro erregai bilakatzen. Aingeru Epaltza

Bere aurrean eseri berri den familia **udatiarrez** jantzita dago. Iban Zaldúa

2 (izenondo gisa)

Donibaneko hondartzan, Paristar neska **udatiar** xarmant bat "dragatzen" nuen aldi guziz, nire izenaren jatorria esplikatu behar nion beti. Ramuntxo Etxeberri

Aurreko balkoian ikusi nuen Condomeko neska, guatekeak antolatzen zituen madrildar **udatiar** baten besotan barrez. Ramon Saizarbitoria

3 (adizlagun gisa)

Orduan probintzia osoko anarkistek juntadizoa egin eta hiriburuan **udatiar** zeuden Madrigo ministroak eta goi mailako jendea preso hartu zituzten Maria Cristina hotelean. Koldo Izagirre

• 4 izond udakoa.

Ortizal arrats **udatiarreko** trafiko urriaren mirariak. Aingeru Epaltza

Arrosa **udatiarren** moldean gorritu zakilak eta izar ihintz odoltsuz busti aluak, egunagatik, argiztaturik erakusten zituen peep-show denda baten parrean gelditu nintzen. Itxaro Borda

Eredakzioko goiz **udatiar** aspergarria alaitzeko. Aingeru Epaltza

Soineko motz **udatiarra** zeraman jantzirik. Aingeru Epaltza

Gerri-izterrak hain ongi markatzen zizkieten galtza fin **udatiarrez**. Aingeru Epaltza

Bere aurpegian metafora bako begi egartiak ikusten ditut, poesiaz biluzturiko bere mingain luzea zure alu argi eta **udatiarra** miresten. Eider Rodriguez

udatiartsu izond udatiarrez bete.

Berrito ere ageri da gure filosofoa, egia berdaderoen ezpaleko pentsamendu muturren bat jaulkitzeko prest: Abuztua **udatiartsu**, umore ona baduzu. Pello Zabala

udatoki iz uda igarotzeko lekua. ik udaleku.

Udatokia da, eta udan jende dezente zegoen, baina orain oso gutxi dago. Berria - Kirola

udatzen iz udazkena.

Udatzen batean, basoak gorritzen ari zirelarik, antzara bat aurkitu zuen lurreean zauritua. Pako Aristi

Izan zen **udazken** bat, aspaldikoa, zeinetan ilargi berria San Martin egunez egokitu zen, azaroaren 11n. Pello Zabala

Udatzenean, garaitsu honetan, lizar egitera joaten ginen. Patziku Perurena

Eta ez ahaztu, **udatzenetik** negurakoa izaten zela amodio kantu lizunotan aritzeko garairik oparoena, etxe barrengo lanak eta auzofestak zirela medio. Patziku Perurena

Udatzenaren adatsetan tratatua. Patziku Perurena

udazale izond udaren zalea dena.

Frantzia aldean halako uholdeak eta hildako hainbat **udazale** oporretan zirenak. Pello Zabala

udazken 1 iz udaren ondoko urtaroa, Lurraren iparraldean irailaren 21etik abenduaren 21era hedatzen dena. ik larrazken.

Igaro ziren nonbait **udazkena** eta negua gu zigor-geletan geundelarik. Jokin Urain

Elanor txikiak ia sei hilabete zituen eta 1421eko **udazkena** sarturik zegoen dagoeneko. Agustin Otsoa

Etorria zen **udazkena** eta, berarekin batera, atzera ere hondartzan bakarrik paseatzeko aukera. Iñaki Iñurrieta

Lur gainean zabaltzen zen belarra lehorra zegoen, **udazkena** baitzen, urtarorik bigunen eta sikuena. Felipe Juaristi

Udazkenak aurreneko egunetan hego haizea ekarri zuen. Felipe Juaristi

Udazkena laburra duk Siberian. Karlos Zabala

Bakarrik gelditu nintzen Iruaingo etxean, eta, **udazkenaren** etorrerari amore emanez bezala. Bernardo Atxaga

1524ko **udazkenean**, albistea hedatu zen Nafarroako Estatuetan: [...]. Aingeru Epaltza

Liburuko gainerako bost ipuinak 1985ean idatzi nituen: lau udan, eta azkena **udazkenean**. Xabier Mendiguren Elizegi

Beste hamar liburu idatzen ari dira, batzuk **udazken** honetan argitaratzeko. Berria - Kultura

Isildu gabe hitz egiten zuen Krimeako **udazkenei** buruz. Jose Morales

1922ko **udazkeneko** gau eder bat zen. Monika Etxebarria

Udazkeneko egun bat zen, hego haizeak zeruko errautsak garbitu, eta Donostia urre kolore beteaz janzen den horietakoa. Ramon Saizarbitoria

Gauza beltz eta txiki bat herrestan zebilen, gelako berotasunak suspertutako **udazkeneko** euli berankor bat inondik ere. Jose Morales

Udazkenerako iragarrita zegoen bi hartz emeen etorrera, baina, egun, hala izanen denik ez du inork ziurtatu nahi. Berria - Harian

Mila loreren ederrean lehertuko nintzateke udaberri oro, eta mila fruitutan uda edo **udazken** oro. Joan Mari Irigoien

Gaua genuen konplize, **udazkena** begirale. Karlos Linazasoro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Udaberri edo **udazken** goiztiarreko haizerik gabeko goiz isiletan. Jose Morales

Udazken hozkirri eta lanbrotso honetan. Jon Arretxe

Afrikako eguraldi beroarekin ohituta, ezin arrotzago sumatzen zuten iparraldeko mendi haietako **udazken** izoztua. Iban Zaldúa

Udazken garbiko egunen sokak bai, goiz eta arrats garbi alai zeharrargikoak ekartzen badaki. Pello Zabala

Udazken lehorra dator, baina zentral hidraulikoen erritmo geldoa apalduko dute beste azpiegiturak. Berria - Ekonomia

Udazken osoa pasa zuen Alesek josten. Jasone Osoro

Udazken beteko harmoniaz jantzitako musika, ironiaz ukitua baina berak buru barnean itzalez inguratua bezala entzuten duena. Oskar Arana

Udazken bete-betean ere bainatzeko moduko ur beroa. Fernando Rey

Hori zen ia dena, ur gozoko ibai batzuetara **udazken** beranduan etortzen ziren amurruen erraldoiak eta izokinak kenduta. Koro Navarro

Diezek «**udazken** gatazkatsua» iragarri zuen, negoziazio kolektiboan patronalak eta administrazioak «ez mugitzeko jarrera» dutelako. Berria - Ekonomia

Behin betiko epaia ez da aurtengo **udazkena** arte espero. Berria - Ekonomia

1973tik da Knesseteko diputatu, iazko **udazkena** arte Likuden eta ordudunik Kadima alderdian. Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan)

Udazken goiz batean Moncloara paseatzera joan zen. Josu Zabaleta

Donostiako **udazken** arrats hezeetan gertatzen zitzaizun hura hasi zaizu gertatzen W.n ere. Lourdes Oñederra

Udazken -egun malapartatu batean. Joxerra Garzia

Udazken hasierako egun garbi bat. Pello Zabala

Bihotz-ilun sumatzen zuen zenbaitetan, zuhaitzetako azken hostoak **udazken** amaiera aldera bezala. Imanol Zurutuza

Udazken erdialdera Jonathanek unibertsitatetik hots egin zidan. Berria - Kultura

Udazken hondarreko eguzki-sarreraren argitasunak estaltzen zituen berdeguneak eta ibilbideak. Irene Aldasoro

Baina orduan udazkena zen, iazko **udazken** sasoi. **Pako Arísti**

Udazken koloreari eusten diote oraindik eskualde honetako arboladi. **Jon Arretxe**

Udazken giro naturala bezain gauza estimatzekorik apenas. **Pello Zabala**

Eguberri belaxka eta **udazken** -girotakoa bada, gero kontuak, Pazkotan, alegia! **Pello Zabala**

Letrak aldraka, **udazken** partean zozabarrak bezala. **Anjel Lertxundi**

Mahatsaren **udazken** -dasta udazkenean, eta mahaspasaren negu-dasta neguan. **Joxerra Garzia**

4 irud/hed

Udaberriz betea nire egunen **udazkenean**. **Jon Muñoz**

Beti gabilitza biluzik, jaio berri, hil berri, argia baita gure izaera eta gure existentzia, gure aldea eta gure ifrentzia, gure **udazkena** eta gure udaberria. **Felipe Juaristi**

udazkeneka *adlag*

Udaberrika, udaka, **udazkeneka** eta neguka. **Bernardo Atxaga**

udazkenero *adlag* udazken guztietan.

Kondesak berak aukeratzen zituen, urtero-urtero, paretetarako zeta-oihalak, fabrika eta dendetara **udazkenero** osteratxo bat egin ondoren, bere herrialdera itzuli aurretik.

Xabier Olarra

Udazkenero kontzertuak antolatzen zituen Pikurok, Irurtzunen Udalaren laguntzarekin. **Berria - Kultura**

udazkentsu *izond* udazkenez betea.

Auto errea berritu zuen nire akorduak, baina oroitzapenak ez zeukan zuhaitzetako gorri **udazkentsuaren** garrik. **Anjel Lertxundi**

udinetar *izlag/iz* Udinekoa, Udineri dagokiona; Udineko biztanlea.

Epailiek jokia geratu behar zutela argudiatu dute Udineseko arduradunek, eta epailen lana zaintzen dutenek ere arrazioa eman diete **udinetarrei**. **Berria - Kirola**

uduri ik iduri.

uf 1 *interj* desgogara egotea edo kideko zerbait adierazten duen hitza. ik **uff**.

48 urte, **uf**! **Imanol Zurutuza**

Uf! eskerrak... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Uf, aski, ordenatu behar dut hau guztia hala edo hola. **Karlos Zabala**

Uf, zein baino zein aspergarriagoak haiek ere! **Antton Olano**

Uf!, harrapatu ez nauenean! **Patxi Iturritegi**

Uf, komuneko lurrun madarikatu horrek giroa zeharo berotu din. **Xabier Paya**

Uf!, euria hasi du, eta jende gehiena beren aterkipean babestu da. **Josu Zabaleta**

Ama unetxo batez gelan geratzen zen, droga botilei begira, eta ezpain muturrez aldiro **"uf**!" eginez, eta gero bat-batean hasten zen: [...]. **Josu Zabaleta**

2 (izen gisa)

Zanpaldirik gabe libratzen zirenek **"uf"** handi bat egiten zuten beren baitan, aldia iraganik. **Eneko Bidegain**

ufa¹ *interj* poza adierazten duen hitza.

-**Ufa**! -oihu egin zuen Pepponek-, banekien kontu hau politikara eramateko era aurkituko zuela! **Koldo Biguri**

Ufa! horra katedrala, Burgoseko katedrala! **Piarres Aintziart**

"Ufa!" Aurpegia gorbataz haizatzeko itxurak egin zituen. **Koro Navarro**

· **Ufa**! Hotza egiten dik hemen. **Pablo Sastre**

Ufa, ze bero! **Berria - Harian**

ufa² *iz* ufakoa, putza.

Aitari ahotik halako **ufa** arraro bat irten zitzaielako konturatu ginen. **Iban Zaldúa**

Janari-usainaren **ufa** beroak eta *He´s a Ragpicker* jotzen ari zen banda baten erritmoak zirimolan ziharduten Ellenen inguruan. **Lopez de Arana**

-Beste hiru? -**ufa** etsigarria igorri zuen Peterrek-. **Fernando Morillo**

Geltokiko buruak jadanik ez zuten hitz egiten, ez zuen egiten arnasots eta **ufa** besterik. **Fernando Rey**

Ofizialaren keinu bat, eta pelotoiko tipok beren kapoteetan **ufa** egin zitean. **Josu Zabaleta**

ufa³ *iz*

Harrigarria da, gorritz tindatzen dituzten ahuntz, behi, **ufa**, idi basa edo adar-bakarren larruak, gero zein ongi badakizkiten, xori eta landare itxura loriagarritz apaintzen.

Aurelia Arkotxa

ufada 1 *iz* haizeaz eta kidekoez mintzatuz, bolada, kolpea. ik **ufako** 3.

Islitasun handi horretan entzun nuen lehenengoz, udako iluntzeko haize leunaren **ufadek** ekarrita, melodia alai, bare eta ia hautemanezin bat. **Urtzi Urrutikoetxea**

Haizeak 90 kilometro orduko hartzen baditu, kamioi handiei abiada moteltzeko aginduko diete, eta bidea itxiko diete 120 kilometro orduko **ufadekin**. **Berria - Gaiak**

Qatarren **ufadaren** indarra oso handia da, eta motoarekin azkar gidatzeaz gain, buruarekin ere azkarra izan behar da. **Berria - Kirola**

2 irud/hed

Leninek iragarritako hauspo askatzailearen **ufadak** mailukada lehor bihurtu dira, hor nonbait, bidean. Txema Ramirez de la Piscina

Besoz beso ibili ziren biak, Peppone eta On Camillo, eta distantzia gero eta txikiagoa zen eta sugarren **ufada** nabaritzen hasiak ziren. Koldo Biguri

Atzerriko inbertsiogileek mugitu zuten merkatua, Wall Streetek bezperan izandako igoeren **ufadei** segika. Berria - Ekonomia

3 (izenondoekin)

Arratsa bazetorren, eta arrastiriko **ufada** beroak agertu ziren tarteka, urtegiko gainaldea kixkurtuz. Txillardegi

Ufada ozena eta min-oihu bat entzun ziren, Neville Crookshanksen gainean esertzen hasi baitzen. Iñaki Mendiguren

AEBetako datu ekonomikoek haize **ufada** beroa ekarri zuten, balio merkatuetara soilik. Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gutxien espero zuenean, mamu mordoska bat agertu zitzaizkion bide erdira: haien orro eta ke-**ufadak** egundokoak ziren, zinez beldurtzeko modukoak. Josetxo Azkona

Burua mugitzen zuen bakoitzean lurrin **ufada** bat arnasten nuen. Monika Etxebarria

Haize **ufada** epel batek agurtu ninduen leun. Txillardegi

Urakan eta ekaitz tropikalen aroa amaitu da berez Ozeano Atlantikoan, baina haize **ufadak** ez dira amaitu. Berria - Gaiak

Hala eta guztiz ere, orduko 290 kilometroko haize **ufadak** eta euri zaparradak eragin zituen Larry-k. Berria - Mundua

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehena izenondoduna dela)

Hura da bere poztasun bakarra, haize fresko **ufada** bakarra. Berria - Kirola

ufaka 1 *adlag* putz eginez.

Trenzale porrokatua zen, eta gelan barrena beti borobilean itzulika ibiltzen zen, bafadaka eta **ufaka** tren-makina bat bezala. Fernando Rey

Zaldiak hara-hona zebiltzan, aztoratuta [...] gure inguruan **ufaka**. Mirentxu Larrañaga

Negu minean, noiz eta ere elurra metatzen baita kasko horietan haizea **ufaka** ari denean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Haizeak uhinen paparra eta gandorra altxatuko ditu, **ufaka**, eta aire kolpeek behelaino antzera jasoko dute ura ontziaren gainetik. Joseba Sarrionandia

On Camillo zaldi bat bezala ari zen **ufaka**. Koldo Biguri

Makinistak, **ufaka**, marmarka, oholak bildu eta alde egingo du. Josu Zabaleta

Raimundo Silva, estu ta larri, izerditan zegoen, azkenik, hamabiak eta hamar ziren argitaletxera sartu zenean, **ufaka**, ardura berriak eztabaidatuko ziren zita baterako izpiritu-egoera txarrenean. Jon Alonso

Dutxa hartzean, **ufaka** ari zitzaigun, hatsak uraren arrabotsa artetan moztuz. Piarres Aintziart

No hay derecho esan eta mundu guztiari bizkar emanez irten zen ujuka eta **ufaka** atetik. Hasier Etxebarria

Jende guzia **ufaka** ari, beroaldia ezin jasanez. Herria

Ez zuen aita hain haserre eta beretik kanpo sekula ikusi: odoltsu zeuzkan begiak, **ufaka** sudur-mintzak, dardarka ezpainak. Anjel Lertxundi

2 irud/hed

Jende boteretsuenak **ufaka** eta **ufaka** ari dira, haize handiago batek su garrak emenda ditzan. Herria

3 (hitz elkartuetan)

Badago igel erraldoi bat [...] aho higuin bat zabalik eta ozeanoaren gainean ekaitz **ufaka** iduri. Koldo Izagirre

4 bibaka, ufa eginez.

Herritarrek **ufaka** egiten zieten ongi etorri. Aingeru Epaltza

Denak lasterka hasten dira bidea laburtu beharrez, esku-zartaka eta **ufaka** ongi etorria ematera. Jon Alonso

Bertze saldo handi batek, aro txarrenen beldurrik gabe, haize ematen zien su-emaileei, oihuka eta **ufaka**. Aingeru Epaltza

Bibaka eta **ufaka** abiatu zitzaizkien, almenetatik, gazteluan aterpeturik zeudenak. Aingeru Epaltza

ufakada *iz* ufada.

Aire kondizionatuaren **ufakada** epel erregularrak baizik ez zituen aditzen. Ramuntxo Etxeberri

ufako 1 *iz* arnasa indarrez jaurtikiaz sortzen den airea.

Gurdiei lotuta abere ilara bat zegoela igar zitekeen haien **ufakoengatik**, ikusezina izan arren. Karlos Zabala

Usain bero sarkor batek geldiarazi zuen, animalia bizien **ufako** batek. Karlos Zabala

Hegaztien pabiloiak [...] **ufako** bero bat jaurtitzen zuen, sunda nazkagarri bat, fabrika kedar bat bezala hedatzen zena. Karlos Zabala

Ukitu bat egin zidan norbaitek, **ufako** sakon batekin. Monika Etxebarria

Urduritasunezko **ufako** bat ateratzen zaio zuzendariari. Anjel Lertxundi

Brastakoan beheratu zituen eskuak, **ufako** bat botaz ia. Jose Morales

En... -adia egin zuen oinazezko **ufako** bat boteaz. Jon Muñoz

2 irud

Izpirituaren **ufakoa** ez ote da beti heltzen gizon batzuen bihotzetaraino? Herria

Ogi fresko epela jaten ari naizela, haurtzaroaren goxotasunak **ufako** ezti azkarra helarazi dit, sukalde bazterreko labetik. Piarres Aintziart

3 hed ik ufada.

Eztandaren **ufakoak**, halaber, galera ikaragarriak eragin zituen Abdolabad, Dehno eta Hashemabad herrietan. Berria - Mundua

Zart egitearen indarraren lekuko, **ufakoak** eragindako astinaldia leherketa gunetik 75 kilometrorra nabaritu zen, eta etxebizitzetako kristalak apurtuak izan ziren eztanda egitearen lekutik 10 kilometroko inguruan. Berria - Mundua

Artetan besteen buruen artetik harena ikusten nuen, lepo mehe luzean txertaturik, ile ilun hostotsua haizearen **ufako** arinak eta gorputzaren mugimendu erregular eta sotilak dardara ohartzezinean ezartzen zutela. Piarres Aintziart

Gaur mendiaren lepoan atzeman nauen haizeak nau hangora haizatu, edozein **ufako** aski baitzait funtsean airatzeko. Piarres Aintziart

Gain hartan haize **ufako** batek hedoiak baztertzen ditu. Michel Oronoz

ufal ik uholde.

ufaldi *iz* ufakoa; ufada.

Mutiko guztiek ikasi nahi zuten txistumodua, eta alferrik saiatzen ziren imitatzen, hatzak mihi gainean edo mihiaren azpian ipinita, mihia sakatuz, **ufaldi** lastimosoak besterik

sortzen ez zituztela. Joseba Sarrionandia
Uler dezatekenek hartzen dute zurrumurruaren **ufaldia**. Joan Mari Lekuona
Haize **ufaldi** batek bere hegaletan baderamatza hiruak jauregi aitzineraino. Michel Oronoz

ufaldu, ufal(du), ufaltzen du *ad* gainezka bete.

Haientzat bazirudien erreka **ufaldu** behar zuen zaparrada egundokoak ez zeukala inolako garrantzirik. Hasier Etxeberria
Euri egunetan ezin da autorik hartu merkataritza guneeetarako bide guztiak geratzen baitira xinaurri metalezko **ufaldurik**. Hasier Etxeberria

ufatu, ufa(tu), ufatzen 1 du *ad* putz egin.

Airearen freskoa goiz-arrats, arratsaldeko beroa, haize hegoak **ufaturik**. Piarres Aintziart
Afrikaren aldeko haize batek **ufatzen** du gaur munduan; ez da moda bat, jokaera zintzo bat baizik. Berria - Harian
Haizea **ufatzen** duten tresnak eskuan, plastikozko basoak metatzen zituzten, bildu eta kamioia husterara eramateko. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Aste buru huntan, Arrosa-Sohateko haizeak azkar **ufatuko** du. Herria
Aurten Sohateko haizeak Maliraino **ufatuko** du. Herria
Beharrik, ekaitzen artetik, maitasun haizeak ere **ufatzen** du, eta zorionez, gure xokoari doakionez, maitaldia ez zaiku bakarrik Miarritzera mugatzen. Herria
Bainan haize-kontra aintzinatuta behar delarik, bortizkeriaren tentazioa hor baita azkar!; iduri luke haatik azken aste hautan haize berri batek **ufatzen** hasia duela lurralde huntan. Herria

3 ufakoa bota.

Mikel eta bere alabak plazerretako "wuuuu" luze bat **ufatu** zuten. Ramuntxo Etxeberri
'Squatters!' **ufatu** zuen gidariak bere mespretxua adieraziz. Ramuntxo Etxeberri
-Zoazte kakitera, to! - **ufatu** zuen Ninak. Ramuntxo Etxeberri
-Eta ni Ezpeletako baroi eta Gendulaingo konde! - **ufatu** du Migel Mailuk bere dorrean. Aingeru Epaltza
Bidenabar bere nortasun eta bizileku finko bakar izaneren zenaz zehazte harrigarrienak lau haizetara **ufatuz**. Patziku Perurena
Serge filosofoak **ufatuak** zizkidan nabardura eta zalantzak ez nituen aipatu nahi. Piarres Aintziart
Deabruak omen du etsipena **ufatzen** gizonari: ez dut haren beharrik. Piarres Aintziart

uff (orobat *uuuuffff(f)* g.er.) 1 interj adkor uf.

- **Uff**, au putzusaia! Patziku Perurena
Uff! ero moduan. Berria - Kirola
Uff! aspaldiko kontuak dira horiek! Joxerra Garzia
Orain entzun ezazu arretaz, merezi du eta, izenburutik hasiko naiz, hor doa,... .., **uff**. Jon Alonso

2 (harridura-edo adierazten)

- **Uff**, ona zagon. Iban Zaldua
- **Uff**! beharrik! Jose Angel Irigaray

3 (izen gisa)

Mahaiko purruxkak ahurraz arraposki bildu eta azkenean, egongelako kanapean etzan nintzenean, **ufff** etsia askatu nuen. Itxaro Borda

ugalarazi, ugalaraz, ugalarazten du *ad* ugaltzera behartu.

Garia erne eta **ugalaraziko** dut. Elizen arteko biblia
Arboletako fruituak eta soroetako uztak **ugalaraziko** ditut, beste nazioen aurrean gosearen lotsa jasan beharrik izan ez dezazuen. Elizen arteko biblia
Ezpatak eta erredolak ekarriko dituzte, basurdearen itxurako buruoskolak, uzta **ugalarazteko** aztieleak. Juan Garzia
Posible izango da hildakoen zelulak laborategian bertan **ugalarazi** eta urritasunaren muga gainditzea. Berria - Gaiak
Aukera izan zen organismo konplexuek dauzkaten ADN kantitate eskergak maneatzeko, zenbait gene atzematea, haiek bakartzea, elementia aleka **ugalarazteko**, zehatz-mehatz arakatzea haien anatomia. Juan Garzia
Itsaso eta mendi eta ibai oldartsuetan, hegaztien etxe hostotsu eta zelai berdetsuetan zehar, bular guztietan maitasun biguna sartuz, belaunaldiak joranez **ugalarazten** dituzu, espezieka. Xabier Amuriza

ugalatz iz ipar hazteria, ezkabia.

Ugalatza: Hona Ipar-Ameriketan hedatzen ari den eritasuna. Herria
Berrikitan agertu da Ameriketan **ugalatz** eritasuna, lau kasu bederen kondatu dituzte. Herria
Nork erranen zuen handik laster jendea ikaran egonen zela, **ugalatz** bezalako gaitz batzuen hazia norbaitek postaz hedatuko zuelakotz? Herria
Badira eritu direnak, hil direnak ere ba, molde berean ukan errautsean bazelakotz **ugalatzaren** hazia. Herria
Bioterrorismoaren beldur dira, erran nahi baita beldur **ugalatz** hedada dadin jendeetan. Herria

ugalbide iz ugaltzeko bidea.

Ez baduk **ugalbide** bat asmatzen azkar, lurra hutsik izango duk mendeetan zehar. Xabier Olarra

ugalde iz ibai.

Izen-deiturarik gabeko atso bat **ugaldean** itoa, munduan milaka bezala. Aingeru Epaltza
Atso hila **ugaldetik** aterata zutenean. Aingeru Epaltza
Ikaraz beteta begiratu zuen **ugaldera**, eta ur azalean ikusi zuena ez zen ez konkortua ez itsusia, ezpada gazte lerdan, eder eta sasoikoa, elefantearen ehizan ibiltzen direnetakoa. Xabier Mendiguren Elizegi
Errekarte batean lotu zitzaizkigun, ustekabez, tiroka eta gezika, **ugaldearen** bertze aldetik. Aingeru Epaltza
Argazki koloregalduek -Chiado, Bairro Alto eta Teixo **ugaldearen** gaineko zubitzarra-, [...]. Aingeru Epaltza

Oso ikuskizun bako zitekeen, alderdi bakoitzak bere gala eta kapresturik berexinero eta **ugalde** baztertu turistak amerikano eta japonesez beteta edukiz, mundu osoaren inbidiarako. **Patziku Perurena**

ugaldu (*747 agerraldi, 102 liburu eta 155 artikulutan*), ugal, ugaltzen **1** da *ad* izaki biziak bere espezie bereko ondorengoak sortu.

Zakila narrastien asmakizuna izan da, lehorreko lurretara aldatu eta bertan **ugaltzeko** pentsatua. **Luis Elberdin**

Ugaltzen emeek duela milioika urte **ugaltzeko** estrategia berri bat garatu zuten, arrautza enbroia-fetua uteroaren barruan gara zedin. **Luis Elberdin**

Larrek gizakiaren sistema linfatikoa erasotzen dute, eta bertan hazi eta **ugaltzen** dira. **Berria - Gaiak**

Dolly ardia klonazetako erabili ziren atzeturako teknika baliatu dituzte zientzialariek obulu horiek espermaren beharrik gabe **ugal** daitezten. **Berria - Gaiak**

Zelula horiek ugaltzen guztietan aurki ditzakegu, eta *in vitro* **ugaldu** daitezke. **Berria - Euskal Herria**

Birus jakin bat gai zen demagun A eta B bi bakterio-ondotan **ugaltzeko**, berez A ondoan prestatua izanik. **Juan Garzia**

Lege horrek, familia sexu bereko pertsonen segidan finkatzen baitu, asko egiten du [...] giza espeziea **ugaltzeko**. **Iñaki Iñurrieta**

Horrek argi eta garbi adierazten du gizakiok sexualitatea ez dugula **ugaltzeko** bakarrik baliatzen. **Luis Elberdin**

Ugaltzeko adinean dagoen ama sendo batek beti emango du esne gehiago. **Berria - Gaiak**

Arrantzatzeko eritimoa arrainen **ugaltze** eritimoa baino hiru aldiz handiagoa da. **Berria - Gaiak**

Ez genuke harritu behar erlijioek **ugaltzeko** ez den edozein sexualitate, kontrazepzio metodoak eta abortua arbuizten dutenean. **Luis Elberdin**

Itsaso zabalean bizi da eta kostaldera **ugaltzera** edo ekaitz ikaragarriren bat dagoenean bakarrik hurbiltzen da. **Berria - Euskal Herria**

Zertan hasi jendea lege bidez **ugaltzera** behartzen, klimaren emankortasunak nahikoa jende sorrarazten duenean? **Iñaki Iñurrieta**

Arazo larrienak atzerriek ekarritako espezieak **ugaldu** eta bertako animalia eta landareak desagerrarazten dituztenean sortzen dira. **Berria - Gaiak**

Zarbo biribila, esaterako, Kaspiar Itsasoan eta Itsaso Beltzean hazten da, baina azken urteetan AEB Ameriketako Estatu Batuetan ere **ugaldu** da. **Berria - Gaiak**

Gai kimiko arruntek **ugaltzeko** arazoak eragiten dituztela dio Greenpeacek. **Berria - Gaiak**

Elizgizonak **ugaldu** ezin daitekeen familia da. **Iñaki Iñurrieta**

• 2 da/du *ad* ugaritu.

Gnomoak kendu behar dizkizazu lorategitik, berriro ere neurrigabe **ugaldu** dira eta. **Iñaki Mendiguren**

Hau guztia zuen onerako da, Jainkoaren dohaina askorengana ugari zabaltzean, esker ona ere **ugal** dadin. **Elizen arteko biblia**

Ugal bitez ezbeharrak horien atzetik lehiatzen direnen gainera! **Elizen arteko biblia**

Sortu umeak, **ugaldu** eta bete lurra. **Jose Antonio Mujika**

Ugaldu egin ziren zaldien irrintziak. **Txillardegi**

Haurdun gelditzean, oinazeak **ugalduko** dizkizut eta samenez izango dituzu haurrak. **Elizen arteko biblia**

Azken hilabeteetan etorkinen aurkako erasoak asko **ugaldu** dira. **Berria - Mundua**

Gerra hau ere "haiek" irabaziko dute, transgenikoak **ugaldu** eta jeneralizatu, eta informazioa, berriro ere, ukatu egingo zaiolako herritarrari. **Edorta Agirre**

Ikasleen taldea franko **ugalduz** zihuan Jerusalem. **Elizen arteko biblia**

Bekatua ugari zedin azaldu zen legea; baina bekatua **ugaldu** zenean, are ugariago izan zen Jainkoaren ongina. Jainkoaren mezua zabalduz eta **ugalduz** zihuan. **Elizen arteko biblia**

Esaten zuen arriskutsua zela gobernatzea, eta onuragarriagoa gobernatua izatea, bereziki gaiztakeria hazi eta makurkeria **ugaldu** den garai honetan. **Askoren artean**

Gerra hau ere "haiek" irabaziko dute, transgenikoak **ugaldu** eta jeneralizatu eta informazioa, berriro ere, ukatu egingo zaiolako herritarrari. **Edorta Agirre**

Kafe-soroak han eta hemen hazi eta **ugaltzen** joan ziren. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Baina Jaunak anaien kopurua **ugaltzean**, ikusi nuen haiek [...] joan ohi ziren bide zuzen eta ziurretik aldentzen hasi zirela. **Askoren artean**

Orduan zilar-kopurua **ugaltzen** hasi zen Erroman. **Iñaki Iñurrieta**

Horrek truke soilaren lekua hartu eta trukean aukerak **ugaldu** zituen. **Koro Navarro**

Erdi Aroko sarrazenoen inbasioaz geroztik nonahi **ugaldu** ziren moroak lurrotan. **Patziku Perurena**

Haren aurpegitxo zurbila **ugaltzen** zela zirudien. **Karlos Zabala**

Apirilaren bata da, eta ez daki handik urtebetera Nafarroako Kutxaren irabaziaz %7,4 **ugalduko** direnik. **Pako Aristi**

Indiak ez du sinatu NPT Arma Nuklearrak Ez **Ugaltzeko** Ituna. **Berria - Mundua**

ugalketa **1** iz izaki biziak bere espezie bereko ondorengoak sortzea.

Ugalketa giza sexualitatearen alderdi anizteta bat besterik ez da. Gizakiak koitoa eta haurdunaldia lotuta daudela dakienetik, beti izan du **ugalketa** kontrolatzeko nahia. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Batez ere emakume lesbianak borrokatu dira sexualitatea eta **ugalketa** bereiz daitezten. **Luis Elberdin**

Organismo konplexuei -sexu bidezko **ugalketaz** baliatzen direnei- dagokienez, luzaroan ebazteke egon da guneak eta zitoplasma zer parte duten bakoitzak zelula-desberdintze fenomenoetan. **Juan Garzia**

Zelularen **ugalketa**, meiosis, mitosis eta biologiarren beste hainbat bitxikeria. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Onkogeneek zelulen **ugalketa** faboratzen dute. **Juan Garzia**

Narrastiak hasi ziren, duela 300 milioi urte, espermatozoidak emeen sabelaren barruan jartzen, erreka eta urmaeletan sakabanatu ordez; hala, **ugalketarako** aukerak handitu zituzten. **Luis Elberdin**

Ugalketa bidezko klonazioa: organismo berria sortzen da heldu baten zelula soil batetik. **Berria - Gaiak**

Josephine Quintavalle **Ugalketaren** Etikari buruzko Iradokizun taldeko kidearen esanetan. **Berria - Gaiak**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eboluzioa, hortaz, **ugalketa** -prozesuan aldaketak agertzen direnean gertatzen da. **Askoren artean**

2003an, **ugalketa** sasoi hasieran, uztailean, uhartera joan zirenean, aurreko urteetan baino hegazti gutxiago zegoela ikusi zuten Aranzadikoek. **Berria - Euskal Herria**

Hautespen naturala: agertzen diren aldaerek **ugalketa** - eta biziraupen-tasa desberdinak dituzte, inguru jakin batean moldatzeko gaitasun desberdinak dituztelako. **Askoren artean**

Natura **ugalketa** gose omen da. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Valentziako **ugalketa** zentro batek aste honetan aditzera eman du zelula amak sortu dituela. **Berria - Gaiak**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **ugalketa** hobetzeko ideia aspaldiko kontua da. **Juan Garzia**

Biziaren beraren miraria, eta bizi **ugalketarena**, bereganatzen baitzuen hurritzak, sinbolo sakratu moduan. **Patziku Perurena**

Espainiako Jimenez Diaz Fundazioko Giza **Ugalketarako** Unitateko arduradunak. **Berria - Gaiak**

In-vitro **ugalketa** sistema erabiltzen duten bikoteek erabili gabeko pertsona enbrioiekin ikerketak egitea. **Berria - Euskal Herria**

4 ugaritzea. ik **ugaltze**.

Frantsesak arbitrarioak diren terminoen **ugalketa** du ezaugarri latinaren aldean. **Isabel Arrigain**

Terrorismoaren **ugalketa** bat nabarmendu da eta argi da honen eragileetatik bat Irakeko egoera dela. **Berria - Mundua**
Txandakako lanaren **ugalketa**, horrek dituen ondorio latz ezagunekin. **Iñaki Heras**
Ogi- **ugalketa**. **Elizen arteko biblia**

ugalketadun *izlag* aipatzen den ugalketa duena.

Biologiak etengabe jarri baitu agerian badirela, sexu bidezko **ugalketadun** espezie are muturrekoetan, gurea barne, banako bakoitza bereizten duten ezaugarri batzuk. **Juan Garzia**

ugalketazale *izond* ugalketaren zalea dena.

Ergelek eta **ugalketazaleek** -sinonimoak dira- erantzungo dizuete hazi emankor hori ezin dela ugalketarako baino egon zuen gorputzean: desbideratzea laidoa dela. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

ugalkor 1 *izond* ugalketarako gai dena.

Bizitza sexual **ugalkorra** luzea da: 14 urtetik 47 urtera, gutxi gorabehera. **Luis Elberdin**
Gossypol substantzia aztertzen hasi ziren, ohartu baitziren kotoi sailetan lan egiten zuten gizon asko eta asko ez zirela **ugalkorrak**. **Luis Elberdin**
Irlanda aldeko ipui zahar askotan ere, emazteki eta dukesa antzu askok, hurriztietara jotzen dute, hurriztaren jainkosa **ugalkorriari** ernal ditzan eskatzera. **Patziku Perurena**
Jainkoak emazte **ugalkorra** ematen badit... **Jose Morales**
Hala gertatu zitzairen egiptoarren harrokeria astindu zuten animalia **ugalkorregiei**. **Imanol Unzurrunzaga**

2 ugalketarako joera duena.

Gero, nagusitutakoan, ezkontza heterosexual, monogamiko, leial, posesibo eta **ugalkorren** bidean sartzeko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Ugalketara zuzentzen ez den sexualitate oro [...] itotzea da helburua, eta sexu adierazpen guztiak ezkontza **ugalkorren** barrutira mugatzea. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Giza izurrite baten birus **ugalkor** moduan baizik ezin litezke hartu eskolak. **Patziku Perurena**

ugalkortasun 1 *iz* ugalkorra denaren nolakotasuna.

Bikoteen eraketa berantiarak, **ugalkortasun** apalak eta zahartze prozesuak. **Berria - Harian**
Pilulari esker, emakumeak berak kontrolatu ahal izan du bere **ugalkortasuna**. **Luis Elberdin**
Sakelako telefonoak pratetako poltsikoan edo gerrian eramateak gizonen **ugalkortasuna** murrizten duela esan du Szeged Unibertsitateko ikertzaile talde batek. **Berria - Gaiak**
Nesken hezkuntzan jarri den arretak **ugalkortasuna** eten du; horrek, epe luzera, demografia- eta gizarte-arazoak gutxiagotzen ditu, eta familiek aurrezki handiagoak osa ditzakete. **Koro Navarro**
Menopausia goiztiarra dutenek **ugalkortasuna** berreskuratzeko teknika. **Berria - Gaiak**
Viagrak gizonen **ugalkortasunari** kalte egiten diola esan dute adituak. **Berria - Gaiak**
-Ugalkortasunak ezin du izan gizartearen ideal bat. **Josu Zabaleta**
Erroman suaren festa egin ohi zuten, **ugalkortasunaren** egunarekin batera. **Pello Zabala**
Antzinako hainbat kulturetan, hurrak eta hurrizta **ugalkortasunarekiko** lotura estuan ageri dira. **Pello Zabala**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Frogatuta geratu zen kotoiarekiko kontaktua eta gizon askoren **ugalkortasun** eza lotuta zeudela. **Luis Elberdin**
Pobretasun eta azpienplegu handia, soldata apalak, **ugalkortasun** -maila eta haurren hilkortasun-maila altuak. **Koro Navarro**
Munduko **ugalkortasun** tasa baxuena. **Berria - Euskal Herria**
Ugalkortasun arazoak dituzten emakumeentzat. **Berria - Gaiak**
Zibilizazio etsai baten presioak kanpo-proletalgoaren **ugalkortasun** -erlijio primitiboak olinpiar "jainkozko gerra-taldeen" erako erlijio bihurtzen ditu. **Iñaki Mendiguren**
Kontua da, beste gauza asko bezala, pikua ere, hasieran sexu grinen eta bizi haziaren **ugalkortasun** sinbolo naturala zena, erlijioak bereganatu eta sakralizatu egin zuela. **Patziku Perurena**
Portugal aldean, dantza bitxiak omen dira, neska gazteek dantzatzen dituztenak, eta emankortasun eta **ugalkortasun** kantak ere bai. **Patziku Perurena**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Teknologia mekanizatuak bazter utzia zuen orain gizarte- eta ekonomi testuinguru hura, non famili **ugalkortasunaren** gurtzak zentzu ekonomiko eta soziala izan baitzuen. **Iñaki Mendiguren**
Bizi **ugalkortasun** zaharra adierazten duen *ur*-hori. **Patziku Perurena**
Erresuma Batuko Giza **Ugalkortasun** eta Enbriologia Agintaritza. **Berria - Gaiak**

ugalkuntza *iz* ugalketa.

Ugalkuntza ere kendu egin behar diogu eskumenetik [Jainkoari]. **Joxe Austin Arrieta**

ugaltzaile *izond* ugaltzen duena.

Irunberrin ehun [putre] bikote **ugaltzaile** daude egun. **Berria - Euskal Herria**
Naturak **ugaltzaileak** besterik ez omen ditu hazi, baina ugalketarako ematen dion hazia nahi hainbat aldiz galtzen du gizonak! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Odolki **ugaltzaile** soil bilakatzen dira. **Hasier Etxeberria**

ugaltze 1 *iz* kopurua handitzea, kopuruaren aldetik emendatzea; ugariago bihurtzea.

Janariaren **ugaltzea** itsasbidean. **Askoren artean**
Lan-indarraren **ugaltzea**, partez behintzat, diru-ekonomiatik kanpo segurtza daitekeenean. **Koro Navarro**
Finantzatresnen eta merkatu eratorrien **ugaltze** honek [...] "arriskuen azoka" baten tankera ematen die kapitalen nazioarteko merkatuei. **Koro Navarro**
Lan istripuak, langileen segurtasun eza eta lanbide gaixotasunen **ugaltzea** «lan gatazkaren ondorio» dira. **Berria - Ekonomia**

Arrazakeriaren **ugaltzea** ez da Korsikan berez gertatzen den zerbit. **Berria - Mundua**
Zerbaitek eragin du izokinaren mutazioa, belarren baten **ugaltze** neurrigabeak seguru asko. **Hasier Etxeberria**

2 (hitz elkartuetan)

Integrazioaren eta baztertzearen arteko harreman nahasiak ez dira ordea enpleguen suntsitze- eta **ugaltze** -mekanismo horietara mugatzen. **Koro Navarro**
Badira helburua berengan ez duten espezieak ere, baina **ugaltze** - eta suntsitze-legeen nahitaezko ondorio direnak, hala nola, adibidez, simaurtegiatan jaiotzen diren har mota ezberdinak. **Xabier Kintana**

- Indarkeria oinarrizko giza eskubiderik ezak eta nazioartekoan dagoen arma **ugaltze** izugarriak pizten dute. **Berria - Mundua**

3 izaki biziak bere espezie bereko ondorengoak sortzea. ik**ugalketa**.

Naturaren printzipioarekin, hau da, **ugaltzearekin** bat ez datorren sen sexualaren edozein adierazpen perbertsioa da. **Luis Elberdin**

Gizaki eta animaliez, beren espezieen **ugaltzearekin** duten zerikusiarren aldetik. **Iñaki Iñurrieta**

Histiozitoen eta zelula erretikulatuen **ugaltze** neoplasikoa. **Berria - Gaiak**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizonaren **ugaltze** aparatua konplexua dela. **Luis Elberdin**

Beste batzuek espeziea kontserbatzeko premiarako balio dute, **ugaltze** -organoek, alegia. **Xabier Kintana**

Gero eta bitarteko gehiago ditugu gure **ugaltze** ahalmena kontrolatzeko: kontrazepzio metodoak ditugu, biharamuneko pilula eta haurdunaldia eteteko. **Luis Elberdin**

Espeziearen **ugaltze** arrakasta tasa %12koa izan zen iaz. **Berria - Euskal Herria**

Zelulen **ugaltze** -tasa egokitu egiten baita galera berdintzeko. **Irene Aldasoro**

Katuak, berriz, maiz bakarrik bizi dira, **ugaltze** -denboran arra eta emea elkartu egiten badira ere. **Gotzon Garate**

Bikote iraunkorren ereduia sustatu zuten **ugaltze** baldintzak eta baldintza sozio-ekonomikoak desagertzen direnean, giza pimateok berriz ere aldian behin bikote bat osatzen dugu. **Luis Elberdin**

Orobat injekta daiteke gene bat gorputzeko zelula guztietan koka dadin, are zelula germinaletan, hots, banakoaren **ugaltze** -zeluletan, hark ondorengoei pasatuko dizkienetan. **Juan Garzia**

ADNa klonatzeko, biderkatzeko, haren sekuentzia ateratzeko aukera izateak deuseztatu egin ditu hainbat debeku eta muga, organismoen **ugaltze** -zikloak zein geure kulturak ezarritakoak. **Juan Garzia**

Preso batek eta bere emazteak ez dutela lagundutako **ugaltze** tekniketarako eskubiderik. **Berria - Gaiak**

- Honela eliza bat zibilizazioen **ugaltze** -sistemaren zati litzateke, tximeleta eta tximeleta artean arrautza, larba eta krisalidaren papera eginez. **Iñaki Mendiguren**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Maiatzaren 24an, Giza-**ugaltze** Artifizialari buruzko Batzordea bilduko da. **Berria - Gaiak**

Giza **Ugaltze** Artifizialari buruzko 1988/35 Legeak ez zuen garbi esaten sobran zeuden enbrioiekin zer egin behar zen. **Berria - Gaiak**

ugandar *izlag/iz* Ugandakoa, Ugandari dagokiona; Ugandako herritarra.

Aurrean, ordea, indarrez dabilen **ugandar** bat izango dute biek ere. **Berria - Kirola**

Boniface Kipro **ugandarra** munduko txapeldunordea izan zen iaz juniorren mailan. **Berria - Kirola**

Boniface Kipro **ugandarra**, iaz seigarren egin zuena, edo Ngusie eta Ndale etiopiarrek izan daitezke lehen postuetan ibiliko diren beste korrikalariak. **Berria - Kirola**

ugaotar *izlag/iz* Ugaokoa, Ugaori dagokiona; Ugaoko biztanlea.

Josean Garrido **ugaotarra** izango du alboan, eta agian Jurgen Van de Walle belgikarra. **Berria - Kirola**

ugara *adlag* ohara.

Gaixotzen bada albaitaria garesti da, oporretan traba bihur liteke, **ugara** bada zakur arrak atzetik izango ditu eta. **Gotzon Garate**

Emeak gehienetan udaberrian eta udazkenean jartzen dira **ugara**. **Gotzon Garate**

Emea **ugara** zen eta arrak estali egin nahi izan zuen. **Gotzon Garate**

ugari *1 adlag* kopuru handian; ugaritasunez. ik **oparo**; **naro**.

Hautsa **ugari**, amarauna **ugari**, argia eskas eta hotza abondo. **Juan Garzia**

Sentimenduak, mina eta poza, esaldi gutxitan adierazten dituena; hizketa **ugari** duena; eszenak ongi egituratzen dakiena. **Jose Antonio Mujika**

Kultura nipondarrak arlo askotan **ugari** eskaintzen dituen bitxikeria horietako baten ondorioz. **Joxan Elozegi**

Oso merkeak direnez, **ugari** erosten dizkirate azoketan. **Jose Morales**

Maiz eta **ugari** hazten da papiroa Deltako zingiretan, Alexandriatik gertu-gertuan. **Jon Muñoz**

Gorputzean **ugari** den palanka mota ez da askorik erabiltzen ingeniarietan, berehala azalduko ditugun arrazoiengatik. **Irene Aldasoro**

Azido sulfurikoa, Caselliren bitartekaritaz gabe lor zitekeen: **ugari** zegoen, esku-eskura, bazter guztietan. **Juan Garzia**

Zilarra Frantzia urri bada, hiru liberako ezkutua sos-erdi gehiago balioko du; **ugari** bada, berriz, sos-erdi gutxiago. **Iñaki Iñurrieta**

Lekuren batean dirua eskas bazen, **ugari** zen leku guztietatik eraman zitekeen hara. **Iñaki Iñurrieta**

Sumatzen hasia baitzen, alkateak begiak **ugari** zituela, eta denak zorrotzak. **Felipe Juaristi**

Zalgurdiak **ugari** hara-hona, eta tarantas eta telegak ez ezik, baita kupeak eta kalesak ere. arropa horietako sakela **ugari** -handietan berrogei mila gauza sartzea ohituta gaudenontzat. **Karlos Zabala**

Arrautzak eta txuletak **ugari**. **Xabier Etxabe**

Euria **ugari** bota zenuen, oi Jaungoiko, zeure lurralde eta jabegoa bere ahulean indarberitu. **Imanol Unzurrunzaga**

Raguelek ogia **ugari** egiteko esan zion emazteari. **Elizen arteko biblia**

Alemaniko karramarroak **ugari** iristen ziren goiz hartan. **Karlos Zabala**

Pikturalismoak [...] lehen ikusian artistiko izango ziren obrak egin nahi izan zituen, horretarako manipulazioak, ukituak, urratuak **ugari** eginez. **Josu Zabaleta**

Irudi asko, eta, haien artean, zirkuluak **ugari**. **Jon Muñoz**

Kontraesanezko argudioak aipatu zituen **ugari**. **Karlos Zabala**

Zenbat eta grazia **ugariago** jaso gizakiak, hainbat eta behartuago dago Jainkoari eskerrak ematera. **Joan Mari Lekuona**

Normandian, hurritzeko zume batekin hiru aldiz jotzeko ohitura zen esnebehia, hartara esnea **ugariago** eman zezan. **Patziku Perurena**

Barazki postuen luzera guztian ageri ziren ereinda **ugari** baino **ugariago**. **Karlos Zabala**

1a (izan aditzarekin)

Zatotez nirekin, nik eramango zaituztet urrea, zilarra, presoak, jantziak, abere-taldeak **ugari** diren herrialde batera. **Iñaki Iñurrieta**

Berton -n- arazoak ere **ugari** dira: lan-baldintzak kaskarrak dira kasu gehienetan, diru-laguntza irriak [...] eta sinergiak ez dira behar bezala baliatzen. **Txema Ramirez de la Piscina**

Jainkoen Jaungoiko bakarra ez baina jainko berdinak **ugari**, ezin konta ahala direla sinesten dutenek, [...]. **Imanol Unzurrunzaga**

Soiluneak baziren, **ugari**, baita artaldeak ere han-hemenka, artzainik gabe. **Joxe Austin Arrieta**

2 (beste adizlagun baten eskuinean)

Karbohidrato bat da glukogenoa, muskulan nahikoa **ugari** den maila apaleko erregai bat. **Irene Aldasoro**

Betegintza erdiesteko oztipoak oso **ugari** direlako, eta eragozten dioten ardurak ere handiak. **Xabier Kintana**

Azkenaldi honetan garai hartako tradizio filosofiko-eruditoan elementu erretoriko arrunt **ugari** daudela azpimarratu izan da. **Santiago Iruretagoiena**

Lurreko hautsa bezain **ugari** egingo ditut zure ondorengoak. **Elizen arteko biblia**

• 3 zenbtz asko.

Hizkuntzalari, doktore, jakintsu, matematikari eta enigmazale **ugari** ibili dira eskuizkribuaren ezkutukoak argitu nahiz. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Betiko esklabotza zigorrarekin, aldiz, delitu bakar batek etsenplu iraunkor **ugari** ematen du. **Juan Martin Elexpuru**

Polizia **ugari** bazen Otsabideko karriketan. **Itxaro Borda**

Ontzi **ugari** dago moilan, turistak karealean erakusten dituen kruzero handi dotore bat ere bai. **Joseba Sarrionandia**

Zergatik Etrurian ere ur beroko iturri **ugari** egonik ez ote den honelako hautsik aurkitzen. **Santiago Iruretagoiena**

Bide-adar **ugari** dituen errepidea, abiapuntua inon ez duena eta ezertara iristen ez dena. **Xabier Olarra**

Gero, bulegoan, azalpen **ugari** eman dizkio, paper batean marrazkiak egiten zituen bitartean. **Imanol Zurutuza**

Barre **ugari** egin genuen pentsatuz nola hitz egiten zuen erraldi hark. **Pello Lizarralde**

Gogolek lan **ugari** argitaratu zituen Pushkinek zuzentzen zuen *Garaikidea* literatur aldizkarian. **Jose Morales**

Alor horretan iritzi **ugari** dira eta pentsalarien artean desakordioa da nagusi. **Xabier Kintana**

Legea betetzeak opari **ugari** eskaintzeak beste balio du. **Elizen arteko biblia**

Zer miretsi **ugari** eskaintzen dio begiak ingeniariari nahiz argazkilaritari. **Irene Aldasoro**

Aukera horrek ere eragozpen tekniko **ugari** du. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Aro guztietan, konpromiso handiko militante kualifikatu **ugari** ditugu Euskal Herrian. **Txema Ramirez de la Piscina**

Bada han ere (Gasteizen) presorik eta atxiloturik **ugari**. **Jokin Urain**

Ondoan, ostera, Alemaniak Frantzia okupatu zuen garaian eraikitako bunker **ugariren** hondakinak. **Juan Luis Zabala**

Aspaldiko argazki **ugari** topatu nituen, ezagutzen ez nituen pertsonaia **ugarirekin**. **Juan Kruz Igerabide**

Leiho **ugariko** jauregi garaiz josiriko hiriak. **Jose Morales**

Baliabide tekniko **ugariko** pertsona zen Matias. **Unai Elorriaga**

Ereintoz adar polit bat ikusten zen, hosto lustretsu eta lore **ugarikoa**. **Bernardo Atxaga**

• 4 izond dagokionetik asko duena edo asko ematen duena. ikjori; oparo.

Zehazki zenbatuezin ahalako herri **ugaria** hautatu zenuen, eta neu egin nauzu herri horren buru. **Elizen arteko biblia**

Bere liburutegi **ugaria** (apezgo urte luzeetan han eta hemen bildua) Arhane bere sortetxera eramatea agindu zuen bere testamentuan. **Txillardeggi**

Arima birjinak fruitu **ugaria** darama, profetak dioenez. **Joan Mari Lekuona**

Handik oso gutxira, kristau talde **ugari** bat bistatu zuten, atorra-jantzian zetozenak. **Patxi Ezkiaga**

Kopeta zabala zuen, buruaren goi alde karratua, eta adatsa **ugaria** eta kizkurra. **Karlos Zabala**

Zoruko putzu **ugariek** bakarrrik oroitazetzen zuten ordu batzuk lehenagoko euri sarria. **Anjel Lertxundi**

Lurretik ateratzen denean, burdinezko erreminten kolpez zilarbizi-malko **ugaria** ateratzen zaizkio. **Santiago Iruretagoiena**

Negozio-gizon argia zen, antza, eta aberastasun **ugaria** lortu zituen. **Askoren artean**

Merkataritzak mailegu-hartzaileari negozio handi eta **ugaria** bizkor egiteko ematen dion erraztasunean. **Iñaki Iñurrieta**

Harri hutsezko paretak, horren lekukorik ederranak, beren huts ilun eta **ugari** guziak bistan dituztela. **Patziku Perurena**

S. Frantziskok Eukaristiari dedikatzen dizkion testu **ugarietan**. **Askoren artean**

Masa gizartea, eginbide nagusitzat kontsumoa duen populazio pasibo eta axolagabe **ugarian** oinarritzen da. **Patziku Perurena**

Arropa horietako sakela **ugari**-handietan berrogei mila gauza sartzera ohituta gaudenontzat. **Aingeru Epaltza**

Arrautzak eta txuletak **ugari**. **Xabier Etxabe**

Zozketak erabakiko du bakoitzaren zatia, **ugaria** nahiz urria izan senitartea. **Elizen arteko biblia**

Komunikazioari buruzko esperientziak frogatu du irudikatzekeko modu ustez **ugari** horiek ez dutela hitzaren beharra gutxiagotzea ekarri. **Jon Alonso**

Ez ehiza-leku batera, ez hartzak **ugaria** ziren tokira, ez mortsak umatzen ziren labarretara. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Oso **ugaria** baitzen etsaien zalditeria. **Elizen arteko biblia**

Batez beste, 120 eguneko iraupena dute globulu gorriek, eta oso **ugaria** dira. **Irene Aldasoro**

Kotxeek ilara amaigabeak osatzen zituzten, hain ziren **ugaria**. **Jose Morales**

Bi ipuru klaseokiko gizakiak erakutsi duen jaiera eta sinesmena arrunt zaharra eta **ugaria** da. **Patziku Perurena**

Zeinen **ugaria** eta eskuzabala den bere onginahia. **Elizen arteko biblia**

Eztia ahoan bezain gozo, ardo **ugariko** oturuntzetan soinua bezain atsegin. **Elizen arteko biblia**

Kriseilu eskegiak eta ke **ugariko** argi zalanakorrez dizdiz egiten duten zuzi erretxinatsuak. **Xabier Amuriza**

Ez zen sekula izan hitz **ugarikoa**. **Anjel Lertxundi**

Gaurko Madame Donzacq izenekoa, pottoloa da, berritsu samarra, alai, barre-argara **ugarikoa**, atseginagoa. **Txillardeggi**

5 (-en atzikiaren eskuean izen gisa)

Landan sakabanaturik aurkitu zituzten jan-edanean, filistearrei eta Judakoei lapurturiko harrapakinen **ugarirengatik** jai egiten. **Elizen arteko biblia**

Atenas hark ez zuen jardun merkataritza handi hartan; ez zuen jardun meategietako lanak, esklaboen **ugaria**, itsasgizonen, Greziako hirien gainean zuen itzalak eta [...]

Solonin instituzioek agintzen zioten merkataritza handian. **Iñaki Iñurrieta**

Greziarrak, Atikako meategi batera ez aberatsak besterik ezagutzen ez zituztenez, harriritua geratu bide ziren haien **ugariaz**. **Iñaki Iñurrieta**

6 ugari-ugari izond

Salerosle horiek denek ontziaren sotoan eta zubian metatuak zituzten beren ekipaje ugari-**ugaria**. **Karlos Zabala**

7 familia ugari hainbat seme-alabaz osaturiko familia.

Luxenburgon, esaterako, **familia ugariak** 900 euro inguru jasotzen dute hilean. **Berria - Euskal Herria**

Babes ofizialeko etxebizitza baten zain zeuden **familia ugariak**. **Joseba Urteaga**

Kredituak langile-**familia ugariekin**, behartsuenekin batzen zituen. **Joseba Urteaga**

Gipuzkoako **Familia Ugarien** Elkarteak. **Berria - Euskal Herria**

Familia ugari bezain katolikoa, dena esan behar bada. **Xabier Mendiguren Elizegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

adibide ugari (11); adierazpen ugari (6); ahalegin ugari (6); aipamen ugari (8); akats ugari (8); alaba ugari (8); aldaketa ugari (43); aldaketa ugari egin (8); aldaketa ugari izan (11); arazo ugari (60); arazo ugari eragin (6); arazo ugari izan (9); arazo ugari sortu (12); argazki ugari (8); arma ugari (6); arrazo ugari (16); artikulua ugari (8);

atsekabe ugari (7); atxikimendu ugari (13); aukera ugari (21); aurkako eraso ugari (21); aurrerapauso ugari (6); azalpen ugari (9); azalpen ugari eman (8); azterketa ugari (9); azterketa ugari egin (6)

balliabide ugari (7); berri ugari (10); berrikuntza ugari (6); bezain ugari (49); bezain ugari egingo (8); bezain ugari izango (6); bilera ugari (9); bilera ugari egin (6); bisita ugari (6)

datu ugari (17); dei ugari (7); disko ugari (8); dokumentazio ugari (7)

egitasmo ugari (6); ekarpen ugari (8); ekimen ugari (18); ekimen ugari egin (6); ekintza ugari (25); ekintza ugari egin (9); ekintza ugari izan (7); ekitaldi ugari (39); ekitaldi ugari antolatatu (11); ekitaldi ugari egin (6); elementu ugari (6); elkarretaratze ugari (11); elkarretaratze ugari egin (8); elkarrizketa ugari (8); emakume ugari (7); emanaldi ugari (7); eragile ugari (6); eraso ugari (21); eraso ugari egin (7); erreakzio ugari (9); erreakzio ugari eragin (6); erreferentzia ugari (7); espezie ugari (7); estilo ugari (8); etorkin ugari (6); ezagun ugari (16); eztabaida ugari (14)

familia ugari (9); film ugari (7)

gabezia ugari (6); gai ugari (11); gaitzespen ugari (7); galdera ugari (30); galdera ugari egin (10); gauza ugari (28); gazte ugari (14); gorabehera ugari (12); gorabehera ugari izan (7)

hain ugari (22); harrapakin ugari (11); herri ugari (10); herritar ugari (23); hildako ugari (9); hilketa ugari (6); hitz ugari (6); hondarra bezain ugari (8); horrek arazo ugari (6)

ika mika ugari (8); ikerketa ugari (8); ikusle ugari (6); informazio ugari (13); irregulartasun ugari (12); istripu ugari (10); izarrak bezain ugari (9); izen ugari (7)

jarraitzaile ugari (10); jende ugari (101); jende ugari bildu (14); jende ugari zebilen (7); jende ugari zegoen (8); jokalaritza ugari (7)

kalte material ugari (7); kalte ugari (13); kantu ugari (9); kasu ugari (6); kezka ugari (9); kide ugari (6); kolpe ugari (14); kontraesan ugari (6); kontu ugari (12); kontzertu ugari (10); kritika ugari (63); kritika ugari eragin (16); kritika ugari jaso (28)

lagun ugari (22); laguntza ugari (7); lan ugari (32); lan ugari egin (7); liburu ugari (12); liskar ugari (6)

malko ugari (17); malko ugari isuri (6); malko ugari isuriz (8); manifestazio ugari (8); material ugari (24); mika ugari (8); mirari ugari (6); mobilizazio ugari (10); mobilizazio ugari egin (6); modu ugari (6); mota ugari (9); motibo ugari (6)

on ugari (11); ondorengo ugari (10); ontzi ugari (6); ordezkari ugari (21); oztopo ugari (17); oztopo ugari gainditu (6)

partida ugari (7); pasarte ugari (6); pertsona ugari (11); polizia ugari (11); proiektu ugari (8); proposamen ugari (11); protesta ekintza ugari (9); protesta ugari (27); protesta ugari egin (7); protesta ugari izan (7)

saio ugari (11); salaketa ugari (11); sari ugari (18); sari ugari jaso (6); seme alaba ugari (8); soldadu ugari (6); solo ugari (6)

talde ugari (13); traba ugari (10); tresna ugari (10); txiki ugari (6)

ugari ageri (7); ugari agertu (7); ugari agertzen (11); ugari antolatatu (21); ugari antolatatu dituzte (8); ugari argitaratu (7); ugari ari (13); ugari ari da (9); ugari atera (13); ugari atzeman (9); ugari aurkeztu (6); ugari aurki (8); ugari aurkitu (12); ugari aurkituko (6); ugari azaldu (9); ugari azaltzen (7)

ugari baino (9); ugari baitira (6); ugari batu (10); ugari behar (9); ugari bezain (8); ugari bildu (86); ugari bildu ditu (7); ugari bildu zen (22); ugari bildu ziren (15); ugari bildu zituen (8); ugari bildu zuen (9); ugari bilduko (7); ugari biltzen (17); ugari bizi (10); ugari bota (6)

ugari dabil (6); ugari dago (57); ugari dagoela (10); ugari daude (92); ugari daudela (14); ugari daudelako (6); ugari dira (62); ugari direla (11); ugari diren (11); ugari ditu (55); ugari dituela (12); ugari dituen (10); ugari ditugu (8); ugari dituzte (18); ugari du (8)

ugari eduki (6); ugari egin (265); ugari egin behar (12); ugari egin dira (17); ugari egin ditu (29); ugari egin dituzte (28); ugari egin izan (7); ugari egin ziren (13); ugari egin zituen (25); ugari egin zituzten (25); ugari egin zizkioten (9); ugari egin zuten (6); ugari egingo (30); ugari egingo dira (8); ugari egingo ditut (8); ugari egiteko (7); ugari egiten (51); ugari egiten ari (8); ugari egiten dituzte (7); ugari egon (18); ugari egongo (8); ugari ekarri (15); ugari eman (88); ugari eman ditu (6); ugari eman zituen (11); ugari eman zuen (10); ugari emango (10); ugari ematen (25); ugari entzun (10); ugari erabili (11); ugari eragin (64); ugari eragin ditu (18); ugari eragin zituen (18); ugari eragiten (9); ugari eraman (8); ugari eskaini (12); ugari eskaintzen (9); ugari espero (6); ugari ezagutzen (7)

ugari gainditu (9); ugari galdu (10); ugari gertatu (19); ugari gertatu ziren (6); ugari gertatzen (9)

ugari hartu (22); ugari hartzen (6); ugari hil (15)

ugari ibili (8); ugari idatzi (18); ugari idatzi ditu (6); ugari ikus (10); ugari ikusi (20); ugari ikusten (10); ugari irabazi (11); ugari iritsi (6); ugari isuri (8); ugari isuriz (9); ugari izan (267); ugari izan arren (9); ugari izan da (6); ugari izan dira (53); ugari izan ditu (22); ugari izan zen (16); ugari izan ziren (63); ugari izan zituen (20); ugari izan zituzten (8); ugari izango (47); ugari izango da (8); ugari izango dira (18); ugari izango ditu (6); ugari izatea (7); ugari izaten (25)

ugari jarri (15); ugari jasan (11); ugari jaso (84); ugari jaso ditu (25); ugari jaso dituzte (7); ugari jaso zituen (14); ugari jasotzen (10); ugari joan (7); ugari jorratu (8)

ugari lortu (7)

ugari pasatzen (7); ugari piztu (9); ugari plazaratu (6)

ugari sortu (56); ugari sortu ditu (13); ugari sortu ziren (8); ugari sortzen (19)

ugari utzi (9)

ugari zabaldu (6); ugari zebilen (13); ugari zegoen (39); ugari zen (7); ugari zeuden (21); ugari ziren (11); ugari zituen (25); ugari zuen (13)

ur ugari (6); ura ugari (7)

xehetasun ugari (6)

zahar ugari (6); zailtasun ugari (11); zalantza ugari (20); zauritu ugari (10); zeresan ugari (16); zeresan ugari eman (9); zibil ugari (8)

bezain ugaria (10); hain ugaria (7); oso ugaria (10)

ugaria da (12); ugaria izan (9); ugaria zen (6); uzta ugaria (9)

baino ugariago (30); gero eta ugariago (12); ugariego ziren (6)

askoz ugariegoak (6); baino ugariegoak (13); gero eta ugariegoak (39); ugariegoak dira (32); ugariegoak izan (6); ugariegoak ziren (11)

bezain ugaririk (12); familia ugaririk (6); hain ugaririk (21); hain ugaririk diren (10); oso ugaririk (16); oso ugaririk dira (6); ugaririk dira (64); ugaririk direla (8); ugaririk diren (12); ugaririk izan (45); ugaririk izan arren (6); ugaririk izan dira (13); ugaririk izan ziren (14); ugaririk ziren (21)

familia ugariek (9)

familia ugariren (19)

dira ugarienak (7)

eragile ugarik (14); herritar ugarik (12); jende ugarik (12); kide ugarik (6); politikoa ugarik (7); talde ugarik (7); ugarik bat egin (8); ugarik egin (6); ugarik parte hartu (8)

eragile ugariren (6); ugariren artean (10); ugariren ostean (8)

malko ugariz (13)

ugariagotu, ugariago(tu), ugariagotzen da/du *ad* ugariago bihurtu.

Zeren eta, irudi lizunetan pentsatu behar ez bazuen ere, haiek gero eta **ugariagotuz** joan baitzitzaizkion. Joan Mari Irigoien

ugaridun *izlag* ugariko.

Aretoaren beste aldean, harmaila **ugaridun** aldare batean, tronua zegoen. Agustin Otsoa

Atzean leiho **ugaridun** etxea goratzen zen. Agustin Otsoa

Legearen zeregina da, zabal jakatuta ere, zuzenbidearen goiburu nagusiak finkatzea; ondorio **ugaridun** oinarri emankorrak zehaztea. Andres Urrutia

Gantz azido **ugaridun** txerrikia sortzeko. Berria - Gaiak

ugaritasun 1 *iz* ugaria denaren nolakotasuna.

Luxua eta **ugaritasuna** ez dira haren iritiz, bizi-kalitatearen adierazle. Berria - Gaiak

Formen **ugaritasunaren** atzean, ordea, egitura- eta funtzio-antzekotasun harrigarri bat hautematen dugu. Juan Garzia

Ondasunen **ugaritasunak** egokiera onak edo asiarako aukerak ugaritzen ditu. Anjel Lertxundi

Herrialde askotan, dibisen **ugaritasunak** kontsumoa biziagotu du, eta horrek truke-tasa erreala igorarazi du. Koro Navarro

Erregistro, ahots, gai eta formen **ugaritasunaren** metaketak osatzen du literatura jakin bat. Anjel Lertxundi

Ugaritasunak salbatuko omen zuen gure literatura. Pako Aristi

Begiraziozu ezerri uko egiten ez diozunean, **ugaritasunaren** uretan igeri zabiltzanean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Laboreen errotzioaren historia, gidateriak gositakaren eta **ugaritasunaren** artean lortu duen orekaren historia. **Xabier Arregi**

Badakit eskasian nahiz **ugaritasunean** bizitzen. **Elizen arteko biblia**

Amaitu ziren Egipton **ugaritasunezko** zazpi urteak. **Elizen arteko biblia**

2 (izenondoekin)

Txitxikovek irribarre egin zuen hain **ugaritasun** handia ikusirik. **Jose Morales**

Bere **ugaritasun** infinituan, poesia bakarra da. **Bernardo Atxaga**

Urritasun edo **ugaritasun** horiek, nondik baitator kanbioaren aldaketa, ez dira urritasun eta **ugaritasun** errealak; urritasun edo **ugaritasun** erlatiboak dira. **Iñaki Iñurrieta**

Zenbaitentzat zuhaitz horren ezaugarri nagusia aniztasuna da, espezieien **ugaritasun** ikaragarria, aldatzeko gaitasunak amaierarik ez duela baitirudi. **Askoren artean**

Metodoak, sistemak, denborak alegia, irentsi du gure gogoaren **ugaritasun** espazial osoa. **Patziku Perurena**

Begi-bistakoa da amodiozko kanta eta balada zaharretan hegaztiak duen **ugaritasun** sinbolikoa. **Patziku Perurena**

Harrigarria baita [*hats* hitzak] behialako euskara bizian erakutsi duen **ugaritasun** semantikoa. **Patziku Perurena**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskasiaren garaietan **ugaritasun** -garaietako jokabidea izan. **Iñaki Iñurrieta**

Brigittek, **ugaritasun** garaietan bezala, odolosteak batzen erabilitako zorroan gorde zituen ondo zuputzen nekatu gabeko hezur haragitsiak. **Joxemari Urteaga**

Giza espezieari, oro har, eta populazio bakoitzari ere bai, joko handia eman diezaioke **ugaritasun** -ondare horrek. **Juan Garzia**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jakitun- **ugaritasuna** munduarentzat osasun, eta errege zuhurra herriarentzat ongizate. **Elizen arteko biblia**

Jende **ugaritasun** hori, ez izan zalantzarik, gauza txarra da gobernu errepublikar batean. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Frantzian ikusten denez, mahasti-kopuru handia da biztanle- **ugaritasunaren** kausa lehenetako bat. **Iñaki Iñurrieta**

Halako arrain **ugaritasuna** ikusirik, handiak bere saskian jasotzen ditu eta txikiak uretan uzten. **Askoren artean**

Nabarmena zen bere altueragatik eta adar- **ugaritasunagatik** . **Elizen arteko biblia**

Beren odol- **ugaritasun** horregatik inolako beldurrik gabe eusten diote ezpataren erasoari. **Santiago Iruretagoiena**

Gure erresuman ezin konta ahal gauza miragarri daudela, lekuen ederra, lanbide **ugaritasuna** eta mota askotako lurra kontuan hartu gabe ere. **Jose Morales**

Langile-klaseari esku betean eskaintzea bi gauza erakargarriok: klase ertainaren bizi-maila eta norberaren gurariak asetzeko aukera- **ugaritasuna** . **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ugaritasun erlatiboaren (3); **ugaritasun eta urritasun** (3); **urritasun edo ugaritasun** (3)

kolore ugaritasuna (3)

ugaritsu *izond* oso ugaria, ugaritasunez bete.

Pixkanaka multzo **ugaritsua** osatuz joan ziren arkupean. **Pedro Alberdi**

Abendu otzak pozturik ezartzen laboraria, lehorra izan arren: Abendu lehorra, urte **ugaritsua** . **Pello Zabala**

ugaritu (*497 agerraldi, 74 liburu eta 252 artikulutan*), ugari(tu), ugaritzen **1** da *ad* kopurua handitu, kopuruaren aldetik emendatu; ugariago bihurtu. ik **ugald** **2**.

Gizartea **ugaritu** ahala, kide bakoitza osotasunaren parte txikiagoa bihurtzen da. **Juan Martin Elexpuru**

Bekatua **ugari** zedin azaldu zen legea; baina bekatua ugaldu zenean, are ugariago izan zen Jainkoaren onginahia. **Elizen arteko biblia**

Hormona hori **ugaritzen** denean, estrogenoak ere gehitu egiten du. **Berria - Gaiak**

Bezeroen eraginez **ugaritu** da prostituzioa, ikerketen arabera. **Berria - Gaiak**

Urte hauetan Aberastasuna **ugaritu** izana ez da egungo gizartearen arazo bakarra. **Berria - Gaiak**

Ordena asko **ugaritu** da, baina ez da oraindik ezberdintasunik kleriko eta laikoen artean. **Askoren artean**

Istant batean, trafikoa izugarri **ugaritu** zen, biderkatu, eta gidariak, harriduraz beterik, elkarri begirutzen zieten. **Karlos Linazasoro**

Transnazionalak atzerrian inbertitzeko arazoak **ugaritu** egin dira. **Iñaki Heras**

Espero den irabazia neurritz gainera den bezala, eragozpenak ere neurri horretan **ugaritzen** dira. **Iñaki Iñurrieta**

Baldin eta, Indien aurkikuntzaz geroztik, urrea eta zilarra batetik hogeira **ugaritu** badira Europan, artikuluen eta merkantzien prezioak ere batetik hogeira handitu beharko luke. **Iñaki Iñurrieta**

Udan **ugaritzen** diren gaixotasunei buruz mintzatu da Jesus Perez de Viñaspre. **Berria - Harian**

Sinestearen aurkako aurreiritziak oparo **ugaritu** dira. **Herria**

Hilketak, beraz, %37,76 **ugaritu** ziren. **Berria - Gaiak**

Zeruan zerrenda gorritzak **ugaritzen** ari ziren, laster hasiko zen iluntzen. **Anjel Lertxundi**

Hegoaldean, txapelketak **ugarituz** joan ziren, eta txapelketen eraginez, formato bereko bertso-saioak. **Andoni Egaña**

Bien bitartean, jendetza **ugaritzen** ari zen salmenta bulegoen inguruan. **Karlos Zabala**

Lana **ugaritzen** hasi zitzaion, eta lanbideko jendea [...] laster iritsi zen fidatzera eta bera onartzera. **Xabier Olarra**

Historiari begiratu bat botatzen badiogu, ikusiko dugu bidegabekeriak nola **ugaritzen** diren inperioaren mugak hazi ahala. **Juan Martin Elexpuru**

2 du *ad*

Eta Jaunak mundu guztian zehar zabaldu eta **ugarituko** du bere familia. **Askoren artean**

Instituzioek gaztetxeen kontrako erasoak **ugaritu** egin dituzte. **Berria - Harian**

Gurera iritsi den informazioaren arabera azken egunotan, talde paramilitarrek ekintzak **ugaritu** dituzte Chiapasen. **Berria - Harian**

Egin erasorako seinalea Babiloniako harresiaren aurka; sendotu guardapostuak, **ugaritu** zaintzaileak, jarri gudariak zelatan. **Elizen arteko biblia**

Ondasunen ugaritasunak egokiera onak edo aisiarako aukerak **ugaritzen** ditu Lurraldera itzuliko ditut berritua eta haren jabe egingo dira; **ugaritu** egingo ditut eta ez dira gehiago urrituko. **Anjel Lertxundi**

Hitz eman zenien zeruko izarrek bezala **ugarituko** zenizkiela ondorengoak. **Elizen arteko biblia**

Beroaldiak intsektuak **ugaritzen** dituenean. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Eugeni, **ugaritu** puntadak, tinkoago gera dadin. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Haize-lasterrek eta soinekoric ezak, ubileria (erreumatismoa) **ugaritu** dute atxilotuen artean. **Jokin Urain**

Kaleak hildakoz betetzera ino **ugaritu** dituzue hilketak hirian. **Elizen arteko biblia**

Santutegia ohoratu egin zuen eta bertako ontziak **ugaritu** . **Elizen arteko biblia**

Giza taldeen arteko alde ekonomiko handiak **ugaritu** egiten ditu Gobernuaren kontrako kritikak. **Berria - Harian**

Jaun ahalguztidunak kopuruz eta graziaz **ugaritzen** zaituztenean. **Askoren artean**

Komunikabideei galegoz egiten dituzten programak **ugaritzeko** eskatuko zaie. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arazoak ugaritu (6); asko ugaritu (20); asko ugaritu dira (8); bezala ugaritu (3); egitasmoak ugaritu (4); erasoak ugaritu (12); izugarri ugaritu (3); kasuak ugaritu (4); kontrako erasoak ugaritu (4); kopurua ugaritu (3); nabarmen ugaritu (10); nabarmen ugaritu direla (4); ugaritu ahala (11); ugaritu diren arren (3)

ugarituz doaz (8); ugarituz joan (5)

nuklearrak ez ugaritzeko (3)

aukerak ugaritzen (3); aurkako erasoak ugaritzen (3); erasoak ugaritzen ari (5); inguruak ugaritzen (3); kasuak ugaritzen (3); protestak ugaritzen (3); ugaritzen joan ziren (3)

ugaritxo zenbtx adkor askotxo.

Eskaera **ugaritxo**, erabat zokoratuta dauden alderdiek ordu gutxi batzuetan bete ahal izateko. **Berria - Mundua**

ugaritze iz kopurua handitzea, kopuruaren aldetik emendatzea; ugariago bihurtzea.

Bere sentikortasuna bilakatu den bibrazio kaleidoskopiko sentimenezko garroen **ugaritze** bat bezala edo edertasun gorenezko irradiazio baten moduan agertzen bada. **Jon Alonso**

Metatze eta neurririk gabeko **ugaritze** hori aldi berean suhartasun baten emaitza da. Raimundo Silvak atzera egingo du liburuan barna, aipatu harengatik bilatuko du bere muinak irakurtzeko, gehiegikeriak, apaingarriak eta **ugaritzeak** bazterrerara utzirik. **Joan Mari Lekuona**

Emakumeen eta haurren bortxaketan **ugaritzeak** kalapitak gaiztoagotu zituen kapitainen eta elizgizonen artean. **Aingeru Epaltza**

Biztanleria modu horretan **ugaritzearen** arrazoiak bertan hiru astez egiten den merkatu sonatua zen. **Karlos Zabala**

Lumianskyren esklabo, borroken **ugaritzearekin**, klase guztietako drogak hartzen hasi zen. **Pablo Sastre**

ugarte ik uharte.

ugartetto ik uhartetto.

ugartetxo ik uhartetxo.

ugartexka ik uhartexka.

ugatz¹ 1 iz ugaztun emeen guruin esne-jariatzailea. ik titi¹.

Zintzilik sentitzen nituen **ugatzak**, astun eta mingarri. **Joxan Elozegi**

Haur izan berritako amaren **ugatza** babesten omen zuen saguzaharrak. **Patziku Perurena**

Ugaztunak, **ugatzetik** hazten du umea, eta amaren esnea agortu ahalean, jaioko eta indartuko zaizkio hortzak umeari. **Patziku Perurena**

Edan asetzeraino haren bular gozotik!, xurgatu atseginez haren **ugatz** oparotik! **Elizen arteko biblia**

Nire eskuinaldeko bularraren goialdeko titiburua egiazko **ugatza** zen ordurako eta beste hiru orban azalduak ziren nire gorputzaren aurrealdean. **Joxan Elozegi**

Egiazko **ugatz** baten antzera puzten ari zela ohartu nintzenean, min zuriak joko zidala uste izan nuen une batez. **Joxan Elozegi**

Behiaren **ugatzei** deitzen zitzaien Obaban "errape", baina hitzak, era baldarrean erabilita, andreen bularrak ere izendatzen zituen. **Bernardo Atxaga**

2 (hitz elkartuetan)

Pitzia samalda bat atera zen ihesi, eta adarrak ahariarenak, muturra txerriarena, larruzala trikuarena eta eme **ugatzak** zituzten. **Koro Navarro**

3 irud/hed

Esportazioa, itzulpena, horra hor unibertsaltasunaren benetako **ugatzak**. **Berria - Kultura**

ugatz² 1 iz arrano gorria, arrano hezurjalea.

Ugatza (*gypaète barbu*) da erakusgai, urtarilaren 9tik otsailaren 8ra: idazki, argazki, marrazki, zizelan. **Herria**

ugatza, sai-arrea, sai xuria, miru gorria eta erroia (bele handia). Denboran zernahi **ugatz** balin bazen Europako mendi mazelatan, gaur egun 130 kuple baizik ez dira kondatzen, horietan 110 Pirineotako bi alderdietan. **Herria**

Apirilaren 7tik 27ra iraundera du **ugatz** harrapariari buruzko erakusketa poltitak, Apezpikuen Presondegian. **Herria**

Joan den ortzegunean, urtarilaren 9an, estrenatu da Mattin Megadendan **ugatz** hezur jaleaz *Organbidexka Col Libre* elkartek antolatutako erakusketa. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Beste garai batzuk ziren, Organbidexkara joaten zirenekoak, ornitologia-behaketak egitera, lehen **ugatz** -alea ikusi zuenekoak. **Jon Alonso**

ugatzama iz inudea.

Lau neskatilatxoak hurrenez hurren Bra-ra igorri zituztela, **ugatzama** berarekin haztera, zeinak Delfina baitzuen izena, eta hala deitzen baitziren bere ugatzume ("bailotti") guztiei. **Juan Garzia**

ugatzume iz inudearentzat, ugatza eman dion umea.

Lau neskatilatxoak hurrenez hurren Bra-ra igorri zituztela, ugatzama berarekin haztera, zeinak Delfina baitzuen izena, eta hala deitzen baitziren bere **ugatzume** ("bailotti") guztiei. **Juan Garzia**

ugazaba 1 iz lantegi edo fabrika bateko jabea. ik nagusi 2.

Ugazabak soldaten ordinketa enen duela eta plan industrial sendoa falta dutela gaitzetsi dute Matrinorreko langileek. Berria - Ekonomia

Matson Adding Machines makina batuketa-egileen lantegiko **ugazaba** da. Mirentxu Larrañaga

Bermeoko kontserba lantegirik handienaren **ugazaba** zen. Gotzon Garate

Ez duk komeni lantegira goizegi ailegatu eta **ugazaba** gaizki ohitu dadin. Pedro Alberdi

Jules Tribuno, Agentzia Dermoestetikoko nire **ugazaba**! Jon Alonso

Gasolindegiko **ugazabak** saldu zion merke antzean, hark Ford berri bat erosi behar zuela eta. Xabier Montoia

Ugazabei «beren etekinak handitzen dituzten gaiak» ukitu nahi ez izatea egotzi zien ELAK. Berria - Ekonomia

Pentsatu al dugu inoiz nortzuk diren **ugazaba** horiek? Konfesbask elkarteko enpresetan izango da baten bat. Berria - Harian

100 metro koadrotik gorako taberna edo jatetxeak dituzten **ugazabak**. Berria - Euskal Herria

Beharginei eurei entzun diegu eurentariko batzuk kale gorrian utzi dituztela **ugazabarekin** zuten lan harremana legeztatzeko kontratu eske joan direnean. Berria - Harian

Sindikatuak **ugazabekin** bildu ziren atzo arratsaldean. Berria - Ekonomia

Zenbait kasutan langileok kontratua egitea lortu dutela **ugazabari** agindu diotenean Gizarte Segurantzaren euren dirutik ordainduko dutela. Berria - Harian

Eskulan merkea baliatu gura duten **ugazabak** daude, alde batetik. Berria - Ekonomia

Teknologia modernoak mekanizazioa edo arauketa ekarri zuen, eskulangileena ez ezik, baita hauen **ugazabena** (nazionalizazioa, etab.), herri-administrazioarena ("burokratizazioa") eta politikariena (alderdi-diziplina). Iñaki Mendiguren

Errusia komunistan **ugazaba** pribatuen likidazioaren ondoren sindikatuen arauketa etorri zen bitartean, Alemania nazional sozialistan, berriz, sindikatuen likidazioaren ondoren **ugazaba** pribatuen arauketa etorri zen. Iñaki Mendiguren

Ez, **ugazaba** ez dago, zuzendaria ere ez, ezta burua ere. Jon Alonso

2 nagusia, etxeko jauna.

Morroiak eskuarekin lana, semeak, esku eta buruarekin; **ugazabak**, esku, buru eta bihotzarekin. Pello Zabala

Gaztetan zenbait etxetan neska egona zen, harik eta bere azkeneko **ugazaba** hil eta neskametzari utzi zion arte. Josu Zabaleta

Ugazaba batek bere morroia justiziarren aurrera eramaten badu lapurreta txiki batengatik, bizitza kenduko diote dohakabe honi, eta, ondorioz, auzoak begitan hartuko du **ugazaba**. Juan Martín Elexpuru

Mundu hartan menpeko eta nagusi izanen nintzen aldi berean, esklabo eta **ugazaba**. Alberto Ladron Arana

Erromatar legeei jarraitzea nahi dut, eta ihes egindako esklaboak beren **ugazabei** itzultzea. Iñaki Iñurrieta

-Nor da etxe honetako **ugazaba**? Patxi Zubizarreta

XX.mende hasieran, Justoetxe baserriko **ugazaba** beste don Justo bat zen. Joan Mari Irigoien

Dendako **ugazabari** ez zion erantzuteko astirik eman. Edorta Jimenez

Alde batean etxeko nagusia zegoen, Jean Laffitte, Galveston guztiaren **ugazaba**, esklabotza negozioko agentarietako bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Herrian denek uste zuten Vicentek anaia zuela hotel hartako **ugazaba**. Jon Maia

Tartean ontziaren **ugazaba** eta haren semeak direla aditu diat. Edorta Jimenez

Tom eta Rufus Brightman's Attic liburu-dendaren eta hura kokatua zegoen eraikinaren legezko **ugazaba** bihurturik zeuden. Oskar Arana

Egun, haien bilobak dira putetxerik garestienetako **ugazabak**. Berria - Harian

-Eta prostituzio etxeetako **ugazaba** horiek guztiek -jarraitu zuen Andresek esanez- beren emakumeak martiritzatzeko ohitura dute. Josu Zabaleta

Zakur hori baldarra eta alferrikakoa izango duk, Damian, baina ez zagok ukatzerik: **ugazaba** maite dik benetan. Hasier Etxeberria

K.L. nagusiak -edo **ugazabak**, esan behar nuke agian zuzenago-, ezaxolati, bere adabakien koadernotxoa ireki, eta esaldi bat irakurri zigun: "Poeta orok dauka bolborategi bat etxean". Karlos Linazasoro

3 (izenondo gisa)

Kontrakoa beldurtzen zuen, ordea, laborari **ugazaba**. Pello Zabala

Baserri batzuetan, bertako nagusi **ugazabak** etxeari hiru itzuli-jira ematen zizkion inguruko pizti eta suge-ziraunak uxatzeko. Pello Zabala

4 irud/hed

1947ko urtarrian Mafiaren **ugazaba** nagusi Lucky Lucianok Habanara jo zuen, bertako krimen-buruekin biltzeko. Edorta Jimenez

Requessens y Zuñiga, deabruen morroi eta morroi; Juan Austriako deabruen maisu eta **ugazaba**, Farnesio deabruen buruzagi, eta Spinola, deabruen hazilari. Felipe Juaristi

Lan horretan jarduten zuen zenbaitek nagusi, **ugazaba** edo patroir boteretsua zuten: estatu baten nominan zeuden lapur "ofizialak" ziren, eta kortsario izen ohoretsua zeramaten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hamargarren mendeko italiar haren eta hamargarren mendeko greziar haien artean leize handia zegoen jada, baina ez zegoen halako leizerik Liutprandoren eta haren **ugazaba** saxoniarren artean. Iñaki Mendiguren

Nik diot Sizilia uharte mirabea dela, beti **ugazabaren** onspenaren bila dabilena. Berria - Kultura

[Maitasuna] zure menpeko sentimendu izatetik **ugazaba** ankerra izatera iragan zenez gero. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere ugazaba (3); **nire ugazaba** (8)

kim ugazabak (3)

nire ugazabaren (4)

enpresako ugazabek (3)

ugazaben aurka (4)

ugazabandere ik ugazabandre.

ugazabandre *(orobat ugazabandere g.er. eta ugazaba-andre g.er.) iz emakumezko ugazaba; etxeko andrea.*

Barrenean, hormak bete apal ageri ziren eta, labearen eta atearen artean, okinek lo egiten zuten ohea zegoen: Husnia **ugazabandrea** eta haren senar Jada. Patxi Zubizarreta

Joyce Mazzucchelli-rekin neukan adiskidetasunari esker, bera baitzen Carroll kaleko etxearen **ugazabandrea** [...] aurkitu nituen aldi baterako egonleku berriak Aurorarentzat eta Lucyrentzat. Oskar Arana

Nire salbatzaileak sorgin bat edo putetxe bateko **ugazabandre** zahar bat zirudien. Joseba Urteaga

Mahaian jesarri bezain laster ostatuko **ugazaba-andreak** zer jango genuen galde egin zigun, eta hartan lagun gazteak hartu zidan aurrea. Edorta Jimenez

Bakarrik haiz tabernan, **ugazabandrea** ere desagertua baita norabait. Pedro Alberdi

Pisua alokatua zidan **ugazabandreak** garrasi egin baitzuen albistea eman nionean. Bernardo Atxaga

-Zure maizterra naiz, **ugazabandrea**. Patxi Zubizarreta

Paul D-k anaia zaharrenari adio egin zionean, berriz, nagusia hilda zegoen, **ugazabandrea** aztoratuta eta sehaska apurtuta. Anton Garikano

ugazahizpa iz aitzpaordea.

Viatako probintzian Piotr Varsonofievitx-en etxean, haren ezkon-arrebaren ahizpa Pelageia Jegorovna bertan zela bere loba Sofia Rostislavna-rekin eta bere **ugazahizpa** Sofia Aleksandrovna eta Maklatura Aleksandrovna-rekin. **Jose Morales**

ugazaita (orobat gozaita) 1 iz aitaordea.

Halako hiltea eragin zian Pedro Páramok aita hil ziotenetik, non ez baitzuen diotenez ia arima bizirik utzi Lucas Páramok **ugazaita** jardun behar zuen ezkontzara joanak zirenen artean. **Juan Garzia**

Zenduaren **gozaita** nahiz osaba hurbilenaren etxera zihoan zindik zelakoa. **Itxaro Borda**

Isturitze eta Otsozelaiko harpeen idekiduraren 50 urteen ospakizunen **gozaitatzat** hautatua izan zen Jorge Oteiza. **Herria**

2 irud/hed

Bertuteen aita izan behar duzu eta galbideentzat **ugazaita**. **Patxi Ezkiaga**

ugazalaba iz alabaordea.

Maskara horiek lagungarri izango dira pertsonaia bakoitza arteak sortutako irudia dela eta zein bere oinarriko sentimenduaren adierazpenean betiketarik dagoela iradokitzeo: gaizkiaren damua iradokiko du Aitarenak, mendekua **Ugazalabarenak**, erdeinua Semearenak, oinazea Amarenak. **Josu Zabaleta**

Sei pertsonaia horietatik bik, aitek eta **ugazalabak**, adierazten dute, batez ere, beren formaren finkotasun lazgarri eta ezin saihestuzko hori, bai aitek bai **ugazalabak** forma horretan ikusten baitute betirako adierazirik beren esentzialtasuna. **Josu Zabaleta**

Ugazalaba, hemezortzi urtekoa, pertxenta samarra izango da, ia lotsagabea. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita eta ugazalaba (3)

ugazalaba seinalatuko du (8)

ugazama (orobat gozama) iz amaordea.

Zumarragako Sabina Urzelai **ugazamak** hartzen du 5.061 kaxakoa (Baldomero-Jazinto). **Koldo Izagirre**

Dominique Lacoste-Garat anderea izan zen Georgiarateko pidai horren sustatzaile, bera izanki eta Chevarnadze georgiar lehendakariaren alaba ttipi baten **gozama**. **Herria**

ugazeme iz semeordekoa.

Mandak **ugazemea** gero eta baztertuago zuen. **Gotzon Garate**

ugazoilar iz adkor bipil-ustea den gizona.

Bere margoaren errezeta eskatu nion **ugazoilarrari**, eta produktu bien lagin bana. **Juan Garzia**

ugaztun 1 izond ugatzak ditutena.

Animalia plantigrado **ugaztuna**, edentatuen taldekoa, jaioterriz afrikarra. **Lopez de Arana**

Orubezale [...]: Dennis Kearneyren ikuspegi politikoari atxikitako animalia **ugaztun** ornoduna. **Xabier Olarra**

2 animalia ornoduna, lauoiniduna, beti-bateko tenperaturakoa, biriken bidez arnas hartzen duena, nerbio sistema oso garatuaz hornitua, eta emeak bere umeak ugatzetako esneaz elikatzen ditutena; *p*/delako animaliak osatzen duten klasea.

Animalia erreinua bitan banatzen da: odol hotzeko izakiak (sugeak, arrainak eta intsektuak) eta odol beroko izakiak (hegaztiak, gizakiak eta gainerako **ugaztunak**). **Irene Aldasoro**

Konposatu eta erreazio kimiko asko eta asko berdin aurkitzen ditugu mikrobioetatik hasi eta **ugaztunetaraino**. **Juan Garzia**

Horra hor zergatik, hain handiak izanik ere arrainen eta **ugaztunen** arteko aldeak, guztiek dituzten ia gene berak. **Juan Garzia**

Animaliak gara, **ugaztunak**, primateak. **Luis Elberdin**

Gizakietan eta **ugaztun** gehienetan, oso eraginkorra da tenperatura-erregulazioa. **Irene Aldasoro**

Ugaztun gehienaren artean jarduera sexuala emea araldian dagoen bitartean gertatzen da. **Luis Elberdin**

Gizakia beste **ugaztunak** baino babesgabeago jaiotzen da. **Luis Elberdin**

Ugaztunak, ugatzetik hazten du umea, eta amaren esnea agortu ahalean, jaioko eta indartuko zaizkio hortzak umeari. **Patziku Perurena**

Ugaztun eme eboluzionatuagoek -martsupialioek, lehenengo, eta plazentalioek, geroago- [...] bagina garatu zuten. **Luis Elberdin**

Katuak baino txikiagoak dira Owstonen zibetak, baina haien bezala, **ugaztun** haragijaleak dira. **Berria - Gaiak**

Zerbidoen familiako **ugaztun** artiodaktiloak da oreina. **Berria - Gaiak**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beste **ugaztun** espezieen aldean -baita primate espezieen aldean ere-, gure arteko laztanak, zirriak, sakatzeak, miazkatzeak, astinduak eta bestelakoak askoz ugariagoak eta biziagoak dira. **Luis Elberdin**

H5N1 birusak beste **ugaztun** espezie klase bat kutsatu du lehen aldiz Europan: hudoa. **Berria - Gaiak**

1971n doktoratu zen aztarnategietako **ugaztun** faunari buruzko tesia eginda. **Berria - Euskal Herria**

Iruditu zitzaizkan bazegoela hartarako urrats bat aurreratzea eta **ugaztun**-zelulen ezaguera egitea sagu-zelulak haziz. **Juan Garzia**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hasieran lehorrean garatu eta eboluzioan zehar atzera uretara itzulitako itsas **ugaztun** askok, hala nola izurdeak eta mazopak, oso usaimen eskasa dute, edo batere ez. **Irene Aldasoro**

Arrainak gutxitu izana ez da itsas **ugaztunen** errua. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

itsas ugaztun (3); **ugaztun eme** (4); **ugaztun emeek** (10); **ugaztun espezie** (5)

lehen ugaztuna (3)

itsas ugaztunak (3)

itsas ugaztunen (4); **ugaztunen artean** (3)

uger¹ iz herdoila; zolda.

Zabortegei bat zegoen, herdoildutako ohe-burdina **ugerrak** eta galdara apurtuak eta eltze ipurdirik gabeak biltzen zituena. **Mirentxu Larrañaga**

Erosketa egokia izan zela, oso bainuontzi ona zelako, antzina egiten zirenen modukoa, eta ez zuela **ugerrak** berehala hartuko. **Unai Elorriaga**

Turbina gelara lurruna eramaten zuten hodiak **ugerrak** janda zeudela. **Berria - Gaiak**

-Ditudan sos guztiak jarri nahi ditut zure negozioan, Andreas -eta **ugerrak** galdutako bost sos zaharrak atera zituen patrikatik. **Anjel Lertxundi**

Ugerrez gorritzutako tximinia handiko ontzi potoloak. **Lopez de Arana**

Eskuei begiratu zien: dardarka zeuzkan, gorri eta **ugerez** beterik. **Lopez de Arana**

Ugerrak jaten duen zerraldo erraldoia da Bilbo. **Sonia Gonzalez**

Herri hau definitzen duten bi hitz aproposenak: **ugerra** eta kedarra. **Sonia Gonzalez**

Lasterka lau pisu igo zituen, **ugerez** betetako eskaileretan gora. **Lopez de Arana**

2 irud

Urteen **ugerrari** olio botata. **Iñigo Aranbarri**

3 (izenondo gisa) arrea. ik uher.

Makalek ere berdin pentsatzen dutela dirudi, eta kolore **ugerra** hartzen dute ordu horretan, denboraren kolorea. **Eider Rodriguez**

Nerearen begi **uger** gardenak. **Eider Rodriguez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ugerra eta kedarra (8)

uger² ik igeri.

ugerdo izond adkor zikina. ik ugertsu.

Bularra zati bi egingo diat [...] arrantzale kume **ugerdo** hori! **Edorta Jimenez**

Oilotokiko kakoa baino ezgauzagoa, arrantzale **ugerdo**, zikin zorritzot halakoa. **Edorta Jimenez**

-Hura ere, Basurtokoarentzat, arrantzale zikin **ugerdo**! **Edorta Jimenez**

Hara agertu den Ernest Hemingway ez da gerra kazetari ohia, Habanan izaten dakien gizon **ugerdo** eta koipeztoa baino. **Edorta Jimenez**

Biluzik zetzan zarpail **ugerdo** pilo baten gainean, besoa burua babesteko jasota, eta zartadaren arrasto moreak saiheutsak markatzen zizkion. **Agustin Otxoa**

Angolan mertzenario azkendu ordez edo Panamako banderapean zebiltzan zamako **ugerdo** haietarik batean ontziratuta itzali beharrean [...] Oteiza boxeolari zapuztua herriko aurrena izan zen soldadutza Legión Extranjera-n egiten. *Bingo* esan ordez, *Virgo* esaten omen zuen askotan, edo *Bimbo*, *Vigo* ere bai, txantxa jotzearen; gezur **ugerdo** dena, infamia lohia, nik ez nion sekula halakorik entzun. **Koldo Izagirre**

ugertsu izond ugerrez betea.

Lantegietako milaka leiho beltzak eta hirietako karrika lupetsuak eta kanal bateko bapore **ugertsu** bat. **Lopez de Arana**

Zopiloteak, azoka alderako teiltatuen gainean pausatuak, sargoria, itsasotiko kirats umela, itsasoaren gaineko eguzki **ugertsua**, eta laino beltzen artetiko oinaztarri urdin-ruriskak lehorrerantz, kuartozko lanpara baten argi taupakariaren gisa. **Joxe Austin Arrieta**

uhaga iz ur ponpa.

Uhaga baten modura aritu zinen botaka. **Itziar Otegi**

uhagune iz uraren aparra.

Ezer ez baita gelditzen hauek baizik, hondoaren bermea galtzen denean, eta axaleko **uhagunean** zalapartaka ibiltzeaz besterik ezin egin daitekeenean. **Aurelia Arkotxa**

uhain ik uhin.

uhaitz 1 iz ibaia.

Lurreko Paradisutik jaisten diren lau erreketarik bat den Fison **uhaitzeraino** doana. **Aurelia Arkotxa**

Uhaitz horri jarraikiz Indiaren bertzaldera joateko hamabortz egunen bidaia bada. **Aurelia Arkotxa**

Han porturik ez baitute, baina bai ordea **uhaitz** zabal eta onak, salerostetan dabilzan itsasturiendako lanjerosak direnak. **Aurelia Arkotxa**

Hortik dator ezagulerik gabe deus ezin daitekeela egiazko izan, eta hemen sakon-sakoneko **uhaitzetan** hondoratzeko arriskuan aurkitzen naiz, sakonekoak izan arren egiazkoak diren **uhaitzetan** alegia. **Imanol Unzurrunzaga**

William Phips 1651an jaio zen, Kennebec ibaiaren bokalearen ondoan, ontzigileak egurra moztera etortzen zireneko **uhaitz**-oihanen artean. **Juan Garzia**

2 (hitz elkartuetan)

Lan eskaintzetako elkarte ere berritua izan da eta ur **uhaitzetako** ordezkariek ere. **Herria**

uhal (orobat uhel g.er.) 1 iz larruz edo antzeko gai batez eginiko zerrenda edo xingola mehea, hainbat zereginetarako erabiltzen dena. ik hede.

Txamar urdina, galtza gorriak, eta **uhal** dotoreak aurrealdetik gurutzaturik. **Txillardegi**

Gamelu-ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko **uhal** gerriko.

Larruz jantzia zegoen eta gerria larruzko **uhalez** lotua zeraman. **Elizen arteko biblia**

Soinuaren **uhaletan** sartu nituen besoak. **Bernardo Atxaga**

Kaboa bere ekipoko aire-bonbonaren **uhalak** doitzen ari zen ordurako. **Jon Alonso**

Lepoa zuzen eusteko plastikozko trastearen **uhalaria** zulo bat gehiago estutuz. **Hasier Etxeberria**

Lekaiok [...] kalesaren atzealdeko **uhalaria** helduta, gidariari oihukatu zion: "Aurrera!". **Jose Morales**

Hagaren erdiko partean, gainera, kargalarien **uhalak** lotzen diren lekuan, iltzeak sartzen dira, **uhala** ez dadin alde batera edo bestera labainda. Santiago Iruetagoiena

Txakurrak, muturreko **uhala** ipinia zuen arren, nigar egiten zuen eta intziri. Joan Mari Irigoien

Zakurrak bazituen lepoko **uhalean** argitasun batzuk. Gotzon Garate

Hegazkinak bizkarra eman zion Ozeano Bareari, eta jendeak gerriko **uhala** askatu zuen erosoago egoteko. Javi Cillero

Hainbesterekin **uhalei** heldu eta tiraka hasi zen, astoak ez zuen harekin joan nahi. Pablo Sastre

Selifanek **uhalei** eragin zien, beste gidariak gauza bera egin zuen, zaldiak pixka bat atzeratu ziren, eta berriro nahaspilatu hedeak zapaltzean. Jose Morales

Zaldiak, hesoletan loturik baina **uhai** guztiak jantzita beti, prest zeuden lehen agindua eman orduko lauoinka abiatzeko. Karlos Zabala

Zaldiari aho-burdina jarri, zelako zingila tenkatu, estribuen **uhalak** aztertu, eta emeki-emeki hasi zitzaion tiraka bridatik. Karlos Zabala

Zaldiak **uhaletatik** heldurik geneuzkan. Jon Alonso

Zaldia **uhaletik** herrestan eramanez, alertzezko baso txiki batera iritsi zen. Karlos Zabala

Eraman nahi bazaitu, eramango zaitu, eta bestela, ez dago mokadu, brida, usta edo **uhalik** menperatuko duenik. Agustin Otsoa

Larruzko **uhalez** bildutako gauzaki metaliko bat zen. Alberto Ladron Arana

2 (izenondoekin)

Bi txinpantze eta bi tximino txiki trebatu zituzten **uhai** birakari batean korrika egiteko. Irene Aldasoro

Miraria iruditzen zait maletek nirekin batera jauzia egitea, Ariadnaren haririk gabe iristea aireportuetako terminal, arropa zaharren kanposantu eta **uhai** garraiatzaileetan zehar, heldu behar duten lekuraino. Harkaitz Cano

Uhai garraiatzaile batenaren jiteko prozesua da, funtsean, heste meharrean egiten den janari-digestioa. Irene Aldasoro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zaldi eder bat agertzen da, **uhai**-hedean dizdizarekin ilunpea argitzen duena. Fernando Rey

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iristeko ordua badatorrela ohartzen zara, azafataren ahotsak jaitziera hasi dela eta segurtasun-**uhalak** lotzeko esaten duenean. Lourdes Oñederra

Karabinek aldean eta kartutxo-**uhalak** soinean zetozen. Juan Garzia

Erlorurik gabeko erloju-**uhalak**. Joxan Elozegi

Zakur **uhai** bat eskuan hartuta. Koro Navarro

Ahmetek zaldiaren aho-**uhalei** heldu zien. Fernando Rey

Dibanaren aurreko mahai dotorearen gainean galtza-**uhai** zikinak ageri ziren. Jose Morales

Sable kakotua, jataganaren antzekoa, harri biziz jositako galtzarbe-**uhai** liluragarri batetik zintzilik, bitxi preziazuzko zorro dirdaitsu baten barruan. Karlos Zabala

Beste gelatik beste gestapo bat sartu zen, galtzarbe-**uhala** zeraman gestapo bat. Fernando Rey

Gida-**uhalari** eraginez, harantz zuzendu zuen Rozinante. Patxi Ezkiaga

Brida-**uhai** laxoagoz. Juan Garzia

Izutia zen mandoa eta asaldatu egin zen gida-**uhaletik** heldutakoan. Patxi Ezkiaga

Hain alai, hain gartsu, hain pozez beterik bere burua zaldun armaturik ikusita, zela-**uhaletatik** lehertzen zitzaion bere poza. Patxi Ezkiaga

Datil-antzeko oskiak oinetan, eta mairu-alfanjea bular-zeharkako ezpata-**uhalean**. Patxi Ezkiaga

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, irud/hed)

Praktikan, politika neoliberalaren transmisio **uhai** baino ez dira, zerbitzu publikoa suntsitzen laguntzen dutenak eta zerbitzu sozialen pribatizatzea sustatzen dutenak. Edo, gizakien eta beste ugaztun batzuen kasuan bezala, [enbrioia] uretan gorde (kolpeak xurgatzeko modurik onena) amaren gorputzaren barruan, amaren zirkulazioari konektaturiko garraio-**uhai** likidoaren bidez elikatzen dela. Iñaki Heras

6 irud/hed

Gauzen barruan zeuden gauzak eta munduen barruan zeuden mundu txikiagoak bereganatzea, lotzen zituzten soka eta kordelen jabe egitea, gauzen eta munduen **uhalak** bere esku hartzea. Harkaitz Cano

Bere eskuetan zeuzkan progresoarean **uhalak** ! Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

galtzarbe uhai (3)

gerriko uhala (3); **larruzko uhala** (6); **segurtasun uhala** (10); **uhala askatu** (7); **uhala lotu** (3)

segurtasun uhalak (3)

segurtasun uhalaren (3)

uhalei heldu (3)

segurtasun uhalekin (5); **segurtasun uhalekin lotu** (3)

larruzko uhalez (3); **uhalez lotua** (4)

segurtasun uhalik gabe (3)

uhalde ik uholde.

uhaldi ik uraldi.

uhaleria 1 iz uhal multzoa.

Hitzen ondotik heldu zen kanpamenduko buruzagia sekula ikasiko ez zuten lasterbideren batetik, bere galtza motz eta **uhaleria** guztiarekin. Koldo Izagirre

Polizia bat bota beltzekin oinez, tente, bakarrik, bere **uhaleria** ilunetik bere arma astuna zintzilik. Joseba Sarrionandia

Kabala jantzia zegoen eta **uhaleria** ezarrita. Aingeru Epaltza

Hori gertatzen da *steadycam*-arekin, adibidez, egikeraz (operatzaileari lotzen zaion **uhaleria** bat baita), libre mugitzen den begi baten mugimenduak bihurtzeko egina baita. Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetan)

Zalgurdi berri bat, bi zaldi eta zaldi-**uhaleria** oso bat. Iñaki Heras

uhalgile iz uhalak egiten dituen pertsona.

Zela berria zen, egun guti zuen Donapaleuko **uhalgile** batek buruturik. Aingeru Epaltza

Lehen behakoan ezagutu nituen bi aldeetako mailu txikiak, Donapaleuko **uhalgileak** aitatxiren enkarguz larru gorrixkan itxuratua. Aingeru Epaltza

Ez dakigu gizon honen izenik, bakar-bakarrik bere ezizenarekin, "saddler of Bawtry" izengoitiarekin geratu da historian: Bawtryko **uhalgilea**. J.M. Olaizola "Txiliku"

uhandi *(corpusean urandi eta uraundi soilik)* iz ur handia. ik ur 25.

Hala izango da miraz, Elantxobe aurrean badagoela Goierri izeneko **urandi** edo kala bat esaten dionean, edota Burgos bat Lekeitio parean, itsasmila batzuk barrura joanda. Iñigo Aranbarri

Halere, ia beti ohi denez, uholde, **uraundi** eta uriolak dira gehien akorduan iltzatuta gelditzen direnak. Pello Zabala

uhanditu, uhandi(tu), uhanditzen *(orobat uranditu)* 1 da/du ad urez hanpatu.

Motorrak zuhaitz bat jo, bera malkarrean behera ibaira erori, eta, adar bati heldu izan ez balio, urak eramango zuela, **uhanditua** baitzetorren ibaia. Juan Kruz Igerabide

Hurrengo goizean, su-hiltzaileek atera zuten motorra ibaitik; **uhanditurik** zetorren ibaia, azken euriteak zirela eta. Juan Kruz Igerabide

2 (era burutua izenondo gisa)

Bere altzora zoritxartutako gaixoak arrantzatu nahi zituen Heriok, **urandituen** pisupean oihalaren josturak betiko itxiz. Pako Aristi

uhandre iz *Euproctus, Triturus* eta *Amphiuma* espezieetako ulehortar batzuen izena.

Amildegia bera zeharkatzen duen errekan **uhandreak** eta arrabioak bizi direla. Jon Alonso

Salmahaiaren atzeko sorgina azti bati aholkuak ematen ari zitzaion bi isatseko **uhandreak** zaintzeko. Iñaki Mendiguren

Danteren estatuaren hankazpian baloi bat zegoen, eta iturriko **uhandreak** Napoli taldearen elastiko urdina zeraman soinean. Berria - Kirola

Neville Longbottomek tipula berde, handi eta kirastun bat, purpura-koloreko kristal puntaduna eta **uhandre**-buztan usteldu bat erosi zituen. Iñaki Mendiguren

uhar¹ iz erauntsia.

Euria guti aire aste huntan, **uhar** batzuez kanpo. Herria

-Orain, atertua baitu, hobe duxu etxalde partiturik, beste **uhar** bat jin aitzin. Janbattitt Dirassar

Azken egunetako **uhar** nasaiek ibaia loditu eta lohitu zuten. Itxaro Borda

Urtean zehar, haize zirimolek -ziklonek- zafrazten dute, **uhar** tropikalek urratzen dute. Herria

Holako **uharrek** ez dute luze irauten. Janbattitt Dirassar

Uharra ez zen gelditzen. Itxaro Borda

2 (hitz elkartuetan)

Aski aro berdea zen eta bat-batean izan da ikaragarriko barazuza **uharra**! Herria

Makur handixkoak denen buru, harri **uharrak** denbora guti irauñ badu ere! Herria

ik beherago 6. Askoren artean

3 uholde ura.

Gainera, ur lasterra bortxaz eta jauzika zihuan aitzina, **uharra** irudi, ibaia gurutzatzea erabat zailduz. Karlos Zabala

Ibaiak ur handia zekarren urte sasoi hartan, eta mendiko **uhar** baten indarrez isurtzen ari zen, nonbait. Karlos Zabala

Gainezka eginiko ibai eta erreken **uharrek** zubi eta argindar zein telefono linea asko eroan dituzte. Berria - Mundua

Martinek **uhar** bat inguratzen duen bidexka hartu zuen. Koro Navarro

Begi bakarreko zubitxo batetik iragan nuen **uhar** hau, eta beste aldeko mendiaren aldapa igan nuen. Koldo Izagirre

Uhar nahasiak han ondoko soilune batean egindako putzu barean. Xabier Mendiguren Elizegi

Altuera jakin batean, **uharra** amildegia zen, eta ur distiratsua behe-behean malkortzen zen, sasiartean. Koro Navarro

Uharrek ateratzen dituzte altxorrik lurpetik, eta uholde beroiek sartzen dituzte lur azpian. Xabier Aranburu

Bertan biltzen dira Bardeetako zenbait **uharretako** urak. Berria - Euskal Herria

Urak ez daramana, **uharrak**! Pello Zabala

4 irud/hed

Goiko solairuko maizterrak komuneko urari eman zion eta hormaren barreratik zihuan **uhararen** burrunba entzun zen, jaki merkeek eragindako gorotzaldia eramanez aurki.

Iñaki Zabaleta

Osoak gorputz osoan egiten zidan hozka, amorruez, eta uretan ikusten nuen nire odol jarria, **uharretan**, gorputzaren inguruan, uraren berdearekin nahastuta. Jon Maia

5 (irud/hed hitz elkartuetan)

Asteoroko aitortza derrigorrezkoan, izerdi **uharrak** abiatzen zitzaizkidan bizkarrean behera. Aingeru Epaltza

Aitzin egunetako tenperatura infernutarra ez zen batere eztiua, eta izerdi-**uharretan** nintzen, koaderno eta grabagailua besapean estu. Aingeru Epaltza

Tu **uharrak** biltzen zituen aldi oroz Bozen predikuen ondorioz Kerguelen komisarioak. Itxaro Borda

Iraketik ken itzazue zuen tropak; aurretik horrela egin dutenen bideari jarrai izaiezue, odol **uhar** batean harrapatuta izan nahi ez baduzue. Berria - Mundua

Atentatu entsegu horren kondenu **uharra** segidan abiatu da. Herria

6 euri uhar ipar euri erauntsia.

Haatik, **euri uhar** baten gatik, kontzertua laburtu behar ukan dute. Herria

Zer den bestenez mundu honetako komedia, **euri uhar** batek nolako ondorioak ukaiten ahal dituen! Janbattitt Dirassar

Merkatuguneko aterbe zabalean egin dute, bezperako **euri uhar** nasaien ondotik, aro-ikertzaileak dudakor-eta, ez baitira kanpoan egiterat atrebitu. Herria

Ortziekin batean **euri uhar** bat gaitza. Herria

Pilota partida hasi balin bada bere tenorean, ez da bururatu ahal izan, **euri uhar** polita egin baitu eta gisa hortara besta guzia ezeztatua izan da. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

barazuza uhar (3); **euri uhar** (10)

uhar² ik uher.

uhargi 1 izond ipar gardena, argia.

Igeltsez kargatua eta hodi **uhargiz** biribilkatua zen gaixoa bere ospitaleko gelan. Itxaro Borda

Botila berde **uhargia** ezpain artera hupatzen duen. Itxaro Borda
Ene bihotz beratasun berriaren aterpea eraikiz, haize firfira arinek bulkaturiko laino **uhargiak** zirurikan bazebiltzan. Itxaro Borda
Guretzat biziki garrantzitsua da ekinbidean argitasuna atxikitzea, **uhargi** izatea, informazioa zabaltzea eta jendeekin eztabaidatzea. Berria - Harian
Eztabaida publikoa eta **uhargia** bultzatu nahi dut. Berria - Euskal Herria
Ilunpearen isilatsunean, hasperen elkorra baizik ez zen entzuten eta zer herrestatu baten oihartzun **uhargia**. Itxaro Borda
Ahoa eta sudurra kartzelatzen zion tresna **uhargiak** hatsaren abiadura biderkatzen zuen, irudiz erritmoan ari zen monitorearen hots labor zehargiarekin jostari. Itxaro Borda

2 (adizlagun gisa)

-Ez nuen ezeren eskubiderik eta gaur berdin, hormak arrasatuz bizi naiz, **uhargi**. Itxaro Borda

uharka¹ iz ur biltegia.

Sehiendako bizitegiak, sukaldea, bihitegia, zamaritegia, kakatokia, oilategia, **uharka** ... Aingeru Epaltza
Bardearen inguruan zazpi **uharka** txiki egitea da elkartearen proposameneko bigarren puntua: «barharen arabera egin daitezke urtegi alternatibo horiek, apurka, eta, hala, kostuak zentzuzkoagoak izanen lirarteke». Berria - Euskal Herria
Uharka haietako batean, Samek ur xorta bat aurkitu zuen, orkoek lohitua, baina nahikoa egoera etsi hartarako. Agustin Otsoa
Iristen denean barru harresitura, depositua egingo da, eta deposituari itsatsita, ura jasotzeko hiru **uharka**; deposituan tamaina bereko hiru hodi jarriko dira elkarri itsatsitako **uharken** barruan, muturrekoetan ur gehiegi dagoenean ura erdiko **uharkara** bil dadin. Santiago Iruretagoiena

uharka² adlag suilaka, uharretan.

Haren aginduz isuria zuten olio minerala **uharka** Angararen ur azalera! Karlos Zabala
Erauntsiak ez dio ematen astirik urak lurrazala beratu dezan ere, eta dena pilatzen da maldan behera **uharka**. Pello Zabala

uharño iz adkor uhar txikia.

Artetan **auri uharño** batzu, nehor ez dutena biziki lotsarazi, eta gauaz frango fresko, bainan han zirentzat ez omen zen berotzeko eskasik! Herria

uharre

Trogloditak, Hilezkorrak ziren; **uharre** hareatsua, zaldizkoak bilatzen zuen Ibaia. Juan Garzia

uharri (orobat ur harri g.er.) 1 iz urak leundu duen harria. ik harribil.

Urak eta izotzak mendez mendez landutako **uharri** biribil batean. Xabier Montoia
Honetan ari zela **ur-harri** borobil batek jo zuen saiheks aldean eta saiheks-hezur bi zanpatu zizkion gorputz barrura. Patxi Ezkiaga
Gorakako eta beherakako olatuek harkaitz eta hondarrezko **uharri** baten kontra jotzen duten kolpea. Koro Navarro
Harri hau, **uharri** hau, ikusten duk? Patziku Perurena
Uharri ttipiko karrika beldurgarria. Koldo Izagirre
Uharri landuak azaltzen dira besteak beste. Berria - Kultura

2 itsaspeko harri multzoa, ia ur azalean dagoena.

Beraien eta babes-portu haren artean **uharri** apartsu eta trumoisuak zeuden "Ierro batean ostertetik ostertzera". Iñaki Mendiguren

uharte (2260 agerraldi, 151 liburu eta 710 artikulutan, orobat ugarte g.er.; cf irla 375 agerraldi, 50 liburu eta 50 artikulutan;) 1 iz ur eremu batek inguratzen duen lur eremu iraunkorra. ik irla.

Uharte bat al da, ala kontinente baten muturra? Juan Kruz Igerabide
Mantxako Kanaleko **uharte** batean. Iban Zaldúa
Perugiako aintzirako **uharte** batean. Askoren artean
Greziako **uharte** bat erosteko eta eremu turistiko bat eraikitzekeo prozesuan. Berria - Mundua
Demetrio erregearen seme Antiokok gutuna bidali zien greziar **uharteetatik** Simoni, apaiz nagusi eta juduen gobernariari. Elizen arteko biblia
Brandano monje irlandarrarekin, **uharte** bat zelakoan balea baten bizkarrean sua piztu zuen harexekin. Anjel Lertxundi
Lehorretik bi mila inguru gertuago, beste **uharte** bat ikusten zen, tamainaz txikiagoa, oso malkartsua eta idorra, tarteka harkaitz ilunez inguratua. Koro Navarro
Portutik norabide guztietara barreiatu nuen begirada, eta ideia bitxi bat otu zitzaidan: hiria **uharte** bat zela. Anjel Lertxundi
Deabruaren **uhartea** izeneko **uharte** batera eraman zuten gizona. *Deception* **uharte** hori sumendia izan omen da inoiz. Karlos Zabala
Cité-ko **uharteko** muturrera iristean, eskuinetara jiratu, eta Pont-Neuf-en azpian desagertu zen ala. Jon Muñoz
Fanch erle eta ezti ekoiatzen hasi zen Eussa **uharteko** Ar Lann eskualdean. Itxaro Borda
Sabarno ministroak dienez, 200 eraikin erre dituzte Moluka **Uhartetako** Ambon hiriburuan. Berria - Mundua
Patmos izeneko **uhartean** nengoen erbesteratua. Elizen arteko biblia
Haize euri eta elur erauntsiak Kanariar **Uhartetean**. Pello Zabala
Uharteko iparraldeko biztanleak beldur dira hegoaldera ihes egindako herritarrak itzuliko diren. Berria - Mundua
Bi eraso egin zituzten **uharteko** hegoaldean, lehergailuak erabiliz. Berria - Mundua
Gain hartatik ikusita, **uhartearen** hego-kostaldeko urbanizazioek larregi argitutako hiri insomne baten atalak ziruditen. Bernardo Atxaga
Beste itsasarte hau, **uhartearen** hegosaldean, lakuaren modukoa izanen da, beste sumendi krater baten ondorioa. Joseba Sarrionandia
Kretan eta Egeoko beste **uharte** batzuetan. Iñaki Mendiguren
Eumeoren aita **uharteko** erregea zen. Juan Kruz Igerabide
Asuero erregeak zergak ezarri zizkien lehorreko eta **uharteetako** herriei. Jose Antonio Mujika
Kaiman **Uhartetako** agintariak Parmalatekin lotura zuten zortzi sozietate topatu dituztela. Berria - Ekonomia
Uhartetako japoniar gizarteak, industrializatu aurreko Mendebaldearekin izan zuen lehenengo topaketan, honela erreakzionatu zuen portugaldar kanpotarren aurrean. Iñaki Mendiguren
New York **uharte** batean zagok. Lopez de Arana
Ibaieren adar nagusia zeharkaturik, **uharte** baten hegian lehorreratu zen, uretan behera sei versta baino gehiago egin eta gero. Karlos Zabala

Berehala izendatu zuten nagusiek koru maisu Veneziaki agindu zuten **uharte** bateko monasterio elizan. Felipe Juaristi

Stevensonen Altxorraren **uhartean** aipatzen den ostatuak ere badu antzeko izaera. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Uhartez uharte ibili gara, Milos-etik Kretara, Samos-etik Ithakara, zerua beti urdin, itsasoa halaber xoraturik egona naiz bi orenez. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Herrialdeko **uharte** nagusia Malta bera bada ere, beste **uharte** batzuek ere osatzen dute. Berria - Mundua

Ez zekiten **uharte** handian jenderik bizi zenik. Juan Garzia

Itakatik irten eta alboko **uharte** txiki batera joan ziren. Juan Kruz Igerabide

Aireportu hori munduko haundienetakoa da eta **uharte** artifizial baten gainean dute eraiki. Ramuntxo Etxeberri

Bazekiten palmondo haiek **uharte** idilikoak apaintzen zituztela aintzira bare batean. Iñaki Mendiguren

Iohan Apezaren erreinuan diren **uharte** miragarriez. Aurelia Arkotxa

Ibaieren erdian, berriz, **uharte** oihantsua sortzen zen, eta haren kostaldean ontzi ugari zeuden ainguraturik. Agustin Otxoa

Gailur garai eta zuriak ikusi zituen, hodeien gainetik sartaldean behera zihoan ilargiaren argitara, **uharte** flotagarrien antzera dirdiratzen. Agustin Otxoa

Kutxa bete urte eta Ingalaterrako Bankuan milioi pare bat izanagatik, **uharte** desertu batean ezin zezakeela ezer egin. Josu Zabaleta

Nahiago dut kolpean hil, ezen ez **uharte** mortu batean pixkanaka desegiten joan. Juan Kruz Igerabide

Uhartez desolatu batean bizi ziren lau ezezagunentzat lau emakume inguratzeko, zilarbizi guztia eman behar izan zuela. Juan Garzia

Han zeuden balearen arrantza eta piratak, hura zen abenturetara irten eta **uharte** galduetara heltzeko abiapuntu. Anjel Lertxundi

Hantxe foken artean, **uharte** ahaztu hartan. Juan Garzia

Kretako greziar **uharte** kristau ortodoxoa bere mende izan baitzuen. Iñaki Mendiguren

Hurbileko **uharte** batera. Juan Garzia

Börsen lekua, berriz, Balinor izeneko zaldun bati eman zioten; **Uhartez** Ezezagunetako zalduna zen, oso kementsua. Juan Kruz Igerabide

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ikuspegi global honetan, Errusia botere kontinental gisa agertzen zen, eta Estatu Batuak **uharte** -botere gisa. Iñaki Mendiguren

Buruzagi kurdua bakartuta dago Imraliko **uharte** -kartzelan, Istanbuldik gertu. Berria - Mundua

Bi historien arteko desberdintasunak [...] Txina inperio oso zabal eta barreiatua izateak eta Japonia **uharte** -komunitate estu-estua izateak esplikatzen ditu. Iñaki Mendiguren

Minosek, itsasoko nagusi izana baitzen, beharbada lapurretetan baizik ez zuen izan arrakasta handiagorik: haren inperioa **uharte** -inguruetara mugatzen zen. Iñaki Iñurrieta

Bere **uharte** -gotorlekuak ematen zion immunitate konparatiboaz baliatuz. Iñaki Mendiguren

Imajina orain dela 16 urte ezarri omen zuten Kukurlon **uharte** -arroka honetxen gainean. Txillardegi

Pitcairn **uharte** multzo bat da, baina haietako bakar batean bizi da jendea. Berria - Gaiak

Balearretako Gobernuak eta Eivissako eta Formenterako **Uhartez** Kontseiluak. Berria - Mundua

4 irud/hed

Agian ghetto hesitu eta faltsu batean biziko ziren, **uharte** barruko beste **uharte** batean. Jon Muñoz

Bost kontinenteetatik bakartutako **uharte** bat banintz bezala. Joan Mari Irigoien

Askotan, euskal literaturaren barruan **uharte** bat banintz bezala sentitu dut neure burua. Ana Urkiza

Jendeak zer ginen, **uharteak** ala lur finko eta betikoak? Itxaro Borda

Patxi Lopezen hitzetan, «Euskadi **uharte** galdu bat bilakatu nahi dute abertzaleek». Berria - Euskal Herria

Nire aurrean, orain, alfabetoko **uharte** txiki bat azaldu zait, *K* izenkoa. Bernardo Atxaga

Eboluzio horretan, badira zenbait puntu finko-finko, **uharte** koxkor batzuk, ezagutze espezifikoko guneek osatuak. Juan Garzia

Izan ere, normaltasuna **uharte** bat da, zikoizkeriaren eta asperkeriaren marrazoek inguratzen dutena, bazter guztietatik. Joan Mari Irigoien

Zinez eta minez aitortzen dizut ezen nekez gerta dakikeela zure gutun bat baino present eta sari hoberik **uharte** spiritual honetako ermitau honi. Joan Mari Irigoien

Uhartez bat musika da, eta musika **uharte** bat da, zeruz eta itsasoz betea. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aintzirako uharte (3); greziako uharte (3); uharte batera eraman (3); uharte desertu (4); uharte galdu (4); uharte galduko ipuina (6); uharte handia (3); uharte huts (4); uharte osoa (4); uharte osoan (9); uharte txiki (17); uharte txiki bat (5)

altxor uhartea (6); altxor uhartea liburuan (3); dortoka uhartea (5); hildakoen uhartea (5); hilen uhartea (3); karramarro uhartea (3); santa klara uhartea (4); uhartea batzeko (16); uhartea batzeko planaren (3); uhartea berriz batzeko (6); zipre uhartea (3)

balear uharteak (20); faroe uharteak (7); kanaria uharteak (5); kanariar uharteak (24); marshall uharteak (3)

faisaien uhartean (4); fuerteventura uhartean (4); hilen uhartean (10); jainko hilen uhartean (10); java uhartean (8); kubako uhartean (3); leyte uhartean (3); man uhartean (4); noirmoutier uhartean (3); rugen uhartean (3); uhartean barrena (3); uhartean bizi (8); uhartean bizi diren (5); uhartean zehar (3); wight uhartean (3)

leyte uhartearen hegoaldean (3); uhartearen banaketaren (3); uhartearen batasuna (12); uhartearen batasuna bermatu (4); uhartearen hegoaldea (3); uhartearen hegoaldean (9); uhartearen hegoaldeko (6); uhartearen independentzia (3); uhartearen inguruan (5); uhartearen ipar (4); uhartearen iparraldea (7); uhartearen iparraldean (11); uhartearen iparraldeko (4)

kanariar uharteak (3)

faroe uhartean (5); kanariar uhartean (9); kanariar uhartean artean (4); uhartean artean (11); uhartean arteko (3)

balear uharteetako (24); balear uharteetako gobernuak (3); faroe uharteetako (7); kanaria uharteetako (10); kanariar uharteetako (22); moluka uharteetako (3); uharteetako agintariek (5); uharteetako gobernuak (4); uharteetako kostaldean (4)

kanariar uharteetakoa (3); uharteetakoa da (3)

kanariar uharteetakoa (3)

balear uharteetan (16); kanaria uharteetan (10); kanariar uharteetan (31)

balear uharteetara (3); kanariar uharteetara (23); kanariar uharteetara zihoazen (4); uharteetara joan (3)

kanariar uharteetarako (3)

fuerteventura uharteko (4); leyte uharteko (3); uharteko agintariek (3); uharteko elizan (3); uharteko espetxean (3); uharteko gobernadore (4); uharteko iparraldeko (5); uharteko jaun (3); uharteko klana (3); uharteko polizia (3); zipre uharteko (3)

lampedusa uhartera (10); uhartera eraman (3); uhartera heldu (4); uhartera iritsi (4); uhartera joan (4)

if eko uharterat (3)

kish uhartetik (3); uhartetik gertu (3); uhartetik hurbil (3); uhartetik kanpo (3)

uhartear ik uhartetar.

uhartedi (21 agerraldi, 7 liburu eta 7 artikulutan; cf artxipelago 33 agerraldi, 8 liburu eta 14 artikulutan) iz batasun bat osatzen duen uharte multzoa.

Japoniar **uhartedia**. Iñaki Mendiguren

Norvegiako Svalbard **uhartedian** legez kanpo bakailoa arrantzatzen jarduteagatik. Berria - Ekonomia

Lurralde hartan sartzen ziren Ternuako uharteak, Québec, Labrador, Eskozia-Berria, Saint Pierre eta Miqueloneko **uhartedia**. Aurelia Arkotxa

Indiako Andaman eta Nicobar **uhartediko** Port Blair hiriburuan, bestalde, marea bortizki igo zen atzo. Berria - Harian

Indonesiaraino ere iritsiak ziren, **uhartedia** hinduismoari kendu Islamarentzat, eta ekialderantz jarraitu zuten aitzindari-postu bat Mendebaldeko Ozeano Barean jartzeko. Iñaki Mendiguren

Aurrena, **uhartediko** lurtxo hareatsu batean, biltzarra egin zuten fortuna-zaldun bihurtzeko. Juan Garzia

uharteño *iz adkor* ihartetxoa.

Han-hemenka malba kolore dudakorrezko **uharteñoak** ikusten ditut berriz agertzen, luzatzen, elkartzen eta tiranteak berrosatzen. Monika Etxebarria

Euskaldun haiei guztiei egindako omenaldia da, baina batez ere Kubako probintzia izandako Camagueyn eta Las Villas probintzien iparraldeko **uharteñoetan** ikazkin lanetan hil ziren guztiei. Berria - Kultura

uharteratu, uhartera(tu), uharteratzen da/du *ad* uhartera joan; uhartera eraman.

Orduan Klararen irudia agertzen zaio, eta Godotekin igerian **uharteratzen** ikusten du. Iñaki Iñurrieta

Gabinek egindako bidaia errepikatzekotan, bera **uharteratutako** txalupan **uharteratu** beharko genukeen guk ere. Iñaki Iñurrieta

uhartetar (*orobat uhartear*) izond/iz uhartekoa, uharteari dagokiona; uharteko biztanlea.

Peoi **uhartearrak** argitu zidan, galdera beharrik gabe. Aingeru Epaltza

Uharte bat gara baina horrek ez du esan nahi gure pentsamoldeak **uhartetarra** izan behar duenik. Berria - Harian

Hegoaldeko uharteteara jo gabe, **uhartetarrek** ekarriko lituzketen salerosgaiekin aski izango bagenu, nahiago izango genuke Egiptoko bidea Esperantza Oneko lurmuturrak baino. Iñaki Iñurrieta

Uhartetarrek arrotzak irenstearena, berriz, gezur handia da: tartez tarte, meatzeetaraino eraman naute, inolako istorio-misteriorik gabe, jabe diren lurra guztien eskuko baleukate bezala. Juan Garzia

Apika oldar poetikoetan lerratze zalea ez zaren arren, munduko ontzi guztiek adio ankerra egiten dioten **uhartetar** bakartia iduriko zenuke. Koldo Izagirre

ATSIC Torresko Itsasarteko **Uhartetarren** eta Aborigenen Batzordea aborigenen babes organo nagusia ezeztatu nahi du Australiako Gobernuak. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

torresko itsasarteko uhartetarren (3); **uhartetarren eta aborigenen** (3)

uhartetasan *iz* uharteia izateko nolakotasuna.

Erxidegoek lukete eskubide hori, hizkuntzari, kulturari, **uhartetasunari**, eskubide zibilei eta foru eskubideei dagozkien gaietan. Berria - Euskal Herria

Gaua heldu orduko gure **uhartetasuna** agerian geratzen zitzaigun. Itxaro Borda

uhartetto (*corpusean ugartetto soilik*) *iz adkor* uhartetxoa.

Hala-nola euro diruarekin baino hobeki direla gabe, hori diotenak ere baditu Blair jaunak bere **ugartettoan**, nahiz ondarrean bilduko diren hek ere. Herria

uhartetu, uharte(tu), uhartetzen dadu *ad* uharte bihurtu.

Lentan joaten ginen goraldiak **uhartetua** zuen harkaitzeraino, eta bertatarurik, harro mutu beldurrak ekarriko genituen akordura olatu garratz batek iragan urtean handik eraman zituen lanpernazaleak, herritarrak, koadrilako izendatzen genituenak orain. Koldo Izagirre

uhartetxo (*orobat ugartetxo*) 1 *iz* uharte txikia.

Jauregiaren aurrealdean, hiru **uhartetxo**, hiru harkaitz hobe: Roche Plate, Roche Ronde eta La Frégate. Txillardegí

Hildakoak barnean zeuzkan barkua Vlorako portuaren bisan-bidean den Sazango **uhartetxora** zigortuta eraman zuen. Berria - Mundua

Iparaldeko itsasertza urtean bost hilabetez fokaz pil-pil jartzen da, eta hegoaldeko bi **uhartetxoak** kaio-habiaz beterik daude. Juan Garzia

Athenaik bere konfederazioan sartzera bortxatu nahi zuen Melo **uhartetxo** neutrala (gaur Milo). Joxe Azurmendi

Uhartetxo askea jopu-herri erdian. Jokin Urain

Papeeten, Polinesia frantsesean, oro badabilta, Gaston Flosse UMPkoaren eta Oscar Temaru kontrarioaren auzia ezin xurrituz **ugartetxo** horren gidatzeko. Herria

Komentu bateraiki zen beraz Ziburu eta Donibaneren arteko **ugartetxoan**. Herria

Eta bizkar-orno bakoitza Cabot itsasarteko **uhartetxo** bana. Mirentxu Larrañaga

2 irud/hed

Itsasoaren erdian **uhartetxo** bat aurki dezakete Ipar Euskal Herriko abertzaleek ekainaren 13ko hauteskundeetan. Berria - Euskal Herria

Era honetako azterketa bat ez litzateke ahaleginduko koherentzia **uhartetxoak** bakartzen euren barruko egitura deskribatzeko. Xabier Arregi

uhartexka (*orobat ugartexka*) *iz adkor* uhartetxoa.

Perejil deitzen da Gibraltareko itsasartean eta Marokako itsas hegari hurbil kausitzen den **ugartexka** bat, Espainiak berea daukana. Herria

Aitzinaturik, hantxe zut, **uhartexka** txiki-txiki bat, olatuen eraso behin eta berriz errepikatuaren kontra hiria defendatzen: Faros! Jon Muñoz

Berrogeita hamar solairuko dorrea, **uhartexka** ezin txikiago batean zut, kostatik kable gutxi batzuetara! Jon Muñoz

uhartiar *iz* Uharte-Garaziko biztanlea.

Jakes Pekotx **uhartierra** eta Joanes Martxot arnegitarrarekin muntatu jostetak aipu zituelatik Barbier-ek, bazen konpainian itxant bateko irri. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

1845eko abenduaren 28an bildu ziren 10 **Uhartiar**, nahikunde z beteak, eskualde huntako lehenbiziko jenden arteko lagungo baten moldatzeko. Herria

Hau zen Julie Darzacq-en senarra, sortzez **Uhartierra** Miarrizten bizi zena. Herria

uhaska ik **uraska**.

uhaskatxo ik **uraskatxo**.

uhaste (*orobat uraste*) iz ipar ekaitza.

Uhaste heien artetik, edateko ur garbien aurkitzeak ere lan du eta, lehen estimuen arabera, badukete 850 miliar dolarrena bederen gastu. **Herria**

Eritasun izurrite handien beldurra zen **uhaste** eta heien inguruko hilketa, uren nahaste eta mila desmasietarik. **Herria**

Aitzineko aste buruan, **uhaste** larriek hunki dute erdiz erdi Angelu. **Herria**

Urte guziez udako **uhaste** haundiek zubi horiek andeatzen dituzte eta tokiko ahal tipiekin berriz eraikitzen dituzte ondoko **uhasteak** berriz ereman arte. **Herria**

1927-ko uholde edo **urastea**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Beldur hori sartua zuten leku irriskutsu heietan, Katrina **uhaste** izigarriak handik ez urrun egin berriak zituen desmasien ondotik. **Herria**

Alemania hegoan ortzantz eta **uhaste** haundiak egin ditu Bavarian, herri hortako eskualdean. **Herria**

Uhastepean direnentzat. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Guatemalan, azken aste hauetan izana duten eurite-**uhaste** izigarriaren ondotik, badute han ere zer egin. **Herria**

Hots, haratsago ikusi zen itsas-**uhaste** izigarri harekin parekatuta, hamar aldiz laguntza gutiagoren maneran daudela ez da dudarik, alta kalteak ez dituztelarik hor biziki ttipiagoak. **Herria**

uhate (*orobat urate g.er.*) iz ubideetan eta kidekoetan, uraren igarotzea kontrolatzeko, trabeska ezartzen den ate modukoa.

Kobrezko ubide estuetan barrena, tarte berdina gordez batetik bestera, burdinazko **uhateak** jarri zituen, bakoitza tutuaren neurriko. **Felipe Juaristi**

Atzo proba moduan egindako betetzearan, balbula-etxolan dauden hiru **uhateak** ireki zituzten, eta minutu gutxi batzuen buruan, ubidea gainezka zegoen. **Berria - Euskal Herria**

Zazpi burdin hagak osinaren alderik estuenean jarri zituen, burdinazko mahai bati zeharrearantz itsatsirik iturri gainean, halako moldez non burdin hagari kanpora tira eginez haria estutu egiten zen eta **uhateak** ireki, eta burdin hagari barrura eginez haria lasaitu, eta **uhateak** itxi. **Felipe Juaristi**

Eustorma fisiko baten egiturari, ingeniariak segurtasun-balbulak jartzen ditu, **uhateak** alegia, egoerak eskatzen duenaren arabera zabaldu edo itxi egiten direnak. **Iñaki Mendiguren**

Gainezka egiteko puntadan dagoen urtegiari **uhateak** irekitzea bezala izan zen. **Aingeru Epaltza**

Pertsona bat kolpeka hil zuela, arroz-soro bateko **uhate** batengatik borrokan hasita. **Juan Kruz Igerabide**

uhaza ik **uraza**.

uhel ik **uhal**.

uheldu ik **ubeldu**¹.

uhendila iz

Nik bista ederra zeukanat oraindik, **uhendila** txatxua! **Pako Aristi**

uher (*orobat uhar g.er.*) **1 izond** uraz eta kidekoez mintzaturik, arrea, berezko gardentasuna ez duena, lohitasun ugari duena.

Karramarroak ur **uherretan** soilik harrapatzen dira. **Jose Morales**

Ura **uherra** eta lohia izango da harik eta ibaia itsasoarekin nahasten den urbrietan urdintzen, garbitzen eta iluntzen hasi arte. **Joseba Sarrionandia**

Ur **uher** beroa zen, kirastuna, higidura bakoitzean burbuilak sortzen zituena. **Joxe Austin Arrieta**

Ura epela da eta **uherra**, hotzitzen ari den zopa bezalaxe. **Joseba Sarrionandia**

Bertako ura: Pernod kolore, berdeska eta **uher**, eta haren baitan ispilatua goragoko elurtegi zuriaren isla, txalupa bat ur bazterrean, segmentu-dikea, arimarik ez. **Joxe Austin Arrieta**

Ibai **uherrean** gora eta behera zebiltzan atoiotziak. **Xabier Montoia**

Aditz batetik bestera salto egiten ikusi ditut, ibai **uherra** zeharkatzeko harriak balira bezala. **Pako Aristi**

Kafe bat eskertuko zenuke, bai eta hemen ematen dizuten likido **uherra** ere. **Xabier Montoia**

Adineko gizona begiztatu nuen flakutzen ari zitaion zakila eskuan, esperma **uherrez** blai. **Itxaro Borda**

Istil **uherrean** palastaka, lokatz beroan haztamuka, lan osoa neuk egin behar izan nuen. **Joxe Austin Arrieta**

Gure azpian, zingirak beti ere, axial eta **uherrak**, tarteka lur-zerrenda batzuk, harea, zingirak berriro. **Joxe Austin Arrieta**

Quenu-Gradelletarren urdaitegi handiaren distira itzaltzen ari zen: ispiluak zurbiltzen ari ziren, marmolei zuritasun izoztuak agertzen zitzaizkien, erakusleihoko haragi egosiak lotan zeuden koipe horixketan, jelatina **uherrezko** aintziretan. **Karlos Zabala**

2 irud/hed

Memoriaren ur **uherretan** murgildu naiz. **Joan Mari Irigoien**

Begiak burdinazko malkoz bete zitzaizkidan, pisuaren eraginez, zainek zeramaten erreka **uherra**. **Jasone Osoro**

Nahasmenaren itsaso **uherretan** altxor bila dabilzanen printzipio aitopena. **Berria - Kultura**

Beira **uherrezko** edontzi zarpailaren ondoan, zamauaren marretako baten gainean, ogi apur bat zegoen. **Juan Garzia**

Eta distira bat agertu zen haren begi **uherretan**. **Karlos Zabala**

Farringtonen begi **uher** astunek zehar-begirada bat luzatu zioten lagun-taldeari. **Irene Aldasoro**

Amodioa egiten zutenean, gizonaren so **uherrak** Rachel eta Jacoben herioaren errudun seinalatzen zuela iruditzen zitzaion Janinari. **Itxaro Borda**

Karriketan ere arrastaka dabilzan hots **uher** asko daude. **Monika Etxebarria**

Zenbait mende geroago lanerako argi-urratze **uherretan** aspaldian Otsabidetik partitu herritarren bat ezagutzen zuen. **Itxaro Borda**

Gaiztoa bera zela pentsatzen zuten Florentek, gizaki argal hura, jite beltz **uherrekoa**, inoren aurrean aitortu ezinezko ametsak egiten zituen. **Karlos Zabala**

Faraioei baino zeru zati txikiago eta **uherragoa** seguru. **Unai Elorriaga**

Belar horri ez diogu berezko bertuterik esleitzen, aire **uherra** garbitzekoa edo urdaileko behin-behineko pisua arintzekoa ez bada. **Agustin Otsoa**

Ikuspuntua umearena da aurrena, ez du helduen mundu **uherra** ulertzen. **Markos Zapiain**

Nire bitzta hala-moduzko eta **uher** honetako gorabehera guztien ostein. **Oskar Arana**

Helburu **uher** horren zerbitzuko. **Itxaro Borda**

Garrüzeko egun hartakoaz geroztik, garbiak eta zehatzak gabe, lausoak eta **uherrak** ditut 1570eko kanpainako oroitzapenak. **Aingeru Epaltza**

Lehenbiziko aldiz "Lisboan" agertu zitzaidanetik, halako plazer **uher** bat isuri zuten Ximurraren bisaia. **Aingeru Epaltza**

Garagardo edalontziaren gardentasun **uherra**, Mably kafetegian. **Monika Etxebarria**

Lehen, Unamuno-ren bisioan, iraganaldi **uherra** -Estatuak, gerrak, joputzak- desegiten eta gainditzen, etorkizun arras garden batera bokaleratzen ikusten zen. **Joxe Azurmendi**

Bera bakarrik ageri zen zuri, garden eta distiratsu jendetza **uher** eta goibel haren erdian. **Jose Morales**

Euskal Herrian Euskaraz asmo oneko esaldi konprometitua zer eta esaera kaskar, **uher**, lizun bihurtuta ager daiteke batzuen begietan. **Iñaki Arranz**

3 (adizlagun gisa)

Uher zihoazen urak azpitik. **Rafa Egiguren**

4 (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Etiket jakin bazekiela esango nuke, baina giroaren **uherrak** eta urteetan erabili ez izanaren herdoiak atzendua zioten hizkuntza. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Forentseek ez zekiten xuxen burdinen **uherrak** geldotu edo bizkortu egiten zuten gorpuaren usteltzea. **Hasier Etxebarria**

5 arrea.

Garaño **uher** bat ere bazegoen, zatar samarra. **Jose Morales**

Nahiago dut biluzik, ene egiak biluztasuna agerian utz lezakeen arropa **uhar** kario batez bezituri baino! **Itxaro Borda**

Ate zuri **uherraren** ondoan bi botoi zeuden: gaueko txirrina eta eguneko txirrina. **Lopez de Arana**

Haren ile grisak, halako gris **uher** batekoak. **Josu Zabaleta**

Paper **uher** mehez estali **Itxaro Borda**

• 6 iz

Hau da hau, hautsa eta **uherra**! **Javi Cillero**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ur uher (3)
ur uherra (3)
ur uherrak (4)
ur uherretan (9)

uhertasun iz uherra denaren nolakotasuna.

Berriz ere burua uperatu zidaten, ur berde esmeralda haietara jausten zen ur-jauzi erraldoiaren **uhertasunaren** zurrinbiloko gorputzari barrura tiraka-tiraka, putzuaren sakoneraino eraman ninduen. **Jon Maia**

Hainbat poliziaren presentziak lanjer gehiegi zekarrela, kaltegarria zela funtsean egoeraren **uhertasuna**, garai batean ATEK **uhertasun** hori ederki baliatu baldin bazuen ere. **Itxaro Borda**

Erregela fonologikoen gardentasun edo **uhertasunarenak** eztabaida bizia ekarri bazuen ere fonologiaren historiako garai batean. **Lourdes Oñederra**

uhertsu izond uhertasunez betea.

Baita biltegi zaharrak, saretu **uhertsuak**, taberna barru-ilunak eta garaje zaratatsuak ere. **Javi Cillero**

uhertu, uher(tu), uhertzen da/du ad uher bihurtu, gardentasuna galdu edo galarazi.

Lurrari kenduriko posteak lagatzen duen putzuan **uhertu** den euria. **Koldo Izagirre**

Pattar-bafadak eta hitz gordinek airea bera loditu eta **uhertzen** zuten zorigaitzoko leku horretan. **Jose Morales**

ETArean ihardunarekiko anbiguotasun handiz aritzen gara eta anbiguotasun horrek gure harremanak oro iluntzen ditu, edo behintzat **uhertzen**, mutatasuna ez baldin bada, isiltasuna hedatuz. **Itxaro Borda**

Zuzendariaren begiak **uhertu** egin dira, bi eltxo bertara jauzi balira bezala. **Itziar Otegi**

Soakoa **uhertzen** zitzaion eta zintzur alde korapilatzen. **Itxaro Borda**

Hiru minuturen buruan komisaria errautsiko zela iragarri zion Tzarkok ahotsaren **uhertzeko** oihal bat erabiliz. **Itxaro Borda**

Jende hatsartze lurrinek **uhertu** leihoetarik kanpora begira zegoela, Fanchi so nengokion. **Itxaro Borda**

uhin *(835 agerraldi, 140 liburu eta 65 artikulutan; orobat uhain 115 agerraldi, 10 liburu eta 74 artikulutan –1 izan ezik Herria-koak)*

1 iz fisikan, oszilazio edo bibrazio higidura periodikoa, espazioan edo ingurune material batean hedatzen dena.

Adibidez, 300 Hz dituen **uhinak** 300 ziklo egingo lituzke segundoko. **Lourdes Oñederra**

LFAS sonarrek 220 eta 240 dezibelio inguruko **uhinak** igortzen dituzte. **Berria - Gaiak**

1965etik Caracas ingurutik Euskal Herriaren berri ematen zuten Radio Euzkadiren **uhinetatik**. **Berria - Kultura**

Gai horiek guztiek **uhin** ikusezinak igortzen dituzte, eta **uhinek**, airean zehar joanda, bibrazioak eragiten dituzte tinpanoa eratzen duen mintzean. **Irene Aldasoro**

Esaldien doinuaren funts fisikoa ahoskordek sortutako **uhinaren** oinarritzko maiztasuna da. **Lourdes Oñederra**

Osagai bat baino gehiago duten **uhinetan**, laborategitik kanpo gertatzen diren guztietan alegia (diapasoko nota da praktikan **uhin** sinpleari gehien hurbiltzen zaiona), oinarritzko maiztasunaren arabera koa izaten da hautematen den garaiera. **Lourdes Oñederra**

Lan honen arabera, guztiaren baitan dauden **uhin** horiek erresonantzia sar daitezke maiztasun zehatz batzuetan bibraraziz gero. **Fernando Morillo**

HAARP antenez baliatzen da ionosferara **uhinak** bidaltzeko. **Berria - Gaiak**

Elektroiek partikula gisa joka zezaketen, edo **uhin** moduan. **Fernando Morillo**

Asteartean zartarazitako furgoneta ezpona baten ondoan zegoen, eta hark eztrandaren **uhina** mendialdera desbideratu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Burmuinaren **uhinak** irakurtzen dituen makina. **Berria - Gaiak**

2 (izenondoekin)

Gaur baten entzun dut ETB1an ordenadore eta telebistaren **uhin** elektromagnetiko kaltegarriak desgitzen dituen kaktus bat badela. J.M. Olaizola "Txiliku"
Iriarteren ekintza haren dardarak iristen zaizkigu, Rikardo Arregiz bizirik jarraitu zuen Euskal Herriko historia alternatibo horren **uhin** elektromagnetikoak. Iban Zaldúa
Ziklo bat presio-igotze eta presio-jaiste oso bat da: **uhin** sinusoidalaren gorako eta beherako olatua edo zirkulu oso baten ibilbidea. Lourdes Oñederra
Atzeramendu infinitesimal baten aldearekin, **uhin** hertziarrek iristeko behar duten denboraren aldearekin. Josu Zabaleta
Irratian **uhin** laburreko emisora ingeles bat aurkitu zuen. Josu Landa
Denbora etxean ematen nuen, **uhin** laburreko emisora entzuten. Xabier Olarra
Uhin laburretan zegoen sintonizatuta. Xabier Olarra
Sistema honek «subjektuak garunaren aginduei erantzun aurretik» jasotzen ditu **uhin** elektrikoak. Berria - Gaiak
Fonemak eta ezaugarriak, **uhin** akustiko baten edo artikulazio-mugimendu batzuen segmentutzat harturik. Itziar Laka
Bonbaren **uhin** hedakorrek kalteak eragin zituen ondoan dagoen Espainiako enbaxadan. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ikusten ez dugun bitartean, katua ez dago ez hilda, ez bizirik; bere egoera **uhin**-funtzio bat da, ez besterik. Fernando Morillo

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irrati **uhinentzat** gure gorputza guztiz gardena da, frekuentzi baxukoak direlako. Berria - Gaiak
Sistema jakin baten bidez, erradiofrekuentzia **uhin** bat sortzen da. Berria - Gaiak
Espazioan zehar mugitzen da, beraz, hotsa presio-**uhinetan** entzulearengana iristeko. Lourdes Oñederra
Airean doan soinu-**uhin** bat gainazal solido edo likido batera iristen bada, islatu egiten da gehiuna, eta parte txiki bat baino ez da transmititzen. Irene Aldasoro
Maiztasun handiko soinu-**uhin** batek ura bezalako likido bat zeharkatzen duenean, uhinaren presio negatiboek bortizki ezandarazten dute edozein lurrun-burbula, bolumena 1.000 aldiz handitzeraino. Fernando Morillo
Zulo beltzek edo talka egiten duten galaxieki grabitate-**uhinak** sortzen dituzte eta, era horretan, haien inguruko espazioa eta denbora aldatu egiten dute. Berria - Gaiak
Grabitate-**uhinak** masaren azelerazioaren eraginez sortzen dira, eta espazio eta denbora berezia dute. Berria - Gaiak
Madrilgo lehegailuen hedatze-**uhina** berehala zabaldu zen merkatuetan, eta bestelako albiste ekonomikoek [...] ez zitoten itzalik egin. Berria - Ekonomia

5 irud/hed

Garden zabala oso-osorik musikarekin batera mugitzen zen, hemezortzi mila lagun bat eginik, denak **uhin** batean, nerbio-sistema guztiak sinkronizaturik, ahots batez. Xabier Olarra

6 itsasoaren eta kidekoen gainaldean eratzen den goragune higikorra, haizeak edo bestek eragina. ikolatu; bago¹.

Itsasoko **uhinen** hotsa entzuten da, ezta? Ibon Uribarri
ik beherago 13. Askoren artean
Itsasontziak marinela gutxi batzuk salbatu zituen, baina gero, belak hedarazi zituen eta ni **uhinen** menpe geratu nintzen. Patxi Zubizarreta
Bertan etzan zen, **uhinek** lardaskatzen ez zituzten arroketan. Itxaro Borda
Itsasoan **uhinak** altxatu ziren, eta ontzia lurrerantz eraman zuten. Juan Kruz Igerabide
Nazio ugari altzaraziko dut zure kontra, itsasoak **uhinak** harrotzen dituen bezala. Elizen arteko biblia
Nola itsasontzi egin berriak itsasoko lehen **uhinen** ilara hautsi behar duen, barnerago jotzeko, [...]. Felipe Juaristi
Uhinek txalupa jotzen zuten, ia urez betetzeraino. Elizen arteko biblia
Haizeak **uhinen** paparra eta gandorra altxatuko ditu. Joseba Sarrionandia
Uhin handi batek haitz baten kontra bota zuen. Juan Kruz Igerabide
Leiho baten ondoan jarri gintuzten, badiako **uhin** biziak ikusten zirela. Bernardo Atxaga
Yangtze ibaian, itsasgorak **uhin** harroak eragiten ditu. Pablo Sastre
Uhin berdeak apar bihurtzen ziren ferryaren branka biribilaren azpian. Lopez de Arana
Hala zen, **uhin** ikusgarri bat jendea irentsi baino bi segundo lehenago. Iñigo Aranbarri
Itsasoa franko laño zegoen, nahiz, batzuetan, **uhin** haguntsuak biziki gora altxatzen ziren. Daniel Landart
Itsasoak **uhin** leunez harea egarbera lisatzen duen hondartza kurbatuan. Xabier Amuriza
Allengo zingiran, eta sartalderago, emaro, elurra, Shannonen **uhin** mutiri ilunen gainean. Irene Aldasoro
Agure batek soka bat eusten du, uretan **uhin** zirkularren erdian galtzen dena. Joseba Sarrionandia
Uhin ankerrek jaurtitako marinela bezala. Xabier Amuriza
Heriotzaren atea, beraz, ez dago itxita zeruarentzat, ez eguzkiarentzat, ez lurrarentzat, ez itsaso sakoneko **uhinentzat**. Xabier Amuriza
Oztoporen bat jarriz **uhina** eteten bada, lehenengo **uhinak**, atzera itzuliz, nahasi egiten du atzetik datozkionen norabidea. Santiago Iruretagoiena

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ibaieren erdian **uhin**-ildo kexatuek apokalipsia irudikatzen zuten. Itxaro Borda
Badakizu kolpe bakoitzarekin **uhin** zirkuluak sortzen direla uretan. Joseba Sarrionandia
Azkenik, bazter **uhin**-hauslean eskegitako jantziak hezatu egiten dira; eguzkitan zabalduz, ordea, lehortu. Xabier Amuriza

8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere indar horrekin haize-kolpeak eta haize-**uhin** gero eta handiagoak eragiten ditu. Santiago Iruretagoiena
Gero aire-**uhinekin** batera mugituz, mendietara iristen direnean, haiekin topo egiten dute, eta beteta daudelako eta pisua dutelako, ekaitz moduan ur bihurtu sakabanatzen dira eta hala lurrean zabaltzen dira. Santiago Iruretagoiena

9 irud/hed

Ile horiak **uhinak** egiten zituen haren sorbaldetan. Juan Kruz Igerabide
Oraingo honetan, azkar igarota zen zorionaren **uhina**. Juan Kruz Igerabide
Sentimendu behintzat perfektuen zain bizi denarentzat arraroa izango da batak bestearen begietan desiraren **uhina** ikustea, bestearen begietatik pasatzen. Joseba Sarrionandia
Semea hor zeukan alta, gohainaren **uhinek** gibelondoa zitzikatzen ziotela. Itxaro Borda
Arabiaren eraginaren **uhinak** Kontinente Beltzaren gainean apurtzen ziren. Iñaki Mendiguren
Hizkuntza gertaera horiek kutsaduraz zabaldu ziren, eta baliteke **uhin** guztiei dagokienez ere hala gertatzea; **uhinak**, puntu batetik atera, eta hedatu ohi dira. Isabel Arrigain
Urteetan **uhinaren** puntan ibili den taldea nekez moldatzen da ur txikietan. Berria - Kirola

10 (irud/hed, izenondo eta izenlagunekin)

80ko desarautzeen **uhin** handiak banku-sistemak desorekatu baititu. Koro Navarro
Ilea kirrua eta luzea, bizkarrean goitik behera erortzen zitzaion, **uhin** ilunak sortuz. Felipe Juaristi
Ile beltz-beltza zuen, sorbaldetaraino **uhin** lasai mugikorretan. Iñaki Iñurrieta
Bere helburuen artean dago irakurlea ukitzea eta hunkitzea, haren arimaren hari bat jotzen asmatzea, sentiberatasunen artean izaten diren **uhin** harmoniko berezi eta ulergaitz horiei esker. Xabier Mendiguren Elizegi
Lurrin hark bular jada sorgorrean sentipen bat sortarazten baitzidan, zeinaren **uhin** hazkorrek gai baitziren nire begi lehortuetan ere malko bero batzuk isurarazteko aurpegiko umeltasun hotzean. Urtzi Urrutikoetxea

Ur barera jauritako harria bezala erori zen esaldi hura, **uhin** isilak zabalduz sala gutzira. Joseba Sarrionandia
Nestoriotar **uhina** altxatu eta erori egin zen, ondoren **uhin** monofisita etorri zen, eta ondoren **uhin** musulmana, dena bere aurrean eraman zuena. Iñaki Mendiguren

11 (irud/hed, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ur-bilatzaileen sardango makila, energia **uhinen** bila zerabiltena basa-lizar adarrez egina zen. Pello Zabala
Bat-batean musika **uhin** erraldoi batek jan ditu hiru solairuak. Pako Aristi
Herio- **uhinek** inguratu ninduten, uholde gaiztoek ikaratu. Elizen arteko biblia
Bat-batean harrigarri hunkitu ninduen bakardade **uhin** isil hark. Txillardegi
Wanda Ford itxaropen eta etsipen **uhinek** gora eta behera zerabilten. Gotzon Garate
Gutxitan sentituko nuen aurretik horrelako sinpatia- **uhina**. Xabier Mendiguren Elizegi
Iazko elkartasun **uhinak** segida izan du hala ere. Berria - Euskal Herria
Bihotzetik itrendako odol-zurrustak sortutako talka- **uhinaren** hondarra da eskumuturrean eta gorputzeko beste zenbait lekutan sentitzen den pulsuaren taupada. Irene Aldasoro
Milimetro bat edo biko jauzitxoak eginez errepikatzen ditu oinak pultsazio- **uhinak**. Irene Aldasoro
Georgesesen ahots eztiak kideen harramantza- **uhin** ilunaren ezinegona atitxatzen zuen. Itxaro Borda
Akeoen konkista- **uhinak** lehertu eta geratu egin zirela Troia irentsi ondoren. Iñaki Mendiguren
Bidean zihoalarik, jende- **uhin** oldarkor batek eraman zuen berarekin plazaraino. Felipe Juaristi
Hazkunde laster hori ia etengabea izan zen 1973 arte, eta industria-talde handien sorrera bultzatu zuen ekonomia aurreratuetan, hurrenez hurrenoko kontzentrazio- **uhinetan**. Koro Navarro
Migrazio- **uhin** batek menderatua c. K.a. 1200-1190ean. Iñaki Mendiguren

12 hots uhin

Fonetika-fonologien eremuan, ahots esaten zaio ahoskorden dardarak sortzen duen **hots uhinari**. Lourdes Oñederra
Ahoskordetako giza belarriak hauteman ditzakeen **hots-uhinak** ekoitziko dituzte. Lourdes Oñederra
Alderdi akustikotik hartuta, zabalera handiagoko **hots-uhina** da hots ozenagoa, presio igotze eta jaiste bortitzagoak gertarazten dituena, alegia. Lourdes Oñederra
Burmuinak fonazio organoetako bultzada bat bidaltzen die, irudiari korrelatiboa zaiona; ondoren, **hots uhinak** A-ren ahotik B-ren belarrira joango dira: prozesu hau erabat fisikoa da. Isabel Arrigain
Dardara horrek oso **hots-uhin** konplexua sortzen du, alegia maiztasun askok osatua. Lourdes Oñederra

13 itsas uhin

Itsas uhinak soilik zutitzen dira ortzi-muga urrunaren eta lehorraren artean. Anjel Lertxundi
Haiek Egiptoko itsasoa igarotzean, **itsas uhinak** baretuko ditut. Elizen arteko biblia
Itsas uhin erraldoiak. Imanol Unzurrunzaga
Gizona baino handiagoa zelakoan, **itsas uhinei** agindua eta mendi-gailurrak balantzan pisa zitzakeela uste zuena. Elizen arteko biblia
Itsas uhinen leherketa geldoa. Txillardegi
Pianoaren notak soilik zutitzen ziren, **itsas-uhinen** gisako itxura bat harturik. Anjel Lertxundi

14 Martenot uhin pl musika-tresna elektronikoa, 1928an asmatua, teklatu batek, bozgorailu batek eta maiztasun apaleko sorgailu batek osatua.

Rock eskema zaharkitua darabil Tiersenek, arrunt efektista, lineala, **Martenot uhinen** erabilera gehiegizkoa izan zen eta zehaztugabea. Berria - Kultura

15 uhin luzera

Objektuak 1,2 milimetroko **uhin-luzeran** igortzen duen erradiazioa neurtu dute. Berria - Gaiak
2003 UB313ren azala argia ala iluna izan, erradiazio berdina da **uhin-luzera** horretan. X eta gamma izpien **uhin luzera** atomoak baino txikiagoa da, eta beraz oso probabilitate txikia dute atomoaren nukleoarekin edo elektroiekin topo egiteko. Berria - Gaiak
Uhin luzera milimetroaren mila milioigarrena da, eta frekuentzia 100.000.000.000.000.000.000 hertzekoa. Berria - Gaiak
Bi filtro erabili zituen irudiak egiteko: bata **uhin-luzera** handiak filtratzen zituen (filtro gorria), besteak **uhin-luzera** txikiak (filtro berdea). Xabier Olarra
Lau aparatuek kometa eta haren isatsa neurtu dituzte **uhin luzera** desberdinak erabiliz. Berria - Gaiak

16 irud/hed

Tomen **uhin-luzera** berean ibiltzen naiz -esan zuen Templek-, nahiz eta umeen **uhin-luzera** izan. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argiaren uhin luzeraren (3); hots uhin (5); itsas uhin (3); uhin berri (3); uhin elektromagnetikoak (5); uhin funtzio (3); uhin handi (4); uhin handi batek (3); uhin laburreko (3); uhin luzera (40); uhin luzerak (7); uhin luzeraren (9); uhin luzerari (3); uhin zirkuluak (4); uhinez uhin (3)
grabitate uhinak (5); hots uhinak (5); irati uhinak (3); itsas uhinak (3); itsasoko uhinak (7); uhinak bezala (5); uhinak egiten (4); uhinak eta (7); uhinak jaso (4); uhinak sortzen (4)
hots uhinaren (3)
itsas uhinei (3)
itsasoko uhinek (4)
itsas uhinen (5); itsasoko uhinen (7); uhinen bitartez (3); uhinen gainean (3); uhinen hotsa (6)

uhinaldi iz uhin saila.

Beste ekaitz-bolada bat da, handik tarte batera datorren berria: beste **uhinaldi** bat da, beste palasta bat... hondartzako olatuen erara datoz bata bestearen atzetik. Pello Zabala

Norena zen **uhinaldi** batetik bestera giro bera baina berritua transmititzeko gaitasun hura, haize berak basoko zuhaitz desberdinak dardarazten dituen bezala? Anjel Lertxundi

uhinarazi, uhinaraz, uhinarazten du ad uhin bihurtarazi.

Itsas ertzean esertzen ziren, haizeak Niniren soineko urdin ilunaren azpildura **uhinarazten** zuen; gauza guztiak kresal usaina zeukaten, baita haizeak eta loreek ere. Xabier Olarra

uhindua, uhin(du), uhintzen 1 da/du ad uhin bihurtu; uhin eitea eman.

Uholderik ere ez dakusat inondik; hareia bakarrik, hondarra, ilargiak argizatua, eta haizeak **uhindua**, uraren antzera. Joxe Austin Arrieta
Oskarbi zegoen, haize gozoa egiten zuen, eta belarra **uhindu** egiten zen hankapean, oihan debekatuaren beste aldean, aurrez aurre, zegoen zelairantz maldan behera zihozela. Iñaki Mendiguren
Gorputz-atal guztiak etengabe higituz eta **uhinduz** zutabeei bizirik eusteko. Urzi Urrutikoetxea

2 (era burutua izenondo gisa)

Orduko ile luze eta **uhindu** bera. Fernando Morillo

Ilajea lisoa, kizkurra edo **uhindua**, edo ilaje galdua, besterik gabe. Jon Alonso

Bizpahiru kilometroz edo bidearen goiti behetik olatu **uhinduaren** goxoarekin eramaten gintuzten. Piarres Aintziart

Añonek eraikuntzarako altzairu **uhindua** ekoizten du, eta ADA erosita, altzairua prezio merkeagoan lortzeko asmoa dauka. Berria - Ekonomia

Gizon zuriek, bien bitartean, hesi traukil samarra eraiki dute zelai **uhindu** baten tontorrean. Julen Gabiria

Neskak ezin izan zuen barrenetik ateratzen zitzaion aldaken mugimendu **uhindua** ekidin. Fernando Morillo

uhindun *izlag* uhinak dituena.

Basamortuko terrenoa hareaz estalia agertu ohi da: harea **uhindun** itsaso lehorrak, haizeak dunak aldatzen dituelako, landare gogor sofrituenei ere ez die zuztarrrik itsasten zuten. Pello Zabala

uhindura *iz* uhin moduko egitura.

Miarritze teilatu gorri eta kontraleiho berdeko herri txuria da, belarrezko eta txilarrezko gailurretan paratua, hauen **uhindurari** jarraiki. Koldo Izagirre

Times Square koloretako argi aldizkakoez beteta zegoen, distirazko **uhindura** gurutzatuez. Lopez de Arana

uhinka 1 *adlag* uhin modukoak eratuz.

Mendiek bi gisatako bideak sortzen dituzte: sugedorriak bezala bihurka narrasten direnak eta boak bezala **uhinka** narrasten direnak. Koldo Izagirre

Gizona punpa eta jauzika ari zen, izuaren eraginez hatsa elkor hartuz; sugea aldiz, ezpalak ozen eta argi, **uhinka** zebilen, ezker eta eskuin. Itxaro Borda

Haren behatzetan **uhinka** ari zen orria, bandera bat bezala. Matías Múgica

Gizon-maitale baten pitiliaren koroa murtzatzea gustatzen zitzaion, ezpata-jokoan berearekin bestea gurutzatzea eta ororen gainetik [...] zangartean arrain hezeren lekeda hara-honaka **uhinka** nabaritzea. Itxaro Borda

Nire neskek klitorisa oretzen zidan **uhinka** bezala, astinaldi bakoitzean hasperen eginez. Juan Martin Elexpuru

2 masa handietan, samaldaka.

Billancourtera joan zen bizitzera, **uhinka** eta andanaka etorritako errusiarren artera. Felipe Juaristi

Larraburuko ekintzatik landa, bilkura gertatu eta **uhinka** Eusko Armadako militante suhar saldoek Kerguelen komisario ustelaren hortz zorrotzak pairatu zituzten. Itxaro Borda

uhinkari *iz* kulunkaria.

Beira irakinezko belo **uhinkari** bat edukiko balitz bezala aurpegi aurrean, sudurretik arra betera. Koldo Biguri

uhinki *iz* uhina.

"Fotoia **uhinkia** da eta ez da" esan genezake Bohr-en erara, edo "fotoia gorpuzkia da eta ez da". Iñaki Segurola

Zientziaren makulu baldarren -baina txit operatiboen- heineraino etorririk ere, ez dakigu galdera horri erantzuten, zeren ez baitakigu gorpuzkia den ala **uhinkia** den. Iñaki Segurola

uhinska ik uhinxka.

uhintsu 1 *izond* uhinez betea.

Soinu **uhintsu** bat, Setheren semeek egiten dutena bezalakoa dabiltzanean belarretan zilipurdika edo euritan ziprztintzen. Anton Garikano

Autoaren martxa astirotu nuen, piano baten akorde **uhintsuak** hobeto hausnartzeko. Anjel Lertxundi

2 irud/hed

Barrura sartuta eta tarte handi batera, beste izar batzuk iristen dira, sugeak bezain **uhintsuak**, Balearen burua ukitzera. Santiago Iruretagoiena

Ile **uhintsua** zuen, neskatila batenaren antzekoa. Xabier Olarra

Sara, gorpuzta sentsualitate jario, irri firfira limurtzailea, eta batik bat ile **uhintsu** hordigarri hura. Patxi Zubizarreta

Bien bizitzak elkarren parekoak izan ziren ibilbidez, arras zaharturiko gorputzen mugimendu motel eta **uhintsu** beraren mendekoak. Xabier Olarra

Harmailetan ikusten nituèn ikurrinak hiru koloretako izara **uhintsuak** ziren, nire gogoa sehaskatzen zutenak. Joan Mari Irigoien

Nik izan nuen behin Kateme Zuriaren palazioan bizi izandako sentipena, piztia **uhintsu**, misteriozko, zirrara eragile horietako bat. Josu Zabaleta

uhintxo *iz* uhin txikia.

Ontzi bat segitzen zuen, ibai zabalean, ezpondatik ezpondara, arrantza sareak hedatzen: haizearen xuxurla, **uhintxo**en klaska hegietan eta batelaren motor azantz elkorra. Itxaro Borda

Noizean behin, lasterka eta saltoka ibiltzeaz aspertuta, ur azalekoan etzanda geratzen ginen, berriketan; ibaiak **uhintxoak** egiten zizkigun gainetik. Mirentxu Larrañaga

Uhintxo bat hurbildu zen modu arriskutsuan haren zapatetara. Bego Montorio

uhinxka (*corpusean uhinska soilik*) *iz* adkor uhintxo.

Hondar berbera, tirain berbera, bare, **uhinska** batzuen joan-etorria besterik ez, ia-ia aparrik harrotu gabe, eguzki berbera, haize berbera isastian barrena. Joxe Austin Arrieta

uhobi *iz* ubidea.

Río Seco, "Erreka idorra" delakoak izen egokia dauka: ur tintik ez da **uhobian**. Piarres Aintziart

Lur gorrailezko bidean, orain, goizetan hain goxoa denean, tenore honetan zangoek errautsik ez baitute airatzen; bide gorraila, beraz, mahastien erdian **uhobi** arraildu bat

uhol ik uholde.

uholde (orobat uhalde g.er. uralde g.er. eta uhol g.er.) 1 iz eurite handi baten ondorioz ibaiak gainez egitea eta lur eremuak urez estaltzea.

Horixe da unibertsoan gauza kaltegarriak eragiten dituena, hala nola **uholdeak**, euri-jasak, elurra, txingorra, haizeteak, ostotsa, tximista, airea usteltzea, edo hondamen beldurgarriak, [...]. [Xabier Kintana](#)

Abenduko **uholdeak** izan zirenean. [Pako Aristi](#)

Uholdeak edo idortekak izaten ahal dira, uztak suntsitzen edo berdin kiskaltzen ahal dira. [Elena Touyarou](#)

Leihotik ikusi nuen **uholdea** lehendabizi; etxeko atarira jaitsi, eta dena urez beteta zegoen. [Berria - Euskal Herria](#)

Azken egunotako euriteek **uholdeak** eragin dituzte Tindufen. [Berria - Mundua](#)

Danubioren gainezka jartzeak eragindako **uholdeek** 148 hiri eta herri kaltetu dituzte, 12 barrutitan. [Berria - Mundua](#)

Himalaia mendialdean dagoen Arunashal Pradesh estatuan ere galera oso handiak eragin dituzte **uholde** eta lubiziek. [Berria - Mundua](#)

Uholde eta lur-jausien eraginez salbamendu lanak korapilatu egin dira. [Berria - Mundua](#)

1903an [...] **uholde** batek bere aitaren sufre meatzeak hondaturik, familiaren diru guztia sartuta zegoen negozioak hondoa jo zuen. [Josu Zabaleta](#)

Berriki frantses telebistak erakutsi baitzizkigu Frantzia Iparreko Somme eskualdean **uholdeak** egin desmasiak. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Uholdeak lurrean egin zuen ebakia ikusi genuen, zuhaitzak eta harkaitzak eraman zituen lekua. [Koro Navarro](#)

Uholdeak ibaiko ezponda hautsi zuen. [Koro Navarro](#)

Uholdeak saihesteko neurriak nahi dituzte Urumea ondoko herriek. [Berria - Euskal Herria](#)

Zera ziruditen: aterki baten atzean babesturik **uholde** baten zain dagoena. [Juan Kruz Igerabide](#)

Biltegiak lehendik ere nahiko balantza egiten du, eta horrelako **uholde** batekin erori egingo da segurua. [Josu Zabaleta](#)

Bibliak kontatzen duen **uholdearen** denboran. [Joan Mari Irigoien](#)

Beroaldiak Karpato mendietako elurra urtu eta **uholde** gehiago ez ote dituen eragingo kezkatuta daude agintariak. [Berria - Mundua](#)

Uholdea Beyazitiko hirira isuri zen. [Fernando Rey](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Uda horretan gertatu ziren **uholde** handi haiek, ez dakit oroituko zaren. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

ik beherago 10. [Askoren artean](#)

Herio-uhinek inguratu ninduten, **uholde** gaiztoek ikaratu. [Elizen arteko biblia](#)

Bangaloren **uholde** gaitzak izan ziren. [Gotzon Garate](#)

Malagak **uholde** makurrak jasan zituen. [Pello Zabala](#)

Aza, azenarinoa, arbia ur grisak jo eta murgildu egiten ziren galtzada betean igarotzen zen **uholde** istiitsu hartan. [Karlos Zabala](#)

Euria ari zuen: gau osoan jardun zuen zirri-zarra, eta gu hantxe, faroak piztuta, egonean egon arren, atergabeko **uholde** haren jario-marmarraren pean. [Joxe Austin Arrieta](#)

Ohartu zen kalean izugarrizko eurijasa ari zuela botatzen, halakoa non bat-bateko **uholde** hartan harrapatutako pertsonak atari, erakuslehoi eta dendek eskain zezaketen aterperik txikienaren bila ari baitziren beren buruak babestearren. [Joxemari Iturralde](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Rananimek kalte handiak sortu zituen: **uholde**-euriak, 160 kilometro orduko haizeak, eta ekaitzaren begiak eragindako lur-lasterrek erabat suntsiturik utzi zuten lurraldea. [Berria - Mundua](#)

Uholde-euriak etorriko dira, harria botako du eta ekaitz-haizeak joko. [Elizen arteko biblia](#)

Uholde-arriskua handiagoa izan ohi da [...] euri asko denbora laburrean egiten badu. [Lourdes Oñederra](#)

Urumea ibaiko lanekin berehala hasiko dira, **uholde** arriskua gutxitzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

Ondoren jakinarazten duenez, Apofis, 15. dinastiako erregearen erreinaldiko hogeita hamahirugarren urteko **uholde**-sasoiko 4. hilabetean idatzita dago testua. [Jon Muñoz](#)

4 (erkaketetan)

Hor dago itasoa bezain infinitu, hondogabe eta larderiatsu, **uholde** bat bezain gupidagabe. [Jon Alonso](#)

Ondorengo gertaerak, **uholde** baten antzera, elkargainka etorri ziren. [Juan Kruz Igerabide](#)

Uholde baten antzera amildu zitzaizkion gainera galderak, mehatxuak, errietak, kargu-hartzeak, gaitzespenak eta irainak. [Jose Morales](#)

Jendetzak aurrera egiten zuten, menditik ibarrera jaisten den **uholde** baten gisan. [Fernando Rey](#)

Ibai berde hura galtzadaren meharguneetan aurrera isurtzen ari zela zirudien, udazkeneko euri jasek eragindako **uholde** baten pare. [Karlos Zabala](#)

Bainan, **uhalde** baten pare, jendea biltzen da kontrako manifestaldietan eta hori mundu guzian, Frantzia, Alemanian, hots Europa guzian Estatu Batuak barne. [Herria](#)

Uholde bortitz baten antzera, nire atxilotakaren oroitzenak oldartu zitzaizkidan, irudi segida izugarri batean. [Alberto Ladron Arana](#)

5 irud/hed

Zeu ere korronte ugarian, antzinako jakiturian partaide, hitz zahar berrituen **uholdean** igeri. [Iñaki Iñurrieta](#)

Justinianoren erreinuaren ondoren Ionbardiak, eslaviar eta arabiar inbasioen **uholdea** etorri zen laster. [Iñaki Mendiguren](#)

Berri txar horiek guztiek ez zuten bizkitartean agortzen Ameriketara zihoazen joaileen **uholdea**. [Piarres Xarriton](#)

Txinako ekonomia gehiagi ez berotzeko neurriak «nahasgarriak badira» merkatuek «produktu oso-oso merkeen **uholdea**» nozi dezakete». [Berria - Ekonomia](#)

Garai hartarako Egipto, Jordania, Libano, Siria eta Irak britainiar eta frantziar inperialismoaren **uholdepetik** gainera irtenak ziren guztiak. [Iñaki Mendiguren](#)

Etorri handikoak ziren biak, baina askotan gainezka egiten zuten haien jarioaren **uholdeari** aurkitu zion Lizarriturik neurriko hesia. [Pako Aristi](#)

Hau iritzien **uholdeak** hautsitako horma da. [Juan Martin Elexpuru](#)

Ez zuen barrerik egin nahi, baina ezin izan zion eutsi barrutik zetorkion **uholdeari**, barrezko txalo zaparradari. [Unai Iturriaga](#)

Formen eta koloreen **uholde** bat zen, eta formak beren bidetik ateratzen ziren, koloreak beren ubidetik. [Joan Mari Irigoien](#)

Lehen Filosofia edo oinarrizko filosofia berri bat ezarri nahi izan du, dena gainezkatua zuen erlatibismoaren **uholdeari** aurre egiteko. [Joxe Azurmendi](#)

6 (irud/hed, izenondo eta izenlagunekin)

Sammath Naurek lurrin eta kezko txurruta bota zuen, konoaren albo arakalatu eta, **uholde** geldo eta gorgarria osatuz, goitikin eskerga eta gorria amildu zen mendiaren mendebaldeko aldapan behera. [Agustin Otsoa](#)

Zibilizazio Indioak *tour de force* hau lortu zuen ia seiheun urte igaro eta gero, eta Siriakoak ia mila urte geroago, **uholde** helenikoaren azpian murgilduta egon ondoren. [Iñaki Mendiguren](#)

Matxinada zeloteak oreaktu egin zituen Erroman, ondorengo inperio-aroan, helenismora konbertituriko liberto siriakoen **uholde** herodetarrak. [Iñaki Mendiguren](#)

Uholde latinotik hizkuntza salbatzerik jada ez daukagunez gero, salba dezagun arraza eta arrazaren izpiritua. [Joxe Azurmendi](#)

Lasaitasunezko **uholde** batek hartu ninduen. [Xabier Olarra](#)

Onginahizko **uholde** batek, bai **Xabier Mendiguren** Elizegi

Erauntsi informatiboa eta **uholde** ekonomikoa. **Berria** - **Kirola**

Uholde berriaren manifestuaren idazle. **Berria** - **Kultura**

7 (irud/hed, hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jendearen begiek eztanda egin zuten, emozioari ezin eutsirik, eta **uholde** gezi bero bat sortu zuen. **Karlos Linazasoro**

8 (irud/hed, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Handik laster odol **uholde** basatiak bete zuen Harrondo. **Itxaro Borda**

Arrakala eta putzu sakonetatik ke eta lurrin **uholdeak** sortzen ziren. **Agustin Otsoa**

Liburuaren hari nagusiak El Besos auzoak pairatu giza-**uholdeen** inguruan daude bilbatuak, hona zerrenda. **Berria** - **Kultura**

Behin ere agortzen ez den jende-**uholde** bat da. **Fernando Rey**

Euririk ez, baina bai jende **uholdea** : 120.000 antolatzaileen arabera. **Berria** - **Euskal Herria**

Etorkin **uholdeen** adibide batzuk: Ermuan, 60-64 urte bitartean dituztenen %83,2 etorkinak dira; [...]. **Berria** - **Harian**

Ararat sumindua zegoen gizonen krudelkeria eta gaiztakeria zirela kausa eta arroka-**uholde** bat jaurtiki zuen herrixketara. **Fernando Rey**

Belaunikatu nintzen mendiarri zerion sugar-**uholde** izugarriaren, mugagabearen gainean. **Fernando Rey**

Urrezko eta zilarrezko txanpon **uholde** bat ohearen gainera mantso-mantso erortzen utzi zuen. **Karlos Zabala**

Mireiak sarritan aurpegiatzen baitziren ez zela oso naturala neurrigabe erabiltzen zuen makillaje **uholdea**. **Fernando Morillo**

Aita eternoaren edo Ovidioren Ibai baten itxura ematen zioten zilarrezko bizar eta ile **uholde** hartan itorik. **Josu Zabaleta**

Hitz-jasa batek harrapatu ninduen, istorio, izkirimiri eta gai zentzuzko nahiz zentzugabeen gaineko hitz-**uholde** zinezko batek. **Oskar Arana**

Luma airean duzula minutu batzuek ameskeriatan geratzen zarenean burmuinak laztantzen dizkizun irudi prozesio horren, ideia **uholde** horren erdian. **Josu Zabaleta**

Maitasun **uholde** goxo eta eder batek bilduak sentitu ziren. **Fernando Rey**

9 (irud/hed, hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Hautesleek kexu dei **uholdea** jaso ondoren, Browardeko hauteskunde batzordeak iragarri du berriz bidaliko dituela boto paperak postaz. **Berria** - **Mundua**

10 Uholde Handia.

Noe **uholderako** prestatzen. **Jose Antonio Mujika**

Gehientsuenak zuhaitz hostodunak ziren, alkaziak eta beste hainbat ezezagun, zuhamuskak batik bat, baita **uholdea** baino aspaldiago iratzeak ere, dena sufre-hori koloreko txoriz bor-bor. **Joxe Austin Arrieta**

Uholdearen ondoren, etxe hura tenplu bilakatu zuen Zeusek. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Talka horri euri-jasa indartsua eta ugaria darraio, eter osoa euri bihurtzera eta, dena gainbehera, **uholdea** berritzera bailihoan. **Xabier Amuriza**

Jende gutxi salbatu zen orduan **uholde**etik : Filemon eta Bauzis Frigian eta Deukalion eta Pirra Grezian, kutxa handi batean sartuta azkeneko bi hauek. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Horregatik, orduko mundua, **uholdeko** urek estalirik galdu zen. **Elizen arteko biblia**

11 uholdezko izlag

Eurijasa zen, erauntsi lodi **uholdezkoa**. **Josu Zabaleta**

12 uholde handi (eskuarki Uholde Handi) Bibliak eta antzinateko beste zenbait iturrik kontatzen duten uhalde erraldoia.

Herri askoren oroimen kolektiboan gordetako tradizio zaharrak jasotzen dira testu horietan: Edengo baratzena, esate baterako, munduaren sorreran kokatua; edo **Uholde handiarena**, urrun-urruneko antzinatean gertatua. **Jose Antonio Mujika**

Noek izaki guztiak bildu zituen Kutxak **Uholde Handiko** ura atzeratu zenean bide zuen itxura berbera zuen lorategi hark. **Josu Zabaleta**

Han goian, bost mila metrotik gora, hasi omen zen munduaren birpopulatzea **Uholde Handiaren** ostean. **Jon Arretxe**

Zeusek pentsatu zuen, ikusita zein zen gizakion malezia eta maltzurkeria, Lurra urez estali eta lurreko guztiak itotzea, baina **Uholde Handi** hura bidali aurretik jakin nahi izan zuen ea bazen lurraren gainean bizirik irautea merezi zuen inor. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Uholde Handian Filemon eta Bauzis bakarrik salbatu ziren Frigia osoan, mendi maldako etxe zaharra ez baitzuen urak estali. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Horiek **uholde handia** baino lehenagoko kontuak dira! **Jon Muñoz**

13 uholde nagusi (orobat Uholde Nagusi) Uholde Handia.

Berrogeia zenbaki magikoa baita, are gehiago berrogei egun eta berrogei gaueko berrogei hori: hor dira Noeren garaiko **Uholde Nagusiko** berrogei egun eta berrogei gaueko euriteak, eta Jesu Kristok basamortuan berrogei gau eta berrogei egunez egindako baraua. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Eta gero, haien ondoan, aspaldiko gertakari harrigarri batzuk ere gogorarazten dizkigu: **uholde nagusia**, Babelgo dorrea... **Jose Antonio Mujika**

Norbait, nork daki noiz, nork daki nondik etorririk, menturaz **uholde nagusia** baino lehenagoko den garai urrun batean. **Juan Garzia**

14 uholde unibertsal Uholde Handia.

-**Uholde unibertsala** ... -atera zait barrexka artean. **Patxi Zubizarreta**

Uholde unibertsalaren ondorioz gauzaturiko uraren maila ez da bere onera itzuli, lurraren bi herenak urez beteta daude oraindik. **Joseba Sarrionandia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eragindako uholde (4); eraso uholde (4); etorkin uholde bat (3); hitz uholde (3); jende uholde (6); uholde arriskua (3); uholde baten antzera (8); uholde euriak (3); uholde gehiago (3); uholde handi (5); uholde handia (8); uholde handiaren (3); uholde ikusgarriak (3); uholde izugarriak (4); uholde larriak (3); uholde latzak (7); uholde makur (3); uholde makurrak (8); uholde unibertsala (3)

jende uholdea (9); uholdea bezala (3); uholdea eragin (3); uholdea gertatu (3); uholdea hasi (3); uholdea izan (5); uholdea izan zen (3)

egundoko uholdeak (3); eraman zituen uholdeak (4); iraun zuen uholdeak (4); jende uholdeak (3); uholdeak berriro (3); uholdeak bezala (3); uholdeak direla eta (5); uholdeak eragin (4); uholdeak europan (4); uholdeak gertatu (6); uholdeak gertatu zirenetik (3); uholdeak izan (12); uholdeak izan ziren (3); uholdeak nafarroan (5); uholdeak saihesteko (3)

uholdearen ondoren (4)

jende uholdeari (3); uholdeari aurre egiteko (6); uholdeari buru egiteko (4)

uholdeei aurre egiteko (5)

eragindako uholdeek (5); izandako uholdeek (5); uholdeek eragin (3); uholdeek eragindako (14); uholdeek eragindako kalteak (5); uholdeek eta luiziek (3); uholdeek kaltetutako (3); uholdeek suntsitzen (3)

erriberako uholdeen (3); uholdeen eraginez (4); uholdeen ondoren (3); uholdeen ondorioz (29); uholdeen ostean (3)

vargaseko uholdeetan (3)

uholdeetatik bizirik atera (4)

uhalde baten pare (3)

uholdeka *adlag* oso kopuru handietan, uholdeen gisa.

Biharamunean euria egin zuen, bat-batean, ordu-laurden batez bakarrik, **uholdeka**, eta gero eguzkia berriz. **Joxe Austin Arrieta**

Nola ur arreek **uholdeka** zubi begiak itsutzen dituzten, hala haien begiak ere geroa ikusteko itsu, ihesaldian saiatu ziren. **Felipe Juaristi**

Ai nire aginduei jaramon egin izan bazenie! Ibaika izango zenuke zoriona, **uholdeka** salbamena. **Elizen arteko biblia**

Euri beltza **uholdeka** erori zen, zartada amorratuen zarataz. **Agustin Otsoa**

Uholdeka lehertuko zaizu negarra. **Patxi Zubizarreta**

Jendea **uholdeka** hasi zen hango kostaldera hurbiltzen. Pello Salaburu
Kontura gaitezen urte horietan sartu zirela andreak **uholdeka** unibertsitatean, eta urte horietan sartu zirela lan munduan ere. Pello Salaburu
Manifestalariak **uholdeka** zeharkatzen zuten plaza. Josu Zabaleta
Aitzinetik jakina zen, alta, larrepoteak **uholdeka** zetorrela, eta Afrika mendebalde guziaz izurrite baten bezperan zagola! Herria
Loraldi handia izan zuen orduan Varanasik eta urre-zilarrak **uholdeka** etorri zitzaizkion. Gotzon Garate
Bihotza bete du, oroitzapenak **uholdeka** datozkio. Patxi Zubizarreta
Ondamua nabaritu nuen, bai, nire baitan **uholdeka**. Hasier Etxeberria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
jendea uholdeka (5)

uholdetiar *izond* uholdezkoa.

2000. urtean, urriak 24 eta 25 zituenean, eurijasa **uholdetiarrak** Mediterraneo aldean: 5 hildako, 3 desagertu eta zenbatu ezinako galerak. Pello Zabala

uholdetsu *izond* uholdezkoa.

Hotzaldi elurtetsu baten ostean, hegoaldi epel bare batek elurraren urtzaldi **uholdetsua** ekarri zuen. Pello Zabala

uholdetu, uholde(tu), uholdetzen da *ad adkor* uholdeen moduan gertatu.

Haurra kanpora aurtikitzen ari zen emaztearen sabeletik **uholdetu** odolarekin zeruko ura nahaspulotzen zela oharitu zen Graxi. Itxaro Borda

uholdetzar *iz adkor* uholde erraldoia.

1617an, Valentzia aldeko **uholdetzar** batek ibai bazterrak zaintzeko zeuzkaten ohol eta trunkozko euskarriak ia denak, ipurditik hartu, eta eraman zituen ibaiak. Pello Zabala

uhu *iz* ulua. ik **uju**¹; **uhuka**. (adizlagun gisa)

Uhu eta **uhu** hasi zen eta, oharterako, jaiki ezin zela bere ohatzean ezarrita zegoen. Pablo Sastre

uhuka *iz ipar* ulua.

Memento berean huntzaren **uhukaren** perlak firrindatzen dira gauaren sabeletik. Michel Oronoz

Iduritu zaut huntzaren **uhukak** bazuela ez usaiaiko doinu bat deitu nuelarik. Michel Oronoz

uhukatu *izond* oihuka kontra egin.

Haiekek daude orain modan, eta hain **uhukatu** eta gaitzetsiak, aldiz, antzoki arruntak -hala deitzen diete-, ezen hainbat ezpatadun bapo, antzar-lumen beldur, doi-doi ausartzen baita bertaratzera. Juan Garzia

uhulgu *iz* ulua.

Ehiza zakur batek, belarrian min hartuta, bere **uhulgu** hitsa erantsi nahi izan du hor nonbait. Txillardegí

uhulu 1 *iz ipar* ulua, uhuria.

Ilunpea **uhulu** sufritu batek inarrosi zuen eta oroitu nintzen. Itxaro Borda

2 (hitz elkartuetan)

Meza-bide lohitsuan zehar etxeratzen ginen ilunpean, gaurkoan nola, hala den mendreneko kahaka **uhuluak** edo baten aztalak lehertzen zuen abar idorraren kraskakoak lotsa gorritz itotzen gintuela. Itxaro Borda

uhuri (*orobat uhuria eta uhuru g.er.*) 1 *iz* hontzak, txakurrak eta bestek egiten duten oihu luzea; oihu tristea. **ikulu**; **urubi**.

Ilunpe hartan nahikoa izaten zen katu baten marrua, ontz baten **uhuria** entzutea, koskorrok halako zer beldurgarrien bat bazebilela pentsatzeko. Pako Aristi

Hontzak behin **uhuri** egin eta handik lasterrera beste **uhuri** bat adituko dela jakiten den modu berean. Edorta Jimenez

Piztia baten **uhuria** baino areago giza-aiene bat zelako hura. Koldo Biguri

Euriaren atabal kolpeak aditzen ziren leihoetan, ardien marrakak, antzaren karranka, pulinda baten **uhuru** hantua, haurren hatsartze urria, koilareen asotsa kikeren hegietan. Itxaro Borda

Txilioka, zera harengandik ihes egiten ahalegindu zen, eta lurrera jausi zen; hurrengo, goitik behera miatzatu zuen, gero eta **uhuri** ozenagoak eginez. Mirentxu Larrañaga

Hots haiek ez ziren **uhuriak**. Edorta Jimenez

2 (hitz elkartuetan)

Hil-hurran lebilkeen otso **uhuruz** aritzea ez zen hargatik Edmearen trakako emazte baten egin-moldea, bost haurrak munduratu zituenean ez baitzuen intziri edo minduri bakar bat ere ozenarazi. Itxaro Borda

Zuzendaria ikusten nuen, nire mantala erauzi eta irri **uhuri** handiak eginez, nire bi bularren orde sei titiburuekin topo egin ondoan. Joxan Elozegi

Mendebaldeko Kapitainak zaldi gainera igo ziren berriro, atzera egin zuten, eta Mordorko armadatik iseka **uhuriak** sortu ziren. Agustin Otsoa

3 *uhuri* egin

Ez kanpaiagatik beragatik, baizik eta harekin batera zaunka eta **uhuri eginen** zuten txakurrengatik. Bernardo Atxaga

Kanpoan, **uhuri eginen** dute zakurrek, otsoak balira bezala. Xabier Montoia

uhurika *adlag* uhuri eginez.

Eta, behin, hontz bat ere aditu nuen **uhurika**, gure leihoaren kanpoaldean doi-doi. **Mirentxu Larrañaga**

Berehala nabaritu genuen zakurrak geldirik zeudela, **uhurika**. **Juan Kruz Igerabide**

Sinesmen hori zen lehenago, batez ere zakurra gauz **uhurika** hasten zenean. **Gotzon Garate**

Uhurika urrutiratu nintzen handik, hanka zainetan makilazoa hartutako zakurra bezala. **Bernardo Atxaga**

Beldurrez **uhurika** ari den giza-samalda hari indarka ekiten diote zaldiek, irrintzi ikaragarriak botaz. **Jon Muñoz**

Karmen nire gainean zangalatrau jarrita, gora eta behera, eta ni **uhurika** ari nintzaiola, sentitu nuen ate-hotsa aurrena, txirrinarena gero, ahots batena hurrena. **Inazio Mujika Iraola**

Indioiloa **uhurika**, zilipurdika joan zen teilatu-isurkian beheiti, hegatzean ezin gelditu eta erori egin zen goitik behera lurreraino. **Gotzon Garate**

uhuru ik uhuri.

ui 1 *interj* harridura edo kezka adierazteko erabiltzen den hitza.

Ui, barkatu, barkatu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ui, barka! **Aitor Arana**

Ui, esan zuen; zein izango da? **Pablo Sastre**

-**Ui**, ume hori hoztu egingo zaizu! -batek, hankak agerian dituela ikusi duelako. **Arantxa Iturbe**

2 ui ui (ui) (*orobat uiuiui*) uzkuratasuna edo adi egotea adierazteko erabiltzen den hitza.

-**Ui**, **ui**! -esan zuen mutilak. **Mirentxu Larrañaga**

Ui ui ui... zenbat zintzo jator eredugarri ustekok ez ote luke galdurik ikusiko bere burua! **Patziku Perurena**

Baina larunbatean lehen partida jokatu zutenean (1-2, **uiuiui**) ez zen Greziarentzat aurkaririk izan. **Berria - Kirola**

-**Ui**, **ui**, **ui** -Kepa adar-jole-. **Xabier Mendiguren Elizegi**

· **Ui ui ui ui**, zer izanen da hau? **Herria**

Uiuiui, hura bai, erabat ahaztuta nuela. **Daniel Landart**

· "**Uiuiuiuiui**" egin dute denek Amaiak, esku dardartiz, poxpolo-hondarra lñakiri pasatu dionean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

uigur *izond/iz* Txinaren mende dagoen herri altaiko bati dagokiona; herri horretako kidea.

Fikret Baskaya irakasle kurdua, Anna Politkovskaya kazetari erusiarra, Juan de la Mata peruarra eta Tohti Tunyaz irakasle **uigurra**. **Berria - Euskal Herria**

Abdul Gappher: **Uigurra** (Txina). **Berria - Mundua**

uii *interj* ui.

Oheto somier herdoilduaren kurrinkak: "ñiiik! ñiiik! ñiiik!"; gure printzesaren gozamenezko hasperen etsiak: "**uiii**! **uiii**! **uiii**!". **Jon Arretxe**

uitziar *izon/iz* Uitzikoa, Uitzi dagokiona; Uitziko biztanlea.

Txonkok ere, aurreko **uitziar** askok bezala, Orixo gaitzetsi beharra zeukan. **Patziku Perurena**

uiuiui ik ui.

uju¹ *iz* barre ozena.

Bertsolarien kantuak eta gaztediaren **uju** eta algarek animazio eta izaera berezia ematen diote paisaia horri. **Berria - Kultura**

· Aneren kolega arlekin bilakatu zen, **uju** eta salto lokalean hara eta hona. **Unai Iturriaga**

uju²

1 *uju* *egin* oihu egin.

Autora sartzear zela Robertok **uju** egin zion. **Harkaitz Cano**

ujujulari *izond* ulu-egilea.

Baina, abisua emana zuen haietako batek, gune jakin batean ibili ohi den hontz **ujujulari** batek. **Pello Zabala**

ujuka *adlag* oihuka.

Gazte aldra asko joan ohi dira bidean soinu jotzen, dultzaina, pandero, atabal, hauspo soinu eta honakoekaz, ikotika eta **ujuka** zoro-zororik. **Koldo Izagirre**

No hay derecho esan eta mundu guztiari bizkar emanez irten zen **ujuka** eta ufaka atetik. **Hasier Etxeberria**

ukabil (*orobat ukamilo g.er. eta ukomilo g.er.*) 1 *iz* esku itxia.

Bere **ukabil** bat Jimmyren ahora iritsi zen; odolaren gatz-zaporea ebakitako ezpainetik. **Lopez de Arana**

Dopazok ezpainak pintzatu zituen atzamarrekin, Aldazek **ukabil** biak erakutsi zituen. **Koldo Izagirre**

Motorra itzaltzearekin, **ukabil** batek bezala zafratu ninduen inguruko isiltasunak. **Aingeru Epaltza**

Eztanda bat, begiak erretzen zituen argialdi bat, mila eguzkiren indarrak zeruan gora altzatzen zen ke-mordo erraldoi bat, burdinazko **ukabil** baten antzekoa. **Alberto**

Ladron Arana

Lepoaren ingurura kate bat, **ukabil** baten neurriko domina zintziliku duen. **Oskar Arana**

Ahotsa beti gora, keinua beti prest, **ukabilak** saihetsetan, kai aurreko jende ahozikinaren katixima ahoan. **Karlos Zabala**

Igandeetan, **ukabilak** sakelari ibaiako uraren joanari beha gelditzen zenean, ehizarako grina zetorkion ostera. **Koldo Izagirre**

Harry **ukabilak** amorrut estututa zeuzkan, azazkalak sakon sartuta bere esku-ahurretan. **Iñaki Mendiguren**

Ukabilak estutzen zituela sentitu zuen, borrokarako prest. **Karlos Zabala**

Ukabilak ahoaren kontra estutu eta begiak ixten ditut. **Anjel Lertxundi**

Emakume ederrak besoa goratu zuen [...] **ukabila** itxi eta Marjolin konorte gabe utzi zuen, kolpe bakar bat bi begien artean emanda. **Karlos Zabala**

Bi **ukabilak** itxita zuzendu zaio, metraileta bat eramango balu bezala. **Jokin Muñoz**

Katafalkoaren parera iristean gizon eta emakume askok **ukabila** altxatzen zuten. **Bernardo Atxaga**

Jendea kalesa inguruan biltzen hasi zen, **ukabilak** jasorik batzuk, gorrotozko begiratuz gehienak. **Anjel Lertxundi**

"Biba Bakunin" esan zuen, **ukabila** jasota. **Inazio Mujika Iraola**

Denak kamerari begira, **ukabila** itxita eta besoa jasota. **Alberto Barandiaran**

Lasterkariak ikusten ziren [...] kopetan behera odola zeriotenak, **ukabila** gorarik eta aurpegia zapi gorri gorde indar errepresiboak mehatxatzen zituzten gazteak. **Itxaro Borda**

On Camillok **ukabilak** estutu eta muturreko bat jaurti zuen. **Koldo Biguri**

Ukabila desegin du, luzean libre utzi eskua sakelaren barruan. **Koldo Izagirre**

Ez du amaitu, **ukabilak** zabaldu ditu ezteki Eustakiok berriro, kako utzi ditu, leporako. **Koldo Izagirre**

Norbaitek zirika egiten badit, **ukabila** dantzan jarriko dut. **Koldo Biguri**

Joxanek **ukabila** sartu zion saihetsetan, gibeleraino. **Paddy Rekalde**

Berehala gelditu zen ezintasun amorrutuzko keinu bat eginda, ihesi zihoazen gurpilei **ukabila** erakutsiz. **Karlos Zabala**

Gizonak **ukabilak** mehatxatu zuen. **Patxi Zubizarreta**

Ate joka hasi zen bi **ukabilekin**. **Jose Morales**

Malfoy lau hankan zegoen, **ukabilak** lurra jo ta jo. **Iñaki Mendiguren**

Ukabilarekin esku ahurrari bi kolpe eman zizkion, isilune bat egin aurretik. **Lander Garro**

Iparra galdu barik, **ukabilaren** kolpea nora zuzendu behar dugun ahaztu barik. **Paddy Rekalde**

Urdailean eman dizute lehenengoa, aurpegiaren gero; **ukabilen** erasoja jasan ezinik, lurrera etorri zara berehala. **Rafa Egiguren**

2 (izenondoekin)

Biboteko bitsa kendu eta bere **ukabil** arrosaz kolpe bat jo zuen mahaian. **Lopez de Arana**

Dudleyk hoge libirako billete berri-berria zeukan bere **ukabil** potoloan estututa. **Iñaki Mendiguren**

Hanna bere **ukabil** txikiak nire aurka altxatzen, ez dut ezagutzen, ez dut neure burua defenditzen. **Joxe Austin Arrieta**

-Ez, ba! -erantzun zuen Pepponek, kapela atzerantz ipiniz eta **ukabil** erraldoiak aldaka gainetan josiz. **Koldo Biguri**

Nik ezin achantzi nuen osabaren **ukabil** jasoa, ezin achantzi haren mehatxua. **Joan Mari Irigoien**

Ukabil bilduari eragin zion, hatz lodia tente behe aldera, zirko erromatarretik gurera zabaldutako heriotza-keinu ezaguneari. **Aingeru Epaltza**

Ukabil estutuak lege egiten dute Cienfuegosen begiek mehatxu. **Koldo Izagirre**

Koronelak, bularra astintzen zion dardara **ukabil** estutuez geldiarazi, eta berriro esan zuen: [...]. **Jose Morales**

Aitak ama jotzen zuen, **ukabil** biribil eta gogorrekin. **Juan Kruz Igerabide**

Kirxa, laguna minaren minez eta emaztearen **ukabil** indartsutik askatu ezinik ikustean, kolerak dardaran zegoen. **Patxi Zubizarreta**

Merkatuaren esku ikusezinak ez du inoiz funtzionatuko **ukabil** ikusez baten laguntzarik gabe. **Txema Ramirez de la Piscina**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lasterka doa harat eta hunat, eta rusoko atzemaiten ditu lastaira batzuen pean gordeak: **ukabil** ukaldi eta ostiko, jujamendu eta gaztigu, batzuk besteen ondotik. **Marzel Etxehandi**

Aldian behin **ukabil** kolpe batzuk ematen nizkion bizkarrean zaltzainari. **Matías Múgica**

Txilin baten hots purrustatuak sparring-arengana hurbildu eta haren inguruan estreinako **ukabil** -zitzadak saiatzen hasteko unea adierazi zuen. **Josu Landa**

Irakasle batzuen karikaturren egitea, neskekiko erlazioen zurrumurrak, **ukabil** borroka ikastetxeko patioan. **Joseba Sarrionandia**

Hemengo antzoki batean frantziar batek eta errusiar batek egiten dabe **ukabil** -jokoa. **Pablo Sastre**

Ukabil -joko handia, bertoko sekzioko Mirko Bagotti alderdikide eta pisu-maila handienekoaren eta Probinziako Federazioko Anteo Gorlini alderdikide eta pisu-maila handienekoaren artekoa. **Koldo Biguri**

Benetako **ukabil** -festa bihurtu zen hura. **Oskar Arana**

Begiak itxita, Stanek salto egin zuen **ukabil** -sare baten barnean. **Lopez de Arana**

Zaindarek dantzarien aurka jo zuten, haien besarkada beroak **ukabil** -zartaz hostuz. **Felipe Juaristi**

3a (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarren osagaia adizlaguna dela)

Izterrari **ukabil** ukaldika hasi zitzaion eta, ahots lakar zakarrez, listu jario, kexuka hasi zen. **Patxi Zubizarreta**

Behin baino gehiagotan **ukabil** kaskaka lotu zitzaion nardatu zuen norbaiti. **Elena Touyarou**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Susok -orduana nagusi berriak- gustuko zuen berba erabiltzearen: "kaleko abokatu lana", alegia, bizkartzaina, matoia... legez kanpoko arazoetarako morroi **ukabil** gogorren jabea. **Paddy Rekalde**

Gu ez gara euren oinetaraino ere ailegatzen, gu, ahozabalok, **ukabil** bigunok... **Berria - Kultura**

5 eskua(k) ukabil egin, bihurtu

Gero higitu egiten zuen, eskua **ukabil** eginda aho aurrean mugitzen zuen erritmo berean. **Jon Alonso**

-Hire aita ezertan baduk, emaiok! -bereari utsi zion, eskua **ukabil** eginik. **Joan Mari Irigoien**

Jendeak zioen eskuak **ukabil** eginda zin egin zuela ohorea eta duintasuna kendu zizkion aita anker hura akabatuko zuela. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Eskuak **ukabil** bihurtzen zituela eta gora so egiten, halaxe bukatu ohi zuen bere kontakizuna:- [...]. **Joan Mari Irigoien**

6 ukabil itxi

Aingira bihurtu egiten zen, **ukabil itxiaren** bi aldeetan. **Karlos Zabala**

Ukabilak, **ukabil itxi** eta mehatxukorrak airean ikusten ziren. **Jon Alonso**

Ramirok kolpe leun eta maitekor bat eman zidan **ukabil itxiaz**. **Jon Muñoz**

Aberatsen etxeen kontra **ukabil itxia** jasorik, oihu egiten zieten: [...]. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskua ukabil eginik (3); eskuak ukabil (5); ukabil baten (3); ukabil biekin (3)

ezkerreko ukabila (4); ukabila adinako (3); ukabila airean (5); ukabila altxatu (8); ukabila altxatu zuen (3); ukabila altxatuta (4); ukabila altxatu (8); ukabila erakutsi (7); ukabila estutu (8); ukabila goian (5); ukabila gora (6); ukabila itxi (8); ukabila itxita (4); ukabila jaso (9); ukabila jaso zuen (5); ukabila jasota (5)

bi ukabilak (4); ukabilak estu (3); ukabilak estutu (29); ukabilak estutu zituen (13); ukabilak estuturik (4); ukabilak estututa (3); ukabilak estutuz (9); ukabilak gerrian (6); ukabilak hertsirik (4); ukabilak itxita (8); ukabilak jaso (3); ukabilak jasorik (3); ukabilak pronto (3); ukabilak zabaldu (5)

ukabilaren indar (3)

mahaia **ukabilaz** (3); **ukabilaz jo** (7); **ukabilaz jo zuen** (3)
ukabileko hatz (3)
bi ukabilez (7); **ukabilez jo** (7)

ukabildu, ukabil(du), ukabiltzen du *ad* eskuaz mintzatuz, itxi.

Nik koska egin nion beheko ezpainari, eskuak **ukabildu** nituen azkazalek mina eragiteraino. **Anjel Lertxundi**

Eskua **ukabildu** du pozak hunkituta. **Koldo Izagirre**

Lokietako zainak, guztiz irtenak, lehertu beharrean zeuzkan; eskuak, aldiz, **ukabilduak** eta atezuan. **Anjel Lertxundi**

Izan ere, nor zen gauza ezer egiteko tainako tragediaren zamapean, eztarria emozioak estututa, eskuak amorruz **ukabilduak** eta ireki ezinik? **Joseba Zulaika**

ukabilka 1 *adlag* ukabilaz joaz, ukabil ukaldika.

Patricia **ukabilka** ari zitzaion Arnoldi, lepokotik tiraka, ukondoez zartakoka. **Koro Navarro**

Lau udaltzainek harrapatua zuten eta jipoitzen ari ziren **ukabilka**. **Karlos Zabala**

Zurbil, amorru dardaraz, aurrean harrapatzen zuen guztia ostikoka eta **ukabilka** hankaz gora irauliz. **Josu Zabaleta**

Itzulipurdika ibili dira, jirabiran, elkarri **ukabilka** eta madarikazioka. **Mirentxu Larrañaga**

Nire borroro bihurtu zara, gogor erasotzen didazu **ukabilka**. **Elizen arteko biblia**

-Horiek astoak! -esaten zuen Izetak mahaia **ukabilka** joaz-. **Koro Navarro**

Ikusi nuen batek besteari hozka egiten ziola hankan, aurpegian **ukabilka** ibili ziren gero, trebezia eta gogor. **Koro Navarro**

Buruan **ukabilka** eta bizkarrean aulki-joka ibili zaizkio, zelatarri zerrri batek kontatu dielako keinu egiten geniola elkarri. **Koldo Biguri**

Jauzi egin zion lepora, eta, behin aspian hartu eta gero, haren gainean zangalatrau jarrita, **ukabilka** erabili zuen lurtean. **Inazio Mujika Iraola**

Jack, eromena begietan, gure arteko tartea laster batean zeharkatu eta **ukabilka** hasi zitzaidan, "Hi hintzen, orduan! **Iban Zaldúa**

Noizbait bitarteko lanetan hasi naizenean, aitak eta biok **ukabilka** amaitu dugu. **Patxi Zubizarreta**

Espaloietan batzuetan bidea **ukabilka** egin behar duzu. **Gotzon Garate**

Batzuek **ukabilka** hartzen gaituzte eta beste batzuek laztanez. **Harkaitz Cano**

• 2 iz ukabil ukaldia. ik ukabilkada.

Ukabilka bat eman zion sorbaldan. **Itxaro Borda**

Arizan dira salbaiak bezala; ukamilo ukaldia huni, muturrekoa bertzeari, errugbi guti, **ukabilka** asko. **Herria**

Ukabilka elkorra eman zion sabelean. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ukabilka hasi (6)

ukabilkada 1 iz ukabil ukaldia.

Zakar-zakar eseri zen, **ukabilkada** jo zuen mahaian, egunkaria baztertu zuen. **Karlos Zabala**

Ukabilkada bat jo nion, lokiaren aspian. **Monika Etxebarria**

Ukabilkada begian jo nion eta hark zitzu bizian ihes egin zuen. **Pello Lizarralde**

Ukabilkadak hutsean jotzen dituen borrokalaria bezala. **Elizen arteko biblia**

Gizon potoloak Lainezi sabelean **ukabilkada** jotzeko imintzua egin dio. **Pello Lizarralde**

Ondoren **ukabilkadak** jotzen hasi zen, horiek ere buruan. **Berria - Euskal Herria**

Begiz begi jarri zitzaidan, eta beldur izan nintzen ez ote zidan **ukabilkada** bat emango. **Bernardo Atxaga**

Kemenez eta amorruz hasten nintzen pisuak jasotzen, flexioak egiten, **ukabilkadak** ematen sabaitik zintzilika jarri nuen hareaz betetako zakuari. **Anjel Lertxundi**

Lurrera jaurti, **ukabilkadak** eta ostikoak eman eta lepotik heldu zion bi eskuekin. **Berria - Euskal Herria**

Ukabilkada bat eman nion buruan, isilik negar egiten ikas zezan. **Juan Kruz Igerabide**

Garunaren erdian **ukabilkada** bat eman izan balidate bezala gelditu nintzen. **Jon Muñoz**

Lehendabizi kolpe baxu bat eman diok eta minaren minez makurtu denean kokotsean eman diok **ukabilkada** bat! **Koldo Biguri**

Ohandok **ukabilkada** batekin erantzun zion, heldu zioten biek elkarri eta lurrera erori ziren. **Koro Navarro**

Ezin izan zuen hitz egiten jarraitu: Otto kankailuak urrats bat aurrera egin eta **ukabilkada** bat erantsi baitzion masailean, ezin sinetsizko indarrez. **Alberto Ladron Arana**

Bizpahiru **ukabilkada** trukatu zituen unibertsitateko greba batean parte hartzera bortxatu nahi zuten kide batzuekin. **Juan Garzia**

Emakumeak **ukabilkadak** eta ostikoak jaso zituela salatu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Ulertu zuen bakarra, sabelean bildu zuen **ukabilkada** izan zen. **Eneko Bidegain**

Ukabilkada batez akaba zezakeen txikitxo hura. **Karlos Zabala**

Charlyk gibelera zuzendutako **ukabilkada** baten hista eginez agurtu ninduen, boxeolari plantan. **Aingeru Epaltza**

Nire **ukabilkadak** airean desegiten dira faltsarioa ukitzera sekula iritsi gabe. **Jon Alonso**

Amorrazioz beterik **ukabilkada** batez ispilua txikitu, eta sekulako mina hartu zuen. **Xabier Olarra**

Kanpoko beroak **ukabilkada** batek bezala jo ninduen aurpegi-aurpegian. **Aingeru Epaltza**

Ukabilkadaren bortitzak zozoloturik utzi ninduen. **Alberto Ladron Arana**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

-Aizak, ni ez nauk inoren neska -Aiorak, **ukabilkada** txiki bat emanaz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bankuaren aurreko heldulekuan **ukabilkada** ozena emanda jaiki zen. **Alberto Barandiaren**

Aski, zuek biok! -Danik **ukabilkada** gogor bat ematen du mahaian, eta besotik tinkatzen ditu biak-. **Antton Olano**

Ukabilkada zakarren ondorioz aurpegia lurrean suertatu nintzelako. **Itxaro Borda**

Ukabilkada mingarri bat sentitu nuen urdailean. **Karlos Linazasoro**

Bere koleran, sekulako **ukabilkada** eman zidan bular gainean. **Daniel Landart**

Txokok **ukabilkada** zalua eman zion sabelean. **Itxaro Borda**

Begirada gaizto bat, ukondo bortitz bat, bandera talka bat, **ukabilkada** despistatu bat, oiuhu oker bat. **Karlos Linazasoro**

3 irud/hed

Ibex-35eko igoeren artean, Arcelorrek aurreko bi egunetako **ukabilkadei** erantzun zien (%3,5). **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

emandako ukabilkada (5); **ukabilkada bat** (59); **ukabilkada bat eman** (17); **ukabilkada bat emateagatik** (3); **ukabilkada bat jo** (14); **ukabilkada batez** (6); **ukabilkada eman**

ukabilkadaka *adlag* ukabilkadak joz.

Ostikoka eta **ukabilkadaka** atera zituzten handik. **Jokin Urain**
Ostikoka eta **ukabilkadaka** ibili gintuzten, gero eta gogorrago. **Juan Kruz Igerabide**
–To -eta Joxe **ukabilkadaka** eta muturrekoka hasten zen. **Koro Navarro**
Batzuek ospa egiteko esaka, besteek bero, hura **ukabilkadaka** amaitu behar zela sinetsita. **Urtzi Urrutikoetxea**
Juliok kontrola galdu zuen, eta **ukabilkadaka** hasi zitzaidan. **Juan Kruz Igerabide**

ukabilkari *iz adkor* boxeolaria.

Duela gutti, elgoibartar **ukabilkaria** lehen aldikotz igan da "ring" baten gainera, boxeo borrokaldi ofizial baten kondu, Derion, Marian Gonzalez zuela bisean bis. **Herria**
Ez dut Cravan izateko adorerik batu, eta **ukabilkarien** sport hau ez dut larregi ere maite, baina halaxe kontatu beharra nuen. **Iñigo Aranbarri**

ukabilkatu, ukabilka, ukabilkatzen 1 du *ad* ukabilez jo.

Hank-ek hil arte **ukabilkatuko** nindukeen baldin eta jakin izan balu zer egin ohi nion ametsetan. **Oskar Arana**
Panpili zen, Mikelen tripa **ukabilkatzen** zuela, geldirik gabe. **Itxaro Borda**
Kixak horma **ukabilkatu** eta, aterantz zuzendurik, esan zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**

2 irud/hed

"Biak izan litezke berdin-berdin etikoak eta ez-etikoak", esaten baduzu, "hori erlatibismoa da!" **ukabilkatzen** zaituzte gogor, eta K.O. utzi zaituztela, uste dute, horrekin. **Joxe Azurmendi**

ukabilkazo *iz adkor* ukabilkada.

Ukabilkazo zaparrada urdailean eta sabelean. **Agurtzane Juanena**

ukabilko *iz* ukabilkada.

Mutilak burua atzerantz bultzatu eta **ukabilkoa** eman zion kokotsean. **Karlos Zabala**
Zaplaztekorik ez, esan zuen, **ukabilkoa**, kokotsa ubel-ubela utzi ziona. **Karlos Zabala**

ukabiltxo *iz* ukabil txikia.

Umea lo zegoen, gomazko bere aurpegi txikia zimur-zimur eginda eta bere **ukabiltxo** arrosak izara-ertzaren kontra estututa. **Lopez de Arana**
Bihurritu, ostiko eman, **ukabiltxo** zorrotzak astindu eta hortzak karraskatzen zituzten. **Iñaki Mendiguren**
Semeak, aitaren zangoen artetik irristatuz, bere **ukabiltxoaz** neskatoari zenbait kolpe jota: "Tonta! Gaiztoa!" eraso zion. **Pablo Sastre**

ukaezin 1 *izond* ezin ukatuzkoa. ik ukatu 6.

Egia **ukaezin** batek erakutsiko dizu horren ezinbestekotasuna: mundu guztiak erabiltzen du. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Guztiz agerian gelditu zen zauri hauen egia **ukaezina**. **Askoren artean**
Judaren ebanjelioaren mezua egia **ukaezin** batean oinarritzen da: Judaren traizioa nahitaezkoa zuen Kristok bere zeregin jainkotiarra bete zezan. **Joseba Zulaika**
Baieztapen **ukaezin** batetik hasi behar du gogoetak: Ferrari autoa da azkarrena. **Berria - Kirola**
Aurreko eztabaidaren hasieran onartutako printzipio **ukaezin** hau ongi gogoan duzula ikusten dut. **Imanol Unzurrunzaga**
Arrazoibide **ukaezinez** argudiatu. **Juan Garzia**
Froga **ukaezinez** bermatu zuen denen aurrean salaketa; matxinoek heriotzara kondenatu zuten beren lehendakaria. **Juan Garzia**
Argazkiak dauzkate esandakoaren froga argi eta **ukaezin**. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Argi dirudi, beraz, hizkuntzaren ezaugarri formalen eta semantikoen artean badela lotura **ukaezina**, perfektoa ez den arren. **Itziar Laka**
Jainkoari zerbitzu egiteak ematen duen plazer **ukaezin** baina aldi berean beti berdina. **Aingeru Epaltza**
Haren infiltrazio isilpeko eta aitorgabea -baina **ukaezina** - erromatar izandako hainbat probintziaren arabiar konkistatzaileen zuzenbide islamikoan. **Iñaki Mendiguren**
Mendebaldeko Zibilizazioa zela bere espezieko ordezkari bakarra, desintegrazio-seinale **ukaezinik** ageri ez zuena. **Iñaki Mendiguren**
Arafat maitatu edo ez, sinbolo **ukaezintzat** daukate palestinarrak. **Berria - Mundua**
Frantziako Iraultzak gainerako nazioetako «ikusleengan» sorrarazi zuen «entusiasmoa» giza aurrerabidearen seinale **ukaezintzat** zeukan. **Berria - Kultura**
Justizia Sailak adierazi zuenez, Auzitegiko Medikuntzaren Euskal Erakundeak «independentziaz eta kualifikazio eta profesionaltasun **ukaezinez**» egiten du lan. **Berria - Euskal Herria**
Hura itxura soila izan zitekeen, baina hau, haien iritzi, zerbait erreala da modu **ukaezinean**. **Ibon Urbarri**
Fidelitasun **ukaezineko** jendea behar zuten beren ordezkarien artean. **Aingeru Epaltza**

2 (izan aditzarekin eta kidekoekin)

Ukaezina da: bertsolariak aurrez landuriko unitateak erabiltzen ditu bat-bateko jardunean. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Ukaezina da Literatura Unibertsala bildumaren balioa eta garrantzia. **Berria - Kultura**
Gaur egun, **ukaezina** da europar gizartea, oro har, inmigrazio urte luzeen eta etengabeko emigrazioen emaitza dela. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**
Eragin eta itzal hori **ukaezinak** dira literaturaren alorrean ere, lirikarenean nagusiki. **Anjel Lertxundi**
Begieta nonahi agerian du arima, **ukaezina** da, baina arima ez da aski. **Monika Etxebarria**
Ukaezina bada gizonok gure gurariak edozein emakumeri azaltzeko eskubidea jaso dugula naturatik, **ukaezina** da, halaber, emakumeak behartu ditzakegula gurari horiek betetzera. **Ukaezina** zen industri sistemak berari eragiteko energia psikiko sortzailearen erreserbaren bat zegoen bitartean bakarrik funtziona zezakeela. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Bizirik zegoelako beste froga bat zen hura, **ukaezina** guztiz: jan eta edan egiten zuen. **Juan Luis Zabala**
Haren arrazoiak **ukaezinak** iruditu zitzaizkidan. **Juan Garzia**
Ukaezina iruditzen zitzaizkidan Isaiak Berlinek ezartzen duen harremana umiliazioaren eta sentimendu nazionalistaren artean. **Bernardo Atxaga**

3 **ukaezinezko izlag** ukaezina.

Horrenbeste aurreratu duen mundu honek, **ukaezinezko** paradoxak erakusten dizkigu egunero. Pello Salaburu

Teheranek **ukaezinezko** eskubidetzat jotzen du programa nuklearra garatzea. Berria - Mundua

Euskara, katalana eta galiziera hizkuntza ofizial eta **«ukaezinezko** ondasun» gisa onartuak izan daitezzen neurriak bultzatzea galdegin zien. Berria - Euskal Herria

Ukaezinezko abantaila tekniko hori, baina, arazo ere bada askoren ustez. Berria - Gaiak

Sentimen erlijioso hori **ukaezinezkoa** zen Erdi Aroan. J.M. Olaizola "Txiliku"

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egia ukaezin (3)

izaera politikoa ukaezina (3); **ukaezina dela esan** (3)

ukaezintasun *iz* ukaezina denaren nolakotasuna.

Ukaezintasuna eskatu zuten, beraz! Jon Muñoz

ukagaitz *izond* nekez uka daitekeena, ia ukaezina.

Edozelan ere, onartu beharko, han nengoen, eta **ukagaitza** zen gertaera hori, uneoro eraberritzen zen, luzatzen zen eta aurrera egiten zuen etengabe. Urtzi

Urrutikoetxea

ukai ik **ukarai**.

ukaite *iz* izatea.

Bilkura hortan jakin dugu zoin zailak izatu ziren «Adinaren» lehen urratsak: baimenak **ukaite**, planak egite eta diru biltze (20 miliun hurbil, ez baitzen gutti). Herria

Hamabortz egunez beraz aita amaren ondoan egoiten ahalko da haren laguntzeko eta elgarrekin gozatzeko haur-**ukaite** egun berezi horiek ekartzen duten zoria.

Herria

ukaiztu, ukaiz, ukaizten du *ad* umekiez mintzatuz, galdu.

"Desagertu" diren 100 milioi emakume horietatik jaio eta gero zenbat hil duten, edo haurra alaba zela jakin eta jaio baino lehenago amaren sabeletik zenbat **ukaiztu** duten ez dakigu. Gotzon Garate

Batez ere haur emeak **ukaizten** dira. Gotzon Garate

ukakor *izond* ezkorra.

Jauriaritzak ez zuen espero Europako Batasuneko agintariek horren jarrera **«ukakorra»** hartuko zutenik Europako Konstituzioan euskara, galegoa eta katalanari aitortu beharreko mailaz Espainiako Gobernuak egindako proposamenaren aurrean. Berria - Euskal Herria

Horrentzat guztiarentzat Unamuno-ren prozesurik eta eboluziorik ez da egon, jarrera geroz eta **ukakorragora**, espainolaren eskusiboagora ez bada. Joxe Azurmendi

ukaldi 1 *iz* zerbaitek zerbaiz jotzea; jotze horren ondorioa. ik **kolpe**.

Ukaldi bat eman zuen mahai gainean. Koro Navarro

Egiazko amodioa eskainia zion gizonaren besoetan, haren **ukaldi** eta masailekoen bestaldean, amodioaren aztarnak bilatzen zituen. Patxi Zubizarreta

Bikotearen eguneroko bizimoldean **ukaldiak** eguneroko ogia ziren. Patxi Zubizarreta

Ene gelako sabaian hiru **ukaldi** entzuten ditut. Marzel Etxehandi

Ate aldetik, etxebizitzan **ukaldi** batzuek burrunbatu zuten. Patxi Zubizarreta

Ezaren itsasoko naufragoiak zer inporta zaio olatu idorren **ukaldietatik** salbatuko duena luxuzko yatea edo patera den? Aingeru Epaltza

Egunkarietako errotatiba zaharrak galerada inprimatu berria bertzeekin pilotzerakoan gisako asotsa ateratzen zuen, zapla!, **ukaldi** bakoitzean. Aingeru Epaltza

Egunez bere amaginarrebak jo egin ohi zuen, eta gauez bere senarrak ostikoz eta **ukaldiz** jipoitu. Gotzon Garate

Arbola batek **ukaldian** zilatu zuen etxeko pareta. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Mehatxu asko eta **ukaldi** gutti. Gotzon Garate

2 (izenondoekin)

Labana zorrotzu berriaz zilkoiz-hertzea **ukaldi** finko batez ebaki zuen. Itxaro Borda

Temati ematen zieten aurre bonbardaketei, baina bakarrik zeuden, eta **ukaldi** odoltsuak jasaten zituzten fronte guztietan. Juan Garzia

Igogailuan goitik behera amiltzea bezalaxe sentitu nuen balaztada [...] **ukaldi** itsu bat besterik ez zen izan lurrera-behar hura niretzat, ahozpeko tupust egite bat konorte-galerarantz. Joxe Austin Arrieta

Gaizo gizona oihuka minez, hain zuen **ukaldi** bortitza jasan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Israelgo armadak **ukaldi** terroristak egin ditu, berrogei ta hamar bat hil eginez. Herria

Bere eskua **ukaldi** hilgarria emateko gai izango ote zen? Patxi Zubizarreta

Ukaldi oso mingarria jaso nuen buruan. Joxan Elozegi

3 (hitz elkartuetan)

Ni sortu aurretik bizi izan zuten **ukaldi** andana haren aurrean zer proposa nezakeen nik, galduriko eleen bilaketari haztamuka baina setati lotzea baino? Joxan Elozegi

Buruan **ukaldi** andana bat eman ziotela salatu zuen. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bi ezpata **ukaldi** zituen gorputzean, eta arrunt ahuldua zekarten jadanik. Jon Muñoz

Lantza-**ukaldi** baten orbainak edertzen dio bularra. Aingeru Epaltza

Azote **ukaldi** azkar bat bisaierat igortzen da. Michel Oronoz

Kirxaren aurretik igaro zen, baina hura oraingoan ere konturatu ez, eta, mutilari hurreraturik, esku **ukaldi** batez altzora isuri zion tea. Patxi Zubizarreta

Jarri eta bere zakutik kolorezko haizemalle bat ateratzen zuen, idekitzen, bizpahiru hegala **ukaldiz** bisaia freskatzen. Michel Oronoz

Martxoaren 29an, kanoi **ukaldiek** iratzarrazten gituzte. Michel Oronoz

Duela zorbait egun, palestindar mortier **ukaldi** batek hil ditu bi judu gazte. Herria
Ximurraren bolante- **ukaldi** ospinduak autoaren bertze aldera igorri ninduen kasik. Aingeru Epaltza
Belaun- **ukaldi** gogor batez makila puskatzen den bezala. Jose Morales
Eskoteak goiti eta beheiti egiten zuen taupada, beso **ukaldi** bakoitzarekin. Aingeru Epaltza
Lehen begi **ukaldiak** jakinaren gainean jarri zuen. Jon Muñoz
Gustatzen zitzaion errain **ukaldi** batez zamaren bizkarreratzea eta trinkili-trankalaka selauru edo ganerrera hupatzea. Itxaro Borda
Emazteak buru **ukaldi** hotz batez ihardetsi zion nire diosalari. Aingeru Epaltza
Lepo **ukaldi** arin batez bihurtu nituen begiak, egunkariaren lehen orrialdeko titular beti bezain luzeetara. Aingeru Epaltza
Sugearen buru gainean zuen eskua askatu zuenean, kobrak hortz- **ukaldia** egin zion. Gotzon Garate

5 irud/hed

Egia da gure asmo guztiak deuseztea bururatu zaiola, alaba komentura berriz sarrarazteko xedea harturik: **ukaldi** hori gibelarazi dut ordea. Jon Muñoz
Ez zaitu lehen **ukaldian** ikusi eta zure presentzia konturatzen delarik bitxiki begiratzen zaitu. Ramuntxo Etxeberri
Errugbian, hala ere 3000 beharinen aitzinean Baionesez ez dute **ukaldia** atxiki, Perigueux-koek gaina hartu diete 15/22 ko emaitzarekin. Herria
Zernahi txarkeria, etsimendu eta **ukaldi** txar ikusten da (ohointza, indarketa, bere buruaren hiltze, jazarketa, manifestaldi eta beste). Iñaki Segurola
Bere grina makurren **ukaldi** borritzak besterik ez zuen loeriatik erauzten. Patxi Zubizarreta
Sumatuko duzu zenbatez ere nahi dudan erantzun diezadazun, eta zure isiltasuna zein **ukaldi** latza litzatekeen niretzat. Jon Muñoz
Nire postuan iraunez, **ukaldi** ederra jo nion nik. Joxan Elosegi
Baldin **ukaldi** handiren bat jotzekoa bazara, baldin entseiatu behar bazara aurkari lanjeros hori beldurgarria gerta dakizukeen zereginen bat egitera, ekin. Jon Muñoz
Ukaldi erabakigarria jo nahirik, malakoak deitu nituen neure sokorrian. Jon Muñoz

6 (irud/hed, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alkohol- **ukaldi** horrek baretuko zuela gogoratu zitzaidan. Aingeru Epaltza
Hausturazko gutunak argi **ukaldi** baten gisarakoak izan ziren maitale gaitzetsientzat. Jon Muñoz
Gogoko izan nuen haren mazelak odol- **ukaldiak** jota ikustea. Aingeru Epaltza
Imajina ezak bi zirtzil horien bihotz- **ukaldia**, harrapakina Ripodasen elektrotresna-salgira ekarri eta kanpaina-denda hedatzean! Aingeru Epaltza
Zituen kezkek ezagutuz, ez nuen gehiago baizik estimatu haren telefono **ukaldia**. Daniel Landart
Jakin-mina piztuta garbi- **ukaldia** toki guztietara hedatua ote zen, korridore estuan barna menturatu nintzen, Ttipiren bulegoraino. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azote ukaldi (4); **aztapar ukaldi** (6); **begi ukaldi** (12); **begi ukaldi bat** (6); **buru ukaldi** (11); **buru ukaldi batez** (6); **esku ukaldi** (18); **esku ukaldi bat** (4); **esku ukaldi frango** (4); **ezpata ukaldi** (6); **ganibet ukaldi** (3); **makil ukaldi** (6); **telefono ukaldi** (3)
ukaldi bat eman (4); **ukaldi bat emanez** (3); **ukaldi frango** (4); **ukaldi txar** (13); **ukaldi txarrak** (5); **ukaldi txikiak** (4)
azken ukaldia (3); **lema ukaldia** (3); **ukaldia atxikitzen** (3)
lehen ukaldian (5)

ukaldika 1 *adlag* ukaldiak joz.

Hobe likek haritz makila bat hartu, eta, emazteak amore eman arte, **ukaldika** birrinduko balu. Patxi Zubizarreta
Haiengandik jakin genuen erromazaleen desmasien berri: etxeetan indarrez sartze, ebase, su emate, **ukaldika** erabiltze, emakume bortxatze, aihotzez kolpatze... Aingeru Epaltza
Ni nor naizen, ni zer naizen, ni zenbateraino naizen esan ahal izan gabe oldartu zait bularrean **ukaldika**. Koldo Izagirre
Guregandik metro gutira, ostatu barnera sartu nahian zebilena abarroka eta **ukaldika** lotu zitzaion ate itxiari. Aingeru Epaltza
Itsuski lotu zitzaion, **ukaldika**, ateari. Aingeru Epaltza

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Harkiek makila **ukaldika** kalituriko FLNko errebeldeak. Itxaro Borda
Bagoietatik salbaiki jauntsarazi zituzten, besotik harturik lurrera botaz, azote eta makil **ukaldika** aitzinaraziz, ihizi arriskutsuak balira bezala. Eneko Bidegain
Bi gizon gazte brau jautsi dira auto batetarik eta borra **ukaldika** plantatu joaieria baten berinak hautsi behar zituztela. Herria
Zartailu **ukaldika** erabili ninduten gero. Joxan Elosegi
Txoriaren gorpuari moko **ukaldika** ekin zioten. Patxi Zubizarreta
Aizkora **ukaldika** hautsi zuten atea. Xipri Arbelbide
Peon andana bat ari izan da hemen, jo ta jo, jo ta jo, mailu, aitzur, pikotz eta pala **ukaldika**. Michel Oronoz
Han bederen adiskideak eta auzoak bazituen, behar orduetan esku **ukaldi** baten emateko. Elena Touyarou
Guretarik lau ikusten ditut hilak edo beren lagunek edo zaintzaleak arma gider **ukaldika** hilak. Michel Oronoz
Izterrari ukabil **ukaldika** hasi zitzaion eta, ahots lakar zakarrez, listu jario, kexuka hasi zen: [...]. Patxi Zubizarreta
Emakumeak, orduan, aireari esku **ukaldika**: [...]. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azote ukaldika (3); **ezpata ukaldika** (3); **ganibet ukaldika** (4); **gider ukaldika** (3); **makila ukaldika** (4); **ukaldika hil** (3)

ukaldikatu, ukaldika(tu), ukaldikatzen du *ad* ukaldiak eman.

Behin bakarrik ulertu dut Hanna, bere bi ukabilez aurpegian **ukaldikatu** ninduenean, hil-oherean ondoan. Joxe Austin Arrieta
Hanna bere ukabil txikiak nire aurka altxatzen, ez dut ezagutzen, ez dut neure burua defenditzen, nabaritu ere ez nola haren ukabilek nire bekokia **ukaldikatzen** duten. Joxe Austin Arrieta
Palestindarrek mortierekin **ukaldikatzen** dituzte lur horietan kokatuak eta bereziki lur lanetan ari diren Juduak. Herria

ukaldiño *iz* ukalditxoak.

Izardun batek komentatu zuen hasiberria izan behar zuela komandante hark, torpedoa alferrik gastatzea kanoi **ukaldiño** bat aski zuenean. Koldo Izagirre

ukalditxo *iz* ukaldi txikia.

Eskuilaz **ukalditxo** bat eman, eta esan zuen: "Hau jantzi xelebrea!". Jose Morales

ukalditze iz ukaldikatzea.

Presondegi hartako Guardias de Asalto deitu zaintzaileek, zigorkatze (**ukalditze**) aberetiarrez kastigatzen zuten Galicia-tar burutik egiten zuen gaixo bat. **Jokin Urain**

ukalondo (112 agerraldi, 36 liburu eta 8 artikulutan) 1 iz ukondoa.

Ukalondoa bermatuz altxatu zen, eta ohetik irten zenean neskatoaren ilea laztandu zuen arinki beste eskuarekin. **Ibon Urbarri**

Ukalondo bat mahai gainean bermatu, eta kokotsa eskuan hartu zuen. **Ramon Saizarbitoria**

Ukalondoa mahaiari jarri nituen, eta burua bi eskuen artean. **Jesus Mari Mendizabal**

Elkarren ondoan, **ukalondoa** eskudelean emanda, Maria Sara eta Raimundo Silva begira zeuden, isilik, bakoitza bestearen presentziaren jabe. **Jon Alonso**

Jendartean ikusi nuen, orduan, **ukalondoa** barandan kokaturik. **Aritz Gorrotxategi**

Txupa beltza, kotoizko galtza marroiak, ez oso estuak ere, eta kaskoa ezker **ukalondoa** trabatua. **Pako Aristi**

Agur egiteko moduan nazien kutsua hartzen zaio, esan nahi baita, eskuin **ukalondoa** aldakan eutsiz besondoa luzatzen duela, eta, eskumuturra ardatz, besoa mugitu gabe eskua tente jartzen duela, ta! **Edorta Jimenez**

Liburu guztiak bertan behera eroriko zirela zirudienean, liburuen gainean **ukalondoa** bermaturik eutsi zion saltzaileak dorreari. **Anjel Lertxundi**

Atzo **ukalondoa** bihurritu nuen sorginbelarrak batzen. **Joanes Urkixo**

Ukalondoa apurtu zuen finalerdietako hirugarren partidari. **Berria - Kirola**

Eskotilako kristala apurtzen saiatu da **ukalondoa**ekin. **Harkaitz Cano**

Axenariok ohiko imintzioa egin du, **ukalondo** atzean babesteko. **Itziar Otegi**

Ukalondoa belauetan, buruari oratu zion bi eskuarekin. **Unai Iturriaga**

Ukalondo bat leihotan, arto-hostoa kiribiltzen ari zen esku-ahurren artean. **Anjel Lertxundi**

Makurtu, eta **ukalondoraino** sartu du besoa. **Jokin Muñoz**

Bidean, ordea, mutil-koskor pildaire batek oratu zion **ukalondotik**. **Anjel Lertxundi**

2 (hitz elkartuetan)

Itsuaren ondokit pasatzean ukitzen hasi da, **ukalondo** -kolpeak ematen, oinak zapaltzen, atzera egitera bultzatzen. **Itziar Otegi**

Oraingo honetan, ordea, biluzik behar zen joan, ukabil ergelen zaparrada baten pean, aurpegia zaintzeko **ukalondo** plegua ere gabe. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ukalondoa belauetan (8)

ukalondotik oratu (3); **ukalondotik oraturik** (4)

ukalondoz jo (3)

ukalondoka iz ukalondo ukaldika.

Eskua tinkatu nahi zidaten jendeen artean, Etxeberri **ukalondoka** egin zuen bide nireganaino. **Aingeru Epaltza**

Arazoak izan ditu kutzazainarengana hurreratzeko, ilarako jendeak ez zion igarotzen utzi nahi, eta **ukalondoka** baztertu dute. **Javi Cillero**

Legegizon gaztea ari zen bitartean, nire anai-arreba erdiek eta anai-arreba erdien anai-arreba erdiek ere, ozta-ozta atxikitzen zuten irria, elkarri **ukalondoka** -eta. **Aingeru Epaltza**

ukalondokada iz ukalondo ukaldia. ik ukalondoko.

Laster, baina, **ukalondokada** eta bultzakada artean, irriño ezkutuak, imintzio labur eta urduriak, eta denok laketu egin gara. **Patxi Zubizarreta**

ukalondoko iz ukalondo ukaldia.

Ez zuten ondo jaso zaragozarrek gol hau eta hiru minutu beranduago Militok txartel gorri zuzena ikusi zuen Tikori emandako **ukalondoko** batengatik. **Berria - Kirola**

Lagun hari betazalen gerizatik isuri **ukalondokoak**, baina txistua botatzeak badu beste larritasun bat. **Berria - Kirola**

ukamen iz ukatzea.

Haren **ukamen** bakoitzean poema gogoangarri horren bigarren zatia aurpegitratzen diotela sentituko du. **Pako Aristi**

Huts egiten baldin banuen, ene bihotza **ukamen** ugarien ildoetan itotzeko arriskuan plazatzen nuen, eta nolabait nik horrelakorik ez nahi! **Itxaro Borda**

Lagun hari betazalen gerizatik isuri **ukamenak** kordokatzen ninduela aitortu nion. **Itxaro Borda**

Tinko zebilen bere **ukamenean**. **Gotzon Garate**

Gau hartan, gaiztiguaren zein ahanzturaren usaina zukeen guhauren Lurraldetasun kontzeptua birindika aurtiki nuen: **ukamenean** finkatu herririk ez zen eraikitzen ahal. **Itxaro Borda**

Aurrez, fede-**ukamenak** gertatu behar du, eta gaiztakeri gizonak, hondamenera kondenatua dagoenak, agertu behar du. **Elizen arteko biblia**

ukamilo ik ukabil.

ukan (5582 agerraldi, 68 liburu eta 2891 artikulutan; orobat uken g.er.), ukan, ukaiten (orobat ukaten g.er.) 1 du ad izan.

Zer den bestenez mundu honetako komedia, euri uhar batek nolako ondorioak **ukaiten** ahal ditu! **Janbattitt Dirassar**

Bai, Luzaidek **ukan** ditu lotura eta harreman handiak Orbaizetako fabrikarekin. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Amak erran zion harekin harremanik ez **ukaiteko**, ez zela gomendagarria. **Elena Touyarou**

Zeren, baldin "gizaki oro arrazoiduna da" badiogu, horrek esan nahi baitu 'gizaki den guztiak arrazoimena **ukan** behar duela'. **Xabier Kintana**

Aski kimen **ukan** nuen zutitzeko eta, zigarrorik hartu gabe, bainugelara joateko. **Daniel Landart**

Eskuan jarri zidan billetea ez hartzeko adorerik **ukan** ez nuelako. **Koldo Izagirre**

Gaixo haurra!, zazpi urte **ukaitean**, amak 70 abantxu. **Herria**

Hitz honen erranahi guztiak ezagutzeko denbora **ukan** dut bakartasunean. **Filipe Bidart**

-Español batek ez dezake lekurik **ukan** Frantziako jakintzaren bihotzean. **Aingeru Epaltza**

Ez nintzen guti harritu **ukan** nuelarik soldado joateko deia! **Janbattitt Dirassar**

Bazko egun goxo bat **ukan** dute Heraitzarrek. **Herria**

-Egun gogorra **ukan** omen duzue. **Itxaro Borda**

Duñabetiak, egunen batean Ernest Hemingwayk lagun minenetakoa izango zuenak, idazleak **ukan** zuen heziketaren antzekoa izan zuen. **Edorta Jimenez**

Ahalik hobekien konpontzen ziren haurrak deusen eskasik **ukan** ez zezan. **Itxaro Borda**

Ukan nuen zer ikus, zer entzun, zer sendi, ahantziko ez nintuenak. **Michel Oronoz**

Suerte ona **ukan** dut naski, alarguntza arte. **Piarres Aintziart**

Esperantza badut liburu honekin irakurleak izanen duela nik **ukan** atsegin bera. **Janbattiit Dirassar**

Gure eskariak segidarik ez zuen **ukan**. **Marzel Etxehandi**

Federakuntzaren Festak oihartzun eskasa **ukan** zuen euskal lurretan. **Elena Touyarou**

Traba bat **ukan** dukete, baina zailena egina da. **Eneko Bidegain**

Gripe tzar bat **ukan** banu bezala, hezurren juntura gehienetan min nuen. **Daniel Landart**

Fronteko askok ez zuten halako aukerarik **ukan**. **Koldo Izagirre**

Auto istripu bat **ukan** zuela erran zien. **Ramuntxo Etxeberri**

Zure amarekin mintzatu nahi genuen haur **ukaiten** lagundu zuen Jaurenea-ko nagusiaren alaba batez. **Elena Touyarou**

Hiru haur **ukan** zituzten, Anna, Frantxo eta Xanleon. **Michel Oronoz**

Bi hil **ukan** ditugu, herrian, aski laster bat bertzearen ondotik. **Herria**

Hiltzera zigorturikoari beti **ukaiten** zaio halako urrikia. **Koldo Izagirre**

Zenbait egunen buruan Beloketik arropak **ukan** genituenean, trikota bat eman nion. **Marzel Etxehandi**

Pistola bat **ukan** balu, honezkero hiliak zeuden, bera eta Lucy, biak. **Oskar Arana**

Handik hiru hilabetera osabak eskutitza **ukan** zuen Ameriketatik. **Gotzon Garate**

Ur beltz xorta bat **ukaiten** zuten ogiaren laguntzeko. **Eneko Bidegain**

Paketak ere **ukan** genituen Beloketik. **Marzel Etxehandi**

Ez du egunkari eta gutunik **ukan** azken aldian: umiliatzen dute. **Itxaro Borda**

Neguko gau hotz hartaz geroztik, egunero **ukan** zuen gogoan haur nimaño hura. **Elena Touyarou**

Jakizu hau, uler ezazu argi eta ondo gogoan **ukan**, zenbait kapitulutan huts ez dagizun. **Xabier Kintana**

SNCFk euskararen aldeko ekintza zehatzik gauzatzen ez duen bitartean, jarrera ukatzaile hori mantentzen duen bakoitzean, parean **ukanen** gaitu Espainiarekikoak konpliturik, idazleak *To Have and Have Not* - **Ukan** eta **ukan** ez- liburuaren probak irakurri ditu, New Yorken. **Berria - Euskal Herria**

Txikiok ezin **ukan** baitugu nehoiz arrazoirik gure eskaeretan. **Hasier Etxeberria**

2 (ahal, nahi eta kideko aditzekin)

Gisa hortan, ainitz jende "zubia" egiten ahal **ukan** dute, orai erraiten den bezala. **Herria**

Intres poxi baten emaitza edo bederen intres poxiño bat emaiten ahal **ukaitea**, berek hauta. **Herria**

Etxamendik eraiki zuen urtegi berria, hain ongi non urak sekulan ez baitzuen eraman ahal **ukan**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Laguntza berezi batzu ere **ukaiten** ahalko dira gune horietan. **Herria**

Hor ez du Baigorriaren zuen azarta haundi hura erakutsi ahal **ukan** Muscarditzek, ez botean (bat bakarrik sartu du) ez-eta jokoan ere. **Herria**

Beste hiruak ikasi behar **ukan** zituen "Bost kirol" lehiaketan parte hartzeko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Zerbait gorde behar **ukan** banu, ez ote zen Magalirekilako ixtorio hori izanen? **Janbattiit Dirassar**

Egun pare bat beha egon behar **ukan** zuten. **Marzel Etxehandi**

Uste **ukan** nuen begiak irekiko zituela. **Daniel Landart**

Dena den, denbora batez uste **ukan** dugu halere bazterrek lasaitzen hasiak zirela. **Herria**

Denek uste **ukan** zuten Bitorren lana izan zela ez zelakotz gehiago sekulan herrian agertu. **Elena Touyarou**

Berri latza hedatu zelarik, denek nahi **ukan** ziguten beren sustengua agertu. **Daniel Landart**

Nahi **ukan** nuen Kattina besotik bederen hartu. **Janbattiit Dirassar**

Lehen paketa berak ekarri nahi **ukan** zuen Schagern komentutik. **Marzel Etxehandi**

Nahiago **ukan** nuen ene etxeko egonaldia laburtu. **Janbattiit Dirassar**

Gizon langilea, beti maite **ukan** du lan untsa egina. **Herria**

Tipi-tipitik aski maite **ukan** dut marrazki eta margolanetan aritzea. **Janbattiit Dirassar**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

ahal **ukan** (15); ahala **ukan** (6); ainitz **ukan** (8); alde **ukan** (7); arazoak **ukan** (11); arazorik **ukan** (7); arrakasta ederra **ukan** (23); arrakasta gaitza **ukan** (15); arrakasta handia **ukan** (25); arrakasta haundia **ukan** (6); arrakasta pollita **ukan** (13); arrakasta **ukan** (33); arrakasta **ukan** du (17); asko **ukan** (8); astia **ukan** (8); astirik **ukan** (25); atsedena **ukan** (11); atsedena **ukan** zuen (6); aukera **ukan** (29); aukera **ukan** zuen (8)

baimena **ukan** (10); behar **ukan** (166); behar **ukan** dute (41); beharrik **ukan** (9); berri **ukan** (13); beti **ukan** (6); bi heriotze **ukan** (6); bi sortze **ukan** (6); bisita **ukan** (10); boz **ukan** (13); boz **ukan** ditu (8); bozak **ukan** (7)

denbora **ukan** (7)

egin behar **ukan** (7); ehorzketa hunkigarriak **ukan** (8); eman behar **ukan** (9); eragin handia **ukan** (12); eragina **ukan** (22); erantzuna **ukan** (7); eskura **ukan** (6); eskutan **ukan** (6); ezin **ukan** (8); ezkontzako sakramendua **ukan** (19)

gaitza **ukan** (19); gaitza **ukan** du (9); gaitzeko arrakasta **ukan** (8); gehiago **ukan** (33); gelditu behar **ukan** (7); gogoia **ukan** (8); gogoan **ukan** (6)

harremanak **ukan** (8); haur **ukan** (12); haur **ukan** zituzten (6); heriotze **ukan** (7); heriotze **ukan** ditugu (6); hustu behar **ukan** (8)

ikusteko parada **ukan** (8)

jasan behar **ukan** (7); jokalaria **ukan** (7); jokalaria **ukan** zituen (6)

laguntza **ukan** (13); lanak **ukan** (12)

maite **ukan** (9)

nahi **ukan** (149); nahi **ukan** du (22)

parada **ukan** (24)

sakramendua **ukan** (21); sakramendua **ukan** dute (19); saria **ukan** (13); sekulako arrakasta **ukan** (8); sortze **ukan** (6)

tokia **ukan** (7)

ukan ahal (11); ukan arren (8); ukan arte (9); ukan behar (63); ukan behar dugu (7); ukan beharko (8); ukan du arrakasta (10); ukan du bere (15); ukan dute arrakasta (15); ukan dute beren (6); ukan gabe (19); ukan ondoan (12); ukan orduko (7)

uste **ukan** (37); uste **ukan** zuen (9); utzi behar **ukan** (19)

xantza **ukan** (13)

zailtasunak **ukan** (7)

arazorik **ukanen** (6); arrakasta **ukanen** (7); atsedena **ukanen** (10); atsedena **ukanen** dute (8); aukera **ukanen** (41); aukera **ukanen** du (15); aukera **ukanen** dute (9); beharra **ukanen** (11)

entzuteko parada **ukanen** (6); eragina **ukanen** (11); eragina **ukanen** du (7); gehiago **ukanen** (39); gehiago **ukanen** dute (8); gogoan **ukanen** (6)

ikusteko parada **ukanen** (11); jokaterik **ukanen** (18); laguntza **ukanen** (9); lanak **ukanen** (8)

ondorio **ukanen** (7); ondorio **ukanen** duen (6); parada **ukanen** (53); parada **ukanen** dugu (19); parada **ukanen** duzue (7); parean **ukanen** (6); segida bat **ukanen** (9); tokia **ukanen** (6)

ukanen du aurkari (8); ukanen du bere (12); ukanen dute beren (7)

urte **ukanen** (6); xehetasun gehiago **ukanen** (7); zer ondorio **ukanen** (7)

ukanez gero (7); **ukanez geroz** (8)
zerbait ukaitea (7)
gehiago ukaiteko (14); **gehiagoren ukaiteko** (10); **haur ukaiteko** (9); **ukaiteko gisan** (14); **xehetasun gehiago ukaiteko** (7)
ukaiten ahal (50); **ukaiten ahalko** (19)

ukanki *adlag* izanik.

Bi begi **ukanki** eta bat baizik ez zabaltzen, agertzen dena bere osotasun gatazkatsuan ez ikusteko. **Itxaro Borda**
Jadanik 1000 miliarreko zorra **ukanki**, 1044etara joanen da hemendik goiti. **Herria**
Denek han edo hemen, zerbait traba **ukanki**... eta batzuk biziki hunkiak. **Daniel Landart**
Ibilaldi batzu dira eskainiak, bakoitxak **ukanki** bere gai berezia. **Herria**
Germaine ostatu batean gurutzatu zuen eta hutsik kometitu gabe, harekin ezkondu zen Balantsun Jainkoaren fedean, nola ez, lau apez familian **ukanki**. **Itxaro Borda**
Bainan Juppé-ek nola eremaiten ahalko du aintzina sail hori, biltzarrean ezkerrekoek gehiengo **ukanki**-eta? **Herria**
Andregairik ez **ukanki** eta!!! **Daniel Landart**

ukapen 1 *iz* ukatzea.

Errepresioan, **ukapenean** eta hilketetan oinarritutako politikak bidegabekeria, pobrezia eta miseria eragin ditu. **Berria - Mundua**
Arazoa da Konstituzioak autodeterminazio eskubidea ukatzen digula eta **ukapenaren** giltza indar armatuei ematen diela. **Berria - Mundua**
Sokrates Homeroren aurka sortu zen, Sokratesen etika artean nagusi zen etika homerikoaren **ukapena** da. **Askoren artean**
Itzalik gabe, ezin du gizartearen **ukapena** besterik jaso. **Anjel Lertxundi**
'Marikoiak' bere gain darama irainaren zama, bazterketaren mehatxua, eskubideen **ukapena**. **Pako Aristi**
Gezur miko bat ere bazuen nire **ukapenak**. **Aingeru Epaltza**
Gauzen **ukapena** eta sorkari guztiekiko hurbiltasuna; baztertuen aldeko aukera eta inor ez mespretzatzea. **Askoren artean**
Gaur justu kontrakoa badirudi ere, *neg-otium* hitzetik dator, eta *otium* (asti) hitzaren **ukapena** esan nahi du. **Patziku Perurena**
Infinitu ororen **ukapenean** falazia bat dakusa berak. **Xabier Kintana**
Thomasek erabat ukatuko zuen geroago Joyce, Biblia, Freud eta surrealisten eragina, baina bere poemek -baita *Artistakume baten erretratuak* ere- guztiz ezeztatzen dute **ukapen** hori. **Koro Navarro**
Frantziako Estatuak gure herria eta gure borroka suntsitzeko duen gogoia islatzen du gaur erakutsi **ukapenak**. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Parisko **ukapen** jarrera argi horren aurrean abertzaleek mamitu behar duten alternatiba Euskal Herriaren baitako harremanen sendotze eta plangintza orokor bati begira lanean aritzea da. estatu frantsesak inposatzen digun erabateko **ukapen** egoera honetatik ateratzeko. **Berria - Euskal Herria**
Azken urtetako ibilbideak balio izan du jende multzo zabal horri Pariseko **ukapen** ildoan agerian uzteko. **Berria - Euskal Herria**
Errepresio eta **ukapen** garaia hesteko eta garai berria hasteko denbora jina da. **Berria - Euskal Herria**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Laguntza **ukapena** baino haratago doa ertzainen jarrera. **Berria - Euskal Herria**
1990ean etengabeak izan ziren euskal presoen aurkako bortxazko erasoak, mehatxuak, bisita **ukapenak**, isolamendua, umiliazioak... **Jokin Urain**
Gatazka guztiak ez dira nazio **ukapenean** oinarritzen. **Berria - Euskal Herria**
Herriaren eskubide **ukapenaren** arduradun nagusi eta zanpaketa diseinatu, sustatu eta bermatu dutenen kontra. **Itxaro Borda**

4 (filosofian eta logikan)

Ukapenak substantzian zerbaiten ez izatea adierazten duten determinazioak besterik ez dira. **Ibon Uribarri**
Errealitatea Zerbait da, **ukapena** Ezerez, hots, objektu baten gabeziaren adigai, itzala edo hotza diren legez (*nihil privativum*). **Ibon Uribarri**
Oposizio edo disjuntzio gisa azaldu ditudanetan hauetariko bat edo gehiago ukatuz gero, zerbait baiezkua geratzen da besteen **ukapenaren** eraginez. **Imanol Unzurrunzaga**
Ez da zilegi pentsatzea **ukapenak** baieztatzen aurkakoak direnik, baizik Kausa hori gabetze oro baino askozaz goragokoa dela eta oso goitik urrundua negatibitate eta **Joan Mari Lekuona**

ukarai (*orobat ukai g.er.*) 1 *iz* eskumuturra.

Delpanisa bakarra zen hoinbeste zeta, balus, farfail, larru soinean zituena, urreria, perleria lepotik eta **ukaraitik** dilindan, Pariseko aberatsen azken modako irudia herri ttipi honetara ekartzen zuena. **Michel Oronoz**
Ez du balio beste lan mota bati jokatzea, hori bailiteke **ukaraietan** burdinen ezartzea, berak dioenez. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Ez bedi eskapa -orroatu zuten denek batera, armen mehatxupean baten batek esku-burdinak **ukaraietan** hertsatu zizkiola. **Itxaro Borda**
Hasieran ikusia ez zuen zakurra bazeukan gazteak aulkiaeren azpian gordeirik, **ukaraietan** sokaz lotu eta muturretakoz hornituriko alimaleko zakur beltza. **Itxaro Borda**
Erloi eta **ukaraiako** muntrak oren batez gibelatu beharko ditugu. **Herria**

2 (luzera neurria) besoa, ukondoa,

Eta bazuen, distantzien neurtzeko, ohol bat, **ukai** bateko neurria zuena, baina osabak cubitum-a deitzen ziona, nola deitzen baitzion Galileok. **Joan Mari Irigoien**

ukaraiko *iz* eskumuturrekoa.

Berehala proposatu zizkidan dendako pitxi eta trapu batzuk: fantasiako eraztunak, **ukaraikoak**, belarritakoak (motx eta luxe), poltsak... **Txillardegi**
Eta zuk, seme, jantzi ezazu nire tunikarik dotoreena, eta hartu urrezko **ukaraikoak**. **Javi Cillero**

ukarazi, ukaraz, ukarazten du *ad* ukatzera behartu.

Ez ahaztu egunero oharkabean **ukarazten** dizkizuten atsegin puska eder debaldeko horietaz, inoiz eskura izanen ez dituzun garesti haien atzetik itsuturik zabiltzala. **Patziku Perurena**
Horretan, heldu ziren Modin hirira Antioko erregearen funtzionarioak; bere erlijioa **ukarazi** eta idolei sakrifizioak eskainarazi behar zioten jendeari. **Elizen arteko biblia**
Etengabe sinagogaz sinagoga ibiliz, gogor zigortzen nituen, beren fedea **ukarazteko**. **Elizen arteko biblia**

ukase *iz* Errusiako tsarraren dekretua.

Tsarra bihozbera zen justizia egiterakoan, ondorioak hark berak bideratzen zituen; etarazte; eta leuntasun apartaz ematen zituen **ukaseak**, garai bateko **ukase** beldurgarriak ahaztaraziz. **Karlos Zabala**

Horixe da modua, beste aldetik, subiranoaren esanak txintik atera gabe bete dituzten, nahiz eta haren aginduak ez obeditzera inor gutxi ausartu, botere izugarria baitu, bere **ukasen** idazpuruetan erabiltzen duen formulak adierazten duen legez. **Karlos Zabala**

Estepa hedadura neurrigabea hura, mendealdetik ekialdera ehun eta hamalau gradu baino gehiago hartzen dituena, erbesteratze eta atzerriratze lurra da gaizkileentzat eta baita ere **ukase** batek kanpora joatera behartu dituenentzat. **Karlos Zabala**

ukate ik ukan.

ukatu, uka, ukatzen 1 du ad ezetz esan.

Eta harria mugitzen duen mugimendua hariaren mugimendua dela **ukatzen** duzu? **Imanol Unzurrunzaga**

Babyk sarritan **ukatu** zion arren, Sethek bazekien 124ko nahigabea hasi zela bera gurdi hartatik jaistean. **Anton Garikano**

Arima gorputzaren substantziazko forma dela **ukatzen** dutenen aurka egiteko. **Piarres Xarriton**

Erruki hori on morala dela **ukatzea**, aldiz, maitasuna ez dela ongiaren iturria baiestea da. **Jenaro Garate**

Emakume honen hilketa salatu behar dugu, argi eta garbi, istripu bat izan dela **ukatuz**. **Paddy Rekalde**

Nor da gezurtia Jesus Mesias dela **ukatzen** duena baizik? **Elizen arteko biblia**

Ezin **uka**, nolani ere, diruak gizarte hartan eta nobela honetan duen garrantzia. **Jon Muñoz**

Hori du, ezin **uka**, egin duen gauzarik onena. **Jon Muñoz**

Baimenik gabeko lekua denik, ezin **ukatu**. **Edorta Jimenez**

Egiazko amodiorik ukan ez zuelako frogatzen ezin **ukatua**. **Janbattitt Dirassar**

2 (zerbaitek) izaterik edo izatasunik ez duela adierazi; ezezkoa eman.

Ezkutuko arrazoiren bat ez ote den izango ukapen honetan, begien bistan dagoen egi-egia **ukatuaz** alegia. **Patxi Ezkiaga**

Episodio horietan, itsua balitz bezala tratatzen zuen familiak Virgil; ikustun-nortasuna **ukatu**, edo hari azpiziana egiten zion, eta Virgilen erantzuna, onez onekoa, itsu gisa portatzea edo are itsu bihurtzea izaten zen. **Xabier Olarra**

Horixe da antinkristoa, Aita eta Semea **ukatzen** dituena. **Elizen arteko biblia**

Semea **ukatzen** duenak Aita ere **ukatu** egiten du. **Elizen arteko biblia**

Sortutako gauza guztiak **ukatze**ko prest ez dagoenak, jaiotza jainkozko hau arbuaitzen du. **Joan Mari Lekuona**

Halako gizarte batean galtzailearen gizatasuna **ukatzeak** bere erlijio-egaitasuna baieztatzearen forma hartuko luke. **Iñaki Mendiguren**

Trinitario baten jainkotasuna **ukatzen** duena. **Xabier Olarra**

Ezkertiar dauka bere burua, nahiz aberats okitu bat duen hartua lagun eta president ordetzat, nahiz hitzeman duen ere ez dituela Brasiliaren zorrak **ukatuko**. **Herria**

3 eskatzen dena ez eman; (zerbait) ez onartu. ik uko 4.

Zergatik **ukatu** zion bizia? **Irene Aldasoro**

Han eskubide guztiak **ukatzen** zaizkie andreei, andreak izateagatik. **Pello Salaburu**

Eskubide hori ere **ukatu** zion. **Aritz Gorrotxategi**

Zeppelina ikustera joateko baimena **ukatu** zidan gero. **Anjel Lertxundi**

Ez ziola ahal zuen heinean laguntza **ukatuko** Jaunaren izenean eskatzen zion inori. **Askoren artean**

Eskale bati aterpea **ukatzeagatik** ezarritako zigor baten ondorioz. **Martin Anso**

Mesede bat eskatu nahi dizut, ez **ukatu**. **Elizen arteko biblia**

Ez **ukatu** elkarri zor diozuena. **Elizen arteko biblia**

Alabatza **ukatu** zion, eta ez zion aitortu beraren giza kondizioa ere, txakur bat bailitzan tratatu zuenez. **Joan Mari Lekuona**

Highgate-ko kanposantutak lurra **ukatu** zion gorpuari, eta Burchington-ekoan datza, Kent-eko konderrian. **Ramon Saizarbitoria**

Gure Jaunak munduaren ikuskizunak eta munduak eskain ditzakeen kolore guztiak **ukatu** zizkidanez sortzetik beretik [...]. **Felipe Juaristi**

Maitatu behar ez dena ez baitu maitatzen eta maitatu behar denari ez dio maitasuna **ukatzen**. **Imanol Unzurrunzaga**

Erabaki ofizialak **ukatzen** zituen apez ihardokitzaile bat gerizatu zuen. **Elena Touyarou**

Ingelesez mintzatu zen Vanunu, «atzerrian hitz egitea **ukatu**» diotelako hebraieraz ez mintzatzea erabakita. **Berria - Mundua**

Ez zuen inondik inora pentsatu nahi nola izana zen Contlan, hango apaiz jaunarekin konfesio jenerala egiten, eta nola hark, arrenka eskatu arren, absolutioa **ukatua** zion. **Juan Garzia**

Ukatua zieten, ordea, zenbakiaren estatusa. **Jon Muñoz**

4 zernahi arrazoiengatik leialtasuna edo atxikimendua zor diogun gauza edo pertsona arbuaiatu.

Oilarrak jo baino lehen, hiru bider **ukatuko** nauzu. **Elizen arteko biblia**

Budak, dena dela, mundua maitasunean eta ontasunean bildu ahal izateko, bere burua **ukatu** beharra izan zuen. **Felipe Juaristi**

Neure burua **ukatu** behar dut, neure buruaren jabe izanen baldin banaiz. **Koldo Izagirre**

Badirudi Manexen amona juduak ez zuela bere fedea **ukatu**, hala uler daitezke, behintzat, bilobaren hitzak: [...]. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

5 (era burutua izenondo gisa)

Pentsatu zuen horrela agurea erotuko zela eta, biloba **ukatu** hura noiz etorriko ote zen zain egonen zela, egunero, haren mendekuaren beldurrez. **Elena Touyarou**

Nazio **ukatua** hemene; indioen lurra han. Nire indar eta jakintza apurrak hizkuntza **ukatuari** eman behar nizkiola erabaki nuen. **Iñaki Segurola**

Kantariaren aitatasun **ukatuaren** inguruko auziaren aurrekari zenbait ekarriko dut gogora. **Ramon Saizarbitoria**

Oraino enekiko daukat maitasun **ukatuaren** duela gaitz horrek bere jatorri eta sorburu lehena. **Juan Garzia**

Gerra osteko etsipen urteak igarota, nortasun **ukatuaren** bila abiatu zen herri hori. **Koldo Zuazo**

Barkamen **ukatuaren** enigma honek, lege edo politikatik haratago dagoena, errespetu osoa merezi du. **Joseba Zulaika**

6 ezin ukatuzko ik ukaezin.

Ezin ukatuzko egia biribilak botatzen dituzte: "bi gehi bi lau dira", adibidez! **Jon Muñoz**

Horren **ezin ukatuzko** frogatzen da urtero Dublinen nahiz munduko beste hainbat hiritan ekainaren 16ro egiten den *Bloomsday* (Bloomen Eguna) izeneko ospakizuna. **Berria - Kultura**

Ez da, azken urte hauetan bezala **ezin ukatuzko** nagusirik, ez eta Armstrong ere. **Herria**

Sarritan bere burua eskubideen zaindaritzat hartzen duenak hain erraz hausten duela eskubide horietan funtsezkoa dena, guztiok dugun bizitzeko **ezin ukatuzko** eskubidea. **Pello Salaburu**

Horra hor kontakizun laburren xarma **ezin ukatuzkoa**. **Javi Cillero**

Hiru gai horiei buruzko frogatzen duen natura ikusgaietik jasoak direlako, eta, hortaz, **ezin ukatuzkoak**, aurreiritzi batzuen mesedetan ez bada. **Xabier Kintana**

Batasun horrek ilabete hunen ondarra barna utzia dio ez dea akusamendu hortaz hobendun frogatzeko, lekukotasun **ezin-ukatuzkoak** barne. **Herria**

ezin uka (122); **ezin uka daiteke** (18); **nekez uka** (8); **nekez uka daiteke** (5); **nola uka** (5); **nork uka** (10); **zertarako uka** (5)
akusazio guztiak ukatu (7); **akusazioa ukatu** (6); **akusazioak ukatu** (9); **askatasuna ukatu** (6); **aske irteea ukatu** (5); **aukera ukatu** (21); **baimena ukatu** (43); **baimena ukatu dio** (6); **berriro ukatu** (9); **berriz ukatu** (7); **beti ukatu** (16); **beti ukatu du** (5); **bisa ukatu** (6); **bizitzeko baimena ukatu** (7)
egin izana ukatu (5); **egiteko baimena ukatu** (6); **eman izana ukatu** (8); **epaileak ukatu** (6); **erabat ukatu** (13); **eskaera ukatu** (6); **eskubide hori ukatu** (8); **eskubidea ukatu** (26); **ezin da ukatu** (70); **ezin du ukatu** (8); **ezin dugu ukatu** (8); **ezin dut ukatu** (19); **ezin ukatu** (58); **ezin zaio ukatu** (8); **gobernuak ukatu** (5); **guztiz ukatu** (7); **hartu izana ukatu** (7); **hartzea ukatu** (9); **hitza ukatu** (6)
inork ukatu (6); **irteea ukatu** (5); **izan zela ukatu** (5); **izatea ukatu** (39); **izatea ukatu zuen** (19); **jesus ukatu** (5); **joateko baimena ukatu** (7); **laguntza ukatu** (9); **ministroak ukatu** (5); **nagusiak ukatu** (5); **nola ukatu** (5); **nork ukatu** (5)
orain arte ukatu (6); **parte hartzea ukatu** (6); **pedrok jesus ukatu** (5); **presidenteak ukatu** (5); **salaketak ukatu** (7); **udalak ukatu** (5)
ukatu arren (12); **ukatu bazuen ere** (6); **ukatu eta gero** (6); **ukatu ezin** (13); **ukatu gabe** (34); **ukatu ondoren** (10); **ukatu ostean** (5)
washingtonek ukatu (6); **washingtonek ukatu egin** (5); **zeinek ukatu** (5); **zergatik ukatu** (17); **zerikusia izatea ukatu** (5); **zertan ukatu** (12)
ezin ukatua (26)
ezin ukatuak (8)
ezin ukatuko (27); **ezin ukatuko dut** (14); **laguntza ukatuko** (6); **nola ukatuko** (5); **nork ukatuko** (12); **nork ukatuko du** (5); **ukatuko nauzu** (6)
ezin ukatuzko (12)
ez dago ukatzerik (9); **ukatzerik ez dago** (9)

ukatzaile 1 *izond/iz* aipatzen dena ukatzen duena.

Prousten kasuan ez bezala, gogora ekartzen dena ez dela haurtzaroko errealitatea, baizik eta haurtzarorearen ikuspegi **ukatzaile** eta eraldatzailea. Xabier Olarra
Bigarrenean, «erantzun positiboa» eskatzen die, prozesuari «oztoporik eta mugarik» ez jartzeko, «jokabide **ukatzaile** eta errepresiboak» alboratzeko. Berria - Harian
SNCFk euskararen aldeko ekintza zehatzik gauzatzen ez duen bitartean, jarrera **ukatzaile** hori mantentzen duen bakoitzean, parean ukanen gaitu. Berria - Euskal Herria
Elkarrekin zer ikusirik ez duten hitzak elkartzeko ez ezik, elkarren **ukatzaile** diruditenen funtsezko batasuna bistartzeko ere balio du, besteak beste, errimak. Joxerra Garzia
Ez dago, ordea, zertan bi ikuspuntu horien artean bat aukeraturik, ez baitira bata bestearen **ukatzaile** edo kontraesaneko ere. Josu Zabaleta
Impronunciable, unpronounceable, unaussprechbar eta abarrak esateko ohitura beren etxepean zabaldu duten hizkuntzak Gutasun Bakar baten aitorle eta sortzaile dira, eta daitezkeen beste ororen **ukatzaile**. Iñaki Segurola
Nekez aurki baitaiteke, izan ere, mixiolariak eta inernazionalistak kendu ezker, hura [mendigoizalea] bezain jende-modu kanpoeder eta bere lurraren **ukatzaile** garbiagorik, ez hitzez, jakina, baina bai egitez. Iñaki Segurola
Zalantzan jarri ezinezko aitortzen ziren, deklaratzten ziren gertaera haiek, **ukatzaile** tematiak, ordea, behin eta berriro "berriketak! berriketak!" errepikatzen zuela. Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mehmet II.a sultanak [...] beste bide bat asmatu zuen bere herri-administrazioa langilez hornitu zuenean, ez jada osmanliar aitoren seme musulmanen semeekin, kristau-esklaboekin baizik, Mendebaldeko Kristandadeko fede-**ukatzaile** eta gerra-presoak barne. Iñaki Mendiguren
Denek arbiuatu zuten, lege-**ukatzaile** zelako; denek gorrotoa izan zioten, bere aberriaren eta herritarren zapaltzaile izan zelako. Elizen arteko biblia
Orduan, israeldar legegabeko eta lege-**ukatzaile** guztiak Demetriogana jo zuten, apaiz nagusi izan nahi zuen Alkimo gidari zetula. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lege ukatzaile (4)

ukatze 1 *iz* zerbaitek izaterik edo izatasunik ez duela adieraztea; eskatzen dena ez ematea; zerbait ez onartzea.

Iparralde hunek jasaiten dituen nahigabe, **ukatze**, zapalkuntza eta mespretxu izigarriak ez dira oraiakoak. Herria
Desarrazoi historikoaren **ukatze** garbi bat. Iñaki Segurola
Argazki-ekimenean bertan, oro har, beti izaten dela begiratzearen eta fetixizazioaren arteko bateratze bat (fetixizazioak, ez dezagun ahaztu, errealitatearen **ukatze** bat esan nahi badu ere). Josu Zabaleta
Ziegara eraman aitzin, gela inperpersonal batean, mutikoaren pertsonalitatearen **ukatze** bideko lehen urratsak egin ziren. Itxaro Borda
Giza ezaugarri partikular baten edo bestearen **ukatze** eta haiei zegokien giza eskubide partikular baten edo bestearen errefusatzekak ziren. Iñaki Mendiguren
Baina baten enfatizatzeak ez du inoiz bestearen **ukatzea** adierazten. Joxe Azurmendi
Gobernuak esku-hartze auzietan izan duen jarrera [...] etengabeko **ukatze**, ezkutitze eta estaltze saioa izan da. Berria - Mundua

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ukatze eskubide hori beharrezko ikusten dute autore askok, norberaren erabiltze eskubidea bermatuko bada. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskubide **ukatze** horri bide emateko, borondate politikoa baino ez da behar. Berria - Euskal Herria
Tortura **ukatze** horiek, iduri-eta Unai Romano gaztearen aurpegi desformatua leiztafin inoxent batek eginiko xixtaño baten ondorioa baizik ez zela... Herria
Soilik erabateko premia larri batek edo eta pasio asaldu biziko batek bultzatzen zuena egongo zen prest hango liburuak kontsultatzeko eskatzen ziren buru-**ukatze** frogak gogo onez pairatzeko. Juan Garzia

ukatzearren *adlag* ukatzeko.

Ezin duela inoiz nire subjektuaren izaeraz gehiago jakin nire itxaropenei ahalgarritasuna **ukatzearren** nik itxaropen horiei atxikitzearren dakidana baino. Ibon Urbarri

ukatzeke *adlag* ukatu gabe.

Kritika soziala, politika, harreman arriskutsuak [...] eta enparauak nahasian bildu izanak askoren miresmena piztu du, lana maisulantzat jotzeraino, bakan batzuek, harexegatik ere, saio guztiz biribildu gabea deritzoten arren, Rushdieren ofizioaren eta pentsamenduaren sakona **ukatzeke**. Ortega-ren arrazismoa, ezkutaezina **ukatzeke** eta ezkututzen ere saiatzeke ukaezina. Berria - Kultura

ukazio 1 *iz* ukatzea.

Horretara, badiogu zerua "ez dela arina ez pisutsua", "aldagaitza" dela, eta horrexegatik "ez duela inpresiorik jasotzen", "ez duela dastamenik, ez usaimenik" eta antzeko beste **ukazio** batzuk, [...]. Xabier Kintana
Kariñoa **ukazioaren** eta miseriaren babeslekuari ematen zaion beste izena zela sinesten ote zuen? Harkaitz Cano
Denen artean ukatu zieten gizatasuna eta **ukazio** horren segidan, alemanen gogotik erauziak izandakoan, [...]. Felipe Juaristi
Neskato harengan ez zegoen ez onespentik, ez **ukaziorik**, ez zegoen inolako erantzunik. Ibon Urbarri
Euskal kulturak afirmazioa den **ukazioa** du sustraitzat. Berria - Harian

Errepresioaren eta **ukazioaren** arrok porrot egin baitu. **Berria - Euskal Herria**
Logikariek diote "urrezko mendia Kalifornian dago" moduko proposizio bat ezin dela egiaztatu erreferenterik ez duelako: bere **ukazioa** ez da bere baieztatpena baino egiazkoagoa eta ezta gezurrezkoagoa ere. **Xabier Arregi**

Nafarroako Estatuaren **ukazioak** 160 urte baino ez ditu. **Berria - Kultura**

Anarkismoa aukera-aukerako doktrina zen niretzat, erakutsi izan ziguten guztiaren **ukazioa** zekarrelako bere baitan: ez jainkorik, ez nagusirik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zentratze hori [...] ez da unibertsa zinemagintzan, eta badira, hain zuzen, zentratze horren **ukazioan** oinarritzen diren estiloak. **Josu Zabaleta**

Hainbesteraino zabaldu da irakurlearen berezko egitekoaren **ukazio** hori, [...]. **Juan Garzia**

Konbertsioak ez du gogoko beharrezko duen iraganaren zati baten **ukazioa**. **Joseba Zulaika**

Errebeldia, inkonformismoa eta irudi estereotipuen **ukazioa**. **Ana Urkiza**

Genozidio armeniarren auzia eta kurduen eskubideen **ukazioa** eta jazar-kundea hor daude, haatik. **Berria - Mundua**

Antagonismoaren egitura kontrajarrarian, non diferentzia oro **ukazio** bihurtzen den, nortasunaren izaera erlaziozkoa ahaztu egiten da. **Joseba Zulaika**

Arte abstraktua **ukazioz** baizik ez da definitzen. **Josu Zabaleta**

Testuinguru nahaspilatuzko bizpahiru esaldi **ukazioz** beterikoekin, bizpahiru esaldi kontraesankor eta iturazkorekin. **Jon Alonso**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Espressionismoaren aldetik egiten den imitazioaren arbuioa ez da, beraz, **ukazio** hutsa. **Josu Zabaleta**

Ez ilustrazioaren garapen eta gairadipen gisa [...] ezpada haren **ukazio** erreakzionario soila. **Joxe Azurmendi**

Generoaren ikuspuntutik begiratuta, badu errebeldia, inkonformismoa edo irudi estereotipuen **ukazio** erlatiboa, doktrina feministaren fruitu zuzena ez badira ere. **Ana Urkiza**

Volkswangenekoz zuzendaritzak hartutako erabakia xantaiaren testuinguruan ulertu behar da, bai eta langileekin negoziatzeko erabateko **ukazioan** ere. **Berria - Ekonomia**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sinestezina dirudi bat **ukazio** -maila hain sakonera iristea eta han konfiantza osoz eta sutsuz irautea. **Joan Mari Lekuona**

Spainiak Gobernuari «Euskal Herriaren aurkako **ukazio** eta errepresio politikan tematzea» egotzi zion. **Berria - Euskal Herria**

Tradizionalki, Ilurekin konfrontazio eta **ukazio** jarrera izan du PSOEk. **Berria - Euskal Herria**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Astehelenean Fiskaltzak Paiva, honen aita eta lau zaindari «hilketa engainagarriaz» eta bazkide bat «laguntza **ukazioaz**» akusatu zituen. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskubideen ukazioa (6)

ukelele iz lau sokako hawaiar gitarra.

Karmele **ukelelea** jotzen zuen neska euskaldun bat zen. K jaunak ez du **ukelelea** jotzen, ez matxinsalto frijiturik jaten. **Bernardo Atxaga**

Gure eskuinaldean, Merritt bera eserita, atril baten atzean eta **ukelele** bat eskuetan. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ukelelea jotzen (4)

uken ik ukan.

ukendu 1 iz larruazalean ezartzen den zernahi gai edo ore koipetsu. ikgantzu.

Ismaeldarren karabana bat ikusi zuten, Egiptora zihoana, gameluetan usaingarriak, **ukendua** eta erretxina eramanez. **Jose Antonio Mujika**

Horrez gain, era gutzietako **ukendu** eta edabeak prestatzen zituen. **Martin Anso**

Sendabelarrekin egindako **ukenduak**. **Berria - Gaiak**

Zuhaitz horren enborraren azala hiperplasiaren kontrako **ukendua** egiteko erabiltzen da. **Berria - Gaiak**

Haren bular oparoak ere gantzutu nituen nire ontziko **ukenduarekin**. **Anjel Lertxundi**

Zure **ukenduen** usaina lurrin guztiak baino gozoago! **Askoren artean**

Zauriak ez zornatzeko **ukendua**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Gizon ile-zuri batek bizkarreko zauriak olioz eta **ukenduz** gantzutzen zizkidala. **Joan Mari Irigoien**

Ondoko egunetan, **ukenduak** jarri eta masajeak eman zizkidan marabutak gorputz alde gutzietan. **Joxan Elozegi**

Gauero, oheratu aurretik, **ukendu** horren hiru drakma hartu, eta begi gaixoa igurtzi. **Patxi Zubizarreta**

Emakume batek Jesus **ukenduz** igurtzi. **Patxi Zubizarreta**

Zauriak lotu, **ukenduz** igurtzi umea, eta bere lana egiten utzi zion denborari. **Jon Muñoz**

Mariak Kristoren buru gainera **ukendua** isuri zuen. **Patxi Altuna**

Amaren ahots leun eta ezaguna **ukendu** baten gisakoa egin zait. **Patxi Zubizarreta**

Emultsio bat izan ohi da **ukendua**: droga bat izaten du ingurune koipetsu edo ezkotsu batean sakabanatuta. **Irene Aldasoro**

Droga bat gorputzera sartzeko, eraginkorragoa da larruazala **ukenduz** igurzteko disoluzio urtsu batez gaina bustitzea baino; alde batetik, **ukendua** ez delako berehala lurruntzen. **Irene Aldasoro**

Droga gehienek, ordea, oso poliki zeharkatzen dute larruazala, eta zaila da **ukendu** bidez kontzentrazio maila baliagarri bat lortzea. **Irene Aldasoro**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sorgin mairuaren **ukendu** miragarria. **Martin Anso**

Zu zeu zara **ukendu** lurrintsu! **Elizen arteko biblia**

Hitz haiek **ukendu** on batek bezalaxe sendatu zuten Kamar Al-Samanen barrena. **Patxi Zubizarreta**

Usain txit gozoz bete eta **ukendu** baliotsuz igurtzia sentitzen zela esaten zuen, munduan zehar zabaldurik zeuden anaia santuen egintza handiak entzutean. **Askoren artean**

Bizkaitarraren ateraldi xaloek **ukendu** lasaigarri baten antzera egiten zuten nire arimako tristezia eta larrimaren kontra. **Alberto Ladron Arana**

Gero, masajea ematen zion, eta ondoren berriro garbitzen zuen, **ukendu** edergarrien ontzi mordo bat esku trebez erabiliz. **Juan Kruz Igerabide**

Berrogei egunak igarota, behin baino gehiagotan joan nintzen petrikiloaren etxera, igurtziak hartzera; haren **ukendu** harrigarriek uste baino hobeto bizkortu zidaten hanka. **Juan Kruz Igerabide**

Ozonoa aplikatu diogu, eta, partida aurretik, **ukendu** analgesikoa jarri genion. **Berria - Kirola**

Maisuak gaixorik nintzelarik lobelarrrezko **ukendua** eman izaten zidanetan legez, ekuru eta bare. **Edorta Jimenez**

Azalerako **ukendu** batek edo minbizia artatzeko botika batek prozedura desberdinak eskatzen dituzte. **Berria - Gaiak**

Ilerako **ukendua** edan omen zion, botila oso bat. Pablo Sastre

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lortu ere lortu nuen nire gogo guztia eta nire desio guztia biltzea, kontzentratzea, **ukendu**-ontzi batean eskaintzea. Anjel Lertxundi

Jasmin usaina galdu gabeko **ukendu** pote hutsak. Karlos Zabala

Berehala hurbildu, zaurietako loturak kendu eta **ukendu** moduko batez zauri guztiak igurtzi zizkion. Askoren artean

Haren berdetasunak, luze-zabalean isurtzen zitzaion baretasunak, **ukendu** lanak egiten zizkion bere gogo artegatsuari. Joxemari Iturralde

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jaiki naiz ene maiteari irekitzera: mirra-**ukendua** darie nire eskuei, hatzetan behera, ate-sarriaileraino. Elizen arteko biblia

Erredurak eta kimio-saiotan ahuldu eta erretako azala goxatzeko probatu duenak, badaki zer den intsus **ukendua**. Pello Zabala

Bere ohorezko dama eta laguntzaile leiala eta artatsua, amaren beztimendez arduratzen zena, baita haren garbitasun personalaz ere, azal-**ukenduez** zein ile-kentzeaz.

Joan Mari Irigoien

5 (neurriekin)

Jesus fariseuaren etxean bazkaltzen zela jakinik, bertara joan zen, harzurizko ontzi bat **ukendu** zeramala. Elizen arteko biblia

- Magdalena sartu zen, alabastro-ontzi bat bete **ukendu** zekarrela. Patxi Altuna

6 irud/hed

Lurreko usainkiz baino gehiago zeruko **ukenduz** gantzutua. Askoren artean

Barkamena mirakuluzko **ukendua** da amodioa biziberritzeko. Berria - Kultura

Ezaren oinazearentzat, gizakiak bizi dezakeen guztiz saminarentzat, ez dago Poe dontsuak parkeko bele beltz bati erakutsi dion *nevermore*, *nevermore* lanturu belarri-nekagarria beste **ukendurik**. Anjel Lertxundi

Maddaleneztat sentitzen zuen amorio hartan kausitu ote zuen osabak beharrezko **ukendua**. Joan Mari Irigoien

Ez da aztoratzen plana onartzen ez bada gehiengo osoaren **ukendua** eskuratzea espero duelakoan. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ukendu pote (3)

mirra ukendua (3); **ukendua eman** (3)

jesus ukenduz igurtzi (3); **ukenduz igurtzi** (8)

ukendugile *iz* ukenduak egiten dituen pertsona.

Noraren aitak, ordea, asmatzaileak zituen gogokoena: gaixotasun berrietarako belar-biltzaile eta **ukendugileak**; pikatxoiak eta aitzurrak bazterturik, oilaloken zirinez igurtzitako hurriz-makila edo burdina imantatu bereziez urre bila saiitzen ziren ur-bilatzaileak. Anjel Lertxundi

uki 1 *iz* ukitzea; ukimenari eragiteko modua. ik **ukiera**.

Beroa, hotza, **ukia** eta mina sentitzea batez ere. Irene Aldasoro

Desarra gozo baten gisara eragin zidan haren larru-azalaren **uki** guriak blusa baporetsuaren ehun mehearen azpian. Aingeru Epaltza

Adreiluaren **uki** latza sentitu zuen berriro ere nire eskuak. Iban Zaldua

Lehenengo zorro termouzkurgarria da larruazala, gorputzari zehazki egokitzen zaion estalki bat, oso lodiera, elastikotasun eta **uki** doiez hornitua era askotako zereginetarako.

Irene Aldasoro

Ukiaren berotasunak nire atorraren ehundura urtu zuen. Aingeru Epaltza

2 (hitz elkartuetan)

Baina esku-**ukiak** eta senak eta nire baitako burubideek, horixe, orain hemen nagona berbera nintzela orduan han nengoena, horixe baieztatu zidaten. Patxi Ezkiaga

ukialdi *iz* ukitzen den aldia.

Ukialdiari miaztaldiak jarraitu zion, eta tarte horretan mihi heze luzeek atzamarrak ordezkatu zituzten gorputz azalak goitik behera, kanpo eta barru, ferekatze lanean.

Bibotea behin eta berriz lisatu eta simetria aldetik aztertu beharra zeukan, betaurrekoak "orekatu" beharra -gora eta behera, alboetara, diagonalean, barne eta kanpo aldera-, bat-bateko tik kutsuko hatz-**ukialdien** bitartez "erdi-erdian jarri" arte. Jon Arretxe

ukiarazi, ukiaz, ukiazten du *ad* ukitzera behartu.

Marjolinek hesia **ukiarazi** zion Lisari, sare itxizkoa zen, burdinurtuzko markoetan ezarria. Karlos Zabala

Nerea eskutik hartu duzu, egongelara zuzendu eta apalak **ukiarazi** dizkiozu. Lander Garro

Aborijenari argazkia nola egiten den erakusten bazaio, argazkiaren *arkhé*-a **ukiarazten** bazaio, esatea zilegi bazait, bertatik ulertuko du zertarako izan daitekeen ere. Josu Zabaleta

Hor gelditu zen, begien aurre-aurrean behatz puntak elkar **ukiarazi** eta haien artetik begiratu zuen minutu pare batez. Xabier Olarra

ukibera *izond* ukiari sentibera dena.

Joanes liluraturik zegoen, Justinaren eskuak ezta bezain samurrak iruditzen zitzaizkion, eta haren gerria lumazko burukoa bezain **ukibera**. Felipe Juaristi

Isiltasuna genuen lohiz eginiko irudi, eskuragaitz eta ikusezina, **ukibera**, ordea, garbitik zikinera joanik barne-muinak eta barne-zainak itxuraldatzen baitzituen, behin eta berriro, behin eta berriro. Felipe Juaristi

ukidura *iz* ukitzea. ik **ukiera**.

Rubenen belauanaren **ukidura** leuna sentitu dut. Patxi Zubizarreta

Ez zegoen gorputzaren gainazalean edo kanpo aldeetan lama gehiegizkorik somatzerik, baizik areago **ukidura** epela eskaintzen eskuei. Xabier Amuriza

Bedaxagar bihotz **ukidura** handiz gogoratzen da Etxahun-Iruriz. Berria - Kultura

ukiera *iz* ukitzea; ukimenari eragiteko modua. ik **uki**.

Argi dago lehenekiek ez dutela kolorerik behar eta **ukiera** ezberdinak forma ezberdinei dagozkiela. Xabier Amuriza

Lisa ederraren **ukiera** irmoegiak are gehiago asaldatzen zituen Florenten gorputz argalaren hezurrak Normandiar ederraren hurbiltasun samurrak baino. Karlos Zabala

gogoko ditut klik horren **ukiera** eta hotsa. Xabier Olarra

Haren harridura ez zen hargatik txikiagoa izan, uste baitzuen bat etorriko zirela irudien **ukiera** eta haiek irudikatzen zuten gauzena. Xabier Olarra

Irudi horiek ez zuten zerikusirik ordu arte ezaugarritzat izan zuen "ohiko" oroimenarekin: nahi gabekoak eta bat-batekoak ziren oraingook, flash tankerakoak eta ia menderatzaile eta eldarniozkoak, bai hotsez, bai bilbez, bai usainez, bai **ukieraz**. Xabier Olarra

ukiezin 1 *izond/iz ezin* ukituzkoa.

Ideia ikusezin, **Ukiezin**, Atxiekiezin, Materiagabe hura haragia higatzen, odola edaten, bizitza itzaltzen ari zitaion. Josu Zabaleta

Bazirudien ezen, garaile ateratzea espero zuen une hartan, izaki **ukiezin** eta mendekari bat zetorkiola kontra egitera. Irene Aldasoro

Jende-oldeen legea zen: etorri-berriek, azkenek, beren miseria eta deserritasunaren indar **ukiezinarekin** bultza egiten zieten aurreko migraziokoei. Iñaki Zabaleta

Orduan Elizak botere handia zuen, eta **ukiezina** zen. Berria - Harian

Erabakiak erakusten du Erregea ez dela **ukiezina**. Berria - Euskal Herria

Nire bizitzarekin zerikusi zuzenik ez zuten errealitate urrun eta **ukiezinak** ziren biak ala biak. Juan Luis Zabala

Hauteskundeen data ez da **ukiezina**; prozesua bera da hala dena. Berria - Mundua

Euri **ukiezinaren** epeltasun astunak azpian zanpaturik zeukan kalea. Josu Zabaleta

Madrilentzat «**ukiezina**» da prestakuntzaren kutxa bakarra. Berria - Ekonomia

Ez du Oscar Freirek munduko txapeldun izanaren handiustierik, edo izar **ukiezin**en harrokeriarik. Berria - Kirola

Herri bakoitzak bere jeinua du, dio Ganivet-ek; eta artean, politikan, baina dogmetan ere azken batean -gauzarik **ukiezinenetan** -, bere jeinuaren marka utziz doa den-denean. Joxe Azurmendi

Hil eta gero, arima ametsaren antzeko bihurtzen duk, **ukiezina**. Juan Kruz Igerabide

ETA izan da, beste ezer baino gehiago, euskal politika baldintzatu eta zikiratu duen kasta **ukiezin** hori. Joseba Zulaika

Zorionez, **ukiezin**en mundu horretan Carreño eta Vazquez bezalako jendeak ez du lekurik. Berria - Kultura

2 (adizlagun gisa)

Trofeoa, beraz, irla baten antzekoa zen, niretzat, eta bost hilabete horietan hantxe iraun zuen, **ukiezin**, sendo. Iban Zaldua

Axenarioren tronpeta zain dago nork joko, **ukiezin**, ikusezin eta mutu, Azken Judizioko hura bezalaxe. Itziar Otegi

3 *iz* Indiako kasta-sisteman, maila apaleneko kidea.

Bosgarren talde bat dago: **ukiezinak**, pariak, *harijanak* edo *dalitak*, maila guztietatik kanpo daudenak, errukarri-errukarrienak. Gotzon Garate

Dalitak baztertzin zituen legea duela 50 urte indargabetu bazen ere, tradizio hinduistak bere horretan segitzen du eta, ohikoa da [...] **ukiezin**ei erasotzea edo haiek hiltzea beste kasten eremuetatik pasatzen direnean. Berria - Mundua

Indiako jendea, batez ere herri tipietan, ikusi ez baina edonon sumatzen den marra batek banandu eta bereizten du. Alde batean kastako jendea; bestean kasta gabekoak, **ukiezinak** edo *harijanak* ("Jaungoikoaren haurrak"). Gotzon Garate

Indiako zenbait eskualdetan **ukiezin** bat goi kastako emakume batekin etzanda harrapatzen badute, biak hilarazten dituzte. Gotzon Garate

Errekatik txalupetan etorri eta **ukiezinak** bizi ziren txaboletara hurbildu ziren, armak gerturik zituztela. Gotzon Garate

4 *ukiezin*eko *izlag* ukiezina.

Estatuak uste du, historiaren eta politikaren eta merkatuaren guztiz gainetik, **ukiezin**eko eta betiko dagoela subiranotasunaren botere mistiko hau. Joseba Zulaika

Zorua da, printzipio **ukiezin**eko zorua. Berria - Euskal Herria

5 *ukiezin*eko *izlag* ukiezina.

Behin baino gehiagotan iruditut zitzaidan **ukiezin**eko esku batek, edo hobeto esanda, atzeman ezinezko gorputz batek, ileak ozta-ozta ferekatzen zizkidala. Josu Zabaleta

Irudiaren ertza da; beste zentzu **ukiezin**eko batean haren zentzumenezko muga da; muga-marko bat da. Josu Zabaleta

6 (izen gisa)

Literaturan ere azaldu da **ukiezin**eko bitizta. Gotzon Garate

ukiezintasun *iz* ukiezina denaren nolakotasuna.

Bizitzaren **ukiezin**tasun absolutua. Joxe Azurmendi

Bide horrek [...] muga bat du: Espainiako herriaren subiranotasunaren **ukiezin**tasuna. Berria - Harian

Legebiltzarkideen eskubideen **ukiezin**tasuna aldarrikatu dute EA eta SAK. Berria - Euskal Herria

Nekane Bolado epaileak kaleratutako autoan, **ukiezin**tasun hori aitortu die legebiltzarkideei, baina eskubide horrek ez duela «edozein jarduera» babesten zehazten du, «soilik ematen dituzten iritziek» zerikusia duten adierazpenak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

legebiltzarkideen eskubideen ukiezintasuna (3)

ukigabe 1 *izond* ukitu gabe dagoena.

Gizon guztiak altxor **ukigabe** eta isilpeko baten jabe sentitu ziren. Juan Garzia

Faraoen garaiko hilobi **ukigabe** bat ikusgai. Berria - Kultura

Badago, beraz, leku bat **ukigabea**, hutsa eta librea. Xabier Amuriza

Maite dut iturri **ukigabeak** aurkitu eta bertatik zurrut egitea. Xabier Amuriza

Birjintasan **ukigabearen** eta pobretasun txit santuaren estandartez distiratsu apaindua. Askoren artean

Zutik geundean, mugitu gabe, basoaren erdian geldi, izei artean, bidexka hasi, bidetik urrundu, eta sakoneneraino basoak bere bizi berezko, **ukigabe** eta iluna egiten duen lekuraino eramaten duen puntuan. Xabier Olarra

Orein zaurituak negar intziri, orkatz **ukigabeak** jolas. Juan Garzia

2 (adizlagun gisa)

Ezkontzara **ukigabe** iristea. Gotzon Garate

Sistema horrek, bere funtsezko aldeetan **ukigabe** iraun arren, beti lagunduko dio forma horri bere hartan iraun dezan. Isabel Arrigain

Jaioterriko gizarte balioak **ukigabe** gorde izan dituzten Santo Antão edo Santiagoko herritarrek. Bego Montorio

ukigai 1 *izond* uki daitekeena. ik *ukigarri*.

Jantziak kendu aurretik, berriz eskua sartu zuen jakaren barrengo poltsikoan, han, gaizki akordatzen ez bazen, mirariaren arrasto **ukigai**a eduki behar baitzuen. Matías

Mujika

Hots irudien biltegia baita hizkuntza, eta idazkera, hots irudi horien gauzatzeko **ukigaia**. Isabel Arrigain
Eta nola zeruan barna hodei iritsi ezinak igeri zebiltzan, hala zebiltzan barku txiki eta handiak aurreko itsaso hartan, elurra bezain zuri, **ukigaiak** haiek ere. Matías Múgica
Argi utzi behar da ekonomian dirua salerosketarako -hau da, trukerako- eskuarki onartzen den edozer gauza izan daitekeela, izan **ukigai** edo ez. Iñaki Heras

2 (adizlagun gisa)

Hemen zeuden, eta han, eta leku orotan, ikusgai eta **ukigai** nire aurrean Koro Navarro

ukigaitz 1 *izond* ukitzen zaila, ia ukiezina.

Musika aditu ahala emakume-irudi lanbrotsu, zehazgabeak etorri izan baitzaizkit beti gogora, dama eder, **ukigaitz**, lilurazko bezain iritsiezinak, airezkoak ia-ia. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (adizlagun gisa)

Hutsunea, **ukigaitz** dirauena eta kolpeak fitsik eragiten ez diona, Xabier Amuriza

3 (izen gisa)

Besazpikorik eramanen ote zuen, Elliot Nessen **"Ukigaitzen"** gisara? Aingeru Epaltza

ukigaiztasun *iz* ukigaitza denaren nolakotasuna.

Beharbada bazekien eta bere nagusitasuna agerian utzi nahi zigun, Soriaren "txilibitaren" **ukigaiztasunaren** tabua urratuz bere ikaskide berri eta berdeagoen ikaskizun. Aingeru Epaltza

ukigarri 1 *izond* uki daitekeena. ik **ukigai**.

Era berean, dastamena eta ukimena ere egotz lekizkiok, dastagarriak eta **ukigarriak** hautematen dituela adierazteko. Xabier Kintana

Markoa objektu horren ertza da, lehenik eta behin, haren muga materiala, **ukigarria**. Josu Zabaleta

Fotogramak duen izaera fisiko **ukigarriak** beste manipulazio batzuetarako ematen du aukera (mozteko, urratzeko, zikintzeko, eta abar). Josu Zabaleta

Esan (eta egin) nahi duena da zinezko gauzak estimatzea, hezur-haragi-larruzkoak, gauza bistako eta **ukigarriak**. Iñaki Segurola

Birikak aire ia **ukigarri** hartaz bete nituen, intsentsuak eta kandelen keak gozaturiko aire hotz hartaz. Alberto Ladron Arana

Balio konbentzional guztiek agertzen dute ezaugarri hau -alegia, haien euskarri diren elementu **ukigarriekin** ez nahastea-. Isabel Arrigain

Ukigarria eta samurra zen zerbaiten ertza ukitu zuten. Harkaitz Cano

Ukigarri ez zen guztiari iheska, ur edan berriak gorputz barnera ekarri zidan freskurara ezarri nuen gogoia. Aingeru Epaltza

Burmuina, ordea, organo materiala da, **"ukigarria"** nolabait esateko. Askoren artean

Nire [pintura] lanak ez dira ukiezinak, erabat **ukigarriak** dira. Berria - Kultura

Hau dena zinezkoa zait, erreala, argia, **ukigarria**. Koldo Izagirre

Hezetasuna **ukigarria** zen ia, itogarria. Alberto Ladron Arana

Diplomaziaren arloan herrialde arrotzera bidalitako mezularia, bere erregearen etsaigoaren mamitze **ukigarria** den aldetik. Xabier Olarra

Batek dio ez direla geldituko aberastasun **ukigarriagorik** agintzen ez bazaie, beste batek dio agian Jainkoari zerbitzatzeko loriarekin konformatuko direla. Jon Alonso

2 irud/hed

Kolektiboa gauza abstraktu moduan ikusiko dute kide horiek, egundo ez dutelako ikusi eta bizi izan kolektiboa deritzan multzo erreala eta bere abaro **ukigarria**. Jokin Urain

Lanjerra **ukigarri** zen, Aljerrera ari zen soldadu talde tartail eta tematsuarentzat. Itxaro Borda

Froga **ukigarri** bat, neke guztien gainetik fede berriaren zainek lurrik elkorrean noraino kontzen ahal duten. Aingeru Epaltza

Bere minean egiazkoago eta **ukigarriagoa** zen, Juvenaliaren doinua, ordea, Haydn-ena baino. Felipe Juaristi

Karriketan **ukigarria** zen amorrua. Alberto Ladron Arana

Gertaera jakin eta **ukigarriez** hitz egiten hasi bezain laister, ez dago jada ikuspegi pankronikorik. Isabel Arrigain

Francoren harriek tankera **ukigarri** eta zenestesikoa izaten zuten beti. Xabier Olarra

Arte "abstraktua" askoz ere konkretuagoa da, izatez, gai zuzenagoak, **ukigarriagoak** baliatzen baititu. Josu Zabaleta

3 hunkigarria.

Koadernora aldatutako olerki haren aldamenean, hurrengo orrian, emaztearen beraren beste hura aurkituko zuen alargunak egun batean, hil ondoko poema **ukigarri** hura. Imanol Zurutuza

ukigarritasun *iz* ukigarria denaren nolakotasuna.

Telebistan beste **ukigarritasun** bat dute hala ere elikagaiek, janaria publizitatean ere. Jokin Urain

Raimundo Silvak bilatzen duena, honek esanahirik badu, ikusizko **ukigarritasun** -inpresio bat da, definitzen ez dakien zerbait. Jon Alonso

ukigune *iz* ukitze gunea.

Praktikan, ordea, zera gertatzen da: giltzadura mugitzeak eragindako labainketa eta biraketari esker, aldatu egiten dela bi bezurren arteko **ukigunea**. 84x + 5=y lerro zuzenean zehar mugitzen den paralelepipedo angeluzuzen batean, A homoideak [...] **ukigune** bat du B homoide hutsal batekin. Irene Aldasoro

A homoideak C homoide homologo bat aurkitzen badu, **ukigunea**, orduan, [...]. Xabier Olarra

ukika *adlag*

Esperantza poxi bat bereganaturik, atea bilatu du ilunpean **ukika**. Aingeru Epaltza

Agondu eta **ukika** eman nintzen kaperako harlauzetan. Aingeru Epaltza

Horretarainoko zentimetro urrien tarteak gairatzen, bakoitza bere kontrarioa **ukika** ari zen orain, tribu afrikarren bateko esploratzaile ahalketiak iduri. Aingeru Epaltza

Hala eta guzti, neroni ote nintzen ala haizezko mamu txarren bat ote nintzen jakin nahirik, eskuak burura eta bularretara eramanez **ukika** aritu nintzen. Patxi Ezkiaga

ukimen 1 *iz* gorputzaren zentzumena, gorputzaren azal guztian datzana eta gauzen nolakotasun fisikoak sumarazten dituen.

Gizakiok elkar ukitzeko premia daukagu; **ukimena** hizkera modura erabiltzen dugu, eta baita desioa, eszitazioa eta plazera iratzartzeko bitarteko modura ere. Luis

Elberdin

Hasieran, **ukimena**, entzumena eta ikusmena lantzea da egokiena; behin 6 hilabeteik aurrera mugikortasuna handiagoa da, eta psikomotritatea lantzea komeni da. **Berria** - Euskal Herria

Piztiak, berriz, ikusten, entzuten eta objektu gorpuzdunen presentzia usaimenez, dastamenez, **ukimenez** sumatzen. **Imanol Unzurrunzaga**

Zergatik egotzi zaizkion Jainkoari entzumena, ikusmena eta usaimena, eta ez dastamena eta **ukimena**; pentsamendua bai, baina ez irudimena. **Xabier Kintana**

Halakoetan ia banaezina da Francorentzat ikusmen, entzumen, **ukimen** nahiz usaimenaz bereganatutakoa, eta haurtzaro-haurtzaroko esperientzia konplexu eta zenestesikoaren gisara etortzen zaizkio gogora, "egoera perfektuen istanteko lekukotasunak". **Xabier Olarra**

Ondorio hau atera zuen *A New Theory of Visionen*: ez zela inolako lotura ezinbestekorik **ukimenaren** eta ikusmenaren munduen artean; esperientziaren bidez baizik ezin zela ezarri bien arteko lotura. **Xabier Olarra**

Demagun gizon bat itsua dela jaiotzatik, eta, heldua delarik, kuboa eta esfera **ukimenaz** bereizten erakutsi zaiola. **Xabier Olarra**

Sentsazio anitz biltzen dira horretan, hala ikusizkoak nola **ukimenezkoak**, nahiz usaimenezkoak nahiz dastamenezkoak. **Jon Alonso**

Ikuspen optikoaren eta ikuspen "haptikoaren" (edo "ikusmenezko **ukimenaren"**) arteko banakuntza. **Josu Zabaleta**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jainkoari egotzi zaizkion **ukimen**-organoei dagokienez ondoko adibideotan islatzen dira: [...]. **Xabier Kintana**

Argi frogatu da, bestalde, braillez irakurtzen duten itsuengan, agerbide izugarri handia duela irakurtzeko hatzak garun-azalaren **ukimen**-aldeetan. **Xabier Olarra**

Operatu aurretik oso bestelako ideia nuen espazioaz, eta banekien objektu batek **ukimen**-puntu bakar bat bete zezakeela. **Xabier Olarra**

Bezero asko zituen -liluragarria da aditza zer-nolako **ukimen**-xehetasunez deskribatzen dituen-. **Xabier Olarra**

Ukimen animaliak gara; bizitzeko, beharrezkoa dugu uki, laztan eta musuka gaitzaten, baita bizkarrean hazka egin diezaguten. **Luis Elberdin**

Beraz, **ukimen**- eta mugimen-kontzeptutzat zeukan zenbakia gogoan; ez, ordea, ikusmen-kontzeptutzat. **Xabier Olarra**

3 ukia, ukiera.

Larruazalaren **ukimena** duen dardaragailu bat. **Juan Martin Elexpuru**

-Gure dendako zapata-pareek duten berezitasun bat **ukimena** da. **Jasone Osoro**

4 ukimenezko izlag

Musuak **ukimenezko** estimuluak dira, eta musuak ematerakoan [...] zapoak eta usainak ere hartzen ditugu. **Luis Elberdin**

Lehenik eta behin [...] espazioa gure ikusmenezko eta **ukimenezko** sentsazioei, biei, dagokielako batera. **Josu Zabaleta**

Ikusmenezko pertzepziari buruzko espekulazio intelektual soilean ez baina pertzepzio horien eta **ukimenezko** pertzepzioen arteko konbinazioan oinarritzen den objektuaren ikusmolde errealista. **Josu Zabaleta**

Artearen bilakaera (mendebaldeko artearen bilakaera, jakina) "**ukimenezko**" ikuspenaren eta "ikusmenezko" ikuspenaren eraginaren arabera gertatu dela. **Josu Zabaleta**

Hitzezkoa ez den hizkuntza ere oso garrantzitsua dela oso kontuan izan dut beti, batez ere gorputzaren hizkuntza, **ukimenezkoa**. **Luis Elberdin**

Espazioaren kontzeptuaren jatorria ikusmenezkoa adina da, beraz, **ukimenezkoa** eta kinesikoa. **Josu Zabaleta**

Bagin ez dago eszitazio eta plazeraren errezeptore sentikorrik - **ukimenezkorik** -, eta klitoria, berriz, errezeptore sentikorrez josita dago. **Luis Elberdin**

Beste muturrean, polo haptikoa (**ukimenezkoa**) dago, hurbileko ikuspenari dagokiona. **Josu Zabaleta**

Errealitatearekiko erlazio ikusmenezko baino areago **ukimenezko** batean oinarritzen diren arte moduen artean. **Josu Zabaleta**

Sentsazio anitz biltzen dira horretan, hala ikusizkoak nola **ukimenezkoak**, nahiz usaimenezkoak nahiz dastamenezkoak. **Jon Alonso**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dastamena eta ukimena (3)

ikusmenezko ukimenaren (3)

ukimendu iz eskuen bidez ukitzea. ik ukipen.

Kolpeak, poltsa, bainuontzia, mehatxuak, irainak, sexu erasoak, **ukimendu** lizunak eta bortxaketa. **Berria - Euskal Herria**

Nola esan zer-nolako zirrara sortzen duen egun batean eguerdi aldera S autobus baten atzeko plataforman Lisbonne kalearen inguruetan hamar gorputz estutuekiko **ukimenduak**? **Xabier Olarra**

Beldur pixka bat eman zidan, aitortu dut, **ukimenduen** grina etorriko ote zitzaion berriz ere. **Fernando Rey**

ukimenezkotasun iz ukimenezkoa denaren nolakotasuna.

Ukimenezkotasunaren eta ikusmenezkotasunaren paradigma horretan aise ikusten da lehen ere aipatu dugun Hildebranden intuizioa. **Josu Zabaleta**

ukipen 1 iz bi gauza edo gehiagok elkar ukitzea eta horren ondorioa; elkar ukitzen dauden gauzen egoera.

Oinetakoaren barruko azalaren **ukipenak**, luzaroan, orkatila urratu eta zauriak sortu zizkidan alderik bigunenetan. **Urtzi Urrutikoetxea**

Eskua lasaitu zuen, **ukipena** ahalik eta nabariezina izan zedin. **Jose Morales**

Bere artean egin zuen, ilaje beltza leuntzen zuen bitartean, **ukipen** hura irudipen hutsa zela eta kristal batek bereizirik bezala zeudela. **Juan Garzia**

Oinetakoaren barruko azalaren **ukipenak**, luzaroan, orkatila urratu eta zauriak sortu zizkidan alderik bigunenetan. **Urtzi Urrutikoetxea**

Elkar erasaten duten gorputzen arteko **ukipena**. **Piarres Xarriton**

Gizonaren ezpainen **ukipen** bakoitzak halako dardara elektriko batez zeharkatzen zuen. **Patxi Zubizarreta**

Orduan ohartu zen, ordu arte ez bezala, gizonaren gorputzaren **ukipenaz**, izan ere guttiz itsatsia baitzuen, eta haren beroaz jakitun egin zen. **Patxi Zubizarreta**

Aristotelesen aburuz, Lehenengo Motorraren transzendentzia ez da aise adosten munduaren deskribapen mekanikoarekin [...], higitzeko, sakatzeko edo tiratzeko **ukipenen** bat behar da eta. **Askoren artean**

Mutur hotz batek igurtzi zion masaila, eta haren **ukipenaz** bere arimak jauzi egin zuen presentera. **Patxi Zubizarreta**

2 (izenondoekin)

Ezin eutsizko premia sentitzen nuen berriro hura eskuetan hartzeko, ukitzeko, **ukipen** hotz, labain, haserregarri, erogarri, zoragarri hark berriro gaixotzeraino suhar nintzan. Ahaztuta neukan ia-ia bi soinen arteko **ukipen** beroa zer den. **Josu Zabaleta**

Ez dakit zerk eragin zidan une hartako zirrara, ezusteko **ukipen** epelak edo mezuak berak. **Aingeru Epaltza**

Gure azal hotzikaratu haren **ukipen** umela saihesten saiatzen zen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Bai **ukipen** zoragarria! **Patxi Zubizarreta**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Betaurrekoen ordez **ukipen**-leiarrek jarrazki zizkion. Begian **ukipen**-lente bat ipini. **Oskar Arana**

Erakusketa: "Ua lenga, l'Occitan" eta "Euskal Herriko aurpegiak" **ukipen** pantaila. **Herria**

Klitoria ingeniariatza lan bikaina dugu, **ukipen** errezeptorez eta nerbio bukaeraz josia. **Luis Elberdin**

Gure larruazal guztian zehar daude **ukipen** eta laztan errezeptoreak, baina are gehiago genitaletan. **Luis Elberdin**

Ukipen korpuskulu horiek gure larruazalean zehar ez daude modu homogeneoan banatuta. **Luis Elberdin**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nik zurekin nuen begi-**ukipena** hautsi zuen. **Iñaki Mendiguren**

5 irud/hed

Eskema kanonikoari men egin gabe, autore ustez bigarren mailako batengan halako **ukipen**-puntu, hunkipen-puntu ezkutuak bilatzen dituzu. **Iñaki Iñurrieta**
g eta n kantitate homogeneo gisa hartzen diren artean, ez da ulertzen zergatik diren desberdinak, g-n **ukipenak** dakartzan ondorioak, eta n-g-ak ekarriko lituzkeenak.

Isabel Arrigain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ukipen errezeptore (3); **ukipen errezeptoreak** (3); **ukipen errezeptorez** (3)

ukipengune iz ukitze gunea.

Filologiari dagokionez, gauza bat guztiz erabakia dugu dagoeneko: linguistikaz arras bestelakoa da filologia, bi zientzien arteko **ukipenguneak** eta elkarri egiten dizkieten zerbitzuak gorabehera. **Isabel Arrigain**

ukittu 1 iz adkor ukitua.

Barne-ordoki edo meseta aldetik datorren haize lehorra izan arren, nahiz penintsula aldetik nahiz Nafarroaldetik etorri, garai honetan, mendi elurtuen **ukittua** ekarri ohi baitu.

Pello Zabala

Urriaren kaxkotik, udazkenari udaren **ukittua** malgutzen eta ahultzen zihoakioneko egun baketsuak zegozkion. **Pello Zabala**

Beste edozein amak bezala "badakit drogak hartzen dituzula lagunekin ibiltzen zarenean"-edo esan ziezazukeen, baina ezin geratu **ukittu** guay hori eman gabe. **Jokin Muñoz**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zure ahotsak desafio **ukittua** du. **Lourdes Oñederra**

Indiferentzia **ukittu** bat ematen zioke horrek hire jardunari. **Jokin Muñoz**

Antzematen zaio udaberriko arin **ukittu** hori ere baduela. **Pello Zabala**

ukitu¹, uki, ukitzen (orobat ikutu g.er. eta ukutu g.er.) 1 du ad gorputzaren zati batez, hatzen puntez eskuarki, edo gauzaki batez, norbaiten edo zerbaiten gainaldea iritsi. ik hunkitu 3.

Ukimen animaliak gara; bizitzeko, beharrezkoa dugu **uki**, laztan eta musuka gaitzaten. **Luis Elberdin**

Ikusi, aditu, **ukitu** edo probatu gabe, harrizkoak lirateke gure sentimenduak. **Patziku Perurena**

Sentitu ahal izateko, ikusi egin beharra daukagu aurrena, edo entzun, **ukitu**, usaindu edo probatu. **Bernardo Atxaga**

Ez bainuen neska **ukitu** nahi. **Joxe Austin Arrieta**

-**Uki**, **uki**, ez dik ausiki egiten-eta -burlatu da presonerra. **Aingeru Epaltza**

Ezinezkoa zait lo hartzea **ukitzen** nautenean. **Itziar Otegi**

-Hator hurbilago, seme; **ukitu** egingo haut, egiaz nire seme Esau haizen jakiteko. **Jose Antonio Mujika**

Santuak, errukiz beterik, eskuak **ukitu** eta sendatu egin zizkion. **Askoren artean**

Ukitu egin nahi zuen animalia, alde guztietatik haztatu. **Xabier Olarra**

Lur osoko Jabe den Jaunaren itun-kutxa daramaten apaizen oinek Jordanekeko urak **ukitu** bezain laster, eten egingo da ibaia. **Jose Antonio Mujika**

Jakaren poltsikoan eskua sartu eta gutuna **ukitu** zuen, seilurik gabe heldu zitzaion gutun bakarra, gutun beltza. **Joxemari Urteaga**

Irrikatan nengoen erositako liburuak **ukitu**, haien paper- eta tinta-usaina sentitu, eta orriak banan-banan pasatzeko. **Anjel Lertxundi**

Ez, har ezak, **ukitu** eskuaz belarriak. **Jose Morales**

Eskua luzatu nion, bizkarra **ukitze**. **Josu Zabaleta**

Ohearen ertza belaunez **ukitzen** nuela, Bibotea eta betaurrekoak obsesiboki **ukitzea**. **Joan Mari Irigoien**

-Kontuz, ez **uki**! **Koldo Izagirre**

Pasatu eskua eta **ukitu**: zuen eskuek ez dute hain mihise leunik gozatu. **Anjel Lertxundi**

Hatz baten ertzarekin bularra **ukitu** zion arinki. **Ibon Uribarri**

Neskatoaren ezpain itxiak **ukitu** zituen bere ezpainekin. **Ibon Uribarri**

Zeren oinaztura batek argitu baitzuen ene beldurraren eta ene bertze mugen baso iluna, haren ezpainek eneak **ukitu** orduko. **Joan Mari Irigoien**

Aurrera noa, eskua luzatu dut, mugarria **ukitzen** dut. **Monika Etxebarria**

Bere eskuak kristala **ukitu** gabe, ateak bira egin zuen. **Lopez de Arana**

ik ukitugabe.

Gogor zentzatu zuen dirua eskuekin **ukitu** zuen anaia. **Askoren artean**

Orduan haren zakil gogorrek masaila **ukitzen** ziola sentitu zuen. **Karlos Zabala**

Edalontzia pixka bat okerturik, mihi-puntaz **ukitu** zuen edaria. **Anjel Lertxundi**

Kristala emeki **ukitu** beharra zeukan bi hatz erakusleen azazkalez. **Xabier Olarra**

Buxi doktoarek, azken bonbardaketak irau bitartean, lizunkeriak **ukitu** zuen neskata bat babesleku antiaereoan. **Patxi Zubizarreta**

Erregeak urrezko makila luzatu eta Ester **ukitu** zuen. **Jose Antonio Mujika**

Edan nuen, bada, eta makilatxoaz **ukitu** ninduen, neure izenez deitzen zidan bitartean: [...]. **Juan Kruz Igerabide**

Begietako nerbioak orratz ikustezin batez **ukitu** balizkidate bezala. **Joan Mari Irigoien**

Zilar nitratzoko soluzio baten tantatxo batekin **ukitu** nuen jalkina. **Juan Garzia**

Hurbildu eskua poliki-poliki pantailara, **ukitu** pantaila poliki-poliki, ia sentitu gabe. **Antton Olano**

2 irud/hed

Bat-batean Jaunak bihotza **ukitu** zion. **Askoren artean**

-Jainkoak guztiok **ukitzen** gaitik behin edo behin, eta hi ere **ukituko** hau egunen batean, zeren eta hi ez baihator honat kasualitatez, baina Jainkoaren borondatez. **Joan Mari Irigoien**

Badira gauak izpirituek **ukitzen** zaituztela iruditzen zaizunak, arimak zergatik gabe ikara hartzen duena. **Josu Zabaleta**

Jainkoaren garaziak **ukitu** baininduen eta aldatu, baita gogoberritu eta biziberritu ere. **Joan Mari Irigoien**

Libertatezko sentimendu handi bat neureganatzen nuen, gorputz haiek **ukitu** orduko libertatearen lurrak **ukitu** banitu bezala. **Joan Mari Irigoien**

I. jaunaren ikusmen-kortex primarioa funtsean **ukitu** gabe zegoen, eta kortex sekundarioa zen [...] lesioaren ia zama guztia jasan zuena. **Xabier Olarra**

Argi ikusiko da zein erro sakonak egin dituen eslabiarrengan beste herriak azaletik soilik **ukitu** dituen dohan horrek. **Jose Morales**

Adela ez zuten **ukitu**, eskuren baten babesak kalte orotatik libratu izan balu bezala. **Juan Kruz Igerabide**

Gizon asko **ukitu** zuten azotearen hatz beltzek. **Juan Garzia**

Ukitzen duzuen guztia baldartzen duzue. **Anjel Lertxundi**

3 aldatu; erasan, eragin.

Erdiko gangei eusten zien zutabea besterik ez zuen utzi **ukitu** gabe. **Xabier Olarra**

Bitariko zatiketa honek, ordea, ez du **ukitzen** liburuaren mamia. **Ibon Uribarri**

Bozkatu aurretik Sharonek ez du koalizioa **ukituko**. **Berria - Mundua**

Arima garbi daukagunok, ez gaitu horrek **ukitzen**. **Juan Garzia**

Bereizketa logikoa baino ez da eta ez du edukia **ukitzen**. **Ibon Uribarri**

Arnasari eusten zion ezkila itxurako oihal baten kurba, besape gunea, [...] gona baten jauskera berriz **ukitu**, zuzendu edo atzera trazatzerakoan. **Joxan Elozegi**

Aspergerrek berak aipatzen zuen "adimen autista", tradizioak eta kulturak ia **ukitu** gabeko adimen mota. **Xabier Olarra**

Adibide hauetan guztietan, erradikalaren elementu bat **ukitu** da. **Isabel Arrigain**

Halere, geografiak, berez, ez du hizkuntzaren barruko organismoa **ukitzen**. **Isabel Arrigain**

–Bizkaiko haizeak **ukitu** zio! **Lutxo Egia**

Iruzur horrek eta berari buruzko ardurak, ordea, idealismoa zein dualismoa **ukitzen** dituzte. **Ibon Uribarri**

Inork aukera behar bezala eta zuzenki egin badu, aukera aldakorri dagozkion gauzez eta ez haragiari eta munduari **ukitzen** diotenez [...]. **Patxi Altuna**

Bisita hark bizitza osorako **ukitu** baininduen, markatu ninduen eta zigitatu ninduen. **Joan Mari Irigoien**

Erregeren barkamenak Joanes Lüküzeko baroia bera **ukitu** zuen. **Aingeru Epaltza**

Etzetik irten nintzenetik ez nuen egunerokoa **ukitu** ere egin, eta Elsbethekin, berriz, oso bakanetan oroitu nintzen. **Anjel Lertxundi**

Orain arte ez dut inoren eskubiderik **ukitu**, ezta inorengandik eskupekorik jaso ere. **Patxi Ezkiaga**

Karlos Setimok gauza bat erakutsi nahi zion batez ere bere anaiari: Lizarra Espainiako hiriburu "normala" zela; nahiz gerraren irautearen ondorioz militar kutsuak galanki **ukitua**. **Txillardeggi**

Alta, Jainkoa (gorets bedi!) nola edo hala pasiboki **ukitua** balitz, Bera ez den zerbaitek bere baitan eragingo luke, alegia, aldatetaren bat lekarkiokeanak. **Xabier Kintana**

Gizakien Erregeetako bat, garai hurbilagoetan jaioa, baina Arraza Zaharren jakinduriak eta tristeziak **ukitua**. **Agustin Otsoa**

Estatuek, lehenik eta behin direktibak **ukitutako** sektore bakoitzak doan zenbat karbono dioxido isuri dezakeen erabaki dute. **Berria - Ekonomia**

4 (ezezko esaldietan) erabili.

Ukitu ere ez dut egin zure papertxo hori! **Jose Morales**

Mahai gainean **ukitu** gabe zeuden libreta eta grabagailuari zehar-so egin zien. **Aingeru Epaltza**

Isilpean jaiki, oinetakoak jantzi; pijama **ukitu** gabe eguneko arroparekin sartuak geunden ohean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Salto batean jaiki nintzen eta, janaria **ukitu** ere gabe, plazara joan nintzen. **Jose Antonio Mujika**

Ez zuen pizza **ukitu** ere egin mahaian aurrean jarri ziotenean. **Oskar Arana**

Gelak airea behar zuen, ordea, bakarrik geratu eta hirugarren asterako berriro erretzen hasi bainintzen, bost urtean tabakoa **ukitu** gabe egon ondoren. **Iban Zaldúa**

Oihan zoragarria da, **ukitu** gabea, eta ez da gizakirik bizi han. **Berria - Gaiak**

Haren gauzak erakutsi nizkien, bere lekuan denak, **ukitu** gabeak. **Koro Navarro**

-Ez **ukitu** leku hau. **Jose Morales**

5 bi gauza elkarren ondoan gertatu, tartean hutsarterik gabe; indarrak gabe jo.

Hurbildu eta hurbildu, eta behin ere **ukitzen** ez. **Juan Garzia**

Ontziak kaia **ukitu** orduko, ontziratu, eta bidaiariaren puskak miatzen hasten dira soldaduak. **Jon Muñoz**

Lehen aldiz, kometa bat **ukitzen** saiaturko da NASA, 2005. urtean. **Berria - Gaiak**

Azkoitiko joera, dantzan suelto, elkar **ukitu** gabe, zuan paradisua, eta Zumarragako balseoa, aldiz, infernua. **Pako Aristi**

Gerta liteke likido-geruza lubrikatzailea ezin mantendu izatea, eta bi gainazalak ia elkar **ukitzea**. **Irene Aldasoro**

Elkar **ukitzen** ez zuten plano eta lerro paraleloak. **Imanol Zurutuza**

Ahoek elkar **ukitu** zuten eta musua ezpain eta mihi jate erabateko bihurtu zen. **Jon Alonso**

Arietea harrapatuz, danbor baten bitartez dibidietak biraraziz eta arietearen burua airean esekiz, ez zioten utzi harresia **ukitzen**. **Santiago Iruretagoiena**

Erromatarren teatroan lau triangeluren aldeek **ukitzen** zuten zirkunferentzia, eta teatro grekoaren kasuan, lau karraturen angeluek **ukitzen** dute delako zirkunferentzia hori. **Santiago Iruretagoiena**

Atzera egin zuen, bizkarrarekin fatxada **ukitzearaino**. **Ramon Saizarbitoria**

-Jar nazak etxeko zutabeak **ukitzeko** moduan, atsedean har dezadan haietan. **Jose Antonio Mujika**

Zirkulu bat egingo da proszenioaren ezkerreko alde **ukitzearaino**. **Santiago Iruretagoiena**

Bat-batean zerbaitek aurpegia **ukitu** zidan. **Pako Aristi**

Hatz-mamien eta bizkarraren tartea are estuagoa bihurtu dut, ia-ia **ukitu** arte, ia-ia azal biluziarekin bat egin arte, ia--ia... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eguzkiak ez du ia ezkultaldirik izanen, gauerdian uraren muga ozta ozta **ukitu** eta berriro hasiko da igotzen. **Joseba Sarrionandia**

Autoa txikia zen, utilitario bat, eta gorputza aurrerantz makurtuta gidatzen zuen, bolantea sudurraz **ukitzearaino** ia. **Ramon Saizarbitoria**

Urak egundo ez zuen haren begitartea **ukitu**, ezta haren gorputza ere. **Patxi Zubizarreta**

Bonbek herriko zubia **ukitu** ere ez zuten egin? **Alberto Ladron Arana**

Sofistikatua baina ez gehiegi, utzikeria: **ukitu** ondo estudiatu batzuekin. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ukitzeko bezain gertu iragan naiz haren aldamenetik. **Monika Etxebarria**

6 gai batez aritu, eskuarki gaingiroki.

Kapitulu honetan **ukitu** diren arazoetan zertxobait sakontzeko aukera ematen duten sarrerako bi obra. **Josu Zabaleta**

Lehenago ere gai hori **ukitua** dugu. **Xabier Kintana**

Apaizak, hasierako asmoa utzita, zalduneria gairik ez **ukitzeko** asmoa alegia, Don Kijoteren sendatzea egiazkoa ala axal-hutsekoa ote zen ikusi nahi izan zuen. **Patxi Ezkiaga**

Erabateko eta guztizko desadostasuna zen; edozer gai **ukitzea** aski zen aiherkundea piztu zedin. **Josu Zabaleta**

Denetariko gauzez hitz egin dik, gaingiroki **ukitu** ditik gai guztiak, liburuetan irakurritako guztia esan dik, hitz ederrez gainera. **Jose Morales**

Badago gai bat oraindik **ukitu** ez duguna: entitate abstraktuak gramatikan. **Isabel Arrigain**

Gure helburua ez dela kapitulu horretan bereziki **ukitu** den gaiari buruz arreta piztea. **Xabier Kintana**

Margolan indartsu baina nahiko beldurgarri eta arrotz haietatik, hogeita hamar urtez **ukitu** ez zituen gaietara pasatu zen. **Xabier Olarra**

Bertsolaritzak orain arte **ukitu** ez zituen forma eta eremuak bilatzearen alde. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

7 hunkitu.

Biziki **ukitu** zuen berri txar hark, ezagutzen ez zuen pertsona haren heriotzak. **Imanol Zurutuza**

Jakitun zela horretaz, ez zutelako alemanen bihotza benetan **ukitu**, haiekien erabilitako propagandak ez zituztelako erdi-erdian jo. **Felipe Juaristi**

Evak ezin izan zuen orduz gerotzik Adanen anima **ukitu**. **Lourdes Oñederra**

Azken honek zentzu batean bakarrik daki bihotza **ukitzen**. **Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio**

Horra bihotzean **ukitu** nauen hitza. Patziku Perurena

Nola **ukitu** ninduen aitaren erran hark, eta nola sentitu nituen bi ele haiek -garaile eta galtzaile- [...] gaua eta eguna bezala! Joan Mari Irigoien

8 (era burutua izenondo gisa).

Halako oroitzenak operazio-gelan ere sorraz daitezke, baldin eta operatzean elektrodo bidez estimulatzen bada lobulu tenporaletako alde **ukitua**. Xabier Olarra

Honetan ahotsa du xake-jokalari intransigenteen esaerak, *peza **ukitua**, peza jokatua*, Alekhine maitea, idatzi dena idatzita dago. Jon Alonso

9 ezin ukitutako izlag ik ukiezin.

Horregatik agian hartu izan da, gaur egun arte, **ezin ukitutako** elementutzat. Askoren artean

Ben Evansen dendako neska bat bezain orbangabe eta **ezin ukitutako** zen. Koro Navarro

Jainkoak [...] ez du irudi beharrik, ariman egiten du lan, hobeto esan, arimaren **ezin ukitutako** zolan, sekula irudirik iristen ez den hartan. Joan Mari Lekuona

Museoko paretaren kontra katilu bat teren truke itxurak egiten zituzten emakume gaizto, zarpailengatik, eta modako aldizkarietatik ateratako emakume perfektu **ezin ukitutakoengatik**. Koro Navarro

10 ukitu/uki ezinezko izlag ezin ukitutako.

Teilatua eta alboak urdinak eta **ukitu ezinezkoak** zituen oskol bat, ortzi biribila bezain altua eta hutsa. Koro Navarro

Elizaren gangan margotuta dagoelarik, **uki ezinezkoak** izateak ematen dio, aurrekoek gainera, bere ilusioa eragiteko indar eutsi ezinezkoak trompe-l'œil ospetsu horri. Josu Zabaleta

11 giharrean ukitu

Zure jatorri erromantikoaren kondairak [...] nire izatasunaren barren-barreneko **giharrean ukitu** nau, jakina. Antton Olano

Auzi korapilatsuan sartu zarete, eta **giharrean ukitu** duzue. Berria - Ekonomia

Amaren bitzita errukarriaren ikuspegiak **gihar-giharrean ukitu** zuen. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

arinki ukitu (5); **asko ukitu** (4); **aurpegia ukitu** (7); **baloia ukitu** (7); **belauna ukitu** (4); **bera ere ukitu** (4); **bera ukitu** (4); **berriro ukitu** (5); **besoa ukitu** (5); **bihotza ukitu** (6); **bizkarrean ukitu** (4); **bularra ukitu** (5); **bularrak ukitu** (5); **doi doi ukitu** (6); **doi ukitu** (6)

elkar ukitu (21); **elkar ukitu gabe** (8); **elkar ukitu zuten** (4); **emekia ukitu** (4); **ertza ukitu** (10); **ertza ukitu zuen** (4); **eskua ukitu** (9); **eskuak ukitu** (8); **eskuarekin ukitu** (4); **eskuaz ukitu** (8); **eskuekin ukitu** (6); **eskuez ukitu** (4); **eskuz ukitu** (11); **ezar ukitu** (10); **ezpainak ukitu** (8); **gorpu bat ukitu** (4); **gorputza ukitu** (5); **harria ukitu** (4)

ia ukitu gabe (4); **ikusi eta ukitu** (5); **ilea ukitu** (6); **inoiz ukitu** (4); **inork ukitu** (7); **kontu handiz ukitu** (4); **lurra ukitu** (17); **luzatu eta ukitu** (7)

oihala ukitu (6); **pixka bat ukitu** (6); **puntaz ukitu** (5); **sekula ukitu** (4); **sorbaldak ukitu** (10)

ukitu eta esan (8); **ukitu eta ukitu** (4); **ukitu gabe** (118); **ukitu gabe zegoen** (6); **ukitu gabea** (6); **ukitu gabeko** (12)

ura ukitu (8); **urak ukitu** (4); **zakila ukitu** (7); **zerbait ukitu** (7); **zerua ukitu** (5); **zorua ukitu** (5)

elkar ukituz (9)

elkar ukitzea (4)

elkar ukitzea (8); **eskua ukitzea** (4); **ukitzea aukera** (5); **ukitzea gogoa** (7); **ukitzea moduan** (11)

aldiz ukitzen (4); **apenas ukitzen** (4); **asko ukitzen** (7); **baloia ukitzen** (9); **berriro ukitzen** (5); **bihotza ukitzen** (4); **bizkarra ukitzen** (4); **doi doi ukitzen** (6)

elkar ukitzen (22); **elkar ukitzen zuten** (6); **ertza ukitzen** (4); **gaiki ukitzen** (4); **gutzia ukitzen** (4)

ikusten eta ukitzen (6); **lurra ukitzen** (13); **masaila ukitzen** (4); **nola ukitzen** (5); **ozta ozta ukitzen** (4); **ozta ukitzen** (4); **soilik ukitzen** (4); **sorbaldak ukitzen** (4)

ukitzen dituen kutsaturik (4); **ukitzen duena kutsaturik** (5)

zakila ukitzen (5); **zerua ukitzen** (10); **zerua ukitzen zuen** (6)

ukitzera ausartu (4)

ia ukitzera (4)

ukitu² 1 iz ukitzea. ik uki.

Pikturalismoak [...] lehen ikusian artistiko izango ziren obrak egin nahi izan zituen, horretarako manipulazioak, **ukituak**, urratuak ugari eginez. Josu Zabaleta

Margolari askok kolorea banatzen eta jartzen duen eskuaren eginkizuna, **ukituaren** eginkizuna azpimarratzen dute beren idatzietan. Josu Zabaleta

Ukitua eta usaina bihotzera heldu zaizkio Joxani. Paddy Rekalde

Mesalinaren **ukituak** nerbio guztiak tentetu zizkion. Fernando Morillo

Sethek dardara egin zuen, zapi baten **ukitua** sentitu zuenean larruan. Anton Garikano

Norbaiten ukondoaren **ukituak** esnatu zuen. Xabier Aranburu

Hatz haien **ukituaz** oroitzen zen Sethe, bereak baino ezagunagoak zituen eta. Anton Garikano

Kantaren izena *The touch of your lips* baitzen, "Zure ezpainen **ukitua**". Bernardo Atxaga

Gizasemearen ile busti leunaren **ukitua** sentitu nahi izaten zuen. Mirentxu Larrañaga

Oinen azpian belar bigun ongi zainduaren **ukitua**. Oskar Arana

Esku sakratu haien **ukitu** leuna sentitu bezain laster, gangrena desagertu zen. Askoren artean

Gauza da bere ezpainen freskotasuna sentitu nuela; eta ustekabeko eta konpromisozko **ukitu** hark gerora jasoko nituen laztan sukartsu guztiak baino zirrara handiagoa eragin zidan. Ramon Saizarbitoria

Lasaikiro, gorritzko **ukitu** bat eman zuen ezpainetan. Lopez de Arana

Auzoko ileapaindegiko propaganda txarteltxoari puska bat kendu eta hoditxo bat egin dut biribilduz; ezpainek kartoiaren **ukitua** behar dute. Pako Aristi

Egungo euskal aho-ukituaren analisia: gaztelera eta frantsesarekiko elkar-**ukituen** azterketa. Lourdes Oñederra

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kapela-**ukitu** batzuk egiten zituzten artean ere. Monika Etxebarria

Irudiaren beraren materia, atzemateko gaia den heinean, margolaritzan "pintzel **ukitua**" atzemateko. Josu Zabaleta

Fusio-sukaldaritzan: lehengaiez (beren aho-**ukitu**, usain, zapore, kolore eta guzti), egospenez [...] eta gainerakoek osaturiko sukaldaritzan mestizatua. Edorta Agirre

3 irud/hed

Koñakaren **ukitu** beroek beren lana egin zuten. Bernardo Atxaga

Ukitu epel, umel eta apur bat itsaskorra sentitu nuen. Urtzi Urrutikoetxea

"Goi-goiko, ahalguztidun, Jaun onaren" dohain da gutzia eta haren aztarna eta **ukitua** darama. Askoren artean

4 konpontze edo antolatze arina.

Ipuina etxean bukatuxea nuen bezperatik, azken **ukituen** faltan. Aingeru Epaltza

Pedro Huizi azken **ukituak** emaiten ari zitzaion santa Klararen erretratuari. Joan Mari Irigoien

Arrain-zopari azken **ukituak** ematen. Mirentxu Larrañaga

Begira nuela ederki jakinda, **ukitu** batzuk egiten nituen ezpain-barrak eta makillajeaz. Karlos Zabala

Botoitoxa sakatu aurretik, atariko kristalean, **ukitu** batzuk eman zizkion bere buruari. Migel Angel Mintegi

Ez zen aparteko emakumea, baina janzkerari eta itxurari **ukitu** batzuk emanaz gero [...]. Migel Angel Mintegi

Jackek bazituen argitaratu gabeko ipuin batzuk, eta niri berdin gertatzen zitzaizkidan; **ukitu** batzuk eman, izenburu probokatzailerantzeko batzuk ipini, ipuin berriren bat gehitu, eta bilduma bitxia osatuko genuen. Iban Zaldúa

Erokeriazko ikaragarri batean oldartu ginen azkenerako, baina ez naiz batera damutzen - **ukitu** txiki batzuk egingo nituzke, besterik ez. Karlos Zabala

5 xehetasun ezaugarria.

Alde batetik oso erromantikoa izan zitekeen gutunari **ukitu** hura ematea, baina modaz pasatako **ukitua** zela iritzi zion, berehala. Joxemari Urteaga

Ez da tradizio monastikoaren **ukitua** ere falta, San Benediktoren Erregela eta Hugolino kardinalak eman zizkien xedapenak medio. Askoren artean

Itxierako erredaktoreak bere **ukitu** pertsonala uzteari uko egina zion behingoz, nire erreportaiei zegokienez. Aingeru Epaltza

Mutiko itsu gaixo horrek ez du gizatasunaren **ukitu** handirik; bestek eraginik bezala diharduen egile inkontziente bat dirudi emanaldietan. Xabier Olarra

Aristokraziaren **ukitu** distiratsua erekin hornitu nahi zuten beren burua. Bernardo Atxaga

Imintzio horiek oso **ukitu** garratza ematen zieten haren eztenkada satiriko ugariei. Izenburua aldatu, argitaratzaileak berak aukeratutako *Goragalea* jartzeko, bata, eta bestea aldaketa batzuk egitea, **ukitu** "populistenak" kentzeko. Jose Morales

Enrikek halatsuko **ukitu** bat zuen. Iñaki Iñurrieta

Eta larderiaren **ukitua** ere badik. Txillardegi

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Orson Welles zahartuaren antz urrutiko bat sumatzen zion, munstro **ukitu** batez-edo. Iñaki Iñurrieta

Parajeek, inguruek, estazioetan ikusten genuen jendeak, bizilekuek eta txabolek azti-**ukitua** zeukaten. Gotzon Garate

Dotorezia neurritzkoa, fantasia **ukitu** batekin. Monika Etxebarria

Desolamentu **ukitua** areagotzen dute. Edorta Jimenez

Irribarreak, ezta eta halaber tristezia **ukitua** zuenak, liluratu egiten ninduen. Ramon Saizarbitoria

Sofistikatua baina ez gehiegi, utzikeria-**ukitu** ondo estudiatu batzuekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Erregu **ukitua** zuten begi izutuekin begiratzen zion noiz bukatuko zain. Bego Montorio

Deskribapen gogoangarriak egin zituen aranaren azalaren argizari-**ukitu** labainaz, muxiken bixar-**ukitu** goxoaz eta nektarinen leuntasunaz. Xabier Olarra

Emakumeak erakarri egiten bainau, haren "begi edo tristeek, bakardade-**ukitu** batez tindatuak". Eskarne Mujika

Bioletaren mirespena ergeltasun **ukitu** baten adierazle ere bazela iruditzen zitzaidan. Ramon Saizarbitoria

Gero, boza eta behakoa gogortasun **ukitu** baten inguruan lotzen zituela, erran zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Weldon andrea ez zen bereziki **ukitu** -emaile abila. Mirentxu Larrañaga

8 ukia.

Ukitu leuna du koadernoak. Anjel Lertxundi

Ukitu leuna zuen arren, ezin zuen ikusi eskuaren ehundura fina. Ibon Uribarri

Ukitu arraroa zuen, ura ehundu eta material bihurtu zela ematen zuen. Iñaki Mendiguren

Sentimenei on eta **ukituari** txar zaizkion zer guztiak egitura ezberdina daukatelako dira elkarren kontrako. Xabier Amuriza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bakardade ukitu (3); **beste ukitu** (10); **beste ukitu bat** (6); **fantasia ukitu** (3); **halako ukitu** (10)

ukitu arin (3); **ukitu bat eman** (4); **ukitu bat emanez** (3); **ukitu bat ematen** (7); **ukitu batekin** (12); **ukitu baten** (3); **ukitu batez** (13); **ukitu batzuk** (12); **ukitu batzuk eman** (4); **ukitu berezia** (10); **ukitu berezia ematen** (3); **ukitu horiek** (3); **ukitu ironikoa** (3); **ukitu leuna** (5); **ukitu leunak** (3); **ukitu pertsonala** (3); **ukitu txiki** (4)

umore ukitu (4)

azken ukitua (15); **azken ukitua ematea** (3); **baten ukitua** (6); **bere ukitua** (6); **ukitua eman** (6); **ukitua ematea** (3); **ukitua ematen** (7); **ukitua sentitu** (3); **umore ukitua** (3)

azken ukituak (32); **azken ukituak eman** (4); **azken ukituak ematen** (10); **sexu ukituak** (3); **ukituak eman** (7); **ukituak ematen** (11)

ukituren bat (3)

ukitudun *izlag* ukituko.

Adituek bebop **ukitudun** hip jazz legez definitu dute musikari suediarren estiloa. Berria - Kultura

ukitugabe *izond* ukitu gabe dagoena.

M sistema **ukitugabeaz** baliatu beharrak eta hura erabiltzeak eraginik. Xabier Olarra

Tunelaren urrutiko ertzetik, akabutik, Andoniren begien kolorea, Andoniren ahotsaren, ahots haren sendotasuna, Andoni gaztea zeneko sendotasuna, zu gazteagoa zineneko ziurtasuna, zure barru **ukitugabea** nahita eman zenioneko sinesmena, gelditzen zaizun dena berarengan bukatzeko kontsolamendua. Lourdes Oñederra

ukituka *(orobat ikutuka) adlag* ukituak eginez.

Txano Gorritxoetako bati ipurdian **ukituka** ari zaio, eta horretan segitu du, ilarako nesken barre-algarak lagun. Jokin Muñoz

Eskuekin **ikutuka** ibili nintzen bitarteren bat aurkitu nahirik. Juan Martin Elexpuru

Bai, niri **ukituka** eta zirri eginez barre-algara batean hasten zen, irri-ajataka! Fernando Rey

Begiak erabiltzen zituen eta ingurura begiratzen zuen, edo, bestela, haztamuka eta **ukituka**, "itsu gisa portatzen zen". Xabier Olarra

Azkenean, ispilutik baztertu eta begiak itxi, edo argia itzali, eta **ukituka** bukatzen zuen lana. Xabier Olarra

Haren zakila sentitu nuen nire uzki ingurua **ikutuka**. Juan Martin Elexpuru

ukitutto *iz* ukitutxoa.

Aldiz, haizeak intseguru aldakor **ukitutto** bat duela, presioak ezinegon urdurixkoa hartu duela, itsasoak brisara umela inguratzen digula, edo hego haize pixu kargante ustela arimatzeko joera hartu duela... Pello Zabala

ukitutxo 1 *iz* ukitu txikia.

Beraz, **ukitutxoak** eta **ukitutxoak** egin zizkioten, eta gero ukitu gehiago ere egin zituzten. Julen Gabiria

Ukitutxoak egiten dizkiote elkarri aurreko zein atzeko hankatxoekin. Jose Morales

Lunetei **ukitutxo** bat eman die, eskularruak jantzi ditu, hiriaren azalean barrendu da. Eider Rodriguez

Musuzapiaz **ukitutxo** arinak egiten zizkien begiei, mugimendu oro doi-doi neurtzen ahaleginduz. Mirentxu Larrañaga

Ernest Weldonen emaztea harat-honat zebilen egongela txukun ordenatuan, emakumezkoen **ukitutxo** horietako batzuk emanez. Mirentxu Larrañaga

Argi-oiilar bat, esnea bezain zuria, garezurrean tente hiru luma hori argi zituena eta barrualdeko itsatsean, berriz, arrautza koloreko **ukitutxo** bat. Jon Muñoz

Banuen delikadeziazko **ukitutxo** eme hori, gero futbol-zelaietan batere igartzen ez zitzaidana. Joan Mari Irigoien

Porruak garbitu, azenarioa zuritu eta txikitu, patatekin berdin, eta azkenik bere **ukitutxo**a: tomate gorri bat azal barik.

Unai Iturriaga

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Halako batean isilean, xuxurla moduan, labekada berri bat agertzen da auskalo zerk bultzatua (ondo egindako aurrelana, zori helezina, magia **ukitutxoak**...). **Berria - Kultura**

Neska haren familia osoak zuen halako anormal-**ukitutxo** bat. **Josu Zabaleta**

ukitzaile iz geometrian, beste lerro bat ukitzen duen lerroa. iktangente.

Garai hartan, desagerkor deitzen zitzaien infinituki txikiei, eta tangenteei, berriz, **ukitzaile**. **Jon Muñoz**

Kurba bateko arku infinituki txiki bat **ukitzaileari** dagokion zuzenkiarekin berdindu daiteke. **Jon Muñoz**

Kurba bati jarraitzen dion puntu baten mugimenduaren norabidea kurbaren **ukitzailea** da, puntuaren kokaleku bakoitzean. **Jon Muñoz**

N eta L ohartu zirenez, matematikariak ordu arte lan eginak ziren bi norabide desberdinak -**ukitzaileak**- zehaztea eta azalerak kalkulatzeari gertaera beraren bi aldeak ziren azken batean, eta bazegoen batetik bestera iragatea. **Jon Muñoz**

Ukitzaileetatik abiatuta, kurbara jo zitekeen berriz; funtzio deribatutik bera deribatua zen funtziora jo zitekeen berriz. **Jon Muñoz**

ukitze 1 iz gorputzaren zati batez, hatzen puntez eskuarki, edo gauzaki batez, norbaiten edo zerbaiten gainaldea iritea.

Hurrengo batean ere **ukitze**, laztantze eta jolas horietara joko du, atsegin baititu, sentipen berriak eta plazerezkoak baitira. **Luis Elberdin**

Ferekak, **ukitzeak**, zirriak, hezetasunak. **Luis Elberdin**

Haragi bizitan ukitzen baduzu, nahiz eta puntutxo ñimiño batean izan, puntu hori gorputzaren osotasunean ia nabaritzen ez bada ere, arima oso-osorik ohartuko da **ukitze** horretaz. **Imanol Unzurrunzaga**

Lumaren **ukitze** bakoitzak zorion-astindu bortitzak eragin zizkion emaztekiari. **Josetxo Azkona**

Kilikagarría zitzaidan osaba maitagarriarekiko **ukitze** eta kontaktu oro. **Aitor Arana**

Eta azal hartan barrena, zenbat bide eta bideska hauteman nituen, guztiak ere hatzez eta **ukitzearen ukitzez** ibiltzekoak izan zitezkeenak edo bista hutsez. **Joan Mari Irigoien**

2 (izenondoekin)

Bere ondotik igarotzean, Ellenek mutilaren **ukitze** arina sumatu zuen. **Lopez de Arana**

Laztan bat izan zen, **ukitze** goxo baino goxoago bat, igurtzi arin baino arinago bat burmuina leherrarazi zidana. **Jon Muñoz**

Akusatuak **ukitze** lizunak egin zizkien. **Berria - Euskal Herria**

Esaten zutenez, nazka ematen zion kristal lodiko edalontzi bat **ukitze** hutsak. **Bernardo Atxaga**

Zer interes ote du lehen neskaren bularra **ukitze** hutsarekin hazia isurtzen duen gaztetxo herren baten historiak? **Juan Kruz Igerabide**

Kolibri diseakatu bilduma bat, zeinak **ukitze** hutsaz hauts bilakatu baitziren. **Juan Garzia**

Bestela, **ukitze** soila heriotzaren aski eragile litzateke, ez bailegoke gorputz iraunkorreko ezer, zeinaren bilbea indar aparteko batek desegin beharko lukeen. **Xabier Amuriza**

Mahaira eseri ginenean, tikek eta buru gainean zeukan kristalezko lanpara-estalkiaren **ukitze** konpulsiboek behin eta berriz galarazten zioten Bennetti arreta. **Xabier Olarra**

Apailuaren lehenengo eginkizuna ikuslearen espazioaren eta irudiaren espazioaren [...] arteko **ukitze** contra natura hori kudeatzea da. **Josu Zabaleta**

3 bi gauza elkarren ondoan gertatzea, tartean hutsarterik gabe.

Gorputzasuna baztertzean, espazioa ere baztertzen da, eta, beraz, zentzugabea da hurbiltze edo hurrantzeaz mintzatzea, urruntze, atxikitze, hastantze, **ukitze** edo jarraitutasunaz den bezala. **Xabier Kintana**

Jainkoaren eskua eta gizonarena, elkar ukitzeko zorian, eta **ukitze** horrek mugarri bat markatuko zuela iruditzen zitzaidan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

4 (hitz elkartuetan)

Gizakiaren bizitza existentziaren zirkunferentziaren **ukitze**-gunean ihesbide bat sortzeko ahalegina da, hain zuzen, existentzia berezi bat eraikitzeko seta. **Juan Kruz Igerabide**

Ukitze-sentipen lauso bat baino askoz gehiago da entzumena. **Irene Aldasoro**

- Baloi **ukitze** batzuk egin zituzten, eta luzaketak. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ukitze hutsak (3); **ukitze hutsarekin** (4)

uko 1 iz ukatzea, ezetza.

Jesusek Pedroren **ukoak** iragarri. **Elizen arteko biblia**

Pedroren **ukoen** iragarpena.

Ez ahal zaitu **uko** baten beldurrak baratuko? **Jon Muñoz**

Zuhaurk erran izan didazu, jauna, ez niola **uko** bati beldurrik izan behar. **Jon Muñoz**

Uko hori auhendatzeko Dancenyri izkiriari nion. **Jon Muñoz**

Ez ditu aipatu **uko** hori ematera eraman dituzten arrazoi materialak. **Jon Alonso**

Uko hori aski dut ebasketa zilegia irudi dakidan. **Jon Muñoz**

Uko horrek ez ninduen haserretzen, atsekabetzen ninduen. **Jon Muñoz**

Uko horren ondorioz jasan uste zuen durduzak haatik etorkizunean zentzatuko duela uste dut. **Jon Muñoz**

Indibiduo-komunitate zerikusia batez ere, oposizio eta elkarren **uko** bezala hartzen da. **Joxe Azurmendi**

Ukoaren suharrak, halako autoritate batengandik baitzetorren, eragin funtsezkoa izan zuen gaiari buruzko interes klinikoari azkena ematen. **Xabier Olarra**

Eta, iraganaren **ukoak** Estebanen **ukoa** zekarkiola, hala bihurtu behar izan zian jaun Albert Etxegoienek arbaso protestanta etxeko historiaren ardi beltza. **Joan Mari Irigoien**

Hori ere ez da, ez da, bizitza **ukoen**, galeren eta errenuntzien batuketa etengabe bat baizik ez denez. **Jon Alonso**

Napoleon deserrian hil zen; Josefina **uko** hartuta hil zen; Karlos IV.a eta bere emaztea tronugabeturik hil ziren. **Koldo Izagirre**

Zer, andereño, niri erantzuteko **ukoan** setatua zara oraino! **Jon Muñoz**

Hori ere ez da, ez da, bizitza **ukoen**, galeren eta errenuntzien batuketa etengabe bat baizik ez denez. **Jon Alonso**

2 (izenondoekin)

Nerea, ustez behintzat, **uko** garbia da. **Iñaki Segurola**

Gutienea, nire **uko** tematiak pizten zion begi-bistako atsegina. **Aingeru Epaltza**

Seta zaitez zeure **uko** krudeletan. **Jon Muñoz**

Zeren zientzilari italiarrak **uko** itsu batekin ihardets baitziezaiokeen tribunalari, eta hala egin izan balu, goretsiko nuen. **Joan Mari Irigoien**

Hala ere, aitak **ukorik** gutzitukoena egina dio bere buruari. **Markos Zapiain**

3 (hitz elkartuetan)

Indarkeriak ondorio onik ez duelako konbentzimendua, kristautasuna eta budismoa bezalako munduaren **uko**-erlijioen hastapenetan dagoela ematen du. **Joxe Azurmendi**

· Virgilen erantzuna, onez onekoa, itsu gisa portatzea edo are itsu bihurtzea izaten zen: haren egoaren parte baten baliogabetze edo atzera-pausoa; identitate **uko** txikitzaile eta ezereztaila. **Xabier Olarra**

Diferentzia beti zema eta etsaitasun eta elkar-**uko** terminoetan ulertzen da. **Joxe Azurmendi**

4 uko egin ezezkoa eman; arbuia.

Uko egin bezaio bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai bekit. **Elizen arteko biblia**

Biziari **uko egitea** zela, **uko** munduari. **Piarres Aintziart**

Harryk **uko egin** zion aitasunari. **Oskar Arana**

Uko egiezu bertuteei, Eugeni! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Sozialistek hogoita-hameka eta esku zuten aministrari **uko egiteko** eta ez dute holakorik egin. **Herria**

Pobretasunak, Frantziskorentzat, ondasunei ez ezik, jabego orori **uko egitea** esan nahi du. **Askoren artean**

Nolanahi ere, markesak **uko dagio** Valmonten eskakizunari. **Markos Zapiain**

Ttipik baizik ez zion gonbidapenari **uko egin**, lana estakuru. **Aingeru Epaltza**

Henrike Borboikoa, haien fedeari **uko eginda** ere, inoiz ez zen gelditu protestanteak babestetik. **Aingeru Epaltza**

Erljio kristauari **uko egiteko** agindu zuten. **Iñaki Iñurrieta**

Etxebarrietaren garaian norberaren sakrifizioa egitasmo heroikoa zen; gaur egun, ordea, **uko egin** behar zaion tentazio besterik ez zaigu bilakatu sakrifizioa. **Joseba Zulaika**

Aurka egiten badidazue, niri obeditzeari **uko eginez**, zazpi bider gogorrago zigortuko zaituztet zeuen bekatuengatik. **Elizen arteko biblia**

Hirugarren Reich hartan ariar arrazakoak ez zirenak mehatxatzen zituzten arriskuen aurrean, **uko egin** zion setati berak ere ihes egiteko aukerari. **Oskar Arana**

Nafarrak orduan **uko egin** zion Frantziako bere etorkizun distiratsuari. **Piarres Xarriton**

Bizitzen jakitea gehiegi jakiteari **uko egitea** da. **Iñaki Segurola**

Mutilak hasierako losintzak ahal bezala saihestu ditu eta ondoko proposamen zuzenei, berriz, argi eta garbi **egin** die **uko**. **Martin Anso**

Gogoratu amaiera eta **egin uko** gorrotoari. **Elizen arteko biblia**

Maizterren egoeraz urrikaldurik, **uko egin** zion alokairua igotzeari, ediktu militar batek horretara ahalbidetzen bazuen ere. **Patxi Zubizarreta**

Uko egingo zenioke laguntza behar duen norbait etxean hartzeari? **Anton Garikano**

Mutilak hasierako losintzak ahal bezala saihestu ditu eta ondoko proposamen zuzenei, berriz, argi eta garbi **egin** die **uko**. **Martin Anso**

Eskuaz **egin** zuen **uko** idazleak. **Koldo Izagirre**

Nork nori **egiten** zion **uko**, haiek niri ala nik haiei? **Joxan Elozegi**

Zein atsegin handiari **egiten** dioten **uko**, oinaze hain txikiaren truke! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Begien bistakoari ezin zion ez **uko** ez itzuri **egin**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

· Bere buruari **uko** neketsua **egitea** erabakia duenaren etsipenaz. **Ander Irizar**

Azken urteotan bera ere susmagarri bihurtu da eta **uko** gogorra **egin** diote askok. **Bernardo Atxaga**

4 (egin ezabaturik)

Eskariei **uko**. **Berria - Harian**

Berak **uko**, ordea, musu orori. **Joxe Austin Arrieta**

Paulok bere eskubideei **uko**. **Elizen arteko biblia**

Nork bere buruari **uko**, Jesusi jarraitzeko. **Elizen arteko biblia**

Leiho guztiak itxita, sargoriari **uko**. **Koldo Izagirre**

5 uko eginarazi uko egitera behartu.

Bazen berarengan bortiztasun moduren bat ere, idealismo mota ezohiko bat, gainerako guztiok munduko tentazioen aurrean hain ahul egiten gintuzten hanpuruskeriei eta desireri **uko eginarazten** ziona. **Oskar Arana**

Nazio batek inor oinordekotzatik kanpo utz badezake, are arrazoi beteagoz dauka edonori **uko eginarazteko** eskubidea. **Iñaki Iñurrieta**

Esperantzaren urritasuna faltsukeriaz ezkutatzearen pareko zatekeen hori, eta ezin zuen halakorik egin, etorkizunaren esperantzari **uko eginarazterik** ez bazuen ere. **Imanol Zurutza**

Uko egiten duena nahiz **uko eginarazten** zaiona ezin kexatuko dira, Estatuak legea egin baitzezakeen haiek ondorengotzatik kanpo uzteko. **Iñaki Iñurrieta**

6 uko egite

Bere buruari **uko egite** hark kezkatu egiten ninduen, gure familian nahiago izaten baitzen mutilek ikasketak amaituta izatea "bizitzako borroka-plaza latzera" irten aurretik. **Ander Irizar**

Susmoak dauzkagu **uko egite** hauek, gutxi edo aski, lotuta daudela mugimendu nazionalistak iazko urriaz geroztik jasaten duen justizia jazarpenarekin. **Berria - Mundua**
Hainbat eta hainbat kastuk adierazi izan du sabelpeko gozamenari **uko egite** antinaturalak bihotzko eta adimeneko pozaldi delikatuagoak dakartzala ondorioz. **Markos Zapiain**

-Ikusiko diagu hain koldarrak izanen direnez espainolak indarka sartuko direnean! -aldarrikatu zuen prokuradoreak, Uztaritzeko azken topaketa haietarik batean, armadan sartzeari **uko egite** orokorra aipatuz. **Elena Touyarou**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

pedroren ukoen iragarpena (3)

[5] betetzeari uko egin (9); biltzeari uko egin (5); egoteari uko egin (5); emateari uko egin (8); emateari uko egiteagatik (8); emateari uko egiten (7); eskaerari uko egin (6); eskaintzari uko egin (5); fedeari uko egin (6); gobernauk uko egin (7); guztiari uko egin (5); guztiei uko egiten (5); hartzeari uko egin (27); indarkeriarri uko egin (9); inoiz uko egin (6); izateari uko egin (18); izateari uko egiten (5); janariari uko egin (6); jartzeari uko egin (5); joateari uko egin (9); jokatzeari uko egin (11); karguari uko egin (16); negoziatzeari uko egin (12); nortasunari uko egin (5); ordaintzeari uko (8); ordaintzeari uko egin (6); orori uko (10); parte hartzeari uko (27); presidenteak uko (7); presidenteak uko egin (7); proposamenari uko egin (5)

uko egitea erabaki (9); uko egiteko eskatu (6); uko egiteko prest (20)

ukoegile izond lege bat betetzeari uko egiten diona.

Apez **ukoegile** baten laguntzea zein arriskutsua zen jakinik ere, Graxik bere etxeko atea ireki zion, eta aita zahar bat bezala artatzen zuen. **Elena Touyarou**

-Lapurdi osoan ez da aurkituko meza gordeka ematen duen apez **ukoegile** bakar bat, ez eta mugaz haraindian frantses herritarrik bataiatuko edo ehortziko duenik ere!
Elena Touyarou

ukondo *(365 agerraldi, 108 liburu eta 21 artikulutan)* 1 iz besaurrea besondoari lotzen zaion giltzaduraren atzeko alde. ik ukalondo.

Hegatsak ditu, eta ezkata, arrainek bezala, baina aurreko hegatsak hankak bihurtzeko bidean dira: eskumuturra dute, eta **ukondo**, baina atzaparririk ez. **Berria - Gaiak**

Bi eskuak poltsikoetan, **ukondoak** atzean zituela ibili ohi zen jendeari arretarik jarri gabe. **Joxean Agirre**

Arindu handia zen harentzat txapitularen leihoan **ukondoak** bermatu eta kanpora begira egotea. **Karlos Zabala**

Ukondo baten gainean bermatuta zegoen. **Lopez de Arana**

Ukondoak burdinazko barandan jarririk. **Karlos Zabala**

Ordurako aita mahaian zegoen, **ukondoak** jarrita festa egunetarako harizko zamau zuri brodatuaren gainean. **Anjel Lertxundi**

Müller jaunak **ukondotik** heldu zidan berriro: [...]. **Anjel Lertxundi**

Ukondotik oratu nion amari: [...]. **Anjel Lertxundi**

Emilek **ukondotik** tira egin zion Congori. **Lopez de Arana**

Ez nuen haren **ukondo** askatzen. **Anjel Lertxundi**

Idoak gerrian ipini zituen eskuak, **ukondoak** zabalik. **Juan Kruz Igerabide**

Burua eskuek sostengatuta, **ukondoak** belaunburuen gainean. **Josu Landa**

Pentsakor geratu zen Angie, **ukondoak** mahaian. **Iñaki Zabaleta**

Aurrerantz makurtu zen, **ukondoak** mahaiairene gainean, kokotsa bi eskuetan. **Koro Navarro**

Idoak buelta eman zuen, barra zikina **ukondo** euskarri, txoko guztietara so. **Sonia Gonzalez**

Tripaz beheiti jarri eta **ukondoekin** arrastaka soldaduren botetaraino joan nintzen, bi eskuekin geldiarazten saiatu nintzen, baina alde egin zidaten. **Fernando Rey**

Ukondo ukitu zion eta hitz batzuk xuxurlatu. **Monika Etxebarria**

Kolpe ederra hartu zuen eskuineko **ukondoan**, baflearekin batera erori zenean. **Berria - Harian**

Ezkerreko **ukondoko** erradio hezuraren muturrean du Ruben Belokik haustura txiki bat. **Berria - Kirola**

Paul D-k zabalik zeraman txalekoa, zamarrik gabe, alkandoraren besoak **ukondotik** gora bilduta. **Anton Garikano**

Bideak **ukondo** antzeko bat egiten zuen. **Anton Garikano**

Ukondoaz joko du laguna, eta, barreari nekez eutsirik, esango dio: "Begira, begira, Txitxikov, hor doa Txitxikov!". **Jose Morales**

Ukondoko giltzadura, berriz, gontza da alde batetik (besaurrea luzatzea edo hatzekin sorbaldak ukitzetarako tolestea ahalbidetzen baitu), eta bola-ahokadura motako giltzadura bestetik. **Irene Aldasoro**

Bizeps muskulua erradioari lotzen zaion puntua **ukondotik** oso hurbil dago, eta **ukondoak** egiten du euste-puntuarena. **Irene Aldasoro**

Eskularru hori bizi batzuk, **ukondorainokoak**. **Irene Aldasoro**

Etxe-lantegiko andreak, begirada gaiztoz, **ukondoaz** egin zidan bultzatza. **Juan Kruz Igerabide**

Irriño batzuk han-hemen, **ukondoaz** elkar jotzea, begia kliskatzea aurrekoari. **Koldo Izagirre**

Davidek **ukondoarekin** jo ninduen saihetsean. **Bernardo Atxaga**

Kolpetxo bat eman zion **ukondoaz**. **Koro Navarro**

Patricia ukabilka ari zitzaion Arnoldi, lepokotik tiraka, **ukondoez** zartakoka. **Koro Navarro**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lihozko uniforme zuria bazter utzirik, tafetazko jantzi urdin ilun bat zuen soinean, papar aldean behera neurrian ebakia eta **ukondo** -angeluak biluzik uzten zizkion mahukak zituena. **Mirentxu Larrañaga**

Ez du indarririk atxemaiten, **ukondo** ukaldi batez, lapatina bezala lotzen zaion senargaiaren gibelera pusatzeko. **Eneko Bidegain**

Tabernako neskak, nahi gabe, sardinzarrez beteriko saski bat lurrera bota baitzuen **ukondo** kolpe batez. **Karlos Zabala**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Fardel txiki bat aldatu zuen eskuineko eskutik ezkerreko beso **ukondoaren** azpiko aldera. **Mirentxu Larrañaga**

4 jantziaren zatia, ukondoei dagokiena.

Sudurrak topo egiten zuen **ukondoaz**, mahukaburuz, mahukaz, xingola-muturrez, atorraz eta soineko urrintsuz osaturiko hesi batekin. **Jose Morales**

Higatu samarra zen jaka hura, baina garbia, eta behar bezala zeuzkan **ukondoak**: batere adabakirik ez. **Jose Morales**

Zulo bat daukazu **ukondoan**, Arnold. **Koro Navarro**

Goioeren jertseak zuloak zituen **ukondoan** eta amak laruzko adabakiak josi behar zizkion. **Joseba Sarrionandia**

Haren oinetako zahar urratuei begiratu zien, haren **ukondo** saretuei, haren esku zikinei. **Karlos Zabala**

Mahukaburuak eta mendelak moztu **ukondoak** adabatzeko. **Jose Morales**

Bi mahukak tarrataturik baitzeuzkan **ukondoetan**, forradura aspalditik ateratzen zitzaizola handik. **Jose Morales**

Bere sotana **ukondoetako** errautsak. **Herria**

5 (luzera neurri gisa)

Inor ezin egon daitekeela teila-tape berean, ezta harengandik lau **ukondora** ere, inork ezin irakur dezakeela berak idatzitako edo argitaratutako paperik. **Felipe Juaristi**

Oina gorputz osoko altueraren seiren bat da; **ukondoak** haren laurden bat hartzen du, eta bularrak berak ere beste laurden bat neurtzen du. **Santiago Iruretagoiena**

Konturatu ziren, gainera, **ukondo** batek ere sei arra dituela, hau da, hogeita lau hatz. **Santiago Iruretagoiena**

Esan zuen komeni zela dorrerik txikiena ere hirurogei **ukondo** altuerakoa egitea gutxienez, zabalean hamazazpi **ukondo** emanaz. **Santiago Iruretagoiena**

Oholtza bakoitzak hiru **ukondoko** zirkuitua izaten zuen inguruan. **Santiago Iruretagoiena**

Murruak 28 besabete luze ziren alde bakoitzean, 5 besabete garai eta 6 **ukondo** gizen. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ukondo baten gainean (4); **ukondo kolpe** (3)
ukondoak belaunetan (4); **ukondoak mahai gainean** (4); **ukondoak mahaian jarri** (3)
ukondoaz jo (6); **ukondoaz jo zuen** (3)
ukondoan gainean (9)
ukondoetaraino iristen (3)

ukondoka *adlag* ukondoak erabiliz.

Segurtasunaz arduratzen zen gorilak **ukondoka** egin zuen aurrera, jendetzaren artean. **Lopez de Arana**

Laruzko diru-zorro beltza eskuan estu-estu hartu eta jendetzaren artean **ukondoka** bide eginez. **Irene Aldasoro**

Bidea **ukondoka** zabalduz. **Karlos Zabala**

Bi neskak elkarri txutxu-mutxuka ari ziren, irrika, ondokoei **ukondoka**, edale xeble hura ezkutuan seinatzen. **Anton Garikano**

Makina bat neska multzoka zegoen, elkarri **ukondoka**, euren fitxak lehenbailehen itzuli guran. **Lopez de Arana**

ukondokada iz ukondo ukaldia. ik ukondoko.

Polizia batek **ukondokada** bat eman zion Budi urdailean. Lopez de Arana
Oraingoan Harryk hartu zuen **ukondokada** saihetsetan. Iñaki Mendiguren
Justinak beste **ukondokada** eman zion Joanesi ea dantzara ateratzen ote ziren. Felipe Juaristi
-Ilegorria hiretzat, txinbo -bota zion lagunari, **ukondokada** jota-. Patxi Iturritegi
Ukondokada bat jo, eta "zuk daukazu suertea, zuk!", bota dit lehengusuak lagundu nahian. Patxi Iturritegi
Bati **ukondokada**, besteari burla, hari kokotean danba eta honi txiste gazia. Xabier Mendiguren Elizegi
Ukondokada eta baloikadak tarteko, sudurrean makina bat arazo izan du. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ukondokada bat eman (5)

ukondokadatxo iz ukondokada txikia.

Hasieran Bartell D'Arcy jaunak errefusatu egin zituen bai bata eta bai bestea, baina aldameneko batek **ukondokadatxo** bat eman eta zerbait esan zion belarrira, eta orduan bere kopa betetzeko baimena eman zuen. Irene Aldasoro
Harryk, artean oihuka, Roni **ukondokadatxo** bat eman zion saihetsetan eta Malfoy seinalatu zuen. Iñaki Mendiguren

ukondoko iz ukondo ukaldia. ik ukondokada.

Dimasi burua okertzen ari zitzaien eta, Aldaik **ukondokoa** jo zion. Berria - Kultura
Harryk **ukondoko** handi bat eman zion Roni isiltzeko. Iñaki Mendiguren
-Harry! -esan zion Fredek, **ukondoko** batez Percy alboratu eta Harryren erreberentzia handi bat eginez-. Iñaki Mendiguren
Jende artean **ukondokoak** emanez Harryregana iristeko. Iñaki Mendiguren
Herriko eztei bazkari batean bezala zen, jendetza edaten, berotzen, elkarri **ukondokoak** jotzen hasten denean bezala. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ukondoko bat eman (4)
ukondokoa jo zion (3)
ukondotik heldu (15); **ukondotik oratu** (8)

ukorno iz

Beltza, garaia eta harritsua, Heriotzaren Amildegia hantxe zegoen oraindik; bertan ikus zitekeen **ukornoek** zapaldu eta zanpatutako belarra. Agustin Otsoa

ukozale iz

Ukozale [...]: bere buruari atsegina ukatzearen tentazioan erortzen den pertsona ahula. Xabier Olarra

ukrainar (orobat ukrainiar g.er. eta ukraniar g.er.) 1 izlag Ukrainakoa, Ukrainari dagokiona.

Gaurko Ukrainako kosakoen matxinadaren buruzagia izan zen Chmielnitzki, eta gaur egun **ukrainar** herri heroï nazionaltzat hartzen dute askok. Koro Navarro
Schkopau-n, **ukrainar** neska talde bat laboratorioro lanean trebatzeko arduraren izan zuen. Juan Garzia
Blusa kolore-alaia, gizonak mahuka hutsik, askotan **ukrainar** erara brodatuta. Felipe Juaristi
Alemaniar poliziaren laguntzaile **ukrainarrak**. Felipe Juaristi
Peterrek erran dit ez hain aspaldi neska **ukrainar** batekin ezkondu dela. Itxaro Borda
Orduz geroztik bederatzi soldadu **ukrainar** hil dira, hauetatik hiru borrokaldietan eta beste 20 bat zauritu da. Berria - Mundua
Bazkalostean ere kantatuko ditugu abesti **ukrainarrak**. Urtzi Urrutikoeetxea

2 iz Ukrainako herritarra.

Ukrainarra zen sortzez Vassili Grossman. Felipe Juaristi
Austriar-hungariarra izan zen nazioz haurtzaroran, soviatarra gerora, eta **ukrainarra** bizitzaren azkenean. Berria - Harian
Nola ulertu norbera poloniarra izan beharra alboko herriko lehengusua **ukrainarra** zela esaten ziotenean, biak judu zintzoak izanik? J.M. Olaizola "Txiliku"
Dimitri Peterman **ukrainarra** nazionalitatez estatubatuarra da. Berria - Kirola
Andriy Bondar **ukrainarraren** emaztea. Edorta Jimenez
Hirugarren gutuna Svetlana Alexievitx **ukrainarrak** irakurri zuen. Berria - Kultura
Hildakoa 23 urteko errumaniarra zen, eta atxilotu dutena 32 urteko **ukrainarra**. Berria - Euskal Herria
Ipurdi estuko **ukrainar** baten istorio tristeekin tira ahala negarrez. Aingeru Epaltza
Zazpi milioi **ukrainar** gosez hil ziren Stalinen kolektibizazio kanpainaren ondorioz. Berria - Mundua
Emaitza ofizialak ez onartzeko eskatu diete zenbait herrialdek **ukrainarrei**. Berria - Mundua
Ukrainarren behar ekonomiko eta energetikoei erantzuteko bi zentral haiek eraikitzea ezinbestekoa zela argudiatu zuten orduan agintariek. Berria - Gaiak

ukrainera iz Ukrainan mintzatzen den eslaviar hizkuntza.

«Oinarritzko» lau hizkuntzet gain (ingelesa, frantsesa, alemaniera eta italiera), japoniera, txinera, errusiera, poloniera, txekiera, **ukrainera** eta turkiera ere itzultzen dute. Berria - Gaiak
Lau begiraleetatik bik gaztelania eta **ukrainera** menperatzen dituzte eta haurren eta Euskal Herriko gurasoen arteko bitartekari lana egiten dute. Berria - Harian
Dnieperren mendebaldera, aldiz, **ukrainera** da nagusi, baita etnia ukrainarra ere. Berria - Mundua
Baina oposizioak irabaziz gero **ukrainera** bultzatuko duten beldur dira egungo lehen ministroaren jarraitzaileak. Berria - Mundua
Esataria azken borrokei buruzko artikulua bat ari zen irakurtzen, **ukraineraz**. Felipe Juaristi

ukrainiar ik ukrainar.

ukraniar ik ukrainar.

ukronia iz utopia historikoa, balizko edo alegiazko datu faltsuen gainean eraikiriko historia.

Ipua edo nobela den alde batera utzita, **ukronia** da: Hitlerrek, Europan gerra irabazita, AEBak bereganatzerako joan gertatuko zatekeena irudikatu duzu, iragan fikziozkoa.

Berria - Harian

Horiek horrela, dinosauro bat denbora eta espazio berean gizakiarekin batera kokatzearena, Monterrosok egiten duen bezala, **ukronia** itzela da. **Josetxo Azkona**

Landatartasunaren ikusmolde paradisuatar, edenikotik begiratzen zaio orain unibertso horri, landa-giroko bizimoduaren utopia (eta **ukronia**) delakoan. **Edorta Agirre**

ukroniko izond ukroniarena, ukroniari dagokiona.

Ezin da, noski, baieztapen **ukroniko** seriorik egin, baina Barojak edota Unamunok, gaur bizi izatera, euskaraz idatziko zutela pentsatzea zilegi iruditzen zait. **Bernardo**

Atxaga

Hemeretzigarren mendeko nobelatarretako heroi sentimentalekiko nolabaiteko lotura **ukroniko** eta memeloa. **Iban Zaldúa**

Abiapuntu **ukroniko** hau proposatzen digute lan Edginton gidoilariak eta D'Israeli marrazkilariak *Trazos escarlata* komikian. **Berria - Kultura**

ukuilu (orobat ukullu g.er. eta ikuilu g.er.) 1 iz abere handiak gordetzen diren toki itxi eta estalia, eskuarki baserri barrenekoa. ik korta; heia.

Behean, sukalde eta **ukuilua**; goian, logelak, komuna eta mandioa. **Joxean Sagatzizabal**

Baserri zaharretan [...] ez zen beste berogailurik izaten: beheko sua, eta aziendaren lurruna **ukuiluko** ohol artean behetik gora. **Pako Aristi**

Handik barrurago sarrarazi, eta, **ukuilutik** barrena, mandiorako eskailerak seinatu zitzaizkion. **Inazio Mujika Iraola**

Ostatuko egurats beroa, **ukuiluko** egurats astuna. **Juan Garzia**

Hermanek, azpiak egiteko pala harturik, **ukuiluko** simaurretan sartu zuen kirtenaren barrenaraino. **Anjel Lertxundi**

Zergatik behartu behar naute goizeko lauetan auskalo nongo **ukuilutako** azpiak ateratzera? **Anjel Lertxundi**

Mandio aldetik edo **ukuilutik** ere, behiak jaiztekoan-eta, hego-mendebaldira iraungo zuen edo mendebaldira txanda emango zion jakiteko, ez zegoen **ukuiluan** beti apopilo ibiltzen diren euliei erreparatzea bezelakorik. **Pello Zabala**

Eskuko eskaileratik **ukuilu** gaineko mandiora igo eta ahapeka hots egin zuen. **Koldo Biguri**

Ukuiluak, berriz, arkumez eta antumez beterik zeuden, denak hesiz bereizirik. **Juan Kruz Igerabide**

Selifan kotxezaina **ukuilura** joan zen zaldiez arduratzera, eta Petrushka lekaioak bere gauzak antolatzeari ekin zion ate ondoko gela txiki, oso ilunean. **Jose Morales**

Ukuilura eraman ninduen, eta bere aitaren orga-zaldia erakutsi zidan. **Mirentxu Larrañaga**

Herriko **ukuiluetara** ura eta pentsua eramaten. **Anton Garikano**

Nire ametsa bete nahian, benta bateko **ukuiluan** hasi nintzen morroi. **Bernardo Atxaga**

Ukuilu txikia zen [...] askatan bi behi zeuden, eta bazter batean, itxitura baten barruan, txahal bat. **Josu Zabaleta**

Ukuilu zaharrak ez du basairik, ez eta, egia esatera, benetako zorurik ere, baina zabal da bederen, eta argi-indarra ere badu. **Oskar Arana**

Ukuilu modernoa zenez, hau da, jateko askak pasiloan zehar eta uretarakoak hormetan zituena, buelta emanarazi behar izan zieten ehun behiei. **Koldo Biguri**

Ukuilutik behien deabruzko marruma iristen zen. **Koldo Biguri**

Harrizko etxetoak, beren patio eta **ukuiluekin**, masustondoak, mahastiak, eta soro bazterrak Ligugnana edo San Giovanniaren berdin-berdinak ziren. **Josu Zabaleta**

Emakumeak **ukuiluan** bildu eta errosarioa erreztzen hasi ziren. **Josu Zabaleta**

Jatorriz, gogoz eta xedez nor bere **ukuilukoak** izan ginen beti. **Aingeru Epaltza**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Meatzeetatik ez urruti, taberna eta **ukuilu** zuloetan, kimikaren eta magia zuriaren arteko mugan. **Juan Garzia**

Kabineteetan eta logelatan **ukuilu**-usaina zegoen, lurreko egurren junturetatik zetorrena. **Koro Navarro**

Bertan **ukuilu**-kiratsa nagusi zen eta zaborrez beteriko espaloien gainean umeak katuka zebiltzan **Ukuilu** atarian. **Lopez de Arana**

On Camillok begiratu ere ez zion egin kateaz itxitako **ukuilu**-ateari ere. **Koldo Biguri**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Bihar bazkalduko duk, bai, baina zerri- **ukuilu** batean. **Fernando Rey**

Gora-behera zoro horietan nenbilen, Jannis Kounellis artista greziar maiteak, Erromako arte galeria bat, 1969an, zaldi **ukuilu** nola bihurtu zuen akordatu nintzenezan.

Hasier Etxeberria

Negua hegoaldean igaro ondoren, eta baserri-**ukuilu**, borda zahar, kanpandorre eta antzekoetan egin ohi duela habia [enarak]. **Imanol Zurutuza**

· Ordurako ezkutatuak zitiztean, bakoitzak bereak, ganbara-**ukuiluetan** ezkutalekuren faltarik ez zuan izango-eta; bestela, berriz, gaztainondo zuztarren artean. **Pako Aristi**

ukullu ik ukuilu.

ukur-aldi ik ukurraldi.

ukuritu, ukuri, ukuritzen da ad

Biharko eliza zien eskietan datekila **ukuritzen** zait prefosta. **Heria**

ukurka adlag erdi lotan.

Elfoek niretzat egin zituzten, baina utzi diot erretzeari -eta berehala **ukurka** hasi eta tarteka erdi lotan geratu zen. **Agustin Otsoa**

ukurraldi (corpusean ukurraldi soilik) iz makurraldia.

Ukur-aldi bat eginik, galdegiten dit aita superiora mintza dezakeenez. **Marzel Etxehandi**

ukurtu, ukur, ukurtzen 1 da/du ad makurtu.

Joanes **ukurtu** zen zapeta sokaren estekatzeko. [Eneko Bidegain](#)

Guziek otoitz berezi bat erraiten **ukurturik** eta ahopetik. [Xipri Arbelbide](#)

Ur zikinen bidea hartuz, lur petik, ahal bezala, herrestan eta arrunt **ukurturik**. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Gure Jainko Handiaren aitzinean burua **ukurtzeko** eta ohartzeko zein gaitza den gure ezaxolkeria. [Piarres Xarriton](#)

Pitxer ur eta beste bi arno ipini zizkien aitzinean eta, Marirengana **ukurturik**, ezpainetan musu egin zion. [Elena Touyarou](#)

Oroit naiz halere jaun bat haur baten gana **ukurtu** zela, zerbaiten erraiteko. [Marzel Etxehandi](#)

Burua lurrari **ukurturik** nabil, bizkarrezko pisuaren gatik. [Piarres Aintziart](#)

Biak **ukurtu** ziren liburuari buruz eta, 1764. urteaz geroztik idatziak izan ziren izenen irakurtzen hasi ziren. [Elena Touyarou](#)

Paperaren gainera **ukurturik** zaudelarik, eguneroko besta hasi da zure inguruan. [Xabier Montoia](#)

Bidearen eskualde bakoitzeko arbolen abarrek, **ukurtuz**, elkar besarkatzen dute, tunela natural eta argitu bat moldatzen dutela. [Piarres Aintziart](#)

Besoak bularraldean gurutzaturik, **ukurturik**, hotzari ezin aski azkarki buru eginez. [Eneko Bidegain](#)

2 (era burutua izenondo gisa)

Andre gutiatsi eta menperatuari izpiritu ahuldua ernatu zitzaion eta gorputz **ukurtua** xut jarri zitzaion, oldartuz. [Elena Touyarou](#)

ukutu ik ikutu.

ule¹ ik ile.

ule² ik hule.

ulema iz musulmanen artean legearen doktorea.

Ulemen burua hurreratu eta ahots goraz irakurri zuen txatata, honelako hitzekin amaitzen zena: [...]. [Karlos Zabala](#)

Ulemen buruzagia, apaizen ordezkaria. [Karlos Zabala](#)

«Hauteskundeak ez dira sinesgarriak izango», adierazi du **ulemen** kontseiluak. [Berria - Mundua](#)

Ulemen Batzordeak «genozidioa» leporatu dio Alauri. [Berria - Mundua](#)

Faluja bonbardatzen segituz gero urtarrileko hauteskundeak boikotatuko dituztela iragarri du **Ulema** Suniten Batzordeak. [Berria - Mundua](#)

Irakeko **ulema** erlijio-buru suniten elkarteak esan zuelarik [...]. [Berria - Mundua](#)

Belarri Inperialeko **Ulemari** ezer ez egiteko aholkua emateko proposatuko diot. [Xabier Olarra](#)

Buruzagi sunita erlijiosoak biltzen dituen **Ulemen** Erakundeak ere igandeko erasoak gaitzetsi, eta honakoa esan zuen: [...]. [Berria - Harian](#)

ulerbera 1 izond besteren arazoak ulertzeko joera agertzen duena.

Batzuetan aitona edo amona maitagarriak iruditzen zaizkigu, goxoak, argiak, **ulerberak**, samurtasunez beteak. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Aitak, normalean, itxiagoak dira neskekin eta mutilekin, biek berdin; amak, berriz, **ulerberagoak** izaten dira. [Berria - Harian](#)

Jokabide batzuekin jarrera **ulerbera** zeukaten kontzientzia batzuk aldatuko direla uste dut, atentatuen gordintasuna eta ondorioak [...] ikusita. [Berria - Euskal Herria](#)

Ulerbera izan behar duzu. [Oskar Arana](#)

Gure amaren bisaia ere ez zen **ulerberagoa**. [Aingeru Epaltza](#)

2 (adizlagun gisa)

Beren iraganaz deus ez dioten hainbat idazle borrotero edo zentsore edo faxistekin bezain **ulerbera** jokatu ahal dugu tragedia latzen ispilura begiratu nahi izan ez zuen biktima batekin! [Juan Garzia](#)

Ederki egingo dute irri gure kontura, baina tira, zorionez garaiz oharatu ginen, eta egilea **ulerbera** agertu zen. [Jon Alonso](#)

ulerbide (orobat ulerpide) iz ulertzeko bidea.

Nola izan ote zen gauza ia **ulerbiderik** gabeko haurtzaro hartatik irteteko? [Xabier Olarra](#)

Musikari esker, Krisztinaren eta hire artean **ulerbide** bat sortua zuan, haren eta nire artean sortu ez zena. [Xabier Olarra](#)

Polaritate horretan oinarritzen dela esango nuke Borges-en estiloa: testu milimetroaraino zehatz-zuzenak, aldi berean, zeharkako iradokizunak eta mugarik gabeko **ulerbideak** ernaltzen ditu nonahi. [Juan Garzia](#)

Guareschi, berez, eskuindarra, erregezaile eta antikomunista izan zen [...]; aldiz, bere literaturan ematen zuen mezua esan dugun **ulerbidearen** aldekoa zen, zalantzarik gabe faxismoaren eta nazismoaren biktima izan zelako bera ere. [Koldo Biguri](#)

-Edo nik jarri ditudala hor uste al duzu? -uste dut **ulerbidean** sartu garela-. [Pako Aristi](#)

ulergaitz (orobat ulerkaitz g.er.) 1 izond ulertzen zaila dena, ia ulertezina. ik adigaitz.

O, gizon **ulergaitza**! [Julen Gabiria](#)

Ahotik hots **ulergaitzak** jaulkitzen zitzaizkiola. [Jose Morales](#)

Ismet, bien bitartean, esnatu eta lokartu egiten zen aldika, eta hitz **ulergaitzak** murmurikatzen zizkidan. [Jon Arretxe](#)

Mezua mordoilo **ulergaitza** besterik ez da. [Iñaki Arranz](#)

Batzuentzat maila goreneko lana dena, besteentzat jolas literario hutsal eta **ulergaitz** samarra da. [Andoni Egaña](#)

Zalantza apur batez betiere, bihotza biluzteak sentikortasun **ulergaitz** halako bat erantsiko balio bezala. [Mirentxu Larrañaga](#)

Esplikazio lehor, **ulergaitz**, hermeneutiko, enigmatiko eta transgresibo bat. [Iñaki Segurola](#)

Bere helburuen artean dago irakurlea ukitzea eta hunkitzea, haren arimaren hari bat jotzen asmatzea, sentiberatasunen artean izaten diren uhin harmoniko berezi eta **ulergaitz** horiei esker. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Zer indar **ulergaitz** eta misteriotsuk erakartzen nau, bada, zuregana? [Jose Morales](#)

Eta Ednak zeozer **ulergaitza** esango dizu dardaraka, *I love you* moduko zeozer. [Joseba Sarrionandia](#)

Korrika eta presaka hitz egin zion mutilari, nahas-mahas **ulergaitzean**. [Mirentxu Larrañaga](#)

Alamianaren gogamen zorrotzak hitz korapilatsuak sortzen ditu, **ulergaitzak** askorentzat. Jose Morales

Azentu **ulergaitza** gazte harena. Lutxo Egia

2 (izan eta kideko aditzekin)

Ulergaitza izan zen hura guztia. Juan Kruz Igerabide

Minutu labor haiek **ulergaitzak** ziren berarentzat, bazirudien denboratik eta beraren bizitzatik kanpo zeudela. Jose Morales

Horregatik da interesgarria bizitza, **ulergaitza** delako. Bernardo Atxaga

Ulergaitza zitzaidan bat-bateko mudantza hura. Marcel Martin eta Victoria bera baino gorago daude, **ulergaitz** zaizkion erreferentziak darabiltzate, askeagoak dira, zintzoagoak, bera baino. Anjel Lertxundi

Albistegiak, gehienbat, aspergarri zitzaizkion, eta gero eta **ulergaitzago**. Xabier Olarra

Ez zen oso beldurgarria, baina bai nahasia, **ulergaitza** eta bitxi samarra. Jose Morales

Dena dakienak ez dauka deus ikasterik, eta deus ezin ikas dezakeenak ez daki ezer (honek, errazaren errazegiz, **ulergaitza** dirudi). Iñaki Segurola

Esandakoa **ulergaitz** irudituko zaio, agian, eta objektzio hau egingo dit: [...]. Imanol Unzurrunzaga

Ulergaitza ematen badu ere, Umberto eragozpena nuen Parisa joateko, ez akuilu. Anjel Lertxundi

Horregatik, hizki-mizki eta xuxu-muxu **ulergaitz** gertatuko zaie Jaunaren hitza. Elizen arteko biblia

3 ulergaitza/ulergaitz egin

Orain **ulergaitza egiten** bazaizt ere zein tuntuna izan nintzen ikustea. Anjel Lertxundi

Husainek luzatu zion begirakunea **ulergaitza egin** zitzaion Abasi. Patxi Zubizarreta

Ez zitzaidan hargatik **ulergaitza egin** nire emaztearen jarrera. Migel Angel Mintegi

Mollyri, aitortzen zuen, **ulergaitza egiten** zitzaion gerra haren nondik norakoa. Mirentxu Larrañaga

Errepideen korapiloa **ulergaitz egiten** zaio emakumeari, baina ohartu da bideak oro hondartzara xedean doazela. Javi Cillero

Aitortzen dut neure idaztoharra berriro begiratzean asko direla **ulergaitz egiten** zaizkidanak. Edorta Jimenez

Ulergaitz samarra egin zitzaion halako arratoi zuloan bizi zen norbaitek bigarren etxebizitza bat edukitzea Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ulergaitz egiten (4); **ulergaitz gertatuko** (3); **ulergaitz samarra** (3)

gutziz ulergaitza (3); **jarrera ulergaitza** (4); **ulergaitza da** (20); **ulergaitza egin zitzaion** (3); **ulergaitza egiten** (7); **ulergaitza gertatzen** (4); **ulergaitza zen** (4); **ulergaitza zitzaidan** (3)

hitz ulergaitzak (3)

modu ulergaitzean (3)

ulergaitzkiro *adlag* era ulergaitzean.

Ulergaitzkiro, Unamuno-k Euskal Herriaren gaia -historia ere- hasierako filosofiarekin jarraitu du gogoetatzeko, beste eremuetan filosofia hori baztertu eta gero ere. Joxe Azurmendi

ulergaitzasun *iz* ulergaitza denaren nolakotasuna.

Ezin parekatu dira inola ere gure sorkariak eta Haren eginen zabaltasun, sakontasun eta **ulergaitzasuna**, Demokritoren putzua baino handiagoa baita haiek beren baitan duten sakona. Koro Navarro

Ulergaitzasun komunikatiboaren kontu hau hornitzeko, bi txiste jarriko ditut. Andoni Egaña

Hortz bakarra izanda baldartu egingo zitzaion ahoskatzea, eta horri egotzi nahi diot nire **ulergaitzasuna**, baina izan liteke, horrez gain, mutiko kalekume hura gai ez izatea bere aitona baserritarren euskara aditzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

ulergarri (*orobat ulertugarri g.er.*) 1 *izond* uler daitekeena, ulertzeko modukoa. ik *ulerterraz*.

Hitz **ulergarriak** ez badituzue adierazten, nola jakin zer ari zareten esaten? Elizen arteko biblia

Gizonari aditzen zitzaizkion hitz **ulergarriek** ez zuten koherentziarik elkarren artean. Anjel Lertxundi

Teoria **ulergarri** samar bat osatzeko. Anjel Lertxundi

Antologia honetan, salbuespenak aparte, Rimbauden poema **ulergarrienak** aukeratu ditut, Jakina, ez dago inolako harreman **ulergarririk** munduko bekatuena eta munduko sufrimenduen artean. Anjel Lertxundi

Elkarteak garestitze **«ulergarrien»** mugan direla azpimarratu zuen. Berria - Ekonomia

Absurdoa, ez duelako inongo ordena edo helburu **ulergarririk**. Xabier Montoia

Bere anaiak ezin jasan izan zuela klima hura, besterik gabe, oso gauza **ulergarria** niretzat. Joxe Austin Arrieta

Poe zenez gero berak batxiler-tesia egiteko landu zituen idazleetakoa bat, gauza **ulergarria** zen bere idazlanaren gainean hitz egin nahi izatea nirekin. Oskar Arana

Nazionalitate-aldaketa horietatik erlijio- eta klase-aldaketak aztertzeraz igarotzen garenean, aurkitzen dugu hor ere familia dela, eta ez gizabanakoa, unitate **ulergarria**.

Iñaki Mendiguren

-Euskara ulertzen dut -azaldu zuen emakumeak, euskara bitxi baina **ulergarrian** -. Fernando Morillo

Gero kontu simple eta, egoera honetan, **ulergarri** batzuk jakinarazi dizkigu. Gogora etortzen zitzaion lehengo irakaslea, zeinak, batere berotu gabe, modu **ulergarrian** hitz egiten baitzekien. Urtzi Urrutikoetxea

Modu erakargarri eta **ulergarrian** erredaktatuta egon beharko dute. Berria - Gaiak

Horiek egitate kontrolagarriak zituan, ukigarriak, hurbilak, fisikoak, nire kapazitateentzako dimentsio **ulergarrikoak**, humanoak. Jon Alonso

2 (izan eta kideko aditzekin)

Ez baita **ulergarria** guri atsegina ematen jardutea, irainka ari gatzaitziona momentuan. Juan Martin Elempuru / Bego Montorio

Liburu honen abiapuntua histori azterketarako eremuak bilatzea izan zen, beren espazio- eta denbora-mugen barruan berez **ulergarriak** izango zirenak. Iñaki Mendiguren

Hagridek armiarme buruz esandakoa askoz **ulergarriagoa** zen. Iñaki Mendiguren

"Frantziako erregea"ren gisako deskribapen zehaztuak **ulergarri** liriteke nahiz eta ezer ez denotatu, hori osatzen duten terminoak ("Frantzia" eta "errege") zuzenean edota deskribapen bidez ezagutzen baititugu. Askoren artean

Ondorioz, **ulergarri** izanik ulertzen ez dudana ez dut oroitzen, ez maitatzen; eta alderantziz, **ulergarrietarrik** oroitzen edo maitatzen dudana oro aditzen dut. Imanol Unzurrunzaga

Arraro samarra sentitu arren, **ulergarria zitzaion** artikulu gehientsuenetako euskara. Juan Luis Zabala

Hainbat nazionalitateetako lagunek guztiok **ulergarri** dugun hizkuntza baten bidez adierazten dizkigute bizitakoak. Berria - Hariari

Bizitzak bihurtzen ditu **ulergarri** testuan esaten diren eta esan gabe uzten diren hainbat gauza. Askoren artean

Ulergarri baina ez barkagarri iritzi nion poliziaren jarrerari. Edorta Jimenez

Beharrezkoa da hizketa **ulergarria** gerta dadin eta hizketa horrek ekar ditzan ekarri behar dituen ondorio guztiak. Isabel Arrigain

Buenos Airesen bi hilabete inolako emaitzarik lortu gabe ematea **ulergarri** eta barkagarria jotzen zuen. Harkaitz Cano

3 ulergarria/ulergarri egin

Erreduktionismoa ontzat ematen badugu, "esanahi" kontzeptua (eta beraz, baita analitikotasuna ere) erabilgarri eta **ulergarri egingo** dugu. Askoren artean

Bere historia **ulergarri egiteko**, bere aurrekari historikoen sokan jarri behar zuela ohartu zen. giza arrazoimen mugatuari Jaungoikoaren Hirutasuna ahal den neurrian **ulergarri egiteko**. Iñaki Mendiguren

Atzera begira, **ulergarri egiten** zaizkit. Agurtzane Juanena

Oso harrigarria egin zitzaidan aipamen hura; orain, berriz, guztiz **ulergarria egiten** zait. Ana Urkiza

Hitz egin dezagun lasai, bada, aurreste faltsuak egin gabe, eta egoera askoz ere eramangarriagoa eta **ulergarriagoa** egingo zaizu. Migel Angel Mintegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azterketa eremu ulergarri (4); **ulergarri egiten** (3)

erabat ulergarria (3); **gauza ulergarria** (3); **guztiz ulergarria** (5); **ulergarria bihurtu** (7); **ulergarria bihurtzeko** (3); **ulergarria da** (52); **ulergarria da hori** (3); **ulergarria da oso** (3); **ulergarria iruditzen** (6); **ulergarria zen** (8)

ulergarritasun iz ulergarria denaren nolakotasuna.

Ulergarritasuna kolokan jartzen dute horrelako laburdurek. Iñaki Arranz

Neure irudiaz sobera arduratu gabe ari izan naiz hitzari hitza harikaltzen, **ulergarritasuna** helburu. Aingeru Epaltza

Informazio orriak xehetasunak emateko dira, eta euskarak **ulergarritasuna** saihesten badu, ez du funtzio hori betetzen. Berria - Euskal Herria

Bi egunen buruan, Morse andrea bere onera etorria zen ostera; zor eta lor hasieran, eta gero eta **ulergarritasun** handiagoaz ondoren, zorigaitzoaren neurrigabeaz ezari-ezarian jabetu ahala. Mirentxu Larrañaga

Munduaren **ulergarritasunean** fedea galtzeko ez dago zientziaren kardinalen esanetara zuzenean jotzea adinakorik. Iñaki Segurola

Xehetasun batzuetan aldaketak egin bazituzten, **ulergarritasunaren** mesedetan izan zen, ez estiloarenean. Isabel Arrigain

Mentxuk bihurrikeriazko masail okertzeren bat bilatu zuen bestearen aurpegian, edo **ulergarritasunezko** keinu atseginen bat sikieran. Josu Landa

ulerkaitz ik ulergaitz.

ulerkera iz ulertzea; ulertzeko era.

Gizakiaren **ulerkeran** Kantek ez du aurrerapausorik ematen. Jenaro Garate

Bere 'triangelu' kontzeptuaren (idea unibertsalaren) **ulerkerak** ez du bere ezagutza ahalmenaren horrelako ziurtasun apartekorik ematen. Jenaro Garate

Zaharra ei zen, zaharregia ere bai, neskatilaren garai hartako **ulerkerarako**: 50-60 urte inguru. Joxe Austin Arrieta

Ez diozu, beraz, arrotz iritziko honelako gai sakon eta zailak hainbeste **ulerkera** ezberdin eduki ahal izatea. Xabier Kintana

Ohartarazten du, bere **ulerkeraren** arabera, urak egun haietan lortuko den jakintza adierazten duela. Xabier Kintana

Norbaitek testuen **ulerkera** alegoriko hori eta esangura ezberdineko hitzen kidetasuna aintzat hartu nahi ez balu, honela esanen zaio: [...]. Xabier Kintana

Enpresen deslokalizazioa, lan merkatua desarautzea eta ongizate estatua desagitea ez da globalizazioaren **ulerkera** bakarra. Berria - Euskal Herria

ulerkor 1 izond gauzak ulertzeko joera duena.

Abas esanekoa eta baketsua zen, onbera eta adiskidetzeko berezko joerarekikoa, **ulerkorra** eta barkabera. Patxi Zubizarreta

-Non daude, baina, pertsona **ulerkor** eta gupidatsu horiek? Patxi Zubizarreta

Hitz gutxikoa izan arren, emakume atsegina eta adeitsua zen jendearekin, zabal eta **ulerkorra** lan-harremanetan, beti prest zenuen laguntzeko. Migel Angel Mintegi

Oso **ulerkorra** izan zara kontu honetan. Lopez de Arana

Haren maizterrentzat [...] etxeko nagusi eskuzabal eta **ulerkorra** zen. Patxi Zubizarreta

Emakumeak ez dira gaizki esaka aritzen haiekin larrua jotzen duten gizonen kontra, **ulerkorrak** dira salbuespenik gabe. Karlos Zabala

-Non daude, baina, pertsona **ulerkor** eta gupidatsu horiek? Patxi Zubizarreta

Ulerkorra eta irekia izan behar duzu: **ulerkorra** senarrarekin eta irekia zeure buruarekin. Migel Angel Mintegi

Bere kasuan jendea **ulerkorragoa** zen. Bernardo Atxaga

Euskal gizartea oso irekia da besteekiko; tolerantzia, **ulerkorra**. Berria - Euskal Herria

Ulerkor agertu nahi eta ezin. Karlos Zabala

Ulerkor azaldu natzaio, niregatik ez kezkatzeko esan diot, ondo nagoela. Eider Rodriguez

Ez baita errana egun **ulerkor** eta bihotzdun iduri duen Israëleko burua ez dela bihar zakar eta gogor agertuko. Herria

2 ulergarria, ulertzeko modukoa.

Esan didatenez komeni da zenbakia ahalik bizkorren alemanez argi eta **ulerkor** ahoskatzen ikastea. Urtzi Urrutikoetxea

Behiiti baina **ulerkor** entzun nion berbaz: Bonjour! Urtzi Urrutikoetxea

3 ulertzea adierazten duena.

Hungariar urdailerako -esan du irribarre **ulerkor** eta errukiorrez- ezohikoa da, noski. Urtzi Urrutikoetxea

Jarrera **ulerkorra** hartu beharko dugu, badaezpada. Fernando Morillo

Begirada gozo eta **ulerkor** bat eginez gero, berriz, barrez ari gatzaizkiola uste lezake subjektu begirale aktiboak. Harkaitz Cano

Ez zen inoiz hildakoei buruz hitz egiten, eta haien senideei ez zitzaien keinu **ulerkorrik** eskaintzen. Eider Rodriguez

Zuzendaritza Batzordekoek ezker-eskuin mugitu zuten burua, aitakeria **ulerkorraz**. Jon Alonso

ulerkortasun iz ulerkorra denaren nolakotasuna.

Entzun nuen zelan eztabaidatzen zuten, ikuspuntuak trukutzen, baterekiko gaitzespenez, bestearekiko **ulerkortasun** handiagoz. Urtzi Urrutikoetxea

Pribilegio tratua gaitzetsi eta bere txanda defendatzen zuten baten bat izatekotan, **ulerkortasun** faltaren marmararri egin behar izango zion aurre. Berria - Euskal Herria

Ulerkortasuna eskatu zuela bazekien, baina ezin zuten jasan. Fernando Morillo

ulerkuntza iz ulertzea. ik ulerkera.

Ezagutza eraikitzeko bidea **ulerkuntza** dela argi utzi nahi izan zuten, baita adimena garatzeko heziera mailakatuak duen garrantzia ere. Askoren artean

Kuzti honen **ulerkuntza** eta egitura komunikatiboan zaratak bete izan du ETAK, ez du permititu gakoa non zegoen ikustea. Berria - Euskal Herria Neuk behin eta berriz azaldutako kezka da, kulturarik gabeko jendeek, Jainkoaren Izpiritutik hain urruti daudenek, eta giza **ulerkuntza** dorpearen azpian daudenek, nola duten ausardia Idazteunean ulertzen edo irakurtzen dutena epaitzeko. Joan Mari Lekuona Atzeman beharrekoa kontzeptuon **ulerkuntza** zientifikoa da. Askoren artean Ustelkeriaren gaitz ezagunak sustraitik kentzean, gizarte-oreka asaldatu zuela, hau gabe ezinezkoa zelarik elkarrekiko **ulerkuntza**. Iñaki Mendiguren Gure belarrietara helarazi zitzaigun kontua **ulerkuntza** itzelez eskainia zegoen, musikariak Higginbottom maisuaren mugimendu arrastoaren atzetik sinesgarritasunez abiatuz. Berria - Kultura

ulermen 1 iz ulertzeko ahalmena. ik adimen.

Ikustea, ikusmenezko atzematea, ikusmenezko pertzepzioa oso jarduera konplexua da, eta ezin da, egia esateko, funtzio psikiko nagusietatik, **ulermenetik**, ezagutzatik, oroimenetik, desiratik erabat bereizi. Josu Zabaleta Espirituaren talentuak (**ulermena**, asmamena, juzgatzeko gaitasuna) edo tenperamentuaren propietateak (erabakimena, intentsioetan tematzea) ontzat har badaitezke ere, ezin dira berez on bezala definitu. Askoren artean Enarak, **ulermena** balute bezala, bat-batean isildu eta ez ziren beren lekutik mugitu, predikua burutu zuen arte. Askoren artean Handia da Jauna, guztiz goresgarria, **ulermenaz** gaindikoa haren handitasuna. Elizen arteko biblia Ez nuen ez hotzik ez minik sentitzen, eta aurpegia bustitzen zidan zirimirri sarkorra, elur eta euri artekoa, **ulermenaren** bidez hautematen nuen, ez azalaren bidez. Urtzi Urrutikoetxea Jesukristo gure Jaunak emaniko etsenplu gurgarriak ere beren **ulermenaren** argitan bakarrik ikusten dituzte. Joan Mari Lekuona Virgilioren poesia Mendebaldeko kristau-ikasle gaituenen **ulermenetik** kanpo egon zen, ulertze-neurriztat Virgiliok adierazi nahi izan zuen esanahia atzemateko gaitasuna hartzen badugu. Iñaki Mendiguren Aurkitu zuenak, harrigarria izateaz gain, **ulermenaren** muga guztiak gainditzen zituen. Jose Morales **Ulermenaren** oihal garbian makularik utziko ez duen sintaxi garbi baten bila. Pako Aristi Ikusmenezko dimentsioaren eta haren **ulermenezko** dimentsioaren arteko lotura. Josu Zabaleta Literaturaz hutsaren hurrengoaren itzala ere sumatzen ez duen batek nahas ditzake **ulermenezko** irakurketa mekanikoa eta literatur gozamena. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ulermen zoliari hitz gutxi. **Ulermen** laburreko norbaitek guk igo nahi dugun maila horretara heldu nahi ez badu, [...]. Lopez de Arana Gizon arruntek beren adimenaren eta beren **ulermen** ahularen arabera berengana ditzaten. Xabier Kintana Ba al da deus nabariagorik, argiagorik, begi-bistakoagorik tematia ez den **ulermen** eskasekoarentzat ere? Imanol Unzurrunzaga Nahiz eta emakumeek gizonezkoek baino gorputz ahulagoa izan eta hainbat ariketarako hain abilak ez izan, **ulermen** zorrotza eta askea dute erabiltzen dutenean. Berria - Gaiak "Gizakiari datxekion" Jainkozko **ulermenari** esker, esan da "Jainkoaren antz eta irudira". Xabier Kintana Jesukristok, giza izaeraren zirrikitu guztiak ulertzeko zuen **ulermen** jainkozkoaz, ulertu zuen gizon guztiak ez zirela erlijiozko bizitzara deituak. Irene Aldasoro

3 ulertzea. ik ulerpen; ulerkuntza.

Ergela iruditzen zaio emakume batek gizonezko batengandik **ulermena** itxarotea. Joxe Austin Arrieta Adiskide batekin hizketaldi intimoan jardutea, harekin gaudela geure harrokeria ergela eranzten baitugu, herengan beroa eta **ulermena** aurkitzen baititugu. Ramon Etxezarreta Ahozko **ulermenari** dagokion zatian, bereziki, gaizki aritzen dira. Berria - Gaiak Saiklapenaren aldeko grinak desberdintasunak bilatzera eraman izan gaitu gehiegitan, kontzeptuen **ulermen** osoaren kaltetan. Lourdes Oñederra Aldaketaren adigaiaren **ulermen** zuzena ere iraunkortasun horretan oinarritzen da. Ibon Uribarri Antagonismoaren eta hegemoniaren arteko harremanen **ulermen** teorikoa da erabakigarri gaur egungo euskal egoerarako. Joseba Zulaika Ezin zuen formulatu, ez zen, ez esplizitua, ez kontzientea, baina musika-formaren **ulermen** inplizitu nabarmena zuen. Xabier Olarra Zure ideiak eta aipatzen dituzunak bereizi behar dituzu, nahasmena ekiditeko eta argudioaren **ulermena** errazteko. Askoren artean Horien **ulermena** errazteko adibideak erabili behar dira. Askoren artean Irudi horietan diegesi baten **ulermen** eta integrazio-mekanismoak azaltzeko. Josu Zabaleta Izugarrikeriei izugarrikeriak metatu ahala joan gara horien **ulermenari ulermena** eransten. Anjel Lertxundi

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Badela giza pentsamenduan goragoko beste maila bat, goragoko **ulermen** -gaitasun bat. Lourdes Oñederra Beste neska-mutilen artean ba omen zen batetik bestera arin, sotil, etengabe aldatuz igarotzen zen zerbait: esanahi-truke bat, negoziazio bat, **ulermen** -arintasun bat. Xabier Olarra Makinaren **ulermen** gaitasuna handitu nahian. Lourdes Oñederra Vitruvioren hizkeraren "iluntasunari" eta **ulermen** -zailtasunei buruzko eztabaida antzinakoak. Santiago Iruretagoiena Nahi gabe, **ulermen** keinu bat egin du bidaztiak, eta Carmenek begia kiiskatuz erantzun dio bere ondotik pasatzerakoan. Iban Zaldúa **Ulermen** -distira moduko bat sumatu uste izan zuen aurpegietan. Jon Muñoz

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

SS-Ahnenerbeko buru izandako Sievers doktorea heriotza zigorrera kondenatu zuten, giza **ulermena** gainditzen duten krimenak agintzeagatik. Alberto Ladron Arana Giza **ulermenaren** berezko mirabekeriak epai-ahalmena eman dionez, [...]. Xabier Olarra Literatura elkar-**ulermenerako** gunea izan dadin. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ulermena **gainditzen duten** (3)

ulermenetik **kanpo** (4)

ulermodu iz ulertzeko modua.

Goizuetako idazleak oraindik bere burua umetako baserritar nahi lukeela oharturik irakurri behar dira, nire iduriko, liburu honetako pasarte asko, baina batez ere naturaren **ulermodua** eta naturari buruzko elkarbizitza hizpide duten horiek. Patziku Perurena

ulermolde iz ulermodua.

Bai, badakit ezen solasaldi hura **ulermolde** zabalago batean hartu beharra nuela, eta enea zela hobena, ez zurea. Joan Mari Irigoien

ulerpen iz ulertzea. ik ulerkuntza; ulermen 3.

Eragile gurtzerterzen ditu, **ulerpenari**, interpretazioari, hots, irudiaren onarpenari, eragiten dioten faktore guztiak. **Josu Zabaleta**

Areago jo behar dugu eta esan analogia, gramatika mailakoa dela: formak haien artean lotuko dituen erlazioaren jabetze eta **ulerpena** eskatzen du. **Isabel Arrigain**

Ulerpena jaso nahi zuen, genioa zela segurta ziezaioten, ezer baino lehen, eta ondoren bizitzaren zirkulu barrura eraman zezaten, epelera eta patxadara. **Anton Garikano**

Amaren belaunetan, oso irmo, Jamesek amaren indar guztia sentitu zuen puri-purian, zer eta gero ito eta agortzeko latoi puskaren aurrean, arraren zimitarra idorraren aurrean, errukirik gabe joka ari zena, behin eta berriro, **ulerpen** eske. **Anton Garikano**

Zerikusirik izan dute horretan, sentimendu, emozio egoera eta **ulerpen** kolektiboko ikurren adierazpide gisa, Sarriegiren obren musika senak eta herri kadentziak. **Askoren artean**

1890 urte horietan jada Unamunok berak [...] euskal eta katalan identitate eta arazoarentzako sozialisten **ulerpen** urria salatzen zuen, ez alferrik. **Joxe Azurmendi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ulerpen eske (3)

ulerpide ik **ulerbide**.

ulerrarazi ik **ulertarazi**.

ulertarazi, ulertaraz, ulertarazten (*orobat **ulerrarazi** g.er.*) du *ad* ulertzera behartu.

Ulerarazi zeure legea, eta gordeko dut, bihotz-bihotzez beteko. **Elizen arteko biblia**

Kudeaketa horren azaltzea, **ulertaraztea**, da mintzaldi honen helburu bat. **Herria**

Transmisio prozesua funtsezkoa izan da, erabaki horiek **ulertarazteko**. **Berria - Harian**

Esaera hauek jakinduria ezagutarazi, heziketa eman eta esaldi sakonak **ulertarazteko** dira. **Elizen arteko biblia**

Nola arraio **ulertarazi** Antjeri ez nuela deusik ere nahi? **Fernando Rey**

Zer egin behar da zuei **ulertarazteko**? **Juan Kruz Igerabide**

Harrotasun pixka bat ere erakutsi behar zion, bere irakasleari zerbaitetan nagusitzen zaiola **ulertarazi** behar zion. **Eneko Bidegain**

Ez zen modurik izan **ulertarazteko** dolu bat zela ospatzen zena. **Juan Garzia**

Baina bai erreparatu zion amak Nadia geldiarazteko eginiko keinuari, eta Marfaren begien distirak dena **ulertarazi** zion. **Karlos Zabala**

Ez dakit nola esan ere, nola **ulertarazi**. **Josu Zabaleta**

Salbuespen bat egiteak gure herrien arteko harremani zentzuzko onura ekarriko zien **ulertaraztera** saiatu nintzen. **Aingeru Epaltza**

Xedea hau da: gizakiok mintzairaren ahalmena erabiltzeko modua **ulertaraziko** digun sistematika bilatzea. **Isabel Arrigain**

Teherandik zetorrela eta Italiarantz zihoala **ulertarazi** dit keinuka. **Jon Arretxe**

Gure amak onez onean **ulertarazi** nahi zion Barbarossari lotsa eman beharko ziola ikuskizun eskandalagarri haiek ematea bere semeei. **Pello Lizarralde**

Zailtasun hori non datzan **ulertarazten** saiatuko gara. **Isabel Arrigain**

Harrera hotz antzaren kontuaz nuen ikuspuntua **ulertarazteko** eginahalak egin nituen haien aurrean. **Fernando Rey**

Maimonek Jainkoaren betegintzak era negatiboan **ulertarazteko** darabilen argudioa [...] San Tomasek, San Dionisiok eta aita Luis Granadakoak ere, zeinek bere erara, antzera darabilte, irizkidetasun harrigarriaz. **Xabier Kintana**

Hori entzulearen irudimenaren esku utzirik, beronek une horretan **ulertarazi** nahi zaiona konpreni dezan. **Xabier Kintana**

Film bat ongi ulertu ahal izateko (bere apailuak **ulertarazi** nahi duen bezala uler dadin), nahitaez jakin beharra dago plano-aldaketa gertatzen denean, filmatzerakoan denborazko eten bat egin dela nahi duela esan horrek. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
nola ulertarazi (5); **ulertarazi zion** (10)
ulertarazten saiatzen (4)

ulertarazle *iz* zerbait ulertarazten duen pertsona.

Puntu horretan ere berriro bananduta aurkitzen ditugu **ulertarazleak**. **Xabier Kintana**

ulerterraz *izond* erraz ulertzen dena. ik **ulergarri**.

Ez nahiz luzatuko hain adigai **ulerterrazen** azalpenean. **Ibon Uribarri**

[Prokofiev] *Romeo eta Julieta* obra **ulerterraza** da, ezaguna eta maitatua baita. **Berria - Kultura**

Lajos hizketan ari zen bitartean, zerbaitez jabetu nintzen, nahiz eta ez nuen asmatuko egia **ulerterraz** eta lasaigarri hura hitzez egoki adierazten. **Ander Irizar**

Egia hain **ulerterraz** horiek, obratzeko hain ezti horiek, zertan dira bada izu-ikarazkoak? **Jon Muñoz**

Ez argiago edo **ulerterrazago**, ez; potenteago eta karisma handiagoz azaltzen zituen gauzak E. H. Beregorrek. **Unai Elorriaga**

Bere ustez, kritikariak ilunak ziren, kriptikoak; artista onak, berriz, gardenak, **ulerterrazak**. **Ramon Saizarbitoria**

Jainkoaren justizia ez zen hain **ulerterraza**, hiltzeko kondena orokorraz aparte infernuan ezartzen zituen zigorren krudelegia esate baterako. **Joseba Sarrionandia**

Informazioa eta jakintza eskuragarriak dira, **ulerterrazak** eta kalitatezkoak, baliabide mota bat azken batean beste ezer baino gehiago. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Zenbat eta ezagunagoa izan kirola bera, hainbat eta **ulerterrazagoa** izango dugu araudia. **Patxi Altuna**

Erabaki nuen liburu laburretan idatzi beharko nuela irakurle guztientzat askoz ere **ulerterrazagoak** izan zitezen; horrek in lortuko da inolako oztoporik ez sortzea ulermenarentzat. **Santiago Iruretagoiena**

Erdiguneko hizkera zenez, [euskara giputza] euskaldun guztiendako **ulerterraza** eta ikasterraza gertatzen zen. **Koldo Zuazo**

Nola azal daiteke modu **ulerterrazean** zer den bularreko angina bat? **Berria - Gaiak**

Maila handiko fisikariak dira, eta, beraz, Einsteinen lanak modu **ulerterrazenean** azaltzeko egokienak. **Berria - Harian**

ulertezin 1 *izond* ezin ulertzuzkoa.

Bahiarren begietan, bahiar ez diren guztiak izaki **ulertezinak** dira, arriskutsuak eta azpikoko zaleak. **Karlos Zabala**

Gure adiskidetasuna pozoi zuen sekretu **ulertezin** hura. **Xabier Olarra**

Beldur **ulertezin** batek bihotza estutu zion. **Julen Gabiria**

Sen **ulertzein** batek, esker ona bainto baziagoak, bultzatu egiten zuten traidorearen esklabo izatera. **Karlos Zabala**

Bagoian berarekin bakarrik egoteko grina **ulertezina**, adierazteza. **Eider Rodriguez**

Ez dago enigma **ulertezinik** zuretzat. **Elizen arteko biblia**

Interpretari pribatu eta ilunek liburukote **ulertezinetan** taxutuak. **Juan Martin Elexpuru**

Diploma horrek bandera asko zituen gainean, eta latinez idatzitako hitz **ulertezinak**. **Pello Lizarralde**

Sinesten al didak azken berrogeita bat urte honetan pauso **ulertezin** hori argi dezaketen posibilitate guztiak banan bana bilatu eta aztertu ditudala? **Xabier Olarra**

Marra etenezko sare nahasi **ulertezin** bat baizik ez dute osatzen bide horiek. **Josu Zabaleta**

Konturatu zen burua hutsik zuela, berriz orri txuria, edo beltza, hitz guztiak elkarren gainean, elkarrekin gurutzatuak, **ulertezinak**. **Jon Alonso**

Nahiko idazkera zabarra zuen, batzuetan ia **ulertezina**. **Oskar Arana**

Are ausarki erantzuteko, irain eta madarikazio **ulertezinez**, haiek ezarriko itxitura eta zapalkuntzazko errejimenari. **Juan Garzia**

Bere esanezineko jakinduria gorenean eta bere erruki eta ontasun goren eta **ulertezinean** munduak zorotzat eta mespretxagarritzat duena aukeratu duelako. **Askoren artean**

Nahiago dut besteentzat irakasgarri izango diren bost hitz ulergarri esan, hizkera **ulertezinean** hamar mila baino. **Elizen arteko biblia**

Zer edo zer kantatu edo oihukatu ohi zuen estonierazko esaldi eten, **ulertezinekin**. **Jose Morales**

Euskal Herriko egoeraz jakiteko erakusten zuen grina ia itsu eta, nire iritziz, **ulertezinarean** zergatia herriminak behar zuela izan. **Xabier Montoia**

Gerora, dena pasatzen duk... modu **ulertezinean** pasatu ere. **Xabier Olarra**

2 (izan eta kideko aditzekin)

Ulertezinak ziren margolanak, kolore-nahaste bat begi normalentzat. **Xabier Olarra**

Zuzendaritzaren jarrera **ulertezina** dela deritzo. **Berria - Ekonomia**

-Hire diskoetako marru horiek bai direla **ulertezinak**! **Alberto Ladron Arana**

Aralarreko Mikel Basaberen irudiko, «**ulertezina**» litzateke Legebiltzarrean batzordea ez osatzea. **Berria - Harian**

Horregatik da bizia hain gauza bitxia eta arraroa, auskalokoa eta parte xelebrekoa, eta zulatu ezina, eta **ulertezina**. **Iñaki Segurola**

Ulertezina zen nola kabi zitekeen zuri hura guztia halako poto txikian. **Juan Garzia**

Hizkuntza eta kulturarenganako desinteresa **ulertezina** zitzaion. **Joseba Zulaika**

Ulertezina zitzaidan hitz labur bat. **Bernardo Atxaga**

Anek bere euskera petoan esplikatzeko zizkien zirenak eta ez zirenak, guztiz **ulertezinak**. **Unai Iturriaga**

Gero errealtate korapilatsu eta ezkutua agertu zen, ametsen mundua bezain **ulertezin** eta iluna. **Fernando Rey**

Gizaki guztion ondarea direla [hizkuntzak], oharrena eta sentsibilitatea biderkatzeko kodeak eta, besterik gabe, musika ezitia, **ulertezinak** gertatzen zaizkigunean. **Ramon Saizarbitoria**

Hannak ez dit gaitzespenik egiten, ez zaio **ulertezina** iruditzen nik Sabethekin hala jokatu izana. **Joxe Austin Arrieta**

Hori guri eta gure amari harrizkekoa iruditu zitzaigun, **ulertezina**. **Fernando Rey**

Bereizketak eginez, agian ez zaigu dena berdin **ulertezina** agertuko, graduak eta ñabardurak nabariko dira, gauza ulergaitzago eta ulergarriagoak suma daitezke. **Joxe Azurmendi**

3 (izen gisa)

Bere **ulertezina** izaskuni azaldu eta hark eman zion zergatia. **Xabier Montoia**

Neure **ulertezinean** bihotzez goraiipatzen dut Jainkoaren onberatasuna. **Askoren artean**

4 ulertezineko izlag ulertezina.

Ulertezineko hitzak ahoskatzen dituen aurpegi horren aurrez aurre. **Joseba Sarrionandia**

Ulertezineko aintzaz Aitaren eskuinaldean eseririk ikusten zuen estasian. **Askoren artean**

5 ulertezinezko izlag ulertezina.

Neure beldur naiz! beldurraren beldur; nire gogoa asaldatzen zaidanean haren esturen beldur, izumen **ulertezinezko** sentipen izugarri horren beldur. **Josu Zabaleta**

Guztiz ere sinetsita geratu nintzen, ziur, normala ez zen zerbait, **ulertezinezko** zerbait ari zela gertatzen nire etxean. **Josu Zabaleta**

Espainiako Gobernuak jarritako helegitea «guztiz **ulertezinezkoa**» dela uste du Gasteizko Ganberako buru Juan Maria Atutxak. **Berria - Euskal Herria**

Danbor atxikiezin hori belarria betetzen ari zitzaidan bere hots beti-berdin, eten, **ulertezinezkoaz**. **Josu Zabaleta**

6 ulertezina/ulertezin egin

Ulertezina egiten da Anoetan Gabilondo bezalako jokalarri bati txistu egitea. **Berria - Kirola**

Hainbeste urtetan irauin zuena halako batean, ez bat eta ez bi, moztea **ulertezina egin** zitzaidan. **Joxemari Iturralde**

Ezagutu ditut pertsona batzuk psikoanalisi baliatzen zutenak niri **ulertezina egiten** zitzaidan hainbat jokabide esplikatzeko. **Anjel Lertxundi**

Bizitza hondatuko zion ekintza zentzugabe eta **ulertezina egin** zuen. **Jose Morales**

Gaitza ikuspegi oro hartzailean ikertzen da, eta gehienetan **ulertezin egiten** zaigu. **Imanol Unzurrunzaga**

Bati baino gehiagori **ulertezin egingo** bazaio ere, liburuki hauek ez dira larruz azalezatuak, ez dute urrezko letrarik bizkarrean ez koloretako santurik barruan. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hizkuntza ulertezin (3)

guztiz ulertezina (8); **jarrera ulertezina** (5); **ulertezina egin** (4); **ulertezina egiten** (6); **ulertezina egiten zaio** (3); **ulertezina gertatu** (3); **ulertezina iruditu** (3); **ulertezina iruditzen** (6); **ulertezina izan** (3); **ulertezina izango** (3); **zinez ulertezina** (3)

niretzat ulertezinak (3)

modu ulertezinean (3)

ulertezintasun iz ulertezina denaren nolakotasuna.

Heriotza lehenbailehen iristea ere nahi luke: menderen mendeko bere misterio eta **ulertezintasun** guztiarekin, hain burugabeki desitxuratutako alegiazko mundu hori baino ulergarriagoa zen. **Jose Morales**

Harrituta bainoago, nahasita nengoen, halako **ulertezintasun** norabiderik gabe batez. **Anjel Lertxundi**

Usaia pedagogikoa **ulertezintasun** txikienarekin zaitzea baino nahiago izan dudala hizkuntzari dotorezia pixka bat kentzea. **Ibon Uribarri**

Bere zalantza eta **ulertezintasunak** ematen dizkigu jakitera. **Rafa Egiguren**

Zakurren eta katuen arteko etsaitasuna, elkarren arerio izatean baino gehiago elkarren arteko **ulertezintasunean** oinarritzen da, zakurraren eta katuaren portaerak zeharo ezberdinak baitira. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ulertezintasunezko itzal batez lausotu zitzaizkion Perretteri begiak. **Jon Muñoz**

Urrendik antzeman diot guganako begirada arrotza, **ulertezintasunezkoa**. **Urtzi Urrutikoetxea**

ulertu, **uler**, **ulertzen** (*orobat ulert g.er.*) **1** du *ad* zerbaiten esanahiaz, izaeraz, zergatikoz jabetu; norbaitek dioenez jabetu.

ik aditu, konprenitu

Honek, berriz, aitona-amonei ez die **ulertzen**. Josu Zabaleta

Ez diat **ulertzen** mutil hau! Bernardo Atxaga

Egia esan, ez dizut **ulertzen**. Jose Morales

-Ez nauzu **ulertu**. Patxi Zubizarreta

Uler ieza ezazu ongi. Patxi Zubizarreta

Gauzei usain egin eta usaina hartu beharrean gauzak **ulertzera** (eta izendatzera, bataiatzera... dena alfer samarrik) tematzen dena. Iñaki Segurola

Asko zor diogu, esan zidan, eta nik **ulertu** nuen dirua zor geniola. Anjel Lertxundi

Denok **ulertu** genion adierazi nahi zuena. Pako Aristi

Uler ezazu behingoz. Ander Irizar

Ez zuen Juanen portaera **ulertzen**. Bernardo Atxaga

Bere izaera berezia **ulertzeko**, egitate ordena berri bat sartu behar da. Isabel Arrigain

Frantsesek edo alemaniarrek sekula ez dituzte atzemango ez **ulertuko** xehetasun eta desberdintasun horiek guztiak. Jose Morales

Ez dut **ulertu** galdera. Koldo Izagirre

Ez nion izena **ulertu**: motorren burrunbadak uzten ez, banan-banan probatzen ari baitziren gasaldi osoan. Joxe Austin Arrieta

Nik den-dena **ulertu** nuen eskutitzak irakurri nituenean, eta ordutik aitari modu oso bestelakoan begiratzen diot. Ander Irizar

Adela ahozabalik geratu zen, **ulertuko** ez balu bezala. Juan Kruz Igerabide

Ulerzen, Herrenko? Juan Kruz Igerabide

Hasteko, zera utzi nahi dizut argi eta garbi, ez naizela profesionala, **ulertzen**? Alberto Ladron Arana

Zer arraio **ulertu** behar du horrek! Koldo Izagirre

Niri neuri, aitzakia hutsa iruditzen zait euskara giputza **ulertzeko** zailtasuna. Koldo Zuazo

Azkenaldi honetan garunaren funtzionamendua **ulertzeko** egin diren ia aurrerapen guztiek iradokitzen dutenez, [...]. Josu Zabaleta

Ulerzen ez nik zergatik ekin zion barreari bat-batean emakume beltzak. Joxe Austin Arrieta

Perpauasaren zentzua argia da **ulertu** nahi duenarentzat. Ramon Saizarbitoria

Gertatzen dena **ulertzeko**, beste behin ere, Maimonen esoterismora jo beharra dago. Xabier Kintana

Uleruko duk noski isil-isilik egongo naizela kontu horri buruz, lotsa onez. Jon Muñoz

Ez da **ulertzen** oinetakoen zientzia zer den, zientzia zer den **ulertzen** ez denean. Menane Oxandabaratx

-Ez baduk **ulertu** nahi ez alkate eta ez hire abeltalde horretako buru bezala, **ulertu** behintzat seme baten aita haizelako. Koldo Biguri

Frantziskok inor gutxi bezala **ulertu** zuen eta bizipen bihurtu Ebanjelioaren muina. Askoren artean

Ume hark ez zuen deus **ulertu**; ezin konprenitu noski, nolatan arin ezakeen ilunak trenaren lasterra. Iñaki Segurola

Hori ez zegoen **ulertzetik**, ez zegoen jaterik inolako moduz. Iñaki Segurola

-Ez diat deus **ulertu**, bota nion. Piarres Aintziart

Honi, ordea, ez zaio tutik **ulertzen**. Jose Morales

Gero Bibliako istorio horrekin topo egin nuen, eta ez nuen fisik **ulertzen**. Oskar Arana

Ezerez alemanez, **ulertu** bakarrik. Askoren artean

Metafora gisa **uler** bedi. Iñaki Heras

Sentimenen irudia, ahalik eta bizkorren atxikia, tresna gisa **ulertua**. Oskar Arana

Dena **ulertzeko** modukoa da. Migel Angel Mintegi

Berehala **ulertu** zuen, Joanesek, gerlako preso zela. Eneko Bidegain

Azkenean **ulertu** dut zer gertatu zaidan. Piarres Aintziart

Hamar urte eman zituen Dursleytarrekin, inoiz **ulertu** gabe zergatik eragiten zituen gauza arraroak nahi gabe ere. Iñaki Mendiguren

-Gaur **ulertu** diat erroarena ondo -egiten dio Gabinek Hausterri-. Iñaki Iñurrieta

2 (adizlagunen eskuinean)

Ongi **ulertu** beharra dago, zeren garrantzi handikoa baita, [...]. Josu Zabaleta

Nik, ordea, oso ongi **ulertzen** ditut nirea eta zurea. Koldo Izagirre

Ez dakit ondo **ulertu** diodan. Edorta Jimenez

Ez nuen ondo **ulertzen** Angelen zalaparta, ez nekien nortaz ari zitzaidan. Bernardo Atxaga

Hau ederki **uler** daiteke nire oinarri-esakuneen arabera. Ibon Urbarri

Hiru dimentsio horiek aise **uler** daitezke intuizioz, oinarritzat gure gorputza eta gorputzak espazioan duen kokaera harturik. Josu Zabaleta

Guatemala aldera omen zihoan, berehalaxe aditzera eman zidanez, negoziotara, oker **ulertu** ez banion. Joxe Austin Arrieta

Ez ieza ezazu gaizki **ulertu**. Oskar Arana

Guztziaren gainetik, ordea, gure karitate **gaizki ulertua** bere helburuaren kontra bihurtzen zen. Josu Zabaleta

ik *beherago* 4. Askoren artean

Bilbon polemika sortu da, Unamuno-k bere burua gaizki **ulertua** sentitu du. Joxe Azurmendi

Baina une bat geroago, garbi **ulertu** zuen kontua. Iñaki Mendiguren

Erlatibizatuz, hala hobeto **ulertzen** baita -bestela, azken batean, nekez **uler** daitekeen zifra bat besterik ez da, [...]. Iñaki Heras

Nire adinetik esaten diat hori, nahiz eta hiretik nekez **ulertuko** duan. Jon Muñoz

Erraz **ulertzen** da: Husarren 4.eko kapitain baten emaztearen maiteminez ari den herritarra zara. Jon Alonso

Bazirudien ez zuela **guztiz ulertzen** gertatzen ari zenaren esanahia. Jose Morales

Ongi baino hobeki **ulertu** zuen eutsi egin behar ziola ama besoetan hartzeko grina biziari. Karlos Zabala

Ez da horrela **ulertu** behar, beste honetara baizik: [...]. Xabier Kintana

Bastosi bihotza erdiratu zitzaion, bertatik **ulertu** baitzuen: motorretariko bat orduantxe hondatua zen, noski. Jon Muñoz

Brastakoan **ulertu** nuen: iniziatiba hartu behar nuen eta adorerako irudimena erakutsi, hori zen frogia. Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hainbeste interpretazio eta **ulertu**-bharren erdian, filologoa hitz gordinarean maiteminean etzaten da. Iñaki Segurola

Hark: "zeer? zer iruditzen?", eta zuk, **ulertu**-plantak eginez ezinbestean: [...]. Iñaki Segurola

Sorbaldak harrotu zituen, ez **ulertu** plantak eginez bezala. Mirentxu Larrañaga

4 *gaizki ulertu (orobat gaizkiulertu) iz*

Berehala sartu da Esther **gaizki ulertua** argitzera. Patxi Zubizarreta

Gaizki-ulertu bat izango zen tartean, kartzela oso hotz batera eraman baininduen. Joxan Elozegi

Beldur dio **gaizki ulertuen** mekanismoa aktibatu izanari. Anjel Lertxundi

Istripu baten edo **gaizki-ulertu** baten antzeko zerbait. Xabier Olarra

Albert Camusek **Gaizkiulertua** izeneko antzerkian. Bernardo Atxaga

Beharbada, aipatu egin beharko genuke, **gaizkiuleriturik** ez gertatzeko. **Berria - Euskal Herria**

Hala behintzat ez zen **gaizkiuleriturik** egongo. **Urtzi Urrutikoetxea**

Agiriak aurrerantzean sor litezkeen **gaizkiulerituak** saihestuko ditu. **Berria - Kirola**

Gaizkiuleritu guztiak uxatuta, autora itzuli ginen. **Anjel Lertxundi**

Bien arteko **gaizkiuleritua** bulego kontuek eragin zutela gogoratu zuen. **Berria - Kirola**

Lehen planoan ageri den liskarraren atzetik, elkarrekiko jakin-nahi bera eta **gaizki-uleritu** berberak daude, elkar aditzeko desira erreal bat ezkutaturik. **Joxan Elozegi**

Ez zegoen gure arteko engainurik ez **gaizkiuleriturik**. **Anjel Lertxundi**

Gaizki ulertuen beldur ginen, ez genuen hamasei urteko jendeak berezkoa duen xalotasun eta naturaltasuna erakusten gure iritzietan eta kritiketan. **Anjel Lertxundi**

Hura guzti **gaizkiuleritu** erraldi eta ikaragarria zela. **Jon Alonso**

5 ulertu ezin (orobat ulertuezin g.er.) iz

Hain luze joak ziren gure itzalak, gure aditu ezinak, gure **ulertu ezina**. **Joxan Elozegi**

Baina baita harridura ere, **ulertu ezina**, dolua, subjektu horren hondamena ikusirik. **Joseba Zulaika**

Pare bat segundo iraun du Martinen begiradako **ulertu ezinak**. **Anjel Lertxundi**

Ahaztu, mesedez, izan ditugun **ulertuezinek**, asteburu batez behintzat. **Aitor Arana**

Uleritu ezina sortzen da orduan. **Imanol Zurutuza**

Zenbateko **ulertu ezina**, zer nolako inkomunikazioa elkarren ondoan egonda. **Agurtzane Juanena**

Olaizolak ingurumena, lesbianismoa eta gurasoen eta seme-alaben arteko **ulertu ezinak** jorratu ditu. **Berria - Kultura**

Mendebaldeko kulturaren gaixotasuna irizten zion Snowk bien arteko **ulertu ezinari**. **Berria - Gaiak**

6 ulertu ezinezko izlag ezin ulertuzkoa.

Uleritu ezinezko nerbio gorabeherak izaten ditu. **Josu Zabaleta**

Behin eta berriro ikusi zuen ametsetan gizon zuri handi bat, antzinako modura jantzia, hatzak bekokia jo eta **ulertu ezinezko** hitzak esaten zizkiona. **Josu Zabaleta**

Paper bat erakusten dit; **ulertu ezinezko** froga mordo bat zirriboratu du han. **Josu Zabaleta**

Eta miragarriro, **ulertu ezinezko** moduan, sugea plasta! erori zen lurrera. **Iñaki Mendiguren**

Zeren, paperean argia izanik ere, guztiz **ulertu ezinezkoa** bihurtzen baitzen, eta baita zentzugabea ere, osinaren trumoi haren pear. **Koro Navarro**

7 ulertzekoa izan da ad

Ekainaren 12an, ostiralean, goizeko seiatarako esnatuta nengoen dagoeneko, eta **ulertzekoa da**, urtebetetzea nuen-eta. **Josu Zabaleta**

Cervantes militar ohi bat zen: **ulertzekoa** da haren erabakia. Alde batetik **ulertzekoa duk** haren jokaera, zeren betidanik jakin izan baitik hi Euskaltzaindikoa hintzela.

Juan Garzia

Euskaltzaleen zalapartak **ulertzekoak dira**. **Joxe Azurmendi**

Uste dut **ulertzekoa dela** bere alargun gazteaz aparte, Margak [...] Marcel Martinengan zuten konfiantza zertan oinarri zitekeen jakiteko nuen beharra. **Ramon Saizarbitoria**

Uleritzekoa zen zorigaitzeko aita hark kezka txarrak eta nahigabe saminak edukitzea. **Karlos Zabala**

Harrituta zeunden, eta **ulertzekoa izan** liteke, lehenengo aldia baitzen zure bila ezertara jotzen nuena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Uleritzekoa den bezala, Iturrinori ezagutzen diogun bertso-sorta bakar paregabeaz hasi ginen hizketan. **Anjel Lertxundi**

1900-1950 liburuaren egileak dienez, guztiz **ulertzekoa da** maisuak ikaslearenagan eragin hori izatea. **Askoren artean**

Uleritzekoa da, bere bitzita eredutat daukan jendea izatea oraindik, eta bere azainak kontatzeko kemen puska harroa izatea ere. **Patziku Perurena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

azkenean ulertu (10); bakarrik ulertu (8); bat batean ulertu (9); behar bezala ulertu (10); benetan ulertu (6); berehala ulertu (68); berehala ulertu zuen (29); berehalakoan ulertu (9); beti ulertu (6); den dena ulertu (6); dena ulertu (37); dena ulertu nuen (7)

ederki ulertu (10); elkar ulertu (30); erabat ulertu (8); esanahia ulertu (6); ezer ulertu ez (6); ezer ulertu gabe (14); ezin da ulertu (35); ezin nuen ulertu (15); ezin ulertu (41); ezin ulertu nuen (6); gaizki ulertu (67); gaizki ulertu bat (8); garbi ulertu (7); gizarteak ulertu (7); guztiz ulertu (8); hala ulertu (21); halaxe ulertu (12); hitzak ulertu (10); hobeto ulertu (25); honela ulertu (6); horrela ulertu (19)

laster ulertu (14); nola ulertu (61); nola ulertu behar (30)

oker ulertu (10); ondo ulertu (110); ondo ulertu zuen (10); ongi ulertu (89); ongi ulertu zuen (8); orain ulertu (8); oraindik ulertu (7); orduan ulertu (68); orduan ulertu nuen (34); orduantxe ulertu (13); oso ondo ulertu (17); oso ongi ulertu (10); segituan ulertu (8); testuinguruan ulertu (9); testuinguruan ulertu behar (8); txarto ulertu (7)

ulertu ez arren (17); ulertu ezin (34); ulertu ezina (11); ulertu ezinezko (11); ulertu ezinik (49); ulertu gabe (83); ulertu nahian (26); zer ulertu (19); zera ulertu (7); zerbait ulertu (12); zergatia ulertu (6)

ez ulertua (10); ezin ulertua (12); gaizki ulertua (28)

ezin ulertuak (11); gaizki ulertuak (28)

aise ulertuko (10); berehala ulertuko (9); erraz ulertuko (8); errazago ulertuko (9); gaizki ulertuko (8); hobeki ulertuko (7); hobeto ulertuko (23); inoiz ulertuko ez (6); nekez ulertuko (12); ondo ulertuko (6); ongi ulertuko (10); orduan ulertuko (6); sekula ulertuko (10)

ezin ulerturik (9); gaizki ulerturik (7)

gaizki ulertutako (6)

ezin ulertuz (12); ulertuz gero (17)

ezin ulertuzko (11)

elkar ulertze (20); gaizki ulertze (18); ulertze aldera (20); ulertze bat (9)

elkar ulertzea (43); gaizki ulertzea (10); ongi ulertzea (6); ulertzea nahi (7); ulertzea zergatik (9); zaila da ulertzea (8)

ez ulertzeak (8); gaizki ulertzeak (9)

elkar ulertzearen (19)

behar bezala ulertzeko (6); egoera ulertzeko (13); elkar ulertzeko (58); erraz ulertzeko (7); ezer ulertzeko (9); futbola ulertzeko (6); gauzak ulertzeko (12); guztia ulertzeko (7); hobeki ulertzeko (14); hobeto ulertzeko (32); lana ulertzeko (8); mundua ulertzeko (22); musika ulertzeko (10); ondo ulertzeko (11); ongi ulertzeko (13); politika ulertzeko (7)

ulertzeko ahaleginak (6); ulertzeko aukera (9); ulertzeko beste modu (7); ulertzeko bidea (6); ulertzeko era (17); ulertzeko eran (8); ulertzeko ezinbesteko (6); ulertzeko gai (46); ulertzeko gai izan (6); ulertzeko gauza (34); ulertzeko gauza denak (14); ulertzeko gauza ez (9); ulertzeko giltza (9); ulertzeko gisan (6); ulertzeko modu (42); ulertzeko modu ezberdinak (6); ulertzeko modua (17); ulertzeko moduan (47); ulertzeko moduari (8); ulertzeko moduko (11); ulertzeko modukoa (10); ulertzeko modurik (7); ulertzeko orduan (7)

erraz ulertzekoa (8); ulertzekoa da (96); ulertzekoa denez (7); ulertzekoa ere bada (10); ulertzekoa zen (16)

ulertzekoak dira (6)

aise ulertzen (9); bakarrik ulertzen (16); batere ulertzen ez (6); behar bezala ulertzen (10); berez ulertzen (7); dena ulertzen (31)

ederki ulertzen (10); egoera ulertzen (7); elkar ulertzen (34); erabat ulertzen (9); erraz ulertzen (29); erraz ulertzen da (11); errazago ulertzen (9); esanahia ulertzen (8); euskara ulertzen (11); gaizki ulertzen (8); garbi ulertzen (9); gauzak ulertzen (10); gutxi ulertzen (9); gutxi ulertzen (13); gutxi ulertzen (7); guztia ulertzen (7); guztiak ulertzen (11); hala ulertzen (7); hizkuntza ulertzen (15); hobeki ulertzen (13); hobeto ulertzen (51); hobeto ulertzen da (7); honela ulertzen (8); horrela ulertzen (11); horrela ulertzen da (7); hura ulertzen (8)

inork ulertzen ez (13); jarrera ulertzen (6); nekez ulertzen (20); nola ulertzen (31); nola ulertzen duen (6)

ondo ulertzen (92); ongi ulertzen (70); orain ulertzen (69); orain ulertzen dut (34); orain ulertzen zuen (6); oraindik ulertzen (7); oso ondo ulertzen (38); oso ongi ulertzen (23)

ulertzen den bezainbatean (9); ulertzen dizut (26); ulertzen erraza (9); ulertzen lagundu (9); ulertzen lagunduko (12); ulertzen laguntzen (15); ulertzen saiatu (14); ulertzen saiatzea (6); ulertzen saiatzen (13); ulertzen zaila (7); zerbait ulertzen (14)

ulertzera iritsi (7); zerbait ulertzera (6)

ez dago ulertzerik (9)

ulertuezin ik **ulertu** 5.

ulertugarri ik **ulergarri**.

ulertzaile 1 *izond/iz* ulertzen duena.

-Aski da Jainkoak ulertzea, emazte -Santxok erantzun- bera da-eta gauza guztien **ulertzaile**, eta bego hau hemen horrelaxe. **Patxi Ezkiaga**

Ez zaio *merk-b-h* bati ere adieraziko, hura benetako jakintsua ez bada, bere baitarik **ulertzaile**. **Xabier Kintana**

2 irud/hed

Antoniok anitzetan esaten zuen lagun **ulertzaileak** -hots, homosexualak- elkartu eta geure kontuez gustura eta pozik hitz egiten genuenean, edo, are gusturago, elkarrekin jolas haragikoietan hasten ginenean. **Aitor Arana**

ulertze 1 *iz* zerbaiten esanahiaz, izaeraz, zergatikoaz jabetzea; norbaitek dioenez jabetzea.

Erlijioa da ardatza, eta fenomenologia edo teoriak osagarriak dira eta erlijioaren **ulertze** dinamikoa eraikitzen laguntzen dute. **Askoren artean**

Nola Izpirituak, arrazoitzen duen aldetik, bere izana atxikitzeko egiten duen ahalegina **ulertze** bat baizik ez den [...]. **Piarres Xarriton**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Pello Esnal, Gorka Aulestia, Patri Urkizu, Jon Kortazar bera... aritu izan dira ahozkotasanaren inguruko ikerkuntzan eta **ulertze**-ahaleginean. **Andoni Egaña**

Honela, **"ulertze"** prozesua aztertzearen inguruko arazo orokorra murriztu egiten da. **Itziar Laka**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez du teologoek hain maite duten "mundu-ikusera" delako horren arrastorik, ez mundu-**ulertzerik**, baina bai mundu-entzuerata bat. **Iñaki Seguro**

Oker-**ulertze** orokor horretatik bi ondorio atera ditzakegu. **Askoren artean**

Hamahiru mila gizon, beren sentimenduak edukiko dituztenak, nola ez, baina sentimenduok hain guk ez bezala adieraziko dituztenak, gure eratik hain urrun, non elkar **ulertze** kontu horretan hurbilago egongo baitira beren etsaiengandik, mairuengandik, guregandik baino, haien ondorengotzaren bandera eta titulua geuk eramaten ditugun arren. **Jon Alonso**

4 *ezin ulertze iz*

Garbi dago oztopoa ez zela euskalkia, eta beste nonbait bilatu behar dela **ezin ulertzearen** gakoa. **Koldo Zuazo**

Hedabide eta komunikabideeri Eusko Jaurlaritzak emanen dituen laguntzetan apaltze bat 300.000 eurokoa agertu baita azken erabaketan, asaldatu dira hegoaldeko prentzabideak eta beren **ezin ulertzea** jakinarazi ere. **Herria**

Esan nahi nioke zorigaitzoko herri honetan taumaturgoak izan behar dugula oraindik ere, **ezin-ulertzearen** amildegian erori nahi ez badugu. -Adierazgarria da zure **ezin ulertze** hori. **Agurtzane Juanena**

Orain, hil aurreko azken orduan, **ezin ulertze** horrek finko begiratzen zion, begitxo ergelak zabal-zabalik. **Jose Morales**

- Bizitza osoan, horma baten antzeko elkar **ezin ulertze** amaigabea egon zen Vasiliren eta senideen artean. **Jose Morales**

5 *gaizki ulertze (orobat gaizkiulertze g. er.)*

Eta tira, barkatzeko, **gaizki ulertze** bat izan zela. **Pako Aristi**

Gaizki-ulertze bat baino ez zen izan. **Mirentxu Larrañaga**

Eta gainerakoan ez baitut etsaminatzaile aditu eta inpartzialengan **gaizki-ulertzerik** aurkitu. **Ibon Uribarri**

Gaizki-ulertzeak saihestearren. **Ibon Uribarri**

Gaur egun aho batezko iritzia dago Eckharten benetako doktrinaren **gaizkiulertzeetan** oinarritu zela haren kondena. **Joan Mari Lekuona**

Hasiera-hasieratik hemen **gaizki-ulertze** handi bat sor dezakeen bikoiztasun bat agertzen da. **Ibon Uribarri**

Zeren elkarren aurrean jartze honek azkenen teoria **gaizki-ulertze** orotatik askatzen baitu. **Ibon Uribarri**

Gure helburua ez da erlijio jakin baten kontra jotzea, komunitateen arteko gatazken testuinguruan sortzen diren ezinegon eta **gaizkiulertzeak** baretzea baizik. **Berria - Euskal Herria**

Ondoren sortutako ika-mika eta **gaizkiulertzeak** argitu. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

elkar ulertze (20); **ezin ulertze** (3); **gaizki ulertze** (18); **gaizki ulertze bat** (4)

gaizki ulertzeak (9)

elkar ulertzearen alde (5); **elkar ulertzearen aldeko** (3)

elkar ulertzerik (7)

ulertzeke *iz* ulertu gabe.

Ulertzeke irakurri nituen, gogo biziz, neure odoleko gizon batek guztizko pintzel zehatzez idatzi zituen hitz hauek: [...]. **Juan Garzia**

Mikelek zergatia **ulertzeke** segitzen zuen. **Unai Iturriaga**

Loroen moduan errepikatu dizkirate galderak behin eta berriro, erantzunak **ulertzeke**. **Jon Arretxe**

Potentzian den gauzaren aktoa da higidura, baina "akto inperfektu" gisa **ulertzeke** dagoena, gutxiaka infinituari hurbiltzen zaiona. **Askoren artean**

uli ik **euli**.

uliketa ik **euliketa**.

uliki ik **euliki**.

ulitu ik **eulitu**.

ultimatum *iz* behin betiko proposamena, eskuarki mehatxu bat daukana eta atzerabiderik onartzen ez duena.

Egia esan, proposamena baino gehiago **ultimatuma** izan da. Jon Arretxe

Spainiako Auzitegi Gorenak **ultimatuma** eman zion Eusko Legebiltzarrari, SA desagiteko. Berria - Euskal Herria

Frantziako Gobernuari **ultimatuma** ezarri zion, eskola publikoetan buruzapia eramatea debekatzen duen legea bertan behera uzten ez bazuen, bahituak hilko zituztela. Berria - Mundua

Beste zurrumuru batek esaten duenez, gobernu sobietarrak eta Churchillek **ultimatuma** eman omen diote alemanei, eta Hitlerrek agindu omen du ez gehiago hiltzeko judurik. Felipe Juaristi

Sidney ile-apaintzailea zorigaiztoko kartazala irekitzen ari da eta ugazabaren **ultimatuma** ozen irakurtzen. Oskar Arana

Bahitzaileek jarritako **ultimatuma** asteazken arratsean amaitzen zelarik, [...]. Berria - Mundua

Bruselan, «kalearen **ultimatumak**» errefusatu zituen Chiracek, eta ordura arte «erabateko» babesa agertu zion publikoki Dominique De Villepin lehen ministroari. Berria - Ekonomia

Enpresako zuzendari Thomas Rugebergerek emandako **ultimatumari** ezezkoa eman zioten atzo langileek. Berria - Ekonomia

Ultimatumari uko eginda, Najafhirian segituko du Al Sadrek. Berria - Mundua

Han kausituko duzu orobat hitzarmena berritzeko zure proposamenari eginen diodan **ultimatum**-a. Jon Muñoz

Urtarrilaren 15a bukatzen zen amerikarrek Iraken aurka luzaturiko **ultimatuma**. Joxan Elozegi

Austriaren **ultimatuma** jaso zuenean, Turkiako Ministerioa hura aztertzeko bildu zen. Xabier Olarra

Gero batzorde bat eratu eta **ultimatum** bat prestatu zuen prefektuari bidaltzeko: edo sententzia betetzeko agindua bertan behera utzi eta sententzia bera indargabetzeko bidea hasi, edo greba orokorra. Koldo Biguri

Umeei **ultimatuma** eman zien: amarekin bizitzea edo aldundiaren harrera-etxera joatea. Berria - Euskal Herria

Nirekin kristoren moskeoa hartu zuen, baita **ultimatuma** eman ere: Aste Santurako, beranduenik, lana bilatu eta etxetik ospa egin beharko nuen. Jon Arretxe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

jarritako ultimatum (4); **ultimatuma eman** (26); **ultimatuma eman zien** (7)

ultimatumaren ondoren (3)

ultra 1 *iz* muturreko ideiak dituen pertsona.

Parisen zegoen Charles X. erregea, gogoz eta bihotzez **"ultra"**; orain erran genezake "eskuin burukoa". Parisko **ultrek** gogorrek diren fama dute. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Baionak baduela **ultrek** eragin ditzaketen istiluak ekiditeko gaitasuna. Berria - Kirola

Pim Fortuyn Holandako **ultren** liderraren ustezko hiltzailea. Joxerra Garzia

2 (hitz elkartuetan)

Ultra talde batek Zabaletaren aurkako oihuak bota zituen eta Ricardo Guerra, Zabaletaren hilketagatik zigortutako gizasemea askatzeko eskatu. Berria - Kirola

Ultra talde txiki bat Kongresuko sarrera gerturatzen saiatu bazen ere, ezin izan zuten. Berria - Harian

3 (izenondo baten ezkerrean)

Ultra Deep Field (Eremu **Ultra** Sakona) argazkia segundo milioiren bateko hartualdian egin zuen Hubblek. Berria - Gaiak

Hildako bat, definizioz, **ultra**-atzerakoia da, ezin ditu ordenaren aldaketak eraman. Juan Luis Zabala

Askatzeak neurri onak dira, baina politika **ultra** errepresiboa indarrean dago oraindik. Berria - Mundua

Bigarren, nekazari eta lurjabeen gizarte **ultra**-landatarra izatetik pixkanaka eskulangile eta burgesen gizarte **ultra**-hiritarra izatera aldatu zen. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gizarte ultra (3)

ultraaltu *izond* guztiz altua.

UHF: Ultra High Frequency, edo Maiztasun **Ultraaltua**. Fernando Morillo

ultraberri *izond* guztiz berria.

Ia hogeita hamar urte lehenago sexu, droga eta, zergatik ez, ertzeraino eramandako askatasunaren kalea izandakoan orain *Disney Entertainment*-a eskaintzen zuten eraikin **ultraberriak** zeuden, kristalez eta teknologiaz jantziak. Iñaki Zabaleta

ultradoitasun *iz* muturreko doitasuna.

Danobat Taldeak jakintza berriak sortu nahi ditu automobilgintzaren, aeronautikaren, mikromekanizazioaren eta **ultradoitasunaren** inguruan. Berria - Ekonomia

Instalazioen funtsa **ultradoitasunezko** eta sistema adimendunezko teknologiak osatuko du. Berria - Ekonomia

ultraenpiriko *izond* guztiz enpirikoa.

Aristotelesen irizpidea, ordea, edozein teoria baino lehenagoko sen ona errespetatzea izan zen, eta sen onak emandako mundua teorikoki ez ezabatzeko ahalegina egin zuen, jarrera nahiko **ultraenpirikoa** agertuz. Askoren artean

ultraerlijioso (*corpusean ultra erlijioso soilik*) *izond* guztiz erlijiosoa.

Sharonek, hamaika diputatu dituen Shass eta bost biltzarkide dauzkan Torako Judaismo Batua alderdi **ultra erlijiosoak** ere nahi lituzke. Berria - Mundua

ultraeskuin *(corpusean **ultraeskuma** soilik)* iz muturreko eskuina.

Sasoi hartan indar handia zuten **ultraeskumako** taldeek eta horiek ere euren razziak egiten omen zituzten *El balcon de la Lola* inguruetan. Berria - Euskal Herria

ultraeskuindar *(orobat **ultra-eskuindar** g.er.) 1 izond* muturreko eskuindarra.

Erakundeak «oso arriskutsu» iritzi zien judu **ultraeskuindarrek** berriki eginiko mehatxuei. Berria - Mundua

Hainbat talde **ultraeskuindarren** eta hainbat komunikabideren jazarpena dela medio. Talde **ultraeskuindarren** presioaren ondorioz. Berria - Kultura

Forza Italia alderdi **ultraeskuindarraren** hautagai Sisinnio Pirasen autoari su eman zioten. Berria - Mundua

Lelo nagusiaren atzetik Ermuko Foroa, Espainiako Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibilaren elkarteak, Espainiako Apezpikuen Biltzarra, Manos Limpias sindikatu **ultraeskuindarra** eta PPko buruzagi nagusiak batu ziren, besteak beste. Berria - Euskal Herria

«Espainiako sektore **ultraeskuindarra**» da Donostian elkarretaratzea egingo duena. Berria - Euskal Herria

2 (izen gisa)

Ultraeskuindarrek hildako baten sendiak kalte-ordaina jasoko du. Berria - Euskal Herria

Amnistiaren aldeko manifestazio batean parte hartzen ari zela, tiro egin zion **ultraeskuindar** batek. Berria - Euskal Herria

Hogei bat **ultra eskuindar** Madrilgo Casa del Camporen aurrealdean bildu ziren atzo arratsaldeko saioa hasi baino lehen. Berria - Harian

Orain hilabete batzuk *Su Ta Gar*, *Soziedad Alkoholika* eta Fermin Muguruza abeslaria izan ziren **ultraeskuindarren** oldarraldia nozitzen lehenak. Berria - Kultura

Europako **ultraeskuindarren** teoria bera defenditzea leporatu zion Jaurizaritari. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan)

Ultra-eskuindar talde hau FARCen aurkari bortitzena izateaz gain, Pablo Escobarren [...] eskutik ibili ondoren, 1989an haren aurka zuzendu zen, Gobernuaren eskutik. Berria - Mundua

Manifestazioan Polizierekin istiluak gertatu ziren, eta baita manifestarien aurka jo zuten **ultraeskuindar** talde batekin ere. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

talde **ultraeskuindarren** (6)

ultraeskuma ik ultraeskuin.

ultraespainol *izond* muturreko espainola.

Irratia piztu zuen, gauero entzuten zuen tertulia **ultraespainola** entzuteko. Unai Iturriaga

ultragorri *izond* guztiz gorria. ik infragorri.

Bordak bere Ogirik gabeko munduan Iparraldeko lurrak arto alor transgenikoaz osatuak eta arraio **ultragorri** eta irriaktiboz setiatuak imajinatu ditu. Berria - Kultura

ultraista *izond* gaztelaniazko *ultraismo* literatura-higikundeari dagokiona.

Poeta **ultraista** izana zen Enrique, adibidez, eta Josep zapatarri anarkista baten seme boxeolaria. Unai Elorriaga

ultraizoztu *(orobat **ultra izoztu**) izond* abiadura handian eta oso tenperatura baxuetan izoztua.

Klabe-hitzak: berria, "zuk espero zenuena", **ultraizoztuak**, liofilizatua, 168º C-taraino ultrauperisatua, iraultzailea, atmosfera eraldatuan ontziratua, etc. Haragi, barazki eta arrain **ultra-izoztuak**, zukuak, kontserba appertizatuak. Edorta Agirre

ultrakatoliko *izond/iz* muturreko katolikoa.

Baina litekeena duk, errejimen **ultrakatoliko** batek jaramon ez egitea aitasantuaren eskariari. Koldo Izagirre

Europako konstituzioa blokeatzeko eta Polonia EBtik ateratzeko ahal duen guztia egingo duela esan du Familia Poloniarren Liga alderdi **ultrakatolikoak**. Berria - Mundua

Hamaika dira «zapaltzaileak» eta «milaka aurpegi» dituzte: «Ministro izena eduki dezakete, sailburu izena edo unibertsitate **ultrakatoliko** baten izena. Berria - Euskal Herria

Ravallac **ultrakatolikoak** hil zuen. Aingeru Epaltza

ultrakonpakto *izond* guztiz konpaktoa.

Dozenaka galaxia txiki **ultrakonpaktoak** deitzen zaien horietakoak atzeman dituzte Siding Springo Behatoki angloaustraliarreko astronomoek, Fornax konstelaziotik gertu. Berria - Gaiak

ultrakontserbadore *(orobat **utrakontserbadore** g.er.) izond/iz* muturreko kontserbadorea.

Jarrera **ultrakontserbadorea** agertu du oso. Berria - Harian

Larunbatekoa ez zen «terrorismoaren biktimen» manifestazioa izan, «protesta **ultrakontserbadorea** baizik». Berria - Euskal Herria

Mahmud Ahmadinejad hautagai **ultrakontserbadoreak** alde handiz irabazi zuen herenegun Irango Errepublika Islamiarreko presidentetzarako bigarren bozaldian. Berria - Harian

Handizki kezkatu du nazioartearen zati bat buruzagi islamista **ultrakontserbadore** bat hautatu izanak indar nuklearra garatzeko asmoa duen herrialde batean. Berria - Harian

Israel Beiteinu **ultrakontserbadorea** da. Berria - Mundua

Diktadura ahaztu nahi duten zentro-eskuinekoen eta hura babestu zutenen **ultrakontserbadoreen** botoak. Berria - Mundua

ultrakristau *izond* muturreko kristaua.

Presoak arrestata ibilarazi dibluzik, itxurazko sodomia ekintzetan parte harrarazi, ahozko sexua eta masturbazioak egitera behartu dituzte haien sorterriko zenbait estatu **ultrakristautan** debekatuta dauden jarduerak, hain zuzen. **Berria - Mundua**

ultrakritiko *izond/iz* guztiz kritikoa.

Diskurtso **ultrakritikoak** aurkakoa dioen arren, Hirugarren Munduko langileen alde ere egin dute bai transnazionalak. **Iñaki Heras**

Hasieratik argi utzi behar da -eta **ultrakritikoen** aldetik gutxitan aipatzen den zerbait da- enpresa horiek ezartzen diren herrialdeen ekonomian eta gizartean, eta bereziki industrializatu gabekoetan, hazkunde eta garapen ekonomikorako bete dezaketan eginkizuna oso garrantzitsua izan daitekeela. **Iñaki Heras**

Bada hor, jakina, aurreiritzi ideologiko eta estetikoetan oinarriturik, Krugmanen eta antzeko tesiei inolako baliorik, apur txikirik ere, ematen ez dioten **ultrakritikorik**. **Iñaki Heras**

ultraliberal (*orobat ultra liberal*) *izond/iz* muturreko liberala.

Badira mutur batean zenbait ekonomilari **ultraliberal** FMI eta MB desegitea eskatzen dutenak. **Iñaki Heras**

Parisen poderean eskuineko gobernu **ultra liberal** bat dugun garaian, [...]. **Herria**

Antzeko zerbait zioen Keynesek ortodoxia **ultraliberal** horri buruz, erlijio baten kontra egitea bezala ikusten baitzuen garaiko liberalismo amorratuaren kontra egitea. **Iñaki Heras**

Bi muturretako sistemak gaitzesten ditugu: laboral hazkurri industriren zerbitzuko sareetan integratua den laborantza **ultra liberala** batetik, eta bestetik funtzionario bilakatua dena. **Herria**

Globalizazioak eta munduan «indarrean dauden joera **ultraliberalek** ezinegona» dakartela azaldu zuen Lan eta Trebakuntza diputatuak. **Berria - Ekonomia**

Gaurko gizarte **ultra liberalean** den irakurlea kontsumitzaile gastatua dateke, akort. **Ana Urkiza**

Gizarte eta ekonomiari dagokionez, alderdiaren buruzagiak **ultraliberaalak** dira. **Berria - Mundua**

HZ da Europa polizial eta **ultraliberalari** aurre egingo dion zerrenda bakarra. **Berria - Euskal Herria**

FNk immigrazioa kontrolatzeko neurri gutxiegi hartzea leporatzen dio itunari eta komunistek **ultraliberaala** izatea. **Berria - Harian**

Ultraliberaalak, zentristak, ezkerreko batzuk. **Berria - Euskal Herria**

ultraliberalismo (*orobat ultra liberalismo*) *iz* muturreko liberalismoa.

Mundializazioak eta **ultraliberalismoak** gorteko pailazo bilakatu zituen egunetik, ez dute txintik ere egin. **Hasier Etxeberria**

Mobilizatu beharko dugu ere salatzeke **ultra liberalismo** eta kapitalismo basati baten ondorio diren marea beltz eta hondamendi ekologiko jasanezinen arduradunak eta hobendunak nor diren jakin arte. **Herria**

Bigarrenak udazkenean bozak antolatuta beharko ditu eta Konstituzioaren **ultraliberalismoa** salatzen ari dira bere gobernuko buruzagiak. **Berria - Harian**

ultraligero *izond* guztiz arina.

Bukatzen dudanean erakutsiko dizut, Justo, auto **ultraligero** bat diseinatzen ari naiz. **Joxemari Urteaga**

ultralioialista *izond/iz* muturreko loialista.

Pilota orain akordioak indar **ultralioialistatzat** jotzen dituen indarren alderdien eskutan dago Irlanda. **Berria - Harian**

Ultralioialisten eskutan dago orain pilota. **Berria - Harian**

ultramoderatu *izond/iz* guztiz moderatua.

Musulman moderatuek, **ultramoderatuek**, muturrekoek... **Berria - Mundua**

ultramoderno *izond* guztiz modernoa.

Mansaren azpiko gona more argi batekin dantzako jantzi **ultramoderno** bat egin dut. **Josu Zabaleta**

AEBek aire indar **ultramodernoak** dituzte, eta gai dira eraso zehatzak egiteko; gurek kerosenarik erosteko dirurik ez dute. **Berria - Mundua**

Palo Altoko astrofisikariak 2001 SG506 izenaz bataiatutako objektu espazialak ez zuen asteroideen patata-itxura arrunta, diseinuzko tupperware **ultramodernoarena** baizik. **Patxi Iturritegi**

Ez bata ez besteak ez du ulertzen zergatik ez duten aurkitzen G puntu famatu eta **ultramoderno** hori. **Luis Elberdin**

Lau urte geroago, makineria **ultramodernoaz** hornituriko ikuztegi berria ireki zuen. **Aingeru Epaltza**

ultramontano *izond/iz* erlijio arazoetan ideia guztiz ultrakontserbadoreak dituena.

Garai **ultramontano** haietan, eta gure urteetan... otu ere ez horrelako likiskeriarik! Egia ote zen, azkenean, Valentín Gómez ere, Karlos Setimoren konfiantza-gizona, "liberalgia" zitzaizela mini-gorteko **ultramontano** ojalateroei? **Txillardegi**

ultramore *izond* irrada elektromagnetikoez mintzatuz, morearen gaineko argi espektroari dagokiona.

Espektroaren eskualde more eta **ultramoreko** argia. **Irene Aldasoro**

Kataratarentatik kristalinoa kendu eta beira argi bat jarri zaion jendeak nahikoa ondo ikusten du argi **ultramorearekin**. **Irene Aldasoro**

Eguzkiaren erradiazio **ultramoreen** ondorioz. **Berria - Gaiak**

Izpi **ultramoreak** harrapatzen ditu, kalte egin dezaten baino lehen. **Irene Aldasoro**

Bertan arautzen dira aparatuen salmenta, bezeroari izpi **ultramoreen** ondorioei buruz eman beharreko informazioa, erradiazioaren intentsitatea eta langileen prestakuntza. **Berria - Euskal Herria**

Esan ohi da erretinako beste arazo batzuk dituztenei [...] izugarri jasanezina zaiela argia -**ultramorea** ez ezik, uhin-luzera guztietako argia-. **Xabier Olarra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

izpi **ultramore** (3)

izpi **ultramoreek** (4)

ultramotel *iz* guztiz motela.

Internet **ultramotel** batean bueltaka, futbol gabeko igandeak ezin jasan. Berria - Kirola

ultranazionalista *izond/iz* muturreko nazionalista.

Berehala hasiko dira *eia, eia, eia, alalà!* egiten gero eta faxistagoa bihurtzen ari den diskurtso **ultranazionalista** horren jarraitzaileak ere. Berria - Kultura

Humalatarrek ideologia **ultranazionalista**, sozialista eta dogmatikoa aldarrikatzen dute, adierazpen arrazistak dituen. Berria - Mundua

Putinen aurka lehiatzen diren beste bost hautagaiek, hots, Sergei Glaziev ezkerreko nazionalistak, Irina Khakamada liberalak, Nikolai Kharitonov komunistak, Sergei Mironov Senatuko presidentek eta Oleg Malishkin eskuineko **ultranazionalistak** bakoitzak botoen % 10 ere ez dituztela eskuratuko iragartzen dute inkestek. Berria - Mundua

Pentsaera hau, noski, **ultranazionalista** da, totalitarioa. Bernardo Atxaga

Sabino Arana EAJren sortzailearen doktrinaren zenbait osagaik «arnasa ematen dietelako **ultranazionalistei**». Berria - Euskal Herria

ultraortodoxo *izond/iz* muturreko ortodoxoa.

Agirian aipatu dituzten astakeriak pentsamendu integrista eta faxista batetik sorturiko homofobia- eta misoginia-jario **ultraortodoxo** dira. Berria - Euskal Herria

Shas alderdi **ultraortodoxoak** hamabi diputatu dituen arren, nahikoa eragin izango du gobernu koalizioan. Berria - Mundua

Sozialista **ultraortodoxoak** beldur dira lege hori ez ote den interes pribatuen mesederako izango. Berria - Mundua

Haserrea ezezik, krisi politikoa areagotzen ahal du Sharon judu **ultraortodoxoekin** hitz egiten hasteak. Berria - Mundua

Hetzer Hazani kokagune **ultraortodoxo** da eta komunitate nortasun handia dagoela sumatzen da. Berria - Harian

ultrasekretu *izond* guztiz sekretua.

Postaz banatzen den *Conspiracy Digest* hilabetekari ziklostilatua arabera, artikulua honen egilea kriogenizaturik dago Rushmore mendia barruan kokaturiko base **ultrasekretu** batean, Elvis, Bruce Lee, Walt Disney eta Stanislaw Lem-ekin batera. Iban Zaldúa

Dirudienez, Munduko Bankuak bahituta daukala esaten du egileak, haientzat lan egitera behartu dutela, eta Mendi Harritsuetan duen egoitza **ultrasekretu** batean entzerratuta daukala, haientzat lan egin dezan. Iban Zaldúa

ultrasoinu 1 *iz* giza belarriak auteman dezakeen baino maiztasun altuagoko hots bibrazioa.

Ultrasoinuak aditzeko gailu berezi bat. Berria - Gaiak

Ultrasoinuek ikerketa medikoetarako izan dezaketen erabilera aztertzen ere hasi zen hamarkada hartan Brunsveld van Hulsten. Berria - Gaiak

Adituek azaldu dutenez, **ultrasoinuek** erresonantzia magnetikoaren irudikapena trabatuta egiten dute maiz. Berria - Gaiak

Ultrasoinuen bidezko metodo bat aztertzen ari gara, enpresa batek eskaini digu. Jon Alonso

2 (hitz elkartuetan)

Datozen bi egunotan ere **ultrasoinu** eta laser tratamenduak hartuko ditu. Berria - Kirola

Alarma sinpleak, detektagailu bolumetrikoak, infragorri bidezko detektagailuak, **ultrasoinu** bidezko detektagailuak, kontaktu magnetikoak... askotariko alarma sistemak daude. Berria - Harian

ultrauperisatu *izond* guztiz uperisatua.

Klabe-hitzak: berria, "zuk espero zenuena", ultraizotuak, liofilizatua, 168° C-taraino **ultrauperisatua**, iraultzailea, atmosfera eraldatuan ontziratua, etc. Edorta Agirre

ultzamar *izond/iz* Ultzamakoa, Ultzamari dagokiona; Ultzamako biztanlea.

Oskotz herriko **ultzamar** bat harritu egin omen zen norbaitek beraren hizkera ezagutu eta ikertu nahi zuela jakitean. Koldo Zuazo

ultzera 1 *iz* ehun organikoko etena, mami galera duena eta orbaintzeko joerarik ez duena.

Ultzera bat du, dirudienez, eta ebakuntza bat egin behar diote. Josu Zabaleta

Galete herrixkako andre noble batek **ultzera** bat zuen bular artean eta, haren oinazez kiratsez bezainbat atsekabetuta, ez zuen inolako sendabiderik aurkitzen. Askoren

Ultzera gaiztotu egiten zaio [...] hilabete amaieran zeinen gutxi aurreztu duen jakinik. Urtzi Urrutikoeetxea

Ebakuntza horren ondorioz, denborarekin, etenak, urdaileko **ultzerak**, infekzioak sor daitezke. Berria - Euskal Herria

Nahi dutena esango dute, baina **ultzera** asko saihesten dira hizkuntzaren degradazio tiki baten truke. Harkaitz Cano

Ultzeraz trabaturiko ahots-bidea ixten zitzairen. Xabier Amuriza

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ultzera gaizto bat zuen bere semearen alde. Askoren artean

Leku publikoetan arrastatzen eta negargarri hiltzen ikusiko zenituen, zikinez eta zarpailez josiak, hezurren gainean azal huts, **ultzera** zantarrek eta ustelmenak ia lurperatuak. Xabier Amuriza

Ultzera peptidikoaren sorreran, *Helicobacter pylori* bakterioak duen eragina. Berria - Gaiak

Urdaileko **ultzera** sortzen da orduan. Irene Aldasoro

Duodeneko **ultzera** du. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ultzera sortzen (3); **urdaileko ultzera** (4)

ultzeradun *izond* ultzera duena.

Bautista Barandalla etxarriarri hiru ebakuntza egin behar izan dizkiote azken bi urteetan, *kolitis* **ultzeraduna** gaixotasuna dela eta. Berria - Euskal Herria

ultzeroso *izond* ultzerari dagokiona.

Bularreko minbiziari, kolitis **ultzerosoari** eta gisako gaitzei aurre egiteko, ikerketa gehiago egin behar dira. **Berria - Gaiak**

ulu 1 *iz* oihu zoli eta luzea. ik **uhuri**.

Gainontzeko animalia guztiek auria egiten ditek, **ulua**, marrua, baina hori gizakumearen oihuaren parekoa duk. **Pako Aristi**
Zakurraren **ulua** entzun zen gauean, eta On Camillok ere ezin izan zuen lorik egin. **Koldo Biguri**
Belarriak zartzatzeko moduko **uluak** eginez. **Iñaki Mendiguren**
Polizia-auto baten **uluak** entzun nituen. **Juan Luis Zabala**
Lehenbizi **ulua** etortzen da eta gero malenkonia, ez dira nahasi behar bi denborak. **Fernando Rey**
Basamortuan aurkitu zuen, **uluz** beteriko bakardadean. **Elizen arteko biblia**
Anbulantzia baten sirenaren **ulua** etorri zen kaletik. **Iñaki Zabaleta**

2 (izenondoekin)

-Ea, egin **ulu** ozen bat, Harry... **Iñaki Mendiguren**
Gau batean, **ulu** ilun luze bat entzun zen urrundik etortzen. **Koldo Biguri**
Eta hara hor **ulu** luze ikaragarria, On Camillo eta Pepponeren bihotzak geldiarazi zituen. **Koldo Biguri**
Kioitearen **ulu** bakartiaren imitazio zoragarria. **Julen Gabiria**
Une hartan bertan, **ulu** zorrotz baten moduko zarata batek ito zuen uraren orroa. **Koro Navarro**
Errolek begi lausotu bat zabaldu zuen, esker oneko **ulu** ahul bat egin, eta ur pixka bat edaten hasi zen. **Iñaki Mendiguren**
Orduan, beren atzean, **ulu** basati bat entzun zuten. **Iñaki Mendiguren**
Ulu eta kurrinka isil bat entzun ziren. **Iñaki Mendiguren**
Buruja jaso zuen garaipenezko **ulu** ikaragarri eta guturalaz. **Agustin Otsoa**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Vernon Dursley jauna iloba Harryren gelatik irtearaz **ulu**-hots zoliak esnatu zuen goizaldeko ordu txikietan. **Iñaki Mendiguren**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ibarraren hondo ikusezinetik, zakur- **ulu** urrunek hausten zuten han-hemenka ilunbe isila. **Juan Garzia**
Stoppien gauero zakur batek otso- **ulua** egiten zuela eta inork ez zuela inoiz ikustea lortu. **Koldo Biguri**
Inor ere ez inguruetan, txakur zaunka eta **uluak** bakarrik. **Joseba Sarrionandia**
Otso- **ulutzat** jo duzuna datorkizue urrundik. **Xabier Montoia**
Giza **ulua** dirudi; baina ez dirudi ezekin gizakirena denik. **Juan Garzia**
Muselinazko gortinak geldi-geldi zeuden, ez zen entzuten ez haize- **ulurik** ez inolako beste hotsik. **Anjel Lertxundi**

5 ulu egin

Hontz batek **ulu egin** zuen eta Harry ia erori zen zuhaitzetik. **Iñaki Mendiguren**
Beraren iritiz, tximinian bizi eta gauez **ulu egiten** zuen espiritu gaiztoa kedarrarekin batera erreko zen. **Jose Morales**
Elurrez erabat hustu beharrean ari den zeru hitsezko maindire azpira, zakur abandonatuen antzera **ulu egiten** duen haizera. **Itziar Otegi**
Ametsean, burdinazko otso batek **ulu egiten** zuen. **Berria - Mundua**
Zuhaitzek **ulu egiten** dute haizeteak inarrosita. **Jon Alonso**
Oinazez **ulu egin** nuen. **Aingeru Epaltza**
"Heldu horri" **egiten** dio **ulu**. **Oskar Arana**
Salatari nazkantea! - **ulu egin** zuen-. **Agustin Otsoa**
· **Egin** garrasi eta **ulu**, gizaseme, nire herria zigortzeko baita ezpata. **Elizen arteko biblia**
Ez niri **ulurik egin**, David. **Oskar Arana**
Zakur zaurituak bezalako **ulua egin** zuen Hagridek. **Iñaki Mendiguren**
Hontzaren gisako **uluak egiten** zituen. **Xabier Olarra**
Jendea penagarrizko **uluak eginez** pasatzen zen gure etxe paretik. **Pablo Sastre**

6 ulu-uluka (*corpusean ululuka soilik*) *adlag* uluka.

Pairatzen ari dena jakinik ez zakiat nola ez den **ululuka** hasten. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ulu beltz (3); **ulu egin** (13); **ulu egin zuen** (8); **ulu egiten** (14); **ulu egiten zuen** (5); **ulu luze** (5)

hontzaren ulua (3); **ulua entzuten** (4)

uluak entzun (4)

uluka *adlag*

Hontzak **uluka** ari ziren, katuak miauka, eta Nevilleren apoia ozen korroka bere kapela azpian. **Iñaki Mendiguren**
Hiru antxeta biraka ari ziren **uluka**. **Lopez de Arana**
Sam, zarata hark esnatu, **uluka** hasi zen, zakur izutuek egin ohi duten moduan. **Josu Zabaleta**
Pasa den neguan otsoak egon ziren oholesiaren inguru osoan **uluka**. **Agustin Otsoa**
Gau batzuetan horma inguruan **uluka** igarotzen den zakur batek zirrara eragiten die beren ohean Héracliusi eta Dagoberti. **Josu Zabaleta**
Zakurra Casabruciatako ezpondan ibiltzen zela **uluka**. **Koldo Biguri**
Nire gazte denboran baziren beste gauza batzuk zoroaldiak eragiten zizkidatenak, hau da, **uluka** hasteko gogoia, malenkonia deritzan oso bestelako kontua. **Fernando Rey**
Ganbarako demonioak hodiak danba-danba jotzen zituen **uluka**, gauzak lasaiegi zeudela pentsatzen zuen bakoitzean. **Iñaki Mendiguren**
Ahots jeloskor bat **uluka** hasi zitzaidan barreanean. **Ander Irizar**
Emakume txiki potzolo bat gizon zahar bati **uluka** ikusi genuelarik. **Oskar Arana**
Ron saltoka hasi zen minez **uluka**. **Iñaki Mendiguren**
Minaren minez **uluka**, Bran astinka hasi etsaiaren isatsari heltzeko moldatu zen. **Joanes Urkixo**
Hondartzaren pareko bidetik bi jendarme-auto ikusi genituen, argi urdin birakariak piztuta eta **uluka**, ziztu bizian. **Juan Luis Zabala**
Entzun, entzun haizea **uluka**! **Anjel Lertxundi**
Are goibelagoak egiten zituen olatuen aparrik bere gailur zuri beldurgarria labar harrien gainetik gora altxatzen zuenean, **uluka** eta orroka beti. **Koro Navarro**

ulukari *izond* ulu egiten duena.

Auto zuri dotore bat pasatu zen ziztu bizian mendate gainetik, eta haren atzetik ertzain-auto **ulukaria**, goiko argi urdin birakariak piztuta. **Juan Luis Zabala**

Suhiltzaile-kamioi bat eta eskailera-furgoi bat gorantz zihoazen ziztu bizian, adar-hots **ulukari** baten oihartzuna atzean utzita. **Lopez de Arana**

Haize basa **ulukaria**, zorigaitz eta nekearena Finlandiako sorgileak doaz zurrumbilotan zaldun. **Patziku Perurena**

Nire anaiak eta biok, **ulukari** betierekoen taldekook. **Fernando Rey**

ulukatu, uluka(tu), ulukatzen du *ad*

Shoreditch-eko Antzezoihal Berdera eraman zuten antzezleek, non dardaraz jarri baitzen Jeronimoren papera **ulukatuz** bitsa zerion komediantetxoaren amorrutaldien aurrean. **Juan Garzia**

Abiatzen ari zen taxia ukabilez jo, une batez geratu bi hitz **ulukatzeko** -Hiltzaileak! **Oskar Arana**

ululari *iz*

Adingabea nintzela eta ez neukala sartzerik esan zidan orak mendean zeuzkan **ululari** [badakizu zer esan nahi dudun] batek. **Koldo Izagirre**

Baina **ululariak** esan zuen ez neukala sartzerik, "goiko aginduak" zirela, eta epaiketetan ez zutela adingabekoek egoterik. **Koldo Izagirre**

ululuka ik ulu 6.

ulutxa *iz*

Kaka pikor beltz biribilak, ardi ilatxak, eta deizteko uanean, ilunetik argirako ibilaldian kalit harrapatu **ulutxak**. **Itxaro Borda**

Bakartasunaren sentimendu leherkorrek ez zaplastatzeko, noiztenka ernatzen zen ahots hori bera, **ulutxa** nahasi, aitaren ahotik herotsik gabe jazartzen imajinatzen zuen, hor klinikako ganbaran. **Itxaro Borda**

ulutxo *iz* ulu txikia.

Eskuak nire paparrean jarri zituen eta punpaka hasi zen, zoratzeko moduan jarri nintzen, bere **ulutxoz** laguntzen zuen zaldikatze itsu bati ekin zion. **Juan Martin Elexpuru**

um 1 *interj* eskuarki susmo txarra, duda-muda, ezustekoa adierazten duen hitza.

-Um ! Magisteritzakoa! **Agurtzane Juanena**

Um , horrek itxura hobea zeukak. **Harkaitz Cano**

Um ! horrek Ez! esan nahi zuela iruditu zait. **Anjel Lertxundi**

Bigarren **Um** ! horrek Bai! esan nahi zuela atera dut kontua. **Anjel Lertxundi**

2 umm

Umm ... eta ez zetorren batere oharrik, Potter? **Iñaki Mendiguren**

-Umm ! -marmartu zuen Pepponek, bera ere, lehenagotik buruan hamaika kaskarreko hartutakoa izanik, ez zelako haserretu. **Koldo Biguri**

Umm -halla urrats luzeak eginez zeharkatu zuen-. **Lopez de Arana**

Umm ... zoragarria! **Xabier Mendiguren Elizegi**

3 ummm

Ummm !, elementu hori ez zagon gure sistema periodikoan. **Patxi Iturritegi**

- **Ummm** ... bai...? **Unai Iturriaga**

-Ummm ! -esan zuen sorginak, Scabbers altxatuz-. **Iñaki Mendiguren**

Harry ez zion Lockharten ahotsari batere jaramonik egiten, eta tarteka **"ummm"** edo "ederki" edo "bai" esatera mugatzen zen. **Iñaki Mendiguren**

Ummm , ze goxoa. **Jesus Mari Mendizabal**

Ummmm , mutila ari da gauzak egiten zu ikusteagatik, kezkatuta dabil, paseatzera edo pote batzuk hartzera doanean zutaz pentsatzen du, kale hartan ibiliko ote zaren... **Pako Aristi**

Ummmm , gozoa da, oso gozoa! **Xabier Paya**

umagin ik umegile.

umaki ik umeki.

umaldi ik umealdi.

umandi *iz* heroia.

La Serna jenerala ere, Madrilen "Irungo setiaketaren **umandia**" bataiatua, Azkoiena inguratu zen. **Txillardeg**

Han bizi izandako jaun-andereak, dotorezia, jakinduria eta mota guztietako arrakasta maila iriskaitz hartan ohiturik, beste gradu bateko **umandiak** bailiran antzeman nituen. **Txillardeg**

umatu, uma, umatzen 1 da ad animaliez mintzatuz, umeak egin.

Ea bere atso-xakur eme txiki bat ernari gelditu eta **umatuko** ote zen eta zenbat eta zer kolorekoak izango ote ziren xakur-kumeak. [Patxi Ezkiaga](#)

Azindetan berriz, ardia, behia, ahuntza, eta gisakoren bat **umatzean**, abudo eginen zizun galde artzaiak: "urruza egin al du?". [Patziku Perurena](#)

Ez ehiza-leku batera, ez hartzak ugariak ziren tokira, ez mortsak **umatzen** ziren labarretara. [J.M. Olaizola "Txiliiku"](#)

2 (era burutua izenondo gisa) umeduna.

Ertamerikan bizi dira eta eme **umatuak** erditzeko garaian migratu egiten dute. [J.M. Olaizola "Txiliiku"](#)

umatze iz animaliez mintzatuz, umeak egitea.

Umatze -sasoia hasita dago. [Itziar Otegi](#)

ume (7643 agerraldi, 268 liburu eta 1016 artikulutan) 1 iz haurra.

Ahaztu ote dezake amak bere haurtxoa edo bere sabeleko **umeari** errukia ukatu? [Elizen arteko biblia](#)

Bi **ume** ari zitzaizkion sabelean elkarren lehian. [Elizen arteko biblia](#)

Bost **ume** izan genituen, baina hiru txikitik hil ziren. [Koro Navarro](#)

Alargundu ondoren, Antonie Macquart mozkortia maitale hartu eta beste bi **ume** izan zituen, Antonie eta Ursule. [Karlos Zabala](#)

Gizonak Ross zuen izena eta sei **ume** zituen. [Koro Navarro](#)

Giza primateok askoz ere **ume** gutxiago ditugu, beste ugaztunekin alderatuta. [Luis Elberdin](#)

Gizona, andrea eta bi **ume**, hamarren bat urteko mutikoa eta seizazpi urteko neskatia. [Joseba Sarrionandia](#)

Umea diozu?, zenbat urte ditu ba? [Patxi Iturritegi](#)

Etxe handia Vermont-en, bi **ume**, senarra abokatua. [Oskar Arana](#)

Zazpi **ume** hazi eta hezi ta bururatu du lur huntako itzulia. [Herria](#)

Ume bat aitaren zangoa besarkatzen eta ea nora doan galdezka. [Joseba Sarrionandia](#)

Gizon batek **ume** batekin duen adiskidetasuna kontatzen digu autoreak. [Julen Gabiria](#)

Gure azafata -hogei bat urteko neskatila, **ume** bat, alegia, itxuraren arabera behintzat- [...]. [Joxe Austin Arrieta](#)

Sei hilabeteko **ume** bati ezin zaio bildotsa jaten eman. [Ana Urkiza](#)

Hori **ume** batek ere uler zezakek. [Juan Kruz Igerabide](#)

Gaztea da oraindik, **ume** bat kasik. [Xabier Montoia](#)

Egun batean, artean **ume** bat zelarrik, [...]. [Joan Mari Irigoien](#)

Ulertzen nuen, nahiz **ume** bat besterik ez izan, asegurgileak zerbait ikusi zuela nigan. [Bernardo Atxaga](#)

Ezin dut **ume** izaten jarraitu betiko. [Oskar Arana](#)

Ume bat desio zuen, eta horra ustekabean haurdun suertatu, eta, ni desagertu bezain laster, baita garbi ikusi ere aitarik gabeko **ume** bat desio zuela berez [...] ez gure **umea**, baizik eta bere **umea**. [Joxe Austin Arrieta](#)

1986ko udaberrian, Valerie Smith Estatu Batuetara itzuli zen bere hiru **umeekin**. [Oskar Arana](#)

Umea lo zegoen sehaskan. [Harkaitz Cano](#)

Gure **umeak** burutik zeuden, eta nire emaztea ere burutik zegoen. [Koro Navarro](#)

Umea lotsatuta bere amaren gonei helduta geratu zen. [Jon Maia](#)

Pedrok **umea** besoetan hartu eta bere inguruko gorpu guztien artean, tiro eta bonba ziztuen artean egin zuen korri. [Jon Maia](#)

Ume haiekin zegoen bitartean, eguneko jardun bakarra jolasa zen, beti ametsetako munduetan jira eta bueltaka. [Julen Gabiria](#)

Berotu saihetsak **ume** den bitartean; bestela, kaska-gogortu eta ez dizu esana egingo. [Elizen arteko biblia](#)

-**Ume** horrek gosea du! -parean pasatu den emakumeak. [Arantxa Iturbe](#)

Ezkontzaz kanpoko **ume** bat aitortzeko. [Ramon Saizarbitoria](#)

Haurtzarorik bako **umeen** errealitateaz. [Berria - Gaiak](#)

-Behar den bezala hezi gabeko **ume** hauekin -esan zuen- ez dago jakiterik! [Karlos Zabala](#)

Espainiarrek ez zuten barkatu ez zahar ez **ume**, ezpataz hil zituzten harrapatu zituztenak oro. [Felipe Juaristi](#)

Umeak eta emakumezkoak zekartzan kubertan, negarrez, zenbait erreketek zainduta. [Koldo Izagirre](#)

Su tximinia txiki hartako txokoan, abuelok **umea** belauketan eseri zuen. [Jon Maia](#)

Umeenaren antzeko espontaneitate eta gardentasuna izan lezakete halako gaixok beren erreazioetan. [Xabier Olarra](#)

Amaren zorion osoaren zati bat baino ez du asetzen **umearen** zorionak. [Arantxa Iturbe](#)

Beste baten **umeak** zaindu behar nire adinean! [Juan Kruz Igerabide](#)

Atarian, **umeak** baloiarekin jolasean zebiltzan. [Juan Kruz Igerabide](#)

2 (deiki gisa)

Lasai zaitez, **ume**, gaur ekarriko dizkizu gutunak. [Joseba Sarrionandia](#)

Ez kezkatu, **ume**, esan zuen artzainak. [Oskar Arana](#)

Jan **ume**, esan dit. [Lander Garro](#)

Ze pistola eta ze demontre, **ume**! [Joseba Sarrionandia](#)

Julio, **ume**, Jainkoarren, ez al duk jaten? [Joxemari Iturralde](#)

-Zatoz behera, **ume**. [Irene Aldasoro](#)

"Ez esan horrelakorik, **ume"**, inudeak. [Martin Anso](#)

-Hago, **ume** hori! [Karlos Zabala](#)

2b (deiki gisa mugatuan)

-Ez, **umea**, baina ezkontzeko nahiko arrazoi izan daiteke. [Jon Maia](#)

-Goazen, **umeak**, ohera denak, bihar goizean goiz eskolara joan behar duzue eta. [Jon Maia](#)

-**Umeak**, ez zaitezte beti errietan aritu! -hertsatu zituen Etelka Springerrek-. [Anton Garikano](#)

Bejondeizuela, **umeak**! [Jon Muñoz](#)

Baina, ene **ume** maitea, beste izenen bat banu ez ninduzula maitatuko esan nahi duzu? [Antton Olano](#)

3 (predikatu eta adizlagun gisa)

Neska pertsona heldua da, badaki zer egin nahi duen, zuzen begiratzen dio haurrari; haurra **umea** da, begirada galduta dauka. [Pako Aristi](#)

Umea eder-ederra zena. Joseba Sarrionandia

Biak zarete umeak zuek. Unai Elorriaga

"Ez gaitezen umeak izan, David! -esan dit-. Bernardo Atxaga

Umeak gintuan, eta lagunak ere bai: bizitzaren opari bikaina duk hori, patuari eskertzeko modukoa. Xabier Olarra

-Orduan ere, umeak ginenean, zatarra eta gaiztoa hintzen. Eskarne Mujika

Ez, ez dakit garai hartan nintzen umearen aurpegia berriro ikusi nahi dudan. Iban Zaldúa

Umeak ematen duzue! Xabier Mendiguren Elizegi

Oso umea dun gauza horietan. Anton Garikano

Ni oso-oso umea nintzen. Pako Aristi

Ez nian uste hain umea hintzenik, Stanie. Ume jaiotze eta ume hiltzen gara, neurri handi batean, funtsezko gauzei dagokienez. Anton Garikano

Ea noiz utzi behar nion hain ume portatzeari, kalte besterik ez zidala egiten-eta. Anjel Lertxundi

Oso ume iristen dira bertsolariak maila onera. Andoni Egaña

Egunean baino egunean umeago ikusten genuen. Bernardo Atxaga

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Bost urteko ume ederra zen, begitarte lodi biribilekoa. Karlos Zabala

Betiko nahi dut ume txikia izan eta ondo pasatu. Julen Gabiria

Dutxa ere egundoko asmakaria baitzen Mikelentzat, umetan bainatzea gorroto izan zuen ume handi harentzat. Unai Iturriaga

Lehortzen jarritako alkandora bakoitzaren mahuka banari korapiloa egina zion ume bihurriren batek. Harkaitz Cano

Umeak, auzuneko ume garbi eta dotore jantziak, beti salto eta jauzi, beti zorionaren itxaropenez. Felipe Juaristi

Ume normalek buztina erabiltzen dute irudiak egiteko. Xabier Olarra

GIB birusaz kutsatutako 541 ume zambiarrek parte hartu dute ikerketan. Berria - Gaiak

"Hamar urtekoak ume hutsak dira-eta", hamalaukoen protesta. Xabier Mendiguren Elizegi

Kalean aurkitutako ume zarpatsu batzuk balira bezala. Ander Irizar

Ume zailak, une zailak. Xabier Mendiguren Elizegi

Ume zikin alaena! Juan Kruz Igerabide

Ume argalek eta atso zurbilek harriturik ikusten zaituzte pasatzen. Koldo Izagirre

Lau urteko ume eroen moduan eztabaidatzen dira aparkatzeko lekuengatik. Oskar Arana

Ume autista askorentzat bezala, dena hitzez hitzekoa zen niretzat. Xabier Olarra

ume basatien gaia obsesio izan nuelako gaztetan. Bernardo Atxaga

Ume menditarrak dira -jakinarazi zion maisuak inspektoreari bisita egitera etorri zitzaiguneari-. Bernardo Atxaga

Gero Nibs dator, ume alai eta animosoa. Julen Gabiria

Ezin izan zuen argitu nola aurkitu zuen hiri arrotz hartan ume gaixotua ezkutatzen zuen etxe ezezagun hura. Xabier Olarra

Ez al haiz konturatzen hezur hutsetan dagoela ume gaixoa? Koldo Biguri

Ea zergatik ukatuko zuen gizon zintzo batek ume gajo haren aitatasuna. Ramon Saizarbitoria

Ehunka izanen dira haren ume sasikoak Errusian barrena! Matías Múgica

-Ume deabru horrek zaldiak izutu ditu. Lopez de Arana

Batek baino gehiagok [...] ume ostia haiek larrutzeko gogo bizia sentitu zuen. Karlos Linazasoro

Urtero-urtero 7,7 milioi ume jaioberri hiltzen da. Pello Salaburu

Ez zuen zorigaitzez luze iraun berpizkunde horrek, orduan oraino ume zotzak izanagatik [...] abertzaletasuna zer zen ikasten eta sinesten hasiak ginen Iparraldeko gazte zenbaitentzat. ik haur 12. Piarres Xarriton

Ibarreko umeak, eroriak eta lotsagabeak begiak, ume mihi-lasterrak eta ahots-kantariak, txirlak bezain zapalak bularrak. Koro Navarro

Heriotzaren ateetan zegoen anai nagusia eta titiko ume bi. Juan Martin Elexpuru

Bazirudien txotxongilo batek, "ordezko ume" batek zuela "haren lekua hartu". Xabier Olarra

Eskolako umeek garraiatu zituzten adreiluak. Koro Navarro

- Hi ume -purtzila haiz ene ondoan! Txillardegui

Mariak altzoan jarri zituen erretratu guztiak; zuri-beltzean gehienak, Lucas eta Maria ume-gazteak zirenekoak. Unai Elorriaga

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ume eskuak ditu Idoiak, txiki gorrixkak, beltuak azazkaletan. Jokin Muñoz

Horietako bat, ume-begiz ikusitakoa margotzen duela Francok. Xabier Olarra

Barriek naturarekin bat egiten du, eta ume-begiekin baina idazle bikainen idazkerarekin, amasa ematen die zuhaitzei, loreei, txoriei, errekei eta pasealekuei. Julen Gabiria

Umetxo baten erretratua ikusi dut mahai gainean, ume irribarre eztiarekin begiratzen digula. Joseba Sarrionandia

Egunsentiaren argitan Gülbaharren aurpegia ume-poztasun batek piztua zegoen. Fernando Rey

Bost urtez ume-itxaropenetan egon ondoren ez zenidan huts egin. Eduardo Matauko

Gaur ez da ume-hotzik kalean, aspaldi abailtzen hasita dago argia. Anjel Lertxundi

Zer dago ume adimen horren atzean? Xabier Paya

Eguneroko dutxa ere ez da aski, gure ume-denboran astean behingoa -larunbaterokoa- aski eta gehiegi zelarrik. Iñaki Segurola

Ume-jendea eskolara joaten da. Jon Muñoz

Artean ume mainak nituelarik, Salamancara bidali ninduen aitak. Felipe Juaristi

Zeren ume-kontu hauek amen gauzak izan ohi baitira haste-hastetik aitenak baino askoz gehiago. Iñaki Segurola

Eta Oinaze ikusi zuenean, ume lerrotik pixka bat aparte, atsekabe imintzioa egin zuen. Koldo Biguri

Lerak, oinetako erraketak, eskularruak, ehiza tresnak, ume jostailuak, lera txakurrak eta enparauak. Joseba Sarrionandia

Soinean, ume mantal handi eskotatu bat zeukan. Karlos Zabala

Ume-letraz idatzitako hainbat zirriborro eta marrazki. Anjel Lertxundi

Internet dela ume pornografia hedatzeko biderik ohikoena adierazi du *Save The Children* erakundeak. Berria - Gaiak

Hain modu desegoki eta ume-tankerakoan hitz egin zien, non [...]. Xabier Olarra

Ea handik ematen ote zitzaion bere baitako ume oroitzenetarako sarrera, sarrera konbultsiboa. Xabier Olarra

Salomonek ez zeukan lehorretik zetorren ume-eskaera asetzeko adina birigarro. Julen Gabiria

Itxura modernista duen atari batetik emakume bat ateratzen sumatu du, ume-kotxe bati bultzaka. Iban Zaldúa

Ume-lapur anitz dabilelako bazterrotan. Xabier Montoia

Ospea, ordea, ume-izutzaila bezala etorri zitzaion. Bernardo Atxaga

Galdera da: zergatik bihurtu zen hiltzaila hura ume-izugarri? Bernardo Atxaga

Sabeth, berriz, bere betiko gau-soinekoska urdinska harekin: gustu txarrekoa ere ez, baina merkea bai, ume-modukoegia. Joxe Austin Arrieta

- 1978an sortu zen lehenbiziko ume-probeta Ingalaterran. Pello Salaburu

Girixtino **umeak** behar du orroitu. **Herria**

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Eta **ume** mukizu tropelak? **Jokin Muñoz**

Begitartea zimurtuta jartzen zekien **ume** zital keinu harekin. **Ramon Saizarbitoria**

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zu eta ni haur jaioberri eta, gehienez ere, titi-**ume** izan ginen euskaldun baino lehen, inolaz ere ez "gizon". **Iñaki Segurola**

Hiru eskutitzetako bat irakurtzen hasi zen, apal eta eskola-**ume** baten ahots kantariaz. **Ander Irizar**

Hurrengoan, elkarrengandik berrogeita hamar zentimetrora eta ahots apalagoaz, eskola **ume** gineneko denborak solas. **Aingeru Epaltza**

Goiko solairuan bizi da kartzela-**umea**. **Oskar Arana**

8 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Landare eta arbola artean ibili ginen, eta eskola-**ume** ilara luzeen artean. **Ramon Saizarbitoria**

9 irud/hed

Lurraren **ume**: horra zer garen batzu eta besteak. **Herria**

Kontserbatismoa, periferiako eskualde "atzerakoietan" bereziki sendotua egoten zena, razionalismo modernoaren etsaia da, haren **ume** liberalismoarena orobat, iraultza liberalarena hortakoz. **Joxe Azurmendi**

Galera, zapuzte eta etsi-behar baten **umeak** gara: haurtzaro beti-joankor, gaztetasun beti-iheskor, amodio beti-galkorraren [...] edo auskalo zeren galerak ekarri gaitu gure izatera, noizbaiteko geure onetik orain hauetako ondoezetara. **Iñaki Segurola**

Gu neska hori gara, noski; **umea** Afrika da, Afrika osoa, bi hanken gainean zutik dabilen izaki hau sortzen ikusi zuen lurraldea, halere beti ume, beti txiro, beti gure zainpean.

Pako Aristi

10 animalia jaioberria, aita-amen mende dagoena. ik kume.

Larogeita hamabosteko udan, beroa zela eta hiru **ume** hilik jaio zituen gure txerramak! **Pablo Sastre**

Lau urteko behorrak **umearekin**. **Herria**

Bosgarren umealdia, jaso zuen ahotsa, azaroan zazpi **ume** ekarri zituen. **Pablo Sastre**

Kontuz, ordea, ziminoek **umeak** badituzte. **Gotzon Garate**

Sor itzazue **umeak**, ugaldu eta bete itzazue itsasoko urak; ugal bitez hegaztiak ere lurraren gainean. **Karlos Zabala**

Ardiak bere **umeak** edo txoriak habia gaitzesten, arbuizatzen, uzten eta zapuzten dituztenean egiten dutena. **Iñaki Segurola**

Urrixa zen, **ume** gutxikoa hala ere. **Pablo Sastre**

Umeak harrapatu dizkioten hartz-amak bezala egingo diet eraso. **Elizen arteko biblia**

Hamabi egunen buruan **umeak** begiak zabaltzen hasten dira. **Gotzon Garate**

Behorrak bere **umea** ukuluan sartu zuen bultzaka eta bera atean gelditu zen. **Gotzon Garate**

Batzuetan animaliek beren **umeak** pertsonak baino maiteago dituztela badakigu. **Gotzon Garate**

Baina ez zuen aditu janari eske zebiltzan ainara-**ume** gosetien txio-txio hura baizik. **Elena Touyrou**

Beinat otoizka ari zen, malkotan, soldadu-lagunak dardararen dardaraz, zuloetan gordetzera lehiatzen zirela, hartz-**ume** lotsati. **Itxaro Borda**

Miarritzeko itsas-erakustegian gertakari bat askitxo arraroa; itsas-xakur **ume** baten sortzea. **Herria**

Xerri **ume** jatea 9 orenetan *Bidekoa* taldeak alaiturik. **Herria**

11 **umetako** (86 agerraldi, 39 liburu eta 13 artikulutan; orobat **umetango g.er.**) izlag ume denborako. ik haur 6a.

Gaztetako marxistari **umetako** katolikoak aurrea hartuko balio, [...]. **Joan Mari Irigoien**

Umetako jolasetan behin baino gehiagotan eraman izan zuen lagunak batek bizkar gainean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Umetako bizipenak dira geroko bizipenen neurria. **Joxerra Garzia**

Umetako ametsa beteta zegoen. **Bernardo Atxaga**

Umetako leuzemiak oinarri genetikoak izan ohi duenez, [...]. **Berria - Gaiak**

Umetako argazkietan geure burua ikusten dugunean. **Joxerra Garzia**

Haien ama Rosik, amaren **umetako** lagunak, berak egindako opil batzuk eman zizkigun anai-arreba guztiontzat. **Jon Maia**

Neure **umetako** Brooklyn bera. **Oskar Arana**

12 **umetan** (308 agerraldi, 96 liburu eta 42 artikulutan) adlag ume denboran. ik haur 7.

Umetan, hamar, hamaika, hamabi urte arte bai, jolasa zen nire bizitzaren muina eta ardatza. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gehienak **umetan** edo gaztetan hiltzen dira. **Joseba Sarrionandia**

Maisuak guri **umetan** erakutsi zigun bezala, ez zagon erredakziorik punto finalik gabe. **Joan Mari Irigoien**

Normalean **umetan** agertzen da gaitza, eta munduko leku askotan endemikoa da, OMEren arabera. **Berria - Gaiak**

Aitonak eraman zuen **umetan** santu hura ikustera. **Pako Aristi**

Hasi **umetan** hasi zan, baita, 14-15 urtegar, erromeri plazak beragandu be. **Xabier Amuriza**

Donostiara zen, baina **umetan** Baionan ikasia. **Ramon Saizarbitoria**

Joxe Portolo izeneko gizajoa ere ezagutu nuen **umetan**. **Patziku Perurena**

Putzu kaleko 12tik harantzago, berriz (Urumea aldera, alegia), nire **umetan** "kalea" plaza bihurtzen zen izkinatik harat, alegia. **Txillardegí**

Orain ez dut **umetan** bezala irakurtzen, ohean kiribilduta eta tapakiekin burua eta guzti estalita. **Anjel Lertxundi**

Dohain bereziak, oso-oso **umetan** agertu eta abaila txundigarrian garatzen baitira sarritan. **Xabier Olarra**

· **Ume-umetan** etorri zen New Yorkera. **Gotzon Garate**

Ume-umetan, nahiko normala zirudien, baina, amaren aburuz, lau-oinetan ibiltzen zenetik beretik, kaxkarra izan zuen ikusmena. **Xabier Olarra**

13 **umetatik** (119 agerraldi, 43 liburu eta 22 artikulutan; orobat **umetandik g.er.**) ik haur 8.

Bere hil-beharraren berri **umetatik** dakien piztia bakarra. Adin ziren eta **umetatik** elkarrekin ibilitakoak. **Iñaki Segurola**

Niri beti, **umetatik**, iruditut izan zait tribu nomada batekoak ginela, dendetan bizi ginela. **Ander Irizar**

Gizon honek, **umetatik**, andregai bat zuen hantxe herrian, Xuana. **Bernardo Atxaga**

Umetatik zetorkion mozorrotzeko zaletasuna. **Harkaitz Cano**

Izan ere, **umetatik** gustatu izan zait irri eta barre eragitea. **Joan Mari Irigoien**

Umetatik ezkondu zen arte zerbitzatu zuen familiarekin ikasitako joera zuen, antza, irakurketa errespetatzea. **Ramon Saizarbitoria**

Umetatik zer egin nahi duten garbi edukitzen duten horietakoa ematen du Pedrok. **Pako Aristi**

· Esan dezaket, **ume-umetatik** mila akorde sekretuz osaturiko sinfonia lurrezko hori adituz hazia dela nere bihotz koxkorra. **Patziku Perurena**

Bere alabaren senargaia aipatu zidan, Virgil, berrogeita hamar urteko gizon bat, ia **ume-umetatik** itsu izandakoa. **Xabier Olarra**

Psikismoa hondatua eta matxuratua dutenak, maiz **ume-umetatik** daude jota. **Gotzon Garate**

14 **kaxako ume** amak abandonaturiko haur jaio berria. iktornu³ 3.

Kaxako umeen batzordeak, erabaki salomoniko batean, Jazinto bere ama biologikoari, Maria Sanz Llorenteri ematea deliberratu du, eta aldi berean epaitegiaren aurrean salatzea, umea abandonatu zuelako jaio berrian. **Koldo Izagirre**

Kopetilan dabil, **kaxako umeen** dela esan berri baitio aitak. **Markos Zapiain**

Kaxako umeen batzordeak ohar bat igortzen dio Maria Gabilondori Intxuzabalera, presenta dadila bularra eman dion haurrarekin Donostian irailaren 3an. **Koldo Izagirre**

15 lehen-ume lehen jaioa.

Ez duzue lanean erabiliko zeuden behien **lehen-umerik**, ezta ilerik moztuko ere ardien **lehen-umeari**. **Elizen arteko biblia**

Lehen-umea abere kutsatuarena bada, jabeak berreskura dezake, ezarritako prezioa eta bosteko bat gehiago ordainduz. **Elizen arteko biblia**

Gari, ardo eta olioaren hamarrenak, abere handi eta txikien **lehen-umeak**. **Elizen arteko biblia**

Giza lehen-semeak eta abere kutsatu **lehen-umeak** berreskuratu egingo dituzte. **Elizen arteko biblia**

16 ume egin

Emeak ere adin horretan **ume egiteko** gai dituzu. **Gotzon Garate**

Foken Uhartea laua eta hareatsua da: neguan **ume egitera** etortzen dira bertara fokak. **Juan Garzia**

Ume egin eta ordu batzuez atseden hartuko du, umeei iraina eman bitartean. **Gotzon Garate**

Behia, berriz, **ume egiteko** zorian jarri zen, baina umea egin ordez, lau ertzak korapilatutik zituen maindire bihurtu zen. **Anjel Lertxundi**

Ume egiteko ordu eta erdi edo bi ordu behar izaten dute. **Gotzon Garate**

Hamabi zerritegi zeuden barruan, zerramak edukitzeko; zerritegi bakoitzean berrogeita hamar zerrama zeuzkan, denak **ume eginda**. **Juan Kruz Igerabide**

Behor bat zer den ikasi eta behor bat **ume eginean** ikusi. **Anjel Lertxundi**

· Ba al dakizu noiz erditzen diren basahuntzak?, ikusi al dituzu oreinak **umea** egiten? **Elizen arteko biblia**

Xakurra ernari geldituko zela erantzun zion eta hiru **ume egingo** zituela. **Patxi Ezkiaga**

Behi bat **umea egiten** ikusi nahi nuen eta zezen bat behi baten gainean. **Koro Navarro**

Umea bikotearen barruan, intseminazio artifizialaren bidez **egin** arren, legeak ama biologikoa baino ez zuen aintzat hartzen. **Berria - Harian**

17 ume gorri ik umegorri.

18 ume jolas (orobat umejolas g.er.)

BUPeKo 3. ikasturte hartan gauza asko aldatuta zeuden zeharo: ez ginen barrioin ibiltzen, eta are gutxiago **ume-jolasetan**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ordu arte izan nituen esperientziak **ume jolasak** ziren honekin konparatuta. **Jon Muñoz**

Ume jolasa da ariketa hori berarentzat. **Joxerra Garzia**

Hunkitu egin ninduten Templeren hitzek, modu atseginean parekatzen baitzituen sormena eta **ume-jolasa**. **Xabier Olarra**

Lanok orain, ni eta nire desiraren artean traban jarri ziren honetan, **ume-jolasak** iruditzen zitzaizkidan, **ume-jolas** itsusi beti-berdinak. **Irene Aldasoro**

Katalunian *cavall fort* izenaz ezagutzen den **ume jolasa** -zeinetan talde bateko kideek beste taldekoei bizkar gainera salto egiten duten, zaldi gainera bezala- Kristo aurreko lehen mendeko liburu batean ere azaltzen dela, Petronioren *Satirikon* delakoan. **Bernardo Atxaga**

19 ume koskor (orobat koxkor eta kozkor)

Hamabi bat urteko **ume-koskorra** nintzen. **Joan Mari Irigoien**

36 urte izan arren, berezkoa duen **ume koskor** lotsatiaren aurpegiarekin erantzungo du berak. **Berria - Kirola**

Ume-koskor betizu baten gisa hasi zen Nora negarrez. **Anjel Lertxundi**

SOS Arrazakeriako buruaren ondoan, Gasteizera heldu berria zen familiaren sumindura, **ume koskorra** besoetan hartuta. **Berria - Euskal Herria**

Halako irribarre pikaroz jarduna izango dela iruditzen zait, pikardia egiten ari den **ume koskor** baten antzera. **Patxi Altuna**

Basoan galdu den **ume koskor** izutu batena bezalako begirada zuen. **Anjel Lertxundi**

Gernikak 7.000 biztanle inguru zituen, egun horretan beste milakako batzuk ere egongo ziren merkatuan, horien artean Ramon Baglietto **ume koxkorra**. **Pello Salaburu**

Neure ume- **koxkorretan** etxean Ondarroatik ekarritako zakurtxo bat izan genuen. **Gotzon Garate**

Yankee itxurako ume- **koxkor** batzuk ageri dira bizikleta gainean. **Jokin Muñoz**

20 ume kotxe (14 esaldi 4 liburutan; orobat umekotxe g.er.) haur kotxea.

Atari batetik emakume bat ateratzen sumatu du, **ume-kotxe** bati bultzaka. **Iban Zaldua**

Ume-kotxea hartuta paseatzera atera ginen batean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ume-kotxea igogailutik atera eta bere etxeko sarrerara gerturatu da. **Iban Zaldua**

Atezaina **ume-kotxeaz** ardurutzen da. **Iban Zaldua**

21 ume-ontzi ik umontzi.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

bost urteko ume (5); **emakume eta ume** (10); **eskola ume** (24); **hamar urteko ume** (5); **hilabeteko ume** (5); **hiru urteko ume** (5); **lau urteko ume** (7); **milaka ume** (5); **ume ahotsa** (8); **ume alaia** (5); **ume aurpegia** (9); **ume bakarra** (14); **ume bat besterik** (9); **ume bat bezala** (10); **ume bat hil** (21); **ume bat izan** (5); **ume batek bezala** (8); **ume bizi** (5); **ume denboran** (5)

ume eder (7); **ume egin** (5); **ume egiteko** (5); **ume eta gazte** (12); **ume gaixoa** (5); **ume gaixoak** (5); **ume galduak** (6); **ume hil** (16); **ume hil ziren** (5); **ume hiltzen** (6); **ume izan** (15); **ume izateari** (7); **ume izaten** (8); **ume jaio** (12); **ume jaioberri** (7); **ume kontuak** (5); **ume koskor** (6); **ume koskorra** (6); **ume kotxea** (5); **ume koxkor** (6); **ume moko** (11); **ume mokoa** (6); **ume mukizu** (5); **ume nintzela** (8)

ume palestinar (8); **ume palestinar bat** (6); **ume talde** (7); **ume txiki** (21); **ume txikia** (23); **ume txikiak** (17); **ume txikiei** (6); **ume txikiakien** (6); **ume txikien** (8)

ume ugari (5); **ume umetan** (6); **ume umetatik** (31); **ume zela** (5); **urteko ume** (50); **urteko ume bat** (21); **urteko ume batek** (7)

artean umea (9); **bere umea** (17); **gure umea** (5); **hamaika urteko umea** (5); **hilabeteko umea** (6); **lehenengo umea** (8); **nire umea** (9); **oso umea** (7)

umea besoetan (19); **umea besoetan hartu** (5); **umea eduki** (5); **umea egin** (9); **umea egiten** (6); **umea esnatu** (7); **umea galdu** (5); **umea hartu** (5); **umea hil** (7); **umea izan** (32); **umea izateko** (5); **umea jaio** (13); **umea jaiotzen** (5); **umea lo** (6); **umea nahi** (6); **umea negarrez** (5); **umea nintzela** (6); **umea nintzen** (9); **umea nintzanean** (6); **umea ondo** (6); **umea zara** (5); **umea zela** (15); **umea zen** (11)

urteko umea (21); **zure umea** (8)

bere umeak (16); **beren umeak** (9); **eskola umeak** (10); **euren umeak** (5); **gure umeak** (14); **lehen umeak** (6); **nire umeak** (8); **sor itzazue umeak** (5)

umeak adoptatzeko (11); **umeak adoptatzeko eskubidea** (6); **umeak babesteko** (6); **umeak bezala** (11); **umeak egingo** (6); **umeak eskolan** (5); **umeak eskolara** (5); **umeak euskaraz** (5); **umeak hartu** (5); **umeak hazi** (12); **umeak izan** (22); **umeak izango** (5); **umeak izateko** (6); **umeak lo** (5); **umeak ondo** (5); **umeak oso** (5); **umeak zaintzen** (7); **umeak ziren** (9)

urteko umeak (7)

behorrak umearekin (5); **bere umearekin** (7)

umearen aita (6); **umearen amak** (5); **umearen bila** (8)

bere umeari (7)

umeei zuzenduriko (10)

eskola umeek (5); **gure umeek** (9)

umeekin batera (6)

beherako umeen (6); **beren umeen** (6); **eskola umeen** (9); **jaiotako umeen** (5); **kaxako umeen** (5); **munduko umeen** (5)

umeen antzera (6); **umeen eskubideak** (5); **umeen eutanasia** (6); **umeen gelako** (8); **umeen gelan** (8); **umeen gelara** (7); **umeen kopurua** (5); **umeen pasealekuan** (5); **umeen pornografia** (6); **umeen zaintza** (7)

urteko umeen (11)

bi umeren aita (5)

ez zuen umerik (5); **umerik egiten** (5); **umerik gabe** (8); **umerik izan** (13); **umerik izango** (5)

umetan bezala (10); **umetan ezagutu** (9); **umetan hasi** (6)

ume umetatik (31); **umetatik ezagutzen** (7); **umetatik izan** (7)

umealdi (*orobat umaldi*) **1** iz animalia-talde baten jaioberrien multzoa.

Edonola ere, [pinginoek] larrutik ordaindu beharko dute bizirik irautea: ia **umealdi** osoa izotzean harrapatu hiltzen utzi beharko dute. **Berria - Gaiak**

Ikertzaileak uste dutenez, aurtengo **umealdia** galdu egingo da ziurrenera. **Berria - Gaiak**

2 animalia batek saio batean egiten dituen umeen saila.

Azkenak, orain ditugunak, **umaldi** bateko bi aleman ardi-zakur dira, senideak. **Gotzon Garate**

umearo ik **umezaro**.**umedun** *izond* umea edo umeak dituena.

116 pottoka ziren lehian, bai mendiko bai pentzetako pottokak, bi urtekoak, hiru urtekoak, **umedunak** eta umegabeak. **Herria**

Iturbide, pottoka **umedun** batekin, epaileen aintzinean. **Herria**

umeenganatu, umeengana(tu), umeenganatzen da/du *ad* umeengana joan edo eraman.

Eskuak xamangoz, arrautzez eta debaldezko arropa higatuz emokaturik, Nako gizon eta **umeenganatu** zen, azkenaldi batez leihotik so zeudenei deiadarka. **Itxaro Borda**

umegabe *izond* umerik ez duena.

116 pottoka ziren lehian, bai mendiko bai pentzetako pottokak, bi urtekoak, hiru urtekoak, umedunak eta **umegabeak**. **Herria**

umegai *iz* umekia.

Besterik da, emakumeak, jadanik **umegaia** bere baitan, hura jaiodan nahi izatea gehienbat: senen automatismoa. **Joxe Austin Arrieta**

Umegai egoera alde batera utzita, Gizakiak ez du isatsik, eta gabezia horretaz jabetzeak sortzen dion ezinegon heredatua nabaria da gizonek jaka atze-luzeak eta emakumeek soineko isastunak janzteko duten ohituran. **Xabier Olarra**

umegaltze *iz* umea galtzea.

Umegaltzeak alde batera utzirik, sei alaba eta seme bat izan dituzu. **Patxi Zubizarreta**

Udazkeneko **umegaltzea** etsigarria izan zen berarentzat, basaki, eta kordoka bizi zen harrezkero, tristura lantokian lan gehiegi eginez estaliz. **Oskar Arana**

umegile *iz* umeak egiten dituena.

Egiaz aitortzen dizut, niretzat ez dago ezer nazkagarriagorik alkohol lurrunen artean haurrak sortuz doan piztia **umegile** hori baino, gero hilerrira eraman edo, bestela, espetxeetako edo prostutuzio armadak osatzera joango diren haurrak. **Josu Zabaleta**

Ezkontza sakratu, heterosexual, monogamiko eta **umegilearen** barruan. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Sexualitatearen psikiatrizazio obsesiboak "perbertsio sexualen" zerrenda azkengabe bat egitera eraman zuen gizona, eta horien artean sartu zuen ezkontza barruko koito **umegilea** ez den jokabide oro. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

umeginzale *izond* umeak egin zalea dena.

Fantasia honek ez du besteak baino arazo gehiago sortzen; azken batean, bere ondorio bakarra ugalketari uko egitea da, eta **umeginzaleek** bitarteko boteretsuegiak dituzte beren arerioek jarritako oztopen beldur izateko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

umegorri (*orobat ume gorri*) *iz* **adkor** hazi gabeko umea. **ik** **haur 12**; **hankagorri**.

Hantxe gelditu da bakar bakarrik etxekandre aranaztarra, zerua goian eta lurra behean, beste anparorik gabe, bost **umegorri** negarrez, soineko beltzetik tiraka dituela.

Patziku Perurena

Bettina **umegorria** besterik ez zela joan zitzaigun. **Alberto Ladron Arana**

Kargu hartzen zion bere eginkizunaz hitz egin ziolako, batere zuhurtasunik gabe jokatu zuelako, **umegorrien** antzera, ergelen gisara. **Jose Morales**

Hantxe asaltoko guardiak, borrokan hilda erori zuan Agiriano kapitainaren agindupean, hantxe Irungo karabineroak, **ume gorri** batzuk, mobilizatu berri. **Edorta Jimenez**

Ez diot sekretu hori zeure lako **ume gorri** bati kontatuko, ezta? **Edorta Jimenez**

Ortegak gazte haiez -**ume gorriak**, esan du Jesus Galindezek- hitz egiteko moztu du. **Edorta Jimenez**

Umegorri zarpailltu batzuk zebiltzan, hara eta hona lasterka, arratseko argitalpenen izenak oihukatzen. **Irene Aldasoro**

Doi-doi kabitzen zen barruko arropa zurien azpian, troxetan bildutako **umegorri** potolo bat zirudien. **Karlos Zabala**

umegorritxo *iz* **adkor** ume gorria

-Zatoz hona, **umegorritxo** hori -gonbita egin zion haietako batek, ile nahaspilatua zeukan gizon tantai batek, hortzak basakeriaz erakutsiz-. **Joanes Urkixo**

umejolas ik **ume 18**.**umekeria** **1** *iz* umeari dagokion egintza gaitzesgarria. ik **haurkeria**.

Umeen kontua, **umekeria**. Iñaki Arranz
Hannak, erantzun gisa, barre egin dit, dena txantxa izan balitz bezala, **umekeria** bat. Joxe Austin Arrieta
Umeen aitzakian ez baitira gutxi guk geuk egiten ditugun **umekeriak**. Xabier Mendiguren Elizegi
«**Umekeriak** egiteari uzteko» eskatu dio Urkulluk Batasunari. Berria - Euskal Herria
Lotsatu egin zen bezperan esandako **umekeriez**. Jose Morales
Ezer ez izatea, hots, haur izatea, haurrak bezalako bilakatzea eginahalean, **umekeriarik** gabeko haurrak. Iñaki Segurola
Umeek **umekeriak** egiten dituzte. Gotzon Garate
Gurekiko portaeran hainbeste **umekeria** ez egiten ahalegintzen da, baina hotzegi bihurtu da orain. Josu Zabaleta
Zure adinean ezin da **umekeriatan** ibili. Karlos Zabala
Taroteko kartak eta **umekeria** horiek guztiak. Joan Mari Irigoien
Arinkeria da emakumei ahal fama egozte, **umekeria** lehendik ere heriotza zibilaren jabe diren kondenatuei benetako heriotzaren ondorioak ezartzea, eta zentzugabekeria famarik gabeei fama txarra leporatzea, gezurra esateko inolako interesik ez dutenean. Juan Martin Elexpuru
Umekeria uste baino larriagoa gertatu zen eta azkenean ospitalera eraman behar izan ninduten. Patxi Zubizarreta
Umekeria zerituzen euskara bizimodu hiritar eta industrialerako egokitzen eta trebatzen jarduteari, ez zelako hori euskarak gizarteari ekarri behar zion onura. Koldo Zuazo
Umekeriak bustitako inkontzientzia batek hartu ditu gure garunak, gizartean larriki hedatzen ari den infantilismoarekin bat eginik. Pako Aristi
Ez dago maitasuna baino gauza aspergarri, **umekeriak** eta inhumanoagorik. Anton Garikano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hango hiriak hiri ere ba ote dira, gero; argiztapena ugari, hori bai: biharamunean, baina, aldamio hutsak nabari, dena **umekeria** inozoa besterik ez. Joxe Austin Arrieta
Umekeria pedantez mamitua dago tesi guztiak bezalaxe, eta ez dago kristaurik hango jardun lehorrin inork derrigortu gabe irakurriko duenik. Iñaki Segurola
Tomekin lan egitea du gogoko batez ere: hori ere **"umekeria"** da, baina funtsean **umekeria** sortzailea. Xabier Olarra
Ez zuen **umekeria** edo jolas-zaletasun hutsak soilik bultzatu halako denborapasara. Xabier Olarra
Itzelezko **umekeria**! Iñaki Arranz
Orain, atzera begiratzean, neure burua eta besteak epaitzen saiatzen naizen honetan, konturatzen nauk handipuzkeria hura, itxialdi hura eta bakartze hura zenbaterainoko **umekeriak** izan ziren. Xabier Olarra
Umekeria galanta! Joxan Elozegi

3 (hitz elkartuetan)

Ea nolatan egiten nien hura, ea zer **umekeria** klase zen hura. Karlos Linazasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

umekeriak egiten (3)

umeki *(orobat umaki g.er.)* 1 iz ume bihurtuko dena, amaren sabelean dagoen bitartean. ikfetu.

Hasieran, zelula pare bat baino ez da izaten; gero, denborarekin, arrautza osatuz joaten da, eta aurrerago **umekia** osatzen da. Luis Elberdin
Kabrioi harena izan zen bere **umekia** ... bederatzi hilabetez sabelean hazi zuena. Aritz Gorrotxategi
Umekiaren jarrera hartzen dugu, urperatu nahi izaten dugu gure burua bainuontzian, auskalo zer gogoratu nahian. Harkaitz Cano
Umekia bezain kuxkur belaunikatu zen. Itxaro Borda
Alta legeak debekatzen du medikuari **umekiaren** sexuaren salatzea. Herria
Okerka zetozen **umeki** zailak bakarrik nituen nik gogoko, nire adimenari apustu egiten ziotenak, eta bereziki, gizaki berriaren hil edo biziko borroka nire esku geratzen ziren unek nituen maiteen. Hasier Etxeberria
Giza **umekiak**, bost hilabete inguru dituela, ile-jantzi nabarmena du bekokian eta buruan. Irene Aldasoro

2 irud/hed

Zibilizazio abortatuak: zibilizazio hauen **umekiak** abortarazi egin zituen latzegiak ziren hainbat erronkari erantzuteko ahaleginak. Iñaki Mendiguren
Bata hiltzen ari den edo hildako zibilizazio baten eta bere ondorengo **umeki** edo jaioberriaren arteko gurasotasun eta filiazio harremana. Iñaki Mendiguren
Soin-enborrean, bizkarrezurrean, oinen puntan sentitzen nuen melodia jaiotzen, bizirik jaiotzen zen gainera, garai batean bezala: **umeki** hila zen, ordea, eskuin eskura isuri ezin zuen gorputz guztiko irrika hura. Harkaitz Cano

3 (abeerena)

Iparreko departamendu bateko bahimendu batzordeek, esate baterako, ernari zeuden bigak bahitu zituzten, eta hala hiltzeak **umekien** hilerriri bihurtu zituzten. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abortatutako umekien (3)

umekoi *izond* umeen aldekoa.

Holakoxeak nire gogoeta **umekoiak**. Xabier Mendiguren Elizegi
Gizonei buruzko topiko guztiak sinetsi dituzte, nahiko modu **umekoian**, baina zer dakit nik nolakoak diren emakumeak, nik Laura eta Nora ezagutzen ditut, ustez behintzat. Mikel Hernandez Abaitua

umekondo 1 *iz adkor* umea.

Nola agoantatzen duzu **umekondo** hori? Fernando Rey
Eguzkitan beren pipa erretzen ari ziren marinelek baziruditen interesaturik zeudela **umekondo** haien jolasean. Josu Zabaleta
Hamar-hamaika urteko **umekondoa** zen. Edorta Jimenez
Hamazazpi urteko **umekondoa**. Edorta Jimenez

2 umekia.

Luluren egoera larria zen; umetokia atezurik gabe geratu zen eta ez zuen **umekondoa** kanpora botatzen. Josu Zabaleta
Umekondoa, estutuz, kanporarazi nahi izan zuen, baina ez zuen lortu. Josu Zabaleta

umekor *iz* ume asko egiten duena.

Tamalez unxiak bezain **umekor** ta zakil bizkorrak ez izanik ezinezkoa dugu kapela hustuetatik bapateko idazle berrien belaunaldi bat sortu. Berria - Kultura

umekuntza iz

Nola daiteke baina, doi-doi hamabiren bat zintzilika astintzeko gauza den **umekuntza**, mingaina harrotuta zaldun ibiltarien kondairak maiseatzen hasia? **Patxi Ezkiaga**

umel 1 izond hezea.

Ohol hormak eta uralitazko teilatua dituen etxe **umelean**. **Joseba Sarrionandia**
Eta hantxe dago, taberna ilun eta **umel** hartan. **Santiago Iruretagoiena**
Ezpain **umel**, haragitsu eta mugikorrak, eta guk geuk xuxurlatutako hizkuntza arrotzaren hots ulertezina. **Urtzi Urrutikoetxea**
Sudur estu baina kakoa, begi distiratsu eta begirada **umela**. **Urtzi Urrutikoetxea**
Antizikloiaren eraginez, mediterraneoko aire masa **umelak** Penintsulako kostaldera datoz. **Pello Zabala**
Lagunek otsaileko aire **umel** eta hotza nabaritu dute aurpegian. **Patxi Iturritegi**
Airea freskoa zen eta **umela** oso. **Patxi Zubizarreta**
Giro bero eta **umela** zegoen. **Joseba Urteaga**
Sahats adarño edo makila bat lur **umel** samarrean sartzea nahikoa, zutzarrak agudo bota eta itsasteko. **Pello Zabala**
Guztia nahastu eta lau hilabeteren buruan konpost **umela** lortuko dugu, eta sei hilabeteren buruan konpost heldua. **Berria - Euskal Herria**
Erreka eta ibaien ondoan pilatzen da erreka-laino **umel**, busti eta frexkoagoa. **Pello Zabala**
Denoi eragiten digu neguko hotz **umel** bustiak. **Pello Zabala**
Baina 1967 hartan, negu ustel eta **umela** izan genuen. **Txillardegi**
Zakur hilak, inork lurperatzen ez dituenak, zopiloteak, azoka alderako teilatuen gainean pausatua, sargoria, itsasotiko kirats **umela**, itsasoaren gaineko eguzki ugertsua. **Joxe Austin Arrieta**
Freskura **umelezko** izara batek estaltzen zuen. **Unai Iturriaga**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenaren izenondo gisa)

Aurpegia eguzkiari eman eta gutunazaletik orri hori eta **umel** sorta hartu zuen eskuetan. **Joxemari Urteaga**

3 irud/hed

Ez zen beldurra, hotzikara **umel** eta sakona zen sentitzen zena iluntzeko lasterketa lardatsean. **Joseba Sarrionandia**
Euria ospitale barruan zegoen sartuta; ez euria bera, euriaren kolore **umela**. **Unai Elorriaga**
Neguan, herriko farol apurak hotzaren itzal **umelak** argitu ezinik zeudela, [...]. **Pako Aristi**
Eduerri ederra, Eduerri liraina, Eduerri gure amets **umeletako** protagonista. **Aingeru Epaltza**
Hodei urdin bat edo beste kenduta, harmonia **umeleko** gaua zen. **Unai Iturriaga**

4 (adizlagun gisa)

Hara, dena **umel** zegoen hemen; igeltsua berriz jarri. **Anton Garikano**
Behoko sua **umel** eta hutsik zegoen. **Iñaki Mendiguren**
"Ondo" erantzun dio begiak gorri, **umel**. **Urtzi Urrutikoetxea**

5 (izen gisa)

Ongizateak abantailarik ekarri badu, hortantxe izan da, bizitokitako hezedura eta **umela** janez, aire epelez giroa gozaten. **Pello Zabala**
Airea trinkoagoa da, atzokoaren aldean: itsasoaren **umel** zaharra, orbelaren ustel-usaina. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hotz **umel** (3); masa **umel** (4); **umel** bustiak (3)

begirada **umela** (3); **umela** zegoen (4)

umeldu, umel(du), umeltzen 1 du ad hezetu.

Bero jartzen garenean, bagina **umeldu** egiten da, eta zakila, berriz, gogortu egiten da. **Luis Elberdin**
Abiatu ziren biak, zera gogortzen hasita bata, zera **umeltzen** hasita bestea, saihestezina zirudien amaierarantz. **Jon Arretxe**
Begiak **umeltzen** zitzaizkiola ikusi dut. **Urtzi Urrutikoetxea**
Ardura dizu lehenengoz mihiaren puntaz nire zuloa pixka bat **umeltzea**? **Jon Arretxe**
Lantzean behin haize-bolada batek begitartea **umeltzen** zion. **Lopez de Arana**
Mahukaz lehortu du eskopetaren kanoia **umeltzen** duen lurruna. **Itziar Otegi**

2 (era burutua izenondo gisa)

Izerdiaren likina kamiseta **umeldu** eta itsatsian. **Xabier Mendiguren Elizegi**

3 fruituez eta kidekoen mintzatuz, gehiegi heldu, usteltzen hasi.

Piperrak **umelduta** -edo egongo ziren, agian. **Fernando Morillo**
Baina datil **umeldu** eta ubelduen uztari ihesi joanez, lur berri-berrira aldatu da. **Xabier Olarra**

umeldura iz umeltasuna.

Aire-poltsa beroago eta lehorrakoak suntsitu eta xurgatu egiten zion **umeldura** eta hezkura. **Pello Zabala**

umeltasun 1 iz hezetasuna.

Argia amata eta ezin dut lorik egin, ukitu ere egin daitekeelako **umeltasuna** eta gazitasuna izaretan. **Joseba Sarrionandia**
Bazekielako musu bakar batez, mingainaren zaporea eta listuaren **umeltasuna** sentitzeaz bat, klitoria ere lanbroten zitzaioa, ihintzaz estaltzen. **Jasone Osoro**
Egun euri-bustien **umeltasuna** batzuetan, bat-bateko trumoi eta osti-zaparrada bestetan. **Pako Aristi**
Garai bateko kai zaharra osatzen zuten kalekak dakusigü, harrizko arkupe dotoreekin; XIX. mendeko irudi bat kresalaren **umeltasunak** hiri erraldoiaren berrikuntzei ostu diena. **Pako Aristi**
Goroldioaren **umeltasun** sarkorra pagopean. **Pako Aristi**
Bortitzegia baitzen kaleko hotzetik barruko **umeltasun** kiskalgarrira zegoen kontrastea. **Jon Arretxe**

Umeltasun izerditsu hori. Sonia Gonzalez

2 (hitz elkartuetan)

Umeltasun erlantzek argitzen dituzte paretetako harriak. Itziar Otegi

umeltxo *izond adkor* umela.

Normalean, belarretan edo zuhaitzen hostoetan kondentsatzen da gustuenik eta egokienik aire **umeltxo** hori. Pello Zabala

Hoztearekin batera, bertatik hezedura **umeltxo** hori ttanttan ttitkan kondentsatzen da. Pello Zabala

umemoko *(orobat ume moko; Euskaltzaindiaren Hiztegian umemoko agertzen da)* 1 *izond adkor* umea, ume koskorra.

Zortzi urteko **umemoko** batek ez dakiela hizkuntz sistemaren alde onak eta alde txarrak neurtzen. Karlos Linazasoro

Umemokoak ziren, bizitza harrapatu nahi zuten, bizitzak berak gu harrapatzen gaituela jakin barik. Sonia Gonzalez

Umemoko bat besterik ez zara, eta bazter guztietan sartzen duzu muturra. Juan Kruz Igerabide

Horixe gertatzen zitzaidan neuri ere, **umemoko** bat besterik ez nintzen baina; iraultzaileek bezala jokatu nahi. Juan Kruz Igerabide

la ez nau hartzen, lehen bezala, kontuan zertan harturik ez dagoen **umemokoa** bezala. Josu Zabaleta

Ez naiz zuek pentsatzen duzuen **umemokoa**. Joxemari Urteaga

Umemoko batzuk armadari zirenak eta bost lapurtzea! Karlos Linazasoro

2 (izenondoekin)

Zenbateraino zinen zu ere **umemoko** zikin bat orain dela bi urte, nahiz eta ordurako zeure burua heldutzat eduki. Xabier Mendiguren Elizegi

Bihotza estutu zidan: **umemoko** zikin batzuek katu bat ito behar zutela iruditu zitzaidan. Monika Etxebarria

Gurdien azpian **umemoko** zarpailtsuak jolasten ziren. Pablo Sastre

3 (izenondo gisa)

Zeren zaintzaile **umemoko** haiek ere gozamen eroan arituak baitziren gau hartan, eta botila erdi bat ardo geratzen zen bakarrik. Josu Zabaleta

umeontzi ik umontzi.

umeri iz

Gaur ere arras kasu egiten dute ardi arrazari, marro bat ikusi dugu, juan den urtean, 2004 ean, 16 kilo ile finetik eman dituen, munduko ile finenetarik omen da, horiek beirutzen dituzte hazi hortarik **umeriak** ekarrarazteko. Herria

umetasun iz umea izateko nolakotasuna.

Oso nerabe kutsukoak, nolabait esateko; eta, hala ere, giza eta gizarte aldetik falta sakona islatzen duen **umetasun** eta xalotasun nabarmena dute ezaugarri. Xabier Olarra

Gugan zirrara gehien sortzen duena ume protagonisten dezepzioa da, gertakizun haren ondorioz **umetasuna** galtzen dutelako hirurek, helduen izaera beraiek uste zutena baino askoz itsusiagoa dela ikustean. Berria - Kultura

Izan ere, antigoaleko umeak gara denok, Goio eta Andoni, eta orduko neskatua neu ere, oraingo jende heldu, sakabanatu, **umetasun** arrastorik gabea. Joseba Sarrionandia

umeteria 1 iz ume taldea.

Osoa artaldean bezala sartu zen doktorea **umeteria** haren erdian. Josu Zabaleta

Aurrera zihonan, **umeteriaren** oihuak entzun gabe eta goialdetik igarotzen ziren trenen dardara txundigarria aditu gabe. Lopez de Arana

Behar dut, premia daukat, bizia horretan doakit, zurezko eskaileran beheerako **umeteriaren** arrapalada hori, jainkoarren. Harkaitz Cano

Arotzak kalearen erdian aritzen dira lanean, **umeteriaren**, oiloen eta zakurren ondoan. Koro Navarro

Bitartean, pasealekuetan, **umeteria** hara eta hona dabil, gurpil gabeko gurdiei tiraka, ontziak hareaz betetzen, negarrez, hozkaka, **umeteria** izugarria, zarpailsua, mukia sudurrean, zomorroak eguzkitan bezain ugaria. Karlos Zabala

Han zegoen bera, bihurgunean zutik, neure aurre-aurrean, bere bi maiteei azken musua igortzen -eseriak ziren jada beren eserlekuetan **umeteria** orrolari harekin bat eginik-. Oskar Arana

2 (abereena)

Honela, sarritan, artiledun aziendak eta zaldien eta abelgorrien **umeteria** liskartsua, zeruaren magalpean, nahiz eta zelai bereko belarra moztu eta ibai bereko urean egarria asetu, itxura ezberdinez bizi dira. Xabier Amuriza

umetoki *(124 agerraldi, 20 liburu eta 23 artikulutan)* 1 iz ugaztun emeen sabelaldeko barrunbea, umekia, jaio arte, edukitzen duena. ik utero.

Obarioak eta **umetokia** sabelaren barruan daude. Luis Elberdin

Umetokia kanpoaldearekin lotzen duen tutu bat da bagina. Luis Elberdin

Bagina eta **umetokia** malguak eta sendoak dira. Luis Elberdin

Klonatutako enbrioi bat emakume baten **umetokian** ezarri duela dio Zavosek. Berria - Gaiak

Bolaluma baten tamainako gomazko tutuxo bat sartzen da **umetokian** eta osatzen ari den zelula multzoa xurgatzen du. Berria - Euskal Herria

Umeak **umetokian** ezin du zilbor-hesterik gabe bizi eta jaiotakoan, berriz, zilbor-hestea eten behar zaio itoko ez bada. Anjel Lertxundi

Gorputz-barrunbeetako muki-mintzetan (nagusiki, sudurrean eta emakumeen baginan nahiz **umetokian**) sortu eta hazi ohi den tumorea. Imanol Zurutuza

Umetokiko minbiziari aurre egiteko. Berria - Euskal Herria

Umetokiko paretak odolere betetze hori hormonen ondorioz gertatzen da, batez ere estrogenoen ondorioz. Luis Elberdin

Egun horietan **umetokiko** lepoa dilatatuago egoten da. Luis Elberdin

Dagoeneko umea deitzen ari zaio, oraindik alabaren **umetokian** dagoen zomorrotxo bat baino ez delarik. Oskar Arana

Luluren egoera larria zen; **umetokia** atezurik gabe geratu zen eta ez zuen umekondoa kanpora botatzen. Josu Zabaleta

Baziren beren **umetokia** alokatzen zutenak ere. Pablo Sastre

Bada anaitasun moduko bat, estuago eta sendoagoa, **umetoki** beretik ateratako bizkiak lotzen dituena baino. **Xabier Olarra**
Gaueko itzalak aienaturik, gorputza bere etxe txikiok iluntasun **umetokikoaren** gisako hartan bildurik, begiak berez irekitzen zizaizkion arte egingo zuen lo. **Oskar Arana**
UBGaren fidagarritasunari buruz hitz egin nion orduan, **Umetoki** Barneko Gailuari buruz, alegia. **Hasier Etxeberria**

2 (hitz elkartuetan)

Abdomeneko pareta eta **umetoki** -pareta ebakiz fetua amaren sabeletik kanporatzeko egiten den ebakuntza da zesarea. **Berria - Gaiak**
Umetoki -lepoko minbiziaren aurrean gutxienez 4,5 urtez babesten duen txertoa asmatu du Ameriketako Estatu Batuetako zientzialari talde batek. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
umetoki barneko (8); **umetoki barneko gailua** (5)
amaren umetokian (5); **emakume baten umetokian** (3); **emakumearen umetokian** (3); **umetokian ezarri** (3)
umetokiko lepoa (3); **umetokiko minbizia izateko** (3); **umetokiko paretak** (3); **umetokiko paretetan** (5)

umetu, ume(tu), umetzen 1 du/du *ad* ume bihurtu.

Baina haurrak josteta du maite, eta osabak ere oso atsegin zuen batzuetan josteta... eta hala **umetzen** zitzaidan behin baino gehiagotan ni gizondu nahi ninduen. **Joan Mari Irigoien**
Gero erabat **umetu** zitzaigun, zazpi abade kalitua zela ekin zion orroka. **Koldo Izagirre**
Halakoxea hintzen, izan ere: gizon behar zenean gizon, eta **umetu** behar zenean **umetzen** zekiena. **Iñigo Aranbarri**
Ezeren lotsarik, hiltzeko lotsarik ere ez dagoenean, **umetzeko** lotsarik ere ez dago, eta orduan, pertsona ilunabartuak, bere garapen oso eta etsigarria gainean dakusalarik, haur bihurtzera bulkatzen du bere burua. **Iñaki Segurola**
Lotsa, ostera, emakume hura neure egiteko sentipen oldartsuak eragiten zidan, bai bainekien hala sentitzeak **umetu** egiten ninduela haurrak jostailu bat beretzat nahi duenean bezala. **Hasier Etxeberria**
Barry Reisberg adituak Alzheimerren gaitza erretrogenesiarekin lotzen du, galeraren bidez berriz ere **umetzearekin**. **Berria - Gaiak**

2 (era burutua izenondo gisa)

Helduetan ere berebat da, baina batekoz bestera; zenbat-eta tontoago (tonto-harroago), kamutsago eta **umetuago**, orduan-eta zernahi gauzaren kausak azaltzera -eta arazoiketa zapuztera- ixuriago. **Iñaki Segurola**
Zakar horiek dira: "injustizia, gerrak, esplotazioa, pobrezia, diskriminazioa, marjinazioa, indarkeria...", hots, guraso zintzoek, maisu-ndereñoek eta kazetariek beren haur edo bezero **umetuen** aurrean, zer dioten jakin gabe, bota ohi dituzten jakineko ideia gizen eta berbaila elbarriak, sano dagoen haur bati deus esaten ez diotenak. **Iñaki Segurola**

3 ume egin.

Egizue gurdi berria, jar itzazue uztarrin inoiz lotu gabeko bi behi **umetu** -berri eta erantsi gurdinari; lotu ikuiluan haien txahalak. **Elizen arteko biblia**

4 haurdundu.

Hau da Perikok bere haurtzarotik gogoratzen zuen kontua: zaldun batena zen, behin baso batean zihoala emakume bat behartu eta **umetu** zuena. **Pako Aristi**
Baina okerreko sabelak **umetu**. **Aingeru Epaltza**

umetxo iz ume txikia.

-Eguraldiaren aldaketa bat-bateko eta guztizkoak halako trastornoak sor ditzake, Ismael, batik bat **umetxoengan**: bihotzekoak, umore aldaketak, logabezia, depresioak, bat-bateko heriotzak. **Karlos Linazasoro**

umetxurtx ik umezurtz.

umetzar iz adkor ume handia.

Horako **umetzar** horrek bere haur-oihaletan bildurik dirau oraindik. **Juan Garzia**

umetzaro ik umezaro.

umexurtx ik umezurtz.

umezain iz haurtzaina.

Umezain bat ordaindu behar izan zuen txikia zaintzeko. **Iban Zaldua**
Laster hasi ziren Fulsom andereñoaren eskolara joaten, **umezainaren** eskutik. **Julen Gabiria**
Inude eta **umezainek** kontu-kontari bultzatzen zituzten kotxeak. **Anton Garikano**
Nesken eskola bateko kideak ziren, **umezainarekin** paseoan irteerakoak. **Julen Gabiria**
Han zeuden idazlea lurrera abaildu zenean haurrak dindanean bakarrik utzi eta bertaratu ziren bi **umezainak**. **Joxean Agirre**
Hori gertatzen da txakur bat izateagatik **umezain**. **Julen Gabiria**
Ignazia Arkalaren ostatuan sartu zen **umezain**, eta hamalau urte bete zituen arte hantxe aritu zen lanean. **Koro Navarro**

umezale izond umeen zale dena.

Neska **umezale** eta arduratsu bat hartuko dugu, zuri gustatzen zaizkizun horietakoa. **Patxi Iturritegi**
Eta ume txikirik baldin bazuten, hainbat hobe, oso **umezalea** zelako. **Fernando Rey**
Mariak haurrik eduki ez baina, **umezale** amorratua izan eta besterenak gozatzen ez du hutsik egin. **Xabier Etxabe**
Lewis Carroll **umezale** maitagarriaren logika jarraituz bakarrik uler dezaket auzi hau, kaosa, zentzugabekiaren zentzua, zabarkeria. **Berria - Kultura**

umezar iz hainbat urte dituen umea.

umezaro *(orobat umearo g.er. eta umetzaro g.er.) iz haurtzaroa.*

Umezaroa garai inozoa da. **Berria - Kultura**

Rufinoren **umezaroa** ardi jagoten joan zan. Peter Pan **umezaroan** geratu da, baina ez alde zuretik amarengana bueltatzeko ahalegina egin gabe. **Xabier Amuriza**

Sukaldetik **umezaroko** usaina datorkigun horrextan. **Edorta Jimenez**

Ez orain asmatu sekula izan ez duzun **umezaroko** traumarik. **Iban Zaldia**

Umezarotik gaztarorako jauzia ere egin genuen eta ezusteko galantak noraezean utzi zuen gure logika. **Berria - Euskal Herria**

Umezaroko azken maitasuna edo nerabetako lehena izan zen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Fiona **umezaro** ospindu baten produktu biologikoa iruditzen zaizu, hezkuntza-prozesu tamalgarri baten ondorio mikatza. **Lutxo Egia**

umezulo *(corpusean ume-zulo soilik) izond gurasoez mintzatuz, beti umearekin egon nahi duena.*

Flirtean jardun, dena baleki bezala jokatu, denei aholkuak banatu, ama **ume-zuloaren** itxura egin, badirudi horrek guztiak irudi ona ematen duela. **Josu Zabaleta**

umezurtz *(orobat umetxurtz g.er. eta umexurtz g.er.) 1 iz aita, ama edo biak hilak dituen haurra.*

Sei haur ziren familian; bi kanpotik ekarritako **umezurtzak**. **Gotzon Garate**

Noren esku uzten gaituzu **umezurtzok**? **Askoren artean**

Umezurtzak ziren amaren aldetik, baina patruaren zorigaitza baino indartsuagoak zirela erakutsi zuten. **Ander Irizar**

Bi **umezurtzen** ama. **Anjel Lertxundi**

Zuekin bizi diren etorkin, **umezurtz** eta alargunek zer jana izango dute. **Elizen arteko biblia**

Gizonak orduan mila alargun eta milaka gehiago **umezurtz** ekarri zituen dorretxearen aurrera. **Felipe Juaristi**

Alargunak larrutzen dituzte eta **umezurtzak** zurruputzen. **Elizen arteko biblia**

Umezurtzen aita den Jainkoak kontsolatuko baikaitu bere kontsolamendu santuaz. **Askoren artean**

Ekialdeko **umezurtzen** trafikoan espezializatutako GKEko arduraduna. **Aingeru Epaltza**

Hala, urte erdi batez edo **umezurtzarena** egiten aritu nintzen. **Josu Zabaleta**

2 (izenondoekin)

Alargun babesgabei eta **umezurtz** errukarri. **Jose Morales**

Orain, ordea, Humirzah, seguruena, gaixorik zegoen nonbait ere, deabru babesgabea, **umezurtz** bakartia, aita-amarik gabea, beraz arduratuko zen emazte leialik ez zuena. **Koro Navarro**

Ez zegoen inor **umezurtz** gaixorik laguntzeko, haur gosetuari esne tanta bat emango zionik. **Askoren artean**

Mundu zaharretik mundu berrira doazela, Mirto Czentovic **umezurtz** txiro erdi pepelerdoa, xakerako dohain apartek munduko txapeldu izatera goititua. **Markos Zapiain**

Hain da aldi berean maitagarria Tom **umezurtz** malderra, hain apaina eta psikopata! **Markos Zapiain**

3 (hitz elkartuetan)

Seme-alabek, dirua jasotzeko, elbarritasunen bat izan behar dute, edo kotizaziorik gabeko **umezurtz** pentsioa edo baliaezintasuneko pentsioa jaso. **Berria - Euskal Herria**

4 (izenondo gisa)

Bere lagun **umezurtzek** bere memoriari ohore egiteko mendekura beharturik zeuden dagoeneko. **Joseba Zulaika**

Nola izan guraso **umezurtzen** alaba, lanera beharturiko esklaboen, giza espezieetik erauzi nahi izan diren eta munduko isiltasun gorrazleak luzaroan isilarazi dituen gizakien alaba? **Joxan Elozegi**

Errusiar gazte **umezurtzek** txetxeniarren aurkako gerrarako jasotzen duten formazioa erakusten du. **Berria - Kultura**

Hamalau udaberritako neskatoa alabaina komentu batera bidali eta oinordeko gisa iloba **umezurtz** bat har zezaten aholkatu zien apezak. **Itxaro Borda**

Etorkin narrasti eta **umezurtza** zuen bere aurrean orain. **Harkaitz Cano**

5 (adizlagun gisa)

Berehala **umezurtz** geratu zen: urtebete besterik ez zuenean aita galdu zuen eta urte bat geroago ama. **Ibon Uribarri**

Aitarik gabe gaude, **umezurtz**; gure amak, alargun. **Elizen arteko biblia**

Orain **umezurtz** baikaude, aitarik gabe. **Askoren artean**

Haurtzaroan **umezurtz** gelditu eta nebak ero batekin ezkontarazi zuen. **Gotzon Garate**

Geldi bitez **umezurtz** haren haurrak, alargun haren emaztea. **Elizen arteko biblia**

12 milioi haur **umezurtz** laga ditu hiesak Saharaz hegoaldeko Afrikan. **Berria - Gaiak**

Gauza da barrakako istripua izan eta handik astebetera hil zela emakume gajoa, Martin eta Ignazia **umezurtz** utzirik. **Koro Navarro**

Gainbeheraldi luze tristagarri hartan nik deusik ezin eginik, **umezurtz** sentitu nintzen zinez. **Txillardeggi**

6 irud/hed

Kontenplatu dugun Egiaren **umezurtzak** gara. **Piarres Aintziart**

Etixerik ez duen umea, **umezurtza** besterik ez da. **Herria**

Harrapatutako iskulak (fusilak milaka, eta miloi bat bala) egoki iritsi zitzaizkigun bene-benetan Jurramendi inguruetako karlista **umezurtzoi**. **Txillardeggi**

Bide beretik, ahula eta **umezurtza** zen gure aldizkaritxo Espainiako (are Europako) kideen artean. **Txillardeggi**

Zorionaren **umezurtz** ziren usu bere zeluloidezko kreaturak. **Berria - Kultura**

Denek sinetsi genizkion orduan arbelean idatzitako azalpen doi **umezurtzak**. **Karlos Linazasoro**

Arimaren zolan nigan zegoen haurra, hilik aurkitu nuen bat-batean; eta helduen mundu aterigabea, **umezurtz**, neure burua atxeman. **Txillardeggi**

Nire armairuetan barreiatuak utzi zituen hainbat gauza, oraindik ere jaberik gabe, **umezurtz** jarraitzen dutenak. **Joxean Agirre**

Zelai honetan borroka ikaragarria gertatuko da, eta Logres erresuma **umezurtz** geratuko da. **Juan Kruz Igerabide**

Eta Nafarroa **umezurtz** gelditu zen. **Eduardo Elizondo**

Handik goiti, **umezurtzago** nenbilen egunkarian. **Aingeru Epaltza**

Zelai erdia **umezurtz**. **Berria - Kirola**

7 umezurtz etxe umezurtegia.

Miamin lehenengo, eta lowako **umezurtz-etxe** batean gero, bere ahizparekin egoteak laguntzen zion ez erortzen, ez zapuzten, ez amorrutzen. **Berria - Kultura**

Umezurtz etxe batera bidali zituzten Yueren bila. **Berria - Harian**

Berari laguntzeko bi aukera nituen: amarekin hitz egin, ea gauzak hobegotzen ziren, edo **umezurtz-etxeren** batekin harremanetan jarri eta hara eraman. **Gotzon Garate**

Umezurtz-etxera etorri eta Geethak espetxera amarengana itzuli nahi zuen. **Gotzon Garate**

Bazuen beste [film] bat **umezurtz-etxe** batera daramaten ume bati laguntzen dionekoa ere. Harkaitz Cano
Gurasoak naufragio batean hil zitzaikion; anai-arrebak istripu batean galdu zituen; jaso zuten **umezurtz-etxea** erre egin zen, kixkali. Karlos Linazasoro
Louis Courtinat-en kamerak Errumaniako haurrei buruzko testigantza latzak ematen zituen, Errumaniako presidente Nicolae Ceaucescuren **umezurtz-etxeetatik** demokraziaren garaiko kale libreetaraino. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

haur umezurtz (3); **milioi umezurtz** (5); **umezurtz eta alargunei** (4); **umezurtz eta alargunentzat** (3); **umezurtz etxe** (7); **umezurtz etxe batean** (4); **umezurtz etxeko** (4); **umezurtz gara** (3); **umezurtz gelditu** (13); **umezurtz gelditu nintzen** (3); **umezurtz geratu** (14); **umezurtz geratuko** (3); **umezurtz geratutako** (3); **umezurtz gisa** (3); **umezurtz sentitu** (3); **umezurtz utzi** (10); **umezurtz uzten** (3)

umezurtza zen (9)

alargunak eta umezurtzak (3)

umezurtzen aita (3)

umezurztasun iz umezurtz denaren egoera.

Lehenengo aldia zen ia bost urtetan emakume haren auzotasunik gabe geratzen nintzela, eta etxean utzitako bi haurrak amarik gabe ikustea huskeria iruditu zitzaidan niri gertatzen zitzaidan **umezurztasunarekin** alderatuta. Hasier Etxeberria

umezurztegi iz umezurztzak zaintzen dituzten etxea.

Gaztea zen, inor ez zuen ardurapean, gaztaina makila izan ezik; ezta inor ere haren aurrean kontuak errenditzeko, Paulo Zubia, Tuterako **umezurztegitik** salbatutako mutila izan ezik. Felipe Juaristi

umi 1 izond ipar hezea.

Baietz gehienetan, artetan ikusten zela, lur **umian**, ziraun bat. Piarres Aintziart

Beharpean gaude, aro **umi** eta ezti batekin segitzekotan gaude. Herria

Aro fresko **umia** izanen dugu aste hau, hotzago aste ondarrari. Herria

Egun hits, eurixkatsu eta **umi** hortan, ez da trinketa xukatu batere, eta uko egin behar izan dute xapelgoko bi partideri, aroaren kontra ez baita deus egiterik. Herria

2 (adizlagun gisa)

Bertsulariak aldiz erdi-zainetan, buruari hazka, mikroa hunki eta hunki, eskuak **umi**. Herria

umidura 1 iz hezetasuna.

Behelaino edo erlaino horrekin **umidura** % 97-8an kokatzen da agudo. Pello Zabala

Airea bustia dago, umela, berdotza, haize pixka bat ere bai, ipar-mendebalekoa dirudi, itsasaldetik **umiduraz** gain eginda datorrena. Pello Zabala

2 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Hor sortzen da lurrinketa ta **umidura** xurgatze prozesua. Pello Zabala

umil 1 izond apala. (pertsonak)

Zure edertasun zoragarria eta berdingabea nire begien aurrean agertu orduko, zure esklabo eta zerbitzari **umil** bihurtu naiz. Antton Olano

Zure zerbitzari **umil** nago. Anjel Lertxundi

-Petrikilo **umil** bat besterik ez da -esan nuen nik-. Conti, bere menpekoa, mantal griseko gizon tiki lasai eta **umila**, gure aita asko maite zuena. Koro Navarro

Bulegari **umil** bat eta bere seme-alabak hiltzea baino helburu inportanteagoak izango zituztela terroristek. Mikel Hernandez Abaitua

Dohainik bikainenena emakume **umila**. Elizen arteko biblia

Kamikaze xume, sineskor eta **umil** baten moduan funtzionatzen nuen, ene kideen antzera. Itxaro Borda

Bera zen taldearen oinarria, eta agian diskretoena, **umilena**. Pako Aristi

Munduak bihotzez garbi eta **umil** direnei bakarrik barkatzen ziek. Xabier Olarra

Eta berriki oraino, Jainkoari esker, hartze nuen baino anitzez gorago ezartzen nindutelarik guztiek, **umilek** ala puxantek, hona non oraingoan zuzengabeki belzten gaituzten ni neu eta ene etxeakoak. Piarres Xarriton

2 (bestelakoak)

Baso hartako animaliek beti han ezagutu zuten, txabola **umil** hartan, ogia egiten, baratzea landatzen, negurako egurra biltzen. Pako Aristi

Bizitza laburbiltzen zion errautsez, hautsez eta izerdiz emokatu buruko **umilak**. Itxaro Borda

Udazkeneko eguzki **umilak** lagunduta. Pello Zabala

Batzuetan, bost izarreko ostatu handiosa izan, elkarte gastronomiko **umila** izan, elikagaien tenplu horietan diharduen apaiz "profesionala" da eraldatzailea [...]; besteetan, militante amateur hutsa izaten da. Edorta Agirre

Ene uste **umilenean** bizitzea bizio bat da bizitza maite denean. Berria - Kultura

Aleman eta frantses estatu-nazioen arteko gatazkari behingoz aterabide bat eskaintzea zen xede **umil** horren helburua. Piarres Xarriton

Keinu **umil** batez zigarroa eskatu zion. Pablo Sastre

Deus ez zuenaren alegantzia **umil** eta mendekariaren musika. Itxaro Borda

Arren, onar iezadazu nire zerbitzu **umila**. Xabier Olarra

Hire jarrera **umila** duk nire aurrean, baina aspaldi desbideratu haiz hire bidetik eta nire aholkurik ez duk entzuten. Agustin Otsoa

Erregu guztiz **umila** Espainiako eta Portugalgo inkisidoreei. Iñaki Iñurrieta

3 (adizlagun gisa) ik umilki.

Jaun haiek Rosek zerbitzatzea nahi zuten, eta neska sartu eta atera egiten zen, **umil** eta zorientsu. Karlos Zabala

Zabartzen dena, harroxko edo handiputz bihurtzen dena, patuaren opariak **umil** onartu ezin dituena. Xabier Olarra

Aitor dezagun **umil** egia: giza aberea lurrean arrastaka hobeto moldatzen da, zeruan goiti horietan hegaz baino. Txillardegi

Elizaren inguruan bildu ziren, buruak **umil**, ahalkea aurpegietan. Ramon Saizarbitoria

Harro edo **umil**, hau guztia aitortu beharrean badaude... Txillardegi

Etorriko da, lasai, goizgiro frexko baten ostean, aspaldiko eguzki hura, fanfarrokeria handirik gabe, **umil** samar. Pello Zabala

Horren ostean, **umil**, gogogabe, itxuraz dei etengabeei amore emanez, aurpegi guridun gizon lodikotea, burugaina berez eta ingurua makinaz soildua, aurreratu eta beste bi seinlatu zituen. Urtzi Urrutikoetxea

Piramok marru egin du, kolpeen beldurrez etzanda, isatsa **umil**. Itziar Otegi

4 (hitz elkartuetan)

Gizon goxoa, maitagarria, ezitia, beharbada sobera ezitia, **umil** aire batekin, aski borondate fermurik ez zaukana. **Herria**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketa izenondoa dela)

Hire ama garai horretan neskato begi **umil** bat zuan. **Juan Garzia**

6 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa)

Agerian agertu, Santxo, hire jatorriaren **umila**; ez gutxiztat eduki baserritarra haizena esatea. **Patxi Ezkiaga**

7 *umil-umil* adlag

Hor daude isil-isilik, **umil-umil**. Rambuteau kaletik Cossonnerie kaleraino **umil-umil** jokatu zuen. **Filipe Bidart**

Nik ez nionan ententitzen baina **umil-umil** ari zunan, begiak gehiegi altxatu gabe. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Komeniko da **umil-umil** betetzea elizako epaile eta pertsonen ebazpen eta aginduak. **Juan Garzia**

Klausek, **umil-umil**, alde egin zuen agindutakoa betetzera. **Anjel Lertxundi**

Zauriak sendatutakoan, Enperadore Horiarengana joan zen **umil-umil** eginda. **Felipe Juaristi**

8 *umil-umila* adlag ipar

577 deputatueterik 365 UMP alderdikoak izanki alabainan, denak **umil-umila** jarri direnak gobernuak hartu bideari. Haiekin hobe **umil umila** agerturik. **Herria**

Elizaren udaberria hemen dugu gure atean, **umil umila** bai eta ere esperantzez bete. **Herria**

Arrastuak izaiten ziren desertur gehienak aldiz **umil umila** gertarat joan behar eta leku txarrenetarat igortzen omen zituzten. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apal eta umil (4); **emazte umil** (3); **umil umil** (15); **umil umila** (8); **zerbitzari umil** (5)

gizon umila (5); **talde umila** (4)

umilagarrri ik umiliagarrri.

umilarazi, umilaraz, umilarazten du *ad* umiltzera behartu. ik umiliarazi.

Nola San Frantziskok anai Maseo **umilarazi** nahi izan zuen. **Askoren artean**

Nekepean **umilarazi** zituen, lur jo zuten, eta nork lagundurik ez. **Elizen arteko biblia**

Langile akonplejatuak egin du mendekurik nabariena, ustez ni **umilarazi** eta une batez bere burua nere gaineko eginez, eta bere atsegina mingarra da. **Patziku Perurena**

Behin batean anai Junipero, bere burua ondo **umilarazi** nahirik, erabat biluzi zen eta, abituaz fardel bat eginik, buru gainean jarri eta biluzik sartu zen Viterbon, eta hiriko plazara joan zen denen barregarri. **Askoren artean**

umilatu ik umiliatu.

umilatzaile ik umiliatzaile.

umilazio ik umilazio.

umildade *iz* umiltasuna. ik apaltasun.

Santu onbera haien hilobien oinetara jartzen zen erromes bakoitza Bretainiako erlijiozaletasunari bere ohorea eta **umildade** osoa eskaintzen zizkion zerbitzari prestu eta leiala zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Idazten jakitera iritsi gabe ikasten soilik ari denaren **umildadea** ahaztuta poema bat idaztea. **Pako Aristi**

umildu (**31** agerraldi, **14** liburu eta **5** artikulutan), umil(du), umiltzen **1** da/du *ad* umilazioa jasan edo jasanarazi. ik **apaldu**; umiliatu.

Damuz hautsirik eta **umildurik** gatozkizu: har gaitzazu onez, ahari eta zezenak edo milaka bildots gizen erre-oparizat eskainiko bagenizkizu bezala. **Elizen arteko biblia**

Pozaldian dagoenean egin beza ahalegina **umiltzen** eta ahal adina eraisten, pentsatuz zein gauza gutxirako den lehorraldi garaian, grazziarik eta pozaldirik gabe gelditzean.

Patxi Altuna

Ez dakit estrategia-aldaketa- zen edo, besterik gabe, guttiz etsita zegoen ez ninduelako **umiltzen**. **Anjel Lertxundi**

Azken urteetan lesioen eskarmentua pairatu du, eta erabat **umildu** dute. **Berria - Kirola**

Beldurrak gaitu askotan **umiltzen** beraz, ixildu gaitezen eta aitzina goazen gero ta hobeki ikasiz "bozkatzen". **Herria**

Erljioa omen zen hori: bekatua, zigorra, beldurra, izua; apaizen gehiagotasuna, erruaren ekonomia, nork bere burua hankaperaino **umiltzea**. **Iñaki Segurola**

Indioilarra, zigortua sentitzen denean, gehiago apaltzen eta **umiltzen** da oraindik eta etzanago eta lepoa luzatuagoa duela jartzen da bestearen barkamenaren zain. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Traukoren estuasunak barregura eman zion, lehentxoago hain oilar agertu zena **umilduta** ikusirik. **Pedro Alberdi**

2 irud/hed

Urduri gaude denok eta Imanolek mahaira **umilduko** ditu begiak malboro zigarro baten bila. **Joseba Sarrionandia**

3 (era burutua izenondo gisa)

Zuk ez duzu gutxiesten, ene Jainko, bihotz hautsi eta **umildua**. **Elizen arteko biblia**

umilgarri *izond* umiltzen duena, umiliagarria.

Izan zezakeen zentzurik nerabe batek esperientzia **umilgarria** bizi izandako halamoduzko hotela deskribatzeak. **Bernardo Atxaga**

Giza arrazoimenarentzat **umilgarria** da bere erabilera hutsean ezer ez lortzea eta, gainera, diziplina bat behar izatea bere bitxikeriak neurtu eta bertatik datozkion itxurapenak saihesteko. **Ibon Uribarri**

umiliagarri (orobat umiliagarri g.er.) 1 izond umiliatzen duena.

Arropak erantzten dizkizute, ohe-atorra **umiliagarri** horietako bat janzten dizute, eta, bat-batean, ez zara jada zu. **Oskar Arana**

Balentria harrigarrienak kontatu izan dira haren inguruan... baita txantxa **umiliagarri** eta zitelenak egin ere. **Luis Elberdin**

Presondegian sartzeko pasatu beharreko kontrol **umiliagarriak**. **Hasier Etxeberria**

Adiskidea, zuk ez duzu hori uste; zuk ez duzu nitaz horren uste **umiliagarrik** ! **Jon Muñoz**

Erdi lotan, nire fantasiak irudi **umiliagarriak** sortzen zituen [...] inkontzienteki, neure burua zigortu nahi nuelako antza. **Ramon Saizarbitoria**

Washingtongo neo-kontserbadoreentzat porrot **umiliagarria** izango da beren gerra estrategian. **Berria - Mundua**

Ez dut sekula aitortuko hutsegite **umiliagarri** hori amodioaren hutsegitez har ahal litekeenik. **Jon Muñoz**

Hurrengo saioak ere zein baino zein txarragoak izan ziren, esperientzia **umiliagarriak** eta iraingarriak. **Karlos Zabala**

Abandonu **umiliagarri** bat askiesten baduzue, eta ez baduzue bezperako idoloaz biharamuneko kaltetuna egiten. **Jon Muñoz**

Tortura tratu edo zigor krudela, ankerra eta **umiliagarria** da, eta haren erabilpena debekaturik dago. **Berria - Euskal Herria**

Torturak eta tratu txar **umiliagarriak**. **Berria - Mundua**

Zigor oso **umiliagarriak** jasaten genituen. **Ana Urkiza**

Umiliagarritzat jo zuen presoak biluzik aterarazi izana. **Berria - Mundua**

Era **umiliagarri** horretan hasten zen haientzat esklabotasuna. **Karlos Zabala**

Soldaduak aitortu zuen preso irakiarrez abusatu zuela Abu Ghraib presondegian eta argazkiak atera zizkiela egoera «**umiliagarrian**». **Berria - Mundua**

Torturen eta Zigor Anker eta **Umiliagarrien** Prebentziorako Europako Batzordea. **Berria - Euskal Herria**

2 (predikatu gisa)

Edonola ere, hau guztia **umiliagarria** da, oso. **Oskar Arana**

Maite ninduela esaten zidan, ez abandonatzeko mesedez, tonua **umiliagarria** zen, duintasuna galtzeraino, kupituta sentitu nintzen eta barkatu egiten niola esan nion. **Mikel Hernandez Abaitua**

Asko itxaron behar izan zuten berentzat **umiliagarria** zen erakustaldi harekin betiko bukatzen saiatzeko. **Martin Anso**

Xume-xumea eta muturrik jasan zuen, **umiliagarri** zeritzon zaindaritzako guardien ekina. **Itxaro Borda**

Umiliagarriena traizioa da, zure lagunei buruz hitz egin beharra, zu bezala atxilotu eta torturatuak izan daitezten. **Agurtzane Juanena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tratu txar umiliagarriak (3)

umiliarazi, umiliaraz, umiliarazten du ad umiliatzera behartu. ik umilarazi.

Errefuxiatuak **umiliarazi**, jipoiu eta 34 lagun tartean adin txikioak eraman zituzten. **Berria - Mundua**

Umiliaraztearren, barkamen eske ikustearren, beste batzuk salaraztearren. **Edorta Jimenez**

Umiliaraztearren, barkamen eske ikustearren, beste batzuk salaraztearren. **Edorta Jimenez**

umiliatu (183 agerraldi, 59 liburu eta 64 artikulutan), umilia, umiliatzen 1 da/du ad umiliazioa jasan edo jasanarazi. ik apaldu; umildu.

Apaldua, **umiliatua**, baztertua sentitzen zen, beti negar eta auhenka. **Itxaro Borda**

Biluzik sentitu nintzen, biluzik edo okerrago: gabeturik, apaldurik, **umiliaturik**. **Jon Alonso**

Umiliatua sentitu zen. **Patxi Iturritegi**

Hein horretaraino behar ote nintzen bada **umiliatu** ? **Jon Muñoz**

Nire ongilea neure erruz **umiliatua** ikustea izan zen, ordea, jasanezina. **Joxan Elozegi**

Burumakur, hutsaren hurrengo, ezin **umiliatuago**. **Patxi Zubizarreta**

Egia erran, ni baino ehun aldiz presuna gaiztoagoa zara, eta **umiliaturik** nengoke baldin neure burua ederretsiko banu. **Jon Muñoz**

Larunbatean 6/0 ko emaitzarekin bururatu dute partida, Villard-ko ekipoa **umiliaturik** ezarri. **Herria**

Adamsen ustez, IRA **umiliatzea** zen DUPek lortu nahi zuena. **Berria - Mundua**

Gorroto zuen, **umiliatu** egiten zuelako. **Ramon Saizarbitoria**

Ausardia horrek biziki mintzen zuen Karlos, eta gustura asko **umiliatuko** zuen betiko, pozik jakinaraziko zion bera baino gutxiago zela. **Koro Navarro**

Adorea banuela erakusteko, judu bat **umiliatu** behar nuen eta horixe zen, hain justu ere, aurrean neukan hura. **Anjel Lertxundi**

Neure burua **umiliaturik** eta haien omena horren maila gailenera goraturik. **Joxan Elozegi**

Otomandar gorenaren izena **umiliatu** dut. **Fernando Rey**

Zinez nauka **umiliaturik**. **Jon Muñoz**

2 (era burutua izenondo gisa)

Irakasle **umiliatuak** ez zuen nigana hurbiltzeko ahaleginik egiten. **Anjel Lertxundi**

Heroi **umiliatua** baina anonimoa izango nintzen. **Matías Múgica**

-Lagun **umiliatuetarik**, inor ez duk itzuliko -esaten du-. **Eskarne Mujika**

Alaitasunaren edozein zantzu zapuztu egiten zuen gizarte **umiliatu** hark. **Jokin Urain**

Oroitzapen **umiliatu** batek soilik gorde zitzakeen. **Joseba Urteaga**

Kartagoarren harropuzkeria **umiliatuari** buruzko *excursus* dotore bati ekiteko. **Iban Zaldúa**

Indarkeria, itsuskeria, jendeen zapalkuntza, arraza baten goraitzea, ttipien eta **umiliatuen** baztertea. **Herria**

Musika aretoak mukuru beterik daude begiak itxirik, aurpegi zurbilak antena-jasotzaile bilakatzen saiatzen diren **umiliatuez**, irainduz. **Monika Etxebarria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

umiliatuta sentitzen (3)

umiliatzen saiatu (3)

umiliatzaile izond/iz umiliatzen duena.

Tégan-ek idatzitako *Luis Errukitsuaren Bizitza*-n ikus daiteke apezpikuak izan zirela enperadore horren **umiliatzaile** nagusiak. **Iñaki Iñurrieta**

umiliatze iz umiliazioa jasatea edo jasanaraztea.

Zenbat inaze, zenbat **umiliatze** eraman beharko ote nuen, etsi baino lehen. Agurtzane Juanena

Umiliatze hori ez zezakeen pati eta kaskezurra zartarazi zuen ihiziko arma kokospetik hustuz. Itxaro Borda

Umiliatze metatu horren zirrikitutik jauki zen, 1959 urtean, ETA, Hegoaldean eta Iparraldean onartu zen mendeku eta zuzentasun lanabes ideologikoa. Itxaro Borda

Joko hori ez nuen maite ordea; alferrikako **umiliatze** bat iruditzen zitzaidan zure aldetik. Xabier Mendiguren Elizegi

Inoiz, erlojupekoan ere, aurreko bat doblatzeko aukera izan eta arerioa ez **umiliatzearen** haren atzetik amaitu zuen Indurainek. Joseba Zulaika

umiliazio *(orobat umiliazione g.er.)* 1 iz norbaiten ohorean edo harrotasunean norbaitek edo zerbaitek eragiten duen laidoa; laido hori pairatzeak eragiten dioen sentipena.

Nahiago izango zuen jantzita oheratu; lotsa baino gehiago **umiliazioa** esango nuke sentitzen zuela, inoren laguntza behar izate horrekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Umiliazioak, gisa orotako apaltzeak, duintasanaren kentzeko entsegu guziak orduan hasi zitzaizkion. Eneko Bidegain

Diskriminazioa eta **umiliazioa**. Berria - Mundua

Beren **umiliazioaren** mendekua. Josu Zabaleta

Ezin zuen inola ere garaitua izatearen **umiliazioa** eraman: hartan pentsatze hutsak hilduratu egiten zuen eta barrena jaten zion. Koro Navarro

Hamaika **umiliazio** eta erreprasalia jasan behar izan zuten. Joan Mari Irigoien

Umiliazio franko jasan ondoren -likits eta bazter-nahasle bat nintzela entzun behar izana, adibidez- lortu nuen koirorik ez gauzatzea aurreko uda arte. Joseba Urteaga

Hamaika **umiliazio** aguantatu behar izaten nituen, batere kexurik edo keinu txarririk ezaldu gabe, egunero bizia hamaika bider barkatzen zidan morroi harengandik. Jon Arretxe

Ez zuen bigarren aldikotz sufritu nahi, jasanarazi zizkieten **umiliazio** eta salbaikeria guziak kondatzean. Eneko Bidegain

Irentsiko du **umiliaziorik** iraingarriena ere ordaindu beharreko tasa baten moduan. Pako Aristi

Sentitu egin zuen nola igotzen zitzaizkion burura hiru egunetan zehar nozitutako sufrikarioak, **umiliazioak** eta nahigabeak. Patxi Zubizarreta

Garaituko dut bihotz mutiri hau, ohituko dut **umiliazioetara**. Jon Muñoz

Etorkizunak esanen du nire ahaleginek, arrakastaren ordainik jasotzerik ez badute ere, ez al zuten merezi uko basatia eta **umiliazioak** baino gehiago. 1990ean etengabeak izan ziren euskal presoek aurkako bortxazko erasoak, mehatxuak, bisita ukapenak, isolamendua, **umiliazioak** ... Monika Etxebarria

Amnesia gaineratzen irauten duten **umiliazioen** arrasto ez hain mingarri hori. Harkaitz Cano

Ukaezina iruditzen zitzaidalda Isaiak Berlinek ezartzen duen harremana **umiliazioaren** eta sentimendu nazionalistaren artean. Bernardo Atxaga

2 (izenondoekin)

Abandonatua izateak dakarren **umiliazio** txikiak ia beti sortzen duen beltzuriari elkarturik. Jon Muñoz

Lehenik gizakia desintegratu behar zen, isolamendu egoera sortu, gosea, egarria eta **umiliazio** etengabea landuz. Itxaro Borda

Umiliazio gogorrena eta konstanteena jasaten duten sektoreek izango dute, lehen batean, nazionalismoaren barnean programa politikorik erradikalena. Berria - Euskal Herria

Etnia baten **umiliazio** sistematikoak, beste hainbat faktoreekin batera, funtsean entitate kulturala den komunitate hori entitate politiko bihurtzen du; etnia nazio bihurtzen du. Berria - Euskal Herria

Mahmud Abbas Palestinako Aginte Nazionalako buruak «**umiliazio** barkaezintzat» jo du operazio militarra. Berria - Mundua

Diruarekin batera kopeteko ederra eta **umiliazio** galanta irabazten dute neskek. Berria - Kultura

Aureliano **umiliazio** ia fisikoa sentitu zuen. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etsipenari, **umiliazio** giro hari, pobrezia gorria gaineratzen zitzaion. Alberto Ladrón Arana

Gure gizonari menderatu ezinezko **umiliazio**-sentimendua, esplikagaitza, igo zitzaion buruko ileen erroetaraino. Jon Alonso

Gizarte batek programa politiko nazionalista bere egiteko, komunitate horretan **umiliazio** sentipena sozialki zabaldua egotea elementu garrantzitsua da. Berria - Euskal Herria

Menpekotasun eta **umiliazio** egoeran egon nintzen une oro. Berria - Euskal Herria

Jazarpen eta **umiliazio** gertakari berdintsuak errepikatzen dira soin eta gogo berrietan, labirintotik irten ezinean dabilen gurrupil zoroa balitz bezala denbora. Jokin Urain

Umiliazio bat zen, jakina, **umiliazio** segida luze baten lehena. Jon Alonso

Aitorpenak, barkamen-eskeak: zergatik horrenbesteko **umiliazio**-gosea? Oskar Arana

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bereziki sexu **umiliazioei** dagozkienak zabaldu ez zituztela azaldu zuen. Berria - Mundua

umiliazione ik umiliazio.

umilitate iz umiltasuna. ik apaltasun.

Gehiena zenaz gain, heldutzat jo zuten garaizegi, gabetasunezko **umilitatera** behartuz. Itxaro Borda

Aspaldiko ene (bizi) bideetan eredu daukadan Simone Weil (1909-1943) idazlearen eleen **umilitate** jakintsuaren aixolbetik abiatu naiz ipuin hauek idazterakoan. Itxaro Borda

umilki *adlag* umiltasunez. ik umil 3.

Xinpleki, **umilki** bizitzea, bertzeri idekia egonez, hortan da zoriona. Herria

Hori da **umilki** aitortu behar duguna. Herria

Behin batean, Frantziako dohasua Asis hiriko auzo bateko elizara joan eta hura **umilki** eskobatzan eta garbitzen hasi zen. Askoren artean

Hara non hiritar askok aspalditik deabruak hartutako emakume bat eramaten dioten eta **umilki** eskatzen libra zezala. Askoren artean

Umilki diotsut, ama, nik ez dut osaba Joanikot etsaitzat. Joan Mari Irigoien

Erreberentziatz txapela erantzi eta **umilki** gomendatzen dizuet galdetzeko Gibbon Kardinale Gorenari eta Potter Apezpiku Argiari. Xabier Olarra

Behartuak izan gira beraz Pariseko manueri **umilki** obeditzera. Herria

Haren oinei **umilki** muin emanez. Askoren artean

Frantziari **umilki** leial agertu zitzaion, Lehen Gerlan ez ordaindu zorra Bigarrean nahikoa pagatuz. Itxaro Borda

Umilki baina harrotasunez aldarrikatzen dugu. Berria - Euskal Herria

Erakutsiko dut gogotik, nahiz **umilki**, delako bake hori ez dela ez zuzena ez hain Errege handiari dagokiona. Piarres Xarriton

umiltasun 1 iz apaltasuna.

-Ohorearen estakuruz maite dituzunak oro suntsituak suertatzen ditun: **umiltasuna**, jendeen arteko harremanak, denak izenik ez duen gerla batean xitxirikatuak. **Itxaro Borda**

Horretarako pazientzia behar duk eta, batik bat, **umiltasuna**. **Juan Garzia**

«Harrokeria gutxiago eta **umiltasun** gehiago» aldarrikatu zituen LABeko idazkari nagusiak. **Berria - Ekonomia**

Umiltasuna, Tristura mota bat da, gizakiak bere ezintasuna kontenplazetik sortzen dena. **Piarres Xarriton**

Gehienek ez dute gaizki daudela onartzeko **umiltasunik** izaten. **Pako Aristi**

Aita Sainduak eta Errege Jaunak ikustearekin, haien bien aldera egundainotik erakutsi duen obedientziari, **umiltasunari** eta atxikimendu gartsuari jarraitzen zaiela, hartaz urrikalduko direla. **Piarres Xarriton**

Umiltasunik eza, alegia. **Berria - Kirola**

Euskaldunok ez dugu inoiz koloniarik ukan planetan zehar, **umiltasunean** bizi izan gara Pirinioen bi aldeetan. **Berria - Euskal Herria**

Arantxak astiro hitz egiten du, **umiltasunez**, geldiune luzeak eginez. **Joseba Sarrionandia**

Kargu honi **umiltasunez** uko egin behar diodala esan didan barne ahotsari kasu egingo diot. **Berria - Mundua**

Umiltasunez esku bat sorbaldan pausatu ziolarik, hizketa molde apal etsituz esan zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Badaezpadako **umiltasunik** gabe, harro nago emaitzaz. **Itziar Otegi**

2 (izenondoekin)

Beti pentsatu izan dut **umiltasun** jator eta sakon batek eragindako zerbait zela. **Juan Garzia**

Batasunak azaroaren 14an azalduko duen proposamena «**umiltasun** politikotik egina» dela esan zuen Barrenak. **Berria - Euskal Herria**

Nire egiaz mintzatze hau ez bedi har egile baten **umiltasun** aizunaren gisa. **Jon Muñoz**

Prozesuan «**umiltasun** osoz laguntzeko» prest agertu da buruzagi errepublikanoa. **Berria - Harian**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txaloak jaso zituen **umiltasun** keinu horrek. **Berria - Kultura**

Gizakia horrelako maitasun-ekaitzetan aurkitzen denean, ahantz bitza bere bekatuak, ez bedi **umiltasun**-ekintzez arduratu, ez eta beste gauzez ere. **Joan Mari Lekuona**

Harropuzkeriaz agintzen duenari **umiltasuna** falta ohi zaio. **Berria - Harian**

hitz multzoen maitasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

umiltasun osoz (3)

umiltasun *iz ipar* hezetasuna.

Umiltasun ixil batean murgildua dago oihana. **Piarres Aintziart**

Euri ainitz eta **umiltasun** haundia. **Menane Oxandabaratz**

Hautzarotik maite dut **umiltasuna**, eta nardatzen banau artetan, ibiliz ezeztatzen bezala dut. **Piarres Aintziart**

Lehen hortan partidarik ez, pareten **umiltasunez** eta partida bera berriz ortzeguneko. **Herria**

umitate *iz ipar* hezetasuna.

Umitatea edo hezetasuna kalte zuela eta miletan hobe zela artoa ereinik, honek laket baitzuen zangoak lur bustian ukaitea eta burua iguzkira, Akitanian bezala. **Angel**

Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Muntadura batzu herdoilak jaten ari, **umitateak** ere makurrak eginak, murru ezkina batzu lehertzen hasiak. **Herria**

Makur asko ez idurika, **umitatea** sartzen, ate batzu ezin zerra. **Herria**

umitu, umi(tu), umitzen da/du *ad ipar* hezetu.

Lau, bost milako bat behi dauzka, bere autotik erakutsi zauzkun denak, bazkaltzeko tenorea ere zen, bero baitzen, lanzurda gisa ura burugainean hodi batetik heldu zitzaionten, behiak freskatuz, luzerna **umitzen** zen eta beraz gehiago jaten. **Herria**

Hortan utzi behar ukan dute partida Sant Andresen, mendeal izerdi batek **umiturik** trinketa. **Herria**

Pilota lur hezean **umiturik** egon eta berriz idortzean ardura harrria bezain gogorra bilakatzen baitzen, orduan artzainak besagainka ari ziren. **Herria**

umlaut *iz germaniar* hizkuntzen prozesu diakronikoa zeinaren arabera bokal baten hotsa aldatzen baita hurrengo bolakaren nolakotasunaren arabera.

Sapir-ek ere egin zuen bereizkuntza hori [...] erakusten duenean izen germanikoetako bokal harmonia (**umlaut**) bilakabide fonetiko izatetik bilakabide gramatikal izatera aldatzen dela. Alemanez gertatzen den **umlaut**-a kanpoko eraginari esker gertatzen da, hain zuzen hurrengo silaban *i* bat agertzeari esker. **Lourdes Oñederra**

Ondoren datorrenak aldarazten duenean lehenago ahoskatzen dena, **umlaut** alemanezko izena hartzen du. **Lourdes Oñederra**

Geroago -i horrek **umlaut** bat sortu zuen, hau da, aurreko silabako a-ren ordeez *e* bat agertarazi zuen. **Isabel Arrigain**

Gero, aldaketa fonetiko bat, **umlautarena**, zela medio, [...]. **Isabel Arrigain**

umm ik **um**.

ummm ik **um**.

umo 1 *izond* sasoiara heldua, sasoiak ondua. ik *lirin*.

So egiten nion begi batekin Mignoni eta Mignonek eskaintzen eta oferendatzen zidan fruitu **umo** hari. **Joan Mari Irigoien**

Eguzkia ezkutatzen ari zen sagastietan, eta Joanesi sagar bat iruditzi zitzaion eguzkia, sagar handi, gorri eta **umoa**. **Felipe Juaristi**

Atseginenez lehertutako piko **umo** berriaren irudia, azalez larrukara horista lehun guri eta barrenez dena odol gorri gozo eta hazi zuri heze nahaste, aproposa baita erotikaren errorik sakonenak adierazteko. **Patziku Perurena**

Zaharrak eta gazteak, umeak eta **umoak**. **Joan Mari Irigoien**

2 irud/hed

Egeak zitzada moduko bat sentitu zuen bere barnean, bero eta gozoa, alai eta **umoa**. **Felipe Juaristi**

Hurra jakituria mamitua da, barruan sendotua, gordean ondua, jakituria **umo** trinkotua, baina aldi berean, oskol tiki gogor baten barruan gordea. **Patziku Perurena**

Indiatik Europaraino, izpirituz ongarritutako materia **umoa** eta giza gogo ondua eta bete sinbolizatzen dizu bederatzia. **Patziku Perurena**

3 **sagar umo** sagar heldua, eskuarki umotegian heldua.

Aurpegiak -mardula eta gorrixka, sagar **umoaren** antzo- osasun gordina agertzen zuen. **Jose Morales**

Eguzkia ezkututzen ari zen sagastietan, eta Joanesi sagar bat iruditu zitzaion eguzkia, sagar handi, gorri eta **umoa**. **Felipe Juaristi**

umogabe *izond* umotu gabea.

Ez nintzela hartatik gizon adinetarat heldua, eta bertze edozein ume bezain heldugabe eta **umogabe** nintzela, hauskorra eta alditsua. **Joan Mari Irigoien**

umontzi (*orobat umeontzi eta ume ontzi*) iz umetokia.

Zelulen argazkiak eta marrazki eskematikoak tartekatuz, han agertu ziren txalburu buztanluzeak, barrabiletik zakilerainoko tutuak, obulutegiak eta **umontzia**, Falopioren tronpa eta guzti, nondik ibiltzen baitira txangoan obulu izeneko pilota txiki, bigun batzuk. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Senarrarekin oheratzen naizen bitartean, eta bere hazia nire **umontziaren** sakonean isurtzen duen bitartean, nahiz aldi berean hamar gizonekin ibili, ezingo du sekula frogatu jaioko den haurra ez dela berea. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Natura hain zekena balitz, **umontzian** baino ez luke lerratzen utziko isurkin hain preziatu hori. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

umore¹ (*orobat omore g.er*) 1 iz gogoaren egoera, pozik eta amultsu edota beltzuri eta zakar agertzera bultzatzen duena. ik **aldarte**.

Poltsa bat besotik zintzilik, aurpegia haserre edo **umore** oneko, senarraren **umorea** nola. **Josu Zabaleta**

Umoreak onera egin zion, ordea. **Ramon Saizarbitoria**

Hilari berria erosteko ahalegina egitea erabaki nuen, on bioi egingo baitzigu: hari **umorea** hobetzeko, eta niri kontzientzia gaiztoaren zama arintzeko. **Ramon Saizarbitoria**

Horrek **umorea** goxatu zion. **Anton Garikano**

Oso gogoan zuen nola tumore bat aurkitu zioten buruan, nola bi bider ere egin zioten ebakuntza, nola **umorea** erabat garraztu zitzaion. **Imanol Zurutuza**

Bazirudien txotxongilo batek, "ordezko ume" batek zuela "haren lekua hartu"; Gregen ahots eta portaera, **umore** eta gogamena izango zituen; ez, ordea, haren "arima" edo "izatea" edo "sakontasuna". **Xabier Olarra**

Animalien **umore** eta sentipenez oharitzeko gaitasuna hain du handia, non ia gaina hartzen dion batzuetan. **Xabier Olarra**

Lisak patxadatsu zaintzen zuen andrea, **umorean** gorabeherarik izan gabe. **Karlos Zabala**

Iritziak iritzi eta **umoreak umore**, zinez azpimarratzekoa zera da, erreakzio kritikoak kasu honetan "askatzen duen elea"; zein arlo ideologikotan kokatzen den ele hori. **Bernardo Atxaga**

Umorez harrapatzen baduk, hark kontatuko ditik horiek denak. **Hasier Etxeberria**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ahal zen neurrian **umore** ona gordetzea hobe zela iruditzen zitzaigun. **Josu Zabaleta**

Axolagabe edo **umore** onez nengoanean spot horiek jasan eta onar nitzakeen; izpiritua irakiten hasten zitzaidanean ordea ezin. **Itxaro Borda**

Umore onez dago beti eta harrigarritzko adorea du gizonak. **Josu Zabaleta**

Hain goiz izateko **umore** on samarrez jaiki zen. **Migel Angel Mintegi**

"**Umore** oneko ikusten zaitut" esatea atera zitzaidan. **Ramon Saizarbitoria**

Batzuetan oso txantxazalea zenez, pentsatu zuten oraingoan ere **umore** onean zegoela. **Julen Gabiria**

Beti irriz, **umore** onean, eta trenpua agertu, ahulezia ttipiena ere erakutsi gabe, etsaia sobera kontent litaik. **Filipe Bidart**

Umore on-onean zegoen, mutil koxkor bat bezain alai. **Ander Irizar**

Alai zegoen, **umore** ederrean. **Matías Múgica**

Umore bikainean jaitsi zen tranbiatik eta etxe alderantz jo zuen. **Mirentxu Larrañaga**

Franko **umore** politean pasa genuen arratsaldea. **Patziku Perurena**

Rekexo kalera atera zen berriro, Unibertsitateko campus hura atzean utzita, nahiko **umore** txarrez. **Joxemari Iturralde**

Mathiasek min egin zidalako, biziki **umore** txarrean nintzela, hori segurki. **Daniel Landart**

Batzuek ez dute, kasu, "Vascongadas" sekula esaten, edo **umore** amorratuz bakarrik esaten dute. **Bernardo Atxaga**

Etxeoandrea emakume apatatsu, ero bat zen, **umore** guztiz zitalekoa. **Josu Zabaleta**

Umore petraleko morroi hori. **Jon Arretxe**

Bietatik edozeinen **umore** aldakorren gorabeheren kariak. **Joxemari Iturralde**

Batean zinkurina, gero senargaiarekin kalapitan, handik istanteko berriz baketuak, berriz samur eta orain gaitzeko **umorearekin**. **Eneko Bidegain**

Txorakerietarako **umorea** ez zitzaigun guztiz joan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baina gure nagusiak askotan **umore** bolada txarrak izaten ditu. **Matías Múgica**

Lilyren **umore** aldaketari ongi igarritz -jator hasi zen berarekin jokaten- Tansley jauna berekoikeriatik libre sentitu zen. **Anton Garikano**

Orduan ez ginen lege baten menpe bizitzen, **umore** aldi baten menpe baizik. **Matías Múgica**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Zergatik zegoen gizon **umore** -txar batekin eta nirekin hemen kuzkurtuta. **Koro Navarro**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gosaltzen ez zuen artean, zakur- **umorea** izaten zuen. **Fernando Rey**

6 pertsonen eta gauzen alde barregarria edo irrigarria aurkitzeko edo gogo gaiztorik gabe nabarmentzeko tasuna.

-**Umorea** da, Towsend jauna, Jaunak eman zigun babes eta arma bakarra. **Karlos Linazasoro**

Umoreak, izan ere, bizitzari buruzko beste ikuspuntu bat dakar. **Joan Mari Irigoien**

Umorea ez galdu, behintzat. **Jokin Urain**

Eskerrak ez naizen horren marmartia, bestela garraztu egingo bainintzateke erabat, eta **umorea** galduko nuke. **Josu Zabaleta**

Baita **umore** apur batekin ere, distantziak eta hoztasunak ezartzen duten ikuspuntuaren ondorio gisa. **Joan Mari Irigoien**

Victoriak **umorea** zuen, gainera, gai batez serioegi ari ginela iruditzen zitzaionean ateraldi batekin giroa aldatzeko. **Ramon Saizarbitoria**

Hitzaldian bere ukitu pertsonala duen **umorea** erabiliz, Hawkingek zientzia fikzio zaleei mezua bidali zien: [...]. **Berria - Gaiak**

Umorea dago, baina musikak eta istorioak garrantzi handia dute. **Berria - Kultura**

Bi arrazoirengatik sartzen dut **umorea** nire filmetan. **Berria - Kultura**

Doilorkeria eta **umorea** gauza bera bailiran. **Jon Alonso**

Ohartzekoak obraren **umorea**: ez du txisterik sartzeko edo algara albertzen, baina ironia mehe bat sumatzen da orri orri, hasieratik bertatik. **Unai Elorriaga**

Ez zuen **umoreko** poesiarik irakurtzen. **Javi Cillero**

7 (izenondo eta izenlagunekin)

Umore ingelesaren aitzo zorrotza dantzatuz. **Xabier Montoia**

Pausatu zitzaidan arnasa eta hartu nuen beta idaztearen miseriak, maitasunaren gazi-gozoak eta gizakiaren argilunak **umore** handiz baina gordintasunez begiratzeko dituen ipuin hori bigarren aldiz irakurtzeko. **Joxean Agirre**

Maitagarrien bizitzari buruzko pasarteak, bereziki, **umore** eta zehaztasun handiz idatziak dira. **Julen Gabiria**

Behatzaile zorrotza zen, eta **umore** finez hornitua. **Bernardo Atxaga**

Belgikarren xangrina bada, noski, bada, ordea, **umore** sotil zorrotz bat ere, eta bada samurtasuna, eta zuhurtzia, eta lotsa, hala moduko nostalgia bat ere. **Pablo Sastre**

Erdara jantzia eta **umore** sanoa zeriola. **Pello Zabala**

Ongi ezaguna dugu Lukutarren **umore** bizia eta hitz jokoetan erakusten duten trebezia. **Herria**

Gaztetako **umore** bizia ospindu zitzaion pixkaka. **Karlos Zabala**

Ez ote dituen falta izango garai zaharragoei zegozkien gizatasuna, adeitasuna eta **umore** onbera. **Irene Aldasoro**

Titulu ganberro askoak, **umore** faxistatza har daitezkeenak. **Iñigo Aranbarri**

Ez nuen beren gustu txarreko **umore** matxista aintzat hartu. **Jon Alonso**

Umore aparteko gizaseme jatorra. **Pello Zabala**

Okupazio tropen desfile eta erretreta arranditsuak gogoratzen ditu, donostiarren ezaugarriko **umore** eta burlaizeaz. **Askoren artean**

Gutunak bazuen barkamenezko *quantum satis* beharrezkoa, baita igorlearen eta hartzailearen arteko harreman onek onartzen duten **umore** diskretuzko zertzelada arina ere. **Jon Alonso**

Arestian esan dut aitak ere bere **umore** berezia zuela. **Joan Mari Irigoien**

Aspertuta baitago, bere ironia abiarazten du beste guztien bizkar barre egite aldera, **umore** zakar eta ingeles baldar batez abiarazi ere, bere jardunean gustu txarreko iruzkinak eta hitz zantarrak tartekatuz. **Anjel Lertxundi**

Nafar abertzale erdaldunenak, berriz, ez du behin ere "País Vasco-navarro" esango, ezta **umore** mikatzenarekin ere. **Bernardo Atxaga**

Lan osoan zehar **umore** gordina agertzen du eta parodia soziala egiteko trebetasuna erakusten. **Monika Etxebarria**

Bere pesimismoari **umore** beltza baino areago, ironia iluna eranstean zion gero. **Harkaitz Cano**

Kontu guztia **umore** beltzeko kakazte horietako batekin amaitu zen. **Oskar Arana**

Gertatzear zegoena jakin bagenu, ez genukeen **umore** beltzik erabiliko. **Mikel Hernandez Abaitua**

Familia osoarentzako eta sentiberatasun guztientzako **umore** txuria zen harena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hasierako kontakizunetako galestar paisaje ia mitikoen orde, errealeko **umorez** ikusi eta deskribaturiko eszenak ageri dira. **Koro Navarro**

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

la txantxetan hartzen dutela pentsa liteke; horren isla telebistako **umore** saio bateko sketchak: [...]. Hilabete hasieran idekia, "Lana" eta "Joanden urteko gertakariak" gaiekin lan egin dute **umore** -marrazkilarik. **Jon Arretxe**

Gero, badaezpada, **umore** -senari heldu zion jarraitzeko. -Nire **umore** -sena ezin eskasagoa da, maitea. **Migel Angel Mintegi**

Bere **umore** zentzu handia erakustearren edo, barrezka gehitu zuen: [...]. **Joxemari Iturralde**

Beste **umore** mota bat, beste bihurrikeria puntu bat ere askatzen dugula. **Patxi Zubizarreta**

Bere bizitza trajedia txiki bat delako hautatu nuen neska hori nire pertsonaia egiteko, baina bere **umore** ukituak ere baditu istorioak. **Koro Navarro**

Petanen bertuterik handiena hitz oso gutxiarekin **umore** efektu handiena lortzeko gaitasuna da. **Berria - Kultura**

Gaia oso serioa izan arren, **umore** klabeetan idatzi zuelako. **Berria - Kultura**

Informazio horren zati bat **umore** tonuan edo klabe pertsonal nahiz poetikoan hausnartzeko aukera txiki bat eskaintzen du bertsolaritzak.-Ongi, ba -esan zuen Maizak, etsipenez baina **umore** puntu batekin-. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Umore puntuak sartuz, irratiki behar duen xalxa errazen hortxe tartekatzen baikenuen. **Pello Zabala**

Irri egin nuen, **umore** -kolpe bati amore emana ziolakoan. **Aingeru Epaltza**

Bazeuzkan mutilak **umore** txinparta batzuko tarteka. **Koldo Izagirre**

Beste batzuetan **umore** kutsua jartzen dio hilketari. **Pako Aristi**

Udalbatzako eskuindarrei lelo hura entzuteak ez ziela graziaz egiten esan zidan, eta nazionalistek ez zutela **umore** izpirik. **Ramon Saizarbitoria**

Yllana eta Imprebis taldeek Monthy Python Ingalaterrako **umore** talde mitikoaren esketx onenak antzeztuko dituzte. **Berria - Kultura**

Liburu hau gaur egungo gizarteko **umore** nobela baitugu. **Berria - Kultura**

Euskal Herriko 16 konpainia ariko dira Leioako **Umore** Azokan. **Berria - Kultura**

Yllana taldea eta Leandre pailazoa izango dira Araiako **Umore** Antzerki Jaialdiko aurtengo izarrak. **Berria - Kultura**

9 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Umore -marrazki erakustaldia hurbiltzen ari da, otsailaren 18an baita estreinatuko. **Herria**

10 umoreko egon umore oneko egon.

-A, jaun frantsesa **umoreko dago** eta adarra jo nahi dit. **Koldo Izagirre**

Umoreko zeuden kazetariak, gehienetan bezala. **Berria - Kirola**

Eta filologoa **umoreko dago**, eta teologoei lagundu beharrez, esaten die: ondo dago gezur politik asmatzea (zientifikoki asmatzea), baina behin asmatzen hasi ezker, zergatik ez asmatu politagoak? **Iñaki Segurola**

Azkenean ez nuen egin, ez **bainengoen umoreko** eta, batez ere, argi gera zedin oharra jaso besterik ez nuela egin nahi. **Ramon Saizarbitoria**

Amaliak gau txarra pasa du eta... ez **dago umoreko**, ikusi duzu. **Jon Muñoz**

- Erabat lasai, ia **umoreko** sentitzen nintzen, sekretu baten jabe den haurraren pare. **Joxean Agirre**

11 umorezko izlag

Fusibleak aldatu nituen eta irratiko **umorezko** programak entzun nituen. **Jesus Mari Mendizabal**

Umorezko antzerki jardunaldiak iraganen dira Pasaian, urriaren 18tik 27ra. **Herria**

Poemak, oroitzapenak eta **umorezko** istorioak bildu ditu liburuan. **Berria - Kultura**

Askoz jario eta estilo hobeak du bere hitzaldietan, entzuleekin begi-kontaktua hobeak, eta **umorezko** desbiderapen eta inprobisazioak ere gehi ditzake tarteka. **Xabier Olarra**

Polita zen isiltasun administrazioaren erreferentzia hura: **umorezko** ukitu bat, bestela melodramaren ukitu larregizkoa zeukan partituran. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hurrengo lana **umorezko** eta oso errealitate egitea bururatu zait. **Jon Arretxe**

XVIII. mendearen bukaeran eta XIX.aren hasieran, gudaroste atzeritarrek behin eta berriz okupatu baitzuten gure hiria, donostiarrek ikusi behar izan zituzten gudarosteen parada, erretreta, martxa eta desfileen erreplika **umorezko** da, karikatuzkoa baino areago. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere betiko umore (3); **bere umore** (18); **beti umore onez** (3); **goizuetako umore ona** (6); **goizuetako umore onak** (3); **hain umore onez** (3); **halako umore** (4); **haren umore** (3); **leioako umore azokan** (5); **nire umore** (4); **oso umore onean** (3); **oso umore txarrez** (3)

umore aldaketa (3); **umore aldaketak** (5); **umore antzerki** (3); **umore apur** (3); **umore azoka** (4); **umore azokak** (4); **umore azokan** (7); **umore beltz** (6); **umore beltza** (14); **umore beltzeko** (4); **umore eder** (3); **umore ederrean** (5); **umore fina** (3); **umore gaitzean** (3); **umore handia** (3); **umore handiko** (5); **umore handiz** (5); **umore ingeleza** (3); **umore kutsu** (3); **umore marrazki** (9); **umore marrazki erakusketak** (3); **umore mota** (3); **umore on** (8); **umore ona** (41); **umore onak** (7); **umore onaren** (3); **umore onaz** (4); **umore onean** (32); **umore onean zegoen** (3); **umore onean zen** (3); **umore oneko** (27); **umore onekoa** (5); **umore onez** (46); **umore onez hartu** (4);

umore pixka bat (3); **umore puntu** (3); **umore tanta** (3); **umore txar** (4); **umore txarra** (13); **umore txarrean** (3); **umore txarreko** (5); **umore txarreko** (7); **umore txarrez** (33); **umore txarrez nagoenean** (3); **umore txarrrik** (3); **umore txarrik** (4); **umore ukitua** (3); **umore zentzu** (3)

bere umorea (6); **emango dit umorea** (4); **ironia eta umorea** (3); **nolako umorea** (3); **umorea behar** (5); **umorea du** (3); **umorea erabiliz** (4); **umorea eta ironia** (9); **umorea galdu** (3)

umorearekin hartu (3)

umorearen arabera (4); **umorearen bidez** (6); **umorearen erabilera** (4)

umoreko dago (3)

umorerik gabe (4); **umorerik gabeko** (3); **umorerik galdu** (3)

umorez betea (3); **umorez beteak** (4); **umorez beteriko** (3); **umorez eta** (13); **umorez hartu** (8); **umorez hartzen** (7)

umorezko antzerki (3); **umorezko film bat** (4)

umore² ik **humore**.

umoregabe *izond* umorerik ez duena.

Beraz, umorea da zure besoak, edo umoreak dira zure besoak; edo besodun zinenean **umoregabea** zinen, edo zer arraio esan nahi didazu, Smart? **Karlos Linazasoro**

Harritu egin ninduen adjektibo xarmagarri bezain bitxi hark: autistak **umoregabe** eta irudimengabetzat eduki ohi ditugunez, zoragarria zen Templek "beltzuria" hartarako erabiltzea, hitzetik hortzera Bell deitura baliatuz. **Xabier Olarra**

umoregile *iz* umorezko lanak egiten dituen pertsona.

Karl Bertrand **umoregile** britainiarrak. **Anjel Lertxundi**

Egunkari abertzale batean egunero banda marraztu bat argitaratzen zuen **umoregile** grafiko batek honetantxe, iparraldearen kokapenean oinarritu izan zuen behin baino gehiagotan bere lana. **Iñigo Aranbarri**

umorekide *izond* umore berekoa.

Gure Jose Ignaziok **umorekide** bere parekoa topatu zuen Herri Irratian: Mariano Ferrer lagunak ederki toreatzen zuen. **Pello Zabala**

umoretsu (*orobat umoretsu g.er*) **1 izond** (pertsonak) umore onekoa, umore betea.

Aita nuen nik **umoretsua**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Lehenengo aipamenean Ernest Hemingway **umoretsuago** bat igartzen dugu bigarrenean baino. **Edorta Jimenez**

Ez errebelde itsu eta fanatikoa, baizik eta lasaia, **umoretsua**, argia, bere joera eskandalagarria ondo baino hobeto defendatzen zekiena bere bibliotekari erudizioaz.

Bernardo Atxaga

Gusturago egoten nintzen jende **umoretsuz** betetako taberna batean. **Pello Lizarralde**

Ero fama duen arren, gustuko du Gianfranco, hain da guapoa eta **umoretsua** ... **Patxi Iturritegi**

2 (bestelakoak)

Gogoan ditut hark asmatutako zenbait kantu **umoretsu**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Fabulak ere kontatuko zizkion, edo ametsak, edo, besterik gabe, elkarrizketa **umoretsu**, gordin eta lizunak. **Patxi Zubizarreta**

Pentsamendu **umoretsu** baterako lizentzia eskaini zion segidan Brown jaunak bere buruari. **Karlos Linazasoro**

Arrazoibide paregabea, ateraldi **umoretsua**, sakontasuna... Aldarte ona beharko du bai liburu honen irakurleak, aldarte **umoretsua**, eta distantzia. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Bufoikeria **umoretsua**. **Askoren artean**

Gaskoi estiloa, txinpartatsua, jostagarria, bizizalea, ekintzailea eta **umoretsua**. **Askoren artean**

3 (adizlagun gisa)

Morfinaren eraginpean lasai, **umoretsu** dago, barrea eragiten die ingurukoei bere ateraldi xeleebrekin. **Imanol Zurutuza**

Umoretsu zihozazela ikusi zuen, eta harrotasunezko poza sentitu zuen, gizaseme bi haiek senar-semeak balitu moduan. **Josu Landa**

Erantzuteko astirik eman gabe, **umoretsu** aitortu zidan gure solasa entzuteko adi-adi egon zela. Ni ere beti bezain **umoretsu** agurtu nau. **Ramon Saizarbitoria**

Booz, jan eta edan ondoren, **umoretsu** jarri zen. **Jose Antonio Mujika**

-Nik ere ez! -erantzun zion Dominiquek, **umoretsu** -. **Elena Touyarou**

Umoretsu ari ziren biak, eta bazirudien ezen olgaterat eta ongi pasaterat gindoazela. **Joan Mari Irigoien**

umoretxartu, umoretxar(tu), umoretxartzen (*orobat umore txartu*) da/du *ad* umore txarreko jarri.

Umoretxartu egin nintzen. **Josu Zabaleta**

Erresumindurik, **umore txarturik**, zer suma ibili zen aldi batez, nire joan-etorriak bijilatuz edo paperen artean miatuz. **Joxean Agirre**

umorezale *izond/iz* umorearen zalea dena.

Umorezale guziei ongi etorri! **Herria**

Marratzen laket duten **umorezale** guziak gonbit dira parte hartzera beren marrazkiak ekarriz. **Herria**

umorismo *iz* gauzak umorezko aldetik hartzeko joera.

Hura da umorea, baina ez batek duena -gauza serioei barre eta barregarri-ustekoei muzin egiten diena-, baizik-eta **"umorismo"** bihurtutakoa, bufoien eta txistelarien jarduna, erregimen orotan horren garrantzizkoa dena. **Iñaki Segurola**

Benetako gauzak olgetan bakarrik esanak izan daitezten lortzen du **umorismoak**, eta olgetakoak benetan hartuak izatea galarazten). **Iñaki Segurola**

Orduan ez dago gauzak benetan hartuak izateko eta inori gaitzik egiteko arriskurik, eta inori baino gutxiago, jakina, **umorismoaren** umorea inoiz ez bezala bultzatzen eta aholkatzen duen erregimen honi. **Iñaki Segurola**

umorista 1 iz umorezko aritzen den pertsona, eskuarki bizibidez.

Irratian **umoristen** saioak sintonizatzen zituen, lehiaketak. Joseba Urteaga

Hala gertatzen zaigu gero harriturik geratzea, esate baterako, Kunderak, testuetatik, Kafka **umorista** bikaina zela oroit-edo ikasarazten digunean. Juan Garzia

Euskal literaturak duen **umorista** bakarrenetakoa ni naiz. Berria - Kultura

Petan **umorista** sublimea da, hitz-urria, ez du ez aukera ez denbora galtzen salaketarako eta irrirako. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Hagitiz **umorista** izpiritu finekoa zara, jauna, ironia ezin hobeki menderatzen duzu. Jon Alonso

umoristiko iz umorismoarena, umorismoari dagokiona.

Saltokiaren izenak, ezbairik gabe, efektu **umoristikoa** lortzen laguntzen zuen. Iban Zaldua

Barrokismoa intelektuala da eta Bernard Shaw-ek dio eginkizun intelektual oro **umoristikoa** dela. Juan Garzia

umotasun iz umoa denaren nolakotasuna.

Eta, oro har, atergabeko landare-narotasun hura, malastasun-usain hura, **umotasun** ustelduzko kirats hura. Joxe Austin Arrieta

umotegi iz fruituek-eta umotzeko tokia.

Gero, lorezain armada bat heldu zen, maitagarrien gurditxoekin eta laiekin eta haziekin eta erraibolekin eta **umotegiekin**, eta handik denbora gutxira lorategi bat sortu zen galeriaren eskumatan. Julen Gabiria

umotu, umo(tu), umotzen 1 da/du ad fruituez eta kidekoez mintzatuz, heldu. ik ondu 3; zoritu.

Umotzen ari diren fruituak, pisua hartzen ari diren txitak, burutzen ari diren gariak. Josu Zabaleta

Laboreak eta fruituak garaiz eta **umoturik** eskuetara iritsiko bazitzaizkion. Koro Navarro

Han masusta gorri ugari zegoen lekuan, oraindik denak heldu gabe, baina batzuk **umotuta** egongo ziren, beltz-beltzak, pikor ugari eta gozoko. Joseba Sarrionandia

Gero eta nabariago egin zen **umotzen** ari ziren mahatsen kiratsa. Lopez de Arana

Hegoari gustatzen zaio udazkena gobernatzea eta bazterrak zimel uztea, uztari **umotzen** laguntzea. Pello Zabala

Izan ere, eta Zuhaitzaren fruitua oso gutxitan **umotzen** dela esan bada ere, bere baitan datzan bizitzak urteak eta urteak egin zitzaizkion lotan. Agustin Otsoa

Zuhaitz lerden bilakatzen da, adarrak hedatuz, hostoei forma eta berdetasuna emanez, fruituak **umotuz** eta eratuz eta, azkenik, atal guztiei antolaketa egokia eskainiz.

Imanol Unzurrunzaga

2 (era burutua izenondo gisa)

Eskua altxa eta arte-arbola lodietatik bildu; beren fruitu gozo **umotua** oparo eman nahian baitzeuden hauek. Patxi Ezkiaga

Saski luzexkoak eta otzara motzak errenkadan jarrita zeuden, oihalez edo lastoz estalirik; eta mirabella motako aran **umotuegi** batzuen usaina nagusi zen oroz gain.

Karlos Zabala

Amona udaren zain zegoen, eguzki lorearen ale beltz **umotuak** noiz agertuko. Juan Kruz Igerabide

3 irud/hed

Baina poliziak bazekien zertan nenbilen, eta fruta **umotzen** uzten ari zen. Konplota **umotuz** zihoan astiro-astiro. Juan Kruz Igerabide

Gertaerak ondu eta **umotu** egiten dira, eta orduan, horra iraultzak. Iñaki Iñurrieta

Zerbait **umotzen** ari zen, haatik, haren baitan. Juan Garzia

Idea geroko utzi beharra zegoen, buruan **umotzen**, harik eta sasoi egokia heltzen zen arte. Patxi Zubizarreta

Aleunka gizalditan **umotutako** sentiera, hitz batean fosildurik. Patziku Perurena

Jakituria eta gizatasuna ez baitira jatorreria batzuk asmatu eta taigabe haiek predikatuz **umotzen**, buruko argi guziak itzali arte nork bere ikerlan eszeptikoan segituz baizik.

Patziku Perurena

Sasiak urratu du gure ametsak **umotu** zituzten bide horien edertasuna. Pako Aristi

4 (irud/hed, era burutua izenondo gisa)

Adostasun **umotu** eta landua, gehiengo-gutxiengo jokoaren gainetik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kronologikoki ipuin-familia bateko lehena denaren partez [...] jite bereko alerik **umotuenei** uztea lekua. Juan Garzia

Jendearekiko hartu-eman onean biziko haiz eta azken aldiko pausuetan zahartzaro onean eta **umotuan** helduko zaik heriotza. Patxi Ezkiaga

Adinik interesanteenean omen dago Aurora, emakumeak, bizi esperientziaren jabe, edertasun **umotuenera** iristen diren puntu horretan. Iñaki Iñurrieta

Asaba haien aholku **umotuak** hartu ditut bidelagun. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fruitu umotu (3)

umotugabe (corpusean umotu gabe soilik) izond umoturik ez dagoena.

Begiratu bestela Chinatowngo denda txikietakoko apalategiei: fruitu **umotu gabeez** beteta daude. Javi Cillero

umotze iz fruituez eta kidekoez mintzatuz, heldutasunera iristea.

Horrela, hurrizak, biziaren zikloaren hasieran, harako poetaren "... mas polvo enamorado" hura gogorazten zuen bezalaxe, zikloaren akaberan, biziaren **umotze** biribilean, giza izpirituz onduriko materia, jakituria eta poesia eternoa sinbolizatuko zuen. Patziku Perurena

unadura 1 iz nekea, unatzea. ik akidura.

Haserrea eta **unadura** elkarren kontra dabilta bere baitan. Aingeru Epaltza

Azkenean **unadurak** bereganatu nau. Piarres Aintziart

Unaduraren bortxaz, deusek ez zidan loa arintzen, deusek ez ernatzen, iratzargailuak bere lan zakarra egin artean. Aingeru Epaltza

Hala ere, berehala lokartu nintzen, azken asteko **unadura** guztia batera etorrira. Aingeru Epaltza

Maitasunaren ondorengo **unadura**. Felipe Juaristi

Bere gelatxoko ohe meharrean hamaika jira eta biratan ostean egunaren tentsio eta **unaduraren** poderioz loak azkenik bere menean hartzea lortzen zuenean. **Xabier**

Mendiguren Elizegi

Unadura gehiago senti, ez lehen bezain laster berritzen indarrak. **Herria**

Unaduraren unaduraz, poxi bat lasaitu zara. **Xabier Montoia**

-Ez zakinat lotsa den... -eta artegatasun **unadurazko** bat saiatu nuen Ada irabazteko. **Anjel Lertxundi**

2 (izenondoekin)

Ramsay andrea ez zen sentitu gorputzez bakarrik nekaturia [...] zeren bere **unadura** fisikoa beste jatorriko sentsazio desatsegin samarren batek ere likisten baitzuen. **Anton Garikano**

Une batetik bestera aldatzen zen nostalgikaren eta **unadura** psikikoaren arteko oszilazioa. **Joxan Elozegi**

Halakorik suposatze hutsa -desegintzarre, mesfidantza eta **unadura** hilgarritzko hondo-irudi haren gainean- errealitatetik kanpo zegoen guztiz. **Juan Garzia**

unaezin *izond* ezin unatuzkoa. ik **nekaezin**.

Horra hor lanean oihanlurreko ehorzle nonahiko, **unaezin** eta ikusezinak, humuseko mikroorganismoak. **Juan Garzia**

unagarri *izond* unatzen duena. ik **nekarri**.

unai 1 *iz* behizaina.

Pasaia inguruko mendietan **unai** edo behizainek txapela daramate buruan eta jaka gorriak soinean. **Koldo Izagirre**

Holakorik ez egiteko oihuka hasi zitzaizkion **unaia** eta artzainak, artaldearekin zetozenak. **Patxi Ezkiaga**

Urdezain eta **unaiek** landa-mugetan begitatzten zituzten. **Juan Garzia**

Titia kendu berri dioten txekor bat sokaz harrapatzen ari den Mendebaldeko **unai** batek. **Jon Alonso**

Bi dama zituen poema zirtzil horrek protagonista, elkarren jelos zaldizko **unai** baten amodioa ezin irabazirik. **Aingeru Epaltza**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tom gaur **unai** zamarra batekin jantzirik agertu da. **Patxi Zubizarreta**

Gaszteago emango luke baldin eta larruzko **unai** sonbreiru handi batekin ikusi ez banu. **Patxi Zubizarreta**

Luze samarra bai **unai**-olerkietan baina onetik ez da behin ere asko izan ohi. **Patxi Ezkiaga**

unaldi *iz* nekealdia.

Unaldietan, bere gogortasun sideral, etsai, arrotzean hautematen nuen inguratzen ninduen haizaldea, Alpe-mendipeen berde sigi-sagatsua. **Juan Garzia**

unama *iz* itsasontzietan-eta erabiltzen den soka sendoa.

Dena itsasoari buruzko liburuz eta itsas trepetez beteta: mapak, grabatuak, sestanteak, urpekariaren kaskoak, **unamak** eta era guztietako sokak, [...]. **Anjel Lertxundi**

Gau oso bat gainaldean igarotzea, **unama** guztietan haizea ziztuka eta zartaka dabilela, eta salbamendu-txalupen gaineko olanak dranbalaka. **Joxe Austin Arrieta**

Soka mutur batez arkabuz lepoan eskegi nuen, katuarena eginez ontziaren ainguraren **unaman** gora egiteko. **Edorta Jimenez**

Barkuaren **unama** loditzarrak askatu zituztenean. **Joxe Austin Arrieta**

unamuniano *izond* unamunotarra.

Eta zuk pauso batzuk aurrera eginen dituzu, eta berari begira geldituko zara berriro, hara hor Andoni bere jertse **unamuniano** horrekin. **Joseba Sarrionandia**

unamunotar ik **unamunotar**.

unamunotar (*orobat unamunotar*) *izond* M. de Unamunorena, Unamunori dagokiona.

Intrahistoriari gagozkiola (kontzeptu **unamunotar** joan-etorritsuagoa dirudienak iruzkingileentzat Unamuno-rentzat berarentzat baino), [...]. **Joxe Azurmendi**

Bere sakrifizioa ez zetorren Jainkoaren edo patuaren erabakiari makurturik sentitzen zelako; indibidualismo **unamunotarraren** fruitua zen areago. **Joseba Zulaika**

Kontzeptu bat, ez politiko, bai politika ororen ukaziozko, sasimistiko, absolutuki **unamunotarra**, tragedia sakro baterako bakarrik zentzuzkoa. **Joxe Azurmendi**

Espainia da arima bat agonian dagoena ("agon" edo borroka **unamunotarrean**), kristautasuna bezalaxe. **Joxe Azurmendi**

unamunozale *izond/iz* M. de Unamunoren zalea dena.

Azkueren jarraitzaile, miresle, lan biltzaile, oroimen gordetzaile eta biografia egile, Arana Martija **Unamunozalea** ere badela azaldu zuen Knörrek. **Berria - Kultura**

Beste eragile handizat jo izan ohi da beti beste **unamunozale** amorratu hura, Oteiza. **Joseba Zulaika**

unanimitate *iz* guztien adostasuna, ahobatezkotasuna.

Puntu horretan **unanimitatea** osoa da Rouco kardinala eta Eliz Hierarkia toledotarrenetik progresia espainol laizisteneraino. **Joxe Azurmendi**

Herder, horiek dioten legez, poeta tradizionalak herriarekin duen komunio eta **unanimitatearen** "erromantikoa" da (bere maisu Rousseau bezalaxe, hain zuzen!). **Joxe Azurmendi**

Agian ez da on ere idazle batek **unanimitatea** egitea bere herrian berean! **Berria - Kultura**

unasotar *izlag/iz* Unasokoa, Unasori dagokiona; Unasoko biztanlea.

Igandean iragan dira Amenduze-Unason bozak, beren kargua utzia zuten **unasotarra** eta 4 amenduztarrak ordaintzeko. **Herria**

unatu, una, unatzen 1 da/du *ad* nekatu.

Jendeak, guztiaz **unatzen** baitira, berehala **unatu** ziren probetxurik gabeko satira batez. Jon Muñoz

Unaturik nengoen; jaitsi, eta abeltzainengana hurbildu naiz. Juan Garzia

Unatua nintzen eta halako plazer bat hartzen nuen ekarri ninduten kotxe bikainaz eta kotxero prestuaz oroitzean. Koldo Izagirre

Unatua baitzen ohatzean etzan eta lo kiska baten egiteko gutizia zuen. Elena Touyarou

Eta futxo, **unatua** izanikan ere, ez diet berehala ene sei kilometroei uko egin! Piarres Aintziart

Horren arrazoin teknikoak da anitzetan urtetik urtera leku berdinean landatzen dela biperra, eta denboraren bortxaz, lurra **unatzen** da, kutsadurak hartzen ditu. Herria

Basamortua igarotzeak bezala **unatzen**, akitzen, deusezten dituenak. Josu Zabaleta

Pauso bakoitzak, mugimendu bakoitzak, keinu bakoitzak, hitz bakoitzak, pentsamendu bakoitzak karga lehergarri bat jasotzen ari banintz bezalaxe **unatzen** nau. Josu Zabaleta

Bada jende mota bat, espiritu mota bat nahiago baduzu, entusiasmoak **unatu** edo gaina hartzen diena. Koldo Izagirre

Miseriaren kontrako borrokak **unaturik** eta depresioak jota, birritan saiatu zen bere burua hiltzen. Jose Morales

Ama adintsua, penak zeharo **unaturik**, eskailerak igo bezain laster dibanaren gainera erori zen. Jose Morales

Egunek izari polliteko luzetasuna dute, adineko jendeek, sobera **unatu** gabe bururatzten dutena. Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Zaldizko **unatu** odoltsu bat zetorren sortaldetik. Juan Garzia

Neure hezur **unatuei** behea jotzera utzi nien ganbera itsuko ohatze eskasean. Erruki-izara batek estali zituen nire begi argi **unatuak**. Aingeru Epaltza

Neure irudi **unatua** itzuli zidan poliziaren betaurreko beltzen islak. Aingeru Epaltza

Hobbit etsi eta **unatu** baten ahotsa, orko batek Elfoen Jaunaren kantu gardenarekin ezin nahas zezakeena. Agustin Otsoa

30-35 urteko gizon gazte bat ondotik pasatzen zait, agur **unatu** bat igorritz. Piarres Aintziart

Tradituko zaituzten keinu **unatu** bana iratzarriko du laborategiko azidoak zuen bisaletan. Xabier Montoia

unbriera iz italikoaren taldeko hizkuntza, erromatarren garaian Unbrian mintzatzen zena.

Italian bere senide zituen oskoera eta **unbriera** dialekto italikoekin borrokatu behar izan zuen, eta mesapiera eta veneziera iliriar dialektoekin -garai batean kultura aldetik latinarekin pare izan-, eta zer esanik ez eturrierarekin, bere anatoliar sorlekuko kultur ondarea bere gain zuela. Iñaki Mendiguren

undar ik hondar²; hondar⁴.

undarkin ik hondarkin.

underground 1 izond izaera ez-konformista, alternatiboa eta kritikoa duena, eta ohiko merkataritza- eta hedabide-zirkuituetatik at dagoena.

Hau ez da jadanik *peplum* bat, Ruche jauna, film **underground** bat baizik. Jon Muñoz

Liburu **underground** salduenen zerrendan. Iban Zaldúa

Brooklyn Brewery garagardo enpresak babesturiko zirko **underground** batean lanean. Harkaitz Cano

Artista ezagunek lan **underground** anonimoak egin zituzten. Berria - Kultura

Gehienek janzkera **undergroundaren** baldintzak betetzen zituzten, gutxi batzuk oharkabean agertuko ziren. Unai Iturriaga

Arkeologoek umorea oso da **undergrounda**. Berria - Kultura

Hiruogeit ondoko hamarraldietako iparramerikar **underground**-eko zenbait lan. Josu Zabaleta

2 (izenlagun gisa)

Italiako **underground** zinemaren aita. Berria - Kultura

Rock borrokalariak, *oi!* militanteak eta *street punk*-aren **underground** jarrera eta kutsuak bat egiten dute Des-kontrolen lan berrian. Berria - Kultura

Berehala egin zen ezaguna Buenos Airesko **underground** eremuan, taldearen proposamen musikalki eta eszenikoaren berezitasuna zela medio. Berria - Kultura

undina iz uretako jainkosa.

Undinak bezain erakargarri dira, pozoia bezain hilgarri, harrigarri bitxi, asaldagarri, beldurgarri. Josu Zabaleta

une 1 iz denbora-bitartea, eskuarki aski laburra. ik mementu; lipar.

Minutu bat baino gehiago irauten duen segundo hori, inoiz ahazten ez den **unea**. Alberto Barandiaren

Nik **une** hauek aukeratzten ditut idazteko, inoiz ahazten ez diren **uneak** direlako. Pako Aristi

Suntsipen honen legeak eta **unea** guri ezezagun zaizkigu. ESAk historikotzat jo du **unea**. Xabier Amuriza

Orduan ikusi nuen [...] gizon hura ni desagerrarazteko gai zela; are gehiago, desagerrarazteko modua eta **unea** ere erabakirik zituela. Joxean Agirre

Lankideak hamaiketako hartzera irten ziren **unea** arte itxaron zuten. Iban Zaldúa

Une hura nire oroimenaren uretara iritsi zenik ere zalantza egiten dut. Bernardo Atxaga

Ez nekien **une** horren zain egon beharra neukan. Anjel Lertxundi

Honorio III.a **une** hartan Orvieton bizi zen. Askoren artean

Une haietan, 1209-1210 urteetan, arazo handiak zituen kanpoan eta barnean. Askoren artean

Teilatua gainetan begirada galdua zuela, **une** batzuk igaro ziren ikusten ari zenaz Harry ohartzeko. Iñaki Mendiguren

Une oro zerbaite gerta zitekeen, arriskuren bat, istripuren bat, eta handik ez zegoen kalterik gabe irteerik. Karlos Zabala

Unea ailegatuta, itsasoa eta lehorra zeharkatuz bilatu duzun aurpegi bati ere egiten ahal diozu ihes. Fernando Rey

Unea joan eta **unea** etorri, gero eta larriagoa iruditzen zitzaidan denboraren arazoa. Bernardo Atxaga

Bizitzako **unerik** txarrenak bizi dituela dio. Berria - Gaiak

Arratsean berriz, gau beilak lasaitzeko **uneak** izan dira, baina hor ere irri karkailak ziren nagusi. Herria

Bi etsai batera menderatu ezinik, batekin elkartu zen besteari aurre egiteko **unean**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hildakoaren beharra dugun **uneak** gogoratu behar ditugu heriotza sentitzeko. Josu Zabaleta

Aukera izan zuen **uneen** artean azkenekoan, Harryk gauzatu egin zuen keinu handia, bere inoizko erakustaldirik adierazteaz. **Oskar Arana**

Hori esateaz erraza zen, baina behar zen **unean** garbi adieraztea ez. **Jon Muñoz**

Ene eguneroko egitarauan nihaurk hautatzen nuen **uneetan**. **Filipe Bidart**

Lehen zegoenaz gainera berotu zen gela eta **unean** baino **unean** zailago gertatu zen Ségouinen eginkizuna. **Irene Aldasoro**

Eten da **unearen** magia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Uneaz gozatu. **Iban Zaldua**

2 (izenondoekin)

Besteek baino bizitza luzeagoa izango dudan arren, hau **une** laburra besterik ez duk. **Agustin Otsoa**

Une labur batez duda egin nuen, dardarka hasi nintzen. **Koro Navarro**

Okerrena, hartutako erabaki baten ondoren zalantza egitea, **une** labur-labur horixe baliatzen baitik arerioak hi baino gorago igo eta hi handik tirokatzeko. **Anjel Lertxundi**

Horrez gainera, **une** jakin batean Prévanen maitale ere izango da. **Jon Muñoz**

Ikusiko da kontatzen dudan honetan parez pare joan direla Mary Cecilia Rogers zoritxarrekoaren patua [...] eta, bere historiaren **une** jakin bat arte, Marie Rogêt harena.-

Badira **une** onak ere -gehituko zuen Tomek. **Koro Navarro**

Une atseginak iragan ditugu elkarrekin hondar hilabeteetan. **Aingeru Epaltza**

Une bizi-biziak, bakartuak, lehen eta gerorikgabeak. **Xabier Olarra**

Atertu egin du, haizea goxoa da, zeruan irudi beltz ederrak pasatzen dira, geldiro: **une** perfektua girotzeko behar dena baino gehiago da. **Monika Etxebarria**

Ohe-zerua ala ez, hura ez zen ohean goxo egoteko **une** egokia. **Jon Muñoz**

Oso **une** egokian erabaki zuen horrelako tentu-neurria hartzea. **Jose Morales**

Bat-batean, oso **une** berezietan gizakia bildu eta gogartearen gailurrik garaienetera altxatzen duen barne-argialdi harrigarri horietako batean, Vernerrek bizitza eta heriotza ikusi zituen. **Jose Morales**

Une alai eta lasaia zen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Halako garai beltzik berriz tokatzerik ez dut nahi, baina [...] **une** txar horiek etorkizunean lagungarri izan daitezten ahalegindu naiz. **Berria - Kirola**

Gogoan izaten nuen luzaroan maite izan ninduela, eta, **une** gaizto batean, ezkontzaz mintzatu nintzaion. **Koro Navarro**

Gutxitan bizi izan dut halako **une** nahasia. **Anjel Lertxundi**

Bizi ditugun **une** larriak gogoan harturik. **Elizen arteko biblia**

Une latz eta mingots haietan. **Jose Morales**

Ez pentsa **une** krudelik bizi ez dudunik. **Jon Muñoz**

Une deseroso hartan, Aluanek bibotea bihurritu zuen. **Patxi Zubizarreta**

Testuen sorkuntza-historian, hiru **une** garrantzitsu bereiz daitezke. **Askoren artean**

Kasualitate interesgarria da Santaremeko gertaerako bi protagonista nagusiak elkartu izana **une** historiko honetan. **Jon Alonso**

Une ikaragarri horretan, Kako-okar ez zen batere zurbildu. **Julen Gabiria**

Bihar arratsaldean izanen da **une** erabakigarri hori. **Jon Muñoz**

Une zoriontsua iragan arte. **Jon Muñoz**

Une misterioitsua duk: antzinako paganoek basoen erdian ospatzen zitean, debozioz besoak altxaturik, aurpegia sortalderantz bihurturik, itxoinaldi magikoan. **Xabier Olarra**

Kafetegi honen atzealdetik zerbait dator berriz, igande honetako **une** sakabanatuen gainera, elkarri itsatsi eta esanahia ematera. **Monika Etxebarria**

Une ezin baliosago haietarik batere denborarik ez galtzeko. **Jon Muñoz**

3 (izenlagunekin)

Zerua ere urdin ilun zegoen egunsentiko **une** hartan. **Bernardo Atxaga**

Heriotza batek argi bereziz argitzen ditu ezbeharraren aurreko eta ondoko **uneak**. **Joxean Agirre**

Aspalditiik mugimendu horretatik aparte sentitu garenok ere, estimatu dezakegu hasierako **une** iraultzaile hori. **Joseba Zulaika**

Errabinoak azkeneko **unean** mirariren bat edo gertatuko zela espero zuen. **Koro Navarro**

Despedidakoan, bazkaritarako **une** hartan. **Txillardegi**

Ustekabeko **une** hau zuretzat prestatu nahi izateagatik, damu dut beltzuriaren itxuraz zu oinazetu izana. **Jon Muñoz**

Zorioneko **unea** zen, ohiz kanpoko trukea: emanez hartzen nuen. **Joxan Elozegi**

Bozkariozko **une** hartan, urrun nintzen zain genuen asturugaitza alde zurretik ikustetik. **Jon Muñoz**

Beldur iragankor bat, etsipenezko **une** bat. **Jon Muñoz**

Sorrarazi zenuen asaldurazko **une** hura bazterreratzera edo iraungitzera ez nahiz batere entseiatu. **Jon Muñoz**

Eztarriko marranta arintzeko erabili nuen zalantzazko **une** labur-labur baten ondoren. **Jon Alonso**

Istant bat izan da murgildu aurrekoa, betikotasunezko **unea** ordea: [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Buru argitasunezko **une** bakan batzuetan, sutontziaren hurbilean, lagunaz inguratua, biziago berritzen bide zitzaion oroitzapen hura. **Patxi Zubizarreta**

Amodiozko edo askatasunezko edo gozamenazko edo errebelaziozko **une** berezi horiek errepikatzen nor ez da alferrik saiatu? **Joseba Zulaika**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ikusgarria bat-batekotasunean oinarritzen denean, ordea, **une**-gune horretako errepikaezintasunean, sortzaile eta entzulearen artean gertatzen denak garrantzi berezia hartzen du. Proustek, berriz, bizitza "**une**-bilduma"tzat zeukan, eta une horien oroitzapenek "ez dute geroztik gertatutako guztiaren berri" eta "hermetikoki zigitaturik" irauten dute gogamenaren hornitegian. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Esan nuen ez zela bizi unibertso batean, William Jamesek "multibertso" deitzen zion halako batean baizik, ezaugarri kontaezin, lotugabe baina oso bizien mundu halako batean, eta (Prousten hitzez emateko) "**une**-bilduma" balitz bezala esperimendatzen zuela mundua. **Xabier Olarra**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Itsasoan galduak salbazio-portura ekarri, erditze **une** larritan zeudenei aise haur egitea eman. Beraren ondoan nahi ninduen bereizte **unea** goxa niezaion; hantxe nintzen ni. **Askoren artean**

Aurre-irudikatu ere bai nik, neure artean, hogeita lau ordu barruko banantze-**unea**. **Joxe Austin Arrieta**

Hain egun luzeek ez dute zorion **une** bat bakarra ere. **Jon Muñoz**

Meriendako ordua atsedean-**unea** da mutiko potoloarentzat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Tentsio **uneak** eta barealdiak izan ditugu hemezortzi urteotan. **Edure Elizondo**

Baina berehala gaintu nuen ahuldade-**unea**. **Inazio Mujika Iraola**

Zalantza **une** batzuen ondotik. **Joxemari Iturralde**

Pertsona adinduen arteko sexuak izan ditzake bere ahalke-**uneak** eta motel-**une** barregarriak. **Oskar Arana**

Garaitiarik ederrena eragozteko ez da behar izaten beltzuri **une** bat edo susmo jeloskor bat baizik. **Jon Muñoz**

Zaharrak berri; ezin libertate **unerik**: bai aitzitik libertate **une** horri itzurtzeko arreta handia. **Jon Muñoz**

Kristau-mundua eta islam-mundua borroka gogorrean zebiltzan historia-**une** hartan. **Askoren artean**

6 (hitz elkartuetan lehen eta bigarren osagai gisa)

Iruditu zitzaidan, **une-unean** baina argi eta garbi, ez zigula aurpegira begiratzen. **Xabier Olarra**

Ematen zuen orainean baino ez zela bizi, inguruko estimulu **une-uneko** erantzun baino ez zuela egiten. **Xabier Olarra**

Jardueru-txinparta bakan, **une-une**ko batzuk izan zitezkeen, baina, hala zanda ere, ezin genituen jaso makiaketan. **Xabier Olarra**
Besteek ez zuten inolako esanahirik berarentzat, **une-une**ko nahiz hitzik gabeko premiaren bat betetzeko ez bazen. **Xabier Olarra**

7 (bat-en ezkerrean)

Duke handiak isilik eman zuen **une** bat. **Karlos Zabala**
-Barkatu, Macarena, utz gaitzazu bakarrik **une** batean. **Joxemari Urteaga**
Eseri eta, **une** batez pentsatzen egon ondoren, esan zuen: [...]. **Iñaki Mendiguren**
Tragedia haiek, **une** bateko tragedia haiek. **Monika Etxebarria**
Noizean behin **une** batez gelditzen zen, bide zokoren batean, baina zaldiak arnasa berriz indartzeko baino ez. **Karlos Zabala**
Une batez ere itxaron gabe. **Juan Kruz Igerabide**
Une batetik aurrera guztia bikoiztuta ikusten hasi zela, bi Cesar eta bi Veronica ohean eta larrutan. **Harkaitz Cano**
Haren haserrea **une** baterako, haren onginahia bizi guztirako. **Elizen arteko biblia**
Oraingo gure nekeek, **une** bateko eta arinak izanik, betiko den aintza paregabea prestatzen digute. **Elizen arteko biblia**

8 (bere-ren ezkerrean)

Jesusek, gupidaturik, begiak ukitu zizkien, eta **une berean** ikusmena etorri zitzaizen berriro. **Elizen arteko biblia**
Atzera ezkondu nahi zuela erabaki zuen **une beretik**. **Patxi Zubizarreta**
Une berean zaldun batzuk beren zaldietan, ohi zuten, plazan lasterka eta arma-jokoak egiten hasi ziren. **Askoren artean**
Bigarren kutxa zabaltzera nindoan **une berean**, pausoak entzun nituen. **Juan Kruz Igerabide**
Une honetatik **beretik**, etorkizunean zer egingo duen oraindik erabaki ez duenean. **Jon Alonso**
Une hartan **berean**, kale tarteetatik eta teiltuaren gainetik datozen txilio eta oihu bortxatu batzuek gailentzen dira. **Anjel Lertxundi**
Une beretsuan zopa ekarri duten boluntarioen kontuak heldu zaizkit belarrietaraino. **Urtzi Urrutikoetxea**

9 guinea.

Eta, tarteka, urdin **une** apalak. **Bernardo Atxaga**
Aska-**unea**: gazteluaren inguruko fosoa. **Patxi Ezkiaga**

10 *une batetik bestera*

Une batetik bestera, Aladinek hartutako bidea jendez leporaino bete zen. **Patxi Zubizarreta**
Une batetik bestera, urrun egondako gauzak hurbil sentitu nituen. **Bernardo Atxaga**
Pimek dioenez, **une batetik bestera** izango da inbasioa. **Josu Zabaleta**
Ekidin nuen gaitzeko mehatxuaren eta laster, **une batetik bestera**, berriz eroriko zitzaizkan balizko tormentaren artean. **Itxaro Borda**
Durrutiren mandatariren bat etortzeko zela **une batetik bestera**, hala gaztigatu ziotela bezperan telefonoz Donostiatik. **Inazio Mujika Iraola**
Galdara ez zen presiopean jarduteko egina, eta **une batetik bestera** leher zitekeen. **Juan Garzia**
Zahartu naiz eta **une batetik bestera** hil naiteke. **Elizen arteko biblia**
Zirkikin egin gabe begiratzen zion, eskua poltsikotik mugitu gabe, **une batetik bestera** pistola ateratzeko prest. **Juan Kruz Igerabide**
Bazirudien **une batetik bestera** hilarriak altxatu eta hilobietatik gorpuak azaltzen hasiko zirela. **Ramon Saizarbitoria**
Une batetik bestera garbituko zitzaizula zainetako odola, eta hasiko zirela gauzak enetako neurrian ikusten. **Hasier Etxeberria**
Ahotsa hauskorra zuen, **une batetik bestera** kordea berbertain gal zezakeen batena. **Anjel Lertxundi**

11 *unean-unean* noizean behin.

Egunkari paper zaharrak eskuetan hartuta, **unean-unean**, artean sortu gabeko egunkarien tituluak oihukatuz, oraina eta historia sortuz, behar duen bezala. **Harkaitz Cano**

11a unez une, une oro.

Unean-unean zirriparra gizentzen ari da. **Anjel Lertxundi**
Azido azetikotik eta kolinatik -zeluletan egon ohi diren bi substantziatatik- **unean-unean** ekoizten den substantzia. **Irene Aldasoro**
Nik ere argazkiak sartu beharko nituzke liburu barruan, **unean-unean** komentatzen ari naizenaren argigarri. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Lasterragoa egiten zen, eta ozenagoa, **unean-unean**. **Koro Navarro**
Ehiztaria erne dago bere zaldiaren gainean, zigorra airean jasorik, lipar batez bolbora bihurturik, **unean-unean** su hartzeko gertu. **Jose Morales**
Horrelaxe bizi izan baitzen Ibiñagabeitia jaiki eta erori, erori eta jaiki **unean unean** zeuzkan indarren eta ahalen arabera. **Berria - Harian**
Burtsa poliedrikoa izan daiteke, baita futboleko maiz esaten den legez, **unean-unean** izateko modu bat ere. **Berria - Ekonomia**

12 *unean uneko izlag*

Unean uneko obsesioak (osasun akatsgabekoa, edertasuna, gaztetasuna, liraintasuna) alde batera utzirik. **Edorta Agirre**
Kanbioa diruaren **unean uneko** balioaren finkapena da. **Iñaki Iñurrieta**
-Esan dizut, **unean uneko** asmoari jarraitzen diot. **Iñaki Iñurrieta**
Espiritu urduria eta huskerietara emana, **unean unekoa** besterik ikusten ez duen zuhurtasun beldurtia. **Juan Martin Elexpuru**
Aurpegi emanez denborari, edota **unean uneko** Betierekotasunari. **Joxe Austin Arrieta**
Unean unekoa bizi behararen zaporea eskaintzen zidan zigarroari egindako atxiki bakoitzak, **unean uneko** gozamen txikien laburtasuna gogoratzen zidan ke-bihurren iraupenak. **Anjel Lertxundi**
Unean unekoa bizi. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

azken **une** (18); **bere une** (16); **beste une** (53); **beste une batean** (20); **bizitzako une** (26); **denboraldiko une** (13)
edozein **une** (11); **emateko une** (9); **halako une** (14); **handik une batera** (8)
ia une berean (14); **ibilbideko une** (13); **isiltasun une** (8); **lehen une** (16); **leku eta une** (9); **nire bizitzako une** (8)
tentsio une (18)
une aproposa (18); **une askotan** (47)
une bakar (30); **une bakar batez** (14); **une bakoitzean zer** (9); **une bat geroago** (9); **une bat izan** (11); **une bat lehenago** (9); **une batean** (312); **une bateko** (30); **une baten ondoren** (11); **une batera** (17); **une baterako** (12); **une batetik** (122); **une batetik aurrera** (14); **une batetik bestera** (101); **une batez** (1407); **une batez gelditu** (12); **une batez isildu** (14); **une batez isilik** (23); **une batez pentsatu** (11); **une batzuk geroago** (9); **une batzuk lehenago** (9); **une berean** (304); **une beretik** (39); **une berezi** (17); **une berezia** (10)
une egokia (92); **une egokia dela** (11); **une egokian** (72); **une egokiaren zain** (11); **une erabakigarri** (15); **une erabakigarria** (19); **une erabakigarrian** (36); **une erabakigarrietan** (39); **une eta gune** (9); **une eta leku** (9)
une garrantzitsu (9); **une garrantzitsua** (14); **une garrantzitsuan** (8); **une gogor** (12); **une gogorrak** (25); **une gorena** (13); **une gozoa** (13); **une gozoa bizi** (8); **une gozoak** (13); **une gozoan** (18); **une guztietan** (22)
une haietan (46); **une hartan** (1174); **une hartan berean** (11); **une hartan bertan** (54); **une hartantxe** (142); **une hartatik aurrera** (20); **une hauetan** (70); **une historiko** (33); **une historikoa** (14); **une historikoan** (8); **une honetan** (1031); **une honetan bertan** (15); **une hori iritsi** (8); **une horietan** (63); **une horretan** (580); **une horretan bertan** (40); **une horretantxe** (88); **une horretara arte** (9); **une horretatik aurrera** (33)
une jakin (159); **une jakin batean** (106); **une jakin bateko** (12); **une jakin batzuetan** (18)
une kritikoan (10)
une labur (57); **une labur batez** (29); **une larri** (9); **une larriak** (13); **une latz** (12); **une latzak** (33); **une latzak bizi** (11); **une latzetan** (10); **une luze** (36); **une luze batez** (25)
une magiko (9)
une on (10); **une onak** (12); **une onean** (10); **une oro** (210); **une orotan** (38); **une oroz** (15)

une politiko (30); **une** politiko honetan (10)
une txarrak (24)
une zail (17); **une zaila** (15); **une zailak** (24); **une zailetan** (13); **une zehatz** (19); **une zehatz batean** (8); **une zehatzetan** (21)
zalatza une (36); **zalatza une bat** (12)
azken unea (59); **azken unea arte** (53); **bere unea** (10); **egiteko unea** (57); **egiteko unea da** (9); **egiteko unea iritsi** (13); **emateko unea** (9); **hartzeko unea** (18); **hasteko unea** (17); **hitz egiteko unea** (8); **jartzeko unea** (10)
unea arte (64); **unea da** (73); **unea dela** (54); **unea dela esan** (9); **unea dela uste** (9); **unea heldu** (23); **unea iristen** (18); **unea iristen denean** (9); **unea iritsi** (66); **unea iritsi da** (15); **unea izan** (15); **unea izango** (8); **unea zen** (16)
azken uneak (8); **tentsio uneak** (32); **tentsio uneak izan** (12); **uneak bizi** (10); **uneak izan** (22); **uneak izan ziren** (10)
ari den unean (8); **ari zen unean** (31); **ari ziren unean** (17); **azken unean** (215); **azkeneko unean** (8); **behar den unean** (11); **dagoen unean** (11); **den unean bertan** (10); **egiteko unean** (24); **emateko unean** (9); **gertatu zen unean** (13); **hartzeko unean** (8); **hurrengo unean** (12); **idazteko unean** (27); **izan zen unean** (13); **lehen unean** (35); **unean baino unean** (8); **unean berean** (23); **unean bertan** (98); **unean egin** (8); **unean unean** (30); **unean uneko** (150); **unean unekoa** (8); **zegoen unean** (11); **zen unean bertan** (13); **zihono unean** (9)
unearen zain (9)
azken uneetan (10)
azken uneko (31); **lehen uneko** (9)
unean unekoa (8)
azken unera arte (76); **unetik unera** (22)
uneren batean (37)
bere bizitzako unerik (9); **bere unerik** (10); **bizitzako unerik** (30); **denboraldiko unerik** (18); **nire bizitzako unerik** (8); **unerik aproposena** (10); **unerik aproposenean** (8); **unerik egokiena** (24); **unerik egokienean** (11); **unerik garrantzitsuena** (13); **unerik gozoena** (17); **unerik gozoenean** (16); **unerik onena** (16); **unerik onenean** (32); **unerik txarra** (10); **unerik txarrean** (12); **unerik zailenetan** (9)

uneantxe *adlag* unean bertan.

Historiaren ironiaz, Napoleonek bere karrera Waterloo bukatu zuen **uneantxe** hasi zuen Bernadotte kondeak berea. Jon Muñoz

Hain zuzen ere, gu hara iristen ari ginen **uneantxe** ari zen halako txoritzar beltz-ubel saldo oso bat errai-multzto bati tiraka, hara eta hona, beren moko odoloztatuei sarrats-litsak zerizkiela. Joxe Austin Arrieta

Eta, erantzuten ahalegintzen ari zen **uneantxe**, konturatu zen ez ziola idazlan haiek irakurtzeari ekin bere burua lantzeko. Jon Muñoz

Max gelan sartzen zen **uneantxe** sakelaratu zituen Perrettek lumak. Jon Muñoz

uneka *adlag* une batzuetan. ik mementoka.

Uneka ironikoa, **uneka** harroputza irudituko zaizu. Joseba Sarrionandia

Elizkizunetan **uneka** bozkarioak hartzen ninduen, bereziki kantuz hasten zelarik jendea. Piarres Aintziart

Ikusi genituen tanto ederrak [...] gozatu genuen **uneka**, baina nahi eta espero baino askoz gutxiago. Berria - Kirola

Axelek mugituko ditu ezpainak, eta ezpain mugimenduaren arabera izanen dira esaldiak **uneka**, eta bereizi eginen dira besteetan. Joseba Sarrionandia

Richard **uneka-uneka** puzten zen, ikasle mukitsuek arbelaren aurrean ernegarazten duten seminaristaren eran. Harkaitz Cano

unekotasun *iz* unekoa izateko nolakotasuna.

Haren bereizgarria, gertagarritasuna, fotografiaren **unekotasun** hutsarekin lotzen da, eta berri-ematearen kategorian sartzen du argiro. Xabier Olarra

uneoro *(250 agerraldi, 74 liburu eta 98 artikulutan; orobat une oro 211 agerraldi, 31 liburu eta 150 artikulutan eta unero g.er.) 1 adlag* une guztietan.

Halako sentitzen naiz, ez egunero jakina, ez beti edo **uneoro**, aldartea ez da-eta beti berdina izaten. Karlos Linazasoro

Uneoro atzera begiratzan nuen, inork jarraitzen ez zidala ziurtatzeko. Alberto Ladron Arana

Une oro begiak zerurantz jasotzen nituen, eguna noiz argituko. Josu Zabaleta

Bere aitak **une oro** hitz egiten omen zuen nitaz, gazte zintzoa nintzela esaten omen zuen. Fernando Rey

Medita ezazu **uneoro** gurutzearen misterioa, eta gurutzearen ondoan dagoen amaren nahigabea. Askoren artean

Une oro huntzaz estalitako arku bakarreko zubiak, iragaten dituen idi orgaren baten pean kulunka. Koldo Izagirre

Zu zirkulu baten erdian kausitzen baitzara **uneoro**, hantxe iltzatua bezala, eta uhinak bakarrik lerratzen dira han behean ziri-zara. Joxe Austin Arrieta

Une oro zerbait gerta zitekeen, arriskuren bat, istripuren bat, eta handik ez zegoen kalterik gabe irtereirik. Karlos Zabala

Begi-bistan neukan tentazioa **uneoro**, baina ez nintzen atrebitzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ustekabeak **uneoro** gertatuko ez balira bezala. Oskar Arana

Identitatea eta historia **une oro** sortu eta desegiten dira. Berria - Gaiak

Ez dakizu ondo zer den **uneoro** beldur horrekin bizitzea. Anjel Lertxundi

Segurtasun neurrien ondorioz, **une oro** poliziak izango ditugu Zubietan. Berria - Harian

Hura duzue **uneoro** amets, hura desira eta esperantza. Xabier Montoia

Elkarrekin jolas egiten genuen **une oro**: etxean, ikastolan, parkean, hondartzan, nonahi. Iban Zaldúa

Gogo gaiztoz eman zion baiezkua dibortzioari, espetxetik ateratakoan haren aita hilko zuela zin eginez **une oro**. Oskar Arana

Mathilde ohitzen hasita zegoen Nora **uneoro** alboan izatera. Anjel Lertxundi

Zure ortuari eta baba zurietako platera, non **uneoro** zure haurtzarora berri zaiotzen den. Jon Alonso

Hor hasten da betiko jolas zahar **uneoro** berritua. Xabier Mendiguren Elizegi

2 *uneoroko izlag*

Bertsolariak ez baitauka bere gogoak sorkuntzak dakartzan **uneoroko** arazoei aurre egitera jarria. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Oso zaila izango da **uneoroko** anaitasun horri azken jardunaldian eustea. Berria - Kirola

Irakasle Laguntzailearen dizipulua izatea **une oroko** gozamina zen niretzat. Juan Garzia

Zainketa Intentsiboetako Unitatean (ZIU) dago, **une oroko** zaintza jasotzen. Berria - Kirola

Izan ere, ama hil zenetik hiru urte igaroak baziren ere, haren oroitzapena **uneorokoa** zen. Alberto Ladron Arana

Konpartsen komisiorekin eta Udalaren arteko harremana **uneorokoa** eta etengabea izan da. Unai Iturriaga

unetxo 1 iz une laburra.

-Utqidazu **unetxo** bat. **Iñaki Mendiguren**

Unetxo bat mesedez. **Alberto Ladron Arana**

Mason jauna beste **unetxo** bat geratu zen Dursleytarrei esateko bere emazteak ikaragarritzko beldurra ziela era eta tamaina guztietako hegaztiei. **Iñaki Mendiguren**

Unetxo bat itxarongo diat bertan, pentsatu zuen. **Iban Zaldúa**

Harkaitzen atzean geratzen zen ura, **unetxo** bat igaro ondoren, berriro abiatzen zen, antza, itsasorantz. **Ibon Uribarri**

Unetxo bat geroago, Harryk gorantz egin zuen berriro, besoa jasota garaipena adieraziz, snitcha eskuan tinko zuela. **Iñaki Mendiguren**

Unetxo bat geroago, kontrako norabidean abiatu zen Hans. **Alberto Ladron Arana**

Aztoramen hark **unetxo** batzuk baizik ez zuen iraun. **Ander Irizar**

Unetxo batean, begien itxi-ireki batean, azkeneko turuta-hotsarekin batera. **Elizen arteko biblia**

Unetxo batean isildu, beldurrak eragindako espasmo bat izan eta garrasika hasi zen berriro haurra. **Irene Aldasoro**

-Utziko didazue Mikel **unetxo** batean? **Unai Iturriaga**

Unetxo baten ondoren, honela mintzatu zen Ruche jauna: [...]. **Jon Muñoz**

Hitz egiten zenionean, **unetxo** batez isilik egoten zen, erantzuna mamitzen egongo balitz bezala. **Lander Garro**

Unetxo batez norantz jo jakin gabe, hormari pega-pega eginda egon zen. **Lopez de Arana**

Gorpua **unetxo** batez Gangesko uretan sartu dute. **Gotzon Garate**

Jarri zuen **unetxo** batez burua santuaren gorpuz preziatua gordetzen zuen kuxtaren azpian eta, berehala [...] lepoa zuzendu eta burua bere egoera normalera itzuli zitzaion. **Askoren artean**

-Barkatu, maisu Flitwick, har dezaket **unetxo** batez Wood? **Iñaki Mendiguren**

Negarrez ari zinela uste izan dut **unetxo** batez. **Mirentxu Larrañaga**

Unetxo bateko bizia eman didazu; zure aurrean hutsa da bizitzaren iraupena. **Elizen arteko biblia**

Hori baino hoberik ez dago egoeraren garratzasuna **unetxo** komiko batez eteteko. **Josu Zabaleta**

Inola zati ez ditekeen **unetxorik** txikiena asmatu ahal badugu, hauxe da, soilik, orainaldi. **Imanol Unzurrunzaga**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Atzo, ustekabeko zorion- **unetxo** bat izan nuen; halaxe, motiborik gabe. **Eskarne Mujika**

Zalantza **unetxo** bat izan ondoren, nigana hurbildu da oso serio: [...]. **Txillardegi**

Ni mekanikaria naiz -bota zuen Pepponek irritxo batez, harridura- **unetxo** baten ondoren. **Koldo Biguri**

Bezperan, argi- **unetxo** bat izan zuen gaixoak eta, ahal zuen moduan, hitz eragabez baina bihotz zintzo, Aita errukierrari deika hasi zen. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

unetxo bat eman (7); **unetxo bat geroago** (8); **unetxo bat izan** (3); **unetxo batean** (13); **unetxo baten ondoren** (5); **unetxo baterako** (3); **unetxo batez** (66)

ungi ik ongi.

ungriano izlag/iz ijitoa. ik hungariar.

Azken urteotan gauzak guztiz aldatu badira ere, euskaldunak ziren -euskaraz zekitenak, alegia- lehengo ijito, **ungriano**, buhame eta motxaileetako asko, baina bazituzten euren hitz bereziak, ijito ez zirenek ikas ez zitzaizten isilpean gordetzen zituztenak. **Koldo Zuazo**

unguramen ik inguramen.

unguru ik inguru.

unibersakeria ik unibertsakeria.

unibersaltasun ik unibertsaltasun.

unibersidade ik unibertsitate.

unibersitario ik unibertsitario.

unibersitate ik unibertsitate.

unibertsal 1 izond orokorra, guztiekikoa; unibertso osoari edo mundu osoari dagakiona.

Hizkuntza **unibertsal** zaharrenetako (latina) eta berrienetako (ingelesa) zuhaitz adarretan. **Patziku Perurera**

Hizkuntza **unibertsal**, artifizial eta perfektu baten ideia. **Xabier Arregi**

Filosofia, aldiz, balio **unibertsal** horien zientzia baizik ez [da]. **Joxe Azurmendi**

Adimen **unibertsala** (*nous*) deituko dio Pitagorasek unibertsoaren harmonia matematikoari. **Askoren artean**

Esentzia frantses **unibertsalaren** probarik handiena Renan da noski. **Joxe Azurmendi**

Mexikon ura eskubide **unibertsal** aldarrikatzea nahi dute gizarte taldeek, konpainia pribatuen esku geldie ez dadin. **Berria - Gaiak**

Onura **unibertsala** dakarten lege jatorrenen aurka jotzea. **Juan Martin Elexpuru**

Optimismo **unibertsalaren** metafisika razionalista. **Askoren artean**

Nozio komun, **unibertsal** eta propioen tematizazioaren oinarrian Izateari buruzko tesi spinoztarra dago: Unibozitatea. **Piarres Xarriton**

Arriskua oinarritzko heziketa **unibertsalak** propagandarako irekitzen zuen aukera zen. **Iñaki Mendiguren**

XVIII. mendea giza eskubideen lehenengo deklarazio **unibertsalaren** lekukoa izan zen. **Askoren artean**

Jendea "hemengoa", muga jakinik gabeko "hemen" batekoa [...] izateak eta sentitzeak dakarrela zinezko unibertsaltasun hemengotarra edo hemengotasun **unibertsal** izengabea. **Iñaki Segurola**

Ezin da ahaztu Mendebaldean jaiotako eskubide **unibertsal** horiek eta gizartearen interes mendebaldarrak nahiko ongi uztartzen direla. **Askoren artean**

Ez dago antropologia **unibertsal** hutsik, ezta partikularistarik ere. **Askoren artean**

Maizenik lege zientifiko eta **unibertsal** bat baino gehiago da mito edo topiko bat. **Iñaki Heras**

Ez dago lege **unibertsalik** eta, ondorioz, ezin da egon zuzenbide **unibertsalik**. **Askoren artean**

Estatu **unibertsalak** zibilizazioen kolapsoaren ondoren, eta ez aurretik, sortzen dira, zibilizazio horien gizarte-gorputzei batasun politikoa ekartzen dietelarik. **Iñaki Mendiguren**

Otomandar Inperioak [...] Bizantziar Zibilizazioaren estatu **unibertsal** bilakatu zenak, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Ohargarria da ikustea estatu **unibertsal** baten bake-giroaz zein erabilera eraginkorra egin dezakeen barne-proletalgoak, behetik gorantz, erlijio nagusi bat zabaltzeko eta, azkenean, eliza **unibertsal** bat ezartzeko. **Iñaki Mendiguren**

Ikusi dugu [...] estatu **unibertsalek** mantenduriko erakundearen onuradun nagusiak eliza **unibertsalak** izan direla. **Iñaki Mendiguren**

Eliza **unibertsal** guztiak bigarren belaunaldiko zibilizazioetan desintegratzen ari ziren gizarte-gorputzen baitan garatu zirela. **Iñaki Mendiguren**

Oinarritzko errenta edo soldata sozial **unibertsala**. **Iñaki Heras**

Printzipio metodologiko **unibertsaletan** oinarrituz. **Askoren artean**

Hau gizadi osoaren behar betiko eta **unibertsal** baten abusutik sortzen da. **Juan Martin Elexpuru**

Gainera, galdera era **unibertsalean** planteatu behar da, edo Europa mailan gutxienez. **Bernardo Atxaga**

Pariseko Erakusketa **Unibertsalaren** karietara. **Piarres Xarriton**

Literatur Ondare **Unibertsaleko** Obra Nagusien Bilduma. **Itziar Otegi**

Giza Eskubideen Deklarazio **Unibertsala**. Irudiaren alderdi plastikoa ikuspegi arrazional eta **unibertsal** -nahiko batetik aztertzen duenik. **Josu Zabaleta**

2 (predikatu gisa)

Arazoimen purua **unibertsala** da, Eliza bezala, hots, Egiaren eta Ongiaren epaileak izan behar duen bezala. **Joxe Azurmendi**

Errealismoaren erreibindikazioa ere, mendebaldeko artean garrantzi handikoa izan den arren, ez dela horrenbestez **unibertsala**. **Josu Zabaleta**

Irudia **unibertsala** da, baina partikular bihurturik dago beti. **Josu Zabaleta**

Ez dago berekoikeria bezain **unibertsala** den ezer. **Iñaki Heras**

Unibertsala izateko, orotan osoki **unibertsala** izateko, behin bere sort-herrian barna sustraitua izan behar da. **Herria**

Oker liteke, ordea, fonetika **unibertsala** dela eta fonologia hizkuntza bakoitzak berea duela sinestea. **Lourdes Oñederra**

Substantzia, Izpiritu **unibertsala** da, honen historia. **Joxe Azurmendi**

Unibertsal izateko espainiar edo frantsesa izan beharra, hori da onartzen ez duena. **Joseba Zulaika**

Estatu-nazioek eta inperioek ez dute izan lotsarik beren kultura eta zibilizazioen benetako esparrua **"unibertsala"** dela proklamatzeko. **Joseba Zulaika**

Tolerantzia hori ez da **unibertsala** edo erabatekoa. **Iñaki Mendiguren**

Gizakiaren berezko gizarte-koitasunaren indarrez, gizarte guztiak potentzialki **unibertsalak** dira. **Iñaki Mendiguren**

Kristau-printzipioetan oinarrituriko historia oro **unibertsala**, probidentziala, apokaliptikoa eta aldika banatua izango da nahitaez. **Iñaki Mendiguren**

Condorcet ilustratu eredu-garriak eskola nahi du guzti--guztientzat, hezkuntzak **unibertsala** behar duela dio. **Bernardo Atxaga**

Bere filosofia **unibertsala** da, baina beltzak, txinatarrak eta emakumeak, adibidez, kanpoan geratzen dira. **Askoren artean**

Banakoak partikularrik dira, propietateak, berriz, **unibertsalak**. **Askoren artean**

3 (logikan)

Kuantifikatzaile **unibertsal** eta existentzialaren artean lehenago definitutako baliokidetzak dagoela kontuan hartuz. **Askoren artean**

Zenbatzaile **unibertsalaz** osatutako multzoa. **Askoren artean**

Zerk bereizten du lege zientifikoa edozein enuntziatu **unibertsaleatik**? **Askoren artean**

• 4 iz espezie bereko banako guztiei aplikagarria den adigai.

Unibertsalak -propietateak, erlazioak, zenbakiak, etab.- errealitatearen parte dira, beren eitea fisikoa eta mentala ez bada ere. **Askoren artean**

Unibertsalei esker banakoak taldeka antola ditzakegu eta errealitatea modu antolatu batean ikus dezakegu. **Askoren artean**

Bi joera horiek gurutzatuz sortutako arazo filosofiko nagusia -orduko eta egungoa-, **unibertsalen** arazoa deituko da. **Askoren artean**

Ea natura komun horrek osatzen ote duen izate bakoitzaren muina bere komuntasunean (errealismoa); ala, izakiak erabat singularak izanik, horiek multzoka izendatu ahal izateko baliabide hutsak ez ote diren zoriarekin **unibertsal** horiek (nominalismoa). **Askoren artean**

Nominalistek nahiaغو dituzte multzoak **unibertsalak** baino. **Askoren artean**

5 ez-unibertsal izond

Ez da artzain on txarra, alafede, bere artegitxo unibertsalean ardi denak txuri-txuriak izatea lortzeko (batzuk beltzak badira, aski da pixka bat pintatzea), ingurua bete ardi gaizto **ez-unibertsal** kanpoan utziz. **Joxe Azurmendi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzerriko estatu unibertsal (3); balio unibertsal (7); eliza unibertsal (11); eskubide unibertsal (8); estatu unibertsal (108); estatu unibertsal kristau (3); estatu unibertsal sinikoaren (4); historia unibertsal (4); hizkuntza unibertsal (4); ideia unibertsal (3); kultura unibertsal (3); lege unibertsal (11); mintzaira unibertsal (3); oinarri unibertsal (3); ondare unibertsal (3); sufragio unibertsal (13); sufragio unibertsal ponderatua (8); sufragio unibertsal ponderatuaren (3)

unibertsal berri (3); unibertsal berri bat (3); unibertsal bihurtu (3); unibertsal gisa (10); unibertsal kristau (3)

atzerazina eta unibertsala (3); babes unibertsala (3); bake unibertsala (5); balio unibertsala (6); bokazio unibertsala (3); deklarazio unibertsala (7)

eliza unibertsala (3); eskubide unibertsala (5); eskubideen deklarazio unibertsala (5); estatu unibertsala (22); historia unibertsala (8)

idea unibertsala (3); istorio unibertsala (5); itzulezina eta unibertsala (3); izaera unibertsala (3); izatearen unibertsala (4); konponbide unibertsala (3); literatura unibertsala (39); literatura unibertsala bilduma (7); literatura unibertsala bildumako (5); literatura unibertsala bilduman (7); mintzaira unibertsala (5)

osasan babes unibertsala (3); oso istorio unibertsala (3); sufragio unibertsala (6)

uholde unibertsala (3)

unibertsala eta beharrezkoa (3); unibertsala eta doakoa (3); unibertsala izan (14); unibertsala izan behar (5); unibertsala izango (3); unibertsala izatea (4)

zakurra izatearen unibertsala (3)

banakoak eta unibertsalak (3); eliza unibertsalak (6); eskubide unibertsalak (3); estatu unibertsalak (20); forma unibertsalak (3); ideia unibertsalak (5); lege unibertsalak (5); literatura unibertsalak (5); unibertsalak izan (7)

adierazpen unibertsalaren (3); deklarazio unibertsalaren (5); erakusketa unibertsalaren (3); estatu unibertsalaren (21); historia unibertsalaren (6); kultura unibertsalaren (4); literatura unibertsalaren (9); sufragio unibertsalaren (3)

estatu unibertsalean (3); historia unibertsalean (3); literatura unibertsalean (3)

eliza unibertsalek (3); estatu unibertsalek (12)

literatur ondare unibertsaleko (4); literatura unibertsaleko (13); ondare unibertsaleko obra (4)

eliza unibertsalen (3); estatu unibertsalen (30); estatu unibertsalen gobernariak (4); ideia unibertsalen (6)

sufragio unibertsalerako (3)

estatu unibertsaletako (5)

estatu unibertsaletan (7)

unibertsaldu, unibertsal(du), unibertsaltzen du *ad* unibertsal bihurtu.

Behin gurea ere baden gazteleraz [...] hemendik urte betera bizpahiru hizkuntzarik ezagunenetara bihurtua izango da eta urte bietara edo hirutara **unibertsaldua**. **Berria - Kultura**

unibertsalismo *iz* unibertsaltasuna.

Estatuarekin ere holako zerbait gertatzen zaigu: bere **unibertsalismo** espansionista eta eskusibistaren ondorio leherkorrak ezagunak zaizkigu. **Joseba Zulaika**
"Unibertsalismo itxi" edo "baldintzapeko" hori [...] ez zen hautsia izango Zizeronen garaira arte, orduan ezaldu baitziren, batetik, estoikoen **unibertsalismo** filosofikoa, eta, bestetik, kristaueña. **Esteban Antxustegi**
Euskaldungoaren defentsari **unibertsalismoaren** aitzakiaz uko egitera behartu nahi gaituzten filosofo, soziologo, sasi jakintsun batzuei. **Herria**

unibertsalista *izond* unibertsaltasunari dagokiona; unibertsaltasunaren aldekoa.

Pentsaera absolutista dogmatikoak, batzuek eufemikoki "**unibertsalista**" deitu nahiago duten horrek, [...]. **Joxe Azurmendi**
Argumentu **unibertsalistetan**, liberaletan eta utilitarioetan oinarritutako independentzia, ez argumentu identitarioetan. **Joseba Zulaika**
Gaurko kulturaren antropologiaren oinarri filosofikoak agerian uzten dira, hiru kategoria direla medio: **unibertsalista**, konparatibista eta partikularista. **Askoren artean**
Teoria **unibertsalistetan** (estrukturalismoan bezala), herri guztiei dagokien alde komuna bilatzen da. **Askoren artean**
Katarro **unibertsalistak**. **Piarres Aintziart**
Etsai izan ditu, edo badaezpadako lagun, aurrerakoiak, atzerakoiak eta bertarakoiak, errealismo **unibertsalista** eta idealizazio nazionalista, falangismoa eta sozialismoa, tradizionalismoa eta liberalismoa, faxismoa eta... anarkismoa. **Iñaki Segurola**
Alde ederrekoak gara gu, hirietan edo metropoliatan bizi garenek, laikoak, liberalak, demokratik, kosmopolitak, **unibertsalistak**, kultuak, modernoak, sofistikuak, literatura eta arte guztietan jantziak! **Bernardo Atxaga**

unibertsalitate 1 *iz* unibertsaltasuna.

Bi munduak eta gauzen **unibertsalitatearen** jatorria bereiztea, honen egiazko ezagutza ezjakite jakintsuan dagoelarik. **Imanol Unzurrunzaga**
Justizia eta ekitate orokor horrek, bestalde ere, inguruabar zehatzik aintzat hartu gabe, gauza eta pertsonen arteko **unibertsalitatea** hartzen du bere barruan. **Andres Urrutia**
Canguilhem-ek uste du badakiela zergatik errefusatu zuen Cavailles-ek nazismoa: **unibertsalitatearen** ukazioa zelako. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan)

Wilderen idazlanak zahartu badira ere, zeren-eta klasikoak bihurtuko lituzketen **unibertsalitate** ezaugarriak falta baitituzte, bizirik diraute. **Mikel Hernandez Abaitua**

unibertsalizagarri *izond* unibertsaliza daitekeena.

"Atxilotu oro torturatu egin behar da" maxima **unibertsalizagarria** da baldin, adibidez, poliziak berak arau hori bere buruarentzat onartzen baldin badu. **Askoren artean**
Ekintza bat zuzena izateko atzean dagoen maximak **unibertsalizagarri** izan behar du Kanten uestez. **Askoren artean**
Preskriptiboa izanagatik, hizkuntza moralak ez dio uzten **unibertsalizagarri** izateari. **Askoren artean**

unibertsalizatu, unibertsaliza, unibertsalizatzen 1 *da/du ad* unibertsal bihurtu. *ik unibertsaldu.*

Hala eta guztiz, ondo ere ondo dakigu hori guztia, Macondo bezala, **unibertsalizatu** egin dela. **Juan Garzia**
Aise egiaztatzen da leku hori ezin objektibatuzkoa dela, eta ezin dela **unibertsalizatu** orobat, egilearen gauza dela. **Josu Zabaleta**
Gauza bera suertatu zen erlijio sineste batzuekin, eta geroago ideia laikoekin: ideia horiek, kultura partikularrean edota berezian jaio arren, **unibertsalizatuak** izan dira. **Askoren artean**
Ez naiz xuxen iristen jakitera zergatik "**unibertsalizatzen**" den literatur testu bat, eta ez dut uste sekula iritsiko naizenik. **Juan Garzia**
«Ikuspegi anitz batetik antzerkiaren hizkuntza **unibertsalizatzeko** beharri» erantzun nahi diote jardunaldiok. **Berria - Kultura**

2 (era burutua izenondo gisa)

Horregatik jotzen du gaurkotasunera (bere ezaugarriak axalekoenak modu ironikoan aipatzeko) ala iragan **unibertsalizatu** batera (denok ezagutzen ditugun garaiek eta gertakizunak). **Berria - Kultura**

unibertsalizazio *iz* unibertsalizatzea.

Unibertsalizazioa (edo unibertsal mailako prozesu bateratzailea). **Askoren artean**
Horien ondotik ontologia garaikide berritua (mundializazioa, globalizazioa, **unibertsalizazioa**) azaltzen da. **Askoren artean**
Festaren **unibertsalizazio** horretan -hiriaren auzo guztietara iristen baita gaur egun Danborrada-, zerikusi handia izan du elkarteen eta partikularren lanak. **Askoren artean**

unibertsalkeria (*orobat unibersalkeria*) *iz* unibertsaltasun gaitzesgarria.

Neoliberalismoak gaurkotutako ilustrazioaren **unibertsalkeria**. **Iñaki Heras**
Unibertsalkeria burges abstraktoaren aurka, euskal herriaren unibertsaltasun konkretu eta berezia badagoela erakusten dute. **Berria - Harian**

unibertsalki *adlag* era unibertsalean.

Subjektu-pentsamenduari **unibertsalki** dei egiten diona singularra da. **Joseba Zulaika**
Aristotelesen iritziz ez dago **unibertsalki** balio duen ongi moralaren adierazpenik. **Askoren artean**
Ez dira berezko ezaugarri, ez autoktonoak ez eta **unibertsalki** antzeman daitezkeenak ere. **Xabier Arregi**
Ez dira jotzen **unibertsalki** baliagarritzat eremu guztietan. **Xabier Arregi**

unibertsaltasun *(orobat unibersaltasun g.er.)* 1 iz unibertsala denaren nolakotasuna.

Hautua egin beharra dago bion artean: egiaren eta erlatibismoaren artean; pentsamenduaren eta sentimenduaren artean, **unibertsaltasunaren** eta lokalismoaren artean, etc.

Joxe Azurmendi

Giza eskubide guztien **unibertsaltasun**, zatiezintasun eta elkarmenpekotasuna berresten dugula. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Giza pentsamenduaren **unibertsaltasuna**. **Joseba Zulaika**

Kide gehienak nazioarteko gatazkak bide baketsuetatik konpondu eta giza eskubideen **unibertsaltasunaren** alde daude; besteak, unilateralismoaren, gerra prebentibo-en eta giza eskubideen gainean irizpide arbitrarioak ezartzearen alde. **Berria - Mundua**

Alren arabera, gero eta gobernu gehiagok jartzen dute ezbaian giza eskubideen **unibertsaltasuna**, kulturak eta tradizioak lehenetsia dutela arrazoituz. **Berria - Gaiak**

Zerbitzuen **unibertsaltasuna** eta izaera publikoa (ez pribatua, ez kontzertatua) ezinbestekoa da. **Berria - Harian**

Ez al da historia bera Filosofia Politikoan islatzen, horrek legeak eta arauen **unibertsaltasuna** ikertzen duenean? **Askoren artean**

Ilustrazioak kulturaren eta zientziaren **unibertsaltasuna** proposatu zuen gisa berean. **Joseba Zulaika**

Wilsonen autodeterminazioaren **unibertsaltasunari** gorputza eman zion. **Berria - Euskal Herria**

Ene debalde izaerak munduko debalde guztiak juntatzen dituenean, inuitasunaren **unibertsaltasunaren** atek jotzen ditut. **Itxaro Borda**

Elementu lokalak aukeratu ditut **unibertsaltasuna** lortzeko modurik onena delako. **Berria - Kultura**

Liburua manikeoa da: Ongia, Renan, Frantzia, Ilustrazioa, Arrazoa, **Unibertsaltasuna** versus Gaizkia, Herder, Alemania, Erromantizismoa, Bihotza, Nazionalismoa.

Markos Zapiain

Esportazioa, itzulpena, horra hor **unibertsaltasunaren** benetako ugatzak. **Berria - Kultura**

Espania destino batasuna da **unibertsaltasunaren**. **Berria - Harian**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Unibertsaltasun politikoa, adibidez, ez da oinarritzen dotrina bati zaion leialtasunean, gertakari historiko bati zaion leialtasunean baizik. **Joseba Zulaika**

Erronka existentzialista bat, gizabanakoaren liberezia eta **unibertsaltasun** orokorretik, eta bizitzarekin apustu eginez. **Joseba Zulaika**

Ez du erabaki hori hartzen balio kristau edo etika sozialista edo **unibertsaltasun** humanistagatik. **Joseba Zulaika**

Elizaren **unibertsaltasun** potentziala, Erdi Aroko Kristandade-ko ikus-artearen, hiru errege magoetako bat beltza izate horren konbentzioan zegoen sinbolizatuta. **Iñaki Mendiguren**

Jendea "hemengoa", muga jakinik gabeko "hemen" batekoa -zein bere "hemen"ekoa- izateak eta sentitzeak dakarrela zinezko **unibertsaltasun** hemengotarra edo hemengotasun unibertsal izengabea. **Iñaki Seguro**

Mendebaldeko Zibilizazio moderno sekularizatu batek lortua zuen azkenaldian benetako **unibertsaltasuna** ekonomia eta teknologian, politika edo kulturaren pareko arrakastarik lortu gabe. **Iñaki Mendiguren**

3 unibertsaltasun ez mug

Are gehiago, baloreen **unibertsaltasunaren** ideia bera ere erabiltzen dute kodeen baliagarritasun eza proposatzeko. **Iñaki Heras**

unibertsalzale *izond* unibertsalaren zalea dena.

Eta guk, su-etenaren une aparta honetan, jatorrizko ETA **unibertsalzale** hura dugu gogoko. **Joseba Zulaika**

unibertsidade ik unibertsitate.

unibertsitari ik unibertsitario.

unibertsitario *(orobat unibertsitari g.er.)* 1 iz unibertsitateko irakasle edo ikaslea; unibertsitate ikasketak dituen pertsona.

Herritarrek ezer gutxi dakite **unibertsitariook** egiten dugun lanaz eta lortzen ditugun emaitzez. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Unibertsitariook derrigorputa zeuden hirian bizitzera, unibertsitateko bizitza akademikoaz gainera hiriko bizitza soziala ere aintzat hartzea. **Anjel Lertxundi**

Ulertzekoa da nola ikasle eta **unibertsitarioen** artean aurkitzen diren hainbeste elizgizon, apaizgora iristeko asmorik gabe. **Askoren artean**

Alde bateko eta beste politikariak; herriko intelektualek eta **unibertsitariook**. **Pello Salaburu**

Unibertsitarioentzat unibertsitatea ez da guk lan egiten dugun enpresa, baizik gurea den zerbaitekin, gure ondare partikularra, hori uste dugu. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Unibertsitarioen langabezia apala izan arren, lan egiten dutenen %29 unibertsitate maila eskatzen ez duen beste lan batean ari da. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Oso ospetsua zen Deustuko **unibertsitarioen** artean. **Bernardo Atxaga**

Igor Ahedo Gurrutxaga **unibertsitarioak** Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzaleaz egin duen ikerketa lana aurkeztuko du. **Berria - Euskal Herria**

Unibertsitario euskaldunek atari berezia izango dute interneten urtea amaitu aurretik. **Berria - Euskal Herria**

Unibertsitario konformagaitzak, bihar, burges ondarruak bihurtuko zirela. **Koldo Izagirre**

Bufanda bat zerabilen nasai eta luze, **unibertsitario** eterno bilakatua. **Koldo Izagirre**

2 (hitz elkartuetan)

Horixe da, gainera, Espainiako lege arau berriak berretsi duena, prozedurak aldatu dituen arren eta **unibertsitario** taldeen alegiazko eragina nabarmenki aldatu duen arren.

Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

3 *izond* unibertsitatekoa, unibertsitateari dagokiona. (pertsonak) ik unibertsitate 3.

Profesore **unibertsitario** haren izenak ere ez zion adierazten. **Joxemari Iturralde**

Ikasle **unibertsitarioa** omen zen Buenos Airesen. **Joxemari Iturralde**

Mutil **unibertsitarioen** %15ek eta neska **unibertsitarioen** %6k, ondo ikusten dute indarkeria erabiltzea egoerak hala eskatuz gero. **Berria - Euskal Herria**

Garaiko intelektual bezala, teologo **unibertsitarioak** ahalegindu egin ziren teologia zientzia bihurtzen. **Askoren artean**

EAEko ikertzaile **unibertsitario** guztien %80 dagokio EHUri, gutxienez. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Dezibelio diferentzia jakin batek erabakitzen du tokiaren arrakasta gautxori **unibertsitario**, artista, bohemia, *gauche divine* hura guztia hara erakartzeko. **Iñaki Iñurieta**

Ikasle gehienak **unibertsitarioak** dira. **Berria - Euskal Herria**

4 (bestelakoak) unibertsitate 4.

Baionako hiriak onartu du liburutegi **unibertsitarioaren** eraikuntzaren faktura osoki bere gain hartzea. **Herria**

Besançongo Ospitale **Unibertsitarioan**. **Berria - Gaiak**

Amsterdam Mediku Zentro **Unibertsitarioan** egindako ikerketa baten arabera. **Berria - Gaiak**
Euskal eremu **unibertsitarioan**. **Berria - Euskal Herria**
Hainbat arlotako euskal komunitate **unibertsitarioa** batzeko eginahalarekin jarraituko dute, topaketen bidez. **Berria - Euskal Herria**
Bere ikasketa **unibertsitarioen** mailagatik. **Pako Aristi**
Katedra **unibertsitario** asko daude, baina irakasle jakintsu eta zintzo gutxi. **Berria - Harian**
Gaur goizean bagoi honetan sartu zarela, zerbait aurkitu duzu larruzko zorro **unibertsitarioan**, katedradun jauna. **Javi Cillero**
Uste dut alde handia dagoela kritika **unibertsitarioaren** eta hedabideetako kritikaren artean. **Berria - Kultura**
Ohartzen nintzen hitzaldien eta beste lan **unibertsitario** askoren artifizialtasunaz. **Joseba Urteaga**
Hiriko giro **unibertsitarioak** hainbesterako emango duela aintzat harturik, [...]. **Anjel Lertxundi**

5 ez-unibertsitario izond

Populazio aktibo osoaren %3 ziren irakasle **ez unibertsitarioak** Euskal Autonomia Erkidegoan 1999-2000 ikasturtean. **Berria - Euskal Herria**
Irakaskuntza **ez unibertsitarioan** euskal curriculumaren inguruko eztabaida zabaldu dela. **Berria - Euskal Herria**
Kataluniako Autonomia Estatutuak dio katalana dela Kataluniako hizkuntza propioa eta hezkuntza **ez-unibertsitarioko** hizkuntza. **Berria - Euskal Herria**
Atzo Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko hezkuntza publiko **ez unibertsitarioko** mahai sektorialak beste bilera bat egin zuen. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
komunitate unibertsitarioa (3)
ikasketa unibertsitarioak (5)
klinika unibertsitarioan (3)
unibertsitarioen langabezia (5); **unibertsitarioen langabezia tasa** (3); **unibertsitarioen parte hartzea** (3)

unibertsitate *(orobat unibertsidade g.er.)* 1 iz goi mailako irakaskuntzako ikastetxea, sailetan edo kidekoetan banatua, letretako eta zientzietako irakasgaiak erakusten direna; unibertsitateko irakasleek, ikasleek eta jardunek osatzen duten erakundea.

Alcalako **unibertsitatearen** oinarri izan zen san Ildefonso ikastegiak bere atekak ireki zituen 1508an, baina 1509/10 ikasturte arte ez zen normalizatu **unibertsitatearen** urratsa. **Piarres Xarriton**
Christianiako **unibertsitatean** matematika-katedra bat sortu zenean. **Jon Muñoz**
Gutun bat idatzi zidan **unibertsitateko** ingeles-sailera. **Oskar Arana**
Euskal Herriko unibertsitate sistema hartzen du aztergai, hemengo **unibertsitateek** osatzen dutena. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Urtegiaren bideragarritasun ekonomikoari buruz Zaragozako **Unibertsitateko** Ekonomia irakasle Pedro Arrojo mintzatu da. **Edurne Elizondo**
Biok izan ditugu, gainera, goi karguak **unibertsitateko** administrazioan. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Unibertsitateko beka batekin etorri nintzen. **Unai Iturriaga**
1956ko otsailaren 27an Columbiako **Unibertsitateak** tesia, filosofian doktoretza eman behar zion tesia, onartu egin zuela jakinarazi zion Jesus Galindez tesigileari. **Edorta Jimenez**
Oregongo **Unibertsitatean** gradua hartu ondoren. **Ramon Etxezarreta**
Madrilgo Complutense **Unibertsitatean** burutu zituen filosofiako ikasketak, 1985ean. **Askoren artean**
Bai, **unibertsitatean** egiten dut lan. **Iban Zaldúa**
Gero Alemanian aritu nintzen, ikasle edo, **unibertsitatean** behintzat. **Joxerra Garzia**
Eskuan daukazu ikasmateria oso ohikoa da Europa eta Estatu Batuetako **unibertsitate** eta filosofia-institutuetan. **Askoren artean**
Salamanca **Unibertsitateak** berriki argitaratu duen Tovarren eta Mitxelenaren artikuluen bilduma daukat esku artean. **Iban Zaldúa**
Salamanca **Unibertsitateak** antolatutako idazle sinposio batera. **Bernardo Atxaga**
Unibertsitateko ikasturtea bukatua zen. **Jon Muñoz**
Unibertsitateak loturak behar ditu inguruko enpresekin, baina ezin da inoiz ere haien mende izan, ezin da haien lantegi merke bihurtu. **Pello Salaburu**
Unibertsitatea apenas arduratzen da literatura garaikideaz. **Anjel Lertxundi**
Nord eskualdeko **unibertsitate** batean zoologia-irakasle zena. **Juan Garzia**
Errebalida gaindituz gero **unibertsitate** aurreko ikasturtea oso ondo egingo genuela Obabatik atera gabe. **Bernardo Atxaga**
Unibertsitate aurreko hezkuntza mailetan. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Batxilergoa eta **unibertsitatea** euren ikuspuntutik kanpo zeuden, baina ofizio baten garrantzia bai ikusten zutela. **Ana Urkiza**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Endogamia sortu da, egia da, **unibertsitate** publikoetan eta **unibertsitate** pribatuetan. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Unibertsitate publikoak diru publikoaz finantzatzen direnez, [...]. Azkenean, **Unibertsitate** irekian egin nuen matrikula, filologia-ikasketetan. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Unibertsitate teknologikoa proposatu zuten. **Berria - Euskal Herria**
Azkenean, **unibertsitate** elitistagoa egin nahi dute. **Berria - Harian**
Unibertsitate klasikoegia da, eta egoera eta eskakizun berrietara moldatu beharra dauka. **Berria - Euskal Herria**
Oñatiko **Unibertsitate** Katolikoa karlistek zabaldu zuten bi aldiz. **Txillardegi**
1949an gerrak deboilatutako Berlinen "De Europa meditatio quaedam", nazioak eta Europa gaiak konferentzia jaulki du **Unibertsitate** Librean. **Joxe Azurmendi**
AEBetako unibertsitate sistemen pareko zerbait [...] non gaur egungo campusak egiazko **unibertsitate** burujabeak izango liritekeen sistema zabal baten barnean bilduak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Beti uste izan dugu **unibertsitate** elebidunak aukera anitz eta aberasgarriak eskaintzen dizkiela ikasleei. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Washingtongo estatuan, ikasle gehiago dago **unibertsitate** korporatibo hauetan ohiko unibertsitateetan baino. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Hona hemen 22 urteko neska zoragarri bat, Caracaseko **Unibertsitate** Zentralean karrera serio bat bukatzen ari dena. **Pako Aristi**
500 metro eskasean Nevadako **unibertsitate** entzutetsua eta kasinoren betetako kalea biltzen dira. **Berria - Kultura**
Yale eta Columbia **unibertsitate** ospetsuek eta Vietnamgo veteranoek ere parte hartzen dute desflean. **Harkaitz Cano**
Prestigio hori, kompetentziak agintzen duen mundu honetan, lotuago egongo da hurrengo urteetan **unibertsitate** jakin batekin, eta ikasketa mota batzuekin. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Kalitatezko **unibertsitate** bat eskatzen du. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
- Alcalako **unibertsitate** sortu berrian sartu zen gai liberalak, filosofia naturala eta morala, bai eta teologia eskolastikoa ikastekotan. **Piarres Xarriton**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarren osagaia pertsona dela) ik unibertsitario 3.

Kopuru horiek txikiagoak izango dira herri jakin batean **unibertsitate** ikasle asko baldin badaude. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Pentsatu, ni neu **unibertsitate** lizentziaduna banaiz seguru ez dudala Espainia aukeratuko lan bila joateko. **Berria - Euskal Herria**
Carles Bonet **unibertsitate** irakasleak eta Carlos Rojas idazleak. **Berria - Kultura**
Véronique Duché **unibertsitate** erakaslearen zuzendaritzapean. **Herria**

Auzi bi horien inguruan Hezkuntza Saila eta **Unibertsitate** agintarietako ardurakoa. **Berria - Euskal Herria**

Anjeles Iztueta Hezkuntza eta **Unibertsitate** sailburua, Juan Ingacio Perez EHUko errektorea eta Inaxio Oliveri Mondragon Unibertsitateko errektorea. **Berria - Euskal Herria**

Joan den otsailaren amaieran, **Unibertsitate** sailburuorde kargua hartu zuen Ibone Amezagak. **Berria - Euskal Herria**

Madrid da **unibertsitate** ikertzaile gehien duen erkidegoa. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Istilu horietan buru-belarri sartuta ibiliko ziren XIII. mendeko **unibertsitate** -intelektualak. **Askoren artean**

Intelligentsia paristar kutsukoa, **unibertsitate** jendea, aktore-ikasleak... **Iñaki Iñurrieta**

Ez dago **unibertsitate** aditu nahikorik gizarte batean dauden industria, merkataritza eta ekonomia eremu guztietarako beharrak betetzeko. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Bera, **unibertsitate** ikasketaduna; ni, aldiz [...] idazkari xume bat, gehienez ere ingeles eta informatika ikastaroren bat egina duena. **Patxi Zubizarreta**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa bigarren osagaia bestelakoa dela)ik **unibertsitario** 4.

Berehala ohartuko gara **unibertsitate** eredu eta mota asko dagoela. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Unibertsitate autonomiaren inguruko arazo batzuk. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Unibertsitate mundua, literatur mundua eta kultura mundua ongi ezagutzen zuenari. **Jon Alonso**

Euskal **Unibertsitate** Sistema kalitate printzipioekin txertatu beharko da Europan. **Berria - Euskal Herria**

Euskal Herriko **unibertsitate** sisteman, Euskal Herriko Unibertsitateak du pisurik handiena, eta bere gain hartzen du **unibertsitate** mailako ikasle guztien %70 ongi prestatzea lan merkaturako. **Pello Salaburu**

Sektore edo alor berean ez da berdin irabazten bigarren mailako edo **unibertsitate** mailako titulua edukita. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Unibertsitate atariko ikastaroa zen, eta heldutasun froga esaten zioten azterketa orokorra gainditzea zuen helburu. **Joxerra Garzia**

Baduzu **unibertsitate** titulurik? **Unibertsitate** irakaskuntzarako egiten den ahalegin ekonomikoa (BPGaren ehunekoetan): [...]. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Unibertsitate Argitalpenaren Espainiako Saria jaso du. **Berria - Kultura**

Unibertsitate fundazio baten lanari esker. **Joxan Elozegi**

Bereizketa hau unibertsitatekoak ez ziren zenbait ikasketa profesionali **unibertsitate** maila eman zitzaientean sortu baitzen. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Txosten berezi bat eskatu zioten **unibertsitate** arazoez esperientzia handia zuen jakitun talde bati. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Gure lagun euskaldunek lana egiten dute gogotik eta **unibertsitate** girotik at daude. **Pako Aristi**

Münster hiria Donostia adinaxe da biztanlez, baina **unibertsitate** -hiria da, eta unibertsitatea herrian zehar barreiatuta dago. **Joxerra Garzia**

Unibertsitate gune horiek ez dute osatzen lehen definitu dugunaren antzeko egiturarik. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Unibertsitate poloaren garapenak Baiona Tipiko bizi-kalitatea hobetuko du Herriko Etxearen iritzi. **Berria - Euskal Herria**

Botereak ghettoan nahi ditu beti ahots kritikoa, eta horregatik paratzen ditu **unibertsitate** campusak hiri-guneetatik urruti. **Joxerra Garzia**

Bi sari Nafarroako **Unibertsitate** Klinikarentzat. **Berria - Gaiak**

Ez nuen **unibertsitate** -egoitzako gelan bakarrik egon nahi. **Joseba Urteaga**

Lehen zikloko **unibertsitate** ikasketak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Bi edo hiru aldiz hasi eta utzi dik **unibertsitate** -karrera bat, beti ezberdina. **Iban Zaldúa**

EAEko **Unibertsitate** Legeak prozesu luzea izan du lege bilakatu arte. **Berria - Euskal Herria**

EHUko Gizarte Kontseiluko kidea eta **Unibertsitate** Koordinaziorako Kontseilukoa. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Hezkuntza, **Unibertsitate** eta Ikerketa Sailak onetsia. **Patxi Altuna**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gottfried Wilhelm Leibniz edo Immanuel Kant, Filosofia **Unibertsitate** germanikoetan sartzeari ahalbidetu zutenak. **Askoren artean**

6 unibertsitatea daukan eraikuntza edo eraikuntza-multzoa.

Unibertsitatea travertino-harrizko jauregi handi bat zen baina itxuran intziriaren harresia ematen zuena. **Fernando Rey**

Hain zen handia Azpilkuetaren ospea non Portugaleko erregeak Coimbra **unibertsitatea** eraiki zuelarik 1537an, goiko mailan ezarri nahi izan baitzuen, bereganatuz hasteko Irakasle Nafarra Kanonen "Prima" deitu Lehen aulkiarentzat. **Piarres Xarriton**

Hilaren 11n Habanako **Unibertsitateko** Areto Nagusia hitzaldia du Agirrek. **Edorta Jimenez**

Unibertsitateko bulegoan nengoen, hiri zaharreko eraikinean. **Felipe Juaristi**

Unibertsitateko gela baten barrenean geunden ikasleak. **Joan Mari Irigoien**

Unibertsitateko korridore luzeetan. **Aingeru Epaltza**

Urdazubitik iritsi berria, Tormes ibaiari bizkara emanda dago eta txundituta begien aurrez aurre dauzkan hain eraikuntza ederrekin -katedrala, **unibertsitatea**, irlandarren Kolegio Nagusia...-, eguzkirik ezkatuzten ez zaion inperio handiaren emaitza harrigarriekin. **Anjel Lertxundi**

Katu hila ate aurrean utzi ziguten eguna, edo pintada iraingarriak, **unibertsitatean** nire kontra egin zituzten pintadak. **Mikel Hernandez Abaitua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bartzelonako unibertsitate autonomoko (13)

eaeko unibertsitate (39); **eaeko unibertsitate legea** (9); **eaeko unibertsitate legeak** (7); **eaeko unibertsitate legearen** (7); **espainiako unibertsitate** (9); **europako unibertsitate** (18); **euskal herriko unibertsitate** (24); **euskal unibertsitate** (53); **euskal unibertsitate sistema** (13); **euskal unibertsitate sistemaren** (15); **hezkuntza eta unibertsitate** (6)

madrilgo unibertsitate autonomoko (8); **madrilgo unibertsitate konplutenseko** (5); **madrilgo unibertsitate konplutenseko** (5); **mexikoko unibertsitate** (7); **munduko unibertsitate** (9); **nafarroako unibertsitate** (115); **nafarroako unibertsitate publikoa** (7); **nafarroako unibertsitate publikoak** (21); **nafarroako unibertsitate publikoan** (26); **nafarroako unibertsitate publikoaren** (8); **nafarroako unibertsitate publikoko** (34)

unibertsitate arloko (5); **unibertsitate aurreko** (12); **unibertsitate autonomo** (6); **unibertsitate autonomoan** (5); **unibertsitate autonomoko** (25); **unibertsitate barnean** (8)

unibertsitate erabakitzailea (11); **unibertsitate eredu** (5); **unibertsitate eta ikerketa** (58); **unibertsitate garaian** (7)

unibertsitate ikasketak (39); **unibertsitate ikasketen** (5); **unibertsitate ikasle** (7); **unibertsitate irakasle** (9); **unibertsitate irakasleak** (12); **unibertsitate katolikoan** (6); **unibertsitate konplutenseko** (7); **unibertsitate konplutenseko** (5); **unibertsitate kontuetan** (7); **unibertsitate legea** (38); **unibertsitate legeak** (21); **unibertsitate legearen** (19); **unibertsitate mailako** (18); **unibertsitate mailan** (7); **unibertsitate nazionaleko** (8)

unibertsitate pribatu (5); **unibertsitate pribatuak** (8); **unibertsitate pribatuek** (5); **unibertsitate publiko** (8); **unibertsitate publikoa** (15); **unibertsitate publikoak** (37); **unibertsitate publikoak nup** (6); **unibertsitate publikoan** (40); **unibertsitate publikoaren** (19); **unibertsitate publikoan** (6); **unibertsitate publikoetan** (16); **unibertsitate publikoko** (41); **unibertsitate sistema** (34); **unibertsitate sistema europan** (5); **unibertsitate sistemak** (9); **unibertsitate sisteman** (6); **unibertsitate sistemaren** (28); **unibertsitate sistemaren legea** (7); **unibertsitate sistemaren legearen** (7); **unibertsitate titulua** (7)

berezko unibertsitatea (10); **deustuko unibertsitatea** (19); **euskal herriko unibertsitatea** (31); **euskal unibertsitatea** (60); **mondragon unibertsitatea** (6); **nafarroako unibertsitatea** (7); **udako euskal unibertsitatea** (22); **udako unibertsitatea** (8); **unibertsitatea nahi** (6); **unibertsitatea sortu** (5); **unibertsitatea sortzeko** (5)

columbiako unibertsitateak (6); **deustuko unibertsitateak** (30); **euskal herriko unibertsitateak** (58); **euskal unibertsitateak** (38); **gure unibertsitateak** (7); **mondragon unibertsitateak** (9); **nafarroako unibertsitateak** (16); **salamancako unibertsitateak** (5); **udako euskal unibertsitateak** (34)

unibertsitateak antolatutako (8); **unibertsitateak berak** (10); **unibertsitateak dituen** (6); **unibertsitateak egindako** (8)

columbia unibertsitatean (8); **columbiako unibertsitatean** (6); **deustuko unibertsitatean** (63); **euskal herriko unibertsitatean** (49); **kaliforniako unibertsitatean** (6); **madrilgo complutense unibertsitatean** (5); **mondragon unibertsitatean** (7); **nafarroako unibertsitatean** (10)

unibertsitatean ari (5); **unibertsitatean bertan** (5); **unibertsitatean dauden** (5); **unibertsitatean egin** (11); **unibertsitatean egindako** (6); **unibertsitatean egiten** (16); **unibertsitatean egiten den** (7); **unibertsitatean eman** (5); **unibertsitatean ematen** (5); **unibertsitatean ezagutu** (12); **unibertsitatean hasi** (11); **unibertsitatean ikasi** (10); **unibertsitatean ikasle** (6); **unibertsitatean ikasteko** (10); **unibertsitatean ikasten** (15); **unibertsitatean irakasle** (14); **unibertsitatean izan** (8); **unibertsitatean lan egiten** (6); **unibertsitatean sartu** (11); **unibertsitatean sartzeko** (24); **vienako unibertsitatean** (5)

euskal herriko unibertsitatearekin (8)

berezko unibertsitatearen (5); **deustuko unibertsitatearen** (16); **euskal herriko unibertsitatearen** (20); **euskal unibertsitatearen** (38); **euskal unibertsitatearen aldeko** (8); **mondragon unibertsitatearen** (5); **nafarroako unibertsitatearen** (6); **udako euskal unibertsitatearen** (7)

3 (izenondoekin)

Haren kristalean **unibertso** osoa islatzen zen. [Juan Garzia](#)

Unibertso osoan miresten den ordena zoragarria. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Ikuspegi hau nahiko murrizgarria da, uste baitu **unibertso** fisikoa azal daitekeela soilik oinarritzko osagaien elkarrekintza material eta energiakoei erreparatuz. [Askoren artean](#)

Itzulgarria zen denbora, iragana eta geroa ezertan bereizten ez ziren **unibertso** aldaezin batean. [Juan Garzia](#)

Pentsatu nuen Argos eta ni **unibertso** desberdinetako partaide ginela. [Juan Garzia](#)

4 (hitz elkartuetan)

Hara nola eraikitzen duen margolariak, poetak zein zientzialariak bere **unibertso** -ikuspegia. [Juan Garzia](#)

Gure argudioak arautzen dituen adigai-**unibertsoarekiko** gatazka bat. [Juan Garzia](#)

5 irud/hed

Bere gelan baitu bere **unibertsoa**, eta zentro jakin bat du **unibertso** horrek: ordenagailua. [Joxerra Garzia](#)

Unibertsoa (bestelako deituraz, Liburutegia) galeria hexagonalez osaturik dago. [Anjel Lertxundi](#)

Izar bezain bat hitz ote diren, hizkuntzen **unibertsoan**. [Herria](#)

Askoren ustez [...] bizidunek, fisikako kontzeptuen **unibertsoa** murrizturik, guztiz azaldu ezin diren ezaugarri bereziak dituzte. Antropologiak edozein lagunarte, talde, tribuk bere identitate nolako elementuekin osatua duen azaltzen digu, eta nola eraikitzen/antolatzen duen bere **unibertsoa**. [Askoren artean](#)

Barrieri ospea ekarri zion **unibertsoa** (Sekula Betiko Lurraldea, Peter Pan, Kako-oker pirata...) idazlearen beraren bizitza latzean dago oinarrituta. [Julen Gabiria](#)

Greziar geometriaren **unibertsoan**, irudi bat ez da existitzen, baldin eta ez bada zuzenen eta zirkuluen bitartez soil-soilik eraiki. [Jon Muñoz](#)

Pitagorikoei esker, zabaldu egin zen matematikaren **unibertsoa**. [Jon Muñoz](#)

Formula bat interpretazio baterako egiazkoa izango da interpretazio horren **unibertso** elementuez osatutako segida guztiak formula asetzen badute. [Askoren artean](#)

Karlistak eta liberalak izaten eta **unibertsoa** salbatzen jarraitzen dugu, mundua bakean utzi eta proiektu txiki batzuk etxean ongi soluzionatzen lan egin ordez. [Joxe Azurmendi](#)

Bertsolaritza, Bertsosale Elkartean inguruan horrela egituratuta, ezinbesteko erreferentzia da gaur egun euskal kulturaren **unibertsoan**. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

6 (irud/hed, izenondo eta izenlagunekin)

Han hankarteko zerak dantzatu behar dira, gernubideak eta **unibertso** ezkutuetoako zulo beltzak, eta begia eta hizpidea hankartean jarri ezkerre, ez dago bi sexuak berdintzeko modurik. [Iñaki Seguro](#)

Kutxa hartan, **unibertso** zorientsu hartan sartu nahi nuen, denbora guztian barre egiten eta dantzan ari ziren eta. [Juan Kruz Igerabide](#)

Elikagaiaren eta naturaren arteko lokarria eten egiten du mundializazioaren ondoriozko deslokalizazioak eta kontsumitzailea bere **unibertso** biokulturaletik hein batez bereizten, urruntzen du. [Edorta Agirre](#)

Balioen **unibertso** konplexuan ordena edo sistema bat lortzeko saioak asko eta oso diferentek egin dira. [Joxe Azurmendi](#)

Ekuazio aljebraikoei eabazpen sorta bana izendatu ahal izateko bezain ugariak ziren, eta haien **unibertso** naturala ziren, azken batean! [Jon Muñoz](#)

Miroren **unibertso** sinbolikoko azken artelanak, Italian. [Berria - Kultura](#)

Egunaren ordu batzuetan, bestetik, mezu misterioitsu, Morsezko tikli-takla, txistu modulatu eta giza ahots itxuraldatu eta osagabetuzko **unibertso** korapilotsu oso bat agerrarazten zuen. [Juan Garzia](#)

C.G. Jung gai zen adierazteko leize subkontzientea [...] ez zela kaos bereizgabe bat, **unibertso** egituratu bat baizik. [Iñaki Mendiguren](#)

Ja ez omen baikara bizi Erdi Aroko bastida edo hiri harresitu bateko **unibertso** inguratu txikian. [Joxe Azurmendi](#)

Zortzi idazle hauek zortzi **unibertso** ezberdin eraiki dituzte. [Ana Urkiza](#)

Eta hala populatuko da izaki berriz **unibertso** matematikoa. [Jon Muñoz](#)

Hegazkinekiko **unibertsoa** eta lurrekoa. [Josu Zabaleta](#)

7 (irud/hed, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Asegarria gertatzen den ala ez ikusteko, aldagai hori interpretazio-**unibertso** elementu guztiekien ordezkatu behar dugu. [Askoren artean](#)

Koilarakadaz koilarakada hustu beharreko ozeanoa baino askoz zabalago azaldu zitzaizkan nostalgia-**unibertso** lazgarri hura guztia. [Joxan Eloseg](#)

Badira, ordea, bestelako zenbaki-**unibertsoak**, eta haietan, hain zuzen, bi gehi bi ez dira lau izaten, beste zerbaitek baizik. [Jon Muñoz](#)

Paradoxa larria biziko dugu: gizarteak sekula baino informazio zabal, zehatz eta hoberen izango duen garaietan, elikatze **unibertsoa** geroz eta soilago, pobreako bilakatuko da, hainbat gaitzek jota. [Edorta Agirre](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere unibertso (5); beste unibertso (4); bi unibertso (4); bi unibertso horiek (3); gure unibertso (4)

unibertso bat (12); unibertso batean (5); unibertso hau (5); unibertso hori (3); unibertso horiek (5); unibertso horretan (3); unibertso oso (3); unibertso osoa (28); unibertso osoa hasten (4); unibertso osoak (3); unibertso osoan (5); unibertso osoaren (9); unibertso osoko (3); unibertso pertsonal (3); unibertso zabala (3); zortzi unibertso (4)

bere unibertsoa (4); gure unibertsoa (3); obaba izeneko unibertsoa (3); unibertsoa bera (3); unibertsoa nola sortu (3); unibertsoa osatzen (3); unibertsoa sortu (7) unibertsoak krak egiten (3)

bakarrik unibertsoan (4); unibertsoan zehar (4)

gure unibertsoaren (5); unibertsoaren erdian (6); unibertsoaren erdigunea (3); unibertsoaren hasiera (3); unibertsoaren osotasunean (7); unibertsoaren perfekzioa (3)

unibertso elementu (3); unibertso indar (3)

unibitelino *izond* bikie mintzatuz, arrautza bakarretik datozenak.

Edozer egiteko gauza denera, hala nola formola injektatzea bihotzean biki judu nahiz ijitoi, begi heterokromatikoak ateratzeko; edo tifoidea inokulatzea haurrei, biki **unibitelinoen** eta bibitelinoen erreakzioak erkatzeko. [Juan Garzia](#)

uniboko *izond* hitzez eta kideko mintzatuz, beti esanahi bera duena.

Irudiaren markoak oso balio **unibokoa** izan du luzaro: irudi artistiko bat zela adierazten zuen, eta horrenbestez hari zegokion bezala begiratzekoa zela. [Josu Zabaleta](#)

Esanahi anitzeko bitarikotasunetik harantz, ekintzaren erregistroa da **unibokoa**. [Joseba Zulaika](#)

Zeren ilusio "premia" ez baita handituz joan, besterik gabe eta zentzu **uniboko** batean, Mendebaldeko artean. Halabeharrik nahi izan zuen, edo beharbada zoritxarrak, hitz **uniboko** hauek lerro bakarrean elkar zitezen, modu honetan legenda baten indarrarekin aurkezten direlarik, distiko bat bezalakoak dira, erranairu erantzunezina bezalakoak.

[Josu Zabaleta](#)

Hemen izateari buruz mintzatzeko modu **unibokoa** bilatzen du. [Askoren artean](#)

unibokoki *adlag* era unibokoa.

Irudi horiek hor daude gure aurrean, **unibokoki**, gure begien aurrean; euskarri baten gainean geratu eta hartatik bereizi ezin daitekeen jalkin baten emaitza dira. [Josu](#)

unibozitate *iz* unibokoa denaren nolakotasuna.

Nozio komun, unibertsal eta propioen tematizazioaren oinarrian Izateari buruzko tesi spinoztarra dago: **Unibozitatea**. **Piarres Xarriton**

unidade ik unitate.

unide *iz* inudea.

Jondone Joane Bautistaren elizan egunero meza kantatua, emazteari zor zaiona pagatua izan dakiola, ilobarentzat arta handiz zainduak dituen kapitain jantzi higatua, haurren **unidearentzako** mihisea... **Aurelia Arkotxa**

unifamiliar *izond* etxez mintzatuz, familia bakarrarentzako.

Etxe gehienak **unifamiliarrak** eta portxedunak ziren, eta aldiari-aldiari gurutzatzen genituen belardietan zaldiak eta behiak zebiltzan larrean, nik inoiz ikusitako behirik txurienak. **Bernardo Atxaga**

Herri batzuetako hirigintza planak geratzen den lursail apurra etxe **unifamiliarrekin** bete dezala saihestea du helburu. **Berria - Harian**

Etxe **unifamiliarrean** bizi bagera egunen batean, txakur handi-handia edukiko degu. **Jon Arretxe**

uniformatu, uniforma, uniformatzen 1 du *ad* uniforme bihurtu.

Informatu aitzakian, **uniformatu** egin nahi gaituzte. **Joxerra Garzia**

Asmoz eta jakitez irabaziko dugu, nolabait irabaztekoan, **uniformatzeko** joeraren eta identitateen arteko lehia. **Anjel Lertxundi**

Nire hobe beharrez behartzen naute uniforme kakikolorea janztera, neure burua besteenarekin ere **uniformatzeko** itxaropenez, Zuzendari txit agurgarriari behin entzun nion bezala. **Anjel Lertxundi**

2 uniformea jantzi.

Arrunki jantzia ibili ohi zen, trajeriak gabe, baina **uniformaturik** zihoala ematen omen zuen, halakoxea baitzen pausajearen erakusten zuen zeremonia. **Joxean Agirre**

Keinu bizkorra egin du eskuaz eta aguro asko iritsi zaio zuriz **uniformaturiko** zerbitzari bat. **Joxemari Iturralde**

Hall-aren alde batean, mahai baxu eta luze baten atzean, atezain beltz bat zegoen jesarrita, **uniformatua**, goiz izanda ere jada aspertu itxurarekin, ikusi gabe begiratzen.

Iñaki Zabaleta

3 (era burutua izenondo gisa) uniformeduna.

Parean neuzkan gizaseme **uniformatu** haiek, ez nituela batere erreparatzen, eta ez ikusten ere. **Txillardegi**

Bost gizon ziren, haietako hiru kapeladun polizia **uniformatuak**, eta beste biak paisanoz jantziak. **Josu Landa**

Atari ilun, bi orrikoaren aurrean, atezain **uniformatu** sendo-sendoa zegoen zutik, beroki luze, hondar-koloreko bat soinean. **Matías Múgica**

Zerbitzari **uniformatu** batek gabonka hartu eta mahai bateraino lagundu zigun. **Xabier Montoia**

Aspaldiko ezagunei bezala agur egin nion han-hemen jaun honi edo hari -zibilez jantziak nahiz **uniformatuak** -. **Matías Múgica**

Hiritar espainol edo frantses **uniformatu** estandar gisa bakarrik egin ahal izango baitzuten karrera. **Joxe Azurmendi**

uniformatzaile *izond* uniformatzen duena.

Estatuek indarkeria, zinizismoa eta hedabideen erabilera sentimentala dute beren politika **uniformatzailearen** oinarri. **Markos Zapiain**

Estatuaren indar **uniformatzaileak** agerian uzten. **Askoren artean**

Nafarroako nortasuna elkargune gisa ulertzen dute, «ikuspegi esentzialista eta **uniformatzaileetatik** urrun». **Berria - Harian**

Kalkulua, Estatua legetxe, berez da menperatzailea, **uniformatzailea**, hotza. **Markos Zapiain**

Frantziako egungo Errepublikak elitista **uniformatzailearena**. **Markos Zapiain**

uniformatze *iz* uniforme bihurtzea.

Irakurketaren aldeko aldarrikapen ozena egiteko erabili zuen hitza, beti ere **uniformatze** horren aurka, baina beti ere zentzu berean: «Ez gaude gehiago frantsesez mintzo zen Europaren garaian, baina hori ez da frantsesa baztertzeko arrazoi bat izan behar. **Berria - Kultura**

uniforme 1 *izond* beti-batekoa, beti forma bera duena: aldatzen ez dena.

Laringe hotsa **uniformea** da, eta hotsa zuzen-zuzenean, glotisak emititzen duen eran, atzemango bagenu, nolakotasun beti-batekoa irudituko litzaiguke. **Isabel Arrigain**

Newton-ek eta Schopenhauer-ek ez bezala, zure arbasoak ez zuen halako denbora **uniforme**, absolutu batean sinesten. **Juan Garzia**

Honela, esandako gauzen aniztasunaren ordez nolabaiteko testu **uniforme** handi bat ipintzen da. **Xabier Arregi**

Praktika eta doktrina **uniformearen** bidez. **Iñaki Mendiguren**

Batasuneko herri guztietan diru politika **uniformea** ezartzea ez litzateke arazo iturri, baldin eta herri horiek errenta, langabezia eta inflazio berekoak balira. **Iñaki Heras**

Tsin She Huang-tiren egintzaren ondorioa Gizarte Sinikoa ikus-hizkuntza **uniforme** batez hornitzea izan zen. **Iñaki Mendiguren**

Handik beste hiru edo lau segundora, gristasun **uniforme** bat besterik ez du jasotzen begiak. **Irene Aldasoro**

Bi irudi positiboren artean dagoen zurtasun **uniformea** eta aiherga bailitzan. **Xabier Arregi**

Argitasun **uniformeko** eremu monotonoetan. **Irene Aldasoro**

Unibertsoa gobernatzen duen "lege" metafisikoa natura **uniforme** eta halabeharrezko baten lege inpersonalizat hartzen dute. **Iñaki Mendiguren**

Horrela desintegratioaldiak, osotasun gisa, prozesu **uniforme** baten itxura duela, kasu bakoitzean iraunaldi **uniformearekin**. **Iñaki Mendiguren**

Irakurleak bere esku du orain azterlan osoaren laburpen **uniforme** bat, buru argi batek egina. **Iñaki Mendiguren**

Errealitate enpirikoan, ezagunak dialektal, isoglosak eta isoglosa sortak izaten dira, eta ez hizkuntza kode monolitiko eta **uniformeak**. **Isabel Arrigain**

Usain hordigarria zerioz hostaila hezeari, iratzeari, zuhaitz-azal puska goroldiotsuen tapiz bigun, labain eta **uniformeari**. **Xabier Olarra**

Langileria **uniformea**, interes gatazka eta desberdintasun gabekoa, noski. **Iñaki Heras**

Bioaniztasuna leku askotan gero eta **uniformeagoa** dela diote, eta espezieen galera, gainera, oso erritmo bizian ari dela gertatzen. **Berria - Gaiak**

Ohiko produktuak geroz eta estandarrago, homogeneoago, **uniformeago** izango ditugu. **Edorta Agirre**

Eraketa-arauen ardatz-arauak erakargarriak ez da aldi berekoa modu **uniformean** : badira denboran neutroak diren harremanak, adarrak, deribazioak. **Xabier Arregi**
Sistema kapitalista ez da, noski, modu erabat **uniformean** gauzatu munduan barrena. **Iñaki Heras**

• 2 iz talde baten jantzi bereizgarria, kide guztiek eramaten dutena.

Hementxe daukazu **uniformea** : txamar lodia, galtzak, txapel gorria [...], bota pare bat ere bai, apreta pare bi. **Txillardegi**

Ez zitaidan **uniformean** botoi bat bakarria ere geratzen. **Harkaitz Cano**

Soinean ofizial errusiarraren **uniformea** zeraman artean. **Karlos Zabala**

Harekin, bertze gizaseme bat, **uniformerik** ez eraman arren, zomorroi kirats are nahastezinoagoaz kutsatua. **Aingeru Epaltza**

Hamarren bat urte ziren ez zuela **uniforme** hura jantzi. **Xabier Olarra**

Dendako enplegatu guztien **uniformea** jantzen zuen, atorra urdin argia eta gona marroia, itsusia pestea. **Aingeru Epaltza**

Begiak betaurreko beltz lodiz estaliak zituen, **uniformeko** paparrean nabarmen komisario izar gorria zegoen. **Felipe Juaristi**

Bere txoferraren **uniformearen** jaka grisa eman zidan. **Alberto Ladron Arana**

Harengana hurbildu, **uniformetik** bularraren parean heldu nioan, eta lurretik altxatu nian. **Xabier Olarra**

Uniformez jantzita zegoen, baina inolako bereizgarririk gabe. **Karlos Zabala**

Amorraturik, **uniformez** jantzitako bi babu haien harropuzkeriarengatik. **Unai Iturriaga**

Hiruki berde bat zuen **uniformeari** josirik. **Eneko Bidegain**

Uniformezko ertzain xehe moduan lan egiten zuenean krematorio bat edo beste bisitaztea tokatu izan zitzaion. **Harkaitz Cano**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Xume jantzita zegoen, guardiako ehiztariaren ofizialen **uniforme** arruntaz. **Karlos Zabala**

Uniforme berria zutela soinean jantzita. **Felipe Juaristi**

Kolejioko **uniforme** berria. **Matías Múgica**

Mikel Strogoffek **uniforme** militar dotore bat zuen jantzirik. **Karlos Zabala**

Pentsatu nuen zein dotore, zangar eta kementsu ziruditen gizonetako haiek beren **uniforme** distiratsua jantzita. **Mirentxu Larrañaga**

Eskuadra eder bat ageri zen, lehen inperioko **uniforme** distiratsuz jantziak: kasaka berdea, galtza gorriak, azpantar zuriak, larruzko mantala eta kapelu luze iledunak.

Askoren artean

Han agertu ziren egun batetik bestera kalean **uniforme** urdinarekin eta oso arraro orraztuta. **Joseba Sarrionandia**

Egun, sartzeko eskaera egiten duten ia guztiek jantzen dute **uniforme** beltza. **Alberto Ladron Arana**

Soldaduen modura lerroturik, soldaduen modura jantzirik, **uniforme** dotore eta garbitu berriekin. **Felipe Juaristi**

Frantses **uniformea** soinean, buru makur eraman zituzten kontzentrazio kanpamenduetara. **Eneko Bidegain**

Zutik geratu zen Zeuner, kanpainako **uniformean**, eskuak atzean kapeluz elkarturik. **Felipe Juaristi**

Lehenbizi armairutik galako **uniformea** atera, eta hari begira egon zen denbora puska batean. **Xabier Olarra**

Sarraskia ikusi duten kazetariet diotenez eskolako **uniformeekin** zeuden neskatoak. **Pako Aristi**

Neskato polita da, moja eskolako **uniforme** eta guzti. **Urtzi Urrutikoeetxea**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Zer berri dago herrian? -galdegin zion **uniforme**-sorbaldetan sarjentu-galoiak zeramatzen batek. **Felipe Juaristi**

Ederki ematen zionan **uniforme**-jantziak, harro-harro erakusten zinan pubean. **Mirentxu Larrañaga**

Uniforme-jantzian egindako lehendabiziko aste bakan haietan, ez nuen izan astirik inoren hutsunea nabaritzeko. **Mirentxu Larrañaga**

Camillaren gelan zegoen eta Geralddek orduantxe ikusi zuen bigarengoz **uniforme**-jantzirik gabe. **Mirentxu Larrañaga**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tximista bezala sartu zen Kieveko printzea ganberan, gerra **uniformean** sartua. **Felipe Juaristi**

Etsaien hilotz ehortzigebeak dira, batzuk gudu-**uniforme** grisa soinean, eta beste batzuk kaki-jantzian. Eskola-**uniformezko** neskata egokitu zaio zutunik aldamenean.

Mirentxu Larrañaga

Jeneralaren aitaren garaiko gizonak, hungariar estiloko bibote-handiak, bekoki gainean eroritako ile-kizkurrekikoak, igandeko traje beltza edo gala-**uniformea** soinean zutenak. **Xabier Olarra**

Autobusean zihozten gehienek turista **uniformea** jantzia zuten (fraka motzak eta haien bidaiak orotarazten zituzten elastikoak). **Patxi Zubizarreta**

Komandante-**uniformea** eta kordoi urre-koloreak zeramatzen, jeneralen laguntzaileen modukoak. **Koro Navarro**

Argazkian, aitek enperadorearen guardiako kapitain-**uniformea** zeukan soinean. **Xabier Olarra**

Erretratu berrian aita beste militar batzuekin ikusten zen soldadu **uniformearekin**. **Joseba Sarrionandia**

6 ez-uniforme izond

Metafisikariaren analisiak bi osagai oso **ez-uniformeetan** banatzen zuen apriorizko ezagutza hutsa. **Ibon Uribarri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere uniforme (8); **beren uniforme** (3); **ssen uniforme** (3); **uniforme beltza** (6); **uniforme beltzaz** (3); **uniforme berria** (7); **uniforme gorrin eskarata** (4); **uniforme militarra** (3); **uniforme militarrek** (3); **uniforme urdinez** (3)

bere uniformea (4); **eskolako uniformea** (4); **galako uniformea** (3); **gudaldiko uniformea jantzita** (3); **uniformea eramaten** (3); **uniformea jantzi** (4); **uniformea jantzirik** (4); **uniformea jantzita** (12); **uniformea jantzita zuela** (4); **uniformea jantzen** (4); **uniformea soinean** (9); **uniformea zeraman** (3)

gero eta uniformeagoa (3)

koloreko uniformearekin (3)

uniformerik gabe (6); **uniformerik gabeko** (3)

uniformez jantzita (14); **uniformez jantzita zegoen** (4); **uniformez jantzitako** (7)

uniformedun izond/iz uniformea jantzen duena.

Gizon **uniformedunak** zeuden bi txalupetan, eta atzera eta aurrera zebiltzan. **Koro Navarro**

Polizia **uniformedunen** itxurazko gizabideak [...] ez zuen nire kolera apaldu. **Aingeru Epaltza**

Beste jeep bat eta dozena erdi bat soldadu **uniformedun** baitzeuden atarian zelatan. **Jon Muñoz**

Udal polizia horietako hiltzaile **uniformedun** zein uniformerik gabekoek beren lan zikina eginda, [...]. **Berria - Mundua**

Uniformedun guztiek ibilera patxadatsua zuten: ematen zuen paseatzea zutela lanbide. **Anjel Lertxundi**

Atzetik bost gizon datoz, bost gizon armatu, lau gizon errepublika berriko **uniformedunak**, zibilez baina beltzez jantzia bosgarrena. **Felipe Juaristi**

Uniformedunen ugariak harritu ninduen. **Anjel Lertxundi**

uniformeki adlag era uniformean.

Ez dago hizkuntza koderik hitzun taldean **uniformeki** banatua dagoenik. **Isabel Arrigain**

Kontua da diskurtsoa bere laztasun ugarietan gordetzea; eta ezabatzea, ondorioz, **uniformeki** galdutako eta berriro aurkitutako kontraesan baten gaia, logosaren ezberdindu

gabeko elementuan erabakitzen dena eta berriz jaitzen dena beti. [Xabier Arregi](#)

Hau dena aurkitzen da [uniformeki](#) eta modu berean geometrian, mekanika arrazionalan, humoreen eta germenen fisiologian, [...]. [Xabier Arregi](#)

Non zegoen Ekialde Urruneko bi gizarte haien eta Mendebalde modernoaren arteko bigarren topaketaren lehen fasearen bukaera [uniformeki](#) tamalgarri honen azalpena?

[Iñaki Mendiguren](#)

uniformetasun *(28 agerraldi, 6 liburu eta 4 artikulutan)* 1 iz uniforme denaren nolakotasuna. ik [uniformitate](#).

Naturaren [uniformetasunaren](#) argitan. [Iñaki Mendiguren](#)

Legearen pixkanakako estandarizazioak gutxi gorabeherako [uniformetasuna](#) lortu zen estatu unibertsalean beste etapa bat ere izan zen. [Iñaki Mendiguren](#)

Taldeak [uniformetasuna](#) eskatzen die kide guztiei, eta ez ditu erraz onartzen desberdintasunak, eta oraindik gutxiago disidentzia. [Luis Elberdin](#)

Hobe da diferentzia errespetatzea, balioestea eta bultzatzea, eta ez [uniformetasun](#) militarista zurrun eta ankerra ezartzea. [Luis Elberdin](#)

Nik ez nuke esango globalizazioak berez [uniformetasunera](#) garamatzanik. [Berria - Gaiak](#)

Merkatuak [uniformetasunera](#) jotzen du. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Gizarte-kolapsoa gertatu orduko, hazkundealdiaren ezaugarri den aniztasun eta desberdintasunerako joera [uniformetasunerako](#) joerak ordeztzen du. [Iñaki Mendiguren](#)

2 (hitz elkartuetan)

Mundu sinikoan, bestalde, Tsin She Huang-tik era berezian lege- [uniformetasun](#) ekumenikoa ezarri zuen kolpe batean. [Iñaki Mendiguren](#)

Hamaikagarren mendearen erdialdera, liturgi [uniformetasunaren](#) alde Erromatik eta Konstantinoplatik sorturiko mugimendu aurkakoek talka egin zutenean, [...]. [Iñaki Mendiguren](#)

Interes berezia izaten dute neurri estandarrek, eraginkortsunez indarrean baldin badaude, eragiten duten gizarte- [uniformetasunean](#) . [Iñaki Mendiguren](#)

uniformismo iz uniformizatorako joera.

Batasunak ez du [uniformismoa](#) esan gura. [Berria - Harian](#)

Kanpoko [uniformismoa](#) imitatu eta geurean ergelkiro komertzializatu ondoren, jatorra eta "ugaria" hau dela esanez. [Patziku Perurena](#)

uniformista iz uniformizatorako joera duena.

PPSOEren arima zentralista eta [uniformista](#) da, ez da gai estatu eredu diferente bat aurkezteko. [Berria - Mundua](#)

Euskal irakurleak gara gu eta, gizadi osoarentzako legegintza bakar berdinen ideiak, edo hizkuntza zientifiko unibertsal bakarrarenak munduan, araudi unibertsal bakarrarenak literatura guztientzat poesian zein prosan, etab., espiritu beti itxi-itxi [uniformistak](#) , beharbada gutxiago entusiasmaturiko gaitu. [Joxe Azurmendi](#)

Euskal Herriko historia egiterakoan tranpak badaude, arriskuak, ikuspegi edo urratsbide [uniformista](#) batetik dena begiratzea. [Berria - Kultura](#)

Spainiaiko historia irizpide [uniformista](#) eta unitarioz lehenestea hezkuntzaren alorrean. [Berria - Euskal Herria](#)

uniformitate *(9 agerraldi, 6 liburu eta 3 artikulutan)* iz uniforme denaren nolakotasuna. ik [uniformetasun](#).

Elurrak ia erabat zuritu zuen itsas portua, gauza guztiei lehen ez zuten [uniformitate](#) bat emanez. [Harkaitz Cano](#)

Eraikin bateratua osaturik, ez ote da berdintasuna eta [uniformitatea](#) nahasteko arriskurik? [Berria - Harian](#)

Ezaugarri ezberdinetako hainbat aldizkari egoteak iragarki salmenta «zaitzen» duela gogoratu zuen, eta [uniformitatea](#) lortzeko ahalegina egiteko eskatu zuen. [Berria - Euskal Herria](#)

Progresoa zeritzon berraren kolpe egin da Estatu modernoaren batasuna, hots, [uniformitatea](#) . [Koldo Izagirre](#)

Pentsamenduaren [uniformitateari](#) unibertsaltasuna deitzen zitzaion. [Itxaro Borda](#)

Gizarte-desintegrazioko fenomenoaren erregularitasun eta [uniformitatearen](#) eta gizarte-hazkundeko fenomenoaren irregularitasun eta aniztasunaren arteko kontraste harrigarri hau. [Iñaki Mendiguren](#)

Sistemaren [uniformitatetik](#) irten nahi duten erantzun desberdinen uena delakoan nago, multifokalitatearen uena. [Iñaki Heras](#)

uniformizatu, uniformiza, uniformizatzen 1 du ad uniforme bihurtu.

Garai batean [...] gure berezitasun sortzailea maite genuen; egun, aldiz, diru-goseak [uniformizatzen](#) gaitu eta egiten gaitu berdin. [Joan Mari Irigoien](#)

Unibertsitatearen esparrua bateratzea ez baita [uniformizatzea](#) . [Berria - Euskal Herria](#)

Irudia [uniformizatzen](#) ari da eta ikuspegi ezberdinak izaten segitzeko, kolektiboa garrantzitsua da. [Berria - Kultura](#)

Diskurtsoaren anorexiari buruz ari naiz, ideiak [uniformizatze](#) ko eta ortodoxiarako joeraz. [Iñaki Heras](#)

Mendeko, esaneko, moldaeraz; [uniformizaturik](#) , normalizaturik. [Luis Elberdin](#)

2 (era burutua izenondo gisa)

Euskal kultura masa konpaktua eta [uniformizatu](#) dela sentitzen dut eta kudeatzaileek hori sustatzen dute. [Ana Urkiza](#)

uniformizatzaile izond uniformizatzen duena.

Funtsezko gatazka etnia bakar baten zerbitzura dagoen aginte [uniformizatzailearen](#) eta mendean harturiko etnia hilduratuaren artekoa da. [Markos Zapiain](#)

Mundu mailako edo Espainia eta Frantziako makroegitismo kultural [uniformizatzaileen](#) aurrean, dibertsifikatuagoak diren bertako egitismo eskuhartzaile txikiak baitute arrakasta eta etorkizuna. [Patziku Perurena](#)

uniformizazio 1 iz uniformatzea.

Zer egin behar dugu gizabanakoaren [uniformizazioaren](#) kontra? [Koro Navarro](#)

Esan liteke [uniformizazioa](#) nagusitu dela artegintzaren jardueran eta jada ez dagoela lekurik partikularitasunerako. [Hasier Etxeberria](#)

Izan ere, globalizazioaren atzean kulturaren [uniformizazioa](#) dago. [Berria - Euskal Herria](#)

Pentsamendu bakarrera eta [uniformizaziora](#) itzultzen ari gara. [Berria - Euskal Herria](#)

Objektatzen bada [uniformizazio](#) linguistikoak kultura eta gizarte historikoaren txirotea dakarrela, Unamuno-k ez daki zer erantzun. [Joxe Azurmendi](#)

Nik garbi daukat ordea, euskaldunon [uniformizaziorik](#) ergelena UEMAK euskal herriskotarako proposatzen digun hauxe berbera dela. [Patziku Perurena](#)

2 (hitz elkartuetan)

Komunitate kokorra [...] dagoeneko zenbait lurraldetan hizkuntzaren biziberritzea gaitze-zorian daukana eta hizkuntza [uniformizaziorako](#) indar berrien desafio zailen aurrean dagoena. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

unikornio *iz* adarbakarra.

Adarbakar edo **unikornioaren** mitoa India aldetik etorri eta ederki txertatu zen Europan, bereziki herri germaniar eta eskandinaviarretan. **Martin Anso**

Ez zituen irakurtzen **unikornioak** agertzen ziren liburuak, ez kilker jakadunak, arrautza hitzunak, ipotx miresgarriak, edota elefante hegaldariak agertzen zirenak ere. **Javi Cillero**

Adarbakoitx, adarbakar edo **unikornio** bat harrapatzeko era bakarra zegoen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Unikornio adarrez eginiko edalontzian. **Martin Anso**

unilateral *izond* alde bakarrekoa, aldebakarra.

Erabaki **unilateral** izan da, gehiengoa ordezkatzen duten sindikatuak kontuan hartu gabe. **Berria - Ekonomia**

Ariel Sharon lehen ministroa Gazatik erretiratzeko plan **unilateral** moldatzen ari da. **Berria - Mundua**

Ariel Sharonen laboristen sostenguarekin onartu du erretiratzeko plan **unilateral**. **Berria - Mundua**

Urtebetean ezer ez dela aldatu oharzten bagara neurri **unilateralak** jarriko ditugu indarrean. **Berria - Mundua**

PANek indarkeria gelditzen ez badu, mugak ezartzeko urrats **unilateralak** egingo dituela agindu du berriki Tel Aviveko gobernuak. **Berria - Mundua**

Erakundeen arteko konpromisoei eutsi behar zaie, edo bestela konpromiso berriak sortu, adostu, betiere elkarrizketaren bitartez, inolaz ere ez akordioak modu **unilateraletan** hautsita eta irtenbide berriak aztertu aurretik formula itxiak planteatuz. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

plan unilateral (6)

neurri unilateralak (3)

unilateralismo *iz* aldebakartasuna.

Estatu Batuen **unilateralismoaren** erasoa gauzatzekotan den honetan, Nazio Batuen Erakundearen (ONU) egitekoa ahulduz bezala joaite da. **Herria**

Kide gehienak nazioarteko gatazkak bide baketsuetatik konpondu eta giza eskubideen unibertsaltasunaren alde daude; bestetik, **unilateralismoaren**, gerra prebentibo- eta giza eskubideen gainean irizpide arbitrarioak ezartzearen alde. **Berria - Mundua**

Bushen gobernuaren **unilateralismoari** gaitzespen mugatua egin zion. **Berria - Mundua**

unilateralki *adlag* era unilateralean.

Ikarrizketari mugak edo baldintzak jartzea, edota gauzatu behar den esparruak **unilateralki** inposatzea, elkarrizketaren hasiera bera zapuztu dezaketen elementuak dira. **Berria - Euskal Herria**

Londresen 2002ko urrian **unilateralki** desegin zituen Irlanda iparraldeko instituzioak berriz abian jartzeko. **Berria - Mundua**

Erresuma Batuak eta Frantziak **unilateralki** inbaditu zuten Sinai, aitzakia faltsu batekin: Egiptok Suezeko kanala legez kanpo nazionalizatu nahi zuela. **Berria - Mundua**

Palestinaren erasoak eten ezean, Tel Avivetik **unilateralki** jokatu du. **Berria - Mundua**

Aldeak alde, garrantzitsua izango da gurean aktore guztiek, hitzartuta edo **unilateralki** erabakita, prozesua abiatu eta sendotu dadin kaltegarri izan litezkeen oztopoak gradualki kentzen joatea. **Berria - Harian**

unionismo *iz* Britania Handiaren eta Ipar Irlandaren batasunaren aldeko higikunde politikoa.

Unionismoaren barruan IRari buruzko beldur eta kezka ulergarriak dauden arren, **unionismo** politikoak IRA eta IRaren armen auzia aitzakia moduan erabiltzen du. **Berria - Mundua**

Politikoki, Sinn Feinek, **unionismoarekiko** keinu gisa, Irlandako Konstituzioaren 2. eta 3. artikulua aldatzeko kanpaina egin zuen. **Berria - Mundua**

Unionismoaren erantzun adoretua. **Berria - Harian**

Unionismoaren barruan dagoen krisia argitzen den bitartean. **Berria - Mundua**

Eragileen artean Irlanda bertako politikaren emaitza dago, hala nola, **unionismoaren** baitako borroka, Sinn Feinen hazkundera, talde armatuen existentzia [...]. **Berria - Mundua**

Akordioa sinatzeko bidea eman zuen, gero Ulsterko Alderdi Unionista sinatzailea «traidoretzat» jo eta ordura arte alderdi nagusia zenari **unionismoaren** bandera kentzeko aukera izan zezan DUPek. **Berria - Mundua**

unionista 1 *izond/iz* nazio bateko alderdi eta higikunde politikoez mintzatuz, estatuarekiko batasunaren alde egiten duena.

Unionistek "erregularren" euskal gudarostea osatuko dute orduan, Espainiak armatuta, eta, gudaroste horrekin, errukirik gabe odolez eta suz borrokatuko dituzte "euskal errebelde separatistak". **Jokin Urain**

Arbuiatu egin zuen Madrilen egindako desfile militarrean «Frantziako eta Espainiako **unionistek**» bat egitea, herritarren artean «Espainia bakar eta handiaren ideia» bermatzen duen Konstituzioaren bigarren artikulua idatziriko eskuorriak banatzea eta «soldadu errepublikarrekin batera Dibisio Urdina talde faxistako kide bat joatea». **Berria - Euskal Herria**

Inkesten arabera, Danimarkaren aldeko **unionistek** irabaziko dituzte bozak. **Berria - Mundua**

Sozialdemokratek, **unionistek** eta Herri Alderdiak osatutako hiruko koalizioa erabat berria da Faroe uharteetako 55 urteko autonomian. **Berria - Mundua**

Alderdi Sozialdemokratik eta **Unionistak** Danimarkaren parte izaten jarraitzea defendatzen dute; Herri Alderdia, berriz, subiranotasunaren alde mintzatzen da. **Berria - Mundua**

2 unionismoarena, unionismoari dagokiona; unionismoaren aldekoa.

Ostegunean Shankilleko hainbat bizilagun **unionistekin** hitz egin nuen eta gehienek esaten ez dela bakerik izango Irlanda iparraldean nazionalistek uhartea batzeko helburuei uko egin arte. **Berria - Harian**

Gobernu britainiarrek eta buruzagi **unionistek** gauza bera egin behar dute. **Berria - Mundua**

Prest dago, egun, komunitate **unionista** etorkizunari begiratzeko. **Berria - Harian**

Alderdi **unionisten** eta Dublingo zein Londresko gobernuen esku ikusten dute konponbidean sakontzeko erantzukizuna. **Berria - Harian**

Paisley **unionista** Dublingo agintariekin batzartu da. **Berria - Mundua**

Unionisten eta nazionalisten artean nagusi diren bi alderdiek, DUPek eta Sinn Feinek, hainbat bilera izan dituzte udan Londres eta Dublingo gobernuekin. **Berria - Mundua**

Unionistek zinismoarekin hartu zuten su-etena: «Nola dakigu iraunkorra dela?». **Berria - Mundua**

Sutan daude Belfasteko **unionistak**, alkatetza Sinn Feinek lortu zuenetik. **Berria - Kultura**

Ezin dugu zain geratu DUPek Paisleyren alderdia, Alderdi Demokratiko **Unionista** gizartearen berdintasuna onartu arte. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdi demokratiko unionista (9); **alderdi unionista** (53); **alderdi unionista demokratikoa** (7); **alderdi unionista demokratikoak** (11); **alderdi unionista demokratikoaren** (4); **alderdi unionista demokratikoari** (5); **alderdi unionista demokratikoko** (12); **buruzagi unionista** (3)

alderdi demokratiko unionistak (15); **alderdi unionistak** (20); **buruzagi unionistak** (6); **ulstergo alderdi unionistak** (5); **ulsterko alderdi unionistak** (5); **unionistak nagusitu ziren** (3)

alderdi demokratiko unionistako (13); **alderdi unionistako** (17); **alderdi unionistako buru** (10); **ulstergo alderdi unionistako** (7); **ulsterko alderdi unionistako** (7)

alderdi demokratiko unionistaren (3); **alderdi unionistaren** (3)

alderdi unionistek (4); **indar unionistek** (4); **unionistek irabaziko** (3)

unipartidista *izond* alderdi politiko bakarrekoa.

AEBk sistema **unipartidista** du. **Berria - Kultura**

unipertsonal *izond* pertsona bakarrekoa.

Julio Zesarren bidez, Augustoren irudian gauzatu ziren forma **unipertsonalen** sorrera, Printzaldiaren inaugurazioa eta horren ondorengo barealdia, askoren ustez benetako urrezko aro baten etorrera izan zena. **Santiago Iruretagoiena**

Jainkoa **unipertsonala** dela, salbazioa ziurtatua dela giza arraza osoarentzat, eta arrazoa eta kontzientzia direla sinesterako eta praktikarako irizpidea. **Xabier Olarra**

unisex *izond* gizonezkoentzat nahiz emakumezkoentzat balio duena.

Joera **unisex** bat ote da, gizon-emakumeak berdin blaitzen dituen, ala batik bat gizonezkoen bereizgarria? **Berria - Kultura**

-Jertse hori, emakume, **unisex** modakoa duzu. **Joan Mari Irigoien**

unisono 1 *iz* ahots edo musika-tresna guztiak nota bera ematea; nota bera emanez jotako pasartea.

Bigarren mugimenduan, orkestra eta bakarlariren arteko **unisonoa** sendo eta hausturarik gabe jo zuten. **Berria - Kultura**

Soprano eta tronpa nagusiaren **unisonoa** lehen partean, bereziki ederra. **Berria - Kultura**

Hasierako **unisonoan** [...] bikain aritu zen. **Berria - Kultura**

Sarrerako zenbakian Romeo eta Julietaren gaia indar osoz agertzen da sokaren **unisonoan**. **Berria - Kultura**

2 *unisonoan adlag* nota bera joz.

Hamahirugarren abestian **unisonoan** jotzera iristen da, hau da, gauza bera jotzen duela ezkerreko eta eskuineko eskuekin. **Koldo Izagirre**

David-en salmoan, bakarlaririk egiten zuen arabiar melopeari **unisonoan** elkartzen zitzaizkion instrumentuak. **Berria - Kultura**

unitario *izond* batasuna agertzen duena, bat dena.

Prozesu **unitarioak**. **Xabier Arregi**

Jainkoaren batasunean sinetsiz jokatzearen zeharkako emaitza gisa bakarrik lor daiteke, eta lurreko gizarte **unitario** hau Jainkoaren Erkidegoko probintzia gisa ikusita.

Iñaki Mendiguren

Hauen denen izaera bilbatuaren suposizioa besterik ez zen, horiek nortasun edo karaktere **unitario** baten manifestatziotzat suposatzea. **Joxe Azurmendi**

Jada ez zen egitura politiko egokia orduan egitura ekonomiko **unitarioa** zeukan Gizarte Helenikoarentzat. **Iñaki Mendiguren**

Erligioaren historiak **unitarioa** eta progresiboa dirudi, zibilizazioen historien aniztasun eta errepikakortasunaren kontrastez. **Iñaki Mendiguren**

Gizona ez dela gorputz eta arima, osotasun eta soiltasun, baizik eta esperientzia oro **unitario** dela. **Patziku Perurena**

unitarista *izond* batasunaren aldekoa, eskuarki politikan.

Herrien Psikologia nazional hau, bere aurretiazkoetan artifizialki unitario den legez (aiurri edo arima espainola hau eta hori da), ondorioetan erraz bihurtzen da politikoki **unitarista** (espainol onak hau eta hori izan behar du; edo, kasuan, euskaldun onak). **Joxe Azurmendi**

Herriaren arima kontuaren ukoa, herriaren existentziaren uko bihurtu dute orain batzuek: beste herririk ez ei dago konstituzionala baino -Caro Baroja-k kritikatzan zituen **unitaristak**, haren kritikak ezkututzat hartuta!). **Joxe Azurmendi**

unitate (*orobat unidade g.er.*) 1 *iz* sail edo multzo baten osagai den elementu berezia. **ikbanako**.

Liburu bakoitza **unitate** bat da, hasi eta amaitu egiten dena, edo zure obraren konstanteei erantzuten dien osagai bat? **Ana Urkiza**

Estatu unibertsal bat, toki-administrazioko **unitate** artifizialki antolatuen hierarkiaren bidez erditik kontrolatua. **Iñaki Mendiguren**

Sintagma, beraz, hurrenez hurreneko **unitate** bi edo gehiagoz dago osatua beti. **Isabel Arrigain**

Industria-ekoizpeneko **unitateak**. **Koro Navarro**

Soberakin horiek beste **unitate** batzuek ekoizturiko ondasunekin truka daitezke. **Koro Navarro**

Ibilbide osoa egiten duen ikasleak 90 **unitate** landuko ditu, beste hainbeste doinu, 140 bertsolari baino gehiago ikusiko ditu, [...]. **Berria - Kultura**

Polimero bat dela esango genuke, hau da, etengabe errepikatzen den **unitate** batek osatutako materiala. **Berria - Gaiak**

2 (izenondoekin)

Unitate txikiagoez osatuak dauden **unitate** zabalagoez aritzen gara. **Isabel Arrigain**

Azterketa historikoaren **unitate** ulergarriak ez dira nazioak edo denboraldiak, "gizarteak" baizik. **Iñaki Mendiguren**

Jaurerri horietako bakoitza **unitate** politiko eta ekonomiko beregaina da. **Koro Navarro**

"Kultura berezi baten jabe izanez gero, **unitate** politiko bat eraikitzeo eskubidea daukazu. **Bernardo Atxaga**

Berez askeak diren bi hitz (edo gehiago) elkartuz, **unitate** lexiko berria sortzen du hitz elarketak. **Iñaki Arranz**

Musika Gasteizen izeneko **unitate** didaktikoaren aurkezpena zuen iragarria Udalak atzo goizerako. **Berria - Kultura**

Unitate epistemikoen (kontzeptuaren, legearen, teoriaren) inguruko gaiak eztabaidagune berrietan gauzatzen dira. **Askoren artean**

Dezibela oharren **unitate** logaritmikoa da. **Lourdes Oñederra**

Dimentsio orotako eta mota orotako **unitate** konplexuen (hitz elkartu, eratorri, perpaus atal, perpaus osoen) gainean. **Isabel Arrigain**

Silaba da hizketa eritmoaren **unitate** oinarrikoena. **Lourdes Oñederra**

Hizketa den hots *continuum* horren barruan **unitate** diskretoak bereizten direla. **Lourdes Oñederra**

Teoria oralistari jarraiki, ahozko poetak **unitate** aurrefabrikatuez lantzen ditu bere lanak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

UPV/EHUkICeko Zientziaren Filosofoiako **Unitate** Elkartuko zuzendaria da. **Askoren artean**

Poliziaren Informazio **Unitate** Zentralak. **Berria - Euskal Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hasieran, oinarritzko ekonomia-**unitateak** (familiak, klanak, herriak), beren baitara bildurik bizi dira. **Koro Navarro**

Trukea eragozten zuten oztupo ugari zituen, feudalismoaren garaitik heredatuak -bidesariak, zubien gainekoak eta zubien azpikoak, hirien sarreretakoak, diru **unitate** ugari, sarritan trukera jotzera behartzen zutenak-. **Koro Navarro**

Metalezko balio-**unitate** horien gaia gobernuen monopolio bihurtzea. **Iñaki Mendiguren**

Ondasun-**unitate** bat ekolitzeko behar diren lan-orduak. **Koro Navarro**

Ekolitzpen-**unitate** berriak sortuz. **Koro Navarro**

Familiak jarraitzen duela dirua gastatzeko antolamendu-**unitate** nagusi izaten. **Iñaki Mendiguren**

Autarkia-egoeran, izan ere, ardo-**unitate** bat, Portugalen, 0,89 oihal-**unitaterekin** trukutzen da. **Koro Navarro**

Elikagaietako proteinek, behin apurtu eta oinarritzko aminoazido-**unitate** bihurtuz gero, galdua dute beren nortasuna. **Irene Aldasoro**

Hizkuntza **unitate** bakar bat atzematzen dugu bi forma horietan gertaera gramatikal batzuei esker. **Isabel Arrigain**

Hots **unitateen** arteko bereizkuntzak. **Lourdes Oñederra**

Badira, kontsonanteen artean ere, bakarrik ahoska daitezkeen erritmo **unitate** edo silaba bat osatuz. **Lourdes Oñederra**

Neur ezazu gutxi gorabehera 15 orrialdeko irakurketa-**unitate** bat eta horren edukia artikuluko, kapitulu edo atalen baten bukaerari egokitu iezaiozu. **Askoren artean**

Berezko diskurtso-**unitatea** da bertso bakoitza. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Garrantzi handia du paraografoa eduki-**unitate** gisa hartzeak. **Askoren artean**

4 armadez eta kidekoetz mintzatuz, buruzagi baten agindupean dagoen zatia.

Armada inperialako **unitateetan**. **Iñaki Mendiguren**

Espainiako Armadako Paraxutisten Brigadak eta Infanteria **unitateak** ariketak egingo dituzte Euskal Herrian irailaren 19 eta 24 bitartean. **Berria - Euskal Herria**

AEBetako Armadako elite **unitate** honetako eledun Dan McSweeney kapitainak. **Berria - Mundua**

Kabo batek **unitateko** sarjentuari komunikatu zion bezala, uniformearen erantzun ari zela topatu baitzuten soldaduek gizon hura. **Iban Zaldúa**

Mont-de-Marsanetik (Landak) etorrazaritzako Jendarmeriako **unitate** bereziak. **Berria - Euskal Herria**

Gero gerra etorri zen, eta aitona Teruelako frontean aritu bide zen, nazionalen armadako zapadore-**unitate** batean. **Iban Zaldúa**

Bi preso hauek Black Watch Regiment **unitateko** soldaduen zaintzapean zeuden. **Berria - Mundua**

SSa alderdi nazien polizia gisa sortu zen, baina azkenean benetako **unitate** militarrek osatu zituzten (Waffen-SS) Reichen eta okupatutako lurraldeetan. **Urtzi Urrutikoetxea**

Barne segurtasunaren giltzarria bertako **unitate** paramilitarrak dira. **Berria - Mundua**

Irakeko Guardia Nazionaleko eta Poliziako **unitateak** ere ikusi zirek guduka gunetara hurbiltzen. **Berria - Mundua**

Zeren eta **unitate** militarretako soldaduen erregistroa ere ez baitzen eguneratuta edukitzen. **Iñaki Mendiguren**

Elurte formal batean, elurrolde batek suntsitu zuen militarren komando **unitate** bat. **Pello Zabala**

IRako **unitate** guztiek armak uzteko agindua jaso dute. **Berria - Harian**

5 trenez eta kidekoetz mintzatuz, bagoia edo bagoi multzoa.

2003an hainbat kontratu lortu zituen CAFek: Renferentzat aldiriko 40 Civia **unitate**; Bartzelonako Metrorako bosna kotxeko 39 tren; Sevillako metrorako 17 **unitate** arin;

Mallorcako Tren Zerbitzuetarako 10 diesel **unitate**; Irlandako trenbideetarako bederatzita diesel **unitate** eta Bruselako Metrorako sei kotxeko 15 tren. **Berria - Ekonomia**

Hurrengo asteotan entregatuko ditu Washingtongo metrorako hitzartuak dituen 96 bagoi, eta Sacramentorako 40 **unitate** artikulatu. **Berria - Ekonomia**

King's Cross eta Russell Square geltokien artean zebilen metroaren **unitatea** hankaz gora jarri zuen bigarren ezteandak. **Berria - Harian**

6 tresna edo egitura bateko elementu berezia.

Mugitzen da, berak daukan propulsiio-**unitate** bati esker. **Irene Aldasoro**

Ordenagailuak, barnetik husten ari balitz bezalako txistu itoa atera zuen, **unitatea** itzaltzean. **Aingeru Epaltza**

Ordenagailuaren CPU-a, ordea -prozesatzeko **unitate** zentrala, ordenagailua bera, alegia-, ez zegoen. **Fernando Morillo**

SEDIVER deitzen den holdin hori bera, SAFAM **unitatea** salbu, saldua izan zaio Italiako Vetro ARREDO altzairu enpresari. **Herria**

Zainketa intentsiboen **unitatean** zegoen, eta oxigenoa eta antibiotiko zain-barnetikoak ari zen hartzen. **Xabier Olarra**

Hiru aldiz eduki zuten zainketa berezien **unitatean**, bronkitis gaizto batek joa itzuli baitzen Londrestik. **Joxan Elosegui**

Diagnostikorako **unitate** berezia sortuko dute Gipuzkoa Poliklinikan. **Berria - Gaiak**

X-izpien **unitatera** egindako bisita bat. **Oskar Arana**

Tuterak badu **unitate** onkologikoa; Lizarrak ez. **Berria - Euskal Herria**

Nerbio-zuntz batek hainbat muskulu-zuntzi eragiten die, eta muskulu-zuntz horiek guztiak batera uzkuartzen dira, **unitate** eragile bakar baten gisa. **Irene Aldasoro**

Ezin da egin milioi bat dialisi-**unitate** eta berrogeita zortzi kilometro hodi ukabilaren tamainako makina batean sartzeko bezain dialisi mintz fin eta sendorik. **Irene Aldasoro**

ETBko **unitate** mobilien arduradun Jose Maria Ibarburuk. **Berria - Kultura**

7 irud/hed

Bi giltzurrunetako irazki-**unitateetatik** ateratzen den kantitatea minutuko 130 ml inguru da, baina gerneraren eratze-indizea ez da minutuko 1 ml baino. **Irene Aldasoro**

Badela erregulazio-**unitate** bat, geneen adierazpenaren bidezkoa; hots, kiribil bat, bi elementuz osatua: batetik, proteina erregulatzailer bat, eta, bestetik, ADNaren baitako haren xedea, aldameneko geneen adierazpena gobernatzen duena. **Juan Garzia**

8 neurri edo konparazio elementu gisa erabiltzen den kopurua.

Horregatik, kaloria edo, hobeto esanda, kilokaloria (mila kaloria) erabiltzen da elikagaiak edo erregaiak duen energia kantitatea adierazteko **unitatezat**. **Irene Aldasoro**

Sistema metrikoan egiten dugun gisa, hamar egun pasatzen direnean, adibidez, sor genezake **unitate** bat, eta ehun pasatzen direnean beste bat, eta 1000 pasatzen direnean beste bat, eta abar. **Pello Salaburu**

Antzinako **neurri** unitatea, bi metro ingurukoa. **Koldo Izagirre**

Maiztasun-**unitatea** hertz da (Hz), ziklo bat segundoko. **Irene Aldasoro**

Luminantzia [...] objektu argitsuak azalera-**unitate** bakoitzeko duen argi-intentsitatea da; cd/ml gisa adierazten da. **Josu Zabaleta**

Soka bat besterik ez zuen eskura, eta neurri-**unitate** bat behar zuen. **Jon Muñoz**

Dezibela oharren **unitate** logaritmikoa da. **Lourdes Oñederra**

Erreformatorekin batera, kreditua iritsi zen unibertsitateetara, ikaste ahalegina neurtzeko **unitatea**, alegia. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Kopek: Errusiako **moneta**-unitatea. **Jose Morales**

9 batekoa, banakoa.

Esan nion 365 esanik hiru ehuneko, sei hamarreko eta bost **unitate** adierazten zirela. **Juan Garzia**

Ez dugu sekula jakingo bertatik susmatu ote zuen, nolabaiteko arrastoa bederen, zein esanguratsua zen batetik bira, **unitatetik** aniztasunera eta hala infinitura pasatze hura. **Juan Garzia**

10 batasuna.

Azkarragak ukatu egin zuen Eusko Jaurilaritzako Estatutu Berrirako Proposamenaren jasotzen den Botere Judizialak Estatuko jurisdikzio **unitatea** hautsiko duenik. **Berria - Euskal Herria**

Stendhalen obra guztien arteko antza eta tonu- **unitatea** argitzeko balio omen du. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ardo unitate (3); **armadako unitate** (4); **diskurtso unitate** (4); **hizkuntz unitate bat** (3); **hots unitate** (7); **informazio unitate** (6); **oinarrizko unitate** (4); **poliziaren informazio unitate** (5); **tsahaleko unitate** (4); **tsahaleko unitate bat** (3)

unitate berezi (4); **unitate berezia** (3); **unitate bereziak** (3); **unitate berezietako** (3); **unitate bereziko** (4); **unitate didaktiko** (3); **unitate didaktikoa** (4); **unitate didaktikoak** (3); **unitate didaktikoaren** (5); **unitate elebidunak** (3); **unitate epistemikoen** (3); **unitate eragile** (4); **unitate gisa** (4); **unitate onkologikoa** (4); **unitate politiko** (4)

oinarrizko unitatea (3); **unitatea utzi** (4)

berdintasunerako unitateak (4); **hizkuntz unitateak** (3); **hots unitateak** (3)

zainketa intentsiboaren unitatean (5); **zainketa intentsiboetako unitatean** (6); **zainketa intentsiboko unitatean** (3); **zaintza berezietako unitatean** (4)

hots unitateen (3)

unitateka *adlag* unitateen arabera.

Ez gara gai berdintasun etengabea hautemateko eta, hizketa denboran zehar gertatzen den etengabeako errealitatea bada ere, errealitate horretan errepikatzen diren berdintasunei antzematen die gure oharrenak, jarraitua dena **unitateka** zatitzen. **Lourdes Oñederra**

unizelular *izond* zelula bakarrak osatua. ik **zelulabakar**.

Fitoplanktona da itsasoan dagoen landare **unizelularra**. **Berria - Gaiak**

unkigarri ik **hunkigarri**.

unkitu ik **hunkitu**.

untsa ik **ontsa**.

untsalaz ik **ontsalaz**.

untsaraz ik **ontsalaz**.

untsasko ik **ontsaxko**.

untsaxko ik **ontsaxko**.

untsik *adlag* ongi.

-Ba, ba, ez niz sekula txapeldun eta txapelketa batean **untsik** ibili! **Menene Oxandabaratx**

untutsik ik **oinuts 4**.

untxa ik **ontsa**.

untxari *iz* untxiak harrapatzen dituen txakur mota.

-Zortea diagu horretan, bestela emazteak beti atzetik izango genitizkek, **untxariak** bezala. **Lopez de Arana**

untxarta *iz* hudoa, ugaztun haragijalea.

Untxarta pasatu da iragan abenduan. **Berria - Kultura**

Sarkozyk ez zuen horrelakorik egin eta gainera itzuliko da, mintzaldiak eskaintzerakoan eta karrikan ibiltzerakoan **untxarta** basaren antzera igimigitzen den Frantziako barne-ministroa! **Berria - Kultura**

untxi 1 *iz* ugaztun marraskaria, erbiaren antzekoa baina hura baino txikiagoa, asko ugaltzen dena eta lurrean egiten dituen zuloetan bizi dena (*Lepus cuniculus* edo *Oryctolagus cuniculus*). ik **kui**.

Untxiak ez dira animalia atseginak. **Juan Garzia**

Agian **untxia** zen; agian satorra. **Anton Garikano**

Untxi haiek, Commendatorearen aginduz, zein bere kaiolan bizi ziren, ar eta eme, ezkongabetasun zorrotzean. **Juan Garzia**

Untxiak untxitegira egin zuten ihes, izuti, kaiolako egonaldiak gogortutako oinen bultzadaz. **Joxemari Urteaga**

Oilaskoak eta **untxiak** haztea. **Joseba Urteaga**

Kentzen genion tigrearri begietarik oihala, eta **untxien** eta erbien gibeletik abiatzen zen hura, jauzi arin ezin bizkorragoetan. **Joan Mari Irigoien**

Bere **untxia**, Binky..., azeri batek akabatu du. **Iñaki Mendiguren**

Zakur begi-bakarra hartuta, goiko zelaietara joan nintzen **untxiak** ehizatzen. **Koro Navarro**

Ehiza larririk izan balitz, gustatuko zitzaiokeen mendira joatea; baina **untxiak** botatzeko, nahiago zuen etxean geratu. **Josu Zabaleta**

Untxia hiltzeko erabiltzen den bezalako kolpea eman zidaten. **Berria - Euskal Herria**

Argiñanok **untxia** zelan prestatzen duen begiratzen dut, lerdea daridala. **Jokin Urain**

Untxi bat jan zuten egun hartan. **Karlos Zabala**

Salda beroa eta baserrian hazitako **untxia** patata purearekin. **Berria - Kirola**

Untxien pixak beheko taulak erretzen zituen. **Karlos Zabala**

Amaren bila dabilen **untxia** bezala. **Anton Garikano**

Kapelutik **untxiak** ateratzen dituen magoak bezala. **Berria - Kultura**

[Sagua] egokia zen immunitatea aztertzeko, baina immunologoek **untxia** erabiltzen zuten. **Juan Garzia**

Untxien obuluetatik giza zelula amak lortu nahi dituzte. **Berria - Gaiak**

2 (izenondoekin)

Untxi zuri gizen bat. **Iñaki Mendiguren**

Untxi erraldoi baten gordelekua ematen zuen. **Iñaki Mendiguren**

Erakusmahaiaaren azpian, kutxa batean, **untxi** bizi batzuek lepoa luzatu eta haren gona usaintzen zuten. **Karlos Zabala**

Azpil obalatu batean, **untxi** larrutu bat zegoen etzanda. **Karlos Zabala**

Inoiz jan dudan **untxi** errerik gozoena eman ziguten. **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zeren ukituaren eziaz babesten nauten larrukiak baitituzte laketa, **untxi** larruz edo azeri larruz eginak. **Joan Mari Irigoien**

Platerkada bat **untxi**-haragi. **Anton Garikano**

Untxi obuluak erabiliz zelula amak lortu zituen ja 2003an Txinako Huizhen Sheng zientzialariak. **Berria - Gaiak**

Untxi pusketen azpian barazkiaren kolore berdea ikusteak nazka eman zidan. **Joseba Urteaga**

Untxi sudurra zuenak kulero batzuk hartu zituen eta sinestarazi nahi zigun tabako usaina zutela. **Pello Lizarralde**

Txabolan, oilo eta **untxi** kaiola artean etzan ginen, uzkurtuta eta isilik. **Jon Maia**

Untxi-bikoteen segida hori erakutsiz, zenbakien segidaren nozio matematikoa asmatu zuen Fibonacci. **Jon Muñoz**

Etterakoan, han ekarri ohi genuen **untxi**-pila, eta amurrain zenbait. **Mirentxu Larrañaga**

Osabaren jaka zahar bat, **untxi** eta tabako usaina zeriona. **Koro Navarro**

Apustu egin zidan baietz **untxi**-gorotzak ere jateko gai izan Big Joe. **Mirentxu Larrañaga**

Sinpatikoak dira **untxi**-zapatilak, kolore bizikoak. **Iban Zaldúa**

Untxi-angorak eta **untxi**-ahariak, hamsterrak, jerboak. **Jon Muñoz**

4 **untxi zulo** (orobat **untxizulo**)

Untxi zulo baten sarreran etzanda geratu zen [zakurra] isatsari eraginez. **Koro Navarro**

Untxi-zulo batean ezkutututa egon behar zenuke eta. **Joanes Urkixo**

Sarreratik hurbil, lurtean sartuta, alde batera okertutako seinale bat zegoen, "**Untxizulo**" zioena. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

untxi gorotz (4); **untxi larruzko** (4); **untxi sudurra** (3); **untxi txiki** (3)

untxiak bezala (4)

untxikume *iz* untxiaren umea.

Beste honenbeste gertatu zitzaion berez hain animalia hezigitza den **untxikume** batekin ere Perugiako aintzirako uhartean. **Askoren artean**

untxitegi *iz* untxientzat prestatutako tokia.

Bazter guztietan azaltzen ziren Animalien Aldeko Elkartaren arauak, hainbat solairu zituen ukuiluan, hiltegi sofistikatuan, edo **untxitegi** ezin txukunagoan. **Joxan Eloegi**

Untxiek **untxitegira** egin zuten ihes, izuti, kaiolako egonaldia gogortutako oinen bultzadaz. **Joxemari Urteaga**

Beste baseritar batek salatu du ehiztariak baratzera sartu eta lapurtu egin ziotela; gainera, **untxitegian** hamar untxi falta zitzaizkiola ere ohartu zen. **Berria - Euskal Herria**

untxizulo ik **untxi 4**.

untz ik **hultz**¹.

untza ik **ontza**.

untzadun ik **huntzadun**.

untze ik **iltze**.

untzi ik **ontzi**.

untzigintza ik **ontzigintza**.

untzijabe ik **ontzijabe**.

untzikide ik **ontzikide**.

untzilari ik **ontzilari**.

untzimutil ik **ontzi 34**.

untziño ik **ontzitxo**

untzio *iz* jaiera, eraspena.

Oskigileak **untzioz** piztu zuen. **Juan Garzia**

untziola ik **ontziola**.

untziratu ik **ontziratu**.

untzitegi ik **ontzitegi**.

untzitto ik **ontzitxo**.

untzixka ik **ontzixka**.

untzorondar *izlag/iz* Untzorongoa, Untzoroni dagokiona; Untzorongo biztanlea.

Junior gazteetan aldiz, Saldubehere **Untzorondarrak** 40-10 garaitu du Milafrangan Touya landestarra. **Herria**

Garaziko **untzorondar** hauk, apalagotik hasirik goiti doatzi beraz bitoria hunekin. **Herria**

Untzorondarrak ez du hortan hobenik, pilotari pollita heldu da dituen ahalekin. **Herria**

Untzorondar gazteari bere xantza emana zioten ortzegunean Baionako trinket xaharrean eta arrazoin ukan dute. **Herria**

upa *iz* upela; upel handia.

Upaz inguratutako mostradore aurrean. **Josu Landa**

upaka *adlag* upakadak ematen.

Bere aldameneko gizona ere geld, txokorrari **upaka**. **Unai Iturriaga**

upakada 1 *iz* xurgada.

Dionisosek **upakada** handi bat eman zion Ducadosari. **Unai Iturriaga**

Upakada luze bat eman eta irribarre egin zion Mikeli. **Unai Iturriaga**

Goizeko lehen **upakadaren** keak erabateko eragina izan dezake azalez eta hezurrez estaliriko barrunbeetan. **Unai Iturriaga**

Upakadan eztula etorri zitzaion eztarrian gora. **Unai Iturriaga**

2 (neurri gisa)

Bokata alde batera utzi, **upakada** bat ke arnastu eta lehentxeago ezpain ertzera hurbildutako edalontzitik trago egin zuen. **Unai Iturriaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

upakada luze (8); **upakada luze bat** (6)

upategi *iz* upeltegia.

Haren semeak bien bitartean **upategira** jaisten dira eta edaten dute ardo hartatik mozkortu arte. **Joan Mari Lekuona**

Upategiak eraberritzeo egindako lanek aurtengoan izan dute eraginik, izan ere, hotza kontrolatzen duten instalazioetan ez baita izan beroaren zoritxarreko eraginik.

Berria - Euskal Herria

Upategia zen tunela. **Jon Muñoz**

Marik Martintxo kobazuloan sarrarazi eta barruko tunel-labirintoan barrera **upategira** eraman zuen. **Martin Anso**

Hemen esaten da **upategi** bateko ardoa isuri zelarik, San Antoniok ardoa upel barrura itzuli zuela. **Jon Alonso**

Jendeak nahi duena esango dik, baina, ardo kontuetan, **upategi** klasikoak nahiago. **Iban Zaldua**

upats iz aupatsa.

Dentifriko **upats** batean heldu zitzaizkion hitzak. **Koldo Izagirre**

upatu, upa, upatzen da ad igo.

Azken egunean, **upatu** gira Montserrat konbenturat: bixta eta egitura harrigarriak Birjina Beltza sainduaren egoitza hortan. **Herria**

Urte oroz 300000, bisitari **upatzen** dira treinez, hamar euro ordainduz, oinezkoak bertzalde. **Herria**

Bigarren mailatik **upatzeko** on bilakatzen ari dira 4ak. **Herria**

upel (**833** agerraldi, **69** liburu eta **198** artikulutan; orobat **kupel 59** agerraldi, **21** liburu eta **13** artikulutan) **1** iz zurezko xafla ganbilak uztaiez elkartuz eginiko ontzi handia, bi buruak oholez estaliak dituena, ardoa, sagardoa eta bestelakoak gordetzeko eta garraiatzeko erabiltzen dena; horren antzeko ontzi metalikoa. ik **upa**; **barrika**.

Mota guztietako ontziak aurkitzen dituzte han pilaturik, zur leundu, torneatu, txirikordatu zein zizelatuzkoak: **upelak**, suilak, pitxerrak, morkoak, tina euskarridunak eta euskarrigabeak, [...]. **Jose Morales**

Barrikak, **upelak** eta **upelen** uztaiak egiten eta lantzen. **Pello Zabala**

Upel bat iritsi zait Amontilladoa omen dena. **Koro Navarro**

Martxo ederrak eta lehorrak, **upelak** betetzen ditu (sagardoarenak, noski). **Pello Zabala**

Anartean, hainbat **upel** hustu eta hainbat emamintz urratu ziren, ilunpearen babesean. **Aingeru Epaltza**

Legarretak du, gainera, **upelak** irekitzen dituen giltza, eta honek «txotx» oihu egiten duenean hurbiltzen zaizkio. **Berria - Kultura**

Upeletik zahagiak betetzeko dolarearen azpian jarri zenean, [...]. **Askoren artean**

Balea-koipeaz betetako **upelak** deskargatzen ari ziren marinel zalapartari batzuk. **Anjel Lertxundi**

Arrain gazituen **upelen** artean. **Karlos Zabala**

Ganbarara igo naiz eta hamarren bat minutu egon naiz **upeleko** patatarik txikiak aukeratzen. **Josu Zabaleta**

Nola torturatzen zituzten bekatariak, gizonak eta emakumeak, galipotezko **upeletan** eta ikatz gorizko pertzetan. **Koro Navarro**

Gerra-gizonak, **upela** irauli, eta mutiko bat aurkitu zuten hantxe. **Juan Garzia**

Osinaren ertzera hurbiltzen ari ginenean, **upela** askatu, eta uztaian lotzera etorri zen anaia. **Koro Navarro**

Upela hautsi, baina ez dadila ardorik isuri. **Koro Navarro**

Portugaleteko nasan, hantxe zeuden hogei bat **upel**, denak lerro-lerro. **Edorta Jimenez**

Zein da **upelaren** edukiera? **Jon Muñoz**

Upela karelpean estekatzen zuten uhalez baliatuz, **upel** hartan bertan neure burua lotu eta jauzi egin nuen itsasora. **Koro Navarro**

Ene gogoaren kontra, **upelari** errespetuzko soka lotu nion, gero Mateok gora tiratzeko agindu eman zuen, eta ni hantxe gelditu nintzen, besorik eta hankarik gabeko urkatu moduko **upel** hari begira. **Edorta Jimenez**

Askotan utzi izan zituzten gazte karlisten eskuetan, itzainez mozorroturik haiek, armez betetako **upelak**. **Koro Navarro**

12 emakume irtego dira lehen aldiz **upela** jotzen Union Artesanako danborradan. **Berria - Euskal Herria**

Danbor eta **upelen** bandak, haiek ere lehen inperioko uniforme zantzak. **Askoren artean**

2 (erkaketetan)

Gupida hartzen zioten, argalagoa iruditzen zitzaien, **upela** baino lodiago egon arren. **Karlos Zabala**

Gizon mozkotea zen don Kosme, eta gizen-gizena, berrehun libratik gora bai, **upel** bat iduri. **Joan Mari Irigoien**

Alarguna andre motza eta **upela** bezain biribila zela. **Koro Navarro**

Bezatzaila, ordura arte halako hoztasun nabarmenez portatu zen gantz **upel** hura, adarra jo besterik egin ez zien morroi gogor sobornaezina, horratx orain, begiak malkotan blai. **Harkaitz Cano**

Mozkor pare ederra zuek biok, **upel** hondogabeok, hondamena ekarriko diozue nagusiar! **Jose Morales**

Jexuxek kontatutakoa eta liburuak dakarrena **upel** bereko sagardoa da. **Xabier Etxabe**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Idi-orgek garraiatu **upel** handietan. **Aingeru Epaltza**

Erdi ilunpetan antzemandako **upel** ikaragarrietan, hantxe atsedenean milaka hektolitro ardo beltz arrunt. **Jon Muñoz**

Upela handi baten garbitzeko manua eman zion aitak. **Joan Mari Irigoien**

Zurezko **upel** txikiak, aluminiozko gurin-ontziak. **Joxan Elosegi**

Sarrerako **upel** herdoilduen harrisia zeharkatu behar dugu erakusketa ikusteko. **Berria - Kultura**

Bostak eta hogei ziren, **upel** hutsen aterpearen atzetik egunsentia bistatzen zen. **Juan Garzia**

Upel ustelean ardo ona sartzea bezala da. **Koldo Biguri**

Kristalezko **upel** bertikal bat zunan, horma bati lotua zegoena eta gainean zurezko txapela bat zuena. **Joan Mari Irigoien**

Sagardotegi itxura eman nahi izan diote tabernari, erdi-erdian **upel** artifizial bat jarrita. **Xabier Etxabe**

Berogailuak eta laurdenkatzaile baten **upel** zikin-zikinak. **Karlos Zabala**

Hark berak zaharrarazten zuen haritzeko **upeletan**. **Bego Montorio**

Esan digu behin gizon batek bere burua altzairuzko **upel** batean bota zuela urjauzietan behera, pipiritaka. **Patxi Zubizarreta**

4 (neurri gisa) ik beherago 10.

Hark erantzun: "ehun **upel** olio". **Elizen arteko biblia**

Ahotik halako hats higuigarria isurtzen hasi nintzen, **upel** bat sagardo edan izan banu bezalaxe. **Patxi Zubizarreta**

Hemen azukre zaku batzuk, han hainbat **upel** likore. **Alberto Ladron Arana**

Gazta sartu ziguten, kintaletan, bizkotzoxa bezala; eta ardoa sartu ziguten, **upeletan**; eta babak, anegatan; eta olio, arroatan. **Edorta Jimenez**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Upel -uztaiak neke handiz lantzen ziharduen berak han behean. **Edorta Jimenez**

Pariseko kafe gehienetan izaten diren **upel** -altxagailuetatik hartu zuen ideia. **Jon Muñoz**

Bolbora herexa bat bazen bi **upel** lerro bereizten zituen ibilbidearen punta batetik besteraino. **Elena Touyarou**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehena izenondoduna dela)

Jada 2,2 milioi petrolio gordin **upel** eta 1,2 milioi petrolio findu **upel** galdu dira eguneko. **Berria - Harian**

Litekeena duk Alargun Beltzaren ADN a azido nitriko **upel** batean egotea honezkero, landareentzako ongari bihurtu. **Harkaitz Cano**

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ur **upelak** eta olio dupak zeramatzaten arrodaka. Alain txikia dolarearen sarrerako ardo **upela** hondogabetu batean uzurtua zen. **Joan Mari Irigoien**

Besotik oratu zion, eta satora egin zuten biek, Mateoren arotz-zokondora, edo, behar bada, sagardo **upeletara**. **Edorta Jimenez**

Sotoan bildutako botila-kutxak eta garagardo-**upelak** igotzeko. [Jon Muñoz](#)

Errepeidea leporaino beteaz zegoen, gurdi, orga eta omnibusekin, zapata-fardelak, ogi-zakuak, Bordeleko galleta-kutxak, oheentzako espartzua, ardo- eta pattar-**upelak** baitzeramatzen gudarosteentzat Baztango ibarrera. [Koro Navarro](#)

Baldinba ene adiskideek ene ohoretan edanen dituzte hortxe metatuak ikusten dituzun aguardient **upelak**. [Elena Touyarou](#)

Miraz gelditzen zen sardinaz ketuei, antxoei, kaparrei begira, edo pepino eta oliba **upelen** aurrean. [Karlos Zabala](#)

Patata **upelaren** gain-gainean. [Josu Zabaleta](#)

Bolbora **upela** da egoera. [Xabier Paya](#)

8 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Beharginak entzuten ziren biraoka, mutil saltzaileak -txerri-mutur **upelen** ondoan, adi- beren letania zolia deiadarka. [Irene Aldasoro](#)

9 irud/hed ik beherago 12.

Traketsenak sagarrak eta legarrak nahastu zituen zuhurtziarik eta zentzurik gabe, eta Euskaldunon Egunkariarena Euskal Herrian gertatu berri diren beste atxiloketen **upel** berean sartu zuen. [Bernardo Atxaga](#)

10 edukiera-neurria, petrolioarentzat erabiltzen dena, 158,98 litroren baliokidea.

Ahalmena: 1,6 milioi **upel** egunean, 80 milioi tona petrolio urtean. Eguneko 3,5 milioi **upel** ekoizten ziren garai hartan. [Berria - Gaiak](#)

Gasolioaren stock-ak 800.000 **upeletan** gutxitu direla kalkulatu dute adituek. [Berria - Ekonomia](#)

40.000 tona erregai 1,4 milioi **upel** zeramatzen barruan, eta istripuaren ondorioz [...] 37.000 tona erregai isuri ziren, eta kaltea oso handia izan zen. [Berria - Gaiak](#)

Aruba inguruko instalazioak, hilero 7,1 milioi **upel** petrolio ekoizten izan dituztenak. [Edorta Jimenez](#)

Petrolio-**upelaren** prezioa, dolarretan adierazita, bikoiztu egin zen 1978 eta 1985 artean. [Koro Navarro](#)

1,8 milioi petrolio **upel** esportatzen ditu gaur egun Irakek. [Berria - Mundua](#)

Estrategia horren ondorioz, hilabete batzuetan 29 dolarretik 10 dolar baino gutxiagora jaitsi zen **upelaren** prezioa. [Koro Navarro](#)

Brent **upela** Texas **upela** baino garestiago. [Berria - Harian](#)

11 *upeleko izlag* botilaratu gabekoa.

Gin hau **upelekoa** izango zen! [Antton Olano](#)

12 *beste upeleko sagardoa* beste kontua bat.

Beste upeleko sagardoa da hitzaldiaren amaieran entzule horiek gure tesiarekin bat datozen edo ez. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Seguru edo egokia zer izango den, **beste upeleko sagardoa**. [Edorta Agirre](#)

Seguru edo egokia zer izango den, **beste upeleko sagardoa**. [Edorta Agirre](#)

- Aitor dut nire irudimenarena **beste upeleko** edabe bat zela. [Anjel Lertxundi](#)

Jexuxek kontatutakoa eta liburuak dakarrena **upel** bereko **sagardoa** da. [Xabier Etxabe](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi milioi upel (8); biltegiatiko upel (3); garagardo upel (3); milioi bat upel (8); milioi petrolio upel (14); milioi upel (90); milioi upel ekoiztiko (4); milioi upel ekoizteko (3); milioi upel ekoizten (9); milioi upel gehiago (22); milioi upel gutxiago (7); milioi upel kontsumituko (4); milioi upel merkaturatzen (4); milioi upel petrolio (4); petrolio upel (31); petrolio upel gutxiago (5)

upel artean (3); upel ekoiztiko (5); upel ekoizteko (4); upel ekoizten (13); upel ekoizten ditu (5); upel gehiago ekoiztiko (3); upel gehiago ekoiztea (5); upel gehiago ekoizteko (3); upel gehiago merkaturatu (4); upel gutxiago (19); upel gutxiago ekoizten (3); upel kontsumituko (4); upel kontsumituko direla (3); upel merkaturatuko (3); upel merkaturatzen ditu (5); upel petrolio (7); upel petrolio gutxiago (3)

amontillado upela (3); brent petrolio upela (9); brent upela (73); petrolio arineko upela (4); petrolio upela (33); texas upela (17); texasko upela (7); upela baino (4)

betetako upelak (3); brent petrolio upelak (14); brent upelak (43); petrolio upelak (33); texas petrolio upelak (4); texas upelak (12); upelak behera egin (4)

brent petrolio upelaren (5); brent upelaren (11); brent upelaren prezioa (3); da upelaren (4); petrolio upelaren (31); petrolio upelaren prezioa (9); petrolio upelaren prezioak (5); texas upelaren (4); upelaren prezioa (24); upelaren prezioak (10)

beste upeleko (3); upeleko prezioa (3)

milioi upelekoa (7); milioi upelekoa izango (3)

petrolio upelen (4)

bi milioi upeletan (3); milioi bat upeletan (5); milioi upeletan (12); upeletan handituko (3)

upelategi ik **upeltegi**.

upeldegi ik **upeltegi**.

upeldun *iz* danborradan upela jotzen duen pertsona.

Berrehun parte hartzaile, danbor eta **upeldun**, izan ziren guztira. [Askoren artean](#)

upeleratu, upelera(tu), upeleratzen du *ad* upelera eraman.

Garia jaso eta ardoa **upeleratu** ondoren, Etxola Jaia ospatuko duzue zazpi egunez. [Elizen arteko biblia](#)

upelgile *iz* upelak egiten dituen pertsona. ik **upagin**.

Sarriegiren haurtzaroko eta gaztaroko Donostian, gremioetan banatutako gizarteak taxutzen zuen eguneroko bizitza, errementariak, marinelek, okinek, kandelagileek, zozogileek, **upelgileek**, aiztogileek, arotzek eta inprimatzaileek hain zuzen. [Askoren artean](#)

Bankariak kontabilitate bikoitza egiten, **upelgileak** bolumenen geometriaz baliatzen. [Josu Zabaleta](#)

Laburra izan baitzen **upelgilearekin** batera sotoetako gaiak zerrendatzen harako hartan eman nuen denbora. [Edorta Jimenez](#)

Ateka gaizto hartan **upelgilearen** antzearen beharra geneukakeen, oholak josten berak baitzekien hobetoen. [Edorta Jimenez](#)

upelgintza *iz* uepglearen lanbiea; upelak egitea.

Ondare etnografikoa: Euskal Herriko bizimodu tradizionala erakusten dute objektuak dira: **upelgintzako** piezak, zurgintzakoak, zur landuak, objektu erlijiosoak eta herri sinesmenen ingurukoak, etxeko objektuak, etxeko tresnak eta musika tresnak. [Berria - Kultura](#)

upeltegi (*orobat upelategi eta upeltegi g.er.*) iz ardoa, sagardoa eta kidekoak upeletan gorderik dagoen tokia edo biltegia. ik **upategi**.

Arabako Errioxan 550 **upeltegi** inguru daude, eta Errioxako ardo osoaren laurdena inguru ekoizten dute. **Berria - Ekonomia**

Ameztoi txakolindegiko **upeltegian** zen jai handia. **Berria - Kultura**

Euria ez egitea nahi dute gehienek, ahalik eta arinena mahatsa bildu eta **upeltegiatar** eramateko. **Berria - Harian**

Mahatsa ardo bihurtu eta **upeltegi** handiei saltzea ere ez da irtenbidea. **Berria - Ekonomia**

Upeltegiak, barrualdean, ardoak behar dituen baldintzak betetzen ditu: isila da, iluna. **Berria - Kultura**

upeltxo iz upel txikia.

Eta atuna ere sartu ziguten, **upeltxoetan**. **Edorta Jimenez**

Ohiko xafra burdinurtuzkoak jo beharrean, **upeltxo** hutsak astintzen baitzituzten zurezko palatxoak erabiliz. **Jose Morales**

upeltzar iz *adkor* upel erraldoia.

Bainuontzi komunak partekatzen ditugu, lurrunezko **upeltzar** batzuk guztiontzat, bideaz beherantz dagoen lastategi batean. **Mirentxu Larrañaga**

upelzain iz upeltegia arduratzen den pertsona.

Zuetaileko eguzkiak, ondoko ardoari indar, ziotsaten batetik, eta baita dupagin eta **upelzainak** esnarazi ere. **Pello Zabala**

UR 1 iz isurkari koloregabe, usaingabe eta dastagabea, ibaiak, aintzirak eta itsasoak betetzen dituen, hidrogeno eta oxigeno atomoz osatua (H₂O). ik **lurrin**; **izotz**.

Jan dezala ogia eta edan **ura**. **Elizen arteko biblia**

Iturritik **ura** edanez. **Santiago Iruretagoiena**

Ur eta ogi hutseko barauan. **Koldo Biguri**

Haritzak lau elementuetatik lurra izaten du ugari, eta aldiz, urriak izaten ditu **ura**, airea eta sua. **Santiago Iruretagoiena**

Urek lur lehorra inguratzen dute, aireak **ura**, suak airea, eta "bosgarren gorputzak" sua. **Xabier Kintana**

Hotz mantentzeko, **ura**, olio, airea edo beste fluidoren bat behar dute motor gehienek. **Irene Aldasoro**

Amiantoak **ur** pixka bat galtzen zuen 150°C-ra. **Juan Garzia**

Odolaren % 80 **ura** da, eta **ura** ingurune ona da hozteko edo berotzeko, bero espezifiko altua baitu. **Irene Aldasoro**

Ez zuen asko behar izan gorpuak erabat jiratu eta **ur** gainean ahozgoratzeko. **Hasier Etxeberria**

ik *beherago* 23a. **Askoren artean**

Etsaiak, ordea, urperatu egin zituen eta, gero, hondotik **ur** gainera atera. **Elizen arteko biblia**

Zubi batek lotzen baititu Jauregia eta presondegia **ur** gainetik. **Felipe Juaristi**

Har ezazu makila, eta luza eskua Egiptoko **ur** guztietara -ibai, ubide, urtegi eta zingira guztietara- eta ura odol bihurtuko da. **Jose Antonio Mujika**

Obi ibaiaren **urak** gorri jaisten dituk. **Karlos Zabala**

Azkenean, ibaian behera "ezkontzen dira", Manusetik urrun, bi ibaietako **urak**. **Jon Muñoz**

-Ez ezak sekula atzera egin, erreka **urak** eta zeruko eguzkiak ere ez baitute sekula atzera egiten! **Anjel Lertxundi**

Bostehun urte igarota **urak** beren bidean. **Edorta Jimenez**

Kanilla gutxiegi irekitzen bada, apenas izango duen aski **ur** biltzerik. **Joxerra Garzia**

Urak gutxituz joan ziren.

Pegarra askan hustu eta lasterka joan zen putzura **ur** gehiago hartzera. **Jose Antonio Mujika**

Euria jauts ahala, **ura** turrustaka alde guztietan. **Filipe Bidart**

Kaferako **ura** berotzen jartzera. **Joxe Austin Arrieta**

Ur hori izerdi-forman agertzen da larruazalean. **Irene Aldasoro**

Hango **ura** ere, ordea, beroa eta likatsua zen, ez gozoa, gazia. **Joxe Austin Arrieta**

Ez dago **ura** bezalakorik zauriak gozatzeko. **Karlos Zabala**

Gorputzaren azaletik **ur** asko galtzen da izerditzean. **Irene Aldasoro**

Obi ibaira isurtzen du **ura**, zazpi mila versta inguru ibili eta gero. **Karlos Zabala**

Edith sukaldera joan zen, eta **ura** korritzen jarri zuen. **Koro Navarro**

Zurrusta bizian ateratzen zen **ura** kanilatik. **Jon Muñoz**

Ura zergatik izozten da 0 graduan zehazki, eta 100an irakiten? **Jon Muñoz**

Kontrako eztarrira joan zait **ura**. **Koldo Izagirre**

Ura iragazi eta irakin beharko dugu. **Josu Zabaleta**

Garraioi handi batzuk garbituko ditugu **ura** edukitzeko. **Josu Zabaleta**

Edonork eraman dezakeela zaldia erreka, baina hogeitaz gizonak ez diotela **ura** edanaraziko berak nahi ez badu. **Bernardo Atxaga**

Mara oasiko **urak** gezatu.

Sudurrak askoz mekanismo hobea du **ura** lurrunarazi eta airera bidaltzeko. **Irene Aldasoro**

Gainez egin zuen **urak** edontziatik. **Jon Muñoz**

Amari solasa zerion pegarrari **ura** bezala. **Janbattitt Dirassar**

Ura eta olio bezala gara. **Juan Kruz Igerabide**

Odolak odolari eta **urak urari** egiten dio dei, jakina den bezala. **Felipe Juaristi**

Belakiak xurgatu egiten du **ura**; bainugelako horma-paperak, berriz, adsorbitu. **Irene Aldasoro**

Gora eta gora egin zuten **urek**, mendigailurrik garaienak ere estaltzera iritsiz. **Jose Antonio Mujika**

Urak hartuak zituen bide bazterreko soro, baratza eta landak. **Anjel Lertxundi**

Bi metrorainoko **urak** izan zituzten paraje batzuetan. **Pello Zabala**

1787an, Tarragona aldean, Chertan, Ebro ibai bere bidetik atera, eta 16 metro igo ziren **urak**. **Pello Zabala**

Uholdea etorri zen Edom aldetik, eta lurralde hura **urez** bete zen. **Elizen arteko biblia**

Ikaratu egingo ginateke **urezko** desertuan, itsasoan alegia. **Bernardo Atxaga**

Urez estali sutea oraino ketan zegoen. **Itxaro Borda**

Baloiak aterata zirela gero, **urezko** puxikak, turutak, hairak hitz zantar. **Karlos Linazasoro**

Hitza zilarrezkoa bada, isilatsuna **urezkoa** da. **Patxi Zubizarreta**

Ez zaie iruditzen gorputz guztiek erdirantz tiratzen dutenik, lurrekoek eta **urezkoek** baizik. **Xabier Amuriza**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Urak bere bidea du beti, ez dago birritan **ur** berean bustitzerik ez itotzerik. **Felipe Juaristi**

Saiakuntza horretan, ezkerreko eskua **ur** hotzetan eta eskuinekoa **ur** berotan sartzen du behatzaileak. **Irene Aldasoro**

Laster, **ur** hotza bere lana egiten hasi zen. **Jose Morales**

Askoz larriagoa da **ur** izoztuan murgilduriko gorputz baten bero-galera. **Irene Aldasoro**

Zangan, **ur** beltz izoztuan. **Josu Zabaleta**

Egeo itsasoko **ur** urdinetan. **Jon Muñoz**

Tantak malenkoniatsu limurtzen ziren adar hautsi eta antzuetan barrena, berriro **ur** gardenetan erortzeko. **Agustin Otsoa**

Ibaiak azalean **ur** garbi aratzak eta barnean arre zikinak daramatzen bezala. **Felipe Juaristi**

Bapo bizi haiz, garagarra jaten eta **ur** freskoa edaten. **Patxi Zubizarreta**

Gorputz osoa puzturik zeukan, eta ahotik eta sudurretik **ur** gazia zerion etengabe. **Juan Kruz Igerabide**

Ur geza itsas zabalean! **Jon Muñoz**

Ur uherretako burbuila haiek, eguzkiaren distira ustelak eta, ahoz goraka begiratura, landarez josia ageri zen zeru hark. **Joxe Austin Arrieta**

Ur bedeinatu ugaziz ihintzatu zuen Buru Nagusiaren erretratu handia. **Koldo Biguri**

Kotoi puska bat **ur** oxigenatuarekin blaitu eta bisaia igurtzi zidan. **Aingeru Epaltza**

Mendi arteko haranetan ibai garbietako **ur** jostalariak freskatzen zituzten urertzeko limoioendoak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Izan bedi sabai bat uren artean, goiko **urak** eta beheko **urak** bereiziko dituen. **Jose Antonio Mujika**

Sor itzazue umeak, ugaldu eta bete itzazue itsasoko **urak**. **Karlos Zabala**

Ur irakinezko zutabe handi bat sortu eta pare bat metroraino altxatu zen, guztiak ziprztinduz. **Joanes Urkixo**

Inork segada bat jarri bazion, ezin egokiagoa zen eremu hura, **ur** azalekoak eta harriz josia. **Joanes Urkixo**

Zulo horretatik uharkako **ura** sartuko zaio barrura. **Santiago Iruretagoiena**

Iturriko **ura** bezain garbia. **Janbattitt Dirassar**

Kanilako **ura**: bainugelana (bainuontzirik gabe, tamalez) eta barruko eta kanpoko zenbait hormatan. **Josu Zabaleta**

Goretsazue, zeru zabalok eta zeru gaineko **urok**! **Elizen arteko biblia**

3 (neurri banako edo kideko baten eskuinean)

Bina metroko diametroa zuten, eta mila eta seiehuna litro **ur** hartzen. **Elizen arteko biblia**

Gutxi gorabehera 250 ml **ur** eta 350 kcal bero (350 janari-kaloria) galtzen ditu pertsona nagusi batek egunero arnasan botatako airean. **Irene Aldasoro**

Demagun ontzi baten edukiera zortziehun tona **ur** dela: ontzi horren karga laurehun tonakoa litzateke. **Iñaki Iñurrieta**

Ogia eta zahato bat **ur** hartu eta Agarri ezarri zizkion bizkarrean.

Graxiri pitxartara bat **ur** ezarri zioten aitzinean. **Eneko Bidegain**

Baso bat **ur** edo esne hartuko duzue? -galdegin zien Agathak. **Elena Touyarou**

Zazpi basokada limoi **ur** koñakarekin nahasturik edanak zituen. **Felipe Juaristi**

Kadur herrixkan elefante batek bi barrika bete koko-**ur** edan zuen. **Gotzon Garate**

Komunak ur jarria badu, konpondu egin behar da, 200 litro **ur** galdu daitezke eta, bide horretatik. **Berria - Harian**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hiritik Goioren etxeraino hainbat kilometroko lokatz bidea egin behar da oinez, **ur** putzuak saihestuz. **Joseba Sarrionandia**

Lehorrari "lur" eman zion izena eta **ur**-multzoari "itsaso". **Jose Antonio Mujika**

Emadazu, otoi, **ur** tanta bat zeure pegarretik. **Jose Antonio Mujika**

Ur-txinta baten mesedea eskertuko genizuke, hori bai. **Anjel Lertxundi**

Han nengoen ni, **ur** perlak zituen xanpain botila eskuan. **Ramon Saizarbitoria**

Olatua haustean **ur**-ziprztinak barreiatzen diren bezala. **Jose Morales**

Itsasoa bera etengabeko mugimendu sortzailean dago, baina **ur**-masa handi horren eragina bere ertzetara baino askoz harantzago hedatzen da. **Iñaki Mendiguren**

Sukalde zabal bat, **ur** berogailuarekin eta suarekin. **Josu Zabaleta**

2004ko ekainean inaguratu zuen Alvaro Miranda Herri Lan kontseilariak Nagoreko **"ur**-parkea". **Eduarne Elizondo**

Besoak haize errotaren hegalk bezala, oinak, berriz, **ur** errotaren gurpilak bezala. **Felipe Juaristi**

Te-etxe arrunta zen, ohi baino txikixeagoa, **ur**-pipaz betea. **Jon Arretxe**

Ur biltze eta artatze obrak, haur zaindegiaz ere. **Herria**

Badoaz nire indarrak, **ur** isuria irudi.

Ur-ibilguetan, bihurtuneetan eta ura nibelatutako gainazal batetik gora igoarazten denean. **Santiago Iruretagoiena**

Israeldarrak, ordea, oinak busti gabe igaro ziren itsas erditik, **ur**-harresiak zituztela ezker eta eskuin. **Jose Antonio Mujika**

Ematen zuen Kaweah erreka **ur** xuxurla portxeraino iritsi behar zitzaigula. **Bernardo Atxaga**

Jonathan-eta-Léa antz-antzekoak ziren, nola diren elkarren antzeko bi **ur** tanta. **Jon Muñoz**

Bota zituen hala gozoki-papera nola **ur**-zakurra, eta hortxe hasi zen zakurtzua negar-intzirika. **Jose Morales**

Arratsaldea zen orduko: udazkenean, ibaiertzean, goizeko hamarretan hasten da arratsaldea, eta aireak **ur** kolorea izaten du. **Koldo Biguri**

ik urkolore.

Bilbo Handiko **Ur** Partzuergoko azpikontratatuak grebara.- Kopak **ur**-busti ditut, eta orain platerño ilara bat jartzen ari naiz **Berria - Ekonomia**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Ur beltz xorta bat ukaiten zuten ogiaren laguntzeko. **Eneko Bidegain**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Teiletatik euri-**ura** hartzen duen erretenera iritsi arte. **Santiago Iruretagoiena**

Gailur inklinatu hori lohiarekin igurtziz, euri-**ura** kanpora botatzen saiatu ziren. **Santiago Iruretagoiena**

Han euri **urezko** putzu bat egoten zen, edota urezatzak eragindakoa, edota zamariren baten txizak. **Patxi Zubizarreta**

Urteak isuri ziren, odola bezainbeste, elur **ura** bezainbeste, negarra bezainbeste. **Felipe Juaristi**

Muki-**ura** dario sudurretik; hura ez ohartzea espero du. **Oskar Arana**

Suspertzeko arrosa-**ura** usnatzea gustatzen zitzaion. **Askoren artean**

Adelak belar-**ura** prestatu zigun, digestioa hobeto egiteko: erregaliza, anisa eta limoi-lorea. **Juan Kruz Igerabide**

Soda **ura** balitz bezala edaten du koñaka. **Koro Navarro**

Koko-**ura**, ardoa baillitza, irakiten ari zen eta elefantea horditu egin zen. **Gotzon Garate**

Lorez egindako muino baten gain-gainean iturri bat zegoen, sagar **ura** zeriona. **Felipe Juaristi**

Laranja **ura** edan eta banoa kalera. **Joseba Sarrionandia**

Limoi **ur** izoztua arrosa hostoekin nahastuta. Felipe Juaristi
Hala hasiko naizela ni guaiako-**ura** eta guaiako-bainuak hartzen. Joan Mari Irigoien
Bi litro ezti-**ur** bero espeziekin? Iñaki Mendiguren
Berotzen saiatuz gero [...] kristaltze-**ura** galtzen du, opako bihurtzen da, eta bezero ergelek ez dute atsegin. Juan Garzia
Erabilitezkeen metodoen jakitun izan nintzen pixkanaka, puntua egiteko orratza, perrexilaren txortena, xaboi-**urezko** injekzioak, ekitazioa. Joseba Urteaga

7 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Guk, erran nahi baita ugaztunok, ez baitugu eskuarki **ur**-hornidura arazorik. Juan Garzia
Atmosferan dagoen **ur**-lurrin kantitatea. Irene Aldasoro
Malkoak betzuloetatik behera erortzen zitzaizkion ibai mingotsaren metal **ur** tantak balira bezala. Felipe Juaristi

8 irud/hed

Zilarrezko **ura** ageri zen errekaen zati batzuetan. Hasier Etxeberria
Ur horiei gainezka eginarazi dien azken ttantta izan da aurreko batean egunkari honetan bertan irakurtzen nuena: [...]. Iñaki Segurola
Gatozen berriro **ur** txikietara. Iñaki Segurola
Izertia izpirituari gozoro darion zuku bat da, inork bedeinkatu gabeko **ur** izpiritutsu bat. Iñaki Segurola
Giroaz den bezainbatean, ez ardo ez **ur**: 40tik 60 urte bitarteko jende bakartien bilgune geldoa gehienetan. Aingeru Epaltza
Ura bere errotara beti apaizak. Xabier Mendiguren Elizegi

9 (leku atzizkiekin)

Arrosak **uretan** ipintzera noa. Lopez de Arana
Ura harrietan eta harriak **urean**. Piarres Aintziart
Arrieta, hik ez dakik oinez **uretan**! Koldo Izagirre
Igerilekuaren ertzean jarria eta zangoak **urean** sartuta deitu zuen Kristinaren dendara. Aingeru Epaltza
Azidoa bota **uretan**, eta ez alderantziz. Juan Garzia
Pixkanaka-pixkanaka eraikia zuten mundu "berri" hura gatzat **urean** desegiten den gisa desegin dela gau batean. Pello Salaburu
Ez dakit nire burua zen, edo edatera behartzen ninduten **urean** drogaren bat bota zuten. Berria - Euskal Herria
Hiru bota nituen erdizka betetako baso **urean**. Aingeru Epaltza
Ez badituzu nahi, **uretara** botako ditut. Bernardo Atxaga
Nahiz eta **urera** jauzi egin nahi luketen aste osoko bide segurutik jarraitzen dute. Eneko Bidegain
Héraclusek erantzi zuen azkar-azkar lebita, oinetakoak kendu, eta **uretara** sartu zen hura ere. Josu Zabaleta
Zure etxean ez baldin baduzu sardinarik, ez eska bertzearenean izokinik; ez ere arrainik ez den **urera** bota sarerik. Aurelia Arkotxa
Atera zuten, bada, kutxa **uretatik**, hari ezer esan gabe. Jon Muñoz
Astelehenean, untzia atera dute **uretik**. Herria
Nola arrain bat **uretatik** kanpo. Koro Navarro
Emeki igerika aritu ziren eta prestuki **uretik** atera. Ramuntxo Etxeberri
Horra hor abereei, hegaztiei, **uretako** bizidunei eta lur gainean narrasta dabiltzan pitziei buruzko legea. Elizen arteko biblia
Kontuan hartu behar da, **ureko** tenperatura gradu bat igotzeko lurrekoa igotzeko baino lau aldiz energia gehiago behar dela. Berria - Gaiak

10 teiltuetan, isurialdea.

Zurezko barrakoi hauek 24 metro luze, oinean 6 metro zabal eta altueran 2 metro eta erdikoak dira, **ur** bitako teiltuarekin. Jokin Urain

11 edateko ur edateko ona dena.

Egiptiarrek ibaiertzean putzuak zulatzeari ekin zioten, **edateko ur** bila, Nilokoa ez baitzen on edateko. Jose Antonio Mujika
Haren aita François Zola ingeniari veneziarra **edateko ura** hirira eramateko kanal bat eraikitzen ari zelako. Karlos Zabala
Isuriek izadiari kalte egin eta **edateko ura** kutsa dezaketela ohartarazi dute. Berria - Ekonomia
Munduko populazioaren %20k **edateko ur** egokirik gabe jarraitzen du. Berria - Gaiak
Txabola horietako asko adreiluzkoak dira, eta elektrizitatea eta **edateko ura** dute. Berria - Gaiak
Ez dago **edateko urrik**, komunik, argindarrik, nonahi da zaborra. Pablo Sastre
Agintarien arabera, Kalahariko erreserban bizi direnei **edateko ura** eramatea oso zaila da. Berria - Gaiak
Nola brontzezko hodiak egiten zail diren eta **edateko urarentzat** erabiltzen direnean sabeleko gaitza dakarten. Juan Garzia
Edateko uretarako kanila bat. Koldo Biguri
Edateko ura Lyonnaise enpresa pribatuak hornitzen du. Herria
Edateko uraren prezioa Angelun. Herria

12 kolonia-ur kolonia.

Bainu gatzak, talkoa, **kolonia ura**. **Kolonia-uraren** ontzia. Josu Zabaleta
Kolonia-uraren flaskoa lurrera erori zen. Jose Morales
Jantzitakoan, gorputza **kolonia-urez** zipiritindu, eta, hotzetik ondo babesturik, kalera irten zen. Jose Morales
Batistazko sudur-zapiari emaniko astindu arinek **kolonia-uraren** lurrina zabaldu zuten etxe osoan. Jose Morales

13 metal ur (7 agerraldi, 4 liburu eta artikulua 1ean) ur minerala.

Azelga batzuk jaten ziharduen, eta **metal-ura** edaten. Jon Alonso
Erreumatismoa: ur erradioaktiboak, bikarbonatuak (bikarbonatu kloruratuak), sulfuratuetak, karbogaseoak eta **metal urak**. Berria - Euskal Herria

14 ur-ardotu ik urardotu.

15 ur azal (orobat urazal g.er.) iz uraren azala. ik beherago 27.

Marinel zaharrak beldur bakarra adierazi zuen behin baino gehiagotan: izotzak ez ote zuen **ur azala** estaliko. Karlos Zabala
Ezkerreko eskua luzatuz urmael baten **ur azala** uki zezakeela. Ramon Saizarbitoria
Ordurako osorik ikusten genuen putzua, **ur azala** arrainek kizkurtua. Koro Navarro
Ontzia, txori arin baten antzera, ziztu bizian zihoan aurrera ispilu-antzeko **ur-azal** geldian. Jose Morales
Ur-azala arrailatzen zuen ferryak laprast egiten zuen eta, mareak bere altzoan eramane, astiro-astiro iristen zen ontzirekulara. Alberto Barandiaren
AdibideaHarri bat jaurti aintzira batean eta uhinak sortzen dira **ur azalean**, eta norabide guztietan hedatzen dira uhinok. Berria - Harian
Produktu kimikoek **ur azalean** uzten dituzten konposatu organikoak xurgatzen ditu landare horrek. Berria - Gaiak
Horrelakoak **ur azalean** geratzen dira, baita ito ondoren ere. Koro Navarro
Kaioen presentziak ohartu eta haien **ur azaleko** hegadak ikusiz. Pedro Alberdi
Ur-azaleko borrokarako ez daude txarto horniturik U motako itsaspekoak. Edorta Jimenez
Seitik hamar egunerako bitartea behar izaten du gorpuak usteltzen hasi eta, usteltze horren ondorioz, **ur azalera** igotzeko. Berria - Kirola

16 ur-bazter (orobat urbazter) ik beherago 25.

Ur-bazterra utzi, eta aldapan gora jotzen zuen errepideak, ibai gaineko goi-ordokirantz. Jon Muñoz

Lehorrez, ostera, ezin joan, inbaidatzaileek Angarako bi **ur bazterrak** hartuak baitzituzten. **Karlos Zabala**

Valdeoscuro ibaiaren ezkerreko **ur bazterra** segituz noa. **Piarres Aintziart**

Mila kilometrotik gora egin ditut bizikletaz Itsaso Beltzaren kostaldeko errepideari jarraituz, batzuetan **ur bazterrearen** albo-albotik. **Jon Arretxe**

Mahatsondoa zirudien zure amak, **ur-bazterrean** landatua. **Elizen arteko biblia**

Ahmedabaden bada aintzira bat, Kankaria, **ur bazterrean** harkaitz tzarrak dituena. **Gotzon Garate**

Jende dezente ikusi du hondartzako **ur-bazterretik** hara eta hona paseatzen. **Jokin Muñoz**

Ur bazterretik 800 metrora jarri nahi zituzten hodiak 40 km urrundu beharko dituzte. **Berria - Gaiak**

Ur bazterrean, zangoak uhain moteletan bustitzen ditu. **Ramuntxo Etxeberri**

Egun batean noraezean indoan belardietan barrena, aintzira ez zen aintzira hartako **ur-bazterretan**. **Fernando Rey**

Zaldia **ur bazterreara** eraman eta zuhaitz batean lotu zuen. **Karlos Zabala**

Autoak nekez ibil zitezkeen **ur-bazterreko** bidexka bat zuen. **Fernando Rey**

17 *ur-begi* (orobat *urbegi*) iturbegia. ik iturburu.

Azpitarratzekoa da, halaber, banaketa hesiarekin Israelek bereganatzen dituen lurralde palestinar hauek direla nekazaritzarentzako emankorrenak, hauetan kokatuak baitira **ur begi** bakanak. **Berria - Mundua**

Marmauko erreka agorturik dago eta bertze asko **ur begi** ere berdin. **Herria**

Edaten du han ur bizien iturri beretik, **ur-begi** esentziazko eta egiazkotik. **Joan Mari Lekuona**

Zeinen gozagarri den **ur-begi** horretatik edatea, nork dezake adieraz? **Joan Mari Lekuona**

Neska bakoitzak baratze sekeretu bat gordetzen baitzuen bere gorputzean eta **ur-begi** bana bere begietan, edo hala iduri zuen bederen. **Joan Mari Irigoien**

18 *ur belar* (orobat *urbelar*)

Ez zioten jaramonik egin biga hari, han, zabaltxoan, oinak **ur-belar** bigunean zituela, nork jakin zeren begira zegoen hari. **Josu Zabaleta**

Koretroia landare mikroskopikoa da, ur geldietako belarren ahaidea, baina **urbelarrak** hil egiten dira hotzarekin, eta koretroiak beirazko eskola du bizirauteko. **Joseba Sarrionandia**

19 *ur-berro*

Marjolin dendetan sartzen zen, **"ur berro** ederra, gorputzarentzat osasungarri!" eskaintzera. **Karlos Zabala**

20 *ur bildu*

Egokitu aurrez aurre harkaitz handi batekin, eta guk Sansonen putzua deitzen genion **ur-bildua** sortzen zuen haren oinean, txikia eta sakona, igeri egiteko baino gehiago bainua hartzeko baliatzen zitzaiguna. **Bernardo Atxaga**

Hala ere, iturri eta urtegiei dagokienez, **ur bilduak** garbi iraungo du, baina sarraskia uretatik ateratzeko ukitzen duena kutsaturik geldituko da. **Elizen arteko biblia**

21 *ur bizi* (orobat *urbizi g.er.*)

Ibaietakoak **ur biziak** ziren, buztintsu nahiz gardenak izan; itsasoak gazi, geldi eta hilda dirudi. **Iñaki Mendiguren**

Ebanjelioko **ur biziak** mundu osora zabaldu ditu. **Askoren artean**

Ur biziak harkaitzen kontra lehertzean negar zotina airatu da inguruan. **Imanol Zurutuza**

Hori da **ur biziaren** aurka igeri egitea. **Jokin Urain**

Ur bizi eta handitako ibai baten aldamenetik. **Jon Arretxe**

Polixenek apirilko **ur biziak** baino saltarinago jartzen zidaan bihotza. **Pako Aristi**

Florentzia txiki-txiki bat ematen du, errekatxo argi, harritsu, marmarrari eta **ur biziko** baten ertzean kokatua. **Koro Navarro**

Besteak beste, **ur bizien** ubidea egingo dute Irunen eta Zaldibian Arrantza Eskola egingo dute. **Berria - Euskal Herria**

22 *ur dilista Lemnaceae* familiako familiako belar landarea, ur geldietan hazten dena eta dilistaren antza duena(*Lemna* sp.).

Defentsarako mekanismo bat garatu du **ur dilistak**, osagai kutsakorretatik babesteko. **Berria - Gaiak**

Ibai geldoetan hazten den landare bat da *Lemna Minor* **ur dilista**. **Berria - Gaiak**

Ur dilistak biltegi funtzioa betetzen duela esan zuen hark, eta haien erreparatzea besterik ez dagoela uretara iristen diren osagai toxikoez jabetzeko. **Berria - Gaiak**

Klorinatoak, fluorinatoak, kloro-fluoratuak eta beste zenbait substantzia kimiko xurgatzen ditu *Lemna Minor* **ur dilistak**. **Berria - Gaiak**

23 *ur edangarri* edateko ura.

Ez dago autorik inon, ez telefonorik, **ur edangarririk**, komunik aire egokiturik edota garbitzeko urik. **Berria - Harian**

Egun 1,1 milioi pertsona inguruk ez dute **ur edangarririk** eta bi milioi inguru haur hiltzen dira urtero kutsatutako ura edateagatik. **Berria - Gaiak**

Ezingo da urik hartu hainbat errekatatik, **ur edangarria** bilakatzeko edo suak itzaltzeko ez bada. **Berria - Euskal Herria**

Behin-behineko ospitaleak, **ur edangarria** eta elikagaiak dira bertan premi larrienak. **Berria - Harian**

Herrialde horietan, **ur edangarria** eskuratzeko arazoak murriztea du helburu Nazio Batuen Erakundeak diru laguntzaren bidez. **Berria - Gaiak**

24 *ur emari*

Danubio ibaiaren **ur emaria** segundoko 15.800 metro kubikokoa izatera iritsi da, hain zuzen ere, urte sasoi honetan ohikoa den baino bi bider gehiago. **Berria - Mundua**

Neguko elurra urtu ondoren, ibaiaren **ur emariak** urtero gora egiten du. **Berria - Mundua**

Itoizko urtegiari esker lur sail berriak ureztatzen hasteak arazo ekologikoak ekarriko ditu, haren ustez, uraren kontsumoa bikoizteak, **ur-emari** ekologikoari eta uraren kalitateari eginen diolako kalte. **Berria - Harian**

Yanacocha meatzea zabaldu zutenetik, **ur emariak** behera egin duela ikusi dute. **Berria - Gaiak**

Nafarroan, esaterako, Iruñerrian, Aрга ibaiaren **ur emari** handiak errepide mozketak eta uholdeak eragin zituen Burlatan eta Arren, besteak beste. **Berria - Euskal Herria**

Ibai batek sortzen dituen uholdeak, ibaiak daraman **ur-emari** maila handitzearen ondorio direla esatea bezalatsu. · Ez dago argi Ertzillara uko lurrazpian sartzen denean Larraun ibaiaren **ur-emariarekin** bat egiten ote duen. **Iñaki Heras**

Pitxar batetik edalontzi batera isurtzen den **ur-emaria**. **Txema Ramirez de la Piscina**

25 *ur ertz* (**59** agerraldi, **26** liburu eta **2** artikulutan; orobat *urertz* **32** agerraldi, **20** liburutan) ur-bazterra.

Kutxa zeramaten apaizak Jordanera heldu eta haien oinek **ur-ertza** ukitu bezain laster. **Elizen arteko biblia**

Ibaiaren erditik **ur ertzak** ikusezinak ziren. **Karlos Zabala**

Han, **ur ertzean** harrikoa egiten ari ziren emakumeak ikusi zituen. **Felipe Juaristi**

Presoek gau osoa Tom ibaiaren **ur ertzetan** eman behar zuten. **Karlos Zabala**

Ur-ertzean zeuden hogeit bat arrantzalek sokaren muturrari heldu, eta tiraka hasi ziren kontu handiz. **Jose Morales**

Ur ertzeko ibiltariak ugaritu direnean, gizona hondar lehorreara itzuli da. **Pedro Alberdi**

Bran **ur-ertzer**a hurbildu eta edaten hasi zen. **Joanes Urkixo**

Akuilu luze batzuk baliaturik gidatzen zituzten **ur-ertzeraino**, harik eta zerriak, ura sentitu orduko, kurrixka egin eta ihes zoroan hasten ziren arte. **Anjel Lertxundi**

Gorputz beltz haiek sakabanatu ziren guztiak, eta berehala nabaria izan zen eskuineko **ur ertzeraino** iritsi zirela lasterka bizian. **Karlos Zabala**

Ur ertzen estugune hori gabe segur aski jelazko hesirik ez zen sortuko. **Karlos Zabala**

26 *ur etorri*

Harritzen dira naturak itsasoari handitzen uzten ez diolako, hain **ur etorri** handia izanik eta ibai guztiak alde guztietatik bertara jorik. **Xabier Amuriza**

· Janzkeretan, autoetan, dendetan, denean ikusten da, bai, aberatsenak eta pobreenek kale hau berau dutela bizitzako **ur etorria**. **Edorta Jimenez**

27 *ur gain* (orobat *urgain*) iz ik gorago 15.

Eskuaren **ur-gain** izoztua arakatzeko segitu zuen aitaren egiteko ur bedeinkatu bila, gero eta urduriago, baina alferrik. **Anjel Lertxundi**

Urgain geldiak ispilua zirudien; Urumea bera lakua bailitzan, eta ez ibai isurkorra. **Txillardeggi**

Behi lokartuaren bizkarra bezain nare eta leun dago **ur-gaina**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zuhaizten azpitik, zuhaitzetan zihono ibaia, **ur gaina** belarrez beteta, ibai sakon, hotz, gardena. **Josu Zabaleta**

Ura barrura ekartzen aspaldi hasia, arrantzaletxi txalupa itzuli genienarako **Animas** ontziaren karela **ur gainaren** parean ziren. **Edorta Jimenez**

28 *ur galdu* (*orobat urgaldu g.er.*) *pl ipar* ur zikinak.

Legezko ikerketa bat bazen preseski manatua ikusteko denak untsa eginak direnez lantegi horrek ez gehiago bazterra kotsatzeko, usain tzar eta gaineratiko, eta bereziki horko **ur galduentzat** behar bezalako ixurgia plantan ezarria denetz. **Herria**

Badugu Donibane Lohizunen, duela dotzena bat urte muntatua, herriak egina bistan dena, badugu **ur galduen** garbitegia. **Menane Oxandabaratz**

Ur galduen tratatzeko auzogune hortan plantatu muntaturak berritu behar direlaketz eta obra horiek izaunen duteno ez delaketz Zenitzeko ondartzarat sartzerik izanen. **Herria**

Ziburun, obra handiak akulatzen ari dituzte portuaren hegi hortan, gaitzeko hodiak ezarriz lurpez, **urgalduen** bitzea gatik. **Herria**

Ur galduen hodi-sarea dena berrituz. **Herria**

29 *ur garbitegi* (*orobat urgarbitegi*)

Azken bi urte hotan, obra ainitz gisa hartaraz akulatuz, **ur garbitegi** hortako muntadura guziak handitu eta berritu dituzte. **Herria**

Ondo hortako **urgarbitegiaren** ixurkiak behar baitu leihoretik hein bat urrun, hiru ehun metrotan segurik, espresuki muntatu tresna horri esker itsas zola zilatuz eginen zaio ixurki horri bere bidea. **Herria**

30 *ur geldi* (*orobat urgeldi g.er.*)

Lakuaren **ur geldietan**. **Joan Mari Irigoien**

Urak dituen edo ez dituen mineralek, uraren sakontasuna txiki ala handiak, **ur geldia** ala dabilena izateak. **Koro Navarro**

Leku zoragarria, **ur geldiak**, hondartza zabalak. **Jon Muñoz**

Bihurgune baten **ur geldian** errotua dagoen ihi flokari so egon naiz aski luzaz. **Piarres Aintziart**

Uhin zirkular mugagabez mugitzen da, **ur geldian** harri bat botatzen denean gertatzen denaren antzera. **Santiago Iruretagoiena**

Metro eskaseko **ur gelditan** itoa. **Hasier Etxeberria**

Zirrikitu bat, eraikinaren aurrealdeko teilatutik abiatzen eta horman behera sigi-saga jarraituz urmaeleko **ur geldietan** galtzen zena. **Koro Navarro**

Ur geldizko osin batean hantxe itotzeko eroriko banintz bezala. **Josu Zabaleta**

Bazen leku hartan kirats gozo melenga bat, lokatzak eta **ur geldiak** baino areagoko zerbaitek eragindakoa behar zuena. **Mirentxu Larrañaga**

Zainetako odola **ur geldi** bihurtu zaiola ematen du. **Berria - Kultura**

· Beheraxago ikusia dut erreka, urte osoan ura dariola, guneka harri lauzak moteldurik **urgelditxo** bilakatzen delarik xirripa, xoriak moko sar dezan egarriz. **Piarres Aintziart**

30a *irud/hed*

Memoriaren **ur geldi** baldarreko irudi urrunak joan zitzaizkion pixkanaka aktibatuz. **Aritz Gorrotxategi**

31 *ur golko* (*orobat urgolko*) golkoa.

Hampdeno herrixka, White Bay deitzen zaion **ur-golkoaren** bazterretan zen, Atlantikotik ahal bezain urrun. **Aurelia Arkotxa**

San Laurendi **ur-golkoko** uhin apalen erritmo berak mailu ukaldien kasken arteak betetzen zituen. **Aurelia Arkotxa**

Amerikano armadak gisa hartako apailuak hasiak ditu, bereziki persiko **urgolkoan**. **Herria**

32 *ur handisup_1* ur sakona. ik beherago 44.

Ur **handi** edo sakonetan ez dagoela argirik eta ez dela deus ikusten. **Iñaki Segurola**

Ur **handietan** hondoratzeko arriskutik salbatu ziren. **Askoren artean**

Hemen ur **handi** horietan igerian bizi gogoz ari naizen ni hau. **Jenaro Garate**

Ez zen ohartu ur txikia ur **handia** bustitzen ari zela, odolak odola ere bustitzen duen bezala, liskarrean. **Felipe Juaristi**

Rauter, alemaniar **ur handiko** arrain batek, uztailaren 1erako judu guztiek germaniar herrialdeetatik alde egin beharko dutela esan du hitzaldi batean. **Josu Zabaleta**

· Adiskide gazte, halako izen batekin hemen negoziotetan aritzeko, **ur handitako** arraina izan behar zenuke. **Matias Múgica**

· Urak **handi** izanez, nasatik aski urrun eraikia zuten kanpamendua. **Itxaro Borda**

Errekak ur **handia** zekarren. **Fernando Rey**

32a *irud/hed*

Aitortu beharra daukat ur **handiegiak** direla hauek nere adimendu motzarentzat. **Iñaki Segurola**

Ordea, **ur handiak** alde batera utziz, sar gaitezen berriro arrastoan. **Iñaki Heras**

Oroimenaren **ur handietan**. **Xabier Montoia**

33 *ur handisup_2* ibaia.

Errobi **ur handitik** hasirik eta Irisarriko mugaraino. **Herria**

Goazen mendebalderantz, Baztango bazterrak bustitzen dituen **ur handira**. **Iñaki Segurola**

Luze, zabal, **ur handi** baten pare zolan Baionako karraketan euskaldun jendea. **Herria**

34 *ur harri* ik uharri.

35 *ur hegazti*

Erbi gorri handiak, eper pintarratuak, **ur hegazti** kolore brontze-grisekoak. **Karlos Zabala**

Warta eta Odra ibaien artean dago eskualdea, eta **ur hegazti** mota eta kopuru asko ditu. **Berria - Gaiak**

Belar handi haiek hura baino altuagoak ziren, eta ezin konta ahala **ur hegaztien** zeruratzeak baino ez zuen salatzen haren presentzia. **Karlos Zabala**

Marea behera zegoela eta, argi ikus zitekeen ubidea sigi-sagaka, hareatza zabalak eta uharte arrokatsuak saihesten, eta han-hemenka **ur-hegazti** saldo handiak. **Joanes Urkixo**

35a *ur hots* (*orobat urots*)

Freskotasuna sentitu nuen, iturri batena zirudien **ur hotsa** entzun nuen. **Bernardo Atxaga**

Masqueret iturriaren **ur hots** leuna nire belarrietara isurtzen zen eta bertan habia egiten zuen, hasperenez betetzen zituen. **Monika Etxeberria**

Ur-hotsa, teilatuetatik estolderiatara bitarteko hodietan. **Anjel Lertxundi**

Belarri eman nion komunetik heldu zen **ur hotsari**. **Aingeru Epaltza**

36 *ur jario* (**11 agerraldi**, **7 liburu** eta **3 artikulutan**; *orobat urjario agerraldi 1 liburu 1ean*)

Komunak **ur jarioa** badu, konpondu egin behar da, 200 litro ur galdu daitezke eta, bide horretatik. **Berria - Harian**

Atseginez entzuten zitzaion, iturri eder batean **ur jarioari** begira egon lekiokkeen bezala. **Josu Zabaleta**

Gaitzak sendatzen omen dituzten **ur jario** ugari aurki daitezke Euskal Herrian. **Berria - Euskal Herria**

Basotxoaz haratago **ur-jario** argi bat topatu zuten; errekan gora joan ziren. **Ibon Uribarri**

Ur jario mehe baina etengabe hartaz ohartzean komunekoa bilatu zuen ate guztien artean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ur-jarioa neurtzeko, honela egingo da: [...]. **Santiago Iruretagoiena**

Ur-jarioa bezazten baituzten lurrak. Joxe Austin Arrieta

Zu nire baratzeko iturri, urbizien iturri, Libano menditik datorren **urjario** ! Elizen arteko biblia

37 **ur jauzi** (70 agerraldi, 43 liburu eta 6 artikulutan; orobat **urjauzi** 33 agerraldi, 13 liburu eta artikulua 1ean eta **ur jauzi** g.er.)

Ur-jauzi hotzak mahuketatik behera erortzen zitzaizkion. Lopez de Arana

Ur-turrustak, deabruzko **ur-jauziak** ! Jon Muñoz

Komuneko **ur-jauziak** . Anjel Lertxundi

Ur-jauzi burrunbatsuetako ur-hauts betierekoa. Jose Morales

Ur-jauzi burrunbatsuaen abarrotsak berriz bete-betean hartu ninduen. Jon Maia

Eta berriz ere burua urperatu zidaten, ur berde esmeralda haietara jausten zen **ur-jauzi** erraldoiaren uhertasunaren zurrunbiloak gorputzari barrura tiraka-tiraka, putzuaren sakoneraino eraman ninduen. Jon Maia

Ur-jauzi apartuen ondorengo ubera bi. Anjel Lertxundi

Europako **ur jauzirik** haundiena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

[Ontziak] bai itsas zabalekoak, bai Nilo ibaian barrena joango direnak, lehenengo **ur-jauziraino**, eta bai hondoa laua dutenak, hiri inguruko zingiretarako. Jon Muñoz

Iguazuko Deabruaren Eztarria **ur-jauziaren** aurrean. Iñigo Aranbarri

Niagarako **ur-jauzi** indartsuak. Koro Navarro

37a **ur korronte** (25 agerraldi, 12 liburu eta 4 artikulutan; orobat **urkorronte** g.er.) iz ur-lasterra.

Ez nazala **ur-korronteak** eraman, ez nazala zurrunbiloak irentsi, ez nadila putzuan itxita geldi! Elizen arteko biblia

Hasieran seme-alaba txikiak hartu nituen besoetan, **ur korronteak** arrastaka eraman gintuen kilometro eta erdi, zuhaitz batera heldu eta hantxe gelditu ginen. Berría - Mundua

Itsasoko **ur korronte** beroek lurreko tenperatura epeltzen dute. Berría - Gaiak

Tarte honetan, **ur korronteak** amaigabeko biraguneak osatzen zituen, bazter bietako muinoen artean estu-estu sartuta. Joanes Urkixo

Ez zeukaten **ur korronterik** etxebizitzan, eta atarira iteten zen ur bila, gero sukaldean ezkatuta eta bere burua garbitzeko. Juan Kruz Igerabide

38 **ur-laster** (90 agerraldi, 43 liburu eta 8 artikulutan; orobat **urlaster** 15 agerraldi, 7 liburu eta artikulua 1ean) iz ur masa baten gidura jarraitua. ik gorago 37a.

Puskak jaisten ziren, ibaiaren **ur lasterrak** garraiatuak. Karlos Zabala

Ibaiaren erdialdean, **ur-lasterra** sendo eta bizkor mugitzen zen. Koro Navarro

Ur-laster isilak daude itsasoaren alde batetik bestera etengabeko joanean. Iñaki Mendiguren

Ama, gerrikoari tiraka, aitari irteten laguntzen ari zen, baina **ur-lasterrak**, indartsua baitzen, ez zion uzten. Juan Kruz Igerabide

Ur-lasterraren aurka igeri egin behar izan zuten. Urtzi Urrutikoetxea

Ibaian behera darama **ur lasterrak** . Karlos Zabala

Ur lasterra bortxaz eta jauzika zihoan aitzina, uharra irudi. Karlos Zabala

Nijni [ibaia] Novgorodetik aitzina aldatu egiten da, Errusia erdi aldeko probintzietatik datorren Oka ibaiaren **ur lasterrarekin** nahasten denean. Karlos Zabala

Toki amuarrainsua zen, harriarte eta **ur-laster** askokoa. Anjel Lertxundi

Ur lasterrekin mugitzen den zooplanktonarekin batera, mikrobioak dira erronka nagusia. Berría - Gaiak

Burua buruko bigunegiaren azpian gorde eta Wagnerren musikaren **ur-lasterrean** sartu nintzen berririo. Alberto Ladron Arana

39 **ur lurrun**

Castejongo zentral termikoei so, tximinia txikienetatik ateratzen den **ur lurruna** besterik ez da ikusten; ondoko tximinia zabalagoetatik ez da **ur lurrunik** ateratzen; ezta kerik ere. Berría - Harian

Bolidoak igarotzean eragiten duen inarrosiak kristaldu egiten du atmosferako **ur lurruna** . Josu Zabaleta

Kometen lorratza aztertuta, **ur lurrunaren** arrastoak hauteman dituzte hainbatetan. Berría - Gaiak

Atmosferaren azpiko geruzetan dagoen **ur lurruna** goiko geruzetara igoaraziko dute eta hodeiak sortuko dituzte, modu artifizialean. Berría - Gaiak

Ur lurrunezko molekula batek hamasei mila aldiz xurgamen handiagoa du aire lehorrezko molekula batek baino, **ur lurruna** da beraz gure bero biltegia. Josu Zabaleta

Temperatura jakin batean, asetasun-puntua iristeraino handitu daiteke aireko **ur-lurrun** kantitatea; puntu horretan, kondentsazioa hasten da. Irene Aldasoro

40 **ur ontzizup_1** (orobat **urontzi**) ura edukitzeko ontzia.

Ezpainetara hurbiltzen zion **ur ontzia** eta hark edaten. Karlos Zabala

Nola eramango diet nik lekaideei **ur-ontzia** edo suila erdi hutsik? Askoren artean

Hamar **ur-ontzi** eginarazi zituen eta uraskaren ezker-eskuin ezarri, bost alde batean eta bost bestean. Elizen arteko biblia

Orgaren gainaldean **ur-ontzi** baten ezpainak ateratzen ziren metro erdi gorantz; **ur-ontzia** biribila zen. Elizen arteko biblia

Teilatuetako **ur-ontzi** burdin xafrazkoei. Juan Kruz Igerabide

Erromesak kantari zihoazen, bidai makila eskuan, **ur ontzia** gerritik zintzilik. Karlos Zabala

-Zein **ur-ontzitarra** egin behar dun pixa orain, Karmen? Inazio Mujika Iraola

Auzoan bazuten putzadera lurpeko bat, ur ateratzeko txirrika, **urontzi**, kate eta guzi. Patziku Perurena

Zilarrezko azpil bat zekarren batak, esku- **urontzia** bestea. Patxi Ezkiaga

41 **ur ontzi** (orobat **urontzi**) itsasontzia.

Kubo handi baten itxurako zentro kulturala ezkerrean utziz, 'Star ferry' **ur-ontzien** kaiaruntz joan ziren eta itsas bazterrean, lasaiki ibili. Ramuntxo Etxeberri

Makao portuko kaian, 'jetfoil' deitu **ur-ontzi** superzonikotik jaitsi zirelarik, Mikel eta Nina harritu ziren: zer hiri itsusia! Ramuntxo Etxeberri

Urte horietan, aldiz, beste aktibitate bat garatu zen: miseriari ihes egiteko, Txinako baseritarrak milaka zetozen Makaora, Amerikarako **ur-ontzien** betetzera. Ramuntxo Etxeberri

41a **ur ontzikada** (corpusean **urontzikada** soilik)

Ez bat eta ez bi, **urontzikada** bat eman diot, bortitz, garrasi egitearekin batera. Patxi Zubizarreta

42 **ur ponpa** (orobat **urbonba** g.er. eta **ur-bonba** g.er.) iz

Iturria, zalantzarik gabe, bide bazterrean egon ohi diren **ur ponpa** horietako bat. Urtzi Urrutikoetxea

Bere musuzapia **ur-ponparen** azpian jarri eta busti egin du. Mirentxu Larrañaga

12 direla komuneko **ur ponpari** sakatzen diogun aldiro honek xahutzen dituen litroak. Iñigo Aranbarri

Automobileko **ur-ponpak**, adibidez, gurpil txiki paladun bat dauka, motorraren eraginez mugitzen dena. Irene Aldasoro

Gora eta behera, **ur-ponpa** matxuratu baten antzera. Alberto Ladron Arana

Argirik ez zegoenez, zapatuan urik ere ez zegoen, **ur-ponparik** ez dabilelako argi barik. Berría - Harian

Den-denaz egingo zuen errieta: garbiketa ontziez, arropa zabaltzeko sokez, **ur ponpaz**. Koro Navarro

Orain, orde, **ur ponpa** elektrikoak erabiltzen dituzte. Berría - Gaiak

43 **ur putzu** (orobat **ur putzu** g.er.)

Horra non azaldu den Rebeka, pegarra sorbaldan; **ur-putzura** jaitsi da eta ura atera du. Jose Antonio Mujika

Aurreraxeago, biraderazko **ur-putzua**, olibondoa aldamenen, soro harritsuak, uralitazko sabaidun txabola txuriak. Joxe Austin Arrieta

Hirira iritsi zenean, ahoa ateetan gelditu eta gamelauak **ur-putzu** baten ondoan ezanarazi zituen. **Jose Antonio Mujika**
Segur aski, Trejorekin egongo da, **ur putzua** egiten. **Jon Maia**
Zubietako ontziolatik joan nintzen, **ur putzuz** eta burdina zati herdoilduz betetako parajetik. **Joseba Sarrionandia**
Bat-batean **ur-putzu** hotz batera erori izan banintz bezain nahasturik sentitu nintzen. **Inazio Mujika Iraola**
Ariane Kaioarrira bidetik agertu zen, gabardina ilunarekin, eskuak poltsikoetan, ilea bustita, **ur putzuen** gainetik saltoka, bakarrik. **Joseba Sarrionandia**
Lurreko **ur putzuak** saihestuz metroaren geltokirantz abiatu zen. **Iñaki Zabaleta**
Eskuineko hanka **ur putzu** batean sartu dut, galtzerdia mela-mela eginik daukat, hasi da paseoa. **Monika Etxebarria**
Irrist egin eta ia erori zen Harry, **ur-putzu** handi bat baitzegoen lurrean. **Iñaki Mendiguren**

44 ur txiki ik gorago 32.

Paul luzea bezain mehea zen, ahoa handiegia zuen edo txikiegia aurpegia eta haren begiek, bi zuhaitz ziruditen, **ur txikietan** sartuak. **Felipe Juaristi**
Ez zen ohartu ekaitza hasi zuela [...] ez zen ohartu euria, euri jasa, euri basa, euri zakarra, erortzen hasia zela uhinen gain itsasoa bustitzen; ez zen ohartu **ur txikia** ur handia bustitzen ari zela. **Felipe Juaristi**

44a irud/hed

Paul luzea bezain mehea zen, ahoa handiegia zuen edo txikiegia aurpegia eta haren begiek, bi zuhaitz ziruditen, **ur txikietan** sartuak. **Felipe Juaristi**
Urteetan uhinaren puntan ibili den taldea nekez moldatzen da **ur txikietan**: futbol gosea galdu dute zaleek eta gogorra da garai berrietara ohitzea. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

adina ur (10); **azken ur** (8); **baso bat ur** (31); **bete ur** (24); **bilboko ur partzuergoko** (10)
ebroko ur konfederazioa (9); **ebroko ur konfederazioak** (51); **ebroko ur konfederazioko** (37); **edateko ur** (26); **hainbeste ur** (10); **hektometro kubiko ur** (8)
ibaieren ur (22); **ibaiko ur** (14); **inguruako ur** (8); **itsasoko ur** (19); **kubiko ur** (23); **kubo ur** (11); **limoi ur** (13); **litro ur** (43); **metro kubiko ur** (12)
ur apur bat (12); **ur asko** (33); **ur azal** (8); **ur azala** (12); **ur azalean** (54); **ur azalera** (25); **ur azpian** (62); **ur azpiko** (13); **ur azpira** (10); **ur bazterrean** (26); **ur bazterreko** (10); **ur bazterretik** (8); **ur bedeinkatu** (15); **ur bedeinkatua** (8); **ur bedeinkatuz** (8); **ur begi** (8); **ur beltz** (8); **ur bero** (22); **ur beroa** (38); **ur beroak** (8); **ur beroaren** (15); **ur berotan** (16); **ur bila** (54); **ur bizi** (8); **ur bizia** (8); **ur botila** (14); **ur botilak** (9)
ur edangarria (13); **ur emari** (8); **ur emaria** (9); **ur epeletan** (10); **ur ertzean** (20); **ur fresko** (10); **ur freskoa** (22); **ur gainean** (104); **ur gainean oinez** (8); **ur gainea** (19); **ur gainera** (13); **ur garbi** (9); **ur garbia** (17); **ur garden** (8); **ur gazia** (10); **ur gehiago** (23); **ur gehiegi** (8); **ur geza** (13); **ur gezatako** (11); **ur gutxiago** (10); **ur gutzia** (31); **ur guztiak** (17); **ur handi** (10); **ur handia** (8); **ur handiak** (14); **ur handien** (13); **ur handietan** (10); **ur handitan** (13); **ur hau** (9); **ur hegian** (9); **ur hori** (55); **ur hornidura** (11); **ur horniketa** (8); **ur horrek** (12); **ur horrekin** (8); **ur hotz** (18); **ur hotza** (27); **ur hotzarekin** (10); **ur hotzaren** (9); **ur hotzetan** (16); **ur hotzez** (10)
ur irakina (10); **ur irakinaren** (16); **ur izoztua** (9); **ur jauzi** (35); **ur joko** (28); **ur kirolak** (61); **ur konfederazioa** (10); **ur konfederazioak** (55); **ur konfederazioko** (37); **ur konfederazioko presidente** (8); **ur kontsumoa** (8); **ur kopuru** (10); **ur kopurua** (9); **ur korronte** (9); **ur korronteak** (8); **ur kutsatuak** (8); **ur laster** (19); **ur lasterra** (11); **ur lasterrak** (22); **ur lasterraren** (15); **ur lurrin** (8); **ur lurruna** (8); **ur maila** (8); **ur mota** (8)
ur ontzi (14); **ur ontzia** (10); **ur partzuergoak** (17); **ur partzuergoko** (27); **ur pixka** (30); **ur pixka bat** (23); **ur putzu** (35); **ur putzua** (8); **ur putzuak** (13); **ur putzura** (12); **ur sakonetan** (9); **ur sulfatatuak** (9); **ur sulfatatuak sulfatatu** (8); **ur tanta** (68); **ur tanta bat** (21); **ur tantak** (21); **ur tanten** (11); **ur tupina** (16)
ur uherretan (9); **ur xirripa** (19); **ur xorta** (24); **ur xorta bat** (11); **ur zikin** (21); **ur zikina** (15); **ur zikinak** (26); **ur zikinen** (34)
zenbat ur (11)
arazututako ura (9); **bertako ura** (8); **dagoen ura** (10); **edateko ura** (56); **erabilitako ura** (8); **ibaiko ura** (17); **itoizko ura** (9); **itsasoko ura** (19); **iturriko ura** (17); **kutsatutako ura** (9); **laranja ura** (9); **limoi ura** (12); **ogia eta ura** (15)
ura ardo (8); **ura atera** (14); **ura ateratzeko** (14); **ura ateratzen** (8); **ura baino** (23); **ura behar** (10); **ura berotzeko** (14); **ura berotzen** (10); **ura besterik ez** (10); **ura bezain** (21); **ura bezala** (34); **ura bota** (11); **ura botatzen** (16); **ura dario** (10); **ura edan** (41); **ura edateko** (21); **ura edaten** (29); **ura edatera** (14); **ura egon** (22); **ura ekarri** (14); **ura eman** (9); **ura ematen** (14); **ura eskatu** (14); **ura eta sua** (9); **ura hartu** (18); **ura hartzeko** (10); **ura odol** (8); **ura sartu** (12); **ura sartzen** (9); **ura ukitu** (8)
urtegiko ura (11)
euri urak (15); **hondakin urak** (15); **ibaiko urak** (21); **itsasoko urak** (10)
urak bere (14); **urak bide** (10); **urak eraman** (16); **urak gainezka** (11)
urarekin batera (8)
edateko uraren (14); **hondartzetako uraren** (8)
uraren agentziaren (8); **uraren azpian** (10); **uraren erabilera** (14); **uraren gainean** (41); **uraren indarra** (8); **uraren kalitatea** (43); **uraren kudeaketa** (12); **uraren kultura** (21); **uraren kultura berria** (12); **uraren lege** (11); **uraren legea** (12); **uraren prezioa** (8); **uraren temperatura** (14)
uren gainean (14)
ibaiko uretan (11); **itsasoko uretan** (8)
uretan behera (10); **uretan bezala** (13); **uretan busti** (12); **uretan garbitu** (8); **uretan murgildu** (20); **uretan sartu** (39); **uretan sartuta** (11); **uretan sartzea** (9); **uretan sartzen** (12)
uretara bota (30); **uretara botatzen** (12); **uretara erori** (21); **uretara erori zen** (9); **uretara jaurti** (18); **uretara jausi** (10); **uretara jauzi** (11); **uretara salto** (8); **uretara sartu** (12)
uretatik atera (29); **uretatik ateratzen** (11); **uretatik irten** (10); **uretatik kanpo** (20)
urez bete (37); **urez beterik** (8); **urez beteriko** (8); **urez beteta** (14); **urez betetako** (18); **urez betetzen** (25); **urez gainezka** (10)
edateko urik (25); **ez urik** (14); **urik ez** (57); **urik gabe** (52); **urik gabeko** (12)
burua urpean (5); **egunez urpean egon** (3); **hektarea urpean** (3); **herri urpean** (3); **sei egunez urpean** (3); **urpean egon** (7); **urpean egon ondoren** (3); **urpean geratu** (7); **urpean geratu dira** (4); **urpean geratuko** (3); **urpean geratzen** (3); **urpean geratzen den** (3)
hasi ziren urpetik (3)

urakan *(orobat hurakan g.er)* 1 iz oso haize indartsuko ekaitza. ik tifo.

Urakan bat ere ez: demagun, 60 km/h-ko boladak. **Fernando Morillo**
Urakan eta ekaitz tropikalen aroa amaitu da berez Ozeano Atlantikoan, baina haize ufadak ez dira amaitu. **Berria - Gaiak**
Haizea banintz, **urakana** eragingo nuke bertan puzka. **Juan Garzia**
'Charly' **urakanak** txikizio handia egin du Orlاندoko pilotalekuan. **Berria - Kirola**
Urakan batek Frantzia astindu du. **Berria - Gaiak**
Iaz Katrina **urakanak** astindu eta txikitu zuen hiria [New Orleans] protagonista izango da aurten, Jazzaldia hiri hartako doinuekin hasi eta amaituko baita. **Berria - Kultura**
Urakanaren begian argizaria pizturik egotea bezalaxe da hori. **Juan Kruz Igerabide**
Amak esan zuen bezala, **urakan** baten begi-begian geunden. **Juan Kruz Igerabide**
AEBetako **urakan** hilgarrienak. **Berria - Harian**
Sekula zeruetatik etorri den **urakan** ikaragarrienak jo baitzuen. **Koro Navarro**
Urakanetan gogorrena Louisiana eta Mississippi estatuetara iritsi zena izan zen, Katrina. **Berria - Gaiak**
Urakanak zakaraldi bortitzagoa jo zuen orduan. **Karlos Zabala**
Urakanak gogorkeria latzez ziharduen borrokan zaldien eta gidarien aurka. **Karlos Zabala**
Euriak edo **urakanak** geldiarazteko erregutzen zitzaion. **Juan Garzia**
Galveston (Texas), 1900: 4. mailako **urakan** batek 8.000-12.000 hildako utzi zituen. **Berria - Harian**
Zertarako **urakan** baten erdira doana orraztu? **Harkaitz Cano**

2 (hitz elkartuetan)

Indarra eta **urakan** izaera berreskuratuta, [Jeanne] Atlantikoan barna doa. **Berria - Mundua**
Goiko ontzigain edo kubertari, ingelesez **urakan** -kuberta esaten zaio. **Xabier Olarra**
-Bestelakotasun **urakan** bat. **Itxaro Borda**

3 irud/hed

Baina beran Einstein heldu zen, **urakan** fedegabe eta suntsitzaille baten moduan, eta espazioa eta denbora intzestu kosmiko baten partaide zirela frogatu zuen. **Fernando**

Morillo

[Kataluniako] hirukoa **urakanaren** begian. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

mailako urakan (3)

katrina urakana (3)

charley urakanak (3); **ivan urakanak** (4); **katrina urakanak** (13); **mitch urakanak** (3); **urakanak eragindako** (4); **urakanak kaltetutako** (3)

ivan urakanaren (6); **katrina urakanaren** (8); **urakanaren ondorioz** (8)

uralde¹ ik **uholde**.

uralde² *iz* ur eremua.

Baina iparralderantz doaz denak, han behean lurralde edo **uralde** apur bat epelagoan zita akordatua balute bezala. **Joseba Sarrionandia**

Hiriak berak 750 mila bizitzaile ditu, baina datxikola dituen herrialdekin 6 milionetara heltzen da, aroa Kaliforniako freskoena du, usu lanbroa dauka, inguruan duen **uraldearen** gatik. **Herria**

Ameriketako Estatu Batuek, aldiz, Filipinetako **uraldean** zeuden Itsas Armadako bi ontziri Leytera bidali zituzten. **Berria - Mundua**

uraldi (*orobat uahaldi g.er.*) *iz* ibai baten emariaren hazte handia.

Egiptok, pertsiarren garaian, ez zuen Itsaso Gorrian muga; ez zeukan Nilo ibaiak bere **uraldietan** estaltzen duen lur-zerrenda luze eta estua baizik, bi aldeetatik mendikatez mugatuta dagoena. **Iñaki Iñurrieta**

Uraldi sasoiaren Siberiako arto guztian, eta Irtish ibaiaren ur maila handia zen oso. **Karlos Zabala**

Uraldian urak ibaieretako sahasa estaltzen duen bezala. **Jose Morales**

Burrundara luze zaratzatu bat izan zen ehunka **uraldiren** ahotsa bezalakoa. **Koro Navarro**

Agian, **uhaldian**, ibaiak garbituko du nire odola eta fruitu heldu moduan itzuliko naiz lurrera nire gorputzaren bila. **Joan Mari Irigoien**

uraliko *izond* hizkuntz familiez mintzatuz, fino-ugrierak eta samioedoen hizkuntzak osazen dutena.

Hungariarren jatorria, hala ere, ezaguna da: **uralikoa** da, finlandiera eta estoniarren familiakoa. **Urtzi Urrutikoetxea**

uralita *iz* amiantoz eta zementuz eginiko materiala, estalkiak eta hodiak egiteko erabiltzen dena.

Herritik kanpo egonik, auzoan lekua sobera zegoen txaboletarako, eta familia ugari egin zituzten txapaz, **uralitaz** eta kolore guztietako xaflaz. **Jon Maia**

Erretegiaren alboan semeak erosi berri duen 4 x 4 ibilgailu galanta egoten da, **uralitaz** moldaturiko erdi-txapala zarpailan. **Edorta Agirre**

Tailerreko lana gogorra zen; neguan hotza pasatzen genuen, eta udan beroa, **uralitazko** estalpe txatxu haren azpian. **Juan Kruz Igerabide**

Ohol hormak eta **uralitazko** teilatua dituen etxe umelean. **Joseba Sarrionandia**

Hantxe, aurreraxeago, biraderazko ur-putzua, olibondoa aldamenean, soro harritsuak, **uralitazko** sabaidun txapala txuriak. **Joxe Austin Arrieta**

uraloaltaiko *iz* hizkuntz taldez mintzatuz, fino-ugrierak, turkierak eta mogolak, besteak beste, osaturikoa.

Fenomenoa, Europan eta Asian Finlandiatik Mantxuriaraino hitz egiten ziren hizkuntza multzo **uraloaltaikoan** dago. **Isabel Arrigain**

urandi ik **uhandi**.

uranditu ik **uhanditu**.

uranio (*orobat uranium g.er.*) **1** *iz* gai bakuna, metal gogor eta trinkoa, nikelaren kolorekoa, irradak berez igortzen dituena (*U*; at. z. 92).

Uranioa oso mineral merkea da; izan ere, erruz dago naturan. **Berria - Mundua**

Uranioa dentsitate handiko minerala da eta naturan dagoen elementu astunena da. **Berria - Mundua**

Nabarmendu behar da energia nuklearra ez dela berriztagarria, eta erregai nuklearra ere, **uranioa**, agortu egingo dela. **Berria - Euskal Herria**

1942an Enrico Fermi zientzialariak lehen erreaktore nuklearra eraiki zuen **uranioa** erabiliz. **Berria - Gaiak**

Teheranek, baina, **uranioa** helburu baketsuetarako erabiliko duela dio. **Berria - Mundua**

Uranioa aberasteko metodo berri bat nola lortu. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Iranek iragarri du ez duela **uranioa** aberasteko programa bertan behera utziko. **Berria - Ekonomia**

Uranioaren aberaste prozesua. **Berria - Mundua**

Azken zortzi hilabeteetan, [Iranek] 120 tona **uranio** eraldatu ditu. **Berria - Mundua**

Uranioz kargatutako armak. **Berria - Gaiak**

Uraniozko bonbak 1995. urtean jaurti zituzten berriro. **Berria - Mundua**

2 (izenondo eta izelagunekin)

Uranio metalikoa, gure lurraldeotan, inork ez du sekula ikusi. **Juan Garzia**

Uranio aberastua energia iturri gisa erabiltzen da. **Berria - Mundua**

Milaka tona **uranio** pobretu utzi ditugu Afganistanen eta Iraken. **Berria - Gaiak**

Berinaszko ontzi batean zerratu **uranio** horaila. **Itxaro Borda**

Hondakin erradiokatiboak, (erregaiak, **uranio** gastatuak...) erreaktoreko eraikinean gordetzen dituzte uretan. **Berria - Harian**

Horretarako, **Uranio** 235aren masa kritikoa ezagutu behar zen. **Fernando Morillo**

Saddam Hussein Irakeko buru ohia Nigerren **uranio** aberastua lortzen saiatu zela esan zuen Bushek. Berria - Gaiak
AIEA kezkatua dago ikuskatzaileek aberastutako **uranioak** kutsatutako materiala aurkitu dutelako. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Goipuzteko alderraien mareak lagun taldea fisionatu zuen, zartaturiko **uranio** -bonba bezala. Fernando Morillo

Munduko **uranio** hondakinen kopurua ikaragarria da. Berria - Mundua

Tokaimurako zentral nuklearrean **uranio** ihesa gertatu zen. Berria - Gaiak

Uranio maila handiak Irak eta Afganistanen: herritar zibilak eta okupazio indarrak Afganistanen eta Iraken kutsaturik daude pobreturiko eta ez pobreturiko **uranio** kopuru izugarriekin, AEBek erabilitako tonaka **uranio** armen ondorioz. Berria - Gaiak

Uranio, berun eta zink meategiak. Bernardo Atxaga

Uranio meategietan lanean zebiltzan indioak gordetzen ziren aterpe abandonatuetan. Itxaro Borda

Abereen arteko batek ere ez du, oraingoz behintzat, H bonbarik asmatu, ez eta, nik ditudan txostenen arabera, **uranio** -hobirik inon idoro izan. Pello Salaburu

Iranek hamar bonba nuklear fabrikatzeko nahikoa **uranio** gas badauka. Berria - Mundua

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Siltasuna eta **uranio** hauts-izpiak. Berria - Mundua

Moskuk, iazko urte amaieran, proposatu zuen **uranio** aberaste prozesua Errusian egitea. Berria - Mundua

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Okupazio indarrek bi milioi kilo **uranio** pobretu hauts barreiatu zituzten Iraken. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kilo **uranio** (3); tona **uranio** (7); **uranio aberastua** (14); **uranio gas** (3); **uranio hauts** (4); **uranio kopuru** (4); **uranio pobretua** (12); **uranio pobretuak** (4); **uranio pobretuaren** (4)

uranioa aberastea (10); **uranioa aberasteari** (24); **uranioa aberasteari utzi** (4); **uranioa aberasteari uztea** (3); **uranioa aberasteari uzteko** (7); **uranioa aberasteko** (86); **uranioa aberasteko egitasmoa** (3); **uranioa aberasteko jarduerak** (5); **uranioa aberasteko lanak** (4); **uranioa aberasteko programa** (8); **uranioa aberasteko prozesua** (16); **uranioa aberasteko prozesuaren** (3); **uranioa aberasten** (9); **uranioa errusian aberastea** (6); **uranioa ez aberasteko** (5); **uranioa helburu** (3)

uranioaren aberaste (3); **uranioaren aberasteko** (11); **uranioaren aberasteko prozesua** (3)

uranium ik **uranio**.

urardo *(orobat ur-ardo)* iz ura nahasi zaion ardoa.

Gure etxean [...] ortoduetan ura eta ardoa izaten ziren, eta normala zen batetik zein bestetik edatea, bai eta bien nahasketa ere: **urardoa**. Xabier Mendiguren Elizegi

Amama sangria prestatzen ari zen, sukaldeko ilun nabarrean, kantinan izotz eta laranja zatiak ikusten ziren, **urardoan** igerian. Joseba Sarrionandia

Ardo hutsa nahiz ur hutsa edatea kalterako da; **ur-ardoa** edatea, berriz, atsegingarri. Elizen arteko biblia

Lehen zilar ziren, orain zabor; lehen ardo on, orain **urardo**. Elizen arteko biblia

urardotu *(orobat ur-ardotu), urardo(tu), urardotzen* 1 du ad zerbaiti, ez dagokion gairen bat nahasiz, bere tasun funtsezkoen bat, bereziki indarra, galarazi. ik **faltsutu**.

Zapaterok zer egin duen oso garbi dago: indar katalanistak zatitu, eta Estatutua **urardotu** goitik behera. Berria - Euskal Herria

Bakarrak izen bakarra behar zuen Leizarragarentzat, *laincoa*: bestea, bi silaba gehiagorekikoa, puzte ergel bat baizik ez zen izango harentzat, berria, tribalegia, denik-eta misteriorik sakratuena **urardotzen** zuena. Iñaki Segurola

Nigatik sekula esango ez duten gauza bat (ez naiz horren ustetsu eta buruiritzia), baina nigatik eta nere hurko eta lagunengatik esatea desio nukeena, pixkaren bat arindurik eta **urardoturik** bada ere. Iñaki Segurola

2 (era burutua izenondo gisa)

ERCK une historiko honetan ez du onartuko edozein estatutu edota estatutu **urardotu** bat. Berria - Harian

Erkiagak dei berezia egin zien «nazionalismo bigun eta **urardotuarekin**» etsita dauden abertzaleei. Berria - Euskal Herria

Baina etsita zegoen ameslari **urardotua** baizik ez zela; nahi eta ezinaren irudi bakartia. Fernando Morillo

uraska *(orobat uraxka g.er.)* iz ura gordetzeko aska. ik **edaska**.

Mutikoa, mutikoa hortxe geldirik, ero baten begiekin, **uraskan** arreatxo itoari begira. Josu Zabaleta

Erre-oparien aldea bere tresnekin, **uraska** bere oinarekin. Elizen arteko biblia

Uraskaren lodiera arra betekoa zen. Elizen arteko biblia

Laurogei mila litro ur hartzen zuen **uraskak**. Elizen arteko biblia

Brontzeko **uraska** eraitsi eta harrizko zoladura gainean kokatu zuen. Elizen arteko biblia

uraskatxo iz uraska txikia.

Oihala berrito zabaltzean Makinistek eta Eszenako laguntzaileek hasierako eszena itxura desegin eta haren ordeztu lorategiko **uraskatxo** bat jarria izango dutela ikusiko da.

Josu Zabaleta

uraste ik **uhaste**.

urate ik **uhate**.

uraundi ik **uhandi**.

uraxka ik **uraska**.

uraza (*orobat uhaza g.er. eta urraza g.er*) **1** iz konposatuena familiako baratze landarea, gatzozpinduta jaten diren hosto zabal leunak dituena (*Lactuca sativa*).

Morroi bat **urazak** aldatzen ari zen; Claudek eta Florentek ez zioten lana eten nahi izan, eta sarde bana hartu zuten, hosto pila simaurraren zuloan botatzeko. **Karlos Zabala**

Hasieran, saiatu zen zertxobait baratzean, **uraza**, porru eta zerba batzuk jarririk, baina laster aspertu zen. **Juan Kruz Igerabide**

Usteltzen ez diren tomateak, guk nahi dugunean hazten diren baratxuriak, ur gutxiago behar duten **urazak**. **Pello Salaburu**

Orburu mordo baten loratze mamitsua ageri zen hemen, **uraza** eta eskarolen berde delikatuak han, azenarioen koral gorria, arbiñen boli kolore hitsa, harago. **Karlos Zabala**

Orburu mordoak, babarrun eta ilar pilak, lasto izpiz loturiko **uraza** erromatarren metak. **Karlos Zabala**

Bere sardexkaz **uraza** baten buru kizkurra eta zuria zatitzen ari zen Ellen. **Lopez de Arana**

Joseph ekarri du berekin desertuan atzeman halako suge musker bat; hezi du, jatera emanez **uraza**. **Piarres Aintziart**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Perla beltzen biribilak ziruditen **uraza** -orrien gainean. **Lopez de Arana**

11.eko lehen solairuko auzokidea -inspektorearen emaztearen sukaldaria-, **uraza** -buru bat eta bi kilo patata eraman zituen. **Anton Garikano**

Uraza, tipula, porru eta apio lidoek berunezko soldaduen desfile bat ematen zuten. **Karlos Zabala**

urazal ik ur 15.

urazaleratu, urazalera(tu), urazaleratzen da/du *ad* ur azalera joan edo eraman.

Barriolaren ilusioa pizten ikusi zuen asteburu berak Irujoren gabezia urriak **urazaleratu** ditu. **Berria - Kirola**

urazpiratu *izond* ur azpira joana.

Ingalaterra Berria astintzen duen itsasoaren argilauo zalantzakorrek urre **urazpiratuaren** eta zilar hondarperatuaren dirdira ekarri zion. **Juan Garzia**

urbanikola *izond adkor* hiritarra. ik **hirikume**.

Baserriko giroak **urbanikola** gizondu. **Joxean Sagatzizabal**

urbanismo *iz* hirigintza.

Besteak beste legean sartuko dira, **urbanismoa**, bortuaren berezitarzunak, sos laguntzak eta beste. **Herria**

Hondakinak sortzea aurrebaldintza beharrezkoa ere bada zerbaite berria sortzeko bai **urbanismoan**, bai arkitekuran, bai kulturaren. **Joseba Zulaika**

Hau ez da zientzia bat, **urbanismoa** politikariaren esku dagoelako. **Berria - Kultura**

Egunotako nire atzera-aurreretan ez dut gaurko arkitekturarik, gaurko hornikuntza urbanorik, gaurko **urbanismo** erakargaririk topatu. **Anjel Lertxundi**

Gutziz aldatua aurkitu zuela [Altza] Alpujarretara joan zenetik: gaiari loturik, lurraz, espekulazioaz eta **urbanismo** kaotikoaz aritu ginen. **Joan Mari Irigoien**

Frantziako Lurralde Antolaketa, **Urbanismo** eta Etxebizitza Zuzendaritzako arduradun Jean Paul Fidelik zail ikusten du: [...]. **Berria - Mundua**

urbanista 1 *iz* hirigintzan aritzen den pertsona.

1989an Berlingo haresia erori eta Alemania batu ondoren, Berlin berreraikitzeko eztabaidan arkitekto eta **urbanista** ugarik aurkeztutako proposamen arkitektonikoak bildu dituzte erakusketan. **Berria - Kultura**

Herriak han behean **urbanisten** planoak ematen zuten. **Joseba Sarrionandia**

Euge arkitektoa zen, Milan berregin nahi zuten eta **urbanistarik** onena Federiko Bizargorri izan zela zioen. **Juan Garzia**

• **2 izond** hirigintza aritzen dena.

-Arkitekto **urbanisten** topagunea-edo. **Aingeru Epaltza**

urbanistiko *izond* hirigintzarena, hirigintzari dagokiona. ik **hirigintza 2**.

Era guztietako aldaketa ekonomiko, demografiko, **urbanistiko** eta hezkuntzazkoak gertatzen ari ziren lur honetan proposamen zentzuzko eta aurrerakoiak egiteko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hiri planifikaziorako bulego alternatiboak ordenadorearen bidez aurkeztu ditu azken urtean Pasaiarako eta Donostialderako pentsatutako proiektu **urbanistikoak**. **Berria - Kultura**

Iraultza **urbanistikoak** eta soziala eragin zuen Gasteizen Lakuaren eraikuntzak. **Berria - Euskal Herria**

Azterketan era guztietako analisiak egingo dira: analisi **urbanistikoak**, sanitarioak, ingurumen azterketak. **Berria - Euskal Herria**

2002an udalaren arau **urbanistikoak** aldatu zituen PPK. **Berria - Euskal Herria**

Trenbide zaharren desagertzeak hiri erdian utziko duen 195.000 metro karratuko orubea era guztietako operazio **urbanistiko**en helburua izan daitekeelako. **Berria - Harian**

Lehenengo pausoa tramite **urbanistikoak** betetzea da. **Berria - Ekonomia**

Norbere baratza lantzeak hemen esanahi literala eta ekonomikoa dauka, **urbanistikoak** gainera: Erroma, hiri bezala, itogarri bilakatzen hasia zen. **Xabier Amuriza**

Arrotz sentitzen zen familiartean eta lagunekin; arrotzak zitzaizkion aldaketa **urbanistikoak** eta sozialak; arrotza, Euskal Herriko bizitza. **Anjel Lertxundi**

Urruntasunak eta memoriaren ahulak ezarritako arrazoi tekniko **urbanistiko** eta linguistikoengatik. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

interes urbanistikoak (3)

urbanistikoki *iz* hirigintzaren aldetik.

Gipuzkoarekin, **urbanistikoki**, zer gertatuko den galdetzen didazu. **Berria - Kultura**

urbanita *izond* adkor hiritarra. ik hirikume.

Euskaldunei euskaldungaiak ulertzen laguntzen die, eta **urbanitei**, euskaldunen mundua. [Berria - Harian](#)

Hiriaren eta herriaren pentsamenduak kontrajartzen dira; pentsamendu **urbanita** eta kosmopolita ohiturei eta hizkuntzari oso loturik dagoen pentsamenduari kontrajartzen zaizkio. [Berria - Kultura](#)

urbanitate *iz* gizalegea, gizabidea.

Hots, Victor Hugo urbanoa natura eta naturaltasuna goratzeko dago, baina beti bere **urbanitatearen** edukitasunetik. [Koldo Izagirre](#)

Urbanitate eta portaera ikasgaiak eman beharko dizkizut zure adinean! [Josu Landa](#)

urbanizagarri *izond* urbaniza daitekeena.

Nekazaritza jardueretarako lurren %4 galdu da, eta hiri-zoru edo **urbanizagarria**, berriz, % 30 handitu da azken lau urteetan. [Berria - Ekonomia](#)

Lurzoru urbanoaren eta **urbanizagarriaren** %80 babestutako etxeak egiteko erabili behar dute. [Berria - Euskal Herria](#)

Gaurko legeak dio lurzoru **urbanizagarrian** eraikitzen diren etxe guztien %65ek babes ofizialekoak izan behar dutela, baita lurzoru urbanizatuan egiten direnen %20k ere. [Berria - Harian](#)

Zinegotzi batekin hitz egina zegoen, nonbait, eta **urbanizagarriztat** jotako lur-sail bat modu onean emateko asmoa omen zuen udalak, hartarako propio eraturako hiritarren kooperatibaren bati. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

urbanizatu, urbaniza(tu), urbanizatzen **1** du *ad* eremu bat urez, argiz, zoladuraz eta gaineko hiri zerbitzuez hornitu.

Dena kontuan hartuta, uste dugu urte bukaeran zoru berria **urbanizatzeari** ekin ahal izango diogula. [Berria - Ekonomia](#)

Hadidek proiektu ugari ditu esku artean, tartean Bilboko Zorrotzaurre gunea **urbanizatze**koa. [Berria - Kultura](#)

Auzoko kale zaharrak **urbanizatzen** ari dira, eta zenbait arazo sortu dira, auzokideok ezin ditugulako autoak garajeetan sartu. [Berria - Euskal Herria](#)

Plentzian «arau urbanistikoak aldatu nahi dituzte babestutako lurralde batzuk **urbanizatze**ko». [Berria - Euskal Herria](#)

Garai batean, ingurua oraindik **urbanizatu** gabe zegoenean. [Martin Anso](#)

Etxe zatar **urbanizatu** gabeak elkarren ondoan pilotzen zituztela. [Joan Mari Irigoien](#)

Eraikin berria, altzairua eta kristala, neoizko iragarki ikusgarria, lau izar hori handiak, kasik **urbanizatu** gabeko ingurua. [Iban Zaldúa](#)

Erdigunetik hurbil egon arren, **urbanizatu** gabeko paraje bakartia zen hura. [Patxi Iturritegi](#)

2 (era burutuz izenondo gisa)

Gaurko legeak dio lurzoru urbanizagarrian eraikitzen diren etxe guztien %65ek babes ofizialekoak izan behar dutela, baita lurzoru **urbanizatuan** egiten direnen %20k ere. [Berria - Harian](#)

Espazio publikoak eta pribatuak taldea egiten dute bertan, gizabanakoak eta jendetzak, mugikortasunak eta mugikortasun ezak, gune **urbanizatu**ek eta despulatuak, ordenak eta anabasak. [Berria - Kultura](#)

Zona **urbanizatu**etan ere txakurrak sudurra erabiltzen du bide beretik beraren zein kide igaro den jakiteko. [Irene Aldasoro](#)

3 hiri bizitzara egokitu.

Atzerapen teknikoak, bestalde, erlatiboak zen, zeren Japoniako gizartea, Meiji aroaren bezperan, oso alfabetizatua eta **urbanizatua** baitzen, Europa baino aurreratuagoa zegoen nekazaritzaren eta meatzaritzaren eremuetan, eta industriaren maila Europakoaren antzekoa zuen industrializazioaren hasieran. [Koro Navarro](#)

Ez haiz inoiz **urbanizatuko**! [Pako Aristi](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

interes urbanistikoak (3)

urbanizatze *iz* eremu bat urez, argiz, zoladuraz eta gaineko hiri zerbitzuez hornitzea.

Garrantzi handiko erabakia da trenbidearen ibilbidearen aldaketa eta lurperatzea, sekulako ondorioak izango baitu Gasteizko etorkizuneko **urbanizatze** prozesuan, eta hiriaren diseinu orokorrean. [Berria - Harian](#)

Hiri zaharreko karriketan ere ari dira lanak, hala-nola hiritartze edo **urbanizatze** planak segituz. [Herria](#)

urbanizazio **1** *iz* urbanizatzea.

Lur zoru **urbanizazioak** Iruñerri inguruko udalerrri askoren diru sarrerarik garrantzitsuen dira. [Berria - Harian](#)

Giza asentamenduetan eta **urbanizazioan** plangintza aplikatu behar da, ingurumenaren gaineko ondorio kaltegarriak saihestu eta denontzako gizarte, ekonomi eta ingurumen mailako onurarik handienak eskuratzera begira. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gipuzkoako Aldundiak ez du Donostiako Udalaren **urbanizazio** plan bat onartu. [Berria - Euskal Herria](#)

Duela hiru urte amaitu zuten ikastola ondoko **urbanizazio** -proiektua. [Iban Zaldúa](#)

Urte amaierarako kanpoko **urbanizazio** lanak bukatuko direla uste du Erakustazokak. [Berria - Ekonomia](#)

LKS etxegintza eta **urbanizazio** enpresan egiten du lan Del Campok. [Berria - Gaiak](#)

VII. taulak erakusten duen bezala, **urbanizazio** -tasen gorakada ez dago industrializazioaren lastertasunarekin zuzenean lotua. [Koro Navarro](#)

3 urbanizatze plangintza unitario baten ondorioz eraikitzen den etxe multzoa.

Ondean **urbanizazio** handi bat dago, auzo gisa ulertzen ez dugun etxe multzoa. [Berria - Kultura](#)

Donostiako Udalak Txominenea izeneko **urbanizazioa** egin nahi du Martutene inguruan, 1.233 etxebizitzakoa. [Berria - Harian](#)

18 zuloko golf zelaia eta 100 etxebizitzako **urbanizazioa** eraikitzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

Etxebizitza blokeek **urbanizazioek** baino energia gutxiago gastatzen dute. [Berria - Euskal Herria](#)

Nekazaritza industrialak [...] landatar herriak desagerrarazten ditu, txaletez betetako **urbanizazioen** mesedetan. [Berria - Ekonomia](#)

Etxe elkarri atxiki **urbanizazio** berrien artean segitu nien. [Aingeru Epaltza](#)

Etxez aldatuko dira David eta haren neskalaguna, Dulantziko **urbanizazio** bateko berrehun eta berrogeita hamar metroko txalet batera. [Iban Zaldúa](#)

Bere aitaren txaleta kokaturik zegoen **urbanizazioa** ailegatu ziren arte. [Joxemari Iturralde](#)

Jaizkibelgo **urbanizazioko** auzo elkarteak batzarraren amaieran irakurritako idatziak ere honela dio: [...]. [Berria - Euskal Herria](#)

Gain hartatik ikusita, uhartearen hego-kostaldeko **urbanizazioek** larregi argitutako hiri insomne baten atalak ziruditen. [Bernardo Atxaga](#)

Bigarren mailako errepide sarean ere sarri gertatzen dira istripuak, batez ere, hainbat herrian eraikitzen ari diren **urbanizazioak** eta txaletak sortzen dituzten joan-etorriak

direla eta. [Berria - Euskal Herria](#)

Gortinak baztertzeko keinua egin orduko [urbanizazioko](#) argi guztiak piztu dira batera, eta auzokoen setter urduria zaunka bizian hasi da lorategi bazterretik. [Patxi Iturritegi](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[urbanizazio lanak](#) (3)

urbano 1 iz hirikoa, hiriarena, hiriari dagokiona. ik [hiri 4](#); [hiritar 6](#).

Hainbeste famatu ohi zuten euskara [urbano](#), hiritar edo hiritartua. [Iñaki Seguro](#)

Informazio fluxu azkar eta eraginkorrek gainpopulatuak zeuden eremu [urbanoak](#) arindu behar zituen. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Bozkatzaille gehienak kasko [urbanoan](#) daude eta inbertsio gehienak hor geratu dira. [Berria - Euskal Herria](#)

Europar biztanleen %75 inguru hirietan edo gune [urbanoetan](#) bizi gara. [Berria - Gaiak](#)

Gune [urbanoak](#) gehiegi hazi dira, lekurik ez diote uzten nekazaritzari. [Berria - Ekonomia](#)

Hiria errealitate sozial eta giza espazio moduan landuko dute, baina baita lurralde mitiko edo oihan [urbano](#) moduan ere. [Berria - Kultura](#)

Santutxuko paisaia [urbano](#) bat. [Joseba Sarrionandia](#)

Hiria errealitate sozial eta giza espazio moduan landuko dute, baina baita lurralde mitiko edo oihan [urbano](#) moduan ere. [Berria - Kultura](#)

Autobus [urbano](#) pare bat eta kotxe batzuk. [Paddy Rekalde](#)

Barranquilla [...] taxian zeharkatuta, labirinto [urbano](#) kaotikoa iruditu zait. [Joseba Sarrionandia](#)

Zeren noiz edo noiz zirkulazioan ere jarri beharko da euskal argot [urbano](#) bat. [Iñigo Aranbarri](#)

Egia esan, erabat [urbanoak](#) diren denboretan, erritmoetan, gabiltza. [Bernardo Atxaga](#)

Nire aurreko baserritarkeiez kezkatuturik-edo, istorioak [urbanoa](#) izan behar zuela adierazi zidan. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

2 (izen gisa)

Kalera estresatzera datozen [urbano](#) desfasatuak bihurtu dira gure baserritar gazteak. [Pako Aristi](#)

urbazter ik [ur 16](#).

urbegi ik [ur 17](#).

urbelar ik [ur 18](#).

urberatasun iz

Loreak mereziko ez bailuen bere kasa iraungitzea, [urberatasun](#) bigun batez zimeltzea, bihotz intimoan gorderiko lurrinaren hondar eta azken zurtasun ezkutu batez. [Jon Alonso](#)

urberoaga iz ur beroko bainuetxea.

Vernet-les-Bains herriko [urberoagan](#) sartuko zuten, haraxe eroan baitzituzten Errepublikaren Armadako Lege-Zerbitzuetan izaniko gehienak. [Edorta Jimenez](#)

Geroago, gure ezkon-bidaiaaren bukaeran, Krisztinarekin joan ninduan [urberoaga](#) hartara, erietxea bilatu genian, eta Krisztinak bere ama hil zen gela ikusi nahi izan zian.

[Xabier Olarra](#)

Bizargin izan ziren eta [urberoagetako](#) mutil. [Juan Garzia](#)

urbide ik [ubide](#).

urbil ik [hurbil](#).

urbizi ik [ur 21](#).

urbonba ik [ur 42](#).

urburu iz iturburura.

Hegohaizea bidaliko du Jaunak basamortuan gora: Efraimen [urburua](#) lehortuko du, iturriak agortuko. [Elizen arteko biblia](#)

Uhaldegarairako [urburuaren](#) zaintzea, Eltzarruze inguruko mendian begiratzea harrobi baten egiteko xedeaz. [Herria](#)

urdai 1 iz txerriaren azal azpiko gantz trinkoa, berotuz edo frijituz urtzen ez dena. ik [xingar](#); [pernil](#).

Sukaldera joan eta [urdaia](#) frijitzen hasi zen. [Koro Navarro](#)

Gaueko hamarretan, indioilarraren partez, [urdaia](#) eta arrautzak jaten. [Koro Navarro](#)

Tabako merkea erretzen, ogi gogorra eta [urdaia](#) jaten, eta haiek vodka bustitzen ziharduten. [Koro Navarro](#)

Igandeetan, berriz, [urdaia](#) banatzen ziguten, eta arroza, neurrian, gero. [Edorta Jimenez](#)

Neskak plater bat jarri zuen mutilaren aurrean [urdaiarekin](#) eta opil batekin. [Koro Navarro](#)

Odolki puska bat, hamar sosen [urdaia](#), libra erdi bat txerri gantz. [Karlos Zabala](#)

Urdaiz atondutako janariak eman zizkioten, bere gaitzentzat olio oso kaltegarria baitzen. Askoren artean

Hesteei eusten zien bere hatz potoloekin, mutilak okelaz eta **urdaiz** betetzen zituela. Karlos Zabala

Urdaiz beteriko txahalki xerra bat. Karlos Zabala

Urdailean **urdai** gutxi. Juan Garzia

2 (izenondoekin)

Urdai frijitu eta txorizo oso bat zeuzkan oraindik gordeta eta paperetan bilduta. Jon Maia

Urdai gizona ezezik, zeri odolkiak, saiheskiak, hezurkiak, azarekin nahasita. Patziku Perurena

Padrek **urdai** errea eta kauserak jaten kontatu zigun Vascongetako herriaren berri. Jon Maia

Urtero, Pazkoaz, Burtonen baleontzia pasatzen zen munduaren berri eta mantenugaiak ekartzera, eta guk ontzen genuen **urdai** ketu apurra kargatzera. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urdai saltzaileak paper orri lodi bat ipini zuen balantza batean. Karlos Zabala

Txarkutero eta **urdai** -saltzaileek beren zaindarizat aukeratua dute. Pello Zabala

Babarrun-eltze handi bat **urdai** -puska eder batekin. Itziar Otegi

Luisak emandako ogia eta ura eta **urdai** zatitxoa irentsi egin zituen. Jon Maia

Ardoa, **urdai** -zopa, eta arrautzak tipularekin. Koldo Biguri

Urdai gantza prestatzen ari zen plater batean. Karlos Zabala

Bi gizonak maite zituen, **urdai** arrautzopila egingo ziela agintzen zien. Karlos Zabala

Bikote duina egiten zuen Quenu-Gradelletarren **urdai** denda handiarekin. Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Urdai frijitu-usaina da noski. Patxi Ezkiaga

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lisak saiheski **urdaia** marmolezko apal txikian jarri zuen txukun, salmahaiaren muturrean. Karlos Zabala

6 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Urdai -azal zatiak eta arrautza-arrasto horiak plateretan. Irene Aldasoro

Arratsean, urdaitegitik igotzen zelarik, saltxitxa zatiak, gibel pate xerrak, **urdai** azal paketeak ateratzen zituen bularretik. Karlos Zabala

Zaldia behar bezala jarri, arrautza batzuk zalditegitik ekarri, **urdai** -xerra batzuk oparo moztu, eta printze bati legez eman diezaigun jaten. Patxi Ezkiaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urdai errea (4); **urdai saltzaile** (10); **urdai saltzaile ederra** (3); **urdai saltzaile ederrak** (4); **urdai saltzailea** (9); **urdai saltzaileak** (13)

urdaiz atondutako janariak (4); **urdaiz beteriko** (4)

urdaiazpiko 1 iz txerriaren hanka ondua; hanka horren izterreko haragia.

Hiru sukaldari izerditsu arrautzak, **urdaiazpikoa**, hanburgesak, patatak eta latakoko behiki xehatua frijitzen ari ziren. Lopez de Arana

Kontuz, motel, **urdaiazpikoa** erreko zaik eta. Lopez de Arana

Quenuk ogia eta **urdaiazpikoa** moztu zituen. Karlos Zabala

Txerriaren **urdaiazpikoa** jan ondoren, hezurra gelditu ohi zen zerbait giharrekin, eta horri "txongoa" esaten zitzaion. Pako Aristi

Tea, esnea, gurina eta marmelada, xerra bat **urdaiazpiko** eta ogia. Joxemari Iturralde

4.000 lata kontserba, 3.000 latoja xaboi pastilla, 130 kilo **urdaiazpiko**, 100 botila anis. Joseba Sarrionandia

Biharamuneko gosaria: arrautza frijituak **urdaiazpikoarekin**. Berria - Kirola

-Ekariezadazu tortilla bat **urdaiazpikoarena**. Monika Etxebarria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Urdaiazpiko handiak, txahal eta txerrien atal ederrak. Karlos Zabala

Gero **urdaiazpiko** keztatua eta **urdaiazpiko** arrunta pikatzen hasi zen arreta handiz. Karlos Zabala

Urdaiazpiko ebaki bat zegoen ikusgai azpil urdin handi batean. Irene Aldasoro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ezin nuen **urdaiazpiko** ogitartekoa jan, goitinahia eragiten zidan eta. Joxan Eloseggi

Gazta eta **urdaiazpiko** sandwich bat eskatu zuen garagardo batekin. Joxemari Iturralde

Plateretik beste **urdaiazpiko** xerratxo bat ostu nuen. Edorta Jimenez

Mutil koskor mehe bat zen, itxura gozokoa, ahaztutako saltxitxoi zatiak eta **urdaiazpiko** muturrak lapurtzen zituen. Karlos Zabala

Urdaiazpiko -puska bat prestatzeko lanetan jarraitu zuten. Lopez de Arana

Gabrielek eta Daly andereñoak antzara-platerak eta **urdaiazpiko** - eta haragi-platerak trukutzen zituzten bitartean, [...]. Irene Aldasoro

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Urdaiazpiko egosi pixka bat hartu nuen hozkailutik. Xabier Mendiguren Elizegi

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Esku arteatik irristatu, eta urratu bat egin zion labanak Jonathan basa: **urdaiazpiko** keztatuaren xerrak ebakitzen ari zeneko oholari. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urdaiazpiko puska (3)

baionako urdaiazpikoa (3); **ogia eta urdaiazpikoa** (4)

urdaidun izlag urdaia duena.

Ezteietan **urdaidun** potapsia eta Ukrainako beste zizka-mizka batzuk atera dituzte: azaz, sagarrez, pernilez, pepinoz eta tomatez eta indioilar zatiez egindako pintxoak.

Urtzi Urrutikoeetxea

urdail 1 iz ugaztunen digestio hodiko erraia, zorro itxurakoa, hestegorriaren eta heste mehearen artean dagoena.

Kafe hondarrak lehortu eta behin eta berriro egosi, besterik ez genuen egiten, eta horrela **urdaila** berotzen genuen. Javi Cillero

Alkoholak **urdaila** berotu zidan eta garunak gozatu. Juan Martin Elexpuru

Urdaila hutsik dute, baina azenario bat murduskatuz joaten dira, beren etxe hotzetatik irten eta oraindik ere hotzago dauden kaleetatik ibiliz, ikasgela hotzetara. Josu Zabaleta

Urdaila salda apur batez bederen bete nahi zuen. **Askoren artean** Lasaxeago, **urdaila** ongi beteta eta ostatu txukun baten helbidea sakelan atera nintzen garagardotegitik. **Alberto Ladron Arana**

Urdaila lanari eragiteko aski da kizarakadaxo bat kafe hartzea. **Javi Cillero**

Klararenean hartutako kafea mikazten hasia zitzaidan **urdail** barnean. **Aingeru Epaltza**

Baretik eta **urdailetik** gaixo zaude. **Askoren artean**

- **Urdailetik** gaizkituko duk. **Anton Garikano**

Baju samarra eta potoloa, jantzita zeraman gabardina irekitik **urdail** puztua aurreratzen zitzaion. **Joxemari Iturralde**

Urdail gogorra izan behar, zura irentsi eta **urdailean** egosteko. **Gotzon Garate**

Nik **urdailaren** ahoan neukan bazkaria. **Jon Muñoz**

Oka hasteko gogoa zetorkion **urdailetik** gora. **Anjel Lertxundi**

Zuri-zuri geratu naiz, **urdaileko** mina eta bihotz taupada hasi zait, beldurratik dena. **Josu Zabaleta**

Botagurak eman zion Frantziskori bere **urdaileko** gaitzagatik. **Askoren artean**

Urdaila minbizia dudala baneki, tiro bat botako nioke neure buruari! **Joxe Austin Arrieta**

Urdaila gaitz kroniko batek jota igaro zituen azken urteak. **Berria - Kultura**

Urdaila ebakuntza beharrik ez duela izango. **Josu Zabaleta**

Kleiman jaunak, gure pozgarriak, **urdaileko** hemorragia bat izan zuen atzo. **Josu Zabaleta**

2 (textuinguru teknikoagoetan)

Urdaila da tankea, eta ahoa eta hestegoria jo litezke tankerako tututzat. **Irene Aldasoro**

Benetako digestioa **urdailean** hasten da. **Irene Aldasoro**

Azkenean, erradiografia batean, Rouengo espezialistak polipo bat aurkitu zion **urdailean**, berehala kendu beharrekoa. **Joseba Urteaga**

Urdaila txikitzeo ebakuntza ez da estetika arrazoiengatik egin behar, osasun arazoengatik baizik. **Berria - Euskal Herria**

Zortzi organo, gibela, **urdaila**, pankrea, heste meharra eta lodia, bi giltzurrun, barea transplantatu dizkiote Miami Italiako sei hilabeteko haur bati. **Berria - Gaiak**

Substantzia batzuek, batez ere aspirinak eta alkoholak, mukosa ahultzen dute, eta **urdaileko** odoljarioarekin edo **urdaileko** ultzerekin lotzen dira sarritan. **Irene Aldasoro**

Hernia diskala, neumonia eta **urdail** -hesteetako odoljarioa zirela medio iragan beharreko beste hiru ospitalealdiren ondoren. **Pako Aristi**

Gerta daiteke, eta halaxe gertatzen da maiz, landare gaien hartzidura azetosak **urdailaren** barruan gasa sorraraztea [...] gorpua azaleraraziko duen dilatazioa sortzeko nahikoa dena. **Koro Navarro**

Urdail urinak desegin egiten zuelako intsulina **urdaileira** iristean. **Berria - Gaiak**

Urdail eta hesteetako dispepsia: ur sulfatatuak (sulfatatu kaltzikoak eta sulfatobikarbonatatu kaltzikoak). **Berria - Euskal Herria**

3 (sentsazioen irudizko egoitza gisa)

Intrigaturik abiatu nintzen, **urdailean** xinaurriak zebilzkidala. **Jon Alonso**

Urduritasun kiskalgarri batek hartzen dizu **urdaila**. **Koldo Izagirre**

Trenpua txartzetainoko atximur bat sentitu nuen **urdailean**. **Anjel Lertxundi**

Halako atximurkada bat sentitu nuen **urdailaren** ahoan. **Anjel Lertxundi**

Bola bat **urdailaren** erdi-erdian. Arnasa hartzen uzten ez didan halako zama bat dut **urdailean**. **Pedro Alberdi**

Haren izena aipatze hutsak **urdaila** nahasten dit. **Oskar Arana**

Korapiloa sumatu zuen **urdailean**. **Joxemari Urteaga**

Orratz ikusezin batek zeharkatzen dizkit bizkarrezurra, bihotza, **urdail** -ahoa. **Iñaki Iñurrieta**

Pena ere banuen, halako tristura bat **urdailean**. **Ramon Saizarbitoria**

Espantua **urdailetik** eztarrira igo zitzaizunean, zerbait esateko ahaleginak eman zizun benetako egoeraren neurria. **Hasier Etxeberria**

Dardara bat sentituko zuela **urdail** -barruan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Halakoetan **urdailetik** datoz ideia ilunak. **Koldo Izagirre**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urdail -paretako muskuluaren uzurtze-mugimenduek, edukia irabiatu, eta zuku urtsu bat bihurturik uzten dute. **Irene Aldasoro**

Ehun-geruza bat da **urdail** -mukosa, fluido zoko kapa labain batek estalia. **Irene Aldasoro**

Elikagaien osagai kimikoak, listuaren edo **urdail** -urinen eraginez disolbatuak, odolera igarotzen dira. **Irene Aldasoro**

Behin aipatu nion, tamalez, neure **urdail** -ondoazarena; akabo, [...]. **Joxe Austin Arrieta**

- Eskale baten txakurra jateke kanpoko zabor artean bilatzen ari da afari aho gozagarri eta **urdail** betegarria. **Sonia Gonzalez**

5 toraxaren beheko aldea, urdailari dagokiona.

Lodi samarra zen, eta alkandora garestiak ezin zuen urteetan zehar hazitako **urdail** gantzaduna ezkutatu. **Sonia Gonzalez**

Ustekabean, kristoren kolpea eman dizu **urdailean**. **Rafa Egiguren**

Ukabilkazo zaparrada **urdailean** eta sabelean. **Agurtzane Juanena**

Urdaila ukabilkada bezalaxe, igogailuan goitik behera amiltzea bezalaxe sentitu nuen balaztada. **Joxe Austin Arrieta**

Urdaila eman dizute lehenengo, aurpegian gero; ukabilen eraso jasan ezinik, lurrera etorri zara berehala. **Rafa Egiguren**

So iluna botatzen zuten begi haiek, **urdail** gainean pistola pausatzen zion gizonarenak bezalakoak. **Elena Touyarou**

Zer nolako mauka Hiriarrentzat, jateko goseak urdailean sortzen duen azkura ere **urdaila** igurtziz baretuko balitz! **Joxerra Garzia**

6 beste animalietan, txegoste hodiaren zabalgunea, janaria jasotzen duena.

Hiru ezaugarri ditu nagusiki larretik bizi diren animalien digestio-sistemak: **urdail** handi bat (225 litro behiarenak), heste luze bat (30 metro behiarenak) [...] eta zelulosa almidoi bihurtzeko gaitasuna duen bakterio-populazio bat. **Irene Aldasoro**

Txahala adinako indoiilar bat ekarri zuten, denetariko jaki gozoz beterik: arrautzak, arrozak, gibelaz eta beste hainbat gauzak, hegaztiaren **urdailaren** barruan estu-estu sarturik denak. **Jose Morales**

Bere ostruka-**urdailak** harriak ere liserituko lituzke, baita lizundutako txanpon zaharrak ere. **Itziar Otegi**

Niania delako hori aza-zoparekin batera zerbitzatu ohi den jaki ospetsu bat da: zerri **urdaila** artobeltz-ahiz, garunez eta hankaz bete. **Jose Morales**

Basamortuko eltxoen **urdaileko** proteina batek zabaltzen du Leishmaniasis gaitza. **Berria - Gaiak**

7 irud/hed

Mokofinak, **urdail** eskertuak eta influentzia-trafikoak. **Berria - Kultura**

8 urdail zulo (orobat urdailzulo)

Irudi ezatsegina, **urdail-zuloraino** iristen baitzaizkit haien garrasiak. **Pako Aristi**

Sentitu egiten dut oraino **urdailzuloan** emandako ukabilkada: "Honaino iritsi gara". **Iñigo Aranbarri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urdaila hutsik (6); **urdaila** nahasten (3); **urdaila** nahastu (3); **urdaila** txikiago jartzeko (4); **urdaila** txikitzeo (16); **urdaila** txikitzeo ebakuntza (5); **urdaila** txikitzeo ebakuntzak (3)

urdailaren ahoan (3)

sentitu nuen **urdailean** (3)

urdaiburu *iz* urdail zuloa.

Edozein zela, **urdaiburuan** korapilo bat neukala nindabilen **Jose Angel Irigaray**

urdailzulo ik **urdail 7**.

urdaitegi (*96 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan*) *iz* hestebete eta txerriki denda. ik **txarkuteria**.

Urdaitegiaren erakuslehoaren kontra. **Monika Etxebarria**

Eskaileraren azpian, Florent **urdaitegiko** sukaldera ematen zuen atearen aurrean gelditu zen. **Karlos Zabala**

Oheratzeko tenorean, gora joaten zen **urdaitegiko** bi morroirekin batera. **Karlos Zabala**

Urdaitegiko txerri guztiak min horiak jo izan balitu bezala. **Karlos Zabala**

Ez harakinek bakarrik, baita txarkuteria eta **urdaitegietako** langileek eta txerrizainek ere. **Pello Zabala**

Jean Luc Lavignac harakinak hartua du Arbonako **urdaitegia** 95-ean. **Herria**

Merkataritza-zentroko Champion-eko **urdaitegi** sailean ikusi zutela elkar lehenengoz. **Iban Zaldua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urdaitegian sartu (3)

urdaitegiko alartzean (3)

urdaizaku *izond* adkor tripontzia.

Bidean aurkitzen dituzten dohakabe guztiei "herrikume astoa" oihukatzen diete, eta norbait lodia izanez gero "tripontzi" edo "**urdaizaku**" deitzen diote. **Koldo Biguri**

urdaki ik **urdeki**.

urdandegi (*orobat urdantegi*) *iz* ipar txerritegi, txerri korta.

Urdandegia, teilatu beraren azpian. **Piarres Aintziart**

Lekornek **urdandegi** handiaren egitasmoaz kezkatutik, lekondar multxo batek "Ingurumena" elkartearen sortu du, Lekornek ingurumena zaindu nahiz. **Herria**

Apiril biribil, txerria **urdantegian** hil! **Pello Zabala**

-Urdeak **urdandegirat**! **Joan Mari Irigoien**

urdanga 1 *iz/izond* emagaldua.

Marcel Martin ezin makurtu zitzaion azterketa biologiko bat egin beharri, edozein **urdangak**, mari-purtzilek edo auskalo zerk, esan zuen, ume bat egin izana leporatzen ziolako. **Ramon Saizarbitoria**

Eragin zure ipudiei, **urdanga** horrek! **Juan Martin Elexpuru**

-Gera zaitez hor, **urdanga**! Ba ote da munduan desohore handigorik handiki bat neskame **urdanga** batekin ezkontzea baino? **Aitor Arana**

Egunero entzun behar nuelako munduratu zuen ama **urdangaren** matraka hura. **Pello Lizarralde**

Irainka hasi zitzaion Manoloren emazteari; **urdanga**, mozkorra, zakurra deitu zion, eta senarra alua galanta zela erantsi zion. **Josu Zabaleta**

2 (izenondoekin)

Hire ama **urdanga** hutsa duk. **Pello Lizarralde**

Urdanga damutu baten aurpegia jarrita. **Karlos Zabala**

- **Urdanga** halakoa! -oihu egin zuen, gozotasuna alde batera utzita-. **Karlos Zabala**

Isil zaitez, **urdanga** zikin hori! ongi iruditzen bazaizu, **urdanga** lotsagabe horren kontura primeran igaroko dugu gaurko gaua. **Jose Morales**

Arte-munduaren aurkako eta mundu hartan zebilen odol-zurgatzaile eta **urdanga** diru-gose guztien aurkako erdeinuz gainezka. **Oskar Arana**

• 3 *iz* txerri emea.

Bazen han **urdanga** oso basati bat ere eta, errugabearen gupidarik gabe, hil egin zuen hozkada anker batez. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urdanga halakoa (3); **urdanga zikina** (8)

urdangatxo *iz* adkor urdanga, emagaldua.

Mingaina sartuko dizut zirrikitu guztietan, **urdangatxo** hori. **Karlos Zabala**

urdanka

Ari ziren [artzainak] beste anitz jokotan: hala nola Xiberoan "**Urdanka**", "Kalika" Gipuzkoan, eta hemen gaindi Baigorri/Aldude aldean "aiba". **Herria**

urdantegi ik **urdandegi**.

urdaxtar *izond/iz*

Hainbeste idazlanen artean hau ere hontürrik, eskerrik beroenak hartze dütü Junes Casenave Harigile, Altzain dagoan **urdaxtar** -santagratzar apez langile perestüak.

urdazbide iz

Aznarrek **urdazbide** gehienek kontrol zorrotza izan du. **Txema Ramirez de la Piscina**

urdazpi iz urdaiazpikoa.

Menua: **urdazpi** piperrada-ahateki lür sagarreki-gazna-arroskilla-kafe eta ondoko. **Herria**

urdazubiar (orobat urdazubitar) izond/iz Urdazubikoa, Urdazubiri dagokiona; Urdazubiko biztanlea.

Oraingoan zerk egin zuen huts inoiz ez zuen jakin azpidiakono **urdazubiarrak**. **Aingeru Epaltza**

Urdazubiarrak jokatu luke ez dela luzatuko. **Aingeru Epaltza**

Etexpare Garaztarra, Etxeberrri ziburutarra, Axular **urdazubiarrak**, Oihenart mauletarra. **Koldo Zuazo**

Urdazubitar gaztea bere garaiko unibertsitatek famatuaren aurrean dago. **Anjel Lertxundi**

urdazubitar ik urdazubiar.

urde 1 iz txerria.

Erdi Aroko Ahetzeko mandoko laborariak, ardiak, behiak eta **urdeak** hazteko lur gabe geratzen ziren. **Itxaro Borda**

Garai hartan euskal xerri arrazako 50 **urde** baizik ez zeuden. **Herria**

Urdearen orde, oilaskoa, indioilarra eta tankerakoak baliatzen dira produktu klasiko eguneratuak moldatzeko. **Edorta Agirre**

Oiloak eta **urdeak** bazkatu, etxeratu ninduan, lasai, eguneroko zerbitzua beterik. **Itxaro Borda**

Bazter ilun batean **urderen** baten kurrinka sumatu ote nuen. **Koldo Izagirre**

Urdeen usaina soinean diat. **Michel Oronoz**

Urde bazkatzen, ardi zaintzen, sukaldea eta ezkaratza xahatzen. **Itxaro Borda**

Ezta **urdea** ere, bitan banaturiko apatxak dituen arren, ez baita hausnartzailea. **U**

Idoloei aldiak, toki sakratuak eta jauretxeak eraiki behar zizkieten, eta **urdeak** eta abere kutsatuak eskaini. **Elizen arteko biblia**

2 (izenondoekin)

Urde zuri eta beltzak. **Herria**

Maiz begietsi zituzten lurra induskatzen zuten **urde** basatien bizkar marradunak. **Juan Garzia**

Sudurra beti lurrerantz zuzendurik zeukaten **urde** marradunen bizkarra hauteman zuen. **Juan Garzia**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nahiz baden ere Allier eskualdeko **urde** hazle bat, 40 urte huntan han dena. **Herria**

Laborariak, behi, **urde** hazkuntzan ari dira, baita ere indi-oilarrean. **Herria**

Josette Arrayet teknikalariak, **urde** arraza horren hazkuntza azkar laguntzen eta sustatzen duena. **Herria**

Urde-simaurra aspaldi hildako asta-barren ustelduetara botata ere ez zegoen berdintzerik mofeta-kirats hura. **Anjel Lertxundi**

Mahaiaz bertaldera, poliziaren **urde** hats latza aditzen ahal nuen, hain bainuen gertu. **Aingeru Epaltza**

Ezen gaur egun andere zurien partez, ibaiak zikinkeriaz, **urde** pizorrez eta hondar industrialez mukurutuak baitaude. **Itxaro Borda**

Ikusten duzu **urde** -puxika ematen duen bizkar hori? **Juan Garzia**

Haurraren sortzea ez zen **urde** -ehaitea, hor misterio bat gehiago bazela aitortu zuen bereber neskato herabeak. **Itxaro Borda**

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Dardaraz zegoen bere sasiaren atzealdean: **urde** hiltze goizetan baizik ez zuen horrenbeste karmin koloreko jario burrustatzen miretsi. **Itxaro Borda**

5 (izenondo gisa)

"Jende **urdea**", berak deitzen dionez, kurrirka egiten duela erretzean. **Pablo Sastre**

Federicok era misteriosuan esaten zuen mentura gaiztoaren lagun zirela, gauze ibiltzen zirela begiak moztuzko estalita beren ama **urdeen** lotsa beltzak ezkutatzeko. **Pello Lizarralde**

6 (gizakiez mintzatzuz; ik beherago 7)

Orain banekien, zalantza guztietatik harago: ordots goseti batekin bizi nintzen, **urde** basati batekin. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gizonak **urde** galantak dira neska gajookin. **Lopez de Arana**

- **Urde** handiak hitz egin nahi du -esan zuen Olgak ahapeka. **Lopez de Arana**

Urde potolo hura jantokian sartzera zihohan Mikelek berriro besotik heldu zuenean. **Unai Iturriaga**

Ongi ohartu nintzen **urde** zerrri hark baliatu egiten zituela zerbitzu haiek. **Joxan Elozegi**

ik beherago 12. **Askoren artean**

Gainera, **urde** zikin horrek txanpon handietan eman zidak dena. **Karlos Zabala**

Urde asasin horrek ez du beste ametsik: Paris, Paris eta Paris. **Anjel Lertxundi**

Ordurako dozena bat guardia zibil zain geneuzkan finka barruan, **urde** haiek bazekiten joango ginela. **Jon Maia**

7 (irain gisa deikietan)

-Zerria, **urde** zerria! -Danik, biegi begira. **Antton Olano**

Xingar kailu bat murtzatzen ari balitz bezala. **urde** zerria! **Piarres Aintziart**

Urde ustela! **Itxaro Borda**

ik beherago 10. **Askoren artean**

Hoa bista honetatik, **urde** faxista, alaina -Kattalineek ez dezake bere haserre ezti. **Eneko Bidegain**

Urde galantak zuek, mutilak! **Antton Olano**

Horixe da zuk nahi zenukeena [...] zure emazteak inoiz jan ez dizuna nik jan niezazun, **urde** alaena! **Karlos Linazasoro**

Urde zikin hori! -esaten du Joanak. **Antton Olano**

-Isilduko hiza **urde** zikina! **Itxaro Borda**

Urde alua, etzeak niri holoko putz handik esan! **Patziku Perurena**

Puta-**urde** doilorra! Anjel Lertxundi

8 *itsas urde* mazopa.

Itsas hegi hauetara **itsas urde** edo foken bila jaisten dira. Aurelia Arkotxa

Ziztuan Lampauletik atera nintzen, Enez Eussa III ospetsuaren itsas **urde** marraka marrantatuak entzuteko justu heldu nintzen portura. Itxaro Borda

Jendearen isiltasuna, usainak, ibilerak, so gatibatuak, etorkizunez jadanik biluziak eta metroaren **itsas urde** marrakak enetako orduan, ama ontzia bezain premiazkoak ziren.

Itxaro Borda

9 *urde-lerde* (irain hitz gisa)

Oraingoan, ez, oraingoan ez duk libratuko **urde-lerde** hori! Anjel Lertxundi

Gure kontura aberastu, hori egiten ditek **urde-lerde** horiek. Anjel Lertxundi

Ikas ezak, ikas ezak, tedesko **urde-lerde** zakil horrek, dena badakizuela uste duzue-eta! Anjel Lertxundi

10 *urde-ustel* (*corpusean urdeustel soilik*) *izond* (irain hitz gisa)

-Burua apurtuko diot bizkarroi **urdeustel** horri. Patxi Zubizarreta

11 *urde-mutur* (*corpusean urdemutur soilik*) *izond* urde muturra duena.

Okindegiko nagusi **urdemutur** harentzat ari nintzen ni lanean. Inazio Mujika Iraola

12 *urde-zerri* (*corpusean urdezerri soilik*) *izond*

Papao **urdezerria**! -oihukatu zion bere onetik irtenda-. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

itsas urde (3); **urde lerde** (3); **urde xuri** (3); **urde zerri** (3); **urde zerria** (3); **urde zikin** (5); **urde zikina** (12)

urdeka *adlag* “urde” deituz.

Segitzen du mitikoak makuluearekin lardieriatzen, eta gurutzatzen zaizkion guztiekin **"urdeka"** eta "putakumeka"? Aingeru Epaltza

urdekeria *iz* txerrikeria.

Inork ere ez duelako gustuz onartzen agian bere etxea ez duela behar lukeen bezain txukun eta garbi, beti bai baita norbait zure balizko gardentasuna **urdekeria** apurño batekin lizuntzen duena. Pello Salaburu

Baina gizon haren **urdekeriek** ileen jaiokeraraino berotzen ninduten, haren ur-lasterrari jarraitzera behartzen ninduten, eta nire baitan gogo bizia sentitzen nuen esku artean zuen tranga hura hondoraino ezar ziezadan. Juan Martin Elexpuru

urdeki (*orobat urdaki*) *iz* txerrikeria.

Tizi-Ouzoutik etorri Tahar haragi saltzailea behin harritu nuen, **urdekia** eskatu nionean. Itxaro Borda

Guk ez dugu **urdekirik** saltzen. Itxaro Borda

Massenako Mandarin jatetxean bazkaldu ginen eta Txina irentsi nuen, udaberriko borobiletan, kizkira entsaladetan, **urdeki** saltsetan, Cantoneko irris bihiketan. Itxaro Borda

Nondik sortzen ez zenekiten norabako ugari erakarri zuen **urdaki** errearen usainak. Koldo Izagirre

Nire ederra egingo zuela uste zuen mandatuak egitera joan eta etxean, buruz buru, **urdaki** jate handi bat prestatuta. Joxan Elozegi

urdekume *iz* txerrikumea. (pertsonez mintzatuz)

Barruan gelditu da **urdekumea**! Koldo Izagirre

Nor da erretzen hasi den **urdekumea**? Fernando Rey

Barruan gelditu da **urdekumea**! Koldo Izagirre

- **Urdekume** tranpati hori! -oihu egin zuen Lee Jordanek megafonotik, McGonagall andereñoaren eskuetatik ihesi-. Iñaki Mendiguren

Urdekume halakoa, faxista zikina, jomugan haugu...! Aingeru Epaltza

Nor da erretzen hasi den **urdekumea**? Fernando Rey

urdemutur ik *urde* 9.

urdepatia *iz*

Nahiko nukeen arren, ez naiz aztia, gasnak ez nau pertzepzioaren ateen haraindira errotan, telepatia zein sinpatiaren ordez laketago zait **urdepatia**. Itxaro Borda

urdetegi *iz* txerriegia.

Herriko auzapeza uneaz baliatu zen bere **urdetegiaren** aldeko baimena laster eman ziezaion prefetari erregutzeko. Itxaro Borda

Urdetegi industrialaren zartarazteko xedea zeukan gaueko komando batekin bekoz beko nintzena? Itxaro Borda

Urdetegi industrialaren zartarazteko xedea zeukan gaueko komando batekin bekoz beko nintzena? Itxaro Borda

Egia zen **urdetegi** erraldoiek eta autobideek, bidea izan arren euskararen deklinabideak baino segurkiago aberasten zutela patrimonioa. Itxaro Borda

urdetxo *iz* urde txikia.

Hartutako diruarekin -azeriak nahi edo ez nahi- **urdetxo** bat eramango zuen etxera, eta ongi artatu ondoren honen salmentak eman diruarekin behi baten jabe egingo zen.

Pello Salaburu

urdeustel ik *urde* 10.

urdezain 1 iz txerrizaina.

Izpegiko lepoko lau Nafartar muslarien ondotik, Kinto Realeko oihanean Arnaldo **urdezain** zaharra ezagutu nuen. **Michel Oronoz**

Urdezain eta unaiek landa-mugetan begiztatzen zituzten. **Juan Garzia**

2 (adizlagun gisa)

Xantza bat, zinez, zeren eta **urdezain** egoiten ahal nintzan berdin ene bizi guzian. **Michel Oronoz**

Nik ene bizi guzia zerriekin pasatu diat, **urdezain**. **Michel Oronoz**

Orreagako gainetan den oihan handian bizi baitzen, **urdezain**. **Michel Oronoz**

urdezerrri ik urde 12.

urdiaindar izlag/iz Urdiaingoa, Urdiaini dagokiona; Urdiaingo biztanlea.

Gazteetan, Iturriotz **urdiaindarrak** garaipen erosoak lortu zuen Jauregiren aurka (22-15). **Berria - Kirola**

Iturriotz **urdiaindarrak** joko bikaina egiten jarraitzen du. **Berria - Kirola**

Aurrera begira **Urdiaindarrak** ez zizkion atekak itxi beste saiakera bati: "ondo nago, eta Tourrean kilometroak pasatu ahala indar pixka bat izanez gero, ez da hain zaila helmugara bakarrik iristea". **Berria - Kirola**

urdin 1 izond zeru garbiaren edo itsasoaren kolorekoa.

Ez-inoren lurraldea, zuria, estatu-muga berdeen arteko bi lerro **urdin**, ibaiak. **Joxe Austin Arrieta**

Txamar **urdina**, galtza gorriak, eta uhal dotoreak aurrealdetik gurutzaturik. **Txillardegia**

Tunika **urdin** bat darama, oinetaraino, aberatsa oso. **Felipe Juaristi**

Uranok ere eraztun **urdin** bat du, eguzki sistemako bigarrenena. **Berria - Gaiak**

Lan-jantzi **urdineko** gizon batek palanka bat zerabilen. **Lopez de Arana**

Gona **urdina** zeraman batak, argia besteak. **Felipe Juaristi**

Hamabi bat urteko mutikoa, bekoki **urdineko** amazona batekin. **Jon Muñoz**

Uniforme **urdinez** jantziak. **Xabier Montoia**

Zain **urdinez** beteriko esku bat estutu zuen. **Lopez de Arana**

Halaxe zihoan Hanna, aurretik, ile **urdin** eta motxeko andere hura, kareizko lenteduna, arrotz, ezezagun. **Joxe Austin Arrieta**

Sabaia armiarma-lanparaz hornituak zituzten areto gorri, **urdin**, berdeak. **Xabier Olarra**

Eraztunek sugar txikiak pizten zituzten, **urdinak**, berdeak, horiak, moreak. **Karlos Zabala**

Neskatxa eta emakume asko ikusi genituen segidan, denak ere guztiz ederrak, beren ile txirikordatu, gerruntze gorri eta **urdin** bikain egindakoekin. **Koldo Izagirre**

Lau heizeak dirdiraka hantxe, zeru ezin **urdinago** hartan. **Joxe Austin Arrieta**

Begirada **urdin**, ezpain sentzual eta su itzalezineko ofizialaren aurrean. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Oliba-olioa eta arrain **urdina** jateak kontrakoa eragiten dute. **Berria - Gaiak**

2 (beste izenondo baten ezkerrean)

Begi **urdin** handiak zabalik. **Karlos Zabala**

Bularrekodun mantal **urdin** handi bat zeraman soinean. **Karlos Zabala**

Tximeleta **urdin** txiki bat zegoen han orratz batez zeharkatua. **Bernardo Atxaga**

Gar **urdin** labur bat hasi da irtetan errauts arteetik. **Anjel Lertxundi**

Aparatutik begiak aldendu eta kamiseta **urdin** tirantedun batekin egin nuen topo. **Aingeru Epaltza**

Kolore samur horiek guztiak, edredoi bat zirudien beroki **urdin** polit hura, zira argia. **Monika Etxebarria**

Bere bekoki altu eta begi **urdin** garratzekin. **Anton Garikano**

Haren atzetik ertzain-auto ulukaria, goiko argi **urdin** birakariak piztuta. **Juan Luis Zabala**

Jack Cunninghamen begi **urdin** alkoholikoak begira zituen. **Lopez de Arana**

Galtza zuriak, arraia **urdin** fin-finekin. **Matías Múgica**

Arrasto **urdin** galduak ageri dira batelaren izenaren letrak behar zutenen erretenetan. **Anjel Lertxundi**

Ehun eta berrogeita hamar dolarreko kirol-oinetako **urdin** fosforeszenteak. **Fernando Rey**

Laku **urdin** garbi batera jotzen zuen gela batean bildu ziren. **Felipe Juaristi**

Haren bekoki **urdin** distiratsuan, lerro mehe ilun batek seinatzen zuen zauri orbaingua. **Jon Muñoz**

Haren begi **urdin** borobilegi eta doi bat irtenak. **Oskar Arana**

Nesken gonaska **urdin** kanpai-erakoak. **Joxe Austin Arrieta**

Begiak **urdin** obalatuak izango ditu, biziki argi eta ernaia. **Josu Zabaleta**

Ondoren ilea, zeru **urdin** -lehertu hartan, pinu beltzaren adasketan tratatua zirudien ile gorri hura. **Joxe Austin Arrieta**

3 (beste izenondo baten eskuinean)

Mantar zuri zimur bat zuen jantzita, eta "sukaldean jarduteko" erabili ohi zuen gona zahar **urdina**. **Mirentxu Larrañaga**

Izaki sexugabe **urdinak** dira, robotak iduri. **Xabier Montoia**

Zerbitzu militarretik libre gelditzen zela zioen Freistellung vom Wehrdienst oharra, letra gotiko **urdinetan**. **Anjel Lertxundi**

Juduentzat jotzen zuten, gela itxi txikietan, gela kez beteetan, gela lizun **urdinetan**. **Felipe Juaristi**

4 (adizlagun gisa)

Arratsaldeko lau t'erdia ziren eta kanpoan zerua **urdin** zegoen. **Harkaitz Cano**

Elurra ari zuen, elkarrekin Tuilerietan eseri ginenean, elur-bisutsa, zerua **urdin** egon arren. **Joxe Austin Arrieta**

Behin, badia bare eta **urdin** zegoela [...] Hernani kalean Kintana eta Zaragueta eskola lagunekin topo egin zuen egunaz oroitzen. **Ramon Saizarbitoria**

Sailetan ikusten ditut langileak, denak **urdin**, denak bizikletan, astiro, ia oinezko pausotan. **Josu Zabaleta**

Lacaillek, garrazturik, ilea **urdin** jada, gauero bizkarra makur-makur Parisko kaleetan barrena betiereko bidaia eginda, [...]. **Karlos Zabala**

Baina, argitasunez blai, ileak **urdin**, azala arrosa, besoak eta magala dir-dir. **Karlos Zabala**

Zoragarri zegoen Sena ibaia, **urdin**-griskara, pintore flandriar bat gaixotzerainokoa. **Jon Muñoz**

Beraren atzean, zerua **urdin**, dirdaitu, garden. **Txillardegia**

Begiak **urdin** eta handi, ezpain-matelak gorri. **Janbattitt Dirassar**

Zerua **urdin** eta garbi beti alderdi hartan. **Fernando Rey**

Zerua, aldiz, **urdin** garbia zegoen, bezperako langarraren inolako arrastorik gabe. **Anjel Lertxundi**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia beste kolore bat delarik)

Zauri inguruan halako puztura **urdin**-gorriska bat zuela erreparatu nion. **Joxe Austin Arrieta**
Bitszeko olatu **urdin**-beltzetan itotzen ari zen, labanaren distira urrunak ebakirik olatuetan. **Lopez de Arana**
Itsasoa mantso zegoen, olatuak bazterreko harrietan hausten ziren, eta urak eguneko **urdinberdea** galdua zuen betunaren alde. **Joseba Sarrionandia**
Haren ileak lumajearen antza zuen: beltza, distira **urdin**-berdeskaz zipritzindua. **Joxe Austin Arrieta**
Begotarteak gantzatsuak zituzten, jaspeztatuak, zain **urdin**-horiz margotuak. **Karlos Zabala**
Gero Mariarena bere gorputz **urdin** laruz jantzitakotik bereizi zituenean. **Felipe Juaristi**
Zeruaren ganga eskerga **urdin**-anilaren azpian. **Lopez de Arana**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia beste kolore bat delarik)

Tarteka, bandera zuri-**urdinak** eta ikurrinaren bat ere ikusi ahal izan nuen gazte jendearen eskutan. **Ramon Saizarbitoria**
Uhartearren gaineko izotzeko geruza zuri-**urdina**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Bularrean marka beltz-**urdin** bat zuela esnatu zen goiz hura ere gogorazari zion. **Koro Navarro**
Ñabardura gris-**urdin** amaigabeen tirabira lausoan. **Anjel Lertxundi**
Oihan itsua besterik ez izaki, ordea, baztergabea, berde-**urdina**, laua, ozeanoa bezalakoxea... oihan itsua! **Joxe Austin Arrieta**
Napoli-ko badiaren bi pintura berde-**urdinen** artean pilaturik. **Lopez de Arana**
Marra zuri-**urdineko** korbata eta lastozko kapela zeramatzan. **Lopez de Arana**
Paretak faiantzazko xafra zuri-**urdinez** estaliak zeuden gizonaren garaieraraino. **Karlos Zabala**
Minutuak aurrera, talde txuri-**urdina** suspertu egin zen. ik xuri 5. **Berria - Kirola**

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketa izenondoa delarik)

Annie Parmentier, esan dudanez, emakume horaila da, begi-**urdina**, alsaziar petoa. **Ramon Saizarbitoria**
Buhame begi-**urdin** batek argitu zizkion erregeari begiak eta esperantza. **Anjel Lertxundi**
Karrozan, ondoan eserita, gizon bizar-**urdin** bat zihoan. **Felipe Juaristi**
Zaindari txano-gorri eta txamarra-**urdinen** kasernatxoaren aurretik pasa. **Txillardeggi**
Ingeles kasaka-gorriak muino baten gainean dituk, frantses kasaka-**urdinen** erasoaren esperoan. **Aingeru Epaltza**
Txantxangorriez, txonta horiez eta eskilaso luma-**urdinez**. **Oskar Arana**
Txori txiki moko-luze kolore-**urdinak**. **Felipe Juaristi**
Neure oroimenean atxikitzen nuen irudian baino ile-horiago eta begi-**urdinago**. **Txillardeggi**
Haietako batean, uharteetako antzinako gerlariak -garaiak, sendoak, begi-**urdinak** - norgehiagoka ageri ziren. **Bernardo Atxaga**
Ile-**urdina** bere gizonengana bihurtu zen. **Aingeru Epaltza**

8 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Horizontean zeutzan hodeiek lilatik grisera egin zuten: mendi-islel itsatsiak, baina, zeru-**urdin** puska batzuk ikusten ziren, argiaren azken hasperenak urreztatua. **Joan Mari Irigoien**
· Las Vegasko joko-etxe horietako batean [...] bozgorailuen burrunba, nire izena etengabe errepikatzen; automata **urdin**-gorri-horizko kaosa, non dirua irabaz zitekeen, loteria. **Joxe Austin Arrieta**

9 (predikatu gisa)

Airea **urdina** da, zigarreten keak eta jantzi hezeei darien lurrnak eraginda. **Monika Etxebarria**
Isiltasuna **urdina** da. **Pako Aristi**
Ekuazioan hainbat ezezagun baldin bazegoen, bigarrena beltza zen; hirugarrena, **urdina**. **Jon Muñoz**
Urdinak zituen zapatak eta **urdinak** zapata-sokak; **urdina** zuen gona eta **urdina** gona gaineko jaka; **urdina** zen jertsea estaltzen zuen berokia eta **urdina** hegaltzikiko kapelua; **urdinak** ziren begiak, mineral kolorekoak. **Felipe Juaristi**
Horia baitzuen ilea eta **urdinak** begiak. **Xabier Montoia**
Buruan kapela, **urdin** iluna. **Felipe Juaristi**
Gaztelutikako militarrek ere bai, baionetak agerian, fusilak ordu laurdenero-edo besaburuan pausatzen zituztela; kapelua eta galtzak gorri, eta txamarak **urdin**.
Txillardeggi

10 (kolore hitzarekin)

Lehen begiratuan gris-esnekara ematen zuen, ke-kolorea, baina, luzaroago begiraturaz gero, kolore **urdina** agertzen hasten zen. **Jose Morales**
Kanpoko argitasun biziegia ehunaren kolore **urdin** leuna margul ez zezan. **Karlos Zabala**
Itsas aingira, kolore **urdin** lokaztuko suge lodi hori. **Karlos Zabala**
Hormak kolore **urdin** argi gris-antzeko batez pintaturik. **Jose Morales**
Zeren eta Thule izena kolore **urdin** ilunean imajinatzen bainuen. **Bernardo Atxaga**
Soineko erantsi bat darama, kolore **urdin** argikoa, eta gainetik lihozko txaketa. **Bernardo Atxaga**
Pintzela kolore **urdinean** bustitzean, garai bateko iraganean ere busti zuen. **Anton Garikano**
Suaren indarrarekin bakoitzak bere izaera gaindituz, kolore **urdineko** egiten dira. **Santiago Iruretagoiena**
Berotegi moduko bat, kolore **urdin** motelezko, arrosa kolore apalezko, berde kolore arinezko beirategi batzuek tapizeriazko poesia girozko paisajez inguratzen zutena. **Josu Zabaleta**
Bidexkatik, bi ume txiki doaz kolore **urdin** eta zuriko uniformearekin eskolara. **Joseba Sarrionandia**
Urdin kolorea jabetu zen gelaz, ilargia zen, bere zenitaren goialdean. **Joxan Elozegi**
Sekulan ezagutu dudan zerurik argiena, **urdin** kolore bizi-bizikoa. **Koro Navarro**
Gauero oroitzapenak ordenatzen eta **urdin**-kolore pixka bat ematen saiatzen. **Juan Kruz Igerabide**
Haren masailak beltzera lerratzen zen **urdin** kolorekoak ziren. **Monika Etxebarria**
Edonon jaio ohi diren hortentsiak maite dituk, **urdin** kolorekoak batez ere. **Ramon Saizarbitoria**
Elastiko bat eta **urdin** ilun koloreko txandal baten galtzak zituen jantzita. **Joxemari Iturralde**
Zeruak **urdin** bizi-bizia zuen kolore. **Anjel Lertxundi**
Zilueta gardenak zituzten, **urdin** hits kolorekoak. **Iban Zaldúa**

• 11 iz kolore urdina.

Zeruaren **urdina** zurbila zen. **Monika Etxebarria**
Euriaren **urdina**. **Josu Zabaleta**
Hormak **urdina** jaten zion. **Unai Elorriaga**
Etxetxo kareztatuak, burua galtzeko moduko **urdinez** margotuak atek eta leihoak. **Jon Muñoz**
Kutxa bat **urdinez** pintatua. **Felipe Juaristi**
Oholtzako lau kantoietan, arkabuzero bana, zuri-**urdinez** jantzirik. **Txillardeggi**
Mika urdinek galdua zuten distira: haien **urdina**, harrigarriro, gris argia zen. **Xabier Olarra**
Jendetza handia zebilen, gazte ugari zuri-**urdinez** edo zuri-gorritz jantzirik Alde Zaharrean eta inguruetan. **Miguel Angel Mintegi**

Armeniako **urdiak** eta indioak, beraiek adierazten duten izenez zein lekutan sortzen diren. **Santiago Iruretagoiena**

Euriaren **urdira**. **Josu Zabaleta**

Olibondo iladak, euren gris-**urdira** berezian. **Xabier Amuriza**

12 ileaz mintzatuz, zahartzaroan-edo hartzen hasten den kolorekoa. ik **urdira** 5.

Gure aitona laurogeita hamar urte zituela hil zen, eta ez zuen ile **urdira** ia. **Koro Navarro**

Biolinjolea, haizeak ile **urdira** xerlo batzuk soilune higatuan inarosten zizkion bitartean, kapela luzatuz, jendetzaren artean zebilen eskean. **Lopez de Arana**

Gidaria emakumea da, emakume heldua, berrogeita hamar urte ingurukoa, ile **urdira**. **Iban Zaldúa**

Lacaillek, garrazturik, ilea **urdira** jada [...] burgesen baretasun gozoari begiraten zion begi uherrez. **Karlos Zabala**

Haren ileak lumajearen antza zuen: beltza, distira **urdira** berdeskaz zipiritindua. **Joxe Austin Arrieta**

Ilea harrotuta izaten zuen, eta nahiz eta berez beltza izan, **urdira** zirudien hautsagatik. **Pello Lizarralde**

Ba nik utzi diot berezko koloreari, gaur, zuri bisitatzera etorri baino lehen, ileapaindegira joan eta nire **urdira** beneragarriak tindatu ditut. **Jon Alonso**

13 **urdira** argi

Alkandora **urdira argi** bat zeraman, bakeroa. **Bernardo Atxaga**

Txarolezko oinetako **urdira-argiak**. **Karlos Zabala**

Sudurra painolu itxurako mukizapi **urdira argi** zabal batez estaltzen zuen. **Aingeru Epaltza**

Urdin argia zen [telefono mugikorra], ikaragarri fiimioa. **Aingeru Epaltza**

Galtzak **urdira argiak** ziren, garbi-garbiak, lisatu berriak. **Felipe Juaristi**

Batez ere begietan, haren bitxirik ederrenak baitziren haiek: bi aintzira **urdira argiak**, gizona eta gaztetxo sentiberen igerileku. **Felipe Juaristi**

Horia zuen ilea, eta **urdira argiak** begiak. **Jose Morales**

Eguzkia aurki agertuko zen alde gero eta **urdira-argi**, urdin margulagorantz. **Iñaki Iñurrieta**

Espaloiaren muturrean jantzi **urdira argiko** emakume gazte bat lasterka ari zen atzeraka. **Monika Etxebarria**

Lo egongo zen seguru asko, lasai ederrean, bere etxean, pijama **urdira argiarekin**. **Unai Iturriaga**

Urdin argiarekin kontrastean, hodeien gorri-laranja bizia. **Iñaki Iñurrieta**

Traje galtzadun beltza, **urdira argiz** zipiritindua, eta oinetakoak ere beltzak, takoirik gabeak. **Ramon Saizarbitoria**

Harrigarriki aldatzen zen haien kolorea: gorri, hori, **urdira argi**, urdin ilun edo berde agertzen ziren, zein beirakitatik begiraten zien. **Jose Morales**

- Eguna argitzen ari zen, eta gero eta tarte **urdira**-argitsu gehiago ikusten ziren. **Anjel Lertxundi**

14 **urdira ilun** (orobat **urdira ilun g.er.**)

Jantzi **urdira ilunak** dituen andre bat. **Monika Etxebarria**

Segituan iritsi zen Villoslada kapitaina, Seat 124 **urdira ilun** batean. **Unai Iturriaga**

Soineko **urdira ilun** diskretu batean biltzen zuen bere gorputz biribildua. **Unai Iturriaga**

Palto beso motx **urdira ilun** bat eta gerriko gorri bat atera zituen kutxa batetik. **Elena Touyarou**

Begi **urdira ilun** pare nabarmena zen aurpegi biribil zurbil eta hauskor hartan. **Lopez de Arana**

Liburuaren azala **urdira iluna** zen; letrak, urre kolorekoak. **Bernardo Atxaga**

Jertse bat zeraman leporaino itxia, hegoaldeko itsasoaren kolorekoa, eta buruan kapela, **urdira iluna**. **Felipe Juaristi**

Mercedes berri-berri bat zen, **urdira iluna**. **Migel Angel Mintegi**

Zerua ere **urdira ilun** zegoen egunsentiko une hartan, mantxa laranja eta horiekin. **Bernardo Atxaga**

Nini **urdira ilunez** zegoen jantzita, beti bezala, eta panazko gona **urdira ilun** bat eta kolore bereko brusa bat zeuzkan soinean. **Xabier Olarra**

Urruneko mendietan berdea urdin bihurtzen zen, **urdira ilun**. **Bernardo Atxaga**

Lorontzi estuan zut, bi arrosek tanto zuriak ipintzen dizkiote gelako **urdira ilunari**. **Jon Alonso**

Aurrez aurre neukan dorrea zeruaren **urdira ilunaren** azpian. **Rafa Egiguren**

Kanpoan zerua bizkor ari zen aldatzen; belusezko **urdira ilunetik** altzairuzko gris hotzera. **Iñaki Mendiguren**

15 **urdira urdin**

Itsasoaren aurrera iritsitakoan ez zuen gerra itsasontzirik, ez arrantzale txaluparik ikusi, itsaso **urdira-urdira**, itsaso amaigabea baizik. Betile luzeek tankera malenkoniatsu eta tristea gehitzen zieten bere begi handiei, begi **urdira-urdira**. **Felipe Juaristi**

Paradisu itxura ematen dioten ezti koloreko arrokez eta ur **urdira-urdira** inguratutako paisaiari esker. **Berria - Mundua**

Morse andreak luzaroan begiratu zien bere eskumutur meheetako zain **urdira-urdira**. **Mirentxu Larrañaga**

Iratxo haiek **urdira-urdira** ziren, eta hogezi zentimetro inguru ziren altu. **Iñaki Mendiguren**

Zisne-lepo luzea zuen, begiak **urdira-urdira**. **Fernando Rey**

Hori bai, begiak **urdira-urdira** ditut. **Pako Aristi**

Zerua **urdira-urdira** zegoen, eguzkiak ertz batean egiten zuen argi. **Bernardo Atxaga**

Urdin-urdira zegoen itsasoa. **Xabier Montoia**

Zerua **urdira-urdira** jarri da bat-batean. **Anjel Lertxundi**

16 **zeru-urdira izond**

Gela **zeru-urdira** bat zen, urrinez gozatua, zoruan piztia larruak zabaldua zituena. **Josu Zabaleta**

Errezel **zeru** -urdinen artean argi izpiak iragazten dira. **Xabier Paya**

Barnealdea zeta **zeru** -urdira forratua zuen kotxe baten atzealdean jarririk. **Xabier Olarra**

Kolore zeru-**urdira** edo sagar-berdea zituen gustuko. **Karlos Zabala**

Ohean etzanda zegoen, kotoizko txabusina zeru-**urdira** bat jantzirik. **Lopez de Arana**

Hainbat koloretako ohe-estalkiak ikus zitezkeen zintzilik bertan: batzuk, **zeru-urdira**; beste batzuk, izokin-kolorekoak; eta beste batzuk, berriz, hori ilunak. **Lopez de Arana**

Hain betaurreko lodi konkaboak zeramatzan, ezen, aurrez aurre so eginez gero, begiek, **zeru** -urdira ia zuri batekoak baitzituena, urrun-urrunak baitziruditen, burezur barrenean josiak. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

alkandora urdin (6); ara urdin (8); argi urdin (13); argi urdin birakariak (5); azal urdin (4); begi urdin (83); begi urdin argi (4); begi urdin argiak (7); begiak urdin (7); begirada urdin (5); berde eta urdin (6); bere begi urdin (7); beroki urdin (4); bizar urdin (7)

eratzun urdin (4); galtza urdin (4); haren begi urdin (5)

ile urdin (14); jaka urdin (6); jantzi urdin (10); kasko urdin (7); kolore urdin (27); lerro urdin (4); lore urdin (5); marra urdin (5)

oihal urdin (6); oroitzapen urdin iluna (6); puska urdin (5); soineko urdin (10); traje urdin (10); txapel urdin (4); txuri urdin (29)

ur urdin (7); uraren urdin (4)

urdira argi (22); urdira argi bat (5); urdira argia (15); urdira argiak (20); urdira argiz (7); urdira berde (4); urdira bizi (4); urdira distiratsua (6); urdira ederra (5); urdira garbi (5); urdira ilun (19); urdira ilun bat (4); urdira iluna (27); urdira ilunak (10); urdira ilunez (8); urdira koloreko (8); urdira leuna (4); urdira luzea (4); urdira txiki (7); urdira txikia (4); urdira urdin (11); urdira urdira (11); urdira urdirak (8)

xingola urdin (4); zain urdin (5); zapi urdin (6); zeru urdin (40); zerua urdin (32); zerua urdin urdin (7); zerua urdin zegoen (5); zeruak urdin (6); zeruaren urdin (5); zuri urdin (4)

aste urdira (8); atorra urdira (4); begi urdira (10); berdea eta urdira (4); bezain urdira (5); elastiko txuri urdira (6); eremu urdira (5); gorri urdira (5); gorria eta urdira

(7); **ile urdina** (10); **itsaso urdina** (4); **izarbel urdina** (4); **jaka urdina** (5); **jertse urdina** (4); **karpeta urdina** (8); **koaderno urdina** (10); **kolore urdina** (6); **talde urdina** (24); **tango urdina** (7); **txartel urdina** (4); **txuri urdina** (45); **urdin urdina** (11)

zeru urdina (26); **zerua urdina delako** (7); **zeruaren urdina** (13); **zuri urdina** (13)

argi urdinak (13); **begi urdinak** (36); **begi urdinak zituen** (4); **begiak urdinak** (6); **entrenatzaile txuri urdinak** (10); **ile urdinak** (7); **kasko urdinak** (12); **lerro urdinak** (4); **talde txuri urdinak** (73); **talde zuri urdinak** (4); **txuri urdinak** (113); **urdin urdinak** (8); **xuri urdinak** (5); **zeru urdinak** (6); **zuri urdinak** (12)

talde txuri urdinarekin (5); **zeru urdinarekin** (4)

itoti urdinaren azpian (4); **talde txuri urdinaren** (9); **zeru urdinaren** (12); **zuri urdinaren** (4)

talde txuri urdinari (6); **zeru urdinari** (8)

aire urdinean (4); **gela urdinean** (5); **koaderno urdinean** (5); **talde txuri urdinean** (12); **zeru urdinean** (18)

txuri urdinei (4)

begi urdinek (11); **kasko urdinek** (8); **txuri urdinek** (72); **xuri urdinek** (4); **zuri urdinek** (7)

ile urdineko (4); **kolore urdineko** (6); **talde txuri urdineko** (13)

begi urdinen (4); **dirua urdinen alde** (4); **ile urdinen** (4); **kasko urdinen** (6); **txuri urdinen** (29); **urdinen alde** (9); **urdinen alde irten** (4); **zeru urdinen** (4)

zeru urdinera (5)

begi urdinetan (4)

berdez eta urdinez (4); **bolígrafo urdinez** (4); **tinta urdinez** (5); **urdinez jantzia** (4); **urdinez jantziak** (4); **urdinez jantzita** (10); **urdinez jantzitako** (12); **zuri urdinez** (5)

urdinagotu, urdinago(tu), urdinagotzen da/du ad urdinago bihurtu.

Urdinagotu egin zaio ilea. **Joxe Austin Arrieta**

urdinantz *izond* urdinaren antza duena.

Hitz-dotorekeriazko araubide zital baten arabera eginak zituen zuzenketak: lehen "urdinkara" idatzia zuen lekuan, orain "**urdinantz**", "urdinko" eta are "urdiño" zerabilen barra-barra. **Juan Garzia**

- Egunsentian ekialdean disko txiki bat agertzen da ortzemugan, **urdin antzerakoa** da zenbait unetan, edo berdexka beste zenbaitetan; horixe da, hain justu, Urano. **Berria - Gaiak**

urdinarbetar ik urdiñarbetar.

urdinarbetar ik urdiñarbetar.

urdinberde ik urdin 5.

urdinu, urdin(du), urdintzen 1 da/du ad urdin bihurtu.

Leihoaz bestaldean gau beltz iluna gertu zegoen egunsenti hurbileko argiarekin **urdintzen** hasteko. **Jose Morales**

Zeru **urdintzen** hasiari argi urretsua zerion. **Anjel Lertxundi**

Urre koloreko zerrenda zurbil bat atzematen da ortzemuga hotz **urdintzen** hasian. **Jose Morales**

Lucasi begi grisak urtu ahala itsaso bihurtu zitzaizkion eta **urdinu**. **Unai Elorriaga**

Eguzkia galdu eta portuko paisaiaren marrak mugatu eta koloreak zehaztu egin ziren, haizea hotzagoa egin zen, eta itsasoa **urdinu**. **Joseba Sarrionandia**

Etorbidea antzeman zuen lehendabizi [...] haren osteko hondartza amaibakoa gero, eta goiznabarraren argi ubelak **urdintzen** zuen itsasoa jarraian. **Xabier Montoia**

Oraindik **urdinu** gabeko lizuna, hauts zuri harroa, txikitik hainbeste maite genituen sorgin-loreen antzekoa. **Eider Rodriguez**

Zeharo belzten ari zen zeru iluna **urdinu** egin zen Alavesentzat. **Berria - Kirola**

2 (era burutua izenondo gisa)

Udazkeneko zuhaitzek ilargiaren argi horitan distiratzten dute, irailako ilargibetearen argitan, lanerako kemena ontzen duen argia, eta sastraka goxatzen, eta olatu **urdinua** lehorrera mihizka ekartzen. **Anton Garikano**

Alpakazko berogailuaren gainean jartzen zituen esku **urdinuak**, hatzak berotzeko. **Karlos Zabala**

Txahalen buru eta zango **urdinuen** artean igaro zen. **Karlos Zabala**

Berriz galdetzen zioten psikologoari zer zela-eta erakutsiko zuen Amaiak, hiltzorian zegoela, halako irribarre xaloa bere aho **urdinuan**. **Josetxo Azkona**

Torturatuaren ile kizkurrak deseroso sentiarazten zuen, eta begi **urdinuei** zerien begirada gardenak ere bai. **Josetxo Azkona**

3 (ileaz mintzatzuz)

Maiatzean ezta ulerik ebagi bear, **urdinu** egiten da-ta. -Hogeita sei urte ditut, lokiak **urdinu** zaizkit jadanik. **Pello Zabala**

Urdintzen hasitako bibote sarria zeukan. **Koldo Izagirre**

Igogailuko ispiluan kosta egin zitzaidan neure burua ezagutzea, ilea **urdintzen** hasia zuen tipo lasai itxurako bat. **Joxean Agirre**

Kokots-bizar ederra zuen, **urdintzen** hasia. **Matías Múgica**

Ez al da egia itsasoak ilea **urdintzen** hasitako ama baten antza duela? **Joxean Agirre**

Zeren bizitzaren eskolan beti baita zer ikasi eta zertan eskolatu, baita ileak **urdirurik** ditugunean edo garbal eta karsoil gaudenean ere. **Joan Mari Irigoien**

Zianosiak **urdiruriko** ezpainak arrain baten modura biribilduta. **Ramon Saizarbitoria**

Ez zekitela esaten zuten nire adiskideek zer ikusi zion Monikak ilea **urdirudutako** gizaseme horri baina, hala ere, neskak zoriontsu omen zirudien. **Joxean Agirre**

4 (ileaz mintzatzuz, era burutua izenondo gisa)

Sukalde erdian zutik, bi esku dardaratiak buru atzera eraman eta motots **urdinua** apaindu du. **Pello Lizarralde**

Edwinen ile **urdinua** mendiburuko elurraren modukoa irudituko zaizu hor aurrean. **Joseba Sarrionandia**

Bisaia ilaje eta bizar **urdiruduz** estalia zuen hizlariak. **Unai Iturriaga**

Piamonteeraz hitz egiten zigun bere auziaz, eta bitartean bere bizar **urdinu** narrasa leutzen zuen. **Fernando Rey**

Hartza bezain handia, bizar **urdirudua** borobilean moztua. **Fernando Rey**

Altua zen, gizona, matrail-bizar beltz **urdinu** luzekoa. **Fernando Rey**

Bi xakelariak zaharrak ziren eta isilean jokatzten zuten, beren buru **urdirudua** taulatik une batez ere altxatu gabe. **Alberto Ladron Arana**

Gure amak otzan-otzan segitzen zion pauso batzuk atzerago, bere esku-makilarekin, jertsea gerrian loturik, eta bere ile kizkur **urdirudua** nahasiz. **Fernando Rey**

Levi-Álvarez hori gizon txikitxo bat zen, ilea horail- **urdirudua** zuena, sudurra kakotua, bibotea zuria eta betaurrekoak urrezkoak. **Koro Navarro**

- Agure ile **urdinu** bat, sorbalda erorixe eta begiratu aratz garbikoa. **Karlos Linazasoro**

5 (era burutua izenondo gisa, irud/hed)

Bizia jakingarri, eskurakoi eta gogorakizun huts bihurtu zaion urte **urdinduetan** daki zaharrak dakien hori, eta ez bizia bere gorrian lehertzen zen sasoiari.

Iñaki Segurola

6 lizundu. • irud/hed

Haragizko atseginarekin janari haiek guztiak denborarekin **urdinduz** joan izan balitzaizkit bezala, edariak zurminduz, Joan Mari Irigoien

urdindun *izlag* urdineko.

Neskari hurbildu zitzaion, marra **urdindun** soinekoa ukitu nahi izan zion. Karlos Zabala

Françoisi eskua Luisaren eskuin eskura joan zitzaion, zain **urdindun** eskura. Felipe Juaristi

Amila **urdindun** gizona jaitsi zen eta soldaduen buru egiten zuenarengana jo zuen. Felipe Juaristi

Soineko koadro zuri-**urdindun** bat, ama Chantemessek erabilitako tartan oihal batez egindakoa. Karlos Zabala

Itsasoa ikusi nahi nuen, ez nire arbaso hortz-**urdinduna** zetorreneko ekaiztsu hura, baizik itsaso epela, gatza datorrenkoa. Juan Garzia

Hori esan zuen erreguka, eta entzun egin zion adats **urdindunak**. Juan Kruz Igerabide

urdinduxe *izond* urdinu samarra.

Ile **urdinduxea** bakandua zuen lokietan. Matías Múgica

urdinilun ik **uridin** 14.

urdinkara (25 agerraldi, 19 liburutan) 1 izond urdin itxurakoa. ik **urdinxka**.

Ameslariak sinetsi nahi izaten dute itsasoak sekulako lurralde **urdinkarak** dituela bere magalean. Josu Zabaleta

Gelako leihoek baso **urdinkara** batera ematen zuten. Jose Morales

Gizakien ile-adats **urdinkaraz** osatutako kalparrak ageri zituzten. Mirentxu Larrañaga

Zango potolo zuriak zituen, ostargi-belar antzeko zain **urdinkara** ñimiñoz osaturiko itzalgunez belztuak. Mirentxu Larrañaga

Auto zelular bigarren lerroan aparkatuetakoa argiek ñir-ñir **urdinkarez** ñabartzen zuten arratsaren ilun ahula. Aingeru Epaltza

Pantailaren argi **urdinkarak** gela guztia betetzen zuen. Juan Kruz Igerabide

Bat-batean sutan dago, su **urdinkara** hotz batean bilduta. Oskar Arana

Han goian, nire buru gainean, ilargi handi, bete, zabal bat hedatzen zen, zeru **urdinkara** esnezko baten erdian argi ematen. Josu Zabaleta

Kezko laino **urdinkararen** atzean. Jon Alonso

Sugar **urdinkara** bat zebilki dantzan begietan. Juan Kruz Igerabide

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia beste kolore bat delarik)

Senarra zain-zain zegoen, eskuak paper izkiriatura atxiki-atxikita eta hatz-koskorak zuri-**urdinkarak** bilakatzeraino, emazteak hurrengo iruzkina noiz egingo. Mirentxu Larrañaga

3 (ileaz mintzatzuz)

Ezkerraldean, ile gris **urdinkaren** gainetik apenas, apal bateko liburu batzuei erreparatu nien. Monika Etxebarria

urdinmin *izond* urdin bizia.

Artilezko soinekoak daramatzate, kolore garbikoak denak, gorrimin, **urdinmin**, berdemin kolorekoak, eta buruak larruzko kapeluz estaliak dituzte, hotzak ez baitu barkatzen, estutzen baizik. Felipe Juaristi

urdinska ik **urdinxka**.

urdinkatu ik **urdinxkatu**.

urdinsko ik **urdinxka**.

urdintasun *iz* urdina denaren nolakotsasuna.

Haran gaineko zeruak **urdintasun** aratza zeukan. Bernardo Atxaga

Paisaia, bidaia, zeruaren **urdintasun** gehiegizkoa. Lourdes Oñederra

Ogi zelai hedatuaren zedarrietan hedoiak bereiz zebiltzan, zerua **urdintasunaren** xatarraz troxatu eta zurtasun mardulez hantuz. Itxaro Borda

Zerua bukaerarik gabeko **urdintasun** argitsua zen eguzki zuri itsugarriaren azpian. Iñaki Mendiguren

Hurrengo goizeko lehen argiarekin, oinarri zarpail eta arre hartan piperrautsaren edo alheñaren gorritasuna itsatsiko ziren, katilu eta plateren horitasuna, babutxa eta kaftanen **urdintasuna**; kolore horiek eta, beste eskala batean, alfonbra-dendan ikusi berri genituen guztiak. Bernardo Atxaga

Bitxiloreen orban zuri biziak, dalien gorri odolokara, bioleten **urdintasuna**, arrosen mami bizidunak agerira azalduz. Karlos Zabala

la bat-batean, zurbiltasunera bitarteko kolore-aldaketarik gabe ia, hilotzaren **urdintasun** lurkarak ordeztu zion masailetakoa. Jose Morales

Ez zuen nahi bere burutapenak airean arin planeatzen doan hegaztia izatea, horizonte mugagabe guztiak begien bistan, **urdintasun** ferekatzaile eta samurraren luze-zabal osoa, sakontasun osoa, poztasun osoa eskuragarri. Jose Morales

urdintsu *izond* adkor urdinez betea.

Distira **urdintsuaz** zeuden jauregiko leihoak, eta Mathilde imajinatu zuen haietako batean, eskua jaso eta itzul zedila eskatzen. Anjel Lertxundi

urdintxo *izond* urdina.

Beren aulkietatik altxatu eta pitxar **urdintxo** ardoz betetzera satora lasterka joateko lehenengo prestatzen zirenak. **Josu Zabaleta**

urdintze *iz* urdin bihurtzea.

Goizeko sutearen gar biziek gora egin ahala, barazkiak lotatik gehiago iratzarri eta lurrean herrestan zebilen **urdintze** handi hartatik bereizten ziren. **Karlos Zabala**
Ohe gainean jarri zen; maindirearen tolesen artean ispilu bat irmotu, tindu-paleta atera, eta aurrealdeko xerloak **urdintzeari** ekin zion. **Jon Muñoz**

urdinune *iz* gune urdina.

Bekokiko **urdinunea**, hori bai harrigarria! **Jon Muñoz**

urdinxka (*56 agerraldi, 29 liburutan; orobat urdinska g.er. eta urdinsko g.er.*) **1 izond** urdinaren antzeko kolorekoa. ik **urdinkara**.

Udaberri aurreko zero **urdinxkari** begira. **Fernando Rey**
Musikako kioskoaren zutabe **urdinxkak**. **Monika Etxebarria**
Azkenik, betazal **urdinxkak** altxatu egin ziren. **Lopez de Arana**
Gaeuan, lotokietan argi **urdinxka** bat egoten zen piztuta. **Xabier Olarra**
Hasieran, argi elektriko **urdinxka** sartzen zen leihoak estaltzen zituzten errezel lodien artetik. **Jose Morales**
Beren altzairuzko bizkarrezurren tonu **urdinxkak** leundu egiten zitzaizkien pixkanaka sabelen gozotasun gardenean. **Karlos Zabala**
Urrunean, gandu **urdinxkaren** artetik, birfindegiko edukiontzi handiak igartzen ziren. **Urtzi Urrutikoetxea**
Ilargiaren distirak itzal **urdinxkak** sortzen zituen Velascoren aurpegi zurbilean. **Anjel Lertxundi**
Hantxe kokorikatu nintzen, buruari eskuez eutsirik, ilargipe **urdinskan** izerditan blai. **Joxe Austin Arrieta**
Freskoak eta gazteak ziren aurreneko muino eta mendiak, hoteletik hurbil zeudenak; [...] **urdinxkak**, kearen kolorea eta arintasuna zutenak, urrun-urrunenak, azkenekoak. **Bernardo Atxaga**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia beste kolore bat delarik)

Kaio zuri-**urdinxka** mordo bat itsasertzean, Iparralderantz militarki noratua. **Txillardegi**
Baina aurpegiak burdin urtuaren kolore beltz-**urdinxka** hartu zuen, eta hortz hori handiak karraskatu zituen. **Jose Morales**

urdinxkatu (*corpusean urdinskatu soilik*) *izond* urdinxka bihurtua.

Beste batzutan, intxaur jaten ari ginela, alea kraskatu ondoren barrengo mamia beltzu edo **urdinskatua** agertzen bazen, hala esanen ziguten gurasoek: [...]. **Patziku Perurena**

urdu *iz* Indiako iparraldeko eremuetan mintzatzen den hizkuntza indoeuroparra, Pakistango hizkuntza ofiziala dena. ik **urduera**.

Inguruko hizkuntza handietara ez ezik urruneko hainbatetara itzuli dogu: hebraierara, swahilira, mundurukura, **urdura**, japonierara. **Jon Arretxe**
Gero hor ditugu inglesa, Indiako hindi eta **urdu** mintzairak, espainola, errusiera, arabiera, bengaliera, portugesa... frantsesa aldiz arras apalago delarik. **Herria**

urduera *iz* urdua.

Hindustanera esaten zaion sanskritoartutako hindiera herri-hizkuntza britainiar misiolari protestanteek landu zuten, Ipar Indiako hindu-biztanleei **urduera** esaten zaion pertsiantutako hindiera herri-hizkeraren baliokidea emateko, hori indiar musulmanek landua zutelarik berentzat. **Iñaki Mendiguren**
Etxean osabarekin bizi naiz, biok bakarrik, eta harekin **urdueraz** egiten dut, sorterriko hizkuntzan. **Berria - Harian**

urduliztar *izlag/iz* Urdulizkoa, Urdulizi dagokiona; Urdulizko biztanlea.

Urduliztar jendeak zioenaren arabera, zenbait kobazuloren inguruetan emakume itxurako izakiak, oinen orde z atzaparrak zeuzkatenak, hamaikatxo aldiz ikusiak izan ziren. **Joanes Urkixo**
A. **urduliztarrak** bi saiheits hautsi zituen, zaintiratua du orkatilan eta lepokoa behar du. **Berria - Euskal Herria**
Urduliztar batzuk domekaro Andrakara etorten ziran txikiteoan, Ruforen tabernara, eta han derrigorra zan soinua jotea. **Xabier Amuriza**

urduñar *izlag/iz* Urduñakoa, Urduñari dagokiona; Urduñako biztanlea.

Basetarritarra eta, martxoaren hondarretik, Bizkaiko EHNE sindikatuko lehendakaria da Mikel Kormenzana **urduñarra**. **Berria - Ekonomia**
Ez Ernazimentuan oro har, Italian Euskal Herrian bezalatsukoa den kultura horretan, baizik pertsona konkretu gaizto batengan, intentzio makurrez juduen aurka propio asmatua, haiei lanbideak kentzeko apropos, eta "diferentziaren" inbentorea Lizentziatu Poza **urduñarra** izan da. **Joxe Azurmendi**

urduri **1 izond** lasaia edo geldia ez dena, egonezinera edo kezgara joera duena. ikekurugaitz. (pertsonez)

Osaba gizon **urduria** zen, eta, iduri egite hartan, batzuetan, igarri egiten zitzaion urduritasuna. **Joan Mari Irigoien**
Andres bezalako gizon **urduri** eta kezkatu batentzat deprimigarria izan behar zuen ikuskari hark. **Josu Zabaleta**
Neska **urduri** eta neurotikoeak ohi dituzten isilaldi gogoetaz bete horiek izaten zituen. **Josu Zabaleta**
Harry Quirrell maisua ere ikusi zuen, Pertz Jarioduneko gazte **urduria**. **Iñaki Mendiguren**
Ez nintzen Baionako trenea hartu zuen mutiko **urduri** hura, nesken beldur zena. **Alberto Ladron Arana**
Zuzendariak, maisu **urduriak** ez bezala, bere lasaitasun zuri eta zitalarekin nahasi nahi ninduen. **Pello Lizarralde**
Ez bakerik ez lorik ezagutzen ez zuten gaixo **urdurien** berriketa monotono ulergaitza entzuten zen. **Jose Morales**

2 (bestelakoez)

Tabernariaren alaba, bularretan bi uso **urduri** gordeta dituzun neska. Sigi-saga zebilkidan Sara, tximeleta **urduri** bat bezala. Bere begi **urduriak** alde guztietarantz bihurtu zituen. **Felipe Juaristi**

Hitz haiek aditu ondoren so egin nion Pedrori eta irri **urduri** bat egiten sumatu nuen. **Joan Mari Irigoien**
Norbaitek, atzetik etorririk, sastakaia sartu zion bihotz **urdurian**, eta hilik utzi zuen lurrian. **Felipe Juaristi**
Odolaren ibili **urduriak** masailak dardararazten zizkion. **Jose Morales**
Gaztaroko irakurketa **urduriak**. **Iban Zaldúa**
Hirurek baiezeko **urduri** bat egin zioten elkarri. **Alberto Ladron Arana**
Oihu **urduri** batzuk zetozen urrunetik. **Joan Mari Irigoien**
Maizak entzun zezakeen beste aldekoaren arnasketa **urduriaren** zurrumurrua. **Migel Angel Mintegi**
Keinu **urduri** batez, aitak sorbalda estutu zidan. **Alberto Ladron Arana**
Hermioneren hankak halako tik **urduri** bat egin zuen. **Iñaki Mendiguren**
Sergiorenen poztasun **urduriak** ohartu zen Sara. **Joan Mari Irigoien**
Ni, berriz, loak ez baina ezinegon **urduri** batek hartu ninduen. **Juan Luis Zabala**
Geldieztasun **urduri** baten jabe zen, beti zeukan zerbaite egiteko. **Anjel Lertxundi**
Ezinegon **urdurizko** dardara batek astindua. **Karlos Zabala**

3 (predikatu gisa)

Osaba Joanikot **urduria** zen, eta laket nuen haren urduritasuna. **Joan Mari Irigoien**
Urduria izan naiz beti, ikaragarri **urduria**, eta halakoxea naiz orain ere. **Koro Navarro**
Gelako isiltasun goibelean bi bihotzen taupadak entzuten ziren: batenak sarriak, lasterrak, **urduriak**; besteearenak sendoak, geldiak, izugarri bakanak. **Jose Morales**
Kumetxoa **urduria**, ezinegona eta ederra izango da, bere amaren alboan jolasten diren umetxo guztien modukoa. **Joseba Sarrionandia**
Bada gizon bat, bisitetatik ezagutzen dudana, gaztea oraindik, baina artritikoak, **urduria**. **Josu Zabaleta**
Meheegia eta **urduriagia** iritzi nion tipo luze ilehori hari. **Alberto Ladron Arana**
Alazneren aurpegiarekin egin zuen topo: zurbila, **urduria**, nahasia. **Fernando Morillo**
Hain **urduria** zen, mintzaidea ere urduritzea lortzen zuen. **Lander Garro**
Apala zuen begiratuak, **urduria** ibilera. **Anjel Lertxundi**

4 (izen gisa)

Eder du, bere **urdurian**, ibilera. **Anjel Lertxundi**
Urdurientzat eta gogaikarrientzat txokeko terapiak daude erietxeko zurtasun garrantzean. **Joseba Sarrionandia**
Urduri plantak egin, ea horrela. **Jon Arretxe**

5 *adlag* egonezinak edo kezkak larriturik. ik *artega*.

Urduri, estu eta larri, hartutako mezuen karpeta zabaltzen du. **Antton Olano**
Urduri eta kezkaturik, soldadua azalpenak ematen hasi zen: [...]. **Jose Morales**
Urduri eta ikarati, eta lurrian geratuko ote zen beldurrez. **Iñaki Mendiguren**
Guztiak joan baitziren, ohi ez bezala, isilik, **urduri** eta ekurugaitz, barren-kezka batek erraiak janen balizkie bezala. **Joan Mari Irigoien**
Behia **urduri** eta artega doa pasabide estu batetik aurrera. **Patxi Iturritegi**
Hegazkera astuneko albatroak ere inguratuko dira, kezkaturik eta **urduri**. **Joseba Sarrionandia**
Emakumea besokoa lotzen hasi zen, baldar eta **urduri**. **Anjel Lertxundi**
Harry, **urduri** eta lur jota, bere lumazko ohean etzan zen. **Iñaki Mendiguren**
Kokospekoa igurtzi zuen, **urduri**. **Fernando Morillo**
Guztiok isilik geunden, **urduri**. **Joan Mari Irigoien**
Ez nuela **urduri** egoteko motiborik. **Ramon Saizarbitoria**
Urduri bizi nintzen bolada hartan. **Txillardegi**
Alai eta **urduri** joan dira; muturrez eta zapuzturik itzuli dira. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Harry eta Ronnek **urduri** begiratu zioten elkarri. **Oskar Arana**
Gau hartan **urduri** oheratu nintzen. **Joan Mari Irigoien**
-Polizia? - **urduri** galdetu zuen, irakurtzeko asmorik azaldu gabe, halere. **Migel Angel Mintegi**
-E... kaixo -esan zion Harryk **urduri**. **Iñaki Mendiguren**
-Ba..., baho? -esaten dio Danik, **urduri**. **Antton Olano**
Azken zigarroa piztu eta erretzen hasi zen **urduri**. **Irene Aldasoro**
-Pentsatzekoa da - **urduri** mugitu zen besaulkian Maiza-. **Migel Angel Mintegi**
Isiltasunak **urduri** jartzen zuen. **Anjel Lertxundi**
Ez nuen **urduri** jartzeko motiborik ikusten. **Anjel Lertxundi**
Gero eta **urduriago** ari zen jartzen. **Iñaki Mendiguren**
Hiru bekadunak begiradaz lokal hartako bazter guztiak arakatzen hasi ziren, gero eta **urduriago**. **Jon Arretxe**
Urduri irakurtzen jarraitu du. **Xabier Paya**
Italiako mahastizainak **urduri**. **Berria - Harian**
A.D. jarrera?, amak, **urduri**. **Anjel Lertxundi**
Bitartean burtsak **urduri** eta mugimenduarekin: 1.968 milioi euroren salerosketa izan zen Ibex-35en. **Berria - Ekonomia**
Urduri, ezinegon batek erotua bezala. **Iñaki Segurola**
-Nor zen? -oihu egin zidan amak ohetik, ahotsa **urduri**. **Daniel Landart**
Laguntza iraultzailearen eske inguratzen gara geure anaiengana, pozak **urduri**. **Koldo Izagirre**

6 (beste adizlagun edo kideko batekin batekin)

Sedanori deitu, eta oso **urduri** nengoela esan nion. **Ramon Saizarbitoria**
Urduri nengoen oso; dardaraka. **Ramon Saizarbitoria**
Urduri oso, aitortu beharko. **Txillardegi**
Halako berriak entzunik, erregea harri eta zur gelditu zen, oso-oso **urduri**. **Elizen arteko biblia**
Gizajo hura benetan **urduri** zegoen. **Harkaitz Cano**
Broma tonua baliatuko zitzaidalakoan egin nuen galdera, baina nahiko **urduri**. **Bernardo Atxaga**
-Ea... nahiko **urduri** nagok, eta ez diat urduriago jarri nahi. **Rafa Egiguren**
Ezin zen igarri lasai zegoen ala izugarri **urduri**. **Jose Morales**
Urduri samar bideratu zen apartamentuen aitzinaldean zegoen lorategi zabaletik barrena. **Migel Angel Mintegi**
Urduri antzean jaiki zen Justo Badiola larunbat hartan. **Joxemari Urteaga**
Beti ohar doituak egiten ohi zituen notarioa hain **urduri** ikustean atsegin hartuz. **Elena Touyarou**
Gorroto dut hau esatea, baina, egia, pixka bat **urduri** nago. **Karlos Zabala**

7 *urduri-urduri*

Beste batean harekin ohean nengoela, aurreko aldiarena Fernando kontatu niola esan nion garrantzirik eman gabe, eta **urduri-urduri** jarri ziren, ez zuen asmatu tutik esaten.

Karlos Zabala

Oihanaren txandan, **urduri-urduri** jarri nintzen, eta harro pentsatu nuen Malenek kantatzeko zuen joera sendaezin horrekin ikaragarri ondo abestuko zuela.

Lander Garro

Arratsalde osoan jai umore bitxi batez ibili ziren Faediseno neskak, **urduri-urduri**.

Josu Zabaleta

8 urduriaren urduriz

Urduriaren urduriz, agente alemanak konpartimentuaren ateko bere zaindari postua utzi eta maletaren gainera makurtu zen.

Alberto Ladron Arana

Urduriaren urduriz, agente alemanak konpartimentuaren ateko bere zaindari postua utzi eta maletaren gainera makurtu zen.

Alberto Ladron Arana

Potoloa, berriz, **urduriaren urduriz** izerditurik, ausartu da halako batean bere begiko ilehori xarmentari dantzan egiteko eskatzera.

Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ama urduri (5); **apur bat urduri** (4); **barre urduri** (4); **beti urduri** (4); **bezain urduri** (11); **denak urduri** (4)

erabat urduri (4); **erreus eta urduri** (4); **ez dago urduri** (5); **ez nago urduri** (6); **hain urduri** (32); **horren urduri** (4)

irri urduri (6); **irri urduri bat** (4); **jendea urduri** (6); **keinu urduri** (6); **nahiko urduri** (6); **ni urduri** (8)

oso urduri (125); **oso urduri dago** (9); **oso urduri jarri** (14); **oso urduri jartzen** (12); **oso urduri nago** (8); **oso urduri nengoan** (8); **oso urduri zegoen** (13); **oso urduri zeuden** (4); **pixka bat urduri** (9)

urduri antzean (15); **urduri aritu** (14); **urduri aritu ziren** (5); **urduri atera** (5); **urduri baino urduriago** (7); **urduri begiratu** (11); **urduri begiratu zioten** (8); **urduri begiratzen** (6); **urduri dabil** (6); **urduri dago** (37); **urduri dagoela** (8); **urduri daude** (23); **urduri daudela** (7)

urduri egon (14); **urduri egon zen** (4); **urduri egongo** (10); **urduri egongo naiz** (4); **urduri egotea** (8); **urduri egoteko** (11); **urduri egoteko arrazoirik** (4); **urduri egoten** (6); **urduri ematen** (4); **urduri geunden** (6); **urduri hasi** (13)

urduri ikusten (4); **urduri jar** (6); **urduri jarri** (102); **urduri jarri behar** (5); **urduri jarri gabe** (5); **urduri jarri zen** (17); **urduri jarriko** (6); **urduri jartzea** (6); **urduri jartzeko** (9); **urduri jartzen** (143); **urduri jartzen ari** (9); **urduri jartzen dira** (6); **urduri jartzen hasi** (13); **urduri jartzen hasia** (5); **urduri jartzen naiz** (4); **urduri jartzen nau** (11); **urduri kantxaratu** (8); **urduri mugitu** (4); **urduri mugitzen** (4); **urduri nago** (27); **urduri nengoelako** (4); **urduri nengoan** (34)

urduri samar (48); **urduri sentitzen** (4); **urduri xamar** (4); **urduri zebilen** (7); **urduri zegoela** (8); **urduri zegoelako** (4); **urduri zegoen** (56); **urduri zen** (4); **urduri zeuden** (18); **urduri zirudien** (7)

zergatik hain urduri (5)

barre urduria (7); **irribarre urduria** (5)

are urduriago (18); **are urduriago jarri** (5); **askoz urduriago** (5); **baino urduriago** (31); **ezin urduriago** (8); **gero eta urduriago** (35); **inoiz baino urduriago** (4); **ohi baino urduriago** (5); **urduri baino urduriago** (7); **urduriago jarri** (9); **urduriago jartzen** (11); **urduriago nengoan** (6); **urduriago zegoen** (6)

keinu urduriak (5)

urduriagotu, urduriago(tu), urduriagotzen da/du ad

Adarra jo diet apur bat, eta are **urduriagotu** ditut, ez dakit neurriak hartu dizkidaten.

Koldo Izagirre

urdurialdi iz urduritasunezko aldia.

Ahaztuarazi dizkie eguraldi mudantzekiko **urdurialdiak** ere.

Pello Zabala

urduriarazi, urduriaraz, urduriarazten du ad urduritzera behartu.

Honenbertzeko baretasunak zinez **urduriarazten** zaitu.

Xabier Montoia

urduridun izlag urduriko.

Hiritik 14 kilometrora, Gatumbako errefuxiatu gunetik hurbil, errepidea aurpegi luze eta **urduridun** jendez gainezka zegoen.

Berria - Mundua

urdurigarrin izond urduritzen duena.

Hain zuzen ere, izugarri edo **urdurigarr** gerta daitekeen gutzia kendu beharrez egin ditu Templek egin dituenak: bakean, emeki, oharkabean joan dadinazienda heriotzara.

Xabier Olarra

urduriki adlag urduri.

Arrainontziko ura saloi osoan hasi zen zabaltzen eta barruan zeuden koloretako arraintxoak **urduriki** hasi ziren mugitzen.

Joxemari Iturralde

Euliak batetik bestera **urduriki** hasi ziren mugitzen.

Joxemari Iturralde

Gero eta gehiago zenituen, loa amets, batera eta bertzera **urduriki** higitzen zirenak.

Xabier Montoia

urduritasun 1 iz lasaitasun edo gelditasun eza, ezinegona; urduri dagoenaren egoera. ikartegatasun.

Taupadaren bat, adrenalina, **urduritasuna**, galtzerdiak bailiran korapilatutako begirada kordelak.

Harkaitz Cano

Asaldura, **urduritasun** eta ezinegon guztiak mendean hartu eta hitz egiteko moduan zela iritzi zionean.

Juan Luis Zabala

Gerora esan zion **urduritasuna** menderatzeagatik egin zuela hura.

Ramon Saizarbitoria

Urduritasuna menperatuta zeukan itxura batean.

Josu Landa

Urduritasuna gailendu zitzaidan eta gogoeta ilunenak etorri zitzaizkidan burura.

Anjel Lertxundi

Urduritasunari, ordea, izuak hartu zion gaina.

Felipe Juaristi

Ordu erdiz **urduritasunari** eutsi ondoren, haserre samar, botoiak bakean uzteko eskatu zion Peterrek Dusseli.

Josu Zabaleta

Gorpu baten hurbiltasunak **urduritasuna** sortzen baitu.

Karlos Linazasoro

Urduritasuna gainditzeko, baso bat ardo hartu zuen.

Joan Mari Irigoien

Ez zuen jadanik erakusten lehengo **urduritasun** edo desirarik, eta, noizbehinka, totoloturik aurkitzen zuten, aurpegian irribarre bitxi bat zuela.

Xabier Olarra

Ateko begirazulotik zelatatzen zuen soldaduak ezin zuen **urduritasun** hura eraman.

Jose Morales

Nik ia ez nuen mokadurik jan, **urduritasunak** korapiloa egin baitzidan urdailean.

Alberto Ladron Arana

Taupadaren bat, adrenalina, **urduritasuna**, galtzerdiak bailiran korapilatutako begirada kordelak.

Harkaitz Cano

Momentuko **urduritasunean** Monikari argibide bat, desenkusa bat zor niola pentsatu nuen.

Joxean Agirre

Une batez **urduritasunak** gandutu zion burua, baina laster jarraitu zuen berriaren haria.

Joxemari Urteaga

Onez onean ari nintzaion, kasik besta-doinuan, **urduritasunaren** estalki.

Aingeru Epaltza

Txekearen aipamen hark kendu zizkidan **urduritasun** guztiak.

Xabier Mendiguren Elizegi

Urduritasunak dardara eragin zidan. **Josu Zabaleta**
Hotzak eta **urduritasunak** dardarka nenbilen. **Alberto Ladron Arana**

Urduritasunik batere adierazi gabe. **Aingeru Epaltza**

Horrek nahastu egiten zituen lagunak, eta beren jarlekuetan **urduritasunez** higiarazten. **Oskar Arana**

Emakumeak gabardinako ezker patrikan **urduritasunez** xerkatu ondoren atera ditu giltzak eta altzairuzko ate bat irekitzeari ekin dio. **Eider Rodriguez**

Urduritasunezko ezinegon bitxi batek hartu ninduen berriro. **Josu Zabaleta**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

-Pandora? - **urduritasun** nabaria sumatu zen Operazio-zuzendariordearen ahotsean-. Bere gorputza eta bere begitartea irudikatzearen irudikatzeaz **urduritasun** handiak ninduen hartua: eskuak dardarka nituen eta hotzikara izoztuek astintzen ninduten. **Fernando Morillo**

Arrisku handiak hartzen dira, eta **urduritasun** handia dago, baina, era berean, ilusio handiagoa dago. **Berria - Kultura**

Bero leun bat bular aldean, **urduritasun** arraro bat bihotzean. **Aritz Gorrotxategi**

Halako **urduritasun** larri bat jabetu zen haren pentsamenduen ildo herdoildu eta logaletuaz. **Jose Morales**

Edozer gauza hobeto, han, eskailera oinean, izerdi hotzetan jartzen ninduen **urduritasun** zital hura, larritasun hura [...] jasan beharra baino. **Ramon Saizarbitoria**

Urduritasun kiskalgarri batek hartzen dizu urdaila. Lasai igo zituen eskailerak, nahiz eta halako **urduritasun** bihurri batek kilika egin urdailean. **Koldo Izagirre**

Mutiko arrotz haren soa ez zezakeen jasan, **urduritasun** esplikagaitza sortzen zion. **Elena Touyarou**

Errusiar herriaren ohiko izaera etsipen otzana zen, amerikar herriarena **urduritasun** zalapartatsua. **Iñaki Mendiguren**

Gau osoak iratzarrik edukitzen ninduen nerbioetako ezinegon bat izan zen lehendabizi, zaratarik txikiak ikara eragiten zidan gehiegizko **urduritasun** bat. **Josu Zabaleta**

Oraingo **urduritasun** honek, baina, ez zeukan zerikusirik emakumearekin, egunetik egunera gehixeago maite baitzuen. **Anton Garikano**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Bagoazela esan dizut -esan zuen berriz **urduritasun** -ahotsaz. **Fernando Rey**

Gure aita, handik gutxira, **urduritasun** keinuak egiten hasi zen, mahaian erakusten zituen **urduritasun** keinu berberak. **Fernando Rey**

-Tibor... -esan nuen, **urduritasun** -barrez-. **Ander Irizar**

Albora heltzean, halako **urduritasun** puntu batek gaina hartu zion. **Joxemari Urteaga**

Telefono deia zuela esateko berriz abisatu ziotenean [...] korrika joan zen Lucy pasilu luze haietatik aurrerantz, **urduritasun** puntutxo batek jota, dardar tipi baten gisakoa bihotzean. **Joxemari Iturralde**

Urduritasun uneak izan ziren, ordea, eta Iker Camañok Iban Mayori lagundu behar izan zion helmugaraino iristen. **Berria - Kirola**

Atentatuaren ondorengo **urduritasun** giroa nabarmendu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Bazerien igurikimen-kutsu halako bat, desatsegina ez zen **urduritasun** apur bat. **Mirentxu Larrañaga**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hurbiletik jarraitu du haien jarduna, eta onartzen du halako patxada-**urduritasun** sentsazio bat daukala. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

halako **urduritasun** (6); **urduritasun apur bat** (4); **urduritasun arraro** (3); **urduritasun bitxi** (3); **urduritasun handia** (11); **urduritasun handia dago** (3); **urduritasun handiko** (3); **urduritasun puntu** (5)

hasierako **urduritasuna** (7); **tentsioa eta urduritasuna** (3); **urduritasuna agerian** (4); **urduritasuna agertzen** (3); **urduritasuna aldendu** (4); **urduritasuna antzematen** (3); **urduritasuna areagotu** (4); **urduritasuna da nagusi** (3); **urduritasuna eragin** (6); **urduritasuna eragin zuen** (3); **urduritasuna eta ezinegona** (3); **urduritasuna eta tentsioa** (4); **urduritasuna izan** (6); **urduritasuna nabari** (4); **urduritasuna nabaritu** (4); **urduritasuna nagusi** (3); **urduritasuna sor** (3); **urduritasuna sortzen** (9); **urduritasuna sumatzen** (3)

urduritasunak eragindako (3); **urduritasunak jota** (6)

urduritasunari eutsi (3)

urduritasunik gabe (5); **urduritasunik nabaritu** (4)

urduritu, urduri(tu), urduritzen 1 du ad urduri jarri. ik artegatu.

Azterketak, ordea, ez ninduen **urduritu**, haren begirada ezinago adeitsua egin zitzaidan-eta. **Anjel Lertxundi**

Urduritu eta are beldurtu ere egiten ninduen Ernioko gailur gurutzetatuaren aurki nezakeenaz pentsatzeak. **Juan Luis Zabala**

Etxean, **urduritzen** ninduten gauzak ere bazeuden, baita -irrigarria izan arren- beldur ematen zidatenak ere. **Urtzi Urrutikoetxea**

Prezioen joera horrek kontsumitzaileak **urduritu** egin ditu. **Berria - Ekonomia**

Badakit ez lidakeela entzungo, baina mutila nik noiz bukatuko zain dagoela ikusteak **urduritu** egingo ninduke. **Anjel Lertxundi**

Haren asmoa intuizten jakin nuelako erabaki horrek poztu egin ninduelarik ere,aldi berean gehiago **urduritu** ninduen. **Ramon Saizarbitoria**

Egoera absurdoa iruditzen zitzaidan eta Antonioren begiradak are gehiago **urduritzen** ninduen. **Jasone Osoro**

Oraindik ez zuten horretaz ezertxo ere hitz egin, eta horrek **urduritzen** zuen gehien. **Joxemari Iturralde**

Eguna joan eta eguna etorri itxaron behar izateak, horretxek **urduritzen** nau, ez bestek. **Joxe Austin Arrieta**

Behar bezalako maparik ez eskura, Swissair-enean ez bezala, eta ni informazio ergel haretxek **urduritzen**: Tampicorantz omen gindoazela. **Joxe Austin Arrieta**

Alabaren gaixotasunak **urduritua** duenak ez baitu burua halako filosofia merkeetarako. **Imanol Zurutuza**

Hain urduria zen, mintzaidea ere **urduritzea** lortzen zuen. **Lander Garro**

Bukowski aterako zuten, Tom Waits pianoa jotzen, eta ni, Henry Maloy, etxean haxixa erretzen eta letra zikinaz orriak **urduritzen**. **Pako Aristi**

2 (da ad gisa)

Telefonoz deitzen zidaten bakoitzean gizon hura izango zela pentsatzen nuen, eta ilusionatu eta **urduritu** egiten nintzen, nerabe maitemindu berri baten antzera. **Juan Luis Zabala**

Neu izan nintzen **urduritu** eta bere onetik atera zena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Kokotsa dardarka zuen, halaxe jartzen zitzaion **urduritzen** zenean. **Anjel Lertxundi**

Ni ikusi orduko **urduritu** -edo egin dira, baina gero, "mirri, mirri, mirri" xuxurlatu diedanean, gora begira bildu dira guztiak. **Pako Aristi**

Guztiz **urduritzen** zinen konturatzean zeu bakarrik zinela Ospitale osoan zakarrentzian gertatzen ari zen metamorfosi itzelaz ohartzeko zena. **Hasier Etxeberria**

Izugarri **urduritzen** nintzen, ezin nintzen geldi egon, gorputza bihurritzen zitzaidan. **Xabier Olarra**

Smithers andreak ez adituarena egiten zuen, baina **urduritzen** hasia zela konturatu nintzen. **Fernando Rey**

Urduritzen hasia zara, benetan **urduritzen**. **Sonia Gonzalez**

67 zenbakirantz hurbildu ahala **urduritut** nindoan. **Alberto Ladron Arana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urduritzeko arrazoirik (3)

urduritzen hasi (11); **urduritzen hasi zen** (5); **urduritzen hasia** (9); **urduritzen hasia nintzen** (3); **urduritzen hasteko** (3)

urdurixko izond adkor urduria.

Ordubete geroago, Mikel Strogoff lotan zegoen atzerritarrei hain gogorrak iruditzen zaizkien ohe errusiar horietako batean, eta biharamunean, ekainaren 17an, eguna aspaldi argitu zuela esnatu zen, gaua lo **urdurixkoan** pasa eta gero. **Karlos Zabala**

urdurixko 1 izond adkor urduria.

Ezagonkorra, ezinegon **urdurixkoa** duen sasoiaren denean, aldiz, nola esan minutu erdi batean, Euskal Herri osoan egin dezakeen giroa? **Pello Zabala**

Lurrak duen sortu eta lehertu beharrean, belarra dator ezinegon **urdurixkoan** hazi eta hazi. **Pello Zabala**

2 (adizlagun gisa)

Jakina, hegoa bixi samar, **urdurixko** sartu den zokoetan, erreka-lainoak jan eta temple gozoa utziko zuen. **Pello Zabala**

urea iz gai kristalkara, gerneraren osagaia dena, ugaztunen organismoko gai nitrogenatuak degradatzen sortua.

Gernua da **urea** gorputzetik ateratzeko garraio-bidea, giltzurrunek sortzen duten jariakin bat. **Irene Aldasoro**

Amoniakoa (proteinak apurtzean eratua, oso toxikoa) **urea** bihurtzen da, eta **urea** kaltegabea da, kantitate txikitik behintzat. **Irene Aldasoro**

Sufreak deabrua bezala, pixak **urearen** usain sarkorrak- hirietako gune marjinatu eta arriskutsuen hurbiltasuna adierazten du. **Bernardo Atxaga**

Andresrek berriro aztertu zuen gaixoa; pultsua oso ahul zegoen; arnas estua, odoletan **urea** igo izanaren ondorioa seguruenik. Ilea sendotzeko krema gehienek **urea** izan ohi dute osagaririk printzipalena, hain zuzen, gernerak berez izaten duen substantzia. **Josu Zabaleta**

Une hartan lausoki gogoratzen nuen gauza bakarra zera zen, [aloxana] **urearen** eratorri bat zela eta bazuela zerikusiren bat azido urikoarekin. **Juan Garzia**

Proteina kantitate egokia duen dieta batek hogeita edo hogeita hamar gramo **urea** sortuko ditu egunean. **Irene Aldasoro**

Honen ganik entzuna du Piarresek nola, gernerua edo **urea** bazuela jakitearekin oroitu zen **urearekin** uremia biltzen zela eta uremiarekin burua galtzen. **Xipri Arbelbide**

uremia iz urea odolean metatzen denean gertatzen den intoxikazioa.

Uremiaren sintomak desagertuz zihoazen. **Josu Zabaleta**

Honen ganik entzuna du Piarresek nola, gernerua edo urea bazuela jakitearekin oroitu zen urearekin **uremia** biltzen zela eta **uremiarekin** burua galtzen. **Xipri Arbelbide**

urepeldar (orobat urepeltar g.er.) izlag/iz Urepelgoa, Urepeli dagokiona; Urepelgo biztanlea.

Joanden hilabete hortan ginituen kantu txapelketako finalean Aurelie Etxepare **Urepeldarra** eta Xabi Elizagoyen Baigorriarra, biek hamabost urte dituztelarik. **Herria**

Mixel Aire **urepeldarrak** aldiz dio Euskal Herrirat itzuli direnek dutela erreusitu. **Herria**

Fernando Aire bertsolari **urepeldar** ezagunaren irudia gogora ekartzen du Xabier Amurizak. **Berria - Kultura**

Urepeldar gazte hauek egin dute bide eta beti hobetuz ari dira. **Herria**

Egitarau aberats huni esker, **Urepeldar** heldu ala gazteek, baduzue nun eta nola deskantsa. **Herria**

Urepeldarrak badaki oraino euskara garbian bizitzen eta besta egiten. **Herria**

urepeltar ik urepeldar.

ureratu ik uretaratu.

urertz ik ur 25.

urestatu ik ureztatu.

uretano iz gai kristalkara mikatza, anestesiko gisa erabiltzen dena.

Euskaria oihala da ia guztietan, eta zenbaitetan, batez ere hondarrekoetan, olio, berniza, **uretanoa** eta erretxina erabili ditu. **Berria - Kultura**

uretaratu, urera(tu), ureratzen (orobat ureratu g.er.) da/du ad uretara joan; uretara eraman.

Hango pantalanetik behera ere hainbat ontzi **uretaratu** dira. **Berria - Kirola**

Bi mila baino gehiago izango ziren azkenerako [...] hegoak astindu eta zuhaitza zuztar-zuztarretik atera zutenak, zuhaitza bera ere hegan ipiniz... hegan eta hegan, harik eta ibai baten gainean lurreratu eta **uretaratu** zen arte. **Joan Mari Irigoien**

Gaurko eguraldiarekin, lasai **uretaratu** genezake batela. **Berria - Kirola**

Iluntzean karrakako bigarren txaneltxoa **uretaratu** genuen, upel batzuekin zamaturik. **Edorta Jimenez**

Leku hura egokia zen kibitka **uretaratzeko**, ibai bazterra aldapatsu samarra izanik. **Karlos Zabala**

Camek pentsatu zuen [...] aita han izan balitz salbauntzia **ureratuko** zuela, hondakineta helduko zela. **Anton Garikano**

Atzo **uretaratu** zuten Hondarribiako Olaziregi ontziolan Gure *Itxas Begi* arrantzontzia. **Berria - Ekonomia**

ureter iz gerneru hodia, giltzurrunetik maskurira doana.

Behar ez diren substantzia kimikoak eta ur kantitate txikitxo bat, berriz, **ureterretatik** maskurira bidaltzen dira. **Irene Aldasoro**

Ureterean haustura bat jasan zuen, eta biharamunean bi aldiz egin zioten ebakuntza. **Berria - Kirola**

Batzuetan bai, eransten zaizkio elkarri, eta harriak eratzen dituzte, oso mingarriak giltzurrunean edo **ureterean** trabaturik geratzen direnean. **Irene Aldasoro**

uretra iz maskuriko gernua kanporatzen den hodia.

Prostata handitu egiten da eta **uretra** estutzen du, gernuari bidea itxiz. Berria - Gaiak

Erre egiten zuen, **uretra** gasolina edo alkohola egiten ari bailitzan komunean behera. Hasier Etxeberria

Primate emeengan [...] ikusten dugu **uretra** baginan amaitzen dela, baina gero eta kanpoalderago; pixa kanporatzeko ere beste bide bat bilatu nahian. Luis Elberdin

Emakumeek ez dute pixa baginatik egiten, baizik eta beste bide batetik, zein ipurdiko zulotik eta baginatik berezita dagoen: **uretratik**. Luis Elberdin

Espekuluak **uretrako** esfinterra pixka bat presionatu egiten duenez, baliteke pixa egiteko gogoia sentitzea, baina berehala pasatuko zaizu. Luis Elberdin

uretxe iz bainuetxea.

Zestoako **uretxeak** bereganatu zituzten, gero mendi gainak hartu eta aldats behera zetozen, Xabiererra eta Sanmigelerako peleginazioetan ikasitako martxa geldigaitz eta beldurrik gabean. Joseba Sarrionandia

ureztagailu iz ureztatzeko gailua.

Harria handik erortzen utziz, **ureztagailua** okertu egiten zen, eta ur hotzeko euria botatzen zuen. Josu Zabaleta

Andresak **ureztagailu** handi bat jarri zuen itzaltegiaren sabaitik zintzilik, eta kirtenetik soka bat lotu zion, txirrika batetik igaro eta beste aldetik aukli baten gainean jarritako harri bati lotua. Josu Zabaleta

ureztaketa 1 iz ureztatzea.

2030. urterako munduak %55 elikagai gehiago beharko du, eta horrek **ureztaketarako** uraren kontsumoa areagotuko du. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan)

Munduko Bankuaren txosten baten arabera, 40.000 milioi dolar inbertitu beharko lirateke urtero **ureztaketa** sistemen eraginkortasuna handitzeko. Berria - Gaiak

ureztapen 1 iz ureztatzea.

Edozein modutan ere, Ebrora isurtzen dituen isotopo erradioaktiboen eragina ere kezkatzeko modukotzat hartu du, areago ibaiak Errioxako **ureztapena** hornitzen duelako. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Gero, kontrol postuko gizonen marmarra entzun zuen eta, hamar minutu geroago, arrastaka ari zen burdinsare azpitik pasatzen zen **ureztapen** -kanalaren porlanezko hodi handiaren barruan: lehor zegoen, zorionez. Koldo Biguri

ureztatu, urezta(tu), ureztatzen (orobat *urestatu g.er.*) 1 du ad eremu baten gainean ura sakabanatu; urez hornitu. ik garaztatu; ihinzatu.

Landatu, nik egin nuen; **ureztatu**, Apolok; baina hazi, Jainkoak hazarazi zuen. Elizen arteko biblia

Argindarra sortzeko, ura biltzeko eta **ureztatzeko** eraiki dira presak eta urtegiak. Berria - Gaiak

Han lur azpiko ura erabiltzen dute **ureztatzeko**. Berria - Euskal Herria

Sugandilak eta arrabioak harrapatzen jardun, madariondora igo, landareak **ureztatu**. Josu Zabaleta

Lorategia txukundu, arrosak kimatu eta **ureztatu**, eta pintura-eskualdi bat eman zion lorategiko aukliari. Iñaki Mendiguren

Uste dut ez dela ona loreak eguzki betean **ureztatzea**, egosi egiten direlako, eta halaxe esan nion. Ramon Saizarbitoria

Uztak **ureztatzeko** erabiltzen diren sistemek lehorrea bultzatzen dute. Berria - Gaiak

Pentzeak ezingo dira **ureztatu**. Berria - Euskal Herria

Indietako mapa bat erakutsi zidan, non erdi aldean Paradisua ikus baitzitekeen, lau ibaiak **ureztatua**. Joan Mari Irigoien

Euri deslailak eta ekaiz hegalaria, itsas-lehor guztiak **ureztatzen** eta blaitzen dituztenak. Xabier Amuriza

Zibilizazioaren egunsentia baino lehen, afrasiar estepa (Sahara eta arabiar basamortua) ongi **ureztaturiko** belardia zen. Iñaki Mendiguren

Yemengo ekialdeko mendietatik jaisten ziren urak izugarriko urtegi batean biltzen ziren eta handik herrialdeko eskualde handi-handi bat **ureztatzen** zen, labore-sistema intentsibo bati bizia emanez eta ondorioz biztanle asko mantenduz. Iñaki Mendiguren

Ittoizko uraren zain omen dauden lur sailak ezin izanen direla **ureztatu**. Edurne Elizondo

-Ederki, eser zaitez; nik loreontziak **ureztatuko** ditut. Josu Zabaleta

Euria bidaltzen du lurraren gainera, soroak **ureztatzen**. Elizen arteko biblia

Ur gardenez **ureztaturiko** leku zoragarri batera iritsi ziren. Askoren artean

Sanker, kafeko zerbitzaria, ontzi bat urez bete eta zorua **ureztatzen** zebilen. Patxi Zubizarreta

Neskame bati ehogailu bat hartzeko agindu zion, eta loroaren kaiolapean aleak ehotzeko; beste bati kaiola **ureztatzeko** agindu zion. Patxi Zubizarreta

Errekastotik ura eskuen artean jaso, eta lasterka itzultzen ziren egur puskek **ureztatzen**. Karlos Zabala

Hiri erdira itzuli naiz: bi erromes plazako iturri ederrean ari dira edan eta edan, eta aurpegi gorribeltzak **ureztatzen**. Piarres Aintziart

Gainez egin zuen urak edontzitik, eta koaderno **ureztatu**. Jon Muñoz

2 irud/hed

Jainkoaren santuak, zeruko graziaren ibai oparo bezala, jainko-dohainen euriz **ureztatzen** zituen guztiak, haien bihotzeko baratza bertuteen lorez edertuz. Askoren artean

Zuzi gartsu bat zeukan bularraldean sutan, horditasun magiko batek **ureztatzen** zion arima, bizigogo berri batek eragiten zien bere kirioei. Patxi Zubizarreta

Nik, une batetik bestera, bizitzaren aparraz **ureztatuko** ditut eragin ditudan zauriak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Samurtasuna eta maitasuna egunero zaindu eta **ureztatu** behar dira. Luis Elberdin

3 (era burutua izenondo gisa)

Lehorrerako uzta egiten den tokietan, zergatik tematu horiek soro **ureztatu** bilakatzen eta horra ura eramateko azpiegitura handiak egiten! Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ongi **ureztaturiko** (3)

hektarea **ureztatzeko** (3); lurrak **ureztatzeko** (7)

loreak **ureztatzen** (3)

ureztatzaile iz ureztatzen duen pertsona.

ureztatze 1 *iz* eremu baten gainean ura sakabanatzea; urez hornitzea.

Gelditzen zaigunarekin, hiru **ureztatze** egiteko gai gara, besterik ez. **Berria - Harian**

Deputazioaren helburu nagusia azpiegiturak egokitzea dela ohartarazi du, batez ere **ureztatzeak**. **Berria - Ekonomia**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Riañoko **ureztatze** plana Errege Magoei idatzitako gutuna zen. **Edurne Elizondo**

Petrusi laguntzen dio **ureztatze** sistema garbitzen. **Oskar Arana**

Lan komisiok agindu zituen **ureztatze** -sareak ez ziren egin. **Jon Maia**

Lurra kutsatzen duten ur libixatuen isuriak saihesten ditu, **ureztatze** zirkuitu itxia baitu. **Berria - Kultura**

Ureztatze kanalak itxi ditu. **Berria - Gaiak**

Bertan, burdinazko zutabe modernistak eta antzinako **ureztatze** metodoak mantentzen ziren oraindik. **Eider Rodriguez**

Miniaturazko **ureztatze** -kamioiarekin. **Anton Garikano**

Ureztatze faltaz ihartuz doan lorea bezala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ureztatze sistema (10); **ureztatze sistemak** (4)

ureztontzi *iz* ureztatzeko ontzia.

Kaixo esan ohi dio Garbiñek, **ureztontzia** beteta dakarrela. **Berria - Kultura**

Ureztontzia husten amaitu aurretik, halako ikara-salto bat egin du Garbiñek. **Berria - Kultura**

Txemik ere Garbiñeren eskuetara begiratu du, eta **ureztontziaren** muturrak zomorroren baten aurreko hanken forma ekarri dio gogora. **Berria - Kultura**

Marrubiei ere lurrun freskoa zerien, gaztetasun lurrun bat, basoan biltzen diren marrubi txikiei batez ere, baratzekeo marrubi handi horiei baino gehiago, azken hauei

ureztontzi sunda geza baitarie. **Karlos Zabala**

urgabetu, urgabe(tu), urgabetzen du *ad iz* ura galdu.

Deshidratatu egingo litzatekeela. **Urgabetu**. **Hasier Etxeberria**

urgain ik ur 27.

urgainditze *iz* urak gainezka egitea.

Urgainditze izigarriak gertatzen ziren eta untziak eta ere ondoko jendeak irrisku handitan ezartzen. **Herria**

urgaineratu, urgainera(tu), urgaineratzen da *ad* ur gainera igo.

Sub-ak Kubako kostara osoan gora eta behera zabiltzak, ura eta jatekoa eskuratu behar dutenean Kubako arrantzu lekuetan **urgaineratuz**. **Edorta Jimenez**

Armadoreak segurua kobratuko zuen eta enbarkazioa desegite eta burdinurte lanetarako **urgaineratu** eta ekarri zuten atoian Kaioarriko nasa txikiraino. **Joseba Sarrionandia**

urgaldu ik ur 28.

urgarbitegi ik ur 29.

urgatzi, urgatz, urgazten dio *ad* lagundu.

Gizonari nola **urgatzi**? **Gotzon Garate**

urgazi *iz* laguntza.

Goi mailako lege testu horretan ikusten du, galbidea baino, **urgazi** tinko eta boteretsua, hain zuzen ere, legegileak behar duen giroa bermatzen duena: "Gaur, Frantzia bizirik dago, konstituzioak oraingo atsedena bermatu eta bihar-etziko aurrerabideak ziurtatzen baitizkio". **Andres Urrutia**

urgazle 1 *iz* laguntzailea.

Gurekin Gloria Mengual dator, trenarekikoan **urgazle** izango duguna. **Edorta Jimenez**

Izan ere, idazle-multzo bakoitzeko **urgazle** bat dugu. **Edorta Jimenez**

Nazim, errusiar idazleak **urgazleak**, polito daki gaztelaraz. **Edorta Jimenez**

Brigadako buru Lukacs jenerala hil egin dute, eta haren **urgazle** eta komisario politiko Gustav Regler zauri larriekin da. **Edorta Jimenez**

Trujilloren **urgazleen** gorputzeko teniente Amado Garcia Guerrerok. **Edorta Jimenez**

Ez nekien zer nintzaion, adarretan neke-lagun ala **urgazle**. **Aingeru Epaltza**

Herralde industrializatuetan sanitate-**urgazle** tekniko titulua behar da emagin izateko. **Berria - Gaiak**

2 euskaltzain urgazlea.

Gabriel Aresti handia ez zen euskaltzain osoa inoiz izan, baina bai **urgazlea**. **Berria - Kultura**

Berrikitan, urte guziz bezala, Iparraldeko euskaltzain oso eta **urgazleak** bildu dira Baionan. **Herria**

Horiek ondo ordezkatuta daude ez bakarrik Euskaltzaindikok kideen artean, **urgazleen** artean eta batzordeetan ere bai. **Berria - Kultura**

Omenaldi eder bat eskaintzen zion Euskaltzaindiak bere lehengo laguntzaile edo **urgazle** bati, Fermin Irigaray zenari. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Urgazle zen, eta joan zen akademiako biltzarre batera, eta bere fede hoberenarekin erran zuen: "Bainan nolaz ez duzue emazte bat ezartzen euskaltzain". **Menane Oxandabaratz**

Euskaltzaindiako **urgazlerik** zaharrenetakoa zara, 1957tik. **Berria - Kultura**

3 euskaltzain urgazle

Ordutik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean dihardu eta 1983tik **euskaltzain urgazle** da. **Berria - Kultura**

2006. urtetik aurrera, **euskaltzain urgazle** da. **Ana Urkiza**

1996an izendatua izan zen **euskaltzain urgazle** eta Onomastikako batzordeko partaidea da, eta ere Eusko Ikaskuntzako kidea. **Herria**

Euskaltzaindiak 1965ean izendatu zuen **euskaltzain urgazle**, eta euskaltzain oso, berriz, 1980ko uztailaren 31n, Jose Maria Lojendioaren ordeaz. **Berria - Kultura**

Manex Goienetxe historialari eta **euskaltzain urgazle** zendu berria ere gogoan izango dute gaur Larresoron. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskaltzain urgazle (29); **euskaltzain urgazle izendatu** (7); **euskaltzain urgazle zen** (3); **urgazle izendatu zuen** (3); **urgazle izendatu zuten** (3)
euskaltzain urgazlea (8)

urgazpen iz laguntza.

Aniceto Prieto hezitzailea da Gizarte **Urgazpenerako** Foru Erakundeak adin txikikoentzat Barakaldon daukan etxebizitza. **Berria - Euskal Herria**

Saileko gainerako beharginek bezala, Gizarte **Urgazpenerako** Foru Erakundearen (GUF) barruan egiten dute lan. **Berria - Euskal Herria**

urgeldi ik ur 30.

urgelditxo ik ur 30.

urgente iz presakoa.

Hizkuntza Kontseilu berriaren lehen zeregin **urgentea**. **Itxaro Borda**

Kasu honetan orduak -*kairós*- eginbehar etiko **urgente** bat seinalatzen du: bortxazko egoera gaindituko duen egoera baten bilaketa. Arazo **urgentea** denean. **Joxe Azurmendi**

Urgentea da -esan dio tabernari tximadunari. **Eider Rodriguez**

Guztiak ere oso **urgenteak** segurutik. **Unai Elorriaga**

Sakratua profanatu, tabua poesia bihurtuz, norma hautsiz entzunarazten du bere ahots **urgentea** poetak, rock&roll-etik heredatutako posea bere eginez. **Berria - Kultura**

Gaur egun egin litekeen galderarik sakonena, asaldagarriena, funtsezkoena, **urgenteena** hau da: nola edertu gure bizitza merkatuaren legeetan erori gabe, erostearen erremedio errazean erori gabe? **Pako Aristi**

urgentzia 1 iz larrialdia.

-Urgentzia bat da. **Ramuntxo Etxeberri**

Urgentzietan pazienteek komunzki lau oren beha egon behar dutela ikusiak izan aitzin, horrek aski argi erakusten baitu langile eskasia. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Urgentzia Estadia dute han hamar egun iraun dezakeena, ez gehiago, ahal bereziekin baina segurtamena emana dio lehen minixtroak Washingtoni, denak ponduan jarriko direla laster. **Herria**

Urgentzia kasuetan, osagarri langile profesionalentzat, permanentzia berezia Baionako Gaskoinen plazan idekia da, astelehen, astearte, asteazken eta ostiralean, goizeko 9etatik eguerdirat eta arratsaldeko 2etatik 4,30ak arte. **Herria**

3 presa larria.

Urgentziaren eta betierekotasunaren artean kolokazko orekan zintzilikaturik dago. **Josu Zabaleta**

'Afaria egingo dugu, situazioaren **urgentziaren** araberakoa,' dio Imanolek, ni dutxatu bitartean bera prestatzen hasi den arroz zuria erakutsiz. **Joseba Sarrionandia**

Gaztetasuna, amorrua, irrika, **urgentzia** eta probokazio-nahia darion poesiarekin topo egitea. **Berria - Kultura**

Urgentzia erabatekoa du arazo horrek, esaten zaigu batera eta bestera. **Joseba Zulaika**

Neure deiaren **urgentzia** ulertzean, Babetek etortzeko erregutu zidan, arratsaldeko zazpitan etxeratzen zela erantsiz. **Itxaro Borda**

Ezkutuko izenekin, **urgentzia** eta presazko amodio saioak egiten zituzten edozein ostatu zaharretan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Urgentziarik gabeko itzulera. **Berria - Kultura**

4 urgentziaz presaz.

Bakea **urgentziaz** behar da. **Xabier Amuriza**

Urgentziaz ekin behar diogu lanari. **Berria - Mundua**

Urgentziaz deituriko lantegiko erizaina agertu artean, soinean zeraman atorra urratuz burua oihalez inguratu zion. **Itxaro Borda**

5 urgentziako izlag urgentea, presakoa.

Mementoan, **urgentziako** egoeran daude. **Berria - Ekonomia**

Atzo **urgentziako** bilera egin zuten herrialde kaltetuek, neurriak hitzartzeko, gaitza gehiago zabale ez dadin. **Berria - Gaiak**

Urgentziako dei güziak 15 telefono zenbakitik iragaiten dira. **Herria**

Odon Elorza Donostiako alkateak iragarri du «**urgentziako** plana». **Berria - Kirola**

Espainiako Ministroen Kontseiluak atzo onartu zuen karbono dioxidoa isurtzeko eskubideen salerosketaren araudia, **urgentziako** lege dekretu bidez. **Berria - Ekonomia**

Zer eragin du prozesua **urgentziako** bidetik egiteak? **Berria - Euskal Herria**

Gau hartan, Guardia Zibilaren atzaparretan erortzeko arriskuan egonagatik, Andoainera etorri zen J.M., eta, **urgentziako** sendaketa egin ondoren, antibiotikoak eman zizkidan. **Rafa Egiguren**

Urgentziako tratamendu baten premian. **Josu Zabaleta**

OMEK «beharrezkoa eta **urgentziakoa**» ikusten du prebentzioa, tratamendua, ikerketa, eta denbora luzerako laguntza uztartuko dituen egitasmo bat hitzartzea. **Berria - Gaiak**

Eta ez da **urgentziakoa**. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urgentzia bat (3)

urgentziazko bilera (3)

urgoi 1 *izond* harroa. ik **burgoi**.

Irriaz gaitzua nintzen, baina aitormenaz **urgoi**. **Piarres Aintziart**

Elizan, Santiago beiliararen itxurak badu majestate bat, nola erran, **urgoa** eta mespreziozkoa. **Piarres Aintziart**

Bercianos-eko elizak, eraikin **urgoiak**, herri erdi hustua eta etxe eroriak menperatzen bezala ditu. **Piarres Aintziart**

2 irud/hed

Gero, kanal bat, ur **urgoi** eta zalu batez betea: bide geometrikoak, lurra aberasteko, norabide xuxen eta finkatua erakusten dio urari. **Piarres Aintziart**

urgoiki *adlag* harroki.

Oroz gainerik, euskara mintzatuz, ez ahalgez bainan **urgoiki**. **Herria**

Bizkarreta errepidearen ezker aldean, bere etxe ederrekin, **urgoiki** dago, bizi izan duen historiaz kontziente balitz bezala. **Piarres Aintziart**

Hiria zalu zalu iragan dut, ohartzuz halere, jalgi aitzin, ezker **urgoiki** eraikia dagoen kurutze finari. **Piarres Aintziart**

Ama ohartzen zelarik haren hegada hurbilari, lasterka joaten ginen usu intxaurren azpi edo inguruan **urgoiki** zebilen oilo ama familiakoari, zakurrek ihausi eginez, gatuek ihesi eta puralleriak lau haizetara eskapu. **Piarres Aintziart**

urgoitu, urgoi(tu), urgoitzen da *ad* nekatu, unatu.

Eta, aitzinekoan bezala, deitu zituen ikusleak, baina ni gogaiturik eta **urgoiturik** nengoen orduko eta tribunatik alde egin nuen. **Joan Mari Irigoien**

Zeren bertze muturrean ere bizi izan bainaiz, jan-edanetarat eta emaztekietarat emana, eta **urgoitu** eta gogaitu nintzen azkenean. **Joan Mari Irigoien**

urgolko ik **ur 31**.

urgora *iz* marea gora.

Anaiek eta aitak, berriz, jakingo zuten noski ordurako, Daniel-en bitartez, **urgora** zela-eta, isolaturik zegoela -hitza, etimologikoki, zuzena zen. **Juan Garzia**

urguil untzi ik **urguilontzi**.

urguilontzi (*orobat urguilu-ontzi, urguil untzi g.er. eta urguluntzi*) 1 *izond*

Agure **urguilontzi** hark aita-amen bizia izorratu zuen. **Elena Touyarou**

Hau ote da zure egia, aurreiritziz josi ohore zaharkitu baten aitzakian, hiru hobengabe sakrifikatzeo dudatu ez duen leinuko jauntxo **urguilontzia**? **Elena Touyarou**

Aberatsenek eta **urguluntzienek** ere denbora laburrik barne ikasi zuten han diruak ez zuela baliorik, denak kaka berean zirela eta hori onartu behar zutela. **Eneko Bidegain**

Ez dira ez **urguilontziak**, ez jeloskorrak, ez aiherkorak, ez likitsak, ez gormantak, ez gezurtiak, ez ohoinak. **Aurelia Arkotxa**

Alabaina, Graxi txikitatik **urguilu-ontzi** eta harro-putzua zen. **Itxaro Borda**

Joantto ez zitzaion itzuliko; aitaixiren gisara, sobera **urguilontzia** zen eta ez zuen amore emanen. **Elena Touyarou**

2 (izen gisa)

Urguluntzia gehiegi gabe, hiriaren heineko gauzak antolatzen hastea hobe litzatekeela zeritzon. **Berria - Kultura**

urguilu (*92 agerraldi, 29 liburu eta 5 artikulutan; orobat urgulu 40 agerraldi, 7 liburu eta 18 artikulutan –denak herria-koak- eta orgulu g.er*) 1 *iz* harrotasuna, harrokeria; hantustea.

Urguilu eta izpiritu gogortasun handia du. **Itxaro Borda**

Zuk bai baituzu ama bati **urguilua** eta plazerra sortzeko behar den guztia. **Jon Muñoz**

Agian horrek guztiak min emango zidaan, eta nire handiusteari eta **urguiluari** zaplada bat emango hioan, baina hori ez zuan izango nire adiskide hintzelako egin huena bezain larria. **Xabier Olarra**

Urguilua harroturik eta lasaiturik sentitu zuen. **Bego Montorio**

Familia osoarentzat onena izango zatekeen Darling jaunak **urguilua** irentsi eta korapiloa eginda zeukan gorbataren bat janzte. **Julen Gabiria**

Bere furfuria, baina, ez zetorkion bertutea eta usadio onak defendatzeko nahikaririk; bere furfuria **urguiluan** errotzen zen. **Patxi Zubizarreta**

Eta **urguiluak** nauela atxikitzen, gerizatzen. **Piarres Aintziart**

Ontasun horiek oraino atxikia izateko **urguiluak** hartua naukala. **Jon Muñoz**

Orduantxe nahastu zen Cyrielen ariman mendekua **urguiluarekin**. **Juan Garzia**

Beste une batzuetan, **urguiluaren** zoramenak jo zuen. **Juan Garzia**

Hitz horiek **urguiluz** hantu, hanpatu ninduten. **Daniel Landart**

Mediokritatea gorroto duen emakume ausart eta **urguiluz** betea. **Unai Iturriaga**

Ez dut nire sexuari egozten zaion harrokeriarik; eta are gutxiago **urguiluzko** amarrua baizik ez den xalotasun aizunik. **Jon Muñoz**

Ibarretzek hitz goxoak izan zituen MCC taldearentzat: «Euskal herritar guztion **urguilua** da, izan nahi duena delako». **Berria - Ekonomia**

2 (izenondoeekin)

Testamentuan esan zuen ezkatutu gabeko **urguilu** zintzoaz ziurtatzen zuela ia 40 urteko gidari bizitzan ez zuela izan istripu bakar bat ere. **Bego Montorio**

Guraso triste haien umeak ginen eta dignitatez bederen, edo **urguilu** propioz, ez genuen lur eta behi gorotz urrineko "pasibitate" haren pairatzea merezi. **Itxaro Borda**

Dorretxeak hutsa zirudien; andre Joseberen **urguilu** handiena izan zen baratzea belar tzarrez betea zen. **Elena Touyarou**

Neskatala eder, alai, begi biziko haren aita izateko **urguilu** sekretu hark. **Bego Montorio**

Barkamena eskatzea gauza zaila da, **urguilu** tematiaren eta damu negartiaren artean oreka bilatzeko egintza labaina. **Oskar Arana**

Urguilu irainduak halaxe eskatzen zidan. Joan Mari Irigoien

Urguilu madarikatua, hainbeste jenderen bizia errautsi zuena. Elena Touyarou

Zeren eta ene gorrotoa eta ene **urguilua** naturalak ez ezik borondatezkoak ere baitziren. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan)

Hala aitortzen zuen behintzat, **urguilu** zizta batez. Itxaro Borda

Urguilu pitta batek kilikatzen banindu bezala. Daniel Landart

· Ekintzarako askatasuna eta pentsamendua giza **urguiluaren** ilusioak dira. Anjel Lertxundi

urguilutsu *(orobat urgulutsu)* 1 *izond* harrotasunez, harrokeriaz edo hantustez betea. ik **harro**; **burgoi**. (pertsonez)

Mattin hura, berez aski **urguilutsua** zena, gero eta presumituago eta handinahiago egin baitzitzaigun. Joan Mari Irigoien

Bizkaitarrak, zeina baitzen, **urguilutsua** ez ezik, liskartia ere, erran zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

Erraza zen itxuratzea hura zen **urguilutsuak** ez zuela alde txarretik ikertua izan nahiko, makila eskuan, karrketan ttoko-ttoko ibilki. Itxaro Borda

Herostratosen ama jazarkor eta **urguilutsua** zen. Juan Garzia

2 (bestelakoez)

Emazte karkara ahalkegabeak hautematen ziren, papo **urguilutsuak** dantzan eta toki eskasagatik ipurdi oparoak elkarri jo ozenka! Itxaro Borda

Une hartantxe uhin hantu **urguilutsu** batek -edo urezko horma jiggant bat ote zen hura, jaun André?- jostailu bat bezala altxatu zuen untzia brankatik. Joan Mari Irigoien

Pentzeen berde **urguilutsua**, udako egarrien ondotik beren kontentua denei erakutsiz. Piarres Aintziart

Gizona ez agertzeak artegatzen zuela ohartu zen, nahiz eta hori bere sen oldarkor eta **urguilutsuaren** eragina izan. Patxi Zubizarreta

Fanch sutondora deitu nuen eta han, solasean geratu ginen, Mary Balesteren izaera **urguilutsua** lehen aipagaitzat hartuz. Itxaro Borda

Zerbait balitz bezala "ezkontürik düzü" hauxe aitzakia beharrezkoa eta nahikoa, estakurua, defentsa **urguilutsua** ! Itxaro Borda

3 (adizlagun gisa)

Hango gizonen artean bazela ikara aire bat, nabarmena txopan zutunik **urguilutsu** zetorrenarengan. Edorta Jimenez

urgulu ik **urguilu**.

urguluntzi ik **urguilontzi**.

urgulutsa *izond* (emakume) urgulutsua.

Urgulutsa izaitea. Menane Oxandabaratz

urgulutsu ik **urguilutsu**.

urgun 1 *iz* bigarren txalapartariaren joaldia.

Hara non txalapartarietako batek oinarrizko erritmoa ipintzen duen, "ttakun" deritzana, hots, herrenaren onomatopeia; beste txalapartariak, berriz, oinarrizko erritmoaren barruan sartzen saiatu behar du, lehenbizikoari protagonismoa lapurtuz, borroka eritua batean besarkatuz, askatuz, jolas erotiko baten pare; bigarren txalapartariak **"urgun"** edo "herren" egiten du. Juan Kruz Igerabide

Denbora ateratzen genuenean, "ttakun" eta **"urgun"** egitera biltzen ginen nire aitaren garajejan, non baikeneukan aitaren kamioia artean ere. Juan Kruz Igerabide

Makilak hartu, eta jo eta jo hasi ginen; hark "ttakun" egiten zuen, eta nik **"urgun"**, eta gero alderantziz. Juan Kruz Igerabide

2 *urgun egin* herren egin.

Zamaketeri zebilela min hartuta maingu gelditu zelakotz eman omen zioten lan hura, ez dakit, hala erraten zuten, **urgun eginagatik** berdin heltzen ahal zion palari, nik uste. Haren atzetik irten nintzen, Anton Patiño-ren atzetik, eta harri kozkorretan **urgun eginez** hurbildu ginen biok [...] lokomotora zaharrera. Koldo Izagirre

· **Urgun** txikia **egiten** du eskuinetik, noizean behin belauna tolestu eta igurtzi egiten du eskuaz. Koldo Izagirre

Agurea harresia utzi eta **urgun** handiak **eginez** besoak inarroska abiatu zaionean Bulldogek ihesari eman dio heriosuhar. Koldo Izagirre

urgune *iz* ura dagoen gunea. ik **urtoki**.

Horra gainera gizateria, eta ezkatadun animalia igerilari isilak eta azienda gizenak eta piztiak eta hegazki koloretsuak, **urgune** gozatsuetara maiz jotzen dutenak, ibaiertz, iturri eta laku inguruetan, eta oihan malkarrak hegaka betetzen dituztenak. Xabier Amuriza

Jaz, **urgune** bat muntatu zen bere ur-jauziarekin. Herria

urguritasun *iz* adeitasuna.

Araratek suaren eta sua adoratzten duten santuenganako **urguritasunez** bidaliko ziguk. Fernando Rey

urhats ik **urrats**.

urhe ik **urre**.

uribatzar *(orobat Uri Batzar)* *iz* EAJko egituran, hiri bateko jeltkideen batzarra.

Bizkaian, atzoko bozketan, 124 **uribatzarretako** 214 ordezkarien gehiengoak Imazek proposatutako hautagaiari eman zien babesa. Berria - Euskal Herria

Bart gauean egin ziren lehen itzuliko azken batzarrak eta, **uribatzar** batzuen emaitzen faltan, Gerenabarrena zen lehendakaritzarako proposatutako bakarra. Berria - Euskal Herria

EAJko iturriek adierazi dituzten Nafarroako **uribatzarrek** irizpide ezberdinak erabili zituzten zeuden zazpi hautagaietatik hiru hautatzeko. **Berria - Euskal**

Herria

Lehenengo itzulian **uribatzarrek** hautagaiak proposatuko dituzte eta, bi herriren sostengua duten hautagaien artean aukeratuko dute afiliatuek bigarren itzulian. **Berria -**

Euskal Herria

Joseba Egibarrek proposatutako zerrendakoek gehiengo osoa lortu baituzten **uribatzarretan** abenduaren 18an egindako bozketetan. **Berria - Euskal Herria**

uribildu ik **hiribildu**.

urin ¹ iz zenbait organo edo gairi darien edo haietatik ateratzen den isurkaria edo zukua.

Ordu pare baten buruan, **urin** pankreatikoek gose atzeraezina iragartzen zioten, **Karlos Linazasoro**

2 (hitz elkartuetan)

Urdail-**urinak**, urdaileko paretako zelulek sortua, azido klorhidrikoa dauka. **Irene Aldasoro**

Aurretik ere saiatu dira ahotik ematen, baina huts egin dute, urdail **urinak** desegin egiten zuelako intsulina urdailera iristean. **Berria - Gaiak**

Elikagaien osagai kimikoak, listuaren edo urdail-**urinen** eraginez disolbatuak, odolera igarotzen dira. **Irene Aldasoro**

Pankrea-**urin** kantitatea 0,7 litro ingurura iristen da egunean. **Irene Aldasoro**

3 irud/hed

Pedrok berak deliberatu zuen ezen bizkor bizi beharra zuela, denborari aitzina harturik, bizitzari, halatan, **uririk** eta zukurik apetitosenak atera ahal izaiteko. **Joan Mari Irigoien**

4 ipar gantza, koipea.

"Urdearen gisa, baleak ez du deus galtzekorik", hori zioten beti eta egia da balea puskatzearekin, haragi, larru, hezur, **urin** eta gaineratiko, denak zerbitzetan baliatzen zirela!

Herria

Iruten hasi zen nagusia, zartain bat **urin** irakiten zuela. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Handik minutu eskasean, haurrak platera garbi-garbia zeukan, **urina** ogi puxinkaz bildua. **Itxaro Borda**

Paris-ko etxera joaiten ziren laminak eta behar ziren beti utzi prestaturik **urina** eta broxkak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Istoria horrek erakusten digu laminak pobreak zirela eta gauaz ximindeitik beheiti sukaldera jausten zirela, delako **urin**-brox horretatik galdeginez ("migas fritas en manteca", edo "mies de pain frites dans de la graisse"). **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

5 urineko (orobat urinetako) ipar bere urinean prestaturiko txerrikoa edo ahatekia.

Gostu guziendako bazen hauta: ardi gasna, xingar azpi, **urineko**, gibelki, ezti, bixkotxa, Irulegiko arno, bazkal aintzineko, ondoko eta bertze. **Herria**

Aurten ere jastatzen ahalko dira hemengo ardi gasna, xerriki, **urinetako** eta gibelkiak. **Herria**

13etan: bazkaria herriko gaztek alaiturik, salda, idi mihia, ahate **urinekoa** eta ilar xehia, entselada, gasna, bixkotxa edo horma, kafea ta ondokoa. **Herria**

Ahateak bizirik ekartzen dituzte horrat, hil eta gibelak freskorik bereizi ondoan gaitikoa apailatzen dute edo freskorik edo **urinetako** saltzeko gisan. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urin brox (3)

urindu, urin(du), urintzen du *ad ipar* urina eman, koipetu.

Eta zendako ez duzu **urintzen** zure errota, olio pixka bat botatzen **Menane Oxandabaratz**

uritegi *iz*

Portuko bidea **uritegi** haundietan da gainditua. **Herria**

uritsu ik **euritsu**.

urjario ik **ur 36**.

urjausi ik **ur 37**.

urjauzi ik **ur 37**.

urjente ik **urgente**.

urjentzia ik **urgentzia**.

urka ¹ iz urkamendia.

Elektrokuzioa, **urka**, fusilatzea eta gas ganbera baztertu ondoren, injekzio hilgarriaz ezartzen dute heriotza zigorra. **Berria - Mundua**

2 urka-bilur (orobat urkabilur g.er. eta urkabihur g.er.) iz soka batean egiten den korapilo begiduna, sokatik tiratzean estutzen dena.

Ez ezazu **urka-bilurra** aipa urkatuaren etxean. **Karlos Linazasoro**

Hamabi **urka-bilur** zeuden bertako haga batetik zintzilik, haiek ere bandera bezain geldi. **Anjel Lertxundi**

Borreroak buruko kapusaia jarri zion, zuria, tranpal gainean klarionez marraztutako zirkulu barrura eraman zuen, orkatilak lotu zizkion uhal batez, **urka-bilurra** lepoari egokitu

zion. J.M. Olaizola "Txiliku"

Borreroa patxadatsu hurbildu zitzaion emakumeari, eta [...] ezkeraldeko lehen urka-bilurra sartu zion burutik behera. Anjel Lertxundi

Borreroak burua makurrarazi dio, urka-bilurra eroso estutzeko. Anjel Lertxundi

Urka-bilurrak Wardwellen lepoa inguratu zuenean, Hathorne epaileak gurutzearen seinale azkarra egin zuen eguerdi hartan hamabigarren aldiz. Anjel Lertxundi

Hogei urteko frantses bati, urka-bilurra lepotik ezarri eta hatsa pikatu, begiak zuri zuri bihurtu eta hezurrik gabeko haragi puska baten gisa dilindatu arte airean mantendu zuten. Eneko Bidegain

Amak berak egin zizkion lastoz beteriko panpinak, mutikoak urka-bilurretik zintzilika zitzan. Anjel Lertxundi

3 irud/hed

Angustiaren urka-bilurrak estutu ninduen lehenengo aldiz. Karlos Linazasoro

Eskailerak igotzen zituzten gizonezkoak, gorbatahunak gehienak, aurpegia gorrituta iristen zirela eskailera-burura, gorbataren korapiloa urka-bilurra bailitzaien. Jon Alonso

4 urka-gizon

Ezinez *Hangman*, hau da, urka-gizona, gutxi gorabehera, bere lanbidean gizon saiaturia izan zen eta liburu bat ere idatzi zuen, langintza ikasi nahi zutenek testuliburu egokia izan zezaten. J.M. Olaizola "Txiliku"

5 urka-mutil

1932. urtean hasi zuen ofizialki bere langintza, baina lehenagotik ere urka-mutil lanetan hainbat urte egin zituen aitaren eta beste profesional batzuen laguntzaile. J.M. Olaizola "Txiliku"

6 urka-zigor

Sute bat eragiteko arriskua harturik gure gain, eta, ikuspuntu pragmatikoago batetik, lepoa jokatzuz: ezen urka-zigorra ezartzen baitzitzaion, besteak beste, estalpe barruan pospolo bat pizten zuen orori. Juan Garzia

7 urka-zulo

Borreroak Berdabioren oinetan zegoen urka-zuloa zabaldu du. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urka bilur (8); urka bilurra (13); urka bilurrak (4); urka soka (3)

urka² 1 iz antzinako itsasontzi mota zabala, fragataren antzekoa, kargarako eta gerrarako erabili zena.

Mundu bat zebilen ontzien artean [...] nongura ikusten ziren Armadako agintaritzaren banderatzkoak zituzten faluak,eta tarteka urkak eta karrakak ere saihestu behar izan genituen, halakoak ontzi handienetako batzuei azken orduko hornikuntza egiten baitziharduten artean ere. Edorta Jimenez

urkaarazi ik urkarazi.

urkabe (84 agerraldi 29 liburutan) 1 iz urkamendia.

Prest nago zuen gillotina zuen poste zitala zuen urkabea zuen aulki elektrikoa zuen fusilamendua hartzeko. Koldo Izagirre

Hona Erdi Aroko urkabea, pilare eder bat, kurutze besomotz bat dirudiena. Piarres Aintziart

-Agindu ezazu egin dezatela urkabe bat, hogeita bost metrokoa. Jose Antonio Mujika

Urkabea ere luze gabe zutiarazi zuen dorre gainean. Aingeru Epaltza

Plazara ekarri zuen orgatik jaitsarazi, bi fraide bidelagun zituela urkabea igo, estaltzen zuen espartzuzko estalkia kendu eta, odoleztatuta eta gerritik gora biluzik, borroaren trangaberara eraman zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Madeleine Larralde gurditik jaitsi zen eta urkaberainoko eskailerak igo zituen. Elena Touyarou

Mardokeorentzat prestatua zuen urkabea zintzilikatu zuten Haman.

Urkabea zeramatenean, paper bat aurkitu zuten bere galtzerdi batean, Jainkoari bere erru guztien barkamena eskatuz. Juan Martin Elexpuru

Konspiratzaileak aurkitu zituzten, eta Cinq-Mars urkabea hil zuten De Thourekin batera. Juan Martin Elexpuru

Hura urkabea ikustea desiratu zuen, mihia dilindan, begiak hobietan ateratzeko zorian. Patxi Zubizarreta

Urkabetik zintzilikatuarri lur ematea. Elizen arteko biblia

Izan dezagun konfiantza monarka lotsagabe bat handikeriaren gailurretik urkabearen oinetara eramateko gai izan den herri jakintsu eta ausart honekin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

2 urkabea hiltzeko zigorra.

Nola anai Junipero, deabruaren eraginez, urkabea kondenatu zuten. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

prestatua zuen urkabea (4); urkabea zintzilikatu zuten (3)

urkaberatu 1 izond/iz urkaberan zintzilikatua. ik urkamendiratu.

Gisa hartara, heriotza, gorputzaren beraren eroriko bat-batekoak ekartzen zion gaiztaginari, hegaldi laburraren akabantzan, soka tinkatu eta krak! hausten baitzuen urkaberatuaren lepo-hezurra. Aingeru Epaltza

2 irud/hed

Arropa multzoa urkaberatua. Eburne harraskako katilu eta plater bakanak garbitzen hasia zen Aingeru Epaltza

urkabihur ik urka¹ 2.

urkabilur ik urka² 2.

urkagai iz urkatua izango den pertsona.

Hasierako higuina tokia uzten ari zitzaion urkatu berrien itxura, sexu zein keinuei buruzko jakin-minari, urkagai guztien oinazea antzekoa izaki, arropa nahiz gorputz-

ezaugarri buruzko xehetasun fisiko haiek harturik exekuzio batetik bestera zeuden alde bakartzat. Borreroak **urkagaiaren** eta urkatuaren begi-ninietan irakurtzen daki.

Anjel Lertxundi

Ez al dute erraiten, konparazioe, ezen Pazkoz **urkagai** denak garizumaren laburratz dituela penak [...]?

Joan Mari Irigoien

urkaketa iz urkatzea.

Urkamendietan herriaren aurrean egin beharreko **urkaketetan** ez zen itxura onekoa bizitza zuzen eta oneko kristauak sokari tiraka aritzea, urkatzen ari ziren basapizti mihiarina biraoka eta aireari ostikoka akabatu ezinik ari zen bitartean.

J.M. Olaizola "Txiliku"

urkakume iz

-Emaion hik egiten dakinan kalutxo horietako bat euskaldun **urkakume** honi, bihotza.

Koldo Izagirre

Ea ez neukan abokatu on bat, katanarru onekoa ematen nuela, **urkakumeak**.

Koldo Izagirre

Baina badakizu, eta ez badakizu jakin behar zenuke, kolarretek metala detektatzen dutela, ez ordea papera, eta egundoko beldurra diote **urkakume** hauek paperari, bertan idatz egin bailiteke, mezua igorri.

Koldo Izagirre

urkamen iz urkatzea. ik urkamendu.

Miserable eta koldar hil zintezela behar zuten denek, damutu bat behar dute kondenatu zintuztenek, **urkamen** publikoak bere funtzio guztiak bete ditzan.

Koldo Izagirre

urkamendi (167 agerraldi, 44 liburu eta 3 artikulutan) 1 iz kondenatuak zintzilikatzeo tresna, soka duen haga horizontal batez eta honi eusten dioten habe zut batzuek osatzen dutena. ik urkabe.

Udaletxeko atariaren aurrez aurre eraikitako **urkamendian**.

Anjel Lertxundi

Plazaren erdian, arotzak jo eta ke ari dira **urkamendia** jasotzen.

Anjel Lertxundi

Epaile-longainaz jantzitako agure erkindu batek igo zituen **urkamendiko** eskailera-mailak.

Anjel Lertxundi

Menturaz **urkamendiaren** mailadian gora zindoazela burua jaso zenuen une batez, eta eliza ondoko dorretxea ikusi zenuen leiho guztiak zarratuta.

Koldo Izagirre

Urkamendiko tranpola zabaltzen zuen hagari eragin zion borreroak.

Anjel Lertxundi

Nik, John Hathorne-k, Salemgo hiriak sorginkerien aurka jarritako kausaren epaileak, **urkamendian** hiltzera kondenatzen dut Martha Cory, deabruarekin tratuan ibili izana frogatu eta gero.

Anjel Lertxundi

Urkamendira eramanak, azkenik, ez ziren "ehunka" izan, hiru baizik, horietariko bat Bernard Etxeto, Lüküzeren bigarrena.

Aingeru Epaltza

Ezin zuen zehatz irudikatu **urkamendiko** heriotza zer zen.

Jose Morales

Berdabioko jauna **urkamenditik** zintzilik dagoen urka-bilurraren parera iritsi da.

Anjel Lertxundi

Orgara estekatu, herrestan eraman **urkamendiraino**, eta handixek eskegi zuten.

Juan Garzia

Urkamendiak zeuden, sarreratik ez urruti, eta bertan, zintzilik, aurpegia desitxuratua, eskuak gogortuak, soin enborrak baldar airean eta oinutsik, soldadu alemanak, elurrak zurituriko uniformeak jantzita.

Felipe Juaristi

Kondenatu dohakabe bat beti belauniko bizi eta **urkamendian** zutik hil zena.

Karlos Linazasoro

Borreroa, dentistarenean, **urkamendian** sentitzen da.

Karlos Linazasoro

Gauean, On Camillo **urkamendira** bezala joan zen leihoko zirrizturantz.

Koldo Biguri

Uste duguna da aulki elektrikoan, **urkamendian**, gilotinan, garrotean edo sutan hiltzera ezein kondenatuek ez duela sekula agindua eman korrontea piztu, hanka azpiko tranpatxoak ireki, xafra zorrotza askatu, torlojuari bueltak eman edo pospoloa izekitzeko, agian hiltzeko modu horiek ez dutelako duintasunik.

Jon Alonso

2 urkamendian hiltzeko zigorra.

Haien bizitza ikaragarri laburra da: haietako bakoitzak zain dauka **urkamendia**, edo espetxea, edo eromena.

Jose Morales

-Noiz ikasiko ote dute [...] **urkamendia** dela horrelako jendea tratatzeko era bakarra?

Iñaki Mendiguren

Uztitako lekuan, hilda aurkitu zuten haurra hurrengo egunean; ama nor zen jakin zuten, **urkamendira** kondenatu zuten, eta epaia bete zen.

Juan Martin Elexpuru

Orain urte batzuk, aurrekontu arazoak zirela eta, bost kondenatu **urkamenditik** libratu ziren.

Karlos Linazasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urkamendia jasotzen (3)

urkamendira igo (6); **urkamendira kondenatu** (4)

urkamendiratu, urkamendira(tu), urkamendiratzen da/du ad urkamendira joan edo eraman.

Borreroak kondenatu asko ikusi ditu, **urkamendiratu** aurretik, hilda zeudenak.

Karlos Linazasoro

urkamendu iz urkatzea. ik urkamen.

Jende gehien-gehienek bezala, nik ere maite nituen **urkamenduak**.

Aingeru Epaltza

Urkamendu egunetan alferrik zen Gilen nire ondoan bilatzea.

Aingeru Epaltza

Barry jaunak zehatz-mehatz adierazi zuen zein alturatatik amilarazi behar ziren gaizkileak, beren pisuaren arabera, **urkamendua** txukuna, garbia eta batez ere azkarra eta erabakigarria izan zedin.

J.M. Olaizola "Txiliku"

urkarazi, urkaraz, urkarazten (orobat urkaarazi g.er.) du ad urkatzera behartu.

Berari eta bi mutili lepoan soka ipini eta hiruron gurasoak behartu egin zituzten semeak eta alaba zuhaitz batetik **urkaraztera**.

Gotzon Garate

Juduak hondatzeko asmoa zuelako **urkarazi** nuen Haman.

Elizen arteko biblia

Minard lehendakariak **urkarazi** egin zuen Dubourg kontseilaria, eta honen lagunek Minard hil zuten.

Juan Martin Elexpuru

Ohoian handiak **urkarazten** ditu txipiak.

Piarres Xarriton

urkari izond/iz kontsonantez mintzatuz, bokaleen zenbait ezaugarri dituen.

Beste muturrean kontsonante herskariak daukagu eta, bion artean, ozentasun gehiagotik gutxiagora zerrendaturik: hurbilkariak, **urkariak**, sudurkariak, igurzkarriak.

Lourdes Oñederra

urkatu, urka(tu), urkatzen 1 du *ad* urkamendian soka batez lepotik zintzilikatu; horrela zintzilikatuz hil.

Birritan **urkatu** zuten: lehenengoan, soka apurtu egin zen; bigarrenean, 1701ean, Exekuzioen Portuan hil zuten. **Julen Gabiria**

Nik ez diat inor **urkatuko**! **Koldo Izagirre**

-Urkatu egingo haut, Bartolome Izeta ahardi kumea! -bihurra estutu nion, pittin bat, eta arraunak askatu zituen. **Edorta Jimenez**

Urkatu behar banauzue, **urka** nazazue behingoz. **Jose Morales**

Agian **urkatu** egingo zaituzte, makilatu, laurdendu, erdibitu, bizirik erre. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

-Urka ezak! -oihu egin zuen emakume txima-jario batek. **Koldo Biguri**

Beste halako **urkatu** egin zuten bere gaitzakeriengatik; baina nik askoz gehiago merezi dut. **Askoren artean**

-Inor hil ez bazenu, ez zintuzten **urkatuko**. **Jose Morales**

Urkatu, urperatu eta laurdenkatu omen zuten herri osoaren orgiarik itsusienaren erdian. **Xabier Olarra**

Harryr bete beharreko eginkizuna [...] heriotza-zigorrera kondenatutako norbait **urkatzea** zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ivan Janson nekazarria epaitu eta **urkatu** hiltzera kondenatu zuten. **Jose Morales**

Urkatuta hil zituzten bederatziaurte bat lehenago izandako sarraski baten erantzuleak izatea leporatuta. **Berria - Mundua**

Urkatzeko soka lepoan estutu ziezaiotela agindu zuen. **Askoren artean**

Urkatzera eraman dute, eta ez dirudi arduratzen denik ez heriotzaz, ez bere arimaren salbamenaz. **Askoren artean**

Ez dugu txakur bat **urkatuko**. **Jose Morales**

2 (bere burua objektu gisa duela)

Etexko gorabeherak zuzendu ondoren, **urkatu** egin zuen bere burua. **Elizen arteko biblia**

Behar bezala aitortzen ez zitziola eta, batzuetan, bere burua **urkatu** eta gu miseria gorrian uzteko asmoa azaltzen zigun. **Pello Lizarralde**

Haserreak itsututa jo ere egin zuen Arakne gajoa, eta honek, hura dena jasan ezinik, bere burua **urkatu** zuen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Azkenean ez nion, ordea, Joachimek bere burua **urkatu** zuenik esan, gezur bat baizik: *angina pectoris*. **Joxe Austin Arrieta**

Erran nien ez nuela batere neure buruaren **urkatzeko** gutziarik. **Marzel Etxehandi**

Bigarren kasuan aldiz, presoak bere burua **urkatu** zuen auzitik itzuli ondoren. **Berria - Euskal Herria**

Bertsio ofizialaren arabera, ziegan zegoela bere burua **urkatu** zuen. **Berria - Mundua**

Ziegakideak aurkitu zuen, bere burua izara batekin **urkatuta**, komunean. **Berria - Euskal Herria**

-Ez dut sekula Errusia utziko; lehenago neure burua **urkatuko** dut. **Felipe Juaristi**

Hildakoak dirudite, botinak han goian, oholaren gainean, txukun lerrokatuta uzteko arretra hartu ondoren euren **burua urkatu** berri dutenak. **Itziar Otegi**

Neure burua **urkatu** baino hobeto du Jaunari heriotza eskatu. **Elizen arteko biblia**

• 3 da *ad*

-Bueno, dagoeneko zuk azaldu duzu, Jon Bengoa **urkatu** egin omen dela ziegan. Bere zapiarekin **urkatu** zen. **Paddy Rekalde**

Ofizialki baieztatuta ez zeuden informazio batzuen arabera, **urkatu** egin zen. **Berria - Mundua**

FIES moduluetan jende asko **urkatu** da, bai. **Berria - Euskal Herria**

4 irud/hed

Ez, Euskara ari dugu **urkatzen**, itotzen. **Herria**

5 (era burutua izenondo gisa)

Halako batean, nahi ez arren, emakume **urkatuarekin** aurkitu zen aurrez aurre, eta [...] oldarrean esku zakar ezezagun batzuek oholzaduraraino igoarazi zioten eta, han zegoelarik, hildako emakumea goian zintzilik eta bera azpian harriturik, haren esku luzeek, haren judu eskuek, ukitu egin zituzten **urkatuaren** oinak, soka bihur batez lotuak.

Felipe Juaristi

Bitxia izan daiteke justuki, gizon **urkatu** bat marraztu izana. **Berria - Kultura**

Urkatuaren hanka kolore galduak triangelu bat marrazten zuten airean. **Aingeru Epaltza**

Aurpegi batean aurpegi guztiak daude, gaizkile batean gaizkile guztiak, **urkatu** bakoitzean **urkatu** guztiak. **Karlos Linazasoro**

Iruindarrek, berriz, **urkatuak** dilindan ikusi eta berebiziko inpresioa hartu zuten. **Martin Anso**

Neskak [...] ezin kendu zuen burutik **urkatuen** begirada hondoratua. **Anjel Lertxundi**

-Herriak uste du gurutzeta eskuetatik jausten zaionean hil dela osoro **urkatua**. **Koldo Izagirre**

Urkatuaren etxean ez da soka-solasik izaten. **Aingeru Epaltza**

Ez ezazu urka-bilurra aipa **urkatuaren** etxean. **Karlos Linazasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere burua urkatu (17); **ez naute urkatu** (9); **neure burua urkatu** (4)

zazpi urkatuak (4)

urkatuaren etxean (3)

urkatu hil (3); **urkatu** hiltzera (8); **urkatu** hiltzera kondenatu (5); **urkatu** ikusi (3)

urkatuta aurkitu (11); **urkatuta aurkitu zuten** (6); **urkatuta hil** (4)

urkatzea merezi (3)

bere burua urkatzeko (4)

bere burua urkatzen (3)

urkatzaile 1 iz urkatzen duen pertsona.

Calcraft **Urkatzailea**. **Xabier Olarra**

Urkatzaile AB-k elektroizio bidezko exekuzioari buruz zutabe mordoxka bat idatzi zuen (neologismoa gaitzesten zuen, bestalde, hitza egintza baino okerragoa zela esanez). **Xabier Olarra**

Lepoa daukate, soka ere bai, baina **urkatzaile** ez. **Jose Morales**

Eta jakina: ihazko iraultzailea izanzen dugu aurtengo **urkatzaile**. **Patziku Perurena**

2 (hitz elkartuetan)

Hot-Barreko nagusiak Aturri ibaiatz bestaldeko ertz hezean oharuriko aingeru-**urkatzaile** batengana joatea aholkatu zion, lana galdu nahi ez baldin bazuen behintzat. **Itxaro**

Borda

urkatze 1 iz urkamendian soka batez lepotik zintzilikatzea; horrela zintzilikatuz hiltzea. **ikurkamendu; urkamen; urkataka.**

Horregatik saiatu ziren garaikideak **urkatzearen** artea hobetzen. J.M. Olaizola "Txiliku"
Aitak Salemg **urkatzeen** ondoren esandakoa berritzen zuen Norak bere baitan. Anjel Lertxundi
Hitzik egin gabe eta bihotza kolkoan segitu zuen ostera Norak bigarren **urkatzea**. Anjel Lertxundi
Erorketa-bidezko **urkatze** honek bazituen abantaila franko [...] erorketak lepahezurra hautsi eta lipar batean akabatzen baitzituen gaizkileak. J.M. Olaizola "Txiliku"
Urkatze bakoitzarekin arimako zama arintzen zitzaiea zirudien. Anjel Lertxundi

2 (hitz elkartuetan)

Urkatze -lanak zientifismo bide horretatik abiatu zirenetik, hainbat negozio-gizon saiatu ziren langintza horretatik lanbide egiten. J.M. Olaizola "Txiliku"
Borreroak koadernotxo bat marraztua du berak asmatuiko **urkatze** -postura desberdinekin. Karlos Linazasoro
- **Urkatze** -saioa hastear agertu dituk. Anjel Lertxundi

urketa 1 *adlag* ur bila.

Batzu otoitzetarat abian dira, beste batzu sukaldeko laneri lotzen, **urketa** abiatzen, kabaletaz okupatzen. Herria
Emazteak goiz guzia **urketa** ibiltzen ziren, untzien inguruan izitilak. Michel Oronoz
Jendea horrat heldu zen **urketa** eta iturri horrek, mintzaten ahal balitz, baluke zer konda! Herria
Badira amak, eta alabak, Afrikako herri batzuetan, eskolarat ezin joan ditazkeenak zeren behar baitute **urketa** joan oinez orenak eta orenak, bidean. Herria

2 *urketara adlag* ur bila.

Norbait esneketara edo **urketara** bidaltzen genuenean. Pello Salaburu

3

Galizian bahitua gurutzatu batzuk han lehorreratu zirenean **urketa** egiteko, morroi batek harrapatu zuen. Jon Alonso

urketar *izlag/iz* Urketakoa, Urketari dagokiona; Urketako biztanlea.

Horrela, Mugertar, Lehunztar, **Urketar** eta Ahurtiarrek Hiriburu barnea nolakoa den ezagutzeko parada badute. Herria
Muscarditz aise arizan da eta **urketarra** harekin lotu da zorria bezala, bururaino. Herria
Baina 39-33 baigorriarrak, eta ezin barka **urketarrak** egundainokotik 37 taraino. Herria

urketari 1 *iz* ura eramaten edo saltzen duen pertsona, eskuarki ogibidez.

«Guk esan ahal genuen orduan, atera nahi dugu festa denona delako eta emakumeok ere parte hartu nahi dugulako», baina **urketari** gisa ateratzearena, aurrerapauso bat izan zen. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo gisa)

Donostiako Intxaurrenondoko auzoko Artzak Orteok danborradako 12 emakume **urketarik** jasoko dute aurten Donostiako bandera Gaztelubidekoen danborradarekin batera. Berria - Euskal Herria
Suaren desmasiak izigarriak izan dira zenbait lekutan [...] su hiltzerat jnik ere 855 gizon eta 600 soldado, berrehun milaz goiti hektara uzten zituztelarik suntsituak bai-eta aireko **urketari** batzu galtzen. Herria

3 (adizlagun gisa)

Orduantxe ikusi nuen bidoi herdoildua uretan, Joachim ere (nor bestela?) toki hartantxe **urketari** ibilia zela garbi adierazten zuena Joxe Austin Arrieta

urki 1 eremu hotz eta epeletako zuhaitza, azala zurixka eta leuna, hosto txikiak eta lore sexubakarrak buruxka zintzilikarietan dituen (*Betula pendula*).

Bide zahar bat eta zuhaitzak **urki**, haritz, gaztainondo, zurzuri. Piarres Aintziart
Hara-hona ibiltzen zen ordoki latzean, alertzez eta **urkiz** beteriko sastraketan. Karlos Zabala
Urki baten enbortzar zuriak [...] gaina hartzen zion baso tapituari, airean zut, biribil, marmolezko zutarri erregular eta distiratsu baten antzera. Jose Morales
Besoa ibai baten ondoan lurperatu genuen, **urki** baten altzoan. Harkaitz Cano
Jainkoak hezur eta haragiz egin izan ez bagintu, **urkiaren** zuraz egingo gintuela. Inazio Mujika Iraola
Erretxina ere lortzen dute **urkiarekin**. Pello Zabala
Zuhaitzik zaharrenetarikoa omen **urkia**. Pello Zabala
Urkia, zuhaitz axial xuri dotorea. Pello Zabala

2 (izenondoekin)

Urki handi eta adartsu baten ondoan. Felipe Juaristi
Dendak soilgune nasai baten erdi-erdia hartzen zuen, **urki** zoragarriak eta pinu eskergak inguruan. Karlos Zabala
Urki lirainak zituzten ezker-eskuin, ilara banatan. Jose Morales
Bizkor igarotzen ziren bidaiariaren albotik aihenak, **urki** meheak eta makal zilarkarak. Jose Morales
Urki bikainen itzalpean uharte osoa gurutzatu eta Jenisei ibaiaren adar txikira heldu ziren. Karlos Zabala
Lau **urki** dotorek erakusten duten azal zuriari ere erreparatu diozu. Hasier Etxeberria
Urki zilar kolore bat hor, azalean eguzkiaren argia islatuz. Oskar Arana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Iribarrez zetorren hura, txalmaren alde batean eserita; makuluak, astoaren bizkar gainean; txalmaren beste aldean, **urki** -enbor handi bat. Inazio Mujika Iraola
Baserri askotan, sarde-koilarak **urki** -zurez egin ohi zituzten. Pello Zabala
Kaobazko kutxa bat Kareliako **urki** -zurezko apaingarriz edertua. Jose Morales
Isatsean banan-banan hautaturiko **urki** -adaxkak perfekzio aerodinamikoa bilatuz prestatu dira. Iñaki Mendiguren
Lertxun-zur finezko kutxak, **urki** -azal txirikordatzeko ontzi biribilak. Jose Morales
Etzanda ipini zuten **urki** orbelaren gainean. Karlos Zabala
Alferrik galduta, ez ziola mendirako balio izango iritzita, egur piloaren ondora bota zuen **urki** makila. Jon Maia
Urki -txotx bat hartuta. Pello Zabala
Urki -zarbaz astintzen zituzten izpiritu gaiztoz joak, esorzismorik onenaren pare zeukatelarik **urki** -zigor hau. Pello Zabala
Urki -ardoa eta **urki** -garagardoa prestatzen dituzte lurralde iparraldeko hotz haietan. Pello Zabala

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Siberia aldean, zientoka urtetan usteldu gabe iraundako **urki** -azal puskek topatu izan dira, lurpean eta elurpean iraun dutenak. Pello Zabala

urkidi *iz* urkiak dauden saila, urki basoa.

Hirugarren basoa, **urkidi** txukun bat, Peru eta Marixerena zela esan ziguten baserritarrek. **Anjel Lertxundi**

Urkidi bat eta pinudi bat zeuzkan ezker-eskuin, bi hego bailiran, ilunagoa bata eta argiagoa bestea. **Jose Morales**

"Baso Beltza" esaten genion baso baten ertzean bizi ginen -izena ez zen oso egokia, **urkidiak** ere bai-baitziren, zuri askoak, eta gure inguruan izeidiak-. **Matías Múgica**

Urkidi baten erdian moldaturiko parke miragarri hartan zehar. **Karlos Zabala**

urkiditxo *iz* urkidi txikia.

Beren barreak eguna argitzearekin batera pagadietan, **urkiditxoetan** bukatu ziren eta zu berpizten ahalegindu zinen haiek guztiak izaten ahaleginduko naiz, aita. **Josu Zabaleta**

urkila *(orobat urkulu g.er.)* 1 *iz* zuhaitz batean, enborrak eta adar batek, edo bi adarrek, eratzen duten V modukoa; goialdea V formakoa duen euskarria.

Sakabanaturik ageri ziren **urkila**-formako zuhaitz zabalen itzalpean sartu zen. **Jose Morales**

Bakoitzak hodi bana dituztela **urkila** itxurakoak. **Santiago Iruretagoiena**

Tiragoma berriak egin behar ditugu **urkulu** gogor eta goma luzeekin. **Joseba Sarrionandia**

Haren piurak herriko ezkilategia edo, hobeto esan, putzutik ura ateratzeko erabiltzen den **urkila** zekarren gogora. **Jose Morales**

Bizikletaren aurreko gurpila bere **urkilatik** atera eta etxera eraman zuen. **Koldo Biguri**

Alicek, berriz, betaurrekoak eta hanka meheak, **urkilen** antzeko. atean etxeko alperra: ardatzetik burdinazko **urkuluaz** eta pertikaz hornitua. **Lopez de Arana**

Familiako heldu batek esku-hutsik lepotik oratzen dio eta berehala sugearen burua lurraren kontra zapaltzen du, **urkila** batez. **Gotzon Garate**

2 ile orratza.

Urkilak ilearen artetik erauzi zizkion amari. **Lopez de Arana**

Tximiniaren gainean, ileko **urkilak**, botoi eta pastillaz beteriko kartoi urreztatuzko kaxak. **Karlos Zabala**

Orduan, Dibinak bere ilea batzen zuten **urkila** beltz horietako bat hartu eta sarrailan sartu zuen. **Jasone Osoro**

Moñoa askatuko dio, **urkilak** banan-banan atera bere ile sastrakan etzateko luze. **Eider Rodriguez**

Neskaren ileak ere erasanda zirudien; **urkiletatik** askaturik, ile-adats bakan batzuk nora gabe eta zimel zebilzkion lepoaldean. **Mirentxu Larrañaga**

Cecilia txirikordak egiten ari zen oraindik, bere bildots-buru atzean biribilean biltzen, **urkilak** ezpainenetan estututa zituela. **Josu Zabaleta**

urkildu, urkil(du), urkiltzen du *ad* urkila-itxura hartu.

Hala berean, hurritza hilbeltz aldera, bederatzi hilabete luze ontzen eman ondoren, buruilean aletzeko, edo **urkiltzeko**, Basaburu aldeko zaharrok esan ohi duten bezala.

Patziku Perurena

urko ik **hurko**.

urkoitar *izlag/iz* Urkoikoa, Urkoiri dagokiona; Urkoiko biztanlea.

Jerome Elizagoyen, gure Kumako langile trebeak hartu du biziko lagun Ameli Jaunarena, **Urkoitar** andere xarment bat. Aintzin partidari gazteen aldi zen: Oyhenart aihertarra eta Olaizola **urkoitarra** dira hemen hobekienik konpondu direnak, Arambel baigorriarra eta Poueyts miarritzarra dituztelarik errespetuan ezarri. **Herria**

Aste huntan, beren azken egoitzarat eremanak izan dira: Solange Oyharcabal, 46 urtetan zendu dena eta Pierre Fagalde 75 urteko **Urkoitarra**. **Herria**

Jean-Marie Bilbao Labirikoa eta Sandra Senac Angeluarra, bai eta Maritxu Pagueguy eta Michel Ondarts **urkoitarrak**, ezkondu dira berrikitan. **Herria**

urkolore *iz* urezko kolorea.

Akuafortea, urtinta edo **urkolore** teknikak erabili zituen, batez ere. **Berria - Kultura**

urkor *iz* urtzeko joera duena.

Hauskor, **urkor** eta hotz. **Anton Garikano**

urkorronte ik **ur 37a**.

urkulu ik **urkila**.

urlanga *iz* aintzira.

Leku idor hauetan, Lagunas del Hito bezalako **urlangak** ikustea, beren ihi luzeekin, bitxi da. **Piarres Aintziart**

urlaster ik **ur 38**.

urlehortar

Atzoko entrenamenduan **urlehortarra** dela erakutsi nahi izan zuen Gibernauk. **Berria - Kirola**

urlia (orobat **Urlia**) 1 iz pertsona ez-mugatu bat izendatzeko erabiltzen den hitza. **iksandia²; berendia**.

Ba al dakizu **Urlia** ospitalean dagoela oso larri? **Bernardo Atxaga**

Urliak barkatzen badio Sandiari honek barkamena eskatzeko baldintzapean, zer barkatzen du edo nori barkatzen dio? **Joseba Zulaika**

Urliak Sandia maite du. **Harkaitz Cano**

Eskabide batekin joango zaio **urlia**; galdera sorta batekin sandia. **Patxi Zubizarreta**

Bosta **urlia** da, zazpia berendia. **Karlos Linazasoro**

Familia osoa elizan sartu ginelarik, erretorea ongietorria ematen ari zen eliztarrei, bostekoa eskainiz **urliari**, kortesiazko irribarretxo berendiari. **Anjel Lertxundi**

Urliak dio Sandiak dioela Berendiak aditu zuela. **Jon Alonso**

Azken batean, zer axola zitzaion irakurleari **urliak** ilea luze ala motz zuen, sandia gizena ala argala zen, berendiak ibilera traketsa zuen. **Imanol Zurutuza**

Konparazione, Zayd kalifikatzeko, bera **Urliaren** aita dela edo Sandiaren bazkidea dabilela esanez, edo halako tokian bizi dela, edo halako denboran bizi zen norbait zela aipatuz. **Xabier Kintana**

Are gehiago mindu ninduen jendearen jokamoldeak, zeren **urliak** irri egiten baitzion osaba Joanikoti, sandiak irain, eta berendiak hatza luzatzen zion. **Joan Mari Irigoien**

Ez dakit zer sari banaketatan halako aktorea halakorekin hizketan aritu zela, han zirela **Urlia** idazlea eta Sandia kantaria, Txamorro egunkari zuzendaria Belendia legebiltzarkidearekin. **Iñigo Aranbarri**

Ezkontzen ez bazen, Andresek bazuen amore ematea, eta herriko galduekin **Urliaren** edo Berendiarenera joan, bizimodu lizuneko emakumeak Erdi Aroko burdeletan bezala bizi ziren bi kale haietara. **Josu Zabaleta**

Gure epistemologiaren oinarriak inoiz zalantzan jarri beharko ez balira bezala, oso ohituta gaude *nor da urlia*? galdera modu unibertsean erabiltzen. **Askoren artean**

2 (izenondo eta kidekoekin)

Bere senean dagoen inork ez du **urlia** ezezagun baten ardura hartzen, are gutxiago **urlia** hori judua bada. **Anjel Lertxundi**

Harako kardinalarena, Kopernikorena, **Urlia** III.arena eta errege Berendia I.arena. **Edorta Jimenez**

Beldur nintzen, bozgorailuetatik ez ote ziren hasiko "**Urlia** bidaiaria, **Urlia** bidaiaria, badakigu non zauden, [...]". **Joxean Agirre**

Nola esan zidan **urlia** hark deitzen zela belar hau? "Kapitana, jauna". **Juan Garzia**

Zer zen bera, dibertitzeagatik edozer egiteko prest zegoen **urlia** bat? **Anjel Lertxundi**

3 (izenondo gisa)

Sorbaldak jasotzen dizkio, ordea, soldadu **urliak**, begiak makurtzen berendiak. **Anjel Lertxundi**

urlo 1 iz ur geldia.

Ibairaino iritsi, eta hantxe egon zen denbora-pasa, zerutik erortzen ari ziren izarrak **urloetan** nola ispatzen ziren ikusten. **Juan Garzia**

2 irud/hed

Jainkoaren Hitz hutsezintzat hartzeko erabakiak erlijiozko bultzada emana zion ergelkeria setatiari, honengatik egozten ziolarik Matthew Arnold-ek bere viktoriar garaiko klase ertain bertutetsuari "**urlo** hebraizantean" bititza. **Iñaki Mendiguren**

urmael (orobat **urmahel**) 1 iz parke edo lorategietako urtegia, askotan barandaz eta apaingarriz hornitua dagoena; aintzira txikia.

Jardin joria zuen, euskal paisaia zentzuzkoak inguratutako landare tropikalen oasi hostotsua, hamaika **urmael**, zubitxo eta estatuarekin. **Joseba Sarrionandia**

Lorategietako **urmaela**, ume eta helduek txalupan ibiltzeko erabiltzen dutena. **Julen Gabiria**

Parkeko **urmaelean** hiru beltzarga zuri, poliki igeri, eta ahate arrunt mordoxka bat. **Txillardeggi**

Urmaela inguratzen zuen barandaren gainean, estatuaren parez pare, gardenia bat zegoen, emakumeak hantxe utzia. **Fernando Rey**

New Yorkera itzultzea, Central Park-era itzultzea ahateen **urmaela** izoztuta ote zegoen ikustera. **Bernardo Atxaga**

Beherago **urmael** bat zegoen, aingira-belarrez estalia, zeren hori, bestetik, ez da batere bitxia Errusiako lurjabeen lorategi ingelesetan. **Jose Morales**

Zuri-zuri egongo zen laster parkea; desagertuak ziren orduko **urmaelaren** eta iturriaren inguruko zuhaitzak. **Koro Navarro**

Bazter batean, hotsak adierazi bezala, iturri bat zegoen, eta haren urarekin osatutako **urmaelak** -"putzuak", Lubisen lexikoan- leporaino bereganatzen zuen Pantxo. **Bernardo Atxaga**

Hango mendietan jaiotako erreka bat besterik ez zen, zuhaitzarte batean **urmael** moduko bat eratzen zuena, eta bertan bainatzen nintzen goizero. **Xabier Mendiguren**

Errotonda batek **urmael** txiki bat babesten zuen erdian. **Joxemari Iturralde**

Lokatzezko hormez egindako **urmaelaren** ondotik doaz ibilian; **urmaelean** ahate-multzo bat dabil igerian, lasai-lasai. **Oskar Arana**

Urtaro hartan **urmaeleko** lotoak zimeltzen ari ziren. **Ibon Urbarri**

Hartan barneratzen da, ostera, Irkutskeko bidea, hango istil, **urmael**, aintzira eta zingiren erditik igarotzen da, non eguzkiak jario osasun-galgarriak sortzen dituen, bidaztia nekaraziz eta maiz arrisku larrian utziz. **Karlos Zabala**

Urmael bareak egunsentiko hodei lasterrak nola, halaxe islatzen zituen haren aurpegi mardul, polit, atseginak beste lauren sentimendu igarokor guztiak. **Jose Morales**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Idea hori nerabileria buruan, bere distira lasaia etxearen ondora zabaltzen zuen **urmael** beltz eta fantastiko baten ertz-ertzera eraman nuen zaldia, eta uretara begiratu nuen. **Koro Navarro**

Urmael berde handi bat, igelez bete. **Urmael** lokaztuetan antigoaleko eresiak kantatzen dituzte igelek. **Iñaki Mendiguren**

Lorategietako pasealeku nagusia, Kensington Jauregiaren eta **Urmael** Biribilaren artean dagoena. **Julen Gabiria**

Itsasoak oliozko **urmaela** zirudien, beltza eta barea. **Felipe Juaristi**

Petrusek hustu egin du ura biltzeko porlanezko **urmaela** eta handik algak kendu eta garbitzeari ekin dio. **Oskar Arana**

Irris lohidoietako **urmael** usteldu geldoetan belaunetaraino sarturik. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urmael biribila (3); **urmael biribilaren** (3); **urmael biribilean** (8); **urmael biribilera** (3); **urmael txiki** (3)

urmaelaren ondoan (4)

urmaeldu, urmale(du), urmaeltzen da/du ad urmael bihurtu.

Biharamunean euria egin zuen, bat-batean, ordu-laurden batez bakarrik, uholdeka, eta gero eguzkia berriz; baina ura hamaika putzu ilunetan **urmaeldu** zen, eta nik hain

xuxen ere Nasha txabolaik kanpora bultzaka aterea izaki, aire zabalean lan egin ahal izateko: ezin jakin nik, bada, hantxe bertan eratuko zela halakoxe putzu gaitza. [Joxe Austin Arrieta](#)
Elkarrekin gaudenean, [urmaelduriko](#) banaezineko batasun baino, noizbehinka ezkontzen diren libertatea eta intimitatea oinarritzen duen bakartasunez azpildutako bi izate arras bereiz izaten jarraitzea komeni zaigu. [Itxaro Borda](#)

urmahel ik [urmael](#).

urmargo (*19 agerraldi, 3 liburu eta 9 artikulutan: cf [akuarela 43 agerraldi, 17 liburu eta 20 artikulutan](#)*) iz uretan deseginiko pinturez paper gainean margolanak ontzeko teknika; teknika hori baliatuz onduriko margolana; teknika horretan erabiltzen den pintura. ik [akuarela](#).

Pintore espresionista alemaniar horrek [urmargo](#) eta pastel pinturez eginiko tamaina handiko koadroen erakusketa aurkeztuko du Guggenheimek ekainaren 26an. [Berria - Kultura](#)

Espero izatekoa zenaz bestera, ez dago brodatuzko imitazio-lanik, ezta [urmargoz](#) era kaskarrean gauzatutako Vermonteko paisaia elurtuen irudirik, ezta Currier and Ives-en erreprodukzioirik ere. [Oskar Arana](#)

Gure ama-amonek esku bizi zoliak zituzten, jostun eta sukaldari trebe ziren eskuok, batzuk are piano-jole, [urmargoz](#) pintatzaile, brodatu-egile, ile-txirikordatzaile. [Juan Garzia](#)

Haiez gain, egiten omen zituen orein, untxi, hartz eta haur taldeen marrazki eta [urmargoak](#) ere. [Xabier Olarra](#)

Erakusketa berezi bat bazuten muntatua, liburuan diren [urmargo](#) horietarik andano bat bereziz. [Herria](#)

Zuri-beltzeko argazki zenbait [urmargoekin](#) koloreztatu zituen. [Berria - Kultura](#)

Olioak, [urmargoak](#), argazkiak, marrazkiak, zinema lanen zatiak, era askotako objektu bitxiak... [Berria - Kultura](#)

urmariarazi, urmariaraz, urmariarazten du *ad* desegin, barreiatu.

Hondartzari buruz bazoazelarik, lainoen artetik jalgitzen ari zen eguzkiak azken lanbroak [urmariarazi](#) zituen. [Aurelia Arkotxa](#)

urmin iz organismo bateko ehun edo barrunbe batean gertatzen den ur metatze ohiz kanpokoia. ik [hidropesia](#).

Hil baino egun batzuk lehenago, [urminez](#) eta ia erabat ihartua eta beste gaixotasun askorekin zegoelako, anaiak tunika gehiago egin zizkioten, egunez nahiz gauez, premiaren arabera, arropa aldatu ahal izateko. [Askoren artean](#)

urmindu *izond/iz* urminak joa. ik [urmindun](#).

Izan ere, haren merituei esker, itsu eta gor, mutu eta herren, [urmindu](#) eta perlesidun, deabrudun eta legenardun, itsasoan galdutako eta gatibu, denek aurkitzen dute erremedioa, eta edozein gaitz, premia edo arriskutan aurkitzen direnei laguntza ematen zaie. [Askoren artean](#)

urmindun *izond/iz* urmina duena, urminak joa. ik [hidropiko](#).

Gizon [urmindun](#) bat zegoen han, Jesusen aurrean. [Elizen arteko biblia](#)

Jesusek [urminduna](#) larunbatez sendatu. [Elizen arteko biblia](#)

urna iz gauza jakin batzuk gordetzeko erabiltzen den kutxa edo ontzia, eskuarki harrizkoa edo kristalezkoa.

Lekurik urrunenetatik, hildakoen errautsez betetako [urnak](#) bidaltzen dira, Gangesera jaurlitzeko. [Iñaki Iñurrieta](#)

Hogeita hamasei bidaia-ordu, herri industrial handi hartara ailegatzeko, bertan ehortzi behar baikenuen aita; portzelana zuriko [urna](#) bat, hormigoian egindako zulo txiki bat. [Eskarne Mujika](#)

Krabelin-sorta bat jarri nuen [urna](#) zuriaren ondoan. [Eskarne Mujika](#)

Eta Ama Birjina ere gure aurrean zegoen, kristalezko [urna](#) batean sartuta, goxo irribarre eginez. [Bernardo Atxaga](#)

Dorre hauetarik bat begitandu nahi baldin baduzu, imajina ezazu lau kiribil lodi, pitxar sabeldu eta astundu moduko bati eusten, honen buruan pegar klasiko delako bat duela, [urna](#) esaten zaien horietarik. [Koldo Izagirre](#)

Udaberrian lorategiko [urnak](#), haizeak ekarritako haziakin kasualitatez beteak, beti bezain alai zeuden. [Anton Garikano](#)

[Urna](#) batzuk atxikitzean, heldulekuak hautsi egiten ziren hatzen pean, eta alboak zabaldu, lore artifizialki margotuak erortzen utziz. [Juan Garzia](#)

urnietar *izlag/iz* Urnietakoa, Urnietari dagokiona; Urnietako biztanlea.

Karmele Urbistondo preso [urnietarrari](#) omenaldia egin diote. [Berria - Euskal Herria](#)

Natalia Rodríguez ere [urnietarra](#) da. [Berria - Euskal Herria](#)

Jon Lizarribar [urnietarra](#) asteazkenean atxilotu zuen Frantziako Poliziak. [Berria - Euskal Herria](#)

[Urnietar](#) ugari zegoen atzoko manifestazioan. [Berria - Euskal Herria](#)

Abestiak errauste planten aurkako «[urnietarren](#) sentimendua» azaltzen du. [Berria - Euskal Herria](#)

uro iz XVII. mendean desagertu zen ugaztun hausnarkaria, zezen handi baten antzekoa, Europan, Asian eta Ipar Afrikan bizi zena (*Bos taurus primigenius*).

Paleolitiko ondarrerako euskaldunok ehiztari trebeak omen ginen, eta gure ehizarik guztizkoena, orkatza omen zen, basahuntz, sarrio, zaldi, [uro](#) eta abarren artean.

[Patziku Perurena](#)

Garbi ikusten dut hemen bildu bagaituzte ez dela izan gu gordetzeko, [uroak](#) beren erreserba naturalean bezala, hiltzeko ganadua bezala baizik. [Felipe Juaristi](#)

urografia iz kontraste bidezko azkerketa erradiografikoa.

-ahiaren edo beheranzko [urografia](#) baten ondoren, demagun; eta bigarrena berriro gaizki iriteten bada, eta horrela xafra-pakete osoa; [Juan Garzia](#)

uroilanda *iz* hegazti zangaluzee lodikotea, zingiretan-eta bizi dena (*Porzana sp.*).

Hamaika beltzarga eta **uroilanda** handi bat aurkitu dituzte hegoaldean. Berria - Gaiak

Zientzialariek uste dute **Uroilandaren** familiakoa dela. Berria - Gaiak

uroilo *iz* hegazti zangaluzea, moko sendo gorria eta luma ilunak dituena, zingiretan-eta bizi dena (*Gallinula sp.*).

Zisnea, belabelta, **uroiloa**. Elizen arteko biblia

Poporroka ari da galeperra, karakaz dabil **uroiloa** belar artean, txioka burugorriak batera eta bestera hegaz. Jose Morales

Kanabera artean ezkutaturik, martin-arrantzaletan, lezka-txorria, **uroiloa** eta kopetazuri maltzurra egon ohi dira. Koldo Biguri

Goizero, guk aldegin eta berehala, atsoak etortzen ziren gure etxaldera, saskietan ahate, **uroilo** eta txita hilak ekarri, eta hildako bakoitzaren truke amak bizi bana ematen zien. Koldo Biguri

urolatar *izlag/iz* Urolako ibarrekoa, Urolako ibarrari dagokiona; Urolako ibarreko biztanlea.

Nondik atera zuen hori, eta Donostiako ikasle pisuan zegoen garaitik berak, zerbait ikasi bazuen bizilagun **urolatarrekin** bizi izan zen garaian, hori izan zela hain zuzen.

Iñigo Aranbarri

urologia *iz* medikuntzaren adarra, gernu aparatuen eritasunak aztertzen dituena.

Urologia eta errehabilitazio kontsultak pribatizatuz gero hamaika lanpostu galduko lirateke ELAren ustez. Berria - Euskal Herria

Osakidetza ukatu egin zuen atzo **urologia** eta errehabilitazio zerbitzuak pribatizatuko direla. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urologia eta errehabilitazio (3)

urologo *iz* urologian espezialista den sendagilea.

Sintomak aztertu, balorazio bat egin, eta horren arabera tratamendua jartzen du gero **urologoak**. Berria - Gaiak

Botika bidezko tratamendu horrek huts egiten duenean, edo prostata handitua zuten gizonek botika larregi hartu behar dituztenetan, baina, beste irtenbide bat bilatu behar izaten du **urologoak**: kirurgia. Berria - Gaiak

Antonio Gelabert Bartzelonako Mar erietxeko **urologoaren** esanetan, bestalde, teknika berri horren bidez egindako probak zitologiaren bidez egindakoak baino «zehatzagoak» dira. Berria - Gaiak

Erekzioaren disfuntzio kronikoa duten gizonei **urologora** joateko aholkatzen die Madinak. Berria - Gaiak

urontzi ik **ur 40**; **ur 41**.

urontzikada ik **ur 41a**.

UROS (*orobat uros g.er.*) 1 *izond* dohatsua, zoriontsua.

Segi egin ahalaz, luzaz, bizi **uros** horrekin! Menane Oxandabaratx

Zorionak! Bizitze **uros** eta luze bat sortu berrieri. Herria

Zorionak, bizi luze eta **urosa** sortu berrieri eta goresmenak horien aitameri. Herria

Jende **urosak** ez du idazten. Piarres Aintziart

Gure goresmenak ait'ama **uroseri**, eta zorionak sortu berriari! Xabier Montoia

Zorionak bi familia **uros** horieri. Herria

-Haur denbora **urosa** ukan duzu? Menane Oxandabaratx

2 (predikatu gisa)

Uros nintzen, eta urduri. Piarres Aintziart

-Eskas, ez, **uros** niz, Anderea, bakarrik nahi nuke gaineko karrikaren itzuliza ere egin eta beldur niz denbora ari zaukula laburtzen. Michel Oronoz

Uros naiz zure ezagutzaren egiteaz. Ramuntxo Etxeberri

Uros, ez dena fidatzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Afektiboki **uros** izan banintz, zer ez nuen eginen? Piarres Aintziart

Nehor ez da **urosago** gehiago baduelakotz -gehitu zuen, eta arroka gainean jarri zen pipa erretzen. Elena Touyarou

Elizkizunetan nintzen **urosenik**. Piarres Aintziart

3 (adizlagun gisa) ik **uroski**.

Uros bizitzeko deusen eskasik ez dugu eremu goxo honetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Arras **uros** agertzen zaiku Erramun Marticorena diska hunekin. Herria

Urak bide egin du: ez gaituzte gehiago lehengo urrats eta gai berek **uros** egiten. Herria

Itsas ertzean libre eta **uros** sentitzen naiz, baina atsegin handia izan da niretzat zuen guzien ezagutzea. Elena Touyarou

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arras uros (3); **bizi luze uros** (5); **bizi uros** (22); **bizi uros bat** (12); **bizi uros luze** (3); **bizitze luze uros** (3); **bizitze uros** (16); **bizitze uros bat** (8); **kasik uros** (3); **luze eta uros** (10); **luze uros** (9); **luze uros bat** (9)

uros bat desiratzen (3); **uros eta balios** (5); **uros eta luze** (8); **uros izan** (7); **uros luze** (3); **uros luze bat** (3); **uros nintzen** (5); **uros ziren** (3)

bizi luze urosa (3); **bizi urosa** (3); **luze eta urosa** (15); **urosa sortu berrieri** (15)

goresmenak burraso uroser (5)

ait ama uroseri (12); **aita ama uroseri** (13); **aitama uroseri** (10); **ama uroseri** (27); **goresmenak aitama uroseri** (9)

uroski (orobat uroski g.er.) 1 adlag zortea.

Aldi bat gehiago, hiltzeak nagusi, bainan **uroski** baditugu familia gazte batzu etorri direnak bizitzera etxe polit batzu eginik. Herria

Badira ere, **uroski**, gertakari alegeragoak. Herria

Biziki jostatu dut haur denboran, zeren zortzi anai-arreba ginen, eta gira beti, **uroski**. Menane Oxandabarat

Baina ez, bizirik zegoen **uroski**, zeren haren oihua entzun bainezakeen, leizean goiti zetorkidana. Joan Mari Irigoien

Uroski orai badugu gure txapelduna. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Uroski hitz español zenbait bazekizkien. Marzel Etxehandi

2 dohatsuki. ik uros 3.

Nolaz ez bizi **uroski**? Herria

urostasun (orobat urostasun g.er.) 1 iz dohatsua, zoriotsua denaren nolakotasuna. ik zoriotsun.

Diru gutirekin, jateko neurtuekin, autorik gabe berdin **urostasuna** baginuen. Herria

Ene iduriko **urostasunaren** lehenbiziko gakoa, premiatsuena, maite duzun lan baten egitea. Menane Oxandabarat

Lau sortu berriak handi ditela osagarri eta **urostasunean**. Herria

Goresmenak bikote berri huni eta beren familieri eta bizi ditela **urostasunean**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Idekizkitzu gure arimako begier akabantzarik ez dien denboraren bortak, nun gure arima eternalak gozatuko baitu sekulako **urostasun** bat, edo esperimentatuko betiko tormentu bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 (hitz elkartuetan)

Bakoitza bere **urostasun** ilusio individuala bizitzen dabil. Berria - Kultura

Geroa segurua ez izanagatik, bazekien **urostasun** purruskak ugaltzen ari zela amodioa egitean, teak hurrupatzean, Man-en eskua paper lodian kaligrafiatzen jarraitzean edo elkarrekin Tom Cruise samurai lanetan eskaintzen zuen filmearen ikustera joatean. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bizi ditela urostasunean (27)

urots ik ur 35a.

urpekari 1 iz urpeko igerilaria. ik murgilari.

Ez da ba itsas hondoko altxorrek berreskuratzen lan egiten duten **urpekari** horietako bat izango, ezta? Xabier Paya

Bi **urpekari** agertu, eta gabarria miatzen hasi dira. Txillardegi

Bilboko **urpekari** bat hil zen atzo Espainiako Mouro uhartean, uretatik ateratzean deskonpresiorik egin ez zuelako. Berria - Euskal Herria

Funtsean ontziak amuarena egin behar du, sardetan ei dabilzan **urpekari** alemanetako baten batek Pilar ikustean azalera etorriko delako ustean oinarritzen baita operazioa. Edorta Jimenez

Horrezkero *The Crook Factory* hartako batzuk *Friendless* operazioan sartuak direla eta, mutikoak ere horrextan sartu dira, hots, **urpekari** alemanen ustezko ehizan. Edorta Jimenez

2 (adizlagun gisa)

Sentsazio goxo lasaigarria zen; aspaldiko urpekaritza-urteak gogora ekarri zizkidan sentsazio bat, alegia, **urpekari** jantzirik uraren presioa gorputz osoan emandako besarkada bat bezala hartzen nuenekoa. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bizkaiko **urpekari** talde bat Zierbenako kai muturreko uretan sartu zen atzo, bere kabuz, joan den larunbatz geroztik hor hondoratuta dagoen Diana Uno ontzia ikustatzeko. Kokainaz beteriko 20 kutxa atera zituen polizia **urpekari** talde batek, ontziak hondarra jo zuen tokitik hurbil. Berria - Euskal Herria

Hurrengoan **urpekari** -jantzia erosiko dit. Irene Aldasoro

Lekuan bildutako lagunetatik bi neoprenozko **urpekari** jantziz zeuden. Hasier Etxeberria

4 (izenondo gisa)

Atzo robot **urpekari** bat eta Frantziako fragata bat salbamendu lanak egiten hasi ziren. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urpekari talde (5); **urpekari talde batek** (3)

urpekaritza iz urpekariaren jarduera edo lanbidea.

Igerian oinez baino lehen ikasi duela esana du Goreauk, eta **urpekaritzan** oso gazte hasi zela. Berria - Gaiak

Ertzaina aditua zen **urpekaritzan**, eta praktikak egitera joan zen inguru horretara. Berria - Euskal Herria

Urpekaritza egiten ari zen gizon bat hil da Hondarribian. Berria - Euskal Herria

Sentsazio goxo lasaigarria zen; aspaldiko **urpekaritza** -urteak gogora ekarri zizkidan sentsazio bat, alegia, urpekari jantzirik uraren presioa gorputz osoan emandako besarkada bat bezala hartzen nuenekoa. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urpekaritza egiten (3)

urpeko 1 izlag ur azpikoa, urpean dagoena.

Gorputza ur gainean utzi zuen bare-bare, arima lasaiturik, **urpeko** belarrek eta sustraiak igurtzik uzkitzen zutela. Josu Zabaleta

Izotz tontorren alde ezkutua, izotzaren **urpeko** partea. Aintziraren hondoa **urpeko** mina eder bat jarri eta lehenbailehen lehertaraztearen aldeko zen bera. Joseba Sarrionandia

la berrehun metrora izango da, murutzar erromesak sortuko dira uretatik, **urpeko** lehegailuren batek jota bezala, olatu lodiak eta zurrunbiloak eraginez. Joseba Sarrionandia

Epizentrotik hurbil diharduten zientzialariek bazekiten **urpeko** lurrikarak olatu erraldoiak eragingo zituela. Berria - Mundua

Urpeko sumendi bat aurkitu dute Antartika iparraldean. Berria - Gaiak

Euskal Herriko **urpeko** arkeologiari buruzko erakusketara eta liburua aurkeztu dituzte Donostian. Berria - Kultura

Bost lagun hilda eta zenbait zauriturik gertatu dira gaur, duela hiru urte itsasotik batu zuten **urpeko** lehergarri batek eztanda egitean. **Edorta Jimenez**
Eta itsasontziak -ur azaleko zein **urpekoak** -, eta hegazkinak, eta bonba atomikoa, eta misilak, hauts hilgarriak eta baktería hilgarriagoak. **Joxerra Garzia**
Britaniarren gerra ahaleginari kolpe itzela jo diote U-ontzi **urpekoak**, bai, birfindegiak hilabetez itxita egon behar izan baitu. **Edorta Jimenez**

• 2 iz ur azpian murgilduta ibil daitekeen ontzia. ik **itsaspeko 2; urpekotzi**.

Urpeko batean egotea bezalaxe da, airea agortzen ari denean, Miximak zioenez. **Ibon Uribarri**

Urpeko bati esker egin ikertzeak argi eta garbi salhatua du barku hori, 3600 metrako barnatasunean dena, hamalau tokitarik zilatua eta arraildua dela. **Herria**

Gerran, etsaien **urpekoak** non dauden ikusteko arma paregabea da. **Berria - Gaiak**

3a (izenondo eta izenlagunekin)

"Nautile" frantses **urpekoak** azkenean tapatuak ditu ontziak zituen zilo eta arraildua guziak, orotarar hogoi bat. **Herria**

K-159 **urpeko** nuklearra Barentseko itsasoan hondatzearen ondorioz, bederatzik marinelek bizia galdu zuten. **Berria - Mundua**

Urpeko nuklear errusoa hondatu da goizeko 4 ornetan hango itsasoaren iparrean. **Herria**

Beharbada, batek ez dakielako noraino iristen diren lur azpiko base militarrek, eta, kaleetan barrena zoazela, ezin duzulako burutik atera agian **urpeko** atomikoak dabilzikizula oinpean nabigatzen edo. **Ramon Saizarbitoria**

'**Urpeko** horia', soilik ukituta. **Berria - Kirola**

3 irud/hed

Ibilbide politikoiari buruz, PCEkoa izan bazen «Eeko **urpeko** gisa» izan zela argitu zuen: «Hilabete batzuetako abentura izan zen; hain zuzen ere, PCE suntsitzeko. **Berria - Euskal Herria**

4 **urpeko ontzi** (*orobat untzi*) itsaspekoa, urpekoa.

Nemo kapitainaren **urpeko ontzi** bikaina. **Imanol Zurutuza**

Koursk: Hau da itsaspeko ontzi baten izena, Errusiarrek moldatua, munduan zen **urpeko untzietan** handiena eta gehiago dena arma atomikaz hornitua. **Herria**

Irudien eremuan Putinek utzi dituzte hiltzera mariñelak eta luzaz egon da itsas-zolan **urpeko untzia**. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urpeko arkeologia (3); **urpeko nuklear** (4); **urpeko nuklearra** (4)

urpekotzi (*orobat urpekotzi g.er. eta urpeontzi g.er.*) iz itsaspekoa, urpekoa. ik **itsaspeko 2; urpeko 2**.

Reich-aren *U-boat* **urpekotziek**. **Edorta Jimenez**

Bere Nautilus **urpekotzian**, gure ganbaran alegia, nik gogotik egiten nuen bere ontziko laguntzailearena. **Pello Lizarralde**

Gaur bertan heldu da **urpekotzi** errusiarra. **Harkaitz Cano**

Arminek emigratu nahi izan omen zuen, eta, oraingoan ere, Hannak gidatu, berak ezin ikus zezakeen eta seguru aski **urpekotzi** aleman batek hondoratuko zuen itsasontzi hartaraino **Urpekotzi** sobietiko batetik lehorreratutako iraultzailea. **Joxe Austin Arrieta**

Esan didatenez, hiri hau **urpekotzi** militarren basea izan da, eta oraintsu arte Sobiet Batasunari ere atek itxita bizi izan da. **Edorta Jimenez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urpekotzi errusiarren (5); **urpekotzi errusiarren periskopio** (3)

urpekuntzi ik **urpekotzi**.

urpeontzi ik **urpekotzi**.

urperarazi, urperaraz, urperarazten du *ad* urperatzera behartu.

Geratzen zitzaizkion indar apurrez yatearen motorra marxtan jarri eta gasolina bukatu zitzaion arte utzi zuen joaten, ozeanoan barrena, eta han, ontzia **urperarazteaz** batera, burdinazko pisu bati loturik eta perla beltza kolkoan, salto egin zuen uretara, tiburoien bazka eginik, bai bere burua, bai zoriak berari ez besteri emandakoa inork aurkituko ez zituelako esperantzan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

urperatu, urpera(tu), urperatzen **1 da ad** urpera joan. ik **hondoratu; urpetu**.

-Ederki **urperatzen** zara, mutiko -esan dio Lepic jaunak. **Itziar Otegi**

Zure aberastasunak, merkantziak eta salgaiak, zure marinel eta lemaizainak, zure itsas arotz, merkatarik eta gerlariak, daramatzazun ontzilari guztiak, itsasoaren erdian **urperatuko** dira zeu hondoratzean. **Elizen arteko biblia**

Denak, ibaiaren indarrak erasota, edo gainean zeramaten pisuagatik, azkenean **urperatu** eta ito egiten ziren. **Askoren artean**

Arrantza mota horretarako erabiltzen diren sareak 30 zentimetro inguruko sakoneraraino **urperatu** daitezke. **Berria - Gaiak**

Belaontzia ez zirudien **urperatuko** zenik, aldiz, airezko burbuila bat baillitza zihoan olatuen gainetik, irristadan bezala. **Koro Navarro**

Itotzeko zorian dagoen pertsona baten gorputza, gorputz horrek kanporatzen duen ur bolumena baino espezifikoki astunagoa bihurtzen da, eta ez litzateke inola ere **urperatuko**, baldin eta besoak azalaren gainetik jasotzen ahaleginduko ez balitz. **Koro Navarro**

40 nekazarik galdu ziren atzo, lanera joateko erabili zuten txalupa **urperatuta**. **Berria - Mundua**

Zurrumurruek ziotenez, aspaldiko urteetan Pasai Donibanetik gertu erdi **urperatuta** zegoen ontzi laranja herdoildu baten sotoa zen infernurako lasterbidea. **Harkaitz Cano**

Urperatutako ontziak 45 tona gasolio eta 3.000 litro olio zeramatzalako barruan. **Berria - Euskal Herria**

Bizkaiko Itsas Kapitaintzatik ontzia hondoratuta dagoen leku inguruan ez **urperatzeko** eta ez nabigatzeko agindu du. **Berria - Euskal Herria**

• 2 du *ad* urpera eraman.

Berriz ere burua **urperatu** zidaten. **Jon Maia**

Horrez gain, urtegiak lurrik emankorrenak **urperatu** zituen. **Jon Maia**

Eta, batere aztarnarik gera ez zedin, ibai bat desbideratu, eta **urperatu** egin zuten hiria. **Jon Muñoz**

Elementu hauek erretiraturik, lurra, orain amaigabeko itsasgain urdinkara hedatzen den lekuan, bat-batean hondoratu zen eta leizeak uhin gaziz **urperatu** zituen. **Xabier Amuriza**

Olatu erraldoiek hegoaldeko kostaldeko 2.000 kilometro inguru **urperatu** dituzte. **Berria - Mundua**

Ingelesek alemanei berrogei aleko ontzidi bat **urperatu** dietela. **Lopez de Arana**

Izei eta pinu enborrak, itsaslasterrak **urperatuta**, erruz azaleratzen dira, baina txiki-txiki eginda denak, ezpal mordo baten gisara. **Koro Navarro**

3 irud/hed

Oi, zergatik ez nintzen negar-malkotan **urperatu** bertan, neure larriari ur horrez igurtzaldi bat emateko? **Juan Garzia**

Justinianoren erreinuaren ondoren lonbardiak, eslaviar eta arabiar inbasioen uholdea etorri zen laster; antzeratsu [...] Hamurabiren lan neketsua laster **urperatu** zuen mendietako kasiten inbasioak. **Iñaki Mendiguren**

Unetxo batez bizitza **urperatzen** zenean, esperientziaren esparruak amaigabea zirudien. **Anton Garikano**

Iritzi batzuk, elkarrekin borroka eginez eta irakinez, argitu egiten dira, eta azaleratu egiten dira benetakoak, faltsuak ahazturan **urperatzen** diren bitartean. **Juan Martin Elexpuru**

4 (era burutua izenondo gisa)

Itsasontzi **urperatu** bati buruzko kantu bat abesten zuen gizon itsu batek. **Koro Navarro**

Kostako herri batean bizi naiz orain, eta ez dakit zergatik, inoiz baino presenteano ditut egun hauetan kartoizko kaxak, arrain laranjak, aitaren zapata bustiak, gure urte **urperatu** haiek. **Harkaitz Cano**

urperatze iz urpera joatea edo eramatea.

Bat-batean esku moduko batek itsaspetik atera eta baltsara jaso zuen berrero, eta **urperatetik** libratu zen besteekin batera. **Askoren artean**

Prestige ontziaren **urperatzeak** eragin dituen kalteak eta ondorioak aztertu zituen. **Berria - Euskal Herria**

Baina erromatarrek, mundu osorako egiten baitzituzten legeak, oso lege gizatiarrak eginak zituzten **urperatzeez**. **Iñaki Iñurrieta**

Azken bainua hartu zuenean urpean zenbat denbora pasatzeko gai ote zen neurtu nahi izan zuen, egunkarian irakurri zuen berri batek eragin bazion ere **urperatzearen** saiakera. **Harkaitz Cano**

Argi-malkoak iruditu zitzaizkion; **urperatze** etiliko baten hondarrak balira bezala. **Fernando Morillo**

Planta txarra daukazu. **urperatze** batetik salbatutako bakarra dirudizu. **Koro Navarro**

urperatze ar *adlag* urperatzeko zorian.

Urperatze ar zegoen gizasemearen burutazioak hartu zion berriz ere gogoa. **Harkaitz Cano**

Urperatze ar izan ziren; baina [...] egoera menderatu, eta Ushuaia bidean jarri ziren (Argentina), konponketak egiteko. **Berria - Kirola**

urpetu, urpe(tu), urpetzen 1 du *ad* urpean estalarazi.

-Lizarraren aurreko belardia **urpetu** dudala diote -azaldu zuen aitak. **Koldo Biguri**

2 (era burutua izenondo gisa)

Taldeka dabilta, lur **urpetuan** nabigatzen, euripean, euren palekin apurtzen zokor bigunak, euren eskuez berrantolatzen milpa, hura babesteko ahaleginean, lanik gabe haz dadin. **Juan Garzia**

urputzu ik putzu 43.

urraburu (*orobat urreburu*) iz itsaso bero edo epeletako arrain hezurduna, begien ondoan urre koloreko orban edo marra bat duena (*Sparus aurata*).

Hemen, bederenik, materia jatorra saltzen dizute: legatza beti da legatz, **urraburua** beti da **urraburu**, betiko eltzekaria benetako osagarritz dago egina. **Berria - Kultura**

Ezin zuen hitzik, otarrean hiltzen ari den **urraburu** ematen zuen, ezpaina. **Koldo Izagirre**

Urraburu errearen usaina sumatzen zen. **Ibon Uribarri**

Lupiak eta **urreburuak** lasai asko dabilta ni gabe. **Hasier Etxeberria**

urradura (*orobat urratu g.er.*) 1 iz urratua.

Urradura baten orbain zabalak ebakitzen zion begitarrea zeihar. **Karlos Zabala**

Neskatoak **urradura** bat baitzuen lepotik bularreraino. **Ibon Uribarri**

Ez du merezi, ezta ere, nire **urradura**, zauri eta kolpeen berri ematea. **Jon Alonso**

Adinekoek zauriak, ubelduak, hausturak, **urradurak**, buru edo aurpegiko lesioak, erredurak edo harramazkak izaten dituzte. **Berria - Euskal Herria**

Ebaki eta **urradura** batzuk baino ez zituzten. **Berria - Harian**

Bizar horrek azalean **urradura** txiki gorrixkak uzten dizkizu. **Sonia Gonzalez**

Dirudienez, Txemak erabilitako preserbatiboak **urradura** txiki bat zuen muturrean. **Josetxo Azkona**

Arrantzaleek soka batez lotu omen zuten gorpua, lehorrera ateratzeko, baina azaleko **urradurak** ukitu gabe. **Koro Navarro**

Fionn, ordea, jendearengandik aparte zebilen, baso sastrakatsuetan zehar, zauri eta **urraduraz** beterik. **Joanes Urkixo**

Salaberriak Bartzelonaren aurkako partida galdu zuen joan den asteburuan, aduktoreetan **urradura** bat zuelako. **Berria - Kirola**

Aberearen egoera penagarria ikusi zuen: sabela alderik alde irekita zeukan, hanka bat falta zitzaion eta **urradura** asko zituen agerian. **Joanes Urkixo**

Iduri zuen bere aurpegiari halako distira bat zeriola, zeinak jantzien **urradurei** inportantzia kentzen zien. **Matias Mujika**

Ez nengoen egiaz nire amarenean aurkezteko moduan, **urraduraz** beteriko mantalarengatik batez ere. **Joxan Eloseggi**

Ehun arraidura baino gehiago, **urradurak** eta zenbait puntutan pintura altxatzen hasia antzeman zioten obrari. **Berria - Kultura**

Ibaitezko hainbat diketan **urradurak** eginda, 2.000 milioi metro kubo uren desbideratzea kontrolatu dute. **Berria - Mundua**

Uhinen **urradura**, eta ondorengo txintxarri-soinua legarretan barrena. **Joxe Austin Arrieta**

2 irud/hed

Azkenean, mugitzen hasia lortu nuenean, halako **urradura** handia sentitu nuen barruan, neure borondatea bete ahal izateko, zerebroari eta gorputzari leherrak egin zitzaten eskatu izan banie bezala. **Joxan Eloseggi**

Ez zekiten zenbaterainoko **urradura** zeukan barruan; zenbaterainoko zauria utzi zion kontu guztiak. **Fernando Morillo**

Barrena kiskaltzen dizun **urradura**. **Koldo Izagirre**

Horrelakoxea da Euskal Etxeko areto nagusia, sexu bereizketarik gabea, baina antzematen da belaualdien arteko etena, **urradura**. **Pako Aristi**

Gizabanakoak izpiritua aski azkar eta erne balu bederen orain hemendik Hegoaren eta Iparraren biharko harremanak asmatzeko, belaualdien arteko loturak ala **urradurak** igartzeko! **Piarres Aintziart**

3 testu baten gainean egiten den marra edo kidekoa, idatzia zegoena baliogabetzeko. ikurratu¹ 12.

Nahiz eta Zelanoren esana, neurri batean behintzat, gezurtatu egiten duten Anai Leoni Gutuna idazki autografoan Frantziaskok berak eginiko **urradurek** eta zuzenketek,

Zelanoren esanak Frantziok bere idazkien kontrol zuzena zuela pentsarazten digu. **Askoren artean**

Zirriborroak, **urradurez** belztuak. **Jon Muñoz**

4 (hitz elkartuetan)

Bat-batean **urradura** -hotsa entzun zen eta arrautza zabaldu egin zen. **Iñaki Mendiguren**

Urradura -hots ozenaz, zorroa erdibitu egin zitzaion. **Iñaki Mendiguren**

Anartean mundu guzian zer bihotz **urradurak**, zer sofrikarioak! **Herria**

Zer erran eta zer egin holako sofrikario eta hoin jasangaiz den bihotz **urraduraren** antzinean? **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urradura txiki (3)

urraezin 1 izond ezin urratuzkoa.

Erdian zuloa izango du buruarentzat, eta zuloaren inguru-ertza ehun gogorrezkoa egingo diozu, bular-oskola bezain **urraezina**. **Elizen arteko biblia**

Nire burua madarikatu nuen **urraezina** zirudien une eder hura zapuztu izanagatik, baina egoerak ez zuen jada atzera-bueltarik. **Anjel Lertxundi**

Izadiaren egintzak, sortzearen misterioaz, **urraezinak** dira; ezinezkoa litzaiguke beroriek ezkatutzen dizkigun oihal estalkia jasotzea. **Andres Urrutia**

2 ezin hautsizkoa.

Ezkontza elkarte da; elkarterik naturalena, santuena eta guztien artean ere, **urraezinena**. **Andres Urrutia**

urragarri 1 izond urratzen duena; erdiragarria.

Garrasi **urragarriak** entzun nituen. **Jokin Urain**

Amaitutakoan oihu **urragarriak**, oihu zaurigarriak, oihu lehergarriak, entzun ziren alemanen alde horretatik zetozenak. **Felipe Juaristi**

Oihua izan zen, oihua, min oihu **urragarria**. **Felipe Juaristi**

Makurturik, belarria harriaren kontra jarririk, eta garrasi **urragarri** erantzuten zien haren dei guztiei. **Josu Zabaleta**

Oihuka betiere, baina ez lehen bezalako ahots **urragarri**. **Josu Zabaleta**

Negar egiteko gogoia eta etsimen **urragarria**, samin bortitzak eta paria baten lotsak, hori eragin didate. **Josu Zabaleta**

Lipar batean, haren irribarre argitsua laborri **urragarri**, eta suntsigarri betetako begirada bihurtu zen. **Oskar Arana**

Eta hau guztia zentzumen berberak eta, beraz, grina berberak dituzten gizonek gauzatua, itxurakeria ondo pentsatuekin eta tortura mantso eta **urragarriekin**; zein ikuskizun atsegina jendetza fanatikorentzat! **Juan Martin Elexpuru**

Doluko auhenak, alarua, arrangura adierazpen **urragarriak**, negargarriak. **Iñaki Arranz**

Hemen, komandantearen bulego honetan, heriotza ez zait iruditzen ez ospetsua, ez handitasunez bete, ez heroikoa, ez **urragarria**. **Josu Zabaleta**

Aitzin eguneko gertakizun anitz eta ezberdinei loturiko irudiek kuku egin zidaten kaxko barnean, hodei jostari eta anker baten moduan, zein baino zein **urragarriago**.

Aingeru Epaltza

Urragarriena, halare, beste guzkiek zuk baino dotoreago gezur esaten dutela ikustea da. **Patziku Perurena**

2 (hitz elkartuetan)

Garrasika ari zela iruditu zitzaion Paul D-ri; ahoa zabalik zeukan eta soinu ozen ez-tarri-**urragarri** hura... baina agian beste norbait izan zen. **Anton Garikano**

Emazte edo Ama Atsekabetuaren eta haren Senar edo Seme Sufrizaillearen figura bihotz-**urragarri** eta aldi berean adore-emaileek beren lehenengo epifania Istar eta

Tammuz-en izenpean egin baitzuten. **Iñaki Mendiguren**

Ikustaldia bukatu eta amarengandik alde egitea oso zaio bihotz-**urragarri** haurrari. **Gotzon Garate**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oihu urragarria (3)

urragoma iz borragoma.

Platanondoa atzera utzita, lepoaren atzealdea igurtzi duzu, nazien kontzentrazio esparruan egin ez dizuten marra-kode tatuaiak ezabatu nahian bezala; eta horren orde

urragoma papurrak diruditen atomotxo koloregabeak sartu zaizkizu azkazal barruetan, *Bourjois, ez Bourgeois, Blanc Cassé 02*. **Eider Rodriguez**

urraire izond urre kolorekoa. ik urrekara.

Aurrealdean erdi-erdian eta liburuaren bizkarrean, **urrairezko** letratan idatzirik, hitz bakar hau ikus zitekeen bi aldiz: *Fotos*. **Txillardegí**

urrakada iz urratzea. ik urradura.

Aulki birakarian higitzen ari zen, zapatez mahaiaren berniz-geruzan egiten zituen **urrakada** finei so. **Lopez de Arana**

urrakaitz izond nekez urratzen dena, ia urraezina.

Bien bitartean, gainerako eskola-lagunak beren baitara bilduak ziren, eta isiltasun **urrakaitz** bat barreiatua zen gelako zoko guztietan. **Pedro Alberdi**

Ezagutzen zuen, halaber, noraino zen **urrakaitza**, lainoek tartekatutako oztopoaren sendotasuna, distira hura kaleko asfaltoraino irits ez zedin. **Pedro Alberdi**

urraketa 1 iz urratzea, haustea.

Ez du tortura salatzen, ez du sakabanaketa aipatzen, ez da eskubideen **urraketa**z kexu, ez ditu kalean beharko luketenak gogoratzen. **Hasier Etxeberria**

Eskubide horien **urraketa** jabetza intelektuaren aurkako delitu bezala har daiteke. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Giza Eskubideen **urraketek** ingurumenaren degradaziora garamatzatelako. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Mona Hautoum palestinarrek edo Leon Golub estatubatuarrek ere ibilbide luzea daramate eskubide zibilen **urraketa**ren aurkako borrokan. **Berria - Kultura**

Intimitatearen **urraketarik** ez. **Berria - Euskal Herria**

Ekitaldien izaerak eta ezaugarriek Espainiako Konstituzioak defenditutako balioen eta elkarbizitza arauen **urraketa** ekar zezaketela. **Berria - Kultura**

Bidegabekeria, autokrazia eta nazioarteko legediaren **urraketa** laguntzea. **Berria - Mundua**

Osoko bilkurak «erantzule politikitzat» jo du Alfonso Alonso alkate popularra, interes publikoaren **urraketa** «bere utzikeriarekin» errazteagatik. **Berria - Ekonomia**

Adierazpen askatasunaren **urraketen** artean 'Egunkaria'-ren ixtea ere nabarmendu du PEN elkarteak. Berria - Euskal Herria

Botere publikoen eta justiziaren arteko bereizketaren **urraketa**. Berria - Euskal Herria

Bermeen **urraketa** «larriak» sumatu ditu *EH Watch* elkarteak epaiketari. Berria - Euskal Herria

Interes berezia izan dute herritarrek interes orokorreko zerbitzuen **urraketak** salatzeke. Berria - Harian

Auzitegiak prozesuan izaniko **urraketak** konpontzeke aukera. Berria - Euskal Herria

Itunaren **urraketaren** «erantzule politikotzat» jo du. Berria - Ekonomia

Giza eskubideen kontrako **urraketen** konplize izan daiteke. Berria - Mundua

Euskal gizartearen barne **urraketa** sakona. Joxe Azurmendi

Urraketak ikertu, eta egiazkoak direla frogatuz gero, bozak berriz egiteko eskatu zioten Bielorrusiako fiskal nagusiari. Berria - Mundua

Zein eremutan eta zein neurritan gertatzen dira **urraketa** horiek? Berria - Mundua

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Isiltasunarekin, horrelako eskubide **urraketa** larriak gerta daitezen bidea egiten dute, kazetariok gertatutakoaren berri ematerakoan bakarrik sentiaraziz eta ausartak izatera behartuz. Iñigo Aranbarri

Bi batzorde sortzen ari gara lege **urraketa** eta gehiegikeria horiek saihesteko. Berria - Mundua

Mozkortze eta diziplinaren arau-**urraketak**. Edorta Agirre

AEBak ikertzen ari dira Txalabik zer informazio mota helarazi zion Teherani, baita hark kode **urraketaren** berri zeinengandik izan zuen ere. Berria - Mundua

Hagitx ugaria da ordea liburua, nere betiko soilkeriotan ito nahi izateko; literatur **urraketa** honen harira, bai baitu beste oharpen dizdizari anitz. Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

askatasunen **urraketa** (3); **aurkako urraketa** (4); **defentsa eskubidearen urraketa** (3)

eskubide urraketa (37); **eskubidearen urraketa** (7); **eskubideen aurkako urraketa** (3); **eskubideen urraketa** (88); **eskubideen urraketa gainditzea** (3); **eskubideen urraketa larriak** (3); **eskubideen urraketa salatu** (5); **espainiako konstituzioaren urraketa** (3); **etengabeko eskubide urraketa** (3); **giza eskubideen urraketa** (33); **hizkuntz eskubideen urraketa** (9); **hizkuntza eskubideen urraketa** (6); **horrelako eskubide urraketa** (3)

konstituzioaren urraketa (3)

oinarriko eskubideen urraketa (10)

urraketa argia (3); **urraketa egin** (3); **urraketa gainditzea** (3); **urraketa guztiak** (5); **urraketa handiak** (3); **urraketa horien aurrean** (3); **urraketa izan** (6); **urraketa izan da** (3); **urraketa larriak** (8); **urraketa larrien** (3); **urraketa salatu** (7); **urraketa salatzeke** (5)

eskubide urraketak (16); **eskubide urraketak salatzeke** (3); **eskubideen urraketak** (41); **eskubideen urraketak salatu** (4); **giza eskubideen urraketak** (20); **hizkuntz eskubideen urraketak** (6); **hizkuntz urraketak** (4); **hizkuntza eskubideen urraketak** (3)

urraketak egin (3); **urraketak gertatzen** (3); **urraketak izan** (3); **urraketak jasan** (3); **urraketak salatu** (9); **urraketak salatzeke** (6)

eskubide urraketa (3); **eskubideen urraketa** (9)

eskubideen urraketa (3)

eskubide urraketa (3)

eskubide urraketen (6); **eskubideen urraketen** (19); **eskubideen urraketen inguruan** (3); **giza eskubideen urraketen** (10); **urraketen aurrean** (7)

eskubideen urraketen (3)

urrako 1 iz ipar urratua, urradura.

Begiak zerratu zituen, uste izan baitzuen, argiaren **urrakoa** lehian, ihortziria bertan eta berehala eroriko zitzaiea. Itxaro Borda

Urrakotik zenbait minuturen buruan eguna sortu zen, erabateko mirakulu. Itxaro Borda

Dudarik gabe, ezin onetsia kausituko zuten eta gure artean halako **urrako** bat geldituko zen. Daniel Landart

Urrako batzuk ez baitira behin ere hestean. Daniel Landart

Mundua neure begiz haztatzea eta onartzea dagokidala, gogoaren **urrakoa** gantza beroz josten saiatuz. Itxaro Borda

2 (hitz elkartuetan)

Gutxirekin bizi gara, beti badugu barne aberastuko gaituen zerbait berezi egiteko, argi-**urrakoak** iratzarraztera jalgitzen gara goizetan eta gero akademia virtualean biltzen. Itxaro Borda

Basamortuko argi-**urrako** ikaragarriak. Itxaro Borda

Jendartean, argi **urrako** bat zulatuz, segitzekoa nuena jin zen azkenean. Itxaro Borda

Larrua beltz neukan eta hitza mendekosteko argi-**urrakoetan** bezain nahas. Itxaro Borda

urrakor iz urratzeko joera duena, hauskorra.

Beharrezko estalkia, baina **urrakorra** eta gauzaren salneurria gutxitu beharrean handitzen duena. Juan Martin Elexpuru

Haize bolada batek txistu **urrakorra** eratu zuen kanpoko zuhaitzen adar artean. Fernando Morillo

urran ik hurren.

urranen ik hurren.

urrapen iz urraketa.

Oinarriko eskubide eta printzipioen **urrapena**. Berria - Euskal Herria

Egungo legeria ez da nahikoa Itunaren edukia bermatzeko, euskara eta gaztelaniaren arteko koofizialtasunaren **urrapen** sistematikoa ikusita. Berria - Euskal Herria

urrarazi, urraz, urrazten du ad urratzera behartu.

Jakinaren gainean zeunden, Jolivet jauna? -hitz egin zuen Harry Blountek, berriemaile frantsesaren esanak haren isiltasuna **urrarazi** baitzuen. Karlos Zabala

urrarazle izond/iz urrazten duena.

Lagunaren eleketa firfira jasangarri baten gisara egokitzen zen ene belarrietara, nitaz jabetutako baretasun mutua **urrarazle** gabe, lagungarri. Aingeru Epaltza

urraska (orobat urratska g.er.) adlag ipar urratsez urrats.

Kurri edo mintza beti da **urraska**. Herría

Eta horra, **urraska**, milaka urrats eginez, etxekoan laguntzarekin, egun batez, zer loria! "Bera abiatu da". Herría

Argi zirrintan Du Bellay plazan gosaltzen, metrora **urraska** aitzinatzen. Itxaro Borda

Minutuak **urraska** konta ditzakezen hirurogei segundotan agortzen du bere denbora. Filipe Bidart

Eta emeki-emeki, **urraska**, gauzak ari dira hor ere aintzintzen: animazioeak euskaraz; euskarazko seinaletika; "Zer berri" bi-hilabetekarian euskararen erabilpena, aldizkari hau 2200 aletan banatua delarik erizain eta gaineratiko langileeri... Herría

Urraska ibili behar da, ordea, eta, beste hizkuntzetan jokatzeko den bezala, jakinik etxean edo tabernan erabiltzen dugun moldea ez dela eskolan, elizan edo irratian erabiltzen duguna. Herría

2 urrask-urraska adlag

Zeren lehendakariaren emazte hori **urraska-urraska** dabilen bitartean, zure ikaslea gibelera baitoa, eta hori hainbat okerragoa da. Jon Muñoz

urraskada iz urratsa.

Fanch bere nekazari lanetan higitzen zela, alokatu mendikleta harturik nik Kadoran puntaraino eraman nituen **urraskadak**. Itxaro Borda

urraskide iz urrats berean ari den pertsona.

Jo aintzina, trantsizioez axolatu gabe, bada hainbertze egiteko, mundu zabaleko hainbat **urraskiderekin**. Herría

Jo aintzina, trantsizioez axolatu gabe, bada hainbertze egiteko, mundu zabaleko hainbat **urraskiderekin**. Herría

urrasño (corpusean urratsño soilik) iz urrats txikia.

Nahiz harri izatetik hurrengo mailarat iragaiteko **urrasño** bakoitzarentzat ez dakit zenbat miloi urte behar izan. Jose Angel Irigaray

Bere aldetik, Madrilgo gobernuak ez **urrasño** bat ere egiten bake-bide funtsezko bati buruz! Herría

urraspide (orobat urratsbide) iz urraskako jarduera; metodoa.

Irakaskuntza publikoan ari den Ikas-Bi elkarteak ez du parte hartuko ekimen bateratuan baina, bere aldetik, Hezkuntza Ministerioa auzitara eramateko **urraspidea** abiatu du.

Berría - Euskal Herría

Animazio hori ipuingintzan oinarritzen da, **urraspide** honi jarraikiz: [...]. Herría

Euskal Herriko historia egiterakoan tranpak badaude, arriskuak, ikuspegi edo **urratsbide** uniformista batetik dena begiratzea. Berría - Kultura

urrats (orobat urhats g.er.) 1 iz ibiltzean, oin bat altxatu, aurreratu eta berriro lurrean uztea. ikpauso; oinkada.

Zenbait **urrats** egin zituen ostatuko ate aldera. Aingeru Epaltza

Jainkoaren kutxa zeramatenek sei **urrats** egin zintuztenean, idia eta zekor gizendua eskaini zituen opari. Elizen arteko biblia

Jo ninduen gizonak **urrats** batzuk egin zituen atzera. Alberto Ladron Arana

Egiten nuen **urrats** bakoitzarekin, ematen zuen komun-ontzia astunagoa bihurtzen zela. Oskar Arana

Urrats batzuk sentiturik, begiak zabaldu nituen. Anjel Lertxundi

Urrats batzuk... Burdinazko ate bat zabalitzen... **urrats** eta harrabots bitxi batzuk... burdinazko ate bat hesten... eta fitsik ez gehiago. Filipe Bidart

Zeldako ibilaldiari berritz lotzen naiz, bat bi hiru **urrats** joan, bat bi hiru **urrats** jin, bat bi hiru **urrats** joan, bat bi hiru **urrats** jin. Filipe Bidart

Urrats eta ahotsen zalaparta gero eta handiagoa zen korridorean. Alberto Ladron Arana

Tarteka baitirudi, Heletako besta berrietan bezala gure dantza-jauziek egiten dutela, **urrats** bat aitzina egin orduko, beste bi **urrats** gibelera. Piarres Xarriton

Presoaren **urratsak** ibiltokian. Filipe Bidart

2 (izenondo eta kidekoekin)

Atzera eta aurrera hasi nintzen, **urrats** handiak eginez. Koro Navarro

Urrats handiz konpartimentuko atera itzuli zen. Alberto Ladron Arana

Urrats luzez alde egin zuen oihanera eta bistatik galdu zuten. Iñaki Mendiguren

Patxada ederrean eta **urrats** beti-berdinak eginez. Jose Morales

Eserita zegoen gizonetako bat, zutitu, eta alde batetik bestera **urrats** arinetan hasi zen paseoan. Inazio Mujika Iraola

Kalezuloaren goialdetik zetozen **urrats** arin batzuen hotsa entzun zuen segidan. Patxi Zubizarreta

Urrats biziz etxeari buelta eman eta atzealdeko paretaren kontra bermatu nuen bizkarra. Alberto Ladron Arana

Pilar leihora hurbildu zen **urrats** motelak eginez. Aitor Arana

Del Vallek Hans ikusi zuen, gela **urrats** astuneh zeharkatzen. Alberto Ladron Arana

Kanpoko aterantz abiatzen hasi ziren, **urrats** nekatuak eginez. Iban Zaldúa

María Strogoff **urrats** irmoz ofizialari jarraitu eta posta etxetik irten zen. Karlos Zabala

Urrats sendoetan ikusi zuen kalezuloan barneratzen. Patxi Zubizarreta

Perlesiaturik bezala nengoan, **urrats** bakar bat egiteko beldurrez. Alberto Ladron Arana

Legegizon eta funtzionarioetan ere frankok egin zuten **urrats** bera. Aingeru Epaltza

Txakurrak paseatzera etortzen diren andreak, beltzez jantziak, arkupean azpian ibiltzen dira **urrats** pausatuz, paretan ondokit. Monika Etxebarria

Gelaz gela ibiltzen zen **urrats** presati, desberdin eta helburu gabeez. Koro Navarro

- Ezkaratz ilunean hara eta hona **urrats** handika bazebilen. Itxaro Borda

Del Valle **urrats** luzeka urrundu zen karrikan behera. Alberto Ladron Arana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hatza berriro txirinerantz hurbiltzen ari nintzelarik, **urrats** hotsa entzun nuen atez bestaldean. Alberto Ladron Arana

Lanpara-argi bat ikusi genuen guregana hurbiltzen, eta **urrats** -hotsak eta bozak entzun genituen. Mirentxu Larrañaga

Korridoreko ahots eta **urrats** soinuak, konpartimentuko intimitate ahula etengabe mehatxatzen dutenak. Ramon Saizarbitoria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arrebak sonanbulo-**urratsez** aurrera nola egiten zuen begira geratu zen Jonathan. Jon Muñoz

Dantza-**urrats** laburrak eginez haienganantz zihoala [...]. Lopez de Arana

Goian ate bat zabalitzen entzun zuten, klaska, eta oin-**urratsak** gero arineketa baina astun samar, eskaileretan behera. Mirentxu Larrañaga

Oin- **urrats** eta agintu sutuak sentitzen ziren eskaileretan gora. **Anjel Lertxundi**
Karolinerekin beti bezala, dena atake- **urratsean** gertatu zen. **Matías Mujika**
Gizon bakarra bailiran portugaldarrek aurrera egiten dute karga- **urratsez** eta garrasiak eginez elkarri adorea emateko. **Jon Alonso**
Haur baten lehen ikas- **urratsen** antzekoa. **Xabier Olarra**

5 irud

Hizketan jarraitu zuen don Ottaviok, korapiloaren askabidera eraman zuen bidearen **urrats** bakoitza gogora ekarriz. Bere arimako eta gorputzeko **urrats** guztietan zuzen ibiliko da eta izanen da guztiz aberatsa. **Jon Muñoz**
Polizia gainean daukazu, sinis egidazu, zuen **urrats** guztiak kontrolatzen dituzte. **Josu Landa**
Oroitu nintzen Elizak baduela boterearen eskarmentua eta arras ongi informatua dela honen edo haren **urratsez**. **Piarres Aintziart**
Guztia Jesusen Ebanjelioari erantzunez eta haren **urratsei** jarraituz. **Askoren artean**
Kristok, zuengatik sufrutuz, ikasbide eman zizuen, zuek ere haren **urratsei** jarraituz joka dezazuen. **Elizen arteko biblia**
Haren pentsamenduaren eta ibilbide espiritualaren **urratsak** seinatzen dituzte. **Askoren artean**
Arrazoimenaren **urrats** denak modu argiaren erakusteko asmoa duen Filosofia. **Ibon Uribarri**

6 urratsen segida eta segida horren nolakotasuna; ibiltzea edo ibiltzeko era.

Aldapan behera bide egin zuten **urrats** onean. **Elena Touyarou**
Brnoko apezpikua hor baitator, bere segizioarekin **urrats** geldian, aldareantz. **Juan Garzia**
Ukabilkada alegia gibelean, agurtako, **urrats** handian urrundu aitzin. **Aingeru Epaltza**
Eskuak fusilaren burdina hotzaren gainean hertsatu eta aitzina dabil, **urrats** tikian, orbelak sala ez dezan. **Aingeru Epaltza**
Maldan goiti **urrats** luzean, ez da gelditu berriz oihanpean izan arte. **Aingeru Epaltza**
Cumhail, Fionn eta Mael zaldien **urratsean** zihoazen. **Joanes Urkixo**
Altxatu eta komunera jo nuen **urrats** nahitaez motzean. **Aingeru Epaltza**
Hiru gizon patar goiti **urrats** bizian hurbiltzen ari zaizkidala. **Piarres Aintziart**
Kontrako espaloira jo nuen **urrats** bizi urdurian, eta hortik txartelperaino segitu nuen. **Aingeru Epaltza**
Bi bidelagunak uzten ditut ezker, bat bestearen gibelean dabilela, eta ni eskuin, haien **urrats** berean. **Piarres Aintziart**
Baserritarren jitea zuen ibileran, **urrats** luze astitsuz. **Juan Garzia**
Urratsa luzatuz edo eskuin edo ezker eginez, xinaurriak ez lehertzeko, banoa aitzina. **Piarres Aintziart**
Urratsa mantsotu zuen orduan. **Patxi Zubizarreta**

6a irud

Mendebaldeko nazio guzietan ez zuten ordea, **urrats** berean egin mende berrietako bidea. **Piarres Xarriton**
Jakina da, ordea, administrazioa barearen **urratsean** dabilela. **Eneko Bidegain**

7 urrats baten bitartea.

Dei egin nien hogeiren bat **urrats** aitzinatua nituen lagunei. **Koldo Izagirre**
Bi **urrats** aurrerago zegoela ematen zuen norbait. **Jon Alonso**
Bakarrik zegoen zumarraren ondoan, hogei bat **urrats**. **Koldo Izagirre**
Zalakaindarrak Urbiatik **urrats** gutxira bizi ziren. **Koro Navarro**
Zirkulutik **urrats** baterat paratu zen. **Joan Mari Irigoien**
Ezustean herriatik **urrats** gutira aurkitu nintzen. **Koldo Izagirre**
Iardako bina **urrats** kontatuz, kalkulatu nuen berrogeita hamar iardako jira izango zuela ziegak. **Koro Navarro**
Belar gaineko bi musuzapi zuriak hogei **urratseko** tartera daude bata bestetik. **Jon Muñoz**
Bulegoa katedraletik lau **urratsetan** zuen. **Elena Touyarou**

7a irud

Kolpetik aberats bihurtuta, hilobitik **urrats** batera nago. **Aitor Arana**

8 mailaka edo zatika egiten den zerbaiten maila edo zati bakoitza.

Estetikaren historiaren **urrats** nagusiak. **Askoren artean**
Europaren integrazioak, azkenik, **urrats** erabakigarria izan zuen gaztelar-genoar ontzidiak 1292an Gibraltarko itsasartea hartu zuenean. **Koro Navarro**
Argudiatzearen **urrats** orok justifikatuta egon behar du. **Askoren artean**
Handik nire emaztea solasera ekartzera **urrats** ttipia zen. **Aingeru Epaltza**
Esan dezadan, horren harira, 1876az gero **urrats** esanguratsua egin zirela Hego Euskal Herrian ortografia alorrean. **Koldo Zuazo**
Gramatikalariek egin dute hurrengo **urratsa**, joera horiek zehaztu eta arautu dituztenean. **Koldo Zuazo**
Prozesua zehazteke dagoen arren, gai honetan zientziak **urrats** handiak egin ditu urteetan zehar. **Pello Salaburu**
Enbrioiaren garapenaren **urratsen** batean. **Juan Garzia**
Puntu horietan alde batera utz dezakegu **urratsez urratseko** bilakaera. **Isabel Arrigain**
Orobat gertatzen da une jakin batean egindako aurreikuspenetarikoz batzuk ikerketaren **urrats** berri batek gezurtatzea. **Juan Garzia**
Uste izateko zen moduan, urratsez **urrats** eraikitzen da arkitektura hori, eta gene multzo berezi baten kargu dago **urrats** bakoitza. **Juan Garzia**
Bigarren **urrats** batean ikusi beharko litzateke ea nola gara daitekeen, hiri egitura fisiko horretan, dibertsitatearen kultura. **Bernardo Atxaga**
Hizkuntzalari askoren ustez, bigarren **urrats** gisa baino ez zen etorriko banakoen arteko komunikazio-sistema gisa erabiltzea. **Juan Garzia**
Urrats bakoitzean, zientzialaria beharturik dago kritikaren eta esperientziaren irizpena jasotzera. **Juan Garzia**
Iruditu zitzaizkidan bazegoela hartarako **urrats** bat aurreratzea eta ugaztun-zelulen ezaguera egitea sagu-zelulak haziz. **Juan Garzia**
Orain, dena dela, lantegia apailatzeko **urrats** honetan, badakikezu zertan lagun nazakezun. **Txillardeggi**
Dirudienaz, kanpoko munduaren gogo-irudikapena aberastuz joan da *Homo sapiens* eraman duten entzefalizazio-**urratsetan** zehar. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

aldeko urrats (13); **aurrera urrats** (9); **azken urrats** (7); **behar diren urrats** (12); **beharreko urrats** (6); **bere urrats** (8); **beren urrats** (9); **beste urrats bat** (105); **beste urrats batzuk** (9); **bi hiru urrats** (6); **bi urrats** (30); **bi urrats egin** (9); **bigarren urrats** (11); **egin urrats** (6); **egindako urrats** (8); **egiteko urrats** (9); **elkartasun urrats** (6); **fedezko urrats** (7); **gure urrats** (7); **hainbat urrats egin** (9); **lau urrats** (9); **lehen urrats** (62); **lehen urrats bat** (19); **lehen urrats gisa** (12); **lortzeko urrats** (6)

urrats asko (20); **urrats asko egin** (9); **urrats ausartak** (6); **urrats bakar** (14); **urrats bakar bat** (9); **urrats bakoitza** (20); **urrats bakoitzean** (16); **urrats bat** (403); **urrats bat aitzina** (11); **urrats bat atzera** (10); **urrats bat aurrera** (19); **urrats bat baizik** (7); **urrats bat bera** (7); **urrats bat da** (37); **urrats bat dela** (10); **urrats bat egin** (81); **urrats bat egitea** (10); **urrats bat egiteko** (6); **urrats bat egiten** (14); **urrats bat eman** (7); **urrats bat gehiago** (38); **urrats bat izan** (11); **urrats batean** (9); **urrats baten** (8); **urrats batzu** (20); **urrats batzuk** (92); **urrats batzuk egin** (31); **urrats bera** (11); **urrats berean** (9); **urrats berri** (33); **urrats berri bat** (20); **urrats berria** (6); **urrats berriak** (26); **urrats berriak egin** (6); **urrats berriak egiteko** (6)

urrats egin (62); **urrats egin behar** (9); **urrats egin zuten** (6); **urrats egiten** (7); **urrats erabakigarria** (13); **urrats erabakigarriak** (6); **urrats eraginkorrak** (8); **urrats garrantzitsu** (12); **urrats garrantzitsu bat** (6); **urrats garrantzitsua** (58); **urrats garrantzitsua da** (16); **urrats garrantzitsua egin** (13); **urrats garrantzitsuak** (13); **urrats garrantzitsuak egin** (8); **urrats garrantzitsuztat** (6); **urrats gehiago** (16); **urrats gehiago egin** (6); **urrats gisa** (23); **urrats gutxira** (6); **urrats guziak** (12); **urrats guztiak** (43); **urrats guztiak egiteko** (10); **urrats handi** (21); **urrats handi bat** (13); **urrats handia** (58); **urrats handia egin** (23); **urrats handia eginen** (6); **urrats handia egingo** (8); **urrats handiak** (30); **urrats handiak egin** (17); **urrats handiz** (13); **urrats historikoa** (6); **urrats hori egin** (16); **urrats hori egitea** (8); **urrats hotsak** (7)

urrats irmoz (7); **urrats luze** (6); **urrats luzeak** (22); **urrats luzeak eginez** (15); **urrats luzez** (29); **urrats nagusiak** (6)

urrats on (10); **urrats on bat** (6); **urrats pare** (7); **urrats positibo** (6); **urrats praktikoak** (7); **urrats sendoak** (19); **urrats sendoak egin** (7); **urrats txiki** (12); **urrats txikiak** (8); **urrats zehatzak** (12)

urratsez urrats (114); **urratsez** urrats egin (7); **zein urrats** (11); **zenbait urrats** (34); **zenbait urrats egin** (11); **zenbat urrats** (8); **zer urrats** (10)

aurreneko urratsa (9); **azken urratsa** (36); **azken urratsa egin** (6); **beharreko lehen urratsa** (9); **beharreko urratsa** (6); **bigarren urratsa** (18); **egindako urratsa** (10); **hirugarren urratsa** (10); **hurrengo urratsa** (75); **lehen urratsa** (200); **lehen urratsa da** (14); **lehen urratsa egin** (32); **lehen urratsa izan** (15); **lehenbiziko urratsa** (11); **lehendabiziko urratsa** (13); **lehenengo urratsa** (28)

urratsa bete (6); **urratsa da** (38); **urratsa dela** (18); **urratsa egin** (99); **urratsa egin du** (26); **urratsa egingo** (7); **urratsa egitea** (12); **urratsa egiteko** (10); **urratsa egiten** (14); **urratsa eman** (15); **urratsa izan** (29); **urratsa izan da** (6); **urratsa izan zen** (6); **urratsa izango** (12); **urratsa izango da** (6); **urratsa zen** (10)

aldeko urratsak (23); **araberako urratsak** (9); **azken urratsak** (13); **behar diren urratsak** (14); **beharreko urratsak** (24); **bere lehen urratsak** (8); **bere urratsak** (7); **egin beharreko urratsak** (18); **egin diren urratsak** (13); **egindako urratsak** (23); **egiten diren urratsak** (6); **elizako urratsak** (9); **fedezko urratsak** (6); **hurrengo urratsak** (13); **lehen urratsak** (177); **lehen urratsak egin** (17); **lehen urratsak egiten** (10); **lehen urratsak eman** (6); **lehenengo urratsak** (8); **lortzeko urratsak** (7); **nire urratsak** (9); **nolako urratsak** (6)

urratsak egin (118); **urratsak egin behar** (20); **urratsak egin ditzan** (9); **urratsak eginak** (6); **urratsak eginen** (6); **urratsak egingo** (14); **urratsak egitea** (31); **urratsak egiteko** (86); **urratsak egiteko eskatu** (12); **urratsak egiteko prest** (6); **urratsak egiten** (70); **urratsak egiten ari** (26); **urratsak eman** (20); **urratsak emateko** (12); **urratsak ematen** (11); **urratsak entzun** (6); **urratsak entzuten** (8); **urratsak eskatu** (6); **zuzendu zituen urratsak** (7)

hurrengo urratsean (6)

urratsei jarraitu (7); **urratsei jarraituz** (10); **urratsei jarraitzen** (10)

urratsez urratseko (7)

herri urratsen (32); **urratsen bat** (6); **urratsen berri** (9); **urratsen oihartzuna** (6)

elizako urratseri (7)

bi urratsetan (41); **egun guzietako urratsetan** (6); **eguneroko urratsetan** (6); **guzietako urratsetan** (6); **lehen urratsetan** (7); **zenbait urratsetan** (8)

urratsez urratseko (7)

urratsik egin (30); **urratsik egingo** (7); **urratsik egiten** (7); **urratsik eman** (6); **urratsik ez egitea** (6)

urratsbide ik **urraspide**.

urratska ik **urraska**.

urratsño ik **urrasño**.

urratu¹, urra, urratzen (*orobat urrutu g.er.*) **1** da/du *ad* papera, ehunak eta kidekoak lanabesen laguntzarik gabe hautsi.

Kontu handiz [...] erregalu-papera ez **urratzeko** ahaleginetan, emazte gazteak oparia irekitzen du. **Oskar Arana**

Mespretxuzko oihu tiki bat egin eta... zarrast! goitik behera **urratu** zuen gutuna. **Joxan Elozegi**

Eskutitza jaso eta kartazala **urratzen** duen bitartean. **Joxerra Garzia**

Harry gutunazala **urratu**, pergaminozko lehen orria atera eta irakurtzen hasi zen. **Iñaki Mendiguren**

Ellen doinu hori dantzatzan ari zen, besoak kulunkatuz eta bere oin arinez egunkaria **urratuz**. **Lopez de Arana**

Estalkiari tira eta tira ari zela, **urratu** egin zaio. **Anjel Lertxundi**

Hitz hauek entzun zituenean, **urratu** egin zituen Akabek bere jantziak. **Jose Antonio Mujika**

Belaun batean, praka **urratua** zuen. **Iñaki Mendiguren**

Sasiek **urratutako** soinekoaren puskak hiru bat hatz zabal eta sei hatz luze ziren. **Xipri Arbelbide**

Jantziak hortzekin **urratzen** zituen. **Askoren artean**

Soinean zeramatzan arropak **urratu** zitzaizkionean biluzik ibili zen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Esku artean besterik ez zuenean, bere jantziak ematen zizkien, josturak askatuz edo **urratuz** banatzeko. **Askoren artean**

Pantxok urdin nabarmena du kopetan, **urratua** kamisetan. **Aingeru Epaltza**

Jantziaren pusketa bat **urratu** eta luze-luze jarri nuen angelu zuzenean paretaren kontra. **Koro Navarro**

Sofa alderik alde zegoen **urratua**, betegarria kanpora ateratzen zitzaion. **Fernando Rey**

Oinetakoak **urratuak** zituen, ezkerrekoaren aztala hautsia. **Eneko Bidegain**

2 irud/hed

Izan ere, Anshelek asmatu zuen emaztegaiaren mintza **urratzen**. Malko txiki batek **urratuko** zuela putzuaren mintza. **Koro Navarro**

Lokomotoraren argiek ere, gauaren tapetea **urratzen** deneko distira bortitz eta dirdaitsua marraztuko zuten noski airean. **Harkaitz Cano**

Tximistak zerua **urratzean** sortarazten duen danbateko moduko bat aditu zen solairu osoan. **Josetxo Azkona**

Gaueko zeru iluna **urraturik**, zerrenda gorriak ageri dira ekialdean. **Javi Cillero**

Lozorro sakonenetik atereaz, ametsen baten sare fina **urratzen** dugu. **Koro Navarro**

Eta makulua harturik, airea **urratu** zuen, keinu harekin bere erudizioa ito nahi zuten amaraunak ere **urratzeko**. **Anjel Lertxundi**

"Hil ezazue!" bezalako garrasiz **urratu** zuten airea. **Julen Gabiria**

Tximist batek **urratu** zuen aretoko leiho nagusitik ageri zen gau beltza. **Anjel Lertxundi**

Egundoko iluntasuna egin zen tximistak gaua **urratu** eta gero. **Anjel Lertxundi**

Argiak ilunpea **urratu** zuen. **Fernando Rey**

3 (era burutua izenondo gisa)

Paperentzako ontzia, bulegotik propio ekarria, orri **urratuez** beterik zegoen. **Jon Alonso**

Aurpegi-aurpegira bota zion etsaiari pergamino **urratua**. **Josu Zabaleta**

Jantzi **urratuak**, izerdituak, zerrikatuak, usainduak eta zorritz emokatuak behin betirako baztertu zituen. **Eneko Bidegain**

Harry jo eta ke hasi zen dena bere zorro **urratuan** sartzen. **Iñaki Mendiguren**

Nerabe bihurtu aitzineko neskato garai bat, jean gorri **urratuekin**. **Oskar Arana**

Berak erantzi zizkidan arropa **urratuak**. **Aingeru Epaltza**

Arropa **urratuen** artetik emakumearen larruazal zuria ikusten zen, erreka meheek gorritua. **Aingeru Epaltza**

Txabola mailara iristen ez diren oihalezko bizitegi **urratuak** ikusiko dituzu, jendez beterik. **Gotzon Garate**

Laino trinkoenak ere halako batean desegin, eta lits **urratu** bihurtzen ikusten zituen modu berean. **Anjel Lertxundi**

4 pitzadura egin, hautsi, desegin.

Kolpeka, ateko oholak **urratu** zituen. **Koro Navarro**

Armaturak **urratu** egiten ziren. **Fernando Morillo**

Metala **urratzearekin** batera, txirbil fin-finak harrotzen zituen zizelak. **Iñaki Iñurieta**

Koltxoia **urratu** eta koltxoia berruian ehun errealeko billeteak topatzen genituen. **Harkaitz Cano**

Ezustean, tontorrean metatu elur-hegala pisuaren pisuz **urratu** zen eta amilka erori. **Josetxo Azkona**

Haietako bat berehalera hasi zen dorre gotortu horma hezur batekin **urratzen**, eta haren masa gogorra hautsez egina balitz erraz hasi zen desegiten. **Askoren artean**

Zeren eta azalak du kolpea hartzen, azala da **urratzen**, azala da zartatzen. **Ana Urkiza**

Zakurrak haginkada batez **urratu** zion aurpegia. **Gotzon Garate**

Kanibeta zorrotz batekin **urratu** dio sabelalde. **Patziku Perurena**

Hantxe zetzan Miren, lepoa **urratuta**, odoletan blai. **Migel Angel Mintegi**

Bi zauri izugarri **urratua** zuen aurpegia. **Jon Muñoz**

Tximak nahasten eta gorputz osoa **urratzen** zuen, zoritxarreko istripuagatik negarrez. **Askoren artean**

Sudurra atzaparkatua, belarria **urratua**, masaila ubeldua, galtzak apurtuak, horra Max jangela-egongelako atea bultzatzen. **Jon Muñoz**

Burdinazko kako bat dauka eskumako eskuan, eta haragia **urratzen** dizu, atzaparka bezala. **Julen Gabiria**

Mutil gazteak eztarria **urratu** zuen, beharrik gabe edo emaitzarik gabe. **Mirentxu Larrañaga**

Haren ezpainetatik irteten ziren hitz gordinek jendarme bati ere **urratuko** zioten eztarria. **Karlos Zabala**

Ahotsak zintzurra **urratzen** zion. **Lopez de Arana**

Mina, kaskezurra **urratzean** bakarrik sentitzen ahal den mina, ondotik lotu zitzaidan. **Aingeru Epaltza**

Diskoa **urraturik** egonen da toki horretan, zarata xelebrea egiten baitu. **Monika Etxebarria**

Baforearen korazta ura **urratzen**. **Koldo Izagirre**

5 irud/hed

Mary Ann bere emazteari eta Liz zein Sara bere alabei agur esan beharrak bihotza **urratu** zion. **Berria - Kultura**

Damatxo gazte horrek makina bat bihotz **urratu** behar du, inork inoiz **urratu** badu. **Mirentxu Larrañaga**

Emakumeak, bihotza **urraturik**, esan zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Norbait ari zitzaiola sentitzen zuen, bihotza eskuetan hartu, eta oihal baten moduan **urratzen**. **Anjel Lertxundi**

Min erdiragarri batek bihotza **urratzen** zion. **Fernando Rey**

Ez nintzen neure buruaren jabe, sarrakio zorrotz batek **urraturik** neukan barrena. **Anjel Lertxundi**

Kemena zerion haren aurpegi zargalduari, eta,aldi berean, akidurak **urratuta** ageri zen. **Jon Muñoz**

Bekaitzaren sua pizturik, bake gozatsua hautsi egin zen eta liskarrak eta barne-borrokak Eliza **urratu** zuten. **Askoren artean**

Espainiara itzuli ondoan ikusiko du nola Frantzia **urratzen** duten erlisioneko gerlek. **Piarres Xarriton**

6 adkor

Gülbahar oinazeak **urratua** zegoen. **Urratua** bukatzen diat, baina, gure adinean, galduak gaudek geure buruari gogor egin ezean. **Aingeru Epaltza**

Nik, gutienez ere, hik adina arrazoi zaukaat logalez **urratua** egoteko, baina hemen nauk, bolantearen aitzinean. **Aingeru Epaltza**

Osoan abandonatu ez ninduen buruko mina biziagoturik, garunak **urratu** beharrean nituen orain. **Aingeru Epaltza**

Kemena zerion haren aurpegi zargalduari, eta,aldi berean, akidurak **urratuta** ageri zen. **Jon Muñoz**

7 (aginduez, legeez eta kidekoez mintzatuz)

Oroitarazi nion bere nagusiaren agindua **urratzen** ari zela. **Aingeru Epaltza**

-Zergatik **urratzen** duzu erregearen agindua? **Jose Antonio Mujika**

Adin Txikikoen Aztikeria Murritzeko Dekretua hain larri **urratu** ondoren, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Zaharitzeak arrazoi guti eman dio araua **urratzeko**. **Aingeru Epaltza**

Hainbeste arau ari zen **urratzen**, non sekula ere ez baitzen gai izango haien guztien zigorra ordaintzeko. **Koro Navarro**

Zuzenaren eta konpasaren legea **urratzen** ausartu zen lehena, ordea, Hipias Eliskoa izan zen. **Jon Muñoz**

Horrek nazioarteko legedia **urratzen** du. **Berria - Harian**

Egitasmoan Nafarroaren eskumenak eta araubidea **urratzen** dira, eta nafarrei iseka egiten zaie. **Berria - Euskal Herria**

Japoniak bi herrialdeen arteko akordioak **urratu** zituela-eta, [...]. **Koro Navarro**

Kongresuko tramitazioak Espainiako Konstituzioaren eta EAEko Estatuaren hainbat artikulua **urratzen** zituen. **Berria - Harian**

Promes **urratu** batek ekarri nau ni hona, Frantziara. **Mirentxu Larrañaga**

Ezkontza-harreman bakarraren lotura zentzugabeari kateatzea, naturak emakumeei ezartzen dien patua **urratzea** da nabarmen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Seme-alabek ere ez dutela zertan gehiago sufritu dibortzioarekin, ezkontza **urratu** bati dagozkion desadostasunekin baino. **Andres Urrutia**

8 (bestelako gauza abstraktuez mintzatuz)

Zerk **urratu** du defentsa eskubidea? **Berria - Euskal Herria**

Ez dakizu soilik irritsak duela amodioaren lotura **urratzeko** eskubidea? **Jon Muñoz**

Ez bakarrik iduritzen zitzaielako aitatzik haren baitan ezarri zuen konfiantza **urratuko** zukeela. **Eneko Bidegain**

San Giovanniko betiko bakea ozta **urratu** ere egingo zuena. **Josu Zabaleta**

Bizia **urratu** didak hik. **Eskarne Mujika**

Kaiolan sartutako animalien oihuek gaueroko monotonia **urratu** zuten. **Javi Cillero**

Saturnoren ilargi handienaren sekretuak **urratzea** Lurrean bizia nola sortu zen ulertzeko baliagarria izan daitekeela uste dute astronomoek. **Berria - Gaiak**

Akaso inoiz ez diolako nehoi kontatu, akaso oroitzapenak euriteek **urratzen** dituztelako. **Eider Rodriguez**

Batzuk besteekin itxuraldatu, sistemaren batasuna **urratu** gabe, izpiritu orokorra bortxatu gabe. **Andres Urrutia**

Batasunaren legez kanporatzeak ez du inoren elkartzeko askatasuna **urratu**. **Berria - Euskal Herria**

Sirena hots batek **urratu** zuen barealdia. **Aritz Gorrotxategi**

Adak berak **urratu** zuen isilune desererosoa. Une hartantxe, isiltasuna **urraturik**, Darruitx xekega begiak apalduz mintzatu zen. **Anjel Lertxundi**

Dilin-hots apal batzuek baizik ez zuten **urratzen** haien isiltasuna. **Jon Muñoz**

Berebiziko garrantzia zuen nire erantzunak, goiz osoko nire mututasuna **urratuko** bainuen. **Anjel Lertxundi**

Azkenean garrasi batek, ikara eta atsekebezkoa irudi, **urratu** zituen nire ametsak. **Koro Navarro**

9 (era burutua izenondo gisa)

Komunean, argia piztu gabe pixa egin eta eztarri **urratua** laxatu nuen. **Aingeru Epaltza**

Zintzurra lehertu arte oihu egingo du eta -esan zuen Nelliék ahots **urratuaz**. **Lopez de Arana**

Ahots **urratu** batez agindu zion kentzeko bertatik jaki nardagarri hura mahai gainetik. **Josu Zabaleta**

Han larrazko oinetako garestiak eta fokuek argizaturiko abeslaria, bere ahots keak **urratuarekin** eta ñirñirka ari zitzaion zilar koloreko soinekoarekin. **Oskar Arana**

Alde egitekotan zen emazte boz **urratu** bat aditu zuenean. **Elena Touyarou**

Kexu **urratu** batez egin zuen intziri. **Juan Garzia**

Miles Davisen tronpeta **urratua** eta John Lee Hockerren aiene lakarra. **Lourdes Oñederra**

Nire bihotz **urratuak** kontsolamendua behar zuen eta ematen ahal zidan bakarrarengana joana nintzen. **Aingeru Epaltza**

Beti izan zuen ahots ona, baina, orain, zaharragoa izanik [...] halako tasun berri eta erakargarri bat erantsi zitzaion: sakona, **urratua** eta sentsuala zen zerbait. **Oskar Arana**

Familia **urratuetan** hazitako umeek beti eramango dute lauza bat beren buru-bihotzetan. **Gotzon Garate**

10 (argiaz, egungia, egungia eta kidekoez mintzatuz, ireki, ibili).

Argia **urratu** baino lehen, neguaren bihotzeko desordua hozperera hartan. **Pako Aristi**
Harik eta Istriar argia **urratzen** hasi zen arte. **Josu Zabaleta**
Artean gauak aldagaitz irauten baitzuen egunsentia **urratu** aitzinean. **Mirentxu Larrañaga**
Argia **urratzearekin** batera abiatu nintzen harantz. **Josu Zabaleta**
Laurak ziren ordurako eta eguna **urratzen** hasia zen. **Koldo Biguri**
Apiril biribilak argiro **urratu** du eguna. **Patziku Perurena**
Euritsu **urratu** du Istanbulgo nire azken eguna. **Jon Arretxe**
Kanpoan dena ilun zegoen, baina ekialdean sarri **urratuko** zuen egunak. **Aingeru Epaltza**
Egun berria **urratzean**, taupadaka zuen bihotza ezinegonaz. **Fernando Rey**

11 bideaz eta kidekoez mintzatuz, ireki, ibili.

Zenbaitetan bizkor eta zuzen joaten zen, sastrakaren artetik bidea **urratuz**. **Anton Garikano**
Etorbide zabal-zabalak **urratu** nahi dituzte, eta perspektiba luzeak eraiki. **Juan Garzia**
Begiz jarraitu dituzte satorrek **urratutako** korridore haizatuak. **Itziar Otegi**
Aldeko bekigu Jaungoikoa eta sinetsi duguna ulertzen lagun diezagula, ziur baikaude profetak **urratutako** ildotik gabiltzala. **Imanol Unzurrunzaga**
Gogetaldi guziz aberatsa, ainitz ildo **urratuz**, artikulua huntan hitz guttiegi bildu duguna. **Herria**
Bazekien bidea **urratu** beharra zeukala, aurrea hartu behar ziola idazleari ahal zuen neurrian, berak markatu behar zuela ildo, eta ez hark. **Imanol Zurutuza**
Aldi berean, bere inspirazio ebanjelikoaren indarrez, bide propioa **urratuko** du, bizimolde alternatiboa proposatuko. **Askoren artean**
Aurrerakuntza handiak egiten direla medikuntzan denbora gutxian, baina artean bide luzea geratzen zela **urratzeko**. **Imanol Zurutuza**
Juan Mateo Zabalak 1848an **urratutako** bidean lagun ugari ibili zen ondorengo urteetan. **Koldo Zuazo**
Esan zidan leku hartan benetan merezi zuen zerbait aurkitzen banuen, gero bera etorriko zela niregana berak ere gozatzeko, baina bitartean nik bidea **urratu** behar nuela. **Fernando Rey**
Hala, bidea **urraturik** utzi dio amodio kristauari. **Patziku Perurena**
Raffaella Bombellik **urratu** zuen lehenik bide hura. **Jon Muñoz**
Dantzaleku txikian borborka higitzen zen dantzari-jendetzan barrena bidea **urratzen**. **Jon Muñoz**
Abuztuko igande goiz horretan, ez nuen felicitaziorik espero aurreko egunean **urratu** ez nuen bideari lotzean. **Aingeru Epaltza**
Gora eta gora, kizkurra eta bihurria sugegorrien antzera, harkaitz bertikalean zehar pasagunea **urratuz**. **Agustin Otsa**
Helburua betetzeko maiz itzuli egin behar baldin badu, beste bide bat **urratzeko**. **Ibon Uribarri**
Locke sonatuari eskertu behar zaio bertara daraman bidea **urratu** izana. **Ibon Uribarri**
Bidea **urratu** gabea naiz, baina badut hango berri milaka erromesi entzunda. **Aingeru Epaltza**
Zibilak, bordetakoa nonbait bukatu, berak **urratutako** bidean ari dira. **Aingeru Epaltza**

12 testu baten ganean marra edo kideko bat egin, idatzia zegoena baliogabetzeko. ikborratu.

Luma Amanciori kendu, eta *San* **urratu** zion tintaz *San Sebastián*, hala zetorren leku guztietan. **Inazio Mujika Iraola**
Bi aldiz azpimarratu zuen, letraren bat gainetik ukitu zuen, eta ondorengo unean orria **urratuta** zegoen, lau aldiz **urratuta**, hori baino gutxiago ez da nahikoa orria baliogabetzeko eta hori baino gehiago prekauzio maniakoak da. **Jon Alonso**
Zenbakia **urratua**, hainbetez hilabete eta urte luzez esklabuzaren sinbolo gisa jasan zuten zenbakia kendu zieten, une hartarik landa ez zirela gehiago zenbaki, baizik eta gizon, ulertu zuten. **Eneko Bidegain**
Kexu agertu ziren hala ere, hiru bat tinta-**urratu** ageri zirela eta. **Inazio Mujika Iraola**

13 (era burutua izenondo gisa eta hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Hona gure elbarrituak, ezinduak; gure zurtzak, bakartuak, bihotz-**urratuak**, bizi-puskatuak, oroimenaren zulo beltzean iltzatuak. **Iñaki Segurola**

14 irriz urratu

Irriz urratu zen. **Itxaro Borda**
Harekiko ene gibel asmo goibelak ehortziz, **irriz urratu** nintzen, azkenean lasaitua. **Itxaro Borda**
Hi ikusita mutur-ozpinena ere **irriz urratzeko** maneran. **Aingeru Epaltza**
Irriz urratua zegoen haurra, bizkitartean matematikak nahikoa maite zituela. **Itxaro Borda**
· **Irri** -ajatak **urratzen** ziren Garrúzeko armagizonak. **Aingeru Epaltza**

15 jos ahala urratu izan (orobat josahala urratu) du ad ipar egitekoez mintzatuz gainezka izan.

Hala ere badute juje horiek **jos-ahala urratu** ezen, trenkatzen dituzten baino afera gehiago jiten zaizkie mahai gainera. **Herria**
1856an Lacroix apezpikuak Deiheralde eta Hazparneko misionesten gain eman nahi izan zutela hango euskaldunen ardura, baina **jos ahala urratu** bazuela jadanik hemengo misioneeekin. **Xipri Arbelbide**
Frantzia behere hortan ere badute **jos-ahala urratu** oihan eta larre askotan suari ezin ihardokiz! **Herria**
Demokrazia berpizten ari Espainian eta bazuketela **jos ahala urratu**, segurrenik ere. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agindua urratu (5); airea urratu (5); airea urratu zuen (3); akordioa urratu (4); alkandora urratu (4); arauak urratu (4); argia urratu (4); artikulua urratu (8); askatasuna urratu (5); askatasunak urratu (4); azala urratu (4); bere jantziak urratu (6); bide bat urratu (3); bide berriak urratu (7); bidea urratu (24); bidea urratu zuen (5); bideak urratu (3); bihotza urratu (12); bihotza urratu zion (4); defentsa eskubidea urratu (3)
eguna urratu (8); egunsentia urratu (3); erabat urratu (3); erdi urratu (6); erdi urratu zen (3); erdi erdi urratu (5); eskubide urratu (6); eskubidea urratu (22); eskubidea urratu zuela (3); eskubideak urratu (51); eskubideak urratu ditu (3); eskubideak urratu dituzte (4); eskubideak urratu egiten (6); eskubideak urratu izana (3); eskubideak urratu zituela (5); eskumenak urratu (4); etengabe urratu (4); eztarria urratu (18); eztarria urratu arte (5); eztarria urratu beharrean (8); giza eskubideak urratu (11); goitik behera urratu (4); goiz urratu (3); greba eskubidea urratu (3); hainbat eskubide urratu (5)
isiltasuna urratu (8); isiltasuna urratu zuen (3); ituna urratu (9); jantziak urratu (25); jantziak urratu zituen (7); jos ahala urratu (8); josahala urratu (4); langilean eskubideak urratu (4); larri urratu (4); larriki urratu (3); legea urratu (16); legeak urratu (7); legedia urratu (8); legerik urratu (3); nazioarteko legedia urratu (4); oinarriko eskubideak urratu (5); punturen bat urratu (4); soinekoak urratu (4)
urratu arte (9); urratu aurretik (4); urratu baino lehen (3); urratu beharra (3); urratu beharrean (13); urratu beharreko (5); urratu beharrez (3); urratu besterik ez (3); urratu da (4); urratu direla salatu (3); urratu ditzaketen lege (3); urratu du (16); urratu eta gero (3); urratu gabe (15); urratu gabea (3); urratu izana leporatu (4); urratu ondoren (3); urratu zen (17); urratu zuen (70); urratu zuen isiltasuna (4); urratu zuen zerua (4); zerbait urratu (3); zerua urratu (4); zintzurra urratu (3)
ahots urratua (3); azala urratua (3); bihotza urratua (5); eskubidea urratua (3); urratua izan (5); urratua zegoen (4)
bihotz urratuak (3); eskubideak urratuak (7)
bidea urratuko (3); eskubideak urratuko (3); eskubideak urratuko (7)
bihotza urratuak (4); jantziak urratuak (8)
erabat urratuta (4); eskubideak urratuta (4); eztarria urratuta (3); urratuta geratu (3); urratuta zegoen (3)
urratutako bidea (3); urratutako bidean (3); urratutako bideari (3); urratutako eskubidea dela (3)
ahots urratuz (3); atorra urratuz (3); bidea urratuz (3); eskubideak urratuz (6); isiltasuna urratuz (3); legea urratuz (3)
akordioa urratzea (3); eskubideak urratzea (27); eskubideak urratzea leporatu (6); giza eskubideak urratzea (8); legea urratzea (5); oinarriko eskubideak urratzea (5); punturen bat urratzea (3); urratzea egotzi (7); urratzea leporatu (13); urratzea leporatu zion (3); urratzea leporatuta (4); urratzea leporatzen (6); urratzea salatu (4)
agindua urratzeagatik (5); eskubideak urratzeagatik (3); eskubideak urratzeagatik (9); giza eskubideak urratzeagatik (3); legea urratzeagatik (3)
eskubideak urratzeaz gain (4)
bidea urratzeko (3); eskubideak urratzeko (8); eskubideak urratzeko arriskua (3); eztarria urratzeko (4); legea urratzeko (3); oinarriko eskubideak urratzeko (3);

urratze (3); **urratzeko arriskua** (4); **urratzeko bidea** (3)
adierazpen askatasuna urratzen (4); **airea urratzen** (7); **akordioa urratzen** (4); **alderdien legea urratzen** (5); **arauak urratzen** (3); **araudia urratzen** (5); **argia urratzen** (8); **arima urratzen** (3); **artikulua urratzen** (6); **askatasuna urratzen** (8); **berriz urratzen** (4); **bide berriak urratzen** (5); **bidea urratzen** (11); **bideak urratzen** (7); **bihotza urratzen** (7); **burua urratzen** (3); **defentsa eskubidea urratzen** (10); **duintasuna urratzen** (3)
eguna urratzen (5); **egunero urratzen** (6); **eskubide urratzen** (10); **eskubide urratzen dituela** (3); **eskubidea larri urratzen** (3); **eskubidea urratzen** (40); **eskubidea urratzen ari** (13); **eskubidea urratzen duela** (3); **eskubideak etengabe urratzen** (7); **eskubideak gehien urratzen** (3); **eskubideak sistematikoki urratzen** (7); **eskubideak urratzen** (168); **eskubideak urratzen direla** (17); **eskubideak urratzen direlako** (3); **eskubideak urratzen ditu** (13); **eskubideak urratzen dituela** (24); **eskubideak urratzen dituelako** (3); **eskubideak urratzen dituen** (13); **eskubideak urratzen jarraitzen** (3); **eskuduntzak urratzen** (5); **eskuduntzak urratzen dituela** (4); **eskumenak urratzen** (7); **eskumenak urratzen dituela** (3); **espainiako konstituzioa urratzen** (8); **eta berriz urratzen** (4); **eta eskubideak urratzen** (3); **etengabe urratzen** (9); **etengabe urratzen dira** (3); **euren eskubideak urratzen** (3); **euskaldunen eskubideak urratzen** (3); **gehien urratzen** (3); **giza eskubideak urratzen** (50); **gure eskubideak urratzen** (3); **hainbat eskubide urratzen** (6); **haragia urratzen** (3); **herritarren eskubideak urratzen** (5); **hizkuntz eskubideak urratzen** (11); **hizkuntza eskubideak urratzen** (8)
isiltasuna urratzen (6); **ituna urratzen** (13); **izateko eskubidea urratzen** (3); **konstituzioa urratzen** (15); **konstituzioa urratzen duen** (3); **larri urratzen** (5); **lege urratzen** (3); **legea urratzen** (31); **legea urratzen duten** (5); **legeak urratzen** (8); **legedia urratzen** (9); **mexikoko konstituzioa urratzen** (3); **nazioarteko legeak urratzen** (4); **nazioarteko legedia urratzen** (5); **nazioarteko zuzenbidea urratzen** (6); **nola urratzen** (7)
oinarriak urratzen (3); **oinarriko eskubideak urratzen** (17); **presoen eskubideak urratzen** (4); **sistematikoki urratzen** (11); **sistematikoki urratzen dira** (4)
urratzen ari (72); **urratzen hasi** (10); **urratzen hasia** (3); **urratzen jarraitzen** (3)
zein eskubide urratzen (3); **zerbait urratzen** (3); **zerua urratzen** (4); **zuzenbidea urratzen** (7); **zuzenbidea urratzen duela** (5); **zuzenean urratzen** (3)

urratu² 1 iz urratzearen ondorioa. ik urradura; urraketa.

Aurreratuko nituen hamar edo hamabi urrats, eta hartan zangoen artean trabatu zitzaizkidan **urratua**. **Koro Navarro**
Galtzerdietan **urratu** bat zuen neska oroitarazi zioten. **Mirentxu Larrañaga**
Hark ere bazauzkak **urratuak** galtzontziloetan. **Aingeru Epaltza**
Hodeien **urratuetatik** esne itxurako eguzki distira margulak iragazten dira. **Pello Lizarralde**
Ez da ezer, aurreko kristalarekin egindako **urratu** txiki bat besterik ez. **Patxi Iturritegi**
Eskuineko eskumuturraren parte batean ere **urratu** handiak ageri zituen. **Koro Navarro**
Perrexila moztu zuen, guraizeen hotsa entzuten zela, eta, azkenik, limoi-azalak birrindu zituen, **urratu** bat eginik hatz-muturrean. **Jon Muñoz**
Aurpegian **urratuak** eta lepoan ubeldura batzuk. **Gotzon Garate**
Zeren **urratu** haiek, sakonak ez ziren arren, gaiztu eta gaixtotu egin baitzitzaizkion Mattini. **Joan Mari Irigoien**
- **Urratu** horiek hobeki garbitu behar ditugu. **Joan Mari Irigoien**
Neska bat besoko **urratua** sendatzen ari zaio mutil bati. **Aingeru Epaltza**
Iodo-tintura **urratu** eta harramazketarako, metileno-urdina eztarriko minerako. **Fernando Rey**
Niri bala pare batek **urratua** egin zidatean buruan, huskeria. **Koldo Biguri**
Hamar mila metro gora indar gogortxoak eginez gero, gerta daiteke bihotzeko giharretan **urraturen** bat eragitea. **Josu Zabaleta**
Urratuak konpontzea. **Lourdes Oñederra**

2 (izenondoekin)

Urratu zabal bat zeukan sabel aldean, haragia hezurreraino ebakitzen zuena. **Karlos Zabala**

3 irud/hed

Nire espiritua behintzat holaxe dago: lekuek eragindako **urratuekin** markatuta. **Bernardo Atxaga**
Lehenagotik, haren maiteño izandako aunitz ikusiak zituzkeen bertze baten besotik kateatuak, eta ez hargatik **urraturik** bihotzean. **Aingeru Epaltza**
Lurrak euria behar din, zeru urdinean **urratu** bat egingo bagenu. **Javi Cillero**
Isiltasunaren **urratu** bakarra ere handixetik heldu zen: ohe zaharraren azpiko malgukien negar etena, gainean inor bulka-bulkaka aritzean. **Aingeru Epaltza**
Etorkizun eder baten itxaropenean bizi gintuan uka, eta hark sendatzen zizkigun errealitate upidagabeak azalean utzitako **urratu** eta zauriak. **Xabier Montoia**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Diziplina **urraturik** txikiena eginez gero, zapla, hantxe omen zegoan beti, zaldi gainean senegales-en bat zigortzeko. **Jokin Urain**
Ezkerreko eskumuturrean bi azal-**urratu** zituen, biribilak, soken ondoriozkoak itxuraz. **Koro Navarro**
Hiztun baldarra semantikaren beldurrean bizi da, semantikaren kartzela edo putzu sakon eta ilunean; handik hegatzten da ezinka beti, sekula ez hotsetatik eta beren josi-**urratuetatik**. **Iñaki Segurola**

5 testu baten gainean egiten den marra edo kidekoa, idatzia zegoena baliogabetzeko. ikurratu¹ 12.

Handik puska batera, **urratua**, ezabaketak eta zuzenketak lagun, emaitza hau iritsi zuen: [...]. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
urratu bat (20); **urratu batek** (4); **urratu batez** (3); **urratu txiki** (9); **urratu txiki bat** (6)
urratua egin (3)
urratuak egin (3)

urratugabe 1 izond urratu ez dena.

"Lur **urratugabeak**" erantzun kementsuagoak sortarazten ditu jada landua izan den eta honela aurreko okupatzaile "zibilizatuek". **Iñaki Mendiguren**

2 emakumeez mintzatuz, birjina dena.

Harrezkero, gauero eta hutsik egin gabe, bisirriari neskatila **urratugabe** bat logelara eramateko agindu baitzion. **Patxi Zubizarreta**
Erregearen barrena ezin oso bakean egon, zeren, itzulitakoan, emazte-mirabeak eta neskame-morroiak hiltzeaz gain, gauero-gauero neskatila **urratugabe** bat eskatzen hasi baitzen. **Patxi Zubizarreta**
Neska **urratugabearen** bularrak ziren, hain ongi osatuak eta tenteak, bularraldean barneratu egin baitzitzaizkion. **Patxi Zubizarreta**
Eta gaua ere kilikagarria gertatu zitzaizen ezkonberriei, batez ere Gauhara artean **urratugabea** baitzen. **Patxi Zubizarreta**

urratura ik urradura.

urratzaile (orobat urratzale g.er.) 1 izond/iz urratzen duena. ik hausle.

Artista saillkazina, **urratzailea**, libreia eta harrigarria. **Berria - Kultura**
Gaurko gizartearen gauzarik **urratzaileena** bizitza tradizional baten "normaltasuna" izan daitekeela dio Puppyk. **Joseba Zulaika**
Bortxaketa, kaosaren eta nahasmenduaren jainkoa, isolamenduen **urratzailea**. **Oskar Arana**
Estatuek zerbitzatzen duten sistema kapitalistaren Europa dugu indarrean, gurea bezalako herrien ukatzailea, justizia sozialaren **urratzailea**. **Berria - Euskal Herria**
Beraz, lege urratzeak dohainik aterako zaizkie **urratzaileei**. **Berria - Euskal Herria**

Zeruan globo gidagarri bat noraezean [...] hodei bigunen eta euriak garbitutako zeruaren **urratzaile** geldoa. **Lopez de Arana**

Beraz, lege urratzeak dohainik aterako zaizkie **urratzaileei**. **Berria - Euskal Herria**

Amatxik erresumin etengabea zeraman, herio dantza lanzinantearen urratsen **urratzaile**. **Itxaro Borda**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lege-**urratzaile** izan edo ez, Harry ziur zegoen Ronnek eta Hermionek lagunduko zioketela orain. **Iñaki Mendiguren**

Oraindik indarrean gelditzen da lege-**urratzaileei** zigorra jartzeko botereren bat, edonor edo asko izanda ere. **Esteban Antxustegi**

Badakik erruduna eta arau-**urratzailea** naizela. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ortografia alorrean, ostera, urrats esanguratsuak egin ziren, eta horretan, hain zuzen, Iparraldekoak izan ziren bide **urratzaile**. **Koldo Zuazo**

Bai marxistek eta bai demokrata liberalek, beste gabe faxistatza edo faxismoaren bide-**urratzailetzat** jo izan dituzte askotan horrelakoak. **Joxe Azurmendi**

Hautsa irensten zuela, eskuak lotzen zizkion burdinaren hegia nabari zezakeen, larru **urratzaile**. **Itxaro Borda**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Sakona, urratua eta sentsuala zen zerbait, halako xalotasun hunkigarri eta bihotz **urratzaile** bat, jarlekuan tente jarri eta entzutera behartzen zintuena. **Oskar Arana**

Jonnyk, Mira Rothenberg psikologo bide-**urratzaileak** deskribatutako mutiko autistak,aldi batez ez zuen marraztu bonbillak edo bonbillaz osatutako eraikin edo pertsonak besterik. **Xabier Olarra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bide urratzaile (5)

disko urratzaileak (4)

urratzale ik urratzaile.

urratze 1 iz urratu aditzaren aditz izena.

Zenbat **urratze** ez ote zuen egin!. **Koro Navarro**

Urratze hori, gainera, legez egiten da. **Berria - Euskal Herria**

Urratze horiek zein unetan gertatzen diren ere nabarmendu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Justizia arloko 50 **urratzeren** berri eman diote Europako Batzordeari. **Berria - Euskal Herria**

Gertatutakoa krimen zital eta barkaezina da, herri palestinarri laido egite bat, eta akordio guztien **urratze** bat. **Berria - Mundua**

Trena Gaztelako ordokian zihoan, eta egunaren **urratzea** ageri zen zeruertzean. **Josu Zabaleta**

Hala da Giscarden Europa horren printzipioa gustatu zaiela gehieneri, hots 25 nazioeen buruzagier, eta badela hor batetaratze nahikeria bat, nehorik ez bailuke denen **urratze** baten hobendun izan nahi. **Herria**

Trena Gaztelako ordokian zihoan, eta egunaren **urratzea** ageri zen zeruertzean. **Josu Zabaleta**

ik beherago 5. **Askoren artean**

2 (izenondoekin)

Hori Dombrowskirekin sinatu zuen kontratuaren **urratze** argi eta garbia zela. **Oskar Arana**

Eskubide demokratikoen **urratze** larria. **Iñaki Heras**

Giza eskubideen eta eskubide kolektiboen **urratze** ikaragarria dago Euskal Herrian. **Berria - Euskal Herria**

Euskararen eta gaztelaniaren arteko koofizialtasunaren **urratze** sistematikoa. **Berria - Euskal Herria**

Alferrik ekingo diote Euskaltzaindiko hizkuntza jagole guztiek batzuen eta besteen arau **urratze** askatzaile hauen gibeletik. **Iñigo Aranbarri**

Jainko Egileak lege bat ezarri baino ezin zezakeen egin eta zigor beldurgarriak jarri lege horren **urratze** formalengatik Dibortzioaren arrazoiak kontratuaren **urratze** agerikoak dira. **Iñaki Mendiguren**

Garenari buruzko kritika, jartzen zaizkigun mugen eta muga horien **urratze** posiblearen analisi historikoa baita aldi berean. **Askoren artean**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urratze -hots ozena zabaldu zen airean; liburu izugarrietako bik beste bat harrapatu zuten, eta hura zatikatzen ari ziren. **Iñaki Mendiguren**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ongi zegokidan, bizitzen horren zaila den bihotz-**urratze** eta askatasun nahastearen irudi hura. **Joxan Elozegi**

Ur tanta batzuk bota zituen pipara... horra beste lege-**urratze** handi bat, su bat itzaltzea. **Koro Navarro**

Alferrik ekingo diote Euskaltzaindiko hizkuntza jagole guztiek batzuen eta besteen arau **urratze** askatzaile hauen gibeletik. **Iñigo Aranbarri**

Orain arte egindako legez kanpoko eskubide **urratze** guztiei «babes juridikoa eta legezketasuna» emateagatik. **Berria - Euskal Herria**

Bide **urratze** horretan hiru ardatz izan behar ditugula kontuan uste dut: a) euskararen historia, b) dialektologia, eta c) soziolinguistika. **Koldo Zuazo**

5 argi/egun urratze

Biharamuneko **argi-urratzean**, aldiz, behe-laino batekin iratzarri gintuen egunak. **Joan Mari Irigoien**

Argi-urratzearekin irten ginen etetik. **Juan Garzia**

Argi urratzearen hasieran, bere buruari itzuli emanez doa eguna, etenka. **Juan Garzia**

Izarpean pasatzen duen lehenbiziko gaua omen du Sabeth nire besoan artean, **argi-urratzearen** zain gaudela, hotzez dardarka. **Joxe Austin Arrieta**

Argi urratzean jaiki eta seguru zegoen aurkituko zuela. **Anton Garikano**

Zenbait mende geroago lanerako **argi-urratze** uherretan aspaldian Otsabidetik partitu herritarren bat ezagutzen zuen. **Itxaro Borda**

Egun urratzetik eguzki gorritua zuhaitz handi biluztuen atzean etzan zen arte. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urratze larria (4)

eskubideen urratzea (7)

eskubide urratzeak (3); **eskubideen urratzeak** (16); **giza eskubideen urratzeak** (8); **urratzeak salatze** (3)

argi urratzean (6)

urratzearekin batera (3)

urratzeaz *adlag* urratzeko zorian.

Lurra, 12 josturetatik **urratzeaz**. **Berria - Gaiak**

Hona hemen, eguna, zeru gautarra **urratzeaz**. **Mirentxu Larrañaga**

Kapan bildu eta hiritik kanpora abiatu zen, eta dendara egunsentia **urratzeaz** zegoenean iritsi zen. **Agustin Otsa**

urratzeke *adlag* urratu gabe.

Izan ere, ezin naiz nire seme hilarekin bakarka egon arima **urratzeke**, eta nori hitz egin niezaioke. **Eduardo Matauko**

urraza ik **uraza**.

urrazuar *izlag/iz* Urrazukoa, Urrazuri dagokiona; Urrazuko biztanlea.

Horietao bat, adibidez, Martin Karrika **urrazuarra**. **Gotzon Garate**

urre (*orobat urhe g.er.*) **1** iz gai bakuna, kolore hori distiratsuko metal bikaina, urak, aireak eta azidoek erasotzen ez diotena (*Au*; at. z. 79).

Urrea material bolkanikoan barreiatuta dago. **Berria - Gaiak**

Zilar, **urre**, harribitxi, usainki, babeski eta era askotako gauza baliotsu ugari bildu zuen. **Elizen arteko biblia**

Gurtu nahi genuke, goratu eta ohoratu ere bai erregalia mistikoekin, **urre**, intsentsu eta mirrarekin. **Joan Mari Lekuona**

Urrea eta zilarra jainkoen tenpluak eta erregeen jauregiak edertzeko baino ez baitzituzten erabiltzen. **Iñaki Iñurrieta**

Urrearen "egiazko" esanahia "izpirituala" da -ekonomiko, estetiko, sinbolikoa-, ez kimiko naturala; baina **urreak** gauza material, natural bat izatea ez du uzten horregatik. **Joxe Azurmendi**

Handik itzuli garelarik, **urrea** eman dit: nik banaka arakatu ditut hogei barratxoak. **Juan Garzia**

Harryk Gringottseko **urre** guztia emango zukeen han bertan lurrundu eta desagertzeagatik. **Iñaki Mendiguren**

Baduzu nahikoa **urre** ardi eta gamelu asko erosteko. **Xabier Aranburu**

Edozein metal **urre** bihurtzeko gai dela. **Xabier Aranburu**

Beruna **urre** nola bilakatzen den jakin nahi dut. **Xabier Aranburu**

Sakeletan **urre** eta zilarrezko txanponen hotsa. **Iñaki Mendiguren**

Munduko **urre** guztiaren truke ere ez zirela hara hurbilduko, pasatu zituzten miseria eta neke ikaragarriak gogoan. **Ramon Saizarbitoria**

Iraganaren bila dabilena, **urre** bila dabilena bezala, erotu egiten da. **Anjel Lertxundi**

Urre bila etorritako asko indio ehizara dedikatu ziren. **Joseba Sarrionandia**

Hartu zorro hau bete **urre**, eta etortzen diren mirabe, kantari eta ileapaintzaileei eskukada bana eskaini. **Patxi Zubizarreta**

ik beherago 8. **Askoren artean**

Urreak adina balio dik horrelako emakume batek denda batean. **Karlos Zabala**

Behin ikusi zuen **urrearen** distira. **Iñaki Mendiguren**

Ez dut nire alaba zure semearekin ezkunduko, ezta haren pisua **urrean** ematen badidazu ere. **Patxi Zubizarreta**

Monsieur, bere pisua **urretan** balio du. **Xabier Olarra**

Ez du ahantzi behar 150 milun **urretan** pagatu ziola Haitik Frantziari bere libertatearen erosteko. **Herria**

1a (bitxiak eta kidekoek egiteko erabili den gai gisa)

Urrearekin eginiko bitxiak, zeramikazko piezak, litografiak eta arkatz zein ur margoekin sortutako koadroak. **Berria - Kultura**

Zerbitzu bakoitzerako behar ziren **urrezko** ontziek zenbat **urre** eta zilarrezkoek zenbat zilar beharko zuten zehaztu zion. **Elizen arteko biblia**

Eskuina altxatu eta **urrezko** eztei-eratzuna erakutsi dio Imanoli. **Iban Zaldúa**

-Benetan bekatu larria egin du herri honek, **urrezko** jainkoa eginez. **I**

Pantea artile finez eta **urrez** jantzirik zegoen. **Juan Garzia**

Beltzez jantzirik eta **urrez** koroaturiko gizonak bere tronuan igurikatzen zuen meteororen etorrera. **Juan Garzia**

Urrez bordaturiko eta harribitxi zizelkatuz ederturiko jantzi sakratuak. **Askoren artean**

Argi berdeko esmeralda handiak **urrean** kokatzen dira. **Xabier Amuriza**

Bi izaki hegadun egingo dituzu, **urretan** landuak. **Elizen arteko biblia**

2 (izenondoekin)

Urre ona hangoa; badira han erretxina eta harribitxiak ere. **Elizen arteko biblia**

Ematen zuen auzoak zerua erakartzen zuela, argia erakartzen zuela, **urre** zaharraren koloreko iragan bat erakartzen zuela. **Anjel Lertxundi**

Konparatu ohi da **urre** finarekin, **urre** garbiarekin, inolako aleaziorik ez duenarekin. **Joan Mari Lekuona**

Santutegia hamar metro zen luze, hamar metro zabal eta metro bat gora, eta **urre** garbiz jantzi zuen Salomonek. **Elizen arteko biblia**

Urre trinkozko bularrekoa, harribitxi inguratua, zeraman agureak. **Xabier Aranburu**

Azpilak, labanak, xipu-ontziak, intsentsu-ontziak eta errauts-ontziak, **urre** hutsezkoak. **Elizen arteko biblia**

Harri horrek **urre** puru bihurtzen du edozein metal. **Iñaki Mendiguren**

Irudiaren burua **urre** finezkoa zen; bularra eta besoak zilarrezkoak; sabela eta izterrak brontzezkoak. **Elizen arteko biblia**

Loreak, kriseiluak eta su-hatzak, **urre** garbizkoak. **Elizen arteko biblia**

Gizonak **urre** trinkozko erlojua atera zuen poltsikotik. **Matías Múgica**

Printzeari gustatzen zitzaion, bada, bere arrotzei tabakontzi horiek, **urre** pisuzkoak, marfilez eta esmeralda txiki inkrustatuak, erregalatzea. **Matías Múgica**

Begiak sakon-ilun, larrua **urre** errearen pareko, adatsa luze. **Edorta Jimenez**

3 (koloreak diren izenondoekin)

Nahiko behean zegoen eguzkiak argitzen zuen, eta arnesak distiraka ari ziren **urre** gorriaren indarrarekin. **Agustin Otsoa**

Beltza da armadura eta **urre** gorrizko pinportak ditu. **Felipe Juaristi**

Sartaldera ematen zuten etxeetako leihoko kristalek hodei-barra handi baten **urre** gorritzat islatzen zuten. **Irene Aldasoro**

Urre zuria, esan zidatenez. **Ander Irizar**

Urre zuria trumilka ekoizten zen Euskal Herrian. **Itxaro Borda**

Ez zuen arrazoirik falta petrolioari **urre** beltza deitu zion hark. **Berria - Ekonomia**

ik beherago 19. **Askoren artean**

Haren esku zuhurrean dirdir zegien bi errubi zurbil-nahasis txertaturiko eraztun **urre** berdezko batek. **Juan Garzia**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urre -xafiak egin eta xafiak hari bihurtuz, purpura more, gorri eta gorrimina eta liho fina **urre** -hariz bordatu zituzten. **Urre** -harizko apaingarriak eginen dituzu. **Elizen arteko biblia**

Urre -orriak dituen gazezur trepanatua. **Berria - Kultura**

Hiri honetako zeta eta **urre** -oihalak entzutetsu egin ziren Txinan eta Persian. **Gotzon Garate**

Hire idunekoa hariaren trenkatua dun eta hire lepo inguru berrak zaituzten auzan **urre** aleak. **Juan Garzia**
Munduko **urre** pipitta guzietan betetako larruxaku xahar ximurto haietako bakoitza. **Patziku Perurena**
Haietako bat irekirik, **urre** hauts ezinago finez beterik zegoela ikusi zuen. **Patxi Zubizarreta**
Nire ahuntzak egunero pasatzen dituk **urre-meategi** baten gainetik. **Anjel Lertxundi**
Zilar-meategietako lana **urre**-meategietakoa baino pixka bat emankorragoa dela. **Iñaki Iñurrieta**
Marmol harrobiak, gatzagak, platino eta **urre** erauztokiak, ikatz meatzeak ustiatzen dira bertan handizka. **Karlos Zabala**
Metal arruntezko mea artean **urre**-zain bat bezala. **Juan Garzia**
Haitzuloko **urre**-altxor hura guztia. **Anjel Lertxundi**
Urre -poltsa leiho batera jaurti zuen, lokatz zikina balitz bezala mesprextatuz. **Askoren artean**
Zizelkatu bi harrietan Israelgo leinuen izenak, zilarginak zigiluak zizelkatzen dituen eran, sartu **urre**-begietan. **Elizen arteko biblia**
Onize harriak **urre**-begietan sartu zituzten. **Elizen arteko biblia**
- **Urre** pila bat -esan zuen La Sarriettek miraz. **Karlos Zabala**
Lausengari **urre**-gurtzailea. **Xabier Olarra**
Hondoa jotako aitoren seme, zimarkun eta **urre**-bilatzailezko jende olde bat lehorreratu zen Potomak-eko urertzean. **Juan Garzia**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa bigarrena izen abstraktua denean)

Harako ezkur haiek **urre**-aroa gogorazi baitzioten. **Patxi Ezkiaga**
Urre Mendeko teatro espainola. **Joxe Azurmendi**
Urre-goseak bultzatuta salatu zuen Trabukok Berdabioko jauna. **Anjel Lertxundi**
Gune erromantikoa, Igeldoko harri hareatsuez eraikitako etxeen horaila ilunabarrean, Victoria Eugenia Antzokia, Kursaal zubiko farolen **urre** dirdira ibai azalean. **Ramon Saizarbitoria**
Urre-distira baten bila. **Iñaki Mendiguren**
Hantxe **urre**-orbenez josiriko argizko estalki orlegi bat. **Juan Garzia**
Urre soluzioetan disolbagarria. **Xabier Olarra**
Gabaondarrak erantzun zioten: -Saulekin eta beronen senitartekoekin duguna, ez da zilar, ez **urre**-kontua. **Elizen arteko biblia**
Bizirik zirauen beti ere haren oroitzapena, eta, gertatu ohi denez, elezaharrezko **urre**-patina batez estaliz zihohan. **Juan Garzia**
Katuak oso pipertuta ematen zuen, lepoan lotuta **urre**-antzeko letoi-xafila bat baitzeukan. **Iñaki Mendiguren**
Urre-masa batek pisu bereko zilar-masa batekin bolumenean duen diferentzia. **Santiago Iruretagoiena**
Baliagarria zen jakitea **urre** kilo batek zenbat balio zuen garai hartan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Trapobaniako xinaurri **urre**-zaintzaileez eta bertze hainbat gauza miresgarriez. **Aurelia Arkotxa**

6a (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketa kopulatiboetan)

Hartu zituen Akazek Jaunaren etxean eta jauregiko altxortegian zeuden **urre**-zilarrak eta Asiriako erregeari bidali zizkion. **Elizen arteko biblia**
Kartagotarrek, **urre**-zilarren merkataritzan nagusi, berunaren eta eztainuaren merkataritzan ere nagusi izan nahi zuten. **Iñaki Iñurrieta**

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urre-urrezkoak batzuk eta alkimia-**urrezkoak** besteak. **Patxi Ezkiaga**
Haren familia azti-**urrez** leporaino egongo zen. **Iñaki Mendiguren**
Azti-**urre** pixka bat geratzen zitzaion kutxa barrenean. **Iñaki Mendiguren**

7a (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketa kopulatiboetan)

Ezin izango dituzte beren zilar-**urreek** ere salbatu Jaunaren haserre-egunean **Elizen arteko biblia**

8 (neurriekin eta kidekoekin)

Lakari bat **urre** izango banu... **Xabier Etxabe**
Sami zakuto bete **urre** oparitu zion. **Agustin Osoa**
3.000 txanpon **urre**. **Martin Anso**
Ehun tonelada **urre** fin ematen dut eta berrehun eta hogeita hamar tonelada zilar garbi tenpluko hormak janzteko. **Elizen arteko biblia**
Hogeita biren bat mila kilo zilar, zilarrezko ehun ontzi eta hiru mila eta laurhun bat kilok **urre** pisatu eta eskuratu nizkien. **Elizen arteko biblia**
Hiramek emanak zizkion Salomoni lau tonelada inguru **urre**. **Elizen arteko biblia**
Urte oroz Salomon erregeari hogeita bi mila inguru kilo **urre** etorri ohi zitzaion. **Elizen arteko biblia**

9 (ekonomiaren alorrean)

Sistemaren oinarria **urrearen** eta dolarraren arteko truke finkoa zen: urre ontza bakoitzeko, 35 dolar. **Iñaki Heras**
Truke-tasak finkoak ziren, beraz, herrialde bakoitzeko diruak **urreari** eta dolarrari buruz truke jakin bat finkatua baitzuen. **Iñaki Heras**
Diru Sistema berri baten oinarriak; sistema horrek **urrearen** ordez libra esterlina eta dolarra ezarri zituen oinarri, biak ere **urrearekiko** bihurturik. **Iñaki Heras**
FMLren porrota etorri zen 1971n, Richard Nixon AEBtako presidentek dolarraren **urrearekiko** bihurtaritasuna bertan behera utzi, eta erabaki horren ondorioz, trukeko urre-patroia desagertu zenean. **Iñaki Heras**
Urrearen prezioaren igoerak adierazten ditu ziurgabetasun handia dagoela merkatuan. **Berria - Ekonomia**
Gizarteek hainbat diru mota izan dituzte historian zehar, bai gatza, kakaoa edo **urrea**, bai gaur egungo diru papera, plastikozko dirua (kreditu eta debitu txartelak) bai diru elektronikoa. **Iñaki Heras**
Urrea eta zilarra kreditu-sistema oraindik garatugabe baten oinarri eta, hortaz, printzearen azken baliabidea zirelako. **Koro Navarro**
Urrearen balioa, ordea, ez da berez datorren zerbait, gizakumeen artean horrela erabaki zen zerbait baizik, konbentzio bat. **Pako Aristi**
Garbi dago nazioarteko inbertsiogile askok **urretara** jo duela, azken 25 urteotako prezio handienean baita metal hori. **Berria - Ekonomia**

10 (ekonomiaren alorrean, hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Estatu Batuak ziren beren diruaren **urre**-bihurgarritasuna segurua zezakeen herrialde bakarra. **Koro Navarro**
Urre-patroiak bermatu egiten zituen, teoriarik, herrialdeen arteko urrearen zirkulazio askea. **Iñaki Heras**
Urre-ereduaren erregimenaren baitan [...] nazioarteko maileguak, eta baita zuzeneko inbertsioak ere, sekula ez bezalako lastertasunaz garatu ziren. **Koro Navarro**
Estatu Batuak izan ziren gerrak suntsitu ez zuen herrialde industrial indartsu bakarra, eta, 1945ean, harenak ziren munduko **urre**-erreserben hiru laurden. **Koro Navarro**
Historialariak bat datoz oro har urrearen gose aipatzerakoan, **urre**-urratasuna eragozpena baitzen merkatarientzat. **Koro Navarro**
Urre - eta zilar-kantitate handiagoa, beraz, onerako da metal horiek merkantziatzat hartzen direnean. **Iñaki Iñurrieta**

11 irud/hed

Egunaren lehen **urre**-izpiek ferekatu zuten. **Juan Garzia**
Jende guztia, elkarririk ezer galdetu gabe, bere sorretako laboreak aldatzen hasi zen, garia eta laboreak baztertu eta mahastiak jartzen; Alcoleako ardo-ibaia **urre**-ibai bihurtu zen laster. **Josu Zabaleta**
Istoriok ondo kontatzen jakitea, berdin dio hitzez edo idatziz, hori da gure [eskimalen] **urrea**, eta hori egiten dakiena aberatsa da. **Pako Aristi**
Horrek **urrea** balioko zion geroan. **Aingeru Epaltza**
1926an Europara heldu zen, bertan haren estiloa gustatu, Lumiansky manager berriarentzako **urre** mina bat bilakatu zen. **Pablo Sastre**

Normalean agenda estu izaten badi, minutuak **urre** ditu egunotan. **Berria - Euskal Herria**

Maiatzeko ihintzak **urrea** balio du. **Pello Zabala**

12 (erkaketan)

Zapi moduko batek estaltzen zion burua, eta handik ihesi ile ugaria zihoakion kopetan behera, **urrea bezain** horia. **Karlos Zabala**

Ofirko **urrea baino** urriago bihurtuko dira gizakiak. **Elizen arteko biblia**

Besteek zapaldu baino egiten ez zituzten landareak, **urrea** balira bezala kutxatxo batean gordetzen. **Hasier Etxeberria**

Proba nazala, **urrea bezain** garbi aterako naiz. **Elizen arteko biblia**

Harkaitzak argi beranduan: **urrea** bezala. **Joxe Austin Arrieta**

Apirileko zizea, **urrea baino** hobea! **Pello Zabala**

13 (kolore gisa)

Sala eta ganbara guzietan **urrez**, gorritz, horiz, berdez eta urdinez baziren hainbat pintura eder non animalien historia frango agertzen baitziren. **Aurelia Arkotxa**

Kupula bizantziarrak, berdez eta **urrez** koloreztatuak. **Karlos Zabala**

14 urre peza; urre pila.

Aristotelesen liburutegi osoa, Ptolomeok -ahalegin handien, **urre** askoren eta gaiztakeria frankoren ondoren- azkenean bereganatzea lortu zuena. **Jon Muñoz**

Emadazu **urre** hori, eta nik, berriz, bertatik emango dizut zuk aukeraten duzun kokalekua. **Jon Muñoz**

Horra zein etekin emango dizuten **urreek**, gaztetandik arduraz zaindu dituzun horiek. **Anjel Lertxundi**

15 olinpiar joko edo kidekoetako urrezko domina.

Naroa Agirrek bi **urre** irabazi ditu Euskadiko Txapelketan. **Berria - Kirola**

Palmaresa: Paralinpiar Jokoetan, sei **urre**, zilar bat eta bi brontze; Munduko Txapelketetan, zazpi **urre**; Europako txapelketetan, zortzi **urre** eta zilar bat; Espainiako Txapelketetan, 33 **urre**. **Berria - Kirola**

Garaipenak: 2003ko Munduko Txapelketan **urrea** 200 eta 400 metro estiloetan, eta 200 metro tximeleta estiloan. **Berria - Kirola**

11 domina lortu dituzte guztira (bost **urre**, bost zilar eta brontze bat). **Berria - Kirola**

Sara Carracelas: hiru **urre** (50 eta 100 metrokoetan, eta bizkar estiloko 50 metrokoan). **Berria - Kirola**

Javier Otxoa: **urre** bat (konbinatuan) eta zilar bat (hiru kilometroko jazarpenean). **Berria - Kirola**

Urrea Australiarentzat eski artistikoan. **Berria - Kirola**

Agirre, **urrearekin** konforme ez eta luzera jauzian brontzea lortu zuen, 6,14ko jauziarekin. **Berria - Kirola**

16 joko kartetako lau irudietako bat.

Aitzitik, ezin pausatuago solastatu zitzaidan, mahukapean zazpiko **urrea** gorderik duen jokariaren segurtasunaz. **Joan Mari Irigoien**

Esleitu zion bateko bakoitzari hiriburu bat: bateko **urreari** Bilbo, kopakoari Donostia, ezpatakoari Gasteiz eta bastoikoari Iruñea; nahastu zituen lau batekoak behin eta berriro, kartei begiratu ere gabe. **Joan Mari Irigoien**

Ezin duzu sinetsi amona hilda dagoela, ez zaretela gehiago ikusiko, ez zaretela inoiz gehiago bateko **urrean** arituko elkarrekin. **Lourdes Oñederra**

17 ontza urre ik ontza 8; ontza 9.

18 ontzako urre ik ontza 11; ontza 12.

19 urre beltz adkor petrolio.

Greenspanek garrantzia kendu nahi izan die **urre beltzak** munduko ekonomian eragin ditzakeen kalteei. **Berria - Ekonomia**

Gatazka geopolitikoak areagotu diren heinean joan da **urre beltza** garestitzen. **Berria - Harian**

Munduko ekonomia %4,9 haziko da, **urre beltzaren** prezioak gora egin arren. **Berria - Ekonomia**

Kurioski, gerla honetan, ministerio gehienak suntsituak izan direlarik edo lapurtuak, gelditu da osorik, deus demasiarik gabe, **urre beltzarena**. **Herria**

20 urre diru (orobat urrediru)

Hantxe bertan, **urre diru** faltsoa egin, eta Frantziara pasatzen zuen. **Patziku Perurena**

Elama alde hartan **urrediru** faltsoa egin eta, mugaz Frantzi aldera pasatzen omen zuen zaldiz. **Patziku Perurena**

21 urre kolore (orobat urre-kolore) iz urrearen kolorea.

Eguzkiak han **urre kolorea** hartzen du, eta urak urrea ekartzen, hondar aleen artean nahastuta. **Felipe Juaristi**

Duela bi hilabete zaukan **urre kolore** hura galdua du. **Herria**

Itzalak luzatzen ari ziren, eta berriro ere **urre-kolorea** zuten oihan debekatuko zuhaitz-gainek. **Iñaki Mendiguren**

Gabonetako mila-orrako tarten **urre kolore** kitsch hura. **Harkaitz Cano**

Desagertuta edo desagertzearen dauden ugaztunak ere aurkitu dituzte, esaterako Indonesiako **urre koloreko** kanguru bat, arboletan ibili ohi dena. **Berria - Gaiak**

Gehienek **urre koloreko** ile oparoa zuten. **Agustin Otxoa**

Urre-koloreko platerai eta kopei dir-dir eginaraziz. **Iñaki Mendiguren**

Liburuaren azala urdin iluna zen; letrak, **urre kolorekoak**. **Bernardo Atxaga**

Martinikako **urre kolorezko** ondartzak eta itsaso urdinak lilluratuko zituzte, kanpoari kasu egiten baduzu bakarrik. **Herria**

Bihotzak ere baziren ttipi-ttipiak zilar eta **urre kolorezkoak**. **Aurelia Arkotxa**

22 urre-kolore (orobat urrekolore) izond urre kolorea duena.

Gales osoan barrena nenbilenean, borrokan, Swanseako komentuko printzesa lirain, zuhur, **urre-kolore** baten bila. **Koro Navarro**

Zeren garai batean Marteko atmosfera gorria zela uste baitzen, baina horia da, izan, hori **urre-kolore** eder batekoa. **Josu Zabaleta**

Liburuko azal eta bizkarreko letra **urre-koloreak** hatz-puntez ferekatzen hasi nintzanean. **Anjel Lertxundi**

Irakurtzen zuenean, arrasto berdeak eta **urre-koloreak** ikusten zituen begien azpian. **Koro Navarro**

Hondartzeta luze **urre-kolorearen** gaineko amildegian. **Koro Navarro**

Aire **urre-kolorean** hegabiraka. **Josu Zabaleta**

Harribitxien moduko argi-izpiak isplikatzen zituzten tanta lodi **urrekoloretan** erortzen zen azidoa. **Juan Garzia**

Dantzaldiak zeuden gauero areto zuri eta **urre-koloreetan**, tximeleta-hegalen antzera dardaritzen ziren gas-lanparen gar dardartien argiaren pean. **Xabier Olarra**

Haren atzean, armairu handi bat, beltz eta **urre-kolorekoa**. **Iñaki Mendiguren**

Irudiak, oraindik ere, astiro igaro ziren, udaberriko arratsalde gozoaren argitasun **urre kolorekoaren** eraginez. **Ramon Saizarbitoria**

Vilanov-eko noble baten etxera joateko eskaria nuen, girlanda **urre-kolorez** apaindutako pianoforte zahar bat konpontzera. **Koro Navarro**

23 urre meatz (orobat urremeatz.)

Tren batean sartu eta Siberiako puntara eraman zuten, Kolymako **urre-meatzetara**, behartutako langile moduan. **Felipe Juaristi**

Espainiako zilar- eta **urre-meatzak** berenganatzeko. **Elizen arteko biblia**

Hurritzeko makiltxo batekin saiätzen baitziren lurpeko urbegiak eta **urremeatzak** bilatzen. **Patziku Perurena**

24 urre-meatzari urre meatzetan lan egiten duen pertsona.

Urre-meatzari batek bezala sukaldean aztarrikatutako burdina forjatuzko labirintoa ez zen, berez, orbain mordoska nazkagarri bat besterik. **Anton Garikano**

25 urre pigmentu (corpusean urrepigmentu soilik)

Urrepigmentua, grekoek *arsenicon* deitzen dutena, Ponton ateratzen da. Santiago Iruretagoiena

26 urre-zale ik urrezale.

27 urrezko eztei pl

ezkontza egunetik berrogeita hamar urte betetzen diren eguna.

Maddi eta Battit Bidart-en **urrezko ezteiak** ospatu ditugu joanden igandean. Herria

Urriaren 6 an larunbatarekin Michel Jean eta Emilienne BARRE senar emazteek ospatu dituzte beren **urrezko ezteiak**. Herria

Jakoteiko Maite eta Jeannot Beyrie-k ospatu dituzte **urrezko ezteiak**, meza sailduarekin hasi dute eguna, ondotik Lekornen Etchebarne ostatuan apairu on baten aintzinean, familia eder batez inguratua, omore onean iragan dute besta hori. Herria

Beren **urrezko ezteiak** ospatzeko aukera ere izan zitean. Jon Muñoz

27a hed

Joanden igandean Emile Larre kaseta hunen zuzendaria ohoretan ginuen, bere **urrezko ezteiak** ospatu ditu, 50 urte apeztua dela. Herria

Zornotzako probak **urrezko ezteiak** ospatuko ditu, hilaren 11n. Berria - Kirola

Honako bertso hau bota zion Basarrik Maria Dolores Agirreri Euskal Izketa eta Iztudene ikastolak **urrezko ezteiak** (1915-1965) ospatu zituen egunean. Berria - Kultura

28 urre zuri adkor esnea; gazta. ik urrezuri.

Jakin dut goizean irratia hautematean, enpresek **urre zuriaren** ekoizle penatuei ardi esne pintak duela bederatzi urteko prezioan pagatuko dizkietela. Itxaro Borda

Urre zuria trumilka ekoizten zen Euskal Herrian. Gauzetaranzko euskal literaturaren bidaia burutu du liburu honek: *Baleen Berbaroa*-ko higanauten gurutzak, *Bihotz bi*-ko dominak, *Agirre zahararen kartzelaldi berriak*-eko giderrik gabeko kolarrak, gasnaraino ekarri gaituzte, eta **urre zuriaren** arimak deskribildu dizkigu Bordak. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

bere urre (6); **beruna urre** (12); **bete urre** (6); **bi urre** (4); **gorri eta urre** (5); **guztia urre** (5); **hainbeste urre** (4); **hamabost kilo urre** (4); **hiru urre** (6); **kilo urre** (21); **munduko urre** (13); **munduko urre guztia** (4); **ontza urre** (5); **ontzako urre** (5); **tonelada urre** (5)

urre antzeko (4); **urre aroa** (4); **urre asko** (4); **urre bat** (7); **urre begietan** (4); **urre beltza** (14); **urre beltzak** (4); **urre beltzaren** (17); **urre beltzaren prezioa** (4); **urre bihurtu** (4); **urre bihurtzea** (4); **urre bihurtzeko** (8); **urre bihurtzen** (5); **urre bila** (6); **urre eta zilar** (25); **urre eta zilarrezko** (13); **urre garbi** (5); **urre garbia** (5); **urre garbiz** (20); **urre garbiz jantzi** (4); **urre garbizko** (15); **urre garbizko argimutilla** (4); **urre garbizkoak** (5); **urre gorri** (4); **urre gorria** (7); **urre gorritzko** (8); **urre guztia** (11); **urre hariz** (5); **urre harizko** (10); **urre hautsa** (4); **urre hori** (5); **urre hutsezko** (4); **urre kolore** (23); **urre kolorea** (12); **urre koloreak** (8); **urre koloreko** (103); **urre kolorekoa** (10); **urre kolorekoak** (9); **urre kolorez** (12); **urre kolorezko** (4); **urre patroia** (5); **urre pila** (7); **urre pixka bat** (4); **urre trinkozko** (4); **urre ugari** (4); **urre zilarrak** (9)

zenbat urre (8); **zilar eta urre** (12)

gorde huen urrea (6); **irabazi du urrea** (4); **irabazi zuen urrea** (7); **lehen urrea** (5); **munduko txapelketan urrea** (4); **txapelketan urrea** (4); **urrea aurkitu** (5); **urrea baino** (15); **urrea balio** (16); **urrea balio du** (5); **urrea bezain** (6); **urrea eman** (4); **urrea eta ontziak** (4); **urrea eta zilarra** (34); **urrea garbitzeko** (4); **urrea irabazi** (28); **urrea irabazi zuen** (7); **urrea irabazteko** (5); **urrea lortu** (4); **urrea lortu zuen** (4); **urrea lortzeko** (5)

zilarra eta urrea (13)

urreak eta zilarrak (4); **zilar eta urreak** (4)

urreearen balioa (14); **urreearen distira** (5); **urreearen eta zilarraren** (4); **urreearen orde** (4); **urreearen pare** (5); **urreearen prezioan** (6)

urrez estali (5); **urrez eta zilarez** (13)

apuleioren urrezko astoa (4); **bere urrezko tronuan** (6); **beren urrezko ezteiak** (14); **txapelketetan urrezko domina** (8)

urrezko abarra (6); **urrezko aizkora** (13); **urrezko aizkorako** (9); **urrezko aizkoran** (7); **urrezko akzioa** (8); **urrezko aldea** (5); **urrezko araua** (5); **urrezko aro** (6); **urrezko aroa** (25); **urrezko aroa izan** (4); **urrezko astoa** (6); **urrezko aukera** (6); **urrezko baloia** (10); **urrezko baloiak** (6); **urrezko bat** (6); **urrezko belarritakoak** (7); **urrezko bi domina** (8); **urrezko bihotza** (5); **urrezko bitxiak** (7); **urrezko bost domina** (9); **urrezko bota** (6); **urrezko diskoa** (4); **urrezko domina** (154); **urrezko domina bat** (5); **urrezko domina eman** (6); **urrezko domina irabazi** (28); **urrezko domina irabazteko** (10); **urrezko domina jaso** (5); **urrezko domina kolokatu** (4); **urrezko domina lortu** (15); **urrezko domina lortzeko** (6); **urrezko dominak** (8); **urrezko dominarik** (4); **urrezko dukat** (7)

urrezko eguzkia (10); **urrezko ehun** (5); **urrezko eratzun** (5); **urrezko eratzuna** (7); **urrezko eratzunak** (8); **urrezko erloju** (13); **urrezko erloju bat** (4); **urrezko erlojua** (10); **urrezko errege** (4); **urrezko errege makila** (4); **urrezko eta zilarrezko** (26); **urrezko eztei** (5); **urrezko ezteiak** (83); **urrezko ezteiak ospatu** (8); **urrezko fipa** (6); **urrezko garaia** (5); **urrezko gauzak** (4); **urrezko globoa** (5); **urrezko globoak** (4); **urrezko globoen** (4); **urrezko globoetan** (5); **urrezko gurutze** (7); **urrezko gurutze bat** (4); **urrezko hariz** (8); **urrezko harri** (6); **urrezko harri jasotzaileen** (4); **urrezko hartza** (19); **urrezko hegala** (6); **urrezko hiru domina** (5); **urrezko hortzak** (4); **urrezko hortzeria** (12)

urrezko ibaia (4); **urrezko idazluma** (5); **urrezko iguzkia** (5); **urrezko intsentsu** (4); **urrezko iratzea** (4); **urrezko irudiak** (5); **urrezko kate** (6); **urrezko katea** (6); **urrezko kopa** (21); **urrezko kopan** (5); **urrezko koroa** (11); **urrezko lau domina** (11); **urrezko lau eratzun** (4); **urrezko lehen** (6); **urrezko lehiaketako** (9); **urrezko lehoia** (20); **urrezko lehoia irabazi** (4); **urrezko lepoko** (4); **urrezko lepokoa** (4); **urrezko letraz** (6); **urrezko letretan** (6); **urrezko liburua** (4); **urrezko ligako** (6); **urrezko maillota** (6); **urrezko makila** (7); **urrezko maskorra** (5); **urrezko medaila** (29); **urrezko medaila bat** (4); **urrezko melies saria** (4)

urrezko ontzi (9); **urrezko ontziak** (5); **urrezko orrazia** (7); **urrezko pala** (8); **urrezko palako** (8); **urrezko palma** (6); **urrezko palmorria** (10); **urrezko plater** (4); **urrezko puntuak** (4); **urrezko snitcha** (5); **urrezko tronuan** (9); **urrezko txanpon** (26); **urrezko txanpon bat** (9); **urrezko txanpona** (4); **urrezko txanponak** (10)

urrezko xixtera (7); **urrezko zekorra** (6)

zilar eta urrezko (5); **zilarrezko eta urrezko** (7)

urrezkoa da (5)

urrezkoak ziren (9)

urraire izond urrekara.

Txamarrako botoiak, **urraireak** ziren kolorez. Txillardegí

urrearain

(*corpusean urre-arrain soilik*) iz karparen familiako arraina, ur gezetakoa, hura baino txikiagoa(*Carassius auratus*).

-Arrainontzi bat **urre-arrainez** betea. Koro Navarro

Bada urre mota asko: **urre-arraina**, urre-belarra, urre-lilia, urre-potoina, arrain edo landaretan egoiteko. Herria

urreberritze iz

Izan ere, Ortega-ri buruzko argitalpen berri batzuek eta "pentsalari liberalaren" mitoaren azken aldiko **urreberritzeak**, haren berrirakurketa kritikoa bat galdatzen zuten. Joxe

Azurmendi

urrebitxi iz adkor urrezko bitxia.

Katalunia ere Francoren mende erori zenean, Bilbotik bezalaxe ihesi baporea hartu, jendea eta dokumentuak eta (dirua eta **urrebitxiak** ere bai esaten zian berak) garraio, eta Port-Boura. Jokin Urain

Asmatu ditu horretarako hiru tresna, **urrebitxiaren** mailara jasoak gaur egun: autoa, telebista eta ordenagailua. Pako Aristi

urrebordatu

Armairua ireki eta bere lanjantzi berrienari begira egon zen, behin ere jantzi ez zuen hura, urreizar bakar bat zuena **urrebordatukoa** eta urrezko hariz egina, jeneralen ezkihostaila bordatzen zen material berberaz egina. Fernando Rey

urrebotoi iz belardietako landarea, puntan lore hori ikusgarri duena (*Ranunculus sp.*).

Belar eta **urrebotoi** artean etzaten ginen ibaialdean, eta gorantz begiratzen genuen. **Mirentxu Larrañaga**

Orduan, barrez lehertuko naiz, nire gorputza zolda zikin nazkagarriaz estalia egon arren, haragizko loretan zabaltzen, bioletatan, **urrebotoitan**. **Monika Etxebarria**

Urrebotoiak topatzen nituen beti plazan, udaberria zen berriro, eta astiro mastekatzen nituen gordeka. **Joxan Elozegi**

Artilea daukat sorbaldan, **urrebotoi** hirustak hegan. **Anton Garikano**

urreburu ik urraburu.

urrediru ik urre 20.

urredun izond/iz urrea duena.

Mendi horietan barrena gurdiak etengabe doaz mazelaz mazela Tom ibaiaren haran aldera, platinoa, urrea, zilarra, kobrea eta berun **urreduna** garraiatuz. **Karlos Zabala**

Salduak baititugu garrote **urredunak**, zilarrezkoz itotzen ditut zergadunak. **Xabier Olarra**

urregile (10 agerraldi, 4 liburu eta 3 artikulutan) 1 iz urrea eta kidekoak lantzen dituen pertsona.

Urregilearen lana ezin finagoa zen, arnasa estutzerainokoa. **Jon Muñoz**

Urregileak zilar gainera urrea isurtzen duenean bezala. **Juan Kruz Igerabide**

Urregile inkek egindako objektuek, alabaina, ez zuten parekorik. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan)

Alegia, nola argitu zuen Arkimedesek koroako urreari zilarra nahasi zion errege-**urregilearen** iruzurra. **Jon Muñoz**

3 irud/hed

Pop melodia distiratsuen **urregile** ugari eman ditu Eskoziak azken urteetan (*Teenage Fanclub, Belle&Sebastian, The Reindeer Section, Franz Ferdinand...*) eta Astrid beste horietako bat da, nabarmendu den azkena. **Berria - Kultura**

urregin (18 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan) iz urregilea.

Ez da kezkatzen hil beharraz edo bizitzaren laburrak, baizik eta **urregin** eta zilarginekin lehiari ari da, brontzelarien lanak kopiatzen ditu eta faltsifikazioak egiteaz harrotzen da. **Elizen arteko biblia**

Oraintxe bertan deituko diet bitxigileei eta **urreginei** leihoa behar bezala amai dezaten. **Patxi Zubizarreta**

Behin izan omen zen **urregin** emakumezale mozkorti bat. **Patxi Zubizarreta**

Behin izan omen zen **urregin** emakumezale mozkorti bat. **Patxi Zubizarreta**

urregintza iz urrea eta kideoak lantzea.

Peruko **urregintzak** milaka urteko tradizioa du. **Berria - Kultura**

Aralarko erretaula XII. mendeko **urregintza** europarraren maisulana da, esmaltez osatutako frontal ikusgarria. **Berria - Kultura**

urregorri (orobat urre gorri) 1 iz adkor urrea.

Urrezko eraztun eta **urregorritzko** lepoko: zentzarazpen zuhurra, entzuteko prest dagoenarentzat. **Elizen arteko biblia**

Hain dela bikaina altxor hori, non, lur osoa **urregorri**, harri guztiak harribitxi eta ur guztiak gantzu gozo balira ere, zuk horiek denak ezereztzat joko zenituela haren aldean. **Askoren artean**

Bene-benetako panderoa, zaharraren zaharrez gaur **urregorriaren** truke saltzen diren horietakoa. **Xabier Etxabe**

Faxistek **urregorriaren** premia larrian ziren-eta, zer pentsatu zuten Ekintzakoek? **Edorta Jimenez**

Zetazko arropa eta **urregorritzko** apaingarriekin agertu zenean, erregeari haren aurpegia ezagutzeko gogoia piztu zitzaion. **Patxi Zubizarreta**

Atorra luze holandarra soinean, ale gorritzko idunekoa, **urregorritzko** diadema, printzesa baino gehiago ere badela sinetsi nahi luke don Leonardok. **Felipe Juaristi**

Urregorritzko argi bat. **Patxi Zubizarreta**

Aldaketaraino iristen zitzaion eta **urregorritzko** ibai bat zirudien, mendian behera zetorrena. **Felipe Juaristi**

Bi koilara txiki erori zitzaizkion orduan Andresi atorraren tolesdura batetik, bi koilara txiki **urregorritzkoak**. **Felipe Juaristi**

Taldearen jardueri buruzko informazioak **urregorriaren** balio du. **Edorta Jimenez**

Betikoa dena eta denok batzen gaituena, horixe dela **urregorria** bezala gorde eta zaindu behar duguna. **Koldo Zuazo**

2 (neurriekin)

-Lau bat kilo **urregorri** bildu zituzten, txanponetan eta bitxietan. **Edorta Jimenez**

3 irud/hed

Miseria larria pasatu du Miamik azken urteetan, baina **urregorritan** igerian dabil orain. **Berria - Kirola**

Irudigileak Roxanaren aurpegi **urregorritzkoa** zizelkatu zuen iturri zurian. **Felipe Juaristi**

Alde horretatik, ez da inola ere hizkuntzalari, filologo eta ikertzaileentzako lana bakarrik: orenen gainetik, erabiltzaile xeheontzat da **urregorria**, hiztegirik pragmatikoena. **Berria - Harian**

urreharri iz

Gurpilek **urreharriaren** distira zuten eta berdinak ziren laurak. **Elizen arteko biblia**

urreizar iz urrezko izarra.

Armairua ireki eta bere lanjantzi berrienari begira egon zen, behin ere jantzi ez zuen hura, **urreizar** bakar bat zuena urrebortatuko eta urrezko hariz egina, jeneralen ezkihostaila bordatzen zen material berberaz egina. **Fernando Rey**

urreizti iz

Urreizti biribilaren barruan, emakume espiritua biziki sentitzen omen. **Pello Zabala**

urrekara izond urre itxurakoa.

Apaingarri zenbait, hala nola: Luzerna-ko lehoi **urrekara** txiki bat; Laokoon-en igeltsuzko irudi txiki eta zartatu bat; **Mirentxu Larrañaga**

urreki iz urre alea.

Horra euskaldunok gure obrarentzat daukagun ametsik handienetako baten hastapena: usteldutako gorpu bat lekuz mugiaraztea, harekin etorriko diren **urrekien** itxaropenean. **Berria - Kultura**

urrekolore ik urre 22.

urrelari iz urrea salerosten duen pertsona.

Mario joanen duk bihar auzoan ezagutzen dugun **urrelari** batengana, gureak diren opariok diru truke aldatzera. **Itxaro Borda**

urremeatz ik urre 23.

urren ik hurren.

urrendu, urrent, urrentzen da/du ad ipar amaitu, bukatu.

Eguna **urrentzean**, Monestier zinez atseginez zegoen. **Elena Touyarou**

Kartier guzietan pasaturik bakarren dantza eta kantuak emanik **urrendu** dute beraz biziki ongi aurtengo itzulia. **Herria**

Arestian **urrendu** da Arabako Bertsolari Txapelketa, Nafarroakoaren oihartzunarekin bat egin duena. **Berria - Kultura**

Bazkaria **urrentzean** Pilotarien Biltzarreko presidentak eskertu ditu Heletako apez meza emaileak, auzapez ordea eta Herriko Etxea, Agerreko nagusia, sukaldaria eta zerbitzariak, hitz bereziak eskainiz Hegoaldetik jnikako anaiei eta Landesetarik etorriak zirenei. **Herria**

Azkenik, Hendaiako mugaren haraindira heltzean, eguneroko giroan sartu aitzin, eta bere Euskal Herriko lehen itzulia **urrentzean**, pentsalari gazteak eskaintzen digu, beste filosofo heletar batek, Etienne Salaberrri zenak prezatuko zukeen hausnarketa edo meditazio luze bezain hunkigarria. **Piarres Aintziart**

urrogeno ik hurrengo.

urrepigmentu ik urre 24.

urreratu ik hurreratu.

urreria iz ipar urrezko bitxi edo gauzen multzoa.

Baziren Baigorriin andere burjes batzu ongi bezituzturik elizara etortzen zirenak, baina Delpanisa bakarra zen hoinbeste zeta, balus, farfail, larru soinean zituena, **urreria**, perleria lepotik eta ukaraitik dilindan, Pariseko aberatsen azken modako irudia herri ttipi honetara ekartzen zuena. **Michel Oronoz**

Bere armeria, diplomazia, **urreria** eta estatu jantzi ospetsuak ezin aldatuz dabilen Erromako Elizaren buruzagi askoren kaskoetan. **Piarres Xarriton**

Urreria laket zuten omen laminek eta fama zen urrezko orraze batzuk bazituztela. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Otsabiden ez zuten erraz patitzen hainbeste urguilu eta **urreria** zekartzan anderea. **Itxaro Borda**

Sakristaua atxilotzen edo hartzen dute bortizki; nahi diote aitorrarazi **urreria** hori non atxikitzen zuen gorderik. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

urrestatu ik urrestatu.

urrestildar (orobat urrestillar) izlag/iz Urrestilakoa, Urrestilari dagokiona; Urrestilako biztanlea.

Titularretan jarri zuen idazle-kazetari **urrestildarrak**, eta geroztik makina batek ekarri izan dizkit gogora eman nuen hitza eta irentsi dudaneko patxada. **Andoni Egaña**

Entrenamenduetako lagunak laurak, Aranaga **urrestildarrarekin** (Azpeitia) zuen harreman gehien Ormaetxeak. **Berria - Kirola**

Orduko hartan, txapelketako final-laurdenetan, **urrestillarra** 35-24 nagusitu zitzaion Altunatar zaharrenari. **Berria - Kirola**

urrestillar ik urrestildar.

urretsua 1 izond urrekara.

Iritsi da itxaropenari leihoak zabaltzen hasteko ordua, eguzki **urretsuz** dirdaika dagoen itsaso ardo-kolorean aurrera. **Anjel Lertxundi**

Aurki zabaldu zen eguna, eta ekain hasierako egunsenti **urretsua** horietako bat nagusitu zen. **Anjel Lertxundi**

Argi **urretsuz** bete da etxe osoa. **Anjel Lertxundi**

Ardi triskilatu berrien eeskorta nabarmenagotzen hasi zen Nora zeru **urretsua**ren kontra. **Anjel Lertxundi**

Argi-abar jaio berriak distira jostari **urretsua**k eragiten zituen fatxadako adreiluetan. **Anjel Lertxundi**

Begien ezti makatz kolore **urretsua**k dirdai egiten zuen eguzkipean. **Anjel Lertxundi**

2 urrea daukana.

Ertzen dira mugak eta loratzen zaigu bihotzean eguzki bizi gori bat, urrerik **urretsua**en baino distiratsua dena, nola loratu baitzitaion **Joan Mari Irigoien**

urretu, urre(tu), urretzen da/du *ad* urre bihurtu. • *irud/hed*

Urretzen ari ziren elgeetarik ebaki eta zazpinaka josi ogi-buruak benedikatu zituen apezak. **Berria - Kultura**

urretxindor 1 iz txori intsektujalea, moko-zuzena, bizkarraldea eta buztana arreak dituena, bere kantu ederragatik nabarmentzen dena (*Luscinia megarhynchos*). ik **erresioñol**.

Kantu urritzen hasi ziren zoako eta **urretxindorra**, eta etxetxorien pipirrioen txanda iritsi zen gero. **Joxan Elozegi**

Udako gau argietan **urretxindor** zoragarriak bere kantu goxoaz lagun egiten dio unibertsoaren harmonia jainkozkoari. **Koldo Biguri**

Gauetz etxerantz doazen jaunek egunkarietara idazten dute, esanez **urretxindorra** entzun dutela Lorategietan, baina Peterren txirula da entzuten dutena. **Julen Gabiria**

Ederki kantatzen zuen **urretxindor** bat zeukala sinetsarazten zien. **Jose Morales**

Zioenez, delako monjeak **urretxindor** bat ikusi zuen adar batean txorrotxioka, eta hain politak ziren haren txorrotxiok, hain liluragarriak, non hari entzuten ez dakit zenbat mende egon baitzen. **Migel Angel Mintegi**

2 (hitz elkartuetan)

Urretxindor kantak. **Felipe Juaristi**

Zer da ipuinaren lelo hori, postariaren seme, oinetan **urretxindor** hegoak dituzun mutila? **Felipe Juaristi**

Usoak galdutakoan, **urretxindor**-andana bat azaldu zen. **Felipe Juaristi**

3 irud/hed

Kantari batek, berrogeita hamarren bat urteko **urretxindor** tripan dia, sopranoendako kabinak abestuko ditu. **Koldo Izagirre**

-Goazen hemendik, **urretxindor** nazkante horiek utzita -esan zidan Farr jaunak. **Koro Navarro**

urretxuar *izlag/iz* Urretxukoa, Urretxuri dagokiona; Urretxuko biztanlea.

Elite Txapelketako finala jokatu du, Lasa **urretxuarraren** aurka. **Berria - Kirola**

Iparragirre gure **urretxuarra**. **Iñigo Aranbarri**

Iñaki Alvarez mendizale **urretxuarrarekin** hitz egin zuen. **Berria - Kirola**

Itziar Oñatibia, 51 urteko **urretxuarra**. **Berria - Euskal Herria**

Urretxuarra gorputz atxemana izan da 7800 metretan, oihal-etxol barnean, hotzak hilik. **Herria**

Antzuolarrek oso gertukotzat dutela **urretxuarraren**, zumarragarren edo azkoitiarren euskara giputza eta urrunekotzat, aldiz, Durangotik sartalderako bizkaitarra. **Koldo Zuazo**

Urretxuar gazteak iragan abuztuaren 5ean lortu zuen azken gaina, Korgenevskayako gaina hain zuten. **Berria - Kirola**

urrezale (*orobat urre zale g.er.*) *izond* urrearen zalea dena.

Pentsa genezake enperadore **urrezale** hari egindako iruzur bat izan daitekeela *Voynich eskuizkribua* deitzen den liburu misteriotsu hori. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Zientziaren mireslea, alde batetik, sineskorra eta **urrezalea** bestetik, zientzialarien babesle izateko bezala edozein berriketariri kasu egiteko prest zegoena. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Inor ez da **urrezaleago**, hura pobretasunaren zale baino. **Askoren artean**

Jainkoak zirela pentsatu genuen eta opariz estali genituen; gerora jakingo genuen zerri gosetiak baino ez zirela, **urrezale** zekenak besterik ez. **Pako Aristi**

urretzadura *iz* urretzatzea.

Oihal zati gorrimin bat eman zioten, **urretzadura** margulduko zerrenda duna, belusezko mozorro batekin eta zurezko sastakai batekin. **Juan Garzia**

Baina so egiozue zuhaitz-hosto bati, ikusi haren zain apatatsuak, itzalak eta eguzkiak ñabarazaririko tonuak [...] udazkenak markatu duen lehen **urretzadura** hilgarria. **Juan Garzia**

Erdian zut, harri beltz mirarizko bat ageri zen, koniko eta distiratsua, ilargi-**urretzaduraz** markatua, zeina ez baitzen Artemis bera baino. **Juan Garzia**

urretzaketa *iz* urretzatzea.

Aldare nagusiari so egin zion; xumeegia irudituz zitaion, hariaren handitasun hotza ederretsi gabe; nahiago alboetako kaperen **urretzaketak** eta kolore ugaritasuna.

Karlos Zabala

Hogeita hamar mila liberatik gora ordaindu zituen, marmolak, ispiluak eta **urretzaketak** erosteko. **Karlos Zabala**

urretzatu, urrezta, urretzaten (*orobat urrezta g.er.*) 1 du *ad* urre geruza batez estali.

Maiatzak esmalteztatu, **urretzatu** eta zilarretzatatuko kaleetan zehar. **Lopez de Arana**

Bernard Dartiacave, biarnes artisaun famatuak erretaula **urretzatu** zuen 1708an. **Michel Oronoz**

Urre garbiz **urretzatu** zituen barne eta kanpoaldeak. **Elizen arteko biblia**

Nire aurreko ispilua, **urretzaturiko** markoduna. **Joxe Austin Arrieta**

Gaitzeko errezel bat luzatzen zen lurretik bobedaraino, estatuz eta azpierrez bezelako zatuetan, orain **urretzatu**a, orain herdoildua. **Koldo Izagirre**

Goian, koruko jarlekuak eta saildunen tailuak, ez dakigula zura **urretzatu**a den ala urrea bera zur bilakatua. **Piarres Aintziart**

2 irud/hed

Eguzki printzek laster **urretzaten** ari dituzte bazterrak. **Aurelia Arkotxa**

Zerua **urretzaten** edo odolustutzen -nondik begiratzen den- ari den eguzkiaren antzera. **Patxi Zubizarreta**

Bidean harrizko iturri bat zegoen, goroldio berdez eta lizunez estalia, eguzki-printzek **urretzaturiko** ura zeriona. **Xabier Olarra**

Saint-Eustacheren itsasontzi handiak sekulako erlikia kutxa baten antza hartzen zuen eguzki izpiek **urretzaturik**. **Karlos Zabala**

Esan ohi da dirua arunta dela Frantzian, eta **urria** Holandan. **Iñaki Iñurrieta**

Ilea **urria** eta grisa zuen. **Irene Aldasoro**

Egunotan gaixoak ugari baitira eta sendagileak **urri**. **Josu Zabaleta**

Hauxe da araua: urre asko izaten da zilarra **urri** denean, eta urrea **urri** izaten da zilar asko denean. **Iñaki Iñurrieta**

Oso **urriak** izango dira. **Gotzon Garate**

Nahiko **urriak** ziren zure ondasunak ni etorri aurretik. **Elizen arteko biblia**

Hain dira **urriak** nire egunak! **Elizen arteko biblia**

Txikia eta baliabideetan **urria** izanagatik, ohiko beste edozein eskolaren itxura zeukan. **Joxerra Garzia**

Itxuraz **urri** eta trakets diren hizkuntzek lehengai eskaintzen dute kultura landu eta konplexu baterako. **Bernardo Atxaga**

Horixe baita **urri** dugun gaietako bat. **Agustín Otsoa**

Izeia edo izei hispaniarra **urria** den lekuetan, altzifrea, makala, zumarra edo pinua erabiliko dira. **Santiago Iruretagoiena**

Anglonormandiarra arautua zen, hotza, patxadatsua, mugimenduetan zein hitzetan **urria**. **Karlos Zabala**

Urria keinuz eta hitzez, bazekien geldi-geldirik irauten, soldadua nagusiaren aurrean bezala. **Karlos Zabala**

Ohartzen ziren langile klaseak klase ertainaren oparotasunean zuen partea harrigarriro **urria** zela. **Iñaki Mendiguren**

Europar kulturak Espainian zuen eragina egiaz **urria** zen. **Josu Zabaleta**

4 (adizlagun gisa)

Nadia ere luzaro, mutu ez, baina bai hitz alferretan **urri** agertu zen guztiz. **Karlos Zabala**

Herri eta garai urrunak eta neska lirain **urri** jantziak. **Aingeru Epaltza**

Izan kontuan **urri** ereiten duenak **urri** biitzen duela. **Elizen arteko biblia**

Janariz **urri** zebiltzan, eta adorez motz. **Aingeru Epaltza**

Urri jan ezan, argal irauin behar dun eta. **Joxan Elozegi**

Askotan nagusiek jaten ere **urri** ematen dietela arranguratzten dira. **Gotzon Garate**

Urri dabilta, ordea, eta eskean ibili behar dute. **Jose Morales**

Makurturik geundelako, isilpean gindoazela zirudien, baina isiletik eskas eta **urri** genbiltzan inguru hartan. **Joan Mari Irigoien**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Estatuari hirurehun jopu zintzo, edan-**urri** eta langile aurkezten badizkiot, [...]. **Jose Morales**

Hitz-**urria** da, izaera itxia dauka eta gazteen artean ez dute askorik maite. **Urtzi Urrutikoetxea**

Hantxe gelditzen zen, hitz **urri**, zergatik etorri zen inoiz ere azaldu gabe. **Karlos Zabala**

6 urri-urri

Izututa daude mendebaldarrak Ekialdera etortzeko, areago Iranera; horren isla, aspaldi honetan topatu ditudan atzerritar **urri-urriak**. **Jon Arretxe**

Azido urikoa, gizonaren eta ugaztunen jariatzen **urri-urria**, txorien irazkinen ehuneko 50 dela, eta narrastien irazkinen ehuneko 90. **Juan Garzia**

Lehenik Iranen **urri-urriak** diren zibertokietako batera eraman nau. **Jon Arretxe**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adimenez urri (3); **baliabideak urri** (3); **diruz urri** (5); **hitz urri** (4); **oso urri** (5); **urrea urri** (3); **urri samar** (3); **urri urriak** (3)

ahalmen urria (4); **argi urria** (3); **aukera urria** (5); **baliabide urria** (3); **denbora urria** (3); **eragin urria** (3); **gaitasun urria** (4); **hitz urria** (3); **ikuskizun urria** (3); **informazio urria** (7); **informazioa oso urria** (3); **informazioa urria** (6); **itxaropen urria** (4); **leku urria** (3); **nahiko urria** (4); **nahiko urria da** (3); **oso urria** (22); **oso urria da** (13); **toki urria** (3)

urria da (44); **urria dagoela** (3); **urria du** (4)

gero eta urriagoa (3)

askoz urriagoak dira (3); **gero eta urriagoak** (6)

aukera urriak (10); **aukerak urriak** (8); **aukerak urriak direla** (3); **baliabide ekonomiko urriak** (5); **baliabide urriak** (8); **baliabideak urriak** (6); **baliabideak urriak direla** (3); **oso urriak** (21); **oso urriak ziren** (5); **urri urriak** (3); **urriak dira** (24); **urriak ziren** (13)

baliabide urriekin (3)

adimen urriko (32); **adimen urriko haur** (3); **adimen urriko haurrak** (4); **adimen urriko haurrek** (4); **adimen urriko haurren** (3); **ahalmen urriko** (32); **ahalmen urriko haur** (4); **ahalmen urriko haurrak** (6); **ahalmen urriko haurren** (9); **baliabide urriko** (3); **eremu urriko** (20); **eremu urriko hizkuntzen** (3); **eremu urriko hizkuntzetako** (3)

adimen urrikoa (3)

adimen urrikoentzako (5)

urri² 1 iz urteko hamargarren hila, 31 egun dituena.

Ozeano Atlantikoan, **urri**, azaro, abendu eta urtarrilean, iparrekialdeko haizeak jotzen du. **Iñaki Iñurrieta**

Sekula baino gogotsuago eutsi nahi bizitza honi, eta urtebete besterik ez bada ere, urte ziztrin bat, edo laurden bat, edo bi hilabete (iraila eta **urria** balira hobe!), esperantzari eutsiko diot. **Joxe Austin Arrieta**

Urria da, egun heze bat. **Koro Navarro**

Eguraldi ederra zegoen, **urria** zen, bazeblen dena garbitzen zuen hego haize eder bat. **Koldo Izagirre**

Urria heldu zen, ostera, eta airea aldatzear zegoen, eta euriteak eta haizeak berriro hastear. **Agustín Otsoa**

Urria iritsi zen, hotza eta hezetasuna ekarri inguruko sailletara eta gaztelu barrura. **Iñaki Mendiguren**

Urria iritsitakoan, La Salleko bideari ekin beharko nion berriro, bizikletaz, trenaz, oinez. **Bernardo Atxaga**

laz, **urrian**, erostetxe bateko ilaran zain nengoela, kutxazain lanetan nire ikasle izandako neska bat ikusi nuen. **Joseba Urteaga**

1763ko **urrian**, ezkondu eta bost hilabetera, kartzelan sartzen dute beste emakume batzuekin oheratzeagatik. **Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio**

Hemendik **urria** bitartean, hainbat esperimendu egingo dituzte ISSko bizilagun berriek. **Berria - Gaiak**

2001eko **urria**. **Berria - Mundua**

Karrerako azken kurtsuan, ordea, hark ekanean bukatu zuen eta nik, berriz, **urria** arte egon behar izan nuen. **Aingeru Epaltza**

Datozen hilabeteetan abiada moteltzen jarraituko du, eta **urriurako** lortuko du planetaren inguruko orbita ia erabat biribila. **Berria - Gaiak**

Ordurako, 1941eko **urria**, Europan egoera guztiz argiturik zegoen. **Edorta Jimenez**

Urriko egun bat etorri zitzaion gogora. **Ramon Saizarbitoria**

Goizeko hamarrek inguru izango ziren, **urriko** egun batean. **Josu Zabaleta**

1917ko **urriko** iraultza sozialista, ordea, ez zuen batere gogoko izan. **Jose Morales**

Garapen-bideko herrialdeen zorraren krisiaren eta 1987ko **urriko** burtsaren kraxaren ondoren. **Koro Navarro**

Urriaren erdialdera, abokatuek amaiturik zeukaten Harryren ondarearen jaraunspenaren gaineko lana. **Oskar Arana**

762 libra, 14 txelin eta 2 penike joan den **urriaz** geroztik. **Antton Olano**

Asisen hil zen 1226ko **urriaren** hiruan, ilunabarrean. **Askoren artean**

Urriaren 10a, igandea: mendi ibilaldi, Daniel Oltzomendi gidari. **Herria**

Parisen, 17ko **urriaren** 17an. **Jon Muñoz**

EHAako **urriaren** 16ko 281/2012 dekretua. **Iban Zaldúa**
Kanpoko langileak izan ziren beste lau zentraletan **urriaren** 16tik 20ra izaniko istripuen biktima. **Berria - Gaiak**
Obrak gelditu behar dira **urriaren** 22tik azaroaren 1a arte. **Herria**
Larunbata, 1942ko **urriak** 3. **Josu Zabaleta**
Larunbatarekin, **urriak** 29, Ziburuko elizan, *Die Singphoniker* aleman seikotea. **Herria**
Urriak 11: gaur da etortzeko Virgilen familia. **Xabier Olarra**
Lehen jardunaldia (**urriak** 9-10) Crvena Zvezda-Celje. **Berria - Harian**
Krugmanen "La falsedad de la nueva economía" (*Política Exterior*, 65, iraila-**urria**, 1998). **Iñaki Heras**
Urtero ohi legez, badiako paisaia errotik zen aldatua irail-**urrien** arteko muga hartan. **Iñaki Iñurrieta**

2 (hitz elkartuetan)

1936ko **urri** inguruko kontuak dira. **Jokin Urain**
Karia hortarat, bi erakusketa badira **urri** haste huntan. **Herria**
Diru horrekin, Angelina Darthez andereari erosi zion Agerría bere Mauleko jauregia, 1880ko **urri** hastapenean. **Xipri Arbelbide**
Urri erditsuko arratsalde batez, baratzeko bidetik ikusi zituzten bi emazte heldu, bata besteari bermatuz. **Elena Touyarou**
Urtebetetze hori handizki ospatuko da helduden **urri** erditsutan. **Herria**
Urri amaieran itsas aldetik haranaren gainera agertu gura duen egunsentiarekin borrokan ari da gaua, igandetik astelehenerako goizaldean. **Urtzi Urrutikoeetxea**
Urri amaierarako erantzun behar diote helegiteari. **Berria - Euskal Herria**
Urriondar hortan, zombait egunez segidan, gaitzeko egun ederrak izan dira. **Herria**
Sagarren xehatze eta tinkatzeak astezken eta ostegunetan eginen dira **urri ondarr** arte. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urri erditsutan (4); **urri hartan** (3); **urri hastapen** (4); **urri hastapenean** (6); **urri honetan** (3); **urri hortan** (3); **urri huntan** (3); **urri izan** (4); **urri ondarran** (5)
iraila eta urria (6); **iraila urria** (3); **urria aldera** (3); **urria arte** (8); **urria artean** (3); **urria baino lehen** (4); **urria bitarte** (3); **urria bitartean** (12); **urria eta abendua** (3); **urria eta azaroa** (5)
aurtengo urrian (4); **datorren urrian** (7); **heldu den urrian** (15); **helduden urrian** (6); **iazko urrian** (72); **iazko urrian egindako** (3); **iragan urrian** (19); **iraillean edo urrian** (8); **iraillean eta urrian** (7); **joan den urrian** (38); **joan zen urrian** (12); **joandean urrian** (8); **kaleratuko du urrian** (3)
urrian abiatu (4); **urrian abiatutako** (3); **urrian amaitu** (3); **urrian amaituko** (3); **urrian atera** (4); **urrian atxilotu** (9); **urrian atxilotu zuten** (4); **urrian aurkeztu** (5); **urrian aurkeztu zuten** (3); **urrian berriro** (3); **urrian bukatu** (4)
urrian egin (11); **urrian egindako** (8); **urrian egingo** (13); **urrian egingo diren** (3); **urrian eginiko** (3); **urrian egiten** (4); **urrian eman** (3); **urrian erabaki** (3); **urrian esan** (3); **urrian eta azaroan** (11); **urrian gertatu** (5); **urrian gertatu zen** (4); **urrian hasi** (13); **urrian hasi zen** (5); **urrian hasiko** (6); **urrian hasiko da** (3); **urrian hasitako** (3); **urrian hil** (4)
urrian irekiko (3); **urrian izan** (10); **urrian izan zen** (7); **urrian izandako** (5); **urrian izango** (5); **urrian jarri** (5); **urrian jarri zuten** (4); **urrian kaleratutako** (3)
urrian onartu (6); **urrian onartutako** (4); **urrian sartuak** (3); **urrian sinatu** (3); **urrian sortu** (4); **urrian sortu zuten** (4)
urrian utzi (3); **urte hartako urrian** (5); **urteko urrian** (35)
urriaren amaieran (13); **urriaren bukaeran** (10); **urriaren erdialdera** (4); **urriaren hasieran** (20); **urriaren hondarrean** (3); **urriaren lauan** (5); **urriaren lehenean** (16); **urriaren lehenetik** (8); **urriaren lehenetik aitzina** (5)
iazko urriaz geroztik (4); **urriaz geroztik** (41); **urriaz geroztik etenda** (4); **urteko urriaz geroztik** (4)
ama birjina urriko (3); **iragan urriko** (3); **urriko azken astelehenean** (3); **urriko azken asteleheneko** (5); **urriko egun** (5); **urriko hilabetean** (5); **urriko iraultza** (3); **urriko lehen** (15); **urriko lehen asteburuan** (4); **urriko matrikulazio** (4); **urriko plazan** (4); **urriko tenporak** (3); **urriko topaketak** (3)
irailetik urria (3); **urria arte** (9); **urria bitartean** (4); **urtarrietik urria** (3)
iazko urritik (8); **urritik abendura** (7); **urritik aurrera** (7); **urritik azarora** (3); **urritik goiti** (3)

urrialdi 1 iz urritasuneko aldia.

Produktu manufakturatuen tokiko merkatuetan sorturiko **urrialdiek** inbertsio-aukera esperogabeak ekarri zizkieten bertako enpresaburuei. **Koro Navarro**
Urrialdirik bada (benetakoa nahiz aurrez ikusia), prezioen gorakadak ez du eskaria murriztuko. **Koro Navarro**

2 (hitz elkartuetan)

Cholent errezeta, tipula **urrialdietarako** : [...]. **Josu Zabaleta**
- Beti agertuko da eroapenez eta adorez beteta, bai auziekin sortzen ziren gorabeheretan, eta baita diru-**urrialdi** latzenetan ere. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

urrieta iz ipar urria.

Beñat Soulek agertu dizkigu **urrieta** berri huntako onjo berriak, 15 bat urteko hiru gazte, batera ez herabe: Patxi Iriart Hiriburukoa, Mizel Mateo Bidarraikoa eta Gilen Iribarren Itsasukoa. **Herria**
Xiberoko gañ eskolak kurtsuak arrahartuko dütü **urrieta** hatsarrean. **Herria**
Urrietan arno berri, dupetan limurtzen ari. **Pello Zabala**
Urrietaren 16an, igantean egüerditarik hat denak kümit dira Altzaiko Algarri gelarat. **Herria**
Bere lanak **urrietaren** 15a arte ikusten ahal dira. **Herria**

urrik ik hur² 8.

urrikalarazi, urrikalaraz, urrikalarazten du ad urrikaltzera behartu.

Hala eta guztiz ere, esan zien [...] edozein lagun hurko zorigaitzokok **urrikalarazten** zuen azkenean. **Mirentxu Larrañaga**
Haren erantzuna ikusteko galdea egin dut; **urrikalarazi** nau. **Jon Muñoz**

urrikaldu, urrikal, urrikaltzen da/zaio ad errukitu, errukia erakutsi.

Adiskide maitea, adiskide laztana, **urrikal** zakizkit neure oinazeengatik; **urrikal** zakizkit batez ere zeureengatik. **Jon Muñoz**
Dohatsu urrikiz dabiltzanak, **urrikalduko** bainatzaie. **Itxaro Borda**
Orduan **urrikal** zintezke, eta irtenbide bat eskaintzen ahal diozu gizarte berdintzale honek bere altzoan har dezan. **Koldo Izagirre**
Haietaz **urrikaldu** zen, hain arloak ikusirik. **Elena Touyarou**
Egizu menperatzaileek har dezatela errukiz, **urrikal** daitezela hartaz. **Elizen arteko biblia**
Jainkoari dei egiten dakogu gutaz **urrikal** dadin. **Michel Oronoz**
Gutaz **urrikal** dadila Jainko ona! **Herria**

Bat-batean, beste mundurako abian banengo bezala, neure buruaz **urrikaldu** nintzen: [...]. **Txillardegi**

Zer egin dezaket ordea, ez bada zu miretsi eta zutaz **urrikaltzea** ? **Jon Muñoz**

Urkatuak **urrikaldu** behar ditun gutaz, ez gu urkatuez. **Anjel Lertxundi**

Hemen ez dudala lagunik topatuko, hemen ez zaidala inor **urrikalduko** . **Koldo Izagirre**

Ene zorigaitzotaen putzu kirastuan sudur-mintzeta-raino lokazturik, neure buruaz **urrikaltzeko** josteta libertigarrian ari nintekeen aspertu arte. **Aingeru Epaltza**

Maizterren egoeraz **urrikaldurik** , uko egin zion alokairua igotzeari. **Patxi Zubizarreta**

Joanes joan zitzaion, azkenean, **urrikaldurik** , xutitzen laguntzera. **Eneko Bidegain**

urrikaldura *iz* errukia.

Ondo zekien aski zuela bere inguruan begiratzea eta "zorigaitzoko leku honetako aurpegi torturatu hauek" ikustea -hala esan du, eta harritu egin nau bere **urrikaldurak** , azken batean bera ere gure leku berean baitago- zeinen zeregin nekeza duen jabetzeko. **Urtzi Urrutikoetxea**

urrikalgabe *izond* errukigabea.

Esklabu turkoa ballitzan baliatzen zuten, ama **urrikalgabeak** baimendu Agustinen manuetan ihalozka: urde bazkatzen, ardi zaintzen, sukaldea eta ezkaratza xahatzen [...] eta nik dakita zenbat zeregin xehetan higatzen zen bederatzii urteko neskattoa. **Itxaro Borda**

urrikalgaitz *izond* errukigabea.

Eliz ataritik atera eta, urratsez urrats, poliki eta patua bezain **urrikalgaitz** , On Camillok plaza osoa zeharkatu zuen. **Koldo Biguri**

Haren erreguei **urrikalgaitz** gertaturik ni, eskaintzetan behar izan zuen hasi. **Jon Muñoz**

urrikalgarri 1 *izond* errukarria, urrikalmendua eragiten duena. (pertonak)

Zertarako irakatsi bere seme **urrikalgarriari** halako ogibide hutsal eta alferrekorik? **Patxi Zubizarreta**

Alferrik da hainbeste gatibu **urrikalgarriren** sufrikarioa behin eta berriz aipatzea. **Karlos Zabala**

Neska, ostera, begi luze eta mihi gaitzoz betetako auzunean bizi zen koitadu **urrikalgarria** besterik ez zen. **Patxi Zubizarreta**

Hark hil zuen, eta gero istorio guztia asmatu, jendaurrean hiltzaile ez, baina alargun ero **urrikalgarri** agertzeko. **Martin Anso**

Haren ondoan etzaten nintzen ontsa ez bazen, goxoan elaka elgarrekin, eta aroa edertzen zeneko ateratzen ginen hango jende **urrikalgarriaren** artera. **Marzel Etxehandi**

Alde batetik **urrikalgarri** , bestetik dohatsu hola doatzinen burraso eta haurrideak. **Herria**

Urrikalgarriak , larrua jotzea bizitzako ariketa gorentzat dutenak. **Markos Zapiain**

-Bazen aitaxi baino **urrikalgarriagorik** ... **Eneko Bidegain**

2 (bestelakoak)

Zure hitzek, alkate laguna, bihotz-mamia ukitzen didate, negarrez jartzen nire arima **urrikalgarria** . **Karlos Linazasoro**

Baina ahots bat goratu da berriz ere, eta doinu **urrikalgarriaz** xuxurlatu: [...]. **Karlos Zabala**

Honelako adierazpenak bihotzez eta ahoz murmurikatzen eta bere sentimendu **urrikalgarriak** hasperen atergabez azaltzen ari zela, bat-batean lozorroak hartu eta estasian erori zen. **Askoren artean**

Heriotza bala baten azkartasun **urrikalgarriak** eragin beharrean, itomen luze eta anker baten esku etorriko zitzaigun. **Aingeru Epaltza**

Basamortuko bizimodu **urrikalgarri** hartan. **Iñaki Segurola**

Itxura **urrikalgarri** xamarra nuen inolaz ere. **Joxan Elosegi**

Eskaleren kraskakoak **urrikalgarriak** ziren. **Elena Touyarou**

3 (adizlagun gisa)

Erromes eta **urrikalgarri** itzultzen zarenerako, Josafateko zelaian izango nauzu. **Javi Cillero**

Ikusiak nituen aita eta ama ere halako nekezia batean, beren etxetik jalgiz geroz erdaraz behartzen baziren, doi bat **urrikalgarri** , sakelan pilik ez duten behardunen pare.

Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

koitadu urrikalgarria (3)

urrikalkeria *iz* urrikaltasun gaitzesgarria.

Hortik ageri da, abereak hiltzea debekatzen duen legea, alferreko sineskeria batean eta emazteen **urrikalkeria** batean oinarritzen dela, zentzuzko Arrazoian baino segurago.

Piarres Xarriton

urrikalki *adlag* errukitasunez.

Irri egiten dut orduan gertatuaz, eta irri egiten diot neure buruari, ez ankerki eta krudelki, baina **urrikalki** eta amoroski. **Joan Mari Irigoien**

urrikalkizun *izond* urrikalgarria, errukarria.

Oreinaren historia kontatu nion: nola bi morroi haiek akabatu zuten oreinaren begi galduak Kristorenak oroitarazi zizkidaten, eta nola arrazoin hura askietsi nuen komunionea begi gaitzoz ikusteko, **urrikalkizun** ziren Kristoren begiak ez jateagatik. **Joan Mari Irigoien**

urrikalkor 1 *izond* errukiorra. (pertonak)

Alde batetik agintarien politiko zikina, bertetik Frantses xumeen eta **urrikalkorren** jestu onak. **Herria**

Ez naizela nehoiz eri izan, ez arimatik ez eta burutik, lagun faltsu **urrikalkorrak** galduak ditudala jada eta mundua neure begiz haztatzea eta onartzea dagokidala. **Itxaro Borda**

Harek erran du zoriontsuak direla eztiak, Jainkoak hitzeman lurraren jabe izanen baitira, zoriontsuak **urrikalkorrak** , bakegileak. **Michel Oronoz**

2 (bestelakoak)

Konplizitate **urrikalkor** batean geldi zedin gure arteko atxikimendua. Piarres Aintziart
Radian Husaini hitz eta pitz hasi zen, aholku **urrikalkorrez** eta hausnarketa moralez beteriko bere ohiko hitzaldi luzeetako batean. Patxi Zubizarreta
Probidentziaren erabaki **urrikalkorre**, aldez edo moldez, uko egiteko arriskuan zela. Jon Muñoz
Bazterrekoek, irribarre **urrikalkorra**; ez baita, segurrenik, gizon hastiala. Piarres Aintziart
Irribarre sinpatiko eta **urrikalkor** bat. Piarres Aintziart

3 (adizlagun gisa)

Ni, alderantziz, oso **urrikalkor** agertzen nintzen. Txillardegi
Oro har kontu handiz eta **urrikalkor** mintzatu zaigu, ahal beste saihestuz "lan eremu" hitza. Urtzi Urrutikoetxea

urrikalmen iz urrikalmendua, errukia. ik urrikalpen.

Gizonak, arriskuaz jabeturik, **urrikalmen** eske: [...]. Patxi Zubizarreta
Badaki ezin duela **urrikalmenik** espero. Koldo Izagirre
-Zerorrek diozun bizibide horretakoa nauzu; eta, mindurak, dohakabeak eta zoritxarrak beren habia hortxe, nire arima barruan, badute ere, ez da horregatik besteen atsekaebetarako **urrikalmena** aldendu bertatik. Patxi Ezkiaga

urrikalmendu 1 iz errukia.

Bekaizkeriari **Urrikalmendua** kontrajartzen zaio komunzki. Piarres Xarriton
Aljerian ikasi nuen naski **urrikalmendua**, konpasioa, eta berdin ohargabeen pentsatu sentimendu hori dela sufrimenduaren justifikazio bakarra. Piarres Aintziart
Nafarroako bi budista fededun entzun ditugu; budismoaren oinarriak maitasuna eta **urrikalmendua** zirela zioten; huntara heltzeko meditazioa zela bide bat. Herria
Karitatea eta **urrikalmendua** bertze sentimendu guztien gainetik ipintzen zituela. Joan Mari Irigoien
Bere lagunaren aldeko **urrikalmendua** eskatu zion Jainkoari. Patxi Zubizarreta
Ez zien etxekoei penarik egin nahi, berak aski penarik iragan baitzuen hol-hola eta etxekoan **urrikalmenduak** oraino atsekabe gehiago sorraraziko baitziren. Eneko Bidegain
Urrikalmenduaren argiak eztitzen duen justizia. Piarres Xarriton
Emaztea begitantzen nuelarik karrikan barrena trofeo gisa biluzik, **urrikalmendu** handi batek hartzen ninduen, harrika eman ballote bezala. Koldo Izagirre
Edozoin gaizki egilek, den tzarrenak, merezi du beti errespetu eta **urrikalmendu**. Herria
Izeba batek hartu zituen, **urrikalmenduz**. Felipe Juaristi
Anaia batek bere arreba eriangenako senti zezakeen **urrikalmenduzko** maitasuna. Joan Mari Irigoien
Hel daitekeela orobat **urrikalmenduzko** Jainkoa mendekuzko Jainko bilakatu den unea. Jon Muñoz
Katolikoan begietan debozio eta xamurtasunezkoak ziren malkoak, Hereseetan damu eta **urrikalmenduzkoak** baitziren. Jon Alonso
Alexandria, eskuperaturik, alferrik aritu zen Zesarri **urrikalmendu** eske. Juan Garzia

2 (hitz elkartuetan)

Orain gure aitak, amona aipatzen zuenean, "ene ama gaixoa" esaten zuen, eta maitasun eta **urrikalmendu** kutsu berezi batekin esaten zuen. Fernando Rey

urrikalpen iz urrikalmendua, errukia.

Gaixo loretegiak! zangopilatuak izan dira, nehork ez zuela **urrikalpenik** heien suerte dohakabearentzat! Herria

urrikaltasun iz urrikalmendua, errukia.

-Jainkoak benedikata eta salba dezala -errepikatu zuen **urrikaltasunez** Afifi andereak. Patxi Zubizarreta

urrikaltsu izond errukitsua.

Emazte **urrikaltsu** batek hartz-kume batzu amultsuki hazten zituen. Herria
Baina zugandik ihesi gindoazenon ondotik zu zeunden, Jaungoiko mendekatzaile etaaldi berean **urrikaltsu** hori. Imanol Unzurrunzaga
Eta, nola gipuzkoarra baitzen gizon ezin bihozberagoa eta ezin **urrikaltsuagoa**, gutzia emaitako dispozizioan zegoena, [...]. Joan Mari Irigoien
Ez dut nire zauririk ezkututzen; sendagile zara, ni gaixo; zu **urrikaltsu**, ni errukarri. Imanol Unzurrunzaga
Ez zaitut kontulari izateko gai ikusten -esan zuen Fubukik, irribarre **urrikaltsu** batez. Joxan Elozegi
Liluraturik geratzen ziren haren eskuzabaltasuna, zuzentasuna eta samurtasun **urrikaltsuarekin**. Patxi Zubizarreta

urrikaltze iz errukitzea.

Urrikaltze horien sinesgarritasunaz eta Miller kargu honetara izendatzearen egokitasunaz zalantza ugari egon daiteke, ordea, militarburu hori urtebete egon baita AEBek Kubako uharteetan eratu duten Guantanamo detentzioguneko zuzendari lanetan. Berria - Mundua

urrikari 1 iz errukia.

Holakoa da gure paper mendea, **urrikari** guti senditzen duen hau. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Saddam Hussein bi alaba, Rana eta Raghad beren 9 haurrekin, onhartu ditu Jordaniak iheslari bezala bere lurrian Abdallah erregearen baimenarekin, jendetasunez eta **urrikariz**. Herria
Mundu guziak ere **urrikariz** hartu ditu hango jendeak eta aitortu ere bere hobenek zituztela han gertatuetan kanpo erresumek, ONU, Belgika, Frantzia eta besteek. Herria
Ez natzaizu beraz **urrikariz** ondotik ibiltzen. Piarres Xarriton

2 urrikari izan erruki izan.

Hartz urrikalduko direla, geroxeago Jainkoak ere haiek biak berak **urrikari** izan ditzen eta zinez zoriontsu egin lurrian eta zerua. Piarres Xarriton
Ez nien **urrikari**. Matías Múgica

urrikarri izond errukarria.

Gaztea, tontoa, gaiztoa, **urrikarria**. Matías Múgica

Negar intziri **urrikarri** hark nireztat eskatu baino askoz gehiago eman zentola ikusten baitzuen. Imanol Unzurrunzaga
Arlote hark bizimodu bereko guztien itxura zarpazu eta **urrikarria** bazuen ere, arreta berezi baten merezient iruditu zitzaion adin bateko jaun ongi jantziari. Matías Mujika
Hilgaiari afari berezia ekarri dio eta gero urkamendia jasotzen laguntzen du, **urrikarriak**. Koldo Izagirre

urriki *(118 agerraldi, 32 liburu eta 23 artikulutan; cf **erruki 1735** agerraldi, 185 liburu eta 61 artikulutan)* 1 iz errukia.

Baina **urrikia**, adiskidantza eta amodioa berdin dira arrotz zure bihotzarentzat. Jon Muñoz
Amodioaren segadarik arriskutsuenetariko bat den **urriki** amoltsua. Jon Muñoz
Urriki sakon bat baino ez dut neure baitan sentitu. Joxan Elozegi
Aintzek **urriki** haundia agertzen dute. Herria
Askotan hil-beharrak gupida eske begiratzen zion morrosko hiltzaileari, beronek **urrikirik** gabe labana saihetsean sartzen ziolarik. Txillardegi
Bekatu arinak emaiten duen **urriki** gabeko erasia bertualak goxaturik, lokartzen naiz. Piarres Aintziart
Urrikirik gabeko masakrea zen. Itxaro Borda
Eta, ez geroko **urrikirik** izateko, ikusi nahi zintudan, buruz buru. Daniel Landart
Dohatsu **urrikiz** dabiltzanak, urrikalduko bainatzaie. Itxaro Borda
Hiru ekintzaileek **urrikiz** begiratu zioten, historia honetan nonbait berak bezain arrotza eta bakartua zelako. Itxaro Borda
Urrikiz so egin zidan, dakienak ez dakienari so egiten dion bezala. Aingeru Epaltza
Orai **urrikiz** daude, horra heien penak. Herria
Azkenean **urrikizko** barkamena sentitzen zuen neurekiko. Itxaro Borda
Komeni da Estatuaren gobernatzen duenarenagandik bihozberatasun, barkamen, **urriki** eta ongi nahizko egintzak maizago agertzea, zigortzekoak baino. Xabier Kintana
Urrikia eskatzen dizuet. Koldo Izagirre
Une hartan azkenik gabeko **urriki** bat sortu zitzaidan ume dohakabe hauengana. Koldo Izagirre
Denek, amodio hutsak egiten ditugu eta berantegi **urrikitan** sartzen. Herria
Gogaituta behatu zidaten, behakoaren **urrikia** egin zidatenek. Koldo Izagirre
Aurpegi ezezagunak, elkartasun eta **urriki** obratzaile direnak, goi-izpirituaren lekuko. Herria
Hasian hasi, erran du ere ez duela **urrikirik** Jean-Pierre Raffarin deiturik gobernuburu karguan aintzina segitzerat. Herria
Ez da beraz lotsatua Bayrou eta ez omen du **urrikirik** Frantziako itzuli luze horri hola plantaturik. Herria
Ondo dago apala izatea, Estepan, baina historiak ez du **urrikirik**. Juan Luis Zabala

2 *urriki izan* erruki izan.

Lan eginaz **urriki** dut baina probetxurikan ez. J.M. Olaizola "Txiliku"
Urriki nuen ene andrea aipaturik. Janbattitt Dirassar
Hori erran orduko, kasik **urriki** nuen hola mintzaturik. Janbattitt Dirassar
Ene Jainkoa, nola **urriki** zaitudan! Jon Muñoz
Haren jokabidea gaitzetsirik, presuna **urrikiko** nuke, eta zain egonen nintzateke, isilean, zorioneko aldaketa batek jende prestuen estimua itzul liezaion. Jon Muñoz
Urrikiko nauzu hala ere, baldin zenbat sofritzen ari naizen hauteman ahal bazeneza.· Sophie maitea, **urriki** zakizkio zeure Cécileri, zeure Cécile gaixoari; zinez dohakabea da! Jon Muñoz

hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urrikirik gabe (9)

urrikigabe *izond* urrikirik ez duena.

Ez da ikusi [...] euskal punk ohi batzuk baino epaile zorrotz eta **urrikigabeagorik**. Itxaro Borda
Herrestan zebilen, hala ikusten zen kartelean, desertu **urrikigabe** eguzki-erre batean barna. Matías Mujika
Zifra horien atzean, eta irain **urrikigabeen** gibelean, giza sofrikario latzen prezioa ezkututzen zelako. Txillardegi
Zerua urdina zen; itsasoa, eskuinetara, mugiezina, eguzkia, neure bizkarrean, **urrikigabea**. Matías Múgica

urrikigabeki *adlag* erruki gabe.

Hala oldartu zitzaizkigun indiar horiak eta zazpi gizon zuriak gainerat, on-edeki eta **urrikigabeki**. Joan Mari Irigoien

urrikimendu *iz* damua.

Jar zaitetz, bada, belaniko, erakutsi zeure damua eta zeure **urrikimendua** Jainkoari bekatu guztiengatik. Joan Mari Irigoien

urrikimin *iz* damua.

Zergalaria berriz, han, nunbait, urrun, ezin fida ere otoiitz molde baten hartzeko: bularrari joka, bere **urrikiminak** lehertua dago: "Ene Jainkoa, urrikal zaite ni naizen bekatoreaz." Herria

urrikior *izond* errukiorra.

Emandako zigorrak **urrikiorrak** direla esango ez banu ere, argi utzi dute behintzat, ez zela, auzitegiaren aldetik gogorregi jotzeko nahikunderik. Berria - Mundua

urrikitu, urriki, urrikitzen 1 da *ad* damutu.

Hamar bat urrats egin orduko, **urrikitu** zitzaidan. Janbattitt Dirassar
Ez zaio nehoi **urrikitu** Bestaburu egun hortan trinketerat jinik. Herria
Gisa guziz, ez da hola eta hola apailatuko bigarren barreatze bati, lehen hura eginik aski **urrikitua** baititake bestenaz ere, holakorik ez badu ere berak airtortzen. Herria
Poenitere hitzak **urrikitzea** edo damutzea erran nahi duela latinez, edo zerbaite eginik dolutzea. Piarres Xarriton

2 errukitu.

Gaixo serorak nolako baldintzetan lanean ari ziren ikusirik, **urrikitu** zen Charles d'Abbadie d'Arrast, Etxauzko jauna, eta nola atsulutuki nahi baitzuen herriko nexkatxak

eskolatuak izan ditzen, bere gain hartu zuen etxe eder baten eraikitzea eskola gisa.

Michel Oronoz

Urriki zaitetz! deiarar egin nion.

Berria - Harian

urrikitze iz damutzea.

Hola da ere Zeruetan galdua den bakar batentzat bozkario gehiago bada **urrikitze** beharrik ez duten 99 zuzentzat baino!

Herria

urri iz urria.

Urria deitzen diogu orain gauden hilabete honi: **urrilla** deitzen zioten lehenago.

Pello Zabala

Urtean-urtean **urriak** bigarren igandean erromeria izaten da Urkiolan.

Koldo Izagirre

urri iz mandragora.

Debekatutako sendabelarren artean daude, mihura, mandragora edo **urriola**, basa erromeroa, heliotropoa, eta Estatu Batuetatik ekarritako erregaliza.

Berria - Gaiak

urri¹ iz usaina; usain ona. ik lurrin.

Lore baten **urriarekin** egunetan eta egunetan ametsetan aritzea.

Koro Navarro

Giroa kargatuz zihoan lehen porroen **urriekin**.

Iñaki Iñurrieta

Nire parean jartzean, gorputz garbitu berriaren **urria** tabako usainari korapilatua zitzaien salan.

Aingeru Epaltza

Ogi egin berriaren **urriak** sudur mazelak kilikatu zizkion eta gosea nabaritu zuen.

Itxaro Borda

Mugurdiek beren **urria** gehitzen zioten usain garbi horri.

Karlos Zabala

Hezetasuna motelagoa zen, halako ibai usain belaxka bat, hondarretan lokarturiko ur epelaren **urria**.

Karlos Zabala

Belaunikatu nintzen iluntasunaren errezelaren azpian, horditzen ninduen **urriak** inguratutik.

Fernando Rey

Urrin ia ezin atzemanezko bat, hain zaharra non bai baitzirudien usain baten arima zela.

Josu Zabaleta

Ez margoek ez **urriek**, ezin naute jadanik engainatu.

Koro Navarro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hark landa usain osasuntsua zekarren merkatuko **urri** txarren artera.

Karlos Zabala

Murtutseneko inguruetan gaitzeko **urri** tzarra zegoen eta pietunak sudurra tapatu zuen mokanesarekin.

Itxaro Borda

Belar errearen **urri** arina dabil airean.

Pello Lizarralde

Non-nahi **urri** azkarra aditzen zen, usain mingotsa.

Fernando Rey

Urrin iraunkorra zen, larruazalari zeta finaren antzera itsasten zitzaiona, arrain sunda bat.

Karlos Zabala

Katu-gernuaren **urri** mina.

Aingeru Epaltza

Bere inguruko barazkien usain freskoak, azenarioen **urri** sarkorrek asaldatu egiten zuten konortegabetzeraino.

Karlos Zabala

Geltoki berriko obrari egur hezearen **urri** sakona dario.

Monika Etxebarria

Urrutiko loreen **urri** goxoa sumatu zuen.

Fernando Rey

Bestearen existentzian sartuko, existentziaren **urri** goxo-goxoa eta astuna darien mukositare gorrietan.

Monika Etxebarria

Gantz sunda zerion, haragi onaren **urri** geza.

Karlos Zabala

Lasaitasuna berehala desagartzen da, haren lekua **urri** ezagun baten usainak hartuta.

Antton Olano

Hats kiratsu bat hedatzen zen, zur usaintsuen eta lore atsien **urri** zakarrez kargaturik.

Karlos Zabala

Haizeak urdaitegiaren **urri** koipetsu hura eraman zuen haren arropetatik.

Karlos Zabala

Limbourg gaztaren hilzoriko **urri** samin mingotsak iritsi zitzaizkien hiru andreei.

Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gazte denboran, Afifi anderea **urri** saltzaile batekin ezkondu zen.

Patxi Zubizarreta

Mota guztietako perfumez osaturiko **urri** -hodeiak helarazi zizkieten.

Jose Morales

Haren besazpiak, eskuak, lepoalde, **urri** jario ziren.

Patxi Zubizarreta

Umetango egun urrunetan, ordu umeletan batez ere, [...] nabarmendu egiten zen **urri** -ortzadar anizkzun hura.

Txillardegi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Opil gozo beroa, lurrinarekin halako gurin **urri** bat zabaltzen zuena. Espetxera eramango zaitut eta han berehala joango zaizkizu alkohol **urri** horiek...!

Josu Zabaleta

Ibaitek zikin, lokatz likits eta ustel **urria** altxatzen zen.

Itxaro Borda

Falta, orobat, Domingoren zurrunga etenak eta eme **urri** epela Ramonaren ohantzetik.

Aingeru Epaltza

Bide bazterrak papistaz beterik zeuden, leporaino armatuak, nornahi garbitzeko irrikan higanot **urria** sumatu orduko.

Aingeru Epaltza

Lokatz **urri** motelak ondoko kaleetatik etorri eta haragi ustelen usainekin nahasten ziren.

Karlos Zabala

Lore **urri** xumeak hedatzen zaizkie gorputzen zoko ezkutuenetara.

Anjel Lertxundi

Zoko **urri** likitsa darien lau murru hits hauen artean.

Itxaro Borda

5 perfumea.

*Hume Street*eko kantoira gerturatzean, **urri** -usain handi bat nabaritu zuen airean eta neska gaztearen itxuraren azterketa bizkor bat egiten ahalegindu zen.

Irene

Aldasoro

-Ekarri kremak eta **urriak**, eta itxi parkeko ateak, bainua hartu behar dut eta.

Jose Antonio Mujika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urri berezia (4); **urri gazi** (3); **urri gozoa** (4)

pixa urria (3); **urria zerion** (3); **urria zerion** (3)

urri² ik urrun.

urrintatu, urrinda, urrintatzen 1 du ad lurrindu. ik urrineztatu.

Eta agindu zien herrera intsentsuz **urrintatzeko** eta arrosa urez igurtzeko.

Patxi Zubizarreta

2 (era burutua izenondo gisa)

Ohar zaitzete, adiskideak, zeinen anker jokatu zuen Jaungoikoak nirekin, Lakatos **urrindatu** hura jarri zidanean trebes nire bidean pasatu behar nuen lehenbiziko bidagurutzean. **Matías Múgica**

Baina harritua nintzen ikusiz nola nire maiteak bat-batean zirimola **urrindatu** baten itxura hartu zuen (zirimola sedukzioz bete). **Matías Múgica**

urrindu, urrin(du), urrintzen 1 du *ad* lurrindu.

Monoi usaina dago, landa loreekin **urrindutako** koko olioaren usaina. **Patxi Zubizarreta**

Goizean, gauerako etxeko soinekoz jantzirik sartzen zen, irribarrez, ordurako usain gozoz **urrindua**, eta atletik galdetzen zuen. **Josu Zabaleta**

-Zuhaitz horren azpian, almizklez **urrindutako** ur ontzi bat dagoela, eta beste ontzi bat bete ardo. **Patxi Zubizarreta**

2 (era burutua izenondo gisa)

Zeta zuriko durbante bat jantzi zuen, eta handik ile mataza tindatu eta **urrindua** zerion. **Patxi Zubizarreta**

Oso pinpirin eta **urrindu** ibiltzen baitzen beti. **Josu Zabaleta**

3 usain txarra-edo hedatu. ik **kirastu**.

Sokratesek zigea edan zuen eta pixa-kaka **urrintzen** zuen Sirakusa auzoko harrobi baten zokoan burua ebaki ziguten Demostena eta bioi. **Itxaro Borda**

urrineztatu, urrinezta, urrineztatzen (*orobat urrinztatu*) du *ad* urrindatu, lurrindu.

Gerruntze gorri batek eusten zien haren bularrei, eta **urrineztaturik** zeuden haren sandalia-zolak. **Juan Garzia**

Inguru-giroa usnatzen nuen, eta hezetasuna erabat **urrinztatua** ailegatzen zitzaidan sudurretara. **Pedro Alberdi**

-Eterrez eta sendagailuz **urrineztatu** klinikako pasagia beilegian, eskuak aurpegiratu zituen. **Itxaro Borda**

urringile *iz* perfumeak egiten dituena.

Egun batez, **urringile** batenera jo zuen, eta hark erregearen eta ministroen berri eman zion. **Patxi Zubizarreta**

urrintsu 1 *izond* usaina hedatzen duena.

Zeru urdinarekin, belar berdearekin, lore **urrintsuekin**, bihotzaren maitasun ahalmenarekin eta izpirituak sinesteko duen ahalmen azkengabearekin, nolatan aspertu? **Patxi Zubizarreta**

Oihalak astiro hartu zuen estreina su; gero, ehuna barne-bustitzeko erabilia zuten olio **urrintsuaren** lurrungatik, gora egin zuen garrak, urdinkara, ebanozko gainestalkietarantz. **Juan Garzia**

Sudurrak topo egiten zuen ukondo, mahukaburuz, mahukaz, xingola-muturrez, atorraz eta soineko **urrintsuz** osaturiko hesi batekin. **Jose Morales**

Zikinak eta **urrintsuak** izan arren, ikusgarriaren aitzinean larrua jotzeko gutizia jaukitzen zitzaien. **Itxaro Borda**

Ohe hegiko apalean metatzera utzi gasna azal **urrintsuak** miresteanean. **Itxaro Borda**

Herio **urrintsu**, onar ezan ene ahotsaren libazioa. **Juan Garzia**

Urera keldarra ttantaka igortzen nuelako, ilun, biketsu, **urrintsu** eta azkenean disgustagarri. **Itxaro Borda**

urrintto *iz* *adkor* usaintxo.

Haren zakarkeria kontrolatuak, berriz, ordenaren zerbitzariak administratu arruntekin ohi duten jokamoldearen **urrintto** nahastezina zuen. **Aingeru Epaltza**

urrinztatu ik **urrineztatu**.

urriondar ik **urri**² 2.

urririk 1 *adlag* doan. ik **dohainik**.

Urririk ala pagatuz? **Herria**

1882an irakaskuntza **urririk** izanen da lehen mailan, gero bortxazkoa denentzat eta laikoa. **Xipri Arbelbide**

Baztango balleko etxeak ere ez dik nahi hori, **urririk** emanik ere. **Hasier Etxeberria**

Konfiantza pagatzen da, ez da **urririk** egiten. **Menane Oxandabaratz**

Portugaletik itzultzean, bi Gaztela herriek eta Nafarroak hartu ninduten eta ongi etorri egin zidaten ene lanak eta aholkuak baliatuz, hamabi bat urtez **urririk**. **Piarres Xarriton**

Delako gutun hori igorria izan zaie, **urririk** erakasle guziei. **Herria**

Hurrengoan bere etxeko giltzak utzi zizkidan, sartu eta neronek zaintzeko bera Benidormera zihoalako **urririk**, zozketa bati esker. **Koldo Izagirre**

Telebixta publikoko (2. gatekoak) eta anitz artistek parte hartzen dute, izan ditzen kantariak, jokolariak zineman edo antzerkietan, bakoitzak berea emanez eta **urririk**.

Herria

Sartzea **urririk**. **Herria**

2 **urririkako** *izlag* doakoa.

Bestalde oraino, **urririkako** zonbait kontzertu aste guzian zehar, itsas-erakustegian, Kasino aintzinean eta Santa Eugenia elizan, besteak beste. **Herria**

Beldur dira eskaintza horrek, iduriz **urririkakoa**, izan ditzan, edo badituela jadanik baldintza edo kondizione batzu, hartzale gaixoa beste nunbaitik estekatzen dituenak.

Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

autobusak urririk (3); haurrentzat urririk (3); ikastaldi horiek urririk (3); jostetak urririk (3); plazako jostetak urririk (3); sarrera urririk (3); sartzea urririk (155); sartzea urririk da (12); sartzea urririk izanen (29)

urririk eman (3); urririk eskaini (3); urririk eskainiak (5); urririk eskainiak izanen (3); urririk haurrentzat (3); urririk izanen (45); urririk izanen da (37)

urriskide (*orobat urrixkide*) *iz* bazkaltiarra.

Urriskide urteoro barka ote dute maitaro. Patziku Perurena

Orriskide ote zan adierazteko, balio du au jakiteak: apezak esaten du [...]: "egun **urrixkide** izanen dira olako ta olako". Patziku Perurena

urritasun 1 iz urria denaren nolakotasuna.

Urria, useok beren pasa egiteko aukeratzan duten hilea, batzuen ustez **urritasunarekin** lotua. Pello Salaburu

Errana dut Neurritasuna, **Urritasuna** eta Xahutasuna Izpirituaren ahalmenak direla eta ez grinak. Piarres Xarriton

Zeren kemena beharko baitugu beldurrak, **urritasunak** eta sufrimenduak gainditzeko. Josu Zabaleta

Urritasunean dena duzu faltan, aberastasunean oro soberan. Karlos Linazasoro

Senatuak lukurrieren alde hain setatsu jokatzan zuen garaian, pobrezia, neurritasuna, **urritasunarekiko** maitasuna oso handia zen erromatarren artean. Iñaki Iñurrieta

Urritasunezko zazpi urteak hasi ziren, Josek esan bezala. Elizen arteko biblia

Niretzat euskaraz idaztea irakurle gutxiago izatea da, eta idazle bezala horrek pena ematen dit; baina bestetik, **urritasun** hori libertate eremua ere bada niretzat. Ana Urkiza

Irakurleen **urritasuna** ez da soilik euskal literaturaren arazoa. Berria - Kultura

Hainbat **urritasunen** esparruan aditu diren 40 lagun inguru daude zentroan. Berria - Harian

Badakit grekoen aurkikunde ilunak latinezko bertsoz argitzea zaila dela, batez ere sarritan hitz berri asko sortu behar baita, hizkuntzaren **urritasuna** eta gaien berritasuna bide. Xabier Amuriza

Kezka nagusia Euskal Herriaren nazio eraikuntzan emandako pausuen **urritasuna** da. Berria - Euskal Herria

Bazirudien zerbait esnatu nahi zitzaioala barnean, [...] familiarik gabeko bakartasunak, aurreneko zirraren pobretasun eta **urritasunak**, eta, azkenik, patuaren begirada latzak, modu aspergarrian begiratu baitziren, neguko elur-erauntsiak ganduturiko leiho batetik zehar. Jose Morales

2 (izenondoekin)

Edan-kontuan ere **urritasun** gogorrez jokatzan zuen, gorputzari ardoa galaraziz, gogoia jakinduriaren argira zuzendu ahal izateko. Askoren artean

Adimen **urritasun** larria edo sakona duten pertsoneri zuzendutako zerbitzuak eskaintzen ditu. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nire herrira ausarki iritsi da portugaldarren modestia, apaltasun, **urritasun** eta abengazio-izpirituaren ospea. Jon Alonso

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arrazoa: tabako **urritasuna**. Josu Zabaleta

Proteina-**urritasunaren** ondorio dira munduko elikadura-arazo ia guztiak. Irene Aldasoro

Adingabea eta adimen **urritasuna** duena. Berria - Euskal Herria

Horietaik 268k entzumen **urritasuna** dute. Berria - Euskal Herria

Trafiko handia dago, eta batzuek faroak piztuta dauzkate argi **urritasunagatik**, ekaitzagatik. Mikel Hernandez Abaitua

Beren odol-**urritasun** horrengatik jende ustelagoa izaten da ezpatari eusteko, baina inolako beldurrik gabe jasaten ditu beroak eta sukarrak, beroa izaten baitu bere gorputzeko atalen elikagai. Santiago Iruretagoiena

Solasaldia -bestela ere ez oso luzea- bizkor zihonan isiltasunerantz hitz-**urritasunaren** bidetik. Juan Garzia

Bakoitzaren portareari eta edan-**urritasunari** buruzko oharrak ere ipini zituen Sobakevitxek, orri-bazterrean. Jose Morales

5 (ekonomian)

Ekonomia **urritasunaren** edo murrizpenen zientzia dela esan daiteke nolabait. Iñaki Heras

Ikusi zen diruaren manipulazioa oso bide praktikoa zela zorrak murrizteko eta ordainketa-bitartekoen **urritasuna** arintzeko. Koro Navarro

Ezin da dudarik egin kapitalen **urritasuna** [...] ekonomia garatuetan une jakin batean lan-eskua urria izatea baino okerragoa dela. Koro Navarro

Urrialdirik bada [...] prezioen gorakadak ez du eskaria murriztuko, alderantziz, erreserbak metaraziko ditu, **urritasunari** aurea hartzeko nahiz espekulatzeko. Koro Navarro

Tokiko erakunde bitartekoen **urritasunak** ez du ordea krisiaren dimentsio globala ezkutatu behar. Koro Navarro

Inflazioak eta zergek zentzurik gabe uzten zituzten irabazi neketsuen eta **urritasunezko** aurrezki bertute tradizionalak. Iñaki Mendiguren

6 (ekonomian izenondoekin)

Urrearen eta zilarraren **urritasun** positiboaz gainera, bada bi metal horien arteko **urritasun** erlatibo bat ere. Iñaki Iñurrieta

Salneurri horrek euskarri du erkaketa, hain zuzen ere, bateko diruaren ugari eta **urritasun** erlatiboaren eta besteko, salerosian diren objektu edo merkatugaien **urritasun** edo ugaritasun erlatiboaren artekoa. Andres Urrutia

Merkatuko prezioek argi handirik ez digute ematen natur baliabideen **urritasun** bio? sikoari buruz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

7 (ekonomian, hitz elkartuean)

Kapitalismo industrialaren garaian, izan ere, mozkin-iturri nagusia ez ziren **urritasun** -aldeak, ekoizpen-kostuetan gertatzen ziren aldeak baizik. Koro Navarro

Urritasun -espirituak legegilearena izan behar du; on politikoa, on morala bezala, bi mugaren artean dago beti. Iñaki Iñurrieta

· Historialariak bat datoz oro har urrearen gosea aipatzerakoan, urre-**urritasuna** eragozpena baitzen merkatarientzat. Koro Navarro

Altzairu **urritasuna** dago munduan, Asia aldean bereziki, eta Nissan autogileak, kasu, produkzioaren zati baten aldi baterako etete bat ere iragarri du Japonian dituen lau lantegietatik hirutan. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ugaritasun eta urritasun (3); **urritasun edo ugaritasun** (3)

adimen urritasuna (6); **entzumen urritasuna** (3)

urritsu izond urritasunez bete.

Alargun benetan heziak, helduak, ni baino, behintzat, askoz kultuagoak, bestelako adimenaren jakindurietan **urritsuak** izan arren. Jenaro Garate

urritu, urri(tu), urritzen 1 da/du ad urri bihurtu.

Laurdena urritu zituen. Iñaki Iñurrieta

Putzua berriro **urritu** zen. Anton Garikano

Dezente **urritua** dela tumorea, aurreko erresonantziaren aldean. Imanol Zurutuza

Janaria **urritzen** ari zaigu. Elizen arteko biblia

Bat-batean, argia **urritu** zitzaigun. Anjel Lertxundi

Zarata **urrituz** zihonan. Lopez de Arana

Bizi-iturriaren jarria mehetzen hasten delarik, eta gogoia **urritzen**, orduan hasten baita bat bizitzeko arrazoi biler. Iñaki Segurola

Elizgizona ia guztiak [...] erromatar legearen mende bizi zirenez, lonbardiarren legeari men egiten ziotenen kopurua **urrituz** joan bide zen. Iñaki Iñurrieta

Nire gizonen kementa **urrituz** zihoa. Juan Kruz Igerabide
Begira jarraitu beharra zegoen, segundu bakar batean ere zirrararen intentsitatea **urritu** gabe. Anton Garikano
Ai, afektibitatea **urritzen** denean, zenbat kostatzen zaigun harremanen errealitate gordinari eustea! Anjel Lertxundi
Hutsetik abiatzearen hotzikarak berak **urrituko** digu irudimena. Andoni Egaña
Hori gabe giza espeziea **urrituz** eta **urrituz** joango litzateke. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Ez da nire aintza **urrituko**, ez eta nire indarrek huts egingo ere. Elizen arteko biblia
Sorreran ugaria, nahasia eta bihurria zen mundua, nola xinpletu, **urritu** eta agortu izan den, edozeinek entenitzeko moduan erakusten digu egileak. Patziku Perurena
Arbola **urritzen** doa, harria ugaltzen. Aingeru Epaltza

2 (kontagaiekin, pluralean)

Saiatu nintzen ogitartekoak **urritzen**. Joxan Elozegi
Bitartean, jatekoak **urritzen** eta egurra agortzen, urtarri hotz hartan. Aingeru Epaltza
Urri bitez haren egunak, har beza beste batek haren kargua. Elizen arteko biblia
Triki-trakak bakandu egin ziren, **urritu**. Lopez de Arana
Urritzen eta murrizten zaizkigu indarrak eta kemenak. Joan Mari Irigoien
Oinarritzko lege horrek [...] lege zibil gisa **urritu** egiten zituen garai hartako praktika judicialaren gehiegikeriak. Iñaki Iñurrieta
Urritzen hasi zitzaizkidan aukerak gailurrerako bidean. Anjel Lertxundi
Bitarteetako bat zera izan zen, legearen xedeak betetzeko prest zeudenei oinordeko izateko esperantzak emendatzea, eta legeari uko egiten ziotenei **urritzea**. Iñaki Iñurrieta
Borondatzeko bezeroak **urritzen** hasiak omen zituan eta gogoz kontrakoak bilatzeari lotu omen zitzaioan. Aingeru Epaltza
Temperatura altuegirik baliatzen ez denez, galera nutricional eta organoleptikoak dezente **urritzen** baitira. Edorta Agirre
Iduri du aldekoak zerbait **urritzen** ari direla. Pello Salaburu

3 (era bururua izenondo gisa)

Bere ikusmen luzeko begiekin agian ikus zezakeen hosto antzeko forma **urritu** hura, urrezko plater baten gainean zutik jarria. Anton Garikano
Duda egitekoa zen familia **urritua** irizkide izanen ote nuen. Aingeru Epaltza
Ez adimen **urriturik**, ez autismoaren arrastorik, ezta besteekin harremanak izateko eragozpen organikorik ere. Oskar Arana

4 (hitz elkartuetan)

Etsaiak libramendurako erabiltzen zituen upelak maldan behera botatzen zituen haizea alde zuenean, usain nazkagarri hura gure lubakietaraino iritsi eta horrek gure morala areago birrindu eta indar **urrituko** zuelakoan. Harkaitz Cano
Kantu **urritzen** hasi ziren zozoak eta urretxindorra, eta etxetxorien pipirrioren txanda iritsi zen gero. Joxan Elozegi

5 (ekonomian)

Urritu egin zituen kapitalak; jaitsi interesak. Iñaki Iñurrieta
Saldo horren bariazio negatiboak automatikoki **urritzen** du diru-masa, eta, horren ondorioz, interes-tasek gora egiten du. Koro Navarro
Portugalдарек hainbeste urre aurkitu dute Brasilen, non espainiarren etekina laster asko **urrituko** baita nahitaez, eta berena ere bai. Iñaki Iñurrieta
Demagun gastuaren eta urrearen arteko proportzioa 1/64 izan zela; zilar-kantitatea bikoiztu zenean -eta, beraz, prezioa erdira **urritu** zenean-, proportzioa 2/64 izan zen. Iñaki Iñurrieta
AEBek Europako Batasuna, Japonia eta Argentinarekin duten defizita **urritzea** lortu dute urtarrian. Berria - Ekonomia
Zilarra laster bikoiztu zen Europan, eta etekina erdira **urritu** zen Espainiarentzat. Iñaki Iñurrieta
Gaitza etengabe handituko litzateke, halako zorrak are gehiago **urrituko** bailuke kanbioa, eta Frantziak, azkenean, hondoa joko luke. Iñaki Iñurrieta
Ondasun kolektiboa, "gizabanako batek, familia batek edo enpresa batek kontsumiturik, beste kontsumitzaile posibleei ondasun horren zenbateko eskuragarria **urritzen** ez zaien" hura da. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asko urrituko (3)

urrituz joan (6)

urritzen ari (8); **urritzen hasi** (3); **urritzen joan** (3)

urritx ik **urrixa**.

urritz ik **hurritz**.

urritze 1 iz urri bihurtzea.

Oparotasunaren **urritzea**, haztea bezala, ez da izango kanpotiko "kausa asalagarrien" eraginez. Iñaki Mendiguren
Azken buruan, zentral nuklearrek ez dute ozono geruzaren **urritzearen** erantzule den karbono dioxidoa. Berria - Gaiak
Bizia beste zerbaiten gogoan da orain, edo, hobeki esanda, gogoaren **urritzearekin**, beste zerbaiten asmoa edo borondatea. Iñaki Segurola
Gero, kontzeptu berri bat: ausentzia, hondamendia, **urritzea**, "Abgang" alegia. Urtzi Urrutikoetxea
Zaila dirudi isolamenduak sentsibilitatearen eta minaren beraren hain **urritze** orokorra eragin ahal izatea. Bernardo Atxaga

2 (hitz elkartuetan)

Garbitze, **urritze**, bakantze lana da idaztea. Xabier Mendiguren Elizegi
· Hondamendi hori, noski, erabat saihesta zitekeen aurretik, baldin eta kasu egin balioite ikusmen-**urritzeaz** estraina kexatu zenean. Xabier Olarra

urrixa (orobat urritx eta urruz g.er.) izond/iz abereez mintzatuz, omea.

Mamifero humano **urrixaren** destinoak ez duela nehongo gutziarik sortzen ihardets diezaioket. Itxaro Borda
Emazteaz aspertzen haizenean, beti izanen duk basurde **urrixaren** bat eskura. Aingeru Epaltza
Nahiz eta hainbeste zorigaitzoren ondoren Joben artaldeak berriro etorri ziren hamalau mila arditara, sei mila gamelutara, mila idi-uztarrirara eta mila asto **urrixatara** eta, [...]. Imanol Zurutuza
Gainerat erranen dut, adixkide baten etxe ondolik heldu dela eta guk: aratxe **urritx** batez ordaindu ginuen. Herria
Urrixa zen, ume gutxikoa hala ere. Pablo Sastre
-Ordotsak **urrixari** bezala. Xabier Mendiguren Elizegi
Hatz haiek elkar ukitzen zuten egunean batak bestea ukitzeko seinalea izango zela, edo ordotsak **urrixaren** gainera salto egitekoa bestela. Xabier Mendiguren Elizegi

Urrixa politen bat ote? [Aingeru Epaltza](#)

Urrixa ederrenak atxikitzen ditu gero ama onenak izanen direlakoan, tropa behar baita beti hobetu. [Michel Oronoz](#)

urrixkide ik **urrixkide**.

urrixko *adlag* urri xamar.

Aitortu ez ziona, ostera, diruz **urrixko** zebilela izan zen, eta bozkarioz hartzen zuela epaimahaikide izateko proposamena, hau da, ordainketa berantiar baina segurua.

[Patxi Zubizarreta](#)

urruma 1 *iz* usoen eta usapalen kantu apal eta beti-batekoa; intzeria, marruma.

Geltokiko buruaren usategitik heldu zen usoen **urruma** aditzen nuen. [Fernando Rey](#)

Gero eta nabarmenagoak ziren jauregiko teilatu-ertzetan zebiltzan usoen **urrumak**. [Anjel Lertxundi](#)

Usapal maitemindu pareta zen hura, eta uxapalak deitzen zieten denek, **urruma** eta txera besterik ez baitzen haien artean. [Karlos Zabala](#)

Usoen **urruma** alaiak esnarazi zuen Joanes. [Felipe Juaristi](#)

Bere esku paralizatupei begira zegoen, guardaren usaina aditzen, usoenaren antzeko haren **urruma** suabea entzuten. [Anton Garikano](#)

Auhen apal bat, eta gero **urruma** sakon eta ozena. [Iñaki Mendiguren](#)

Aitzindari izan ohi ziren zakurren zaunkak eta behien **urrumak** ere ez zituen entzun. [Ramon Saizarbitoria](#)

Abereek zer **urruma**! urduri daude behiak, ez baitute larrerik. [Elizen arteko biblia](#)

Abereek, haizea kontra zutenean ere oso urrutitik abioiak atzematen ikasi baitzuten, garaiz iragartzen zituzten, **urruma** luze eta ikarati bidez, aireko erasoak. [Ramon Saizarbitoria](#)

Urruma zehazgabe batez erantzun nion. [Alberto Ladron Arana](#)

Kokotsa bastoiaren eskutokian igurztan zuen leunki, poztasunezko **urruma** isil bat egiten zuen bitartean. [Karlos Zabala](#)

Sarritan, otoitzean ari zela, beti berdina zen pozezko hots bat, usoen **urrumaren** antzekoa, ateratzen zuen: *U! U! U!* [Askoren artean](#)

2 irud/hed

Zaldiak ia geldirik baitzeuden, giharrak lasaiturik prediku mamitsuaren **urruma** gozoaren eraginez. [Jose Morales](#)

Umeari uraren **urrumak** isurtzen duen hizkera entzuten irakatsi nahian. [Pako Aristi](#)

Ekaitz egunetan olatuen **urrumak** eta haizearen uluak entzungo ziren idazlearen etxetik. [Joxean Agirre](#)

Gustura asko hasiko nintzateke neu ere **urrumak** egiten. [Koro Navarro](#)

Zerra elektriko baten **urruma** heldu zait, segundo batzuez. [Iban Zaldúa](#)

Gorputza kulunkatzeraz utzi nuen autoaren **urrumen** konpasean. [Aingeru Epaltza](#)

Zaldien irrintzia entzuten zen, eta Roata zekarren Hispano-Suiza-ren **urruma**. [Bernardo Atxaga](#)

Motorraren **urruma** isiltzeaz batera, ordea, Koioteraren arnaska estua entzun dute. [Patxi Iturritegi](#)

Hementxe dago Karibdis irenkorra, eta Etnaren **urrumak** hementxe ari dira mehatxuka. [Xabier Amuriza](#)

Komunikazio bulegoan etengabe telegrafo eta telefonoen **urruma** goxoa eta txiinhotsa eta murmurioa aditzen ziren. [Fernando Rey](#)

Aldi berean, ateko txirrinaren **urruma** entzun zen. [Lopez de Arana](#)

Ez zuen geldiarazi ez jainkoen ospeak, ez oinaztuek, ez ortziak bere **urruma** mehatxatiz. [Xabier Amuriza](#)

Eguzkiaren **urruma** senti dezaket bizkarrean. [Pako Aristi](#)

3 (hitz elkartuetan)

-Zoragarria litzateke -esan zuen Maisiek **urruma** -ahotsaz-, ezta, Jimmy? [Lopez de Arana](#)

4 (hitz elkartuetan)

Une hartan langelan baitzen, bere uso-**urruma** xamur eztarriko hori egiten zuen. [Fernando Rey](#)

Han dena zen kanpai-hotsa, brontzezko dirdira, kristalezko isla, bozina-hots, motore-**urruma**. [Lopez de Arana](#)

5 *urruma* egin

Espaloian barna zebilen usoetako batek **urruma egin** zuen eta uso poloniar saldo bat bulegoko ate aldera hegatu zen. -O Jimmy - **urruma egin** zuen Alice-, zurea bai bizitza kitzikagarria! [Fernando Rey](#)

Amaiak atzera bota zuen burua, **urruma eginez**. [Fernando Morillo](#)

Hagin zorrotzak erakusten zituen piztiak Branek **urruma egiten** zion bitartean. [Joanes Urkixo](#)

Ahots batek **urruma egin** zuen kamaina-ilaran. [Lopez de Arana](#)

Azkenean, itsasontziaren adarrak **urruma egin** zuen hirugarren aldiz. [Lopez de Arana](#)

Gas-lanparak, katuen antzera, patxadan **egiten** zuen **urruma**. [Lopez de Arana](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urruma egin zuen (11); **urruma egiten** (6)

urrumaka *adlag* urruma egiten.

Enara txioka bezala ari naiz intzirika, usoa **urrumaka** bezala. [Elizen arteko biblia](#)

Leihoko erlaizean usoa zebiltzan, **urrumaka**. [Fernando Rey](#)

Kaiolan erbinude bat edo lephori bat sartu balitz bezala, halako ikaraz ari ziren hegalka eta **urrumaka**. [Fernando Rey](#)

Oraindik **urrumaka** ari zen katua ohean. [Iñaki Mendiguren](#)

Katu bat bezala ari zen **urrumaka**. [Koro Navarro](#)

Sarjentu zahar bat, andaluzia bera, **urrumaka** hasi zitzaion ama nagusiari, eta konplimenduak egiten zizkion. [Koro Navarro](#)

Marialuisak **urrumaka** bukatu du gona josten, intziri fin bat irten da bere eztarritik eta odola xurgatu du. [Eider Rodriguez](#)

-Triponzi -esan zuen **urrumaka** emakume ile horiak. [Lopez de Arana](#)

Txakurrak bere aspaldiko etsaia antzeman zuenean, **urrumaka** hasi zen, eta ilea lastu egin zitzaion. [Joanes Urkixo](#)

Transparentzien makinaren motorra **urrumaka** hasi zen. [Jon Muñoz](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urrumaka ari (6); **urrumaka hasi** (6)

urrumakatu, urrumaka(tu), urrumakatzen du *ad* urrumatu.

Berant baino lehen harrapatu nituen biak zaltegian, besarkaturik eta **urrumakaturik** ...! Joan Mari Irigoien

urrumari *izond* urruma egiten duena.

Ikusi zuena izan zen oihalezko kapela bat, lastozkoaren orde, nahiko gauza berezia mundu hartan, non emakume **urrumari** guztien izena ma'am zen. Anton Garikano

urrumatu, urruma(tu), urrumatzen du *ad* urrumak eginez limurtu edo loarazi.

Era duk, lepozapian hatu bat daramana eta bere umea dela esanez **urrumatzen** duena. Juan Garzia

Harexek eman baitzidan jaten eta bere bihotz-pilpirez **urrumatu** nire ametsak. Juan Garzia

Abutzuko egun beroetan han itzalean lo egin zitekeen, txorien txorrotxioek eta eulitzarren durundiak **urrumaturik**. Koro Navarro

Harryri iruditzen zitzaion kanpoan zegoela lotan, haizexka arin batek **urrumaturik**. Iñaki Mendiguren

Baina gaugiro hozkirriak begiak astuntzen dizkizu berriro, eta, gauaren arnasa hotzak **urrumaturik**, logaletu egiten zara. Jose Morales

urrun (*6316* agerraldi, *269* liburu eta *1743* artikulutan; orobat *urrun g.er.*) **1** *adlag* distantzia handira. ik **urru**ti.

Han, **urrun**, ezker, mendi hura: lurramendia. Piarres Aintziart

Itsasoan **urrun**. Oigia uhartea dago, non bizi baita Atlanteren alaba, Kalipso txirikorda ederduna. Juan Kruz Igerabide

Argiontziekiko zaldi-kotxeak, bi jendarme sarreran, zaldizainen oihuak **urrun**. Jose Morales

Urrun bai **urrun** egingo nuke ihes, basamortuan jarriko bizitzin. Elizen arteko biblia

Santo Domingo begi bistan dut, baina oraindik **urrun**. Piarres Aintziart

Alde batean, ez oso **urrun**, pinudi urdinak baten isla iluna atzematen zen. Jose Morales

Hain gertu, hain **urrun**. Eduardo Matauko

Urrun duk eta hurbil. Michel Oronoz

Urrun izanik ere ez direla hain **urrun**. Michel Oronoz

Ortzmuga **urrun** dago, hurrengo herria **urrun**, dena dago **urrunago**, eta distantzia honek txikitu egiten zaitu, kukutu. Pako Aristi

Antza zenez, nahiko **urrun** zegoen hirigunetik. Alberto Ladron Arana

Erredakzioan denek genekien zuzendaria kanpoan zegoela, **urrun**, modako hondartza batean. Aingeru Epaltza

Urrun samar zeudenak elkar joka ari ziren, jendetzaren artean bidea urratu nahirik. Jose Morales

Sarritan borrokan ibiltzen baitzen, ez hainbeste auzoan bertan, baizik eta **urrun** samarreko auzo zein herrietan. Juan Kruz Igerabide

Oroimena da **urrun** dabilenaren gosea zertxobait ase dezakeen jaki bakarra. Pako Aristi

Urrun joan gabe, mendiez beste aldean. Elena Touyarou

Eastbourne **urrun** utzia genuen estiboretik, Brighton parean izan ginena. Koldo Izagirre

Azken zupada jo dio txirriari, **urrun** bota du kartoitxo kiskaldua, eta lasai gelditu da. Pako Aristi

Murgil luzea egiten genuen geure zambilaren uberatik joan ahala **urrun** azaleratzek. Koldo Izagirre

500 kilometro **urrunago** dauden hirietara joateko. Berria - Gaiak

Urtean zehar hainbatetan hitz egiten dugu hemengo eta **urrunagoko** profesionalekin. Berria - Ekonomia

Neskatxoaren begirada, geroago eta **urrunagotik** begiratzen digula. Joseba Sarrionandia

2 (-tik atzikiaren eskuinean)

Aberriatik **urrun** banengoen ere, sentitzen nuen haren dei ahaltsua. Alberto Ladron Arana

Urkizutik ez zen **urrun** Lizardiren omenezko monumentua. Juan Luis Zabala

Nik ondo ezagutzen diat hire bihotza, eta bazakiat ez duala luzaro jasango Ginebragandik **urrun** egotea. Juan Kruz Igerabide

Nire etxetik **urrun** zegoen arren, ni Amaran bizi bainintzen, oinez joaten ginen moja bisitatzera. Ramon Saizarbitoria

Eskolan ikasten den Historia da, gehienik, gizonen artean izan diren gerlak, han nonbait, hemendik **urrun**. Michel Oronoz

Haren tiroa ez zen jopuntutik **urrun** ibiliko. Joan Mari Irigoien

-Eta hiria hemendik **urrun** dago? Jose Morales

Quark-ak elkarrengandik **urrunago**, eta interakzioa handiagoa baita. Iñaki Segurola

Orain Korsikan da, hemendik oso **urrun**. Jon Muñoz

Kopetilun nabil, eguzki-argitik **urrun**. Elizen arteko biblia

Metro t'erdiz barnera zeuden [...] lehen zulaketa egina zutenetik ez oso **urrun**. Koldo Izagirre

- Erregina Pauen zen, eta Paue **urrun** da Nafarroa Beheretik. Aingeru Epaltza

3 irud/hed

Nahiz eta beti "Kaixo, Oliver!" alaiak kasu egin, beti bezain gizalegetsu, serio eta **urrun** egon zen. Xabier Olarra

- **Urrun** iritsi haiz hi ezpataz, urrunago iritsiko nauk ni oitotzaz. Joan Mari Irigoien

Ordu arte, eta pairamenduan **urrun** heldurik ere, den mendreko galdera ez zitzaidan hurbildu ere. Piarres Aintziart

Begiak berriro itxi eta, ametsaren azken kondarrari esker, **urrun** ikusi nuen neure burua, nire gela kapsula bat balitz bezala. Bernardo Atxaga

-Ongi da, seme, ongi... -erran zidan amak, **urrun** eta hotz orduan ere. Joan Mari Irigoien

Galdegite guztiei gor eta sor, begiak **urrun**, medikuengan zuen fede apurra galdurik. Joan Mari Irigoien

Henrike, aldiz, haidor eta **urrun** ageri zen ez hain aspaldi anaia erran zionarekin. Aingeru Epaltza

Halako liskar txiki bat izan genuen duela hilabete batzuk, eta adiskidetzeari **urrun** dago oraindik. Oskar Arana

EAJk eta Eak [...] duela lau urte baino **urrunago** ikusten dute orain Vital Kutxako kontrola. Berria - Ekonomia

Normatik **urrunagoko** kontuak. Ana Urkiza

Hau guztia **urrunagotik** zetorren. Iñaki Iñurieta

Argi zen, zinez, gure anaia eta aita Frantziskoren presentzia, hurbil ginenontzat ez ezik, profesaz eta bizimoduz **urrun** zirenentzat ere. Askoren artean

Hi ez haiz **urrun** iritsiko ni gabe. Pello Lizarralde

4 (irud/hed, -tik atzikiaren eskuinean)

Atomistengandik oso **urrun** dagoen Gersonidesek uste du kasu horretan atomistek dutela arrazoi. Xabier Kintana

Ez zen nitarik **urrun**, ez ere haatik nahiko nuen bezain hurbil. Janbattitt Dirassar

Neskengandik **urrun** bizi izan nintzen, maistasunetik eta samurtasunetik **urrun**. Alberto Ladron Arana

Bakarrik honela lortuko zuen etorkizun diriratsu bat, miseriatik **urrun**. Elena Touyarou

Bizi zibiletik **urrun** erretiraturiko familia handi batean munduratu zen Lukrezio. **Juan Garzia**
Gure erakundetik erabat **urrun** dagoen jendeagana ere iristen da. **Bernardo Atxaga**
Neure bihotzetik hain **urrun** ikusi nuen aita, non ez bainuen ikusi ere egin. **Joan Mari Irigoien**
Baina, baketik eta atsedenetik **urrun**, osabak bere asmoak zituen. **Joan Mari Irigoien**
Asmo horretarik ezinago **urrun** zen! **Jon Muñoz**

4a (irud/hed, -tik atzikiaren ezkerrean)

Guk eguraldi hotzera egokitzeko izan dugun modua **urrun** dago perfektioetik. **Irene Aldasoro**
Zeharo **urrun** dago, ordea, Historiaren Heroien estetikatik. **Juan Garzia**
Asmo txarrez pertsegitzen nautenak hurbiltzen ari zaizkit, **urrun** dira zure legetik. **Elizen arteko biblia**
Hango bizimodu lasai, geldi eta aspergarria **urrun** zegoen gerrako ekintza, oldarra eta suharretik. **Jon Muñoz**
Erlijio kristaua **urrun** dago despotismo hutsetik. **Iñaki Iñurrieta**

5 (distantzia banakoan eskuinean)

Eta mitoa honaino hedatu zen, milaka kilometro **urrun**. **Jon Muñoz**
Lehen baino 190 km **urrunago**. **Berria - Euskal Herria**
Bizpahiru metro **urrunago** jartzeko agindu zidaten. **Berria - Harian**
Egun hartan bertan, uztailak 22, arratsaldeko ordu batean bi tarantasa Tiunenera heldu ziren, hirurogei versta **urrunago**. **Karlos Zabala**
Gizakietan, ez dago hezur-zelularik odol-hodi batetik 0,1 mm baino **urrunago**. **Irene Aldasoro**
Amazonas ibaiak 1.500 kilometro **urrunago**, itsasoratzean, izango duen kolorea. **Jon Muñoz**

6 (denborari dagokiola)

Eta **urrun** dago oraindik inspirazioaren erauntsi errukigabeak beste alde batetik joko dueneko eguna. **Jose Morales**
Gero hori **urrun** dago. **Joseba Sarrionandia**
Gaur, gaur hori, **urrun** da, eta aspaldian. **Joseba Sarrionandia**
45eko Bazko ez zen **urrun**. **Marzel Etxehandi**
Igandearen zain zegoen, eta igandea **urrun** ez. **Patxi Zubizarreta**
Historian oraino **urrunago**, horra Karrantzako Bartolome, nabartar apezpiku famatu baten gora behera latzak. **Herria**
Hau guztia **urrunagotik** zetorren. **Iñaki Iñurrieta**

7 (-tzetik atzikiaren eskuinean)

Ene asmoen konplizetik **urrun** nenbilen ni, orduan ere. **Joan Mari Irigoien**
Etsaiaren sareetara eroriak ziren eta sare haren erdian beha zeukaten lupua nolakoa zen asmatzetik **urrun** zeuden oraino. **Eneko Bidegain**
Aihertzeko indarra izatetik **urrun**, doi-doi gelditzen zitzaion zutik egoteko bezainbat indar. **Jon Muñoz**

7a (-tzetik atzikiaren ezkerrean)

Bozkariozko une hartan, **urrun** nintzen zain genuen asturgaitza alde zurretik ikusetik. **Jon Muñoz**

8 (izen gisa)

-Urrun hartan aurreztu ahal duzun guztia, alferrikako gastuak saihestu, eta ardoa eta txerriak. **Patxi Zubizarreta**
Kanoikadak entzuten ziren **urrun** gorrian. **Harkaitz Cano**
Serioago pentsatzen jarrita, beharbada denboraren **urrunak** iruzur eginarazten dit. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Bere baitan eguzki tipi bat gordetzen duena eta denboraren **urrunetik**, **Joan Mari Irigoien**

• 9 izond urrun dagoena.

Niretzat, Arantzazu Tibeteko monasterio **urrun**, misteriotsu eta itxia izan da beti. **Pako Aristi**
Semea Afrika **urrun** hartan galdu behar gainera! **Txillardegi**
Unibertsoko leku **urrunak** arakatzeko. **Berria - Gaiak**
Hiri hura ez zegoela bazter **urrun** batean galdurik, bi hiriburuetatik hurbil baizik. **Jose Morales**
Enkanteen burrunbek gortu egiten zuten kanpai **urrunen** danbadekin. **Karlos Zabala**
Poloniako zoko **urrunen** batean. **Xabier Olarra**
Herralde **urrun** desagertuetan kokatuak. **Harkaitz Cano**
Ospa egiteko, mugak artean irekita zeuzkaten herralde **urrun**, mitiko haietako batera aldatzeko. **Juan Garzia**
Demagun, esaterako, badela bulego bat -ez hemen, herralde **urrun** batean baizik-. **Jose Morales**
Eztanda **urrun** baten burrunba besterik ez zuen aditu. **Alberto Ladron Arana**
Irrati aparatu **urrun** bateko marmari monotonoa. **Aingeru Epaltza**
Abesti **urrun** baten doinua. **Jose Morales**
Lizardiko gerizpean nengoen [...] noiz eta oihu **urrun** haiek aditu bainituen, desesperatuak. **Joan Mari Irigoien**
Goizeko Ponferrada **urrun** zait, biziki **urrun**, etapa laburra izanikan ere bizkitartean. **Piarres Aintziart**
Esperantza **urrun** hori gauzatu egin zen, ordea. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Haur galduaren ahots triste eta **urrun** hura. **Juan Kruz Igerabide**
Kontzientzia bera argitzen den gure baitako sortalde **urrun** eta ilun horretatik. **Joxean Agirre**
Badia bateko ur arbeltsu hilak ikusten zituen, itsaskiaren higidura **urrunak** ozta-ozta inarosten zituenak. **Karlos Zabala**
Ekialde **Urrunaren** boterearen igoaldia. **Koro Navarro**
Asiari dagokio batez ere garapen-bideko munduaren indarraren gorakada, eta, zehatzago, Ekialde **Urrunari**. **Koro Navarro**
Gehien maite zituen lagunak ilunpetarantz joan ziren, Ekialdeko zeru **urrunean**. **Agustin Osoa**
ik beherago 15. **Askoren artean**
Ekialde **Urruneko** bi gizarteek bide desberdinak hartu zituzten hasieratik. **Iñaki Mendiguren**
ik beherago 16. **Askoren artean**
Amazonia **urruneko** oihan tropikal batean galdurik. **Jon Alonso**
Zu maparantz inguratuko zara, izen horrek modu sekretuan zeure sorteri **urrunera** deituko zaituelako. **Joseba Sarrionandia**
ik beherago 18. **Askoren artean**
Bere jatorri **urrunetik** hasita eta gaur egungo betetasun-puntura arte. **Xabier Arregi**
ik beherago 19. **Askoren artean**
Txina **urrunetik** nator, onean etorri ere, eta han gauza miresgarrien lekuko gertatu naiz. **Patxi Zubizarreta**
Gailur urdineko mendi **urrunetara**. **Xabier Olarra**
Baserri **urrunetako** biztanleak plazara jin ziren. **Elena Touyarou**
Gaua zetorren, eta berarekin ostalaria eta neskame bi, zuriak biak, zurbilak biak, **urrunak** biak. **Felipe Juaristi**

10 (denborari dagokiola)

1920ko urte **urrun** hartan. Eta 1981 **urrun** hartan gertatutako xehetia guztiekin [...] deskribatu zidan Margueritek. **Iban Zaldúa**

Negu **urrun** bateko otsoak. Umetako egun **urrun** harekin gogoratu nintzen. **Pako Aristi**

Halaxe errana nion Ibarrari aurreko azaroko egun **urrun** hartan. Bulebarreko leiho argiztatuak ikusten zituen berriz ere, eta orduko emakume trufariak, eta urtarreko gau **urrun** hartan utzitako hiri sabelkoi berbera. **Alberto Ladron Arana**

Orain gerta daitekeena aurreikusi nahi dute iragan **urrunari** begira. **Beria - Gaiak**

Menturaz uholde nagusia baino lehenagoko den garai **urrun** batean. **Juan Garzia**

Hautzaroko garai **urrunetan**. **Txillardegi**

Etorkizun **urrunean** Rioquemado ikertuko duten paleografoek topatuko dute, antigoaleko fosil eta zeinu grafiko ugariaren artean. **Joseba Sarrionandia**

Garai ez **urrun** batean haiz-horma bati ekiten genion aldarre berean oldartu nintzen lanera. **Juan Garzia**

Sasoi dagoeneko oso **urrun** batean. **Agustin Otsoa**

Hilketa hura ez litzateke harro egoteko modukoa izango, baldin eta Goi Erdi Aro **urrunean** ere, egun bezala, etsai mairuaren kontra den-dena zilegi izan ez balitz. **Martin Anso**

Antzinate **urruneko** gertakari harrigarriak. **Jose Antonio Mujika**

Antzinako aro **urrunetako** gertakariak errepikatu edo konbinatzen dituztela dirudi. **Juan Garzia**

Hebreeraren irakzia, arbasoen bitartez aspaldi **urrunetik** kostala ahala kostala ekarria. **Juan Garzia**

Tren bat entzun dut: lehenaldi **urrunetik** datorren murmurio bat, ezagutzen ez dudana etorkizun **urrunerantz** doana. **Juan Kruz Igerabide**

11 (hitx elkartuetan)

Halere, hurbilketa honek esnarazten dizkien gauzak bereziki interesgarriak dira **urrun** -ustekoontzat, haiek gu oraindik iritsi ezin gintezkeen areto batean egonak baitira. **Pako Aristi**

Baliteke, gainera, horren esplikazioa **urrun** -gordean eta metafisikan bilatu beharrik ez izatea. **Juan Garzia**

Gizonaren itzala, distantziaren eraginez, handitu, luzatu egingo da, **urrun** -baxu dagoen argiak gertuan dituen objektuekikoan egiten duen legez. **Edorta Jimenez**

Hondarrean, **urrun** -hurbil ibiltze hori bere naturan da. **Jose Angel Irigaray**

· Beititik ere, kanpoan zegoen pikondoa gogoratzen nuen beste ezer baino gehiago [...] eta hurbil-**urrunak** ere distorsionaturik nituela ohartu naiz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zergatik zegoen Greta hain gogo-**urrun** ? **Irene Aldasoro**

12 ahaideei buruz, lehen edo bigarren mailakoa ez dena. iktxiki 15.

Geure familiako ahaide **urrun** bat. **Joan Mari Irigoien**

Zerrendako Eusebio nire lagunaren aita zen, ez ahaide **urrun** bat. **Bernardo Atxaga**

Fantasiatsu irudikatzen zituen nire arbaso **urrun** baten ibilerak. **Juan Garzia**

Jakizu, aldi berean, ezen gure aita ahaidetasun **urrun** hartaz baliatu zela, hain zuzen ere, bai jaun Marcel gure prezeptore izendatzeko. **Joan Mari Irigoien**

· Kolore beltz-urdirak baieztatzen zidan metala kadmioa zela, harako herensugearen hortzen ereile Kadmo haren seme **urruna**. **Juan Garzia**

13 urrundani ik urrundani.

14 urrundik adlag

-Nik Florent dut izena, **urrundik** nator. **Karlos Zabala**

-Edo ergela haiz, atzerritarra, edo **urrundik** hator. **Juan Kruz Igerabide**

Jendearen bozak **urrundik** heltzen zitzaizkion. Tiroa **urrundik** entzun zuen. **Iñaki Zabaleta**

Nik **urrundik** ikusi nuen kaperako leihora hurbiltzen. **Koldo Biguri**

Horrelakoak iristen ziren nire belarrietara, baina **urrundik** bezala bizitzen nituen. **Juan Kruz Igerabide**

Gotorlekuaren zaintzaileak, giza usaina **urrundik** somatzen du. **Xabier Amuriza**

Urrundik datorren promesa baten lurrina. **Pako Aristi**

Beste gauza asko ere isiotzen dira **urrundik**, garra hurretik barruratu aurretik. **Xabier Amuriza**

Medikuntzan, gaur egun operazio batzuk **urrundik** egiten dira, medikua eta eria bi tokitan daudela, konputagailuen bidez. **Pello Salaburu**

Gainerako atentatuak, aldiz, **urrundik** agindutako lehergailuen edo mortero jauritzeen bitartez eginak izan ziren. **Beria - Mundua**

Emakumea oso **urrundik** zetorren, inondik ere. **Juan Kruz Igerabide**

Hura ez zen, **urrundik** ere, gihar mendi erraldoi hari buruz zebilen zurrumurririk okerrera. **Alberto Ladron Arana**

Nik egin nezake neure ekarpena, baina ez litzateke nahikoa izango, ezta **urrundik** ere. **Oskar Arana**

Nik ez nuen antzeko ezer nabaritzen, ezta **urrundik** ere, baina zain nengoan, noizbait iritsiko zelakoan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Buruz buruko inkontruetan [...] gutarrak **urrundik** hoberean izan zirelako. **Txillardegi**

· Inguruan, gazte ilara bat haiei entzuten zegoen, konfiantza baina begirunez, **urrun** samarretik. **Josu Zabaleta**

Zertatik hornitzen dira itsasoko barne iturriak eta **urrundiko** kanpo ibaiak? **Xabier Amuriza**

15 urrunean adlag urrun.

Trumoi **urrunean**. **Koldo Izagirre**

Urrunean, haranaren sakontasunean, bost bat legoara zuzen-zuzen, Ibai Handia zihoan. **Agustin Otsoa**

Txalupariak entzuten ditut **urrunean** kantari. **Koldo Izagirre**

Aireplano bi itzulinguruka dabilta **urrunean**, zapelatzak antzo. **Mirentxu Larrañaga**

Ahots sendo bat garrasika ari zen **urrunean**: "Txikoria!". **Karlos Zabala**

Jenisei ibaia begietatik galtzen zen **urrunean**. **Karlos Zabala**

San Martin auzoko etxeen gainetik, berriz, **urrunean**, Aldapetan behera, dilijentzia zaratatsu bat zetorren. **Txillardegi**

Luzaz "herria" izena eliza eta plazaren inguruko, baita ere urrunago edo **urrunean** kokatuak zeuden auzoen etxe eta eremuak zegoen. **Piarres Aintziart**

Urrunean galtzen ziren hegazkinei tarteka begiratuz. **Joxean Agirre**

Begirada **urrunean** galdua. **Joxean Agirre**

Begiak **urrunean** galtzen zituela, malenkoniaren besoetan harturik bezala, erran zuen: [...]. **Joan Mari Irigoien**

Han, **urrunean**, itsasoa. **Joxe Austin Arrieta**

Hogeita hamargarren mailan gaude eta nire parean, han, **urrunean**, milaka izar nahasten dira Hong-Kong portu famatuaren ur dirdiratsuetan. **Ramuntxo Etxeberri**

Urrunean, oso **urrunean**, denboren hasieratik datorren ahots bat aditzen diat, nire aitaren ahots goibel eta zuhurra. **Xabier Olarra**

· Oso **urrunean**, haurtzaroan. **Jon Maia**

16 urruneko izlag ik beherago 20.

Haiek [...] barre algaraka ikusteak, **urruneko** herrietako kontak abestuz, bihotzak pitzen zituen. **Agustin Otsoa**

Urruneko mendietan berdea urdin bihurtzen zen, urdin ilun. **Bernardo Atxaga**

Iduri zuen 27. gela gero eta urrutiago zegoela mundutik, espaziontzi bat zela **urruneko** orbita batean. **Bernardo Atxaga**

Antzinako eta **urruneko** hizkerak. **Joseba Sarrionandia**

Hain **urruneko** kontuak izanik, bitxia zen benetan bi orotzapenak une hartantxe gogora etortzea. **Ibon Uribarri**

Gure begien aurrean gertatzen ari den aldaketaren **urruneko** aurrekariak hobeto agertzeko. **Koro Navarro**

Beti ematen du **urrunkoak** etxeakoak aldean aberatsa, dotorea aldun ipudipen hutsa besterik ez da. **Koldo Zuazo**

Urruneko senideen edo aspaldiko lagunen argazki zaharrak. **Iban Zaldúa**

Hain **urruneko** kontuak izanik, bitxia zen benetan bi oroitzapenak une hartantxe gogora etortzea. **Ibon Uribarri**

Hortik dator bigarrenekorik, Jainkoa ez dela propioki deitzen ahal gauza berezien kausa **urrunkoa**. **Piarres Xarriton**

Urruneko garai haietako zirkulazioaren hotsa egiten duen idazmakina. **Fernando Rey**

17 urrunen izond

Bi muga **urrunenek**, hots, sentimenak eta adimenak, halabeharrez egon behar dute elkartuak irudimenaren funtzio transzendentalari esker. **Ibon Uribarri**

Baldintzen aldetiko ilara baten sintesiari, hots, agerpen jakinaren baldintza hurbilenetik **urrunenera** doanari. **Ibon Uribarri**

Berria herri **urrunenetara** ere ailegatu zen. **Fernando Rey**

la segundo bat behar baita hurbileneko egokitzapenetik **urrunenekora** aldatzeko. **Josu Zabaleta**

Zirriturik txikiena nahikoa zuen amaren gogoaren bazterrik **urrunenearaino** sartzeko. **Xabier Montoia**

Urruneneko mendigainak garden ageri ziren, hego haizearen lana. **Koldo Izagirre**

Leiho obaletik hurbilen dagoen mintz basilarraren aldeak maiztasun altuei erantzuten diela, eta **urruneneko** aldeak, berriaz, maiztasun baxuei. **Irene Aldasoro**

Hautzaro **urruneneko** baserri-katuren bat. **Juan Garzia**

Gure arbasorik **urrunen** garaian. **Agustin Otsa**

Miradorearen alderdi bat, kafetegitik **urrunena**, ilunpean zegoen. **Bernardo Atxaga**

Beraz, kausa eragiletzat, Bera da **urrunena**. **Xabier Kintana**

Gainerako bidaiak, diren **urrunenak** ere, anitzetan modu estatikoan egiten direnak dira. **Ana Urkiza**

Gizonarengandik **urrunen** dauden ugaztunetariakoak dira. **Juan Garzia**

Etengabeko uhin-zirkuluak sortzen dira zentroan eta, ahalik eta **urrunen** zabaltzen joaten dira. **Santiago Iruretagoiena**

Rogerrengandik ahalik eta **urrunena** egoteko hitza eman nion neure buruari. **Aingeru Epaltza**

18 urrunera adlag

Urrunera, eskuin, Jurramendi, ezker, San Bartolome mendiak. **Michel Oronoz**

Urrunera, zakur baten ehausiak, ardien marrakak. **Michel Oronoz**

Auto baten argi ahulak ikusi nituen **urrunera**. **Daniel Landart**

Denbora aurrera eta gure ibilera gehienbat mantsoarekin, ezin izan gara **urrunera** heldu. **Patxi Zubizarreta**

Bide horretatik ezingo ginatete **urrunera** joan. **Iñaki Arranz**

Urrunera zoan bitxia: alde batetik Manhattan deritzan auzoa, bi ibaien artean kokatua, [...]. **Herria**

Orkoen ezkutua hartu eta **urrunera** jaurtiki zuen. **Agustin Otsa**

Urrunera begira itsas hegazti zuriak ikusi zituen, ibaiaren gainean eguzkitan hegan. **Agustin Otsa**

Leihatila ondoan eserita, **urrunera** begira, trago laburrak eginez. **Pako Aristi**

Bizartegiaren atarian zegoen [...] osaba Kamili begira, eta, bien bitartean, bere pentsamenduek **urrunera** egin zuten. **Patxi Zubizarreta**

Nonbait, **urrunera** gabe, nondik ez zela, danbor hots bat entzuten zen. **Josu Zabaleta**

19 urrunetik adlag urrundik.

Urrunetik, liluragarri ageri zitzaizkidan lurjabearen etxeko teilatu gorria eta tximinia zuriak. **Jose Morales**

Urrunetik gentozen autentizitate bila. **Urrunetik** ezagun zen axialaren kolore beldurgarria. **Itxaro Borda**

Aita beti **urrunetik** etortzen zen. **Juan Kruz Igerabide**

Karruseletik atera eta **urrunetik** begiztatu nuen eszena. **Harkaitz Cano**

Jende ainitz **urrunetik** so eta so, zer gertatzen ote zen. **Herria**

-Ulertu didazu? -galdetu zidan **urrunetik**, ahots apalez. **Ander Irizar**

-Ez banaiz segituan azaltzen -oihukatu zuen Alexek, **urrunetik** -, ez egon nire zain. **Fernando Morillo**

-Ene jauna -mintzatu zitzaion-, oso **urrunetik** nator eta olio hau bihar azokan saltzeko ekarri dut. **Patxi Zubizarreta**

Iruditu zitzaidan, nonbaitik, biziki **urrunetik** nentorrela. **Daniel Landart**

[Oihana] ez baitzen egiazki **urrunetik** zirudien bezain sarria. **Joxe Austin Arrieta**

Zeren erresuma osoan ez baitzuen, ezta **urrunetik** ere, hainbat gari bihi. **Joan Mari Irigoien**

20 urrungo izlag urruneko.

Tarteka **urrungo** trumoi-hotsen oihartzuna hedatzen zen inguruetan. **Txillardegi**

Aholkulari eta buruzagi kargu asko bete ditu bere sorterriko probintzian, haren omena heltzen zelarik **urrungo** leihorretaraino. **Herria**

Ontzi gehienak **urrungo** itsaso haietan diren ekaitz eta bertze lanjerretan galdu ziren. **Aurelia Arkotxa**

Mapagileen begiak zentzoren batetik begiratzen du, eta **urrungo** edo hurbilagoko zentro horretatik erabakitzen da, adibidez, zer dagoen eskuinean eta zer ezkerrean. **Iñaki Segurola**

Ikas urte huntan apezgaiak 6 dira Baionako semenarionan: bat gure eliz barruti edo diosesakoa eta 5 **urrungo** Uhartetarik jinak (La Reunion, Seychelles, Martinique). **Herria**

Lurralde nordiko **urrungo** horietan, maiatz-leheneko sutzar hauek, gure sanjoan suen antz handia dizute. **Pello Zabala**

21 urrun izan du ad

Zakarki gogorarazten zidaten Donostia **urrun nuela**. **Txillardegi**

Egun, **urrun dute** ohiko harrabotsa. **Aingeru Epaltza**

Ostalariak ez **ditu urrun** malkoak. **Aingeru Epaltza**

Herri honek ezpainez ohoratzen nau, baina niregandik **urrun du** bihotza. **Iñaki**

Urrun zuen gogoa, ordea. **Jon Muñoz**

Horregatik nago negarrez, begi biak urtzearaino; **urrun baitut** kontsolatzailea, biziberrituko nindukeena. **Elizen arteko biblia**

Abuztu horretako gertakizunen kontatzaile lana bizkarreratzean, **urrun izan dut** duin agertu nahia. **Aingeru Epaltza**

Gazte sasoikoak ziren, ezkongabeak edo emazteak **urrun zituztenak**. **Aingeru Epaltza**

22 urrun-min

Tristura eta **urrun-min** kutsua hartu nion Templek hartaz esandakoari, are mingostasun pixka bat. **Xabier Olarra**

Bilaketa horrek ekarri ziola Rothi bere lanetan nabaria den judu-eslaviar melankolia, haren kasuan Habsburgoen monarkiaren azken urteen eta Europa ekialdeko juduen mundu galduaren **urrun-minaren** forma hartu zuena. **Matías Mujika**

23 urrun-urrun izond

Mendiez bestaldeko herri **urrun-urrun** batetik heldu naiz. **Fernando Rey**

Lausoa da dena, eta galdu egiten naiz oroitzapen **urrun-urrunean**, ikuspen batzuk beste batzuekin nahasten ditut. **Fernando Rey**

Urrun-urruna zitzaion Ruche jaunari kontu hura. **Jon Muñoz**

Begiek, zeru-urdin ia zuri batekoak baitzuten, **urrun-urrunak** baitziruditen, burezur barranean josiak. **Juan Garzia**

Urrun-urruneko hiri bat balitz bezala aipatzen zuen, hiri bat barregarria bezain arbuiztekoa. **Karlos Zabala**

Uholde handiarena, **urrun-urruneko** antzinatzen gertatua. **Jose Antonio Mujika**

Orro sakon bat entzun zuen **urrun-urrun**, sendoa eta luzea. **Pello Salaburu**

Hire atzetik joan nahi diat nik, **urrun-urrun**, noranahi, denbora askoan. **Eskarne Mujika**

Hantxe ageri zen itsasoaren distira, eta, **urrun-urrunean**, bapora bat badakia. **Koro Navarro**

Ederra zen Obabako harana: freskoak eta gazteak ziren aurreneko muino eta mendiak, hoteletik hurbil zeudenak; goxoak eta bigunak hurrengoak, herri-koxkorak zein etxe bakartiak babesten zituztenak; urdinxkak, kearen kolorea eta arintasuna zutenak, **urrun-urrunenak**, azkenekoak. **Bernardo Atxaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

ahal bezain urrun (13); arras urrun (9); aski urrun (39); bazter urrun (8); bestearengandik urrun (6); beti urrun (7); bezain urrun (58); biziki urrun (37)

egiatic oso urrun (7); egun urrun (6); elkarrengandik urrun (17); errealitateatik urrun (11); etxetik hain urrun (6); etxetik oso urrun (7); etxetik urrun (66); euskal herritik urrun (17); ez da urrun (22); ez dago urrun (8); ez hain urrun (31); ez oso urrun (46); ez urrun (80); ez zen urrun (12); ez zuen urrun (6); frango urrun (13); garaí urrun (6); gizonarengandik urrun (18); gizonarengandik urrun bizitzeko (18); gugandik urrun (6); hain urrun (202); hain urrun zegoen (7); han urrun (30); handik ez urrun (11); handik urrun (17); hein bat urrun (13); helmugatik urrun (6); hemendik urrun (40); herrialde urrun (9); herritik urrun (40); hiritik urrun (8); hoin urrun (14); hoin urrun joan (6); horren urrun (10)

izatetik urrun (18); jaioterritik urrun (7); leku urrun (9); mailatik oso urrun (7); mailatik urrun (7); mundutik urrun (10); nahiko urrun (28); nahikoa urrun (11); nigandik urrun (18); niregandik urrun (11)

oraindik oso urrun (7); oraindik urrun (20); oso urrun (322); oso urrun dago (21); oso urrun dagoela (11); oso urrun daude (12); oso urrun ez (8); oso urrun gelditu (9); oso urrun geratzen (7); oso urrun zegoen (7); postuetatik urrun (9); sobera urrun (25)

urrun baitago (6); urrun baitzegoen (7); urrun behatuz (6); urrun bizi (44); urrun bizitzeko (19); urrun bizitzeko ohitura (18); urrun da (19); urrun dago (95); urrun dago oraindik (11); urrun dagoela (38); urrun dagoelako (9); urrun dagoen (36); urrun daude (49); urrun daudela (17); urrun daudelako (7); urrun dauden (21); urrun dela (8); urrun den (7); urrun dira (8); urrun diren (9); urrun du (7); urrun dute (7)

urrun egon (42); urrun egon arren (11); urrun egonda (8); urrun egongo (7); urrun egotea (12); urrun egoteko (9); urrun egoten (6); urrun entzuten (6); urrun eraman (9); urrun eramanean (6) urrun gaude (17); urrun gaudela (8); urrun gelditu (26); urrun gelditu zen (7); urrun gelditzen (19); urrun geratu (20); urrun geratzen (26)

urrun ibili (25); urrun ibiliko (15); urrun ikusten (38); urrun iritsi (15); urrun izan (28); urrun izana (8); urrun izana gatik (7); urrun izango (11); urrun izatea (6); urrun joan (76); urrun joan behar (8); urrun joan gabe (22); urrun joana (6); urrun joanak (10); urrun joanen (7); urrun mantentzeko (8); urrun nago (6); urrun nengoen (6); urrun nintzen (6); urrun samar (48); urrun samarretik (6); urrun sentitzen (13)

urrun urrun (6); urrun zegoela (17); urrun zegoen (64); urrun zen (10); urrun zeuden (19); urrun ziren (7)

zein urrun (39); zein urrun dagoen (6); zeinen urrun (8); zugandik urrun (19)

ekialde urruna (8)

aise urrunago (13); apur bat urrunago (9); are urrunago (36); askoz urrunago (20); baino urrunago (109); baino urrunago joan (9); gero eta urrunago (79); hori baino urrunago (7); kilometro urrunago (15); metro urrunago (8); pixka bat urrunago (7)

urrunago dago (12); urrunago dagoela (9); urrunago daude (13); urrunago doa (11); urrunago egon (7); urrunago eraman (19); urrunago eraman dituzte (8); urrunago ere (42); urrunago ere joan (8); urrunago heltzen (6); urrunago ikusten (12); urrunago iristen (10); urrunago iritsi (7); urrunago jo (7); urrunago joan (91); urrunago joan gabe (12); urrunago joan zen (8); urrunago joanen (7); urrunago joanez (8); urrunago joango (6); urrunago joateko (14); urrunago joaten (10); urrunago sentitzen (7); urrunago zegoen (7)

zenbat eta urrunago (10)

urrunagotik ere (6)

ekialde urrunaren (8)

ezta urrundik (6); hain urrundik (9); oso urrundik (10); urrundik ere (19); urrundik ikusten (10)

ekialde urrunean (18); han urrunean (17)

urrunegi dago (7); urrunegi daude (6); urrunegi joan (33)

ekialde urruneko (63); mendebalde urruneko (6)

ekialde urrunekoa (13)

ahalik eta urrunen (32); urrunen dauden (6)

urrunera begira (7); urrunera begiratu (7); urrunera begiratzen (6); urrunera joan (9)

biziki urrunetik (7); frango urrunetik (7); oso urrunetik (10); urrunetik etorri (6); urrunetik heldu (6); urrunetik jinak (7)

urrunagotu, urrunago(tu), urrunagotzen da/du ad urrunago joan; urrunago eraman.

Solasaldian sartuago eta gainerako taldeengandik **urrunagotuz** joan gara. **Patxi Zubizarreta**

Urketariak bai, urketariak ikusi zuen Amsterdango ontzia gero eta **urrunagotzen**. **Koldo Izagirre**

Luzatua zirudien, zabaldua; bazirudien gero eta **urrunagotzen** ari zela. **Anton Garikano**

urrunaldi iz zerbait edo norbait urruntzen den aldia.

Elkarrizketa haiek moteldua nuen erabakia berpiztu zidaten, eta zure **urrunaldiak** Tratatu hau egitera bultzatu ninduen. **Xabier Kintana**

-Itzuliko naiz -esan du Biolonek-, **urrunaldi** bat besterik ez da. **Itziar Otegi**

Nekatua, bere gogoa artean itsasoarekin gora eta behera, **urrunaldi** luzearen ondoren bazterren usain eta zaporea bere buruaz jabeturik, kandelak bere begietan dilindan, bidea galdu eta hondora joan zen. **Anton Garikano**

Ikaskidea izango zuen, eta ikasturte bukaeran eman izango zion, udako **urrunaldiaren** beldurrez edo. **Pako Aristi**

urruñar izlag/iz Uruñakoa, Uruñari dagokiona; Uruñako biztanlea.

Aratsaldeko 4-etan, kantaldi bat, Kamila eta Domeka **urruñar** anai-arrebekin. **Herría**

Baigorriat etorririk, **urruñar** anaiak dira irabazle atera junior gazte mailekoen finala laurden huntan. **Herría**

Filipe Aramendi **urruñar** abokata.

Naturaren eta Euskal Herriaren maitale suharra da **urruñar** argazkilaria. **Herría**

Sustrai Colina bertsolari **urruñarra** lagun, herriko haurrekin lan berezi bat eramateko baliatu dira hitzorduaz. **Berría - Kultura**

Partida ederra, Patrick Ezcurrak bere **urruñar** lagun gaztearekin jokatzeko zuena. **Uruñar** gazteak Sebastian Sorhueten aurka irabazi zuen beste finalerdian (40-26).

Herría

Jakobe amurriarra, Arrate eta Oihane etxebarrirrak, Arantxa **urruñarra** eta Jean Louis heletarra. **Juan Luis Zabala**

9 sake egin ditu **urruñarrak** eta bost garaztarrak aise ahantziko dugun partida batean. **Herría**

Uruñarraren alde joan da auzia ondarrean. **Herría**

Junior gazteen finala zen hau Modernean 24an, **urruñar** bipil batek errexki ereman duena. **Herría**

urrunarazi, urrunaraz, urrunarazten (orobat urrunerazi g.er. eta urruntarazi g.er.) du ad urruntzera behartu.

Bultza eginenez, txakurra **urrunarazten** saiatzen da mutila, baina hura ez da mugitzen. **Oskar Arana**

Gauetz su handiak egiten dituzte piztia **urrunarazteko**. **Iñaki Iñurrieta**

Nire arrebaren alaba defendatu beharrean aurkituko nuela neure burua, eta horrek Joyce **urrunaraziko** zuela nigandik, hainbeste non neuri ere ostiko bat emango baitzidan.

Oskar Arana

2002ko azaroaren 13an hasi zen itsasuntzia kraskatzen Galiziako kostaldean hurbil eta, Aznar-ek itsas zabalera **urrunarazirik**, azaroaren 19an upeperatu zen bere petrolaki guziarekin. **Herria**

Beren bihotzetik idolatria beldurgarri hori erauzi eta berengandik **urrunarazteko**. **Iñaki Mendiguren**

Alabak etengabeko arduraren sortzen dio aitari barruan, loa ere **urrunarazten** dion kezka. **Elizen arteko biblia**

Judas, bere diru-poltsa eskuan zuela, Ebanjeliotik erabat **urrunarazten** duen zekenkeriaren irudi tipikoa zen tradizio monastikoan. **Askoren artean**

urrundanik *adlag* urrutitik.

-Zer erran diezu? -galdegina zion, ohartuz gizonak ez zirela estatutik atera eta doi bat **urrundanik**, noiztenka begi ukaldi bat botatzen zirela. **Elena Touyarou**

Egun gogotik behar dut aitortu asmo hori ez dezakedala gaitzets, zeren ez baitzuten hark alde zuzenetik ikusten ahal nihuak ere **urrundanik** igurikitzen ez nituen gertakariak.

Jon Muñoz

Haatik, baldin **urrundanik** gosta ahala gosta egiten badizut uko, zer gertatuko litzateke bada zu hemen bazina? **Jon Muñoz**

Urrundanik eguna hautatu eta iduri luke ezin helduzko epea dela. **Herria**

urrundara *adlag* urrutira.

Urrundara bi argi azkar agertzen dira, emeki emeki hurbiltzen direnak. **Eneko Bidegain**

Alemaniarra deportatu zituztelarik ere ez zuen amatz **urrundara** baizik ikusi eta, hori, lehen egunetan bakarrik. **Eneko Bidegain**

urrundu (*2299 agerraldi, 240 liburua eta 572 artikulutan*), urrundu(du), urruntzen 1 da *ad* urrunera joan. ik **urrutiratu**.

Urrundu egin nintzen, ez nuen gelditu nahi izan trenbidetik hurre zegoen autobusaren geltokian. **Koldo Izagirre**

Lauak karrika aldera **urrundu** ziren. **Aurelia Arkotxa**

Dena amaiturik, Lancelot basora **urrundu** zen, eta noraezean ibili zen denbora luzez. **Juan Kruz Igerabide**

Munduko haizeak orduan mendebaldetik jotzen zuen, ekialderantz **urruntzen** ziren hodei trinkoak altxatuz. **Agustin Otsoa**

Errekaraino **urrundu** nintzen, eta han tente geratu. **Mirentxu Larrañaga**

Zutitu, eta Marisarengana **urrundu** nintzen; hark zotinka besarkatu ninduen. **Juan Kruz Igerabide**

Samindura keinu bat egin zuen, eta eliz atariaren ertz baterantz **urrundu** zen. **Bernardo Atxaga**

Elizari **urrunduak** zaizkio fededunak zirenak ere. **Koldo Izagirre**

Emaztea **urrundu** zaio, haurra ere, hori baita bihotzean daukan zauria. **Herria**

Filistearrak borrokan ari zaizkit, eta Jainkoa **urrundu** egin zait. **Elizen arteko biblia**

Neska isil-isila **urrundu** zitzaion. **Patxi Zubizarreta**

Ez ginuen sinetsi nahi baina sinetsi behar 57 urtetan **urrundu** zaukula Artekoeiherako Jean Pierre Lacroix, barkatzen ez duen eritasun batek eremanik. **Herria**

Izan ere, ongi guztiek, bikaintasunean ongi Gorenera hurbiltzen direnak eta sinpletasunean **urruntzen** zaizkionak, denek dute jatorria Ongi gorenean. **Imanol**

Unzurrunzaga

Ez zait bertze irtenbiderik gelditzen, non ez baita harengandik erdiestea otoi arren **urrundu** dakidan. **Jon Muñoz**

Astindukada bat ate birakarian, bi aldiz, pote bat erortzen da, pausoak **urruntzen** dira. **Josu Zabaleta**

Gero, itsasontzia **urrundu** egin zen. **Juan Kruz Igerabide**

Urrundu zen motorraren asotsa. **Aurelia Arkotxa**

Tiro hotsak bakandu egin ziren, eta **urrundu**. **Txillardegia**

Auto baten motor-hotsa **urrundu** zen, makakorroka. **Juan Kruz Igerabide**

Ama-seeen pausoak lehen solairuan **urrundu** zirenean. **Josu Landa**

Giza marmaria **urrundu** arte egon nintzen hor, azpian nuen hilobiko maizterren zerranda irakurtzen. **Aingeru Epaltza**

2 (-tik atzizkiarekin)

Kostazaina noreste aldetik **urrundu** zen. **Koldo Izagirre**

Tartetxo bat egin genuen elkarrekin, eta aldarte onean **urrundu** nintzen kale hartatik. **Javi Cillero**

Harry zegoen lekutik **urruntzen** ari ziren, beste aldeko ertzera. **Iñaki Mendiguren**

Taldearengandik pixka bat **urrundu** eta ezkutua gora altxatu zuen eguzkia islatzeko moduan. **Joanes Urkixo**

Besteengandik **urrundu** egin nintzen; bakarti bihurtu. **Xabier Olarra**

- **Urrun** zaitetz niregandik! **Jose Morales**

Urrundu ene begien bistatik! **Patxi Zubizarreta**

Batzuetan, nahi nirek, zera, nola esan, neure buruarengandik **urrundu**. **Jon Muñoz**

Etsaiak elkarren beldur dira, eta **urrundu** egiten dira elkarrengandik. **Luis Elberdin**

Jainkoari xaloki entzuetatik eta haren hitzari obeditzetik **urrunduz**. **Askoren artean**

Ziburuko barratik milia erdi aitzina **urrunduak** zeuden bafore biak. **Koldo Izagirre**

Jaitsiera postuetatik **urruntzeko** premia handia dute. **Berria - Kirola**

Ez naiz bizitza osoan **urrundu** jaioterritik. **Iban Zaldua**

Noraren gogoak guztiz **urrundua** zegoen, ordea, Van Eystar senar-emazteen kezka, neke eta trenpuetatik. **Anjel Lertxundi**

Zeharo **urrundua** zen koordinatu negatiboetatik! **Jon Muñoz**

3 (adizlagun edo kidekoen eskuinean)

Barrez **urrundu** ziren kontu-liburuak besapean. **Javi Cillero**

Gwain negarrez **urrundu** zen. **Juan Kruz Igerabide**

-*Inch Allah!* -erantzun diot, irribarretsu, eta irribarretsu **urrundu** da bera ere. **Jon Arretxe**

Aski **urrundu** ondoan baizik ez zuten, elkarri begiratzuz, hasperen handia bota. **Eneko Bidegain**

Sugea heriosuhar **urrundu** da. **Gotzon Garate**

Bapore baten B-an ikusi nuen neure burua, uhinez uhin aurreratuz, kostaldetik bizi-bizi **urrunduz**. **Bernardo Atxaga**

Zalu-zalua **urrundu** nintzen. **Janbattitt Dirassar**

Marro balantzaka **urrundu** zen, ahotik irribarre ergela une batez ere galdu gabe. **Juan Kruz Igerabide**

Kulunka eta hegaka **urrundu** zen lurrazpiko ate barruan desagertu arte. **Joanes Urkixo**

Hansekarri karrika zeharkatu eta, euripean, lasterka **urrundu** zen. **Alberto Ladron Arana**

Arin baino arinago **urrundu** zen belardian barrena. **Joanes Urkixo**

Mutikoa korrika batean **urrundu** zen. **Alberto Ladron Arana**

Belaun-joko bizian **urrundu** ginen pendizean gora. **Koldo Izagirre**

Jiratu, eta irrats bikoitzea **urrundu** zen Giulietta. **Jon Muñoz**
Del Valle urrats luzeka **urrundu** zen karrikan behera. **Alberto Ladron Arana**
Mutur okerre **urrunduta**. **Aingeru Epaltza**

4 (distantzia neurriekin)

Halako batean, pauso bat **urrundu**, eta "¿Sabe?" galdetu zidan. **Ramon Saizarbitoria**
Fawkesi eta Kapela Saikatzaleari isekaz begiratu eta pauso batzuk **urrundu** zen. **Iñaki Mendiguren**
Pauso batzuk **urrundu**, eta bueltatu egin zen. **Ramon Saizarbitoria**
Hara itzultzen ziren beti, paseoz paseo inguratzen zuten hiri hartara, handik ehun pausora **urrundu** ezinean. **Karlos Zabala**
Kanpora atera eta ehun bat metro **urrundu** zen etxetik. **Harkaitz Cano**
Gaztelaniara pasatuko direla mikrofonoetatik bost edo sei metro **urrundu** bezain azkar. **Bernardo Atxaga**
Sabathetik garrasi egin zuenean, gutxienez berrogeita hamar metro nintzen **urrundua**. **Joxe Austin Arrieta**
Kontinenteak urtero lauzpabost zentimetro **urruntzen** dira elkarrengandik. **Joseba Sarrionandia**
Hilaren 21ean, *SpaceShipOne* espaziotzia Lur planetatik 100 kilometro **urrunduko** da. **Berria - Gaiak**

• 5 du ad urrunera eraman.

Jabeak atera dituen laido eta biraoek **urrundu** dute handik. **Aingeru Epaltza**
Nire ideien isuriak **urrundu** egin naute nire gaitik. **Juan Martín Elexpuru**
Nazkak **urruntzen** zaitu. **Karlos Zabala**
Ahalegin horiek ez ote zaituzte lehendakariaren emazteagana hurbildu, zeure argelkeriek **urrundua** zintuztelarik? **Jon Muñoz**
Zeugandik **urrundu** behar nauzu! **Jon Muñoz**
Ileari, sudurrari, ahoari begi eman zien, argazkia **urrundu** zuen, hurbildu zuen. **Karlos Zabala**
Geriatrak keinu bat egin du airean, kiratsa **urrundu** nahi denean bezala. **Anjel Lertxundi**
Urrundu niregandik zeure zigorra, zure kolpeez akiturik bainago. **Elizen arteko biblia**
Orain, Jaunarekin ituna egiteko asmoa dut, bere haserrea guregandik **urrun** dezan. **Elizen arteko biblia**
Egun izugarri hartako amesgaiztoaren irudiak apur bat lausotzeko eta **urruntzeko** ahalmena izan zuten. **Alberto Ladron Arana**
Otoizka ari zitzaion Jainkoari, **urrun** ziezaiola ordu hura, ahal bazen. **Elizen arteko biblia**
Halako batean, ez bata ez besteak begirada **urrundu** ez zutelarik, [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Herioaren oroitzapenak bekatutik **urrunduko** gaituela. **Michel Oronoz**
Krutxagak gaizki **urrundu** zuen Karpinen erdiraketa bat. **Berria - Kirola**

6 (-tik atzikiarekin)

Besotik heldu eta sarreratik **urrundu** nuen. **Aingeru Epaltza**
Beldur nintzen adierazpen horrekin nigandik **urrunduko** ote nuen. **Ramon Saizarbitoria**
Bi gizon haiek Florentengandik **urrundu** nahi zituen, nonbait, eta beldurtzen saiatzen zen horretarako. **Karlos Zabala**
Iduritu zait ikaste abstraktuek naturatik **urrundu** nautela. **Piarres Aintziart**
Lurraldeetatik urrun aldentzen gaitu, ama eta lagunetatik **urruntzen** gaitu. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Begiak **urrundu** nituen ministroarengandik eta haren andrearengandik. **Aingeru Epaltza**
Izututa begiratu zion Roni, atzean baitzeukan, eta bere aulkia **urrundu** zuen harengandik. **Iñaki Mendiguren**
Hala **urruntzen** nauzu zugandik. **Jon Muñoz**
Aita santua [...], ez **urrundu** niregandik zeure laguntza. **Elizen arteko biblia**
Tragoxka bat edan, eta kikkara ezpainenatik **urrundu** gabe adi begiratu zion. **Migel Angel Mintegi**
Haatik, iduri hura begibistatik **urrundu** nuen arren, ez zen neure buruan eta neure memorian ezabatu. **Joan Mari Irigoien**
Haatik, iduri hura begibistatik **urrundu** nuen arren, ez zen neure buruan eta neure memorian ezabatu. **Joan Mari Irigoien**
Gizarteak egunerokotik **urrundu** egin du heriotza. **Berria - Gaiak**
Ekimen alternatiboak babesten dituen oro automatikoki bere burua SPDtik **urrunduko** du. **Berria - Mundua**
Sortu gaituen Jaungoikoaren agindupetik bere burua **urrundu** eta espiritu gaiztoen zerbitzura jartzen dena zintzoa ote da, agian? **Imanol Unzurrunzaga**
Behin-behinekotasunak **urruntzen** gaitu Europako Batasuneko (EB) 15 herrialde garatuenetatik. **Berria - Ekonomia**

7 (era burutua izenondo gisa)

Gazteak ez gehiago baserri **urrunduetan** plantatu nahi, bizia gogorregi dela, ez direla bere familiaz behar den bezala arduratzen ahal. **Herria**
Bertzela bi medikuntza litazke, bat hiritarrentzat eta eskualde fagoratuarentzat eta bertzea leku **urrundu** eta ahantzientzat. **Herria**
Ez herriak ez ditu ahanzten bere seme-alaba **urrunduenak** ere. **Herria**
Denbora batez segurik, gisa hortan **urrunduari** mendekatu zela Eliza, Aita Sainduak eskatu diote barkamena. **Herria**
Ia hilabete oso batez, goganbeharturik egon nintzen nire alaba haserretu eta **urrunduari** igorri nion gutunagatik. **Oskar Arana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apur bat urrunduko (12); are gehiago urrunduko (8); aski urrunduko (5); asko urrunduko (5); askorik urrunduko (3); atetik urrunduko (6); atetik urrunduko eta (3); baloia urrunduko (3); barrera urrunduko (4); begiratu eta urrunduko (3); bereizi eta urrunduko (3); bidean urrunduko zen (3); bidetik urrunduko (5); bistatik urrunduko (4); bizian urrunduko (4)
elizatik urrunduko (3); elkarrengandik urrunduko (7); erabat urrunduko (3); euskal herritik urrunduko (8); frontisetik urrunduko (3); gaizki urrunduko (3); gehiago urrunduko (22); gehiago urrunduko dituzte (7); gehien urrunduko (3); guregandik urrunduko (3); haiengandik urrunduko (3); handik urrunduko (12); handik urrunduko zen (3); harengandik urrunduko (6); hartatik urrunduko (4); herritik urrunduko (14)
jaitsiera postuetatik urrunduko (4); jauna urrunduko (3); kilometro urrunduko (10); kilometro urrunduko zen (4); laster urrunduko (3); metro urrunduko (4); milia urrunduko (3); niregandik urrunduko (6); niregandik urrunduko eta (3)
ondo urrunduko (3); ondolik urrunduko (4); pauso batzuk urrunduko (3); pixka bat urrunduko (11); politik urrunduko (4); postuetatik urrunduko (6); sobera urrunduko (9); sobera urrunduko gabe (3); sobera urrunduko nahi (3); ttipi ttpa urrunduko (3)
urrundu asmoz (3); urrunduko aurretik (3); urrunduko bezain laster (3); urrunduko da (23); urrunduko du (3); urrunduko eta hurbildu (3); urrunduko gabe (25); urrunduko niregandik (5); urrunduko ondoren (3); urrunduko orde (4); urrunduko orduko (6); urrunduko zen (122); urrunduko zen handik (3); urrunduko zuen (28)
urrundua zen (7)
herritik urrunduko (3); urrunduko izan (4); urrunduko ziren (7)
gehiago urrunduko (3); kilometro urrunduko (3); kilometro urrunduko da (3); urrunduko da (4); urrunduko du (6)
elkarrengandik urrunduz (3); urrunduz joan (10); urrunduz joan zen (3)
herritik urrunduz (3); jainkoagandik urrunduz (4); urrunduz lortu (6)
baloia urrunduko (3); bikotekide ohiarengandik urrunduz (3); emaztearengandik urrunduz (3); etxetik urrunduz (3); gehien urrunduz (4); handik urrunduz (6); harengandik urrunduz (5); hartatik urrunduz (3); horien urrunduz (3); jaitsiera postuetatik urrunduz (3); kostaldetik urrunduz (5); ontzia kostaldetik urrunduz (5); postuetatik urrunduz (7)
urrunduko agindua (28); urrunduko agindua ezarri (3); urrunduko agindua hausteagatik (7); urrunduko agindua izan (3); urrunduko agindua zuen (3); urrunduko aukera (4); urrunduko aukeran (3); urrunduko eskatu (4); urrunduko hartutako erabakia (3); urrunduko keinua (3); urrunduko premia (4)
aldera urrunduz (3); asko urrunduz (5); baloia urrunduz (5); elkarrengandik urrunduz (5); erabat urrunduz (4); errealitatek urrunduz (5); etxetik urrunduz (3); gaiztakeriatik urrunduz (3); gehiago urrunduz (11); gehiegik urrunduz (3); gehien urrunduz (4); gugandik urrunduz (4); handik urrunduz (3); harengandik urrunduz (3); nigandik urrunduz (5); niregandik urrunduz (3); nola urrunduz (9); nola urrunduz zen (4)
urrunduz ahalegindu (4); urrunduz ari (65); urrunduz da (25); urrunduz du (6); urrunduz entzun (3); urrunduz hasi (16); urrunduz hasia (3); urrunduz ikusi (16); urrunduz joan (3); urrunduz salatu (8); urrunduz salatu zen (3); urrunduz sentitu (3); urrunduz zen bitartean (5); zugandik urrunduz (3)

urrunerazi ik urrunarazi.

urrunketa iz urruntzea.

Badirudi higuin berezi bat sumatzen zela diferentzia pentsatzeko, **urrunketak** eta sakabanaketak deskribatzeko, berberaren forma lasaigarria bereizteko. **Xabier Arregi**

Denbora geroratuaren **urrunketa**. **Xabier Arregi**

Urrunketak, aldaratzek eta mugimenduak lantzeko hainbat lan egin eta erremate saio batekin amaitu zuten entrenamendua. **Berria - Kirola**

Oihane kartzelan hil da eta kartzelak hil du, sakabanaketa, isolamenduak, **urrunketak**. **Berria - Euskal Herria**

urrunki adlag era urrunean.

Nahikoa izango dute sorbaldan ukitzea edo apur bat exajeratuki behiala egin zuten jertse tiradizo **urrunki** sentsuala errepikatzea. **Harkaitz Cano**

urrunsko adlag urrun samar.

Baina Miarritze **urrunsko** dago -errepikatu nion-. **Txillardegi**

Putzu kaletik kaia... **urrunsko**! **Txillardegi**

Baina goazen aitzina, gai horrek **urrunsko** ginderamatzake-ta. **Jose Angel Irigaray**

Lizarratik ez urrun kokaturik (baina aski **urrunsko**, halere: bi ordu bide oinez) leku ezin aproposagoa zen halako bilera ezkutu goren horietako bat antolatzeko eta burutzeko. **Txillardegi**

urruntarazi ik urrunarazi.

urruntasun 1 iz urruna denaren nolakotasuna; urruneko aurkintza.

Soinuen **urruntasunak** aldendu egiten dizu bertzearekiko, kanpoarekiko hunkidura. **Filipe Bidart**

Bretainiako erdi gunean da jarria Saint Carradec, Quimper, Lorient eta Saint-Brieuc-tik **urruntasun** berdintsuan. **Herria**

Bazirudien suzko mihiak piztu zitzaizkiola buruan, eta suak kanpora irten nahi zuela, gau oraindik ilunean **urruntasun** mugagabea erabat argitzeko. **Jose Morales**

Edozein ehiztarik bere aldeko argudioak emango zitian, harrapakina gutxietsi, **urruntasuna** handitu, tiro egiteko posizioa txarra zela esan... **Xabier Olarra**

Aldean nuen jendeak, era berean, zelaiaren **urruntasunaz** jabebarazi ninduen, hau da, kirolarien **urruntasunaz**, eta orduan gogoratu nintzen Schopenhauer-**ez**, hark idatzi baitzuen **urruntasunak** pentsamendua handitzen duela. **Karlos Linazasoro**

Kantu horren azken nota **urruntasunean** suntsitu zelarik, bet-betan jin nintzen errealitatera, orainera, bizitzara, gaura. **Koldo Izagirre**

Hitz arraroak entzun ditut eta **urruntasunean** arrisku berriak ikusten ditut. **Agustin Otsoa**

Erretagordiako azken kasketak eta lantzak distiraka ari ziren goizaldeko eguzkipean, **urruntasunean** desagertzeaz. **Agustin Otsoa**

Gertatutako guztia **urruntasunetik** ikusten baduk, onartuko didak nekez aurki daitekeela hitz bigunagorik, leunagorik. **Xabier Olarra**

Urruntasun kronologikoa oso txikia izan arren, ezberdintasunak kontaezinak eta oso izaera ezberdinekoak dira. **Xabier Arregi**

Azterketa arkeologikoak beste helburu bat izango luke: berak bilatuko luke ea espazioa, **urruntasuna**, sakontasuna, koloreak, argitasuna, proportzioak, bolumena eta profila ez ote ziren garai hartan kontuan hartuak izango. **Xabier Arregi**

2 irud/hed

Eguneroko tragedia txiki horiek kontatzeko, **urruntasun** neurtu batez baliatzen da idazlea. **Berria - Kultura**

Indiako herri-administrazioan egon zen azkenaldiko britainiar funtzionarioak arazoiz esan zezakeen bere **urruntasuna** bere eginbeharrak betetzeko zintzotasun moralaren ezinbesteko ordaina zela. **Iñaki Mendiguren**

Diskurtsoaren batasuna bilatu genuen objektuen baitan, euren banaketan, euren ezberdintasunen arteko jokoan, euren arteko hurbiltasunean eta **urruntasunean**. **Xabier Arregi**

Zineman baizik gertatzen ez den distantzia psikiko bat, hurbiltasunez, txundimenez eta aldi berean ezin hurbilduzko **urruntasunez** osatua, eragiten duena. **Josu Zabaleta**

Gertatutako guztia **urruntasunetik** ikusten baduk, onartuko didak nekez aurki daitekeela hitz bigunagorik, leunagorik. **Xabier Olarra**

Haren **urruntasun** hura urtu nahi bainuen jada neure bihotzaren arragoan. **Joan Mari Irigoien**

Amak, marmolaren **urruntasunetik**, ohi zuen hoztasunez, kantitu ere gabe, gisa honetan inhardtetsi zion aitari, bererika, jendaurrean ohi zuenez: [...]. **Joan Mari Irigoien**

Hala ezartzen zituen bertzeen aitzinean bere autoritatea eta bere eragina **urruntasun** hartarik. **Joan Mari Irigoien**

3 (hitz elkartuetan)

Urruntasun aire bat zeukan Carmichael jaunak. **Anton Garikano**

Hautemate **urruntasun** ezin hobe batean dago kokatuta, bere mugek informazio egokiaren aleak zedarrizten dituztelarik. **Xabier Arregi**

urruntxago ik urruntxe 2.

urruntxe 1 adlag urrun samar.

Hauk ere badute ikusleen berotasun beharra, galtzale hauk **urruntxe** gelditu badira ere. **Herria**

Jaten hasi baino lehenago, bi zakurrak, barrutitik **urruntxe** pixa edo kaka egitera aterako dira. **Gotzon Garate**

2 urruntxeago (orobat urruntxago eta urrunxago)

Urruntxeago, kalesa txiki bat zetorren nekez eta astiro, hutsik, lau zaldi ile-luzek tiraturik. **Jose Morales**

Urruntxago, ezker, Obanos herrirako patarra hasten zaidala, hona mahats ondoen zerrendak, geometrikoki lerrokatuak. **Piarres Aintziart**

Gogotik barre egiten dute **urruntxeago** daudenek, nahiz eta ez dituzten oso ondo entzun haren hitzak. **Jose Morales**

Barrurago, apur bat **urruntxeago**, esparruko hartxintzarrezko kaleak mugimenduz gainezka zeuden. **Urtzi Urrutikoetxea**

Bi ezagutza modu horiez bestalde, hirugarren bat badugu, **urruntxeago** erakutsiko dudana bezala. **Piarres Xarriton**

Bere ikasketak herriatik **urruntxago** eginak zituen, hala gertaturik, Arcachonen. **Herria**

3 (izenondo gisa)

Alabaina, kalkulu simple batzuk aski dira erakusteko gaur egun Lurrean bizi diren gizaki guztiak ahaide **urruntxeagoak** edo hurbiltxeagoak direla. **Juan Garzia**

4 urruntxeagoko (corpusean urruntxagoko soilik) izlag

Agian, aterabide egoki bat atxemanen da, kartier hortako eta **urruntxagoko** jendea trankiltasunean bizi dadin. Herria

5 urruntxegi adlag

Ez dagokigu guri erraitea, ez ote zoan batzutan **urruntxegi**, xede bati buruz oldarra behin hartuz geroz. Xipri Arbelbide

urruntxo 1 adlag urrun samar. ik urrutitxo; urrunxko.

Urruntxo dago. Koldo Biguri

Hiria portutik **urruntxo** egonda ere, jendetza handia bildu zen kaira, zer berri zen jakin gurarik. Karlos Zabala

Etxea hemendik **urruntxo** da, baina berori ez da galduko baldin eta horrako ezkerreko bide hori hartu eta bidegurutze bakoitzean ezkerretara jotzen badu. Juan Garzia

Urruntxotik ikusita, Siberiako bide nagusian hogeitaz harago dagoen menditik, esaterako, [...]. Karlos Zabala

2 (izenondo gisa)

Hiriaren bazter **urruntxo** hartan zegoen Nijni Novgorodeko merkatu sonatua. Karlos Zabala

3 urruntxoago

Hori gertatzen bada, usainak gogait eraginik, **urruntxoago** esertzen naiz. Eskarne Mujika

urruntzaile 1 izond urruntzen duena.

Kaltea, nahiz eta txikia, ezinbestekoa denean, giza grinaren uxatzaile da, eta, aldiz, itxaropena [...] arriskuaren ideiarekin **urruntzaile**, batez ere zikoizkeriarekin eta ahultasunaren fruitu den inpunitateak indarra hartzen duenean. Juan Martin Elexpuru

Ziurtat jo dezakegu kasu horietan ere, heriotza zentzumen guztietatik sartzen denean ere, **urruntzaile** bat dagoela, leungarri bat: ideologia. Bernardo Atxaga

Une benetan **urruntzailea**: heriotza, eufemismorik gabe esateko. Bernardo Atxaga

urruntze 1 iz urrunera joatea; urrunera eramatea.

Urruntze horren arrazoiak azaldu zizkigun. Berria - Euskal Herria

Poesia ez da, sarri esaten den bezala, hizkera arruntetikako **urruntze** bat; hizkera arrunta da hizkeraren osotasunarekiko urruntzea. Joxerra Garzia

Betiko **urruntze** hori ez da gehienetan bat-batekoa izaten. Zure **urruntzeak** laguntz gaitzala guziak elgarri gehiago hurbiltzen. Joxan Elozegi

Urruntzearen hirugarren kausa India eta Ingalaterra arteko komunikazioen bizkortzea izan zen. Iñaki Mendiguren

Nasa zabalda eta luzea, eta hortik hara ezker eta eskuin, ipar eta hego, trenbidearen bi aldeetaranzko **urruntze** amaigabea. Joseba Sarrionandia

Agintarien espetxe politika, dispersioa eta euskal preso politikoekin **urruntze** sistematikoa. Berria - Euskal Herria

Nola amorante batzuei gorputzen **urruntzerik** tipienak arimen **urruntze** guztizkoa dakarkien. Joan Mari Irigoien

Fernanek gau bolkaniko bat du amets, aste osoko **urruntze** nahitaezkoa berdinduko duena. Aingeru Epaltza

Iheserako premiak eta ihes egin beharrak eta, aldi berean, **urruntzeak** sortzen zion melankolia alkoholaz arintzen saiatu zen. Matias Mujika

2 (hitz elkartuetan)

Horrela, neure burua leize barnetik urrundu nahiez, berriro amiltzen nintzen; behin eta berriro **urruntze** ahaleginetan saiatu ala, are eta sakonago jausten nintzen amildegian.

Imanol Unzuurrungaga

Presoen bizi baldintzak hobetzeko dela esaten ari dira [...] baina, fallsukeria galanta da, hori esatearekin batera, **urruntze** politika mantenduko dutela esaten ari baitira.

Berria - Harian

Gaur 30 egun egingo ditu Julen Atxurra presoak gose greban, bere aurkako **urruntze** eta bakartzte neurrien aurkako protesta gisa. Berria - Euskal Herria

Ukaezina da gaiaren aurreko **urruntze**-tartea askoz ere handiagoa dela molde honetako bertsoetan laburragoetan baino. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ez nuen ordu arte hartu **urruntze** irudi bat egiteko xedea. Jon Muñoz

3 urruntze-agindu

Bi lagun atxilotu dituzte **urruntze aginduak** hausteagatik. Berria - Euskal Herria

Bikotekide ohia erasotzeagatik jarri zioten **urruntze-agindua** hautsi izana leporatu diote 20 urteko gazteari. Berria - Euskal Herria

18k bikotekideak mehatxatu dituzte, eta hiruk **urruntze aginduak** urratu dituzte. Berria - Euskal Herria

Epailak salaketa artxibatu egin zuen hasieran, baina maiatzean berriz ireki zuen kasua eta 500 metroko **urruntze agindua** ezarri zion. Berria - Kirola

Gizonezkoak **urruntze agindua** zuen ezarrita. Berria - Harian

Gizonari **urruntze** eta inkomunikazio **agindua** jartzeko eskatu zuen emakumeak. Berria - Euskal Herria

Ofelia Hernandezen uestezko hiltzailea aurretik pentsatutako hilketagatik eta **urruntze agindua** ez betetzeagatik zigortzeko eskatu dute. Berria - Euskal Herria

Urruntze aginduak ez al du huts egin? Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urruntze agindua (34); **urruntze agindua ezarri** (4); **urruntze agindua hausteagatik** (8); **urruntze agindua hautsi** (3); **urruntze aginduak** (14); **urruntze aginduak ez** (4); **urruntze aginduak hausteagatik** (3); **urruntze bat** (3); **urruntze hori** (9)

presoen urruntzea (3)

urrunxago ik urruntxe 2.

urrunxko adlag urrun samar. ik urruntxo.

Etiket **urrunxko** habil, ez da hala? Pello Lizarralde

Aitorren hizkuntza zaharrean kantatzen zieten etiket atera eta, euskara bizkarrean, lan eskeak bultzaturik **urrunxko** joaten ziren baserritarrei. Pello Salaburu

Harengandik **urrunxko** nintzen. belaunen gainera aurtiki nion eskutitza. Jon Muñoz

urrupe ik hurrupa.

urrupada ik hurrupada.

urrupaño ik hurrupaño.

urrupatu ik hurrupatu.

urruti (3296 agerraldi, 228 liburu eta 674 artikulutan) 1 adlag distantzia handira. ik **urrun**.

Itsasoa, **urruti**, zarataka ari zen oraindik ere. **Koro Navarro**

Leihoaren beste aldean, **urruti**, ferry bat sumatu nuen uraren eta behelainoaren artean. **Bernardo Atxaga**

Farolaren atzean, **urruti**, nire susmo bat dago, argitasuna: geltokia da, lau kafetegiekin. **Monika Etxebarria**

Anaia guztiei, hemen nahiz **urruti** direnei. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez du **urruti** txistularien eskola. **Iñaki Aranbarri**

Santuaren aginduz, anaia batek hegazia hartu eta **urruti** zegoen mahasti batean utzi zuen. **Askoren artean**

Nik, gorputzez **urruti** baina espirituz hor bertan nagoen honek, [...]. **Elizen arteko biblia**

Jainkoa ez dago ez **urruti**, ez aldendurik. **Joan Mari Lekuona**

Zergatik gaude elkarrengandik honen **urruti**? **Josu Zabaleta**

Larritasuna, herioa **urruti** ez zebilelako susmoa. **Imanol Zurutuza**

Eduki ezazu katu hori **urruti**! **Iñaki Mendiguren**

Globo bitxi hori, kurba handi bat eginik, itsasoan **urruti** erori zen. **Josu Zabaleta**

Zer galdu zaizu zuri hain **urruti**, munduaren beste puntan? **Jon Muñoz**

Euriak ez zirudien **urruti**. **Anjel Lertxundi**

Azkenean erabaki dut Frantzia aldera jotzea, mendiz ez du **urruti** egon behar. **Bernardo Atxaga**

Ate joka etorrikoak ordurako **urruti** behar zuela kalkulatu nuenean, maleta hartu eta aterantz abiatu nintzen. **Anjel Lertxundi**

Bigarren lehia makilarekin zen, ea nork botatzen zuen makila **urrutiago**. **Bernardo Atxaga**

Euklidesek berak adierazia zuen [...] zenbat eta gauza bat **urrutiago**, orduan eta txikiagoa zela hark begiaren barrenean erutzen zuen irudia. **Josu Zabaleta**

Urrutiago, maitatuago. **Bernardo Atxaga**

Ez dut utziko **urruti** joan dadin. **Oskar Arana**

Zakur bat zaunka ari zen, oso **urruti**. **Josu Zabaleta**

Ez kezkatu, hain larri zauritua badago, ez da oso **urruti** ibiliko. **Iñaki Mendiguren**

Ez zegoen abentura bila oso-oso **urruti** joan beharrik. **Harkaitz Cano**

Emeki-emeki atzera egin zuen, eta **urruti** samar gelditu zen hura zertan bukatzen zen begira. **Askoren artean**

Esnebiltokia nahikoa **urruti** zegoen. **Josu Zabaleta**

Solasean egoten ziren, Parrottin **urruti**, **urrutiago**, are **urrutiago** zihoan, hain **urruti** ezen gazteak nekez jarraitzen baitzion. **Monika Etxebarria**

2 (-tik atzikiaren eskuinean)

Bat-batean libre nintzela eta hura handik **urruti** zela sentitu dut. **Josu Zabaleta**

Handik **urruti** nahi nuen, baina ez nuen alde egiteko kemenik. Abadia maldatsua, han, jauregi fantastiko bat bezala lurretik **urruti** baztertua. **Anjel Lertxundi**

Martin izeneko batek idiak herritik **urruti** eraman zituen bazkatzera. **Askoren artean**

Diote etxetik **urruti** izandako gaixoardietan sentitzen dela gehien familiaren falta. **Anjel Lertxundi**

Eliza hau ez zegoen ospitaleatik **urruti**, Abiatu zen David eta Saulengandik **urruti** joan zen, ihesi, egun hartan. **Askoren artean**

Zeru sabaitik soka mehe batez zintzilik bezala, lurretik ez **urruti**, ordea, eskura ia. **Felipe Juaristi**

Berehala lurperatu zuten, lehorrera atera zuten lekutik ez **urruti**. **Koro Navarro**

Ordoki zabal baten erdi-erdian zut, ibaitik **urruti** ez, Keopsen piramidea! **Jon Muñoz**

Mendi txit goi baten tontorrera joan zen zubitik oso **urruti**. **Askoren artean**

Basomutil hark guardiak ikusi zituela hemendik ez oso **urruti**, gau hartan alegia. **Bernardo Atxaga**

Nuarben [...] Ourensen Sil ibaitik ondo **urruti**. **Pako Aristi**

Weasley jaun-andreengandik **urruti** samar zegoen. **Iñaki Mendiguren**

2a (-tik atzikiaren ezkerrean)

Öchler **urruti** samar bizi zen geunden tokitik eta metroa hartu behar zuen. **Anjel Lertxundi**

3 irud/hed

Zein **urruti** gelditzen zaizun Imanol. **Lourdes Oñederra**

Txinatarrak inoiz ez ziren japoniarrak bezain **urruti** iritsi Mendebaldeko kulturaren mende jartzen. **Iñaki Mendiguren**

Nik, nire burua oso **urruti** ikusten dut hortik. **Ana Urkiza**

Berezko isuria hain dago **urruti**, ezen ez baitu ezer ulertzen beste jaiotze horri buruz. **Joan Mari Lekuona**

Senide **urruti** samarrekoak gaituk emakume dontsu hori eta ni. **Anjel Lertxundi**

ik urrun 12.

Hala ere, [psikologiaren] aintzindariak aski **urruti** eramanak zituzten beren azterketak. **Iñaki Mendiguren**

Ezin oso **urruti** iritsi horrelako izen batekin. **Oskar Arana**

Hizkuntzen gaiarekin sobera **urruti** joateko tentaldia dago eta ez dugu horretan erori behar. **Berria - Euskal Herria**

Gauzak **urruti** joan dira. **Iñaki Mendiguren**

4 (irud/hed, -tik atzikiaren eskuinean)

Zein **urruti** sentitzen naizen haiengandik, muino honen gainean. **Monika Etxebarria**

Sar zaitez bertan zeure ahalmen guztiekin, pentsamendu mugatuetatik **urruti**; ahantz ezazu kanporatzeko duzun joera eta isuria. **Joan Mari Lekuona**

Itxuraz Beoten inor ez zen apustu-girotik **urruti** ibili. **Xabier Etxabe**

Frantziskoren kultura batez ere teologiko-espirituala izan zen, esperientziari lotua, liburuetan lorturiko teologoek jakintzatik **urruti**. **Askoren artean**

Gorputzaren kutsadura orotik arima zainduz, grina txarren sugarretatik **urruti**. **Imanol Unzurrunzaga**

Nire barena oso **urruti** zegoen suhartasun euforikotik. **Anjel Lertxundi**

5 (irud/hed, -tzetik atzikiaren eskuinean)

Arestian zorionean murgildurik egotetik oso **urruti** nengoen. **Monika Etxebarria**

Bizitza izpirituzkoaren itxurak egiten dituzten pertsonak, baina hori egiaz edukizetik oso **urruti** daudenak. **Joan Mari Lekuona**

6 (distantzia banakoaren eskuinean)

Eskua metro batzuk **urrutiago** zegoen leku batera begira. **Rafa Egiguren**

Batez beste, 54 preso horiek 174 kilometro **urrutiago** daude. **Berria - Euskal Herria**

Langar-lainoak ez zuten ikusten uzten hamar metro baino **urrutiago**. Anjel Lertxundi
Zenbait legoa **urrutira** ere entzuten da zarata. Koro Navarro

7 (denborari dagokiola)

Bai espazioan gugandik **urruti** daudenei, bai denboran **urruti** daudenei ere. Joxerra Garzia
Denboran **urruti** galduta baita amabitxiaren bidez prebenda lortzeko ilusioa. Jon Alonso
Pekingo Olinpiar Jokoak **urruti** daude. Berria - Harian
Urruti daude oraindik azterketak! Iñaki Mendiguren
Negua ez da **urruti**. Pello Zabala
Egunguentia ez zen **urruti**. Anjel Lertxundi
Oso **urruti** dago Getariako gau sargaritsu hura. Anjel Lertxundi
Egoera hori **urruti** dago oraindik, oso **urruti**, zure ustez. Rafa Egiguren
Samuel Sanchez Euskaltel-Euskadiko asturiarra izan zen bigarrena, oso **urruti**: 2,32 minutura. Berria - Kirola

• 8 izond urruti dagoena.

Iruditzen zitzaidan ez nengoela jada herri **urruti** hartako zerbitzuan. Matías Múgica
-Agian ez da hego haizerik izango lagunak izozten diren leku **urruti** haietan. Jokin Urain
Eframingo mendialde **urrutienean** bizi zen lebitar batek. Elizen arteko biblia
ik beherago 11. Askoren artean
Berehala ugarte **urruti** horietara nahi izan baitzuen itzuli! Ramuntxo Etxeberri
"India" **urruti** eta aberatsetara joateko gisan, bide berri bat atzeman nahi du. Ramuntxo Etxeberri
Suaren hotsa eta aitaren telefonoko jardun **urrutiarena**, ez zen besterik entzuten. Anjel Lertxundi
Nahikoa zaiola hari arrunt bat bere etxean moztea Txina **urrutian** bizi den Mandarin baten heriotza gertarazteko. Bernardo Atxaga
Garai ez hain **urrutietan** kantatzen genuen hura. Anjel Lertxundi
Guardia ibiltarikoak ez baitziren hain paraje **urrutietaraino** ausartzen. Anjel Lertxundi
Ez nekien gustu onaren antzeko ezer zegoenik herrialdeko bazter **urrutienetan**. Antton Olano
- Etorbizun **urrutian** ikusten zuen Orwellek 1984ko urtea. Joxerra Garzia

9 (izen gisa)

Gogoan izan, etxerik gabeko **urrutietan**, basoz baso, sukalde mutilik gabe, ibiltzen zirela. Patxi Ezkiaga
Hara, sei egun dira doi-doian berori gaztelu honetan dagoena eta badatoz dagoeneko **urrutietatik** berorren galdez. Patxi Ezkiaga
Juanen hitzek **urrutiegitik** egiten zioten hots. Bernardo Atxaga
Presoen **urrutia**, senideenganako sadismoa, autoen abiadura. Markos Zapiain

10 urrutian adlag

Urrutian, zubiak sortzen zuen argitasuna lagun, uhinen apar punttak sumatzen ziren. Bernardo Atxaga
Urrutian, beheiti, Beyazitoko ibarrean, zaldi bat irrintzika ari zen, eroturik, urduri, izu. Fernando Rey
Beldurrez dardar, **urrutian** zeuden geldit. Elizen arteko biblia
Nola gaixoak Frantziskok ukitutako gauzen bidez sendatuak gertatzen ziren, bera **urrutian** egonik ere. Askoren artean
Ateak ixteko danbada ikaragarri bat entzun nuen **urrutian**. Josu Zabaleta
Leihoia ireki, eta haitz pitzatu bat seinalatu zuen **urrutian**. Eszena berreraiki dezaket: zuhaitz bat **urrutian**, forma ilun eta mozkotea nire gainera heldu da lasterka. Jon Muñoz
Flic-ak **urrutian** ikusi orduko, eskaileretan behera lasterka jaitsi, tren bat hartu eta beste sarrera batean hasten ginen oihuka. Anjel Lertxundi
Pianola baten musika mekanikoa entzuten zen **urrutian**. Anjel Lertxundi

11 urrutien adlag

Hortik ateratzen da **urrutien** dauden planetak direla zaharrenak. Josu Zabaleta
Hurbilen dauden sarrekek 35 euro balio dute, eta **urrutien** daudenek 10 euro. Berria - Kultura
Atea itxi eta leihotik **urrutien** zeuden aukietan eseriz. Iñaki Mendiguren
Begotik **urrutien** dauden elementuek ikuspen-ardatzetik hurbilago dagoen irudi bat osatzen dute. Josu Zabaleta
Iheslariak atxilotu eta polizia baten eskuetatik besteentara igarotzea, edo ahalik eta **urrutien** deportatzea. Jokin Urain
Nire kezka nagusia, zera guzti honetan, nire gurasoen begiradatik ahalik eta **urrutien** hiltzea da. Bernardo Atxaga
-Nora joan haiz **urrutienera**? Koro Navarro
Garden-garden ikusten ziren mendirik **urrutienera** islak ere. Anjel Lertxundi
-Begira ezak ongi, lagun hori, ibai bazter honetan eta beste aldekoan, begia iristen zaianik eta **urrutienera**! Karlos Zabala
Abuztuaren 1ean, arratsalde bero batean, Bilbotik ahalik eta **urrutienetik** iraganez, Elorrio eta Durangon barrena iritsi nintzen Gernikara. Txillardegui
Albait **urrutienetik** ari zen Joseluren borroka-saioa ikuskatzen. Josu Landa

11a urrutineneko izlag

Itzul itzazue lurraren **urrutieneko** bazterretatik nire seme-alabak. Elizen arteko biblia
Bere ahotsik lausoen eta **urrutienekoa**. Iñaki Mendiguren
Herri guztiek gurtuko dute, bai eta **urrutienekoek** ere, nor bere lurraldean. Elizen arteko biblia

12 urrutiko izlag

Menperatuak zituzten beren inguruetakoa nahiz **urrutiko** erregeak. Elizen arteko biblia
Hobe duzu hurbileko aukoa **urrutiko** anaia baino. Elizen arteko biblia
Kent, Yorkshire eta Dundee bezain **urrutiko** ikusleek deitu didate. Iñaki Mendiguren
Urrutiko itsasoetako arrainak eta **urrutiko** lurraldetako jakiak. Felipe Juaristi
Sobiet Batasuna oso **urrutiko** lurraldea zitzaion, Errusia baino urrutiagokoa. Felipe Juaristi
Urrutiko unibertso horietan bizi eta pentsatzeko gai direnek zer dakite guk baino gehiago? Josu Zabaleta
Urrutiko intxaurrek beti izaten direla hobeak. Hasier Etxeberria
Urrutiko trumoi-hotsa bezalako burrunba batek. Iñaki Mendiguren
Tokiko merkatuak eta **urrutiko** merkataritza. Koro Navarro
Polo optikoa, **urrutiko** ikuspenari dagokiona. Josu Zabaleta
Lumek **urrutiko** kontrolagailua hartu eta are gehiago goratzen du musikaren ozentasuna. Antton Olano
Eta 1.250 kiloko pale bat mugitzeko zerabilten **urrutiko** kontrolak huts egin eta azpian harrapatu zuen zornotzarra. Berria - Ekonomia
Urrutiko kontrolez leherrarazitako bonbak. Berria - Mundua
Urrutiko aginte batez ezartzen da martxan. Berria - Euskal Herria
Urrutiko kontroladun hegazkintxoari. Iñaki Mendiguren
Burura ekarri nituen Alma Bergmann, Klara Schultz, Sara Vidal eta Agnès de Espinosa, ahaide **urrutiko** nuen. Felipe Juaristi

Hirira ekarri duten musika **urrutikoa**. Felipe Juaristi

Zerk eragiten du orain abstraktu eta **urrutiko** egiten zaidana bestelako egoera batean zirraragarri izatea? Josu Zabaleta

Emakumea, Juvenalia Mickevicius zen, kondesa bat bere herrian, Lituania **urrutikoan**. Felipe Juaristi

Asuero erregearen agintepeko probintzia guztietako judu guztiei, hurbilekoei bezala **urrutikoei**. Jose Antonio Mujika

Handiak txikiekin elkartuak nahi zituen, jakintsuak sinpleekin anai maitasunez batuak, **urrutikoak urrutikoein** amodioaren lekedaz itsatsiak. Askoren artean

Urte asko pasatu dira ordutik, oso **urrutikoak** dira oroitzapenok. Anjel Lertxundi

-Bentariaren pabana -esan zuen Damián itsuak, **urrutiko**, oso **urrutiko** zirudien ahotsaz, hitzak irristaraz bezala. Felipe Juaristi

Frogak leku anitz eta oso **urrutikoetatik** bildu behar izan baitziren. Oskar Arana

Hurbileko herrienak nahiz **urrutikoan**, munduko ertz batetik bestera diren herrienak. Elizen arteko biblia

UNED Espainiako **Urrutiko** Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalaren Bergarako Ikastetxeko [...]. Berria - Euskal Herria

· **Urruti** samarreko militarrek ere baziren Bilbon orduan. Jokin Urain

Erregela horretan luzatu egin zuen Frantziasko kapitulu arteko epea, **urrutietako** lurraldeetan bizi ziren anaien bidaia-nekeak arintzeko. Askoren artean

13 urrutira adlag

Kontsolatzaile genuena urrun joan zaigu; bildotsak bezala besoetan ginderamatzanak **urrutira** alde egin du. Askoren artean

Ez zuela **urrutira** alde egingo handik. Inazio Mujika Iraola

Zoaz, **urrutira** bidaltzen baitzaitut, jentil-herrietara. Elizen arteko biblia

Neurri horrek **urrutira** bidaliko zituen behingoan Asiaren erdialdetik etorritako merkatariak. Karlos Zabala

Gau batez atera eta **urrutira** egin zuen ihes. Askoren artean

Testu eder, berritzaile, iradokitzaileen bila **urrutira** joaten gara sarritan, Argentina nahiz Japoniara, Hego Afrika edo Libanora. Berria - Kultura

Urrutira iheska zihoazenak. Fernando Rey

Urrutira zihoazen trenetan. Gotzon Garate

Gero, kolpetik, algara batean amaitu zuen, eta **urrutira** bota zuen erratza. Josu Zabaleta

-Eraman nazazu oso **urrutira**, baita munduaren amaieraraino ere! Josexto Azkona

Buelta eginez **urrutira** begiratu zuen iparralderantz, izar handien azpitik. Agustin Otsa

Guardiaren bistatik nahikoa **urrutira** iritsi zirenean, lasterka hasi ziren. Josu Zabaleta

Urrutira. [...] Isonzo-ren arroa ageri zen mendiaren eta ordokiaren artean. Josu Zabaleta

Urrutira nire aitaren ahotsa entzutea iruditut zitzaidan. Jon Maia

Neska gazteek, haiek **urrutira** ikustean, ihes egiten zuten, haien zorakeria itsatsiko zitzairen beldurrez. Julen Gabiria

Tunela hain ilun egonik, ez zuten oso **urrutira** ikusten aurrean. Iñaki Mendiguren

Orain arte behaturiko galaxia gazteak askoz urrunago zeuden, 9.000 argi urte **urrutirago**. Berria - Gaiak

13a irud/hed

Pentsamendua **urrutira** joaten zaio, iragan garaietara. Bazakiat, ezer gutxi ahalegindu arren, **urrutira** iritsiko haizela. Bernardo Atxaga

- **Urrutira** helduko da hau, sinetsi niri. Joxemari Urteaga

Ez dago **urrutira** joan beharrik horren arrazoia aurkitzeko. Joxerra Garzia

Frantziarrak oso **urrutira** joanak ziren beren kultur uste sendoei eragin politikoa ematean. Iñaki Mendiguren

Urrutira joan gabe, har dezagun urriaren 26ko *El Correo Español*. Iñigo Aranbarri

ik beherago 18. Askoren artean

Baina ez dira **urrutira** helduko, argi ikusiko baitute denek horien zentzugabekeria. Elizen arteko biblia

Hain **urrutira** joan gabe, badago hitzak asmatzeko beste bide oparago bat. Iñaki Arranz

Urrutira baino lehen, Frantziak aise ikasi zuen Martinikan kafea ondo hazten zela, eta handik beste uharte eta lurralde batzuetara eramane ziren landareak. Amua **urrutiegira** jaurti gabe. J.M. Olaizola "Txiliku"

14 urrutiraino adlag

Urrutiraino bidali zenituen mandataria, Hilene Egoitzaraino jaitsarazi. Jaiakoaren laguntza miragarriaz indartsu egin zen eta haren izena **urrutiraino** zabaldu zen. Elizen arteko biblia

Hori ikusita, israeldarrak gainera etorri zitzaizkien, eta atzetik jarraituz **urrutiraino** eraso zieten. Jose Antonio Mujika

Hain **urrutiraino** joan gabe ere, badira partikularitasun hori zehazki erakusten duten mamuak. **Urruti** samarerraino egin nuen arraunean. Bernardo Atxaga

15 urrutitik

- **Urrutitik** ikusi zaitugu. Felipe Juaristi

Urrutitik ikusi zuten hauek etortzen eta beraiengana hurbildu baino lehen, hil behar zutela erabaki zuten. Jose Antonio Mujika

Burua jasoz, oharatu zen geldirik zeudela turista batzuk, eta **urrutitik** begira zeuzkatela. Jon Muñoz

Urrutitik etorri dira, Babiloniatik.

Ez naiz hain **urrutitik** etorri Lisboako harresiaren aurrean hiltzeko. Jon Alonso

Anoetan **urrutitik** langara egin zenuen erremate hura datorkit burura. Berria - Kirola

Urrutitik hartzen diot usaina: haserre zaude nirekin. Hasier Etxebarria

Urrutitik hartutako argazki baten zati handitua dirudi. Jokin Muñoz

Uraren kontagailuak **urrutitik** irakurtzeko sistema bat. Berria - Gaiak

Urrutitik entzuten zituzten haren garrasi mingarriak. Josu Zabaleta

Batzuei **urrutitik** antzematen zaie aspertuta daudela. Arantxa Iturbe

Urrutitik ez nuen eskolaren izena irakurtzerik izan. Jon Muñoz

Urrutitik, beltz-beltza zirudien eta pausoak eman ahala zurirantz jotzen du areago. Monika Etxebarria

Amak "iu-ju!" oihu egin zuen **urrutitik**, eta orduan ikusi nituen. Joseba Urteaga

Semeak oso **urrutitik** hitz egiten zidala sentitu nuen, nigandik oso urrun zegoela alegia. Pedro Alberdi

Nola ur freskoa ez tarri lehorrarentzat, hala dira **urrutitik** jasotako albiste onak. Elizen arteko biblia

Segurtasun indarren arabera, **urrutitik** ez tatarazi zituzten lehergailuak. Berria - Mundua

Urrutitik agindutako lehergailu bat zartarazi zuten eta hiru soldadu hil. Berria - Mundua

la berehalakoan bi gizon ailegatu ziren, oihuka **urrutitik**. Fernando Rey

Urrutitik agertu natzaio eta esan diot: Maite zaitut, betidanik maite, horregatik natzaizu etengabe leial. Elizen arteko biblia

15a irud/hed

Eroslerik aurkituko ez balu, klubaren gestioa «**urrutitik**» jarraituko lukeela ere esan zuen. Berria - Kirola

Existentzia ez da **urrutitik** pentsatzeko aukera ematen duen zerbait. Monika Etxebarria

Koreografian zehar bikote, laukote eta hirukotean dantzatzen dute era koloretsuan, zuhaitzak, hegaztiak eta nekazari jarrerak **urrutitik** sujerituz. Berria - Kultura

- Zuretzat biluzten ari denari gizalegez **urruti** samarretik begiratzen zaion une hori. Josu Zabaleta

16 txukun-urruti izond

Hori baita egin ere arraza espainolak betidanik egin duena, mairu, judu eta heretiko txukun-**urrutiak** oro merezi bezala tratatuz. Joxe Azurmendi

Ilustrazio salbagarria txukun-txukun eskuinean eta Erromantizismo malapartatua ezkerrean txukun-**urruti** . Joxe Azurmendi

17 urruti gabe ez urruti.

Pozas auzoan etxe bat hartu zuen, Luluren dendatik **urruti gabe** . Benta bat ikusi zuen berak zeraman bidetik **urruti gabe** . Josu Zabaleta

Berrito akiturik, eskura zegoen lehenbiziko lekuan eseri zen [...] 124aren eskaileretatik **urruti gabe** . Anton Garikano

Garai batean, sukaldean edo jendea biltzen zen lekuan, zakurren bat han izanen zen **urruti gabe** . Patziku Perurena

17a (denborari dagokiola)

Ni isilik, malkoei eutsi ezinik; anaiak zerbait esan zuen, hobe zukeela, nonbait, **urruti gabe** sorterrian hil. Imanol Unzurrunzaga

Euskal Herrian ere **urruti gabe** ea horretara hurbiltzen garen. Berria - Kirola

18 urrutira gabe urrutiratu gabe.

Bechevetik **urrutira gabe** , bazen ibai bat eguraldia epeldu orduko yeshivako ikasle guztiak eta herriko mutil gazteak igeri egitera joaten zirena. Koro Navarro

Oraindik hiririk **urrutira gabe** zeudela, Josek etxeko arduradunari esan zion: [...]. Elizen arteko biblia

Clubeko loriotik oso **urrutira gabe** , kalean, harpalari bat ari zen. Irene Aldasoro

Urrutira gabe , eta kanpoan ontzurre ederrik badagoen arren, etxeko adibideak bildu ditu, esperantza handirik gabe. Iñigo Aranbarri

Nik badut lagun franko, **urrutira gabe** , Leitizan eta Goizuetan, euskaldun analfabeto hutsa dena. Patziku Perurena

Urrutira gabe , barrura sartu eta bainu hotzeko gelaren aurrean izerdia botatzeko gela gangatua jarriko da. Santiago Iruretagoiena

Esate baterako, eta **urrutira gabe** , Erregeen oparien miran hazi gintuzten gu gehienok. Joxerra Garzia

Galdegaiaren garrantzia aldarrikatzen duen pasarte horretatik hiru orrialdeko **urrutira gabe** ageri diren honako hauek, esaterako:[...]. Joxerra Garzia

18a (denborari dagokiola)

Urrutira gabe , konta dezadan atzo bertan gertatua. Berria - Kultura

Hori, ordea, **urrutira gabe** eten egin daiteke, Gonzalo Anton Alaveseko presidentek klubaren egoera ekonomikoa hobetzeko Gasteizko Udalari eskaini baitio aipatutako lur eremua. Berria - Kirola

19 urruti-min (8 agerraldi, 6 liburutan; orobat urrutimin 7 agerraldi, 4 liburutan) iz urrutitasunak eragiten duen goibeltasun egoera.

Zaharrago, mainguago eta ozpinduago sentitzen da, eta **urruti minak** gero eta maizago jotzen du aspaldi honetan. Aingeru Epaltza

Ez zen hasperena, zerbait gehiago baizik; **urruti-minaren** minak eragindako oihu isila; Juvenalia herririk gabea geratua baitzen, aita-amarik gabe geratua zen bezala.

Felipe Juaristi

Saminak nengoen eta saminak egon nahi nuen; **urruti-minak** horditua nengoen zu begi-bistan ez edukitzeagatik. Eduardo Matauko

Badaude **urruti-mina** ekarri edo haurtzaroa gogoratzen digutenak eta seguru asko egongo dira hilketa gertakari ezdeus eta arrunt bihurtzen duten lekuak ere. Joxean Agirre

Ematen zuen auzoak zerua erakartzen zuela, argia erakartzen zuela [...] **urruti-mina** erakartzen zuela hainbat bizitzen habia izandako auzo txiki abandonatu hark. Anjel Lertxundi

20 urruti-urruti

Gure aurrean **urruti-urruti** Dunkerke eta itsasoa dira inondik ere. Josu Zabaleta

Eta urrutira joaten ginen, **urruti-urrutira**, inora ez. Joan Mari Irigoien

Orduan, zure irudimenak **urruti-urrutiraino** garraiatu zaituenean, galdetu zeure buruari: bola horiek guztiak, espazio horiek guztiak, non daude? Bernardo Atxaga

Urruti-urrutian sumatzen dut, aurrean. Josu Zabaleta

Haiei esker, **urruti-urrutiko** objektuak ikustea lortzen dute. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aski urruti (7); **bezain urruti** (15)

elkarrengandik urruti (6); **etxetik urruti** (10); **ez da urruti** (11); **ez dago urruti** (4); **ez du urruti** (5); **ez oso urruti** (37); **ez urruti** (19); **ez zuen urruti** (4); **gugandik urruti** (7); **hain dago urruti** (6); **hain urruti** (58); **han urruti** (4); **handik urruti** (11); **hemendik urruti** (11); **herritik urruti** (9); **hiritik urruti** (7); **horren urruti** (6)

kanpalekutik urruti (5); **nahiko urruti** (8); **nahikoa urruti** (5); **nigandik urruti** (4); **niregandik urruti** (4)

oraindik urruti (9); **oso urruti** (231); **oso urruti dago** (14); **oso urruti egon** (7); **oso urruti geratzen** (6); **oso urruti ibiliko** (4); **oso urruti ikusten** (4); **oso urruti izango** (4); **oso urruti joan** (5); **oso urruti nengoen** (4); **oso urruti zegoela** (4); **oso urruti zegoen** (4); **sobera urruti** (4)

urruti aurkitzen (4); **urruti bezala** (4); **urruti bizi** (18); **urruti bota** (4); **urruti dago** (54); **urruti daude oraindik** (4); **urruti daudena** (7); **urruti egon** (20); **urruti egongo** (5); **urruti egotea** (4); **urruti eraman** (5); **urruti ez dagoen** (4); **urruti gabe** (8); **urruti gaude** (10); **urruti gelditu** (10); **urruti gelditu da** (4); **urruti gelditzen** (11); **urruti geratu** (8); **urruti geratzen** (16); **urruti geratzen da** (5); **urruti ibili** (10); **urruti ibiliko** (14); **urruti ikusi** (5); **urruti ikusten** (25); **urruti ikusten du** (4); **urruti iritsi** (8); **urruti iritsiko** (4); **urruti izan** (7); **urruti izango** (10); **urruti jauregiko** (5); **urruti joan** (17); **urruti nago** (6); **urruti nengoen** (6); **urruti samar** (33); **urruti samar zegoen** (4); **urruti sentitzen** (4); **urruti utzi** (6); **urruti zegoela** (17); **urruti zegoen** (32); **urruti zeuden** (13)

zein urruti (11); **zein urruti dagoen** (4); **zuengandik urruti** (4)

are urrutiago (8); **askoz ere urrutiago** (4); **askoz urrutiago** (7); **baino askoz urrutiago** (4); **baino urrutiago** (18); **gero eta urrutiago** (18); **geroz eta urrutiago** (4); **urrutiago dago** (7); **urrutiago dagoela** (4); **urrutiago dauden** (5); **urrutiago joan** (4)

han urrutian (7)

urrutiegia dago (6); **urrutiegia joan** (18); **urrutiegia zegoen** (5)

ahalik eta urrutien (12); **euskal herritik urrutien** (4); **urrutien dagoen** (4); **urrutien dauden** (10)

oso urrutiko (13); **urrutiko agintea** (4); **urrutiko herrialde** (4); **urrutiko intxaurrak** (7); **urrutiko intxaurrak hamalau** (4); **urrutiko lurralde** (4); **urrutiko lurraldeetara** (5); **urrutiko lurraldetik** (5)

hain urrutira (12); **hain urrutira joan** (4); **handik urrutira** (4); **horren urrutira** (7); **oso urrutira** (45); **oso urrutira joan** (11)

urrutira begira (7); **urrutira bota** (5); **urrutira eraman** (9); **urrutira gabe** (17); **urrutira helduko** (5); **urrutira iritsi** (5); **urrutira iritsiko** (8); **urrutira jo** (4); **urrutira jo gabe** (4); **urrutira joan** (54); **urrutira joan behar** (4); **urrutira joan beharrik** (6); **urrutira joan gabe** (27); **urrutira joan zen** (5); **urrutira joatea** (4); **urrutira joateko** (4); **urrutira joaten** (5)

are urrutirago (4); **askoz urrutirago** (6); **baino urrutirago** (10); **urrutirago doa** (5); **urrutirago ere joan** (5); **urrutirago jo** (6); **urrutirago joan** (13); **urrutirago joan gabe** (5)

hain urrutitik (10); **hain urrutitik etorri** (4); **oso urrutitik** (29); **oso urrutitik etorri** (4); **urrutitik begira** (8); **urrutitik begiratzen** (5); **urrutitik entzuten** (5); **urrutitik ere ez** (4); **urrutitik etorri** (14); **urrutitik etorri dira** (4); **urrutitik etorriak** (4); **urrutitik ikusi** (21); **urrutitik ikusi zuen** (4); **urrutitik ikusten** (13); **urrutitik jarraitzen** (4)

urrutiegitxo *adlag adkor* urrutiegi.

Harry pentsatu zuen kontua **urrutiegitxo** zihuala. Iñaki Mendiguren

Baina oraingoan **urrutiegitxo** joana zen. Iñaki Mendiguren

urrutikako *izlag* urrutiko.

Ederra izan zitzaidan, hunkigarria, oso **urrutikako** oihartzun ahuletan oratua. Txillardegi

urrutimin ik urruti 19.

urrutiramendu iz urrutiratzea.

Adaren jarrera, errespetuzkoa baino, hotza zen, **urrutiramenduak** eragina. Anjel Lertxundi

Jarrera, ikuspegi eta amets asko konpartitu arren, distantziarako eta irreberentziarako gaitasun handiagoa zuen, eta nik Andonirengandik **urrutiramendua** ikasi nuen.

Berria - Kultura

Gure gaurko gizarteak [...] halako **urrutiramendu** bat erakusten dugu sentimenduen eta emozioen aurrean, sentimenduen jarioak ahuldu egingo bagintu bezala. Anjel Lertxundi

Artista nahiz pertsona bezala erakutsi dudan irizpide askatasuna, agintearekiko **urrutiramendua** eta diruarekiko destaina nabarmenduko dituzte. Joxean Agirre

Erredakzioko jendearekin, berriz, **urrutiramendu** hotz batez jokatzeko zuen, eta ez zuen inoiz garbi erakusten zein zen bere jarreraren kausa. Anjel Lertxundi

Tradizioari egiten zaion deiak nostalgia-ekintza bat izateari uko eginik, **urrutiramendu** ironiko edo suntsiketa sistematiko bihurtzen da. Anjel Lertxundi

urrutirarazi, urrutiraraz, urrutirarazten du ad urrutiratzeraz behartu.

Karrozako andereak, bere begiz ikusten zuen hartaz harriturik eta izu-izu egina, handik pixka bat **urrutirarazi** zion karrozariari, eta urruti antzetik, ekinaldi gogorri begira jarri zen. Patxi Ezkiaga

urrutiratu (193 agerraldi, 61 liburu eta 20 artikulutan), urrutira(tu), urrutiratzen 1 da ad urrutira joan. ik urrundu.

Bera, Andrés, metroan **urrutiratzen** ari da. Lourdes Oñederra

Hölderlin bizitzatik **urrutiratu** omen zen bezala **urrutiratu** nintzen irakaslearen jardunetik. Anjel Lertxundi

Isaak **urrutiratu** egin zen leku hartatik eta, Gerarko ibarrean oihal-etxola kokatuz, bertan jarri zen bizitzen. Elizen arteko biblia

Atera ziren benjamindarrak israeldarrei aurre egiteko eta **urrutiratu** egin ziren beren hiririk. Elizen arteko biblia

Ximurra sartu bezain agudo **urrutiratu** zitzaigun, bertze bezero batengana. Aingeru Epaltza

Haien itzalak uzkuriturik eta hormarekin bat eginda **urrutiratu** ziren. Anjel Lertxundi

Tranbia **urrutiratzen** ari zen. Anjel Lertxundi

Motorra **urrutiratu** ahala, isilatasuna egin zen berriro. Anjel Lertxundi

-Bai -erantzun nion, harengandik **urrutiratuz**. Matías Múgica

Urrutiratze keinua egiten du, nahiz berehalakoan keinua zuzendu. Jon Alonso

Baina bi kultura horiek gero eta gehiago **urrutiratzen** badira elkarrengandik [...] bien arteko amildegia sakondu egingo da, bi kodeen arteko inkomunikazio erabatekoa eragiteraino. Anjel Lertxundi

Orduan konturatu baita ijitoak joka ari diren doinuak Haydn duela sorburu, eta **urrutiratzen** ari dela iturri horretatik, ibai luze eta sakon batetik zehar itsasoraino. Felipe Juaristi

Zitara-jotzailea, joan-etorrian zebilen, doinua ia galtzen zen arte **urrutiratuz** eta gero berriro itzuliz. Askoren artean

Taldetik **urrutiratu** da, hiriko usain eta koloreak bere kasa ezagutzeko. Anjel Lertxundi

Edozein politika burges-nazionalistatik **urrutiratuta**, langile-klasearen interesen defentsan jarri nahi ditu indar guztiak. Rafa Egiguren

2 (distantzia neurriekin)

40ko hamarkadaren hasieran zigor bitxi bat ezarri zioten: Galarretatik gutxienez 10 kilometrorra **urrutiratzea**. Berria - Kultura

Antza denez, hilkutxa bere lekutik atera eta kilometro erdi bat **urrutiratu** ondoren, estalkia ireki eta poliziaen gorpua pala eta pikotxarekin kolpatu zuten, txikitu arte. Berria - Mundua

• 3 du ad urrutira eraman.

Estuak omen ziren kontu horietan komentuan, eta, konturatu zirenean, **urrutiratu** egin zuten galaia handik. Inazio Mujika Iraola

Irain gogorra egin didazu zuek **urrutiratu** nazuzunean. Patxi Ezkiaga

Puy eta Atxurra presoak Euskal Herritik gehiago **urrutiratu** dituztela salatu du Askatasunak. Berria - Euskal Herria

Egia da neuk **urrutiratu** nituela nazio artera eta herrialdeetan sakabanatu. Elizen arteko biblia

Urrutiratu bidegabekeria zeure etxetik, itzuli Ahaltzuagana. Elizen arteko biblia

Errebote modukoa sortzen da, ahoskordak **urrutiratzen** dituen indar beraz elkartzen baitira, aire bultzadaren ondorioak irau bitartean. Lourdes Oñederra

Boladaka sentitzen den haizetxo gai izan dela bezperako lainoak **urrutiratze**ko. Bernardo Atxaga

Buruan zerabiltzan pentsamenduek **urrutiratuta** bezala zeukaten haren gogoak. Josu Landa

4 (era burutua izenondo gisa)

Itzul zaitzete niregana, seme **urrutiratuok**, eta neuk sendatuko dizuet zeuen fedegabekeria. Arteak -eta, artearen baitan, literaturak- asko du adibide horien baitako ikuspuntu **urrutiratutik**, talaia beste toki batean kokatuz. Askoren artean

Etxeke otsein guztiak eraikuntza **urrutiratu** batean zuten lotarako lekua. Josu Zabaleta

· Gustura egoten baitzen leku bakarti eta jendeagandik **urrutiratuetan**. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gehiago urrutiratu (6); **pixka bat urrutiratu** (3)

urrutiratuzale izond urrutiratze

Bigarren aukera errazago lotzen da egungo bertsolaritzaren izaera **urrutiratuzalearekin**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

urrutiratzaile izond/iz urrutiratzen duena.

Hala azaldu zigun Urrutik, gure baloien **urrutiratzaileak**. Joseba Sarrionandia

urrutiratze iz urrutira joatea; urrutira eramatea,

Berak ondoeza sentitu du azken urteotan, **urrutiratze** nahiko orokorragatik. Berria - Harian

Eta ezin ezkuta daitekeen **urrutiratzea** antzematen da idazle askorengan. Berria - Harian

Ortografiaren historia luzeagoak dakarren letraren eta hotsaren arteko **urrutiratzea**. Lourdes Oñederra

Elkarganitze fisikoaren egarria, **urrutiratzearen** mingostasuna... Ana Urkiza

urrutisko ik **urrutixko**.

urrutitxo *adlag adkor* urruti samar.

Lehengo baseritarrari kalea **urrutitxo** gelditzen bazitzaion, gaurkoari etxea gelditu zaio urruti, gero eta urrutiago. **Iñaki Seguro**

"Collège de France-n ondoan" esan nion; **urrutitxo** berarentzat, egia esateko. **Ramon Saizarbitoria**

Urrutitxo joan naiz, ordea, bai denboran bai trenbidean, eta natorren atzera berriz orduko nire Gipuzkoa estuan gora Legazpira. **Joxerra Garzia**

Eskumenetik **urrutitxo** geratu zaio folioa mutilari. **Joxerra Garzia**

Ez ote dira **urrutitxo** joan? Ezin ote zuten konformatu aurkitutako dama euskaldun hutsa izatearekin? **Hasier Etxeberria**

urrutixe 1 *adlag adkor* urruti samar.

Baina hauteskundeak **urrutixe** daude, eta Batasunari eustea da apustu politikoa, oraingoz. **Berría - Harian**

2 urrutixeago

Urrutixeago goaz, beharbada bala bat edo beste izango den alderdi bateraino. **Karlos Zabala**

Neska aurrealdean eseri zen nonbait, **urrutixeago**. **Mirentxu Larrañaga**

Bere ametsetako hestebete denda aurkitu zuen, ez Plaisancen, **urrutixeago** baizik, Montrougen. **Karlos Zabala**

Jesusen ezagun guztiak, bai eta Galileatik jarraitu zioten emakumeak ere, **urrutixeago** zeuden begira. **Elizen arteko biblia**

urrutixko (*orobat urrutisko*) *adlag adkor* urruti samar.

Txakur leiala atzetik joan zitzaien, baina **urrutixko**, badaezpada ere. **Karlos Zabala**

Hor ikusten da, tarteka **urrutisko** ere joaten zela zirri kontua, eta inoren kontsentimentuaren kontra, eskua zakarxko luzatzen zuenak, taldean bazen eta aiseago, jakina, kartzela edo isuna pagatu ere bai. **Patziku Perurena**

urrutizkin *iz* telefonoa.

Han, Carlton hoteleko bulegoan, **urrutizkina** belarrarian bero-bero, Eusko Gudarostearen iskilu eta munizioen egoera zetorkion gogora Agirrerri martxoko hartan. **Edorta Jimenez**

Zanpa-zanpa zebilen etxean zehar, **urrutizkinaren** txirrina oihar. **Itxaro Borda**

Urrutizkin zenbakia hau da Senperen 05 54 54 57 26. **Herria**

Eta **urrutizkin** zentraletik, Gipuzkoan telefono zentralita zuten herri guztietara gaztigatuko zen Igeldoko zerbitzutik emandako abisu iragarpena. **Pello Zabala**

urrutu ik **urratu**¹.

URRUZ ik **urrixa**.

ursulina (*orobat urtxulina g.er.*) *iz* Bresciako santa Angelak, neskei hezkuntza emateko eta eriak artatzeko sorturiko kongregazioko moja.

Baionan aldiz, badira beste zenbait: Karmeldarrena, **Ursulinena**, Zistetarreena. **Elena Touyarou**

-[...]ko **Ursulinetan**. **Jon Muñoz**

Etienne, Ziburun sortua (1799), apez (1825), Larresoron irakasle, missionest Hazpamen (1827), Pabeko **urtxulinen** apez (1831), Larresoroko zuzendari [...]. **Xipri Arbelbide**

urtadar *iz*

Eta ez dut amore emango bera bezalako norbaiten aurrean, aspaldian jauntasun eta duintasun osoa galdu zuen etxe hondatuaren azken **urtadarraren** aurrean. **Agustin Otsoa**

urtar *izond/iz* uretan bizi dena.

Zer egin animaliak lurtaarak eta itsastarrak edo **urtarrak** direla irakurtzen badugu, sistematikoki baztertuz lurreko edo itsasoko bezalako hitz jatorrak? **Pello Salaburu**

Arrainek, ordea, **urtarrak** izanik, beroa neurrian izaten dute, eta airez eta lurrez egoten dira, batez ere, osatuta. **Santiago Iruretagoiena**

urtarazi, urtaraz, urtarazten (*orobat urtuarazi g.er.*) **1** du *ad* beroaren eraginez urtzera behartu.

Ezkilak **urtarazi** zituzten. **Herria**

Gero, burdinazko ontzi batean ikatz piztuak jarriz eta horiekin paretan berotuz, argizaria **urtarazi** beza izerdia atereaz eta berdinduz den. **Santiago Iruretagoiena**

Neska batek zenbait ezko eta gantz **urtarazten** zituen lapiko esmaltatu batean. **Juan Garzia**

Ugartean berean jarri zituzten harrizko labeetan, balea hilen gurina **urtarazten** zuten eta ondoriozko olio dupeletan ezarririk, altxorrekin Europako bidea hartzen zuten. **Herria**

2 uretan urtzera behartu.

Urean **urtarazi** eta, oihalak ur urdin hartan pasatzen ziren, hauts galdorretik ateratu eta ikuzi ondoan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

3 irud/hed

Nire boza berriz ere telefonoan ezagutzeak ez zuen, preseski, bozkarioz **urtarazi**. **Aingeru Epaltza**

Ene ohizko zekenkeria zikoitz eta bekaitzaren mugak **urtaraziz** gasna zati gehiago moztu nuen. **Itxaro Borda**

Nahi luke euskal-nortasuna **urtarazi**. **Herria**

urtaril ik urtarril.

urtaro 1 iz lurraren eguzkiarekiko egoera kontuan izanik, urtea bereizten den hiru hilabeteko lau zatietako bakoitza; urteko arto edo aldia. ik **urte 18**; **udaberri**; **uda**; **udazken**; **negu**.

Naturak hamaika aurpegi ditu, urteak lau **urtaro**. **Berria - Euskal Herria**

Urteak neramatzan nik urtaroen berri jakin gabe, zeren, ni ibili nintzen lurretan, hezea eta beroa ziren nagusi, eta **urtaro** bakarra zen klima haren fruitu eta ondore, uda eta udaberri artekoa zirudiena. **Joan Mari Irigoien**

Denborak aurrera egin zuen, **urtaroak** bata bestearen atzetik etorri eta joan ziren. **Joanes Urkixo**

Gure euskaldeen, lau **urtaro** badira; lau **urtaro** horietan ingurumena aldatzen da eta bizi moldeak harekin. **Herria**

Udazkenak duela **urtaroetan** antz gehien ametsarekin. **Joseba Sarrionandia**

Udazkena deritzon **urtaroan**, azken beroa lehen hotzarekin nahasten da eta hemen ere negu zorrotzak eta udak elkar jotzen dute. **Xabier Amuriza**

Sethen kontakizunetan bi **urtaro** daude: udazken eta negu eternalak. **Berria - Kultura**

Mikel Strogoffek nahiago zuen bidaia negu beltzean egin, **urtaro** horretan lera zerbitzua antola baitzitekeen ibilbide osorako. **Karlos Zabala**

Urtaro hartan hotz handia egiten zuen, eta ez zen garai ona sendaketa-lanetan hasteko. **Askoren artean**

Ez dut oroitzen zein **urtaro** bizi genuen, ez dakit egutegiak zein zenbaki iragartzen zuen. **Karlos Linazasoro**

Urtaro guztien estratuak ageri ziren humusaren geruzetan, norabait jotzen zuen hark guztiak, zer bait zehaztu nahian. **Joxan Eloisegi**

Teknologia gau eta egunaren zikloaren eta **urtaroen** zikloaren tiraniatik gizakia askatzen ikusi dugu. **Iñaki Mendiguren**

Urtaroak baduela ondorio handia gure eguneroko bizitzan: [...] lurra ematea nahi badugu, hazia garai batzuetan bakarrik ereingo dugu. **Pello Salaburu**

2 (izenondoekin)

Nik ezagutu nituen Indiak **urtaro** bakarrekoak baitziren. **Joan Mari Irigoien**

Filipinetan **urtaro** lehorra da abendutik maiatzera arte doana. **Berria - Mundua**

Izar distiratsuz jantzitako ortzi-etxea udazkenean eta udaberriko **urtaro** loretsua irekitzean burrunbatzen da gehien eta lurra nonahi dardaratzen. **Xabier Amuriza**

Ordurako **urtaro** eurtsuan sartuak ginen. **Fernando Rey**

Tatariarrek **urtaro** hotza kanpamentuetatik atera gabe emateko asmoa ote dute? **Karlos Zabala**

Lurraldea gurutzatzea guztiz nekoso bihurtzen da **urtaro** beroan. **Karlos Zabala**

Kalaportura horrela heldu zen **urtaro** berria martxo eta apirilko egunetan. **Joseba Sarrionandia**

Handik aurrera bakarrik moldatu beharko nuela **urtaro** lainotuetan. **Fernando Rey**

Euria eta **urtaro** aberatsak bidali dizkizue zerutik. **Elizen arteko biblia**

Negua zen **urtarorik** gogorra. **Berria - Kirola**

3 (hitz elkartuetan)

Denboraldien hasiera, erdikoa eta azkena, eguzkiaren gorabeherak eta **urtaro** -aldaketak. **Elizen arteko biblia**

Euri fin eta grisaren sasoiari - **urtaro** aldaketarekin irauker bihurtu zena- gure oihalezko estalkia berogailu-hodi zurrin bihurtu zen. **Urtzi Urrutikoetxea**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lau **urtaro** (3); **urtaro aldaketa** (3)

lau **urtaroak** (4)

urtaroaren arabera (3)

urtaroekin lotuta (3)

urtaroen arabera (8)

urtarril (orobat urtaril g.er.) 1 iz urteko lehen hila, 31 egun dituena.

Urtarrileko lehenbiziko hamabi egunei zotal-egunak deitu izan zaie. **Pello Salaburu**

1987. urteko **urtarrila** zen. **Eduarne Elizondo**

1836ko **urtarrilaren** 19ko gau hartan. **Askoren artean**

1968ko **urtarrilean** Dubcek eslovakiarrak hainbat erreforma onartu zituen Txekoslovakian. **J.M. Olazola "Txiliku"**

1944ko **urtarrilean** sartua, 44 145-garrena nintzen. **Marzel Etxehandi**

1973ko urriaren eta 1974ko **urtarrilaren** artean laukoiztu egin zen petrolioaren prezioa. **Koro Navarro**

Agentziarekiko lan-kontratua 1937ko **urtarrilean** sinatuko du. **Edorta Jimenez**

1959ko **urtarrileko** lehen egunetan. **Edorta Jimenez**

1981eko **urtarrileko** goiz hotz hartan. **Joan Mari Irigoien**

2003ko **urtarrileko** uholdeek urte beltz eta latz bati eman zioten hasiera. **Eduarne Elizondo**

44ko **urtarriletik** 45eko **urtarrila** arte. **Marzel Etxehandi**

Okerrik ezean, **urtarrilaren** 14an zeharkatuko du Titanen atmosfera iluna. **Berria - Gaiak**

Zerbitzu berria **urtarrilaren** 19an abian jarriko den arren, **urtarrilaren** 15ean egingo dute inaugurazio bidaia. **Berria - Euskal Herria**

Urtarrilaren 14tik preso dago berriro Manu Azkarate tolosarra. **Berria - Euskal Herria**

Urtarrilaren 3an eta 6an aratseko 9etan SCARY MOVIE 3. **Herria**

Urtea **urtarrilaren** lehenbiziko egunarekin hasten da. **Pello Salaburu**

Urtarrilaren amaiera aldera ordea, hegoaldeko haizea atera zuen. **Koro Navarro**

Edith Frank han hil zen ahuleriaz, 1945eko **urtarrilaren** 6an. **Josu Zabaleta**

Urtarrilaren 20ko hogeita lau orduak - **urtarrilaren** 20a patrioiaren eguna da, 1597az gero hiriaren izenarekin nahasten denarena-. **Askoren artean**

Udako turistak **urtarrileko** jaietara etortzeko ohiturarik ez bazuten ere, [...]. **Askoren artean**

Urtarrileko gau arras hotz batean Laugarren Kalearen eta B Etorbidearen arteko kantoian. **Oskar Arana**

Urtarrileko gau hartarako erabakita zuen Anjelmarirekikoak egitea. **Unai Iturriaga**

Urtarrileko eguzki ahularen menpean etxeko balkoi tikira biluz-biluzik atereaz. **Aingeru Epaltza**

Urtarrileko defizita, joan den abenduko datuekin alderatuz gero, %0,9ko hazi da. **Berria - Ekonomia**

Munich, 1934ko **urtarrilak** 2. **Ramon Etxezarreta**

Asteazkena, 1943ko **urtarrilak** 13. **Josu Zabaleta**

1932ko **urtarrilaren** 25a, astelehena. **Monika Etxebarria**

Rosario, 1977ko **urtarrilaren** 10ean. **Alberto Barandiaren**

Aurtengo **urtarrilaren** 2an. **Xabier Olarra**

Urrun dago **urtarrilaren** 23a. **Berria - Euskal Herria**

2 (izenondokoin)

1568ko **urtarril** beltz hura. **Aingeru Epaltza**

Buruz buru jarri eta niniken oihal beratzak josten zitzaizkien, **urtarril** mineko igande azkorrietako izotz edo goroldioz zuritu harri karroindua adina geldo. **Itxaro Borda**

Bitartean, jatekoak urritzen eta egurra agortzen, **urtarril** hotz hartan. **Aingeru Epaltza**

Urtarril zoriontsu hartan. **Anton Garikano**

1946ko **urtarril** gogorreraino. **Juan Garzia**

Urtarril hotza, neguaren bihotza. **Pello Zabala**

Urtarril osoa eman nuen gogor lanean, fisikoa lantzen. **Berria - Kirola**

3 (hitz elkartueetan lehen osagai gisa)

Urtarril hasieran Paueko prefetarekin eta Baionako suprefetarekin bildu ziren ABko ordezkariak. **Berria - Harian**

Baionako multzoa horrekin harremanetan sartuko da, **urtarril** hastapenean kanpaina bat abiatzeko. **Herria**

Urtarril hasieratik koman da, garunean odoljarria izanda. **Berria - Mundua**

Abendu-**urtarril** parterako muntaketa eta sonorizazio lanak amaituta edukitzeko asmoa dute. **Berria - Kultura**

Euria ari zuen Bilbon **urtarril** erdialdeko astearte hartan. **Unai Iturriaga**

Urtarril erditsuko igande arratsalde batez. **Daniel Landart**

Urtarril amaieran 67 dolarren bueltan zen Brent petrolio upelak behera egin du bosgarrenez jarraian. **Berria - Ekonomia**

Urtarril amaieratik ez dugu jaso inongo berririk, zain gaude. **Berria - Kirola**

El Correo zen antolatzailea eta haiek, **urtarril** bukaeran, ez zutela antolatuko esan zuten. **Berria - Kirola**

Urtarril ondarreko bozen ondotik, astelehenean berriua izan da laborantza ganbarako bulegoa. **Herria**

Urtarril azkenean bururatzen da gure bahimendua. **Marzel Etxehandi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

heldu den urtarril (3); **urtarril amaieran** (4); **urtarril bukaeran** (6); **urtarril erdialdeko** (3); **urtarril hasieran** (4); **urtarril hastapenean** (5); **urtarril ondarraren** (3); **urtarril ondarrean** (3)

aurtengo urtarrila (3); **urtarrila arte** (14); **urtarrila bitartean** (6); **urtarrila bitarteko** (3); **urtarrila eta maiatza** (5); **urtarrila eta martxoa** (11); **urtarrila eta otsaila** (3); **urtarrila otsaila** (3); **urtarrila zen** (7)

urtarrilarekin batera (3)

aurtengo urtarrilaren (11); **datorren urtarrilaren** (21); **heldu den urtarrilaren** (25); **helduden urtarrilaren** (8); **iazko urtarrilaren** (11); **iragan urtarrilaren** (38); **joan den urtarrilaren** (48); **joan zen urtarrilaren** (14); **pasa den urtarrilaren** (4)

urtarrilaren amaieran (10); **urtarrilaren bigarren hamabostaldian** (5); **urtarrilaren bukaeran** (11); **urtarrilaren hamarrean** (4); **urtarrilaren hasieran** (8); **urtarrilaren hasieratik** (3); **urtarrilaren lehenean** (11); **urtarrilaren lehenetik** (6)

urtarrilaz geroztik (28)

abenduan eta urtarrilean (3); **aurtengo urtarrilean** (18); **datorren urtarrilean** (12); **datorren urtarrilean egitekoak** (4); **datorren urteko urtarrilean** (3); **egin zuen urtarrilean** (3); **esan zuen urtarrilean** (3); **hauteskundeak urtarrilean** (3); **heldu den urtarrilean** (9); **helduden urtarrilean** (6); **iazko urtarrilean** (26); **iragan urtarrilean** (14); **joan den urtarrilean** (29); **joan zen urtarrilean** (9); **joanden urtarrilean** (9)

urtarrilean abiatu (6); **urtarrilean abiatu zuten** (3); **urtarrilean abiatuko** (3); **urtarrilean atxilotu** (9); **urtarrilean atxilotu zuen** (3); **urtarrilean atxilotu zuten** (4); **urtarrilean bilduko** (3); **urtarrilean bozak** (5); **urtarrilean egin** (6); **urtarrilean egingo** (8); **urtarrilean egingo direla** (3); **urtarrilean egitea** (4); **urtarrilean egitekoak diren** (11); **urtarrilean emandako** (3); **urtarrilean esan** (3); **urtarrilean eta otsailean** (10); **urtarrilean hasi** (19); **urtarrilean hasi zen** (5); **urtarrilean hasiko** (3); **urtarrilean hasitako** (3); **urtarrilean hasten** (3); **urtarrilean hil** (4); **urtarrilean hil zen** (3); **urtarrilean irabazi** (3); **urtarrilean iritsi** (5); **urtarrilean iritsi zen** (4); **urtarrilean izan** (7); **urtarrilean izandako** (4); **urtarrilean izango** (5); **urtarrilean izango da** (3); **urtarrilean jarri** (6); **urtarrilean jokatu** (3)

iazko urtarrileko (4); **joan den urtarrileko** (3)

urtarrileko aldapa (7); **urtarrileko bozetan** (8); **urtarrileko datuak** (4); **urtarrileko egun** (3); **urtarrileko eta otsaileko** (3); **urtarrileko gau** (7); **urtarrileko goiz** (4); **urtarrileko hauteskundeak** (5); **urtarrileko hauteskudeei** (3); **urtarrileko hauteskundeetan** (3); **urtarrileko hirugarren astean** (3); **urtarrileko lehen** (6)

abendutik urtarrilerara (3); **urtarrilerara arte** (7); **urtarrilerara bitartean** (3)

heldu den urtarrilerako (3); **urtarrilerako iragarrita dauden** (3)

aurtengo urtarriletik (8); **aurtengo urtarriletik irailera** (6); **hazi da urtarriletik** (6); **hazi zen urtarriletik** (4); **heldu den urtarriletik** (3); **iazko urtarriletik** (6); **irabazi ditu urtarriletik** (4)

urtarriletik abuztura (10); **urtarriletik abuztura bitartean** (3); **urtarriletik apirilera bitartean** (3); **urtarriletik aurerra** (32); **urtarriletik azarora bitartean** (3); **urtarriletik ekainera** (6); **urtarriletik ekainera bitartean** (4); **urtarriletik goiti** (12); **urtarriletik hona** (15); **urtarriletik irailera** (21); **urtarriletik irailera bitartean** (19); **urtarriletik martxora** (27); **urtarriletik martxora bitartean** (8); **urtarriletik urria** (3); **urtarriletik uztailera bitartean** (4)

urtaskari ik urtats 2.

Urtats (orobat urtats eta urtets g.er.) 1 iz ipar urteko lehen eguna. ik Urteberri.

-Bihar **urtats** da, elgarri urteberri onaren desiratzeko eguna. **Marzel Etxehandi**

Urtats iragan da beraz eta urte berri bat hasi. **Herria**

Abendo erditan berantenz, eskutan ukaiten ahalko omen ditugu euro batzu, usatzeko, nahiz ez ditugun egiazki baliatzen ahalko **Urtats** arte. **Herria**

Antxuaren arrantza **Urtats** arte debekatua egonen dela. **Herria**

Etxe berrian, hilabete baten buruko sartu beharrak ziren, eguberri eta **urtats** han ospatzeko. **Daniel Landart**

Urtatsez berriak biziki hobeak ziren esperantza suspertu zitzaigun. **Marzel Etxehandi**

Artzainak ikusiko du ere zein diren Eguberriz edo **Urtatsez** saltzeko prest direnak, prezio hobereanean, memento hobereanean. **Michel Oronoz**

Urtats goizean, harridurari harridura, soldado batek ateko leihatilatik paketa ttipi bat eman zidan. **Marzel Etxehandi**

Urtats biharamunean idekitzekoa dute. **Herria**

Joanden aste hortan, **Urtats** bezperan. **Herria**

UMP alderdiak bere hautagaia ez duela hautatuko bozen aintzineko **Urtats** irian baizik... **Herria**

Eguberri eta **urtats** egunak etxean pasa nituen. **Daniel Landart**

Urtats besta on! **Herria**

Bidaia horretarik landa, bere alabaren partetik, **urtatseko** hitz anodinoetaz besterik ez zuen ukan Maienak. **Itxaro Borda**

Bush amerikano presidentak aipatu du Irakia **Urtatsetako** bere solasetan. **Herria**

Aurtengo **urtatsetik** urriaren 31a artio, hamar hilabetez beraz, 28000 beribil erreak izanak dira gure Frantzia ez-tian. **Herria**

2 urtats-kari (orobat urtatskari eta urtaskari) adlag ipar urtatsean.

Hori da Eguberriko argiaz eta bozkarioz bihotza beterik, **Urtats-kari** egiten dutan esperantzazko agiantza kartsua. **Herria**

Agintari gehienek mezu zerbaiz zabaldu dute **Urtats-kari**. **Urtatskari**, usaian bezala, Chirac presidentak zabaldu du bere mezu berezia. **Herria**

Urtaskari usaian bezala Herriko Etxeak gonbidatu ditu herriko elkarte guzien arduradunak. **Herria**

Euskararen alde borrokatzen den emazte bati eman diote **urtaskari** "Légion d'honneur" xingola. **Herria**

urtatu¹, urta, urtazen du *ad ipar* ureztatu.

Bhazihoan urbidea Otsobiko lepora, handik beheiti pentze guziak **urtatzen** zituela. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Geth da ziotate bat miresgarria, Persiako erregek baditu han baratze ezin sinetsizkoak, mila iturriz **urtatuak**, zuhaitz ederrek beren itzalekin gerizatzen dituztenak. **Aurelia Arkotxa**

urtatu² *izond* urte askokoa.

Ihardetsiko nion ezen haiek guztiak agure zahar **urtatuaren** desenkusak zirela, hain bainengoen haragiak itsuturik. **Joan Mari Irigoien**

urte 1 *iz* Lurrak Eguzkiaren inguruan bira oso bat egiten ematen duen denbora; urtarrilaren 1etik abenduaren 31rako hamabi hilabeteko aldia.

Numa Pompiliok [...] 12 hilabeteko **urtea** antolatu zuen, eguzki-jiroari parekatuz. **Pello Zabala**

Haize aldaketa nabarmen horrek, urtaro oso ezberdinetan bereizten dute han **urtea**. **Pello Zabala**

Errekaren zuloan sartu zen, **urtearen** sasoi hartan zeraman ur gutxiak bidezidor moduko bat uzten zuelako haren alde batean. **Bernardo Atxaga**

Urteko sasoi batzuetan aise harrapa zezakeen han sukar gaiztoren bat. **Jose Morales**

Bere erregetzako laugarren **urteko** bigarren hilabetean hasi zuen eraikuntza. **Elizen arteko biblia**

Zortzi **urte** zituen Joiakinek errege izaten hastean, eta hiru hilabete eta hamar egunez izan zen errege Jerusalem. **Elizen arteko biblia**

Garai larriena 1995 eta 1996 **urteak** izan ziren: 15 kide hil zituzten. **Berria - Harian**

Lehenean, 1952-1965 **urteak**, Eskual Etxearen lehen urratsak. **Herria**

Ehun **urte** horietan, 1850 eta 1950 artean, 50 milioi europarrek alde egin zuen kontinentetik. **Pello Salaburu**

1330-1443 **urteak** bitartean ageri dira % 25, %30, %35, eta %68ko korrituak ere. **Patziku Perurena**

2000. **urteak** azkena jo duenean bukatu da XX. mendea. **Pello Salaburu**

Juduen egutegi zibila askoz ere konplikatua da, eta gure 2000. **urtea** haien 5761. **urtea** da, mundua K.a. 3761. **urtean** sortu zelako. **Pello Salaburu**

ik behe-rago 12. **Askoren artean**

1942ko **urte** ikaragarrian. **Edorta Jimenez**

"Manson" ezizena 1970eko **urte** hartan egunkari guztietan azaltzen zen Charles Manson hiltzaile hippyagandik zetorkion. **Bernardo Atxaga**

Geroxeago, habia joan den **urteko** tokian dagoela ikusitakoan, laster jotzen dute beste lagunen bila. **Pello Zabala**

Aurten, alorrean utzitako hazitiki sortua jango duzu; datorren **urtean** bere kasa erneko dena; baina hurrengo **urtean**, erein ahal izango duzue eta uzta bildu. **Elizen arteko biblia**

Zer dela-eta axolatu behar dut heldu den **urtean** gaztelarrak nahiz frantsesak bagara ere? **Aingeru Epaltza**

Datozen lau **urteak** erabakigarriak izango direla uste duzu gatazkaren konponbidera begira? **Berria - Harian**

Urteak pasatzen hasten dira. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Baina "**urteak** aurrera doaz", idazten du Sadek, eta egunak igaro ahala jabetzen da dena alferrik dela. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Urteak igaro ziren eta Judaren emaztea hil egin zen. **Jose Antonio Mujika**

Urte amaiera guztietan ipini ohi dute orri bat, zuzendariak sinatuta, presoei **urte** berri on eta zorionsua opaz. ik Urteberri. **Jokin Urain**

Urte berrirako gure amets eta gurari onenak bete daitezela. **Jokin Urain**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urte hasierako kontua da hori, urtarrilaren 27koa. **Pello Salaburu**

Solidarioen ekimenak, ordea, dinamika berri bat ekarri zion 1995. **Urte** hasieran borrokari. **Eduarne Elizondo**

Urte hasieratik amaia arte ibiltzen ziren biak ehizan, atsedetik gabe. **Josu Zabaleta**

Eusebiok, **urte** hastapenean otean artetik tunel gisako bat pasarazi zuen. **Eneko Bidegain**

Urte erdia iragan baino lehenago. **Joan Mari Irigoien**

Aditu gehienek aurreikusi dute EBZk aurten beste bi alditan (**urte** erdian eta amaieran) puntu laurden igoko dituela interes tasak, abenduan %3ra iristeraino. **Berria - Ekonomia**

Lehenengo eguneko zirrara baretu da: baina **urte** amaierarako gerra bukatua izango dela itxaro dugu. **Josu Zabaleta**

Irailean izan bazen epaiketa, zertara dator **urte** hondarrean hau guztia? **Iñigo Aranbarri**

Bizimodu osasuntsuaren arauak kontu handiz betetzeak **urte** sail luzeetan eztabaida emankorrean aritzeko aukera eman baitie. **Xabier Olarra**

Gero Arnegira izendatu zuten eta hor **urte** andana luze bat iragan zuen. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Bitorrek ez zion sekulan aipatu **urte** parrasta bat lehenago hemen gertatua. **Elena Touyarou**

Hango baratze inguruak harez eta lokatzez tapa-tapa eginda utzi baitzituen, **urte** mordoxka batez ezin izan zuten lurra emankor bihurtu. **Pello Zabala**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

1944 garaian **urtea** izango da. **Josu Zabaleta**

Lehenbiziko bake **urte** hartan erdietsi zuen amak bere lana. **Alberto Ladron Arana**

Jaunaren ohorez zorren barkamen- **urtea** aldarrikatzean, lagun hurkoari mailegu egin dionak barkatu egingo dio maileguz emana. **Elizen arteko biblia**

Izan ere, lurrarentzat atsedend- **urtea** zenez, ez zuten janaririk hirian babesturik irauteko. **Elizen arteko biblia**

Haien artean aukeratzeko irizpide orokorra argitaratze- **urtea** izan ohi da. **Askoren artean**

Gazta **urtea** izan dugu, baina perretxiko gutxi. **Javi Cillero**

Urre **urtea**, elur **urtea** dio esaera batek. **Pello Zabala**

Ezkur **urtea**, elur **urtea** zioen beste batek. **Pello Zabala**

-Bixistre **urte**, haur **urte**. **Pello Zabala**

-Bisitx **urte**, gose **urte**. **Pello Zabala**

4 hamabi hilabeteko denbora bitartea.

Badakizu zenbat **urte** ditudan? Hirurogeita hamalau. **Bernardo Atxaga**

Hogeita bi **urte** nituen orduan. **Txillardegi**

Seleukotarren agintaldiko ehun eta berrogeita seigarren **urtea** zen. **Elizen arteko biblia**

Hamabi **urte** zituen Manasesek errege izaten hastean, eta berrogeita hamabost **urtez** izan zen errege Jerusalem. **Elizen arteko biblia**

Emakume garai eta sendoa da, berrogeita bost **urte** ingurukoa. **Xabier Olarra**

Mendel-ek genetikaren zientziari hasiera eman zionetik ehun **urte** betetzen zirela. **Pello Salaburu**

Hogeita bat **urteak** bete arte itxaroteko prestatu zen Gina. **Juan Garzia**

ik beheago 20. **Askoren artean**

Ez zituen hogei **urteak** beteak, eta beraz, Guianara deportatua izanen omen zen. **Elena Touyarou**

Badira hogei **urte** haren berririk ez dudala. **Joxe Austin Arrieta**

Hamabost **urte** badu ez dudala ikusi. **Eskarne Mujika**

Nire izena Adeline Pichardon da dagoeneko, orain hogei **urte** Marius Pichardon jaunarekin ezkondu nintzenetik. **Joxean Agirre**

Gaur egun arraroa, gogorra, lekuz kanpoko gertatzen da arrazaren aipamen hutsa, baina orain dela ehun **urte** guztiz normala zen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gizon batek -batek bakarrik, bederen, orain dela milaka **urteak**!- liburu hori aztertu eta irakurriko ahal zuen. **Juan Garzia**

Beste nonbait bizi izanik eta urrunagoko kulturetan murgildua, ene lurrean arrotz sentitu dut ene burua duela hamar **urte** erakasle lana utzi izan behar dudalarik, Euskal Herrirat itzultzeko. **Piarrres Aintziart**

Urte gutxi barru erabat aldatuko dute haur horiekiko jarrera, seme-alaba haziak galtzeko arriskuak are zaharrago sentiaraziko dituenean. **Pako Aristi**

Hankako hezurrak, ordea, etengabe haziz doaz hemezortzi-hogei **urtez**, bitarte horretan normal lan egiteari utzi gabe. **Irene Aldasoro**

Sei **urte** igaro dira geroztik, eta lagun batek esan dio Mireiari Daniel Xiuwei itzuli dela hirira. **Pako Aristi**

Hainbeste **urte** pasata ere, oraintxe ari naiz gazte hori ikusten, zereginen batera zihoala, xalo-xalo. **Javi Cillero**

Horrenbeste **urte** eman ondoren ezer idatzi gabe [...] kontakizuneko pertsonaia bihurtua ikusi zuen egun batean bere burua. **Imanol Zurutuza**

Ez zuen gogoratzen zenbat **urte** zeramatatzen lautada hartan eta denboran atzera-aurrera. **Anjel Lertxundi**

Orain, **urteen** buruan, ezezkoan nago. **Edorta Jimenez**

Gero ama galdu nuen handik bost **urteren** buruan. **Menane Oxandabaratz**

5 (izenondo edo kidekoekin)

Etortzeko diren **urte** on horietan. **Elizen arteko biblia**

Azaroan ortzia, **urte** onaren mentura! **Pello Zabala**

Urte txarrik ez dela egiteko horietan. **Jokin Urain**

Urte berri bat lantegietan udako pausaldiaren ondotik, batzuek diotelarik udazkena beroa eta nahasia izaiten ahal litakeela. **Herria**

Urte luzeak daramatzate gure senide eta lagunak urruneko kartzeletara bidaiak egiten. **Jokin Urain**

Seme-alaben heziketak **urte** luzeetan galdatzen ditu gurasoen artapen erkideak. **Andres Urrutia**

Urte luzetan eutsi zioten emandako hitzari. **Xabier Olarra**

Gizonak, **urte** luzez bizi baledi ere, bizi bitza denak alai. **Elizen arteko biblia**

-Hamar **urte** labur egin genituen ezkontuta. **Iñigo Aranbarri**

Geroztik, elkarrekin egin genituen **urte** laburretan, maiz jartzen nion eskua gerrian. **Joxean Agirre**

Neu ere onanista izan nintzen lehen berrogeita hamar **urte** ilun haietan. **Karlos Linazasoro**

Gosetea izan zen hiru **urte** beltz haien ondorioa. **Joan Mari Irigoien**

Hilabete eta **urte** gogorak zetozak; eta elkar hartuta jokatu behar diagu inoiz baino tinkoago. **Txillardegi**

Imre Kertész-en lan autobiografiko honek 1944-45 **urte** gogor eta nahasietako Europara garamatza. **Pablo Sastre**

Urte latzak izan ditut, baina nolnahi ere nire gurasoenak baino laburragoak. **Elizen arteko biblia**

Eman zoriona orain arteko egun estuen ordez, ikusi ditugun **urte** gorrien ordez. **Elizen arteko biblia**

Urte berezia izan zen. **Edurne Elizondo**

Hautzaroko **urte** zoriontsuetan. **Joxan Elozegi**

Ardurarik gabeko **urte** alaiak. **Urtzi Urrutikoetxea**

Hurrengo bi ikasturteak **urte** bakarrean egiteko baimena eskatu zuen. **Arantxa Iturbe**

-Kazetaritza eskolako azken **urtea** hasi zuenean. **Jon Muñoz**

Hilaren 29an, Badajozen, 46.0 graduraino iritsi ziren, aspaldiko **urteetan** handiena han. **Pello Zabala**

6 (zenbatzaileekin)

Liburuaren kortesia-orrian datozen datuen arabera, poloniarraren Egunerokoak ia hamar **urte** daramatza herriko liburutegian. **Anjel Lertxundi**

Urte asko eman zituen gauzak nola eskatzen ziren ikasi gabe, ezta keinuz edo seinatuz ere. **Xabier Olarra**

Ikusi gabe maitatu zuten elkar **urte** askoan. **Xabier Etxabe**

Denboraren poderioz, maitemindu eta ezkondu egin ziren, eta **urte** askotan bizi izan ziren elkarrekin, zoriontsu eta libre. **Jon Arretxe**

Orduan soilik leundu zuen **urte** askotako laztasun hura. **Jose Morales**

Itzultzaileak berak erran daukunaz, **urte** askotako lana izan da. **Herria**

2001ean, lehertu zinen urtean, **urte** askotarako txapelduna geneukala esanez hasi zen jende guztia. **Berria - Kirola**

Asko eta asko beraiek konbentzitura sartu ziren mobidan, eta kartzelan geratu ere bai **urte** askotarako. **Jokin Muñoz**

ik beheago 25. **Askoren artean**

Herri inguruan baserri zaharrak ugari ziren, asko **urteetan** abandonatuak, hutsak. **Jon Maia**

Ikur horri esker, oso **urte** gutxitan, batez ere XX. mendearen azken hamar **urteetan**, gure komunikazio mundua zeharo aldatu da. **Pello Salaburu**

Arato de Solik, handik **urte** gutxira (270 K.a.), liburu bat idatzi zuen *Prognostika* izenburua zuena. **Pello Zabala**

Gogotik lan egin arren hogeia **urtean** irabazi ezingo zukeena eskura zezakeen **urte** batean. **Jose Morales**

Berrogeita hamar **urte** berrogeita hamar **urtera** Jubileu Urtea ospatuko duzue. **Elizen arteko biblia**

Halako gogortasun bat, orriak elkarri itsatsiak bezala oraindak, eta konturatu nintzen hogeia **urtean** ez zuela inortxok ere zabaldu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hogeita sei **urtean** ez nauk mezatan izan. **Edorta Jimenez**

Han jarraitu beharko zuen berak, hogeita hamar **urtean** itzalpean usteldu eta gero. **Hasier Etxeberria**

Makinista zen eta hogeia **urteetan** hasi zen trenmakinak gidatzen. **Fernando Rey**

Hogeia **urteetan** hasi nintzen independenteki bizitzen, Aurretiko hamar **urtean** oinez ibili gabe nuena, itsasontzi hartan ibili nuen horratik. **Ana Urkiza**

XXI. mendeko lehenbiziko hamar **urteetan**, HIESak jango du gobernuaren aurrekontuen % 20. **Pello Salaburu**

Izugarri sufritu du, benetan, bere hemengo lehen lan **urteetan**. **Joxan Elozegi**

Abokatu berriak hogeita hamar **urteko** zigorra eskatuko du. **Edorta Jimenez**

Hamabost **urteko** nerabea zen Dani Untziti 1985ean. **Edurne Elizondo**

Gudurako gai ziren hogeia **urte** gorako gizonetako banan-banan errolatuz Armada italiarreko tenientea, hogeita hamabi urtekoa eta Anconako hirian hazia. **Elizen arteko biblia**

Noe izan zuenetik, beste bostehun eta laurogeita bost **urtez** bizi izan zen, eta seme-alabak izan zituen. **Elizen arteko biblia**

Ibai batean aritu zen lanean bost **urtez**. **Xabier Aranburu**

Mariari bi **urte** geroago aurkitu zioten senarra: Tomas Atondo, zapataginen karrikako ofiziala. **Aingeru Epaltza**

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskola-**urtea** amaitzea, lan-ordutegi berriak, opor-usaina lantokietan. **Pello Zabala**

Gogoan dut, gaztetan, eskola **urteetako** unerik zirrargarriena zeruko izarrek osatzen dituzten figuren izenak eta esanahiak ikasi nituen egun hura izan zela. **Pako Aristi**

Nire oroiarenean bizikleta **urteak** dira haiek. Josu Zabaleta
Aspaldiko urpekaritza-**urteak** gogora ekarri zizkidan sentsazio bat. Xabier Olarra
Amaitu ziren Egipton zazpi oparotasun-**urteak** eta zazpi gose-**urteak** hasi ziren. Jose Antonio Mujika
Horregatik bere zerbitzu **urteak** bi halako balio zuten. Fernando Rey
Bere ikasle **urte** narrasak bai Madrilan [...] bai Valentzian ere. Josu Zabaleta
Erbeste **urteak** ! Edorta Jimenez
Borroka **urteak**, erreprezio **urteak**. Pablo Sastre

8 (-a artikularekin) ik urtebete.

Berreskuratzen ez badu, behin **urtea** burutuz gero, eroslearen eta beronen ondorengoan esku geldituko da betiko. Elizen arteko biblia
Urtea zen ama galdua zuela. Gotzon Garate
Ez zen artean **urtea** ezkondu zela. Gotzon Garate
Gaur **urtea** betetzen da. Agustin Osoa
Urtea bete zen egun berean, arbasoen Jainkoarengana joan zen. Anjel Lertxundi
Gamazadaz geroztik, alde batetik, egun hauetantxe **urtea** betetzen delarik, [...]. Txillardegia
Urtea pasatu aurretik, hegazi guztiak kexu ziren, ez baitzeuden gustura bere habiekin. J.M. Olaizola "Txiliku"
Urtea eta lau hilabetez bizi izan zen David filistearren lurraldean. Elizen arteko biblia
Urtea baino lehen hilda zeuden erdiak. Bernardo Atxaga

9 (-ak artikularekin, bizitza adierazteko)

Bizitza tristuraz akitzen ari zait, **urteak** negarrez doazkit. Elizen arteko biblia
Zure suminez akitzen dira gure egun guztiak, hasperen batean amaitzen gure **urteak**. Elizen arteko biblia
Zu, ordea, beti bera, zure **urteak** amaigabeak.
Zure egunak eta **urteak** gizakiarenak bezain laburrak ote. Elizen arteko biblia

10 (-ak artikularekin, denbora luzea adierazteko)

Nik, berriz, **urteak** hartan jolastu gabe. Joxe Austin Arrieta
- **Urteak** nire soldataz haren poltsikoa gizentzen, eta horra ordaina. Aingeru Epaltza
Urteak behar izan nituen leku gutxietsi batean hazia izan nintzela ulertzeko. Bernardo Atxaga
Urteak dituk, baina, tira, lagun handia nian, beste zera hura gertatu baino lehen. Iban Zaldúa
Egia esateko, **urteak** dituk abertzaleen parafernalia hori guztia barregarri samarra iruditzen zaiala. Jokin Muñoz
Pistamiglio jaun hori, ni hara orduko, **urteak** ziren desagertu zela. Juan Garzia
Urteak dira Hakim ezagutzen duela, tenisean ibiltzen ziren elkarrekin tenisean aritzen zen garaietan. Oskar Arana
Urteak dira Jexuxi hainbestetan entzundako kontua egunkarian agertu zela. Xabier Etxabe
Urteak pasatu zituzten, batean hemen kokatuak, bestean han, gela eskasian, diru eskasian. Michel Oronoz
Urteak egin nituen herritik kanpo ikasle. Koldo Izagirre
Urteak eman ditut bidaia hau egin ala ez erabaki ezinda. Koro Navarro
Gogoratu zuen txikitan piku lodi-lodi bat ireki zuela behin eta, ahora sartzeko zegoenean, erle bat topatu zuela barruan, hilda, eta **urteak** eman zituela gero pikuak jan gabe.
Unai Elorriaga
Urteak igaro badira ere, ezbaierik gabe ezagutu nuen. Iban Zaldúa
Urteak zeramatzan amets egiten horrekin. Anton Garikano
-Bai, beti han dago, baina badu **urteak** ez dudala ikusi. Elena Touyarou
Urteak nituen nik Mario ikusi gabe, ez nekien noiz ikusiko nuen berriz. Fernando Rey
Urteak direla, Borgesekikoak egiten saiatu nintzen, eta hiribazterren mitologietatik denborarekiko eta infinituarekiko jolasetara pasatu nintzen. Juan Garzia

11 (-ak artikularekin, urtebetetzea adierazteko)

-Geuk ere bai, gaur gure amaren **urteak** ospatzen ari gaituk eta, badakik... Xabier Etxabe
Elkarteak bere 75 **urteak** ospatuko ditu aurten. Herria
Adixkide guztiak arras polliki hasi dira ikastolaren 30 **urteak** ospatzen, Ibarrunen urriaren 14-ean iragan den besta goxoarekin. Herria
Ilgandean, Donibane Garazin, Garaztarrak dantza elkartearen 50 **urteak**. Herria

12 *urtean adlag* urte batean.

Adituek diotenez, **urtean** 12 000 uhain taula berri saltzen da Akitania osoan. Herria
Urtean bederatzi hilabetez langabezian egoteaz. Iban Zaldúa
Urtean arrendizamendu bat ikusten zuen osoan eta hurbiletik. Xipri Arbelbide
Urtean ema-galdu batek 6.000 sexu-harreman eduki litzake gizonekin. Gotzon Garate
Urtean hilabetez -abuztuan- baizik lehortzen ez diren baltsak ere izaten dituzte. Monika Etxebarria
Euskaraz hautazko ziklo bat dago; **urtean** 20 bat ordu. Berría - Harian
Munduan 1,2 milioi lagun hiltzen dira **urtean** errepede istripuetan. Berría - Gaiak
Naturalagoa zela lehengo sistema, **urtean** festa bat, edo bi egiten zirenekoa. Joxerra Garzia
Mihi gris eskerga, haitz puska beltzaxkaz nabar, han zihoan beherantz bide urratuz, neke astunez, astiro-astiro, **urtean** hamar metro batzuk. Juan Garzia
Gero eta handiagoa zen Santuaganako bere debozioaren seinaleztat urtero eskaini ohi zion zuziari **urtean** ontza bat gehituko ziola. Askoren artean
Beste bi langilek ere lan bera egiten dutela kontuan hartuta, laurehun mila kaxa **urtean**. Harkaitz Cano
105 bat lagun **urtean**. Iñigo Aranbarri
Urtean behin, San Mikel goiaingeruaren jaiegunez, ministro bakoitza bere anaiekin bil daiteke, nahi duten lekuan. Askoren artean
Urtean behin edo bitan besterik ikusten ez den ezagun hauetako batekin egin nuen topo. Iñigo Aranbarri
Beatriceren manuak han hartzen du atsetden ia urte osoan, **urtean** egun bakarrez irteten baita: irailaren 11n. J.M. Olaizola "Txiliku"
Urtean bitan, hango haizeek erabat nahasten dute euren abiadura eta norabidea. Pello Zabala
Urtean pare bat aldiz ikusi behar banitu, agudo ohituko nintzateke ni neroni ere. Pello Zabala
Urtean bizpahiru aldiz, eguberrikari ala bazkoz egiten ziren bazkarietan baizik ez zuten elgar ikusten. Ramuntxo Etxeberri
Urtean hiru bider. Elizen arteko biblia

13 *urteko adlag* urte bakoitzeko.

Eritasunak biztanle eginen % 8 ukitzen duenean, herri horretako BPG ere gutziz ukitua geratzen da, eta ukitua % 25era iristen direnean, BPG horren kostua puntu batekoa da **urteko**, *The Economist* aldizkariak egin dituen kalkuluen arabera. Pello Salaburu
Urte guztian etenik gabe ugaltzen ari; belaunaldi berri bat hamabi egun oroz, hots, hogeita hamarren bat belaunaldi **urteko**, eta mila arrautza inguru jartzeko gai eme bakoitza. Juan Garzia
Donostian, **urteko**, apiril bakoitzean Bilbon baino 30 litro gehiago biltzen dira, eta Gasteizen Donostian baino 65 gutxiago. Pello Zabala
Azken 60 urteotako datuen arabera, batez beste, 68 pertsona hil izan dira, **urteko**, Espainia osoan. Pello Zabala

igoera sistematikoa izan zen hasieran, 2 puntu **urteko**. Pello Salaburu

14 **argi urte** luzera-neurria, argiak urtebetean egiten duen bidearen baliokidea.

Esne Bidea baino bi aldiz zabalagoa da M101, 170.000 **argi urte**, alderik alde. Berria - Gaiak

Planeta sistema hori Lurretik 41 **argi-urtera** dago, Kantzerren konstelazioan. Berria - Gaiak

Bi izar horiek 7.200 **argi urtera** daude. Berria - Gaiak

Eskalaren beste muturrean, gure unibertso honek gutxi gorabehera (--!) hamar mila milioi **argi-urteko** diametroa duela. Juan Garzia

14a *irud/hed*

Baina finlandiarrak besteengandik **argi urtetara** amaitu zuen. Berria - Kirola

Ixabel **argi-urte** mordo batera zegoen nire baserritarrekiko ideia tradizionaletik. Joxean Sagatzizabal

Miloi bat **argi urtera** nintzen etxetik, edonondik, leku guztietatik. Jon Muñoz

Ixabel **argi-urte** mordo batera zegoen nire baserritarrekiko ideia tradizionaletik. Joxean Sagatzizabal

15 **eguzki urte** urtea.

Maien kalendarioak **eguzki-urtea** 365,2420 egunekotzat kalkulatu omen zuen, 365,2422-kotzat beharrean. Joxe Austin Arrieta

16 **ilargi urte** Lurreko behatzailearentzat Ilargiak eguzkiaren inguruan 12 itzuli egiten ematen duen denbora, gutxi gorabehera 354 egunek osatzen dutena.

Ilargi urte bateko epean, ikusezin izendatu naute: oihu negien eta ez zidaten erantzuten, ogia ebasten nuen eta ez zidaten bururik moztzen. Juan Garzia

Mahai inguruan esertzeko orduan ere oso kontuan hartzekoa omen zen Kua zenbakia, eta halaxe jarri ginen, txintxo-txintxo, nor bere **Ilargi-urtearen** arabera. Patxi Iturritegi

17 **urte erdi** (*orobat urterdi g.er.*)

Maitasun horrek **urte erdi** irauin zion. Askoren artean

Urte-erdi neraman Elsbeth ikusi gabe. Joxe Austin Arrieta

Sei bat mila bonba **urte erdi** bakar batean! Txillardegi

Orain dela **urte erdi** -edo. Josu Zabaleta

la **urte erdia** eman baitzuen Arlenek etxera etortzeke. Mirentxu Larrañaga

Urte erdi baino askoz gehiago ez du izango hor niniak, beraz, huts egiteko arrisku handirik gabe botatzen dut, 1969ko udaberrian egingo zen argazkia. Xabier Mendiguren Elizegi

Berriz ere atxilotu, oraingoan **urte erdiko** kartzela ezarri, eta osasuna betiko hondatu zioten. Pello Salaburu

Handik **urte erdira** hil zen. Joan Mari Irigoien

Psikiatrikoan **urte erdia** beteta gero itzuli zen Sara. Joan Mari Irigoien

18 **urte sari** (*orobat urtesari*) urtean jasotzen edo ordaintzen den saria.

Kargu hau atxiki baitzuen berrogeita zenbait urtez, zerbitzu hori betetzen zuela urte oroz apezpikuak izendatzen zuen apaiz baten bitartez, honi emanez bere **urte-sari** zuzena eta beretzat atxikiz eliza horren mozkin guztiak. Piarres Xarriton

Elkarte-kide izaiteko **urte-saria**: 20 euro. Herria

Bazkide guzientzat **urte saria** 30 eurotan utzia izan da Euskal Herri guzian bezala. Herria

Duela bi aste jakin dugu HERRIA astekariaren **urte-saria** doi bat emendatzen zela. Herria

Sainte-Geneviève-des-Boisko geltoki hits eta pobrea jaistean oroitu zen *Hator* elkartetik nola kanporatu zuten, **urte saria** orduz pagatzea ahantzi zuelako estakuruaz balia. Itxaro Borda

Erretreta osoaren hunkitzeko, 40 urtetara luzatua da **urtesarien** pagamendua. Herria

19 **urte sasoi** (*orobat urtesasoi g.er.*) ik **urtaro**.

Uzta-aroa zen, eta **urte-sasoi** horretan Jordan ibaia gainezka etorri ohi da. Elizen arteko biblia

Arrantza debekatua zegoen **urte-sasoiko** egun batez, nire aita amurrainetara joan zen bere koadrilakoekin. Anjel Lertxundi

Zaila zen oso, **urte-sasoi** hartan, Europarako itsasontzi-tokirik lortzea, eta ez dakit zergatik sortu zitzaidan ideia bat-bateko hura. Joxe Austin Arrieta

Zenbat aldiz entzun dugu eta esan, udazkena dela gure paraje hauetan **urte-sasoirik** ederrena? Pello Zabala

Neguko **urte-sasoian** eta eguraldi garbiarekin ganadua goizetik leku horietara eramaten denean, beren jatena eguzkitan hartuz askoz ere garbiago ibiltzen dira. Santiago Iruretagoiena

Ez omen dut egokierarik izango udan ez beste **urte-sasoietan** San Marco kafetegian izaten den literatur tertulia ezagutzeko. Anjel Lertxundi

Egunean lau aldiz ikasleek ibilaldi bera egiten dute, oso atsegina **urte-sasoi** epelean. Itziar Otegi

Berehala, kurriloak azaldu ziren, eta harritu egin ninduen bereziki haien agerpenak, ez bainekien **urte sasoi** hartan kurrilorik zegoenik Danimarkako iparraldean. Felipe Juaristi

Arratsetik goizaldera zerua doi-doi iluntzen zuen **urte sasoi** hartan eta latitude haietan. Karlos Zabala

20 **urteak bete** jaiotegunaren urteurrena izan.

Urteak bete, hitzik esan ez, bekozko iluna jarri, eta opariak hartu: nola ezkontzen dira horiek denak? Josu Zabaleta

Gure amak ez zuen jakingo, Jexux txikia zenean, Amarekin joaten zenik fraileetara **urteak betetzen** zituenean. Xabier Etxabe

Urteak betetzen zituen mutilak ez zuen negarrik egin. Koro Navarro

Urteak bete ditut berriro; hamabost urte ditut beraz. Josu Zabaleta

Harryri inork ez zizkion zorionak eman **urteak betetzeagatik**. Iñaki Mendiguren

21 **urteak eta urteak** denbora luzea.

Urteak eta urteak ibili naiz gure lurreko xendra, mendi, ibarretan barna. Elena Touyarou

Puzzle makabro bat da, **urteak eta urteak** iraungo duena. Berria - Hariari

Urteak eta urteak pasatu ondoren, zer gertatu da hizkuntza soslaiekin? Pello Salaburu

Urteak eta urteak ematen dituzue zuen pausoan ibiliz eta ez duzue aurrera egiten. Joan Mari Lekuona

Urteak eta urteak dira han ez dela jende ederrik ikusi. Agustin Osoa

Urteak eta urteak geroago, Indurain izan zen txirindularien artean txapeldun. Pello Salaburu

22 **urteak joan eta urteak etorri** (*orobat urteak joan eta urteak jin*)

Urteak joan eta urteak etorri, Gernika ondorengo euskal legitimitatea eta inozentzia gupidagabe izan dira kolpatuak. Joseba Zulaika

Urteak joan eta urteak etorri, Jaizkibekek erabakitzen du nork irabazten duen Donostiako Klaskikoa. Berria - Kirola

Eta alajaina, **urteak joan eta urteak etorri**, ni beti oinez. Anton Garikano

Lehenago kordatzea zen biperraren xukatzeke molde bat errautsa egin aitzin, hori **urteak joan eta urteak jin** saltzeko molde bat bilakatu da. Herria

Urteak joan eta urteak etorri ziren. Koldo Biguri

23 **urteak joan urteak etorri** (*orobat urteak joan urteak jin*)

Urteak joan urteak etorri, nabarmen ari zen frantsesten kultura. Rafa Egiguren

- **Urteak joan urteak etorri**, zertara bidali zituzten ere ahaztuko zitzaiean bai berei bai baserritarrei, eta ikazkin hasi zituan. Anjel Lertxundi

Alabaina, **urteak joan urteak etorri**, gero eta gutxiago dira Burgosko planta nuklearraren aldekoak. Berria - Euskal Herria

24 urteak urte urteak gorabehera.

Urteak urte, denboraldi honetan gehien jokatu duen jokalaria txuri-urdina izan da. Berria - Kirola

25 urte askotarako (orobat urte askotako) urtebetetze eta kidekoetarako formula.

Wilmarth andereñoak, haiek ezagutu izanaz kontent, **urte askotarako** esan zien bozkarioz. Mirentxu Larrañaga

Jakinarazia da bozkatzeko baimena ukan dezakela bakarrik 2003ko **urte saria** ordaindua duenak. Herria

Barkatu, oraindik ez dut nire burua aurkeztu: Asier Urbieta, **urte askotarako** -begi bat kliskatuz. Eider Rodríguez

-Zorionak berriro, eta **urte askotarako** !«Bejondeizula eta **urte askotarako**, Esteban!», kantatu zioten. Javi Cillero

26 urtean baino urtean urtetik urtera areago.

Elkartera joan, masajeak eman, etxera itzuli, eta, gero eta gehiago, kirol-partidak entzun irratiz; irten eta jendearekin egon, berriz, **urtean baino urtean** gutxiago. Xabier

Olarra

Urtean baino urtean pozago gengoan geure umeakaz. Gotzon Garate

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 10 aldiz agertzen direnak)

ainitz urte (11); **anitz urte** (10); **aurreko urte** (17); **azken bi urte** (28); **azken hamar urte** (20); **azken hiru urte** (18); **azken hogeit urte** (12); **azken lau urte** (12); **azken urte** (360); **azken urte hauetan** (126); **azken urte hautan** (36); **azken urte honetan** (21); **azken urte horietan** (15); **azken urte hotan** (53); **azkeneko urte** (14)

badira urte batzuk (13); **bederatzi urte** (176); **berrehun urte** (45); **berrogei bat urte** (26); **berrogei urte** (218); **berrogei urte bete** (10); **berrogei urte geroago** (13); **berrogei urte inguruko** (12); **berrogei urte lehenago** (11); **berrogeita bat urte** (20); **berrogeita bost urte** (19); **berrogeita hamar urte** (114); **berrogei bat urte** (21); **berrogei urte** (26); **berrogeita hamar urte** (15); **beste bi urte** (13); **beste bost urte** (10); **beste urte bat** (14); **beste urte batez** (35); **beste urte batzuetan** (29); **bi mila urte** (47); **bi urte** (1817); **bi urte barne** (24); **bi urte barru** (46); **bi urte beranduago** (11); **bi urte bete** (23); **bi urte beteko** (10); **bi urte daramatza** (14); **bi urte dira** (13); **bi urte egin** (41); **bi urte eman** (33); **bi urte eskas** (12); **bi urte geroago** (75); **bi urte hasi** (15); **bi urte hauetan** (35); **bi urte honetan** (10); **bi urte horietan** (10); **bi urte huntan** (15); **bi urte igaro** (16); **bi urte inguru** (11); **bi urte iraun** (10); **bi urte izan** (10); **bi urte joan** (11); **bi urte lehenago** (79); **bi urte pasa** (12); **bi urte zituen** (12); **bizpahiru urte** (79); **bortz urte** (31); **bospasei urte** (29); **bost bat urte** (27); **bost urte** (811); **bost urte barne** (13); **bost urte barru** (26); **bost urte bete** (29); **bost urte beteko** (12); **bost urte daramatza** (12); **bost urte dira** (11); **bost urte egin** (22); **bost urte eman** (15); **bost urte geroago** (21); **bost urte hauetan** (11); **bost urte igaro** (13); **bost urte lehenago** (20); **bost urte zituela** (15); **bost urte zituen** (21); **bostehun urte** (15)

dotzена bat urte (32); **dozена bat urte** (21); **duela bederatzi urte** (24); **duela bi urte** (467); **duela bizpahiru urte** (16); **duela bospasei urte** (10); **duela bost urte** (124); **duela ehun urte** (31); **duela hainbat urte** (18); **duela hamabi urte** (26); **duela hamabost urte** (25); **duela hamar urte** (124); **duela hiru urte** (236); **duela hiruzpalau urte** (16); **duela hogeit urte** (70); **duela hogoi urte** (21); **duela lau urte** (226); **duela mila urte** (14); **duela milioika urte** (11); **duela sei urte** (123); **duela urte asko** (33); **duela urte bat** (43); **duela urte batzuk** (125); **duela urte bi** (18); **duela urte gutxi** (28); **duela zazpi urte** (48); **duela zenbait urte** (105); **duela zombait urte** (35); **duela zombait urte** (15); **duela zortzi urte** (47)

ehun bat urte (18); **ehun urte** (309); **ehun urte bete** (14); **ehun urte beteko** (11); **ehun urte betetzen** (14); **ehun urte lehenago** (15)

hainbat urte (75); **hainbat urte geroago** (10); **hainbeste urte** (95); **hamabi bat urte** (12); **hamabi urte** (235); **hamabi urte bete** (20); **hamabi urte zituen** (13); **hamabortz urte** (15); **hamabost bat urte** (31); **hamabost urte** (323); **hamabost urte bete** (22); **hamabost urte zituen** (14); **hamahiru urte** (109); **hamaika urte** (91); **hamaika urte zituela** (10); **hamalau urte** (136); **hamalau urte nituen** (11); **hamar bat urte** (151); **hamar urte** (1193); **hamar urte barru** (18); **hamar urte behar** (10); **hamar urte bete** (45); **hamar urte beteko** (15); **hamar urte dira** (16); **hamar urte egin** (12); **hamar urte geroago** (47); **hamar urte hauetan** (35); **hamar urte horietan** (11); **hamar urte igaro** (18); **hamar urte inguru** (30); **hamar urte inguruko** (16); **hamar urte joan** (14); **hamar urte lehenago** (54); **hamar urte pasa** (10); **hamar urte pasatu** (11); **hamar urte zituela** (20); **hamarren bat urte** (22); **hamasei urte** (162); **hamasei urte bete** (13); **hamasei urte zituela** (14); **hamazazpi urte** (126); **hamazazpi urte zituela** (10); **hamazortzi urte** (23); **hameka urte** (12); **handik urte batzuetara** (78); **handik urte gutxira** (11); **heldu den urte** (11); **helduden urte** (86); **helduden urte arte** (38); **helduden urte artio** (16); **helduden urte hortan** (16); **hemendik urte batzuetara** (27); **hemeretz urte** (75); **hemezortzi urte** (123); **hemezortzi urte bete** (14); **hiru bat urte** (23); **hiru mila urte** (11); **hiru urte** (1085); **hiru urte barne** (25); **hiru urte barru** (15); **hiru urte bete** (19); **hiru urte bitarteko** (14); **hiru urte egin** (20); **hiru urte eman** (16); **hiru urte geroago** (42); **hiru urte hauetan** (20); **hiru urte huntan** (14); **hiru urte igaro** (15); **hiru urte inguru** (11); **hiru urte iraun** (11); **hiru urte lehenago** (36); **hirurehun urte** (19); **hirurogei bat urte** (11); **hirurogei urte** (54); **hirurogeita bost urte** (15); **hirurogeita hamabost urte** (16); **hirurogeita hamar urte** (41); **hirurogeita zazpi urte** (11); **hiruzpalau urte** (46); **hogeit bat urte** (61); **hogeit urte** (564); **hogeit urte bete** (24); **hogeit urte geroago** (18); **hogeit urte hauetan** (16); **hogeit urte igaro** (13); **hogeit urte inguruko** (11); **hogeit urte lehenago** (30); **hogeit urte zituen** (11); **hogeita bat urte** (40); **hogeita bi urte** (54); **hogeita bost urte** (107); **hogeita hamabi urte** (18); **hogeita hamabost urte** (36); **hogeita hamar urte** (220); **hogeita hiru urte** (33); **hogeita lau urte** (29); **hogeita sei urte** (20); **hogeita zazpi urte** (14); **hogeita zortzi urte** (11); **hogeitaka urte** (16); **hogoi bat urte** (35); **hogoi urte** (95); **hogoita hamar urte** (13); **hogoita zombait urte** (10); **hurrengo urte** (12)

ia berrogei urte (15); **ia bi urte** (20); **ia bost urte** (12); **ia ehun urte** (11); **ia hamar urte** (15); **ia hiru urte** (15); **ia hogeit urte** (17); **ia lau urte** (22); **iazko urte** (23); **iragan urte** (17); **joan den urte** (30)

kasik urte (14)

lan egindako urte (25); **lau bat urte** (10); **lau ehun urte** (45); **lau urte** (860); **lau urte barne** (10); **lau urte barru** (11); **lau urte bete** (17); **lau urte daramatza** (11); **lau urte egin** (22); **lau urte eman** (18); **lau urte geroago** (34); **lau urte hauetan** (20); **lau urte huntan** (12); **lau urte igaro** (19); **lau urte lehenago** (20); **laurehun urte** (16); **laurogei urte** (29); **lauzpabost urte** (26); **lehen urte haietan** (15)

milaka urte (45); **milioi bat urte** (14); **milioika urte** (14); **ondoko urte** (11); **orain bi urte** (146); **orain bost urte** (22); **orain ehun urte** (11); **orain hamar urte** (24); **orain hiru urte** (58); **orain lau urte** (51); **orain sei urte** (10); **orain urte asko** (20); **orain urte batzuk** (92); **orain urte bi** (14)

pare bat urte (36)

sei urte (467); **sei urte bete** (13); **sei urte egin** (20); **sei urte eman** (13); **sei urte geroago** (18); **sei urte huntan** (10); **sei urte lehenago** (16); **sei urte zituen** (10)

urte amaiera (22); **urte amaierako** (22); **urte amaieran** (107); **urte amaierarako** (39); **urte andana** (33); **urte andana bat** (14); **urte anitz** (12); **urte arteko inflazioa** (10); **urte asko** (459); **urte asko daramatza** (27); **urte asko dira** (29); **urte asko egin** (21); **urte asko eman** (20); **urte asko igaro** (21); **urte asko lehenago** (12); **urte asko pasatu** (23); **urte askoan** (169); **urte askoko** (12); **urte askoren buruan** (11); **urte askotako** (39); **urte askotan** (96); **urte askotara** (12); **urte askotarako** (34); **urte askoz** (19)

urte bakar (21); **urte bakar batean** (14); **urte bakoitzeko** (48); **urte barne** (130); **urte barru** (190); **urte bat** (366); **urte bat barne** (22); **urte bat berantago** (11); **urte bat gehiago** (11); **urte bat geroago** (15); **urte bat huntan** (17); **urte bat lehenago** (12); **urte batean** (67); **urte bateko** (39); **urte baten** (50); **urte baten buruan** (29); **urte batentzat** (11); **urte baterako** (26); **urte batetik bestera** (28); **urte batez** (115); **urte batzuen buruan** (31); **urte batzuen ondoren** (15); **urte batzuetatik hona** (14); **urte batzuk barru** (14); **urte batzuk geroago** (103); **urte batzuk lehenago** (104); **urte berean** (178); **urte bereko** (59); **urte berezia** (11); **urte berri** (180); **urte berri bat** (17); **urte berri on** (77); **urte berria** (64); **urte berriak** (11); **urte berrian** (13); **urte berriekin** (15); **urte berriaren** (27); **urte berriari** (30); **urte berriari buruz** (11); **urte berriko** (30); **urte berrirako** (10); **urte bete** (6); **urte betez** (23); **urte bi** (83); **urte bietan** (12); **urte bukaera** (39); **urte bukaera arte** (14); **urte bukaerako** (17); **urte bukaeran** (67); **urte bukaerarako** (23); **urte buru** (11); **urte burua** (15)

urte dauzka (55); **urte dezente** (25); **urte ditu** (660); **urte du** (23)

urte egin (306); **urte eman** (211); **urte erdi** (38); **urte erdi bat** (10); **urte erdia** (16); **urte erdian** (10); **urte erdiko** (11); **urte eta erdi** (251); **urte eta erdian** (59); **urte eta erdiko** (76); **urte eta erdira** (15); **urte eta erdiz** (24); **urte eta hilabete** (10); **urte eterdi** (12)

urte garrantzitsua (10); **urte gehiago** (89); **urte gehiegi** (16); **urte gogorra** (10); **urte gogorak** (12); **urte guti** (12); **urte gutxi** (98); **urte gutxi arte** (13); **urte gutxi barru** (14); **urte gutxi batzuk** (17); **urte gutxiago** (19); **urte gutxian** (19); **urte gutxira** (28); **urte gutxiren buruan** (25); **urte gutxitan** (13); **urte guzian** (60); **urte guziez** (105); **urte guziez bezala** (70); **urte guziko** (17); **urte guziz** (311); **urte guziz bezala** (105); **urte guziz egiten** (25); **urte guzti** (12); **urte guztian** (38); **urte guztietan** (10); **urte guztiko** (22); **urte guztiotan** (13)

urte haietan guztietan (11); **urte hartan bertan** (40); **urte hasiera** (19); **urte hasierako** (23); **urte hasieran** (147); **urte hasieratik** (92); **urte hastapen** (18); **urte hastapen huntan** (13); **urte hastapenean** (11); **urte haste huntan** (10); **urte hauetan guztietan** (48); **urte horietan guztietan** (17); **urte horretan bertan** (27)

urte latzak (10); **urte luze** (81); **urte luze hauetan** (11); **urte luzeak** (25); **urte luzeetako** (23); **urte luzeetan** (87); **urte luzetako** (11); **urte luzetan** (43); **urte luzez** (103)

urte mordo (17); **urte mordoа** (44); **urte mordoxka** (22); **urte muga** (32)

urte neuzkan (10); **urte nituen** (84)

urte on (72); **urte on bat** (10); **urte ona** (33); **urte onak** (14); **urte ondar** (18); **urte ondarrean** (22); **urte ondarreko** (21); **urte oparoа** (10); **urte oroz** (133); **urte oroz bezala** (39); **urte oso** (43); **urte oso batez** (10); **urte osoа** (42); **urte osoan** (269); **urte osoan zehar** (14); **urte osoko** (48); **urte osorako** (27)

urte pare (85); **urte pare bat** (60); **urte parrasta** (20); **urte parrasta bat** (13); **urte politiko** (26); **urte politikoa** (11)

urte sail (26); **urte sail ederrean** (11); **urte saria** (29); **urte sasoi** (38)

urte txarra (25); **urte txarra izan** (17); **urte zahar** (17); **urte zaharrago** (17); **urte zaharragoа** (49); **urte zaharragoа zen** (10); **urte zaila** (16); **urte zenbait** (10)

urte zeuzkan (19); **urte zituen** (597)

urterik urte (36); **urtez urte** (163)

zazpi bat urte (13); **zazpi urte** (355); **zazpi urte egin** (16); **zazpi urte geroago** (12); **zazpi urte zituen** (11); **zenbait urte** (260); **zenbait urte geroago** (13); **zenbait urte hautan** (15); **zenbait urte huntan** (16); **zenbait urte lehenago** (20); **zenbat urte** (149); **zenbat urte dituz** (20); **zenbeit urte** (11); **zenbait urte** (107); **zenbait urte barne** (12); **zenbait urte huntan** (15); **zenbeit urte** (32); **zortzi bat urte** (15); **zortzi bederatzi urte** (15); **zortzi batzuetan** (279); **zortzi urte geroago** (13)

argitalpen urtea (40); **aurtengo urtea** (13); **azken urtea** (40); **bigarren urtea** (50); **bosgarren urtea** (15); **datorren urtea** (14); **hirugarren urtea** (38); **iazko urtea** (11); **laugarren urtea** (17); **lehen urtea** (72); **seigarren urtea** (13); **sukar ustelaren urtea** (14); **urtea amaitu** (81); **urtea amaitu aurretik** (38); **urtea arte** (70); **urtea bete** (32); **urtea beteko** (21); **urtea beteko du** (10); **urtea bitartean** (13); **urtea bukatu** (52); **urtea bukatu aurretik** (15); **urtea hasi** (74); **urtea hasi zenetik** (40); **urtea izan** (44); **urtea izan zen** (11); **urtea izanen** (11); **urtea izango** (43); **urtea izango da** (21); **urtea joan** (29); **zazpigarren urtea** (11)

azken bi urteak (14); **azken urteak** (73); **berrogei urteak** (11); **bi urteak** (35); **bost urteak** (27); **ehun urteak** (38); **ehun urteak ospatzen** (10); **hamar urteak** (45); **hiru urteak** (21); **hogeit urteak** (10); **hogeit urteak** (21); **lau ehun urteak** (30); **lau urteak** (18); **lehen urteak** (27)

urteak aurrera (47); **urteak aurrera joan** (10); **urteak bete** (36); **urteak beteak** (13); **urteak betetzen** (24); **urteak daramatza** (36); **urteak daramatzat** (10); **urteak daramatzate** (14); **urteak dira** (54); **urteak dituk** (12); **urteak egin** (18); **urteak eman** (44); **urteak eta urteak** (56); **urteak etorri** (25); **urteak geroago** (15); **urteak igaro** (39); **urteak**

urteak pasatu (40); urteak zeramatzan (12)

aintzineko urtean (25); aurreko urtean (220); aurreneko urtean (10); azken urtean (151); bederatzi urtean (14); bi urtean (91); bi urtean behin (19); bigarren urtean (54); bosgarren urtean (10); bost urtean (69); bost urtean behin (12); datorren urtean (424)

hainbat urtean (11); hainbeste urtean (18); hamabigarren urtean (10); hamabost urtean (13); hamar urtean (97); heldu den urtean (145); helduden urtean (154); helduden urtean ere (17); hiltzen dira urtean (12); hiru urtean (75); hirugarren urtean (41); hogeitau urtean (37); hogeita hamar urtean (15); hurrengo urtean (283)

iragan urtean (103); joan den urtean (262); joan zen urtean (42); joanden urtean (51); lau urtean (92); lau urtean behin (18); laugarren urtean (15); lehen urtean (143); lehenbiziko urtean (12); lehenengo urtean (15); lehengo urtean (27)

ondoko urtean (56); pasa den urtean (17); sei urtean (33)

urtean barna (12); urtean behin (223); urtean behin egiten (18); urtean bertan (19); urtean bi aldiz (10); urtean birritan (10); urtean bitan (21); urtean bizpahiru (11); urtean hiru aldiz (11); urtean lehen aldiz (14); urtean urtean (10); urtean zehar (153); zazpi urtean (15); zazpigarren urtean (16); zortzi urtean (20)

aurreko urtearekin alderatuta (12)

datorren urtearen (21); datorren urtearen hasieran (10); lazko urtearen (15); joan den urtearen (10); urtearen amaieran (48); urtearen bukaeran (14); urtearen hasieran (50)

urteari begira (26); urteari buruz (14)

urteaz geroz (10); urteaz geroztik (154)

urteek aurrera egin (16)

urteen joanean (15); urteen poderioz (49)

aurreko urteetako (56); azken bi urteetako (26); azken hiru urteetako (16); azken urteetako (183); hurrengo urteetako (11); lehen urteetako (13); urteetako lan (10); urteetako lana (19)

aitzineko urteetan (42); aitzineko urteetan bezala (15); aspaldiko urteetan (39); aurreko bi urteetan (22); aurreko urteetan (156); aurreko urteetan bezala (15); aurreneko urteetan (10); azken bi urteetan (135); azken bost urteetan (41); azken hamar urteetan (45); azken hiru urteetan (74); azken hogeitau urteetan (19); azken lau urteetan (58); azken sei urteetan (21); azken urteetan (858); azken urteetan bezala (10); azken urteetan egiten (11); azken urteetan egindako (14); azken urteetan izan (25); azken zortzi urteetan (10); azkeneko urteetan (49); bere azken urteetan (11); beste urteetan (22); bi urteetan (248); bizitzako azken urteetan (16); bost urteetan (84); datozen bi urteetan (27); datozen bost urteetan (12); datozen hiru urteetan (18); datozen lau urteetan (31); datozen urteetan (110)

hamabost urteetan (17); hamar urteetan (86); hamarreko urteetan (11); hasierako urteetan (16); hiru urteetan (161); hogeitau urteetan (35); hogeita hamar urteetan (12); hurrengo bi urteetan (27); hurrengo hiru urteetan (24); hurrengo lau urteetan (28); hurrengo urteetan (112)

izan da urteetan (11); izan zen urteetan (10); lau urteetan (156); lehen bi urteetan (10); lehen urteetan (51); lehenbiziko urteetan (13); lehenengo urteetan (11)

ondoko urteetan (61); ondorengo urteetan (50); sei urteetan (35)

urteetan aurrera (16); urteetan bizi (14); urteetan egindako (42); urteetan eginiko (11); urteetan egon (13); urteetan eta urteetan (13); urteetan ez bezala (17); urteetan izan (61); urteetan izan duen (15); urteetan izandako (20); urteetan zehar (62)

zazpi urteetan (22); zortzi urteetan (27)

handik urteetara (11)

datozen lau urteetarako (17); datozen urteetarako (20); hiru urteetarako (10); hurrengo lau urteetarako (10); hurrengo urteetarako (10); lau urteetarako (31)

aurreko urteko (63); azken urteko (22); bederatzi urteko (64); bederatzi urteko kartzela (10); bere urteko (78); beren urteko (17); berrogei urteko (41); berrogeita hamar urteko (17); bi urteko (410); bi urteko epean (17); bi urteko espetxe (19); bi urteko iraupena (10); bi urteko kartzela (31); bi urteko kontratua (11); bi urteko zigorra (57); bigarren urteko (16); bosgarren urteko (14); bost urteko (236); bost urteko epean (18); bost urteko kartzela (20); datorren urteko (202); duela bi urteko (46); duela bost urteko (12); duela hamar urteko (10); duela hiru urteko (13); duela lau urteko (35); duela sei urteko (15)

ehun urteko (29); hamabi urteko (61); hamabigarren urteko (10); hamabost urteko (66); hamahiru urteko (48); hamaika urteko (41); hamalau urteko (41); hamar bat urteko (28); hamar urteko (213); hamar urteko epean (12); hamar urteko kartzela (18); hamarna urteko (16); hamarren bat urteko (12); hamasei urteko (38); hamazazpi urteko (36); heldu den urteko (62); helduden urteko (70); hemeretzi urteko (23); hemezortzi urteko (30); hiru urteko (302); hiru urteko epea (12); hiru urteko espetxe (15); hiru urteko kartzela (32); hiru urteko kontratua (11); hirurogei urteko (17); hogeitau urteko (12); hogeitau urteko (99); hogeita bi urteko (16); hogeita bost urteko (17); hogeita hamar urteko (31); hurrengo urteko (63)

iragan urteko (79); joan den urteko (167); joan zen urteko (28); joanden urteko (19); lau urteko (254); lau urteko epean (15); lau urteko espetxe (16); lau urteko kartzela (26); lau urteko zigorra (11); lehen urteko (18); lehenengo urteko (16); lehengo urteko (16); mila urteko (29); milaka urteko (10)

orain bi urteko (13); pasa den urteko (21); sei urteko (103)

urteko batzar (16); urteko besta (18); urteko bigarren hiruhilekoan (14); urteko biltzar nagusia (55); urteko biltzarra (18); urteko bozetan (12); urteko datuak (16)

urteko emailtzak (10); urteko gora beherak (38); urteko harat hunatak (16); urteko hirugarren hiruhilekoan (11)

urteko kermeza (10); urteko kontuak (24); urteko kontuak (11); urteko lehen hiruhilekoan (16); urteko lehen seiuhilekoan (10)

urteko txostena (10)

urtez urteko (18)

bi urtekoa (21); bost urtekoa (11); hamar urtekoa (19); hiru urtekoa (25); lau urtekoa (13)

lehenengo urtekoak (10)

azken bi urteotako (20); azken bost urteotako (10); azken hiru urteotako (15); azken urteotako (197); bi urteotako (22); bost urteotako (15); hamar urteotako (12); hiru urteotako (16); lau urteotako (14)

azken bi urteotan (106); azken bost urteotan (62); azken hamar urteotan (65); azken hiru urteotan (48); azken hogeitau urteotan (30); azken lau urteotan (66); azken sei urteotan (10); azken urteotan (903); azken urteotan egiten (14); azken urteotan izan (13); azken zazpi urteotan (11); azken zortzi urteotan (11); azkeneko urteotan (20); datozen bi urteotan (27); datozen hiru urteotan (18); datozen urteotan (39)

hamabost urteotan (15); hamar urteotan (91); hiru urteotan (96); hogeitau urteotan (38); hurrengo urteotan (14)

lau urteotan (101)

sei urteotan (14)

zazpi urteotan (11); zortzi urteotan (18)

argi urtera (13); bi urtera (99); bost urtera (46); datorren urtera (12); ehun urtera (22); hamar urtera (47); handik bi urtera (44); handik bost urtera (11); handik hamar urtera (10); handik hiru urtera (17); hiru urtera (52); hogeitau urtera (19); lau urtera (34); sei urtera (15)

urtera arte (149); urtera arteko (22); urtera begira (11); urtera bitartean (38); urtera bitarteko (10); urtera jaitsi (14); urtetik urtera (158); zazpi urtera (10); zortzi urtera (10)

bi urterako (90); bi urterako kontratua (16); bi urterako zigortu (10); bost urterako (21); datorren urterako (93); hamar urterako (16); heldu den urterako (10); hiru urterako (73); hurrengo urterako (36); lau urterako (41); sei urterako (13)

urtetik urterat (46)

bederatzi urterekin (14); bi urterekin (13); bost urterekin (13); hamabi urterekin (15); hamabost urterekin (37); hamahiru urterekin (14); hamaika urterekin (22); hamalau urterekin (19); hamar urterekin (28); hamasei urterekin (31); hamazazpi urterekin (24); hemeretzi urterekin (13); hemezortzi urterekin (19); hiru urterekin (12); hogeitau urterekin (23); lau urterekin (14); sei urterekin (17)

berrogei urteren (15); bi urteren (101); bi urteren buruan (69); bi urteren buruko (11); bost urteren (56); bost urteren buruan (44); ehun urteren (16); ehun urteren buruan (12); eta bi urteren (16); hainbat urteren (12); hainbeste urteren (26); hainbeste urteren buruan (15); hamabost urteren (10); hamar urteren (71); hamar urteren buruan (44); hiru urteren (80); hiru urteren buruan (53); hogeitau urteren (26); hogeitau urteren buruan (16); hogeita hamar urteren (11); hogoi urteren (12); lau urteren (43); lau urteren buruan (27); sei urteren (23); sei urteren buruan (10); urteren batean (11); urteren bueltan (23); urteren buruan (495); urteren buruan berriz (10); urteren buruko (34); urteren ondoren (82); urteren ostean (36); urteren presondegi (12); zazpi urteren (16); zazpi urteren buruan (11); zenbait urteren (20); zenbait urteren buruan (16); zenbait urteren (20); zenbait urteren buruan (15); zortzi urteren (16)

hiru urterentzat (17); lau urterentzat (12); sei urterentzat (13)

urterik behin (16); urterik onenak (17); urterik urte (36)

azken urtetako (10); hainbat urtetako (13)

aintzineko urtetan (40); aintzineko urtetan bezala (18); aintzineko urtetan (10); aspaldiko urtetan (39); azken urtetan (31); bederatzi urtetan (10); bi urtetan (41); bost urtetan (33); hainbat urtetan (62); hainbeste urtetan (38); hamabi urtetan (10); hamalau urtetan (13); hamar urtetan (25); hiru urtetan (44); hogeitau urtetan (25); hogoi urtetan (14); lau urtetan (21); miilaka urtetan (10); ondoko urtetan (53); sei urtetan (20)

urtetan eta urtetan (13); urtetan hiri (14); urtetan itzali (15); urtetan itzali dena (11); urtetan izan (18); urtetan joan (16); urtetan pausatu (60); urtetan pausatu da (32); urtetan utzi (18); urtetan utzi du (12); urtetan zehar (19); urtetan zendu (61); urtetan zendu da (31)

zazpi urtetan (14); zein urtetan (10); zenbait urtetan (10)

bi urtetarik (30); hiru urtetarik (13); lau urtetarik (11); urtetarik goiti (15)

berrogeita hamar urtetik (12); bi urtetik (84); bi urtetik behin (29); bi urtetik hona (11); bost urtetik (45); datorren urtetik (26); datorren urtetik aurrera (25); duela bi urtetik (13)

ehun urtetik (12); hamabost urtetik (14); hamar urtetik (63); hamar urtetik gora (23); hamar urtetik gorako (10); helduden urtetik (14); hiru urtetik (33); hiru urtetik behin (10); hogeitau urtetik (33); hogeitau urtetik gora (12); hogeita hamar urtetik (23)

lau urtetik (26); lau urtetik behin (11); laurogei urtetik (13)

urtetik aurrera (107); urtetik beherako (76); urtetik beherakoak (29); urtetik beherakoak dira (11); urtetik behin (68); urtetik behin egiten (13); urtetik goiti (30); urtetik gora (131); urtetik gorako (129); urtetik gorakoa (14); urtetik gorakoak (39); urtetik gorakoei (10); urtetik gorakoen (15); urtetik gorakoen artean (10); urtetik harat (11);

urtealdi iz urtea.

1984 **urtealdian**, baina, Punjaben askatasuna iristeko grina areagotu eta istilu gorriak sortu ziren gobernu zentralaren eta sikhen artean. **Gotzon Garate**
Aintzineko igandean, ohorezki bukatzeagatik **urtealdia**, plazak aterbetu du agerraldi bat osoki alaia. **Herria**
Frankismoaren **urtealdi** gogorrenetan, Mariano IZETA lehen lerroan agertzen zela Baztanen euskaldungoa bizirik atxikitzeko. **Herria**

urtearteko izlag urteen artekoa.

Urtekoa txarra bada, are okerragoa da **urtearteko** kopurua: %3,8 Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. **Berria - Ekonomia**
Urtearteko datuei erreparatuta, lanekuaren kostuak %5,8 egin du gora, eta lehengaien kostua %0,1 handitu da. **Berria - Ekonomia**
Urtearteko inflazioa %2,7ra iritsi zen, INE Espainiako Estatistika Erakundearen arabera. **Berria - Ekonomia**
AEBetan azken hiru urteotako KPI igoerarik handiena izan da maiatzean, baina **urtearteko** tasa %3,1koa da. **Berria - Ekonomia**

Urteberri (orobat urteberri) iz urtearen lehen eguna. ik urtats.

Eskuz esku, gure ikusmolde desberdinekin iragan dezagun 2003 garren **urteberri** hau. **Herria**
Urteberri eguna ona izan dadin, ezinbestekoa da elurra egitea. **Itziar Otegi**
Urteberri egunean ikusi nuen Urruti berriro. **Joan Mari Irigoien**
Beste final-laurdena **Urteberri** egunean izango da. **Berria - Kirola**
Urteberri eguneko kontzertuen bideoak eman zituzten, hainbat azalpenen laguntzarekin. **Berria - Kultura**
Hilabete t'erdirako bakarrik: **urteberri** egunez utzi beharko dugu apartamentua. **Harkaitz Cano**
Gabon-gaueetik **Urteberri**-egunera bitartean, astebeteko oporraldia dugu fabrikari. **Eskarne Mujika**
Urteberri goizaldean molotov koktelak jaurtiz eraso zioten Zangozako Guardia Zibilaren kuartelari (Nafarroa). **Berria - Euskal Herria**
Vienako Orkestra Filarmonikoaren 2005eko **Urteberri** kontzertua. **Berria - Kultura**
-Badakik: **urteberri**, haize berri -esan nion azkenean. **Joan Mari Irigoien**
Eguberri eta **Urteberri** on pasa! **Txillardeggi**
Bihar urtats da, elgarri **urteberri** onaren desiratzeko eguna. **Marzel Etxehandi**
Gao Xingjian 2000ko Nobel saridunak huts egin die Parisko Liburuaren Salakoei, Frantziako **urteberri** txinatarraren ospakizunetara gonbidatu ez zutelako. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **urteberri on** (3); **urteberri eguna** (5); **urteberri egunean** (11); **urteberri egunez** (3); **urteberri on** (7)
debako urteberriko probak (3); **urteberriko mezuan** (3)

Urteberrikari (orobat urteberrikari) 1 adlag Urteberrian.

Urteberrikari bakea dela zuekin. **Herria**

2 iz

Urteberrikari bakea dela zuekin. **Herria**

Sentsazio berezia gero, Manila eta Bombaytik iritsi berriak izaki, hango **urteberrikariak** ospatu ondoren! **Jose Angel Irigaray**

Eta **urteberrikari** potak, berriz! **Jose Angel Irigaray**

Telebistan, beti ere, Samoa uharteetako **urteberrikariko** dantza eta musika erakargarriak. **Jose Angel Irigaray**

urtebete 1 iz urte bat.

Urtebete edo bi zaharxeago, berriz, erdiko neskatikoa. **Aingeru Epaltza**

Emazte eta modelo zuena hil, eta **urtebete** edo bira margotu zuen Rossetti-k, haren oroitzapenetan. **Ramon Saizarbitoria**

Isunak eta **urtebete** eta hamar urte bitarteko kartzela zigorrak ezartzea aurreikusten du egitasmo horrek. **Berria - Gaiak**

Ez dakit zenbat irauñ zidan sukarraldi anarkistak: **urtebete**, bi gehienez ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Urtebete eta ia hiru hilabete. **Eduarne Elizondo**

Urtebete zaharragoa zen, buru erdi luzeagoa. **Aingeru Epaltza**

Urtebete luzea daramazu mugaren alde honetan. **Rafa Eziguren**

Eta hala joan ziren egunak, eta joan zen **urtebete** hura. **Joan Mari Irigoien**

Aunitz ikasi duk kartzelan eduki hauten **urtebete** honetan. **Koldo Izagirre**

Urtebete osoa egin zuten eliz elkarte hartan elkarrekin lanean. **Elizen arteko biblia**

Urtebete osoan egon zen gutunik bidali gabe. **Joan Mari Irigoien**

Urtebete luze joana zen ordurako emaztearen hilotza erraustu zutenetik. **Imanol Zurutuza**

Urtebete luzea joan da Artozkiko eta Muniango azken etxeak eraitsi zituztenetik. **Eduarne Elizondo**

Urtebete bikaina egin nuen Sportingekin. **Joan Mari Irigoien**

Juan Bautista besteak baino **urtebete** zaharragoa zen eta estudioak utziak zituen. **Joseba Sarrionandia**

Banuen anaia bat, **urtebete** nagusiagoa. **Jokin Urain**

2 (aditzekin)

Fenziarierek **urtebete** egin zuten uhartean, sal-erosketa lanetan. **Juan Kruz Igerabide**

Madriren, berriz, **urtebete** egin nuen. **Arantxa Iturbe**

Urtebete egina zuen orduko ikastolan, eta bazekien, nonbait, euskara "ona" eta "txarra" bereizteko adina. **Koldo Zuazo**

Horrela bada, joan den udazkenean **urtebete** egin du, guztiz ondoez bitxi azaldu ezinakin izan nituen bat-batean. **Josu Zabaleta**

Urtebete emango dugu negozioak egiten eta dirua irabazten. **Elizen arteko biblia**

Lehenbiziko asmoa zera omen zuen, **urtebete** ematea Delosko indusketa-lanen garaiko zenbait adiskide grekorekin. **Joxe Austin Arrieta**

Babes lanetan **urtebete** neraman. **Aritz Gorrotxategi**

Urtebete zeraman Altzan. Joan Mari Irigoien

Urtebete egon zen, azken batean, haren alboan, eta ez alferrik. Fernando Morillo

Urtebete geldituko da etxean, edozein betebeharetik libre. Elizen arteko biblia

Lehen hezkuntza aldia **urtebete** luzatzea proposatu dute. Berria - Gaiak

Urtebete iraun zidan sukarrak. Joan Mari Irigoien

Baina gero **urtebete** hartu eban libre, zuzeneko esperientziak izateko. Iñaki Mendiguren

Urtebete pasatu aurretik monasterioa utzi eta Erromara joan zen Alfonsito, aita santuarengana zuzen-zuzenean. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Esther azkeneko ikusi nuenetik **urtebete** pasea zenean, [...]. Koro Navarro

Urtebete joan da eta goiz batez zikloa hasten da berriro. Jon Alonso

Urtebete iragana zela erran zitekeen. Aingeru Epaltza

Laguntza **urtebete** berandutu zen. Martin Anso

3 (denbora-erreferentziekin)

Urtebete da Berdabioko jauna kartzelan sartu zutela. Anjel Lertxundi

Bada **urtebete** gutxienez ikusi ez dudala. Xabier Olarra

Urtebete bazen ez nuela ikusten. Inazio Mujika Iraola

Bazen **urtebete** Ernst Jüngerren *Altzairuzko ekaitzak* oroitzapen-liburua irakurri nuela. Anjel Lertxundi

Bazen ia **urtebete** Narniko Albertino izeneko gizon batek begietako argia erabat galdu zuela. Askoren artean

Urtebete ere ez zen musikagilea zendu zela. Askoren artean

Urtebete izango zen Andonik eskatuta atera ziola. Joxemari Urteaga

Atzo **urtebete** hil zen Martin Ugalde kazetari eta euskaltzale handia. Berria - Harian

Orain **urtebete**, ez, orduan ez zitzaidan berdin. Anjel Lertxundi

Duela **urtebete** izan zen, barren! -oihukatzen zuen, hizpidera ekarritako gertakariaren bat oroitzean. Mirentxu Larrañaga

Urtebete atzo, Maiatzaren Lehena, haizeak errautsak sakabanatu zituenetik. Imanol Zurutuza

4 (adizlagun eta kidekoekin)

Esan zidan ia **urtebete** ibili zela basamortuan oinez. Xabier Aranburu

Urtebete eskas iraun zion Charley-k. Mirentxu Larrañaga

Gogoan dut **urtebete** doi egin nuen ostatu bateko neska bularjoria. Anjel Lertxundi

Urtebete inguru egingo zuen bertan. Joxemari Urteaga

Urtebete pasa neraman [...] egunero ordu bertsuan jaikitzen. Anjel Lertxundi

Urtebete pasatxo zen aldatu nuela. Anjel Lertxundi

Egunari egun, **urtebete** pasatxo egin nuen han. Anjel Lertxundi

Handik **urtebete** pasatxora hasi zen gutzia. Joan Mari Irigoien

1999ko martxoan biztanleen %81a itxaropentsu bazegoen, **urtebete** ondoren %59ak soilik aitortzen du itxaropen hori. Pako Aristi

Mariaren aita **urtebete** lehenago hila zen. Aingeru Epaltza

Urtebete lehenago bezala, beti bezala. Bernardo Atxaga

Urtebete geroago, bi hirien artean bakea izenpetu zenean, Frantzisko Asisa itzuli zen beste preso lagunekin. Askoren artean

Urtebete baino gehiago genuen elkar ikusi gabe. Aingeru Epaltza

Duela **urtebete** baino gutxiago Zaldizko Beltzek pasabideak konkistatu zituzten berriro. Agustin Otsoa

5 urtebetez adlag

Urtebetez biziko gara hemen; gero etxera itzuliko gara. Eskarne Mujika

Urtebetez aritu dira zientzialariak lagin haiak aztertzen. Berria - Gaiak

Urtebetez alde egin nahi duzu zure inguru maite itogarritik. Lourdes Oñederra

Urtebetez Parisa eta beste **urtebetez** Londresa joan nahi nuke. Josu Zabaleta

Urtebetez lanik egin gabe egotea kaltegarria izan zen niretzat. Arantxa Iturbe

Urtebetez gerra latz egin ondoren. Txillardegi

Ordurako **urtebetez** ibiliak ginen elkarrekin. Oskar Arana

la **urtebetez** geldiarazi zituzten urtegia egiteko lanak. Eduarne Elizondo

Urtebetez edo gehiagoz esperimintutan eta zalantzan ibili ondoren, aldi kementsu eta emankor bati eman zion hasiera I. jaunak. Xabier Olarra

Indartsuenek ere ezin zuten hotza eta gosea **urtebetez** baino gehiagoz eraman. Koro Navarro

Idatzi dudan gutzia neure buruan daukat duela **urtebetez** geroztik. Jon Muñoz

Kanpora, **urtebetez**. Lourdes Oñederra

6 beste urtebete

Beste **urtebete** igaro zen. Oskar Arana

Pasatu zen **beste urtebete**. Bernardo Atxaga

Itxaron ezak beste **urtebete**. Juan Kruz Igerabide

Urtebetez Parisa eta **beste urtebetez** Londresa joan nahi nuke, hizkuntza ikasi eta artearen historiako ikasketak egitera. Josu Zabaleta

-Bizirik dagoela entzuten badut, **beste urtebete** itxarongo dut ama inori emaztetzat eman gabe. Juan Kruz Igerabide

Beste urtebete gutxienez, andereñoaren mareari buruzko irudi eta metaforak entzuten. Anjel Lertxundi

Beste urtebetez karguan jarraitzeko. Iñaki Iñurrieta

Biztanleriaren hezkuntza batez **beste urtebetez** luzatuko balitz, %4 eta %9 bitartekoa izango litzateke horrek epe luzera BPGean izango lukeen eragina. Koro Navarro

Beste urtebeteko kontratua nuen eta hura hausteko etete klausula ordaindu beharra zegoen. Berria - Kirola

Iragan denboraldian kostata berritu zenuen kontratua **beste urtebeterako**. Berria - Kirola

7 urtebete barru hemendik urtebetera.

Aitona bat aztertu dut, begi-lausoia du, eta ebakuntza egin beharko diote sei hilabete edo **urtebete barru**. Felipe Juaristi

Galdeketa **urtebete barru** egitekoa da. Berria - Harian

Interesak urte-bukaeran eskuratu ordez, sei hilabetetik behin eskuratu eta berriz inbertitu bahitu, hauxe edukiko huke **urtebete barru** bankuan: [...]. Jon Muñoz

Neure ituna Isaakekin egingo dut, Sarak **urtebete barru** sasoi honetan sortuko dizun semearekin. Jose Antonio Mujika

8 urtebete-kari urtebetean; urtebete dela eta.

Martin Ugalde berriketari, idazle, politikari eta euskaltzale handiari omenaldi bat eskainia izan zaio Andoainen, haren heriotzearen **urtebete** kari. Berria - Kultura

9 urtebetera gabe

Haren sorreratik **urtebetera** gabe, gaztelua doluz jantzi zen berriz, baina ez neskatikoarendako. Aingeru Epaltza

beste urtebete (30); **beteko da urtebete** (5); **duela ia urtebete** (5); **duela urtebete** (161); **duela urtebete edo** (4); **duela urtebete hasi** (4); **duela urtebete inguru** (8); **duela urtebete pasatxo** (8); **gaur urtebete** (5); **gutxienez urtebete** (8); **hilabete edo urtebete** (5); **ia urtebete** (35); **orain dela urtebete** (36); **orain urtebete** (40); **orain urtebete inguru** (4)

urtebete arteko (5); **urtebete baino ez** (5); **urtebete baino gehiago** (36); **urtebete baino gutxiago** (4); **urtebete baino lehen** (6); **urtebete barru** (25); **urtebete behar** (6); **urtebete behar izan** (4); **urtebete beranduago** (17); **urtebete besterik ez** (6); **urtebete bete** (4); **urtebete beteko** (4); **urtebete bezala** (5); **urtebete da** (13); **urtebete darama** (15); **urtebete daramagu** (4); **urtebete daramala** (4); **urtebete daramate** (10); **urtebete doi** (4)

urtebete edo bi (4); **urtebete egin** (35); **urtebete egin ondoren** (5); **urtebete egin zuen** (7); **urtebete egindako** (4); **urtebete egingo** (9); **urtebete egingo du** (7); **urtebete egon** (5); **urtebete eman** (22); **urtebete eman zuen** (7); **urtebete ere ez** (7); **urtebete eskas** (17); **urtebete eskasean** (5); **urtebete eta bi** (6); **urtebete falta** (6); **urtebete gehiago** (7); **urtebete geroago** (53)

urtebete igaro (36); **urtebete igaro da** (14); **urtebete igarota** (5); **urtebete inguru** (33); **urtebete inguru hasi** (4); **urtebete inguruko** (7); **urtebete iraun** (5); **urtebete irautea** (4); **urtebete itxaron** (7); **urtebete izan** (5); **urtebete izango** (11); **urtebete izango da** (6); **urtebete joan** (7); **urtebete joan da** (5); **urtebete jokatu** (4); **urtebete lehenago** (64); **urtebete lehenagoko** (5); **urtebete luze** (5); **urtebete luzea** (4); **urtebete neraman** (4)

urtebete ondoren (4); **urtebete osoa** (7); **urtebete pasa** (12); **urtebete pasata** (4); **urtebete pasatu** (19); **urtebete pasatu da** (6); **urtebete pasatxo** (24); **urtebete pasatxo egin** (4)

urtebete zaharragoa (6)

azken urtebetean (19); **beste urtebetean** (6)

beste urtebeteko kontratua (6); **duela urtebeteko** (13)

urtebeteko epea (18); **urtebeteko epea eman** (4); **urtebeteko epean** (18); **urtebeteko hamalau arkume** (7); **urtebeteko kartzela** (15); **urtebeteko kartzela zigorra** (15); **urtebeteko kontratua** (15); **urtebeteko lana** (4); **urtebeteko zazpi arkume** (6); **urtebeteko zigorra** (10)

egin eta urtebetera (4); **handik urtebetera** (55); **hemendik urtebetera** (9); **urtebetera edo** (5)

beste urtebeterako (16); **beste urtebeterako kontratua** (6); **kontratua beste urtebeterako** (5); **urtebeterako kontratua** (11)

urtebeteren buruan (18); **urtebeteren ondoren** (9)

urtebetetik gora (10)

beste urtebetez (57); **beste urtebetez jarraituko** (7); **beste urtebetez jarraitzeko** (5); **beste urtebetez luzatu** (4); **beste urtebetez luzatzeko** (4); **ia urtebetez** (14); **urtebetez jarraituko du** (6); **urtebetez jarraitzeko** (6); **urtebetez luzatu** (11); **urtebetez luzatzeko** (5)

urtebetetze 1 iz urteak betetzen diren eguna, jaiotegunaren urteurrena. ikjaiotegun; egun¹.

Tematu nintzen urtero hainbat aldiz liburuak igorri behar nizkiola, ez **urtebetetzeetan** edo Gabonetan bakarrik. **Oskar Arana**

Ez da gauza **urtebetetzeak**, santuak, urtehurrenak eta horrelakoak oroitzeko. **Juan Martin Elexpuru**

Amaren **urtebetetze** hartan, aitak present bat egin zion: lepoko ikusgarri bat. **Joan Mari Irigoien**

Igande arratsaldean nire **urtebetetzea** ospatu genuen. **Josu Zabaleta**

Alabaren **urtebetetzea** izango da laster, eta oraindik ez dut harentzat oparirik erosi. **Oskar Arana**

Hiru egunen buruan, Faraoiak **urtebetetzea** zuenez bazkari handi bat eskaini zien bere funtzionario guztiei. **Jose Antonio Mujika**

Hogeita hamargarren **urtebetetzea** ere bakarrik igaro baitzuen. **Oskar Arana**

Felix Ibarrondo oñatiar konpositorearen 60. **urtebetetzea** dela eta, [...]. **Berria - Kultura**

Ez dakit **urtebetetzea** ospatzen. **Javi Cillero**

Ez zen **urtebetetzea** zoriortzeko postala. **Iñaki Mendiguren**

1942ko **urtebetetze** hau aurrekoen ordaina emateko ospatu dugu, eta amonaren kandela ere piztuta eduki genuen. **Josu Zabaleta**

Mahaia ia estalita zegoen Dudleyren **urtebetetzeko** opari guztien azpian. **Iñaki Mendiguren**

Astiro eta goibel bere opari eta **urtebetetzeko** txartel guztiak bildu eta oholaren azpian gorde zituen eskolako lanarekin batera. **Iñaki Mendiguren**

Urtebetetzeko festarik ez zen izan, jakina. **Koro Navarro**

Heriotzaren **urtebetetzeko** jai. **Iñaki Mendiguren**

Ezusteko bat prestatu genion bere **urtebetetzerako**. **Aitor Arana**

2 irud/hed

Abuztuaren 24a Kalkutaren **urtebetetzea** dela diote denek. **Gotzon Garate**

Futbol klub handienaren **urtebetetzea**. **Berria - Kirola**

Alde batetik, *Hauspoz* ekitaldia antolatzen duen elkarteak 30 urte egiten dituelako, eta, bestetik, akordeoia berak 175. **urtebetetzea** baitu aurtengoa. **Berria - Kultura**

Erakusketa hau estreinatua izan da, joanden ekainaren 30 ean, Uztaritzeko semenario ttipiaren 75 garren **urtebetetzea** kari. **Herria**

Urtebetetzeek beti dakarte ospakizuna, eta hortik, jolas errazetik tira kazetariak, "Insurgentziak hogeit hildakorekin ospatu du...". **Iñigo Aranbarri**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta ez deskuidatu gero erretzen uzten, Duddiren **urtebetetze** -egunean dena akatsik gabe nahi dut eta! **Iñaki Mendiguren**

Gure neskatok ematen du Windsor Gaztelura doala **urtebetetze** ospakizunen batera. **Oskar Arana**

Sekula ez zuela izan benetako **urtebetetze** -oparirik. **Iñaki Mendiguren**

Eri zeudenei **urtebetetze** -postalak bidaltzea. **Mirentxu Larrañaga**

Mahaia, tarta eta lorez hornitua, **urtebetetze** afari baterako prestatuta dago. **Xabier Paya**

Urtebetetze tarta zuten hura, bost urte lehenago izandako gertaera ospatzeko. **Javi Cillero**

Urtebetetze -jai bat antolatu nuen mutil haren andregaiarentzat. **Karlos Zabala**

Julinhoren **urtebetetze** -festan, hementxe Rion. **Karlos Zabala**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Gaur, ezkontza- **urtebetetze** berezi bat ospatzen dugu, herri guzian han izanen da eta zuek ere gomit zarete. **Aurelia Arkotxa**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere urtebetetze eguna (6); **bere urtebetetze egunean** (6); **nire urtebetetze egunean** (5)

urtebetetze batean (3); **urtebetetze egun** (4); **urtebetetze eguna** (24); **urtebetetze eguna zela** (3); **urtebetetze egunean** (30); **urtebetetze egunean oparitu** (3); **urtebetetze eguneko** (4); **urtebetetze egunerako** (3); **urtebetetze festa** (4); **urtebetetze hau** (5); **urtebetetze hori** (9); **urtebetetze horren** (3); **urtebetetze opari** (3)

zure urtebetetze egunean (4)

andreauren urtebetetzea (3); **bere urtebetetzea** (7); **haren urtebetetzea** (4); **nire urtebetetzea** (15); **nire urtebetetzea da** (3)

urtebetetzea izan (6); **urtebetetzea izan zen** (4); **urtebetetzea izango** (3); **urtebetetzea ospatu** (8); **urtebetetzea ospatzeko** (6); **urtebetetzea ospatzen** (3); **urtebetetzea zuen** (3)

zure urtebetetzea (5)

nire urtebetetzean (3)

heriotzaren urtebetetzeko (4); **urtebetetzeko festa** (3); **urtebetetzeko festan** (3); **urtebetetzeko opari** (4)

urteburu 1 iz urteurrena, urtemuga.

Arras ongi oroitzen nintzen horretaz: bere patroli sailduaren besta eta **urteburua** egun berean ospatzen zituelako. **Daniel Landart**

Atzo betetzen baitzen Manex Goihenetxeren heriotzaren lehen **urteburua**. **Berria - Harian**

Erdozaintzi Etxarten heriotzaren 20. **urteburuaren** karietara, arte plastikoei arreta ematea pentsatu dute antolatzaileek. **Berria - Kultura**

Uriarte Donostiako gotzainedo apezpikua garbiki mintzatu da bere apeztasuneko **urteburuan** eman duen mezan. Herria

Urteburu aipagarri horren karietarat, nola ez eskertu Paul Fagoaga, bertute handiko gizona, eta familia guzia, aipamen berezi batekin Luixa eta Maite-rentzat? Herria

Artetan, batek edo besteak **urteburua** nahi zuelarik ospatu, alimaleko mozkorrak biltzen ziguten gehienek, garagardoa merke baitzen eta nasai. Piarres Aintziart

Nornahi etxekoen **urteburu**, besta edo adiskideen ospakizun berezi edo oroigarriren bat inon izaten zenean, Pedro Juan genuen bertsogile Kaliforniako alde honetan.

Berria - Kultura

Urte guziz, kartsuki ospatzen dugu etortze horren **urteburua**. Herria

Apirila baita Baionan Kantuz-entzat **urteburuaren** hilabetea. Herria

2 urteren amaiera.

Halaber, ospatu uzta-jaia, soroan erein duzuenaren lehen fruituena; baita **urteburuko** uztabiltzearena ere, zeuen soroetako lanaren fruituak biltzen dituzuenekoa. Elizen arteko biblia

urteburukari *(orobat urteburu kari) adlag* urteburuan; urteburua dela eta.

Irailearen 11-k ukan ditu oroitzapen hunkigarriak **urteburukari**. Herria

Urteburukari, manifestaldi asko egin da mundu guzian. Herria

Haren **urteburukari** ere joan nintzen berriz. Menane Oxandabaratz

Urteburu-kari zonbait mintzo dira haatik ixtorio xahar bat balitz bezala. Herria

Montxo Armendariz zine zuzendari nafartarra omendu dute joan den larunbatean Zizur Handiko kultur etxean, kultur gune hunen 10. **urteburu** kari. Herria

Bestalde 20. **urteburukari**, komit dira aintzineko urteetako xapeldunak oro eta gehienak etorriko, agian! Herria

Inglaterrak eta Frantziakelgarren arteko lokarriak arraberotzeko parada bat ukan dute egun hauetan **urteburukari**. Herria

urtegi 1 iz gizakiak eraturiko ur biltegia, eskuarki aski handia dena. ikpresa¹.

Egiptoko ibai, erreka, zingira eta **urtegi** guztietara. Elizen arteko biblia

Jendeak ez baitu **urtegi** baten funtzionamendu, tresneria eta galerien inguruko ezagutzarik. Berria - Euskal Herria

Goizeko 09:07an, **urtegiaren** azpiko bi isurbideetako ateak itxi zituzten teknikariek horma barrutik. Eduerne Elizondo

Horma bat eraikitzearen lehen ondorioa bere atzean **urtegi** bat sortzea da, noski; baina **urtegiak**, oso handia izanik ere, bere mugak izango ditu. Iñaki Mendiguren

Urtegiak egin nituen, zuhaitz gaztez eginiko basoa ureztatzeko. Elizen arteko biblia

Lubetarik egin ezin zitekeen lekuetan, harresiaren barrutik eta leku horren kontra oso luzera eta zabalera handiko osin bat egin zuten **urtegi** baten modukoa. Santiago Iruretagoiena

Aita **urtegi** bat eraikitzeko lanetan ari da. Juan Kruz Igerabide

Jerusalem-era urak ekartzeko **urtegi** eta ubideak egin zituela. Elizen arteko biblia

Urtegi bat egiteko edo handitzeko arrazoirik eta argudiorik ez bada, ez egitea izan beharko luke konponbide bakarra. Eduerne Elizondo

Hasieran Irunberriko arroilan bi **urtegi** egin nahi izan zituzten, bat txikia eta bestea handia. Eduerne Elizondo

Itoizko **urtegia** betetzen hasi zirela ospatzeko. Eduerne Elizondo

Eugiko **urtegiak**, beteta, 21 hektometro kubiko ur biltzen du. Eduerne Elizondo

Urtegi bakoitzetik adar bana sortzen zen. Felipe Juaristi

Urtegiaren inguruko herriak suntsitu zituen lur mugimenduak eragindako olatuak. Berria - Euskal Herria

Lehergailu batek eztanda egin zuen Tryweryn **urtegiaren** lanetan. Berria - Kirola

Asfarreko **urtegi** ondoan ezarri zuten kanpalekua. Elizen arteko biblia

Urtegiko larrialdi plana ezarri gabe, Ebroko Ur Konfederazioak ez zuen Itoitz betetzen hasterik. Eduerne Elizondo

Basamortua, berriz, **urtegi** bihurtzen du eta landa lehorra iturburu. Elizen arteko biblia

Goroldio eta huntzez inguratuta, **urtegi** bat zegoen; erabilerririk gabe geratutako depositua, izatez. Bernardo Atxaga

Bazuten presa bat uraren biltzeko, beraz **urtegi** bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Munduan, 4.000 **urtegi** handi inguru daude, hau da, 15 metrotik goitikoak. Yemengo ekialdeko mendietatik jaisten ziren urak izugarriko **urtegi** batean biltzen ziren eta handik herrialdeko eskualde handi-handi bat ureztatzen zen, labore-sistema intentsibo bati bizia emanez eta ondorioz biztanle asko mantenduz. Berria - Euskal Herria

Horiek guztiak estuki lotuta daude **urtegi** erraldioen atzean dauden negozio handiek eragiten duten saminarekin. Eduerne Elizondo

Errepide inguruan ehunka langilek eta makinak dihardute birjintasun hori hondatzen, **urtegi** eskerga egiteko aitzakiaz. Jon Arretxe

Haren garaian egin zen urtegia, itsasoa bezain **urtegi** zabal. Elizen arteko biblia

Presa handi bat dago behean, eta ur gardeneko **urtegi** zabal bat. Jose Morales

Arratsaldean, pagoz inguratutako **urtegi** tikia jo dute, argindarra sortzeko erabiltzen direnetarik. Aingeru Epaltza

Errota, bere aldetik, jauregiaren eta bertze etxola haien artean zegoen, eta, errotarriaren higiarazteko, bazuen **urtegi** tipi bat, etxeko abereek askatzen hartzen zutena eta ahateek igerilekutzat. Joan Mari Irigoien

Harresi bien artean urmahela egin duzue, **urtegi** zaharreko urentzat. Elizen arteko biblia

Ai, **urtegi** emankor batzuk balituzte gertuan. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Pirinioetako **urtegi** proiektuen egoera kontuan hartzen badugu. Berria - Euskal Herria

Urtegi egitasmoa herritar guztien zergekin eraikiko dela. Berria - Harian

Urtegi xedea Elordoi izeneko latsaren inguruan kokatzen da, Donapaleu eta Ostankoa artean, 18 hektareako eremuan. Berria - Harian

Askotan erabat aldatu dituzte ibaiok, eta, egun, **urtegi** kate bat baino ez dira asko. Berria - Gaiak

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Catalanean esanetan, azken urteetan «ekaitz **urtegi**» ugari eraiki dira Nafarroan. Berria - Euskal Herria

Hildako animaliak leize-zuloetara botatzeak badu arriskurik: ura nahasi, gaizkitu eta iturri-**urtegi**etara joan liteke. Gotzon Garate

5 irud/hed

Deerek **urtegi** bihurtu zituen bere begi urdinak barre-malkoen kariaz. Karlos Linazasoro

Gure baserri eskualde hunentzat, *Irisartarrak* esku baloi elkarteak [...] "biziaren **urtegi**" bat da. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

biziaren urtegi (3); **urtegi bat egiteko** (4); **urtegi berria** (3); **urtegi erraldioak** (3); **urtegi handiek** (3); **urtegi handien** (9); **urtegi misteriotsua** (3)

esako urtegia (13); **esako urtegia handitzeko** (8); **itoizko urtegia** (144); **itoizko urtegia betetzeko** (13); **itoizko urtegia betetzen** (10); **itoizko urtegia egiteko** (4); **itoizko urtegia eraikitzeko** (4)

urtegia behera erori (3); **urtegia bete** (4); **urtegia betetzea** (4); **urtegia betetzeko** (53); **urtegia betetzeko lanak** (19); **urtegia betetzeko lanek** (5); **urtegia betetzeko lanen** (6); **urtegia betetzeko probak** (9); **urtegia betetzeko prozesua** (3); **urtegia betetzen** (56); **urtegia betetzen hasi** (38); **urtegia betetzen hasteko** (5); **urtegia egin** (12); **urtegia egin dute** (3); **urtegia egiteko** (20); **urtegia eraikitzeko** (8); **urtegia eraikitzeko lanak** (3); **urtegia geldiarazi** (3); **urtegia gelditzeko** (6); **urtegia handitzeko** (14); **urtegia**

husteko (9); **urtegia husteko asmoa** (3); **urtegia husteko eskatu** (3); **urtegia husteko egina** (4); **urtegia hustu** (11); **urtegia hustu gabe** (5); **urtegia kontrolik gabe** (4); **urtegia urez betetzen** (4)

itoizko urtegiak (42); **itoizko urtegiak eragin** (4); **lurrikarak urtegiak eragin** (7); **lurrikarak urtegiak eragiten** (3); **urtegiak egiteko** (3); **urtegiak eragin** (14); **urtegiak eragin dituela** (6); **urtegiak eragindako** (6); **urtegiak eragindako sismikotasuna** (3); **urtegiak eragiten** (5); **urtegiak eraikitzeko** (3); **urtegiak kalte egindako** (5)

itoizko urtegian (13); **ura urtegian** (3); **urtegian bertan** (8)

itoizko urtegiarekin (3)

esako urtegiaren (6); **gertatu dira urtegiaren** (3); **itoizko urtegiaren** (159); **itoizko urtegiaren aferak** (4); **itoizko urtegiaren aferan** (7); **itoizko urtegiaren aurka** (6); **itoizko urtegiaren aurkako** (22); **itoizko urtegiaren auzia** (3); **itoizko urtegiaren auzian** (3); **itoizko urtegiaren egoerari** (3); **itoizko urtegiaren inguruan** (22); **itoizko urtegiaren inguruko** (4); **itoizko urtegiaren kontra** (4); **itoizko urtegiaren kontrako** (18); **itoizko urtegiaren proiektua** (11); **rialbeko urtegiaren** (5)

urtegiaren afera (5); **urtegiaren aferak** (6); **urtegiaren aferan** (9); **urtegiaren alde** (5); **urtegiaren arriskuaz** (3); **urtegiaren aurka** (27); **urtegiaren aurka agertu** (3); **urtegiaren aurka egiten** (3); **urtegiaren aurkako** (50); **urtegiaren aurkako borroka** (7); **urtegiaren aurkako borrokak** (4); **urtegiaren aurkako borrokan** (6); **urtegiaren aurkako borrokarekin** (3); **urtegiaren aurkako borrokaren** (4); **urtegiaren auzia** (3); **urtegiaren auzian** (5); **urtegiaren azpiko** (4); **urtegiaren betetze** (3); **urtegiaren egoerari buruz** (3)

urtegiaren egoerari buruzko (4); **urtegiaren eta lurrikaren** (3); **urtegiaren ezkerreko** (4)

urtegiaren inguruan (46); **urtegiaren inguruko** (10); **urtegiaren kalteak** (3); **urtegiaren kontra** (16); **urtegiaren kontrako** (48); **urtegiaren kontrako borroka** (5); **urtegiaren kontrako borrokak** (4); **urtegiaren kontrako borrokan** (11); **urtegiaren kontrako borrokaren** (4); **urtegiaren kontrakoa** (3); **urtegiaren kontrakoek** (4); **urtegiaren mehatxupean** (3)

urtegiaren proiektua (19); **urtegiaren proiektuak** (3); **urtegiaren proiektuaren** (5); **urtegiaren proiektuari** (4); **urtegiaren segurtasuna** (5); **urtegiaren segurtasunari** (9); **urtegiaren segurtasunari buruzko** (6)

itoizko urtegiari (9); **itoizko urtegiari buruz** (4); **urtegiari buruz** (6); **urtegiari buruzko** (4)

urtegiar haratago (5)

urtegiar haratago (5)

esako urtegitiko (4); **itoizko urtegitiko** (32); **itoizko urtegitiko arduradun** (3); **itoizko urtegitiko ura** (3)

urtegitiko arduradunek (7); **urtegitiko atepak** (3); **urtegitiko azpiko** (3); **urtegitiko horma** (12); **urtegitiko horman** (3); **urtegitiko hormaren** (3); **urtegitiko kableak** (6); **urtegitiko kableak moztu** (4); **urtegitiko lanak** (9); **urtegitiko langileak** (6); **urtegitiko langileek** (3); **urtegitiko larrialdi planaren** (3); **urtegitiko obrak** (5); **urtegitiko obren** (4); **urtegitiko portiana garraiatzeko** (4); **urtegitiko ura** (11)

munduko urtegitik handiena (3); **urtegitik ez** (3); **urtegitik nahi ez** (3)

atean dagoen urtegitik (4); **itoizko urtegitik** (3); **urtegitik gertu** (7); **urtegitik gertu bizi** (3)

urtegitxo iz urtegi txikia.

Zilargineneko **urtegitxo** dago. **Joan Mari Irigoien**

urtegun iz urtemuga.

Bixer aiten **urtegun** da! **Unai Iturriaga**

*- p/ Hemen laguntzaile dugun baten **urtegunak** direla eta bozgoragailuetatik horren berri eman dute eta norbaitek, ez dakit nork, olerkia irakurri dio ingelesez. **Edorta Jimenez***

Maite dute sorterria pilotariak, ziur, baina orain *Night Before Easter* ipuinean Walter Thomasen -horra Chicagoko gizonaren izena- horrexen **urtegunetako** jaia da, eta goiari etsi behar zaio. **Edorta Jimenez**

urtehurren ik urteurren.

urteka 1 adlag urteen arabera.

Gure egutegia **urteka** antolatuz gero, noizbehinka egokitu beharko dugu, urte bakoitzean beti izango baikenituzke ia-ia sei ordu sobran. **Pello Salaburu**

Ez **urteka** kontatzen zenak eta ez segundoka kontatzen zenak. **Bernardo Atxaga**

Bigarren zatian, lan bera egina da, baina **urteka**, 1757tik 1944a arte. **Herria**

Lan gaitza egin du Xabier Altzibar-ek Manex Hiriart-Urruty-ren idazlanak bil eta bil, denak sailkatuz gaien arabera eta gai mota bakoitzarentzat **urteka**. **Herria**

Poliki-poliki taxua ematen hasi zitzaion Administrazio lan hari, eta handik hamabi hilabetera paperak oro pilatuta zituen, gaika eta **urteka**. **Felipe Juaristi**

2 urtekako

Gobernuak, astronomoak bezala, **urtekako** neurketaz arduratzen dira, baita errepikatzen den urte-zikloaren artikulazioaz ere. **Iñaki Mendiguren**

urtekada iz urteko uzta.

Lehen **urtekadak** 300 edo 440 orriko aletxoak dira: gaur egun, urtean-urtean, 1.300na orriko hamalau liburuki moldiztuzten dira kontu beraz. **Juan Garzia**

urtekal adlag ipar urtero.

Xiberoak horri bürüz emaiten dü bere ikusmoldea: nola asmatzen den **urtekal**, hilabetekal, astekal eta egunkal. **Herria**

Finkatzen zituen beraz delako artzapezpikuaren janari eta xahupideentzat hamabi mila dukat **urtekal** edo hilabete hastapeneko mila dukat. **Piarres Xarriton**

Galdu baintuen, jakina, eta galtzen oraino **urtekal**, bost ehun dukat edo zilarrezko kruzado. **Piarres Xarriton**

urtekari¹ iz urtean behin argitaratzen den aldizkaria, eskuarki urteko berriez edo gaiez diharduena.

Gara egunkariaren **urtekaria** daramat, inprentatik atera berria. **Pako Aristi**

Nekez zabalduko zuen egunkari, aldizkari, hilabetekari, **urtekari** edo ehunurrenoko gomendiozko libururik, zinema-zerrenda begiratzeko ez bazen. **Javi Cillero**

Eliza atean 8 eurotan salgai hatxemanen duzue Euskaldun Gazteriaren **urtekaria**. **Herria**

Urte guziz Herriko Etxeak sasoin hontan agertzen duen kaseta edo **urtekaria**, joan den astean, gure herriko etxe guzietako gutun ontzietan aurkitu dugu. **Herria**

Nafarroako Ekonomiaren 2003ko **urtekaria** aurkeztu zuen Tabernak. **Berria - Ekonomia**

Irudiaren munduan lanean dabilzan profesionalen **urtekari** bat osatzen ari gara, adibidez. **Berria - Kultura**

Ohartu gara aurten hogeit hamar berri nahi izan dutela beren izena euskaraz ager zedin telefono **urtekarian**. **Herria**

2 historia-gertaera garrantzikoena uztez urte azaltzen dituen liburua.

Ongi gordeta ditut garai hartako Gorteko **Urtekariak**. **Antton Olano**

Pepinen armada Akitianian sartu eta gero, harrapakin eta jopu ugariz itzuli zen, diote Metz-eko **Urtekariek**. **Iñaki Iñurrieta**

Kontuz esango nuke hori, eta frankoen **urtekarien** egileak ezjakinak izan ez zirelakoan beti ere. **Iñaki Iñurrieta**

Tazito, **Urtekariak**, III. lib., XXV., 117. or. **Iñaki Iñurrieta**

"Inperio austrohungariarraren **urtekari** ahaztuetan aipatzen da gure izena", dio azken Trottatarrak. **Anjel Lertxundi**
Austria Behereko **urtekarria**, Vienako **urtekari** komunala, eta monarkia austro-hungariarraren gorteko eta hiriko liburua ere eskatu zituen, eta, lehenbiziko bietatik, baita aurreko urtekoa ere. **Anton Garikano**
Azken berrogei urteotako Armadaren **Urtekarriak** hemen dira. **Antton Olano**
Historia eta Geografiari buruzko Hiztegia, bi gai hauei buruzko Atlas unibertsala, João Soaresena, zaharra, **Urtekari** Historikoak. **Jon Alonso**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

telefona urtekarrian (4); **telefono urtekarrian** (3)

urtekari² *adlag* urtean; urtea dela eta.

Zorionak halere finalista berriari, bere lehen **urtekari**. **Herria**
Mendearen behin edo bitan bakarrik egiten baitira holako kontzilioak, aurtun 40 garren **urtekari** ikusi da zertan diren orduan abiatu bideak eta lanak. **Herria**
Corpu Uhalde Gainekeleta Ebaristoinean sortuari, igandekari egina izan zaio omenaldia 50 **urtekari** serora egin zela, besta horren ospatzeko. **Herria**
Hondarribiko Udalera eraikiko du Euskal Herriaren oroigarria Antso III Haundiaren mila-**urtekari**, Hendaia eta Bidasoako bestaldean. **Herria**
Hor gaindi dabilan erromes kopurua, urtetik urtera goiti doha, eta bereziki aurtun, Jondoni Jakoberen jubileu **urtekari**. **Herria**

urtekera ik irteera.

urteko ik urte 13.

urtemuga 1 *iz* urteak betetzen diren eguna.

Egun gutxi falta dira Joseluren **urtemugarako**. **Josu Landa**
Gaur hire **urtemuga** duk, ezta? **Rafa Egiguren**
Gure umearen **urtemuga** zen, eta eskolako lagunak etorri ziren etxera, hamar bat, semearen hamargarren urteurrena ospatzera. **Karlos Linazasoro**
Zapuztua nengoan ardoarengatik (besterik merezi zuen nire 50. **urtemugak**, nik hala uste behintzat, egia esan!), baina, gainerakoan, oso pozik. **Joxe Austin Arrieta**
Urtemuga ospatu eta hurrengo egunean zipla jabetu nintzen nire egoera berriaz. **Iban Zaldua**
Hire izenean egin diagu topa. Guztiz ahazturik zegoen **urtemugaz**, eta ez zionez inork ere deitu zorionak emateko edo gauza onak opa izateko, ez zen hurrengo eguneko goizeko ordu biak arte gogoratu. **Rafa Egiguren**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez diozu aspaldi deitzen bere **urtemuga** egunerako. **Lourdes Oñederra**
Nire **urtemuga** -eguna ahazten bazaizu, ez dut uste inoiz barkatuko dizudanik. **Oskar Arana**
Bi ordu geroago aitona hilik zegoen, bihotzekoak jota, eta hilbeila bihurtu zen **urtemuga** -bazkaria. **Iban Zaldua**
Ez zenion inoiz ezer esan, baina urte hartan ez zenion **urtemuga** erregalorik eman Luisi. **Lourdes Oñederra**
Urtemuga postalak edo urteberri-zoriontsukoak. **Lourdes Oñederra**

3 urteurrena.

Bastillaren hartzearen lehenbiziko **urtemugaren** ospatzeko. **Elena Touyarou**
Herio-kanpo deitoragarri heietan bizirik gelditu jende gaixoak libratu zirelako hiruetan hogoigarren **urtemuga** ospatzen den keinka huntan. **Herria**
Errepublikaren **urtemuga** ospatzeko. **Berria - Euskal Herria**
Joan den larunbatean bete da Irakeko gerla hastapenaren lehen **urtemuga**. **Herria**
Gerardo Lopez de Gereñuren jaiotzaren ehungarren **urtemuga** bete da aurtun. **Berria - Kultura**
Aspaldidanik 23F deitutaokoaren XX. **urtemuga** zen. **Txillardegi**
Sarraskiaren **urtemuga** aldarrikapen egun bihurtzea nahi du LABek. **Berria - Ekonomia**
Taldearen 10. **urtemugarekin** bat egingo du diskoaren argitalpenak. **Berria - Kultura**
Ni etxetik bidali aurreko egunean, Marsellako Tarotaren edizio aski garestia egin nion opari, gure ezkontzaren **urtemugaren** oroigarri. **Aingeru Epaltza**
Inkesta bat agertu da prentsan, Chavezek gobernuan daraman **urtemugan** herriaren egoera psikologikoa aztertzen duena. **Pako Aristi**
Gor disketeak 15 urte bete ditu aurtun, eta **urtemuga** garrantzitsu hori ospatzeko, jaialdi handia antolatu du larunbaterako. **Berria - Kultura**
Lucius Annaeus Seneca Kordobako idazle eta pentsalariaren jaiotzaren 2000. **urtemugaren** haritik. **Berria - Kultura**

4 (hitz elkartuetan)

2004ko urtarrilean matxinada zapatistaren hamargarren **urtemuga** -ekitaldiak zirela eta. **Txema Ramirez de la Piscina**
· Lehenengo aldiz zortzi urtean, esaterako, ahaztu egin zitzaion Almaren eta bien ezkontza-**urtemuga**. **Iban Zaldua**

5 urtemuga-kari

Biharamunean, irailaren 23an, eta lau egun aurretik efemeridea eta ospaketak iragarritz, Txiki eta Otaegiren XXV. **urtemuga** kari, artikulu hunkigarri bat zekarren gure prentsak. **Txillardegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere urtemuga (4); **ehungarren urtemuga** (5); **errepublikaren urtemuga** (5); **estatutuaren urtemuga** (3); **hamargarren urtemuga** (4); **heriotzaren urtemuga** (3); **hirugarren urtemuga** (5); **lehen urtemuga** (5)

urtemuga bete (4); **urtemuga beteko** (6); **urtemuga beteko da** (3); **urtemuga betetzen** (3); **urtemuga dela eta** (10); **urtemuga egunean** (3); **urtemuga garrantzitsu** (3); **urtemuga gogoratze** (7); **urtemuga hunen karietarat** (3); **urtemuga izan** (3); **urtemuga kari** (8); **urtemuga ospatu** (11); **urtemuga ospatu du** (3); **urtemuga ospatuko** (7); **urtemuga ospatuko du** (5); **urtemuga ospatzeko** (26); **urtemuga ospatzen** (8)

hirugarren urtemugaren (3); **urtemugaren harira** (14); **urtemugaren karietara** (4)

urtenbide ik irtenbide.

urteño *iz ipar adkor* urtea. ik urtetxo.

Ondotik jinen dira geroxago, **urteño** bat barne nunbait han, president-bozak eta deputatuena. **Herria**
Duela **urteño** bat ez arras, polizak bere saretarat bildu zuen Ibon Fernandez Iradi, aintzek Susper deitzen dutena. **Herria**
Bozkatze hori oraiko ustez eginen da hemendik **urteño** baten buruko. **Herria**

urteoro ik **urtero**.

urterdi ik **urte 17**.

urtero (*orobat urteoro g.er.*) **1 adlag** urte guztietan, urte oroz.

Urtero aldatzen genuen etkez, eskolaz, hezitzailez. **Ander Irizar**

Urtero gertatzen da; aspaldi du ez naizela horregatik nahigabetzen. **Aingeru Epaltza**

Urtero udabidean New Yorken egoten naiz. **Gotzon Garate**

Urtero karga bat ale emango diet zure anaiei eta lan egingo dut haientzat, baldin eta orain zeure mesedea erakusten badidazu, beste askori erakutsi diozuen bezala. **Urtero**, elurra urtu eta udaberriak begiak irekitzen dituenean [...] aintziraren bazterrak eta elur geruza fina urrin azkarreko eta kolore biziko lore txikiz betetzen dira. **Askoren artean**

Urtero, herriko feria egiten zenean, aldareko Kristo gurutziltzatua atera ohi zen prozesioan. **Koldo Biguri**

1999tik 2001era bitartean, **urtero** 120.000 milioi dolarreko isunak ezarri zizkien Washingtonek Europako Batasuneko produktuei. **Berria - Ekonomia**

Urtero harridura miretsi bera, bai, ikusirik kimuak bizi berriz eztanda egiten nonahi. **Juan Garzia**

Ahalegin berezia egin dute antolatzaileek mugaz gaindikoek ere begira diezaiegun, eta **urtero** antolatzen dute prentsaurreko bat Donostian. **Hasier Etxeberria**

Argi hau **urtero** itzultzen da, Gelatxoren soinua hainbat lekutara **urtero** itzultzen zen bezala. **Pako Aristi**

Ez zizun **urtero** deitzen, baina **urtero** gogoratzen zen. **Lourdes Oñederra**

Egia zen Luis Amianoren bidez zekitelana han zeuden hirurek zekitelana, **urtero** kontatzen baitzuen hark, jendaurrean, batailoikoak biltzen zirenez geroztik, Intxortakoa.

Ramon Saizarbitoria

1980ko udan, **urtero** bezala New Yorkera heldu nintzenean, jendeari sarritan entzun nion Bulow-en kasuaz mintzaten. **Gotzon Garate**

Hamaika milioi ume hiltzen da munduan **urtero**, sabeleko gaixotasunengatik edo arnas infekzioengatik. **Pello Salaburu**

Sekulako irabaziak egiten dituzte **urtero** botikagileek. **Joxerra Garzia**

Hiru milioi haur hiltzen dira **urtero** kutsaduraren ondorioz. **Berria - Gaiak**

-Ni domusantu egunean etorri izan naiz **urtero**, baina ez daukat akorduan hemen lorerik ikusia inoiz. **Koldo Izagirre**

Taldea osatu bezain laster, bestalde, kide fundatzaileek borondatezko zina egin zuten, udaberriarekin **urtero** berritzen zutena eta komunitateari halako kohesioa eta batasuna zemaiona. **Joan Mari Irigoien**

Hau guztia konpontze bidean jartzeko diru asko beharko litzateke, 23.000 milioi dolar **urtero** eta 25 urtez. **Pello Salaburu**

Aski du ondoko grafikoari begiratzeko ikusteko ezen, **urtero**, uda partean, urtegiak urak behera egiten duela, harik eta udazkenak euriak ekartzen dituen arte. **Imanol Zurutuza**

Era berean, geure lurraren eta fruta-erbola guztien lehen fruituak Jaunaren etxera eramango ditugu **urtero**. **Elizen arteko biblia**

Guztira zakurren negozioak mila milioi euro ematen omen ditu **urtero**. **Gotzon Garate**

Uholdeen arrisku bizia sortzen da ia **urtero**. **Pello Zabala**

Horrela egunero, astero, hilabetero eta **urtero**. **Pello Salaburu**

2 urteroko izlag

Urteroko kontua zen. **Harkaitz Cano**

Urteroko luzimendu una izango zuen hura. Hilerokoaz **urteroko** galdera. **Joxerra Garzia**

Urteroko Durangorako hitzorduaren tenorea jina zaiku. **Herria**

Bere sorterri Belenera ahalbailehen joaten uzteko eskatu zidan Davidek, **urteroko** oparia bere ahaide guztiekin egiteko. **Elizen arteko biblia**

Anaiaren bizitzak baino ardura gehiago ematen zion mendiko ardiak jagoteak; bai eta **urteroko** zuhaitzen hosto aldatzeak ere. **Gotzon Garate**

Matematika ikasgaia eternala zen, **urterokoa**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Probatzeko betarik izan ez nuen arren, gorde egin baitzituen Floraren amak, esan nion ez zirela **urterokoak** bezain onak. **Ramon Saizarbitoria**

3 urtero-urtero

Urtero-urtero harrapatzen dute bat gure mendi hauetan. **Anjel Lertxundi**

Gero, **urtero-urtero** itzuliko da aurreko urteko leku berera, kumeak haztera. Geroztik, **urtero-urtero** argitaratu da aurreko urteko bat-bateko bertsoen antologia. **Imanol Zurutuza**

Kondesak berak aukeratzen zituen, **urtero-urtero**, paretetarako zeta-oihalak. **Xabier Olarra**

Niri eman zidaten plaza, **urtero-urtero** berri beharreko kontratupean. **Joxerra Garzia**

Erromeriak oso leku jakinetan ospatzen dira, eta oso gutxi dira **urtero-urtero** egun edo denboraldi jakinetan ospatzen direnak. **Pako Aristi**

Zein da munduan **urtero-urtero** film gehien sortzen duen nazioa? **Gotzon Garate**

Itsasora iristen diren plastikozko hondakinek bakarrik milioi bat itsas-hegazti, 100.000 itsas ugaztun eta dortoka hiltzen dituzten **urtero-urtero**. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antolatzen du urtero (4); **bideratzen dituzte urtero** (4); **egiten dira urtero** (6); **egiten dituzte urtero** (5); **eragiten du urtero** (4); **hiltzen dira urtero** (29); **hiltzen ditu urtero** (7); **kutsatzen dira urtero** (4); **ohi ditu urtero** (4); **ordutik urtero** (4)

urtero aldatzen (5); **urtero antolatu** (6); **urtero antolatu ohi** (5); **urtero antolatzen** (28); **urtero antolatzen duen** (11); **urtero argitaratu** (4); **urtero argitaratzen** (6); **urtero banatzen** (7); **urtero banatzen duen** (4); **urtero berritzen** (4); **urtero bezala** (126); **urtero egin** (33); **urtero egin ohi** (16); **urtero egiten** (66); **urtero egiten duen** (17); **urtero ekartzen** (5); **urtero eman** (5); **urtero ematen** (15); **urtero ematen duen** (6); **urtero errepikatzen** (8); **urtero etortzen** (13); **urtero gertatzen** (15); **urtero gertatzen den** (6); **urtero gutxienez** (5); **urtero izan** (6); **urtero izaten** (11); **urtero jasotzen** (6); **urtero joan** (9); **urtero joaten** (9); **urtero legez** (53); **urtero urtero** (111)

bere urteroko (8)

urteroko batzar nagusia (5); **urteroko batzarra** (4); **urteroko batzarrean** (5); **urteroko bilkura** (4); **urteroko biltzar** (4); **urteroko helburua** (4); **urteroko kontua** (4); **urteroko txostena** (9); **urteroko txostenean** (7)

urtesari ik **urte 18**.

urtesasoik ik **urte 19**.

urtets ik **urtats**.

urtetsu 1 *izond* urte asko dituen. ik **adintsu**. (pertsonez)

Hainbeste mutiko eta neskato, hainbeste gazte eta adin guztietako, alargun agurgarri eta birjina **urtetsu**. **Imanol Unzurrunzaga**

Harekek kontatu baitzion nola bideratu zuen alargun **urtetsu** baten ezkontza. **Patxi Zubizarreta**

Gutzitz txunditurik geldituko litzateke Bavarian eserita eta jokalaria **urtetsu** baten aurka jokoan ikusiko banindu. **Alberto Ladron Arana**

Atso zahar **urtetsua** zen oso, eta larrua murriztu baiote bezalako argala. **Juan Garzia**

Dekanoa zioen tokian, kasu honetan adintsuena, adinekoena, **urtetsuena** edo zaharrena erabili behar genukeen. **Iñigo Aranbarri**

2 (bestelakoez)

Hildako zintzoak bizirik dirauten fedegabeak kondentzen ditu, eta heldutasunera bizkor iritsitako gazteak gaiztoaren zahartzaro **urtetsua**. **Elizen arteko biblia**

Adin **urtetsu** batera iristen diren osaba-izeben kasuan. **Juan Garzia**

Eskularru beltz **urtetsuak** adabaki gris lakatzez higatuak zituen. **Mirentxu Larrañaga**

Jaun alai txantxazalea, bere gaztelu aurreko pago **urtetsuan** urkatu [...] zutena. **Felipe Juaristi**

Haritzondo **urtetsua**, Allikenekoaren adinkidea gutxienez. **Txillardegí**

Chicagoko hotelik **urtetsu** eta historikoenetako batetik deitzen dizut. **Patxi Zubizarreta**

3 urte gutxi gora behera.

Hogeita hamabost **urtetsu** zituen. **Juan Garzia**

Hogeita hamar **urtetsu** lehenagotik. **Juan Garzia**

Duela **urtetsu** bat abiatu zuen Euskal Dantzarien Biltzarraklehiaketa berezi bat: euskal dantza berri zenbaiten sortzea. **Herria**

Bi **urtetsu** geroago elkartu ziren berriz gure bideak. **Aingeru Epaltza**

Nik baino **urtetsu** pare bat gehiago zenbatetsi nizkion. **Aingeru Epaltza**

Atetik hurbil, berrogeita hamar **urtetsuko** gizon bat eseririk zegoen, jilbaba bat soinean. **Patxi Zubizarreta**

Aiseago onartzen zen, hogei **urtetsuko** mutil gazte batengan baino, berrogeita hamar urteko zahar batengan. **Juan Garzia**

Esterolen prezipitazioa berrogeita hamar **urtetsuko** gure arterietan? **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berrogeita hamar urtetsuko (3)

urtetxo *iz adkor* urtea. ik **urteño**.

Urtetxo pare bat gehiago, eta bozkarioan bururatuko da dena, ipuinetan bezala. **Fernando Rey**

Badaramatzagu **urtetxo** batzuk politikoez gaztelaraz aise darabiltena euskaraz nola edo hala esan nahian, begi-begian jotzeke, baina. **Iñigo Aranbarri**

urteurren (*orobat urtehurren g.er.*) **iz 1** gertaera gogoangarri baten urteak betetzen diren eguna. ik **urtemuga**; **urteburu**.

Trinketaren **urteurrena**. **Herria**

Vienak gogora ekarri du Freuden **urteurrena**. **Berria - Gaiak**

Efemerideetan, Xabierko Frantziskoren **urteurrena**. **Iñigo Aranbarri**

Eraikinak gaur beteko du lehen **urteurrena**. **Berria - Ekonomia**

Harresiak bota zireneko berrogeita hamargarren **urteurrena**. **Askoren artean**

Urtarrilaren 27an beteko da Wolfgang Amadeus Mozart jaiotzeko 250. **urteurrena**. **Berria - Kultura**

Herenegun ospatu zuten turkiarrek independentziaren 78. **urteurrena**. **Jon Arretxe**

Haitiko iraultzaren berrehungarren **urteurrena** ospatzea. **Berria - Gaiak**

Aldarrikapen horren berrogeita hamargarren **urteurrena** ospatu zen egunean. **Piarres Xarriton**

Heriotza horren lehen ehun **urteurrena** betetzear dago. **Juan Garzia**

Orain, laurehun **urteurrenaren** kontu horiekin zertxobait aztoratuta ere banaukate. **Patxi Ezkiaga**

Errenteriako Mikelazulo kultur elkarteak hamar urte bete zituen iazko ekainean, eta **urteurren** horren itzalean, *No Excuse* izeneko euskarazko dokumentala egin du **Berriako** kazetari Urzi Urkizuk. **Berria - Kultura**

Oraingoan, **urteurrenarekin**, zerbait itxurosoa egin nahi zuen, ale bikoitza atera. **Alberto Barandiaren**

Generalitatearen 25. **urteurrenean**, Pujolen «konpromisoa, tolerantziaren aldeko defentsa eta askatasunaren eta demokraziaren bilaketa» saritu nahi izan dituzte. **Berria - Euskal Herria**

Inbasioaren hirugarren **urteurreneko** salaketek, baina, jendea bildu dute berriro. **Berria - Mundua**

Istiluak Halabjan, sarraskiaren 18. **urteurrenean**. **Berria - Mundua**

Billboko Athleticeko hobeita bosgarren **urteurreneko** atletismo saioetan. **Edorta Jimenez**

2 (hitz elkartuetan)

Hobia Srebrenicako sarraskiaren **urteurren** ekitaldiak egingo dituzten herritik, Potocaritik, hurbil dago. **Berria - Harian**

Belusezko iraultzaren 15. **urteurren** ospakizuna Txekian eta Eslovakian. **Berria - Mundua**

· Bigarren ezkontza-**urteurrena** ospatu berri zenuten, eta esan zenidan zure bizitzako bi urterik zoriontsuenak izan zirela. **Oskar Arana**

Gurasoei hogeita hamargarren ezkon-**urteurrenean** oparitutako zilarrezko platerak eta azpilak. **Harkaitz Cano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berrogeita hamargarren urteurrena (3); **bigarren urteurrena** (5); **bosgarren urteurrena** (8); **bosgarren urteurrena ospatzeko** (4); **ehungarren urteurrena** (5); **estatutuaren urteurrena** (3); **hamabosgarren urteurrena** (3); **hamargarren urteurrena** (20); **hamargarren urteurrena ospatzeko** (8); **heriotzaren urteurrena** (7); **hilketaren urteurrena** (5); **hirugarren urteurrena** (4); **iraultzaren urteurrena** (3); **laugarren urteurrena** (4); **laugarren urteurrena bete** (3); **lehen urteurrena** (10); **milagarren urteurrena** (3)

urteurrena bete (16); **urteurrena bete zen** (8); **urteurrena beteko** (9); **urteurrena beteko da** (4); **urteurrena betetzear** (4); **urteurrena betetzen** (11); **urteurrena betetzen dela** (4); **urteurrena da** (5); **urteurrena dela eta** (29)

urteurrena gogoan (6); **urteurrena gogora** (3); **urteurrena gogoratu** (5); **urteurrena gogoratuz** (3); **urteurrena gogoratze** (18); **urteurrena gogoratze** ekitaldiak (3)

urteurrena izan (3); **urteurrena izango** (3); **urteurrena izango da** (3)

urteurrena ospatu (17); **urteurrena ospatu zuten** (5); **urteurrena ospatuko** (16); **urteurrena ospatuko du** (9); **urteurrena ospatzea** (4); **urteurrena ospatzeko** (75); **urteurrena ospatzeko antolatua** (5); **urteurrena ospatzeko ekitaldia** (3); **urteurrena ospatzeko ekitaldiak** (3); **urteurrena ospatzeko ekitaldien** (3); **urteurrena ospatzen** (9)

urteurrena zela eta (10); **urteurrena zen** (6); **zueneko urteurrena** (3)

hamargarren urteurrenaren (3); **urteurrenaren bezperan** (5); **urteurrenaren egunean** (4); **urteurrenaren harira** (10); **urteurrenaren inguruko** (3); **urteurrenaren kariatz** (8); **urteurrenaren ospakizuna** (3); **urteurrenaren ospakizunak** (3)

urteurrenari begira (3); **urteurrenari buruzko** (3)

hamargarren urteurrenean (5); **heriotzaren urteurrenean** (3); **lehen urteurrenean** (7); **sarraskiaren urteurrenean** (3)

urteurreneko ekitaldian (4); **urteurreneko ekitaldietan** (3); **urteurreneko ospakizunak** (3); **urteurreneko ospakizunetan** (3)

Urtezahar *(orobat urtezahar)* 1 iz urtearen azken eguna.

Etetik kanpo igaroko du **Urtezaharra**, Estorien ariko baita abenduaren 31n. **Berria - Kultura**

Trufa beltz handi batekin egin nuen topo, eta 2000ko **Urtezahar** hura etorri zitzaidan gogora. **Joxan Elozegi**

Horiek guztiak pentsatu nituen 1993ko **Urtezaharrean**, Guatemalan lagun batzuen etxean festa kokkor bat ospatzen ari ginela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Urtezaharrean ospatzen den Mallorcako Diadaren bezperan. **Berria - Mundua**

Diru zama hortan, ez dira haatik Eguberri eguneko bazkaria eta **Urtezaharreko** afaria kondutan hartuak. **Herria**

Gainerako bidaiariak **urtezaharreko** ohizko jai konbentzionalen murgilduta dituzu. **Jose Angel Irigaray**

Urtezaharretik greban dira Erandioko zahar etxean. **Berria - Ekonomia**

2 (hitz elkatuetan lehen osagai gisa)

Urtezahar gaua atzo ospatu genizun hemen bertan, bidaiari abiatzean! **Jose Angel Irigaray**

Urtezahar gauean labankadaz hil zuten gazte bat Jose Mari Olabarri kalean. **Berria - Ekonomia**

Bihar **urtezahar** eguna da, Tomen etxean azken gaua. **Harkaitz Cano**

Ez da, beraz, askorik arriskatu behar **Urtezahar** bezperako bozketaren emaitza aurreratzeko. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urtezahar gaua (3); **urtezahar gauean** (9)

urtika *adlag* jaurtiz.

Hain da ikaragarria gainean zintzilik daukagun izuaren aurpegia, hodeien gau beltzetik sortua, ekaitza oinaztu **urtika** hasten denean. **Xabier Amuriza**

Kartzela hau politikoz bete dagoela esaten diedanean uzker **urtika** egiten dute barre ni baino lotuago dauden ergel hauek. **Koldo Izagirre**

Ke-lainoan nagi-**urtika**, aho-zabalka. **Iñaki Iñurrieta**

urtikante *izond* erresumingarria.

Badute habia baten nolabaiteko antza, eta baita garro erresumingarriak (**urtikanteak**) ere. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

urtikaria *iz* larruazalaren sindromea, orban eta hantura arrosa hazgaletsuak ezaugarri dituena.

Feminismoak ia **urtikaria** eragiten die hainbat gizonezkeri. **Berria - Euskal Herria**

Espainiako Indar Armatuak Euskal Herrian egotearen aurka daude abertzaleak beti, eta Espainiako bandera hegazkinen gasekin ikusteak **urtikaria** sortzen die, baina konstituziozaleak oso pozik gaude Indar Armaturen erakustaldiaz. **Berria - Euskal Herria**

urtinta *iz* akuafortearen kideko grabatu teknika, azidoa metalaren gainean hauts geruza baten zehar aritzen dena.

Akuafortea, **urtinta** edo urkolore teknikak erabili zituen, batez ere. **Berria - Kultura**

urtoki *iz* ura dagoen tokia. **ikurgune**.

Urtoki horiek denak, iturriak barne, zorrote ordez jario eskasean eta ttantanka gelditzen badira, hortik pentsa, lurra berak, eguzkiak taxugabe erre eta kiskalitakoan, zenbateko errealdia nozituko duen. **Pello Zabala**

urtsu ik **urzo**.

urtsu 1 *iz* ur asko duena edo daukana.

Mutilak zopa edan zuen, zopa **urtsua** eta ez behar bezain beroa. **Lopez de Arana**

Gizonaren begi **urtsuek** emakumearen ezpainei behatzen zieten, honek pastel motak aztertu eta hitz egiten zuen artean. **Koro Navarro**

Haren begi **urtsuetan** denbora bezain zaharra zen oinaze jasanezin bat irakurri nuen. **Alberto Ladron Arana**

Irria baino gehiago begiak geratu zitzaizkidan barruan iltzatutrik: urdinak, **urtsuak**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ardi melankoliatsuak, bisitarien ganbarako paretetarik aurpegikera galdetzailaz, begi hustu eta **urtsuz** begiratzen zietenak. **Xabier Olarra**

Gero neure burua bistatu nuen haren begi nini **urtsu** eta errietan. **Patxi Zubizarreta**

Esne **urtsuaren** antzeko begi urdinen gainean. **Lopez de Arana**

Esne **urtsuaren** tonua ematen dio ilargiak mendi hegal zabalari. **Pello Lizarralde**

Zuhaitzaren fruiturik jorienak eta **urtsuenak**. **Joan Mari Irigoien**

Aurreko patioan jasotzen genituen bisitariak, eta te hotza, ur beroa eta saka **urtsua** eskaintzen genien. **Javi Cillero**

Ez zuen ahogozatzen jaten ari zen bildots-txuleta **urtsua**. **Lopez de Arana**

Izerdi **urtsuagoa** eta errazagoa botako duzu ilbeheran. **Pello Zabala**

Odol-plasmaren oso antzeko likido **urtsu** bat da likido sinobiala. **Irene Aldasoro**

Droga bat gorputzera sartzeko, eraginkorragoa da larruazala ukenduz igurztea disoluzio **urtsu** batez gaina bustitzea baino. **Irene Aldasoro**

Biharamunean aurkitu zuten gorpua harkaitzen arteko soilgune **urtsu** batean. **Anjel Lertxundi**

Dachau-ko kanpalekua toki intatsu batean, **urtsu** batean eraikia zen. **Marzel Etxehandi**

Zoladura heze eta konkatuak ere, putzu **urtsuz** zipriztindurik. **Mirentxu Larrañaga**

Ahoan zaporea sentitzen dugu, mastekatzean jana esprimitzen dugunean, norbaitek belaki **urtsua** eskuan estutu eta lehortuko balu bezala. **Xabier Amuriza**

Nilo ibai **urtsuaren** abantaila handiak zituena. **Santiago Iruretagoiena**

Euri kopuru eta litroen emanera bagoaz, berriro gure Donostialdea da **urtsuena**. **Pello Zabala**

2 irud/hed

Betaurreko beltzak jantzita ere, min **urtsu** eta suntsizaille baten eraso nabari zitzaion Josefinari. **Aingeru Epaltza**

Kraskada **urtsua** imajinatu zuen. **Joxemari Urteaga**

Esango nuke ezpainak ere zuriz margotuta zituela, zuri **urtsu** batez. **Ramon Saizarbitoria**

Irratiko musiak, bolumen gutzitan segizian zuelarik, ez zidan aintzen egurats-kolore **urtsu** batek nigan beti eragin ohi duen arima-giroa. **Anjel Lertxundi**
Pentsalari guztiak dira amesti; egoera **urtsu** eta flotagarian dagoen pentsamendua da amets giroa. **Koldo Izagirre**

3 (adizlagun gisa)

Harryren begiak **urtsu** jarri ziren berehala, baina ez zituen itxi. **Iñaki Mendiguren**

Harryri Hantura edabea **urtsuegi** atera zitzaion, baina burua beste gauza garrantzitsuago batzuetan zeukan. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begiak urtsu (3)

urtsuki *adlag* era urtsuan.

Han kanpoan berriz islada bat, non gauzek **urtsuki** balantzatu eta desagertu egiten ziren. **Anton Garikano**

urtu, ur(tu), urtzen 1 da/du *ad* beroaren eraginez, gai solido bat isurkari bihurtu.

Zilarra, brontzea, burdina, beruna edo eztainua labearen erdian metatu eta dena **urtzeko** sua suspertzen den bezala. **Elizen arteko biblia**

Pentsatu zuten metal haiek, sutan **urturik**, gauzen edozein forma eta itxura har zezaketela. **Xabier Amuriza**

Bi langileei fundizioan **urtzen** ari ziren galdar gainera erori zitzairen. **Berria - Ekonomia**

Berunginak gara nire herrian: guztiak dakite beruna **urtzen** eta lantzen. **Juan Garzia**

Urtu urrezko lau eraztun eta ezarri kutxaren lau oinetan, bi eraztun albo batean eta bi bestean. **Elizen arteko biblia**

Erreaktorearen nukleoaren zati bat **urtu** egin zen, diseinu akats batek eraginda. **Berria - Harian**

Urdaiazpikoak atontzen zituen eta txerri gantza **urtzen**. **Karlos Zabala**

Argizari koskoa su biziaren gainean likidotzen eta **urtzen** den bezala. **Xabier Amuriza**

Eguzkitik hurbilegi hegan egiteagatik hegala **urtu**, eta harria bezala erorita hil zen. **Xabier Olarra**

Plastikoa **urtu** eta, lurrin eta hidrokarburozko gas ase bihurtzen da. **Berria - Gaiak**

Pentsatu zuen hodiak sorrarazten zituen mikrouhinek **urtu** zutela txokolate zati hura. **Pello Salaburu**

Patagoniako glaziarrek **urtzen** ari dira, klima aldaketa dela eta. **Berria - Gaiak**

Artikoko izotz plaka %8 **urtu** da azken 30 urteotan. **Berria - Gaiak**

Izotz geruza **urtuta**, eguzkiak itsasoko ura berotu egingo du. **Berria - Gaiak**

Urtu dira elurrak eta asfalto lehorrak dago. **Harkaitz Cano**

Elurra **urtzen** ari zitzaion zapatetan. **Koro Navarro**

Lurra izoztu egin zen, eta elurra ez zen **urtu**. **Koro Navarro**

Putzu nazkagarriak, elur erdi **urtua** lurreko zinkeriarekin nahastean sortutakoak. **Jon Arretxe**

Corneton, zenbait gizon deboto fraideen bizilekuan lanera bildua zen kanpai bat **urtzeko**. **Askoren artean**

Horra nun den ezkilak **urtzen** diren burdin ola. **Herria**

2 gai solido bat uretan edo beste isurkari batean desegin.

Eskonfa zuri harroa **urtu** egiten zen pixkanaka, eta ura gozitzen. **Txillardegi**

Patrikan zeraman zorro batetik pastilla txiki bat atera zuen, uretan **urtu** eta edan zuen. **Xabier Olarra**

Azido sulfurikoa eta sosa **urturik** eltze esmaltatu batean, bisulfatoa lortzen genuen. **Juan Garzia**

Ohitura zen zapatak oliotan **urtutako** kedarrez lustratzea. **Patxi Ezkiaga**

Goxokiak ahoan **urtuz** gozitzen baitzituen langintzak sortzen zizkion tentsioak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Arto egosia uretan nahiz esnetan **urtuz** egindako edari bat. **Juan Garzia**

Emakume haren gorputz lurrez egina, lur zoldaz bildua, lokatz putzu batean **urtzen** ari balitz bezala parrastatzen zen. **Juan Garzia**

3 irud/hed

Nire oinetan, nire itzala ilunpean **urtzen** ikustean ur izoztuan murgiltzen ari naizen sentsazioa dut. **Monika Etxebarria**

Haren oinazpian mendiak **urtzen** dira, argizaria suarekin bezala. **Elizen arteko biblia**

Soa zela medio, samurtasunez eta urriki latzez **urtu** nintzen. **Itxaro Borda**

Sehia negarrez **urtzen** zen melodiak entzutean. **Itxaro Borda**

Gizona **urtu** egingo zen, desagertu egingo zen, arrastorik utzi gabe. **Juan Kruz Igerabide**

Ahalgez **urtu** aitzin, hemen uzten dut egungoa. **Piarres Aintziart**

UPN eta PSNko ordezkariak PPn eta PSOEn **urtzen** dira Madrilan. **Berria - Euskal Herria**

Azal horren atzean tristuraz hiltzen edo desiraz **urtzen** ari zen haragizko emakume bat zegokeenik susmatu gabe. **Joxean Agirre**

Baina hitz eskasen hutsa gainditu dudalarik, hustasunak berak absorbatu nau eta elementuetan **urtu** naiz. **Piarres Aintziart**

Gure baratze mingrana bat zen; ahoa **urtu** zitzaigun denoi. **Juan Kruz Igerabide**

Urtzen ari zait bihotza, argizaria irudi.

Hau ikusiz, semeak malkotan **urtu** ziren. **Askoren artean**

Nire begiak malkotan **urtuko** dira. **Elizen arteko biblia**

Urtzen ari zaizkit begiak negarrez, gau eta egun atergabe. **Elizen arteko biblia**

Horregatik, begiak bekaitzez **urtuko** zaizkizu eta bizia ahituko. **Elizen arteko biblia**

Silueta ezaguneko emakumea jiratu, eta alboan zegoen gizonaren ezpainetan **urtu** zituen ezpainak. **Aritz Gorrotxategi**

Eguna urratzera zihoala, leher-leher eginik, garunak ia **urturik**, loak hartu zuen. **Migel Angel Mintegi**

Aurkenek oso modu naturalean eta sanoan esan zidan alua **urtu** egiten zaiola Xabik klitoria miazkatzen dionean. **Luis Elberdin**

Koronelaren tabako-koloreko aurpegia irribarretan **urtzen** ari zen. **Lopez de Arana**

Nahiago nuke **urtu**. **Janbattitt Dirassar**

Gizona **urtu** egingo zen, desagertu egingo zen, arrastorik utzi gabe. **Juan Kruz Igerabide**

Hemen berean **urtu** edo munduaren beste puntarat joan. **Janbattitt Dirassar**

4 (irud/hed gauza abstraktuak)

Begia lotan ez baldin badago, ametsak berez **urtzen** dira. **Itxaro Borda**

Maitiak hitz egin zion une beretik, arima **urtu** zitzaion. **Askoren artean**

Bat-bateko hizketan, ordea, desberdintasun horiek **urtu** egiten dira esaldiaren doinuan. **Lourdes Oñederra**

Oroitu nuen gaztetako gorroto hura, eta gorroto hura ere besarkatu eta besoen artean **urtu** zitzaidan. **Joan Mari Irigoien**

Etsaia barreiatua baitzen, landa eremuaren zabaltasunean **urturik** bezala. **Josu Zabaleta**

Garai bateko ezker fama ere **urtzen** joan omen zaio hiriri. **Anjel Lertxundi**

Denbora guziak **urtzen** dira hemen, inolako sostengurik gabeko "lehen harritze" honetan: denbora poetikoan. **Patziku Perurena**
Jole guztien jardunak emari bakarrean **urtzeko**. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Esperientziak erakusten du nazionalitate bat **urtzen** ahal dela beste baten baitan eta honek hura irents dezakeela. **Piarres Xarriton**
Erbat barrukoa den pietate honek, behin dastatu eta gero, gizakiari eragiten dio **ur** dadin bere txikitasunean eta ezerezean. **Joan Mari Lekuona**

5 (era burutua izenondo gisa)

Nik, berriz, erakutsi diot nola, beira-xafra oraindik beroaren gainean berun **urtua** itsats daitekeen. **Juan Garzia**
Galoi bat berun **urtu** irentsi izan banu bezala. **Oskar Arana**
Harri horrek abantaila handiak ematen ditu brontze **urtuarekin** erabiltzeko. **Santiago Iruretagoiena**
Bere eskuak eta gorpuzka argizari **urtuan** ipini balitu bezalaxe. **Askoren artean**
Ez egin metal **urtuzko** idolorik.
Opilen, garizumaren, elur **urtuaren** eta zaldien simaurraren usaina zegoen. **Jose Morales**
Hurbil bezain sorazio zihonan bere bidean, lei-horma **urtuzko** bere altzoan urrea garraiatuz. **Juan Garzia**
Morfina, kokaina, kloroformo **urtua**, alkohola eta aromatizantea, dena nahastu eta ondo eragina. **Joseba Sarrionandia**
Oinazearen zeremonia publikoan **urtu** zen oinaze partikularra. **Patziku Perurena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahoa urtu (3); **arima urtu** (3); **arima urtu zitzaion** (3); **berehala urtu zen** (3); **bezala urtu** (4); **bihotza urtu** (9); **elurra urtu** (7); **gozamenaz urtu** (3); **izotza urtu** (7); **negarrez urtu** (4)
urtu ahala (3); **urtu zen** (18); **urtu zitzaion** (5); **urtu zuen** (5)
negarrez urtua (3)
argizari urtuaren (4); **elur urtuaren** (3)
malkotan urturik (5)
metal urtuzko (8)
izotza urtzeko (3)
ahoa urtzen (3); **berehala urtzen** (4); **bezala urtzen** (4); **bihotza urtzen** (4); **bizkor urtzen** (3); **elurra urtzen** (6); **fundizioan urtzen** (3); **gantza urtzen** (3); **glaziarrak urtzen** (4); **izotza urtzen** (8); **negarretan urtzen** (3); **negarrez urtzen** (5); **negarrez urtzen zen** (4)
urtzen ari (61); **urtzen ari da** (4); **urtzen ari dela** (3); **urtzen ari den** (5); **urtzen ari dira** (5); **urtzen ari direla** (5); **urtzen ari zen** (16); **urtzen ari ziren** (5); **urtzen da** (9); **urtzen du** (4); **urtzen utzi** (3)

urtuarazi ik **urtarazi**.

urtubera *izond* urtzeko joera duena.

Zineman, esaterako, Ivanhoe, Robin Hood, Laurel and Hardy... izateko bide eskaintzen zigun, gogoaz gozo eta ahoa gozoago, marrubizko goxoki **urtubera** haiek maska eta maska etengabe marruskatzen. **Joxerra Garzia**

urtuketa *iz* urtea.

Fonderiako burdinagileek txorrukotan metatuak zizkieten **urtuketa** -moldeetan erabili lurra. **Koldo Izagirre**

urtuki ik **aurtiki**.

urtutsik ik **ortutsik**.

urtxapal ik **urxapal**.

urtxintx 1 *iz* katagoria.

Urtxintxa da arriskuan dauden espezieetako bat. **Berria - Gaiak**
Bitartean gurasoak hirian egoten ziren lanean, bi seme-alabak eskolan, **urtxintxak** arboletan, txoriak zeruan, eta Giovanni, esan dizuedan bezala, egun guztian ezin asmatu zer egin. **Fernando Rey**
Urtxintxak, ezagutzen zituztelarik, beren agindura azaltzen ziren arboletatik, eta eskuetara igotzen zitzaizkien. **Ramon Saizarbitoria**
Funtsean Behenafarroan ere oihanak gaindika baziren eta erran batek zioen lehengo denboretan **urtxintxa** bat Ezterenzubitik eta Baionara arbolaz arbola joaiten ahal zela jautzeka lurra sekulan hunkitu gabe. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Urtxintxek ere, adibidez, gauza bera egiten dute intxaur eta hurrekin. **Gotzon Garate**
Leku gehiago izango bagenu... -murmurikatu zuen-, **urtxintxen** kaiola batean bizi gaituk. **Lopez de Arana**
Hitzek dantza egiten zuten beren aurpegietan, **urtxintxen** moduan. **Lander Garro**
Bizikletarako galtza motzak eta komiki-liburuetakoa **urtxintxen** itxurako txapinak -ergel eta gusturik gabeak bere ustez- jantzita dituela. **Oskar Arana**

2 (hitz elkartuetan)

Urtxintxa - edo hegazti-habiak edo oihaneko bertze mila animalia bertatik bertara obserbatu ahal izaiteko. **Joan Mari Irigoien**

urtxo ik **urzo**.

urtxulina ik **ursulina**.

urtza *iz* ur kopurua.

Behin gauzadia mugida egokietara jaurtia izan denean, urte mordo luzez eusten dio, eta egiten du ezen ibaiek euren **urtza** ugariz itsaso egarbera horni dezaten eta lurrak

urtzaile

iz metalak-eta urtzen duen pertsona.

Gauza jakina da suak objektu batzuk urtu egiten dituela, beste batzuk gogortu, egosi, erre, zuritu eta belztu egiten dituela, eta norbaitek suari "zuritzaile", "beltzaile", "erretzaile", "egosle", "gogortzaile" eta **"urtzaile"** delako atributuak egotz balieazakio, egia lerrake. [Xabier Kintana](#)

Domingo de Ballenilla ezkila **urtzaile** eta egilea, asturiarra, Trasmiera merindadeko Isla herrikoa. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Jaunak esan zidan: "Begurira nolako prezioa ezarri dioten nire buruari. Eramazkiozu tenpluko **urtzaileari**". [Elizen arteko biblia](#)

urtzain

ik **urtzintz**.

urtzaldi

(*orobat urtzealdi*) *iz* elur-izotzak urtzen diren aldia.

Urtzaldia etorri zen, eguraldi leuna, martxoko lainoak eta eurak. [Karlos Zabala](#)

Hotzaldi elurtetsu baten ostean, hegoaldi epel bare batek elurraren **urtzaldi** uholdetsua ekarri zuen. [Pello Zabala](#)

Anabasa handi horri gehitzen zitzaizkion udaberri goiztiarreko **urtzaldia**, espaloietako putzu uherrak eta lorategietako zuhaitz bat-batean belztuak. [Jose Morales](#)

urtzale

ik **urzale**.

urtzategi

ik **usategi**.

urtze 1

iz beroaren eraginez, gai solido bat isurkari bihurtzea.

Po ibaiaren adar nagusia, Dora Baitea, bete-betea dator, sasoi honetan gertatzen baita glaziarretako elurren **urtze** nagusia. [Anjel Lertxundi](#)

Izotz geruzak zein erritmotan urtzen ari diren neurtuko du, eta itsas mailaren igoerarekin **urtze** horrek zer erlazio duen. [Berria - Gaiak](#)

Bi graduko berotzeak Groenlandiako izotzaren **urtzea** eragin dezakeela diote. [Berria - Gaiak](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Prozesuan, azidotasuna gutxitu egiten zitzaizen (deskarboxilatu egiten ziren) eta **urtze**-puntua ere jaitsi. [Juan Garzia](#)

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mea-hobiaren eskuduntzearen, berun-**urtze** teknologiaren eta metalaren erabilera. [Juan Garzia](#)

Zer dela-eta eguneroko brontzezko kanoi **urtze** eta atzerritik gerrarako gailu ekartzeko taigabe hau; zer dela-eta ontzigitzara behartua hainbeste jende, lan latz horretan jaia eta astea bereizi gabe? [Juan Garzia](#)

1788an, Esgueva ibaia ezustean harrapatu zuen Valladolid hiria, izotz **urtze** bizi bat medio, elur **urtzeak** uholdeak azkartu zituelarik. [Pello Zabala](#)

urtzealdi

ik **urtzaldi**.

urtzear

adlag urtzeko zorian.

Urtzear zeuden tipulatxak. [Jon Muñoz](#)

urtzintz

(*orobat urtzain*) *iz* doministikua. ik **usin**.

Haurrak egiten du **urtzintz**, eta kuxean, berehala, gizon zaharrak oihu egiten dio: "Dominixtekin, haurra!". [Patziku Perurena](#)

Gaizki bulta saihestuz, irri sarkastiko batez askatu nintzen, bi **urtzain** oparoz izparringiaren orrialdea mikrobio ttantaz ziliportatuz: atxiki! [Itxaro Borda](#)

urtzo

ik **urzo**.

urtzotegi

ik **urzotegi**.

urubi¹

iz ulua, oihua. ik **uhuri**.

Zakur alarauek (**urubiek**, auriek, uluek) nobedade txarra. [Gotzon Garate](#)

Gerlan aldiz otso **urubi**. [Herria](#)

urubi²

iz hontzaren antzeko hegazti harraparia lumadi gorrikara edo griskara duena (*Strix aluco*).

Harryk ez zuen ezagutu hirugarren hontza, **urubi** arrunt dotore bat, baina berehala konturatu zen nondik zetorren. [Iñaki Mendiguren](#)

Ez gizona eta ez andrea ez ziren ohartu hontz handi bat, **urubi** bat, hegaldaka igaro zela leiho aurretik. [Iñaki Mendiguren](#)

uruguaiar

ik **uruguaitar**.

uruguaitar (*53 agerraldi, 2 liburu eta 32 artikulutan* –ETCn 569-; *orobat uruguaiar 59 agerraldi, 4 liburu eta 44 artikulutan* –ETCn 345-) *izlag/iz* Uruguaikoa, Uruguairi dagokiona; Uruguaiko herritarra.

Josu Lariz iheslari politikoa dela arrazoitu zuten epaile **uruguaitarrek**. **Berria - Euskal Herria**

Idazle **uruguaitarrak**, izan ere, futbolaren asmakuntza eta jatorrizko jabetza txinatarrei aitortzen dizkie. **Joan Mari Irigoien**

Oker ulertutako hitzez ohartarazten digu Faulknerren itzultzaile ere baden Juan Carlos Onetti **uruguaiar** idazleak. **Iñigo Aranbarri**

Eibarrekin aritzeko eta golak sartzeko «irrikan dago» Ivan Pailos **uruguaitarra**. **Berria - Kirola**

Pablo Garcia Osasunako erdilaria **uruguaitarra** ez da hilaren 18an izan zuen haustura txikitik guztiz osatu. **Berria - Kirola**

Botoa emateko eskubidea 2.487.584 **uruguaitarrek** dute. **Berria - Mundua**

Paletaz, gomazkoarekin, argentinoak aise nagusi, **uruguaitarrak** zafratuz 30-15. **Herria**

Autobusaren arduraduna eta **uruguaitar** bat preso hartu zituztela. **Edorta Jimenez**

uruku¹ *iz* Hego Amerikako zuhaixka, fruitutik izen bereko espezia hori-kolorea ateratzen dena (*Bixa orellana*)

Saltzaileek tindu horren sekretua zintzo gorde uste dute, zeren, **uruku** zuhaitzaren hazitik baldin dadator ere, azenarioz eta ilen lorez ere egiten baitute, egia esateko.

Karlos Zabala

Urukuak oreari kolore hori ederra emateko balio du. **Karlos Zabala**

Orea eta **urukua** laga zituen. **Karlos Zabala**

uruku² *iz*

Han, kanpoan baino gozoago zen noski: oilo zahar eta ahate erlastuen **uruku** ezberdinen artetik, emazte karkara ahalkegabeak hautematen ziren. **Itxaro Borda**

urun ik irin.

uruntzi *iz* itsasontzia, ibaiontzia.

Hor, *Marie Rose* eta *Nivelle* **uruntzietan** ibilaldi bat egin dute itsasoan. **Herria**

urus ik uros.

uruski ik uroski.

urustasun ik urostasun.

urxapal (*orobat urtxapal eta uxapal*) *iz* usapala.

Urxapal bat. **Berria - Kultura**

Noain herrian (hau dugu Zangotzaldeko herri bat), ehun **urtxapal** edo tortoil hilik atxemanak izan dira, pozoinaturik. **Herria**

Usapal maitemindu pareia zen hura, eta **uxapalak** deitzen zieten denek, urruma eta txera besterik ez baitzen haien artean, elkarrekin baizik ez baitziren jendaurrean agertzen, beti musuka eta balakuka. **Karlos Zabala**

urzale (*orobat urtzale g.er.*) *izond/iz* uraren zalea dena.

Mahomatar **urzaleak** kristau edanzaleekin borrokatzen zirenean, belarra segaren aurrean bezala erortzen ziren. **Xabier Olarra**

Indian ehun mila rosif-jale eta brandy-sodazale britainiarrek arraza ario bereko berrehun eta berrogeita hamar milioi barazkijale **urzale** mendean eduki zituzten. **Xabier Olarra**

Urzale erabatekoak bere onetik ateratzen dituzten likore bortitzak. **Xabier Olarra**

urzaletasun *iz* urzalea denaren nolakotasuna.

Ospakizun erlijioso bat, tripazalekeria eta mozkorkeria ezaugarritzat izan ohi dituena, askotan **urzaletasunagatik** ospetsua izandako santuren baten omenez egina. **Xabier Olarra**

Burezurra pulpitutzat uzten dizut poz-**pozik**, // urzaletasuna hartzen duzularik ahotan. **Xabier Olarra**

URZO (*orobat urtso eta urtxo*) **1 iz ipar** usoa.

Behin-berrito maitasunaren sareetan harrapatua nintzen, hegorantz doan **urzo** gaixoaren gisa. **Itxaro Borda**

Iragan fosilizatuaren aztaparretarik askatzeko otsoz, antilopez, arranoz, ostrukaz, ainaraz, gameluz, tukanez edo **urzoz** aldatzea gertatzen zitzaigun. **Itxaro Borda**

Urzo, kaila edo eper bat hurrunetik idakitzen den kaiola batean ezarri eta hezleak libratzen ditu zakurrak tokian, lehena arrestan emaiten da, bertze zakurrek etorri behar dute beren nausi denaren ondotik. **Herria**

2 irud/hed

Atseginekin ikusten ditugu **urzo** pare hau herrian gelditzen Idiarreak etxaldearen segida hartzen dutela. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urzo xuria (3)

urtxo besta (12); **urtxo pare** (4); **urtxo pareari** (3)

bakearen urtxoa (4)

usadio (*581 agerraldi, 89 liburu eta 53 artikulutan; orobat **usario** 118 agerraldi –horietatik 116 P. Perurenarenak-, 4 liburulutan*) **1** iz ohitura. ik **usaia**.

Bertako ohitura, lege zaharra, **usadioa**, legeak eta ohiturak aipatzen dira agiritan. **Iñaki Iñurrieta**
Bere erresumaren mende zeuden bavariarren eta alemanen **usadioak** ere bildu zituen. **Iñaki Iñurrieta**
Germaniarren **usadio** eta ohituren baitan bilatu behar haien jatorria. **Iñaki Iñurrieta**
Herri barbaroen legeak ez ziren **usadioak**, inola ere; aitzitik, lege horiek sartu zituzten **usadioak**, lege pertsonalak ziren aldetik. **Iñaki Iñurrieta**
Usadio hori ezarrita ageri da Markulforen formuletan, barbaroen legeen kodeetan. **Iñaki Iñurrieta**
Badakigu **usadioa** eskubideen iturri bat dela. **Berria - Gaiak**
Kultura eta **usadioa** erabiltzen dute genero indarkeria justifikatzeko. **Berria - Gaiak**
Usadio hori bizirik dago ala jendeak baztertua du dagoeneko? **Patxi Zubizarreta**
Lege salikoak, ez baitzuten onartzen **usadio** hori, alferriko bihurtu ziren nolabait, eta desagertu egin ziren. **Iñaki Iñurrieta**
455 urteko **usadioa** hautsi zuelako. **Berria - Harian**
Horiek gangsterren **usadioak** dituk. **Koldo Izagirre**
Dolua dakartenen **usadioaren** arabera, solapa urratua zeukan. **Koro Navarro**
Asanbladan bildu dira, nola ez, eta **usadio** duten bezala zoragarrizko ardaian hasi dira elkarren artean. **Koldo Izagirre**
Iritziaren oinarria arrazoituen edota sinesten duenaren errorean edo egian datza; sentipena, aldiz, **usadioan** edo naturan oinarritzen da. **Imanol Unzurrunzaga**
Orduan oroitu ahal izan dugu kopenhagetar batzuek, etxetik lantokira alde egitean, lanpara pizturik uzteko **usadioa** dutela, hartara, kale ilun eta izoztuetan itzultzen direnean, etxeke leihoan argi epela ikusi, eta norbait haien zain dagoela imajina baitezakete. **Patxi Zubizarreta**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Santa Krutzetako ohitura eta **usadio** zaharrak maiatzaren 3an kokatuak daude gehienak. **Pello Zabala**
Aspaldiko **usadio** zaharra baita andere eta zaldun ibiltarien artean, ezkutari, neskatxa edo nano mandatariei bitxi finen bat albiste-sari pozgarriztat ematea. **Patxi Ezkiaga**
Aspaldiko **usadioan**, Erromako herritar batek baimena zuen bere emaztea beste bati maileguan emateko, seme-alaba hobeak izatekotan. **Andres Urrutia**
Badakit izen horiek beste zerbaitek adierazten dutela ohiko **usadioan**. **Piarres Xarriton**
Jendearen jarduerak eragin zuzena daukate eguneroko **usadioetan**. **Berria - Euskal Herria**
Magistratuen lapurretak, tratularien kobraketa gaitzak eta egunero gertatzen ziren **usadio** txarrak ordaintzeko. **Iñaki Iñurrieta**
Ez nuke nahi **usadio** gaiztorik har dezan. **Karlos Zabala**
Usadio onen zalea da ezer baino lehen. **Patxi Zubizarreta**
Esadazu, benetan, ezkontza zer den: ahanzia dut, **usadio** zuzenak zer diren ahanzi dudan bezalaxe. **Patxi Zubizarreta**
Horrela sortu omen zen txotxetik edateko egungo **usadioa**. **Martin Anso**
Tokian tokiko **usadioak**. **Patxi Ezkiaga**
Mutil gaztea otzana da, adeitsua, jokamolde eta **usadio** atseginen zalea, liskarrak uxatzen ditu. **Patxi Zubizarreta**
Horietako bat da, edo zen, txakil-ardoa (hots, "zakil-ardoa") izeneko **usadio** beneragarria. **Iñaki Segurola**
Galier menderakaitzen egunkarietan, tradizio laikoa nagusitu zaio **usadio** katolikoari. **Iñigo Aranbarri**
Nikolas leporaino lurperatua dago, tatariarren **usadio** basatiari jarraituz. **Karlos Zabala**
Egunen batean, Frantzia, orainoak baino lege gizatiarrao eraginez **usadio** ankerregi batzuk leuntzen badira, [...]. **Juan Martin Elexpuru**
Frantzia [...] idatzi gabeko ohiturek agintzen zuten, eta jaurreri bakoitzeko **usadio** partikularrek osatzen zuten zuzenbide zibila. **Iñaki Iñurrieta**
Handik mende batzuetara berriz ere lege idatzietatik **usadio** idatzi gabeetara itzuli ziren. **Iñaki Iñurrieta**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erromatar zuzenbidea, epaitegien sententziak eta berrit idatzitako **usadio**-gorputzak ezagutzeak, ikasketa eskatzen zuen. **Iñaki Iñurrieta**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aldaketa hori hiru alorretan da bereziki nabarmena: merkataritzaren alorrean, hasteko, Hegoaldearen konkurrentziak auzitan jarri baititu Iparraldean keynestar garaitik heredaturiko gizarte-**usadioak**. **Koro Navarro**
Ez diegu utziko deuseztatzen gure bitzita eta gure sendia, ezta saltoki txikiak suntsitzen ere, edota gure gizarte eta kultura **usadioak** aldatzen. **Berria - Ekonomia**
Eta aginte zibilaren eta eliza-**usadioen** artean mugak zehaztu nahi direnean, nolako eztabaida azkengabeak! **Juan Martin Elexpuru**
Kultu-**usadio** debekatuak. **Elizen arteko biblia**
Alemaniara bidalitako lehen anaien barne **usadio** eta bizitzaz inoiz gertaeraren bat kontatzen nuenean, entzuten zuten anaien gehienak onbidera erakarriak sentitzen ziren. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ohitura eta usadio (5)
usadio berriak (3); usadio bitxi (3); usadio bitxia (4); usadio horrek irau (3); usadio zahar (5); usadio zaharra (7); usadio zaharrak (3); usadio zaharren (5)
egiteko usadioa (3); lehia judizialaren usadioa (6); usadioa hartu (4)
beren usadioak (4)
usadioan bezala (3)
usadioaren arabera (11)
usadioari jarraituz (7)
gure usadioen (4); ohitura eta usadioen (3); usadioen arabera (5)
euskal usario (4); usario zahar (6)
euskal usarioan (16); gure usarioan (5)

usaera iz erabilera.

Horien bitartez, ezkontzaren fedea asmo itsutik eta irristen desbideraketak eskubideen **usaera** arautuetatik -gizaki orori preziatuen zaizkion horietatik, hain zuzen ere- bereizten ikasten da. **Andres Urrutia**

usai¹ ik **usain**.

usai² ik **usaia**.

usaia (orobat **usai g.er.**) **1** iz ohitura, usadioa.

Maite ditudalako gure ohitura edo **usaia** guziak, izan dantin dantza, pilota, kantua, bertsolariak, lehengo birla joko eta abar. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Zeren eta anitz aldiz egin den zerbaiten ondotik gelditzen den **usaia** eta kostuma baita ohitura. **Piarres Xarriton**

Mendiez beste aldean, ahaide eta adiskideak bizi ziren, hizkuntza berean elkar ulertzen zuten jendeak, aspaldiko denboretarik **usaia** eta ohidura berak zituzten jendeak.

Elena Touyarou

Baina jadanik, paperarekin ibiliz ere, gutiago baliu genezake, gure **usaiak** pixka bat aldatuz. **Berria - Euskal Herria**

Uztail hilabeteko lehen igandean, **usaiak** manatzen duen bezala, dugu gure herriko kermeza. **Herria**

Urtats ondoko astean, **usaiak** hori hola manatzen-eta, bilkura bereziak egiten dira herriko etxetan urte berriaren agurtzeko. **Herria**

Usaiak nahi duen bezala, herriko langile, kontseilari eta kontseilari ohi, elkarteetako arduradun, zerbitzu publiko, enpresa eta erietxeetako buru, denak bildu dira auzapeza eta bere kontseilukoen inguruan. **Herria**

Usaia da partitu aitzin ordaintzea. **Koldo Izagirre**

Hegoaldean, **usaia** da arnoa edatea, txikiteoa eginez taldeetan. **Menane Oxandabaratz**

Ez da gure **usaia** pilotarien mendratzea. **Herria**

Usaia den bezala, gerlari ohien elgarretaratzea izanen da egun hortan. **Herria**

Usaia den bezala, ikasurtea, kafe baten itzulian hasi dute giro ezin lasai eta goxoan. **Michel Oronoz**

Eta ondotik, **usaia** den bezala, elgarrekin eguna goxoki bururatzeko talo eta xingar jateko izanen da. **Herria**

Baigorri Bettiri izendatzeko **usaia** hartu zuten. **Michel Oronoz**

Usaia hartua duten bezala urte hastapen huntan ere elgarretaratu dira erretretatuak Sororateian herriko etxeak gomitatutik. **Herria**

Denbora pasa, nik ere hartu nuen Pariserat itzuli baten egiteko **usaia**, ardura larunbarekin. **Janbattitt Dirassar**

Ezagun da ez dutela denek **usaia** hori berena. **Michel Oronoz**

Herriko Etxetik ere **usaia** duten bixita egin diote. Artxiboetan idatzia da 1706eko apirilaren 18an Herriko premuek, **usaia** zuten bezala, beren biltzar nagusia Anhaue elizako kalostreapean egin zutela. **Herria**

Baratzeko piktzearen gainera igotzeko **usaia** ordutik zeukan. **Itxaro Borda**

Apez epelak funtzionatuko du, **usaiaren usaiak** eta bizi behar baita, materialki eta barne-iraultza handirik gabe. **Piarres Aintziart**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez da deus handiagorik arrantzale herrixka bat baino, bere **usaia** zahar eta inozentez, itsasoaren bazterrean. **Ibon Uribarri**

Aurten ere, aspaldiko **usaia** xaharra berme, errege magoak etorri dira Donibane Lohizunerat. **Herria**

Gisa guziz, **usaia** txarrak hartu direla bainan beti zail dela hola hartu usaia baten uztea. **Herria**

Sinesmena lehenago **usaia** sozial bat zen ere, praktikak ideiak gidatzen zituen, sentimentuak pizten. **Piarres Aintziart**

Hiruek segitu genuen hari beretik, pentsatuz berdin **usaia** xaharren aztarna hunkigarri batzuk ginela gu, apezak. **Piarres Aintziart**

Hango jendeek badute **usaia** bat berezia. **Aurelia Arkotxa**

Atxiki dezagun heskualdun odola garbi, eta hor gazteei mintzo naiz, hobe duzue hilik, kanpoko **usaia** likitsek kutsaturik baino. **Itxaro Borda**

Aspaldiko **usaia** dute hori Donibane Lohizuneko Begiraleak elkarteak: urtarrileko azken larunbatean egiten dute beren biltzar nagusia. **Herria**

Indietako eskualde batzuetan aspaldiko **usaia** da emazteak bandana batekin agertzeko norapait ateratzen direlarik. **Herria**

Jendeen artean izaiteko **usaia** galdua. **Filipe Bidart**

3 *usaiari* adlag jeneralean, normalean.

Usaiari besta handia antolatzen da. **Itxaro Borda**

Usaiari, diziplina zelaian lau aste egon eta oraino bizi zirenak laneko komando batetarat igortzen zituzten. **Michel Oronoz**

Usaiari adixkidetasunak elgarren eite dutenak elgarretaritzen ditik. **Michel Oronoz**

Etxean **usaiari** ibiltzen zuten frantses mintzaira. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Igandean, **usaiari** bezala izan nintzen Parisen baina hiria dena hutsa eta hitsa kausitu nuen. **Janbattitt Dirassar**

Emaztea so gelditu zitzaion, **usaiari** bezala, mamu bat ikusten zuela iduri, eta berriz sukalderratu zen. **Elena Touyarou**

Usaiari bezala aintzineko egunetan herriko etxe guzietan emazte batzu iraganen dire gure emaitzen biltzeko. **Herria**

Usaiari ez bezala, Iparraldeko bertsolariak jokatu dute beren arteko kanporaketa. **Herria**

Magali **usaiari** baino airosago iduritu zitzaidan. **Janbattitt Dirassar**

Dakizun bezala, holakotan, **usaiari** biak hobendun dira. **Michel Oronoz**

4 *usaiako* izlag ohikoa.

Usaiako garbiketak eta xuriketak, beroan bero. **Piarres Aintziart**

Usaiako konplimentuen ondotik, galdegin genuen zer egin zen Bordes jaun apeza. **Marzel Etxehandi**

Usaiako miaketaren ondotik, lehoien pasabidea harturik, banao ibiltokira. **Filipe Bidart**

Gauzak **usaiako** normaltasunera itzuli ziren. **Elena Touyarou**

Apezarekin batean atera ginen **usaiako** meza hasi gabe. **Michel Oronoz**

Halere gizon gehienek bazituzten beren **usaiako** lekuak, **usaiako** auzoekin. **Michel Oronoz**

Ene **usaiako** lanari lotu nintzen, hemen guti aipatzen dudana sailari. **Piarres Aintziart**

Apezak kapa gorri bat soinean, guk, beretterrek, gure **usaiako** sotana gorria utzirik, sotana brioleta bat. **Michel Oronoz**

Elkarte hunek jakinarazten du **usaiako** hilabeteko bigarren ortzegunean ez duela **usaiako** lekuan egiten bere aratsaldekoa. **Herria**

Omiainsainu eguna iragan da **usaiako** bildutasunean gogoan gintuela gure hil maiteak. **Herria**

Helduden larunbat eta igandean iraganen da Iholdin **usaiako** okasionezko tresnen feira **usaiako** tokian. **Herria**

Negu betean ginen 10 eta 20 zero azpiko hotza **usaiakoa** zen. **Marzel Etxehandi**

Gaineratekoak **usaiakoak** izanen dira: pilota, dantza eta janaldi. **Herria**

Usaiak ez du barkatzerik denak **usaiakoak** egin arte, usaiak itsutzen zaitu gauza ederrenen eta arraroenen aitzinean. **Michel Oronoz**

Usaiakoetan, batto baizik ez baginu aipatu behar, hauta ginezake *Herri Urrats* bixtan da, Iparraldeko ikastolen besta handia. **Herria**

5 *ez-usaiako* usaiak kanpoko.

Apirilaren 20an, gauaz, ez **usaiako** tirokaldi bat entzuten dugu. **Michel Oronoz**

Iduritu zaut huntzaren uhukak bazuela ez **usaiako** doinu bat deitu nuelarik. **Michel Oronoz**

Beranta dute, afari arin batekin gelditzen dira, bestenez ere ez dute halako gosea, ez **usaiako** arratsal-askaria egin baitute. **Michel Oronoz**

Zer mundua, ez **usaiakoa**, eta gora, biziki gora, sai tropak itzulika kurutzatzen ari, ezteki, hedoiak erdian lerratzen balire bezala. **Michel Oronoz**

6 *usaiak* kanpoko

Autoa ere **usaiak kanpoko** toki batean ezarri nuen. **Daniel Landart**

Fernandok gibelean **usaiak kanpoko** hutsak egin ditu, ondarrean xuxendu bada ere. **Herria**

Merezi dutelako **usaiak kanpoko** tratamendua, antolatzailek eskaintzen diete euskal erakustokiaren bisita eta ondotik bazkaria. **Herria**

Ardura berezia deitzen da ere **usaiak kanpoko** den zerbait, usu ikusten ez dena. **Herria**

Handik goiti jokatu da egiazko partida, interesgarria baina bi irabazleak Mayteri ari baitziren, gibelerat, hau asearazi dute zinez, aintz huts eginarazi ere, **usaiak kanpokoak**.

Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aspaldiko **usaia** (10); **egiteko usaia** (4); **gure usaia** (4); **hartu usaia** (3); **ibiltzeko usaia** (6); **ohitura edo usaia** (3)

usaia badute (3); **usaia da** (4); **usaia den bezala** (18); **usaia du** (5); **usaia duten bezala** (4); **usaia handia** (3); **usaia hartu** (4); **usaia hartua** (11); **usaia hola hartua** (6); **usaia txarrak** (3); **usaia xahar** (5); **usaia xaharra** (5); **usaia zahar** (3)

usaia manatzen duen (3)

bere usaia (23); **beren usaia** (10); **ez usaia** (12); **gure usaia** (6)

usaia arrakasta (6); **usaia** arrakastarekin (3); **usaia** bezituekin (5); **usaia** bidekin (3); **usaia** hilabeteko (3); **usaia** jende (8); **usaia** jende oste (4); **usaia** jendea (10); **usaia** lagunekin (5); **usaia** lekuan (3); **usaia** meza (3); **usaia** mugimendua (3); **usaia** omore onean (3); **usaia** partida (4); **usaia** tenorean (6); **usaia** tenoretan (5); **usaia** tokian (5); **usaia** zeremonia (3)

bestak usaian (3); **ondotik usaian bezala** (3)

usaian baino aise (4); **usaian baino gehiago** (4); **usaian baino jende** (10); **usaian bezala** (209); **usaian bezenbat** (3); **usaian ez bezala** (10); **usaian ez bezalako** (5); **zen usaian** (3); **ziren usaian** (3)

usaia ez galtzeko (4)

usaia jarraikiz (6)

usaiaz kanpoko (18); **usaiaz kanpoko** (3)

usaiatu, usaia(tu), usaiatzen da *ad* ohitu.

Hastapena arrakastatsua izan arren, laster behar izan zituen ateak hetsi: kuriositatearen lehen efetua pasa orduko, jendea pilotarien balentrietaz **usaiatu** baitzen.

Ramuntxo Etxeberri

usaimen 1 iz usaintzeko ahalmena.

Ikusmenaz, entzumenaz, dastamenaz eta **usaimenaz** arduratzen diren sentipen-organoak. **Irene Aldasoro**

Antzinako zentzumenetan, **usaimena** izango zen ziur asko eboluzioaren eszenara agertzen lehena. **Irene Aldasoro**

Gure antzinako arbasoek, itsasoan igeri zebiltzala, **usaimena** garatu zuten janaria bilatzeko eta harrapariei ihes egiteko. **Irene Aldasoro**

Usaimena, hala kitzikatua, dastamenaren osagarri gertatzen zaigu jakiei zaporea hartzerakoan. **Irene Aldasoro**

Uste dut **usaimena** ere galtzen hasi naizela. **Jasone Osoro**

Usaimena astintzen dit airean dagoen usain gozo sarkorrak. **Pako Aristi**

Sentsazio anitz biltzen dira horretan, hala ikusizkoak nola ukimenezkoak, nahiz **usaimenezkoak** nahiz dastamenezkoak. **Jon Alonso**

2 (*izenondoekin*) Ehiza zakurrak ziren, azkarrak eta **usaimen** onekoak. **Jon Maia**

Usaimen berezia zuen jendearen barne kontzientziak arakatzeko, keinu bakar batetik abiatuz ingurukoek zer pentsatzen zuten asmatzeko. **Harkaitz Cano**

Eboluzioan zehar atzera uretara itzultitako itsas ugaztun askok, hala nola izurdeak eta mazopak, oso **usaimen** eskasa dute, edo batere ez. **Irene Aldasoro**

Are **usaimen** bikainagoa dute intsektuek. **Irene Aldasoro**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arnasten dugun aire gehiena ez da eskuarki **usaimen**-eremutik igarotzen. **Irene Aldasoro**

Usaimen-mukosak 50 milioi zelula hartzaile inguru ditu. **Irene Aldasoro**

Detektatu beharreko gaiaren molekulek eta sudurreko eskualde txikiko **usaimen**-zelulek elkarrekin duten eragin-trukea. **Irene Aldasoro**

Usaina detektatzen dutenean, nerbio-seinalea garunera, **usaimen**-erreboiloko eremu jakin batera, bidaltzen dute, nerbio bulkada baten bidez. **Berria - Gaiak**

Gero, garunera transmititzen dira, **usaimen**-nerbioaren 50.000 zuntzetan zehar. **Irene Aldasoro**

Usaimen-pigmentu batek ematen dion berariazko kolore marroi edo horia du sudurreko **usaimen**-eskualdeak. **Irene Aldasoro**

Usaimen errezeptoreak proteinak dira; elkarri lotutako proteinak. **Berria - Gaiak**

Hura bai gertaera, neguko **usaimen**-hutsarte luzearen ondorengo lehenengo usaina! **Jon Muñoz**

Zazpiehun mikrogramo inguruan dago dastamen-atalasea eta hamabi mikrogramo inguruan **usaimen**-atalasea. **Irene Aldasoro**

Azken esaldia irakurtzean pentsakor geratu zen berriro, Antonio lehengusuaren ausardia, atrebenzia eta **usaimen**-memoria miretsiz. **Joxemari Urteaga**

Sudur-bideetako **usaimen**-ataletako barne-estaldura hezean funtzionatzen baitu. **Irene Aldasoro**

Azeri-txakurrek, polizia-txakurrek eta [...] marihuana eta beste narkotiko batzuk bilatzeko trebaturiko txakurrek, denek erakusten dituzte giza sudurrak iristerik ez daukan **usaimen**-ahalmenak. **Irene Aldasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

usaimen errezeptore (3); **usaimen mukosaren** (3)

usaimena eta dastamena (5)

usain 1 iz hainbat gauzari darion jario lurrunkorra, sudurrean datzan zentzumenari eragiteko gauza dena. ikurrin¹.

Taldetik urrutiratu da, hiriko **usain** eta koloreak bere kasa ezagutzeko. **Anjel Lertxundi**

Animalia eta landare gaiek, su bizitan erroerik, izaten duten **usain** eta dasta. **Josu Zabaleta**

Usain bakoitza multzo horietako batean baino gehiagotan egon daiteke proportzio batean edo bestean. **Irene Aldasoro**

Usain hori berehala burmuineko plazeraren guneetara iristen da. **Luis Elberdin**

Zorionez, laster ohitzen zara **usain** horietara. **Gotzon Garate**

Haurtxo baten **usaina** darizu. **Ibon Uribarri**

Esne minduaren **usaina** zerion. **Anjel Lertxundi**

Belar ustelduaren **usaina** zegoen airean geldia. **Anjel Lertxundi**

Eta kresalezko lurrunaren **usaina** oso sarkor hedatzen. **Txillardegi**

Eguerdikoa kanpai-hotsekin batera kaleak gulasch saltsaren **usainez** betetzen ziren. **Xabier Olarra**

Inolako beldurrik gabe sartzen zena ixituretan barrera, atepetik **usaina** hartzera joateko. **Josu Zabaleta**

Arrain frijiuak eta gasak isuritako **usaina** nagusi zen bertan. **Lopez de Arana**

Jerez beroaren, kremaren eta otarrainaren **usaina** hedatu zen jantokian zehar. **Lopez de Arana**

Une hartan, *marolles* gaztaren **usaina** zen nagusi. **Karlos Zabala**

Ondoko sotoetatik mota guztietako **usainak** iristen zitzaizkien oholetatik zehar. **Karlos Zabala**

Paper zaharren **usaina** aditzen nuen, eta halako ikara airean. **Joxan Elozegi**

Ametsetan hartu nituen edertasun-gai haiek, nire **usainaren** gozoa adituz eta nire larruazalaren labaindura sentituz. **Joxan Elozegi**

Hildakoak pizteko moduko **usaina** du. **Anjel Lertxundi**

Usain bat, begirada bat, inolako garrantzirik gabe botatako hitz bat: lehendabiziko inpresio hori suaz markatuta baino irmoago geratzen zaigu pertsona bati buruzko iritzia

manitzeko ordutan. [Anjel Lertxundi](#)

Erakusmahaiaren [usaina](#) nardagarria zen, baxera koipetsuari eta harraska gaizki garbituari dariena bezalakoa. [Karlos Zabala](#)

Bikiak zarete, baina zure [usaina](#) askoz ederragoa eta sarkorragoa da Anarena baino. [Aitor Arana](#)

Oso sentibera da [usainetarako](#). [Xabier Olarra](#)

[Usaina](#) detektatzen dutenean, nerbio-seinalea garunera, usaimen-erreboiloko eremu jakin batera, bidaltzen dute, nerbio bulkada baten bidez. [Berria - Gaiak](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

[Usain](#) gozoko belar eta lore ederreko landareak. [Askoren artean](#)

Okelaren [usain](#) gezak, barrukien [usain](#) garratzak odola irakitan jarri zioten. [Karlos Zabala](#)

[Usain](#) atsegina niretzat, Putzu kaleko [usain](#) bera. [Txillardegia](#)

-Hemen [usain](#) txarra dago! [Juan Kruz Igerabide](#)

[Usain](#) txarrak beti izan dira San Markosen. [Berria - Euskal Herria](#)

Sasi errezko [usain](#) garratz bat. [Juan Garzia](#)

[Usain](#) minak: amoniakoa eta nikotina, esate baterako. [Irene Aldasoro](#)

[Usain](#) sarkorra zerion, sunda gazi-gozo halako bat. [Anjel Lertxundi](#)

[Usain](#) etereoak: alkohola eta kloroformoa, esate baterako. [Irene Aldasoro](#)

Oso [usain](#) berezia zerion nire azalari. [Joxan Elozegi](#)

Hezeak zeuden, eta itsas belarren [usain](#) freskoa zerien. [Karlos Zabala](#)

Gregory zahararren ostatuan, *smoked-meat*aren [usain](#) beroa. [Aurelia Arkotxa](#)

[Usain](#) itzela dago gelan: gizon izerdituaren usaina. [Hasier Etxeberria](#)

Ez zion erreparatzen jendez gainezka zeuden etxebizitzaren [usain](#) mintu eta gazi-gezari. [Lopez de Arana](#)

Geltokian dagoen [usain](#) trinkoa saretu nahi duela ematen du. [Berria - Kultura](#)

Elizako [usain](#) lodi sarkor hura. [Joan Mari Irigoien](#)

Usteltzen hasitako haragiaren [usain](#) mingotsa zuen aireak. [Anjel Lertxundi](#)

Aza zopa madarikatu horrek [usain](#) ikaragarria zuen. [Karlos Zabala](#)

Frantxuaren soa bezainbat Kastela eta Thierry eskaleen [usain](#) lakarra ekiditen saiatu zen. [Itxaro Borda](#)

Bizitasun arraro batez aditzen nuen [usain](#) higuigarri hura. [Joxan Elozegi](#)

Absentaren [usain](#) okaztagarriak Jimmyren edontzitik gora egiten zuen mago baten arrosa-sorta bailitzan. [Lopez de Arana](#)

Zaldi eta mando, zakur eta katu hildako eta kiskalitakoen [usain](#) gaiztoa. [Felipe Juaristi](#)

Pertsonen isilatasuna trenen zalapartak zaplaztatzen du; eta gauza guztiak [usain](#) zikina dute. [Iñaki Zabaleta](#)

Usteltzen hasitako haragiaren [usain](#) mingotsa zuen aireak. [Anjel Lertxundi](#)

Nola orainak urrutiko [usainak](#) bezala, urrutiko irudiak bezala ihes egiten zion. [Felipe Juaristi](#)

Baliteke zelula hartzaile espezializatuek egotea usaimen-mukosari; batzuek oinarriko [usain](#) bat sentitzea, alegia, eta beste batzuek, berriz, beste bat. [Irene Aldasoro](#)

Oi haurreko [usain](#), irudi, giro eta gauza bizigabeak. [Herria](#)

Ezin ahantzizko [usaina](#), gaur guti baizik senditzen dena. [Herria](#)

[Usain](#) sexuala oso estimulu bizia da. [Luis Elberdin](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Azaoka bilduriko [usain](#)-belarrak eta krabelinak ikonoen alboan. [Jose Morales](#)

[Usain](#) belarrez egindako zigarrotxoak erretzen zituen bata bestearen atzetik. [Bernardo Atxaga](#)

[Usain](#)-sentipena izateko, usaimen-mukosara garraiatu behar da dagokion substantzia. [Irene Aldasoro](#)

[Usain](#)-seinaleak zuzenean igarotzen dira garunera. [Irene Aldasoro](#)

Neure barruan arrapizten ziren irudiak eta [usain](#)-aztarnak hobeki dastatzekotan, bi begiak hesten nituen, eta bi belarriak gortzen. Harryk lur hezearen eta ongarriaren [usain](#)-bafada bat hartu zuen. [Txillardegia](#)

Horiatariko sistema baten arabera, badira lau [usain](#) mota: lurrintsua, azidoa, errea eta kaprilikoa. [Irene Aldasoro](#)

Laztan, [usain](#) eta zapore nahasketak sentsualitatearen gorenera eramaten gaitu. [Luis Elberdin](#)

Beste inon aurkitu ez dudana [usain](#)-egurats berezia hatsartu ohi zen gure sotoaren espaloian. [Txillardegia](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izen balioa duela)

Alferrikakoak liratekeen lodigarri, egonkortzaile, [usain](#)-emaile eta koloratzaile ugari gehitzen bide zaizkie janariei. [Edorta Agirre](#)

Lekale beratuak, labore hozituak, [usain](#)-emaile natural eta sintetikoak. [Edorta Agirre](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arrain [usainak](#) kalte egiten dit, agi danean. [Karlos Zabala](#)

Mahats-lukuen gozoa dute niretzat zure bularrek, sagar-[usain](#) ezta zure arnasak. [Elizen arteko biblia](#)

Garro-[usain](#) bete-betea. [Andoni Egaña](#)

Aireak iodo [usain](#) bortiitza hartzen duelarik. [Ana Urkiza](#)

Ke eta kafe [usainaren](#) artean. [Hasier Etxeberria](#)

-Absenta-[usaina](#) dago -esan zuen Ellenek-. [Lopez de Arana](#)

-Egundoko katu [usaina](#) dago -diotsot. [Edorta Jimenez](#)

Bere ondoan etzan nintzenez, gorputz [usain](#) hura zela nire aberri bakarra jarri nintzen pentsatzen. [Hasier Etxeberria](#)

Izerdi [usain](#) sukartsu bat etortzen zaiola maindireetatik sudurrera. [Hasier Etxeberria](#)

Bularreko haur bati darion esne-[usaina](#) zen. [Ibon Urbarri](#)

Airea janari-[usain](#) koipetsuz blai zegoen. [Lopez de Arana](#)

Ontzi pintatu berriei itsatsitako kresal-[usain](#) hura sudur-mintzetan. [Anjel Lertxundi](#)

Bolbora [usain](#) handia zegoen inguruan. [Berria - Euskal Herria](#)

Jakitoki-[usain](#) koipetsua zerion. [Lopez de Arana](#)

Eskaileretan, perfume-[usain](#) heze sarkor batek egin zion ongiatorria gizonaren sudurrari. [Irene Aldasoro](#)

Igaro zenean, kosmetiko [usain](#) sarkorra usaindu nion. [Juan Kruz Igerabide](#)

Besazpi-[usain](#) ahul bat zerion. [Ibon Urbarri](#)

Handia zen zoko-[usaina](#). [Anjel Lertxundi](#)

Itxi-[usainak](#) edo usain itogarriak. [Irene Aldasoro](#)

Garbi-[usain](#) zorabiagarri batek hartu zuen konpartimendua. [Anjel Lertxundi](#)

Sudurra haren orrien artean sartuta arnasa hartzean halako mintu-[usain](#) bat hartzen zitzaion. [Alberto Ladron Arana](#)

Ganbara iluna, gauzaz bete, lizun [usain](#) nahasgarria. [Juan Kruz Igerabide](#)

Lizun-[usaineko](#) harri hezeko gorapean, ehiza-zaina zegoen. [Xabier Olarra](#)

Kafetegi korrienteak, salami, arrautza, kafe eta milatan erabilitako olio [usainekoak](#). [Iñaki Zabaleta](#)

Mirra, aloa eta kanela **usaizkoak** zure jantziak, harpo-soinua marfilezko jauregietan zure alagarrri. [Elizen arteko biblia](#)

Tindategi bat eta erre-**usain** misterioetsua zerion ikuztegi txinatar bat. [Lopez de Arana](#)

-Katuaren pixa-**usaina** dago hemen! [Jon Muñoz](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia izenondoduna dela)

Garagardo eta arrain ustel **usaina** zerion ostatu itxi batean. [Felipe Juaristi](#)

Haragi ustel **usaina** zegoen barrieturik, odol eta alkoholarenarekin batera. [Felipe Juaristi](#)

Odol berri **usaina** zerion oraindik hari. [Joxemari Urteaga](#)

Ogi prefabrikatu **usaina** izerdiarekin nahasturik. [Eider Rodriguez](#)

Lur hiro **usaina** zebilakion andereari. [Itxaro Borda](#)

7 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Oilo salda **usaina**, baba eta ilar bihikatzeko soinua. [Itxaro Borda](#)

Kastore-olio **usaineko** igogailu estu batean zeuden. [Lopez de Arana](#)

Eta zaldi-gorotz **usaina**, nabarmen. [Txillardegia](#)

8 irud/hed

Mozzkortuta ala ezz, diruaren **usaina** ... airean hartzen dut nik. [Lopez de Arana](#)

Euforia nagusi, arrakastaren **usaina** bazter orotatik. [Unai Iturriaga](#)

"Haiek" diskete batzuen ustezko desagerpena aipatzen ditek; hik horren **usainik** ez. [Aingeru Epaltza](#)

Gauaren **usaina** zekarren haizeak. [Joxan Elozegi](#)

Neguaire indar lokartuaren **usaina**. [Joxan Elozegi](#)

Esaldi inozo hura, postdata alferrikako eta aitzakia merkearen **usaina** zeriona. [Harkaitz Cano](#)

Zinema beltzaren **usaina** duen filma da, Abel Ferrarak egin duen klasikoena. [Berria - Harian](#)

Hark, ezaxolati izaki, bihotz-babala guztiz, eta azpikeriaren **usainik** gabea, ez ditu miatuko armak. [Juan Garzia](#)

Zer **usain** hartzen diozu euskal gatazkaren konponbide aukerari? [Berria - Euskal Herria](#)

Usain hori hartzen zaio kanpainari, eta batzuek dagoeneko usaina baino zertxobait gehiago sumatu dute. [Berria - Euskal Herria](#)

Gero, berriz, irratietako eta telebistetako jardunak kiratsa bihurtu zuen **usain** hori. [Joxerra Garzia](#)

Partidari **usaina** ere ederki hartu zion. [Berria - Kirola](#)

Jai horren **usainera** bildu den gizajo eskazale tripazai guziaren prototipoan gorpuztu baita. [Patziku Perurena](#)

Juninho brasildarra golaren **usainean** egon zen sarri. [Berria - Kirola](#)

Graciano Gomezen *Todo a tus pies* kubatar **usaineko** abesti alai. [Berria - Kultura](#)

9 (irud/hed, izenondoekin)

Bakearen **usain** goxoa. [Berria - Euskal Herria](#)

Lurraren izerdian **usain** beroak eta hotzak, hezeak eta idorrek dira nahasian. [Pello Lizarralde](#)

Heldutakuna eta erantzunkizuna eskatzen zuen egitekoa zen hura [...] eta **usain** ona zerion, idor eta garbia. [Juan Garzia](#)

Usain txarra hartzen diot nik, eta ez talibanen antzera ni ere sudur-luzea naizelako, ez behintzat horregatik bakarrik. [Joxerra Garzia](#)

-Ez zioat honi batere **usain** onik hartzen, ez zekiat. [Harkaitz Cano](#)

Usain txarreko istiluren bat badarabilte Quenutarren dendan. [Karlos Zabala](#)

Haren santutasunaren **usain** gozoak erakarrita. [Askoren artean](#)

Beti sumatu izandu dut ijito **usain** ikaragarria, euskal erlijio eta sineskeria orotan ere. [Patziku Perurena](#)

Bere semeen egintzen **usain** gozoak blai, Frantzisko santua ez zen bere baitan kabitzen pozaren pozez. [Askoren artean](#)

Behartua nago guztiak zerbitzatzera eta nire Jaunaren **usain** gozoko hitzak ematera. [Karlos Zabala](#)

Laster, askoren santutasun **usain** ezia kirats bihurtuko da, kiratsa darien ahoak ixten ez badira. [Askoren artean](#)

10 (irud/hed, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Fruituek, haien inguruan, udaberri **usain** freskoa zuten. [Karlos Zabala](#)

Istilu **usaina** dago, giro arraroa. [Harkaitz Cano](#)

Opor **usainean** dabil François frantziarra ere. [Berria - Harian](#)

Briatorek beti izan du inguruan mafioso **usain** hori, eta horrek zer pentsa ematen du, baita Renaulti buruz ere. [Berria - Kirola](#)

Mundu guztiak salatari-**usaina** hartzen dio mundu guztiari, etsaia ikusten da alde guztietan. [Juan Martin Elexpuru](#)

Bestea utzi nahi zuen norberak, bere biktima **usainarekin**. [Joxan Elozegi](#)

Alferrik ibili nintzela seme deitzen eta horrelako tonto **usainetan**. [Hasier Etxeberria](#)

Halako amatasun **usaina** edo sentiutu behar duzu zeure gorputzean, eta nik, usainen aurrean horren sentibera nengoen hartan, deus ere ez nuen horrelakorik sentitzen neure larruan. [Joxan Elozegi](#)

Haren inguruan nabari zen loak isuritako halako zorion-**usain** bat, barnekua, xuabea. [Lopez de Arana](#)

Garaipen **usaina** nabari zen barruan. [Unai Iturriaga](#)

Errezeloz begiratzen dio apriorismoaren, dogmaren edo ideologiaren kezka **usain** desatsegin hori duela iruditzen zaion guztiari. [Anjel Lertxundi](#)

Galtzen direnentzat, heriotza ematen duen heriotza-**usaina**; salbatzen direnentzat, berriz, bizitza ematen duen bizi-**usaina**. [Elizen arteko biblia](#)

Mendeku **usaina** dario polizi operazioari. [Berria - Ekonomia](#)

Final **usaina** nabari zen bazterretan. [Berria - Kirola](#)

Gaitzespen-**usain** nabarmena zegoen airean. [Anton Garikano](#)

-Ellen alaiaki eseri zen taxiaren larruzko jarleku hautsez betearen gainean, arnasa sakonki hartzen zuela goizeko aire ibai-**usaineko** barneratuz. [Lopez de Arana](#)

Donejakuera daraman bide erromes-**usaineko** harturik, [Felipe Juaristi](#)

11 (irud/hed, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia izenondoduna dela)

Azukrea erretzeko gogoa zuen, han sumatzen zuen argalkeria doilor **usaina** uxatzeko. [Karlos Zabala](#)

12 **usain egin** zerbaiten usaina hartzeko bertara sudurra hurbildu. ikusaindu.

Stephenek, **usain egin**, eta sudurra uzkurto zuen. [Xabier Olarra](#)

Sasoi hartan, bada, liburuai **usain egin** eta hotzikarak izaten nituen. [Karlos Zabala](#)

Ertza sudurrera eraman, eta **usain egin** zion. [Anjel Lertxundi](#)

Berniz potea ireki, eta **usain egin** zion. [Juan Kruz Igerabide](#)

Zakurkumea lau hankak luzatu eta zoruari **usain egiten** hasi zen. [Jose Morales](#)

Nik, batzuetan, **usain egiten** nien oinei eta onartu behar izaten nuen usain txarra zeriela. [Pello Lizarralde](#)

Gauzei **usain egin** eta usaina hartu beharrean gauzak ulertzera (eta izendatzera, bataiatzera... dena alfer samarrik) tematzen dena. [Iñaki Segurola](#)

Txakur batek beste txakur batekin topo egiten duenean, mezu hau bidaltzen dio: **usain egidazu**. [Irene Aldasoro](#)

Ahalik luzeen eusten zion **usain egiteari**, mofeta hilaren kiratsetik gordetzeko. [Anjel Lertxundi](#)

Mutilak gonan **usain egiten** zion luzaro, jolas antzean. [Karlos Zabala](#)

13 usain-gozo ik usaingozatu.

14 usain-gozatu ik usaingozatu.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

belar usain (4); bere usain (4); beren usain (4); erre usain (11); esne usain (4); halako usain (7); izen onaren usain (6); izerdi usain (6); jaunaren usain gozoko (4); kolore eta usain (4); lurrin eta usain (8); oso usain gozoa (4)

usain arina (5); usain arraroa (7); usain bera (13); usain berezi (19); usain berezi bat (4); usain berezi hura (5); usain berezia (14); usain bizia (4); usain bortitza (5)

usain ederra (7); usain egin (26); usain egin zion (8); usain egiten (9); usain eta zapora (4); usain freskoa (4); usain garratz (4); usain gogorra (4); usain goxoa (18); usain gozo (28); usain gozoa (61); usain gozoak (7); usain gozoen (5); usain gozoko (24); usain gozoz (15); usain gozoko (5); usain guztiak (4); usain handia (7); usain handia zegoen (4); usain hartzen (4); usain heze (6); usain hezea (4); usain higuigarri (4)

usain jasanezina (5); usain mina (4); usain mindu (4); usain mota (4); usain nazkagarria (5)

usain on (10); usain ona (33); usain onak (6); usain oneko (4); usain onekoak (4); usain onik (8); usain onik hartzen (4); usain pixka (6); usain pixka bat (6); usain sarkor (15); usain sarkorra (21); usain sarkorra zerion (4); usain sarkorrak (11); usain sendo (4); usain sendoa (6); usain sexualak (5); usain txar (6); usain txarra (56); usain txarra hartzen (6); usain txarrak (12); usain txarreko (7); usain txarrak (5)

ustel usain (7)

alkohol usaina (4); ardo usaina (6); argizari usaina (4); arrain usaina (7); bainila usaina (4); belar usaina (5); bere usaina (14); berri usaina (4); bolbora usaina (7) egin berriaren usaina (4); erre usaina (23); esne usaina (11); euri usaina (4); gorotz usaina (4); gorputzaren usaina (5); hezetasun usaina (4)

intsentsu usaina (8); intsentsuaren usaina (4); isuritako usaina (15); itsaso usaina (4); itsasoaren usaina (5); izerdi usaina (12); janari usaina (4); kanela usaina (4); ke usaina (6); kresal usaina (7); kresalaren usaina (4); lixiba usaina (8); lurrin usaina (5); naftalina usaina (5)

odol usaina (4); olio frijituaren usaina (4); olio usaina (7); olioaren usaina (4); petrolio usaina (5); pixa usaina (6); semearen usaina (5); sexu usaina (4); simaurraren usaina (4); tabako usaina (10); tren usaina (6)

usaina aditu (16); usaina aditu zuen (4); usaina aditzen (16); usaina aditzen zen (5); usaina baino (9); usaina botatzen (4); usaina da (11); usaina dago (18); usaina dario (10); usaina dariola (4); usaina darion (9); usaina dauka (9); usaina du (21); usaina duen (7)

usaina ekarri (4); usaina ekartzen (4); usaina ematen (4); usaina eta zaporea (6); usaina har (4); usaina hartu (17); usaina hartu dio (4); usaina hartuko (4); usaina hartzeko (6); usaina hartzen (17); usaina hedatu (5); usaina hedatu zen (5); usaina hedatzen (4); usaina heldu (4)

usaina iristen (4); usaina iritsi (4); usaina izango (7); usaina izaten (4); usaina nabari (6); usaina nabaria (9); usaina nabaria zen (7); usaina nabaritu (7); usaina nagusi (6); usaina nagusi zen (4)

usaina sartu (5); usaina sentitu (8); usaina sentitzen (4); usaina sumatu (4); usaina sumatzen (8)

usaina usnatu (4); usaina zegoen (21); usaina zen (10); usaina zen nagusi (5); usaina zerien (13); usaina zeriola (12); usaina zerion (46); usaina zeriona (4); usaina zetorren (7); usaina zeukan (6); usaina zeukaten (4); usaina zuen (23); usaina zuten (5)

ustel usaina (18); zerion usaina (6); zoko usaina (13)

isuritako usainari (4)

usainaldi iz usaintzen den aldia.

Honako hau izan zen emaitza: 54 **usainalditik** 22tan asmatu zuten txakurrek. **Berria - Gaiak**

usainarazi, usainaraz, usainarazten du ad usaintzera behartu.

Maskuriko minbizia zuen pertsona baten eta osasuntsu zeuden beste sei pertsonaren gernu laginak **usainarazi** dizkiete, bi hilabetez, arraza eta adin ezberdinetako sei txakurri. **Berria - Gaiak**

usaindu, usain(du), usaintzen (orobat **usaitu** g.er.) 1 du ad zerbaiten usaina sumatu. ik usain 12.

Ikusten nuen, entzuten nuen, **usaintzen** nuen. **Anjel Lertxundi**

Belarriak bai, eta entzuten ez; sudurra bai, eta **usaintzen** ez. **Elizen arteko biblia**

Demba jauna, ez duzu ezer **usaintzen**? **Anton Garikano**

Animaliak urrundik **usaintzeko** eta gizakiak zelatan zeuden barruti batera eramateko aproposak ziren. **Gotzon Garate**

Hemendixe **usaintzen** dut zure amaren lapiko goxoa. **Joxemari Urteaga**

Segidan, orbela **usaindu** nuen, bat-batean [...] eta, usainaren haritik, haurtzaroko gertaki hura oroitu nuen, noiz eta orbelaren gainean anaiarekin jostetan ibili bainintzen.

Joan Mari Irigoien

Printzesaren ile-adatsa **usaindu** zuen eta krabelin urrina etorri zitzaion sudur mintzetara. **Felipe Juaristi**

Anpultxoari estalkia kendu, **usaindu** eta berriro itxi ostean, lehengo lekuan utzi nuen. **Edorta Jimenez**

Aditu gisa ibili baitzuen tresna txikia, heldulekutik hasita zubiraino ikuskatuz, biolin gorputzaren berniza **usainduz**, lau harik eta lau larakoak hatzez aztertuz, jotzera ausartzeke ordea. **Felipe Juaristi**

Niregana hurbildu, eta arropa **usaintzen** dit, zigarroak erretzen ibili naizela susmatu orduko egin ohi duen bezala. **Anjel Lertxundi**

Gizonak belar limar bat hartu eta **usaindu** zuen. **Elena Touyarou**

Aurten, urte osoa iazko maila eman ezinik ibili da, garaipena **usaindu** gabe. **Berria - Kirola**

Hara non hasten den zakurra [...] itxura batean erbi arrastoa **usaindu** eta, zaunkaka, herio estuan. **Pako Aristi**

Airea **usaindu** du, ehiza-zakur batek bezala. **Anjel Lertxundi**

Txakur batek beste txakur batekin topo egiten duenean, mezu hau bidaltzen dio: **usain** egidazu. **Irene Aldasoro**

Txakurra aurrea hartu eta zapatak **usaindu** zizkion Justo Badiolari. **Joxemari Urteaga**

Inork ez daki garbi zergatik goazen elkarri izerdiak **usaintzen**. **Anjel Lertxundi**

Gorputz bien lurrin garratz nahastuak oraindik **usain** ditzakezu. **Sonia Gonzalez**

2 irud/hed ik sumatu.

Begia erne ibili behar, kalez kaleko salmenta horiek debekatuak baitzeuden; udaltzainak ehun pausora **usaindu** eta txanoak gona azpian desagertzen ziren. **Karlos Zabala**

Zabala

Polizia **usaintzen** ari naun. **Karlos Zabala**

Mundua aldatzen ari baita: uretan sumatzen dut, lurrean sumatzen dut, airean **usaintzen** dut. **Agustin Otsua**

Hura esatean egin zuen irri makurratik, **usaindu** nuen esaldiak gaiztakeriaren bat ezkututzen zuela. **Anjel Lertxundi**

Jatekorik edo ehun soseko txanponik eskatu nahi ziotela **usaindu** izan balu bezala. **Karlos Zabala**

Usaindu al ditzake Lucyk beraren pentsamenduak? **Oskar Arana**

Nolabaiteko susmorik **usaindu** al zenuten? **Joxemari Urteaga**

Arriskua **usaintzen** dueneko zaunka da hori. **Julen Gabiria**

Beldurra **usain** dezakezue, biek, zer egingo duen dakienaren beldurra, zer gertatuko den dakienaren ikara. **Sonia Gonzalez**

Zuek ez duzue horrelakorik **usaindu** ere egiten, eta hamar mila kongresu eginek ere ez duzue **usainduko**. **Jon Alonso**

Argalak gustatzen zitzaizkion Istillagari, lirainak, politikak, begirada bizi-bizia dutenak, arraren gogoia **usaindu** orduko lepoa tente-tente jarrita begiratzen dutenak. **Pako Aristi**

Erne joaten nintzen beti, eta, maioralak esan ohi zidan bezala, **usaindu** egiten nituen bideko oztopoak; ikusi ez ezik **usaindu**. **Bernardo Atxaga**

Aurten, urte osoa iazko maila eman ezinik ibili da, garaipena **usaintzen** gabe. Berria - Kirola

Idazten ez ezik, albisteak **usaintzen** ere maisua zen Capote. Berria - Kultura

3 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Zakurrak ipurdia usaintzen dio bidean aurkitutako aurreneko zakurrari, eta **usainduak** usaintzailerri utzi egiten dio miaketa amai dezan. Anjel Lertxundi

4 usaina hedatu.

-Istanbuleko emakumeek ere ez dute zuk bezain gozo **usaintzen** ! Felipe Juaristi

Usaintzen hasiko zen berriz ere izadia. Jon Muñoz

• 5 da *ad* usain txarra hedatu.

Gajoa kirats nazkagarritz **usaintzen** da, oteseinek ihes eta ezkutuan barre egiten diotela. Xabier Amuriza

Besta astelehen goizean Baiona Handi eta Txikiko karrikak **usainduak** ziren. Herría

Jantzi urratuak, izerdituak, zerrikatuak, **usainduak** eta zorritz emokatuak behin betirako baztertu zituen. Eneko Bidegain

Hatsa karatsa dugula, ur **usaindu** bat gure gorputzak ixurtzen duela. Michel Oronoz

Zokoren batean lizundutako zerrikeriak, plastiku zorro ustel **usainduak**, auzoan lapurtutako zirtzilkeriaren baten puska. Patziku Perurena

Huts guziren zerrenda zehatzarekin belaunikatzen nintzen ateka ilun eta **usainduan**. Piarres Aintziart

Behatzak dira, bai, mendebaldera *atzamarra*k, ekialdera *erhiak*, eta eusbakofha hil-**usainduan** *hatzak* direnak. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

airea usaindu (5); **hartu eta usaindu** (3); **usaindu ere ez** (8); **usaindu orduko** (6)

usaintzen zuen zaborra (3)

usaindun 1 *izond* usaina duena.

Amak harentzako berariak bildu zituen ilar **usaindunak** eraman genizkion. Mirentxu Larrañaga

Hauek, jakina, anekdota gisa hartu behar dira, hala baitira gainera,aldi berean sasiene arteko lore **usaindunak** diren arren. Pello Salaburu

Mokordo lodiak eta meheak, tamainako **usaindunak** eta kirasdunak, tirrinak, xirinak, gorotzak eta denak. Etxera joan eta, Teresak emandako arrosa kikara batean sartuta ikusi nuenean, gizen eta **usaindun** artean, [...]. Iñaki Segurola

Aukeratu zur batzuk, apropos, **usaindunak** dira, erretzean usain ona zabal dezaten. Pello Zabala

Gauza asko aldi berean kolore, zapore eta **usaindun** direla dakuskezu. Xabier Amuriza

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Grigori Yefimovitzek -zikina, ezjakina, zaborra, lizuna, aker-**usainduna** - erabat liluratu zuen gortearen inguru-minguruan ibili ohi zen jende txolin eta kaskarina. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hotelean dutxa behintzat bazegoen, eta xukadera ere bai, alkanfor-**usainduna** eskualde haietan ohi denez. Joxe Austin Arrieta

Gela zoko-**usaindun** txikiren batean eserita. Anton Garikano

Zikina, zoko-**usainduna**, bipila. Alberto Ladrón Arana

usaingabe (*orobat usangabe g.er.*) 1 *izond* usainik ez duena.

Lore preziatu fin **usaingabeak**. Mirentxu Larrañaga

Biziaren odola joan doakio gorputzetik eta etsipena ari da hartzen haren lekua, gasa bezala **usaingabea**, gustugabea, elikadurarik ez duen etsipena. Oskar Arana

Airea garbia eta **usaingabea** zuan. Xabier Olarra

Gatz hori, berez, **usaingabea** da, baina erreakzionatu egiten du nola edo hala larruarekin [...] eta egun batzuetan kimikaritzat salatzen zaituen metal keru iraunkor bat jaregiten du. Juan Garzia

Ez zen sudurraren tapatzekorik, han geramana **usaingabea** baitzen eta zuraila. Marzel Etxehandi

Ahal den oliba oliorik **usaingabeena**, sudurrei inolako jariorik igorriko ez diena. Xabier Amuriza

2 *usaingabeko izlag* usaingabea.

Errekako ur garbia baino **usaingabekoagoa** zen, ordea. Hasier Etxeberria

usaingai *iz* perfumea. ik *usaingarri*.

Ezpain belztuetatik artean ere aieratzen zen haren gorputza beratua zuteneko **usaingaien** urrina. Juan Garzia

usaingarri 1 *iz* perfumea.

Usaingarriak egiteko nahasketak apaiz batzuek egin ohi zituzten. Elizen arteko biblia

Ez duzu niretzat **usaingarririk** erosi, ez nauzu oparigaien gantzez ase. Elizen arteko biblia

Galaad aldetik zetorren ismaeldarren karabana bat ikusi zuten, Egiptora zihoana, gameluetan **usaingarriak**, ukendua eta erretxina eramanez. Jose Antonio Mujika

Sabako erreginak ia lau mila kilo urre eta, gainera, egundoko **usaingarri** eta harribitxi multzo handia eman zion erregeari. Elizen arteko biblia

Intsentsu, mirra eta beste hainbat **usaingarrizko** ke-zutabea dirudi. Elizen arteko biblia

Beste batzuk ontzi arruntez eta ontzi sakratuez arduratzen ziren, bai eta ogi-irin, ardo, olio, intsentsu eta **usaingarriez** ere. Elizen arteko biblia

Ekarri gantzugailu eta **usaingarriak** eta itxi parkeko atea, baina nadin. Elizen arteko biblia

Biharamunean ere, Morgianak botikariarengana jo, eta hilzorian daudenei eman ohi zaien **usaingarri** bat eskatu zuen. Patxi Zubizarreta

Usaingarri baliosuen orde, errautsez eta zikinez estali zuen bere burua. Elizen arteko biblia

2 *izond* usain daitekeena.

Eta **usaingarria** ere bai, hondartzarako bidean zopa beroa zerbitzatzen baitute. Edorta Jimenez

usaingozatu, usaingoza, usaingozatzen (*orobat usain-gozatu*) da/du *ad* perfumatu.

Zu txukundu zaitez eta **usaingozatu**; gero, soingainekoa jantzi eta joan larrainera. Jose Antonio Mujika

Sydenham sendagile ingelesaren formularen, opio hautsa alkoholarekin nahastuz egiten zen, azafraiez ematen zitzaion kolorea, eta Malagako ardoaren esentziak **usaingozatzen**. Txukundu, **usain**-gozatu eta soinekorik ederrenaz jantzi zaitez. Ramon Saizarbitoria

usaingozo (orobat usain-gozo) iz perfumee. ik usaingarri.

Han intsentsua eta **usain-gozoak** erreko ditugu Jaunaren aurrean.

Elizen arteko biblia

Hara heldurik, leize-zulo bat aurkitu eta bertara sartu zituen Jeremiasek oihal-etxola, kutxa eta **usain-gozoen** aldarea, eta leize-ahoa itxi.

Elizen arteko biblia

Irten aurretik, Kapliskor gorputza garbitu zion, **usaingozoz** igurtzi, eta janari eta edari ugari eman; gero, aldeko haizea bidali zion.

Juan Kruz Igerabide

Erantzi zituen soinean zeramatzan zakukia eta alargun-jantzia, bainatu, gorputza **usain-gozo** bikainez igurtzi.

Elizen arteko biblia

Sei hilabetez mirra-olioz, eta hurrengo seietan emakumeek erabili ohi dituzten lurrin eta **usain-gozoz**.

Bertze batean, sagar magikoen **usaingozoz** elikatu gintuan.

Juan Garzia

Ez nuen hartu janari goxorik, ez haragirik, ez ardorik, eta ez nuen erabili **usain**-gozoko lurrinik ere, hiru asteak amaitu arte.

Elizen arteko biblia

usainka *adlag* usain eginez.

Armadako kaporalak eta moja andanak ageri ziren aza mendien inguruan; eta ikastetxeetako sukaldariek **usainka** ziharduten, mauka ederrik aurkitu nahian.

Karlos Zabala

Alkandora aldatu eta kolonia bota nuen, ugari; sobera ere bai akaso, harrera zerbitzuko sudur hegalkak harrotuz **usainka** ikusi bainuen tximista bezala bere aurretik pasatu nintzenez.

Ramon Saizarbitoria

"Hemen duk gure tximeleta!", hots egin zuen bat-batean Ubanbek **usainka** eginez.

Bernardo Atxaga

Sator zulo batean **usainka** utzi nuen zakurra.

Koro Navarro

Zakurra gela inguruan itzulika hasi zen, hormetan **usainka**, eta intzirika denbora guztian.

Josu Zabaleta

Zakur arrek txiza egin baino lehen **usainka** jarduten dute.

Gotzon Garate

Sudurtxoa goratuta, haizeari **usainka** bezala ari ziren.

Fernando Rey

usainkari *izond* usain egiten duena.

Patxada hartu eta, lardaskan, Arsenal taldearen webgunean gal zaitezke, baita beste e-zoko batzuetan ere, eta emigrazioko polizia baino **usainkariago**, asteazkenean jokatu zuten futbolarien galtza barrenen atzetik ibili.

Iñigo Aranbarri

usainki *iz* perfumeak egiteko gaia.

Hartu **usainkirik** bikainenak: sei kilo mirra isurkor, hiru kilo kanela eta beste hiru kilo kanabera usaintsu.

Elizen arteko biblia

Argitarako olioak, gantzuketa-olioa eta intsentsuarentzako **usainkiak**.

Elizen arteko biblia

Horrekin guztiarekin gantzuketa-olioa egingo duzu, lurrinik egiten duen bezala **usainkiak** nahasiz.

Elizen arteko biblia

Aita Frantzisko dohatsuaren gorputz santua -lurreko **usainkiz** baino gehiago zeruko ukenduz gantzutua- [...].

Askoren artean

Usainkiak erretzeko sutontzian.

usainkor *izond* usain txarra hedatzen duena.

Batean, pentzetan hedatua den ongarrira sobera **usainkorra** dela.

Herria

usaintsu (orobat usaintsu g.er.) 1 *izond* usain handikoa.

Liho, purpura, zeta, eskarlata; era guztietako zur **usaintsu**, boli eta zur baliotsuzko tresnak.

Elizen arteko biblia

Landare **usaintsuen** azoka.

Karlos Zabala

Kanela eta baltsamo **usaintsuak** bezala, mirrarik finenak bezala zabaldu dut lurrina.

Elizen arteko biblia

Minit-eko garia, artatikia, ezti, olio eta erretxina **usaintsua** ematen zizkizuten ordainetan.

Elizen arteko biblia

Ardoa kopa handitan edaten duzue, olio **usaintsu** onenez igurtzitzen zarete.

Elizen arteko biblia

Goizero, kriselreak prest jartzean, intsentsu **usaintsua** erreko du Aaronen aldare honen gainean.

Elizen arteko biblia

Zapaltzen zuen lurra jendeak bere aurrean botatuko belar bigun **usaintsuz** estalirik zegoela konturatzeke.

Felipe Juaristi

Janari espeziatsua edo **usaintsuak**.

Irene Aldasoro

Camember gazta puska **usaintsu** bat mahairatu zuen.

Karlos Linazasoro

Gatz-soluzioetan substantzia **usaintsuak** erabili.

Irene Aldasoro

Zedro zurezko mahai **usaintsu** batean bermaturik.

Juan Garzia

Emaztearen ezteki biluzteko gogoa ernatu zitzaidan, haren harpe **usaintsuaren** milikatzeke adibidez.

Itxaro Borda

Portugaleko iraultza **usaintsuagoa** izan zen, politagoa, gorriagoa.

Berria - Kultura

2 (adizlagun gisa)

-Hemen nago berriro, garbi eta **usaintsu**.

Jon Arretxe

Udaberriko elurra bigun eta **usaintsu** zegoen, lehen bezala.

Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

intsentsu usaintsua (5)

usaintxo *iz adkor* usain arina.

Txamarra hau (zure **usaintxo** berezia daraman txamarra hau, gainera!) -irriño batez- niri utzita, hoztu egingo zara orain.

Txillardegia

usaintzaile *izond/iz* usaintzen duena.

Zakurrak ipurdia usaintzen dio bidean aurkitutako aurreneko zakurrari, eta usainduak **usaintzailerri** utzi egiten dio miaketa amai dezan.

Anjel Lertxundi

Neure paziente postentzefalitiko batzuk ekarri zizkidan gogora, eta Touretteren sindromea duten batzuk ere bai, ikusiak bainizkien halako **usaintzaile**-portaerak.

Xabier

Olarra

usaintzar *iz adkor* usain bortitza.

Trinketeko aldagelen **usaintzar** berezia! **Ramuntxo Etxeberri**

usaintze *iz* zerbaiten usaina sumatzea.

Begi-itsuan edozein bazter ezagutuko zuketean, hango urrina **usaintze** hutsarekin. **Karlos Zabala**

*Duty-free*ko gaien **usaintze** hutsak askatuago egin gintzakeela pentsa zitekeen, muga-marra noiz igaroko baitziren gutariko asko. **Edorta Jimenez**

Ohiko gutuna zela adierazi zion postariak, hitzik gabe, aurpegiera hutsarekin, egindako **usaintze** keinuarekin. **Joxemari Urteaga**

usaitu ik **usaindu**.

usakume 1 *iz* usoaren umea.

Dardarka eta hatsangaka zeudèn **usakume** bi haiek erakutsi zizkidan. **Joan Mari Irigoien**

Beherago, **usakume** zuriak hegalka ari dira. **Lopez de Arana**

Ekarri txahal bat, ahuntz bat eta ahari bat, hiruna urtekoak, usapal bat eta **usakume** bat. **Elizen arteko biblia**

Afaria ekarri zuen, **usakumeak**, sagar eta gaztaina saltsaz, eta botila bi ardo Moselako. **Felipe Juaristi**

Zartagineko lodia larunbat oro, dilistak ostiraletan, eta **usakumeren** bat igandetako goxagarri. **Patxi Ezkiaga**

2 (hitz elkartuetan)

Usakume taldeak jaisten ziren plazan, eta gizon bat oihuka botikak saltzen ari zen, behaztopa eginarazten zioten kateak hautsiz. **Juan Kruz Igerabide**

usangabe ik **usaingabe**.

usansolotar *izlag/iz* Usansolokoa, Usansolori dagokiona; Usansoloko biztanlea.

Usansolotarrak mobilizatzen hasi ziren. **Berria - Euskal Herria**

Usansolotarren bereizte eskaera. **Berria - Euskal Herria**

usantsu ik **usaintsu**.

usantza *iz* ohitura. ik **usadio**.

Usantza eta ohitura zaharrek, gero, legeen indarra hartzen dute. **Ana Urkiza**

Hala dio [Axularrek] ohitura edo **usantzaren** indarrak ari dela: [...]. **Iñaki Segurola**

Nahiz eta ez zen hura ene ohitura, ez ene **usantza**. **Joan Mari Irigoien**

Atal bat eskaini nahi dio Garibairen euskararen aldeko apologista lanari, Garibai paremiologoari, [...] eta baita Juan de Timonedaren eta beste hainbaten **usantzan** osatu duen ipuintxoen bildumari ere. **Anjel Lertxundi**

Aita Bartolomek familia oneko gizon ongi-hazia eta ongi-hezia zirudien, eta bere moduetan eta **usantzetan** ere, jendeari zor zion tratua den bezainbatean, halakoa zen. **Joan Mari Irigoien**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ohitura eta usantza (6); **usantza eta ohitura** (3)

usapal 1 *iz* usoaren ordenako hegazia, hura baino txikiagoa, bizkarreko lumak arre-gorrixkak dituena (*Streptopelia turtur* edo *S. risoria*). ik **tortoil**.

Ez zuen onartuko Bassan **usapal** bat bera ere kokatzea, **usapala** bertako faunakoa izan ez balitz. **Koldo Biguri**

Zikoinak ere antzematen dio zeruari, lekuz noiz aldatu jakiteko; **usapalak**, enarak eta kurrioloak badakite noiz itzuli. **Elizen arteko biblia**

Kurloiak izan ziren ihes egiten lehenak, **usapalak** bigarrenak, mirua azkena. **Felipe Juaristi**

Txolarre eta **usapal** ez gutxi inguruetan, peskizan, zer "jausiko". **Txillardegi**

Usapal gris zikin haiek ez behintzat. **Harkaitz Cano**

-O ene arrebatxook, **usapal** xalo, errugabe eta garbiok! **Askoren artean**

Erne dira zelaietan loreak, heldu da kanturako garaia, entzun daiteke gure zelaietan **usapalen** urruma. **Elizen arteko biblia**

Eguzkiak txinpartak ateratzen zituen urmaelean, **usapal** gogaikarri bat urrumaka ari zen. **Karlos Zabala**

-Ekariezakidazu hiru urteko txahal bat, hiru urteko ahuntz bat, hiru urteko ahari bat, **usapal** bat eta usakume bat. **Jose Antonio Mujika**

Arkumea edo ahuntza erosteko ahalbiderik ez duenak, bi **usapal** edo bi usakume eramango dizkio Jaunari egin duen bekatuaren ordain. **Elizen arteko biblia**

Haren esku fin zuriak taula ganean **usapalen** graziarekin hegaldatzen baziren ere, adimen zorrotz batek gidatuak ziren. **Alberto Ladron Arana**

2 *izond/iz*

Usapal maitemindu pare zen hura, eta *uxapalak* deitzen zieten denek, urruma eta txera besterik ez baitzen haien artean. **Karlos Zabala**

-Segi aurrera, **usapal** maiteak! -garrasi egin zien iemstxikak, zartailuaren zirtakoak trumoiaren dunbotsekin nahasten zirela. **Karlos Zabala**

Kardinalak begi bat keinatu zigun guztioi, **usapala** sarean zuela adierazteko. **Anjel Lertxundi**

usarazi, usaraz, usarazten du *ad* usatzera behartu.

Nola hartzen hasiak ditugun hiru presuna berriz lanean **usarazteko**, hauen lana ez da langile ordinarioen hainera helden. **Herria**

usario ik **usadio**.

usatar *izlag/iz* USAkoa, USARI dagokiona; USAko biztanlea.

Horrez gainera, Kuban **usatar** militarren batek zuzengabekeriaren bat egin baleza, balizko hori militar **usatarrek** epaitzeko eskubidea ere adosturik dute. **Edorta Jimenez**

Tabako **USAtarra**, whiski eskoziarra, ardo frantsesa eta nik dakita ba zer ez zegoen, itxuraz, han. **Edorta Jimenez**

1946ko abuztuaren 6an Gustavo Duran errugabea dela diote **usatarren** inteligentzia zerbitzuek. **Edorta Jimenez**

usategi *(orobat usotegi g.er. eta usotei g.er.)* 1 iz usoak hazteko tokia.

Leihotik geltokiko burua pasatzen ikusi zuen, zegoen bezala sartu zen bulegora, **usategitik** atera zen bezalaxe, kapelurik gabe. **Fernando Rey**

Goizeko eguzkipean nire lan jantzi txanoa eskuliatzen aritu nintzen, geltokiko buruaren **usategitik** heldu zen usoen urrumba aditzen nuen bitartean. **Fernando Rey**

Zeruan zehar hodeiak bezala, **usategira** usoak hegan bezala. **Elizen arteko biblia**

Geltokiko buruaren usoek urrumba egiten zuten izuturik, hegaka ari ziren **usategian**, paretak eta sabaia jo eta lurrera erortzen ziren, ikaraz hegala astintzen. **Fernando Rey**

Usategiko leihoetara usoak hegan bezala. **Askoren artean**

2 irud/hed

Isolamenduari deitzen zaio han **usategia**, goian baitago, bigarren solairuan. **Jokin Urain**

Usategian ez geneukan ezer, ez aldatzeko jantzirik, ez libururik, ez kristorik. **Jokin Urain**

Usategiko ziegan aldizkari baten orria aurkitu nuen, eta, besterik ezean, orri huraxe irakurri nahi nik! **Jokin Urain**

usatu, usa, usatzen 1 da *ad* ohitu.

Pixkanaka, eta ez oso epe luzean, hango eskuarara **usatu** nintzen. **Txillardegi**

-Barkatu, Jaun Andreak, gu **usatuak** gira, badabila jende inguru hauetan, gauaz eta egunaz, mendizale, artzain eta bertze batzu. **Michel Oronoz**

Beso zakarrak ziren, sendoak, kargetara eta nekeetara **usatuak**. **Aingeru Epaltza**

Egiteko haietarat ohitua eta **usatu** zegoelako. **Joan Mari Irigoien**

Bi zezenketariak -Curro Banderas eta Paco Corrales- izan ezik, biak ere digestioarena baino adarkada gogorragoetarat eginak eta **usatuak**. **Joan Mari Irigoien**

Oinazeetara aspaldian **usatu** gabea, bizi-bizia sentitu nuen mina. **Juan Garzia**

Umeen algarei **usatu** dagoena karranka metalikoen harrabotsari moldatu beharko zaio, eromenak behin-betiko harrapa eta eraman ez dezan. **Filipe Bidart**

Atea itxirik zen berriro ere eta Irunberri lehen bezala trangatu zuen, lan honetan **usatu** balitz bezala. **Koldo Izagirre**

- **Usatu** zira, hain segur, bide horietan ibiltzen, ez? **Menane Oxandabartz**

Bere familian ez ziren **usatuak** naski munduaren berrantolatze asmoz goizeko lauretan arrangura larrutuak plazaratzen. **Itxaro Borda**

Gaurko segetutetik zerbait bazekiela Basoik, ez da dudarik, baina holako ikuskizuna amestu zuela, hori nekez, nahiz eta ezohizko gertakarietan **usatu** izan. **Michel Oronoz**

Hala **usatuak** ginen geroztik bai Pompidou, bai Giscard d'Estaing, bai Mitterrand eta bai Chirac berarekin, bainan, orai artio nehor ez zen hala jokatu gazte batzuen aitzinean. **Herria**

Eskutan ukaiten ahalko omen ditugu euro batzu, **usatzeko**, nahiz ez ditugun egiazki baliatzen ahalko Urtats arte. **Herria**

• 2 (du ad gisa)

Horretarako normala dena baino eskupeko handiagoa eman behar izan zuen, berak **usatzen** zuena eta are handiagoa. **Jon Alonso**

3 (era burutua izenondo gisa)

Pasaiaiko amerikanoek, eta tokian tokiko **usatuak**, badute beti beren partida Donibanen. **Herria**

• 4 du *ad* erabili.

Kontu handiz **usatu** behar dira hitzak, ez dira inoiz ideien zirkulazio orokorrean sartu ziren garaia baino lehen erabili behar. **Jon Alonso**

Ez duk laudorio osoan irudi bakarrik ere klasikoek **usatu** ez dutenik. **Juan Garzia**

Ikuzketak asko **usaten** dira klima beroetan. **Iñaki Iñurrieta**

Bainan, sekulan ez alfer **usatu**, ainitz zerbitzu eginen du Lapurdiko hegala hortan, auzo herrietaraino zabalduz bere laguntzak. **Herria**

usin *(29 agerraldi, 12 liburu eta 2 artikulutan)* 1 iz sudurretik eta ahotik biriketako airea nahi ezik eta indarrez jaurtitzea. ik doministiku; urtzintz.

Usinaren aire-kolpeak ezin du ondo gaintu bihurgune itxia, eta ahotik egiten du ihes aire gehienak. **Irene Aldasoro**

Norbaiti **usin** eragile bizia ipini eta, doministiku egiten ez badu, berriz, herio sinale izaten omen da. **Patziku Perurena**

2 usin egin

Txitxikovek **usin egin** zuen zenbait aldiz, hain hauts handiaren oparia egin baitzion etxeko nagusiak orri-sortak askatzean. Jantzi, ispilura hurbildu, eta **usin egin** zuen berriro, hain ozenki, ezen [...]. **Jose Morales**

Marrantak jota egonik **usin egin** nahi duen baina, **usin egitea** lortu ezinik, **usin egiten** saiatzen ari den gizonaren aurpegiera gogorarazten zuen. **Jose Morales**

San Blas! zioen, erdi miresmen erdi otoitz, gure amonak, doministiku edo **usin egiten** genuenean. **Pello Zabala**

Nire semeak **usin egin** dik; horrek esan nahi dik ezkongai horiek guztiak hilko direla. **Juan Kruz Igerabide**

• **Usin** bortitza **egin** zuen horren eraginez. **Jose Morales**

Azaoka bilduriko usain-belarrak eta krabelinak ikonoen alboan, hain zimelduak, non usaintzeko asmoz hurbiltzen zaienak **usin** besterik ez baitu **egiten**. **Jose Morales**

Telemakok, orduan, **usin** handi bat **egin** zuen, eta jauregi osoan egin zuen oihartzun. **Juan Kruz Igerabide**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

usin egin (6)

usina *(orobat uzina)* iz ipar fabrika.

Jean Marie hura, Bidegorri espartin **usina** hertsu zenean kanporatua izan eta hango errekonbertsio planaren ondotik Etxarrira etorri zen. **Itxaro Borda**

Fruitutegi lekuak dira gero, edozoin mota milaka hektaraka, amandaren bil sasoina zen bete betean, tresnaz bil bixtan da eta kamiuntaraka karrea, kanpoan **usinatan** metatzen dituzte xuka ditzen, gero lan egiteko. **Herria**

Biltzeko sasoina baita, tomatea kamiunka, jateko kuia berdin, ilharrak, azak eta gaineratikoak, horien tratatzeko **uzinak**, bereziki tomatetegiak urrunerat ageri, ketan eta inguruan, hemen kabala bazken ezartzeko bezalako kubak, horien barnean ezartzen dituzte gero doika hortik hartzeko. **Herria**

usinka *adlag* usin eginez.

Leihorantz doa, jabea bailitzan, usna egiten du... eztulka hasten da, **usinka** eta berriro eztulka. **Josu Zabaleta**

Amasa hartzen dugun bakoitzean **usinka** edo eztulka hasten gara, ehotzen ari garen piperbeltz pilagatik. **Josu Zabaleta**

usma ik **usna**.

usmaka ik **usnaka**.

usmati ik **usnati**.

usmatu ik **usnatu**.

usmen ik **usnamen**.

usmetu ik **usnatu**.

usna (*orobat usma g.er.*) 1 iz usaimena; usaina. ik **usnamen**.

Zakurren **usna**. **Gotzon Garate**

Usna berezia ote zuten berririk sekretueneren arrastoei jarraitzeko? **Karlos Zabala**

Ikastolako zuzendaria -nire ikasle garaiko berbera, **usna** oneko azeria-, ekartzen ninduen gaiaz jabetzean, gor eta ia mutu bihurtu zen. **Iban Zaldua**

-Irri eginen didazu, baina **usna** oneko gizona naiz, eta Urbiainen sartu naizenetik heriotza bertzerik ez dut usaindu. **Joan Mari Irigoien**

Idia alderrai dabil, norabidea eta **usna** galduta. **Javi Cillero**

Honela, idiak tigrearen **usna** hartu du, eta begiak jaso ditu. **Javi Cillero**

Jakite hori, beraz, arte bat da: ernetasuna, ohartasuna, **usna**. **Askoren artean**

Txakurrak sarritan, behin lorratz ziuerra hartutakoan, piztia menditar baten atsedenekua, hostotzan ezkutatua, **usnaz** aurkitzen duen bezala, halaxe ahalko duzu, gauza hauetan, bata bestetik zeuk ikusi eta gordeleku ilun guztietan sartu eta handik egia atera. **Xabier Amuriza**

Usnatu eta gustatu **usnaz** eta gustuz jainkotasunaren samurtasun eta gozotasun mugagabea. **Patxi Altuna**

Inpresio-sekuentzien bidez antolatzen dituzte itsuek beren munduak (ukituzko, entzunezko, **usnazko** munduak, alegia) eta ez dira gauza, ikusmena dugunok bezala, aldi bereko ikusmenezko pertzepiorako, ikusmenezko eszena bat-batekoak eratzeko. **Xabier Olarra**

2 (hitz elkartuetan)

Amorru biziz astindu zuen zuzia airean, eta **usna** hotsak marmar bilakatu ziren; baina piztiak, amasestuka, ez zuten sakabanatu nahi. **Patxi Zubizarreta**

Usaindu egin zuen Abdulk ogia, eta ogiak, bizilagunaren begiradatik zurrupatu ondoren bereganatua zuen mesfidantza bere **usna** -ildoetara botatzen zuela iruditu zitzaion. **Harkaitz Cano**

3 (adizlagun gisa) usnatuz.

Lenin lepo atzean **usna** eta **usna** aritu zitzaion, neskak ukondoarekin muturrean eman zion arte. **Jokin Muñoz**

Nire atzetik abiatu zen txakurtxoa, urduri; **usna** eta **usna** zihoa ene atzetik. **Joxan Elozegi**

Laster hartu du [txakurrak] aterperako bidea, **usna** hemen, **usna** han. **Jokin Muñoz**

4 **usnan** *adlag* usnatuz. ik **usnaka**.

Montról ere hor nonbait dabilela **usnan**, eta ezezagunekin ez fidatzeko. **Javi Cillero**

Usnan dabil txakurra lurrean. **Imanol Zurutuza**

Teoria modu guztiak emanez etorri zen gainerakoek kontuetan **usnan** aritzen den pertsona klase hori, baina teoria bat bera ere ez zen sendoa. **Koro Navarro**

Lagunak sarritan hurbiltzen ginen inguru haietara, garagardo batzuk erosi eta, uda bazen, lakuan igeri egitera, negu sasoiaren, berri, arrantzara, baina beti **usnan**, nor noiz gurutzatuko bere gustuko neskekarekin. **Anjel Lertxundi**

Ilunpean bihotzean ehiztari, harrapakinaren **usnan**, hautatu, bereizi, esetsi..., senak agindutako estrategia antzina-antzinakoa jartzen zen martxan. **Iñaki Iñurrieta**

-Airearen **usna-usnan**, bide malkar batean gora bostehun bat metro egin eta gero, iritsi da kearen jatorrira. **Anjel Lertxundi**

Usna luzean begiak / begira gogor bilakatu zaizkion / zakurraren begiak. **Pako Aristi**

5 **usna** *egin* usain egin.

Leihorantz doa, jabea bailitzan, **usna egiten** du... eztulka hasten da, usinka eta berriro eztulka. **Josu Zabaleta**

Hil honen amaierarako aurkitu ezean, berorrek dio, galeriarako zurbian gora doalarik, **usna egingo**. **Juan Garzia**

6 **usna-zakur** (*orobat usnazakur*)

Etxearen ondoan zakurtegiak zeuden: bertan brakoak, **usna-zakurrak** zeuden. **Xabier Olarra**

Metalen eskualdea mozkorgarri da: **usnazakur** fina nola, ehizaz beteriko oihan batean sartzean, lorratzik lorratz hasten baita jauzika, goitik beherainoko dardaraz eta aztoratu bezalakaturik. **Juan Garzia**

usnagarri *izond* usna daitekeena.

Bada hura eta bera heldu zen abuztuak hamabi zituela, prezisamentean, urte zaharrea ez beste noiznahi ere beti ikusgarri **usnagarri** entzungarri duzun gure herrira. **Koldo Izagirre**

usnaka (*orobat usmaka g.er.*) 1 *adlag* usnatuz, usnan.

Erakusleihen aurrean ibiltzen ziren pixka batean **usnaka**, eta barrenean sartzen ziren azkenean. **Monika Etxebarria**

Comalako karrika bakartiak ibili zituen, zaborretan **usnaka** zebiltzan txakurrak uxatuz bere urratsekin. **Juan Garzia**

Usnaka dabil haren arrastoaren atzetik; zelatan, noiz igaroko zain. **Elizen arteko biblia**

Burua tentetu eta **usnaka** aritu zen, luze, bere sudurtzuloak ongi irekiz. **Fernando Rey**

Han nengoen ni, gazte aleman sasoiko bat, goitik behera bustita, bihotzaren taupa bizia entzuten nuela eta munduaren ipurdian **usnaka**. **Anjel Lertxundi**

Arrats batez, lurrean zabalik nintzela, manta mutur bat buruaren gainetik, bat-batean zakur baten muturra senditu nuen **usnaka** ene estalgiarenpean. **Marzel Etxehandi**

Berak aitortzen duen bezala, hitzaren atzean **usnaka** ari den ehiza-zakurra da. **Jon Alonso**

Hantxe zegoen zaldia, loturik, burua zerura goraturik, gaueko haizeari **usnaka**. **Fernando Rey**

Basastoak ere geldi daude mendian, txakalak bezala aireari **usnaka**. **Elizen arteko biblia**

2 irud/hed

Guretariko batek mahai erdira trabesa botata, sudurra uzkurten zuen, **usnaka** iduri: "honek bikote triste bat ere ez dik". **Aingeru Epaltza**

Erakusleihen aurrean ibiltzen ziren pixka batean **usnaka**, eta barrenean sartzen ziren azkenean. **Monika Etxebarria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

usnaka ari (3)

usnaku, usnaka(tu), usnakatzen 1 du *ad* usnatu.

Astiro joaten ginen Po kalean barrera, eta txitean-pitean egiten zuen aitak gelditzera, bidera irteniko katu guztiak ferekatzera, trufa guztiak **usnakatzera** eta bigarren eskuko liburu guztiak orripasakatzeraz. **Juan Garzia**

2 irud/hed sumatu.

Inor bere euskal maneran eta izakeran letratu izandu ezak (frailuneriak segituan itoko baitu edozein saialdi, inondik ere **usnakatzen** baitu hil ala biziko afera zaiola) euskal idazlea ikuspuntu frailuno horren heredero eta depositario huts bihurtu da. **Patziku Perurena**

usnaketa *iz* usnatzea.

Gaur bertan ere nabari du gizakiak, eboluzio korapilotsu horrexen fruitu dena, bere ohituretan (etikan), politikan, inguruaren **usnaketan** (zientzian, etab.), bere portaera guztian. **Joxe Azurmendi**

Artzain txakurrak ehiza-txakurraren inguruan jarraitzen zuen **usnaketan**. **Joxemari Urteaga**

Bere besoa odoletan ikusi zuen, Freddy Green kontakatilu hark tiro egin zionean sastraka atzean ondo babesteko betarik ez zuela izan madarikatuz, baina, aldi berean, haizea aldeko suertatu eta ehiza-zakurraren **usnaketatik** libratzeko ditxa izan zuela gogoratu. **Joxemari Urteaga**

usnalari *iz* usnaria.

Laztura batek inarrosi zuen ehiztaria; gauza hotz bat, ur tanta bat bezala, jaitxi zitzaion bizkarretik behera, eta deabruak izututako fraide batek nola, gurutze santuaren handi bat egin zuen, **usnalari** beldurgarria bat-batean itzultze hark eroturik. **Josu Zabaleta**

usnamen (*orobat usmen g.er.*) *iz* usna, usaimena.

Balio duena garaille irteten da; begi edo beso edo **usnamen** motela duena, bertan atzera itzuli eta beste lanbide bat aukeratu behar. **Juan Garzia**

Ene garun honek galduea du zainketarako **usnamen** fina. **Juan Garzia**

Elea baino haratagoko bidez: begiak, **usmena**, eskuak..., hau zirrara! **Jose Angel Irigaray**

Bakoitzak daki zenbat baliatu dituen bere leiho partikularrak: begiak zabaltzeak asko betetzen du, belarriak ongi irekitzean, oso janzen gara; sudur zuloak eta **usnamen** atezu badituzu, a zer nolako aberastasun ñabarduraz hornitua kokatuko duzun zure oroimen ongi ordenatuan. **Pello Zabala**

usnan ik usna 4.

usnarazi, usnaraz, usnarazten du *ad* usnatzera behartu.

Uneon berehala zure sentierak, giza gauza guztiakiko zure sentiera magikoki seguruak, ezohiko zerbait **usnarazi** zizun, ezkutuko zerbait neska polit maitagarri haren baitan. **Eduardo Matauko**

usnari *izond/iz* usna egiten duena.

Txakur **usnariak** despista daitezen. **Harkaitz Cano**

-Ez duzue askotarako balio zuek, **usnari** txikiok, e? -esan zuen orko handiak-. **Agustin Otxoa**

usnati (*corpusean usmati soilik*) *adlag* usna eginez.

Denboratxo bat zeramatela, aztoratu egin zen berriro behorra, eta zakurrek ere **usmati** zuzendu zituzten mutur-zuloak oraingoan. **Joxemari Urteaga**

usnatu (*orobat usmatu g.er. eta usmetu g.er.*) 1 du *ad* usain egin.

Haren menera heltzean, aberea gelditu zen eta jantziak **usnatu** zizkion, haren oinetan itzul-inguruka zebilela, beti zaunkaka. **Elena Touyaro**

Makurtu egiten da, eta utzi egiten dio txakurrari bere aurpegia **usna** dezan, bere hatsa **usna** dezan. **Oskar Arana**

Zabaldu egin zituen sudur hegala, harrapakina **usnatzen**. **Koldo Izagirre**

Handik ehun bat metrora, labarren artean, Branek ezpata askatu eta itsasoko haizea **usnatu** zuen. **Joanes Urkixo**

Usaina zabaltzean, demonioak **usnatu** eta ihes egingo du, eta ez da inoiz ere itzuliko. **Elizen arteko biblia**

Sukaldea eta ezkaratza arakatu zituen, urrin latza ganberatik jazartzen **usnatu** zuen arte. **Itxaro Borda**

Gorputza astindu eta abian jarri zen erbinudearen lorratzak **usnatzen**. **Joanes Urkixo**

Tabako usaina, kolonia usaina, desinfektante usaina, behi usaina **usna** zitekeen. **Joseba Sarrionandia**

Gaua jin zenerako ez zen krimaren aztarnarik nehon, Maddik **usna** zezakeen alderik alde barreiatu odolaren urrin freskoa salbu. **Itxaro Borda**

Hari esker ditu gizakiak mugiarazten besteak eta mugitzen da bera ere, eta haren bitartez dute ezagutzen kanpoko bost sentsuek, hots, Ikusten, Entzuten, **Usnatzen**, Dastatzen, Hunkitzen, bai eta berdin jakiten barneko lau sentsuek, hots, Sentsu komunak, Gogamenak (batzutan Irudimena deitua), Jujamenduak, oroimenak. **Piarres**

Xarriton

- **Usna**, **usna**! Juan Kruz Igerabide

2 irud/hed ik **sumatu**.

Bitxikeria, nola **usnatzen** dugun, artetan, perpezpio egintza orokor eta bere baitarikako batean, denbora eta espazioaren arteko korapilo misteriozkoa. Piarres Aintziart

Usnatu egiten dute pentsatzen ari zaretena. Oskar Arana

Borta hunen gibelean den misterioa beharbada **usnatzen** nuen. Michel Oronoz

Graxi aldiz, hiltzea **usnatuko** zukeen kabala errabiatuaren maneran zebilen. Itxaro Borda

Zeren **usnatzen** hasia bainintzen ezen joko hartarik etor zitekeela ene salbazioa eta ene lagunena. Joan Mari Irigoien

Arriskua **usnatzeko** garatua zuten sen bereziari esker konturatu zen. Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

usaina usnatu (4)

usnatzaile *izond/iz* usnatzen duena.

Brageta-**usnatzaile** galanta eginda hago! Iban Zaldua

usnatze *iz* usain egitea.

Era berean entzutea, ikustea eta **usnatzea** jasotzeko bide direnak, hau da, belarria, begia eta sudurra. Xabier Kintana

Lainoaz haratagoko **usnatze** saioan ari zen. Josu Landa

usnazakur ik **usna** 6.

USO (*orobat uxu g.er.*) 1 *iz* moko meharreko hegaztia, hego-laburra, lumajearen kolorea moten arabera duena(*Columba* sp.). ik **pagauso**; **usapal**.

Inguruko teiltatuetan **uso** batzuk hegan ari ziren jirabiraka. Josu Zabaleta

Etxeak lau bizitza ditu, eta laugarrenaraino igo gara, non **usoek** habia egiten baitute teilatu gorrixka baten zokondoetan. Javi Cillero

Koba-zuloetan habia egiten duten **usoen** antzera. Elizen arteko biblia

Urmeak **usoen** atzetik korrika. Joseba Sarrionandia

Sabeth, **usoei** jaten ematen. Joxe Austin Arrieta

Uso bat dago errepide erdian, errai guztiak asfaltoan itsatsirik. Sonia Gonzalez

Uso eta txolarreei erreparatzen nien, elkarren arteko lehian, ogi apurren bat nork lehenago zintzurreratu. Hasier Etxeberria

Orobat ikusia nuen **usoen** hegada aire geldia hausten. Juan Garzia

Gero, bat-batean, hegada astun batez, **usoaren** tamainako txoritzar gris bat azaldu zen zuhaitz apalen azpitik. Josu Zabaleta

Leihoko erlaizeko **usoei**. Fernando Rey

Urria, **usoek** beren pasa egiteko aukeratzen duten hilea. Pello Salaburu

ik beherago 6. Askoren artean

Hau gogoia **usotara** joatekoa! Jose Angel Irigaray

Zuhaitzen artean gora, zazpi kilometro egin genituen, herrian gelditu gabe, **usotako** sareak dauden lekuraino. Rafa Egiguren

Uso bati tiroa botatzeko prest. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Uso bat biek bota uste zutenean sortzen ziren mokokaldiak datozkio gogora. Pako Aristi

Tiroa botatzen zuen, eta **uso** bat erortzen zen aldiko oihuka ospatzen zuen. Elena Touyarou

Aditzen nuen **usoak** usategian urduri zeudela. Fernando Rey

Ondoren, **usoa** bidali zuen, urak lurrean gutxitu ote ziren jakiteko.

Hara, ardiak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Izan zaitezte, bada, sugeak bezain zuhur eta **usoak** bezain xalo. Elizen arteko biblia

Usoa bezain tolesgabea haiz oraindik, polit hori! Karlos Zabala

Ez dezatela **usoaren** xalotasuna sugearen zuhertasunetik banandu. Askoren artean

Billy Jonesek **uso** bat pala kolpeka nola hiltzen zuen ikusi nuen. Koro Navarro

Usoak gizentzen ari nintzen. Karlos Zabala

Usoen urruma alaiak esnarazi zuen Joanes. Felipe Juaristi

-Hara **usoak** urrumaka! Koro Navarro

Pariseko **usoak**, hirietako uso horietarik trumilka. Filipe Bidart

Kanpoan **uso** eta etxean otso da, antza, hitza. Joxerra Garzia

Gizakia, seguruenik, ez da ez otso ez **uso**, bietatik duen izaki bat baizik. Iñaki Heras

Bakearen **usoa**, lur Saindutaraino. Herria

2 (izenondoekin)

Nurembergeko *badget* arrazakoak hazten zituen, hegaletan gezi beltz eta zuri zorrotzak zituzten **uso** txiki haiek. Fernando Rey

Itsua seko geratu zen espaloien gainean, **uso** grisak odol arrastoaren inguruan mokoka zituela. Patxi Iturritegi

Kaiolan Murat izeneko **uso** grisa eta harroa, arra eta harroa. Felipe Juaristi

Uso eta txolarreei erreparatzen nien, elkarren arteko lehian, ogi apurren bat nork lehenago zintzurreratu. Hasier Etxeberria

Hasiera batean **uso** emeei segika dabilzkien **uso** ar papo puztuez oroitzen nintzen. Patxi Zubizarreta

Oroitzen hasieran aipatu **uso** barrengaiztoaz? Patziku Perurena

Baina nire begiak habiara itzuliko ez diren **uso** hilak dira, esan zuen almuédanoak. Jon Alonso

Hala eraman zuten **uso** mezulariek agindua airez aire, zeruz zeru, lurralde batetik bestera. Felipe Juaristi

Xeto lehengusua topatu nuen, **uso** bezatuz beteriko hiru kaiolarekin. Juan Kruz Igerabide

Uso deslailak dabilza harrizko erpinaren inguruan jira-bira ausartean. Javi Cillero

Tuilerietako lorategiko pagausoak etorri zitzaizkion gogora, bai eta sotoko **uso** lepo apurtuak ere. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Papagaio haiek **uso** arima zuten, zera! Matías Múgica

Ai **uso** -hegalak banitu! zuriak baititu galtzak eta atorra, zuriak zapatak eta jaka, zuria kapela eta zuria kapelaren gaineko **uso** luma. [Elizen arteko biblia](#)

Begi arinak ziren, **uso** luma gris txikiak bezala hegan zihoazenak. [Felipe Juaristi](#)

Adiadi azertu zuen geltokiko buruaren lanjantziaren jaka, **usokakaz** betea. [Fernando Rey](#)

Espiritua ikusi dut, **uso** -tankeran, zerutik jaisten eta honen gainean gelditzen. [Elizen arteko biblia](#)

Uso koloreko zerura. [Felipe Juaristi](#)

Gero, are okerrago, **uso** -pasa izorratu zen, usoez hartu zuten birus nazkagarri horren beldurrez inor ez zelako ausartzen usorik jaten. [Jon Alonso](#)

Kontrapasako **uso** ihizia martxoaren 14a arte idekia da Nafarroan. [Herria](#)

Errana izan zait **uso** ihizian biziki trebea haizela. [Elena Touyarou](#)

Aro txarra ukan dugu ardurenean **uso** ihiziko sasoinean. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Uso saldo batek hegoak astindu zituen, nagiak atera ondoren lehengo adarretara bueltatzeko. [Joxemari Urteaga](#)

Aldi batez, Olatraneko lepoan ihizian ari zelarik, heldu zait **uso** tropa bat. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Aspaldian baziren **uso** ihiztariak Luzaiden. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Tenpluan sarturik, bertan salerosketan ari zirenak kanpora botatzen hasi zen Jesus eta diru-trukalarien eta **uso** -saltzaileen mahaia irauli egin zituen. [Elizen arteko biblia](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oilo txiki eta beltz bat ikusi zuen, zango lumadunak eta etxe-**usoak** bezalako hankak zituen. [Askoren artean](#)

Menturaz komisario herritarrak ez daki udazkena datorrenean, hemen gaindi milaka eta milaka mendi **uso** eta tortoil iragaiten direla? [Elena Touyarou](#)

5 irud/hed

Zure begiak **uso** bi, musu-estalkipean. [Elizen arteko biblia](#)

Tabernariaren alaba, bularretan bi **uso** urduri gordeta dituzun neska, ez dut eta oraindik ikusi. [Felipe Juaristi](#)

-Ireki, ene arreba, ene laztana, ene **uso** zurino horrek! [Anjel Lertxundi](#)

6 **uso pasa** (orobat **usopasa**)

Udazkenean, **uso pasa** hasten delarik, ehizak suak baino arrisku gehiago eragiten ditu. [Berria - Euskal Herria](#)

Famaren arabera, hunen 18an da **uso pasa** haundian sartzen; ihiztariak hor dagotzi erne erneak, zenbeitek horrela igaiten dituzte beren oporrak. [Herria](#)

Gero, are okerrago, **uso-pasa** izorratu zen, usoez hartu zuten birus nazkagarri horren beldurrez inor ez zelako ausartzen usorik jaten. [Jon Alonso](#)

-Egia da orain **uso pasa** handi samarra dagoela estudio handiak dituzten arkitektoen artean. [Berria - Kultura](#)

7 **uso zirin** (orobat **usozirin**)

Astaburu bakar batek zilarrezko lauerogetan txanpon balio zuen, eta kilo erdi **uso-zirinek** zilarrezko bost txanpon. [Elizen arteko biblia](#)

Usategia garbitzera joana zen, galtzak zurizuri zituen, **usozirinez** zikinduak, eskularruak ere bai. [Fernando Rey](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begiak uso bi (3); **etxean uso** (4); **kalean uso** (3); **kanpoan uso** (9)

uso akrobatikoak (3); **uso arina** (5); **uso berde** (4); **uso luma** (3); **uso pasa** (4); **uso pila** (3); **uso poloniarrik** (3); **uso sindikatuek** (4); **uso tankeran** (4); **uso zaharren** (7); **uso zaharren karrikan** (4)

bakearen usoa (3); **usoa bezain** (8); **usoa bidali zuen** (4)

usoak bezain (3); **usoak bezain xalo** (3); **usoak bezala** (5); **usoak hegan** (5)

usoel jaten ematen (4)

usokaka ik **uso 3**.

usoño *iz* usotxoa.

Adio, **usoño**. [Juan Garzia](#)

usopasa ik **uso 6**.

usotegi ik **usategi**.

usotxo (orobat **uxotxo g.er.**) *iz* adkor usoa. • *irud/hed*

Sokaz lotuko zaitut gelditzen zaigun gurdi puska honetara, gidak hartuko ditut, **usotxo** nirea deituko dizut, iemstxik jator baten gisa, eta benetako posta zaldi bat bezain agudo ibiliko zara! [Karlos Zabala](#)

Iruñean neskatan egiten dudan? hasieran ez, baina orain noizean behin erortzen da **usotxoren** bat. [Berria - Kirola](#)

-Aurrera, bada, **uxotxo** nireak! -oihu egin zuen iemstxikak, ez baitzegoen han eztabaidan hasteko, esandakoa betetzeko baizik. [Karlos Zabala](#)

usozale 1 *izond* usoen zalea dena.

Ni, egia esan, ez naiz ez arranozale ez **usozale**, baina mezua ondo ulertu badut, biodibertsitatea omen da kontua, ala? [Joxerra Garzia](#)

2 uso pasako ehiztaria.

Urria bukatu da ekarriaz larrakzen itxura goxoa; gure **usozaleak** ilun aire batekin dire menditik jausten, alportxa arinxko, beti bezala biharamunaren itxaropenaz gaintituak.

[Herria](#)

Saiberri guneko bazterrek sumatzen dituzte **usozaleak**. [Herria](#)

Gertakari hortaz baliatzen dire saretako **usozaleak**. [Herria](#)

usozirin ik **uso 7**.

uspel 1/iz ubela, zauria, mailatua.

Xaharra diot zeren ezagun baitzen gerla egina zuela tresna gaixo harek bere **uspel** eta hantura guziekin. **Herria**

Hala-nola, aurtengo bozkatzeeen ondotik, oraino berri eta minbera direlarik zauri gorde edo ageri batzuen **uspelak**. **Herria**

2 irud/hed

Uspel hori ez dut uste merexi duen gure jokoa den pilotak. **Herria**

uspeldu, uspel(du), uspeltzen 1 da ad ubeldu, mailatu.

Adiskideak itxura ikargarria zuen; aurpegia kaskaz **uspeldua** zuen, eta bestalde, odol zipriltinez zikindu atorra urratuak zafratua izan zela frogatzen zuen. **Elena**

Touyarou

2 irud/hed

Bizpahiru eragozpen jarri nizkion, baina berehala ikusi nuen kobre-xaffa bat mailupean bezala **uspeltzen** zela eragozpen-ukaldion pean Commendatorea. **Juan Garzia**

usta iz makila mehea eta malgua, eskuarki mutur batean uhala duena, zaldiak akuilatzeko erabiltzen dena. ikzaharo.

Zaldiz ibiltzeko galtzak eta larru beltzeko polainak jantzita zeuzkan eta egur zurituzko **usta** luze bat astintzen ari zen. **Lopez de Arana**

Eraman nahi bazaitu, eramango zaitu, eta bestela, ez dago mokadu, brida, **usta** edo uhalik menperatuko duenik. **Agustin Otsoa**

Segidan, ezer esan gabe, mahai gainean zeukan zurezko makilatxo bat, **usta** baten antzekoa, hartu eta zutitu ondoren leihorantz abiatu zen. **Joxemari Iturralde**

Lehentxeago ezpatari eutsi zion esku berberak **usta** hartu zuen oraingoan. **Xabier Aranburu**

Denboraldi bikaina egiten ari zara, eta badirudi merezitako saria jasoko duzula: Urrezko **usta**. **Berria - Kirola**

ustadun izlag usta duena.

Hegoaldera seinalatu zuen haren **ustadun** eskuak. **Xabier Aranburu**

ustai ik uztai.

ustaldu ik usteldu.

uste 1 iz zerbaiti buruz, itxura edo aztarnen arabera izaten den iritzia. ikustekizun.

Ustea da 1327 eta 1329 bitartean hil zela Kolonian. **Joan Mari Lekuona**

Garai hartan, **uste**a zebilen autistaren adimena ez zela gai ez bere burua ez beste inor ulertzeko, eta, horrenbestez, ez introspekzio ez erretrospekziarako ere. **Xabier Olarra**

Usteak daude, ebidentziarik ez. **Berria - Gaiak**

-Ez, ez, **uste**a besterik ez da, baina badakizu, hazten ere ari da. **Joxemari Urteaga**

Usteak eta aieruak besterik ez ziren, ordea. **Juan Kruz Igerabide**

Eta hori frogatu duk, ez **uste**a. **Jon Muñoz**

Soilik zalantzan ezin jar daitezkeen **usteak** dira egiazkoak. **Askoren artean**

Gure herriko **uste**a da, suak gorputzak erretzen dituela, baina izpirituak bizirik uzten. **Joanes Urkixo**

Beren sinesmen eta **usteak** *Vedak* liburuetan gatzatu zituzten. **Gotzon Garate**

Ez nion galdetu bere **uste**a zertan bermatzen zuen orain. **Aingeru Epaltza**

Aspalditik, medikuen **uste**a izan da eritasun asko eta askok bi eragile mota zituztela Sorburuan. **Juan Garzia**

Zientzialariaren **uste**a oinarrizko bi errakuntzak biziatuta zegoen. **Iñaki Mendiguren**

-Zein da zure **uste**a, andere Graziana? **Joan Mari Irigoien**

Nire **uste**a osorik egiaztatzen zen hurrengo egunean. **Josu Zabaleta**

Uste guztiak ez daude maila berean; batzuek iturri objektiboa dute, beste batzuek, ordea, ez. **Askoren artean**

Aurkikuntza aurkikuntzaren ondotik, bere **uste**a sendotuz zihoakion. **Iñaki Iñurrieta**

Epailleak **usteetara** jotzen duenean, epaiketak arbitrario bihurtzen dira; legeak **usteetara** jotzen duenean, lege finkoa ematen dio epaileari. **Iñaki Iñurrieta**

Hegelen **uste**a funtsean egia dela dirudi: mundua askatasunaren bidean etengabe aitzina doala. **Gotzon Garate**

-Nire **uste**a erabat bestelakoa da, ordea. **Migel Angel Mintegi**

Ongiaren eta gaizkiaren gaineko iritzia partikularrei dagokiela diotenen **uste**a sediziozkoa da. **Esteban Antxustegi**

2 (erakusleekin)

Uste hau ziurtasun bihurtzea nahi nuke, baina ez dut horretarako arrazoi nahikorik aurkitu. **Karlos Linazasoro**

Uste hura sendotu egin zion kalean zebilen jendearen segizioarekiko jarrerak. **Anjel Lertxundi**

Ez zeukan Noraren aitaren **uste** haien aurka egiteko ez gogorik ez kemenik. **Anjel Lertxundi**

Oro har nik ere **uste** hori nuen euren gainean. **Urtzi Urrutikoetxea**

Ez da harrizkoa **uste** hori izatea gaixotasun horien historia ezaguturik. **Josu Zabaleta**

Capon ez zetorren bat **uste** harekin. **Lutxo Egia**

Uste horiek sortzeko mamitzen den prozesu kausala bera fidagarria izatea da garrantzizkoa hemen, pertsonak, kontziente izan edo ez, **uste** bat duenean. **Askoren artean**

Nabarmena iruditu zitzaidan ez zela norbait Botanikoa erakusten zion lehen aldia, **uste** hori zertan oinarritu ez nekien arren. **Ramon Saizarbitoria**

Razionalistaren ustez, ezin da eraginik izan **uste** horien gain, ukiezinak dira, nahiz eta argi ez laga immunitatea nola den posible. **Askoren artean**

Orain ohartzen nauk **uste** hori ergelkeria hutsa zela. **Xabier Olarra**

Uste hori ordea heretikoa da eta kondenatua. **Piarres Xarriton**

Uste horren arrazoa hauxe da, [...]. **Iñaki Iñurrieta**

Uste horren hutsalergia argitu dugu jadanik. **Iñaki Mendiguren**

Uste horren usteltasunaren frogagarri, hona, beste askoren artean, Damaso Inzak Nafarroan jasotako bi esaera: [...]. **Iñaki Segurola**

Ume nintzenetik entzun izan nion euskaldunok, pobreak nahiz aberatsak, denok berdinak garela, eta **uste** horretakoa naiz neu ere. **Ramon Saizarbitoria**

Hori bazekiela, edo **uste** horretan zegoela, edo horren beldur zela? [Jon Muñoz](#)

Uste honetan, honako hitz hauekin interpretatzen du latinezko *ingenui* hitza: [...]. [Iñaki Iñurrieta](#)

Uste horretan onartu nuen kargua. [Joxerra Garzia](#)

Beste espekulazio interesgarri bat ere egiten da, zentzuzko **uste** honetatik abiatuta: [...]. [Irene Aldasoro](#)

Uste horretara lerrarazten gaitu hain zuzen bilduma honetako gutun guztietan ageri den gisa horretako akatsen ugaritasunak. [Jon Muñoz](#)

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Uste handiagoa nuen nire itzulerak sortua zuen lehen ondorioan. [Jon Muñoz](#)

Legeak babesten nau -mehatxu egin nahi izan zion, baina **uste** handirik gabe. [Miguel Angel Mintegi](#)

-Demagun..., **uste** hutsa da, baina demagun Arrietak hil zuela. [Miguel Angel Mintegi](#)

Harekin bakarrean egoteak ez zion kezkarik ttikiena ere eragin, hain **uste** sendoa zuen bere indar handian. [Patxi Zubizarreta](#)

Zuk **uste** sendoa duzu harengan, baina ganorabakoa eta doilorra da! [Jose Morales](#)

Bekatu egiten dutela, non ez dituen beren zentzu eskasak edo ezjakintasun zuzenak zuritzen eta, beraz, heretiko direla beren **uste** oker horretan tematzen direno. [Piarres Xarriton](#)

Nire **uste** okerrenak egiaztatu ziren orduan. [Koro Navarro](#)

Saguntoko aldarrikapenarekin, **uste** txarra nonahi zabaldu zen. [Koro Navarro](#)

Maitasunak, ailegatzen denean, korrika eginarazten dizu, nire **uste** apala hori da. [Fernando Rey](#)

Beti jokatu izan zuen Sultanaren alde, aberriaren alde jokatzeari baitzen beraren iritzi eta **uste** apalean. [Felipe Juaristi](#)

Beste erran zahar honek ere **uste** bera azaltzen du: [...]. [Gotzon Garate](#)

Uste berekoa izan zen Sedano ere, postala erakutsi nionean. [Ramon Saizarbitoria](#)

Nire **uste** bera zuen bat baino gehiago ezagutzen dut. [Anjel Lertxundi](#)

Musikazaletasunak espiritualtasuna esan nahi zuelako **uste** zabaldu eta arrunt hori iritzi okerra zela hasi zitzaion iruditzen. [Josu Zabaleta](#)

Fundazionistak dio besteekiko usteen mendekotasun erlaziorik ez duten **uste** justifikatuak badaudela. [Askoren artean](#)

Zentzuzko **ustea** zen, baina eskuineko ohe hutsari begiratu ahala, ezin nuen eragotzi hilik zegoela irudikatzea. [Oskar Arana](#)

Aieruzko **usteak** suntsitzeko asmoa. [Jon Muñoz](#)

Zail litzateke sinestea ezagutza soilik egiazko **ustea** dela, justifikazio baten beharrik izan gabe. [Askoren artean](#)

4 (-lako atzizkiaren eskuinean)

Zerbat ahaztu zuelako **usteak** itolarria eragin zion. [Lopez de Arana](#)

Trukeen hazkundearen moteltzeak pertsona batzuen aberasteak beste batzuen pobretzea dakarrelako **ustea** sendotu zen. [Koro Navarro](#)

Hemeretzigarren mendearen bukaeran bizikletan ibiltzea emakumeen osasunerako kaltegarria zelako **ustea** zabaldua zen. FBlaz hark duen iritzia ezaguturik, irudimen gabeko polizia profesional buru-astun eta tentel modura agertuko direlako **ustea** izango da **usterik** zuhurrena. [Xabier Olarra](#)

Nolatan eutsiko diogu, halako eguneroko nabarmenkerien aurrean, gizakia sortzez ona delako **usteari** ? [Esteban Antxustegi](#)

Ordutik dator Erdi Aroa iluna izan zelako **ustea**. Maimon eszeptikoa zen Erdi Arokoek zeruko kosmologia zuzen deskribatu zutelako **ustearikiko**. [Bernardo Atxaga](#)

· Itxurazko fidantziak, zenbait egitate eskuzabalez, nire maitale bakarra izan delako balakuzko **ustea** batbederari sinetsarazirik, halatan erdietsi dut haien isiltasuna. [Jon Muñoz](#)

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Perpaua bat egiazkoa da horrekin harremanetan dagoen **uste** -sistemari koherentzia handiagoa ematen badio. [Askoren artean](#)

Descartes ez zen eszeptikoa, baina eszeptizismoaren **uste** -egoeratik nahi zuen abiatu. [Askoren artean](#)

Ni ere hortxe egongo nauk laster bukatzeko **uste** -irrika horretan zain. [Patxi Ezkiaga](#)

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez al duzu uste zure handi- **uste** hori lekuz kanpo dagoela hemen? [Xabier Paya](#)

Azkar- **ustea** edo gaztetxoenganako onginahia errukibera adieraz lezakeen irri bat. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Bazter dezagun ordea haur **uste** hori atso ipuinen ondoan. [Jon Muñoz](#)

Erru- **ustea** kolektibizatzeak dakarren lasaituaz. [Iñigo Aranbarri](#)

Errudun **uste** horrek ustelduko hau. [Iñaki Segurola](#)

Baina ez zen asko luzatu zorian **ustea**. [Jokin Uraín](#)

Ez zuen oreka gordetzeko behar, nik barregarritzat neukan dotorezia- **ustea** indartzeko baino. [Anjel Lertxundi](#)

Halaz eta guzti, itsumen horretan eta kaiku- **uste** horietan erori da ba berori. [Patxi Ezkiaga](#)

Bizi-betegarri edo suzedaneo gorenak, beraz, hil ondoren ere badaki bizi- **ustea** bazkatzen. [Iñaki Segurola](#)

Psikologoaren hizkeran esanda, gutxi- **ustea**. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Eta porrot **ustea**, nigan hazkor. [Txillardegí](#)

Geroztik, izan ere, emakume dexentek askatu izan bainau sasi gutxiagotasun- **uste** horietatik. [Joxe Austin Arrieta](#)

Galdu- **usteak** edo, hobeki esanda, galminak bizimindu egiten gaitu. [Iñaki Segurola](#)

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Nik, artean 23 urteko gixon gizon- **ustea**, zera pentsatu nuen neure baitan: [...]. [Joxerra Garzia](#)

Eredua errepikatu egiten baita, jantzi berri **usteekin** badarik ere. [Anjel Lertxundi](#)

Nire arrazoi zorrotz- **usteak** nahiago: [...]. [Aingeru Epaltza](#)

Irakasle buruargi **usteak**, bete-betean zegoion tonu autoatsegin halako batez: [...]. Izenik erran gaberik ere ezaguna nuen mintzo alai- **uste** hori. [Anjel Lertxundi](#)

Askoz erosoago ibiliko hintzateke-eta, [...] euskaltzale koadrilla horrekin, hire Pernandokeriak aireratzten, orain duan pijo koadrilla txepel grazioso **ustearekin** baino. [Jokin Muñoz](#)

Horrelako irainak, gordinenak bezala kultu- **usteenak** ere, ezgaitasun baten adierazle baizik ez direlako. [Jon Alonso](#)

· Singerreren liburuetan aurkitzen diren pertsonaiak oso xebebreak izaten dira askotan: goargitu- **usteak**, atzeratuak, pertsona bitxiak. [Koro Navarro](#)

Kasu zipitzik ez atariko haizeari hitz egiten dioten jakintsu **usteel**. [Anjel Lertxundi](#)

Neskatan nahi eta okerreko tokira iritsitako dibortziatu berri dotere- **ustearen** irudi biribila. [Aingeru Epaltza](#)

8 (filosofian)

Hasiera hartan, arazo filosofikoak, oro har, hizkuntza aztertuz ebatz zitezkeelako **ustea** (edo ametsa, esan genezake orain) ere bazen. [Askoren artean](#)

Ustea gure adimenean agitzen den jazoera bat da, oinarri objektiboetan funtsa daitekeena. [Ibon Uribarri](#)

Iriztea subjektiboki zein objektiboki askieza izateko kontzientzia duen **ustea** da. [Ibon Uribarri](#)

A priori justifikatuak izan diren **usteak**, ezezta al ditzake esperientziak? [Askoren artean](#)

Subjektiboki zein objektiboki gogobetegarria den **ustea** jakitea da. [Ibon Uribarri](#)

Halako judizioak baiotasun pribatua baino ez du eta **ustea** ezin da komunikatu. [Ibon Uribarri](#)

Ustea uste osoa edo limurtze soila dela zehazteko frogarria kanpotik dator. [Ibon Uribarri](#)

Filosofiaren esparrua soilik pentsamendua (teoria) dela defenditzen duen **ustea** hedatuegi dago. [Askoren artean](#)

Pentsa dezagun norbaitek A **ustea** duela eta A **ustea** B **ustearen** bitartez justifikatzen duela. [Askoren artean](#)

Ustea sortze prozesua oso fidagarria bada, orduan **usteaaren** egiaztasun-maila ere oso fidagarria izango da. **Askoren artean**
Justifikazio epistemikoa **usteen** arteko koherentziaren arabera ematen da, eta ez horrenbeste oinarri batetik abiatuz eginiko inferentzien arabera. **Askoren artean**
Hori egia baldin bada, orduan fiabilistak (esternistak) **ustea** justifikatuta dagoela esango du. **Askoren artean**
Sentimen-esperientziaren **usteak** sistema koherente baten barnean kokatuz justifikatuko dira, ez beste modu batean. **Askoren artean**
Horrela judizio teoretikoan praktikoaren analogoa den zerbait dago, eta bere **usteari** sineste hitza dagokio, eta guk sineste doktrinala dei diezaiokegu. **Ibon Urbarri**

9 itxaropena-edo.

Horrexegatik, hain zuzen, tradizioa eta aginpidea kontuan hartzeaz gain, arrazoiaren poderioan ere **ustea** jarri beharko duela aurrera egiteko. **Askoren artean**
Jaunarengan, Israelen Jainkoarengan, ipini zuen bere **ustea**. **Elizen arteko biblia**
Ez diezazuela Ezekiasen **ustea** Jaunarengan jarrazazi, Jaunak libratuko zaituztelakoan eta hiri hau Asiriako erregearen menpean eroriko ez delakoan. **I**
Horrelakoxea da Egiptoko errege faraoia **ustea** berarengan duten guztientzat. **Elizen arteko biblia**
Itxaropen sutsua dut ez didala **usteak** huts egingo. **Elizen arteko biblia**
Nire **usteak** putzura... -bota zuen ahapeka. **Joxemari Urteaga**
Oraingoan, ordea, **usteak** ondo bideratuak zirudien. **Joxemari Urteaga**
Astelehen osoan nire elikagai bakarra izan eta gero, galleta hondarren bat gelditzeko **ustea** ere sobera izaten ahal zen etxe horretan. **Aingeru Epaltza**
Hortik ordainez saririk jasotzeko **usterik** gabe. **Xabier Kintana**
Beren **uste** guztiak bete ziren: lau etxe eta kanpandorre bat. **Iban Zaldia**
Koleraz beterik, ahantzi bide zuen saltoki hartan ezarria zuela bere **uste** guztia, eta dirua aurreratzea zuela atseginbide bakar, ondasunak gozatu gabe baina. **Patxi Zubizarreta**

10 asmoa-edo.

Espiritu horrekin ez dago kontakizun onik, istoriorik hoberena ere aspergarria bilakatzen baita kontaktuan gutxieneko **ustea** jartzen ez bada. **Ramon Saizarbitoria**
Puritano zeloteen gaitzespena bereganatu zuen, haien begietara sionistak fedegabeziaren errudun baitziren, beren ekimen eta indarrez Lurralde Agindura fisikoki itzultzeko **ustea** zutelako. **Iñaki Mendiguren**
Multzo labur baina esanguratsua osatzeko **usteaekin** sartu nahi izan diren irudiak aukeratzeko irizpideak. **Santiago Iruretagoiena**

10a (ustel-rekin lotua)

Uste ustela, Léa! -esan zuen bozkarioz Ruche jaunak-. **Jon Muñoz**
Azkueren **uste ustelak** izan zituen Mitxelena hizpide. **Koldo Zuazo**
Orduan, lehengo **uste ustelak** alde batera utzi ordez, zertxobait egokitu nuen nire teoria. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Usteak ez dira **uste** bezain **ustel**. **Joxerra Garzia**
Normandiara konturatu zen Lisa ederrari maitalea kentzen ari zitaiolako **ustea ustela** zela. **Karlos Zabala**
Usteak ustela duela erdia, bai eta ere buru bezainbat aburu badabilela munduan. **Piarres Xarriton**
Nahiago nuke nire **ustea** ere erdia **ustel** balitz. **Joxerra Garzia**
Guri hemen dagokiguna da arrazoiaren tribunalera jotzea, eta han zientziari gainera erortzen zaion epaia da **usteari** erortzen zitzaion berbera: erdia (pasa) **ustela** duela. **Iñaki Segurola**
"Uste dut", baina **uste** hori ez ote da **ustela**, eta gure sinestea alferra, haurreko gure intxaurrak maiz alferrak eta iharrak gertatzen zitzaizkigun bezala? **Piarres Xarriton**
Bai, etorkizunari buruzko **usteak ustel** gertatu dira honetan ere: etorkizuna ez da ez garai batekoa. **Iñaki Heras**
Usteak ustel, nik ez nuela ezer uste. **Joxe Austin Arrieta**
Nork jarri zuen **uste** ona Jaunarengan, eta **ustel** atera? **Elizen arteko biblia**
Ez ote du, ordea, uste izango, nigan ipini zuen **ustea ustel** atera zitziola eta nik bere amari saldu niola? **Gotzon Garate**
Benetako Europako merkatu bateratua osatzeko diru bateratua beharrezkoa zelako ustea (nahiz eta uste hori, hein handi batean, nahiko **ustela** izan). **Iñaki Heras**
Zenbateraino zen **ustela** zerria hilik izurritea amaitu zelako **ustea**. **Joxerra Garzia**
Atal horretarako hautatua duen bigarren istoriotxoia izugarria iruditzen zaio, gaurko **uste ustel** -estalekin batere bat ez datorrena. **Anjel Lertxundi**
Eta norberarena, galdu-**uste ustela** besterik ez dela. **Iñaki Segurola**
Horrela du jakin-**usteko ustela** bereganatzen. **Iñaki Segurola**
Uste -minak **ustel**. **Patxi Ezkiaga**

11 **ustean** (314 agerraldi, 76 liburu eta 132 artikulutan) iritzian; esperantzan; asmoan. ik beherago 13.

Ustean ezin gara gelditu. **Berria - Harian**
Nire **ustean**, gai honi arduraz ekin beharko genioke. **Edorta Jimenez**
Orduan Martinek galde egiten zidan, zein ote zen, nire **ustean**, belar harentzat izen egokia. **Edorta Jimenez**
Haien **ustean**, heziketa sexualak zuzenean jarduera sexuala eta promiskuitatea handitzea ekarriko zuen. **Luis Elberdin**
Honela erantzun zion Ruche jaunak Perretteri, OLak bere **ustean** zenbat balio zuen galdetu zionean: [...]. **Jon Muñoz**
Gizona ez duk lanerako sortu, haren **ustean**. **Karlos Zabala**
Herentzia horren **ustean**, haren ahaideek beren ondasun guztiak xahutu zituzten oturuntza, dantza-bilera eta Paris-aldi sarritan. **Juan Garzia**
Noraren aitak eskugaina pasatu zuen begietatik, eta igurtzi egin zituen gero, Andreasen lekuan marinelaren ordeko beste norbait ikusten ari zen **ustean**. **Anjel Lertxundi**
Hobe beharrez, beste nornahik bezalaxe hartzen dik trenan han eta hemen, kontrol txikiagoa izango duen **ustean**. **Txillardegi**
Koronela "kaikutzar azken putza" zelako **ustean** hazitakoak ginen batik bat. **Mirentxu Larrañaga**
-Esadak, arren! -estutu ninduen abadeak, haria galdua nuelako **ustean**. **Edorta Jimenez**
Harresi hauen barne aldean babesa aurkituko zutelako **ustean**. **Jon Alonso**
Zuen aita ez zebilen oker, ez, hari buruzko **ustean**. **Mirentxu Larrañaga**
Egun batzuetarako **ustean** irten etxetik eta hogeit urtera arte luzatu zen Sobietar Batasunera joan ziren umeen erbestealdia. **Jokin Urain**
Behin, iluntzen hasia zen, ostatutik irteten ikusi nuen dotore **ustean** jantzita. **Anjel Lertxundi**
Haiexek dira, zabal **ustean**, itxienak eta bere baitan bilduenak, kuxkurtuenak, korapilatuenak eta idiotenak (hitzaren adiera lehenengoan). **Iñaki Segurola**
· Madeira hark ahosabaia erretzen zuen, zeren saltzaileek, Madeirako ardoa atsegin duten lurjabeen gustuen jakitun, gupidarrik gabe nahasten baitzuten ronez [...]
erusiarraren urdaila dena eramateko gai delako **uste** sendoan. **Jose Morales**
Hain ziren ezjakinak non **uste** -ustean baitzeuden ezen mendietako izotza [...] lehenik harri-lore eta gero burdin harri bilakatzen dela. **Juan Garzia**

12 **usteko izlag** (izenondo eta aditzaren era burutu baten eskuinean)

Herriko xarmatzaile **usteko** zenbaitek eta amorostu anitzek eskatuta asmatzen nituen lerro haietan. **Koldo Izagirre**
Ezkertiar **usteko** askok, bat-batean aginte-makila eskuetan dutela ikusten dutenean (edonolakoa delarik ere aginpide hori), egiten duten hutsa. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Axxar-**usteko** tonto asko bizi da xiudadeetan. **Iñaki Segurola**
Kausa, etiologia -sakon- **usteko** greko txepelen batek asmatu zuena- beti edo gehienez da kausa eragozlea, zapuztailea, galarazlea eta ixilarazlea. **Iñaki Segurola**
Nola egin lezake liburu batean, jakintsu **usteko** edozein ergelen maiseaketa-xedea izateko arriskurik gabe, haren aurka bere ezjakintasunaren geziak jaurtirik? **Xabier Kintana**
Gutun inperiala begi itzali **usteko** haien aurrean ipini zuenean, [...]. **Karlos Zabala**
Horregatik ez da inor, perfektu **usteko** hark baino errudun sentimentu handiagoa kutsatzen duenik. **Patzi Perurena**

Epaitegi horretan euskal presoekin salaketagatik erraiak astintzen zaizkaien abertzale **usteko** horiei. **Jokin Urain**
Txolinkeriak txolinkeria, pertsonaia barregarri handi- **usteko** bat zen nire istoriko Periko hura. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Ez pentsa funtzionario ezkeriar progre- **usteko** haiek atzera ere eliza amaren magalera itzularazi nindutenik. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Ez zara inondik ere gurasoen kontura bizi diren gaxte bohemio **usteko** horietakoa. **Patziku Perurena**
Serioak, izatekotan ere, beste horiek dira, bizitzeko bilatzen diren arrazoi horiek, sakonetik oso gutxi duten arrazoi sakon- **usteko** horiek. **Iñaki Segurola**
Ezin ditu burutik uxatu haien ziriak, haien burla on- **usteko** nahiz txantxa gaiztoak. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Izpiritu metodikoak gizakera ezberdin **usteko** guziak iresten baititu. **Patziku Perurena**
Handian paso eman eta tikiitki jotzen du hordago, eta tikiian ez dio inork irabazten, eta horrela du jakin **usteko** ustela bereganatzen. **Iñaki Segurola**
Topikoetatik ihes egitea, on **usteko** zurikerietan ez erortzea. Sinetsi egin zuen egia **usteko** gezurra. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Bueno, kontua da Llumek esan zidala Morfeo **usteko** hura ez zela Morfeo. **Antton Olano**
Zer ez ote litzaiokeen esan behar, izar- **usteko** hainbat sateliteri! **Joxerra Garzia**

12a izlag ustezko.

Armata Corsa taldeko **usteko** sortzaile Nicolas Gros 2001ean hil zuen erasoarekin zerikusirik izatea leporatu diete. **Berria - Mundua**

13 ustetan (745 agerraldi, 65 liburu eta 507 artikulutan) iritzian. ik gorago 11.

Platonen **ustetan**, itxuraz, jainkoa baita gauza guztien Egilea. **Imanol Unzurrunzaga**
Batzen **ustetan**, Campionentzat esaterako, iraila zen euskal egutegi zahararen azkena. **Pello Salaburu**
-Zure **ustetan**, zer gertatuko ote zitzaion? **Patxi Zubizarreta**
Izan ere, nire **ustetan**, ez baituzu "pietatea" esan, "fedea" baizik. **Imanol Unzurrunzaga**
Halakoxeak ziren, bada, haren **ustetan**, jende hark ongi mereziak zituen oinazeak. **Patxi Zubizarreta**
EGK Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko buru Alicia Susoren **ustetan**, bistan da familiak «oso rol garrantzitsua» jokatzeko ari direla. **Berria - Harian**
Bestaburuetan uzten zuten borroka, uzten guduak bake garaia etorria zelakotz denen **ustetan**, bakea nagusitzen zela Eguberriz, Bazkoz, Mendekostez. **Herria**
Harro egoteko motiborik ez zitzaion bere **ustetan** falta. **Juan Garzia**
Ez da kontrakorik hemen, gure **ustetan**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Hiri babestu dira ondasunak aberatsarentzat, menperaezineko harresi, haren **ustetan**. **Elizen arteko biblia**
Vanunuk aske utzitakoan informazio gehiago eman dezakeen beldur dira agintariak, hainbat iturriren **ustetan**. **Berria - Mundua**
Ezkontzaren gaitz eta makurrei eman dakiekeen azken konponbidea da dibortzioa, lege testu berriaren **ustetan**. **Andres Urrutia**
Orain ere, halakoa naizen **ustetan** mintzatu nahi nikek. **Aingeru Epaltza**
Orain ere, Europari begira dira herritar asko, Europako Giza Eskubideen Auzitegian aurkeztu duten helegiteak ltoitz geldiaraziko duelako **ustetan**. **Eduarne Elizondo**
Oraindik orain atera zen Teudas ere, norbait bazelako **ustetan**, eta laurhun bat gizon bilduak zituen. **Elizen arteko biblia**

14 ustez¹ (9625 agerraldi, 249 liburu eta 5138 artikulutan) (-en atzikiaren eskuinean) –en iritiz.

Hemen ere intuizio jainkotiar batek lagunduko digu, Platonen **ustez**. **Askoren artean**
Helmholtzen **ustez**, eta orobat Youngen **ustez**, hargailu bakoitzak bereganatutako argiaren uhin-luzeren zuzeneko adierazgarria da kolorea. **Xabier Olarra**
Eta adina baduk hik, ene **ustez**, heure hogeitertean. **Txillardegia**
Ametsetako lukainak, bere **ustez**, toki egokia aurkiturik ere ez baitzuen dirurik haren erosteko. **Xipri Arbelbide**
Argi dago, haien **ustez**, irudika daitekeen oro posible dela, errealitatea horrekin bat etorri zein etorri ez, eta ezin irudika daitekeena, aldiz, ezinezkoa. **Xabier Kintana**
Jainkoarengan (gorets bedi!) esentziazkoak diren atributu guztietan, atributu horietan sinesten duenaren **ustez**, "holakotasuna"ren nozioa aurkituko duzu. **Xabier Kintana**
ADN da, hain zuzen ere, geneak biltzen dituen molekula luze bat eta barruan ditu milaka milioi (3.000 batzuen **ustez**, 7.000 beste batzuen **ustez**) letra kimiko. **Pello Salaburu**
Beste katoliko batzuen **ustez**, biak gauza bera dira eta edozein bekatu mortalek galarazten ditu biak. **Piarres Xarriton**
Nabarrengoxeko erretoreak aldiz etapa hura zela zailena behar bada, erromesen **ustez**. **Piarres Aintziart**
-Nork, zure **ustez**? **Xabier Olarra**
Ederrena, nire **ustez**. **Bernardo Atxaga**

14a ustez² (adizlagun gisa) ik uste izan 6.

Ustez, larunbat goizera arte biziko dira, bi egun. **Oskar Arana**
Berak ez ninduen ikusi, **ustez**. **Juan Kruz Igerabide**
Itxurazko mugimendua aise ezabatzen da, adibidez, mugimendu hori **ustez** eragiten duten bi estimuluen artean argi-eremu uniforme bat txertatzen baldin bada. **Josu Zabaleta**
Zer da **ustez** guk horretaz pentsatu behar duguna? **Oskar Arana**
Memento batzuetan, goizetan bereziki, gorputzean gaztetasun bat bezala senditen da: akidurek, eritasunek eta adinak **ustez** galarazia zuten freskotasuna. **Piarres Aintziart**
Hilotz bat da zinez ematen duena, hondakin ustelkor bat, ezerez hotz bat: horixe da **ustez** bizia ematen duenak zinez ematen duen gauza bakarra. **Iñaki Segurola**
Aztertu beharra dagoela **ustez** elkarren kontra doazen legeak ildo berekoak al diren. **Iñaki Iñurrieta**
Ez dute aurkitu **ustez** Bilboko itsasadarrean galdu zen gizona. **Berria - Euskal Herria**
Nabarmenagoak direlako, ez dutelako **ustez** besteen dotoreziarik, oro har aurrez ditugu baztertzen. **Iñigo Aranbarri**
Ustez sentsibilitatea dutenek gai handietara jotzen dute beren burua edertu nahi dutenean. **Bernardo Atxaga**
Ustez Benitorenak ziren gorpuzkien ondoan. **Ramon Saizarbitoria**
Lauburuak eguzkia beti mugitzen ari dela irudikatzen du eta, **ustez**, horregatik izan du agian hain onarpen zabala euskaldunen artean. **Pello Salaburu**
Adierazgarria zen, **ustez**, urtez urteko bilakaera. **Juan Garzia**
Zuri-beltzeko telebista, berriz, askoz ere eramangarriago zitzaion, **ustez**. **Xabier Olarra**
Eta ez, **ustez** behintzat ez nago oraindik burutik eginda. **Joxerra Garzia**
Bere anaia zahar eta **ustez** helduagoa. **Aingeru Epaltza**
Alkandorarik politena hautatu nuen (**ustez** politena, bederen!), eta jantzi egin nahi nuen. **Txillardegia**
Dolu dut **ustez** plazerretan emana nuen aldi hura. **Jon Muñoz**
Eskema **ustez** progresista askoren atzean ez da zaila bizitzari buruzko ikuspegi jansenista aurkitzea gaur ere. **Anjel Lertxundi**
Halaxe gindoazen hegan, lautada **ustez** aiposaren gainetik. **Joxe Austin Arrieta**
Azkeneko nik, **ustez** hiruetan gizajoenak, ixil-ixila mendekurik finena gorde dut. **Patziku Perurena**

15 ustezko izlag

Ustezko bertute horrek gizon makalak baino ez dituela lotzen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Herenegun atxilotu zuten **ustezko** terrorista gela erdian dago, aulki deseroso batean eserita, eskuak eta hankak lotuta. **Iban Zaldua**
II. Mundu Gerra amaituta, **ustezko** Lantza Santua Vienako Hofburg museora itzuli zen. **Alberto Ladron Arana**
Biharamunerako, **ustezko** seme-kalteen guraso guztiak ziren txandioaren jakitun. **Aingeru Epaltza**
Ustezko suizidioaren deskripzio ia zinematografikoa bideratu du bertsolariak, arreta xehetasunetara eramanez. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Bere aldrebasean, ezagun dute **ustezko** (eta izatezko) ibai-izen askok eta askok ezin izan daitezkeela herri-jendeak asmatuak. **Iñaki Segurola**

Donatienen **ustezko** "sadiismoa" ez dator portaeratik, haren Martin Elexpuru / Bego Montorio
Ostolazaren **ustezko** errugabetasunak korapilotu egin du bere emaztearen hilketari dagokiona. Migel Angel Mintegi
Horixe dela kasik gure kabitu-ezinen **ustezko** sendagarrien printzipio aktibo bakarra. Iñaki Segurola
Ameriketako Estatu Batuek, kapitalismoaren **ustezko** defendatzaile sutsuenek, ez dute administrazioaren parte-hartze makala erakusten. Iñaki Heras
Kosmosa edo mundu ordenaduna baino lehenagoko **ustezko** kaos hartaz ez dakigu ezer. Iñaki Segurola
Nor-eta Bosgarren Kolumnako **ustezko** burua ei da Leopoldo Panizo hori. Edorta Jimenez
Bertze mahaiko saltzaile **ustezkoari** begiratu makur bat egin eta oniritzi etsia eman nion menestrari. Aingeru Epaltza
Edan barik usnatu zuen Mentxuk kafe **ustezkoaren** usaina. Josu Landa
Nabarmena baita familiak neskaren gainean duen boterea guztiz **ustezkoa** dela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Hemen ez dago **ustezkorik** eta zalantzarik. Iñigo Aranbarri

15a gutxiagotasun uste ik konplexu 7.

Nire sudurra luzeskoa ote den, izan nuen horretaz kezka bat edo beste nerabezaroan, baina aurrerantzean batere ez; geroztik, izan ere, emakume dexentek askatu izan bainau sasi **gutxiagotasun** -uste horietatik. Joxe Austin Arrieta

Izan ere, inolako **gutxiagotasun** -usterik izateko batere motiborik ez nik. Joxe Austin Arrieta

GORROTO DITUT **gutxiagotasun** -usteak. Joxe Austin Arrieta

16 uste bete uste osoa.

Handik urte askotara, Sartrek bere saiakera filosofikoa argitaratu zuenean, Ruche jauna **uste betean** zegoen berei ostu ziela Sartrek izenburu hura. Jon Muñoz

- **Uste betean** nago ondo iritziko diozula tratu honi -esan zuen Txitxikovek-, oraintxe esan dugun bezala jokatuko dugu eta. Jose Morales

16a uste izan ik uste izan.

17 uste-muste adkor ustea.

Horrela pentsatu da bai Erdi Aroan eta bai Ilustrazioan, erromantizismoarekin **uste-musteok** kordokatu eta gero guztiz amildu diren arte Europan. Joxe Azurmendi

Idazleen **uste-musteak** alde batera utzita. Markos Zapiain

Bere buruarekiko **uste betea** zerion hizketa-modu hanpatu batez hitz egin zuen gero: [...]. Anjel Lertxundi

18 uste on (125 agerraldi, 32 liburu eta 3 artikulutan) zerbait edo norbaitengan izaten den itxaropen sendoa. ik konfiantza.

Herriak gure justizian du **uste ona**, ez gure oparotasunean. Iñaki Iñurrieta

Ez zuen **uste onik** alaba zaharrarengan [...] eta arrazoi zuen horretan: handik gutxira, Aleksandra Stepanovna etxetik ihes egin zuen zaldieri-errejimentu bateko kapitainorde batekin. Jose Morales

Estatubatuarren %45ek egunkariaren edukietan duten **uste ona** oso txikia edo hutsaren hurrengoa omen da. Iñigo Aranbarri

Izan **uste on** mundua garaitu duen Jaunagan. Askoren artean

Oi Jauna, zu ene babesleku eta gaztelu; ene Jainko, zuregan dut **uste on**! Elizen arteko biblia

Heldutasunak **uste ona** merezi du. Antton Olano

Gertaera dramatiko horiek ez zituzten **uste onak** zapuzten: gure mundua ederra zen; gure bizimodua normala, bereizgarririk gabea, unibertatsala. Bernardo Atxaga

Zapateroren eta Raxoiren arteko **uste ona** berreskuratu behar dela dio Barredak. Berria - Harian

Ondorio hau du, negozioetarako konfiantza ematen duela; magistratuenganako **uste ona** ematen du; hiriarekiko **uste ona**. Iñaki Iñurrieta

Zorionez, sexua baino gehiago laguna edukitzea interesatzen zitzaion, eta ametsa zuen berak ez zeuzkan bizitasuna eta bere buruarekiko **uste ona** emango zizkion gizon batekin egitea bizimodua. Oskar Arana

Akordio horiei esker, lehen unean, herrialde zordunen egoera ekonomikoaren gaineko **uste ona** sortu zen berriz ere. Koro Navarro

Funtzionario batek inoiz ez du irabaziko herritarren **uste ona**, eta mujikak ez dira garbi mintzatuko harekin. Jose Morales

Haren asmoa, dakigunez, hirian sartu, duke handiarengana joan, haren **uste onaz** jabetu, eta, memento egokian, harresiko ate bat setiatzaileei zabaltzea zen. Karlos Zabala

Louren oinetan geratu zen lur hautsez betean etzanda, eta **uste onez** eta adetasunez egin zion irribarre. Koro Navarro

Uste onez jokatuko dut, beldurrik gabe. Askoren artean

Izaeraz geldoa zen, **uste onekoa**, lasaia. Fernando Rey

Inazio Errasti nire aitaren **uste oneko** anaia ergelarenak. Koldo Izagirre

Dudarik gabe, buruzagiaren **uste onekoa** zen. Koro Navarro

Uste onezko otoitza probaldian. Elizen arteko biblia

19 uste oso (237 agerraldi, 70 liburu eta 29 artikulutan) zerbait edo norbaitengan izaten den itxaropen sendoa. ik konfiantza.

Uste osoa dut, beraz, nire bezeroak eskubide gehiago duela beste edozein emaztek baino [...] dibortzioa eskatzeko. Josu Zabaleta

Badakit **uste osoa** duzula nigan, nagusi; baina bizitzan denak dauka bere bidea. Urtzi Urrutikoetxea

Uste osoa nuen denborak arrazoia emango ziola senak esaten zidanari. Anjel Lertxundi

Ai zuek, **uste osoa** Sionen duzuenok, eta Samarian lasai bizi zaretenok! Elizen arteko biblia

Neure sentimenduen zintzotasunean hain dut bertzalde **uste osoa**, non sentimenduok zuri justifikatzeko aski baitut haiek zuri ontsa ezagutaraztea. Jon Muñoz

Antza denez, **uste osoa** zeukan bere medikuengan. Antton Olano

Gobernuarengan «**uste osoa**» dauka konpainiak, baina energia trukeen eta tarifen inguruko legeak finkatzearekin tematuta dago. Berria - Ekonomia

Uste osoa izaten zen nagusien eta zerbitzarien artean. Gotzon Garate

Negarrez, zerurantz jaso zituen begiak, Jaunagan baitzuen jarria **uste osoa**. Jose Antonio Mujika

Bai Chasuble doktoarek [...] bai Miss Prismek, nire **uste osoa** merezi duen emakume zentzudun miresgarriak. Antton Olano

Azkoyen taldeko akzioan nagusiak, Nafarroako Kutxak, **uste osoa** agertu zuen Azkoyeneko zuzendaritzan. Berria - Euskal Herria

Halere, badirudi hautesleek **uste osoa** mantentzen dutela berarengan. Berria - Mundua

Uste osoan baitziren inork ezin zituela beren mezuak deskodetu magiaren laguntza gabe. Jon Muñoz

Uste osoan zeuden nazioarteko presioak Hitler kikitzea ekarriko zuela, nazionalsozialistek behera egingo zutela eta laster elkartuko ginela berriro. Anjel Lertxundi

Tellagorri **uste osoko** indibidualista zen; euskaldunaren indibidualismoa tellagorritarren indibidualismoak sendotzen eta osatzen zuen harengan. Koro Navarro

Otoitz egin ondoren, Jaunak ematen zion adorea jantzirik, profetaren hitzak kantatzen zituen **uste osoz**: [...]. Askoren artean

Espontaneitateak ez du ukatzen arrazoia, baina farre egiten dio honen **uste osoari**. Patziku Perurena

-Bost axola zait tetanos -esan nion, **uste osorik** gabe noski. Ramon Saizarbitoria

Poliziaren mundu hark harrapatuta sentitzen zen, han ordurako den-dena zekitelako **uste osoan**. Karlos Zabala

Beste telefono-zenbaki horretara deitu nuen, inor egongo ez zelako **uste osoarekin**, eta pentsatuz Dryer eta Trumbell parranda egitera joanak izango zirela norabait. Oskar Arana

Zer esan ordea argentinar bati, nahiko garia eta behikia baduelako, munduko herririk gorena delako **uste osoan** badago? Patziku Perurena

- Maupassantek **uste oso-osoa** du tranpa bat dela itxaropena. Josu Zabaleta

20 ustea izan du ad

Badut ustea denak erranak zituela hitz laburrez gure udatiarrak eta hortan utzi dugu solasa, bestealdi batez segitzeko. Herria

Eta **uste dut** edan ere egiten zuela sukalderako erosten zuen pattar botilatik, eginkizun horretan sekula ikusi ez nuen arren. Ramon Saizarbitoria

Hirugarren banizun **ustea** garaitz nezakela nire nekea. **Jokin Urain**

Ustea zuen gizarteak hainbat adeitasun zor ziola eta ukatu egiten ziola. **Josu Zabaleta**

Nolanahi ere, Marten ur gehiago dagoen **ustea dute** ESAko zientzialariek. **Berria - Gaiak**

Gauza ugari gertatzen ari zirelako **ustea zuen**, denak batera. **Joxemari Iturralde**

Ustea baitute kudeatzaileek, eta hartarakoxe burubidea, ikerketa-plan eta -egutegiak ezar ditzaketela, arlo horietan bederen. **Juan Garzia**

Nik askatasun osoa ematen dizut eta zugar guztizko **ustea** dut... **Lopez de Arana**

- Zerbait ezagutzen badut, haren **ustea dut**. **Askoren artean**

21 **ustea** **uste**

Usteak uste eta esanak esan, Eusko Jaurilaritzak bihar bertan deskontatuko omen du Madrildo Gobernuak «zor» dion dirutza. **Berria - Ekonomia**

Teoriak teoria eta **ustea** **uste**, antzinako Olinpiar Jokoei eta egungoek oso antzekotasun gutxi dituzte. **Berria - Kirola**

Dena den, eta **ustea** **uste**, bi gai horiek behintzat azaldu beharko ditu hitzaurre honek. **Patxi Altuna**

Dena dela, Ostolazarekin hitz egin eta gero, **ustea** **uste**, garbi dago baten batek saltza larrian sartu duela. **Migel Angel Mintegi**

Baldin urratsak bederen geldiagoak egiten badituzte, ez da, **ustea** **uste**, adeitasunagatik edo herabetasunagatik izaten. **Jón Muñoz**

hitza multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko uste (3); **bere uste** (18); **bere uste ona** (3); **beste uste** (5); **bigarren uste** (3); **buruzko uste** (6); **delako uste** (10); **ene uste** (21); **ene uste apalaz** (3); **ene uste apalean** (12); **gure uste** (7); **halako uste** (8); **haren uste** (6); **hasierako uste** (3); **nire uste** (35); **nire uste apalean** (17); **oinarrizko uste** (3)

uste apalaz (3); **uste apalean** (34); **uste bera** (18); **uste bera du** (3); **uste berekoa** (11); **uste berekoa da** (4); **uste berri** (3)

uste faltsu (5); **uste gabe** (9); **uste gabean** (30); **uste gabeko** (51); **uste gabekoa** (12); **uste gabekoa gertatu** (3); **uste gabekoak** (5); **uste gabekorik** (4); **uste gabekorik gertatu** (3); **uste gabetan** (5); **uste gabetarik** (61); **uste gabetarik bezala** (4); **uste gabetarik joan** (5); **uste gabetarik segur** (3); **uste haiek** (3); **uste haien** (6); **uste handia** (5); **uste osoa zeukan** (3); **uste harekin** (3); **uste haren** (4); **uste hau** (16); **uste honak** (3); **uste honen** (3); **uste honetan** (4); **uste hori** (126); **uste hori zuzena** (3); **uste horiek** (15); **uste horien** (4); **uste horregatik** (4); **uste horrek** (27); **uste horrekin** (15); **uste horretarako** (5); **uste horri** (8); **uste hura** (13); **uste hutsa** (3)

uste justifikatua (3)

uste oker (25); **uste oker bat** (3); **uste oker hori** (3); **uste okerra** (24); **uste okerra da** (6); **uste okerrak** (9); **uste okerrean** (3); **uste okerrenak** (3); **uste on** (29); **uste ona** (60); **uste ona jarri** (3); **uste ona jartzten** (3); **uste ona jaunarengan** (3); **uste onak** (4); **uste onaz** (3); **uste oneko** (3); **uste onekoa** (3); **uste onez** (7); **uste onik** (10); **uste oso** (37); **uste oso osoa** (4); **uste osoa** (110); **uste osoa agertu** (6); **uste osoa baitzuen** (3); **uste osoa du** (3); **uste osoa dut** (4); **uste osoa lortzen** (3); **uste osoa nuen** (5); **uste osoa zeukan** (3); **uste osoa zuen** (9); **uste osoak** (3); **uste osoan** (45); **uste osoan bainaiz** (3); **uste osoan naiz** (7); **uste osoan zeuden** (3); **uste osoarekin** (3); **uste osoaren** (3); **uste osoari** (3); **uste osoko** (4); **uste osorik** (3); **uste osorik gabe** (3); **uste osoz** (23); **uste osoz esan** (4); **uste sendo** (6); **uste sendoa** (20); **uste sendoak** (7); **uste sendoan** (5); **uste sendoz** (3)

uste ustel (13); **uste ustel hori** (4); **uste ustela** (19); **uste ustelak** (8); **uste zabaldu** (3); **uste zabaldua** (3); **zuen uste horrek** (3)

bere ustea (13); **buruzko ustea** (3); **da nire ustea** (6); **dagoen ustea** (3); **dela ustea** (3); **delako ustea** (12); **den ustea** (17); **dirrelako ustea** (4); **diren ustea** (9); **diren ustea dute** (3); **dituen ustea** (3); **duen ustea** (6); **dugu ustea** (3); **dugun ustea** (4); **dutelako ustea** (4); **duten ustea** (8)

ene ustea (5); **errugabetasun ustea** (6); **garen ustea** (3); **gure ustea** (9); **gure ustea da** (5); **haren ustea** (3)

izatearen ustea (3); **neure ustea** (3); **nire ustea** (18)

ustea adierazi (3); **ustea agertu** (4); **ustea agertu zuen** (3); **ustea baino** (5); **ustea baino ez** (3); **ustea baztertu** (3); **ustea besterik ez** (3); **ustea da** (27); **ustea daukat** (3); **ustea du** (3); **ustea duela** (3); **ustea dut** (6); **ustea dute** (8)

ustea ere (5); **ustea eta** (9); **ustea ez** (9); **ustea ez da** (3)

ustea izan (8); **ustea izango** (3); **ustea izaten** (3); **ustea oso** (5)

ustea ustel (7); **ustea zabaldu** (4); **ustea zabaldua** (3); **ustea zen** (4); **ustea zuen** (6); **ustea zuten** (3)

zegoelako ustea (4); **zelako ustea** (8); **zen ustea** (6); **zeure ustea** (3); **ziren ustea** (6); **zuelako ustea** (3); **zuen bere ustea** (4); **zuen ustea** (4)

bere usteak (8); **beren usteak** (4); **buruzko usteak** (4); **geure usteak** (3); **gure usteak** (3); **halako usteak** (3); **hasierako usteak** (3); **nire usteak** (6)

usteak baino (3); **usteak dira** (3); **usteak erdi ustel** (16); **usteak erdia** (15); **usteak erdia ustel** (13); **usteak eta** (14); **usteak huts egin** (5); **usteak huts egingo** (4); **usteak uste** (11); **usteak ustel** (28); **usteak ustel gertatu** (4)

bere ustean (11); **delako ustean** (6); **dirrelako ustean** (4); **duelako ustean** (3); **gutien ustean** (78); **gutien ustean gertatzen** (3); **gutienik ustean** (13); **haren ustean** (3); **nire ustean** (34); **nuelako ustean** (3); **ustean berriz** (5); **ustean gertatzen** (3); **ustean zegoela** (3); **zelako ustean** (7); **zen ustean** (4); **zuelako ustean** (3); **zure ustean** (4)

usteekin bat (3)

gure usteen (3); **usteen arabera** (3)

bere usteetan (4)

dotore usteko (3); **handi usteko** (4); **jakintsu usteko** (5); **on usteko** (3); **sakon usteko** (3)

usteko bat (3)

usterik gutxienean (6)

aditu askoren ustetan (3); **adituen ustetan** (12); **aitaren ustetan** (5); **alonsoren ustetan** (3); **aralarren ustetan** (3); **askoren ustetan** (12); **azkarragaren ustetan** (3); **barredaren ustetan** (3); **batasunaren ustetan** (4); **baten ustetan** (3); **batzuen ustetan** (9); **bere ustetan** (135); **beren ustetan** (3); **bozeramailearen ustetan** (4); **buruaren ustetan** (5)

eajren ustetan (3); **eeren ustetan** (3); **elkarri ren ustetan** (4); **euren ustetan** (5); **gubernuaren ustetan** (3); **gure aitaren ustetan** (3); **gure ustetan** (18); **haien ustetan** (10); **haren ustetan** (58); **hirukoaren ustetan** (3); **honen ustetan** (3); **horien ustetan** (8); **horren ustetan** (4)

ibarratxeren ustetan (3); **idazkari nagusiaren ustetan** (4); **imazen ustetan** (4); **jendearen ustetan** (3); **kidearen ustetan** (4); **larreinarren ustetan** (4); **lehendakariaren ustetan** (4); **madrazoren ustetan** (3); **naizen ustetan** (3); **nire ustetan** (34)

ordetzariaren ustetan (5); **otegiren ustetan** (6); **parlamentariaren ustetan** (3); **presidentearren ustetan** (3); **pse eerren ustetan** (3)

udalbiltzaren ustetan (3); **ustetan ere** (3); **ustetan eta** (3); **ustetan ez** (8); **zabaletaren ustetan** (3); **zuen ustetan** (3); **zure ustetan** (9)

abertzalearen ustez (5); **abertzaleen ustez** (4); **abokatuaren ustez** (22); **abokatuaren ustez** (14); **abren ustez** (5); **adamsen ustez** (4); **adegiren ustez** (3); **aditu askoren ustez** (6); **aditu batzuen ustez** (3); **adituaren ustez** (6); **adituen ustez** (89); **adituren ustez** (15); **agintarien ustez** (5); **agirrerren ustez** (11); **agudoren ustez** (6); **aguirrerren ustez** (6); **aahaldun nagusiaren ustez** (4); **ainitzen ustez** (6); **aitaren ustez** (8); **aizpururen ustez** (3); **akusazioaren ustez** (5); **aldekoen ustez** (4); **alderdi horren ustez** (4); **alderdiaren ustez** (7); **alderdien ustez** (7); **aldundiaren ustez** (3); **alkatearen ustez** (12); **alliren ustez** (3); **alonsoren ustez** (5); **altzibarren ustez** (3); **amaren ustez** (8); **amigoren ustez** (3); **angel acebesen ustez** (3); **antolatzaileen ustez** (10); **anvren ustez** (5); **apaolazaren ustez** (5); **aralarreko koordinatzailearen ustez** (3); **aralarren ustez** (31); **aranaren ustez** (13); **arartekoaren ustez** (4); **arduradunaren ustez** (12); **arduradunen ustez** (6); **aresen ustez** (5); **argitalerako editorearen ustez** (3); **ari direnen ustez** (3); **aristotelesen ustez** (4); **ariznabarretaren ustez** (3); **armendarizen ustez** (6); **arnaldo otegiren ustez** (3); **arrojoren ustez** (3); **askatasunaren ustez** (22); **askoren ustez** (92); **asteburuan ustez** (3); **astronomoen ustez** (4); **atxagaren ustez** (13); **aubren ustez** (3); **autore askoren ustez** (3); **auzipetuaren ustez** (3); **auzitegiaren ustez** (6); **auzemandiren ustez** (3); **azkarateren ustez** (11); **azkarragaren ustez** (10); **azken horien ustez** (3); **azurmendiren ustez** (3)

a erraztiren ustez (4); **bankuaren ustez** (3); **barkosen ustez** (3); **barne ministroaren ustez** (3); **barredaren ustez** (5); **barrenaren ustez** (18); **barrioren ustez** (7); **batasunaren ustez** (53); **batasuneko bozeramailearen ustez** (3); **batasuneko mahaiakidearen ustez** (5); **batasunekoaren ustez** (3); **batzordearen ustez** (17); **batzordeko presidentearren ustez** (4); **beaumonten ustez** (3); **beñoñ belokiren ustez** (4); **beltzaren ustez** (4); **beotegik ustez** (4); **beraien ustez** (24); **beraren ustez** (10); **bere ustez** (565); **beren ustez** (57); **beste batzuen ustez** (19); **bilbaoren ustez** (4); **bilbon ustez** (4); **bilgune feministaren ustez** (4); **blancoren ustez** (7); **bozeramailearen ustez** (21); **buenen ustez** (5); **buruaren ustez** (24); **buruzagi sozialistaren ustez** (4); **buruzagiaren ustez** (13); **bushen ustez** (3)

camblongen ustez (3); **carmelo barrioren ustez** (3); **carod rovirearen ustez** (3); **catalanen ustez** (3); **ccooren ustez** (12); **cdnren ustez** (3); **cdfren ustez** (3); **confebasken ustez** (3)

dago ustez (5); **dagoela ustez** (4); **de duranaren ustez** (3); **defentsaren ustez** (4); **diezen ustez** (25); **dio ustez** (4); **diputatuaren ustez** (7); **dira nire ustez** (3); **dira ustez** (8); **dira zure ustez** (5); **duranaren ustez** (3)

eae anvren ustez (5); **eajko buruaren ustez** (4); **eajren ustez** (24); **eako presidentearren ustez** (3); **earen ustez** (14); **eb luokoaren ustez** (3); **eb iuren ustez** (3); **ebren ustez** (12); **editorearen ustez** (9); **editoreen ustez** (4); **eeko buruaren ustez** (3); **eerren ustez** (10); **egibarren ustez** (9); **egiguren ustez** (4); **egilearen ustez** (13); **egileen ustez** (3); **egin dute ustez** (3); **egunkariaren ustez** (3); **ehokoaren ustez** (3); **eheren ustez** (4); **ehneren ustez** (6); **ehuiko irakaslearen ustez** (4); **ekimenaren ustez** (5); **ekologisten ustez** (5); **elaren ustez** (44); **elbren ustez** (3); **eledunaren ustez** (12); **elkarri ren ustez** (15); **elkarte horren ustez** (3); **elkartearren ustez** (16); **elkarteko kidearen ustez** (4); **elorrigarren ustez** (3); **elorriletaren ustez** (6); **elorzaren ustez** (7); **ene ustez ez** (3); **enparantzaren ustez** (3); **enpresaren ustez** (4); **entrenatzailearen ustez** (6); **epailearen ustez** (12); **epaileen ustez** (3); **epaimahiaren ustez** (4); **epaimahalkideen ustez** (3); **eragileen ustez** (6); **erakundearen ustez** (12); **erasoekin ustez** (4); **erizeren ustez** (3); **erkorekaren ustez** (4); **erraztiren ustez** (18); **erroren ustez** (4); **espetxeratu dute ustez** (3); **etaren ustez** (17); **etxebarraren ustez** (5); **etxeberriarren ustez** (4); **etxerat en ustez** (7); **euren ustez** (78); **euskaltzalearen ustez** (3); **eusko jaurilaritzaren ustez** (9); **ezenaroren ustez** (3); **ezker batuaren ustez** (4); **ezker batukoaren ustez** (3)

familiaren ustez (3); **fernandezen ustez** (7); **fiskalaren ustez** (15); **fiskaltzak ustez** (3); **fiskaltzaren ustez** (4)

garciaren ustez (4); **gazteen ustez** (4); **gehienen ustez** (16); **geure ustez** (4); **gilien ustez** (9); **gimenezen ustez** (4); **gubernuaren ustez** (21); **gubernuko presidentearren ustez** (3); **goiztelaiaren ustez** (6); **golvanoren ustez** (5); **gotzainaren ustez** (3); **grebalarren ustez** (5); **greenspanen ustez** (3); **gurasoen ustez** (8); **gure aitaren ustez** (3); **gure ustez** (340)

haien ustez (124); **hainbat adituren ustez** (3); **hainbaten ustez** (7); **hannaren ustez** (3); **haren ustez** (344); **harryren ustez** (3); **hauen ustez** (8); **hautagaiaren ustez** (4); **herri**

ekimenaren ustez (3); herritarren ustez (5); hil zirenen ustez (3); hire ustez (3); hiriaren ustez (6); honen ustez (8); horien ustez (33); horren ustez (30); huertasen ustez (4); humeren ustez (3)

iairen ustez (3); ibarretxeren ustez (15); idazkari nagusiaren ustez (21); idazkariaren ustez (7); idazlearen ustez (5); ikertzaileen ustez (4); imazen ustez (30); intxaurrearen ustez (5); irakaslearen ustez (16); iraken ustez (3); iralurren ustez (3); iruinen ustez (4); irujoren ustez (3); iturgaitzen ustez (3); itzultzailearen ustez (3); iukoaren ustez (3); iuren ustez (5); ivanovicen ustez (3); izagirren ustez (4); iztuetairen ustez (4)

jauregiren ustez (3); jaurlaritzaren ustez (21); javier madrazoren ustez (10); jeltzaleen ustez (3); jimenezaren ustez (3); jon imazen ustez (4); jose elorrietaren ustez (3) kanten ustez (5); katedradunaren ustez (3); kidearen ustez (22); kideen ustez (29); kolektiboaren ustez (3); komisarioaren ustez (6); kontseiluaren ustez (11); koordinadoraren ustez (3); koordinakundearen ustez (3); koordinatzaile nagusiaren ustez (3); koordinatzailearen ustez (6); kritikoaren ustez (5); kutzaren ustez (5)

laben ustez (31); landaren ustez (3); langile batzordearen ustez (4); langileen ustez (6); larralderen ustez (4); larreinenaren ustez (4); larunbatean ustez (3); lasagabasterren ustez (6); lasaren ustez (9); legebiltzarkidearen ustez (10); lehendakariaren ustez (20); lehendakariordearen ustez (3); leopoldo barredaren ustez (3); letamendiaren ustez (4); lilyren ustez (5); lockeren ustez (3); lopezaren ustez (28); luis beotegik ustez (4)

madinaren ustez (3); madrazoren ustez (23); mahaikidearen ustez (10); maisuaren ustez (3); masen ustez (3); matuteren ustez (4); mendigurenen ustez (7); miguel buenen ustez (3); miguel sanzen ustez (3); militarrek ustez (3); ministroaren ustez (15); miren azkarateren ustez (3); molinaren ustez (3)

nafarroan ustez (3); nagusiaren ustez (34); nazio batzordearen ustez (3); ndfren ustez (3); nere ustez (26); neure ustez (8); nire ustez (1024); nire ustez behintzat (9) odon elorzaren ustez (3); ollarraren ustez (3); onaindiren ustez (3); ordezkariaren ustez (12); ordezkarien ustez (5); orejaren ustez (3); otegiaren ustez (30)

pastorren ustez (3); patxi lopezaren ustez (4); patxi zabaletaren ustez (4); permachen ustez (9); plataformaren ustez (4); platonen ustez (5); polizaren ustez (5); poliziaren ustez (18); ppko presidentearen ustez (3); ppren ustez (18); presidentearen ustez (31); pse eeren ustez (10); pseren ustez (3)

rabaneraren ustez (3); rafa diezen ustez (5); raxoiren ustez (8); reiden ustez (3); rodriguezaren ustez (4); rojoren ustez (5); roviraren ustez (3); rubioren ustez (4)

sailaren ustez (6); sailburuaren ustez (15); san gilen ustez (7); sanchezaren ustez (5); sanzen ustez (11); saramagoren ustez (3); saren ustez (5); segiren ustez (4); senideen ustez (3); sinatzaileen ustez (3); sindikatu horren ustez (5); sindikatuaren ustez (31); sindikatuaren ustez (16); sindikatuon ustez (7); solbesen ustez (3); sozialistaren ustez (8); sozialisten ustez (9); soziologoaren ustez (5)

taldearen ustez (24); taldeen ustez (8); taten ustez (3); tauko teknikoaren ustez (3); templeren ustez (8); txabarrien ustez (7)

udalaren ustez (3); udabiltzaren ustez (8); ugtren ustez (3); urkizuren ustez (4); urkulluren ustez (4); urretabizkaiaren ustez (3); urretaren ustez (3); ustez al aksako (5); ustez al kaedak (3); ustez al kaedako (6); ustez al kaedakoak (4); ustez al kaedarekin (8); ustez al kaedari (8); ustez al zarkauik (4); ustez alabari (4); ustez aspaldi (3); ustez aurkaririk erazena (3)

ustez bahitutako (3); ustez bai (5); ustez bere bikotekidea (4); ustez bere bikotekideari (7); ustez bere buruaz (7); ustez bere emazteari (4); ustez beren bikotekideak (5); ustez beste bat (9); ustez beste bati (4); ustez beti (6); ustez betiko (3); ustez bihotzkoak jota (3); ustez bikotekide ohia (3); ustez bikotekidea jipoitzeagatik (6); ustez bikotekidea jotzeagatik (10); ustez bikotekideak jotzeagatik (3); ustez bikotekideari erasotzeagatik (6); ustez bikotekideel (3)

ustez dauden (4); ustez dituzten (3); ustez droga banatzeagatik (3); ustez droga trafikatzegatik (4); ustez duen (10)

ustez egin zituzten (4); ustez egin zuen (3); ustez egindako (23); ustez egindako torturak (3); ustez eginiko (11); ustez eginiko deklarazioak (3); ustez egiten (7); ustez ekintza terroristak (3); ustez ekuatore ginean (3); ustez emakume bati (3); ustez emakumei erasotzeagatik (3); ustez emakumeen aurkako (3); ustez emandako (3); ustez emazte ohia (3); ustez emaztea jipoitzeagatik (11); ustez emaztea jotzeagatik (12); ustez emazteari (16); ustez epaileak (3); ustez erasotzeagatik (7); ustez errazak diren (3); ustez erresistentziako (3); ustez erresistentziaren (3); ustez eskolan egiten (3); ustez espainiako (7); ustez etako (10); ustez etakoak diren (3); ustez etaren (4); ustez etarena zen (4); ustez etarentzat (3); ustez etari (3); ustez euren bikotekideak (3); ustez ez dago (6); ustez ez dela (3); ustez ez du (5); ustez ez dugu (4); ustez ez zen (3)

ustez garrantzitsuak dira (3); ustez gaur (3); ustez gero (3); ustez gertatutako (3); ustez gizonak (3); ustez guk (3)

ustez inork ez (5); ustez izandako (7)

ustez jendeak (3)

ustez kutsatuta (3); ustez kutsatutako (5)

ustez lapurretan ari (4); ustez lege kanpoko (3); ustez lehergailuak (3); ustez lotan (3); ustez lotura duten (4); ustez lotuta dauden (3); ustez lotutako (9)

ustez neska lagunari (3)

ustez ondo (3); ustez ongi (7); ustez oraindik (5); ustez otegi (3)

ustez parte hartu (10); ustez prestatzen (3); ustez sekula (4); ustez semeordeak (3); ustez senarrak (3); ustez taberna (3); ustez taldeak (3); ustez talibanek (10); ustez talibanek egindako (5); ustez tratu txarrak (4); ustez unibertsoa (3); ustez zerikusia izan (3); ustez zuk (3)

zabalaren ustez (7); zabaletaren ustez (16); zaplanaren ustez (5); zenarrutabeitiaren ustez (5); zenbait adituren ustez (12); zenbait autorenen ustez (4); zenbaiten ustez (29); zientzialarien ustez (14); zinegotziaren ustez (4); zubiagaren ustez (3); zubizarretaren ustez (3); zure ustez (220); zure ustez garrantzitsuak (3); zuzendariaren ustez (23); zuzendaritzaren ustez (3)

al kaedako ustezko (40); al zarkauiren ustezko (3); bere ustezko (19); beren ustezko (4); brigada gorrietako ustezko (3)

egindako ustezko (11); erakundeko ustezko (11); erakundeko ustezko kide (3); erresistentziako ustezko (12); etako ustezko (38); etako ustezko kide (5); etako ustezko kidea (3); etako ustezko kideak (4); etako ustezko kideek (3); gaztearen ustezko hiltzailea (3); gertaturiko ustezko (3); gizonaren ustezko erasotzailea (3); grapoko ustezko (3); gure ustezko (6); hamaseko ustezko (6)

iraken ustezko suntsipen (3); iraren ustezko (3); jihad islamikoko ustezko (4); langileen alderdiko ustezko (3); nire ustezko (3)

obren inguruko ustezko (3); oteizaren lanaren ustezko (3); taldeko ustezko kideak (4)

ustezko al kaedako (6); ustezko arma (5); ustezko armen (3); ustezko asmoen (3); ustezko atentatu (3)

ustezko bahiketa (7); ustezko bahitzaileetako (3); ustezko bake (10); ustezko bake prozesua (4); ustezko bake ekintzaile (21); ustezko bi etakide (9); ustezko bi etakideak (5); ustezko bi etakideekin (4); ustezko bi kide (8); ustezko bortzaketa (3); ustezko bost ekintzaile (3); ustezko buru bat (3); ustezko burua (11); ustezko buruak (3); ustezko buruzagi (10); ustezko buruzagia (6); ustezko buruzagiaren (3)

ustezko deklarazioa (3); ustezko delitu (10); ustezko delitua (8); ustezko delitua egin (3); ustezko delituak (10); ustezko demenzia (3); ustezko demokrazia (3); ustezko dopin (5)

ustezko egileak (3); ustezko ehun kide (3); ustezko ekintzaile bat (6); ustezko ekintzaile islamista (11); ustezko ekintzaile islamisten (4); ustezko ekintzailea (3); ustezko ekintzaileak (7); ustezko ekintzaileei (4); ustezko ekintzaileek (9); ustezko ekintzaileen (7); ustezko erantzulea (3); ustezko erasoa (6); ustezko erasoak (6); ustezko erasotzailea (28); ustezko erasotzailea atxilotu (5); ustezko erasotzaileak (14); ustezko erasotzailearen (3); ustezko erasotzaileari (3); ustezko erasotzaileekin (3); ustezko erasotzaileen (3); ustezko errugabetasuna (3); ustezko esperientzia (3); ustezko espioi (5); ustezko etakide (5); ustezko etakidea (5); ustezko etakideak (7); ustezko etakideek (4); ustezko etakideen (3)

ustezko froga (3); ustezko frogak (3)

ustezko gaizkile (4); ustezko gerra (6); ustezko gerra kriminal (4); ustezko gerrillari (8); ustezko gerrillariak (3); ustezko gutun (3)

ustezko harremana (4); ustezko hilketa (4); ustezko hiltzailea (16); ustezko hiltzaileak (7); ustezko hiltzailearen aurkako (3)

ustezko hiltzaileari (3); ustezko hiltzaileen (3); ustezko hiru ekintzaile (4); ustezko hiru kide (3)

ustezko ikuskera (3); ustezko irregulartasun (4); ustezko irregulartasunak (7); ustezko irregulartasunen (3); ustezko iruzurraren (3); ustezko istripu (3)

ustezko jarrera (3); ustezko jazarpenaren (3); ustezko jazarpenari buruz (3)

ustezko kaos (3); ustezko kasu (11); ustezko kasuak (3); ustezko kasuren berri (3); ustezko kide (34); ustezko kide atxilotu (4); ustezko kide bat (12); ustezko kide hil (3); ustezko kidea (7); ustezko kideak (13); ustezko kideak atxilotu (3); ustezko kideek (3); ustezko kideen (4)

ustezko lagun (3); ustezko laguntzaile (4); ustezko lapurrak (4); ustezko lau ekintzaile (5); ustezko lau gerrillari (3); ustezko lau kide (4); ustezko lotura (3)

ustezko mertzenarioen (4); ustezko oinarri (3); ustezko panfleto terroristaren (3); ustezko paramilitarrak (3); ustezko planeta baten (3)

ustezko sars kasu (8); ustezko sexu gehiegikeriak (3); ustezko sexu jazarpenengatik (3); ustezko suntsipen handiko (3)

ustezko talde (3); ustezko talibanak (5); ustezko talibanen (6); ustezko terrorista (7); ustezko terroristak (7); ustezko terroristen (5); ustezko torturen (4); ustezko tratu txarrak (3); ustezko ustelkeria (10)

zarkauiren ustezko (3)

uste izan, uste (***usteko 261** agerraldi, **91** liburu eta **42** artikulutan; **uste izango 130** agerraldi, **33** liburu eta **2** artikulutan*) 1 du *ad* uste batean oinarriturik pentsatu.

Pisukidea etxean da, **uste dut**. Oskar Arana

-Horixe bera **uste nuen** nik ere. Jon Muñoz

Jaioz gero pentsatu egiten dugu, hala **uste dut**, eta ez dakigu zein izan zen gure lehen pentsamendua, ondorengo guztien sorburu izan zen hori. Jon Alonso

Izena duen orok omen du izana (hala **uste** omen dute euskaldunek). Iñaki Segurola

Ez dakit zer **uste** ote zuen Herbertek, espainieraz jakin ere ez baitzekien, esan bezala. Joxe Austin Arrieta

Nola **uste dezakezu** horrelakorik nitaz? Josu Zabaleta

Ezetz **uste diat** nik. Jose Morales

Jakin nahi nuke zer **uste duen** gai honi buruz halleko beste besaulki horretan jesarrita dagoen emakume gazteak. Jon Arretxe

Bekatuak ez du auzenjoarengan eraginik, manikeoek **uste dutenaren** kontra. Imanol Unzurrunzaga
Haren aurpegia aztertu eta begien eta ahoaren inguruan egiten ari zitzaizkion zimurra ikusi nituenean, konturatu nintzen hasieran **uste nuena** baino zaharxeagoa zela.
Oskar Arana

Hezur haietan pultsuaren oihartzuna nabari zen oraindik, **uste duguna** baino gehiago bizi gara. Koldo Izagirre

Hori **badut uste** irriskutsua den. Menane Oxandabaratx

Badut uste euskararen lasaitasuna, ez dut esango salbazioa, hizkera eskatologikoa maite ez dudalako, holako erabakiek, zentzuz beteak ikus daitekeenez, segurtatzen duten. Pello Salaburu

Gutxien **uste** denean atzetik ziria. Gotzon Garate

ik beherago 8. Askoren artean

Eta, **uste** izatekoa da, zuhurra izango da azken lerrora arte, historia naif maite dutenen gaitasunetik kanpo. Jon Alonso

Eta desertuak (elurrezkoak barren) deitu egiten du gizona, metafora arketipikoa burutzeraz, **uste izanez**, bere arimak, han, nonbait, urrutiko bakardadean, gorputza menderatu lezakeela zigorrez eta martirioz. Patziku Perurena

ik beherago 6. Askoren artean

Oker zebilen duela gutxi lorturiko ongizateak iraun egingo zuela **uste izatean**. Iñaki Mendiguren

ik beherago 6. Askoren artean

Iduriz ez zuten Arbelbidek nahiko (ala **usteko**?) zukeen tokirik eman euskararen irakaskuntzari. Xipri Arbelbide

Eta hik ez duk hala **usteko** baina sendatu eginen haugu. Koldo Izagirre

Ez nian sekulan **usteko**! Koldo Biguri

Besterik gabe **usteko** litzatekeenaz oso bestela, zinemako pantailaren edo telebistako hodiaren ikuspena "eguneko" ikuspena da. Josu Zabaleta

Euskal txirindulariak **usteko** ginuen baino gibelago atera dira. Herria

2 (konpletibekin)

Nik **uste dut** hilda hobeto nengoekela."Eta Eusebio? Zergatik ez da hemen azaltzen? Nik **uste nuen** fusilatu egin zutela", esan nion. Josu Zabaleta

Uste dut sendaturik nagoela. Monika Etxebarria

Uste dut oso ondo egongo zarela han. Iñaki Mendiguren

Eta **uste** izan dut beraz itzulunguru arin hori baliatzea zilegi nuela. Jon Muñoz

"**Uste dut** hor datorrela", esan zuen linternadunak bidea argituz. Bernardo Atxaga

Uste dut beste begi batzuk dauzkagula aurpegiko horien ondoan, gauekoak direnak. Bernardo Atxaga

Uste dut Weinberg-ek aditzera eman nahi zidala bere amak nahiago zituela emakumeak gizonak baino. Oskar Arana

Badut uste Karlos Santamariaren eta berak miresten zituen pentasariaren hausnarketak eta aholkuak kontuan hartzeak ditugula baitezpada. Piarres Xarriton

Badut uste, ororen buru, hau dela gure herriak behar duen justizia. Piarres Xarriton

Akademikoek **uste dute** enpresa munduko behar zuzenak enpresaburuek berek bete behar dituztela, eta unibertsitateak, aldez, une jakin bateko behar horien gainetik egon behar duela. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bueno, aurrera jarraituko dut, Llumek **uste zuen** bera Triniti zela. Antton Olano

Uste genuen bere ahizparen gaixotasunaz jabetu gabe zegoela, ez zela konturatu aurreko gauean etxean izandako zalapartaz. Bernardo Atxaga

Uste dugu Asisko Frantzisko "ondasun unibertsala" dela, garai guztietako eta edonongo gizon-emakumeen ondarea. Askoren artean

Zer **uste duzu**, ba, lehen orain bezala ibiltzen ginela, jendea bereizi egiten dela gauzak ondo ez di-hoazkion bezain laster? Jon Muñoz

Nik ere hala **uste dut**, arrazoiak asko izaten direla beti -esan nion-. Bernardo Atxaga

Hoteleko Land Roverra dela **uste dut"**, esan zuen Lubisek. Bernardo Atxaga

Hori eta besterik ez dela, **uste dut**, lehen klase-ordua baino lehen tabernara etorri eta peta bat erretzen duten gazteenganako haien gorrotoa. Pako Aristi

Zergatik **uste zuten** denek aitona gure aita eta osaba Benjamin jaio baino lehen hil zela? Jon Muñoz

Nik zera **uste dut**: mutikoek beren adineko mutikoekin jolasean ibili behar dutela, eta ez... Irene Aldasoro

Baina obediencia gorena, non giza izaera eta irizpideek ez duten lekurik, hau **uste zuen** zela: hots, "Jainkoak inspiraturik, fedegabeen artera" joatea, bai lagun hurkoen salbazioagatik, bai martiritzaren desiragatik. Askoren artean

Zintzo hiltzen direnek sari bikaina izanzen dutela **uste baitzuen**, burutapen santu eta ederra izan zen hura. Elizen arteko biblia

Gure seme-alabak zu bezalakoan eskuetan uzten ditugu, zuengan fida gaitzekeela **uste dugulako**. Oskar Arana

Justu-justu, baina gaindituko dudala **uste diat**. Jon Muñoz

Aldatu dena ni naizela **uste dut**: soluzio errazena hori da. Monika Etxebarria

Beraz, zutik dagoela **uste duenak** egin beza kontu eror ez dadin. Elizen arteko biblia

Izan ere, egia argitaratzea sarri askotan arriskugarria zela **uste zuen** hark. Xabier Kintana

Benetan esaten dizut, Gwendolen, ez dut **uste** hau inola ere onar dezakedanik. Antton Olano

Halaber **dut uste** ezen amodioa sentitu denetik beretik, amodio hori barreiatzen dela adiskidantzaraino. Jon Muñoz

Belaunaldi honek ez **du uste** hainbeste biziko denik. Jon Alonso

Ez **uste** izan, gero, gizakiak bakarrik ari direla elkarrekin. Gotzon Garate

Ez beldurtu; ez **uste** izan ikusten duzuen ameskeria denik. Askoren artean

Tranbia batekin ere ezkonduko zen hortik etekinik aterako zuela **uste** izan balu. Lopez de Arana

Soldadu horiek ez ziren ausartu haren atzetik ibaira sartzen, eta, gainera, zaldiarekin batera ito zela **usteko** zuten. Karlos Zabala

Bertzenaz, ez zenukeen **usteko** hobekien eskubide bilaka zenitzakeenik. Jon Muñoz

3 (beste aditz baten era burutuari dagokiola).

Ikusi **uste** dut oraino, gizon mehar handi xima-luze hari eskuia emanik, urrats bakoitzean estropezuka. Jon Muñoz

Batzuetan ere dolutzen zintuela ikusi **uste** izan dut. Jon Muñoz

Hersten ditut begiak, eta bertatik Danceny ikusi **uste** dut; oroitzen ditut haren erranak, eta aditu **uste** ditut. Jon Muñoz

Tomek Harryri buruz jakin **uste** zuen ia guztia gezurra zen. Oskar Arana

Maiz gertatzen da ulertu eta jakin **uste** duguna, ikasleei azaltzeko orduan, kolokan agertzen zaigula. Lourdes Oñederra

Haatik hark baino hobeki jakin **uste** dut zer behar den egin. Jon Muñoz

Munduaren betierekotasuna frogatu **uste** dutenek denbora infinitua dela diote. Xabier Kintana

Aurpegi utziago batzuetan tristura izpi bat irakurri **uste** nuen. Monika Etxebarria

Gorpua soilik lurperatzeko agindu eta zerraldoan sartuta hilobiratu baitzuten Montparnasseko hilerrian, legeak esaten duen bezala, batek erabaki **uste** baitu, baina inoren legeak baitu agintzen, agindu. Josu Zabaleta

Nonbait handik igaroz gero, italiar armadako bi erretiratu ikusi **usteko** zuen, antzinako goi mailako strategiako ikastaro osagarri batean. Jon Muñoz

4 (laguntzailea ezabaturik)

Hezgaitezak dira, eta nik **uste** hala izana nizala ene bizi guzian. Menane Oxandabaratx

Haren itxura eroso eta lasaia are gehiago nindukan, nik **uste**, harriduraren harriduraz. Jon Muñoz

Zuk **uste** bezala, emakume hori luxuzko prostituta bat zen, zinemagintzan huts egindako bat. Migel Angel Mintegi

Gogotik dut aitoren hasieran nik **uste** baino askoz itxura hobean agertu zinela. Jon Muñoz

Askinak, hala ere, haiek **uste** baino egun bat lehenago parte hartu zuten, azkenean, ekintzan. **Edure Elizondo**

Hainbeste eta hainbeste erokeria idazteko aukera opa izan bainion nik, batere **uste gabe**. **Patxi Ezkiaga**

Onartu behar baitut agian **uste gabe** lagundu niola patuari bere lana betetzen. **Ramon Saizarbitoria**

Zientziaren aurrerapena ikergune pribatuetan oinarritzen denean arazo handiak sortzen ahal dira, **uste gabean**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Uste gabeko hitz horiek harritu ninduten eta denbora berean errealitate latzera itzularazi. **Daniel Landart**

Zer funtsean abiatuak ginen elkarrekin, **uste gabetarik** elkar ezagutu ondoan. **Janbattitt Dirassar**

Men egin nion, edo men egin **uste** izan nion bederen, ahaide agurgarri bati neure begikotasuna agertzeko plazer arras natural eta arras zilegiari. **Jon Muñoz**

Kosta zitzaidan, hala ere, tabakoa uztea, ez **uste**. **Joan Mari Irigoien**

5 uste izatea.

Horiek horrela, objektu materialak existitzen direla **ustea** sentimen-datu batzuen esperientzia dugula **ustea** besterik ez da, izan daitezen aktualak edota posibleak.

Askoren artean

Ezerezak zerbait adieraz dezakeela **ustea**, frantsesezko sintaxiko gertaerarekin erkatzetik datorkigu, hain zuzen. **Isabel Arrigain**

Umekeria litzateke hitza puntu bateraino soilik alda daitekeela **ustea**. **Isabel Arrigain**

Eskutik tira egiten zidan **ustean** tira egingo ziola akaso tia Celiak patrikan nuen eskularru hari, azken momentuan, gorputza utzi eta beste zerbait bihurtzen ari zen bitartean.

Harkaitz Cano

Bizia galtzen duenak, bizia eman **ustean**, heriotza ematen du. **Iñaki Seguro**

Eta bere burua hiltzen dik zintzatu **ustean**. **Koldo Izagirre**

Ivan Ogareff lurretik jaiki, eta, itsua aise menderatu **ustean**, eraso egin dio. **Karlos Zabala**

Kaioen hegalean modura, beti lepoaren atzean igarri eta airean izen baten oihartzuna aditu **ustean**. **Edorta Jimenez**

Halako batean, zerbait irabazi- **ustean** galtzen ari zarelako sentimenduak harrapatzen dizu pixkanaka burua. **Iñaki Seguro**

6 *ustez* (aditzaren era burutuaren eskuinean) uste izanik. ik **uste 14**; ik **beherago 8**.

Zer da bada behera-behar ituna argitu nahi genukeena, argitu **ustez**, gero eta ilunago gordetzea! **Anjel Lertxundi**

Desoreka haren kinkatik libratu **ustez**, egun batzuetan oroitzen maiteenei atxikitzen saiatu nintzen. **Hasier Etxeberria**

Zoritxarrekoa zu, zoritxarrari ihes egin **ustez**, etxea bidegabeko irabaziz aberastu duzun hori, gordeleku segurua eduki ahal izateko! **Elizen arteko biblia**

Euskal esentziak berritu **ustez** oraindik hola eskean ikustean, pena ematen didate. **Patziku Perurena**

Aita zenari, lagundu **ustez**, enbarazuka. **Pello Zabala**

Zinezko banidade zaildu gordea baino askoz nazkanteagoa duk nork bere "egoa" apaldu **ustez** harrotu egiten duen banidade populatxero hori. **Patziku Perurena**

7 gutxien *ustean* (2 agerraldi, 2 liburutan; orobat *gutien *ustean* 76 agerraldi, liburu 1 eta 71 artikulutan; gutxienik *ustean* 2 agerraldi liburu 1ean eta *gutienik *ustean* 13 agerraldi, liburu 1 eta 7 artikulutan*) gutxien uste denean.*

Gutien **ustean** badira gertakari hitsak! **Herria**

Beste errateko guztiak uzten ditut, gutien **ustean**, buruz buru mintzatzen ahal garen eguneko. **Piarres Xarriton**

Piskanaka okertu eta, halako batean, gutxien **ustean**, lurrera amiltzen da. **Elizen arteko biblia**

Eta gutienik **ustean**, indar ikaragarri bat eginez, polikiño, polikiño, erran zuen: [...]. **Daniel Landart**

Goiz batean, gutxienik **ustean**, aireplanoak agertu ziren zeru oskarbian eta dinbili danbala hasi ziren kanpaiak. **Joseba Sarrionandia**

8 *ustez eta* uste izanik. ik **gorago 6.**

Nor ere menturatzeko baita, dena espantu eta furfurua, **ustez eta** gauaz denak libro dituela, hori nekez da Gauekoren aztparretarik eskapatzen eta sano sana etxera itzultzen. **Michel Oronoz**

"Igaralea" izen gaintikoa haütatü nüan, **ustez eta** laster gazte batek edo gazte talde batek hartüko zeitadala segida. **Herria**

Seme-alabetan inor ez ginen kontra agertu, **ustez eta** salmentaren irabaziez apartamentu tiki eta erosoagoa erosteko baliatuko zela, hiriko auzo berriren batean. **Aingeru Epaltza**

Berehala damutu nintzen, **ustez eta** liskarren bat piztuko zela atsoarekin. **Aingeru Epaltza**

Begiak hetsi zituen, eta kuxian ireki **ustez eta** zoramenaren menpe zegoela. **Ramuntxo Etxeberri**

-Eta nik ez banu mezurik igorri Loretxori, **ustez-eta** ez zinela zu? **Janbattitt Dirassar**

Batzuetan, **ustez eta** klasean zegoela edo, Abel eta niri, azkenik irakurria zuen liburuaren istorioa xeheki kontatzen zigun. **Daniel Landart**

Etorri nintzen, beraz, **ustez eta** auzia bururatuko zen sei hilabete barne, edo zortzi hilabeteen buruko, gehienez ere. **Piarres Xarriton**

Gauzak diren bezala erraiteko, 36ko bataila galdua genuen eskualdunak, 40ko bataila galdua zuten frantsesak bezala, zinez boztu ginen, **ustez eta** 45eko amerikarren eta sobietarren garaipena nolazpait gure garaipena ere zen. **Piarres Xarriton**

Joanesez ogia ez zuen irentsi, **ustez eta** goiz hartan ez zen akitu eta ez zuen energia poxi haren beharrik sendituko. **Eneko Bidegain**

Horregatik bainaute haiek nihaur neurtzen, **ustez eta** gehiagi maitatzen, ohoratzen, goersten eta ospatzen dudun Portugalako Inperioa, nahiz argi ageri den erresuma hori eta horren historia ezagutzen dutenen arabera, labur eta zuhur mintzo naizela. **Piarres Xarriton**

[ustez-i dagokion kombinatoria osoa *uste* sarreran dago]

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

aditu uste (11); **askok uste dute** (27); **askotan uste** (10); **aurkitu uste** (20)

badaudela uste du (11); **badela uste du** (11); **badut uste** (27); **baiez uste** (111); **baiez uste dut** (86); **batzuek uste dute** (30); **beharra dagoela uste** (15); **beharra duela uste** (10); **beharrezkoa dela uste** (21); **benetan uste** (45); **benetan uste duzu** (10); **beti uste izan** (21)

dagoela uste du (101); **dagoela uste dut** (37); **daudela uste du** (18); **daudela uste dute** (15); **denek uste zuten** (13)

eduki uste (14); **egin uste** (19); **egokia dela uste** (14); **egon daitekeela uste** (15); **egongo dela uste** (21); **egongo direla uste** (12); **entzun uste izan** (11); **eskubidea dutela uste** (11); **etorriko dela uste** (10); **ez baitzuten uste** (20); **ez baitzuten uste** (13); **ez diat uste** (92); **ez dinat uste** (20); **ez du uste** (174); **ez duela uste** (31); **ez dugu uste** (93); **ez duk uste** (16); **ez dut uste** (1449); **ez dute uste** (57); **ez dutela uste** (16); **ez duzu uste** (79); **ez duzue uste** (10); **ez genuen uste** (20); **ez nian uste** (14); **ez nuen uste** (143); **ez uste** (172); **ez uste izan** (45); **ez zuela uste** (30); **ez zuten uste** (98); **ez zuten uste** (18); **ezagutu uste** (12); **ezetz uste** (22); **ezetz uste dut** (10); **ezinbestekoa dela uste** (14)

garaia dela uste (22); **garrantzitsua dela uste** (17); **gaudela uste dut** (17); **guk uste dugu** (36); **guk uste genuen** (16); **gutxien uste** (44); **gutxiena uste** (14)

hala uste (275); **hala uste dut** (57); **hala uste izan** (22); **hala uste zuten** (25); **halaxe uste** (22); **hasieran uste** (48); **hasieran uste baino** (12); **hik uste duk** (16); **hori uste dut** (25); **hori uste duzu** (10); **horixe uste** (24); **horregatik uste** (54); **horregatik uste dut** (20); **horrela uste** (27)

igarri uste (9); **ikusi uste** (87); **ikusit uste izan** (37); **ikusi uste zuten** (11); **iritzi dela uste** (9); **izan daitekeela uste** (67); **izan uste** (25); **izan zela uste** (56); **izan zirela uste** (13); **izan zitekeela uste** (16); **izan zuela uste** (9); **izanen dela uste** (17); **izango dela uste** (121); **izango uste** (17)

jakin uste (10); **jaurlaritzak uste du** (13); **jendeak uste du** (23); **kontrakoa uste** (17)

lagun dezakeela uste (9); **nagoela uste** (33); **nagoela uste dut** (16); **nahikoa dela uste** (9); **nengoela uste** (21); **nik hala uste** (14); **nik uste** (1612); **nik uste baiez** (10); **nik uste dut** (478); **nik uste nuen** (88); **nola uste** (18); **non uste** (17)

ona dela uste (22)

poliziak uste du (10); **posible dela uste** (14)

sumatu uste (19); **sumatu uste izan** (12); **ulertu uste** (15); **unea dela uste** (9); **uste al duk** (25); **uste al duzu** (160); **uste al duzue** (16); **uste arren** (18); **uste badu** (69); **uste badu ere** (22); **uste baduk** (9); **uste badute** (37); **uste badute ere** (10); **uste baduzue** (13); **uste baiez** (10); **uste baikenuen** (10); **uste baino** (895); **uste baino azkarrago** (9); **uste baino errazago** (26); **uste baino gehiago** (101); **uste baino gutxiago** (20); **uste baino handiagoa** (12); **uste baino hobeto** (35); **uste baino larriagoa** (14); **uste baino lehen** (14); **uste baino lehenago** (48); **uste baino luzeago** (10); **uste baino zailagoa** (12); **uste bainuen** (41); **uste baitu** (92); **uste baitugu** (23); **uste baitut** (56); **uste baitute** (66); **uste baitzuen** (92); **uste baitzuten** (41); **uste bazuen** (24); **uste bezain** (86); **uste bezala** (43); **uste bide** (14)

(12); **uste da** (106); **uste den** (19); **uste dena** (14); **uste denez** (11); **uste diat** (181); **uste dik** (16); **uste dinat** (43); **uste dit** (23); **uste ditek** (9); **uste dot** (30); **uste du** (2957); **uste dudalako** (23); **uste dudana** (14); **uste dudanez** (24); **uste duela** (35); **uste duelako** (47); **uste duen arren** (10); **uste duena** (41); **uste duenak** (25); **uste duenaren** (12); **uste duenean** (22); **uste duenez** (16); **uste duenik** (14); **uste dugu** (555); **uste dugulako** (27); **uste dugun baino** (12); **uste duguna** (20); **uste duguna baino** (10); **uste dugunean** (13); **uste duk** (147); **uste duk hik** (14); **uste dun** (23); **uste dut** (4317); **uste dut badakidala** (16); **uste dut baiez** (37); **uste dut ezen** (30); **uste dut ezetz**

(16); **uste dute** adituek (48); **uste dute** askok (9); **uste dute** batzuek (13); **uste dutena** (12); **uste dutenak** (38); **uste dutenek** (19); **uste duteenez** (25); **uste duzu** (830); **uste duzu** zuk (24); **uste duzue** (126); **uste duzuna** (12); **uste duzunean** (12)

uste eta nahi (9); **uste ez bezala** (18); **uste ez zuen** (12); **uste gabe** (9); **uste gabean** (30); **uste gabeko** (51); **uste gabekoa** (12); **uste gabetarik** (61); **uste genian** (9); **uste genuen** (172); **uste genuenean** (10); **uste ginuen** (10); **uste huen** (20)

uste izan (732); **uste izan arren** (14); **uste izan baitzuen** (12); **uste izan da** (20); **uste izan du** (24); **uste izan dugu** (14); **uste izan dut** (44); **uste izan dute** (19); **uste izan nuen** (99); **uste izan zuen** (148); **uste izan zuten** (34); **uste izanda** (16); **uste izanen** (10); **uste izanez** (9); **uste izango** (65); **uste izango du** (12); **uste izanik** (17); **uste izatea** (78); **uste izateko** (63); **uste izatekoa** (65); **uste izatekoa da** (30); **uste izatekoa denez** (11); **uste izatekoa zen** (9); **uste izaten** (65); **uste izatera** (15)

uste nian (71); **uste ninan** (26); **uste nuelako** (17); **uste nuen** (637); **uste nuen baino** (10); **uste nuen nik** (21); **uste nuena** (27); **uste nuena baino** (13); **uste nuenean** (22)
uste ohi (16); **uste omen** (9); **uste ote** (43); **uste ote zuen** (14)

uste ukan (37); **uste ukan zuen** (9)

uste zen (68); **uste zena** (12); **uste zenuen** (43); **uste zenuten** (9); **uste zian** (11); **uste zuela** (38); **uste zuelako** (32); **uste zuen** (573); **uste zuena** (29); **uste zuenean** (15); **uste zutelako** (14); **uste zuten** (342); **uste zuten baino** (11); **uste zutena** (23); **uste zutena baino** (11); **uste zutenak** (11); **uste zutenean** (12)

ze uste (11); **zegoela uste izan** (14); **zegoela uste zuen** (14); **zer uste** (408); **zer uste du** (14); **zer uste duk** (74); **zer uste dun** (11); **zer uste duzu** (158); **zer uste zuen** (25); **zera uste** (9); **zeren uste baitut** (9); **zergatik uste duzu** (39); **zientzialariek uste dute** (15); **zinez uste** (25); **zuk uste baino** (12); **zuk uste duzu** (48); **zuk uste duzun** (15); **zuk uste duzuna** (11)

usteko du (11); **usteko dute** (14); **usteko duzu** (12); **usteko zuen** (16); **usteko zuten** (13)

usteategi ik ustiategi.

ustebako 1 *izond* ustekabekoa.

Kode bat, osoena dela eman arren, amaitu berri gertatu eta laster ditu eskura magistratuak mila galdera **ustebako**. **Andres Urrutia**

Ez gara fio, ez baita erraza fiatzen, eguraldiaren koska nabarmen bezain **ustebakoekin** neguaren bihotzean eguzkia fanfarroi ibiltzen hasten denean. **Pello Zabala**

-Utzi txantxak, Mentxu, sorpresa bat daukat zuretzat, **ustebakoa** guztiz. **Josu Landa**

Hermitage dela eta, **ustebakoena** geroago kondatu didate. **Edorta Jimenez**

2 (izen gisa)

Ustebakoa hartu zuen, geltokia ez zegoela gailur-gailurrean ikusi zuenean. **Josu Landa**

Eta, azkenean, -ha **ustebakoa** !-, Rufinok ez deutzaz, ba, hamabi mila pezeta emoten, egun bakotzeko sei mila? **Xabier Amuriza**

3 *ustebakoan adlag* ustekabea.

Georgiren galderak **ustebakoan** harrapatu ninduen. **Edorta Jimenez**

Italierazko edizioan aurkitu ez zenituen, edo irakurriaren akordurik behintzat ez zeneukan egilearen ohar honek hunkitu zintuen **ustebakoan** : [...]. **Koldo Izagirre**

ustedka *adlag* Usted trataera erabiliz.

Fraideek **ustedka** hitz egiten ziguten, eta baita guk haiei ere noski. **Joxerra Garzia**

ustegabe ik ustekabe; uste izan 4.

ustegabeka ik ustekabeka.

ustegabekeria ik ustekabekeria.

ustegabetu ik ustekabetu.

usteka *adlag*

Bultza-**usteka** ari zatazkit. **Xabier Olarra**

ustekabe (2028 agerraldi, 222 liburu eta 439 artikulutan; orobat ustegabe 186 agerraldi, 24 liburu eta 124 artikulutan) 1 iz espero ez den gauza edo gertaera. ik ezuste.

Berehala konturatu nintzen haien **ustekabe** hartan bazuela gure janzkerak zerikusia. **Inazio Mujika Iraola**

Ustekabea eta amorrazioa uztartzen zituen imintzioa egin zuen gizonak. **Patxi Zubizarreta**

Ustekabeak eta ikarak bat egin zuten Etienneren begi gorrietan. **Aingeru Epaltza**

Komunistek beti ildo bera segitzen dute, borrokatzen gaituzte, zentralistak dira; ez dago **ustekaberik**. **Berria - Mundua**

Ustekabea izan da, ordea, 60 urteko abokatua garaila ateratzea. **Berria - Mundua**

-Ez da **ustekabea** izan. **Xabier Olarra**

XIX. mendean, gerlako desertore, errefuxiatu edo ihesliar mota guztien aztarnak bil bagenitza, **ustekabeak** izanen genituzke. **Piarres Xarriton**

Eliza dagoen auzora joatea erabaki nuen, Elizmendira, herriaren goiko aldera, eta hantxe gertatu zen **ustekabea**. **Bernardo Atxaga**

-**Ustekabea** eman nahi nian. **Alberto Ladron Arana**

Ustekabe bat ematearren, andrea eta umea beste leku batean utzi eta bere amaren hotelera joan zen. **Bernardo Atxaga**

Koadernoia ireki zuenean hartu zuen bigarren **ustekabea**, aurrekoa baino handiagoa. **Iñaki Iñurrieta**

Modu askotan adieraziko dute, keinuz, irribarrez, protestaz, haiengandik jasotzen duten **ustekabe**, harridura, sufrikario... inpresioa. **Josu Zabaleta**

Ustekabea hurrengo egunean jaso nuen, laguna bere juzkuarekin etxera etorri zitzaidanean. **Bernardo Atxaga**

Ustekabea pasaturik, nekatuta sentitzen zen bat-batean. **Xabier Olarra**

Agerrek ahalegina egin behar izan zuen bere begiek **ustekabea** sala ez zezaten. **Aingeru Epaltza**

Honen aurpegian **ustekabea** eta nazka nahasirik ageri dira zizak hartzeko uanean. **Pello Lizarralde**

Ustekabea, hainbertze urteren ondotik, behialako nagusiaren iloba kozkortuarekin berriz ere topatu izanak ekarriko zion. **Aingeru Epaltza**

Hamazazpigarren hilketa gertatzen denean **ustekabe** bat gertatzen da Pioletadun Hiltzailearen kasuan. **Jon Alonso**

Goizean iratzartzean aldamenen gorputz biluzi bat ikusi eta sentitzeko **ustekabea**. **Jon Alonso**

Emakumearen **ustekabea** dastatu nuen. Aingeru Epaltza
Istant bat baino ez zen izan, hiriko soldaduak, **ustekabea** gaindituta, piratei erpoz orpo jarraitzen baitzitzaizkien. Martin Anso
Txirrira jo eta... hura **ustekabea** ! Ikustekoa zen amaren piura! Patxi Iturrategi
-Hara, hau **ustekabea** ! -esan zuen neska luzeenak. Koro Navarro
Ustekabea alde izanen dugu. Alberto Ladron Arana
Ustekabeak emango digu abantaila. Joanes Urkixo
Ustekabeak harri eginik utzi du. Aingeru Epaltza
Ustekabeak ikaraturik, magaletik behera erori zitzaion liburua. Anjel Lertxundi
Transakzio-asmoa, espekulazio-asmoa eta **ustekabeei** aurre egiteko zuhurtzia. Iñaki Heras
Ustekaberako leku gutxi uzten du Vatikanoaren protokoloak. Berria - Harian
Batetik, beraz, *le hasard* edo **ustekabea**, zoria, kasualitatea; bestetik, *la nécessité*, beharra, ezinbestea, kausalitatea. Iñaki Seguro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aitari so egin zion, eta **ustekabe** handia hartu zuen ohartu zelarik leinuru gabeko begi haiek negarrez hanpatuak zirela. Elena Touyarou
Ustekabe handia espero zuen berak ere. Bernardo Atxaga
Euskaldunon Egunkaria ixtea **ustekabe** handia izan zen. Jokin Urain
Pentsatzekoa denez, **ustekabe** ederra hartu nuen Angelak italiar bizardun hura aitaordea zuela jakinik. Alberto Ladron Arana
Benetan, **ustekabe** galanta hartu nuen, hain zinen gazte, hain eder, hain planta oneko eta dotore. Eduardo Matauko
Ustekabe tiki bat nuen zain. Aingeru Epaltza
Eguneko **ustekabe** atsegina. Joxemari Iturralde
Ustekabe desatseginei kontra egiteko. Aingeru Epaltza
Giza pentsamendua haren ernaldian **ustekabe** zorioneko bat baizik ez da, zoko batean gertatutako **ustekabe** igarokor, antzemanekin, lurrarekin batera desagertzera kondenatua. Josu Zabaleta
Ustekabe on gutxi emango ditugu hurrengo urteotan geologo eta geofisikook. Berria - Gaiak
Esan nahi da klasismoaren bertsio larri bat nozitu genuela guk, arrazismoaren atariraino ere iristen zena, eta horren ondorioz **ustekabe** txarra hartu genuela. Bernardo Atxaga
Ustekabe gaiztoen beldur baitzen, aitzindaritzan txandakatzera behartu gintuen hiru euskaldunak. Aingeru Epaltza
Koloreak zituen ahotan Virgilek etengabe, ikuspen berrien **ustekabe** kromatikoa. Xabier Olarra
Sekulako **ustekabe** atsegina izan zen guretzat haren berehalako onarpena. Jon Arretxe
Baina zergatik bat-bateko **ustekabe** hura? Ibon Uribarri

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ustekabe -oihu bat jaulki zuen Dolcinok, otarrea pausatutik. Juan Garzia
Ustekabe adierazpen itxurati hark ez zuen Husaini oharkabean utzi, eta jarraitu egin zuen. Patxi Zubizarreta
Ustekabe itxurak eginez hartu dut Tomek luzatu didan aparailua. Patxi Zubizarreta
Ustekabe andana harrigarri bat, bistan denez inolako proiektutatik, inolako planifikaziotatik etor ez zitekeena. Juan Garzia
Ustekabe -uzta ederra etorri zen hortik. Juan Garzia
Beste **ustekabe** mota bat, lan horretan guztian agertu dena: [...]. Juan Garzia
Begi bistakoa da ezingo zela jada lortu **ustekabe** -efektua deitzen dena. Jon Alonso

4 (izenondo gisa)

Aldaketa hau bere bizitza guztian egunero gertatzen den arren, ez da hartara ohitzen, aldaketaren ondoeza beti leku **ustekabeetatik** eta arrazoi ezberdinengatik biletorkion. Ez nekien Umberto ere haren kasta berekoa zen, erreakzio **ustekabeenak** eragiten dituen gaitz bereziren bat ote zebilen Triesten, edo, besterik gabe, ni nintzen erotzen hasita zegoena. Pako Aristi

5 (adizlagun gisa)

Herri ordezkaria **ustekabe** etortzeak une hori hurbilgotu zion. Elena Touyarou
Bat-batean eta **ustekabe** menditik eroritako gizartearen beste geografia apaingarri bat izango balitz bezala. Pello Salaburu

6 *ustekabean adlag* espero izan gabe; oharkabean.

Ustekabean, Bagotti harri baten antzera erori zen lurrera. Koldo Biguri
Ustekabean, tristurak harrapatu ninduen. Hasier Etxeberria
Mikel Lasaren bi bertso etorri zitzaizkidan **ustekabean** -edo zoro, edo zoriz; ez dakit- Pavese eta Calvinoren hitzei konpainia egitera. Anjel Lertxundi
- **Ustekabean** izan zen -esan nion-. Jon Muñoz
Ustekabean hurbildu eta larrua kendu zion. Martin Anso
Egunguentiak **ustekabean** harrapatu zituen. Karlos Zabala
Ustekabean harrapatu duzu torturatzailea, eta harriritu daukazu begira. Rafa Egiguren
-Ez da jaió **ustekabean** harrapatuko nauenik. Javi Cillero
Bat-batean, denak **ustekabean** harrapatutik, hodeietan sortua bezala, kanpaitxo baten dilin-hots etena aditu zen kanpoan. Jose Morales
Hamida, **ustekabean** hartua, ez hitz ez hitzondo ageri zen. Patxi Zubizarreta
Ustekabean aditu zien gizon eta emakume haiei elkarrizketa puska bat bezpera gauean, eta orain aukera zeukan berriz ere zertaz ari ziren jakiteko. Karlos Zabala
Neskatxoak, hain bat-bateko aldaketak **ustekabean** hartuta, ihesari eta negarrari eman zion. Askoren artean
Argazki pertsonalagoak, lehen planoan bilatzen zutenak, edota bera **ustekabean** harrapatzen zutenak. Bernardo Atxaga
Zenbait egunetan egunkariak ez zuten ezertxo ere aipatu, eta ondoren, **ustekabean**, argazki hura, ospitaletik irteteko unean hartua. Iñaki Iñurrieta
Cioranen bila nabilela, ordea, Cesar Vallejoren hilobia topatu dut lehenbizi **ustekabean**. Harkaitz Cano
Hori izango litzateke mediku bat **ustekabean** gaixo baten sabelean jostura itxi eta barrenean gelditu dela esatea bezala. Xabier Olarra
Hizketan edo idazketan (**ustekabean** lerratu naiz letretaraino) ari direlarik, gehiago dirudi beti zerbait aipatzen ari direla, esaten baino. Iñaki Seguro
Ziur zen azken horiek ez zirela **ustekabean** aipatuak. Jon Muñoz
Hirurogeita hamabi ordu baino denbora gutxiagoan bigarrenez, begiak malkoz bete zitzaizkidan **ustekabean**. Oskar Arana
Fededün güziék badakigü ez zela **ustekabean** zelütik erori Jesús haurra, planetaz tronpatü liztekean "marziano" bat bezala. Herria
-Futxo!! -atera zait **ustekabean**. Txillardegí
Leihotik **ustekabean** sartu den txori galdu bat egozten den bezala. Harkaitz Cano
Baina filologoa azkar asko ohartzen da ez dela hori bere saila, etsai-lurrean sartu dela **ustekabean**. Iñaki Seguro
Errebolbera garbitzen ari zirela Gorky zure gelara sartu, zu ikaratu eta **ustekabean** errebolbera disparatu eta izpiritu santuaren obramenduz bere bihotzean asmatu zenuela sinestea nahi duzu? Harkaitz Cano
Baina zer sinestarazten digu bada herriaren iritzi **ustekabean** gidatu horrek, ez bada gertaeren parekotasun miresgarria? Koro Navarro

7 *ustekabeko izlag*

Ustekabeko bisita egin du lehen ministroak. Berria - Mundua

Dena **ustekabeko** ekintzen katea izan zen. **Joxemari Iturralde**

Bidea **ustekabeko** tranpaz josia baitzegoen. **Karlos Zabala**

Ustekabeko arazoren bat jar dezake agerian simulazio horrek. **Xabier Olarra**

Igande gaua zen eta **ustekabeko** intsektuak topatu genituen gero Santutxuko kaleetan gora gindoazela. **Joseba Sarrionandia**

Ustekabeko bisitariak izango zituelakoan, Aitak gordetzeko agindua eman zion semeari. **Xabier Etxabe**

Berehala deitzen dio aitak -oraindik otoitzean ari zen-, eta **ustekabeko** sendaketaren poza iragartzen dio. **Askoren artean**

Atzo, **ustekabeko** zorion-unetxo bat izan nuen; halaxe, motiborik gabe. **Eskarne Mujika**

Ustekabeko eta konpromisozko ukitu hark gerora jasoko nituen laztan sukartsu guztiak baino zirrara handiagoa eragin zidan. **Ramon Saizarbitoria**

Ai miraria, ai **ustekabeko** poza! **Josu Zabaleta**

Iluntze batean **ustekabeko** susto ederra hartu zuen neskato enamoratuak. **Joxemari Iturralde**

7a (izenondo gisa)

Keinu **ustekabeko** bat, hitz itsumustuko bat. **Xabier Olarra**

Egoera berezi eta **ustekabeko** honetan baimena duzu zure izeba Augustari musu emateko. **Antton Olano**

Alegiazko baldintzaren erabilera **ustekabeko** eta egoki horrek txundituta, buruari eragin zioten Ruche jaunak eta Léak, biek batera, mirespenez. **Jon Muñoz**

Raimundo Silva ez dago lasai, baina lasai dagoela ematen du, elkarrizketak hartu duen norabide **ustekabekoak** eragiten dion nahasteari esker. **Jon Alonso**

Del Vallek, Weberren erreakzio **ustekabekoak** harriturik, horman zintzilik zegoen sastagai landu bat seinalatu zuen. **Alberto Ladron Arana**

Kalifaldiaren historian inperiogileek kontu handiz zertutako politikak [...] erlijio nagusi baten ibilketa errazteko ondorio nahigabe eta **ustekabekoa** izan zuen. **Iñaki Mendiguren**

Christianen erantzunak, guztiz **ustekabekoa** izan zelako-edo, harri eginda utzi ninduen. **Bernardo Atxaga**

1995ean, Bartzelonan, izugarrizko ekaitzaldia: hildako bat eta egundoko kalte **ustekabekoak**. **Pello Zabala**

8 (izen gisa)

Zabaldu zuenean, hara **ustekabekoa**. **Edorta Jimenez**

Orduan hasi ziren **ustekabekoak**. **Rafa Egiguren**

Ustekabekorik ez nuen nahi. **Inazio Mujika Iraola**

Zergatiak galdetu, eta **ustekabekoa** hartu nuen: "Ama begi-okerra nuen, eta, jakina, ezin maitatu!". **Bernardo Atxaga**

Bada azken **ustekabeko** bat gure zain, eta hain izango da handia [...] non ez baitugu beste aukerarik arratsalde horretan bertan bidera ateratzea baizik. **Oskar Arana**

Errebeldia bere hutsean ez da aski gizarteak ezartzen dituen **ustekabekoak** gainditzeko. **Josu Zabaleta**

Ez genion garrantzi berezirik eman **ustekabekoari**. **Iban Zaldúa**

Ikusi beharreko guztiak ikusi dituzula uste duzunean heltzen da **ustekabekorik** handiena. **Harkaitz Cano**

Di Stefanoren eta zirujauaren **ustekabekoa** izugarria izan zuan, baloiaren tripak urrezko txanpenez beteta aurkitu ez zitiztean, bada...! **Joan Mari Irigoien**

7 ez-ustekabeko izond

Ustekabeak gure bizitzako gauzarik ez-**ustekabekoenak** direla zioen Julio Cortázarrek. **Iban Zaldúa**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ustekabe atsegina (6); **ustekabe bat** (12); **ustekabe ederra** (10); **ustekabe ederra hartuko** (3); **ustekabe galanta** (8); **ustekabe handia** (27); **ustekabe handia hartu** (3); **ustekabe handia izan** (12); **ustekabe handia izango** (4); **ustekabe handian** (3); **ustekabe handien** (3); **ustekabe handien gaua** (3); **ustekabe handirik ez** (3); **ustekabe nagusia** (3); **ustekabe txiki** (3)

bigarren ustekabea (3); **egundoko ustekabea** (3); **eguneko ustekabea** (4); **erabateko ustekabea** (3); **hau ustekabea** (4); **hauteskunde hauetako ustekabea** (3); **hura ustekabea** (4); **orduan ustekabea** (3)

ustekabea eman (21); **ustekabea eman du** (4); **ustekabea ematea** (3); **ustekabea emateko** (5); **ustekabea gaindituta** (3); **ustekabea hartu** (8); **ustekabea hartu zuen** (3); **ustekabea izan** (42); **ustekabea izan da** (11); **ustekabea izango** (4)

erabat ustekabeen harrapatu (4); **etsaiak ustekabeen** (3); **guztiz ustekabeen** (8); **hain ustekabeen** (6)

ustekabeen agertu (5); **ustekabeen eginiko** (3); **ustekabeen eraso** (7); **ustekabeen etorri** (6); **ustekabeen galdu** (3); **ustekabeen gertatu** (4); **ustekabeen harrapatu** (147); **ustekabeen harrapatu ninduen** (21); **ustekabeen harrapatua** (6); **ustekabeen harrapatuko** (9); **ustekabeen harrapaturik** (9); **ustekabeen harrapatuta** (8); **ustekabeen harrapatzea** (3); **ustekabeen harrapatzeko** (8); **ustekabeen harrapatzen** (17); **ustekabeen hartu** (10); **ustekabeen hartu ditu** (3); **ustekabeen heldu** (4); **ustekabeen hil** (3); **ustekabeen iritsi** (5); **ustekabeen pasatu** (3); **ustekabeen sartu** (3); **ustekabeen topo egin** (4)

ustekabearen ondoren (3)

ustekabeko bisita (10); **ustekabeko bisita egin** (3); **ustekabeko emaitza** (4); **ustekabeko erantzuna** (3); **ustekabeko galanta** (5); **ustekabeko garaipena** (5); **ustekabeko garaipena lortu** (3); **ustekabeko ondorioak** (4); **ustekabeko poza** (5); **ustekabeko topaketa** (3); **ustekabeko zorion** (3)

guztiz ustekabekoa (5); **hara ustekabekoa** (3); **ustekabekoa da** (3); **ustekabekoa eta** (4); **ustekabekoa izan** (19); **ustekabekoa izan zen** (10)

ustekabekoaren ondotik (3)

ustekabekorik handiena (3)

ustekaberen bat (5)

ez da ustekaberik (4); **ez zen ustekaberik** (12); **ustekaberik eman** (3); **ustekaberik espero** (3); **ustekaberik ez bada** (3); **ustekaberik ezean** (8); **ustekaberik gabe** (7); **ustekaberik handiena** (8); **ustekaberik izan** (15); **ustekaberik izan ezean** (3)

ustekabez baizik (3)

ustekabeka *(corpusean ustegabeka soilik) adlag* ustekabeen.

Betbetan joan zauku Jean Hirigoyen, Asiako misionesta, **ustegabeka** bezala, diskretuki, bizi izana zen bezala funtsean. **Herria**

ustekabekeria *(corpusean ustegabekeria soilik) iz* ustekabe gaitzesgarria.

Lehen, uste zuten anitzek arabiarren jukutria zitekeela Ibañetako **ustegabekeria**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Orduan, bai, **ustegabekeriak**... **Herria**

Ustegabekeria bat erraiten edo egiten düalarik norbaitek, adibidez, edo bestenez, besta batetan, hasten delarik norbait... astokeria erraiten-edo hola. **Menane Oxandabaratx**

ustekabeki *adlag* ustekabeen.

Geroago bere buruari gangster eta neska-bahitzaile deitu bazion ere, jasailearekin egoteak berak, halako neska ongi hezia eta **ustekabeki** hain atsegina zen batekin, animoa bizkortzeko eta, botika bailitzan, bere depresio hasi berriari aurre egiteko balio izan zion. **Joxemari Iturralde**

ustekabekotasun *iz* ustekabekoa denaren nolakotasuna.

Inork ez die buruan sartuko argazki batek jeinuak duen **ustekabekotasuna** izan lezakeenik, inor ez baitago horretaz konbentzituta, nik dakidala behintzat. **Josu Zabaleta**

ustekabetasun *iz* ustekabea.

Horrek esan nahi duena da **ustekabetasuna** erlatibo dela, gizakiengan egiten den froga delako benetan balio duena. Berria - Gaiak

ustekabetsu *izond* ustekabez bete.

Zeren eta, hau nekien, hura nekien, baina ez nekien ezen neure bizitzako ustekabekorik **ustekabetsuenaren** aitzinean nengoela. Joan Mari Irigoien

ustekabetu, ustekabe(tu), ustekabetzen (*orobat ustegabetu*) 1 du *ad* ustekabea eman.

Antonio Musu-triste **ustekabetzeko** poz tikia eman nion neure buruari: sartu eta garagardoa eskatu nuen, jakineko ginebrakadaren partez. Aingeru Epaltza

Ez nuen **ustekabetu**. Hura janztean, ohiz kanpoko kargak **ustekabetu** ninduen. Aingeru Epaltza

Txito bustia, itsumustuan harrapatu duen eraso hark bere zentzua **ustegabetu** bailuen, basoaren bila hasi da, lurrean aztarrika. Pako Aristi

Ustekabetua behatu nion, gordinegi uste-eta ateraldia. Aingeru Epaltza

2 (era burutua izdnondo gisa)

Haren keinu **ustekabetuak** eman zidan nire ausarkeriaren neurria. Aingeru Epaltza

Haren aurpegi **ustekabetuari** zirika aitzindu nintzaion. Aingeru Epaltza

ustekari *iz* itxaropena.

ekoizpen mailan, jatorriz hiritar diren familiek ondorio onak ardiesten dituzte eta laborari izaiteko laborari seme edo alaba izan behar zelako **ustekaria** deusezten. Herria

ustekeria 1 *iz* uste hutsala.

Hizkuntzalaritzaren arloa da, hain zuzen, **ustekeriak**, ameskeriak eta iduripenak gehien zabaldu diren arloa. Isabel Arrigain

Ustekeria horretan tematuz, batzuk heldu ziren sinestera, halaber, Jainkoa (gorets bedi!) askotariko elementuz osatua zela, bere esentziaz eta horri gehituriko beste gauzez.

Xabier Kintana

Ezagutzen dut haren **ustekeria**, eta egiteak ez diote urrik ere ematen haren esan harroei. Elizen arteko biblia

Goiz hartan oren baketsuak pasatu nituen, eta **ustekeria** ere izan nuen afera arrañatuko zela. Marzel Etxehandi

Asmatutako istorio sinestezinak kontatzen dizkiot aztiez, nik sinetsiko banitu bezala, eta berak irri egiten du eta ene **ustekeria** horiek burutik kentzen saiatu. Koldo Izagirre

Nire amaren **ustekeria** sozialak, hiri zorritsu honetan beste gela bat edukitzeko aukera, altzari txukunak eduki eta bisitak etxean. Xabier Olarra

Hau erabakitze beharrezkoa da estatutu ahalik eta zehatzena eta **ustekeria** gutxikoena egitea. Juan Martin Elexpuru

Auzoko eskusoinu batek infinituki ekiten zion *La Cumparsitari*, kantu zaharra delako **ustekeria** irentsarazi diotelako hainbat jendek. Juan Garzia

Sarritan alferreko lana da gaixo hori mundu-ikuspegi osasungarri eta bizimodu egoki batera ekartzeko saiatzea, gotortu eta babestu egiten baita neurosi eta **ustekeriak** harresi baten atzean. Karlos Zabala

2 (hitz elkartuetan)

Ustekeria -bekatua ere egin dut, pentsatzen bainuen merezi nuela Jaungoikoak nire burua argitzea neure grinak erabat menderatzeko lain. Koldo Biguri

ustekizun *iz* ustea.

Ustekizunak baizik ez dira horiek denak. Josu Zabaleta

Antzinako iduripen eta **ustekizun** beretan dago hemen Etxepare, nahiz [...] Bidasoaz haraindira hurbilagotik behatzen hasi den, eta Euskal Herriaz duen ikuspegia aldaraziko diote orduan Hegoaldeko gizon bakar batzuen urratsek. Piarres Xarriton

Munduaren betierekotasuna onartzen duen aurkariak pentsatzen baitu munduaren ez-existentziaren irudimenezko **ustekizuna**, irudimenera etor lebigukeen beste edozein gauza ezinen **ustekizuna** bezalakoxea dela. Xabier Kintana

ustel 1 *izond* gai organikoez edo izaki bizidunetz mintzatuz, hondatu edo galdu dena, eskuarki kiratsa dariona.

Harago, aza garratzen usaina, sagar **ustelena**, simaurretara botatuko uraza eta porruena. Karlos Zabala

Frijitu itzazu bi arrautza **ustel**. Anjel Lertxundi

Ez dit esan, bada, arrain **ustela** besterik ez dudala saltzen! Karlos Zabala

Ogi lizuna eta haragi **ustela** jaten. Karlos Zabala

-Azkar puta barreiatu duk haragi **ustelaren** kiratsa. Aingeru Epaltza

Kilometroak, haragi puska **ustel** baten orde, urrea garraiatzeko prezioan. Aingeru Epaltza

Puska bat haragi **ustel** eskuan zutela itzultzen baziren bastizetara. Aingeru Epaltza

Ez da sinestekoa gorpu **ustelak** noizkoak diren asmatzeko daukan trebezia. Hasier Etxeberria

Harrez beteriko gorpu **ustel** bat besterik ez zuten ikusi. Gotzon Garate

Nekazari itxurako hiruzpalau gizon ikusi zituenean uholdeek ekarritako txahal erdi **ustel** bat bide bazterrean larrutzen, hesteak irauli eta oka hasteko zorian egon zen. Anjel Lertxundi

Bide ertzean atzemaniko patata erdi **ustelen** bat. Pablo Sastre

Kur-azaleko sustrai eta enbor **ustelen** gainetik ibiliaren ibiliz. Joxe Austin Arrieta

Marrubi **ustelezko** konpotarekin jan. Josu Zabaleta

Ontziak arraro kokatuta, zurtain **ustelez** beteak, kimuak zimelduta orbainen antzera. Anton Garikano

Lur-azaleko sustrai eta enbor **ustelen** gainetik ibiliaren ibiliz. Joxe Austin Arrieta

Gauaren gailurra jotzen ari nintzen, hots, zizare **ustel** bat denetan porrot egina nintzela ondorioztatzeko une hunkigarria. Aingeru Epaltza

2 irud/hed

Ezta hagin **ustel** bat ateratzera ere ez naiz joan ni medikuarenera neure garaian. Pako Aristi

Hodi **ustel** haiek nolatan eutsi zioten bere pisuari, horretaz mintzatuko ziren zaindariak aste osoan. Harkaitz Cano

Hondakinen harria da bere xedea, ur **ustela** bailitzan. Jon Alonso

Eman egin behar zaio, izan ere, lurrari; opa egin behar, gero zer bait kenduko bazaio, eta horregatik da lurra faltua eta **ustela** nekazariarentzat. Iñaki Segurola

Nola iritsi da guganaino Bilboko egunkari **ustel** hori? Txillardegui

Mendi zabortuak, hiriaren estolda **ustel**-kirastuak. Pako Aristi

Deitore eta zantalzen ur **ustelean** itorik. **Xabier Montoia**

3 (irud/hed gauza abstraktuez)

Buru **usteleko** jendea. **Elizen arteko biblia**

Zingirek kirats **ustela** zabalitzen ditek, euriak beroa ematen dik. **Xabier Olarra**

Lizunkeriaren erresuma zen, tratu **ustelak** ziren nagusi, armak eskuan hartuta lapurtzen zuten. **Karlos Zabala**

-Zorte zikin **ustela** Joe giza joarena! **Lopez de Arana**

Zergatik dabilta iskanbilan nazioak, eta asmo **ustelak** asmatzen herriak? **Elizen arteko biblia**

Garbi aitortu beharra dago Jainkoa egiatia dela; gizon-emakume guztiak, berriz, hitz **ustelekoak**. **Elizen arteko biblia**

Hiriaren hedatze azkar -eta hondarrean **ustel** - baten lilurapean presaka eraikitako bazter-azuloan ginen. **Aingeru Epaltza**

Jokoa, droga, mafia: egoera sozial **ustel** baten osagaiak. **Ramuntxo Etxeberri**

Bere lankideak trufatzen zitzaizkion, ez baitzuen mahai azpiko diru **ustela** onartzen. **Ramuntxo Etxeberri**

Mito alu **ustel** zikin bat! **Ramuntxo Etxeberri**

Gure euskara hau kontzientziaren laiotz **ustelera** kondenatzen duela. **Iñaki Segurola**

Ustela duk mentura, gerokoa dena. **Herria**

4 (irud/hed, pertsoenez)

Ikusgarriagoa zen haren bisaiaren adiskide planta bat-batekoa, bere jabea bezain **ustela**. **Aingeru Epaltza**

Jende nardagarri eta **ustel** hori lizunkeriatan gozatzen da, zuekin jan-edanean ari diren bitartean. **Elizen arteko biblia**

Horra nora iritsi den doilor **ustel** hau! **Jose Morales**

Bi errublo eta erdi kendu dizkidak arima bakoitzeko, zeken **ustel** horrek! **Jose Morales**

Ama putaren kimu **ustelak**! **Aingeru Epaltza**

5 (adizlagun gisa)

Enborra **ustel** zagok; jo eta bota egin behar. **Karlos Zabala**

Konprenitu nuen nire bizitza zuzentzeko anarterainoko saioak **ustel** gertatu izanak estrategiaren okerra baizik ez zuela salatzen. **Aingeru Epaltza**

Bere asmoa **ustel** atera zitziola ikusirik [...] Anconara zihoazen itsasgizon batzuei berekin eramateko eskatu zien. **Askoren artean**

Asmo guztiak **ustel** aterako zaizkie probetxu gabeko herri horrekin. **Elizen arteko biblia**

Iruñekoek, berriz, **ustel** eta koldar jokatu zuten, azienden pare. **Aingeru Epaltza**

Egia esateko, hire dosierra **ustel** arraio zagok. **Pablo Sastre**

6 (izen gisa) ik usteltasun.

Hilotz ustelkor bat ekoizteari 'bizia ematea' deitze horrek salatzen du hobekienik Ideia horren gezurra eta **ustela**. **Ustelak** jota daude zuen aberastasunak, eta sitsak janda zuen jantzi dotoreak. **Iñaki Segurola**

-Eta zer bake izan dezaket nik Jainkoagandik -erantzun zuen legendunak haserre- bakea eta on guztia kendu baitit berak, eta **ustelez** eta kiratsez bete bainau? **Askoren artean**

Gure **ustela** ez dela bertze alderat behatugatik desagertzen, eta geure lohiarekin eta geure **ustelarekin** egin behar dugula aitzina. **Joan Mari Irigoien**

Batzuetan zapalduak bizi dira, urterik goxoenetan bortxatuak eta **ustelera** eramanak. **Gotzon Garate**

Montzoiaren sasoiaren, **ustelaren** kiratsa betiko desagerrarazi eta giroa egurasteko sasoi. **Xabier Montoia**

Ekonomia sozialista, Indian antolatuta zuten moldekoa, funtzionariokeriaren eta **ustelaren** sinonimoa izan zen luzaroan. **Gotzon Garate**

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haren **ustel** -usaina zabalduko da, kiratsak airea beteko du. **Elizen arteko biblia**

- **Ustel** usain ttipi bat bada, ezta? -galdetu zion Ninak bere aitari. **Ramuntxo Etxeberri**

Irten aurretik, ezpainetara hurbildu nituen laranja pusketak: **ustel** zaporea zuten biek ere. **Aritz Gorrotxategi**

Eta **ustel** kirats itogarria itzuri zen luzaz. **Txillardegia**

Ohe zoldatsu baten **ustel** -izerdi kiratsean. **Juan Garzia**

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenaren izenondo gisa)

Haragi **ustel** usaina zegoen barreiaturik, odol eta alkoholarenarekin batera. **Felipe Juaristi**

Ohiko arrain-**ustel** kirats azkarra falta zen, ordea. **Txillardegia**

Hartu arrain **ustel** puskek otarre zaharretan eta portuko bazter guztietan kokatu genituen. **Koldo Izagirre**

Petrolio usaina, sardina **ustel** usaina, gesal usaina sentitzen zen. **Joseba Sarrionandia**

Lasto **ustel** sunda halako bat, gurin pilen gezatasunaren erdian. **Karlos Zabala**

9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskerrak eman behar dizkizudala uste duzu, zu bezalako odol-**ustel** batek nirekin babesgailua erabiltzeagatik, ala? **Aingeru Epaltza**

Zein borro errejimentutakoa da koldar heste-**ustel** hori? **Xabier Olarra**

10 (uste-rekin lotua)

- **Uste ustela**, Léa! -esan zuen bozkarioz Ruche jaunak-. **Jon Muñoz**

Azkueren **uste ustelak** izan zituen Mitxelenak hizpide. **Koldo Zuazo**

Orduan, lehengo **uste ustelak** alde batera utzi ordez, zertxobait egokitu nuen nire teoria. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Usteak ez dira **uste** bezain **ustel**. **Joxerra Garzia**

Normandiara konturatuta zen Lisa ederrari maitalea kentzen ari zitziolako **ustea ustela** zela. **Karlos Zabala**

Usteak ustela duela erdia, bai eta ere buru bezainbat aburu badabilela munduan. **Piarres Xarriton**

Nahiago nuke nire **ustea** ere erdia **ustel** balitz. **Joxerra Garzia**

Guri hemen dagokiguna da arrazoiaren tribunalera jotzea, eta han zientziari gainera erortzen zaion epaia da **usteari** erortzen zitzaion berbera: erdia (pasa) **ustela** duela.

Iñaki Segurola

"Uste dut", baina **uste** hori ez ote da **ustela**, eta gure sinestea alferra, haurreko gure intxaurrek maiz alferrak eta iharrak gertatzen zitzaizkigun bezala? **Piarres Xarriton**

Bai, etorkizunari buruzko **usteak ustel** gertatu dira honetan ere: etorkizuna ez da ez garai batekoa. **Iñaki Heras**

Usteak ustel, nik ez nuela ezer uste. **Joxe Austin Arrieta**

Nork jarri zuen **uste** ona Jaunarengan, eta **ustel** atera? **Elizen arteko biblia**

Ez ote du, ordea, uste izango, nigan ipini zuen **ustea ustel** atera zitziola eta nik bere amari saldu niola? **Gotzon Garate**

Benetako Europako merkatu bateratua osatzeko diru bateratua beharrezkoa zelako ustea (nahiz eta uste hori, hein handi batean, nahiko **ustela** izan). **Iñaki Heras**

Zenbateraino zen **ustela** zerria hilik izurritea amaitu zelako **ustea**. **Joxerra Garzia**

Atal horretarako hautatua duen bigarren istoriotxoa izugarria iruditzen zaio, gaurko **uste ustel** -estaliekin batera bat ez datorrena. **Anjel Lertxundi**

Eta norberarena, galdu-**uste ustela** besterik ez dela. **Iñaki Segurola**

Horrela du jakin-**usteko ustela** bereganatzen. **Iñaki Segurola**

Uste -minak **ustel**. **Patxi Ezkiaga**

11 pertsoenez-eta mintzatuz, behar adina kemen, ausardia edo zintzotasun ez duena.

Berekoa, diruzalea, zuria, **ustela**, oiloa... ez ziren edertzeko Tomas zere-nolakoa agertzeko ahotan erabiltzen zituenak. **Aingeru Epaltza**
Kiroletan belaxka, ausarkerietarako **ustelegia** eta solasean mihi-motx, ariketa zirtzil horretan aurkitu nuen nabarmentzeko bidea. **Aingeru Epaltza**
Bertan behera uzten zuten zerbitzua eragozpenik nifimoena aurkitu bezain laster, bertan behera uzten zuten dena, edo, ezertaz arduratu gabe, alproja eta **ustelen** eskuetan erortzen ziren. **Jose Morales**
-Ostiajale **ustela**, ipurditik sartuko diagu hire saindu baten irudia! **Aingeru Epaltza**
Tipi, orduko hila baitzen, "maritxu **ustela**". **Aingeru Epaltza**
A zer **ustel** koadrila, halakoak esaten nizkion urketariari neure kolporako. **Koldo Izagirre**

12 alferrikakoa, huts egina, ondoriorik gabea.

Nire etxean ez zegok telefonorik [...] eta irratiarik ere ez diat: munduko zarata ergel eta **ustelei** galarazi egiten zieat bizi naizen lekura sartzen. **Xabier Olarra**
Jokabide **ustela** iruditzen zitzaion hori, ergelkeria hutsa. **Juan Kruz Igerabide**
Garaipen **ustela**, hurrengo bi partidetan Gasteizko bikoteek buelta eman baitzioten kanporaketari. **Berria - Kirola**
Edozein txikiak, intuizio **ustel** edo institutuen traizio. **Harkaitz Cano**
Hiperkomunikazioak inkomunikazioa dakarrela, hori ez al da topiko zahar **ustela**? **Berria - Gaiak**
Lehen ahalegin **ustelaren** ondoren, 1221eko Kapitulu jeneralean erabaki eta antolatu zen Alemaniako misioa. **Askoren artean**
Saioa erdi **ustel** atera zitzaidan. **Aingeru Epaltza**
Alexisek aitaren jokaera gaitzetsi zuen, haren berekoikeria deitoratu zuen, zaharren bizinahi **ustela** madarikatzeaz batera. **Felipe Juaristi**
Euskal herritartasuna soilik balio positiboekin berdinduta, mesede **ustela** egiten diogu herri honetan gertatzen denaz informatuta egon nahi duenari. **Iñigo Aranbarri**
Kontsumoa bilakatu dela askorentzat benetako xede, ez beharrak asetzeko bide, baina ustezko zorientasuna edo fantasia **ustelaren** helburu. **Iñaki Heras**
Bai, tamalez, tranpa honetan eroriz gero, eta arrazoibide **ustelari** jarraituz, maizegi gertatzen dira horrelakoak, aurrerago ere ikusiko denez. **Iñaki Heras**
Gaur ikusiko da VWk hordago **ustela** jo duen edo ez. **Berria - Ekonomia**

13 pertonez mintzatuz, ustelkeriak joa.

Arias Cardenas **ustela** da, bere agintaldia ustelkeriaz bete egon da. **Pako Aristi**
Argigarria dateke gogoraraztea Ernest Hemingwayren usteko sareak Benitez jeneral hori **usteltzat** salatua duela. **Edorta Jimenez**
Ospitalean penzilina falta zuten, zergatik eta trafikatzaleek dena ostu edo, eskupean, aleman zein amerikar mediku **ustelei** erosten zitelako. **Alberto Ladron Arana**
Kazetariak erosituz, politikari **ustelak** bultzatuz, lider deserosoen hilketak aginduz. **Alberto Ladron Arana**
Belgikako lubakiek irakatsi zidaten gerraz aberasten diren enpresa-gizon eta politiko **ustelak** gorrotatzen. **Alberto Ladron Arana**
Horrek erran nahi du japonesak lagundu dituzten politikari **ustel** boteretsuak ez direla baztertu beharko. **Ramuntxo Etxeberri**
Mafiak, hilketak, droga, prostituzioa, polizia **ustelak**, bortxaz edo azpijokoz egindako salerosketak, bahiketak... **Gotzon Garate**
Polizia **ustel** baten patrikan sartu nahi izan zuen eskua Natxok, eta tonto-tontoan atxilotu zuten ezertan hasi aurretik. **Patxi Iturritegi**
Horrek erran nahi du japonesak lagundu dituzten politikari **ustel** boteretsuak ez direla baztertu beharko. **Ramuntxo Etxeberri**
Poliziak eta mediku **ustel** batzuek, onartu ez ezik, suspertu egiten dute ohitura galgarri hori. **Gotzon Garate**
Giro **ustel** horrek bultzatzen ditu pertsonak gaiztakeriaren bideetan barna. **Gotzon Garate**
Defendatu beharrean kondenatzen utzi eta gero dirua nahi zuten abokatu **ustelei**. **Pello Lizarralde**

14 lur ustel ik lurrustel.

15 sukar ustel eritasun epidemikoa, Eberth-en baziloak sortua, heste meheko linfa-plakei eragiten diena.

- **Sukar ustela** al du aitak? **Edorta Jimenez**
Garai haietan hetikak eta **sukar-ustelak** gogorki jotzen zituzten bazterrak, gerla denboretako presondegi eta herio zelaietan bereziki. **Eneko Bidegain**
Bazekiela ontziburua ondoezik zela, baina ez zuela uste **sukar ustelak** jota zegoenik. **Edorta Jimenez**
Esatekotan izan nintzen, ea **sukar ustelaren** ernamuina ez ote zuten eurek Lisboatik ekarri. **Edorta Jimenez**
Zaindarek **sukar-ustelaren** beldur handia zuten, zorrien bitartez kutsatzen omen zen. **Eneko Bidegain**
Eta Lisboa izan diren gizonak kutsatu ez direla-eta, ez hadi egon hain ziur **sukar ustela** erabat joan dela. **Edorta Jimenez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrain ustel (6); **asmoak ustel** (3); **baina usteak ustel** (8); **erdi ustel** (22); **erdia ustel** (19); **erdiak ustel** (3); **gobernu ustel** (3); **herri mozkor ustel** (10); **lur ustel** (3); **mozkor ustel** (6); **mundu ustel** (3); **politikari ustel** (4); **uste ustel** (13); **uste ustel hori** (4); **ustea ustel** (7); **usteak erdi ustel** (16); **usteak erdia ustel** (13); **usteak ustel** (28); **usteak ustel gertatu** (4)
ustel atera (10); **ustel atera zitzaioela** (3); **ustel aterako** (3); **ustel bihurtzen** (3); **ustel gertatu** (13); **ustel gertatu ziren** (4); **ustel kirats** (3); **ustel usain** (7); **ustel usaina** (18); **ustel zabar** (6); **ustel zabar hartan** (4); **ustel zikin** (4)
ahalegin ustela (3); **arrain ustela** (3); **egur ustela** (3); **erdi ustela** (3); **haragi ustela** (8); **sagar ustela** (3); **sukar ustela** (14)
uste ustela (19); **ustela izan** (11); **ustela izan zen** (6); **ustela jaten** (3)
erdi ustelak (3); **hitz ustelak** (4); **sukar ustelak** (14); **sukar ustelak jota** (4); **uste ustelak** (8); **ustelak dira** (4); **ustelak izan** (9)
arrain ustelaren (3); **erromako printze ustelaren** (3); **sukar ustelaren** (20); **sukar ustelaren urtea** (14); **ustelaren kiratsa** (5)
itxaropen ustelik (3)

ustelarazi, ustelaraz, ustelarazten 1 du ad usteltzera behartu.

Lehen batean, kakalardoak [...] zilatzen du zumarraren enborra, galeria batzu eginez, eta ondotik zilo horietan onddo bat hedatzen da, zumarra **ustelaraziz**. **Herria**
Jari saski batean sagar sano batzuk eta ustel bakar bat: sanoek, gehiago izanik ere, ez dute saneatuko ustela: ustelak **ustelaraziko** ditu sanoak. **Joxerra Garzia**
Hauetariko ezer ez du gu zurean eta zokiletan ikusten; eta, hala ere, euriak **ustelarazten** dituenean, harrez erditzen dira, zeren materiaren gorputzak, indar berri batek lehengo ordenatik mugiarazita, izaki bizidunak sortu behar izateko moduan elkartzen baitira. **Xabier Amuriza**
Mirandek zera esan digu: 1) Euskal Herria krisian dago; krisian dago, dekadentzian dagoelako; dekadentzian dago, kristautasunak **ustelarazi** duelako. **Joxe Azurmendi**
Baina eguraldia bera izan ohi da usteak **ustelarazten** dizkizuna eta jakite txorrotxa koskaz kamusten dizuna. **Pello Zabala**

2 ustelkeriak joarazi.

Badago lasai egoteko premia, mesfidantza sortzen duen froga mota baten aurrean: lekuoak **ustelarazi** edo erosiak izan daitezke daitezke, horien oroitzapenak nahas; jakin gabe ere, ideia arrotzek euren gana ditzakete. **Andres Urrutia**

usteldegia iz gauza ustelen biltegia.

Hesteen azaoa ongi lotua eduki behar zuen batek **usteldegia** hartan soldadu lepotuak, emakume lehertuak eta ume erreak jasotzen ez zorabiatzeko. **Koldo Izagirre**
Estalgilea bizitzari atxikia mantentzen den bitartean, haragi zuri horiek guztiak, tentsiorik gabeko garun ahul horiek guztiak **usteldegira** eroriz joaten dira. **Josu Zabaleta**

usteldu, ustel(du), usteltzen 1 da/u ad gai organikoek edo izaki bizidunetaz mintzatuz hondatu edo galdu.

Jainkoak piztu duena, aldiz, ez da **usteldu**. **Elizen arteko biblia**

3 (hitz elkartuetan)

Odol hotzaren eta haragi **ustelduraren** kiratsak gidatu zuen hortik aurrera. **Itxaro Borda**

usteldutasun *iz* usteldua denaren nolakotasuna. ik **usteltasun**.

Heldutasuna edo **usteldutasuna** barrunbe guztiak harrapatzen dituen odolbildu beltz bat da, zazpi ezpatak odolustutako bihotzari darion etsipen beltzaren ur zikinez egina. **Iñaki Segurola**

ustelduxe *izond* usteldu samarra.

Irria libratu zuen Chadefaud-ek hortz **ustelduxeak** erakutsiz. **Itxaro Borda**

Nere bizian, arunt gutxitan ikusten ditut arrabioak, eta gaur goizean, Irolako borda ondoan **ustelduxea** zegoen zotz pila erretzen ari naizela agertu zait bat. **Patziku Perurena**

ustelezin 1 *izond* ezin ustelduzkoa.

Izarrak eter zeritzan substantzia **ustelezin** batez inguratuta zeudela eta finkoak zirela. **Bernardo Atxaga**

Nekez ikus dezaket koherentziarik, ttipiena bada ere, sufrimendu judu-kristau honen, oparotasun latino honen, eta metal **ustelezinaren** adorazio nipondar horren artean. **Joxan Elozegi**

Zeren gorputz **ustelezinaren** edozein atal, ezberdina izanda ere, berdin baita ustelgabea. **Imanol Unzurrunzaga**

Espiritu gozo eta baketsuaren edertasun **ustelezinaz**. **Elizen arteko biblia**

Zu Jaungoiko gorena, bakarra eta egiazkoa asmatzen ahalegintzen nintzen barru-barrutik; eta bihotz-bihotzez sinesten zintudan **ustelezina**, hautsiezina, aldaezina. **Imanol Unzurrunzaga**

Ereiten dena ustelkorra da, pizten dena **ustelezina**. **Elizen arteko biblia**

Natura oro da edo ustelkor edo **ustelezina**; beraz, natura oro da ona. **Imanol Unzurrunzaga**

2 ustelkeriak ezin jo duena.

Magistratu **ustelezinak**, hizjario aske eta abertzalearekin soberanoaren benetako interesak zaindu eta garatuko dituztenak. **Juan Martin Elexpuru**

3 (adizlagun gisa)

Izan ere, turutak joko du eta hildakoak **ustelezin** piztuko dira eta gu izatez aldatuak izango. **Elizen arteko biblia**

ustelezintasun *iz* ustelezina denaren nolakotasuna.

Gorputza ustelezina izan arren, piztuerarako santuei agindu zaien moduan, zinez dauka gorputz horrek **ustelezintasunaren** nolakotasun galduezina; baina gorputzaren substantzia bere horretan ez da **ustelezintasuna** bera. **Imanol Unzurrunzaga**

Substantzia honek barneko sentsuaren objektu soila den aldetik materiagabetasunaren adigai eskuratzen du; substantzia bakuna den aldetik **ustelezintasuna**; bere identitateak, hura substantzia intelektuala den aldetik, pertsonatasuna. **Ibon Uribarri**

Eskua eta atzamarra ezberdinak izan arren, berdina da eskuaren eta atzamarren **ustelezintasuna**. **Imanol Unzurrunzaga**

ustelgabe *izond* usteldu ez dena.

Gero, kutxa ireki eta, espero zezakeen altxorraren orde, Alidaren gorpu **ustelgabea** aurkitu zuen. **Martin Anso**

Eta hurrena, urdaiazpiko zaku batetik beso **ustelgabea** atera zuen, txan-ta-ta-txan eginez, hamar urte atzera emazteak labanaz moztu zion beso berbera, bere bost hatz eta guzti. **Karlos Linazasoro**

Ustelezintasuna oso-osorik dago gorputzaren atal guztietan, eta ez da atal batean handiagoa bestean baino; eta atal bat ez da bestea baino **ustelgabeagoa**. **Imanol Unzurrunzaga**

ustelgabekeria *iz* ustelgabea denaren nolakotasuna, gaitzesgarrizat joa.

Ahotsaren eta lumaren maisu, **ustelgabekeriaren** txapeldun, behin eta berriro hitz horiekin ahoa berotu ondoren, denborarekin gero hainbatek eta hainbatek amets egin duen lanpostuaren bindikatzaile sutsua egin zen Jean-Baptiste. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

ustelgaitz (*orobat ustelkaitz*) *iz* usteltzen zaila, ia ustelezina.

Zeru-lurrak **ustelgaitzak** eta betiko osasunez hornituak direla. **Xabier Amuriza**

Dozena bat kandela azaltzen ziren pizturik goizero Santa Faustinarren odol **ustelgaitzaren** aldaretxoan. **Koldo Izagirre**

Horretarako ahalbiderik ez duenak zur **ustelkaitza** aukeratzin du eta artisauren treberen bat bilatzen, zartatuko ez den irudia molda diezaion. **Elizen arteko biblia**

Susmoa dut giza izaki-mota -den bakarra- galtzearen dagoela, eta Liburutegiak, berriz, hortxe iraungo duela: argizaturik, bakardade huts, infinitua, guztiz ere geldia, liburu preziaz armatua, alferrikako, **ustelgaitz**, sekretua. **Juan Garzia**

ustelgarri *izond* ustel daitekeena.

Hortaz substantzia oro ongia da, ongi handia ustelezina denean, txikiagoa **ustelgarria** denean. **Imanol Unzurrunzaga**

Giza gorputz antzera irudituz ez baneza ustelezin, hautsiezina, aldaezina hura -nahiago bainuen **ustelgarri**, hauskor eta aldakor baino-. **Imanol Unzurrunzaga**

Horrela, korruptzioz ere ez, izaki **ustelgarririk** ez dagoelako. **Imanol Unzurrunzaga**

Ondasunok gorputz **ustelgarraren** pisua larrigotu barik, aiseago jasaten laguntzen diete, zamak espiritua nekaratzen baitu. **Imanol Unzurrunzaga**

usteljan *iz* jan ustela.

Higuigarriak, beti portuetako estolderia inguruan, zulo beltzetatik zer aterako, eta gero **usteljana** barrura. **Paddy Rekalde**

ustelka *adlag* (hitz elkartuetako bigarren osagai gisa elkarketak adizlagun balioa duela).

ustelkaitz ik ustelgaitz.

ustelkeria *(585 agerraldi, 58 liburu eta 272 artikulutan)* 1 iz kargudun edo enplegaturen batek, bere egoeraz zilegi ez den moduan baliatuz, diru edo onuren truke, inoren mesedetan aritzeari amore ematea. ik **korruptzio** 3.

Korruptzio edo **ustelkeria** hori modu askotakoa izan liteke. **Pako Aristi**

New Yorkeko etxe-bloke batean **ustelkeria** handiagoa zagok Niniveko milia karratu batean baino. **Lopez de Arana**

Bertako oligarkien despotismoa, agintarien **ustelkeria** edota egitura sozialen zurruntasuna. **Iñaki Heras**

Erregeak hasiak ziren jadanik beren faboretan **ustelkeria** sartzen. **Iñaki Iñurrieta**

Oposizioak manifestazio eta protesta ugari egin zituen Kuchma presidentearen aurka, honi agintekeria eta **ustelkeria** egotzita. **Berria - Mundua**

Tavini Huiraatira alderdiko presidente Oscar Temaru independentistak **ustelkeria** aztertzeko agindua eman zuen. **Berria - Mundua**

Legebiltzarrak PANen **ustelkeria** estaltzen saiatzen ari da. **Berria - Mundua**

Kontserbadoreek zein sozialistek langabezia murriztu eta **ustelkeria** ezabatzea agindu dute. **Berria - Mundua**

Adituen ustetan, **ustelkeria** epaitzeko irizpideak zehaztu ezean, gero **ustelkeriaren** aitzakian gustuko ez dituen hainbat gobernu baztertzeko aukera izango lukete AEBek. **Berria - Mundua**

Filmetan pariak heroi bihurtzen dira, neska aberatsa erdiesten dute eta goiko klasearen **ustelkeria** garaitzen. **Gotzon Garate**

Ustelkeria leporatzen zion bertako gremioari, legez kanpoko jokoetatik hasita prostituzioan bukatu arte. **Bego Montorio**

Subiranotasun nazionala berreskuratzeko, eta **ustelkeria** desegiteaz. **Berria - Mundua**

Lehen ministro kargua hartu eta gutxira, **ustelkeria** egin izana leporatu zioten eta bi urteko kartzela zigorra eskatu zuen akusazioak. **Berria - Mundua**

Ildo horretan, Nafarroan **ustelkeria** «egiturazkoa» dela iritzi zion. **Berria - Euskal Herria**

Ustelkeriaren aurkako neurri zorrotzak. **Jose Morales**

Ustelkeriagatik epaitu eta zigortutako Gabriel Urralburuk eta Antonio Aragonek bultzatu zuten Itoizko urtegia. **Eduarne Elizondo**

Carlos Andres Perez **ustelkeriagatik** kondenatu zuten gerora. **Pako Aristi**

Sharon **ustelkeriagatik** ez auzipetzea erabaki dulsraelgo fiskal nagusiak. **Berria - Mundua**

Japoniako Defentsa Ministerioaren menpeko agentzia bat **ustelkerian** nahasita zegoela jakin zen atzo. **Berria - Mundua**

Irakeko Petrolioa Elikagaien Truke programarekin **ustelkerian** aritzea egotzen diete NBEko hainbat goi funtzionario. **Berria - Mundua**

Ustelkerian jardutea leporatu diete Italian 4.000 mediku ingururi. **Berria - Gaiak**

Zilugaren ustez, 25 urteotan frogatu da ezker abertzaleak orduan egin zuen apustuan arrazoi zuela eta gainerako alderdiak «**ustelkerian**» erori direla. **Berria - Euskal Herria**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ekonomia gainbehera zihoan, **ustelkeria** itzela zegoen administrazioan. **Jon Arretxe**

Lukreziok fakzio odoltsuak, alderdi-gerrak eta **ustelkeria** politikoa ikusiak zituen. **Juan Garzia**

Arazo larriak dituzte baina: desberdintasun itzelak, ingurugiroan kutsadura handia, **ustelkeria** politikoa, edota, oro har, arazo politikoak. **Iñaki Heras**

Herritarrek salatu izan dutenez, **ustelkeria** administratiboa izan da krisiaren eragilea. **Berria - Mundua**

Lukreziok fakzio odoltsuak, alderdi-gerrak eta **ustelkeria** politikoa ikusiak zituen. **Juan Garzia**

Brunekildak espiritu ustelez zuzendu nahi izan zituen **ustelkeria** zaharrenek gehiegikeriak. **Iñaki Iñurrieta**

Gabiniok, xedetzat sufragioetako **ustelkeria** geldiaraztea zuen lege famatua eginez, [...]. **Iñaki Iñurrieta**

Liberalek egindako ustezko **ustelkeria** ikertzen ari dira. **Berria - Harian**

1985ean gertaturiko ustezko **ustelkeria** delitu hori dela medio. **Berria - Mundua**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ustelkeria susmoak inguruan ditu Alderdi Laboristak. **Berria - Mundua**

Finantza ministroak dimisioa eman du; **ustelkeria** akusazioak pilatzen ari dira. **Berria - Mundua**

Aita zein semearen kontra egin dira **ustelkeria** eta eroskeria akusazioak. Horrek oinarri zuen komun publikoetako Vittorio Emanuele II.-ak ekarritako arpilatze eta **ustelkeria** salaketa. **Berria - Mundua**

Ustelkeria auzi bat dela-eta, Jukosen kontuak blokeatu ditu Kremlinek. **Berria - Ekonomia**

Berlusconi Milango epaitegiaren aurrean defendatu zuen bere burua, **ustelkeria** delitua leporatuta. **Berria - Mundua**

Iraganeko **ustelkeria** eskandaluek nazioarteko komunitatea uzkur dezakete. **Berria - Mundua**

Carlos Andres Perezen gobernu ilejitematerik handienera zegoen, **ustelkeria** mailarik sakonenean. **Pako Aristi**

Legezko egitura bat edukitzea **ustelkeria** kasuak ikertuak eta epaituak izango direla bermatuko duena. **Pako Aristi**

Etsegintza arloko **ustelkeria** eta eroskeria kasuetan. **Berria - Mundua**

Ustelkeria modu guztiak daude munduaren iluntasunean ezkatuta. **Ibon Uribarri**

Poliziak 54 pertsona atxilotu zituen atzo, gehienak funtzionario publikoak, **ustelkeria** sare bateko arduradunak izatea leporatuta. **Berria - Mundua**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lerro ezabatuen behean "Kubako barne-**ustelkerian** eskua sartzerik ez dagoela" dio berriro Laddyk, Hemingwayri. Industriategi kolosalen eta fakturazio-**ustelkeria** zorabiagarrien kimikatar loriosa. **Edorta Jimenez**

5 ustela dagoenaren egoera; usteltasun gaitzesgarria.

Eta halako kiratsa zerion, ezen gudaroste osoari nazka ematen baitzion **ustelkeria** hark. **Elizen arteko biblia**

Sorkariaren **ustelkeriak** berak eta beronen bizioen laidoak agerian jartzen dute haren ontasuna. **Imanol Unzuurrungaga**

Giza naturaren jatorrizko **ustelkeriak** beheko grineta bultzatua. **Askoren artean**

Sua zerbait garbia da, lurra, berriz, berehalaxe lokatz bihurtzen da edozein ekaitzen ostean [...]; lokatz ez ezik, ernaminez beteriko **ustelkeria** ere bai. **Joxe Austin Arrieta**

Horrela, **ustelkeria** dela medio, ustelezin egindako sorkari bat legoke, eta hau absurdorik handiena da. **Imanol Unzuurrungaga**

Zergatik harrotzen da hauts eta errauts den gizakia, bizi dela ere, **ustelkeria** baino ez baitu erraietan? **Elizen arteko biblia**

Kiratsa, berriz, egundokoa zen eta, sukar ustelaren **ustelkeria** norainokoa zen, harexek erakusten zuen. **Edorta Jimenez**

Laugarrenik, begira neure gorputzaren **ustelkeria** eta itsuskeria guztia. **Patxi Altuna**

Kanpotik itxura ederrekoak dira, baina barrutik hil-hezurrez eta **ustelkeriaz** beteak. **Elizen arteko biblia**

Hala bada, akaberan **ustelkeria** bere baitan nagusitu zelarik, zakartu egin zen, pasioen mende gertatu. **Patxi Zubizarreta**

6 irud/hed

Elizak eta sexuaren kontrako masakiek aukera paregabea ikusi zuten hiesa Jainkoak "**ustelkeria** hedonistaren kontra" bidalitako zigorra zela esateko. **Luis Elberdin**

-Deabrua baliatu egiten da gazteriaren ate zabalekin, eta haietan barneraturik, gordean edo agerian, **ustelkeria** zabaltzen du. **Patxi Zubizarreta**

Emakumea ere ez da abereekin elkarbatuko: **ustelkeria** litzateke. **Elizen arteko biblia**
Euskalkiak euskararen hondamendia eta **ustelkeria** ziren, euren esanetan eta, horren ondorioa, euskaldun batzuek besteei ezin ulertzea. **Koldo Zuazo**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agintarien **ustelkeria** (4); **gobernu**an **ustelkeria** (3); **inguruko** **ustelkeria** (4); **izandako** **ustelkeria** (3); **politikari**en **ustelkeria** (3)

ustelkeria **agerian** (5); **ustelkeria** **akusazioak** (4); **ustelkeria** **auzi** (4); **ustelkeria** **auziak** (5); **ustelkeria** **dela eta** (6); **ustelkeria** **delitu** (7)

ustelkeria **egin** (4); **ustelkeria** **egitea** (4); **ustelkeria** **eta** **agintekeria** (3); **ustelkeria** **handia** (3)

ustelkeria **ikertzen** (3); **ustelkeria** **kasu** (13); **ustelkeria** **kasu bat** (3); **ustelkeria** **kasua** (5); **ustelkeria** **kasuak** (16); **ustelkeria** **kasuan** (4); **ustelkeria** **kasuaren** (3); **ustelkeria** **kasuetan** (4); **ustelkeria** **leporatu** (8); **ustelkeria** **leporatu diote** (3); **ustelkeria** **leporatuta** (13); **ustelkeria** **leporatzen** (8)

ustelkeria **salaketak** (5); **ustelkeria** **salatu** (8); **ustelkeria** **salatu zuten** (3); **ustelkeria** **sare** (4); **ustelkeria** **susmoak** (3)

ustezko **ustelkeria** (10)

ustelkeriaren aurka (10); **ustelkeriaren aurkako** (19); **ustelkeriaren aurkako fiskaltzak** (4); **ustelkeriaren kontra** (5); **ustelkeriaren kontrako** (14)

ustelkeriaz **akusatuta** (4)

ustelketa *iz* usteltzea.

-Biderketa-taulen ondoren, **ustelketa** -taulak! -bota zuen Léak. **Jon Muñoz**

ustelki¹ *adlag* uste ustelez.

Osorik dagoenak uste du - **ustelki** - sortzen ari dela, kreatzen. **Iñaki Seguro**

ustelki² *iz* ustelduriko gauza.

Usaimenez kea, harria, azufrea, kirats zikina, zaborreria eta **ustelkiak** usnatzea. **Patxi Altuna**

Gorpu jasotzearen deskribapenean, gaztetxo baten arta goraiatzeko du A.k, haren begirunea **ustelkiak** jasotzen. **Koldo Izagirre**

Gauza jakina denez, zakur beltza deabruaren gorpuzte bat da, beraz ez da izanen haren kaka baino **ustelki** okaztagarriagorik. **Pablo Sastre**

Aii! haragia, simaur erakargarri bizia, ibiltzen, pentsatzen, hitz egiten, begiratzen eta irribarre egiten duen **ustelkia**. **Josu Zabaleta**

ustelkizun *izond* usteltzeko gai dena.

Halaber, gizakiari heriotzaz gero bizirik gelditzen zaiona da, **ustelkizun** ez dena, esaterako: [...]. **Xabier Kintana**

ustelkor *izond* usteltzeko joera duena, erraz usteltzen dena.

Beldur ote da gorputz **ustelkorrean** preso gelditzeko eta urteek ahituriko etxea honda dakion? **Xabier Amuriza**

Bizia galtzen duenak, bizia eman ustean, heriotza ematen du; hilotz bat da zinez ematen duena, hondakin **ustelkor** bat, ezerez hotz bat. **Iñaki Seguro**

Gure izate **ustelkorrak** bizi ustelezinez jantzi behar du, eta izate hilkorak hilezkortasunez. **Elizen arteko biblia**

Hildakoen piztuerarekin ere gauza bera gertatuko da: ereiten dena **ustelkorra** da, pizten dena ustelezina. **Elizen arteko biblia**

Natura oro da edo **ustelkor** edo ustelezina; beraz, natura oro da ona. **Imanol Unzueta**

ustelmen *iz* usteltzea.

Adimena gizakiaren zati bat bakarrik denez gero [...] eta eskuek eta begiek edo sudurrek guregandik berex sentitzerik ez izaterik ez daukaten bezala, denbora laburrean **ustelmenean** desegiten baizik, halaxe ezin du gogoak bere kabuz bizi gorputzetik eta gizakiatik beragandik at. **Xabier Amuriza**

Asko eta asko [...] negargarri hiltzen ikusiko zenituen, zikinez eta zarpailez josiak, hezurren gainean azal huts, ultzera zantarrek eta **ustelmenak** ia lurperatuak. **Xabier Amuriza**

usteltasun 1 *iz* usteltzea; gauza ustela.

Lehenengoan gure mundu lurta hau dago, eta hemen aldaketa eta **usteltasuna** dira nagusi, eta guztia iragankorra eta galkorra da. **Xabier Kintana**

Neguan, hotzak likido den guztia gogortu duenean, elurrak lurzorua berdindu eta **usteltasunak** estali dituzten. **Karlos Zabala**

Neguan, hotzak likido den guztia gogortu duenean, elurrak lurzorua berdindu eta **usteltasunak** estali dituzten. **Karlos Zabala**

Simauregi bizia bihurtu zen [Saget andereñoa], txakurrek ere jango ez zuketean **usteltasunez** elikaturiko piztia satsua. **Karlos Zabala**

2 ustela denaren nolakotasuna.

Uste horren **usteltasunaren** frogagarri, hona, beste askoren artean, Damaso Inzak Nafarroan jasotako bi esaera: [...]. **Iñaki Seguro**

usteltza *iz* gauza ustelen multzoa. ik **detritus**.

Halaxe jokatzeko du naturak: iratzearen jas ederra oihanlurreko **usteltzatik** ateratzen du, eta bazka-belartza simaurretik. **Juan Garzia**

Elurra eta eguzkia joan-datoz beraren gainean, bera ukitu gabe: hosto hilen orbeltzak eta azaleko **usteltzak** lurperaturik datza, hilkin bat bilakatu da. **Juan Garzia**

usteltzaile *iz* usteltzen duena.

On den guztiaren **usteltzaile** izatea. **Joan Mari Lekuona**

Marketina edota publizitatea hartzen dira ekonomian **usteltzaile** handientzat, Lanbin marketin alorrean adituak dioten bezala "kontsumo-gizartearen arkitektoak" dira. **Iñaki Heras**

usteltze 1 *iz* gai organiko ez edo izaki bizidunetaz mintzatuz hondatzea edo galtzea.

Pertsona bat bortxaz hil eta haren gorpua berehala uretara jaurtitzen bada, seitek hamar egunerako bitartea behar izaten du gorpuak usteltzen hasi eta, **usteltze** horren ondorioz, ur azalera igotzeko. **Berria - Mundua**

Ezein izaki bizi ez da berez gaiztoa, heriotzaraz makurtzen den heinean gaiztotzen da; eta bizitzearen heriotza **usteltze** edo perbertsioa baino ez da. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Forentseek ez zekiten xuxen burdinen uherrak geldotu edo bizkortu egiten zuten gorpua **usteltzea**. [Hasier Etxeberria](#)

Badira kimika gaiak gorpua **usteltzetik** betiko gordeko dutenak; merkurio bikloruroa da horietako bat. [Koro Navarro](#)

Usteltze bidean dauden gorpuek airea gaiztotu eta gaixotasunak ugaritzen dituzte. [Berria - Mundua](#)

2 irud/hed

Ohituren **usteltzeak** desegin egin zuen zentsoretza, hura ere ohituren **usteltzearen** kontra ezarria izan arren; baina **usteltze** hori orokor bihurtu zenean, zentsoretzak ez zuen indarrik izan. [Iñaki Iñurrieta](#)

Zentsura horrek, pentsamendu libreko gizon guztien pertsekuzio horrek, liburutegien erreketak, unibertsitateen **usteltzeak** zure arbuioa eragingo zuketean, baita Alemanian nire arrazako inori hatzik gainean jarri ez baliote ere. [Ramon Etxezarreta](#)

Pertsiana igo eta sakonki hartu zuen udazkenaren **usteltze** hotzaz betetako aire hezea. [Lopez de Arana](#)

Mendebaldearen **usteltze** ideologiko horrek sentimendu bikoitza pizten zidan. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Usteltze fasearen jarraipena deritzo Batasunak Sarkozy planari. [Berria - Euskal Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

usteltze horren ondorioz (3)

usteltzearen ondorioz (3)

ustetsu 1 izond

ustez bete, buruiritzia.

Ez naiz horren **ustetsu** eta buruiritzia. [Iñaki Segurola](#)

Laster, ordea, talka egin zuen Zeusekin, higuin baitzuten hark gizakiak, handinahikoeziak eta **ustetsuegiak** izaki haren gusturako. [Juan Garzia](#)

Nire mutil gaixo errugabe **ustetsua** beste edozein neskaen amarrukerietatik salbatzearen, urrutiago ere joateko prest nago. [Antton Olano](#)

Horregatik, haserre gorritan nago atzerriko nazio **ustetsuen** aurka. [Elizen arteko biblia](#)

2 asmotsua.

Zeren-eta gauza esanguratsuak, oso esanguratsuak, ikaragarri esanguratsuak..., nahi-eta-ezineko asmazio **ustetsu** bezain ezdeusak izan ohi baitira. [Iñaki Segurola](#)

ustez ik uste 14.

ustezko ik uste 15.

ustiagarri izond

ustia daitekeena.

Dagoena kalkularen bidez menperatu, erabili eta etekina atera beharrekotzat hartzeak, Aristotelesenean abiatu baina batez ere XVII. mendetik goiti nabaritu dena, natura gordeleku **ustiagarri** gisa ikustea "natural" bilakarazi digu. [Markos Zapiain](#)

ustiaketa (54 agerraldi, 11 liburu eta 23 artikulutan) 1 iz

ustiatzea. ik ustiapen.

Galdeketa Boliviako gas erreserben **ustiaketa** estatuaren edo transnazionalen esku geratuko den erabakiko da. [Berria - Mundua](#)

Lurreko eta lurpeko baliabideen **ustiaketan**. [Koro Navarro](#)

Lurralde zein kolonietako itsas fauna eta beste baliabide naturalen **ustiaketa** eta arpilaketa. [Berria - Mundua](#)

Kolonia-baliabideen **ustiaketarako** monopolioren kontzesioa izan zen merkataritzaren hedapenaren bigarren eragilea. [Koro Navarro](#)

Amiantoak osasunari egiten dizkion kalteez ohartu ostean, zuntzaren **ustiaketa** apalduz joan da 1975az geroztik. [Berria - Ekonomia](#)

Alberto Friasek kezkarritzat jo du Garofiako zentral nuklearraren **ustiaketa** luzatu nahia. [Berria - Harian](#)

Alvaro Aragonek aro modernoko oihanean **ustiaketa** aurkeztu zuen. [Berria - Kultura](#)

-Basoen **Ustiaketa** Iraunkorrerako Printzipioei buruzko Adierazpena. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Inbasio militarrez, **ustiaketa** ekonomikoz, menperatze historikoz nahi beste dakien esku batek. [Iñigo Aranbarri](#)

Elkarteen eskariak onetsiz, eraikina publikoa izango da, baina **ustiaketa** pribatua izango du Iparraldeko lehen erraustekoak. [Berria - Euskal Herria](#)

Mairuelegorretako **ustiaketa** turistikoari aurre egiteko. [Berria - Euskal Herria](#)

Arauturiko **ustiaketa** iraunkorra baimentzeak dirua ematen du espeziok babesteko egitasmoetarako. [Berria - Gaiak](#)

Eskura dauden baliabide guzti-guztien **ustiaketa** laudagarria? [Joxerra Garzia](#)

Banakako lurraren jabetzaren sistema taldekako **ustiaketa** bihurtu zuen. [Berria - Mundua](#)

Groenlandiako oreka ekologiko hauskorra, klimaren aldaketa, gaien gehiegizko **ustiaketa**. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskaera prestatzen 2006an beste hamar urterako **ustiaketa** baimena jaso ahal izateko. **Ustiaketa** epea amaitu aurretik, baina, luzatzeko eskatu zuen San Josepe Bi enpresak. [Berria - Euskal Herria](#)

Endesaren (- %0,84) **ustiaketa** mozkina %18 igo da aurtengo lehen hiruhilekoan. [Berria - Ekonomia](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azkenean, morfina bihurtzen duk miseriak ahazteko eta mea- **ustiaketari** ez uzteko bide bakarra. [Josu Landa](#)

5 pertsoez mintzatuz, esplotazioa.

Mundu garatuaren aberastasuna mundu pobreaken **ustiaketari** eta azpigarapenari zor zaiolako. [Iñaki Heras](#)

Hor dago genoziden historia lotsagarrian, Leopoldo II.a Belgikako erregeak Kongon egin zuen **ustiaketa** izugarria. [Iñaki Heras](#)

Errefuxiatuen babesgabetasuna eta **ustiaketa**: batez ere emakumeak, haurrak eta zaharrak dira babesgabeenak. [Berria - Harian](#)

6 (hitz elkartuetan)

Merkatu-ekonomian, gizakia ez du soilik lanak ustiatzen eta alienatzen, produktoreen eta saltzaileen aldetik ere, nolabaiteko merkataritza- **ustiaketa** jasotzen baitu. [Iñaki Heras](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baliabide naturalen ustiaketa (3)

ustiapen eskubideak (3)

ustiakuntza (13 agerraldi, 4 liburu eta 5 artikulutan) 1 iz ustiatzea. ik **ustiapen**.

Geroago, Frantziak Maghrebeko fosfatoen **ustiakuntza** beretu zuen. **Koro Navarro**

Aise eratzten dira petrolio-kartelak, eragile kopuru txiki baten esku egon baita beti petrolioaren **ustiakuntza**. **Koro Navarro**

Andres Untzainen garaian Melena del Sur azukre kanaberaren **ustiakuntzatik** bizi zen. **Edorta Jimenez**

Planetako arrain erreserben %70ek gehiegizko **ustiakuntza** jasaten dute egun. **Edorta Agirre**

Meatokitako **ustiakuntzaren** ondoren, segituan, tropikoko laboreak etorri ziren, europarren kontsumorako denak. **Koro Navarro**

Horieta bat, artelanen «**ustiakuntza**» izan zitekeela aipatzen du. **Berria - Kultura**

Salmenta ez zen helburua, **ustiakuntza** baizik. **Berria - Ekonomia**

2 (hitz elkartuetan)

Langileak falta zirelarik, kolonietako **ustiakuntza**-sistemak, afrikar esklaboen salerosketara jo behar izan zuen gero eta gehiago. **Koro Navarro**

Hala, 2002 eta 2003 urteetan 2 milioi euroko **ustiakuntza** galerak izan dituela eta produkzioa %43 murriztu dela azpimarratu du. **Berria - Ekonomia**

3 ustiategia.

Hegazti **ustiakuntzak** ikuskatzen ari dira, eta laster Araba, Bizkai eta Gipuzkoako **ustiakuntzen** %100 kontrolatuta izango dute. **Berria - Harian**

ustialdi iz ustiatzeko aldia.

Depresioak, berriz, esperimentuen huts etsigarrietatik datoz; alegia, teoria berriaren **ustialdi** baten ondoren berriro ere pareta baten aurrean aurrera egin ezinik geratzetik.

Juan Garzia

ustialeku iz ustiatzeko lekua. ik **ustiategi**.

Madagaskar kopala, Sierra Leona kopala, Kauri kopala (zeinaren **ustialekuak**, bidenabar esanik, 1967 aldera ahitu baitziren), Kongo kopal guztiz sonatu eta noblea. **Juan**

Garzia

ustiapen (84 agerraldi, 8 liburu eta 50 artikulutan) 1 iz ustiatzea. ik **ustiaketa; ustiakuntza**.

Eraikuntza lanak erakunde publikoen ardura izan badira ere, **ustiapena** Etxart enpresaren esku geldituko da. **Berria - Euskal Herria**

Ustiapen eta birfintzean dauden mugimenduak islatzeko ezintasuna salatu dute petrolio konpainiek. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Herralde horietako industrializazioa, 1960ko hamarraldiaz geroztik, hidrokarburoen errenten **ustiapenean** oinarritzen da (petrolio, gas naturala), edota fosfatoaren

ustiapenean, Marokon gertatzen den bezala. **Koro Navarro**

Aparkalekuaren **ustiapena** Setexi eman dion Aena aireportuaren jabearen «axolagabekeria» ere gaitzetsi du. **Berria - Ekonomia**

Gizakiak bere lan indarraren **ustiapenaren** emaitza jasotzen duen eguna, egun handia da materialista dialektiko batentzat, eta baita gainerakoentzat ere. **Unai Iturriaga**

Informatika sistemen **ustiapena**. **Berria - Euskal Herria**

Gezur handien intelektualek, batzuek jakinaren gainean eta beste askok azpian, kapitalaren **ustiapena** eta estatuaren ostiapena defendatzen dituzte funtsean. **Iñaki**

Segurola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lurraren eta uraren **ustiapen** naturala. **Esteban Antxustegi**

Tokiko basoen **ustiapen** iraunkorra nagusitu da eremu aldapatsu horretan, eta egundaino balio natural eta botaniko ugari gorde izan ditu inguruneak. **Berria - Euskal**

Herria

Kirol instalazioen eraikuntza edo Olinpiar Jokoen **ustiapen** komertziala. **Berria - Kirola**

Ustiapen energetikoa aipatzen denean, erraustekoa ulertu behar dugu. **Berria - Harian**

Ur ugari eskatzen duten uztak landatu beharrean, arrazoizko laborantza garatu behar da, uraren gehiegizko **ustiapena** saihestuz. **Berria - Harian**

Zibilizazio industrialak eta kontsumo-ekonomiak bultzatutako natur baliabideen neurritz kanpoko **ustiapenaren** kontra agertzen da ekologismoa. **Berria - Gaiak**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ustiapen maila espezieen ugalketaren eta hazkuntzaren araberakoa izan beharko litzateke. **Berria - Gaiak**

Ustiapen modeloa dago indarrean: gauza bat egin eta behin eta berriro kopiatuta dirua egitearena. **Berria - Gaiak**

Zergak eta **ustiapen** eskubideak ez ordaintzeagatik. **Berria - Ekonomia**

«**Ustiapen** marjinak estutzen ari zaizkie», bere iritiz, lehengaien garestitzeagatik ez baitute produktibitatea igotzeko tarterik. **Berria - Ekonomia**

Ustiapen gastuak %6,7 handitu ziren. **Berria - Ekonomia**

Natur baliabideen erabileran, **ustiapen** eritimoak ez du birsortze eritimoa baino handiagoa izan behar. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Baliabide horiek berriztagarriak dira, bai, baina gaur egungoaren oso azpitiko **ustiapen**-tasa batean. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Jaurlaritzak **ustiapen** epea luzatu du, Arrasateko Udalak kontrako erabakia hartua duen arren. **Berria - Euskal Herria**

A-8 autobidearen mantentze eta **ustiapen** lanak. **Berria - Euskal Herria**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bakuko petrolio-alorraren merkataritza-**ustiapenak** berresteko. **Iñaki Mendiguren**

5 ustiategia.

Trebiñun, Arabako Haranetan, Agurainen eta Gorbeiaiko magaletan ere badira **ustiapen** batzuk. **Berria - Ekonomia**

Zabalera handiko **ustiapenekin**. **Berria - Harian**

Diputazioko diru laguntzekin herraldeko **ustiapen** bakoitzari 240 euro soilik dagozkiola kritikatu du UAGAK. **Berria - Ekonomia**

Nekazaritza Erroldaren arabera, 1999an EAEko nekazaritza **ustiapenen** %10en jabe baino ez ziren 40 urtez azpikoak. **Berria - Ekonomia**

Nafarroan 700 bat abeltzaintza **ustiapen** daude. **Berria - Harian**

Hondamendi naturalek eragindako kalteak nabarmen areagotu dira oihan **ustiapen** basatien ondorioz. **Berria - Mundua**

Ustiapen industrialetako lurjabe handiek. **Berria - Ekonomia**

Bizkaiko 4.000 bat nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza **ustiapen** batzen ditu Lorrak. **Berria - Ekonomia**

Leku zabalean **ustiapen** erraldoiak bultzatzeari ekin dio Jaurlaritzak. **Berria - Harian**

Jatorriz, nekazaritza **ustiapen** txikietan oinarritutako apustua da. **Berria - Harian**

ustiategi (orobat **usteategi** g.er.) 1 iz zerbait ustiatzen den gunea. ik **ustialeku**.

Lagunak eta biok erabaki genuen **ustiategi** txikiren bat jartzea. **Berria - Euskal Herria**

Ustiategiak ipintzeari dagozkionez, parke naturalean ezin izango da horrelakorik egin. **Berria - Euskal Herria**

Ustiategiak onura ekonomikoak ekarri dituen arren, ingurumenak erarri dituen arren, ingurumen arazoak egin du eta, ondorioz, osasun arazoak egin ditu. **Berria - Gaiak**

400 **ustiategi** daude Nafarroan eta etekin gutxien ematen duten 100 **ustiategiak** uzteko plan bat prestatzen hasi da Nekazaritza Saila. **Berria - Ekonomia**

Dauden 400 **ustiategiak**, guztira, 178 milioi litro esne ekoizten dituzte. **Berria - Ekonomia**

Inguruko lurraldean ugariak dira fabrika metalurgikoak eta platinoa eta urrea garbitzeko **ustiategiak**. **Karlos Zabala**

«Bisoi amerikarrak desagerraraztea eta larrugintzarako **ustiategiak** debekatea» premiazko neurriak dira. **Berria - Gaiak**

Burdin eta kobre meatzeak eta harribitxien **ustiategiak** langile ugari biltzen dute alderdi hartara. **Karlos Zabala**

Esne behien **ustiategiak** itxtearen aurka mintzatu da EHNE. **Berria - Ekonomia**

Gobernuak prestatutako Planak ganaduzaleen **ustiategiak** zein nekazaritza elikagaien industriak lehiakorrek izan behar duela nabarmentzen du. **Berria - Ekonomia**

Nekazari eta abeltzain intentsiboak aise konturatuko dira: beren **ustiategiak** humanizatzeako inbertsioa merkeagoa izango da merkatu intentsiboan segitzeko egin beharko luketen ahalegina baino. **Edorta Agirre**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Besteok, bestelako baserriak baditugu, **ustiategi** txikiak, dibertsifikatuak, salmenta zuzena bultzatzen dutenak. **Berria - Harian**

Kontuan izan behar dugu Europan, emakume baserriarren % 3 besterik ez dela aritzen **ustiategi** handietan. **Berria - Harian**

Errusiako petrolio **ustiategi** garrantzitsuenak 3.400 milioi dolar ordaindu behar ditu, 2000. urtean zergak ez pagatzeagatik. **Berria - Ekonomia**

Eskualdea aberatsa da, eta hiria ere bai, **ustiategi** oparoen erdigunean egonda. **Karlos Zabala**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Amazoniako petrolio **ustiategiak** kaltegarria dela diote adituek. **Berria - Gaiak**

Errentagarriak ez diren behi-**ustiategiak** uzteko plana. **Berria - Ekonomia**

Min handia egin diete [bisoi europarre] larrugintza **ustiategietatik** askatutako edo ihes egindako bisoi amerikarrak. **Berria - Gaiak**

Nork ordaindu behar du ltoitz? ura erabiliko dutenek edo herritar guztiek? nekazal **ustiategi** txikia duenak edo enpresa handiek? **Berria - Harian**

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Orain zortzi urte baino 700 esne behi **ustiategi** gutxiago daude egun Nafarroan. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

behi **ustiategi** gutxiago (3); esne behi **ustiategi** (4)

behi **ustiategiak** (3); **ustiategiak** uzteko (3)

ustiatu

ustia, ustiatzen (*orobat uxiatu g.er. eta hustiatu g.er.*) **1** du *ad* zerbaitetik, hura landuz, onura edo mozkina atera; eskuarki, naturako baliabideak landu lehen gaiak lortzeko.

Marmol harrobiak, gatzagak, platino eta urre eraztutokiak, ikatz meatzeak **ustiatzen** dira bertan handizka. **Karlos Zabala**

Txintxurreneko harrobia legearen kontra **ustiatzeagatik**. **Edurne Elizondo**

Ustiatu gabeko zainei mea guztia agor-agorrik uzteraino eraztutari lotu nintzaion. **Aingeru Epaltza**

Larreak garbiki atxikitzeke, zuhaitzak landatzeko, oihanak hobeki baliatzeko edo **ustiatzeko**. **Herria**

Petrolio gehiena multinazionalak **ustiatzen** dute, eta, herrialdeak findegitik ez duenez, erregaia inportatzera behartuta dago. **Berria - Ekonomia**

Siberiako gasa **ustiatzeko** hitzarmena prest. **Berria - Mundua**

Kaspio Itsasoko kabiarrak **ustiatzen** duten estatuei kuotak ezarri dizkiete. **Berria - Gaiak**

Beste lekuetan aurkitzen ez diren lehengaiak **ustiatzeko** ez bada, nazioarteko inbertsioak ez du periferiako lurraldeetara jotzen. **Koro Navarro**

Nekazariak lurra modu independentean **ustiatu** ahal izango zutela adierazi zuen Wen Jiabaok. **Berria - Mundua**

Horregatik, natur baliabide askok doaneko baliabidetza hartzen dira, muga orotatik kanpo **ustiatzeko** modukotzat. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Ordu arte **ustiatu** gabeko baliabide alternatiboak aprobetxatuz. **Iñaki Mendiguren**

Amerika ez bezala, Errusia ia hasi gabe zegoen bere ahalbideak **ustiatzen**, eta, giza ahalegin eta sufrimenduari dagokionez kostu izugarriekin. **Iñaki Mendiguren**

Ekialde Hurbilean, azkenik, balizko petrolio-baliabide **ustiatu** gabeek europarren gutzia eragin zuten, eta baita amerikarrena ere. **Koro Navarro**

Nazioarteko zuzeneko inbertsioen lehen belaunaldiaren helburua [...] inperio kolonialetako eta mundu-ekonomia kapitalistako semiperiferietako nekazaritza edo meatzaritza baliabideak **ustiatzea** zen batez ere. **Koro Navarro**

Trena eraiki, zaindu eta **ustiatu** zuten AEBetako eta Europako enpresen buruak ziren aulkian. **Berria - Mundua**

Autobidea **ustiatzen** duen elkartearen erdia enpresa pribatu bati bati saldu zion Espainiako Gobernuak. **Berria - Euskal Herria**

Bihar 34 urte beteko dira Garoñako zentral nuklearra **ustiatzeko** lehendabiziko baimena eman zenetik. **Berria - Mundua**

2 irud/hed

Hortik dator truke librearen eta nazioarteko espezializazioaren garrantzia, horiei esker nazio bakoitzak hobeto **ustiatu** ahal izango baitu bere ekoizpen-ahalmena. **Koro Navarro**

Diskurtso light bat badago, jeneralean abertzaleen aurka **ustiatzen** dena, Estatua pasea dagoela, iraganekoa dela. **Joxe Azurmendi**

Bat-batean bere indarrak sektore txiki batean kontzentratzeko, hesia hautsi arte; arrakasta **ustiatzeko**. **Juan Garzia**

Orobat ulertzen da bere barne merkatu txikiagatik, behartuta baitzegoen lanaren nazioarteko banaketak eskaintako aukerak ahalik eta ondoena **ustiatzera**. **Koro Navarro**

Hogeigarren mendearen erdialdeko asiarrak gobernuek noraino jarrai zezaketen mendekoengan sakon sustraituriko otzantazuna **ustiatzen** xede militarretarako? **Iñaki Mendiguren**

Ekialdeko kristau ortodoxoen ikuspegitik frankoak *parvenus* ziren, zoriaren kapritxo batek emandako indar zakarra zinikoki **ustiatzen** ari zirenak. **Iñaki Mendiguren**

Izugarri alai eta atsegina zen beti, eta gutxi bezalako umorea eta asmamena zeuzkan, gaur egun Madrilo irati-kate batean **ustiatzen** dituenak. **Xabier Mendiguren**

Elizegi

Goazen anartean, eki haizeak zazpi mila kilometro orenean buhatzen duela, jendearen bakardade sentimenduaren **ustiatzera** gauzez, gauzez, gauzez. **Itxaro Borda**

3 pertsoez mintzatuz, esplotatu.

Horrek paradoxa ekarri dio sukaldariari: arrantzalearen eta laborariaren adiskide dela adierazi bai, baina langile horiek **ustiatzen** dituen enpresari handiarekin ibiliko da eskutik. **Edorta Agirre**

Munduan 150 milioi haur kalean bizi dira eta ia denak nola edo hala, **ustiatuak** daude, Torturaren Aurkako Mundu Elkarteak dioenez. **Gotzon Garate**

Zure baitan aitamak desohoratzen dituzte, etorkina gogor hartu eta umezurtza eta alarguna **ustiatzen**. **Elizen arteko biblia**

Ez diot inori bidegabekeri, ez kalterik egin, ez dut inor **ustiatu**. **Elizen arteko biblia**

Merkatu sistemarekin batera sortu edota indartu dira "lagun hurkoa **ustiatzeko** askatasuna, gizarteari trukean pareko zerbitzurik eskaini gabe neurritz gainera irabaziak lortzeko askatasuna, asmakuntza teknologikoak jendearen alde ez erabiltzeko askatasuna [...]". **Iñaki Heras**

Merkatu-ekonomian, gizakia ez du soilik lanak **ustiatzen** eta alienatzen, produktoreen eta saltzaileen aldetik ere, nolabaiteko merkataritza-ustiaketa jasotzen baitu, eta ondorioz, alienazioa. **Iñaki Heras**

Legediaren arabera 84 orduko lan-asteak ere izan daitezkeela [Thailandian], bai transnazionalak **ustiatzen** dituzten langileen kasuan, eta bai bertako enpresek **ustiatzen** dituztenen kasuan. **Iñaki Heras**

Enpresaburuei egotzi zien «irabazia» soilik bilatzea, «miseriazko soldaten kontura, emakume, gazte eta etorkinak **ustiatzearen** kontura». **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ustiatu gabeko (3)

baliabideak ustiatzeko (4); gehiago ustiatzeko (4); harrobia ustiatzeko baimena (3); ustiatzeko baimena (6); ustiatzeko eskubidea (3)

gehiago ustiatzen (4); petrolio ustiatzen (3); ustiatzen hasi (3); ustiatzen jarraitzeko (3); zentrala ustiatzen (3); zura ustiatzen duten (5)

ustiatzaile 1 *izond* ustiatzen duena.

Halaz ere, inperialismo **ustiatzailearen** ikuspegia, sinpleki eta inongo ñabardura eta zalantzarik gabe azalduakoa, arras zabalduakoa ikuspegia da. **Iñaki Heras**

Brasilpeko lurraldean multinazional **ustiatzaileen** batek [...] mehatxaturik dauzkan lurretan jaioa den emakume "indigena kaingang" bati honela bota zion dotrina ofiziala ongi ikasitako Erresuma Batuko diplomatiko batek:[...]. **Iñaki Seguro**

Baserritarren arteko gatazka arrunt bat dirudien horretaz iritsi zaigun ahotsa ekoizpen-bideen jabearena da, klase **ustiatzaileko** batena, Batista Bazterretxeren alienazioaren eragile nagusiarena. **Anjel Lertxundi**

2 (izen gisa)

Energia berriztagarrien **ustiatzaile** ez ezik, kontsumitzaile ere baitira. **Berria - Euskal Herria**

Frantziako zinema aretoetako, antzokietako eta kontzertu guneetako **ustiatzaileek** sakelako telefonoak blokea ditzakete hemendik aurrera. **Berria - Kultura**

Frantzia AHTZ baliatu da errentagarriak ez diren trenak ezabatzeko eta errentagariak **ustiatzaile** pribatuak esku uzteko. **Berria - Euskal Herria**

Sarriegitan imitatzeko aukeraturiko aitzindariak ez dira buruzagi sortzaileak, **ustiatzaile** komertzialak edo demagogo politikoak baizik. **Iñaki Mendiguren**

3 (hitz elkartuetan)

Luigi semea, ordea, literatura zaleago zen, sufre **ustiatzaile** eta saltzaile baino. **Josu Zabaleta**

Urre **ustiatzaileek** uste dute, gutxienez, beste hamar urtez eman dezakeela urrea Yanacochak. **Berria - Gaiak**

Ihesean hil dira asko, eta zur **ustiatzaileek** ekarritako gaitzek jota beste asko. **Berria - Gaiak**

Era berean, Baso **Ustiatzaileen** Elkarteari laguntza eskainiko dio zenbait programa aurrera eramateko. **Berria - Euskal Herria**

ustiatze 1 *iz* zerbaitetik, hura landuz, onura edo mozkina ateratzea; eskuarki, naturako baliabideak landu lehen gaiak lortzea.

Energien konbertsioa, espazioaren konkista, ozeanoen **ustiatzea**. **Juan Garzia**

Garaien espiritual hori are ohargarriagoa izan zen, kontuan hartuta helburu politikoetarako **ustiatze** hori erabat suntsigarria izan zela beste erlijio nagusi batzuentzat. **Iñaki Mendiguren**

Baliabide naturalak era jasangarrian **ustiatzearen** aldekoa da Europako Batasuna. **Berria - Gaiak**

Gehiegizko **ustiatzeen** eta agrotokioak erabiltzearen ondorioz, pozoitzen ari dira beren urak. **Berria - Mundua**

Alemania, Austria eta Herbehereetan, mailegua idazleari dagokion **ustiatze** eskubidea da. **Berria - Kultura**

2 pertonez mintzatuz, esplotazioa.

Hitz horietan oportunitate merkea, liberalismo basatia, esku ikusezina eta langileen **ustiatzea** baita gibelean. **Iñaki Heras**

Mazedoniar eta erromatar erasotzaile militarren lehen helburua biktimen **ustiatze** ekonomikoa zen. **Iñaki Mendiguren**

USU (*orobat uxu g.er.*) 1 *adlag* maiz, sarri.

Usu gertatzen zaizu bidea huts egitea. **Piarres Aintziart**

Usu ez da erraz asmatzen pertsona batek zergatik hil duen norbait. **Gotzon Garate**

Etorkizunerako uzten dugu **usu** zoriona esne-saltzaile ameslariaren ilusio xaloaz horditurik. **Berria - Kultura**

Usu sosik gabe omen nabielako ere ba omen du berorrek niri zertan liskar eginik. **Jon Muñoz**

Oilagorrek **usu** alde egiten die eta ehizatari. **Pako Aristi**

Kalean **usu** emaztea gizonaren atzetik doa, bizpahiru metrora, senarrari ohore ekarriz. **Gotzon Garate**

Pertola da sare mota bat lehengo denboretan arras **usu** baliatzen zena. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Halakoetan **usu** gertatzen den bezala, aitzakiak ene borondate flakoaren lehen asmoa jan zuen. **Joan Mari Irigoien**

Loradendako kaxa eta larruzko diru-zorro handi eta **usu** erabilitako bat. **Mirentxu Larrañaga**

Uste dut aski **usu** aipatu dugula jadanik Hannah Arendt-en izena. **Piarres Xarriton**

Arraza **usu** aipatze hutsak ez duela inor arrazista bihurtzen. **Joxe Azurmendi**

Han daude, kale erdi-erdian, **usu** etzanda, trafikoa galarazten. **Gotzon Garate**

Zehatz aipatu gabe banan-banan ezin izendatuzkoak, baina garrantzitsuak direnez **usu** baliatu beharrekoak. **Jon Muñoz**

Hertsikeria sexualak sortzen baititu, **usu**, nabarmenkeria sexualik zabarrenak. **Patziku Perurena**

Hezkuntza kontua ez baita **usu** hizkuntza kontua. **Pello Salaburu**

Ahoz aho dabilzaten leloak faltsuak gertatzen dira **usu**. **Berria - Euskal Herria**

Britaniako gabon-kanta Erdi Arokoetan, gorostiaren eta huntzaren arteko norgehiagoka bat aipatzen da **usu**. **Pello Zabala**

Berek hain **usu** eta alferretan eskatzen duten urte aniztetako inbertzimentu plana igorria izan zaien Bordeleko kontu julei. **Herria**

Uda huntan guzian beraz, frango **usu** izanen dira hor kantuak eta dantzak. **Herria**

Sobera **usu** gaizki ikusiak direla, zernahi berexkuntza behar dutela jasan, eta hola ez dela manera! **Herria**

Aitortzen dut neuk ere entzuten ditudala tarteka nere arbasoaren hotsak eta ahotsak, nere *ancestral voiceak*, baina oso tarteka eta ez nahi bezain **usu**. **Iñaki Seguro**

Bonbardatzeko airekoak gero eta **usuago** pasatzen ziren, eta gero ta gehiago. **Marzel Etxehandi**

Hola naiz iheska ibili, gero eta **usuago**, gero eta urrunago. **Piarres Aintziart**

Jendearen begi irribarretsuak zeure begitartean landatuak ikusiko dituzu Europako nazio askotan baino **usuago**. **Gotzon Garate**

Iduriz zibilizazioak eskatzen dituen berrikuntza **usu** zail eta beldurgarriak. **Pello Salaburu**

Haur bat ezpai batekin hurbiltzen bazaizu eta sinatzen badiozu, han dira **usu** demonio beste asko. **Berria - Kirola**

2 (izenondo gisa)

Trafiko **usua** igarotzen da ondotik. **Gotzon Garate**

Tarrapatata jaten nuen, hurrupa **usuek** hitza gutitzen zidatela. **Piarres Aintziart**

Iraulketa **usu** horien erdian, neure omena haatik garbi gorde badut [...]. **Jon Muñoz**

Udaberria bere azkenak ematen egoteko jangelan egiten zuen hotz ez **usuz** mintzatu ziren senar-emazteak. **Anjel Lertxundi**

Mathildek inoiz kartetan egiten bazuen ere, pianoa jotzea zuen ekimenik **usuena**. **Anjel Lertxundi**

Erdi Aroan, barazkirik **usuena** eta ezagunena aza baitzen, baba eta tipulekin batera. **Patziku Perurena**

Nork ez daki munduko gauzarik **usuena** dela hori, zuen guztien ohitura, gaizkiletik gizon arrunteneraino? **Jon Muñoz**

-Ez da batere **usua** zure sasoko gizon bat pianoa ikasten hastea. **Anjel Lertxundi**

Eztei hobarizko deitu horiek [...] ez ote dira egunetik egunera **usuagoak** bilakatzen ari zaizkigun eskandalu horien sorbururik emankorrenak? **Jon Muñoz**

Nire gutunak, diozunez, **usuegiak** omen dira! **Jon Muñoz**

3 (izenondo gisa, ileari buruz) ik **sarri** 9.

Ile-adats **usu** eta beltza zuen. **Xabier Olarra**

Adats urdin **usua** motots borobil batean bildurik zeraman. **Alberto Ladron Arana**

-Eki-librista naiz -esan zuen bere kalpar **usua** orraztu bitartean burua atzeraka eramanez-. **Fernando Rey**

4 **usuzko izond** usua.

Ondoren, gauzarik **usuzkoenak** adieraziz-eta, ohitureekin, hitz egitera iritsi ziren kasualitatez eta, hala, hizketaldiak egiten hasi ziren elkarren artean. **Santiago Iruretagoiena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahal bezain usu (3); **aski usu** (6); **bezain usu** (8); **ez baita usu** (8); **ez da usu** (8); **ez zen usu** (3); **frango usu** (14); **hain usu** (15); **hain usu gertatzen** (4); **hoin usu** (6); **sobera usu** (7); **telebixtan usu** (3)

usu aditzen (8); **usu ageri da** (3); **usu agertzen** (9); **usu agertzen diren** (3); **usu agertzen ziren** (3); **usu aipatzen** (4); **usu baino usuago** (3); **usu egiten** (5); **usu elgarrekin** (3); **usu entzun** (3); **usu entzuten** (5); **usu gertatu** (3); **usu gertatzen** (27); **usu gertatzen dena** (5); **usu heldu** (4); **usu ikusten** (17); **usu ikusten den** (3)

baino usuago (12); **gero eta usuago** (25); **usu baino usuago** (3); **usuago gertatzen** (3)

usual¹ *izond* ohikoa.

Homosexualitatea: Neskek argi utzi zuten bai txirringularen artean bai futbolarien artean **usualak** direla harremanok. **Berria - Euskal Herria**

usual² ik **uxual**.

usualki *adlag* jeneralean, eskuarki.

[Magrebtarrak] ez direlako **usualki** osasun eta gizarte zerbitzuetara hurbildu ere egiten. **Berria - Euskal Herria**

Tsarraren semea, Alexis tsarevitxa, hemofilioa zen, hau da, emakumeek transmititu eta gizonezkoek -erregeen edo endogamia handiko beste zenbait familatan **usualki** -pairatzen duten gaixotasuna zuen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

usufuktu *iz* ondsasunez eta kidekoez mintzatuz, gozamina.

Ez dut esaten jabetza bat **usufuktu** bat baino nahiago zutenik. **Iñaki Iñurrieta**

Nahiz eta gizon libreak feudoak edukitzen saiatu, halako ondasunak gaur egun **usufuktuak** administratu ohi diren bezala tratatzen zituzten. **Iñaki Iñurrieta**

Uharte horretako tributuak Atenastarrei eman baitzitzaizkien **usufuktuan**. **Santiago Iruretagoiena**

Jakin ezazu ordea, beti bezelatsu ariko naizela ni hemen, Xanti Begiristainek **usufuktuan** utzi didan bazka gozo urriko euskararen larre otazu honetan. **Patziku Perurena**

usufruktudun *iz* usufruktua duen pertsona.

Feudoak bizi artekoak zirenean, ez zegoen feudoaren zati bat ematerik, azpifeudo gisa betiko edukitzeko; zentzugabea zatekeen **usufruktudun** huts batek gauzaren jabetza izatea. **Iñaki Iñurrieta**

usuki *adlag* usu.

"Bat bitan banatzen da", erabili izan zen **usuki** gurean AEKri HABE atera zitzaionean. **Iñigo Aranbarri**

Menta handiko hitza dugu garaiotan, **usuki** ahotua. **Iñigo Aranbarri**

Polizia eta gazteen arteko borrokak, berriz, "des incidents qui éclatent" dira **usuki**. **Iñigo Aranbarri**

usura *iz* lukurreria.

Nafarroan hartaraino estutu zen kontua, non Alejandro IV. aita santuak eman zion agindua Teobaldo II. erregeri 1256an juduek **usura** bidez berenganatutako ondasun guziez jabetzeko. **Patziku Perurena**

usurazale *izond/iz* lukurreriaren zalea dena.

Alegia, **usurazalea** pozik zebilela, geroko ametsetan. **Pello Zabala**

usurbildar *izlag/iz* Usurbilgoa, Usurbili dagokiona; Usurbilgo biztanlea.

Beheko mailetan gol asko sartutakoa da **usurbildar** gaztea. **Berria - Kirola**

Igandean nahi lukete bereziki Jose Luis Zumeta **usurbildar** artista ohoratu. **Herria**

Jesus Artze **usurbildar** musikaria zendu zen duela urtea. **Herria**

Josanton Artze olerkari **usurbildarrak** idekiko du festibala, ostegun aratsaldeko 5etan Elizaldian eskainiko duen hitzaldiarekin, txalapartaren doinuan. **Herria**

Jabier Pikabea Aizpurua **usurbildar** poeta eta ikertzaileak. **Berria - Kultura**

Bikote **usurbildarrak** azaldu zuenez, horren gainean dakiena herrian egiten diren asanbladetan entzun du. **Berria - Euskal Herria**

Beste partidari, Arruti **usurbildarra** 9 tantotan geratu zen. **Berria - Kirola**

66. postuan da Euskaltel-Euskadiko **usurbildarra**, Landisengandik ordu erdira. **Berria - Kirola**

Usurbildarra ez zen batere fin ibili atzokoan, erlojupeko guztian ez zuen eman batere itxura onik. **Berria - Kirola**

Usurbildarraren bertsogintza aztertzeke, metodorik egokiena iruditu zaigu esaldiak aztertzea, erretorikak eskaintzen dizkigun baliabideak aplikatuz, ikuskatuz. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

usurpadore *izond* usurpatzailea.

Usurpadorea hiriburutik hirurogei orduko ibilaldira dagoen punduraino hurbiltzen ausartu da.

Iñigo Aranbarri

usurpatu, usurpa, usurpatzen 1 du *ad* indarrez kendu.

Printze franko bat ari zen erromatar enperadorearen lekua eta izena **usurpatzen** Konstantinoplan. **Iñaki Mendiguren**

Amorragarria egingo zitzaion Triesteko erbestealdia, Espainiatik horren urruti, ikusirik ezin zuela ezer egin iloba Isabelek **usurpatutako** koroa eskuratzeko. **Anjel Lertxundi**

Legezkoa den jabetza pribatua ezin izango da **usurpatu**. **Berria - Mundua**

Germaniatik datozen herriek bakarrik **usurpatu** dituzte printzeen eskubideak? **Iñaki Iñurrieta**

Oposizioak ere bozak iruzurra izan zirela salatu zuen eta boterea **usurpatu** izana leporatu zion Lukashenkori. **Berria - Mundua**

Generalitatearen eskumenetan «sartzeko, **usurpatzeko** eta okupatzeko» erabiltzen zuten bideetako bat itxi zuten. **Berria - Mundua**

Beste batzuek bide laburragoa hartu zuten, esanez jaunek justiziak **usurpatu** zituztela, horrekin dena esanda balego bezala. **Iñaki Iñurrieta**

2 (era burutua izenondo gisa)

Hala ere, adigai **usurpatuak** ere badaude, zoria, patua eta antzekoak, ia tolerantzia orokorrari esker aske dabilzanak. **Ibon Uribarri**

usurpatzaile 1 *izond/iz* usurpatzen duena.

Errege **usurpatzailearena** kendu ahal izateko. **Jon Alonso**

Tirano **usurpatzaile** batek, adibidez, hiritar interesatu batengandik hartzen badu dirua [...]. **Imanol Unzurrunzaga**

Arrotz sentitzen nintzen, eta **usurpatzailea**. **Anjel Lertxundi**

«Benettonek ezin gaitu **usurpatzailetzat** jo; bera da **usurpatzailea**», adierazi zuten Atiliok eta Rosak, hauek sostengatzera agertutako 200 pertsonen aurrean, maputxe eta maputxe ez zirenen aurrean. **Berria - Mundua**

Usurpatzaileak gaztetxea indarrez itxi zutenak dira. **Berria - Euskal Herria**

Germaniar herriek ere, beren arazo partikularretan, Probidentziaren dekretu gisa hartzen zuten borroka, hura delitugilea edo **usurpatzailea** zigortzeko beti erne zegoelakoan. **Iñaki Iñurrieta**

Ezinbestekotzat agindu zuten euren buruak oinordekoak izendatzea zati batean, oinordetzaren beste zatiaren **usurpatzaileak** ez izatekotan. **Andres Urrutia**

2 (hitz elkartuetan)

Haserre, **usurpatzaile** delitua egotzi dietelako eta, batez ere, fiskaltzak zortzi urte eta erdiko kartzela eskatzen duelako euretariko laurentzat. **Berria - Euskal Herria**

usurpatze *iz* indarrez kentzea.

Usurpatzea eta ondare historikoari kalte egin izana leporatu zioten. **Berria - Euskal Herria**

Usurpatzea ez digute inori egotzi. **Berria - Euskal Herria**

Epaiketa duela bi urte hasi zen, Rosa Nahuelquir eta Atilio Curiñanco senar-emazteek beren jatorrizko eskualdean 300 hektareako lur sail abandonatu batean kokatu eta gutxira, Italiako Benetton oihal enpresak jarritako **usurpatze** salaketagatik. **Berria - Mundua**

usurpazio (*orobat usurpazione g.er.*) 1 *iz* usurpatzea.

Agintearen kontrako atentatua, desobedientzia, erresistentzia eta **usurpazioa** leporatu dizkiete bostei. **Berria - Euskal Herria**

Baina justiziek ez diete zor beren sorrera **usurpazioei**; lehen ezarpenean dute jatorria, ez haren usteltzean. **Iñaki Iñurrieta**

2002ko uztailean bederatzita urteko kartzela zigorra ezarri zioten bere funtzioen **usurpazioa** egiteagatik. **Berria - Mundua**

Zin egiten zuten ez zirela bere anaiak, baizik sasikoak, eta **usurpazioa** erabiliz ez zegokienaz jabetu zirela. **Pello Lizarralde**

K.o. 1589an, hain zuzen ere errusiar eremua, Mendebaldearen Erdi Aroko **usurpazioengatik** jada oso murriztua, Mendebaldeko teknologia modernoaren lehenengo garaipenak mehatxatua sentiarazten zuten une berean. **Iñaki Mendiguren**

Argentinako lurjaberik handienak **usurpazioaz** akusatu gaitu. **Berria - Mundua**

Araudi modernoetatik koroaren jabetza erabat besterenezina zela ikusi dutenez, esan dute eskubide horiek, erromatarren zentsua ordezkatzeko zutenak, eta jabetza horren parte ez zirenak, **usurpazio** hutsa zirela. **Iñaki Iñurrieta**

Gogoan dut "laurak bat" armariarekin gertatu zena ere, nola Jaurilaritzak bere ikur egin zuen, nola gero Nafar gobernua kateak handik kentzeko esijitu zuen, hura **usurpazio** bidegabea zelakoan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (hitz elkartuetan)

Ez da sinetsi behar jaunek behinola zituzten eskubideak -eta egun ez dituztenak- **usurpazio** bidetik kendu izan zaizkienik. **Iñaki Iñurrieta**

usurpazione ik usurpazio.

usutu, usu(tu), usutzen 1 da/du *ad* sarriagotu.

Orotariko harremanak **usutzeko** gai izanzen ote gara, haurrideak cicerone ditugularik? **Berria - Kultura**

2 (ileari buruz) ik sarri 9.

Bizkai aldean eta Baxenabarren ere, ilzaharrean moztu behar dela ulea edo biloa diotsate, azkartu ta **usutzen** zaiolako, eta urdindu ez daiten. **Pello Zabala**

USUZKO ik usu 4.

ut *interj* utikan!

-Utikan, Andreas, **ut!** **Anjel Lertxundi**

Ut, ut, lana deitzen diok bi lerro zirtziltzeari? **Anjel Lertxundi**

Ut, ut, Fortuna lotsagaldu hori! **Juan Garzia**

Ut, ut, zeuek izango zineten lehendabizikoak ni gelatik ostikoka botatzen haren izena aipatze hutsagatik. **Anjel Lertxundi**

-**Ut-ut-ut!** batzuetan atsegin izaten baitut nola ateratzen zaizkizun begiak lekutik, kristalen aurretik jartzearaino. **Joan Mari Irigoien**

Ut , ut , ut ! Anjel Lertxundi
- **Ut-ut-ut ...!** Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ut ut (8); **ut ut ut** (4)

utero (*47 agerraldi, 4 liburu eta 8 artikulutan*) **1** iz ugartzun emeen sabelaldeko barrunbea, umekia, jaio arte, edukitzen duena. ik **umetoki**.

Oinarria emetasuna da, bagina, eta gero dator **uteroa**. Ana Urkiza

Ugartzun emeek duela milioika urte ugaltzeko estrategia berri bat garatu zuten, arrautza enbroia-fetua **uteroaren** barruan gara zedin, eta ez arrautza baten barruan. Luis Elberdin

Amaren umetokian, fetuaren bagina osatuz doazen ehunak ez doaz alutik **uterora**, alderantziz baizik. Luis Elberdin

Tronpek bilo txiki batzuk dituzte, eta horiek bultzatzen dute obulu edo arrautza emaldua **uterorantz**. Luis Elberdin

Emakumearen **uteroan** txertatu aurretik, diagnostiko genetikoa egingo zaie enbrioiei. Berria - Gaiak

Izan dira, adibidez, enbroioa sabelean hazi ezin, eta enbrio hori beste emakume baten **uteroan** ezartzea erabaki duten emakumeak. Berria - Gaiak

Gizonak, orgasmoa duenean, espermatozoideak kanporatzen ditu eta baginaren hondoan, **uteroko** lepoan geratzen dira. Luis Elberdin

Uteroaren lepoa bilatzen nuen haztamuka eta mina ematen zidanean gelditu egiten nintzen. Joseba Urteaga

Uteroko minbiziazen kontra 4,5 urtez babesten duen txertoa sortu dute. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan)

Utero -lepoan zunda bat sartzen zizun zabalgailu baten laguntzaz. Joseba Urteaga

Hamar emakumetik batek du **utero** -lepoko minbizia, adituen esanetan. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

utero inguruko (5); **utero inguruko orgasmoa** (3)

uteroan txertatu (3)

utik *interj* utikan!

Salataria, purtzila, saldua, zikina, **utik**! Matías Múgica

Utik at! -dio atso idor hark, lotsa gabe, harro, atso lirainari- eta kito! Iñaki Arranz

utikan *interj* norbait edo zerbait arbuizatzen dela edo norbaitek alde egin dezala adierazteko hitza. ik **ikut**.

Herriak ez zion kasurik egin nahi izan Samueli, eta honela ihardetsi zion: "**Utikan**! Erregea behar dugu. Elizen arteko biblia

- **Utikan** deabruaren izenik gurean! -oihu egin zuen ostatuko etxeoandreak euskaraz. Anjel Lertxundi

Utikan negargarrizko imintziook, eta ekin. Juan Garzia

Utikan zakurrak, aztiak, lizunak, hiltzaileak, sasijainkozaleak eta gezurra maite eta gezurretan dabilztan guztiak! Elizen arteko biblia

Utikan penak, **utikan** minak!, esaten zuen behin eta berriro deiadarka. Anjel Lertxundi

- **Utikan** ondoeza! -esan zuen Kennedyk-. Berria - Harian

Baina, **utikan**... berdin dio. Mirentxu Larrañaga

Utikan, ez duk agertuko. Juan Garzia

Trapu zikinak bezala botako dituzue kanpora, esanez: "**Utikan** hemendik!". Elizen arteko biblia

Anaia maite-maitea, **utikan** gugandik Erregelaren kontra jokatzea, gizakiren bati mesede egiteagatik. Askoren artean

- **Utikan**, Andreas, ut! Anjel Lertxundi

Alderdi, sindikatu, elkarte, birla-talde, lagunarte; **utikan** denei! Jon Muñoz

-Tira, **utikan**! -esan zuen Matson andreak-. Mirentxu Larrañaga

- **Utikan**! -esan zuen gizonak-. Mirentxu Larrañaga

Utikan, fut! Anjel Lertxundi

Utikan! Antton Olano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

utikan hemendik (3)

utilitario **1** *izond* utilitateari zuzendua; erabilgarria.

Funtsean horixe besterik ez badago ere -interes **utilitario** bat-, nor jartzen du zalantzan justiziaren eta zuzentasunaren ideia gure baitan dugun joera bat dela? Josu Zabaleta

Arteak ez du (eta ez du izan behar) helburu **utilitariorik**, helburu material "arruntik". Josu Zabaleta

Edozein teknika **utilitarioen** gaineko jakitea teorikoa da. Askoren artean

Ikuspegi **utilitarioaren** eta kulturalaren artean. Santiago Iruretagoiena

Hau da, argumentu unibertsalistetan, liberaletan eta **utilitarioetan** oinarritutako independentzia, ez argumentu identitarioetan. Joseba Zulaika

2 autoez mintzatuz, txikia eta merkea.

Dena den, autoa txikia zen, **utilitario** bat, eta gorputza aurrerantz makurtuta gidatzen zuen, bolantea sudurraz ukitzeraino ia. Ramon Saizarbitoria

utilitarismo **1** *iz* gauzeetan haien utilitatea lehenesteko joera.

Kontsumismoaren, **utilitarismoaren**, gehiegizko antolaketaen eta indibidualismoaren ondorioz, negozioaren munduak astialdia merkatu helburu bihurtzea eragin du. Berria - Gaiak

Egunargiko ilargiarenak, berriz, begiradaren erabateko **utilitarismoa** adierazten du, gauzetan baliagarritasun materiala beste baliorik onartzen ez duenaren pragmatismoa. Joxerra Garzia

Kontua da baliotasunaren logikak - **utilitarismoarenak** - oso gizarte materialista batera eraman gaituela. Anjel Lertxundi

Baldekada ur hotz-hotza jaurti dioten kateme batek bezala erreakzionatu nuen: zer zen hobeto gelditzea, nik; zer motibo zuen hain modu kategorikoan eta halako

Frantzisko utziezineko **utopia** bezala ageri zaigu, betiko Ebanjelioaren **utopia**. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan)

Uste honek **utopia** itxura badu ere, nire terminologiaz Euskal Unibertsitatea euskal kultura eta hizkuntzaren alma mater izan beharko litzatekeen euskarazko unibertsitatea da. **Berria - Euskal Herria**

Ni amets bat izan nintzen zuretzat, nolabait, ez dakit gaztaro galdua berreskuratzeko sinboloa ala plazer haragikoen promesa lausoa, baina **utopia** moduko bat azken batean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

utopia bat da (4); **utopia berri** (3); **utopia hutsa** (6)

utopiaren alde (3)

utopiazale *izond* utopiaren zalea dena.

Sans-culottes sutsu eta **utopiazalea**, Jakobino erradikalenen tesia gehiegizkoen dizipulu aurreratua bilakatua zen. **Elena Touyarou**

utopika *izond* emakumeez mintzatuz, utopikoa.

Emaztea, Elizan eta Erromako dotrinan, Eliza ofizialean, Eliza instituzionalean, emaztea zer den erranen dizut formula batetan: emaztea da -erranen dut pertsona bat, ez gauza bat- atopika, atipika, eta **utopika**. **Menane Oxandabaratz**

Utopika, beraz, ilusione bat bezala. **Menane Oxandabaratz**

utopiko *izond* utopiarena, utopiar dagokiona.

Sozialismo **utopikoarekin** lotutako ideiak zituen Endek. **Bernardo Atxaga**

Kooperatibismoaren erroak oso antzina aurki daitezkeen arren [...] kontzeptu honen garapen modernoa sozialista **utopiko** edo humanisten lanekin batera hasi zen garatzen. **Iñaki Heras**

Gaztetan Irakurrirako hainbat liburu eta eskola sozialetan eztabaidaturiko hainbat asmo **utopiko** ekarri dizkit gogora. **Joseba Sarrionandia**

Oso jarrera **utopikoa** du. **Iñaki Heras**

Planteamendu esentzialista ez da demokratikoa, Atxagak dioenez, «mundu honetan ez dagoen leku **utopiko** batean» kokatzen duelako bere zilegitasuna. **Berria - Harian**

Hiri **utopikoa** dakar gogora Metapolis Proyect 927 dantza lanak. **Berria - Kultura**

Errepublikak historikoak errepublika **utopikoa** du ispilu. **Anjel Lertxundi**

Luze gabe, "Euzkadi" izeneko leku **utopikoa** "Euskadi" bihurtuko zen. **Bernardo Atxaga**

Zenbaitek **utopikotzat** dituzte ekologistak. **Berria - Gaiak**

Proiektu hori ez al da **utopikoa**? **Berria - Euskal Herria**

utrakontserbadore ik ultrakontserbadore.

utrikulu *iz* belarriko labirinto barrunbea, orekaren erantzule diren hiru hodiak batzen direna.

Zirkuluerdi formako kanalez gainera, beste bi hodi txiki ere baditu oreka-sistemak: sakulua eta **utrikulua**. **Irene Aldasoro**

Utrikuluan eta sakuluan, gelatina gogor batean sarturik daude ile-zelulak. **Irene Aldasoro**

utzarazi, utzaraz, utzarazten (*orobat utziarazi g.er. eta uztarazi g.er.*) du *ad* uztera behartu.

Jokamolde izugarri haren berri zabaldu zen ordea, eta lanpostua **utzarazi** zioten. **Oskar Arana**

-Horregatik lana **utzarazi**? **Patxi Zubizarreta**

Tiranako gobernuak kargua **utzarazi** eta Kongora enbaxadore bidali zuen Zulo. **Pablo Sastre**

Beste deusek ez zion **utzaraziko** Istanbul. **Fernando Rey**

Belauneko lesio larriak **utzarazi** zion errugbia. **Berria - Kirola**

Bera ez **utzarazteko** etxekoan eta arrotzen burla eta iseken mende. **Fernando Rey**

Jainkoaren maitasunagatik eta bere erakutsiez mundua **utzarazi** zidan San Frantzisko haren morroiaren maitasunagatik. **Askoren artean**

Apezpikuak *Entredicho* izeneko zigorra ezarri zion auzoari, eliza prezintatuz, apezari ez auzoan ez beste inon meza eta elizakoak ematea debekatuz [...] eta parrokiari lotuak zeuden jarduera guztiak bertan behera **utzaraziz**. **Koldo Izagirre**

-Eginbeharra, hori dun, premia larriko eginbeharra, beste guztia bazterrera **utzarazten** duena, gainerako denari uko egitera behartzen duena. **Karlos Zabala**

Landaratu zen bezain laster, burutapen larri bat barne-jabetu zitzaion, eta ia-ia eginkizun hasiberria **utzarazi** ere. **Patxi Ezkiaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lana utzarazi (5)

(utzi), utz, uzten (*orobat itxi g.er. eta itzi g.er.*) du *ad*

1 (-tzen atzikiarekin)

"Ongi" esan zuen atean, pare bat aldiz, eta begietan ea sartzen **utzi**ko al zidan galdetzeko eskaera irakurtzen niola iruditu zitzaidan. **Ramon Saizarbitoria**

Norberaren taldeak, komunitateak, ito egiten du, ez dio banakoari nahi (eta behar) duena bezalako izaten **uzten**. **Koro Navarro**

Lagin bat hartu zuen galdaratik, hozten **utzi**, eta erreaktiboarekin tratatu zuen. **Juan Garzia**

Menelaok irribarre eta laztan egin zion; opari eder bat eman, eta joaten **utzi** zion. **Juan Kruz Igerabide**

Gaixo zegoen orduan bere ostatuan, eta ez zioten irteten **uzten**. **Irene Aldasoro**

-Zer uste zuen, printzesa ikusten **utzi**ko geniola! **Felipe Juaristi**

Jai duk uste baldin baduk ene kafetegian jotzen **utzi**ko diadala. **Patxi Zubizarreta**

Nahiago nuke zutaz kupitzen **utzi**ko bazenit. **Oskar Arana**

Ondoren, burua burko gainera erortzen **utzi** zuen. **Ramon Saizarbitoria**

-Nor da? -galdetu zuen barrutik Hagridek, gazteei sartzen **utzi** aurretik, eta gero bizkor itxi zuen atea. **Iñaki Mendiguren**

Mein urrun bularra ukitzen **utzi** zidan egun hura. **Juan Kruz Igerabide**
Geriatrisko barruan ez dute, geletan edo otorduetan ez bada, alkohola edaten **uzten**. **Anjel Lertxundi**
Gerria tentetzen du, aitzurra lurrera erortzen **utzita**. **Pako Aristi**
Hantxe hiltzen **utzi** zuten, azken tiroa ere eman gabe. **Karlos Zabala**
-Sugea eta traidorea hi, emaztea usteltzen **utzi**, eta halako perla komunzulotik behera bota nahi izateagatik! **Patxi Zubizarreta**
Orain haria luzatu behar zen, urruntzen **utzi**, amua erabat irentsi zezan. **Juan Kruz Igerabide**
Zuetariko norbaitek horietako bakar bati ihes egiten **uzten** badio, bere biziak ordainduko du. **Elizen arteko biblia**
-Ez didazu bukatzen **utzi** -jarratu zuen Maizak, patxada galdu gabe. **Migel Angel Mintegi**
Orduan, soldaduek sokak ebaki eta txalupa erortzen **utzi** zuten. **Elizen arteko biblia**
Argazkia ateratzen **utziko** zioten, baietz. **Koldo Izagirre**
Bazekien noiz sinetsi, noiz gogor jarri eta noiz gauzak pasatzen **utzi**. **Irene Aldasoro**
Orduan hitza berriz ahoratu zitzaion; ez nion ordea hitzak baliatzen **utzi**. **Jon Muñoz**
Eliza santua da eta [...] ez die harrokeriaren hodeiei apaltasunaren ohorea iluntzen **utziko**. **Askoren artean**
Santuaren apaltasunak pasatzen **utzi** zuen artifizioz beteriko eta egiaz husturiko hitz-jasa hura. **Jon Alonso**
Zergatik ez bidegabekeria jasan eta zeuen buruak larrutzen **utzi**? **Elizen arteko biblia**
Bortz minutu pasatzen **utzi** nuen zigarro bat piztu aitzin. **Aingeru Epaltza**
-Eta zergatik ez dizute, ba, magiariak egiten **uzten**? **Iñaki Mendiguren**
Fernando eta biok ezin genuen halako egokiera aparta alferrik galtzen **utzi**. **Karlos Zabala**
Alkandora askatu zidan gero [...] eta kendu egin zidan oraindik jantzita neraman jakarekin batera, eta biak erortzen **utzi** zituen lurrera. **Ramon Saizarbitoria**
Bukatzen **utzi** gabe, erregeak ihardetsi zion: [...]. **Elizen arteko biblia**
Musu-tristek, bukatzen **utzi** gabe, Tomasengana jaso zuen hatza. **Aingeru Epaltza**
Ordaintzen **utzi** zidan, baina ez nuen egiterik lortu bueltako txanponak lurrera erortzen **utzi** gabe. **Ramon Saizarbitoria**
Bere eskuez egiten zuen lan, dohainik ederrean den denboraren izpi bat ere alferrik galtzen **utzi** gabe. **Askoren artean**

2 (-tzera atzikiarekin)

Beretu nahi ninduen indarraren kontra borrokatu gabe, gorputza kulunkatzera **utzi** nuen autoaren urrumen konpasean. **Aingeru Epaltza**
-Uda finitzera **utzi** ezazu lehenik -erran nion, soa otarrean itzatuz. **Piarres Aintziart**
Kattalinek ez du aukera pasatzera **utzi**. **Eneko Bidegain**
Gaskoina bera ere ez laiteke galtzera **utzi** behar, baina are gutiago Euskara. **Xipri Arbelbide**
Bilkura bukatua zen, baina Joanto ez zen ohartu ere egin, ondoan zuen biltzarkideak pasatzera **utz** zezan otoiztu zuen arte. **Elena Touyarou**
Murrak lodiak, haize freskorik pasatzera **uzten** ez duten horietarik. **Marzel Etxehandi**
Ene atsegin bakarra da basa horiek ez dutela espanturik, iraun ditudan oinazeetan hitz bat edo auhen bat ez baitut eskapatzera **utzi**. **Michel Oronoz**
Horrelakoetan jainkozen zuzentasuna agertuko litzateke, zeinek kezkatzera **uzten** baitu zuzena izan nahi duen gizakia. **Joan Mari Lekuona**
Handi aitzina gertatuko zen guziari ere tinko atxiki behar zion, ez zuen bere burua hiltzera **utzi** behar. **Eneko Bidegain**
Geunden-geundenean, ordea, ez nago hagitz seguru egokiena ote zen eta, nolana den ere, ez zidan jarraitzera **utzi**. **Aingeru Epaltza**
Gutik egin zuten ez baitzuen tresna gizonaren buru gainera erortzera **utzi**. **Elena Touyarou**
Zarea egina zen eta erabili aurretik, lehortzera **utzi** behar zela irakatsi zion Pierrari buhame nagusiak. **Itxaro Borda**
Bisita-gelara sartzera **utzi** orduko panpina bahitu diote. **Xabier Montoia**
Mintzatzera **utzi** zidan. **Aingeru Epaltza**
Amaren aurrean ez nuen deus agertzera **utzi** nahi. **Daniel Landart**
Tari-Barin nintzela, inoiz ez nuen agertzera **utzi** errusoz banekiela. **Matías Múgica**
Zuhaurk erran izan bazenizkit zeure sekretu guztiak eta ez soilik sumatzera **utzi** didazuna, garaiz nengokeen jakitun. **Jon Muñoz**
Horren partez, bien arteko tartea handitzera **utzi** du, begitik galdu arte. **Aingeru Epaltza**
Joantok txapela beti belarrietaraino sartua zeukan, eta bizarra luzatzera **utzia** zuen. **Elena Touyarou**
Barkaezina lukek Orthezen ikasia alferrik galtzera **uztea**. **Aingeru Epaltza**
Hola da gure mintzaira pobretzen bide haundiz eta azkenean galtzen, eskuetan ditugun hitzak erortzera **utziz**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

3 (-tzeari atzikiarekin)

-Margotzeari **utzi** dionak baino ez daki margotzearen garrantziaren berri -esan zuen. **Ramon Saizarbitoria**
Tekleatzeari **utzi** eta berak erantzuten dio Godoti. **Iñaki Iñurrieta**
Soldaduak, nekaturik, jotzeari **utzi** eta bazterrera joan dira lo egitera. **Felipe Juaristi**
-Edo edateari eta erretzeari **utzi**, edo laster hilko haiz -esan ei zion medikuak. **Edorta Jimenez**
Kantuan hasi zen, eta ez zion kantatzeari **utzi**, harik eta Jainkoaren gizonak [...] ohiko tokira hegan egiteko agindu zion arte. **Askoren artean**
Blackek borrokatzeari **utzi** zion, nahiz eta bere begi sartuak Scabbersengan finko izan oraindik. **Iñaki Mendiguren**
Azkenean pentsatzeari **utzi** zion. **Anton Garikano**
Azidoa hartzeari **utzi**, eta, drogak ematen zion goi-puntua lortzeko, sukar erlijiosoa erabiltzen hasi zen. **Xabier Olarra**
Ez zioten gaita jotzeari **utzi**, harik eta plazan barrena sartu ziren arte. **Felipe Juaristi**
Laster hasiko zen euria, haizeak kale bazterretako zumar-orbela harrotzeari **utzitakoan**. **Anjel Lertxundi**
Gauza hauek aldika gogoratzeari **uzten** badiogu berririo murgiltzen dira eta zoko ezkutueta ihes egiten dute. **Imanol Unzurrunzaga**
Ez zuen bizitzeko gogo-izpirik ere, bere burua zaintzeari **utzi** zion eta baraualdi luzeak egiten zituen. **Jose Morales**
Nik ilea tindatzeari **utzi** diot naizen bezalakoa izateko. **Jon Alonso**
Hegazkinaren gurgpilek pista zuria ukitzeari **utzi** orduko aienatu ziren begien bistatik zoru gaineko argi horiak. **Joxe Austin Arrieta**
Ezpainei kosk egiten zien etengabe, eta ezin zion atzamarrak elkarri lotu eta askatzeari **utzi**. **Lopez de Arana**
Errromatarrek ez zuten inolako arrazoirik beren legepean bizitzeari **utzi** eta beste baten mende bizi izateko. **Iñaki Iñurrieta**
Hantxe bera, zutik eta geldi, asto hilarengandik harantzaxeago, hegazti triskariei harri jauritzeari **utzia**, hantxe, zutik eta begira. **Joxe Austin Arrieta**
Perretxikoen modura sortzen ziren bertsolariak, perretxikoak perretxikoen modura sortzeari **uzten** hasi zirenean. **Andoni Egaña**
-Zeri buruz? -erantzun zion Marta Gorrik aurrerantz begiratzeari **uzteke**. **Joxemari Iturralde**
"Zoaz, zoaz!" esaten zion berak, pipa erretzeari **utzi** gabe. **Jose Morales**
Batzuetan ozta-ozta erdi lotan geratzen gaitun; baina pentsatzeari **utzi** gabe. **Juan Garzia**
Kirxa noizbait ere, gelditu, gelditu zen, baina oihukatzeari **utzi** gabe. **Patxi Zubizarreta**
Emeki-emeki, laztantzeari **utzi** gabe, joan ziren arropak zorura erortzen. **Migel Angel Mintegi**
Zer uste duk, egunkariak ez irakurtzeagatik gauzek gertatzeari **uzten** diotela? **Iban Zaldúa**

4 **uztak** utz ezak.

"**Uztak** jendea bakean!", egin nion oiuhu, ukabila altxatuz. **Bernardo Atxaga**
-**Uztak** bakean, Hans, ez duk ikusten izututa dagoela? **Alberto Ladron Arana**

Uztak ikusten. [Juan Garzia](#)

Ea, **uztak** musika degeneratu hori eta jo ezak *Sieg Heil!* [Anjel Lertxundi](#)

Borondatetsu bezain zalapartatsua dira gizonezkoak sukaldean, "ekartzak hori", **"uztak"** hau", "bota ezak hura". [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Uztak nire kontu, nahi duk? [Irene Aldasoro](#)

"Bale, Aitor", Manuk, **"uztak"** katxondeoa geroko". [Pako Aristi](#)

Uztak guztia bere horretan! [Anjel Lertxundi](#)

- **Uztak**, **uztak**... [Xabier Etxabe](#)

5 albo batera utzi (162 agerraldi, 28 liburu eta 110 artikulutan)

Kamera **albo batera utzi**, eta argazki sail bat banan-banan bistaratu zion. [Josu Landa](#)

Tira, Petrusak eta bere gonbidatuek ez dituzte beren ardiki-xerrak **albo batera utziko** zuganako eta zure sentsibilitatearen alderako errespetuagatik. [Oskar Arana](#)

Lan honetan, ordea, **albo batera utziko** dut interpretazio hori eta Sokratesen heriotza ez dela desobediencia kasu bat izan defendatuko dut. [Askoren artean](#)

Hori **albo batera utzita**, egia da hezkuntza mailen artean dauden tasen arteko aldea txikiagoa dela hemen. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Borroka **albo batera utziz**, Kako-okor bolborategira abiatu eta bonba baten metxa piztu zuen. [Julen Gabiria](#)

Batzuetan zaila da iragana **albo batera uztea**, erabat ahaztea. [Unai Iturriaga](#)

Bioetikaren eta giza eskubideen artean dagoen harreman estua ezin da **albo batera utzi**. [Berria - Gaiak](#)

Une horretan inozotasuna **albo batera utzi** eta duintasunez egin zuen berba. [Julen Gabiria](#)

Nik, gero eta pipertuago, zuhurtasunezko neurri guztiak **albo batera utzirik**, erantzun diot: [...]. [Anjel Lertxundi](#)

Ezin izan zuen bere oharren arrastorik aurkitu, ordea, hatz-mamiek batzuetan sumatzen zituzten zimur modukoak **albo batera utzita**. [Iban Zaldúa](#)

Ezkonduta eta gero **alde batera utzi** zituen ikazkintza eta baso-lana. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Unibertsitate Irekian egin nuen matrikula, filologia-ikasketetan, behin betiko **alde batera utzirik** zientzia-ikasketak egiteko asmo guztiak. [Juan Kruz Igerabide](#)

6 alde batera utzi (1307 agerraldi, 164 liburu eta 514 artikulutan)

Joseren familia baztertu egin zuen, Efraimen leinua **alde batera utzi**. [Elizen arteko biblia](#)

Segituan aspertu omen zen, ordea, eta Honorine eta seme-alabak **alde batera utzirik**, buru-belarri lanari lotzen zitzaion. [Karlos Zabala](#)

Leizarraga **alde batera utzita**, euren hizkeran oinarritu ziren garai honetako idazleak. [Koldo Zuazo](#)

St. Eustache **alde batera utzita**, eta beharbada baita Beauvais ere, ez dakigu Mariaren senargaien berri, ez behintzat senargai ezagunen berri. [Koro Navarro](#)

Ezinezkoa zen, bestalde, bidea **alde batera utzi** eta zuzen joatea istil eta urmaelen sare gaindiezin horretan zehar. [Karlos Zabala](#)

Lurpeko geyserrak eta energia nuklearra **alde batera utzita**, eguzkiaren erradiazioa da gure energia-iturri bakarra. [Irene Aldasoro](#)

Histeria **alde batera uztea** hobe. [Joxe Austin Arrieta](#)

Ur handiak **alde batera utziz**, sar gaitezen berriro arrastoan. [Iñaki Heras](#)

Ezin dira **alde batera utzi** fisikaren eta mekanikaren legeak. [Karlos Zabala](#)

Alde batera utzi ezazu, o arima, kanpoko gauzen kezkabidea, ihes egizu berehala zalapartatik. [Joan Mari Lekuona](#)

Joseren familia baztertu egin zuen, Efraimen leinua **alde batera utzi**. [Elizen arteko biblia](#)

Harreman sexualak **alde batera uzten** saiatzen naiz beti. [Luis Elberdin](#)

Herialde batek inflazioa eta egonkortasun makroekonomikoa helburu hartuta aplikatzen badu diru politika, merkatuen askatasuna edo truke-tasa finkoa **alde batera utzi** beharko ditu. [Iñaki Heras](#)

Amaren kontu hura une batez **alde batera utzita**, milaka gauza on esan zitezkeen gure neskatoaren gainean. [Oskar Arana](#)

Hobe kontua **alde batera uztea** oraingo. [Javi Cillero](#)

Ezin zehaztu dira ahots organoen mugimenduak, **alde batera uzten** badira aztarna akustikoak. [Isabel Arrigain](#)

Aurreko gai hori erabat **alde batera utzi** gabe, tradizio literarioari buruzko kezka oso kontuan hartzen du. [Jon Alonso](#)

Joera dago, azkenik, **alde batera uzteko**, sekula loratu izan ez balitz bezala, historia berriak gaur egun proposatzen duen arazo metodologikoen eremu hori guztia. [Xabier Arregi](#)

7 bazter utzi (303 agerraldi, 68 liburu eta 124 artikulutan) baztertu.

Abokatuek **bazter utzi** nahi izan zuten gai hori, eta ni ez nengoen, eta ez nago, jarrera horrekin ados. [Eduarne Elizondo](#)

«Interes politikoak» **bazter uzteko** eta «langile guztiak» defenditzeko. [Berria - Ekonomia](#)

Bazter utzi ezazu bada aditu nahi ez dudana eta aditzen ahal ez dudana mintzaira hori. [Jon Muñoz](#)

Euskara, halaber, **bazter utzi** duela salatu dute Sortzen-Ikasbatuaz taldeak eta sindikatuek. [Berria - Euskal Herria](#)

Suizidioaren aukera **bazter utzirik**, bart, edizio hau itxerakoan ez zen daturik batere Anjel Urtxipiaren hiltzaileaz edo hiltzaileez. [Aingeru Epaltza](#)

Ondoren, karrera **bazter utzirik**, soldadutzara joan zen. [Joan Mari Irigoien](#)

Nire errorea zera omen: gu, teknikariok, heriotza **bazter utzirik** saiatzen garela bizitzen. [Joxe Austin Arrieta](#)

Babes-herriko hizkuntza erabiltzen du idazteko, ama-hizkuntza **bazter utzirik**, Agota Kristofek bezala. [Eskarne Mujika](#)

Baina Israelek **bazter utzi** du ongia; etsaiak pertsegituko du. [Elizen arteko biblia](#)

Truke-tasen merkatuak dakartzan fluktuaziozko erantzunak **bazter utzirik**, ba al dago truke-tasen maila teorikoki definitzerik? [Koro Navarro](#)

Dei horretatik **bazter utziak** izan direlarik SUD eta LAB sindikatak. [Herria](#)

Nik emandako legea **bazter utzi** eta nire mintzoa aditu eta jarraitu ez dutelako gertatu da hori. [Elizen arteko biblia](#)

Sendaketan erabat sinetsia irudi zuen gaixoak, kezka eta beldurrak **bazter utziak** zituela. [Imanol Zurutuza](#)

Lehenago **bazter utzitako** ezkontza, orain itxaropen zinezko bakarra zitzaion, diruak, zigarroak, kafeak edota billete berriek inondik ere ordezkatu ezin izango zutena. [Pati Zubizarreta](#)

Valmontekin arras bertzela da: hura atxikitzeak lan du; eta **bazter utziz** gero arrisksua izaten da. [Jon Muñoz](#)

Zazpi nobio izan ditu neskak, eta halamodukoak direlako **bazter utzi**. [Patziku Perurena](#)

Edozein herri ala aldetan, ordea, gaizki dabilena Deabruak hartua du, eta, beraz **bazter utzi** behar da. [Piarres Xarriton](#)

· **Bazter utzitako**en kronikak. [Berria - Harian](#)

Zeren nahiz ez den bekatu Jainkoaren aholkuen **bazter uzte** soila, mortala da halere aholkuen gutiesteagatik bekatu egitea. [Piarres Xarriton](#)

1949an trapubiltzaileen obra piztu zuen, jende pobre eta **bazter utzietarik** hasita mundu guzirat hedatua dena. [Herria](#)

8 bazterreraz utzi (87 agerraldi, 29 liburu eta 21 artikulutan) bazter utzi, baztertu.

Barazkirik kaxkarrenen hamarrenak ordaintzen dituzue, eta [...] zuzenbidea, errukia eta leialtasuna, **bazterreraz uzten**. [Elizen arteko biblia](#)

Badakiena da politika **bazterreraz utzia** zutela. [Eneko Bidegain](#)

Asaldura sortzeko moduko motibo guztiak **bazterreraz utziak** zituen hark ardura handiz. [Karlos Zabala](#)

Zenbat ama [...] ez da abilki seme edo alabarekin eskolako ariketak egiten aritzen, bere lanak **bazterreraz utziz**, gero egiteko. [Herria](#)

Laburtasunaren amoreagatik, xehetasun asko **bazterreraz utziko** ditut. [Askoren artean](#)

Andreak ez zuen egindako botoa ahaztu, ez eta egitasmoa **bazterreraz utzi** ere. [Askoren artean](#)

Ez dago inor, normala baldin bada behinik behin, arauak **bazterreraz uzteko** gogoia noizbait izan ez duenik. [Karlos Zabala](#)

Ingeles erakasleak aldez, lehenagoko handikeria eta snobismoak **bazterreraz utzi** ditu. [Piarres Aintziart](#)

San Frantziskoren idazkiak dira zalantzarik gabe hura ezagutzeko kontsulta-iturri hobereena, eta harrigarria da nola biografo gehienek horiek **bazterreraz utzi** dituzten ikustea.

Askoren artean

Prozesu honek, tamalez, **bazterreera uzten** ditu leku ez-errentagarri guztiak, eta horiek ikusezin egiten ditu. **Iñaki Heras**

Lur honek ematen duen jendea -arrazta- historia gabekoa da; izpirituak bere martxan **bazterreera utzia**. **Joxe Azurmendi**

Tom etxean bezala egoten zen beti, paperezko mausoleo antzeko hartan, **bazterreera utzitako** liburu piloak gainbegiratzan. **Oskar Arana**

Galdera horrek ez du erantzun errazik; ezin da ordea **bazterreera utzi**, baldin globalizazio ekonomikoaren sorrera ulertu nahi bada. **Koro Navarro**

Ez da **bazterreera uztekoa**, bestalde, beste honako aukera hau, garai moderno hauetako moralarekin bat datorrena, [...]. **Jon Alonso**

Adiskideek eta lagunek iruzur egingo diate, eta beste edonork baino lehenago baztertuko haute zorigaitzoko uneetan; diruak, aldiz, sekula ez hau **bazterreera utziko**, aldean izango duk beti, baita bizitzako atakarik gaiztoenetan ere. **Jose Morales**

9 bertan behera utzi (2452 agerraldi, 149 liburu eta 1494 artikulutan)

Bi doberman gazte, Lucyk soka batekin lotuta daramatzanak, eta bulldog emea, **bertan behera utzitakoa**. **Oskar Arana**

Gabarrariak, izu-laborrian agerpen horregatik, etsipenez garrasika hasi eta hagak **bertan behera utzi** zituzten. **Karlos Zabala**

Etxolen eta **bertan behera utzitako** txabolen artean igaro zen, zaborrez eta gurpilez mukurru beteta zeuden hondakindegia atzean utzita. **Lopez de Arana**

Jainkoaren Ama Birjina guztiz dohatsuaren eliza bat zegoen han, antzina eraikia, baina garai hartan **bertan behera utzia**, inor hartaz arduratzen ez zela. **Askoren artean**

Charliek eta Mollyk **bertan behera utzi** zuten eskola, eta bakarrik geratu nintzen. **Mirentxu Larrañaga**

Zentzu ona, arrazoa, onura publikoa, horiek guztiak ezin daitezke **bertan behera utzi**. **Andres Urrutia**

Umekeria hori gelditu, **bertan behera utzi** beharra zegoen. **Jon Muñoz**

Krisi horren ondorioz, **bertan behera utzi** ziren truke-tasa finkoak, eta trukeen aldakortasuna nagusitu zen. **Iñaki Heras**

Beldurrak **bertan behera utzirik**, Hamida irrikaz zegoen arratsaldeetako ibilalditxoei berrekiteko. **Patxi Zubizarreta**

Bertan behera utzi beharko dugu ezkontza. **Koro Navarro**

Familia **bertan behera utzi** eta beste emakume batekin alde egitea izan daiteke, adibidez, moralaren aurkako ekintza larria. **Berria - Gaiak**

Arazo handiak zituen, hala ere, eta teoriaren parte handi bat **bertan behera utzi** zen 1965ean. **Irene Aldasoro**

Sindikatu guztiek legea **bertan behera uzteko** eskatu eta grebarako deia zabaldu dute. **Berria - Harian**

Bertan behera utzi genuen saioa, ondo ordu onean utzi ere. **Juan Garzia**

Bertan behera utzi zituzten 1999. urtean Antartikako izotzaren azpian 4.000 metrora dagoen Vostok aintzirara heltzeko zulaketa lanak. **Berria - Gaiak**

Iraupena oztupo, Adegik **bertan behera utzi** du negoziazioa. **Berria - Ekonomia**

Gero, 1997ko udazkenean, **bertan behera utzi** zuen azkenean bere doktore-tesia. **Oskar Arana**

Arazoak izan zituzten, eta **bertan behera utzi** behar izan zuten espedizioa. **Berria - Gaiak**

Txitxikovek, beste zeregin guztiak **bertan behera utzirik**, buru-belarri ekin zien dantzaldirako prestamenei. **Jose Morales**

Bertan behera utzi zituen gimnastika eta bustialdiak. **Jose Morales**

Tren zerbitzuetan Renfek **bertan behera utzi** zituen Iruñea eta Gasteiz arteko bidaiak. **Berria - Harian**

Proiektua **bertan behera utzi** zen. **Xabier Olarra**

Nolanahi ere, sentitzen zuen nire planak **bertan behera utzi** behar izan nituelako. **Ramon Saizarbitoria**

Emakumea, baina, gogo onez joana zitzaion eta **bertan behera utziak** zituen antzinako asmoak. **Patxi Zubizarreta**

Geethak dena **bertan behera uztea** erabaki zuen. **Gotzon Garate**

-Baina askoren iritziz, presio politikoak izan ziren egitasmoa **bertan behera uztearen** arrazoiak: [...]. **Anjel Lertxundi**

10 (pertsonez)

Zin egina nion neure buruari ez nuela Hanna inola ere **bertan behera utziko**, eta hartan nengoen. **Joxe Austin Arrieta**

Charliek **bertan behera utzi** nintzakean. **Mirentxu Larrañaga**

Anaiaren bat edonon ere gaixo eror baledi, beste anaiek ez bezate **bertan behera utzi**. **Askoren artean**

Sarritan etsipenak jota bizi zen, Jainkoak **bertan behera utzi** zuela uste baitzuen. **Askoren artean**

Horrelakoa zen Jesusek **bertan behera utzitako** jendea. **Joan Mari Lekuona**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alde batera utzi (21); armak utzi (12); aske utz (34); aske utz dezaten (15); baina utz dezagun (10); baina utz ditzagun (10); bakarrik utz (12); bakean utz (36); bertan behera utz (70); egiten utz (12); esku utz (13); ez utz (28); gabe utz (18)

utz nazak bakean (12); utz nazazu bakean (13)

agerian utzi (446); agerian utzi du (95); ahaztuta utzi (14); aho zabalik utzi (20); aipatu gabe utzi (29); airean utzi (25); airean utzi zuen (20); albo batean utzi (13); albo batera utzi (64); alboan utzi (10); albora utzi (23); alde batean utzi (31); alde batera utzi (473); alde egiten utzi (23); alderdia utzi (14); alferrik galtzen utzi (13); amaizten utzi (11); ardurapean utzi (14); argi utzi (759); argi utzi behar (49); argi utzi du (111); argi utzi dute (51); argi utzi nahi (130); argi utzi zuen (234); argi utzi zuten (56); armak utzi (46); arrasto sakona utzi (12); arrastoa utzi (30); arrastorik utzi (46); arrastorik utzi gabe (34); aske utzi (446); aske utzi zituzten (60); aspaldi utzi (55); at utzi (63); atarian utzi (16); atea zabalik utzi (14); ateraten utzi (19); atzean utzi (297); atzean utzi zituen (26); atzera utzi (15); atzo utzi (11); aukeran utzi (10); aukerarik utzi (12); aukian utzi (23); aukian utzi zuen (11); aurrean utzi (20); autoa utzi (16); azpian utzi (11); aztarnarik utzi gabe (17); aztoratuta utzi (12); aztoratuta utzi huela (11)

babesik gabe utzi (17); baino lehen utzi (11); bakar bakarrik utzi (14); bakarrik utzi (222); bakarrik utzi zuen (19); bakean utzi (77); baliorik gabe utzi (12); barik utzi (26); barreagarri utzi (21); baten esku utzi (21); baten gainean utzi (16); bazter batean utzi (17); bazter utzi (124); bazterrean utzi (71); bazterreera utzi (28); bazterrerat utzi (18); begiratzeari utzi (34); behin betiko utzi (12); bere hartan utzi (22); bere horretan utzi (19); bere kargua utzi (35); berehala utzi (31); bertan behera utzi (1088); betiko utzi (23); bide bazterrean utzi (11); bidea utzi (23); bidean utzi (16); bigarren mailan utzi (15); bizirik utzi (34); bukatu gabe utzi (17); bukatzen utzi (12)

deialditik kanpo utzi (23); dena utzi (39); dena xarmatuta utzi (20)

edateari utzi (10); egin gabe utzi (18); eginda utzi (41); eginik utzi (13); egoteari utzi (15); egunkaria utzi (10); emateari utzi (17); ematen utzi (15); epailearen esku utzi (20); erabakita utzi (62); erabakita utzi zuen (23); erabakita utzi zuten (14); erabat utzi (18); eramaten utzi (12); erdian utzi (20); erortzen utzi (111); erortzen utzi zuen (36); erortzera utzi (11); errepidea utzi (12); erretzeari utzi (19); ertzean utzi (13); eskola utzi (22); esku utzi (478); esku utzi du (61); esku utzi zuen (72); eskuetan utzi (96); eskutan utzi (12); eskutik utzi (10); etortzen utzi (12); etxea utzi (52); etxeak utzi (15); etxean utzi (38); etxerik gabe utzi (13); ezerezean utzi (26); ezin utzi (19)

futbola utzi (29)

gabe utzi (592); gabe utzi zuen (79); gain utzi (36); gainean utzi (217); gainera erortzen utzi (11); galtzen utzi (25); galtzerat utzi (17); garbi utzi (240); garbi utzi zuen (56); gehiago utzi (22); gela utzi (10); gero utzi (13); geroko utzi (22); gerorako utzi (20); gibelean utzi (13); gibeleria utzi (11); gisa utzi (11); gobernua utzi (11); gora utzi (17); gose greba utzi (17); gozoa utzi (10); greba utzi (34); guztia utzi (14); guztiak utzi (18)

han utzi (83); han utzi zuen (14); hankaz gora utzi (14); hantxe utzi (49); harririk utzi (27); idatzita utzi (37); hartzen utzi (38); haurdun utzi (29); hautsontzian utzi (12); hemen utzi (33); herren utzi (13); herria utzi (25); hildako utzi (29); hildako utzi zituen (14); hiltzen utzi (31); hiria utzi (13); hitz egiteari utzi (35); hitz egiten utzi (18); hitzik gabe utzi (12); horregatik utzi (29); horrela utzi (10); hutsen utzi (17); hutsik utzi (26)

iaz utzi (10); ibiltzeari utzi (27); ibiltzeari utzi gabe (12); idatzirik utzi (19); idatzita utzi (37); idatzita utzi zuen (11); idazteari utzi (26); igarotzen utzi (14); ihes egiten utzi (58); ikasketak utzi (14); ikusten utzi (25); indarrak gabe utzi (12); inoiz utzi (14); irakurtzen utzi (10); irekita utzi (33); irteten utzi (16); itxita utzi (17); itzultzen utzi (11); izateari utzi (161); izateari utzi gabe (14); izateari utzi zion (16); izaten utzi (12)

jarrailzen utzi (17); jateari utzi (20); jausten utzi (14); joateari utzi (12); joaten utzi (132); joaten utzi zion (14); jokatzeari utzi (16); jokatzan utzi (23); jota utzi (66); jota utzi zuen (21); jotzeari utzi (26)

kalean utzi (22); kanpo utzi (225); kanpo utzi zuen (31); kanpoan utzi (61); kantatzeari utzi (12); kargua utzi (206); kargua utzi du (49); kargua utzi zuen (43); karguak utzi (11); kluba utzi (10); kolokan utzi (11)

lagunak utzi (10); lana utzi (74); lanari utzi (15); lanik gabe utzi (11); lasai utzi (12); laster utzi (15); lasterketa utzi (26); legez kanpo utzi (68); lehenago utzi (11); lekua utzi (39); lekuan utzi (18); libre utzi (140); libre utzi zuten (24); libro utzi (22); lotsagarri utzi (20); lotuta utzi (18); lur jota utzi (32); lurtean utzi (95); lurtean utzi zuen (19); lurrera erortzen utzi (16)

mahai gainean utzi (92); mahaia utzi (11); mahaian utzi (29); mahaian utzi zuen (11); mahaieren gainean utzi (13); menpe utzi (21); mezua utzi (11); mugitzeari utzi (11); mundu hau utzi (26); mundua utzi (30); mundua utzi eta (14); mutu utzi (14)

nabarmen utzi (18); nahiko aztoratuta utzi (11); negar egiteari utzi (20); nire esku utzi (23); noiz utzi (16); nola utzi (38); non utzi (35)

ohe gainean utzi (15); ondoan utzi (35); ondoren utzi (10); orain utzi (12); orduan utzi (11)

partida erabakita utzi (14); pasatzen utzi (91); postua utzi (21); pozik utzi (21); prest utzi (12)

sartzen utzi (103); **sekula utzi** (10); **taldea utzi** (71); **tantan utzi** (19); **tarterik utzi** (15); **tokia utzi** (13); **tokian utzi** (11); **txiki eginda utzi** (12); **txunditurik utzi** (21); **txundituta utzi** (43)

umezurtz utzi (10); **urtean utzi** (17); **urtetan utzi** (18); **urtetan utzi du** (12); **ustelzen utzi** (13)

utzi ahal (46); **utzi ahal izan** (16); **utzi ahal izateko** (11); **utzi aitzin** (10); **utzi al** (20); **utzi arren** (34); **utzi arte** (71); **utzi aurretik** (51); **utzi baino lehen** (21); **utzi bakean** (52); **utzi barik** (19); **utzi beharra** (71); **utzi beharra dago** (12); **utzi beharra izan** (16); **utzi beharrak** (17); **utzi beharrean** (40); **utzi beharreko** (11); **utzi berri** (38); **utzi berria** (21); **utzi bezain laster** (15); **utzi bezala** (12)

utzi ezean (12); **utzi ezin** (19)

utzi gabe (532); **utzi izan** (87); **utzi izana** (87); **utzi izanak** (26); **utzi izanaren** (13)

utzi joaten (14)

utzi nahian (19)

utzi ohi (26); **utzi zituzten atzo** (25); **utzi zuen agerian** (16); **utzi zuen arte** (20); **utzi zuen atzo** (78); **utzi zuen esaldia** (11); **utzi zuen herenegun** (13); **utzi zuten aske** (26); **utzi zuten atzo** (51)

xarmatuta utzi huen (20)

zabalik utzi (68); **zelaia utzi** (18); **zer utzi** (17); **zerbait utzi** (21); **zergatik utzi** (68); **zigorrik gabe utzi** (18); **zintzilik utzi** (18); **zirikiturik utzi** (19)

ahotik ezin utzia (15); **aspaldi utzia** (12); **bertan behera utzia** (26); **esku utzia** (11); **ezin utzia** (19); **gabe utzia** (11); **utzia du** (18); **utzia izan** (22); **utzia nuen** (26); **utzia zion** (24); **utzia zuela** (19); **utzia zuen** (66); **utzia zutela** (11); **utzia zuten** (28)

ezin utziak (10); **utziak izan** (16); **utziak zituen** (33); **utziak zituzten** (11)

agerian utziko (27); **alde batera utziko** (39); **alde egiten utziko** (11); **argi utziko** (15); **armak utziko** (20); **aske utziko** (33); **aske utziko dute** (12); **atzean utziko** (22); **bakarrik utziko** (47); **bakean utziko** (46); **bazter utziko** (18); **bazterrean utziko** (10); **bere horretan utziko** (12); **bertan behera utziko** (130); **betiko utziko** (14); **bizirik utziko** (17)

eginda utziko (13); **egiteari utziko** (15); **esku utziko** (138); **esku utziko du** (15); **eskuetan utziko** (23); **gabe utziko** (82); **galtzen utziko** (10); **han utziko** (13); **hemen utziko** (15)

ihes egiten utziko (11); **izateari utziko** (39); **izateari utziko dio** (14); **joaten utziko** (33); **kanpo utziko** (15); **kargua utziko** (37); **kargua utziko du** (10); **laster utziko** (14); **libre utziko** (26); **noiz utziko** (18)

sartzen utziko (36); **sekula utziko** (11); **taldea utziko** (29); **taldea utziko du** (11)

utziko al (67); **utziko al didazu** (19); **utziko duela iragarri** (17); **utziko zuela iragarri** (15)

zabalik utziko (14)

agerian utzirik (13); **alde batera utzirik** (94); **atzean utzirik** (20); **bazter utzirik** (17); **bazterrerat utzirik** (15); **bertan behera utzirik** (19); **denak utzirik** (15); **gabe utzirik** (16)

agerian utzita (13); **albo batera utzita** (36); **alde batean utzita** (24); **alde batera utzita** (352); **aparte utzita** (25); **argi utzita** (15); **atzean utzita** (65); **bakarrik utzita** (23); **bazter utzita** (43); **bazterrean utzita** (13); **bertan behera utzita** (26); **eibarren utzita** (12); **esku utzita** (12); **etxean utzita** (13); **gabe utzita** (21); **gainean utzita** (15); **han utzita** (15); **kanpo utzita** (13); **kanpoan utzita** (12); **utzita aritu** (11); **utzita egon** (10); **utzita etorri** (11); **utzita joan** (14); **zabalik utzita** (10)

aske utzitako (16); **atzean utzitako** (21); **bazter utzitako** (14); **bertan behera utzitako** (32); **esku utzitako** (11); **gabe utzitako** (37); **gainean utzitako** (11); **han utzitako** (12); **hark utzitako** (22); **hutsik utzitako** (12); **kanpo utzitako** (37); **legez kanpo utzitako** (34); **libre utzitako** (11); **lurrean utzitako** (10); **nik utzitako** (10)

utzitako arrastoa (14); **utzitako arrastoak** (11); **utzitako hutsunea** (48); **utzitako hutsuneak** (10); **utzitako lekua** (24); **utzitako lekuan** (14); **utzitako ondarea** (14)

agerian utziz (71); **alde batera utziz** (67); **argi utziz** (20); **atzean utziz** (23); **bakarrik utziz** (12); **bertan behera utziz** (14); **erortzen utziz** (12); **esku utziz** (25); **ez utziz** (11); **gabe utziz** (34); **lekua utziz** (15); **tartea utziz** (14); **utziz gero** (127); **utziz geroz** (16)

ezin utziko (10)

kargu uzte (16)

agerian uztea (18); **albo batera uztea** (10); **alde batera uztea** (65); **armak uztea** (34); **aske uztea** (55); **aske uztea erabaki** (16); **atzean uztea** (25); **bakarrik uztea** (13); **bakean uztea** (21); **bazter uztea** (14); **bere hartan uztea** (15); **bere horretan uztea** (24); **bertan behera uztea** (323); **betiko uztea** (11); **esku uztea** (105); **esku uztea erabaki** (13); **eskuetan uztea** (15); **etak armak uztea** (10); **ez uztea** (76); **gabe uztea** (38); **hiltzen uztea** (14); **joaten uztea** (13); **kanpo uztea** (57); **kargu uztea** (14); **kargua uztea** (20); **kargua uztea erabaki** (10); **legez kanpo uztea** (25); **libre uztea** (17); **taldea uztea** (19)

uztea erabaki (267); **uztea erabaki zuten** (37); **uztea eskatu** (14); **uztea espero** (11); **uztea galdegin** (16); **uztea izan** (19); **uztea izan zen** (10); **uztea lortu** (18); **uztea proposatu** (13)

bertan behera uzteak (13)

bertan behera uztearen (15); **uztearen alde** (22); **uztearen truke** (12)

ez uztearren (13)

uzteaz gain (17)

agerian uzteko (69); **albo batera uzteko** (13); **alde batera uzteko** (77); **argi uzteko** (28); **armak uzteko** (67); **armak uzteko eskatu** (18); **aske uzteko** (221); **aske uzteko eskatu** (71); **aske uzteko eskatzen** (16); **at uzteko** (11); **atzean uzteko** (51); **bakarrik uzteko** (16); **bakean uzteko** (46); **bakean uzteko eskatu** (11); **baldintzapean aske uzteko** (10); **barregarri uzteko** (10); **bazter uzteko** (19); **bazterrean uzteko** (11); **behera uzteko** (605); **behin betiko uzteko** (12); **berehalia aske uzteko** (18); **bertan behera uzteko** (604); **betiko uzteko** (14)

erabakita uzteko (20); **erretzeari uzteko** (17); **esku uzteko** (139); **esku uzteko asmoa** (12); **esku uzteko eskatu** (23); **eskuetan uzteko** (19); **ez uzteko** (201); **ez uzteko eskatu** (15); **gabe uzteko** (35); **garbi uzteko** (12); **hartzten uzteko** (11); **hiltzen uzteko** (15); **hutsen uzteko** (17)

indarkeria uzteko (21); **irleten uzteko** (10); **izateari uzteko** (20); **joaten uzteko** (23); **kanpo uzteko** (58); **kanpoan uzteko** (13); **kargua uzteko** (51); **kargua uzteko eskatu** (12); **lana uzteko** (18); **legez kanpo uzteko** (29); **lekua uzteko** (10); **libre uzteko** (29); **partida erabakita uzteko** (12); **pasatzen uzteko** (29)

sartzen ez uzteko (10); **sartzen uzteko** (23); **uria aske uzteko** (17)

uzteko agindu (41); **uzteko agindu zuen** (12); **uzteko agindua** (32); **uzteko agindua eman** (15); **uzteko arriskua** (11); **uzteko asmoa** (72); **uzteko asmorik** (43); **uzteko asmorik ez** (15); **uzteko asmoz** (14); **uzteko aukera** (59); **uzteko baimena** (14); **uzteko deia** (18); **uzteko deia egin** (10)

uzteko erabakia (60); **uzteko erabakia hartu** (19); **uzteko esan** (28); **uzteko eskaera** (38); **uzteko eskaera egin** (16); **uzteko eskaria** (12); **uzteko eskatu** (508); **uzteko eskatu zion** (100); **uzteko eskatuko** (29); **uzteko eskatuko du** (10); **uzteko eskatuz** (17); **uzteko eskatzea** (11); **uzteko eskatzeko** (12); **uzteko eskatzen** (70); **uzteko exijitu** (28); **uzteko gai** (11); **uzteko garaia** (19)

uzteko konpromisoa (12); **uzteko moduan** (14); **uzteko moduko** (29); **uzteko prest** (72); **uzteko prest agertu** (12)

uzteko zorian (15)

zabalik uzteko (14)

agerian uzten (312); **agerian uzten dute** (57); **albo batera uzten** (17); **alde batera uzten** (115); **argi uzten** (110); **argi uzten du** (63); **armak uzten** (19); **arrastoa uzten** (15); **aske uzten** (25); **at uzten** (10); **ateratzen uzten** (16); **atzean uzten** (46); **aukerarik uzten** (18); **bakarrik uzten** (51); **bakean uzten** (83); **bakean uzten ez** (12); **barregarri uzten** (15); **bazter uzten** (33); **bazterrean uzten** (16); **bazterrerat uzten** (11); **bere kargua uzten** (11); **bertan behera uzten** (96); **bertan uzten** (12); **beti uzten** (17); **biderik uzten** (11); **bistan uzten** (13); **bizirik uzten** (10); **bizitzen uzten** (28)

erortzen uzten (16); **esaten uzten** (11); **esku uzten** (121); **esku uzten du** (20); **eskuetan uzten** (31); **etxean uzten** (10); **gabe uzten** (158); **gabe uzten ditu** (11); **galtzen uzten** (13); **garbi uzten** (38); **garbi uzten du** (16); **gehiago uzten** (10); **gutxi uzten** (16); **han uzten** (13); **harriturik uzten** (11); **hartzten uzten** (31); **hiltzen uzten** (10); **hitz egiten uzten** (13); **hor uzten** (11); **horrek agerian uzten** (22); **horrek argi uzten** (10)

igarotzen uzten (11); **ikusten uzten** (56); **ikusten uzten ez** (12); **irleten uzten** (10); **izpirik uzten** (21); **joaten uzten** (26); **jokatzen uzten** (12); **jota uzten** (13); **kanpo uzten** (37); **kanpoan uzten** (23); **kargua uzten** (24); **lana uzten** (12); **lekua uzten** (32); **lekurik uzten** (11); **libre uzten** (40); **lo egiten uzten** (15); **mahai gainean uzten** (17); **mende uzten** (12); **nola uzten** (10)

orroitzapena uzten (24); **orroitzapena uzten dauku** (19); **parte hartzen uzten** (10); **pasatzen uzten** (38); **penetan uzten** (20); **penetan uzten dituen** (12); **sartzen uzten** (40); **tartea uzten** (10); **txundituta uzten** (11)

uzten ahal (55); **uzten ez** (288); **uzten ez duena** (10); **uzten saiatu** (18); **zabalik uzten** (35); **zalantzetarako lekua uzten** (19); **zergatik uzten** (15); **zirrikiturik uzten** (18); **zur uzten** (10)

bertan behera uztera (19); **kargua uztera** (14); **uztera behartu** (41); **uztera behartu zuen** (10)

utzialdi iz uztea.

Nor bere buruaren erabateko **utzialdi** hori, irrisaren eldarnio hori non plazerra bere gehiegitasunaz araztua den, amodioaren ontasun horiek, emakume horiek ezjakinak dira horretan. **Jon Muñoz**

Afalondoan, baliatu nuen mariskalaren emazte horrek beti kontaktzen dituen horietako historia bat kontaktzen ari zen denbora neure aulki otomanoan esertzeko, amets ezitia dakarren halakoxe **utzialdian**. **Jon Muñoz**

utziarazi, utziaraz, utziarazten du ad uztera behartu.

FCCKo 60 langile grebara itzuliko dira gaur Basaurin, martxoaren 9an auzitegien ebazpen batek greba iragarpena lehenago egin behar zutela-eta aurreko greba bertan behera

utziarazi ondoren. Berria - Ekonomia

Beren ordezkatzaila-izaeraz abusatuko balute, kargua **utziaraziko** zaie atzera etxera bidaliz. Iñaki Iñurrieta

Duela 30 urte, Ian Paisleyk zuzendutako muturreko protestante talde batek bertan behera **utziarazi** zuen Irlanda iparraldeko lehenengo legebiltzar autonomoa. Berria - Mundua

utziezin 1 *izond* ezin utzizkoa.

Aita santua, bere karguko eginbide **utziezin** batengatik, Perugiara joan beharrean gertatzen da. Askoren artean

Handik sortuak dira armiarmak, eta oraindik ere haria egin eta ehuteko joera **utziezina** dute. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eginbehar **utziezina** bete beharra daukaala, semea amarekin lotzen duena baino are sakratuagoa. Karlos Zabala

Naturak kemen itzalezin batez hornitu bazaitu, zeure burua defendatzeko eskubide **utziezin** bat eman badizu, [...]. Juan Martin Elexpuru

Handik sortuak dira armiarmak, eta oraindik ere haria egin eta ehuteko joera **utziezina** dute. J.M. Olaizola "Txiliku"

Barruan daramazun haurra esnarazten dizu, zeuk duzun onena, absolutuaren gose-egarria, gizadi berri baten amets **utziezina**. Askoren artean

Agerpen ororen bilkura osoa lege **utziezina** denez gero izadiaren testuinguruan, orduan honek askatasun oro deuseztatuko luke, burugogorki agerpenen errealitateari eutsi nahiko bagenio. Ibon Uribarri

EB-IUren iritziz «**utziezina**» da autodeterminazio eskubidea. Berria - Euskal Herria

Hori garaiko pentsaera arrunta da, baina, hala ere [...] **utziezina** dugu *Volksgeist*aren filosofia klasikoetatik zein urrunduak gabiltzan berriro orotaraztea. Joxe Azurmendi

2 *utziezineko, utziezinezko izlag* utziezina.

Frantzisko **utziezineko** utopia bezala ageri zaigu, betiko Ebanjelioaren utopia. Askoren artean

Sendo erabakita bere kristau-esperientzia eta proiektuaren oinarritzko eta **utziezinezko** puntuak indar guztiz defendatzera. Askoren artean

utzigarri *izond* utz daitekeena.

Adigai hauek oharraraztea eta ahal den heinean beren osotasunean zerrendatzea onuragarria den eta ezatsegina ez den ahalegina litzateke, hemen, ordea, **utzigarria** dena. Ibon Uribarri

Mundu honetako zerizan bizidunen izaerarekin analogian [...] ezer ezin dela aurkitu **utzigarria** edo erabileran proportziogabea, eta beraz, helburugabea denik. Ibon Uribarri

utzika ik hartu 26a.

utzikeria 1 *iz* ardura edo kemen falta eginbide eta zereginetan.

Utzikeria dirudiena, ez zen beti **utzikeria** izaten: askotan, bizitzaren beste ikuspegi bat zen, errespetu bat bizirik zeuden izaki guztienganako. Pako Aristi

Zekenkeria jazartzen zaio gizaki honi, lizunkeriak suntsitzen du, handikeriak txunditzen du, harropuzkeriak haizez puzten du, inbidia torturatzen du, **utzikeriak** lozorrotzen du. Imanol Unzurrunzaga

Itxurarekiko balizko kezka hura ez zetorren bere artilezko jertse zirtzilduarekin, bere **utzikeriarekin**, bere zarpaikeria orobatekoarekin bat. Harkaitz Cano

Beren **utzikeriagatik** eta axolagabekeriagatik, inoiz ere ez zirela jaikiko egoera makur hartatik. Josu Zabaleta

Duela hilabete uste genuen historian lehen aldiz ETA ez zela Legebiltzarrean egongo, baina Espainiako Gobernuaren **utzikeriak** eta arduragabekeriak bidea eman diote. Berria - Harian

Norbaitek kaleetan dauden zuloak markatu ditu, Udalaren **utzikeria** salatzeke, eta salaketa hedabideetan ateratzea lortu dute. Berria - Gaiak

Medikuen **utzikeria** probatzen bada, zigorra saihestezina da. Berria - Gaiak

Begirada gogorra zeukan eta beharbada horrek piztu du nigan huts egin izanaren sentipen tamalgarria, aitarekiko izan dudana **utzikeria** gogoratu. Urtzi Urrutikoetxea

Azken buruan aszesi bide bat ere badelako **utzikeria** hori; nondik begiratzen zaion. Iñaki Iñurrieta

Maltzurtasun nola-halako baten muga-muga zegoen, horratik, **utzikeria** hura. Juan Garzia

Utzikeria dela medio eta politika egokien faltan, gaitzear dauden eta gure sukaldaritzaren betiko funtsa diren espezie eta produktu naturalak berreskuratzea. Ramon Saizarbitoria

Haien **utzikeria** zuzendu baino, haien jarduera mugatu beharra zegoen. Iñaki Iñurrieta

Geroztik gogotik berdinu dut garai hartako **utzikeria**, eta gainera, zer arraio!, ez al da ederra ezer ez egitearen plazerra, axolagabeziaren goxoa? Xabier Mendiguren Elizegi

Semearenganako **utzikeria** argudiatuz, Kristinari auzi eman eta Unairen zaintza eskatzea, horra zer ibili zitzaidan, istant batez, gogoan. Aingeru Epaltza

Zuzendu ditut kopiatzailean **utzikeriak** tartekatu dituen okerrak. Juan Garzia

Leude baten nagikeria edo **utzikeriatik** atera ezin zutena, apezpiku baten zelotik eta arreta ekiletik aterako zutela uste zuten. Iñaki Iñurrieta

Erabaki faltaz edo **utzikeriaz** edo bestelako arrazoiz, ez nintzen ezkondu. Juan Garzia

Eskubide horietako asko **utzikeriaz** galdu dituzte. Iñaki Iñurrieta

Erasoak saihesteko Gobernuak **utzikeriaz** jokatu zuen ari da ikertzen batzordea. Berria - Mundua

Horma gainetik ihes egin zien baloia halako batean, izan ere sarea zuloz josita baitago, **utzikeria** hutsez. Karlos Linazasoro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Platanoen itzalpean dagoen aulkian jartzen naiz, gorputzaren **utzikeria** goxoak izpiritu osoa husten didala denbora berean. Piarres Aintziart

Administrazioak gai honen inguruan **utzikeria** nabarmena erakutsi duela garbi ikusten da. Berria - Euskal Herria

Itunaren edukia bultzatu eta negoziatu zutenen **utzikeria** garbia uzten du horrek agerian. Berria - Ekonomia

Euskaldunok geure gorabeheraz izan dugun **utzikeria** kronikoaz eta hemengo burgesia etxekalteaz. Anjel Lertxundi

«**Utzikeria** kriminalagatik» akusatu ditu Errusiak Ipar Osetiako bi polizia buru eta Ingushetiako bat. Berria - Mundua

Erabakiak karta zuria ematen die suizidei, Jerusalemen hautatu eta hautatuak izateko, eta **utzikeria** diplomatikoa da. Berria - Mundua

Alkateak aitortu zenez, Zigoitiako Udala kobazuloaren sarbidea mugatzen saiatu bada ere, ez du lortu, eta egun, «**utzikeria** erabatekoa da». Berria - Euskal Herria

Hari buruz, «erabateko **utzikeria**» izan zuela ondorioztatzen du. Berria - Ekonomia

Urte luzez sekulako **utzikeria** pairatu dute bertako bizilagunek. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan)

Sofistikatua baina ez gehiegi, **utzikeria** -ukitu ondo estudiatu batzuekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Divisionek **utzikeria** puntu batekin kantatzen zuena desegin eta punk psikodelikoaren bidetik egin dugu, sentsualitate eta indar handiagorekin. Berria - Kultura

Espainiako gobernu ezberdinen urteotako kudeaketak eragindako egungo **utzikeria** egoerarekin amaitzeko. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gobernuaren utzikeria salatu (3); nafarroako gobernuaren utzikeria (3); utzikeria salatu (13); utzikeria salatu dute (4); utzikeria salatzeke (3)

utziketa iz uztea.

Bere egitasmoa beharbadakoak baino ez diren egitateetan funtsatzen delako, ez baieztapen dogmatikoen eskubidearen beharrezko **utziketa** eragin zezaketen printzipioetan.

Ibon Uribarri

Horregatik, bere judizioa ez da inoiz iritzia, baizik judizio ororen **utziketa** edo ziurtasun apodiktikoa da. Ibon Uribarri

utzikin iz hondarra, hondakina. ik uztondo.

Hondatuta egoten dira beti, laringofono horiek! **Utzikinak** ! Horrexek salbatuko luke gure misioa sakrifikatzea izatetik, laringofonoa hondatzeak...

Josu Zabaleta

utzitasun iz norberaren burua uztearen nolakotasuna.

Hondora doaz zuzen-zuzenean, ezertan sustengurik hartu gabe, pobrezian geratuz, biluztasunean eta egiazko **utzitasunean** .

Joan Mari Lekuona

Ekaitz hau suma daiteke hoztasunean, **utzitasunean** eta gogortasunean ere bai. Joan Mari Lekuona

utzuli ik itzuli¹.

UUU (orobat uuuu eta uuuh g.er.) interj desadostasuna adierazteko hitza; ontzaren oihua.

"UUU" ! Espainiako babaloreen tertulia horietako bat aditzen egongo duk. Pablo Sastre

Ahoskapen zaparrada bat - "UUU" ! Xabier Olarra

UUU !- hontz handi batenaren tankerakoa. Xabier Olarra

Eguerdi ondoan edo, desorduan bakarka ari denean, **Uuu** ! negarti bakan batzuk botatzen, orduan ziur egon zintezke, aldaketa nabarmenen bat datorkiola eguraldiari. Pello Zabala

Klaseak (mutilak harro neskei begira): **UUUU** . Pablo Sastre

Eta "**Uuuh** !" egin zuten marinelen guztiek baterat eta, segidan, jiratu zen osaba. Joan Mari Irigoien

uuuum interj um.

-Uuum Ramuntxo Etxeberri

uve 1 iz v letraren izena. • uve itxurako irudia.

Atxagaren antzarek egin ohi duten **uvea** ikusiko dugu zeruan pasatzen. Hasier Etxeberria

Larrazkenaren **uveak** utzi dituzte jada hegaztiak zeruan eta pentsamendu batek harrapatzen nau eurei begiratutakoan: nola aurkituko gaituzte hegazti horiek berek Udaberrian itzultzen direnean? Hasier Etxeberria

Bat-batean, **uve** eskerga bat agertu da zeruan. Txillardegi

2 uve bikoitz w letraren izena.

Euskaraz, letra-izen guztiek, ordezkutzen duten letra hartzen dute, nola edo hala, izenean, honakook izan ezik: ze, ku, **uve bikoitza** eta i grekoa. Iñaki Arranz

uxaezin 1 izond ezin uxatuzkoa.

Jasanezina gertatzen zitzaion bakardade hura, erraiak ere usteltzen zizkion gorroto **uxaezin** hura. Berria - Kultura

Ana ondotik heldu zitzaidan, lapazorri **uxaezina** . Aingeru Epaltza

2 uxaezineko izlag uxaezina.

Ba, **uxaezineko** zoritxarra gertatuko zaizu, saihetsezineko ezbeharra jausiko gainera, ustekabean hartuko zaituen bat-bateko hondamendia etorriko. Elizen arteko biblia

uxagailu iz uxatzeko gailua.

Baserri inguruan ziklope-**uxagailu** bila, balde zahar mailatu bat hartu, putzuetan bete, eta ur uher haietan lurra eta hartxintxarrak bota nituen. Joxean Sagatzizabal

uxagarri iz uxatzen duena.

Nola ur zorrotak sugarra deusezten duen, hala azti-formula bat, arriskuaren eta beldurraren **uxagarri** . Aingeru Epaltza

Haren izaeran eta jokatzeko moduan pisua eta arintasun urrikoa zen guztiak, munduaren kontrako jarrera misterioitsu hark -jendearen **uxagarri** betiere-, ia apaiz batena zirudien haren jokabide zeremoniatsuak eta jendea hitzik esan gabe begiratzeko zuen joerak, horiek denak [...] oztopo zituen azken garaietan arrotzekiko harremanetan.

Ander Irizar

uxaka¹ adlag uxatzen.

Marcel gaixoaren antzera hasi dut nostalgiaz eta bakardade gastronomikoz hantu ipuin hau, Sarako elizako prediku aulkian, jende beldurtu eta plegatuen aurrean oihuka, bekatuari erdeinu eta **uxaka** bere denbora pasatzen zuen Axular itzalbakoaren moldean finitzeko. Itxaro Borda

uxaka² izond uzkurra.

Fikriak bi ahizpa ditu: Zohr, zaharra, bularrak nabari ez dakizkion bendaz estu-estu lotzen dituen; eta Leyla, gaztea, neska mutu, **uxaka** bat. Pablo Sastre

uxaldi *iz* uxatze aldia.

Ehizan ohitutako jendea da, mendiko piztien **uxaldiak** egiten dituzte, eta harrapatzen dituzten otsoak eta gainerako piztiak akabatu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ehiza erakundeei erran zien **uxaldia** debekatu behar zutela. Berria - Euskal Herria

Uxaldietan animaliak mugiarazten dituzte, eta gero animalia horiek euren eremuetara itzuli behar dute, errepideak zeharkatu behar dituzte. Berria - Euskal Herria

uxale *izond/iz* uxatzailea.

Illunabarrean klin-klon zebilen zapoa ere, haren kliklakoa atsedengarri eta urduritasun ororen **uxale** izateaz gainera, mentura oneko soinua irizten genuen. Pello Zabala

uxapal ik urxapal.

uxar

1 *uxar* *egin* uxarka egin.

Bere albotik pasatzen ikusi zituenean, sudurra luzatu zuen haiengana, ehiza-txakurren **uxar** egiteko modua imitatuz. Pedro Alberdi

2 *uxar* *rean* uxarka, induskatzen.

Bazebilen han txerri-talde on bat mendian **uxar**rean. Elizen arteko biblia

Handik urrutira gabe, txerri-talde handi bat zebilen **uxar**rean. Elizen arteko biblia

uxarazi, uxaraz, uxarazten du *ad* uxatzera behartu.

Tribuko emakumeak hasten dira, denak batean garraixi zorrotz ikaragarriak egiten, haizea izutzeko eta **uxarazteko**. Patziku Perurena

Erdi Aroko sarrazenoen inbasioaz geroztik nonahi ugaldu ziren moroak lurrotan, Espainiaren arrakonkista omen zenekoan **uxarazi** zituzten arte. Patziku Perurena

Baina Anaia Gutiek **uxarazi** egin zituzten Parmatik. Juan Garzia

Etxenagusi aberatsak bete neskame pobreak, heritik **uxarazi** ondoan, nonbaitean nolazbait hazitakoa. Patziku Perurena

Ni neroni ikusia bainago mutikotan, Goizuetan, Benaisoroko alorrean, beleak artotik **uxarazteko**, belezomorroak paratzen. Patziku Perurena

Fetitxisimo guztiak **uxarazteko** modukoak dira Hemingwayren itxura onkotearen erreklamora eskaintzen dizkidaten plateren prezioak. Anjel Lertxundi

Aingeru irizte hark edozein susmo **uxarazten** ziola-eta, kontent izaten ei zen. Edorta Jimenez

Paisaian Mariasunen oroitzapena **uxaraziko** dian zerbaiten bila hasi haiz, baina begirada behin eta berriro garabietara joan zaik, zeru grisaxkaren azpian, urrutira. Jokin Muñoz

uxarka 1 *iz* induskatzen.

Piztiaren bat ibiliko zen **uxarka**. Bernardo Atxaga

Zerrama hark, hondakin-pila batean **uxarka** ari zela, txito bat irentsi zuen bidenabar. Jose Morales

Harresiaren oinarria iragan dut bizkarra urduriaren urduriz urratuz, gorantz hasi naiz ostera, **uxarka** kafazka aztarrika, sator baten moduan. Koldo Izagirre

Ateari **uxarka** zezena, neskak irazkian ehotzen, mendi urruna ketan, eta marruka idi gorria. Patziku Perurena

2 *uxarka* *egin* induskatu.

Harakinak behorrenean bezain leun ibili zuen eskua txaluparen sabelean harat-honat nire lagunei kasurik egiteke, sudurpera ekarri zuen, gero **uxarka** egin zuen gilana eta albaoletan. Koldo Izagirre

uxartu, uxar, uxartzen du *ad* zerriak edo basurdeak, hazkurria-edo aurkitzeko, lurrean muturra sartuz aritu. ik induskatu.

Nemesio Iruستا Loidi lanean ari da aitzurraekin, tarteka makurtu eta ezker-eskuaz lurra **uxartuz**. Pako Aristi

Ezin zuen eta ez zuen geratu nahi, zeren geratzen zenean adarka ekiten baitzion antilope txikiak, eta erraiak **uxartzen** zizkion apatxeekin. Anton Garikano

uxatu, uxa, uxatzen 1 du *ad* (norbaiti edo zerbaiti) ihes eragin, hurbiltzen ez utzi. ik haizatu; aienatu. (pertsonak eta animaliak)

Jostetak bazuen aldi berean erakarri eta **uxatu** egiten ninduen zer izendaezin bat. Patxi Zubizarreta

Bere adineko adiskiderik ezin zuen izan, neska mindulinak basakeriak esanez **uxatzea** gustatzen zitzaion eta. Josu Zabaleta

Handik gutxira utzi zion Baby Suggsi mutilak **uxatzen**. Anton Garikano

Umeak **uxatu** eta etxea desegin. Anton Garikano

Zenbat eta txakur gehiago, orduan eta errazago **uxatzen** dituzu etsaiak. Oskar Arana

Biltegioko eta bulegoko katua da, salgaien biltegietatik arratoiak **uxatzen** dituen. Josu Zabaleta

Comalako karrika bakartiak ibili zituen, zaborretan usnaka zebiltzan txakurrak **uxatuz** bere urratsekin. Juan Garzia

Izutu eta **uxatu** ez ezik, gizonak mututu ere egin ditu txoriak, jaun Martinen belarri-jakintza miragarriak piztu dizkigun hots horiek denak txio bakarrera bilduaz. Iñaki Seguro

Aldamenetik begira dute gizona, mirestekoa da ahalegina, pentsatzen du, txorimaloa bele beltzak **uxatu** nahian. Imanol Zurutuza

Gari-sailetik **uxatutako** galeperrak bezala sakabanatu ziren turistak. Jon Muñoz

Bertako nagusi ugazabak etxeari hiru itzuli-jira ematen zizkion inguruko pizti eta suge-ziraunak **uxatzeko**. Pello Zabala

Mahatsondoetan euliak **uxatzen**. Anton Garikano

Baina **uxatutakoak** ez ditugu gehiago eskuratuko: haiek galdu dira hor nonbait. Pello Zabala

2 (bestelakoak)

Burua astinduz, fantasmak **uxatu** eta inguruan daukana ikusten du: artalde bat, [...]. Bernardo Atxaga

Samuelek bi eskuak baliatu zituen kea **uxatzeko**. Anjel Lertxundi

Begiradak bereganatu beharrean **uxatu** nahi zituela esan zitekeen. Karlos Zabala

Argi berri bat jaitsi zela zerutik lurrera, lurralde hura guztia estaltzen zuten ilunpe beltzak **uxatzeko**. Askoren artean

Eguzkia erdi ezkutatu denean eta haize hotza epeltasuna **uxatzen** hasi baino lehen. Anjel Lertxundi

Buruari eragin nion, izu-laborria **uxatu** nahiz. Alberto Ladron Arana

Aberastasuaren kezka logura **uxatzen** du, eta azkenean osasuna hondatzen. **Elizen arteko biblia**
Zorura begira gelditu zen Alkorta, buruari geldiro eraginez, zalantzak **uxatu** nahi eta ezin. **Migel Angel Mintegi**
Orduan ez dio axola ez justiziak ez esker txarrak; ezin **uxatu** dira sentimenduak. **Josu Zabaleta**
Honezkeru **uxatuko** ahal zenuen etsipen goibela. **Mirentxu Larrañaga**
Gauza hoberik ez eguneko lan serioa hasteko, iragana **uxatzea**, joka. **Anton Garikano**
Asperdura **uxatze** aldera piramideetan gora eta behera ibili ondoren [...]. **Joxe Austin Arrieta**
Etxearen giro lasaian bazen senarraren fede sakonak ere ezin **uxa** zezakeen tristeziako eta malenkoniako halako aire bat. **Patxi Zubizarreta**

3 (-tik atzikiarekin)

Hotz sarkorrak **uxatu** egiten zituen oinezkoak karriketatik. **Alberto Ladron Arana**
Ahalegin handiak egin behar izan nituen plateretik **uxatzeko**. **Koro Navarro**
Zuzendariak kalma zuria nahi dute, istripuek **uxatu** egiten dituzte bezeroak ostatuetatik. **Koldo Izagirre**
Habitatik **uxaturiko** txorikumeak dirudite Moabeko bizilagunek, Arnon erreka pasabideetan. **Elizen arteko biblia**
Hemen nago-eta ni, txakur guztiak zure ondotik **uxatzeko** -esan nion. **Pedro Alberdi**
Bota heure bihotzetik kezka, **uxa** heure gorputzetik gaitza, gaztetasuna eta gaztaroa agudo joaten baitituk. **Elizen arteko biblia**
Ezin **uxatu** burutik garrasi eta deitore haien oihartzuna. **Imanol Zurutuza**
Hori dena nire gogotik **uxatzen** saiatzen ari nintzen, nekez ordea. **Jon Muñoz**
Nonbait, espero zuen ni altxatu eta harrika hasiko nintzaia jende haiei, ahuntz-talde bati bezala, guregandik **uxatzearren**. **Joxe Austin Arrieta**
Reimseko Artzapezpikuak emakume baten baitatik **uxatu** zuen deabru batek kaleetan barrena ihes egin zuen. **Xabier Olarra**
Uxa ezazu, Jauna, nigandik zorakeria hau! **Imanol Unzurrunzaga**
Haien barnean ezer arrisksurik lekutu ez zedin eta zabarkeria oro haien bihotzetatik **uxatzeko**. **Askoren artean**
Delitu txikiagoen zigor publikoak, norberaren gogotik hurbilago geratzen denez, eragin egingo dio, eta delitu txikietatik **uxatuko** du eta, zer esanik ez, handietatik. **Juan Martin Elexpuru**

4 (-ra atzikiarekin)

CERN laborategia 1954. urtean sortu zuten Europako 20 estatuk, Bigarren Mundu Gerrak Ipar Ameriketara **uxaturiko** zientzialariak bueltan erakartzeko. **Berria - Gaiak**
Baina Jaunaren aingeruak, Azarias eta lagunengana labera jaitzirik, sugarrak kanpora **uxatu** zituen. **Elizen arteko biblia**
Weasley andrea patioan zehar zetorren, oiloak alde bietara **uxatuz**. **Iñaki Mendiguren**
Jesus Nazaretekoak zerri talde batera **uxatu** zituen gizon bat hartua zuten deabruak. **Xabier Olarra**
Ingelesak bezala, "ez ginen konturutzen", hauteman gabeko edo bertan gezurtaturiko gauzen linbora **uxatzen** genituen mehatxu guztiak. **Juan Garzia**
Gozarazi zeure burua, poztu bihotzondoa, **uxatu** urrutira tristura. **Elizen arteko biblia**
1521 hartako udazkenean, errege Henrikearen aldeko leialek, ezpata-ukaldika, Belatze eta Ibañetaz harata **uxatu** zuten berriz etsaia. **Aingeru Epaltza**

5 (adizlagun eta kidekoekin)

Ukabilka **uxatu** nahi nituen adimenetik inguruan zebilzkidan zaborkeria haiek guztiak. **Imanol Unzurrunzaga**
Ostikoka **uxatu** nuen, ardi-larruaren azpitik atera bidenabar hogeit bat egun lehenagoko oparia. **Aingeru Epaltza**
Eta hala bada harrika **uxatuko** dugu. **Patxi Zubizarreta**
Tiroka eta gezi-jaurtika **uxatu** zuten Lapiteagako etxalde batetik, ardi batzuk biltzeko asmotan hara hurbilduta. **Aingeru Epaltza**
Zaldizainen egitekoa zen haiek garrasika **uxatzea** eta itsasora bidaltzea. **Patxi Zubizarreta**
Zertara zatozkidate, zeuen arteik bekaizkeriaz **uxatu** nauzuenok? **Elizen arteko biblia**
Aurpegian islatzen zaion tristezia ez da dantzan eginez **uxa** daitekeena. **Aritz Gorrotxategi**
Bat-batean **uxatu** zitzaidan umore txarra eta erabaki nuen beste orubete egon nintekeela bertan itxoitzen. **Joxemari Iturralde**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beldurra uxatu (4); **beldurrak uxatu** (5); **berehala uxatu** (7); **burutik uxatu** (7); **erabat uxatu** (5); **handik uxatu** (3); **kezka uxatu** (5); **mamua uxatu** (6); **mamuak uxatu** (8); **mamuak uxatu ditut** (3)
uxatu beharrean (4); **uxatu ezinik** (5); **uxatu nahian** (11); **uxatu nahirik** (5); **uxatu nahiz** (4); **uxatu omen** (3); **uxatu ondoren** (3) zalantzak uxatu (27); **zalantzak uxatu zituen** (6); **zalantzak uxatu zituzten** (3)
beldurrak uxatzeko (4); **mamua uxatzeko** (3); **uxatzeko moduko** (3); **uxatzeko modurik** (3); **zalantzak uxatzeko** (11)
beldurra uxatzen (3); **burutik uxatzen** (4); **euliak uxatzen** (5); **kezka uxatzen** (4)
uxatzen ahalegindu (7); **uxatzen ahalegindu nintzen** (3); **uxatzen ahalegindu zen** (3); **uxatzen saiatu** (5); **uxatzen saiatzen** (3)
zalantzak uxatzen (3)

uxatzaile 1 *izond/iz* aipatzen dena uxatzen duena.

Izan ere, kaltea, nahiz eta txikia, ezinbestekoa denean, giza grinan **uxatzaile** da, eta, aldiz, itxaropena [...] arriskuaren idearen urruntzaile. **Juan Martin Elexpuru**
Are maizago orain, futbolaren aipamen soila gogoeta beltzen **uxatzaile** hutsezintzat hartuko balute bezala. **Iban Zaldua**

2 (hitz elkartuetan gailua adieraziz)

Osaba Kamilek aulki batean esertzeko usadioa zuen, bere denda-zuloaren atarian, eta lozorroan egoten zen, euli **uxatzailea** bularraldean hartua. **Patxi Zubizarreta**

uxatzearren *adlag* uxatzeko.

Eta ohean, gainerako pentsamenduak **uxatzearren**, Virginiaren irudia bilatzen nuen oroimenean. **Bernardo Atxaga**
Irudipen horiek guztiak burutik **uxatzearren**, askotariko ipuin lasaigarriak kontatu dizkiot neure buruari. **Mirentxu Larrañaga**
Oportunismoaren susmoak **uxatzearren**, esan behar da orain dela urtebete estreinatu zela. **Berria - Kultura**
"Txorakeriak" esan zion bere buruari mamu haiek **uxatzearren** eta bere burua lasaitzearren. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Bihotzetatik zalantza oro **uxatzearren**, zauri haiek garbi ikusi zituztela zin egin zuten Liburu Santuaren gainean. **Askoren artean**
Nonbait, espero zuen ni altxatu eta harrika hasiko nintzaia jende haiei, ahuntz-talde bati bezala, guregandik **uxatzearren**. **Joxe Austin Arrieta**

uxatzeke *adlag* uxatu gabe.

Bertan teologia eta filosofia biak elkar hartuta hazi ziren, fedea **uxatzeke**, arrazoiaren autonomiaren garapen-giroan. **Askoren artean**

uxatzeko *iz* aipatzen dena uxateko gailua.

Eulirik gabe, ez da euli-**uxatzekorik**; euli-**uxatzekorik** gabe, ez da Alger-eko deirik ez kontsulik. **Juan Garzia**

uxer iz epaitegietako enplegatua.

Nahi zuten bestalde xeheki ikertu "Apezpikuen presondegia", Sauveur Harruguet **uxer** edo auzitegiko idazkariak 1920. urteetan gisa horretan deitu zuen misteriozko barnea.

Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Orduan bai txintximariak, oihu eta garrasiak, irain, laido eta erasoak, sozialistak bere alkietarik joanik, denak bilduak beheeran, Lege Biltzarreko **uxerre** muga bat egiten zutela beren gorputzekin. **Herria**

Denak [...] talendu handiz arizan dira, Mailuxa Alzuri jujea, Janine Harignordoquy **uxerra**, Jeannot Etcheverry apeza eta bertze guziak. **Herria**

Uxer batekin doa langileekin hitz egitera. **Berria - Ekonomia**

Gogoratzekoa da SNCF konpainiaren eskariz Gorka Torrerri etxeko ondasun batzuk bahitu zizkiola **uxer** batek, kalte-ordain gisa salmentan ezartzeko. **Berria - Euskal Herria**

Uxer batek gogoan du oraindik ere nola entzun zion epaia eman zutenean: [...]. **Josu Zabaleta**

Hor dabilta bulegari **uxer** eta adjuntuak, / alprojen lanpostuetan, jende xeheak pagatuak. **Xabier Olarra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

uxerra etorri (3)

uxiatu

Eta zakurra **uxiatzea**? **Iñigo Aranbarri**

uxkaili ik **uzkaili**.

uxkara ik **euskara**.

uxkur ik **uzkur**.

uxkurtu ik **uzkurtu**.

uxkurtxo ik **uzkurtxo**.

uxo¹ ik **uso**.

uxo² ik **izar 16**.

uxol iz uharrak eraginiko erreka.

Eta hantxe, bi **uxol** urtsu eta orrotu elkartzen diren zubi-gunean, pasa genuen ordu pare gogoangarri bat. **Txillardegi**

Polliki-polliki igotzen ginen, Garaziren hatsa neure ondo-ondoan aditzen nuelarik; eta **uxolen** orroa hazkorrak inguratzen gintuen bitartean. **Txillardegi**

Bederatzi egunotan zehar **uxolen** burrunba etengabe hura entzun ondoren (eta bederatzi gauetan zehar ere bai; leihoak zabalik egiten baikenuen lo, hotzari jaramonik ez eginik), Cauteretstik etorrta ere, hilabetetan entzun nuen nik ur-burrunba bera. **Txillardegi**

uxotxo ik **usotxo**.

uxtartze-laxo

Bigarren zatia hasi eta berehala egin zuen Rodriguezek partidako entsegu bakarra, **uxtartze** -laxoan bultzaka; Baiona jokalaria bat gutxiagorekin ari zen. **Berria - Kirola**

uxter 1 izond samurra.

Uxterrago, goxoago nolazpait, legunago, hori erraiten ahal ere batere deus zailik edo latzik ez duen zerbaitentzat. **Herria**

Zure begiek gogor behatu zidaten orduan, baina baita urrikiz ere: behako bihozbera bat zen... behako **uxter** bat, bai, bere gogorrean. **Joan Mari Irigoien**

Orduan erraza dena da biguna, **uxterra**, leuna, hauskorra, gozoa, amultsua eta horiek denak. **Iñaki Segurola**

Euria **uxterrago** izanen da. **Herria**

2 (adizlagun gisa)

Ez anaiarekin baketzeko asmotan eta ez harekin bihozbera eta **uxter** jokatzeke dispozizioan, baina eztitasunik gabe eta mendekos. **Joan Mari Irigoien**

uxtiatu ik **ustiatu**.

UXU ik **usu**.

uxual *(orobat uxual g.er.)* 1 iz pattarra, eskuarki merkea.

Nevadan, aldiz, ez omen zieten oztoporik jartzen pattar eta **uxuala** saltzen zuten tabernei. J.M. Olaiola "Txiliku"

Uxuala aterako dizut kemena berreskuratzeko. Harkaitz Cano

Gero, zerbitzaria etorri zen bermuta eta **uxuala** ekartzera. Xabier Olarra

Ez, ez dut digestiborik nahi, horixe da jatetxeen herriak pattarren, **uxualen** eta koñaken leinuari ematen dion izena. Jon Alonso

Pozoi nahiz **uxual**, kolorea eta gustua gorabehera, antzekoak dira denak, ez zaizu iruditzen? Harkaitz Cano

Tarte luzez, **uxualaren** zintzur-tutuan beherako jarioa izan zen hots bakarra. Harkaitz Cano

San Esteban katedraleko inguruetan berriki irekitako taberna ke eta aire ustelduz betetakoetan pilaturik, **uxual** bortitzak edaten zituzten, beren aberriaren zorigaitzoak aztoratu eta goibeltsen baitzituen. Xabier Olarra

Rothek aitortu omen zion Morgensterni nobela bat idazteko lehen ausarkeria puntua **uxual** on batek eman ziola. Matías Mujika

2 (neurriekin)

Jubilatuak tragoxka kendu zion kafeari, hotsaz xurgatuz, eta gero aurrean zeukan kopa **uxualaren** erdia edan zuen, Aaaa egin zuen, eta irakurtzen segitu. Jon Alonso

3 (hitz elkartuetan)

Mirande **uxual** botila eta bi godalet zekartzala itzuli zen gelara, eta Isabelleren ondoan eseri zen, hiru gorputzeko sofa berdean. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

uxual botila (5)

uzbek ik **uzbeko**.

uzbekera iz uzbekoen hizkuntza.

Soinu haiek entzunda, kazakheraz hasi zen kantatzen emakume gazte bat, eta hain ongi egin zuen, non **uzbekeraz** mintzo zirenek ere, kanta hura amaitzean, kotoi-uztaren sasoiko kanta ezin zirraragarriagoa abestu zuten *a capela*. Josetxo Azkona

uzbekiar *(orobat uzbektiar g.er.)* 1 iz uzbekoa.

Taldea «txetxeniarek, ingushek, kazakhstandarrek, **uzbekiarrek**, arabiarrek, errusiarrek eta beltz batek» osatzen zuten. Berria - Mundua

Ustez Al Kaedarekin trebatze zelai batean zeuden txetxeniar, **uzbekiar** eta beste atzerritar batzuk dira hildako gehienak. Berria - Mundua

2 izlag uzbekoena, uzbekoei dagokiena.

Khudaykul Ibragimov (frantsesa dakiena), **uzbekiar** musikan aditua, Uzbekiztaneko aurkezpena egiten ahal duena ere. Herria

uzbekistandar izond/iz Uzbekistangoa, Uzbekistani dagokiona; Uzbekistango herritarra.

6-2, 6-3 eta 6-2 irabazi zion Denis Istomin **uzbekistandarrari**. Berria - Kirola

Pakistango Armadaren arabera, 50 bat gerrillari hil zituzten, horietako zortzi «**uzbekistandarrak**, txetxeniarrak eta arabiarrak» zirirelarik. Berria - Mundua

Kirgizistango iturrien arabera, 550 **uzbekistandar** errefuxiatu dira herrialde hartan. Berria - Harian

uzbeko *(orobat uzbek)* 1 izond/iz Uzbekistanen bizi den turkiak herria dagokiona; herri horretako kidea.

Miliziaburu **uzbekoa**. Berria - Mundua

Zaldi **uzbekak** ez zeuden prestaturik, eta Mikel Strogoffek alde pixka bat kendu zien destakamenduko zaldizkoei. Karlos Zabala

Tadjikoen, **uzbekoen** eta hazaren hizkuntza gutxituak ere ofizialak izango dira etnia horiek nagusi diren lurraldeetan. Berria - Mundua

Uzbenen destakamendua berrogeita hamar pausora baizik ez zegoen. Karlos Zabala

Muxel **uzbekoaren** errimoz beteriko Tocatta. Berria - Kultura

2 (izen baten ezkerrean)

Abdul Rashid Dostum **uzbek** etniako burua, Junus Kanuni Hezkuntza ministro ohia eta Mohammed Mohakik buruzagi xiita. Berria - Mundua

uzbektiar ik **uzbekiar**.

uzetaka *adlag* jarraika, atzetik joaten.

Katuari **uzetaka hasi** ziren. Gotzon Garate

Guri **uzetaka hasi** zen. Gotzon Garate

Leopardoa haserretu, jauzi egin, pozaderatik atera eta jendeari **uzetaka hasi** zen. Gotzon Garate

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

uzetaka hasi (4)

uzi 1 iz pretentsioa, nahikaria.

Guk ere badugu ilunpe hiperrargitsu horretara heltzeko **uzia**. Joan Mari Lekuona

Aldaketa hau, beraz, eskolen **uzi** harroei buruzkoa baino ez da, zeren eskolok honetan ere (bidezki, beste puntu askotan bezala) halako egien zaindari eta ezagutzaile bakartzat har ditzaten nahiko bailukete. Ibon Urbarri

Denborari errealitate absolutuaren **uzi** oro ukatzen diogu. Ibon Urbarri

Enpiristak honekin aski izango balu, diot, orduan bere oinarri-esakunea **uzietan** neurritasuna izateko maxima litzateke. Ibon Urbarri

Erabat bestela gertatzen da kontua bere hiritar lagunen **uziek** osatzen dutenean, ez epailearen zentsurak, eta **uzi** hauen aurka babestu besterik egin behar ez duenean. Ibon Urbarri

Nork bere kausa gidatu behar du froga-oinarrien dedukzio transzendentalaren indarrez bideratutako legezko frogaren bitartez, h[au] d[a], zuzenki, honela arrazoimenaren

uziek beren alde zer aipa dezaketen ikusteko. **Ibon Uribarri**

2 (hitz elkartuetan)

Baina hemen kontzeptuaren historiara mugatuko gara, eta apunte batzuetara bakarrik, esaustibotasun **uzirik** gabe. **Joxe Azurmendi**

Onberak izan behar dugu, bere eskubide-**uzien** gabezia osatzeko. **Ibon Uribarri**

Lehenari, eskuduntza edo zuzenbide-**uzia** aurkezten duenari, dedukzioa deitzen diote. **Ibon Uribarri**

uzina ik **usina**.

uzkailarazi, uzkailaraz, uzkailarazten (*corpusean **uzkalarazi** soilik*) du *ad* uzkailtzera behartu.

Beren vedetara sar-arazi dituztelarik guardek etorkin batzu, hauk, xutiturik, eta balantzaka hasirik, untzitto **uzkalarazi** dute bere barneko guziekin. **Herria**

uzkaildu ik **uzkaili**.

uzkaili, uzkail, uzkailtzen (*orobat **uxkaili g.er.**, **uzkaldu g.er.**, **uzkali eta uzkaildu g.er.***) 1 da/du *ad* irauli, azpikoz goratu.

Gure beharren egiteko untzia, bagoiaren erdi erdian zena, **uzkaili** zen, eta barnekoa, ondoan etzanik zeudenen gainera ixuri. **Marzel Etxehandi**

Belarretan ari zelarik gune patartsu batean, trakturra **uzkaili** zaio Fagaldeko Pantxix Harispuru gazteari, azpian hartuz laborari dohakabea. **Herria**

Hor gaindi zabilan donazahartar neska gazte baten autoa **uzkaili** da eta lau errotak airean gelditu. **Herria**

Lerroka jartzen ziren gizonak, pikotza eder bat eskutan, eta, neurrian, denek batean, altxatzen zuten eta gero lurra **uzkailtzen**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gaingan jartzen zitzaidan oldarrean, ni bizkarrez atzera **uzkailiz**, eta oihuka hasi ginen bozkario eta plazer betean biok, hain geunden zoriontsu. **Joxan Elozegi**

Jaikitzerakoan, aulkia **uzkaili** nuen. **Joxe Austin Arrieta**

Autoa bat-batean **uzkaili** da eta 200 metretan barna erroiztu behereko errekaraino. **Herria**

Karroa eta zaldunen segida iritsi zirelarik, jende andana batek baztertu behar ukan zuen, kasik **uzkaili** baitzituzten. **Elena Touyarou**

Hondartzan, ontzi batzuk **uzkailiak**. **Aurelia Arkotxa**

2 (gauza abstraktuekin)

Bazegoan Cesare Cremonini zeritzan bertze gizon jakintsu bat [...] teleskopiotik behatzerat ere ausartu ez zena, sinesten zuen mundua irauli eta **uzkailiko** ote zitzaion beldur. Bi puntuzko ondasuntsu, Bidasoaz bi aldeetan mugakide, hendaiarra bata eta irundarra bestea, arma kontrabandotan ari Madrilako gobernua **uzkailtzekotan**. **Joan Mari Irigoien**

Egun, monarkia feudala **uzkailtzeko** desira eta aldarrikapena gizarte osora zabaldu da. **Berria - Mundua**

Jakobino sutsuenean Pariseko boterea **uzkaili** eta politikoki haiek in ados ez ziren guziak garbitu gogo omen zituztelako zurrumurruei sorraio. **Elena Touyarou**

Nahi ukan zuten haiek ere Madrilan berdin egin, erran nahi baita Fernando VII. errege absolutista **uzkaili**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Helduden iraileko bozketan ezartzen du bere mentura, mementoan galdua duen maioriaren berriz bere alderat **uzkailtzeko**. **Herria**

3 (era burutua izenondo gisa)

Baleki-bale begiratzen nien bide bazterreko hesi eta sasiei ere, ea ez nuenetz auto **uzkaili** bat han edo hemen ikusiko. **Daniel Landart**

uzkaldu¹, uzkal, uzkaltzen du *ad* lotu, estekatu.

Sukalderat joan nintzen, eta bortz guardiak ikusi nituen, aulkietarat gogortki lotuak eta **uzkalduak**. **Joan Mari Irigoien**

Motorrean bi lagun ikusiko dituzu, atzekoak altzoan lasai asko txahal ttipia hanka-besoak **uzkalduta** daramala. **Gotzon Garate**

uzkaldu² ik **uzkaili**.

uzkali ik **uzkaili**.

uzkar ik **uzker**.

uzkarti ik **uzkerti**.

uzker (*orobat **uzkar g.er.***) 1 iz puzkerra.

Uzker handia bota zuen irten baino lehen, hanka zakurren moduan jasota. **Koldo Izagirre**

Hitz horiek entzutean, agurea igo da asto gainera eta, ezustean, **uzker** pozointsu bat jaurti du. **Patxi Zubizarreta**

Uzker eta kee arteko paraje honetatik geroago eta gaizkiago konprenitzen diat mundua. **Patziku Perurena**

Kartzela hau politikoz bete dagoela esaten diedanean **uzker** urtika egiten dute barre ni baino lotuago dauden ergel hauek. **Koldo Izagirre**

Hutsa, **uzker** izatera ere iristen ez den putza. hura bezalako ipuin ergelek lortu egiten zuten etsaiaren uzkitik ateratako azken **uzkerra** senti gintezen. **Joxerra Garzia**

Umei hain beharrezkoa dutena ematea ez dela ahuntzaren **uzkerra**. **Jon Maia**

'Bizitza, kakaz betetako belaontzia da txizazko itsasoan **uzkerren** haizeak bultzatua! **Joseba Sarrionandia**

- **Uzkerrik** asko, jauna. **Koldo Izagirre**

2 irud/hed ik **putz**.

Patarrari goiti, kamiunttoa alde bat eztul eta **uzker**, iduri ez zela sekulan gaineraino helduko. **Janbattitt Dirassar**

uzkerka 1 *adlag* uzkerak botatzen.

Hantxe dago Herrera abadea, harritua eta aldi berean pozarren, aitaren egiten duela, edo eskuak zeruaz jasota Jainkoari **uzkerka** edo. **Koldo Izagirre**

-*Andate a spasso!* -esan dio, **uzkerka** ariko balitz bezala, italtzeraz. **Anjel Lertxundi**

2 irud/hed

Motor berria zekarren astero, Ducati urdin batean **uzkerka** ikusi nuen igande batez hiriburua alderantz zihoala, Marie Brizard likorerako pare horretan. **Koldo Izagirre**

Tuboeskapatik **uzkerka**. **Paddy Rekalde**

Banentorren ni bakarrik neure Polikarpov I-16 xaharreakin basera, motorra **uzkerka** eta hiru Heinkel-ek metrailatutako fuselaje erdia zulaturik **Koldo Izagirre**

uzkerti *(corpusean uzkartil soilik) iz* puzkertia.

Uzkarrak bota zituen **uzkartiak**, eta puzkarrak puzkartiak, baina hatsa berdina zen. **Iñaki Arranz**

uzki 1 iz digestio hodia amaitzen den irekigunea, ipurmamien erdian dagoena. ikipurtzulo.

Hemorroideak **uzkitik** kanpora ateratzen dira eta odola isurtzeaz gain, azkurea eta mina ere eragin dezakete. **Berria - Gaiak**

Txuringa ongo bigundua eta **uzkia** blai eginda neuzkanean, Satanek txakurka jarri ninduen. **Aitor Arana**

Ondoren mugimenduok beherago jo zuten **uzkiaren** uzkurdura probokatuz. **Unai Iturriaga**

Nire **uzkian** hondoratu ahala, intzirika hasi nintzen, atseginez eta beldurrez. **Juan Martin Elexpuru**

Buruu makurtu eta **uzkia** milikatzen hasi zitzaidan. **Aitor Arana**

Orduan, mingaina bagina sarreratik **uzkiraino** pasatzen hasi zitzaidan. **Juan Martin Elexpuru**

Orain bere ahoa dabil nire sexuan, gora eta behera, **uzkitik** klitorisera arteko zirrikitu guztiak arakatuz. **Juan Martin Elexpuru**

Ttu egin nion **uzkian** ugari eta laster zegoen ene buztana zulo berrian sakon sartuta. **Aitor Arana**

Badakik hik ukuiuletako jenio hori, Akerbeltz, bazela akelarreko apaiz burua ere, eta akelarreetara joaten ziren emazte guztien potak jasotzen zituela **uzkian**. **Anjel Lertxundi**

Atzean lau brui jarri zitzaizkidan, **uzkitik** bazooka bat ateratzen baldin banuen nire lepora jauzi egiteko prest. **Koldo Izagirre**

Uzkiko koitua. **Luis Elberdin**

Koitoan -baginakoa nahiz **uzkikoa** -gizonak ez du zakilaren mugimenduen kontrolrik. **Luis Elberdin**

Zakur arrak **uzkia** usaintzen zioak zakur emeari, eta ezerk ez dik naturaren bidea eragozten. **Anjel Lertxundi**

Nire engainatzeaz gatzigatzeko baten bati **uzkian** ostikoa eman niolarik ez zen den mendrenik ere mugitu. **Itxaro Borda**

Astoari hesteak **uzkitik** ateratzeko ahaleginetan ziharduten. **Joxe Austin Arrieta**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Masturbazioa, **uzki**-koitua, lesbianismoa edo homosexualitatea -ugalketarik gabeko jarduerak guztiak- gogor jazarri eta kondenatuko dira. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Haren zakila sentitu nuen nire **uzki** ingurua ikutuka. **Juan Martin Elexpuru**

Uzki -ertzak igurtzi arte. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Bada esan duenik koito modu hori hautzaroko garapen psikosexualeko **uzki** aroan geratu direnen obsesio patologikoa dela. **Luis Elberdin**

Antzarakume lumatsiak baillirakete **uzki**-garbitzailerik onenak. **Joan Mari Irigoien**

Soldadu zaharrenek **uzki**-zorra kitarazi nahi izan ziotean. **Aingeru Epaltza**

Nola Larrearen soldaduekin etortzekoa zen Garrüzera, nola **uzki**-zorra ordinarazi zioten. **Aingeru Epaltza**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Pozik ikusiko nioan aurpegia, bai horixe, ikazkin **uzki**-hozki hori popatik hartzera bidali huenean! **Anjel Lertxundi**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ezagutu ditudan guztiak hain jainko-**uzkiak** izan beharra ere! **Anjel Lertxundi**

5 ipurdia.

Hori kiratsa, zerrri baten **uzkia** jan duk, ala? **Anjel Lertxundi**

Asto hilari **uzkitik** oloa dario orain? **Aingeru Epaltza**

D'Annunzio bezalako poeta kaskalek eskainiko dizkiote **uzkira** etorritako bertso-putz guztiak Fiume izeneko gezur handiari. **Anjel Lertxundi**

Auzo puta honek **uzkiko** zulotik ematen du gero! **Urtzi Urrutikoeetxea**

Haren bular balantzariak, haren lepo lodia eta partikulazki hain trebeki eskaintzen zidan haren **uzki**-zuloa. **Itxaro Borda**

6 irud/hed

Sekula ez zaidak-eta gustatu jendearen miserien **uzkian** hatza sartuz bitzta aurrera ateratzen duen jendilajea. **Anjel Lertxundi**

Munduaren **uzkian** gaudek eta ipuin batek zioak zulo honetan ospatuko dela Azken Judizioa! **Anjel Lertxundi**

Bergarako mendi zoko honetan, munduaren **uzkian**. **Koldo Izagirre**

Horregatik, Rio Mundo esaten diote paraje horri, munduaren **uzkiari**. **Jon Maia**

Zulo batean nagok, bertzalde, eta zulo batean dagoenak ez dik zer galdurik baldin bertze zulo baterat badoa, ezta munduko **uzki**-zuloat badoa ere. **Joan Mari Irigoien**

7 uzki barne *(corpusean uzkiabarne soilik) iz*

Orgasmoa izaten hurrengoa Antonio izan zen eta, potroak ongi goratuta, hazi txuria emearen **uzkiabarne** ilunean utzi zuen, Joxemariarenekin nahasirik. **Aitor Arana**

8 uzki-estu *(orobat uzkiestu) izond* uzkia estua duena.

-Oso **uzki-estua** haiz, Onan -esaten zidan, ni animatu nahian-. **Aitor Arana**

Lehenago sarri ibiliak ginen eta Antoniok bazekien zeinen **uzkiestua** nintzen eta hartua izaterakoan jasaten nuen minak sorrarazten zidan deserosotasuna. **Aitor Arana**

9 uzki-pitxer jan-txakurra.

Horregatik esan ohi zuen errektore gorrotagarri hark inoren kontura bizizale ziren **uzki**-pitxer guztiak. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

uzki koitua (8); **uzki zorra** (4)

neskaren uzkia (3)

ene uzkian (3); **munduaren uzkian** (3); **nire uzkian** (4); **uzkian ipini** (3)

uzkiko koitua (11)

uzkitik atera (3); **uzkitik sartu** (4)

uzkialde iz

 uzkiaren aldea.

Hor hasten dira agertzen, zirriborroan, burua izatekoa, bere begi, baraila eta antenekin; toraxa izatekoa, hegal pare batekin eta hiru hanka parerekin; abdomena izatekoa, bere

uzkialdearekin.

Juan Garzia

Ez dakit nondik, K-Y tubo bat atera zuen, tapoia kendu, mordotxo bat esku barrura bota, bere zakila igurtzi eta nire **uzkialdea** ferekatzen hasi zen, ferekatzen eta astintzen, ni gero eta berotuago nengoen. **Juan Martin Elexpuru**

uzkibarne ik **uzki 7**.

uzkiera *iz adkor* uzkiaren mintzaera.

Zer konfiantza-klase eskuratuko du **uzkiera** beste hizkerarik ateratzen ez zaion batek? **Anjel Lertxundi**

uzkiestu ik **uzki 8**.

uzkin *iz* uzten den gauza.

Halanola udan txitarrek tunika xumeak uztean eta txahal jaioberria gorputza inguratzen dion mintzetik jaretean, baita suge labainak sasitzan soinekoa uzten duenean ere; sasiak maiz ikusten baititugu haien **uzkin** hegakorrez jantzita. **Xabier Amuriza**

uzkinazo *iz* belearen familiako hegaztia, hegaletan zerrenda urdinak dituena, zaratatsua, ezkurrez eta elikatzen dena (*Garrulus glandarius*).

Zuhaitzen azpian ez naiz luzaz egon, laster hozturik; jarria nintzen bi erroen artean airatu delarik **uzkinazoa**, haurtzarotik ezagutzen dudana marrazten eta ere margo biziek erakutsia. **Piarres Aintziart**

Uzkinazo zozo hura. **Itxaro Borda**

Uzkinazoek uzta-landatik ebatsi ogi-buruak brosta zokotaraino zeramatzen. **Pablo Sastre**

uzkiratu, uzkira(tu), uzkiratzen da/du *ad* uzkira joan; uzkira eraman; uzkitik eman.

Honek, bitartean, masturbatzen jardun du tentetasuna ez galtzeko; seinale baten zain balego bezala, gizonak kate bat askatu du, orduan buelta hartu du bikote txortolariak, neskari eskuak lotu dizkiote katez atzean, eta bien artean jaso dute, eskulotua eta errukigabe **uzkiratua**. **Juan Martin Elexpuru**

uzkiratzaile *izond/iz* uzkiratzen duena; uzkitik ematen duena.

Alukoa korritu egin da, zakila atera du, eta **uzkiratzailearen** menpe utzi du biktima; ohe gainera eraman du panpina bezala, eta ipurditik ematen karraitu zaio, bere nahikundearen indar guztiaz, esku bat potxotzeko arrakalan sartzen dion bitartean. **Juan Martin Elexpuru**

uzkitxo *iz adkor* uzkia.

Maiteren gorputz ederra ikusten nuen; bere potxon gorriska, ipurdi zuria eta **uzkitxo** iluna. **Aitor Arana**

uzkorno *iz* bizkarrezurreko azken ornoek osaturiko hezurra. ik **kokzix**.

Kima zuri eta **uzkorno** galantarekiko bat badut neure. **Itxaro Borda**

uzkur 1 *adlag/pred* atsegina ez den egoera batean halako nagitasuna edo atzera egiteko gogoia agertzen duela. ik **herabe**.

Nik **uzkur** baina abegikor ikusi nuen, bere onean edo tentuan nolana ere. **Joxean Agirre**

Etorri bezala, iheskor, **uzkur** eta itzalgaizka ikusi nuen, bere poltsa beltz zimurra magalean estutuz. **Joxean Agirre**

Topatu genuen hurrengoan **uzkur** sumatu genuen, artega, baina gurekin geratu zen poteoan. **Iban Zaldúa**

Mendekoa gobernuaren nahia betetzeko **uzkur** agertzen denean. **Iñaki Mendiguren**

Badirudi sinatzaileen erabakitasunak orain arte **uzkur** jokatu duten hainbat estatuak mugitzera bultzatu dituela. **Berria - Gaiak**

Ni neu hura guztia sinesteko **uzkur** nengoen. **Txillardegi**

Norbaitek tapakia kendu eta agerian utzi zuenean esnatu zen beltza, bazter guztietara **uzkur** begira. **Iñigo Aranbarri**

'Jainko bihozbera eta errukiorra' zarela zu, 'haserterako **uzkur** eta barkatzeko prestu'. **Jose Antonio Mujika**

-Inoren bila zabilta? -galdetu zidaten **uzkur**. **Koldo Izagirre**

-Ez dakit ba nik -erantzun dit **uzkur**-. **Txillardegi**

Josteko makinaren ondoan gelditu naiz, **uzkur**. **Koldo Izagirre**

Stanek, **uzkur**, egunkaria utzi zuen. **Iñaki Mendiguren**

Berau, herabea berez eta nortasunez, jendetzaren erdian ibiltzeko **uzkur**. **Jon Alonso**

Lotsaturik banengo bezala portatu naiz, apal, **uzkur**, etsi plantako. **Koldo Izagirre**

Itzal bat ikusten duk asfalto alderik alde gurutzatzen, **uzkur**. **Joxerra Garzia**

Ni isil-isila nagokio begira, **uzkur**, goibel, lotsaturik. **Patxi Zubizarreta**

Gazteek ez diotela entzungo eta erantzungo beldurrez **uzkur**, izuti. **Pako Aristi**

Batzu bero, besteak **uzkur**. **Herria**

Jarrera kili-kolo, arnasa goratua, gihar guztiak **uzkur**, besoak dardaraka. **Jon Muñoz**

Neba-arrebak **uzkur** ziren hasierako garai haietako borroka handietan alabaordea erdeinatu ere egin zuen gizon batengana laguntza eske jotzeko. **Oskar Arana**

Badakit zonbaitzuk beldur-eta... **uzkur** direla horrekin. **Menane Oxandabaratx**

Garai hartako jendea ez zela batere **uzkur** harat eta hunat ibiltzeko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ideietan ausarta eta ekintzetan **uzkurra**. **Joxe Azurmendi**

Zeren beldur zarete, **uzkurrok**? **Patxi Altuna**

«Bakartia eta **uzkur** samarra» dela dio bere buruaz, baina goxoa da hizketan. Berria - Kultura

2 (beste adizlagun batekin)

Ez da gai, ez du gogorik ere, eta arunt **uzkur** bilakatzen da, **uzkur**, herabe edo agresibo, bestea ezin suportatuz. Filipe Bidart

Jendea **uzkur** da, biziki **uzkur**, lotsa bezala. Herria

Alde diren asko biziki **uzkur**, kontra diren asko mila duda-mudetan. Herria

Ezkerraldean, sozialixtak jarraitzen zaizkio segur Jospin-i bainan komunixtak eta "berdeak" frango **uzkur** daude. Herria

-Egun on -esan nien **uzkur** samar-. Rafa Egiguren

Piak ile leun luze-luzeetatik pasatu zuen esku bat, **uzkur** samar. Josu Zabaleta

-Aitak azalduko dizu -erantzun zidan **uzkur** antzean, hitz haiek esateaz lotsatuko balitz bezala-. Ander Irizar

Utziozu, lotsati eta **uzkur** -antzean, zure eskua hurbil dezan. Karlos Zabala

3 irud/hed

Matraileko giharrak **uzkur** zituen, ezin artikulaturik. Unai Iturriaga

Florentek artistaren hizketa beroa entzuten zuen, sabela **uzkur**. Karlos Zabala

Ehun lodiz egindako txapel beltz bat bekainen gainera beheartzan zitzaion **uzkur**. Karlos Zabala

Erreformei buruz hainbat jarrera zuhur eta **uzkur** daude. Berria - Mundua

Moskuren jarrera, aski **uzkur**. Berria - Mundua

4 uzkurtuta.

Barruan, batzuk besteen kontra estu-estu, hankak **uzkur**, usoek beren lumajearen pikardatze zuri-beltza hedatzen zuten. Karlos Zabala

5 (izenondo gisa)

Gazte **uzkur** eta izu bat zen, kazetariet elkarriketarik ematen ez diena. Joxean Agirre

Iruditzen zait amonak ahultzat zuela aita, inizatibarik gabetzat, aita **uzkurra** baitzen [...] eta ez baitzuen erabakimenik erakusten. Anjel Lertxundi

Agure **uzkur** hark, txopan eserita, keinuka agintzen zuen eta hamar ordutan hamar hitz baino gehiago ez zuen esaten. Karlos Zabala

Baziren, hala ere, ikaskide **uzkur** eta aberatsak, ni komunista sutsu bat nintzela entzutean mespretxu hitzak esaten zizkidatenak. Pello Lizarralde

Barka iezaiozu, oso mutil **uzkurra** da. Anjel Lertxundi

Normalean baino hiru segundo gehiago erabilia, begi **uzkur** bi sartu ziren gelan. Unai Elorriaga

Gorputz-atal ihar, **uzkur** eta hautsiei osasun bete eman zien, kartzelatuak askatu zituen. Askoren artean

Del Vallek marmar **uzkur** batez erantzun zion. Alberto Ladron Arana

Jainkoaren eginkizuna giro **uzkur** batean gauzatu ahal izateko. Iñaki Mendiguren

Aitaren izaera **uzkurra** Hitlerren kontra agertzen zuen jarrerarekin lotzen nuen zuzenean. Anjel Lertxundi

Neskaren aldartea dezente aldatu zen egun haietan, baina sekula ez bere ohiko irribarre **uzkur** hartatik harago. Jokin Muñoz

Ez dut izan, ezta ere, gizonak erakartzen dituen edertasun mota hori; errespetua sorrarazten nuen haiengan eta halako nagitasun **uzkurra**. Ander Irizar

6 (izen gisa)

Partida ederra zen, gaztea ere bere **uzkurrean** ez lotsakor, Larrecheak pilota batzu eskuinerat berexten eta Oçafraira iraunkor. Herria

7 (hitz elkartuetan)

Haste hartan **uzkur** aire batean parioak 7taraino eta hor ados. Herria

-Otso gose sabel- **uzkur** bat bainintzen. Joan Mari Irigoien

8 uzkur-uzkur egin

Hankak ero, airea atzaparkatu du katuak bere herioan, **uzkur-uzkur** egin, gelditu, eta isildu egin da. Itziar Otegi

Uzkur-uzkur eginda dago oheko beste muturrean, geldi-geldi. Jokin Muñoz

Gidaria eserita zegoen, **uzkur-uzkur** eginda, kapela begietaraino sarturik. Lopez de Arana

Gu, berriz, lasto artean lau hankan eta **uzkur-uzkur** eginda, zaldien apoetatik hurbilegi gure segurtasunerako, baina hartaz arduratzeko ere makalegi. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurrean uzkur (3); **biziki uzkur** (3); **frango uzkur** (3); **hain uzkur** (3); **halako uzkur** (3); **hoin uzkur** (4); **jendea uzkur** (5); **lotsati eta uzkur** (3)

uzkur ageri (10); **uzkur ageri da** (3); **uzkur agertu** (15); **uzkur agertu zen** (6); **uzkur agertzen** (4); **uzkur aire** (6); **uzkur da** (3); **uzkur dago** (3); **uzkur daude** (6); **uzkur dira** (6); **uzkur eginda** (4); **uzkur eta herabe** (3); **uzkur jokatu** (3); **uzkur samar** (4); **uzkur samarra** (4); **uzkur uzkur eginda** (4); **zuhur eta uzkur** (3)

baino uzkurrago (3)

uzkurdura 1 iz uzkurtzea.

Eskuko argazki kamarak barrandari dabilzanen **uzkurdura** eragiten du. Berria - Harian

2 (muskulu eta kidekoetan)

Urtarrilaren 16an eta 17an **uzkurdurak** noiz hasiko zain egon nintzen. Joseba Urteaga

Uzkurdurak bazkalondoan hasi zitzaizkion tarte jakinetan errepikatzen. Áingeru Epaltza

Sendagaien usainak ondoeza eragin zion, saihetsetan **uzkurdurak** eraginez. Lopez de Arana

Aduktorean **uzkurdura** duelako. Berria - Kirola

Uzkurdura baten antzekoa samatu nuen kontraeraso batean. Berria - Kirola

Azken urteetan, gogotik aztertu da muskuluen **uzkurduran** parte hartzen duen gertaera-katea. Irene Aldasoro

Bihotzaren **uzkurdurak** ez ziren han amaitu. Edorta Jimenez

Ondoren mugimenduok beherago jo zuten uzkiaren **uzkurdura** probokatuz. Unai Iturriaga

Zainen **uzkurduraz** gorputz-adarrak zurrin zituen, hildako batek bezala. Askoren artean

Eskuin hankako izterrean duen **uzkurdura** bategatik Karpinek ezin izan zuen atzo arratsaldeko lan saioa egin. Berria - Kirola

Uzkurdura antzeman zion, zuntz-haustura bihurtzear zegoen **uzkurdura**. Berria - Kirola

Susmo horrek beldurrak airean jarri zaitu berriro, eta, asaldatuta, **uzkurdura** egin zaizu bat-batean gernubidean. Rafa Egiguren

3 (izenondoekin)

Orgasmoan, genitaletak gihar guztien **uzkurdura** bortitzak atal horiei guztiei batera eragiten die. Luis Elberdin

Orgasmoa beti bat da; **uzkurdura** atsegingarriak, alegia. Luis Elberdin

Uzkurdura espasmodikoak, erritmikoak, nahi gabekoak eta atseguinezkoak dira horiek. Luis Elberdin

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Umetokiko muskuluak nekatuta daudenean egiten da, emakumeek muskulu-**uzkurdurarik** sentitzen ez dutenean. Berria - Gaiak

Giharre **uzkurdura**: ur kloruratuak. Berria - Euskal Herria

Ongi nabaritu nituen ene hatzetan orgasmoa izan zutenean beren zakilek likidoa kanporatzeko egindako barne **uzkurdurak**; bulkadak alegia. Aitor Arana

uzkurgarri *izond* uzkuratzen duena.

Ohartu nintzen hartzen ninduen larritasuna ez zela zain genuen arriskuaren ondorio bakarrik: eraikin hari indar iluna zerion, **uzkurgarria**, ia arnasteko modukoa. **Alberto Ladron Arana**

uzkurkeria *iz* uzkurtasun gaitzesgarria.

Nik, neure **uzkurkeriak** hartarata, ezezkoa eman nien. **Alberto Ladron Arana**
Hasieran **uzkurkeriaz** onartu zuen arren, azkenerako erabat pozik zegoen familiaren panteoia Artaxonan zuelako. **Ramon Saizarbitoria**
Neure baitako **uzkurkeriak** ez zidan gehiago erraten uzten. **Alberto Ladron Arana**
Bizkaitar hitzontzi haren xalotasunak gainditu egin zituen nire **uzkurkeriaren** defentsa guztiak eta, apur bat suspertu ginenean, Ilbarritzeko karririk izan ziren gure adiskidetasunaren lekuko. **Alberto Ladron Arana**

uzkurraldi *iz* uzkurtasunezko aldi igarokorra.

Laster jabaldu zaie segur lehen ongi-etorrien **uzkurraldi** hura, eta ausartzia bildu dute berek ere itxanteko mikroen aitzinean. **Herria**

uzkurrarazi, uzkurraraz, uzkurrarazten du *ad* uzkurtzera behartu.

Lehoiak [...] orroa eginez erasotzen dio harrapakinari, eta ez dute beldurtzen aurka datorkion artzain-taldearen oihuek, ez eta **uzkurrarazten** haien zalapartak. **Elizen arteko biblia**
Aurpegia **uzkurrarazi** dio erresuminak. **Pello Lizarralde**
Seinale hori, bizkar-muinera iritsi bezain laster, nerbio-amaieretara bideratzen da berriro, mugimendu-neurona batetik zehar, eta nerbio-amaierak muskulua **uzkurrarazten** dute. **Irene Aldasoro**
Azetilolinak,nerbioaren eta muskuluaren arteko tartea gainditu, eta muskuluaren zelula-mintzaren irazkortasuna aldatzen du; hala, horrek eragindako bulkadak muskuluzuntzak **uzkurrarazten** ditu. **Irene Aldasoro**
Beti ufutzen duen haize firrindak **uzkurrarazten** ditu belar izpi luzeak. **Aurelia Arkotxa**

uzkurreria *iz* uzkurtasuna.

Azken perpaus horrek bagaramatza geure buruari galdetzera nondik datorkigun beraz euskaldunei, politikaren aldera hain aspaldian erakusten dugun **uzkurreria** edo herabea eta, ber denboran, zergatik gerlari buruz ez dugun agertzen aiherkunde berdina. **Piarres Xarriton**

uzkurtasun 1 *iz* atsegina edo eroso ez den egoera batean atzera egiteko gogo. **ikatzerakuntza**.

Pelikuletako indioen **uzkurtasuna** imitatuz. **Joseba Sarrionandia**
Austriako Habsburgoen Inperioak [...] antzeko **uzkurtasuna** erakutsi zuen bere mugak hego-ekialderantz zabaltzeko eta horrela jada nabarregia zuen biztanlerian eslaviar elementuak gehitzeko. **Iñaki Mendiguren**
Idazleak bereganaturiko ikuspuntu honek areagotu egin zuen Mendebaldeko Zibilizazioari tratamendu berezia emateko hasieran zuen **uzkurtasuna**. **Iñaki Mendiguren**
Apala zuen begiratua, urduria ibilera, eta jendeak mutilzahar gelditu izanari egozten bazion ere bere **uzkurtasuna**, bizitza osoa fortunari mesede txikiak ere eskertzen pasatzen zuela ematen zuen gizonak. **Anjel Lertxundi**
Peter, berriz, bere gelan sartzen da eta ia ez du hitzik egiten, ez du zaratarik egiten, eta ametsetan hasten da, bere **uzkurtasunean** ezkutaturik. **Josu Zabaleta**
Zinemaren teoriak, pinturarena baino modernoagoa denez, kontzeptu berriak eta akuilatzaileak onartzeko inertzia eta **uzkurtasun** gutxiago izan du, noski. **Josu Zabaleta**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aise ohartu zen haren isilaldien eta **uzkurtasun** ia-ia patologikoaren atzean zer zegoen: ezer ere ez. **Jokin Muñoz**
Izozturik entzuten nuen, nire lotsati izaerak, nire berezko **uzkurtasunak** ezer esaten uzten ez zidala. **Lander Garro**
Luze gabe partidak bertatik bertara ikusteko irrika neurezko **uzkurtasun** eta lotsari nagusitu zitzairen. **Alberto Ladron Arana**
Emaizta onek giro ona sustatzen balin badute kideen artean, publiko gero-eta handiagoa ere hurbilazaten dute, hastapen hartan halako **uzkurtasun** bat balin bazen ere batzuen ala bertzen ganik. **Herria**
Uzkurtasunez betetako oniritzia jaso du Barrosoren batzordeak. **Berria - Mundua**

3 (hitz elkartuetan)

Ez zuten, ordea, makurguneok etsi, eta, pixkana-pixkana, Martinek **uzkurtasun**-uneak eramaten ikasi zuen. **Anjel Lertxundi**
Irudi guztietan irribarez, are barrezka ere batzuetan, begiak pizturik alaitasunezko eta limurtasunezko alde hantu batez, **uzkurtasun** edo arrangura arrastorik ere gabe, huraxe izaten ari balitz bezala bere bizitzako unerik gozoena. - Ekoizpena gehitzeko teknologiarren gaitasun potentziala lehian ari zela industri langileen eta nekazarien berezko giza **uzkurtasunarekin**. **Oskar Arana**
Espkulaziozko gai baten arriskuekiko berezko gogo-**uzkurtasuna**. **Iñaki Mendiguren**

uzkurtu, uzkur(tu), uzkuratzen (*orobat uxkurtu g.er.*) 1 du/da *ad* tamaina txikiagoko bihurtu; laburrago bihurtu; makurtu. ik **kuzkurtu**.

Suak, berriz, brontzea likidotzen eta urrea urtzen du eta larrua eta okela, ostera, txikitzen eta **uzkurtzen**. **Xabier Amuriza**
Murrizten da, txikiagotzean **uzkurtu** egiten da, orain amaierak bat egiten du hasierarekin. **Monika Etxebarria**
Batzuetan, ordea, [...] errezeloren bat sortzen zitzaion, harra bezala luzatuz eta **uzkurtuz** ideia kontsolagarri haren bila mehatxari zetorrena. **Ramon Saizarbitoria**
Tigre zauritu baten antzera **uzkurtu** nintzen. **Juan Kruz Igerabide**
Hotz handiarekin, berriz, arropaz estalitako gorputz-ataletako kapilarrek **uzkurtu** egiten dira. **Irene Aldasoro**
Kapela **uzkurtu** egin zen, esku ikusezin bat gogor estutzen ari balitzaio bezala. **Iñaki Mendiguren**
Ellie **uzkurtuta** zegoen, kokotsa belauen kontra estututa. **Lopez de Arana**
Ostera gure kanpadendara itzuli gara, eta nor bere tapakipean **uzkurtu**, eta Jainkoari eskerrak eman dizkiogu gu izan ez garelako. **Mirentxu Larrañaga**
Hirurogeita hamar urte inguruko emakumezko bat ikusten zuen eserlekuan **uzkurtuta**, lehen hegaldiaren beldurra ezkutatu ezinik, errezoan, ahapeka. **Imanol Zurutuza**
Nire kontra **uzkurtu**, eta "bost minutu gehiago, arren" esan zidan. **Xabier Montoia**

Hantxe, zahartzaroak **uzkurtuta** ikusi zuten zuek batean azpian zuten Ulisesek. Juan Kruz Igerabide

Hotzak **uzkurtuta**, Llume bere burua besarkatzen du. Antton Olano

Urdaitegian sartzen zen, egun hotzetan, zimur-zimur egina, izozteak **uzkurturik**. Karlos Zabala

Espaloi-ertzean eserita, mutil gazte bat **uzkurtuta** zegoen farol baten ondoan. Lopez de Arana

Jansonek, bazter batean **uzkurturik**, [...] ez zuen ezer erantzun. Jose Morales

Big Joe etzanda zegoen, karelairen babespean **uzkurtuta**. Mirentxu Larrañaga

Bizkarrak **uzkurtu** genituen. Aingeru Epaltza

Haien paretik pasatzean, bizkarra pixka bat **uzkurtu** baitzuen, jendearen muturrean barrez lehertzeko gogoari eusten dionaren keinuan. Karlos Zabala

Lisak josteari ekin zion, sorbaldak **uzkurturik**. Karlos Zabala

Sorbaldak **uzkurtu** zituen; berdin zitzaion, nonbait, lehen ala bigarren otordua. Joxe Austin Arrieta

Mutikoak bere bizkar tikiak **uzkurtu** zituen. Aingeru Epaltza

Hiru aldiz **uzkurtu** eta harrotu nuen eskuin eskuko eri zuzena. Aingeru Epaltza

Haren ukabila amorru biziko keinu batean **uzkurtu** zen, hatz-kozkorrek zuri-zuri nabarmentzen zitzaizkiola. Alberto Ladron Arana

Mikel Strogoffen aurpegiara **uzkurtu** egin zen bat-batean, eta deiadar bat ihesi joan zitzaion. Karlos Zabala

Kopeta **uzkurturik** zuen, gogoeta iduri. Aingeru Epaltza

Zintzurra **uzkurtu** egin zitzaion. "Kale gorrira botako nau". Lopez de Arana

Jimmyren sabela **uzkurtu** egin zen, igogailua brau jaisteaz batera. Lopez de Arana

Bekokia lurrerantz **uzkurtuta** lotu zitzaion Joselu hizketari. Josu Landa

Gaur, mehe eta akitua dirudiela, liburuaren aurrean **uzkurturik** dago eserita. Oskar Arana

Biluzik zegoela **uzkurturik** eztul eginarazi zioten, ikusteko ea aluan zerbait gordeta zuen. Berria - Euskal Herria

2 (gihar eta kideko ez mintzatuz)

Ekintza mekaniko soil baten bidez egiten dute muskuluek beren lana: zuntzak **uzkurtuz**. Irene Aldasoro

Eskua beharrezkoan, trizepsa **uzkurtu** egiten da (ukondoari luzatzea eraginez), eta bizepsa, erlaxatu egiten da. Irene Aldasoro

Egia da, bai, bihotz-muskuluak o ngi betetzen duela bere egitekoa: **uzkurtu** eta odola arterietara ateratzen duela eta erlaxatu eta berriro odolez betetzen dela. Irene Aldasoro

Giharrek **uzkurtzen** direnean, egitura horiek guztiak ere **uzkurtzen** dira aldi berean. Luis Elberdin

Gihar horiek zein diren ohartzeko, eser edo etzan zaitez eta ipurdiko zuloa inguratzen duten giharrek indarrez **uzkur** itzazu. Luis Elberdin

Horri erantzunez, maskuria **uzkurtzeko** agindua ematen du garunak, gernua isur dadin. Irene Aldasoro

3 irud/hed

Urteko hazkuntza ekonomikoa %2,7koa izan da, 2002. urtean ekonomia %0,4 **uzkurtu** ondoren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Barraskiloak bezala, **uzkurtu** egiten naiz gertakarien aurrean. Joxean Agirre

4 uzkurtasuna sentitu.

Baina osaba ez zen kikildu ez **uzkurtu**; aitzitik, berri hark eman zion kolera eta errabia bere ideien alde jartzen zuela, ontzi bat arno eskuan, erran zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

Ez naiz **uzkurtzen**, lotsagabe eskaintzen dizkizuet nireak. Koldo Izagirre

Zanpez eraso nauen haizeak eta ere eremu honek sortarazi goibeltasunak **uzkurtu** naute, kasik izitu. Piarres Aintziart

Munduko txapelketak ez ditu batere **uzkurtzen**, bereziki hemendik urrun iragaiten direlarik probak. Herría

Uzkurturik zirudien, adinak oharkabean koldartuta. Nahiago astazakil likitsarengandik urrun, haren begiratu hutsak **uzkurtzen** baikintuen. Agustin Otsoa

Bihotza **uzkurtu** zitzaidan, eskumuturretako zainetan arantza modukoak nabaritu nituen eta, egia, atzera egiterik ukan banu, nik, koldar halakoak, atzera egingo nukeen. Edorta Jimenez

Bere kinka larrian ere, ldiakenez erraten zuena benetan gertatu ahal izateak bihotza **uzkurtu** zion Agerreri. Aingeru Epaltza

-Zer erran nahi duzu, aita? -galdetu nion, arima susmo izugarri batek **uzkurtuta**. Julen Gabiria

5 (era bururuta izenondo gisa)

Eberen gorputz **uzkurtua** alferrik saiatzen da izarapean beroa topatzen. Sonia Gonzalez

Kolperen bat saihesteko eta begi **uzkurtuak** begi ikaragarriaren begirada arakatzailetik babesteko bezala. Agustin Otsoa

Haurraren aurpegi **uzkurtu** dardartiari begiratu eta izutzen hasi zen Chandler Txiki. Irene Aldasoro

Begitartea inoiz baino ilunagoa zeukan, eta amorru ito batek osoki hartua zuela adierazten zuten haren hazpegi **uzkurtuek**. Karlos Zabala

Esku batez nire potro **uzkurtuak** laztantzeko mesedea egin zidan. Aitor Arana

Neure hezur-gihar **uzkurtuei** nagiak atera beharrean nengoen eta banuen, horretarako, bizitasun ezohiko baten akuilua gogoan. Aingeru Epaltza

Bafada trinko geldietan zabaltzen zen kirats hura, zirimola **uzkurtuetan**, estoldek jariatzen duten hatsa iduri. Lopez de Arana

6 (era bururuta izen gisa)

Baina, halako **uzkurtu** bat zuen bekainen gaineko giharretan, eta behatzaile zorrotz batek hari erreparatu eta berehala igarriko zion barrengo harra ito nahian zebilela.

Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bihotza **uzkurtu** (8); bihotza **uzkurtu** zitzaidan (3); bizkarrak **uzkurtu** (10); bizkarrak **uzkurtu** nituen (4); bizkarrak **uzkurtu** zituen (4); **gorputz osoa** **uzkurtu** (3); **kontra** **uzkurtu** (4); **sorbaldak** **uzkurtu** (3); **sorbaldak** **uzkurtu** (13); **sorbaldak** **uzkurtu** zituen (9)

eserlekuan **uzkurtua** (4)

bihotza **uzkurturik** (6); **uzkurturik** **zegoen** (3)

bazter batean **uzkurtuta** (3); **bihotza** **uzkurtuta** (3); **eserlekuan** **uzkurtuta** (9); **hegazkinako** **eserlekuan** **uzkurtuta** (4); **uzkurtuta** **zegoen** (3)

bizkarrak **uzkurtuz** (5)

uzkurtuxe *izond* uzkur samarra.

Arku hori osatzen zuten gihar **uzkurtuxeek** adore aparta erakusten zuten, "heroiene adore haserriker gabekoa", fisionomisten esanari jarraituz. Karlos Zabala

uzkurtzaile *izond* uzkurtzen duena.

Oso haur zomorroa nintzen ni, eta ezagutzen ez nituen gizakien presentziak lotsa eta beldur sentimendu lauso baina **uzkurtzailea** sortzen zuen ene baitan. Alberto Ladron Arana

uzkurtze 1 *iz* tamaina txikiagoko bihurtzea; laburrago bihurtzea.

Bihotzaren taupadak eta biriken txandakako **uzkurtze** eta hedatzeak. Iñaki Mendiguren

Muskuluen **uzkurtze** eta erlaxatzea erregulatzen du organo horrek. Irene Aldasoro
Kaltzio ioien mugimendua estimulatzen duen eta, horren ondorioz, muskulu-zuntzaren **uzkurtzea** eragiten duen substantzia kimiko bat da azetilkolina. Irene Aldasoro
Salbuespena bihotza da: muskulu konplikatu bat, **uzkurtze** erritmikoak bere kasa egiteko gaitasuna duena. Irene Aldasoro
Hezurak erabiltzen dira, orobat, muskuluen indarra - **uzkurtze** simple bat, eskuarki- lanean nahiz jolasean egiten ditugun mugimendu landu horietariko bihurtzeko. Irene Aldasoro
Bizepsak bat-batean **uzkurtzeari** utziko balio, ziplo ereriko litzateke besaurrea, eta ondorioak mingarriak lituzke horrek. Irene Aldasoro
PPAR-delta genea trukaturata, saguak **uzkurtze** geldoko zuntz gehiago sortzen ditu. Berria - Gaiak
Kokainak eragina du bihotza odolez hornitzen duten arterietan, **uzkurtze** bortitzak eragiten ditu. Antton Olano
Alferrekoak izan zituen **uzkurtze** deseroso haien kontrako sorgin-neurri guztiak, baita bestelakoak ere. Karlos Linazasoro

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alfa mugimendua hedatze- edo **uzkurtze** -mugimendu bat da. Josu Zabaleta
Urdailek muskulua **uzkurtze** -mugimenduek, edukia irabiatu, eta zuku urtsu bat bihurturik uzten dute. Irene Aldasoro

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskuinalderago eta minberago, ordea; ugarituz eta areagotuz joan dira aurpegi-**uzkurtze** eta kexuak, kexu apalak, ezinbestekoak. Imanol Zurutuza
Amorruzko gihar-**uzkurtze** batek estutu zion unetxo batez eztarria, eta, pasatu zitzaionean, egarri bizia utzi zion. Irene Aldasoro
Nola haien bitartez bihurtzen den nerbio-bulkada bat benetako ekintza: muskulu-**uzkurtze**, esate baterako. Irene Aldasoro

4 irud/hed

Inflazioa, ekonomia **uzkurtzea** edota interes tasen areagotzea. Iñaki Heras

5 uzkurtasuna sentitzea.

Jendekoia betidanik izan naiz, baina, ez dakit urteen berezko **uzkurtze** baten poderioz ala irakurketaren sentsibilitate erne berriaz, artaldean ez nintzela gustura sentitzen ohartu nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

uzta¹ iz laboreak edo fruituak biltzea; biltzeko den edo bildu den labore edo fruitu kopurua.

Uzta uztaren atzetik: zekalearen ondotik galzuria, garagarraren ondotik oloa, eta kalamua ere badugu. Jose Morales
Batzuek erregearen alorak goldatu beharko dituzte, beste batzuek **uztak** igitaitu. Elizen arteko biblia
Bakean lantzen zituzten beren alorak, lurrak **uzta** ematen zuen eta lautadetako zuhaitzek fruituak. Elizen arteko biblia
Egun batean, **uzta** gutzia erreta galtzeko zorian zeukan batean, [...]. Juan Kruz Igerabide
Euriteek **uzta** ez hondatzea da orain ardogileen ardura. Berria - Harian
Lurralde bidegabe hartako **uztak** suntsitzeko. Elizen arteko biblia
Uztak desegin, bazterrek pozoitu. Gotzon Garate
Oraingo **uztak** ez ezik, etorkizunekoak ere galdu ditugu. Berria - Euskal Herria
Hurrengo urtean, erein ahal izango duzue eta **uzta** bildu, mahatsondoak landatu eta mahatsa jan.
Refaim haraneko gari-soroetan, **uzta** bildu eta galburuak jaso ondoren. Elizen arteko biblia
Fitsik ere ez zekien haziak ereiteaz eta **uzta** biltzeaz. Jose Morales
ik beherago 6. Askoren artean
Uzta biltzeko makina batek moztu zion ezker besoa bi urte lehenago. Anton Garikano
Los Llanos-ko gariaren eta oloaren **uzta** jadanik bilduta, ezkiak, zumarrak, makalak eta lizarrak pilatzen ziren nire inguruan. Txillardegí
Udan belarra mozten zuen, **uzta** egiten zuen. Joseba Urteaga
Matxinsaltoari ez diot utziko zuen soroetan **uzta** hondatzen. Elizen arteko biblia
Uztaren hamarrena Jaunari dagokio. Elizen arteko biblia
Saski bateko pikauk oso onak ziren, **uztako** hobereenak. Elizen arteko biblia
Urteko **uzta** ereiten dute nekazariak. Jose Morales
2004-ko **uzta** 15 milioi pintetara heltzen da. Herria
Mauritanian, **uztaren** %80 jan du otiak, eta berdin, Nigerrren, Malin, Senegalen, Gambian eta Txaden ere. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Uzta ederra espero zenuten eta eskasa bildu. Elizen arteko biblia
Zoritxarrez, **uzta** txarra izan dugu eta irina ez da oso ona. Jose Morales
Mahastiak landatu eta **uzta** oparoak biltzen. Elizen arteko biblia
Uzta bikainak sortzen dira eta adarrak berdatzen zuhaitzetan, eurok ere hazten eta fruituz zamaten dira. Xabier Amuriza
Jaunak zeuen Jainkoak **uzta** oparoak eman eta eginkizun guztietan bedeinkatuko zaituztelako. Elizen arteko biblia
Uzta distiratsua eta mahasti alaiak. Xabier Amuriza
Gizona, hila aspaldian, txokoz txoko ibiltzen zen, auzoen baratz eta sagardietako **uzta** ebatsiak besapean. Itxaro Borda
Nekazariak herbizida indartsuak erabiltzen dituzte **uzta** transgenikoak babesteko. Berria - Harian
Justoetxan, ordea, sekulako **uzta** bildu zuten, aletegiak artez betetzen zituztela. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erregutu, bada, **uzta** -jabeari, bidal ditzala langileak bere uztera.
Uzta -sagu bat zen, inoiz ikusi dudana sagutxorik politena. Mirentxu Larrañaga
Ogia erretzean, labealdi bakoitzeko opil bat eskainiko diozue hasikin gisa, **uzta** -sasioan lehen fruituak eskaintzen dituzuen bezala. Elizen arteko biblia
Gero, hegazti harrapariok **uzta** sail izugarriak hondatzen, eta batez ere ale jaten hasi zirenean. Patziku Perurena
Ospatu **uzta** -jain, soroan erein duzuenaren lehen fruituena. Elizen arteko biblia
Lanean ahalegindu den nekazariak behar du izan lehena **uzta** -biltzean. Elizen arteko biblia
Hartu igitaita eta ekin **uzta** -biltzeari, iritsi baita igitaitzeko ordua. Elizen arteko biblia
Arkale gizon lodi bizi-bizi bat zen, **uzta** -biltzaile ohia, zaldi-tratulari ohia eta kontrabandista. Koro Navarro
Uzta -aldaketen garrantzia, edonolokoa dela ere, industri jardueran fluktuazioak eragiten dituen faktore gisa. Iñaki Mendiguren
Esan izan da bazegoela korrespondentziarik eguraldi eta **uzta** ziklo hauen eta zenbait ekonomialarik marrazturiko industri ziklo ekonomikoaren artean. Iñaki Mendiguren

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mandioak egin zituen, gari, ardo eta olio-**uztak** gordetzeko. Elizen arteko biblia
Gari-**uzta** biltzeko garaian, Damaskoko lautadara jaitzi eta uztei su eman zien. Elizen arteko biblia
Urteko gari edo labore **uzta**. Patziku Perurena
Arabako Errioxako mahats **uzta** bikaina izan da. Berria - Kirola
Mahats- eta fruitu-**uzta** handia bildu zuten. Elizen arteko biblia

Jendearen jarduerak galdunak, aspalidien eta bezalako liho- **uzta** ederra jaso duen baten liraintasunez. **Anjel Lertxundi**
Perretxiko- **uzta** hura eta barraskilo-ehiza diru-iturria ziren Tellagorrirentzat. **Koro Navarro**

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Ekainaren hasierarako **uzta** -lanetan. **Pello Zabala**

Gari- **uzta** -aroan, Ruben sorora joan zen amodio-sagar bila, eta bere ama Leari eraman zizkion. **Elizen arteko biblia**

Ukraniako lurra are beltzago ageri baitzen, urteetan gari-uztarik eman ez zuen lur beltza odol- **uzta** emaile, odol-soro, odol-zelai, odol-hazkurri baitzen aspalditik. **Felipe Juaristi**

6 irud/hed

Neskatila gazte **uzta** berrikoak. **Patziku Perurena**

Euskal kirolariaren **uztak** gora egin dezake aurki. **Berria - Kirola**

Hilabete luzeetako eztabaiden **uzta**. **Berria - Harian**

'Uztaro' aldizkariaren **uzta**. **Berria - Euskal Herria**

Halaxe bildu ahal izan dut, hitzez hitz, neure trabailuaren ondoko **uzta**, zeina baita eskuan daukazuna. **Joan Mari Irigoien**

Hala ere, Hamlinek ereindako hazia ez zen **uzta** ematen hasi hurrengo mendea arte Ipar Amerikan eta Mendebaldeko Europan. **Iñaki Mendiguren**

Jazargoak oro gure pentsamenduaren **uztak** dira. **Itxaro Borda**

Sormenak **uzta** ona eman du. **Berria - Harian**

Suposa zitekeen bazela nolabaiteko erlazioa kristautasunaren muin espiritualaren itxurazko garaitezintasun horren eta erlijioen **uzta** berriaren gutxitasun eta idortasunaren artean. **Iñaki Mendiguren**

Euskal antzerkigintzaren **uzta** ona. **Berria - Kultura**

Turismoak uzten duen **uzta** estimagarriarekin. **Herria**

Zaharragook, jendea ezagutzen dugunok, haiekin oso harreman estua izan dugunok, Itoizko Koordinakundeak eman duen **uzta** argi eta garbi onartzen dugu. **Eduarne Elizondo**

Azken hiru jardunaldietako **uzta** kaskarraren aldean oparoa bildu zuen atzo Alavesek Mendizorrotzan. **Berria - Kirola**

Industri iraultzaren hazia erein eta **uzta** bildu zuten entrepreneur mendebaldar haientzat [...]. **Iñaki Mendiguren**

Gehienak portugesak, magrebiarrak edo ijitoak dira, hemengo langile **uzta**, ahaide, adiskide edo ikasle, agortzen ari delarik. **Herria**

Ustekabe- **uzta** ederra etorri zen hortik. **Juan Garzia**

Bildu zuen odol- **uzta** ez zen makala izan. **Edorta Jimenez**

7 uzta-biltze (orobat uztabiltze)

Garagar eta gariaren **uzta-biltzea** bukatu arte. **Elizen arteko biblia**

Hartu igaitaia eta ekin **uzta-biltzeari**, iritsi baita igaitzeko ordua, lurreko uzta heldu-heldua baita. **Elizen arteko biblia**

Lurrak diraeuino, ereiteak eta **uztabiltzeak**, hotzak eta beroak, udak eta neguak, egunak eta gauak ez dute behin ere huts egingo. **Elizen arteko biblia**

8 uzta-garai (orobat uztagarai)

Halamoduzko jendaje askok, **uzta garaia** bukatu ondoan, erromes bidea hartzen zuen Espainia aldera, bere familia osoarekin. **Patziku Perurena**

Uzta garaiak iritsi dira. Burutsuak bildu egiten du udaldian, **uzta-garaian** lokartzen dena gaitzesgarri da. **Berria - Euskal Herria**

Eta garia hain ugaria zenez, **uzta garairako** bihitegi guztiak bete-beteta zeuden. **Agustin Otsoa**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argiaren **uzta** (3); **aurtengo uzta** (5); **bere uzta** (3); **beren uzta** (3); **etxeko uzta** (4); **gari uzta** (4); **gariaren uzta** (3); **jasotako uzta** (3); **lanaren uzta** (4); **lurrak uzta** (4); **soroetako uzta** (3)

uzta aro (3); **uzta aroa** (7); **uzta aroaren** (3); **uzta bildu** (18); **uzta bildu ondoren** (3); **uzta bildu zuten** (3); **uzta biltzea** (3); **uzta biltzean** (5); **uzta biltzeko** (11); **uzta biltzen** (10)

uzta ederra (13); **uzta ekarriko** (3); **uzta ematen** (3); **uzta garaia** (3); **uzta garaian** (4); **uzta guztia** (7); **uzta guztien** (3); **uzta handia** (3); **uzta historikoa** (3)

uzta jasotzeko (3); **uzta lanak** (3); **uzta nasaia** (3)

uzta on (3); **uzta ona** (14); **uzta oparoa** (6); **uzta oparoak** (3); **uzta oso** (4); **uzta osoa** (6); **uzta osoa amaitu** (3); **uzta transgenikoak** (3); **uzta txarra** (4); **uzta txarrak** (4)

uzta ugaria (9); **uzta ugaria da** (3)

uztarik bildu (3); **uztarik biltzen** (4); **uztarik emango** (3)

uzta² iz uztaila.

Santa Ana eguneko festa, **uztaren** 16an, oso apala izan ohi zen. **Patziku Perurena**

Lehengo batean, ordea, **uztaren** hamaikan, lehengusuttiki baten hiletara joan eta, hire irrifar xaloa sumatu ote nuen iruditu zitzaidan eliz atarian. **Patziku Perurena**

uztabiltze ik uzta¹ 7.

uztagarai ik uzta¹ 8.

uztai (orobat ustai g.er.) 1 iz biribilki formako gauzakia.

Enborretan **uztai** batzuk sartu zituen buloiak inguratu eta hartzen zituztenak. **Santiago Iruretagoiena**

Gaztea zen, ile labur eta beltza eta **uztai** bana belarrietan. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Gurdien gurpilek zurezkoak ziren hasieran (aise lantzen baita zura), baina burdinazko **uztai** bat jarri zitzaien sendotasun handiagoga emateko. **Irene Aldasoro**

Zenbait gauzaren patente-agiriak eskatu behar zituela; besteak beste, autoen pneumatikoentzako **uztai** batena, altzairu puskaz egina. **Josu Zabaleta**

Nola Tom eta Jerry apartatu egin ziren izututa, eraztuna **uztai** inerte baten gisan uretan murgildu zenean. **Harkaitz Cano**

Buruko oihala jantzi zuen, eta gamelu-ilez eginiko **uztai** batekin tinkatu zuen. **Xabier Aranburu**

[Zezenak] belaanak txikituak zituen eta sudupila urratua, sudurtzuloetako **uztaia** tiraka kendu zuelako. **Fernando Rey**

Hogeita hamabi urte behar izan ziren panderoaren **uztaiari** buelta osoa emateko. **Iñigo Aranbarri**

Azaldu da azkenean gure ahari muturgorria: honatx joarea bere **ustaiarekin**, gainerakoen berri putreek jakinen dute. **Patziku Perurena**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Kaiolaren gainetik, gurpil moduko **uztai** biribil bat, hamabi nahiz hamahiru zinta zintzilik dituela. **Pello Zabala**

Gero neure gorputz osoa **uztai** biribiletik pasa dut. **Txillardegui**

Belarri hegietan urre koloreko **uztai** handi bana josirik. **Joxan Elozegi**

Baginako eraztuna plastikozko **uztai** txiki eta malgu bat da. **Luis Elberdin**

Zalgoruarien endaitza behar bezala finkaturik zegoen, gurpilak **uztai** berria zeukan. **Jose Morales**

Bere begi delikatu urduariak babesten zizkieten betaurrekoen lente labainduak eta **uztai** urre-kolorekoak. **Irene Aldasoro**

Bizarra ondo egindako aurpegian **uztai** doratzuko betaurrekoak zituen gizon txiki bat. **Irene Aldasoro**

Urrezko **uztai** txiki-txiki bat belarri gingilean. **Koro Navarro**

Oihalez estaliriko zurezko **uztaiak**. **Juan Garzia**

Haren gainean hiru suil zeuden lerro-lerro beren burdinazko **uztai** distiratsuekin, zilarrezkoak bailiran. **Koro Navarro**

Ostilamenduari dagokionez, bertan 37 eraztun aurkitu dira, gehienak **uztai** bakarrekoak. **Berria - Harian**

Eskuekin, masta nagusiaren oinarritik gertu zegoen burdinazko **uztai** bati heldu nion. **Koro Navarro**

Jantziaren azpitik haragian, burdinazko **uztai**, koraza eta ziliziorik gogorrenak zeramatzaten. **Askoren artean**

Bideko harkozkoek gurpilen **uztai** burdinazkoak jotzen dituztenean. **Xabier Amuriza**

Urrezko eraztun bat, perlaz apaindutako eskumuturreko batzuk eta orkatiletarako urrezko zirgiloak, Indiatic ekarriak, eta sudurrerako **uztai** bat, Afganistangoa. **Fernando Rey**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mendi edo muino kaskoren batean, egurrezko **uztai** -koroa batzuk prestatzen zituzten. **Pello Zabala**

Aqua Marcia-ren **uztai** -erreskada berebizikoaren ezkerretara. **Joxe Austin Arrieta**

Bigarren anotazioa patrikako **uztai** -koadernotxoan: [...]. **Harkaitz Cano**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Bere betaurreko **uztai** -doratuaren bristada. **Irene Aldasoro**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Upel-**uztaiak** neke handiz lantzen ziharduen. **Edorta Jimenez**

Lore-**uztai** edo beira-alezko iduneko baten antzera. **Jose Morales**

Kretona-zatiak eta gortina-**uztaiak** nahaspilaturik zeuden. Giltza-**uztaiaren** kateari behatz baten inguruan eragiten diola. **Lopez de Arana**

Ikatz-sutegian iltzeak fabrikatzen zituzten; inguru- **uztai** goriak jartzen zizkieten orgen gurpilei. **Juan Garzia**

Otarriain garbituko zituen batek, tipula **uztaiak** ebakiko besteak, tomateaz eta entsaladaz arduratuko zen hurrengoa. **Harkaitz Cano**

6 (saskibaloian, saskiarena)

Defentsako lanean ez da nabarmentzen, baina **uztai** azpian saskiratzeak lortzeko erraztasuna duen jokalaria da. ik uztaipe. **Berria - Kirola**

Bilbao Basketek fitxaketaren bat egin beharko du **uztaitik** gertu ez sufritzeko. **Berria - Kirola**

Jaurtiketak **uztaia** jo eta baloia Gabrielen eskuetan erori zen. **Berria - Kirola**

Bilbao Basketen erasoak **uztaitik** lau metrora eginiko Scotten jaurtiketa behartuekin eta baloi jabetza denboraren amaieran jaurtitako hiruko saskiraezinekin amaitu ziren. **Berria - Kirola**

7 biribilki itxurako forma.

Haloa deitu izan zaio, argiz osatutako meteoroa izango litzatekeen horri, zeina eguzki diskoaren edo ilargiaren inguruan [...] kolore zurbil xurizkaz, **uztai** gisa agertu ohi den. **Pello Zabala**

Uztai edo eraztun horren pareko zerua, gaineratikoa baino ilunduxeagoa ikusten da. **Pello Zabala**

Eraztun zabalago baten antzekoa da, batzuetan **uztai** osatu gabea. **Pello Zabala**

Eseri nintzen eta nire aurpegia lanpara berdeko argiaren **uztaian** sartu zen, nagusiaren aurkez. **Matías Múgica**

Sukarri pusketen artean piztu behar zen sua: hartarako propio markaturiko **uztai** biribil baten barruan. **Pello Zabala**

Atleta kanpeoiak harrokeriaz goratu ditu besoak, **uztai** olinpikoen azpian. **Joseba Sarrionandia**

XX. mendeko lehenengo DIUa Alemanian ezarri zioten emakume bati, 1909. urtean; **uztai** formakoa zen. **Luis Elberdin**

Uztai -egitura eder bat da, hexagono ia erregular bat. **Juan Garzia**

Inguratzen zuen argi-**uztaiak** garbi erakusten zuen hori. **Juan Kruz Igerabide**

Lenehanek ilargi zurbil handi argi-**uztai** bikoitzez inguratuan zeuzkan finkaturik begiak. **Irene Aldasoro**

8 arkua.

Erran dezagun Baigorriarren tematzeari esker zubi hori perla bat bezala dela herrian: denboran nahi izan zuten harrizko zubi bat, **uztai** eder batez egina, mende bat iraunen zuena. **Michel Oronoz**

Atearen gainean, **uztai** itxuran, Baltza hitza irakur daiteke. **Txillardegi**

Itsasoak labarretan landu dituen **uztai** handiengatik. **Koldo Izagirre**

Goraxeago betileak, eta bekainen **uztaiak**, marmola bezain zuri behetikako kontrargitan. **Joxe Austin Arrieta**

Uztaiak balira bezala nabarmentzen zitzaizkion saiheits-hezurrak. **Koro Navarro**

Bat-batean, bere kolore guztiekin agertu zen **uztaia**. **Xabier Olarra**

9 arku itxurako arma.

Babeski eta bular-oskolak, **uztai** eta geziak, lantza eta azkonak. **Elizen arteko biblia**

Har itzak ehizako tresnak, **uztaia** eta geziak, eta hoa oihanera. **Jose Antonio Mujika**

Gezia **uztaian** kokatu eta harantz honunzka frogatu zuen lasai. **Jokin Urain**

Alferrik teinkatuko du arkulariak **uztaia**, alferrik jantziko bular-babeskiak. **Elizen arteko biblia**

Gaiztoek **uztaia** teinkatu baitute eta gezia **uztai** -harian jarri, bihotz zuzenekoak ilunpean jotzeko. **Elizen arteko biblia**

Harri-jaurtikigailuak, azkonak jaurtikitzeko **uztaiak**. **Elizen arteko biblia**

Uztai ondo tentkatuak geziari zelan, hainbesteko zapiek ontziari zer abaila eragin ziezaiketean kalkulatzan saiatu nintzen. **Edorta Jimenez**

10 (hitz elkartuetan)

Beti prest daude gezurrerako, gezi- **uztai** teinkatua bezala haien mihia. **Elizen arteko biblia**

Hautsiko ditu gudu- **uztaiak**, eta bakea iragarriko die nazioei; **Elizen arteko biblia**

11 kota-uztai

Kota-uztaian zut, bekokia urdin eta luma-muturrak gorri. **Jon Muñoz**

Ezti-ogiz asebetetik, **kota-uztaian** lozorroan zegoen Nofutur. **Jon Muñoz**

irud/hed Mikroaren aurrean, **kota-uztai** bat, hiru izarreko ganbela batez hornitua. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

burdinazko uztai (8); **kota uztai** (3); **patrikako uztai koadernotxoan** (3); **uztai biribil** (4)

kota uztaia (4); **uztaia askatu** (3); **uztaia eta geziak** (3); **uztaia teinkatu** (4)

kota uztaian (11)

kota uztaiarri (3)

burdinazko uztairik (3)

uztaidun izond uztaiua duena.

Gero, horman zegoen kako batean eta oholosiko beste batean eseki zuen zaku **uztaiduna**. **Anjel Lertxundi**

Mutur batean, kobrezko **uztaidun** teontzietan, pontxea eta ardoa berotzen ari ziren gas sutegi txiki baten gar apal urdin-gorrixten gainean. **Karlos Zabala**

uztail 1 iz urteko zazpigarren hila, 31 egun dituen.

Uztaila dugu justu udaren bihotza. **Pello Zabala**

Iritsi da **uztaila**, eta, goizetan, umez betetzen dira hiriko kaleak. **Iban Zaldúa**

Azkoitia, 2003eko **uztaila**. **Iñigo Aranbarri**

36ko **uztaila** zen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Aidean pasatu zitzaidan **uztaila**. **Jesus Mari Mendizabal**

Adiskide mina **uztail** batez hil zen. **Anjel Lertxundi**

Uztaila eta abuztua oporretan pasatu ostean, bidaiariak etxerako bidean dira. **Berria - Harian**

Uztail aldera Baionako Suprefeturan bilduko da berriz Gidaritza Batzordea. **Berria - Euskal Herria**

Elkarrizketaren zurrunbiloan behera, nire oroitzapen kutunetarikoa bat kontatu diot: estatubatuarrek ilargira heldu zirenekoa, 1969ko **uztail** hartan. **Iban Zaldúa**

Uztail hartan hogoitahamar bat ikasleekin joan nintzen bi aste pasatzera, Andorrara. **Piarres Aintziart**

Uztailean 40 gradu inguru eguner. **Gotzon Garate**

1942ko **uztailean** Pedro Henríquez Ureña-k Santos-eko liburutegi batean haren eskuizkribu bat aurkitu zuen. **Juan Garzia**

Desgiroaren unerik bortitzena, 1997ko **uztailean** izan zen, Miguel Ángel Blanco zinegotziaren heriotzarekin. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Uztaileko hitzorduak. **Herria**

Uztaileko eguzkiak bulegoko leihoetako pertsiana higatuen zuloak urratzen zituen. **Lopez de Arana**

Uztaileko hondar egunak ziren eta aro ederrak lagun egiten zigen. **Aingeru Epaltza**

Uztaileko egun batez -1964ko **uztaileko** bake-urte hartan-Martin eta biok zerrategira joan ginen Adriani bisita egitera. **Bernardo Atxaga**

Uztaileko arratsalde sargori batean ailegatu nintzen zibilizazioaren azken portura, Tolosara. **Joxean Sagartzabal**

Uztailak 2 dituenean, hasi ahal da akaso gainbehera gure eguzki jauna, edo zertan da? **Pello Zabala**

ik beherago 4. **Askoren artean**

Uztailak uztailei, haiek betiere 22-23 urte, eta nik beti bat gehiago. **Aingeru Epaltza**

2 (izenondoeekin)

Ez ibilgailurik ez dirurik, auto-stopez abiatu ginen, **uztail** gorrian, errepideko marra etzanak ere urtzen ari ziren sasoi. **Aingeru Epaltza**

Horra beraz Jospin **uztail** betean Papa Noel edo Olentzero jauntzietan jarria! **Herria**

1910.eko **uztail** malapartatu hartan kale gorrian utzi zuten, eta ordura arte irabazitako meritu guztiek ez zioten ezertarako balio izan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Lisboa setiatzen duten armak dirdirarazten eta sutzen dituen **uztail** ezin gartsuagoa, eta apiril heze eta gris hau. **Jon Alonso**

Aurtengo **uztail** disdiratsu bukaera bi egun ohargarriren lekuko izan da. **Herria**

Uztail beroa, / **uztail** ederra, / guhau ontzen gaituena! **Pello Zabala**

3 (-en atzikiarekin, datetan)

Amatxo, egia al da gaur **Uztailaren** Laua dela? **Lopez de Arana**

Akorduan dut **uztailaren** hemeretzia markatu nuela zirkulu barruan 1936ko kalendariora. **Joseba Sarrionandia**

Uztailaren 20a zen, arratseko bederatziak. 2004ko **uztailaren** 10a larunbata zen. **Josu Zabaleta**

1228ko ekainaren 13tik **uztailaren** 13a arte. **Askoren artean**

Uztailaren 9an, azkenik, ura eta esnea baizik ez nituen jarri mahai gainean. **Josu Zabaleta**

Hantxe sinatu zuen, 1983ko **uztailaren** 10ean, hurrengo eskutitza, jatorriz ingelesez idatzia dena. **Edorta Jimenez**

Igandean, **uztailaren** 27an, Altsasun sartu ziren gure bolondresak. **Txillardegi**

Uztailaren 31 hartan ekiak zuzen jotzen zuen. **Itxaro Borda**

Uztailaren 15eko gaua Kanbon eman ondoren. **Txillardegi**

1888ko **uztailaren** 13ko legean xedatutakoarekin bat etorritz. **Lopez de Arana**

Jauregi Berrian **uztailaren** 15etik 16rako gauean ospatzen ari zen jai hartan. **Karlos Zabala**

Zenbat aurreratuko gara, zure iritzian, **uztailaren** 27rako? **Josu Zabaleta**

Uztailaren 3tik abuztuaren 11ra bitarteko 40 egun horiek ziren. **Pello Zabala**

Uztail honen 25ean eta agorrilaren 1ean Maulen emango den Antso Handia tragedia «Mauleren eta mauletarren pastorala izango dela esan behar da argi eta garbi». **Berria - Kultura**

4 (-k atzikiarekin, datetan, aposizioan)

Larunbatean, **uztailak** 24, aratsaldeko 5-etan. **Herria**

Datorren igandean **uztailak** 20 iraganen da Iparraldeko ardi-xakur xapelketa. **Herria**

Biharamunean, **uztailak** 18, goizeko seiak eta berrogeian, Kaukaso ontzia Kazaneko portura iritsi zen. **Karlos Zabala**

Lehen partida helduden igandean, **uztailak** 10, goizeko 11etan. **Herria**

Egun hartan bertan, **uztailak** 22, arratsaldeko ordu batean bi tarantask Tiumenera heldu ziren, hirurogei versta urrunago. Ostirala, 1944ko **uztailak** 21. **Karlos Zabala**

1933ko **uztailak** 9. **Ramon Etxezarreta**

Larunbata, **uztailak** 13. **Joxe Austin Arrieta**

2001eko **uztailak** 4: 143 hildako, Tupolev-154 bat Siberian erorita. **Berria - Mundua**

1907, **uztailak** 21. **Koldo Izagirre**

Uztailak 4-Kanpamendu nagusia / ez dut idazteko gogorik ere. **Xabier Montoia**

Uztailak hamalau gaur. **Edorta Jimenez**

5 (-k atzikiarekin, datetan)

Uztailak 28 San Pantaleonen eguna dugu. **Pello Zabala**

Uztailak 16a, Karmengo Amaren Eguna izan da aspalditik. **Pello Zabala**

6 (hitz elkartuetan)

Uztail hasieran, uste ez genuen arma erabiltzen hasi ziren gure kontra: trufa-kantak. **Aingeru Epaltza**

Uztail hastapenean ezkondu da Unanbordako jabe berrien semea, Olivier Boura, Carole Haon-ekin. **Herria**

Azkenean, **uztail** hastean jakiten dut Pragako unibertsitateko filosofia erakle baten eskuetan dela ene afera. **Marzel Etxehandi**

Uztail bukaeran, Tourra bukatuta piztu zen lehen txinparta. **Berria - Kirola**

-Hori noiz izan zen: **uztail** amaieran edo? **Xabier Mendiguren Elizegi**

Uztail ondarrean Baionako Mattin megadendan. **Herria**

AEBek diote errestimentsziarren erasoak arrazo bat direla bozak **uztail** aurretik ez egiteko.

Berria - Mundua

7 (hitz elkartuetan elkarketa kopulatiboetan)

Angeluko zuzendaritzak onartu duela, **uztail** agorriletan salbu, saltegiko ateen hestea arratseko bederatzi orenetan. Herria

Uztail -agorri-irailez, 18 kontzertu zaizkigu eskainiak izanen Miarrizeko Koliseoan. Herria

Horrek ekain-**uztail** -abuztuetan irauten du. Iñaki Iñurrieta

8 uztail erdi

Antton Etxebeste donostiarra apeztu da Elgoibarren, **uztail erdi** hontan.

Uztail erdiko arratsalde batean, Biarnoko lotinant jeneralarengana deitu ninduten berriz. Aingeru Epaltza

1998ko maiatz amaiera eta **uztail erdia** artean. Berria - Harian

· Urtero bezala, nazioarteko txapelketaren garaia dute **uztail erditsuan**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

uztail abuztu (3); **uztail agorriletan** (9); **uztail bukaeran** (3); **uztail eta agorrilean** (3); **uztail hastapen hortan** (4); **uztail hastapenean** (7); **uztail ondar** (4); **uztail oparo ostean** (5)

ekaina eta uztaila (4); **uztaila arte** (9); **uztaila arteko** (3); **uztaila baino lehen** (3); **uztaila bitarte** (4); **uztaila bitartean** (10); **uztaila da** (4); **uztaila eta abuztua** (4); **uztaila hasi** (3); **uztaila izan** (3); **uztaila zen** (5)

iragan uztailan (3)

aurtengo uztailaren (4); **gaur uztailaren laua** (5); **heldu den uztailaren** (15); **helduden uztailaren** (7); **iazko uztailaren** (20); **iragan uztailaren** (25); **joan den uztailaren** (34); **joanden uztailaren** (5); **urte bereko uztailaren** (4); **urteko uztailaren** (15)

uztailaren amaieran (8); **uztailaren azken** (9); **uztailaren bederatzian** (4); **uztailaren bia** (3); **uztailaren bigarren** (3); **uztailaren bukaeran** (6); **uztailaren erdialdean** (5); **uztailaren hasieran** (8); **uztailaren lehen** (14); **uztailaren lehen egunetan** (4); **uztailaren lehena** (4); **uztailaren lehenean** (17); **uztailaren leheneko** (4); **uztailaren lehenetik** (7)

uztailaz geroztik (9)

aurtengo uztailean (6); **datorren uztailean** (5); **ekainean eta uztailean** (14); **helduden uztailean** (3); **hurrengo uztailean** (3); **iazko uztailean** (38); **iragan uztailean** (21); **joan den uztailean** (30); **joan zen uztailean** (3); **joanden uztailean** (4); **urte bereko uztailean** (3)

uztailean abiatu (3); **uztailean atxilotu** (8); **uztailean atxilotu zituzten** (6); **uztailean aurkeztu** (3); **uztailean egin** (9); **uztailean egin zen** (3); **uztailean egindako** (4); **uztailean eginen** (3); **uztailean egingo** (6); **uztailean eta abuztuan** (13); **uztailean eta agorrilean** (3); **uztailean hartu** (4); **uztailean hasi** (12); **uztailean hasi zen** (9); **uztailean hasiko** (3); **uztailean hasitako** (3); **uztailean hil** (5); **uztailean hil zen** (3); **uztailean iragarri zuen** (3); **uztailean iritsiko dela** (3); **uztailean izan** (11); **uztailean izan zen** (4); **uztailean izandako** (3); **uztailean kiebra jo** (3); **uztailean lanean** (3); **uztailean onartu** (8); **uztailean sartu** (4); **uztailean sortu** (5); **uztailean utzi** (3); **uztailean zehar** (3)

iragan uztaileko (3); **uztaileko arratsalde** (3); **uztaileko azken** (4); **uztaileko egun** (10); **uztaileko eguzkiak** (3); **uztaileko lehen** (10)

apiriletik uztailera (10); **urtarriletik uztailera bitartean** (4); **uztailera arte** (3); **uztailera bitartean** (9); **uztailera bitarteko** (3)

iazko uztailetik (8); **uztailetik aurrera** (14); **uztailetik irailera** (11); **uztailetik irailera bitartean** (7)

uztailero *adlag* uztail guztietan.

Zer ospatzen dute **uztailero** orangistek Irlandan? Iñigo Aranbarri

uztaipe iz saskibaloi partidetan uztaien azpiko aldea. ik **uztai 6**.

Baskoniak gainera hutsune handia izango du **uztaipean**, Scolak ez baitu jokatuko. Berria - Kirola

Hledek ez zuen zirrikiturik aurkitu, eta Ferragutek eta Pagek baloi gutxi jaso zituzten **uztaipean**. Berria - Kirola

Defentsa erabakigarria izan zen, Hornets-eko jokalariek ezin zuten zirrikitu bat bilatu **uztaipera** sartzeko partidaren azken txanpan. Berria - Kirola

Bera izan zen onena atzo **uztaipeko** lan honetan. Berria - Kirola

Uztaipeko beste erreferentzia Sharone Wright da, 132 kiloko NBAko jokalaria ohia defentsan nabarmentzen da, gehienbat. Berria - Kirola

uztaitu, uztai(tu), uztaitzen 1 du *ad* inguratu.

Kate zilarkara batek **uztaitzen** zion eskuineko txorkatila. Aingeru Epaltza

Koroa txikia ilargiaren jiran **uztaitua** sarri ikusi ohi da. Pello Zabala

2 kakotu.

Sorbaldak **uztaitu** zituen agur moduan. Lopez de Arana

uztaitxo iz uztai txikia.

Urratu papera eta, txirbil artean hain justu ere, hexurrezko **uztaitxo** bat ikusi nuen. Bernardo Atxaga

Bekainak edo mihia ez zituen inork ere zulatzen, ez sudurra metalezko **uztaitxo** distiratsu batekin josten. Pello Salaburu

"Eskuturreko berde bat eramaten du Jonek", gogoratu du, "eta gelako neska hark bere urtebetetze egunean oparitutako **uztaitxo** hura ezkerreko belarrian". Jokin Muñoz

Patrikara eskua sartu eta giltzak biltzen dituen **uztaitxoan** hatza sartzean aliantza-eratzun bat eta konpromiso inexistente bat imajinatzen baitute. Harkaitz Cano

Gutunean jasotako **uztaitxoa** listari batekin zintzilikatu nuen etxeko garajean eta, ziri bezala iltze bat erabiliz [...] zinta-karrerarako entrenatzen hasi nintzen. Bernardo Atxaga

uztaldi iz uzta biltzen den aldia.

Uztaldian ordainduko zioagu. Juan Garzia

Hirugarren belaunaldiko zibilizazioetako bakar batek ere [...] ez duela erakusten eliza unibertsalen bigarren **uztaldirik** ekoizten ari den froga garbirik. Iñaki Mendiguren

uztar iz ostikoa.

Behi baten deitzen ari zelarik, **uztar** bat bildu zuen gaixo laborariak. Herria

Baina ele gaiztoek ahapeka ziotenez, Savall jeneral-buruarekin izandako **uztar** gehiegiek ere sendagailua behar zuten. Txillardegi

Eman diola astoaren **uztarra**! Herria

Xede ederra hori bainan Arroxelan egin baitituzte beren udako gogoetaldiak hor segurik ikusi da elgarren artean ez direla batere ados, elgarri dena ximiko, piko eta **uztar**!

Herria

uztar-hede *iz* uztartzea; uztartzen dena.

Era berean, abereek ere, bakoitzak karga berdina eramaten dute, uztarria ondo lotua dagoenean **uztar-hedeak** erdian hartuz. Berria - Iruretagoiena

Bi abereak indarrez berdinak ez direnean, eta batek besteak baino gehiago tiratuz beste hau larriarazten badu, **uztar-hedeak** uztarriaren alde bat bestea baino luzeago utziz lotzen dira, eta horrekin lagundu egiten zaio ahulagoa den abereari. Santiago Iruretagoiena

uztarazi ik utzarazi.

uztarbide *iz* uztartzeko bidea.

Baina hurbileko etorkizun politikoan denek mahai bat marrazteak, bere horretan, gatazka gainditzeko **uztarbide** baterako itxaropena dakar. Berria - Harian

uztardura 1 *iz* uztartzea; uztartzen duen lotura.

Gauzek euren gorputz osoan diraute, haien **uztardura** desegiteko bezain indar bortitzak jo arte. Xabier Amuriza

Gauzaki berberari dagozkion fenomeno erlatiboen bi moten arteko **uztardura**. Isabel Arrigain

Baionarrek badute oraindik nahikoa lan taldera heldu ziren 16 jokalarien eta gainerakoen **uztardura** lortzeko, baina gibelean, bederen, lortzen ari dira. Berria - Kirola

Halakoa da substantzia bakun bat substantzia askotan zatitzeko ahalgarritasuna, eta alderantziz, substantzia anizkunen **uztardura** (koalizioa) substantzia bakun batean. Ibon Urbarri

Hor huts egin ohi dute **uztardura** literarioek: xehetasunetan, ezaugarri konkretuetan. Bernardo Atxaga

Eten du erlijioaren eta legearen **uztardura** luzea. Andres Urrutia

Sistemek harren moduan eratuak daudela dirudite, hasieran akasduak, denborarekin osatuak, *generatio aequivoca* baten indarrez bildutako adigaien **uztardura** soiletik abiatuta. Ibon Urbarri

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizabanako guztiengan metatzen diren hitzeko irudi guztiak biltzerik izango bagenu, gizarte **uztardura** batekin topatuko ginatete, eta gizarte **uztardura** hori hizkuntza da.

Isabel Arrigain

Berezko euskarria behar da, komenigarritasun **uztardurak** egin ahal izateko. Andres Urrutia

uztargaitz *izond* nekez uztartzen dena.

Batzuek filosofia eta poesia **uztargaitzak** direla ere usteko dute eta, lan honen balio poetikoaren ebidentzia ukatu ezin dutenez gero, ustezko uztartezin horrekin esplikatzeko dute bere barne dramatismoa. Xabier Amuriza

Duela hamabost edo hogei urteko ikuspegitik egindako galdera dirudi, ahozkotasuna eta unibertsitari-ikasketak **uztargaitzak** zirenekoa. Andoni Egaña

uztargarri *izond* uztar daitekeena.

Dena lot nezakeen, dena zitzaidan **uztargarri**. Iñigo Aranbarri

Lana eta familia **uztargarri** bihurtzeko. Berria - Ekonomia

Erabilera publikoko datu biltegia delarik [...] alor honetan dauden edo egon daitezkeen gainontzekoekin osagarria eta **uztargarria** da. Berria - Euskal Herria

«Erabat **uztargarriak** dira» Kyotoko Ituna eta Estatuko plangintza energetikoa. Berria - Ekonomia

Nafarroa Bai eta Bergarako Proposamena **uztargarriak** dira, baina beste testuinguru batean. Berria - Euskal Herria

Salaketaren beharra eta ironiaren erabilera **uztargarriak** dira, eta ez etsai. Txema Ramirez de la Piscina

Arlo honetan ere «askotariko egitasmo **uztargarrien**» beharra nabarmendu zuen. Berria - Ekonomia

uztargarritasun *iz* uztargarria denaren nolakotasuna.

Ametzaga (Araba) herriaren inguruan ezarri nahi duten Ecofuel enpresak hondakinen **uztargarritasunari** eta egonkortasunari buruz Eusko Jaurlaritzari aurkeztu zion txostena aztertu du LAB sindikatuak. Berria - Euskal Herria

uztargi *iz* ostadarra.

Hantxe genuen, bai, aurrez aurre **uztargia**, eguzkiak, pixkanaka, gora egin zuenean. Joan Mari Irigoien

uztaritzar ik uztaritzar.

uztaritzar (*orobat uztaritzar g.er.*) *izlag/iz* Uztaritzekoa, Uztaritz dagokiona; Uztaritzeko biztanlea.

Beñat Oiharzabal **uztaritzar** euskaltzainak bere aldetik kondatu du nola ezagutu zuen baigorriar maixua. Herria

Joel Sistiague **uztaritzar** gazteari 5 urteren presondegia zigorra eman zaio, talde armatu batean partaide izaitzea gatik. Herria

Florence Bidad **uztaritzar** andere xarman bat, hiri-zain, Miarritzen. Herria

Anitzek ezagutu dugu Donetx apezka, sortzez **uztaritzarra**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Oragarreko askaziaren ametsak gogoratzen dizkit bada Mixel Labéguerie **uztaritzar** gure lagun zenaren ametsetako beste bi olerki. Piarres Xarriton

Madrilgo Garzon jujearen manuz, eta Europako lege berrien arabera, Frantziak Madrilera igor lezazke hiru lapurtar gazte, bi **uztaritzar** eta senpenter bat, Amaia Errekarte,

Yves Machicote eta Haritza Galarraza, han preso ezartzeko irriskuarekin. Herria

Hastetik erakutsi dute **uztaritzarrek** beren maila. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

belascain uztaritzarra (3)

uztarka *adlag* ostikoka. • *irud/hed*

Korsikan bazterrak beti minbera, 35 oren horiekin ere nahiko arrangurak, "berdeak" eta komunistak noiz nahi **uztarka** ari, berak gobernuan partzuer direlarik. **Herria**
Bainan azken 15 egunetan bi ministro berde frantsezlari **uztarka** hasirik, batasun horrek iduri du irriskutan dagoela. **Herria**
Denbora batez Angleterra zen **uztarka** ari, estakuru-mestakuru. **Herria**

uztarketa 1 iz uztartzea.

Fabulaziorako alaitasunaren eta irudimen biziaren **uztarketa** liluragarriak errenditu zuen Stevensonengana. **Juan Garzia**
Taldekideon esperientziaren **uztarketa** izan da, lanen batuketa. **Berria - Kultura**
Azokak aurkeztuko duen artista ezagunen eta berrien lanen **uztarketak** bildumazaleen interesa piztu duela adierazi zuen Ordoñezek. **Berria - Kultura**
Medikuntzaren modalitate guztien **uztarketa** da bide bakarra. **Berria - Gaiak**
Rock klasikoaren eta doinu elektronikoaren arteko **uztarketa** sofistikatu eta erakargarria. **Patxi Iturritegi**
Beren esperientzia propioaren eta ikasten ari ziren teologiaren arteko **uztarketa** ezin zuten egin. **Berria - Euskal Herria**
Erakutsi nahi nuen, adibide zehatzetan oinarriturik, diskurtsoak aztertzean ikusten dela itxuran hain sendoa den hitzen eta gauzen arteko **uztarketa** ahultzen dela eta askatzen dela jardun diskurtsiboari hain berezkoa zaion arau-multzo bat. **Xabier Arregi**
Borroka modu ezberdinak izan dira, nahiz eta borroka prozesuen arteko nolabaiteko lotura eta **uztarketa** ere izan den. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hurrengo astean, Oconek atal guztiak elkartu eta **uztarketa** lana egingo du, eta azkenik, hirugarren astean, Lorenzo Ramosek hartuko du orkestraren gidaritza. **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere musikan ohikoa den estilo **uztarketa** proposatzen du Amparanoiak. **Berria - Kultura**
Ordurako, denen begietara, berdin baitzen zer alderdik, zer enpresak edo zein familia ahalduen arteko interes- **uztarketak** lagundu zioten unean uneko kargura igotzen. **Guruk, hip-hop-jazz uztarketaren** aitzindariak, Bilbon joko du gaur. **Jon Alonso**
Heredentzia krausistan arrunta izan den positibismo eta idealismo **uztarketak** erraztu bide du Espainiaren asmaketa hori. **Joxe Azurmendi**

uztarkide iz abere batentzat, uztarrian kide duen aberea.

Saiheskariak gara asko: hala esaten zaio nekez uztar litekeen idiari, **uztarkidearekin** batean ibili nahi ez duenari. **Iñaki Segurola**

uztaro (orobat uzta aro) 1 iz uztaren aroa.

Udarekin batera, **uztaroa**, nekazarien jai nagusia. Artaburu urre kolorekoak poza ematen digu **uztaroan**. **Jose Morales**
Ez al gaude orain gariaren **uzta-arroan** ? **Elizen arteko biblia**
Zazpiak batera hil ziren, **uzta-arroaren** lehen egunetan, garagarra biltzen hastean. **Elizen arteko biblia**

2 (hitz elkartuetan)

Behin batean, gari- **uztaroan**, amodio-sagar batzuk aurkitu zituen Rubenek soroan eta bere ama Leari eraman zizkion. **Jose Antonio Mujika**

uztarpe 1 iz uztarriaren azpia.

Nik, ostera, latzak hartzen ditiat, izan ere goizean goizetik lan eta lan ibiltzen bainaiz **uztarpean**. **Patxi Zubizarreta**

2 irud/hed mendean hartzea, mendekotasuna.

Eta elikatzeko modu horretara aise egokituko gara, **uztarpe** goxoa izango dugulako, obligazio gutxi ezarriko baitzizkigu. **Edorta Agirre**
Bikaintasuna eskatzean zenbat eta zorroztasun txikiagoa erakutsi, orduan eta hertsiago jar dezake **uztarpea** sistemak, orduan eta eskuzabalago ager daiteke, inongo eskuzabaltasunik agertu gabe. **Edorta Agirre**
On du gizakiak gaztetandik **uztarpean** ohitzea. **Elizen arteko biblia**
-Ezagutzen nauzu, eta badakizu ni ez naizela **uztarpean** bizitzeko jaio, ez naizela maitasun domestiko horien zalea alegia. **Patxi Zubizarreta**
Seleukotarren agintaldiko ehun eta hirurogeita hamargarren urtean askatu zen Israel atzerritarren **uztarpetik**. **Elizen arteko biblia**
Ez makurtu berriro esklabotzaren **uztarpera**. **Elizen arteko biblia**
Neure burua besteekin erkaturik gogo-freskoago sentituko nintzela berak baino, irabazpidearen eta idoloen **uztarpera** ez hain lotua, ez hain maleziatua, ez hain errea. **Juan Garzia**
Egunerokotasunaren **uztarpean**. **Berria - Harian**

uztarpen iz uztartzea.

Gaur egun jarrera hauek uztartu ezinezkoak direla garbi dago, eta bakea lortzeko uztartu beharko direla ere bai, baina epe motzean ezinezkoa ikusten dut nik inolako **uztarpenik**. **Berria - Euskal Herria**

uztarpetu, uzterpe(tu), uztarpetzen du ad uztarpean hartu.

Boterearen joranak **uztarpetu** zuen, hiltzeko gogoak heldu zion eta ez zuen uzten libre. **Anton Garikano**

uztarrezin iz ezin uztartuzkoa.

Uztarrezinak dira elkarrizketa eta Euskal Herriaren banaketa defendatzea. **Berria - Euskal Herria**
Euskal izpiritu handi, ireki, abenturazalea, **uztarrezina** da abertzaletasun kaskar batekin. **Joxe Azurmendi**

uztarrezintasun iz izterrezina denaren nolakotasuna.

Erlijoaren eta zientziaren **uztarrezintasunaren** gatazkaren testuinguruan ulertu behar da. **Joxe Azurmendi**

uztarri 1 iz zurezko atal sendoa eta landua, idi edo behi pareari, lanerako lotzeko, buru gainean ezartzen zaiona.

Egunerdi idien gainean erazirik dabilen **uztarriak** urteak eta urteak iraun dezake, 80 behar bada. **Pako Aristi**

Ez dituzue idia eta astoa **uztarri** berean lotuko, goldan jarduteko. **Elizen arteko biblia**

Irabaztea eta galtzea ez ote da **uztarri** beraren menean dabilen idi pareta? **Itxaro Borda**

Zenbat **uztarri** eta beste ez ote dira egin urkiaz! **Pello Zabala**

Idien **uztarriaz** sua egin eta erre zuen okela eta jaten eman zion jendeari. **Elizen arteko biblia**

Uztarri berean hiru idi lotzea gaitz bada ere, Vatikanokoak ere Francoren diktadurarekin bat egin zuen, Konkordatu sinatuz. **Edorta Jimenez**

Egizue gurdi berria, jar itzazue **uztarrian** inoiz lotu gabeko bi behi umetu-berri eta erantsi gurdia. **Elizen arteko biblia**

Hananiasek, **uztarria** Jeremiasen lepotik kendurik, apurtu egin zuen. **Elizen arteko biblia**

Uztarri eta gezien ikur falangista eta Espainiako armarrira. **Bernardo Atxaga**

2 irud/hed

Uztarritzat uler daiteke gure urratsei jarraitzen dien edozer gauza, guk zailtasunez tiraka daramaguna. **Joan Mari Lekuona**

Zer erantzun behar nioke, gure aitak ezarri zion **uztarria** arintzeko eskatu didan jende horri? **Elizen arteko biblia**

Beren onean eta beste **uztarri** bati lotzeko asmoz, kirgizen askatasuna defendatzen baitzuten Moskuko mendekotasunaren kontra. **Karlos Zabala**

Uko egin zioten itun santuari eta arrotzen **uztarria** onartu. **Elizen arteko biblia**

Jainkoak deabruaren **uztarritik** aska dezan bere aintzaren gorapenerako. **Askoren artean**

Urteetako bizikidetasunak miseria horiek sortzen omen ditu; ni ez naiz **uztarri** horietatik pasatutakoa baina horraino ohartua naiz dagoeneko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ingelesen **uztarritik** ateratzeko bi gerla egin zituzten. **Gotzon Garate**

Nori zaio eramaneraza **uztarri** hau? **Joan Mari Lekuona**

Beraien **uztarriaren** lokarriak apurtu eta esklabo bihurtu dituztenen eskupetik libratuko ditudanean, orduan jakingo dute ni naizela Jauna. **Elizen arteko biblia**

-Bai -esan zuen-, John Loomis eta Matt, biak ala biak **uztarri** berean lotzeko modukoak ziren; hitz-erdi bat ere ezin zitzaizen sinetsi esaten zutenetik. **Mirentxu Larrañaga**

Nire **uztarria** eramaneraza da eta nire zama arina. **Joan Mari Lekuona**

3 (irud/hed, izenondoekin)

Apurtua baitzue lepoan zeramatena **uztarri** astuna, zapaltzailearen aginte-makila, Madiango gudarostea apurtu zenuen bezalaxe. Arindu, bada, zuen aitak ezarri zizkigun morrontza gogorra eta **uztarri** astuna, eta zerbitzari izanen gaitzuz. **Elizen arteko biblia**

Espainiako **uztarri** gogoraren azpian bizi izanagatik, Hegoaldeko gure haurrideek noizbait burua altxatuko zutela eta orduan, menturaz, guk ere. **Piarres Xarriton**

Uztarri zibila onartu baino lehen inork ez zeukan ezer berezko eskubidez, eta dena komuna zen guztientzat. **Esteban Antxustegi**

Zorionekoak bost bider, atzen egunera arte, **uztarri** hautsi gabean amodioak harrapatu zituenak. **Patziku Perurena**

Zer egiten dugu zuk eta nik amodiozko **uztarri** honen pean? **Iñaki Segurola**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Injustizi kateak hautsi eta **uztarri** -hedeak etetea. **Elizen arteko biblia**

Han zegoen bera, eskerga, so eginez nola sartzen zuten zaku zaharrez bildutako zer bat, **uztarri** -bilurrez amarratua luzera guztian, hiljantzi modura. **Juan Garzia**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Neure artzain-makilapera ekarriko zaitzuten eta itun-**uztarrian** sarraraziko. **Elizen arteko biblia**

6 batera uztartzen diren abereen bikotea.

Izan ere, askotan bi idi onak izanagatik ere, ez dute gauza askorik egingo ez badira ondo moldatzen; ez da ziurtatuko **uztarri** ona izatea. **Berria - Kirola**

Ganadutegiak, berriz, zabalera ez dute hamar oin baino txikiagoak izan behar, eta ezta hamabost baino handiagoak ere; eta luzeran, **uztarri** bakoitzarentzat zazpina oin baino gutxiago ez izateko modukoak izan behar dute. **Santiago Iruretagoiena**

Uztarri bakoitzak bi itzain izango ditu. **Berria - Kirola**

Iaz Sistiagaren **uztarriak** 53 unte egin zituen, eta 2000an, Rosariorenak 59 unte eta laurden. **Berria - Kirola**

Uzkudunen **uztarri** bat ariko da lanean, eta bere idiek eginiko 52 unte 6 zinta eta 1,93 metroko marka ondu beharko dute. **Berria - Kirola**

Otsailaren 3an hasiko dira Abadiñoko probak, eta 29 **uztarri** ariko dira. **Berria - Kirola**

Uztarriek 1.750 kiloko harria erabiliko dute, eta pisu neurtukoia izango da dema. **Berria - Kirola**

7 uztarripe- ik uztarpe.

Gabezia dauden horietarik badira Europa Ekialdeko batzu ere, sobietarren **uztarripean** egon zirenetan. **Herria**

Aginte irrikaren **uztarripean** menderaturik aurkitzen dira printzeak eta nazioak. **Imanol Unzurrunzaga**

Halaxe gertatzen zaio **uztarripean** uztartua bizi denari, eta areago oraindik uztarri bakarrean edo bere buruarekin buruz buru bizi denari. **Iñaki Segurola**

-Gure helburua, Frantziaren **uztarripetik** Iparraldearen ateratzea da eta Euskal Herri independente, euskaldun eta sozialista baten barnean geroaren eraikitzea. **Itxaro Borda**

Halaz langabeziaren zerrendetarik ezabatzen dituzte milaka kide, familia laguntzak murrizten eta RMIa RMA bihurtzen da, lana maite ez duten pobre zakarren lanaren **uztarripera** plega arazteko. **Berria - Kultura**

8 idi uztarri batera uztartzen diren idien bikotea.

Idi-uztarriak tiratzen zuenean. **Santiago Iruretagoiena**

Idi-uztarriak bultzaturiko gurdi batean eraman zituzten emakume biak hiriburuko kartzelaraino. **Felipe Juaristi**

Mando-sokak eta **idi-uztarriak** ezin aintzinatuz metatzen ziren hiriko sei ateetan. **Aingeru Epaltza**

Ukuiluak eta ukuiluen tamainak abereen arabera eta han elkartuko diren **idi-uztarrien** arabera egingo dira. **Santiago Iruretagoiena**

Osa dezala bakoitzak **idi uztarri** sendoa, eta, idien atzean, eroso ipini ahalgo da gurdia; sekula ere ez, idien aurrean, gurdia. **Koldo Zuazo**

Ondoren, ardatzen inguruan txikota bat lotu zuen eta **idi-uztarri** bat jarri zuen txikotatik tiraka. **Santiago Iruretagoiena**

9 (corpusean uztarri idi soilik) uztarreko idia.

Txikitu ditut zurekin artzain eta artaldeak, txikitu nekazari eta **uztarriak**, txikitu gobernari eta buruzagiak. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hiru uztarri ariko (4); lau uztarri ariko (3); uztarri ariko (11); uztarri ariko dira (11); uztarri astuna (11); uztarri astuna ezarri (6); uztarri berean (5); uztarri lehiatuko dira (5); ezarri zion uztarria (4); haren uztarria (6); jaunaren uztarria (3); nire uztarria (4)

uztarria arintzeko eskatu (4); uztarria eramaneraza (3)

aki lopategiren uztarriak (3); iñ idi uztarriak (3); probalariaren uztarriak (3); uztarriak ariko dira (6); uztarriak egin du (4); uztarriak plazaratuko dira (4)

uztarri idi 9.

uztarrika iz aztarrika.

Gorantz hasi naiz ostera, axarka kafazka **uztarrika**, sator baten moduan, lurra jan ere egiten dudala, gorantz, gorantz, askatasunerantz, libertatea beso zabalik daukadan presonegiaren patoriantz. **Koldo Izagirre**

uztaripe ik uztarri 7.

uztartezi*n* izond ezin uztartuzkoa.

Euskal izpiritu handi, ireki, abenturazalea, **uztarrezina** da abertzaletasun kaskar batekin. **Joxe Azurmendi**
Uztarrezinak dira elkarriketa eta Euskal Herriaren banaketa defendatzea. **Berria - Euskal Herria**

uztartezi*ntasun* iz uztarrezia*ren* nolakotasuna.

XIX. mende azkenetako erlijioaren eta zientziaren **uztarrezintasunaren** gatazkaren testuinguruan ulertu behar da. **Joxe Azurmendi**

uztatu, uztar(tu), uztartzen 1 du *ad* uztarrian lotu.

Idi pare **uztatu** eta basora joan. **Pello Zabala**
Saiheskariak gara asko: hala esaten zaio nekez **uztar** litekeen idiari, uztarkidearekin batean ibili nahi ez duenari. **Iñaki Segurola**
Txahalak hazten ari ziren bi behi hartu, **uztatu** eta gurdian lotu zituzten. **Elizen arteko biblia**
Gero, bi behi **uztatu**, soka lodi baten bidez uztarria eta behi hilaren adarrak lotu, eta Soroetako leku ezkutuenerantz abiatu zen. **Joan Mari Irigoien**
Zure aldera biltzen duzu **uztatu** idiak edertzen dituen abere-estalki brodatua! **Itxaro Borda**

2 irud/hed ik lotu.

Puzzlearen piezak bere gisa **uztartz**en direla iruditzen zaio zenbaitetan. **Imanol Zurutuza**
Nola **uztatu** loturarik ez duten bi gertaera? **Xabier Arregi**
Iragana eta oraina lotzen eta **uztartz**en ahalegindu naiz uneoro. **Koldo Zuazo**
Erritmoa eta errima nola **uztartz**en dira? **Ana Urkiza**
Sindikalgintza abertzaleak **uztatu** behar ditu elementu taktikoak eta estrategikoak. **Berria - Euskal Herria**
Jainkoak **uztatu** duena, ez beza gizakiak aska. **Elizen arteko biblia**
Homeroren hori ez zait iruditzen batere formulazio kaskarra *Fictio sive realitas* dikotomia gainditu eta biak, fikzioa eta errealtatea, **uztartzeko**. **Anjel Lertxundi**
Ustekabea eta amorrazioa **uztartz**en zituen imintzioa egin zuen gizonak. **Patxi Zubizarreta**
Bi teknika **uztartz**en ditu: in vitro ernalkuntza eta diagnostiko molekularra. **Berria - Gaiak**
Bihotza eta adimena, biak landu eta **uztartz**en zen arima-gidariaren esku utzi zuten lana. **Anjel Lertxundi**
Bi edo gehiago elementu barne menpekotasunezko erlazio batez **uztartzuak** daudenean bihurtzen da baliagarri hotsen jakintza. **Isabel Arrigain**
Laborantza geroarekin **uztartzu**, aitzinatzeko eta berritzeko gaitasuna duen laborantzaren aldeko hautua egiten dugu. **Herria**
Krokodiloa eta ohea, esaterako, esparru semantiko desberdina duten bi hitz **uztartz**en. **Ana Urkiza**
Dibortziorako ahalmena, gure artean, kontzientzia askatasunarekin **uztartzurik** dago. **Xabier Aranburu**
Likurgok, Numak, Moisesek, Jesukristok, Mahomak, pikaro hauek guztiak, gure ideien despota hauek guztiak, ederki asko jakin zuten eurek asmatutako jainkoak beren handinahi mugagabearekin **uztartz**en. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Ideala eta errealtatea elkarrekin **uztartz**en. **Askoren artean**
Hego Amerikari **uztartzu** baizik ez dela kanbiatuko Brasil, hori ere badakigu. **Herria**
Halaxe jarraitu genuen, ideia eta sentimendu konglomeratu hari **uztartzuta**. **Bernardo Atxaga**

3 (pertsonek) ik ezkondu.

Segituan pentsatu nuen Alberto ere Adelarekin **uztartzu**a zela. **Juan Kruz Igerabide**
Radhak 24 urte zituen Krishnaswamirekin **uztartzu** zenean Lucknow-n. **Gotzon Garate**
Dena dela, utzidazu apur bat oroitzen... Ezkontza, ezkontza... Memoria onekoa baldin banaiz, ez da berriketako kontua, gero: gizona emakumearekin **uztartz**en duen lotura da. **Patxi Zubizarreta**
Ama Méhudin aspalditik ari da Lebigre jauna alabarekin **uztartzu** nahian. **Karlos Zabala**
Badaki edo jakin behar luke laborari gazte batekin ezkontzea, nahitaez, etxekoekin ere **uztartz**en dela, etxaldearen biziarazteko. **Daniel Landart**

4 (besoak eta)

Aldika lozorroan, aldika erdilo, aldika besoak **uztartzu** eta atsedenean. **Migel Angel Mintegi**
Eskuak mahai gainean **uztartz**en zituela, osabak erran zion: [...]. **Joan Mari Irigoien**
Besoak **uztartzurik** nituen, eta begiak hertsirik. **Joan Mari Irigoien**
Baina, lurtean eserita, besoak **uztartzurik** zegoen, sudurra haizearen kontra eta begiak itxita, epel mantentzeko. **Itziar Otegi**
Eta arazoa, esan bezala, larria da besoak **uztartzuta** egoteko. **Migel Angel Mintegi**
Txixikov, eskuak bizkarraren atzean **uztartzurik**, adi-adi so geratu zitzaizen pare bat minutuz. **Jose Morales**

5 (era burutua izenondo gisa)

Hankapalo, horrenbestez, guk nahi eta ezin genuen horrexen gauzatzailea zen, gizonezko **uztartzuen** mendekatzaile eta gure koadrilaren ohorearen goratzaile. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Bere tronutzako gurditik, lehoi pare **uztartzuari** zeragiola. **Xabier Amuriza**

uztartz

Faxismoaren eta futurismoaren **uztartz**en hori gauza polita eta jakingarria da modernotasuna, garaikidetasuna eta, oro har, etorkizunetik zer datorren zaintzea, gauza onak edo jende onaren gauzak direla uste dutenentzat. **Iñaki Segurola**
Adelak komunismoarekin, budismoarekin eta yogarekin egiten zuen **uztartz**en hura gure bailaran arraroa gertatzen bazen ere, ez zen batere ezohikoa garai hartako zenbait giro aurrerakoitan. **Juan Kruz Igerabide**
Musiken eta hizkuntzen **uztartz**en horrek giro ezinago goxoa sortzen du. **Herria**
Haragiaren eta mundu sinbolikoaren, hitzaren, **uztartz**en ez da inoiz perfektua. **Berria - Harian**
Bigarrena, XIX. mendearen bukaeran banku handien kapitala eta kapitala **uztartz**en prozesuarekin osatutako kapital finantzarioari dagokio. **Iñaki Heras**
Uztartzen lan bat da. **Berria - Kultura**

2 errugbian, bi taldeetako jokalariek, uztartzurik, beren arteko lurtean dagoen baloia hartzeko presioa egiten duten jokaldia.

Irlandarrak indartsuak dira **uztartz**en eta eskasetan. **Berria - Kirola**
Uztartzen izan zen lapurtarren baliabide nagusia, nola joko irekian hala **uztartz**en bildu eta bilketetan. **Berria - Kirola**
Entsegu lerrotik 24 metrora **uztartz**en bildua jokatu zuten, Miarritzeko jokalariek baloia jaso eta ezker albotik ihes egin zuen. **Berria - Kirola**
Hiru **uztartz**en bildu eragin zituzten Miarritzeko aitzinlariek eta hiruretan entsegua egin zuten. **Berria - Kirola**

Uztartze irekiak uztartze-laxo bihurtzea gustuko dute aitzinlariak, eta zigor kolpeak eragiten dituzte. Berria - Kirola

Zeelanda Berria eta Samoarekin alderatuta, **uztartzeak** eta uztartze-laxoak indartsuagoak dira hemen, eta nik maite dut hori. Berria - Kirola

Bizpahiru **uztartze** ireki Miaritzeren entsegu lerrotik 5 metrora, eta, azkenean, Mathiu indartsu sartu zen baloia marraz bestalde pausatzeko. Berria - Kirola

3 **uztartze erdi** errugbian, uztartzearen alboan gelditzen den jokalaria, aurrelarien jokia gidatzeko ardura duena.

Yachvili **uztartze** erdia izan zen animatzailea, eta Tonita hirugarren lerroa onenetakoa, berriro. Berria - Kirola

Joko zabaltzaile eta **uztartze** erdia izan daiteke. Berria - Kirola

97 puntu erdietsi ditu **uztartze** erdiak ligan eta Top 16ko sei puntugilerik onenen artean da. Berria - Kirola

uztatsu *izond* uzta ugarikoa.

Garia zumatze eta zumaitzeaz ohartu behar dugu, garizori **uztatsuaren** bidean baititugu gariok Pazkoa bitartean. Pello Zabala

uztatu, uzta(tu), uztatzen du *ad* uztaz mintzatuz, bildu. • *irud/hed*

Politika-mailan beste esku batzuek **uztatzen** dituzte onurak. Iñaki Mendiguren

uzte 1 *iz utzi* aditzaren aditz izena.

Aski zen amore emate hori, mendean har nintzaten **uzte** horixe, bizi probetxu pixka bat gehixeago har zezaten. Josu Zabaleta

Foruzaingoak «**uzte** kolektibo» hori dela-eta «badaezpada» neurriak hartu zituela azaldu zuen Nafarroako Gobernuak atzo, igorritako ohar baten bidez. Berria - Ekonomia

Han kausitu nuen neure eder hura kadera luze batean finkatua bere buruaren **uzte** zoragarrian. Jon Muñoz

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Benetan txikiak eta garai honetako beste erlijioso guztiak baino umilagoak beren abitu, ondasun-**uzte** eta munduaren mespretxuagatik. Askoren artean

Indarkeria **uzte** hori betiko finkatzea ahalbidetuko duten bideak. Berria - Euskal Herria

Zeren nahiz ez den bekatu Jainkoaren aholkuen bazter **uzte** soila, mortala da halere aholkuen gutiesteagatik bekatu egitea. Piarres Xarriton

Gehiegizko eta eramanezineko jan-**uzte** gogorrari ekin diozula jakin dudanez, [...]. Askoren artean

Nire burua lugorri **uzte** hau denboren amaieraraino luzatuko zen agian baldin eta, nola esan, hanka sartu izan ez banu. Joxan Elozegi

Testu neutro bat eta 98 bide **uzte**, 98 urrats desbideratu. Xabier Olarra

3 *haragi uzte*

Goratu barauak eta **haragi-uzte** legeak, garizuma, lau-arao aldiak, bijili egunak, ostiralak eta larunbatak; gora ditzagun ere penitentziak, bai barrukoak bai agirikoak. Patxi Altuna

4 *jan uzte*

Jakietan behar da eduki **jan-uzterik** handiena eta beteena; zeren gai honetan suspergarriagoak baitira bai jangura neurritik irteten, bai tentaldia ikertzen; eta horregatik **jan-uztea** jakietan, gehiegikeria uzteko, bitara eduki daiteke: bata, jaki lodiak jaten ohituz; bestea, guriak badira, gutxika janez. Patxi Altuna

Horregatik, gehiegizko eta eramanezineko **jan-uzte** gogorrari ekin diozula jakin dudanez, erregu eta eske egiten dizut Jaunagan, ene laztana, utz dezazula zuhurki eta zentzuz laztasun hori. Askoren artean

5 *kargu uzte*

Alderdiak **kargu uzte** eta dimisiorik ez zuela eskatuko esan zuten ERCko ordezkariak. Berria - Harian

Kargu uzte horiek harridura sortu dute herrian. Herria

Beste pondu bat argitu beharko dena gisa guziz: nola egingen den **kargu uzte** hori. Herria

Prodik, aldiz, Berlusconiren **kargu uztea** «prozesuaren zati» dela esan du. Berria - Mundua

Kargu uzte horiek erran nahi ote dute Alain Juppé-k alde bat uzten duela politika? Herria

Askoren arrangura, ez luketela batzuk **kargu uztea** izenpetu behar eta beste batzuk azken puntan gibelerat egin. Herria

Herriko kontseiluan gelditzen direnak «harritu» egin ditu **kargu uzte** kolektibo horrek. Berria - Euskal Herria

uztear *adlag* uzteko zorian.

Astiro hurreratu zen atera; ohartu zen ezen gela hura -beren gela- betiko **uztear** zegoela. Patxi Zubizarreta

Hasi eta laster, ohi zen legez, **uztear** egon zen. Migel Angel Mintegi

Hitzartutako hogei minutuak bete aurretik prentsaurrekoa bertan behera **uztear** izan ziren Warner Broseko arduradunak. Berria - Kultura

Athleticekin azken kontratua luzatu aurretik taldea **uztear** egon zen, hain zuzen ere. Berria - Kirola

uztearren *adlag* uzteko.

Pausoan arrastorik ez **uztearren** naramate horrela. Koldo Izagirre

Hamida lagunekin hurreratzen ikusi zuen, eta baztertu egin zen haiei pasabidea **uztearren**. Patxi Zubizarreta

Etxekoandre zaharra, eta berdin amaren aldetiko amona, beti ari ziren esaka lehenbailehen hil nahi zutela, miseriazko mundu hau **uztearren**. Juan Kruz Igerabide

Zenbait ohar erantsi ditut hemen eta han, iritzi ezberdineko horiek ere pozik **uztearren**. Esteban Antxustegi

Jimmyk ibilera bizkortu zuen, kiratsa lehenbailehen atzean **uztearren**. Lopez de Arana

Merteuileko markesak, mendekuz, Volanges txikia seduzitzera bultzatzen du Valmont, Gercourt irrigarri **uztearren**. Markos Zapiain

Ni lotsagarri **uztearren**, edozer egingo lukeelakoan nago. Patxi Zubizarreta

uztondo *iz* landareen hondakina. ik *utzikin*.

Uztondoak suteen iturri. Berria - Euskal Herria

Han goian gaztelua, edo, behatokia aldatuz, portugaldarren kanpamentua orografia hautsi baten gainean, sakanak eta aldapak, olibadi barreiatuak, zenbait **uztondo**, arestian izandako suteen aztarnak. Jon Alonso

Nafarroan, **uztondoak** erretzean ez da bortz lagun egotea beharrezkoa izanen. Berria - Ekonomia

Suteak, hala ere, nekazariek **uztondoa** baimenik gabe erretzen dutenean gertatzen dira, batez ere. Berria - Euskal Herria

